


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

DOKTOREGO-TESIA

**“Errepublikak, Guda Zibila eta Frankismoa
tokiko eremu batean: Beasain”**

Jon Kortazar Billelabeitia

Zuzendaria: Mikel Xabier Aizpuru Murua

UPV-EHUren Historia Garaikideko Saila

2017

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	1
0. SARRERA.....	5
1. BEASAIN MENDE HASIERAN: 1900-1931.....	31
1.1. Beasain eta Gipuzkoaren industrialtzea.....	32
1.2. Beasaingo demografia eta hirigintza.....	41
1.3. Bestelako zerbitzuak eta elkarteak.....	45
1.4. Langile mobilizazioa.....	54
1.5. Mende hasierako politika Beasainen.....	59
1.6. Euskararen egoera.....	72
2. BEASAIN ERREPUBLIKA GARAIAN.....	77
2.1. 1931.eko apiril-maiatzeko hauteskundeak Beasainen.....	77
2.1.a. <i>Hauteskunde prozesuak.....</i>	77
2.1.b. <i>Hauteskundeak Gipuzkoan eta Beasainen.....</i>	82
2.2. Udala eta Udal-politika errepublikanoa Beasainen.....	89
2.2.a. <i>Alderdi politiko ezberdinak Beasainen.....</i>	95
2.3. Krisi ekonomiko-industriala Beasainen.....	120
2.3.a. <i>Demografia eta ekonomia arloak.....</i>	120
2.3.b. <i>Beasaingo Udalaren eta eragile ezberdinen erantzuna krisiari.....</i>	127
2.3.d. <i>Langileen mobilizazioa eta agitazioa.....</i>	138
2.4. Beasaingo Udala autonomia-proiektuen aurrean.....	148
2.4.a. <i>1931ko autonomiaren inguruko eztabaidak.....</i>	148
2.4.b. <i>1931ko ekaineko hauteskundeak.....</i>	152
2.4.d. <i>Gestoren Estatutua eta 1933ko erreferenduma.....</i>	157
2.5 1934ko gertakariak Beasainen.....	166

Aurkibidea

2.5.a. 1933ko hauteskundeak. Eskuineko Gobernu berria.....	166
2.5.b. 1934ko Udalen mugimendua.....	176
2.5.d. Beasaingo Udal-gobernu eskuindarraren gobernu-ekintza.....	183
2.5.e. 1934ko Iraultza Beasainen.....	187
2.6. Beasaingo Udalaren zerbitzuak.....	208
2.7. 1936ko hauteskundeak eta horiek Beasainen izan zuten eragina.....	214
3. ALTXATUAK BEASAINEN: UZTAILAREN 27KO GAU BELTZA ETA ERREPRESIOA.....	239
3.1. Gerraren hasiera.....	239
3.2. Estatu-kolpea Beasainen eta lehen egunak.....	245
3.3. Borrokaldia eta altxatuen sarrera.....	247
3.3.a. Beasain Defentsa-Komitearen pean.....	248
3.3.b. Beasaingo borrokaldia.....	271
3.4. Erailketak.....	291
3.4.a. Beasainen uztailaren 27tik 28ra hildakoak.....	291
3.4.b. Aklaratu gabeko, frogatu gabeko edota iturrietan agertzen diren Beasaindik kanpoko eraildako kasuak.....	345
3.4.d. Fusilatzeen eta ehorzteen tokia.....	351
3.4.e. Familien eta senideen erreakzioa.....	356
3.5. Bestelako berehalako errepresioa.....	359
3.5.a. Kartzelaratuak eta hurrengo asteetan hildakoak.....	360
3.5.b. Hurrengo egunetan hildakoak.....	366
3.5.d. Usategi baserriko heriotzak.....	371
3.5.e. Errepresio politikoa.....	372
3.5.f. Errepresio ekonomikoa.....	375
3.5.g. Emakumeen kontrako errepresioa.....	380
3.6. Beasaingo agintari frankistak.....	387

3.7. Beasaingo aginte frankistaren autozelebrazioa.....	403
3.8. Beasaindarrak Gudan.....	413
3.8.a. <i>Errepresioa frontean errepublikazale beasaindarren kontra.....</i>	420
3.8.b. <i>Altxatuen alde borrokatu zuten beasaindarrak.....</i>	424
4. GUDA OSTEA BEASAINEN (1937-1945).....	433
4.1. Sarrera.....	433
4.2. Beasaingo demografia eta ekonomia.....	438
4.3. Botere-guneak guda-osteko Beasainen.....	440
4.3.a. <i>Jose Luis Guridiren alkate-aldia.....</i>	458
4.3.b. <i>Martin Esnaolaren Eliceguiren alkate-aldia.....</i>	474
4.4. Tropekiko jarrera agintarien aldetik.....	486
4.4.a. <i>Militarren eta Udal-agintarien arteko harremana.....</i>	486
4.4.b. <i>Francoren bisitaldia Beasainera.....</i>	500
4.5. Errepresioa.....	503
4.5.a. <i>Heriotzak.....</i>	503
4.5.b. <i>Epaituak, kartzelaratuak eta langile-batailoietara eramandakoak.....</i>	513
4.5.d. <i>Erbestea.....</i>	533
4.5.e. <i>Umezurtzak eta oroimenaren desitxuraketa.....</i>	535
4.5.f. <i>Errepresio soziopolitiko eta kontrol soziala.....</i>	538
4.5.g. <i>Errepresio soziopolitikoaren ondorioak: Familien arteko harremanak eta biktimen oroitzak.....</i>	547
4.5.h. <i>Lan-errepresioa.....</i>	566
4.5.i. <i>Gosea, arrazionamendua eta estraperloa.....</i>	583
4.5.j. <i>Euskararen egoera.....</i>	597
5. ONDORIOAK.....	609
BIBLIOGRAFIA.....	621

0. SARRERA

Eskuetan duzuen lan hau egiteko ideia, Beasaingo Udalaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen arteko hitzarmen batetik sortu zen. Lanaren hasierako ideia, 1936.eko uztailaren 27an, uztailaren 18an Estatu-kolpea eman zuten jeneralen menpeko tropak Beasainera sartu eta bertan egin zuten triskantzaren inguruabarrak ikertzea izan zen. Hala ere, triskantza hori ulertzeko arrazoiak ikertuz, sarraskia abiarazteko arrazoiak Beasaingo aurreko osaketa soziopolitikoan aurkitzen ditugula ikusi izan dugu.

Gauzak honela, egun tesi honen zuzendaria denari, Mikel Aizpuru irakasleari, hasierako lana tesi bihurtzen laguntzeko eskatu nion; enfokea zabalduz, Beasaingo errepresioaren historia bat izan ordez, errepresioa nolabaiteko gune izango zuen Beasainen eraldaketa politiko sozialen historia bat izatera pasa zedin. Aldaketa hori ez zen prozesu xamurra izan ez baita gauza bera dibulgazio lan bat egitea eta lan akademiko bat egitea; hizkera, enfokea eta perspektibak ezberdinak izan behar dituzte eta. Hala ere, zailtasun orok aukera bat dakarrenez, erronkari heldu egin nion.

Lana tesi bihurtzeak, lanarekiko ikuspegia aldatu izan du, eta bestelako konparazio joko batzuetan sartzea derrigorrezko egin du. Hala, Gipuzkoa osoan gertatu izan diren prozesu ezberdinekin konparatu behar izan dut Beasaingo prozesua, bai modernizazio ekonomikoaren prozesuarekin (XX. mendeko lehen herenean), modernizazio politikoko prozesuarekin (Errepublikaren garaian), eta bai eta errepresio ezberdinen prozesuarekin (Guda Zibilean eta frankismoko urteetan).

Ekonomia, gizarte-arloa eta 1936.eko uztailleko triskantza batzeak, lan honen perspektibak zabaldu izan ditu. Izan ere, segituan konturatu nintzen Beasaingo herria II Errepublikaren aroan, Guda Zibilaren aroan eta erregimen frankistaren lehen urteetako aroan ez dela bakarrik goian azaldutako errepresioa eta honen muinean dagoen gatazka politikoa eta polarizazioa, baizik eta baita ere politikatik at bizitzen saiatu ziren herritarrak, edota alderdi eta fakzioen arteko borroka politikotik at sortu ziren gertakariak (edo eragin politikoa izan zuten arren, berez gertakari ez-politiko bezala abiatu ziren gertakariak), beasaindarren bizitza baldintzatu zutenak. Izan ere, badago historia idealizatzeko joera bat, iraganean pertsona oro alde batera edo bestera borrokatzeko prest aurkezten duena, garai haietako konfliktibitateak pertsona oro eta bizitzako momentu oro barnebilduko balu bezala. Honek ahantzi arazi egiten digu garai haietan bazegoela interes “utilitarioa” bere bizitzaren ardatz zuen jendea, politikatik at

bizi zena (soldata hobe bat lortzea, bere bizi baldintzak hobetzea, eguneroko beharrei aurre egitea). Halako jende hori, momentu batean, bere interesak politikan zeudela jabetu zitekeen, eta beraz politizatu egin zitekeen; edo ordea, politikatik at bizitzen jarraitu ahal izan zuen. Dударik gabe, II Errepublikaren aldia, bai Espainiar Estatutan, bai Euskal Herrian eta bai Gipuzkoan politizazio handiko aro bat izan zen, jendea ugari politikara bildu zelarik. Baina beste parte handi batetan, krisi ekonomiko handi batek markatutako aroa ere izan zen. Beraz, politizazio horretan, bai arrazoi “politiko-ideialistak” (Errepublikaren etorrera, erlijioa, aldaketa sozial batetarako esperantza, euskal autonomiaren auzia...) egon zitezkeen, baina baita ere arrazoi “utilitario-praktikoak” (langabezia edo lanaren galtzearen arriskua, prezioen gorabeherak, lurraren gaineko jabetzaren arazoa) eta abar.

Hala, politikatik at zeuden Beasaingo elkarteak eta sozializatzeko guneak ere ikertu nahi izan ditut: adibidez, talde soziokulturalak, kultura-taldeak, kirol-taldeak eta abar. Modu berean, Beasain beraren espazio geografikoa nola hazi den ere ikertu, etxebizitza berriak nola sortu ziren (kontuan izanik Beasainek XX mendearen lehen herenean bere populazioa bikoiztu baino gehiago egin zuela), Beasainen itxura nola aldatu zen, etxebizitza berri horiek nolakoak, ziren nork eraiki zituen eta zergatik eta abar. Beste alde batetik, beasaindarren ohituren sozializazio arazoak ere aldatzen ikusi ditugu, adibidez, garai haietan merkatuaren (asteroko azokaren) auzia dugu halako lekuko. Baita ere, garai haietantxe hasi zifren Beasainen lehen telefonoak, lehen dantza-lekuak, lehen farmaziak eta abarrak agertzen, horrek dudarik gabe, herritar guztien bizitzan aldaketa suposatu zuelarik.

Ekonomiarekin jarraituz, kontutan izan behar da Beasain Gipuzkoako herririk industrializatuenetako bat zela garai horretan, eta industrializazioan aurrekari bezala jokatu zuela. Beasain izan zen adibidez Gipuzkoako orduko fabrikarik handiena zuen herria eta baita ere Gipuzkoako lehen labe garaia izan zuen herria. Egia da, Gipuzkoako industrializatzeko-eredua ez zela izan Bilboko ibaiaren aroko herrietakoa bezain bortitza eta ez zituela berehalakoan antzinako bizimoduaren aztarna guztiak desagerrarazi, baina egia izan da Beasainen betiko bizimodua (edo behintzat beasaindar gehienena) betiko aldatu zuela, ohitura berriak, sozializatzeko-modu berriak, zerbitzu berriak (osasungintza sarea, eskola-sarea eta abar) eta abar ekarriz. Oso denbora-tarte txikian, Beasain “fabrikak zituen nekazal herri bat” izatetik, “ortuak eta baserriak zituen herri industrial”

bat izatera pasatu zen, eta uholde horrek, nahi ala ez, beasaindar denak edo ia denak ukitu zituen. Modu eta eragin-kopuru ezberdinean, jakina denez.

Garai horretako Beasaingo aldaketa sozialen berri izateko modu labur bat, Beasaingo demografiari erreparatzea da. Esan dugun moduan, Beasainen populazioa bikoiztu baino gehiago egin zen 1900.etik 1930.era bitartean. 1900ean ez zen Goierriko herririk handiena (Ataun zen), 2.000 biztanlera ez zen heltzen. 1930ean 5.000 biztanleen kopurua gainditu zuen. Beasaingo historian ez dago halako hazkundera erregistratu duen beste garairik. Beraz, hazkunde hori azaltzeko premia ere nabaritu izan nuen.

Jakina da, herri industrializatuek ematen dituztela politizazio eta gatazka kotarik altuenak (ez dugu esan nahi industrializazioaren aurreko harreman sozioekonomikoak dituzten gizarteetan gatazkarik ez dela ematen, baina ez hainbeste nortasun politikoetatik abiatuz egin izan ohi diren gatazkek), gizarte modernoaren ezaugarri gehien pilatzen dituzten herriak hauexek baitira. Honekin bat, Beasainen ideologia aurrerakoi edota moderno ezberdinak (errepublikanismoa, sozialismoa, abertzaletasuna) indar handiz sortu ziren gure herrian. Honek, perspektiba oso interesgarri bat eskaintzen digu, izan ere, halako ideologiaren agerpenak Guda Zibilaren hasieran herrian gertatutako sarraskia azaltzeko gakorik ematen digun ikertu ahal izan dugu (kontutan hartu behar da ideologia horiek eta beren jarraitzaileak frankisten jomugan egon zirela lehen momentutik).

1936ko triskantza aski ezaguna izan zen Beasainen, baina inguruabarren, ñabarduren eta xehetasunen inguruan zalantza batzuk zeuden: 34, 35 edo 36 izan ziren hildakoak? Zenbat gehiago hil zituzten hurrengo egunetan? Non hil zituzten? Zein modutan? Pertsona gehiago hiltzerik izan zuten? Sarraski honi buruz hitz egiterakoan egon izana baita fenomeno kurioso eta anbiguo bat: iturrien aniztasuna eta dispersioa hauen partzialtasunarekin elkarlotuta azaldu izan dira denboran zehar.

Kontutan izan behar da, era berean, lan honen hasieran nik nuen ideia, Beasaingo mota guztietako errepresaliatuak eta eurak jasandakoa biltzea izan dela. Hau da, beasaindarren kontrako errepresioa ez zen 1936.eko uztailaren 27ra eta honen osteko egunetara mugatu. Ondoren ere egon ziren hildakoak, kartzelaratuak, langile-batailoitik pasatutakoak... eta herrian bertan beste motatako errepresio bat, errepresio “soziala”

sufritutakoak. Gure lan honen helburuetako bat, dudarik gabe, hauen izenak gal ez zitezen izan da.

Arazo horiei irtenbide bat emateko hasi ginen lanean uztailaren Horretarako, iturri idatzietara zein ahozko iturrietara jo dugu. Azken iturri hauen gainean, bada komentatu beharreko zerbait: izan ere, lehen mailako lekukorik, hots, garai haiek bizi izan zituenik, gutxi aurkitu ditugu, Bere garaian Historia berreskuratzeko borondatea egon izan balitz, lehen mailako lekuko gehiago izango genituzke, eta iturri hau aberasgarriagoa izango zatekeen. Arazo hau behin eta berriz gogorarazi digute herritarrek.

Ahozko lekukoez, beste alde batetik, oroimena bera ikertzeko aukera ematen digute, hau da, oroimena tresna izan ordez “objektu” bezala ikertzeko ahalmena: honek zer nolako pisua izan duen familia ezberdinetan, nola baldintzatu dituen euren arteko harremanak, desitxuraketarik jasan izan duen... eta azkenik oroimen hau eta idatzizko iturrietan agertu izan dena konparatzea. Askotan, idatzizko iturri ezberdinek dituzten gabeziak betetzeko baliagarri ere izan zait. Beste alde batetik, orain arteko idatzizko iturrietan agertu ez diren gauza ugari ezagutzeko aukera eman dit: hilketen inguruko gertakariak nola izan ziren (presoren baten ihesaldia, atxiloketak, egun horretan ezarri zen kera-deia); herriko pertsona ezberdinen erreakzioa nolakoa izan zen, zer komentatzen zen egun horretan ... Eta zer esanik ez informazio objektibo berria ere lortu izan dugu iturri hauei esker. Honez gain, ahozko iturriek herritarrek eurak historia honen egile eta protagonista ere egin dituzte. Hemen erabili ditugun lan-metodoaz, ahozko testigantza ia guztiak (ados egon diren pertsonenak) grabatu ditugu eta honekin batera, testigantza hauek Beasaingo Udalarari entregatu dizkiogu, etorkizunerako gorde daitezkeen. Izan ere iturri bat erabiltzen duenak, iturri hori etorkizuneko ikerlarien esku jarri behar duela uste dutenatarikoa naiz, eta liburu bat edota dokumentu bat aipatu egin behar diren moduan, ahozko iturriak, momentuan “sortu” egiten diren iturriak, idatzizkoak bezain iturri direnez gero, iturri honen “froga” eman eta ahal baldin bada, etorkizunean, ikerketa berriendako, iturri hori erabiltzeko moduan utzi behar dela.

Ahozko iturrietatik jakindakoak, honez gain, lan honen beste arlo batzuetara salto egiteko aukera eman izan dit, horietako bat, adibidez, guda ostean Beasainen izan zen gose-egoera hobeto ezagutzeko aukera eman dit. Baita ere pertsona ezberdinen egunerokotasuna, familietan gertatzen zena, garai horretako bizi-baldintzak edota

ohiturak nolakoak ziren, eta abar. Modu honetan hasi zen zabaltzen lan honen hasierako gaia, Beasainen gertatutako edota beasaindarrek sufritutako errepresioa izatetik, Errepublika garaiko, Guda Zibileko eta frankismoaren lehen urteetako Beasaingo historia izan dadin.

Beraz, ikerketa akademiarako moldatzeko lana hartu nuen, honen bidez, ikuspegia are zabalagoa izan zedin. Izan nuen zalantzetako bat, tokiko historia landu izanak, zer nolako ekarpena suposa zezakeen izan zen. Hala ere, kontutan hartu behar dugu Beasain herri berezia dela. Alde batetik Beasain izan zen Gipuzkoaren industrializazioaren eta modernizazioaren motoreetako bat izan zelako eta, bestetik, errepresioaren inguruan Gipuzkoan salbuespen bat izan zelako gure ikerketagaia. Altxatuen tropak sartu eta berehala burutu zituztelako oso errepresio ekintza bortitzak. are) Bi gai hauek azaltzen eta nolabaitean konektatzen saiatu izan naiz.

Espero dut, lan honen bidez, hor azaldutako galdera horiei erantzunera hurbiltzeko modu bat eman izana, Beasainen historiari buruz argi pixka bat gehiago hedatu izana eta zientzia-komunitateari nire ekarpen-aletxoa egin izana. Hala bada, herri honi egindako kontribuzioaz harro egongo naiz.

Iturriak

Lan hau egiteko erabili izan ditudan iturriak anitzak izan dira. Kontutan hartu behar dugu lan honek duen ezaugarri nagusia arlo ezberdinetako lan bat izatea datzala, hau da, Beasaingo historia oso garai zein angelu ezberdinetatik aztertu izan dugula; eta hartara, iturri ezberdinekin egin dugula lan.

Lehenik eta behin, liburuak ditugu, noski. Lan hau egiteko bibliografia anitza erabili dugu, batez ere, arlo ezberdinei buruz aritu behar izan dugunean. Lehenengo hiru kapituluetan, batez ere, Beasaingo modernizazioari buruz aritzerakoan, Beasaini buruzko lanak¹ zein Gipuzkoari edo Euskal Herri osoari buruzkoak².

¹ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 59-60. or.; LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fábrica haundie*”. *Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996; LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain, Udalerrri gipuzkoar baten historia*. Beasaingo Udala. Beasain, 1987; LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Las crisis decimonónicas en Beasain” in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain. Udalerrri gipuzkoar baten historia* (247. eta hurrengo or.). Beasain, 1987; LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Transición de la sociedad preindustrial a una sociedad industrializada en el Goierri: La Fábrica de Hierros de Beasain” in *II Congreso Mundial Vasco-Congreso de Historia de*

Laugarren kapituluan, ordea, guda zibilari buruz aritu izan garelarik, lehenik eta behin, Beasaingo lanak erabili ditugu, 1936.eko uztailaren 26an eta 27an Beasaingo borroka nolakoa izan zen deskribatzen dutenak, edota uztailaren 27 eta 28 artean gertatutako sarraskiari buruzko datuak ematen dituztenak: hildakoen izenak eta hauei buruzko datuak, edota bestela, sarraski honen inguruko xehetasun batzuk argitzen dituztenak. Lan hauen artean kontutan izan behar dugu Juan Jose Garcia Urcelayetaren lana, zeina egilearen bizipenetatik abiatu zen³. Beasaingo errepresioari buruz beste lan batzuk ere kontsultatu ditut⁴. Bestetik, Guda Zibilean bertan, Euzko Jaurlaritzak idatzitako txostenetan ere datuak azaltzen dira⁵. Hala ere, egun horretan gertatutako sarraskiari buruzko lan oso baten falta nabari izan dugula ere azpimarratu beharrekoa dugu.

Euskal Herria (aktak), 85-97. or., Donostia, 1988 ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993.

² ARTOLA, Miguel (ed.): *Historia de Donostia-San Sebastián*. Nerea argitaletxea, Donostiako Udala eta BBVA fundazioa. Donostia, 2000; BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 163. or.; CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Siglo XXI. Madril, 1993; CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*. Madril, 1987; FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco. 1100-1850*. Siglo XXI. Madril, 1974, FUSI, Juan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975; GARAI BENGOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución, insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkarte. Oñati, 1934; GURRUTXAGA, Ander: *Estructura y progresos sociales en el País Vasco*. EHU. Euskal Herria, 1991; GARATE OJANGUREN, Montserrat eta MARTIN RUDI, Javier: *Cien años de vida económica de San Sebastián (1887-1987)*. Gipuzkoa Donostia Kutxaren gizarte ekintza. Donostia, 1995; LARRINAGA, Carlos: *Diputaciones Provinciales e Infraestructuras en el País Vasco durante el primer tercio del siglo XX (1900-1936). El caso guipuzcoano (puertos, ferrocarriles y carreteras)*. EHU. Bizkaia, 2013. LUENGO, Felix: *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa 1917-1923*. Bilbo, 1990; LUENGO, Felix: *San Sebastián. La vida cotidiana de una ciudad*. Txertoa. Donostia, 1984; MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Kutxaren Fundazio Kulturala. Donostia, 1994; VALVERDE, Dolores: *Historia de Guipúzcoa*. Txertoa. Donostia, 1984.

³ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: "Beasain: Una noche sangrienta (27-28 de julio de 1936)", in *Ikuska* aldizkaria, 3. zkia. (56-74. or.), 1993ko uztaila-iraila.

⁴ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995 (lan hau Beasaingo EAJren historia bada ere, bertan masakreak buruzko datuak ere agertzen dira); EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria*. (IV lib., *La Guerra en Gipuzkoa*). Aise liburuak. Andoain, 1999, 205-208. or. (lan hau Euskal Herri osoari buruzkoa bada ere, bertan, markatutako orrialdeetan, Beasaingo masakreak hildakoen zerrenda bat azaltzen da); EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 17. or (lan hau Jesus Larrañagaren biografia bat den arren, baditu bai Beasainen modernizazioari buruzko zein 1936.eko uztailaren 27ari buruzko hainbat datu), ELIZONDO, Mauro: "Beasain: una noche sangrienta (27-28 de julio de 1936)" in *Ikuska* aldizkaria, 4. zkia (43-53. or.), 1993ko urria-abendua; LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: "Gerra Zibila: Beasainen erorketa" in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain, Udalerrri gipuzkoar baten historia* (269-277. or.). Beasaingo Udala. Beasain, 1987.

⁵ *Euzkadi bajo el régimen de Franco: La represión en Guipúzcoa*. Eusko Jaurlaritzaren Artxiboa, Sancho de Beurko funtsa, 13 kutxa, 5 dokumentu-sorta, 5:1 zenbakidun dokumentua.

Baina beste alde batetik errepresioaren marko orokorra ere kontutan hartzekoa dugu; honi buruzko marko teorikoa eraikitzeko – konparaketa, erkatze, aldaratze edo testuinguratze bidez – ezinbestekoa baita. Errepresioari buruzko lanak hiru motatan sailkatuko ditut: lehena, tokiko lanek osatua, hau da Gipuzkoako beste herrietako Guda Zibilaren edota errepresioaren tokiko historia azaltzen dut lanek osatua; bigarrena, Gipuzkoako edo Euskal Herriko marko orokorra azaltzen dut lanek osatua; eta hirugarrena aldiz, Espainiako mailako errepresioaren historia azaltzen duten lanek osatua.

Lehen multzoari dagokionez, tokiko historiaren bidez, Beasainen egun horretan eman ziren dinamikak, arrazoiak eta errepresio-eskemak Gipuzkoako beste herrietan gertatu ote ziren baloratzeko baliagarriak izan zaizkit lan hauek: besteak beste, Ordiziako lana, berriki atera den Azpeitikoa, Tolosari buruzko lan ezberdinak, Legazpiri buruzkoa...⁶ Kasu batzuetan, adibidez, Zegamari buruzko Angel Irigorasen lanean, Beasaini buruzko zenbait datu aurkitu izan ditugu⁷; uztailaren 27 eta 28 artean hildako beasaindarretako hainbat pertsona, jatorri zegamarrekoak edota Zegaman familia zutenak baitziren. Bestetik, badugu Mikel Aizpuruk zuzendutako taldeak Hernaniri buruz eginiko lana, zeina arlo baten tokiko lanaren ezaugarriak baditu ere, beste alde batetik Gipuzkoa osoko datuak ere ematen dituen.

⁶ AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIOZOLA, Jon: *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Alberdania eta Hernaniko Udala. Hernani, 2007; ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014; BUCES CABELLO, Javier: *Azpeitia, 1936-1945* (2 liburuki). Azpeitiko Udala, Eusko Jaurlaritza eta Aranzadi Zientzia Elkarte. Azpeitia, 2016; ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa, 1936-1945* (3 liburuki). Tolosako Udala eta Aranzadi Zientzia Elkarte. Tolosa, 2013; ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel eta SAIZAR AROSTEGI, Joxemi: *1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*. Galtzaundi Euskara Taldea eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Tolosa, 2008; GUTIERREZ AROSA, Jesus: *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta*. Eibarko Udala eta Elgetako Udala. Eibar eta Elgeta; INTXORTA KULTURA TALDEA: *1936ko Gerra Bergaran*. Bergarako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Bergara, 2015; LASA BERGARA, Xabier: *Historia oral: La voz dormida en la memoria. El impacto de la Guerra Civil (1936-1939) en la vida social de un pueblo de Gipuzkoa*. Andoaingo Udala, Udalbiltza eta Aranzadi Zientzia Elkarte. Andoain, 2006; MENDIZABAL ARANBURU; Antxiñe: *II. Errepublikan Urretxun eta Zumarragan (1931-1936). Gerra Zibilaren atarian*. Urretxuko Udala, Zumarragako Udala, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoa Donostia Kutzaren gizarte fundazioa. Urretxu-Zumarraga, 1996; OKTUBRE TALDEA: *Arrasate 1936. Belaunaldi etena*. Autoedizioa. Arrasate, 1986.

⁷ IRIGORAS, Angel: *Herri zapalkuntzaren lekuko batzuk. 1936-2006 Lehen orain eta beti: Eskubide berdinak pertsona guztientzat*. Erroteta. Bizkaia, 2006. Hala ere, kontuan izan behar da Irigorasen lana batera prententsio zientifikorik gabe egindako lana dela, dibulgazio lan bat da. Lan honetan askotan egilearen politikari buruzko iritziak 1936.eko errepresioari buruzko datuen ondoan jartzen dira. Hala ere, esan bezala, gure lanerako baliagarria izan zaigu Beasaingo zenbait pertsonen inguruko datuek hala konkretatu ahal izan ditugulako.

Bigarren multzoari dagokionez, Gipuzkoan gertatu zenarekiko ikuspegi orokorrago bat dugu, honen bidez, Gipuzkoako errepresioaren eskemak, hauen kronologizatzea eta etapa ezberdinen arabera, Gipuzkoan eman izan diren errepresio-dinamika ezberdinen agertzea edo lehenestea azaltzen dutelarik. Gainera, kontuan izan behar da kasu honetan, garrantzitsua dela oso Gipuzkoarako oro har eman izan diren zifrekin kontrastatzea. Hemen, lan erreferentzialak Pedro Barrusorena eta Mikel Aizpurrena dira. Pedro Barrusok, azterketa oso bat egin izan du, Gipuzkoan gertatu ziren errepresio mota ezberdinak (bai errepresio iraultzailea eta baita ere errepresio frankista) disezcionatu izan baititu. hala ere, ahulgune bat badu: zifren estimazio oso kontserbakorra egin duela⁸. Bestetik, Mikel Aizpurren (Urko Apaolaza, Jesus Maria Gomez eta Jon Odriozolarekin batera) lanak ikuspegi oso bat ematen du errepresio frankistaz⁹. Azkenik, badugu dibulgazio-lan bat, Iñaki Egañarena. Egaña xehetasunezko lana egiten saiatu izan da, baina bere arazo nagusia (halako lan handiek izan dezaketen xehetasun-arazoak medio), lanean agertzen den teorizazio eta iturrien falta da¹⁰. Badaude baita ere, Gipuzkoan, errepresioaren bizipen pertsonaletik abiatutako zenbait lan¹¹; edota guda Guda Zibilean zentratutakoak¹².

Euskal Herriko egoerari buruzko lanen inguruan, besta batzuen artean badugu Jose Migel Barandiaranek egindako bilduma, testigantza pertsonaletan oinarritutakoa¹³. Iñaki Egañaren *Los crímenes de Franco en Euskal Herria* deitutakoa. Hala ere, Euskal Herriari buruzko ikuspegi globala duten lanak, gehiago zentratzen dira gudan,

⁸ BARRUSO BARES, Pedro: *Verano y revolución. La guerra civil en Guipúzcoa*. R & B. Donostia, 1996; eta BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*. Hiria. Donostia, 2005.

⁹ AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIOZOLA, Jon: *op. cit.*

¹⁰ EGAÑA, Iñaki: *op. cit.*

¹¹ ASKOREN ARTEAN: *Cómo mueren los vascos. Testimonios póstumos de fusilados en Euzkadi por los invasores franquistas*. Eusko Jaurlaritz. Gasteiz, 2009; JIMENEZ DE ABERASTURI, Luis Maria eta JIMENEZ DE ABERASTURI, Juan Carlos: *La Guerra en Euzkadi* (hainbat testigantza biltzen dituen lana). Txertoa. Andoain, 2007 (3. Argitalpena); MENDIZABAL, Jose Manuel; LASA, Jose Luis; eta AGIRRE, Fernando: *Gudaris y rehenes de Franco (1936-1943). Diarios*. Alberdania. Zarautz, 2006. PELLETIER, Jean: *Seis meses en las prisiones de Franco. Crónica de los hechos vividos*. Madril, 1937.

¹² CHUECA, Josu eta FERNANDEZ, Jose Luis: *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian*. Euskaldunon Egunkaria. Andoain, 1997; DE LA GRANJA, Jose Luis: *República y Guerra Civil en Euzkadi. (Del Pacto de San Sebastián al de Santoña)*. HAEE-IVAP. Oñati, 1990; GARITAONANDIA, Carmelo eta DE LA GRANJA, Jose Luis (ed.): *La Guerra Civil en el País Vasco. 50 años después*. EHU. Bizkaia, 1987; URGOITIA, Jose Antonio: *Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi peninsular*. (I lib., I parte: *La caída de Guipúzcoa*), (193-233. or.). Sendoa. Oiartzun, 1984.

¹³ BARANDIARAN FUNDAZIOA: *Jose Miguel Barandiaran. Diario personal. Volumen II (1936-1953). Durante los años de su exilio en el País Vasco continental*. Barandiaran Fundazioa. Atauri, Gipuzkoa, 2009; BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi* (351-353. or.). Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafra (Lapurdi), 2005.

errepresioan baino¹⁴. Bai guda eta bai errepresioa lotzen dituen lan bat egin zuen Iñaki Egañak, hainbat tomatan, *La Guerra Civil en Euskal Herria* izenekoa¹⁵. Iñaki Egañaren lanen arazo nagusia, errepresioaren inguruko kategorizazio falta izan ohi da; hala ere lan hauek badute meritu bat, herriz herri nolabaiteko erreferentziatzat balio duten zerrendak egin ahal izatea. Beste alde batetik, badugu Aranzadi Zientzia Elkarteak errepresioari buruz atera zuen lan kolektibo bat; Mikel Errazkinek eta Joantxo Agirrek koordinatutakoa¹⁶. Beste lan bat, baina kasu honetan “Iparraldeko Fronteiri” (Euskal Herriari, Kantabriari eta Asturiasi) dagokiona, Joaquin Roderok, Juan Morenok eta Jesus Castrillok zuzendutakoa da; errepresioari ikuspegi historikoa emateaz gain, juridikoa ere ematen diona¹⁷. Azkenik, derrigorrez, frankismoan, lehen aldiz erbestean ateratako lan bat aipatu behar dugu (nahiz eta gero 1978.ean berrargitaratu zen). Lan honek, berez Espainiako Guda Zibila izan badu markotzat, Euskal Herrian bereziki zentratzen da. Juan Jose Usobiaga, “Juan Iturralde” beasaindarraren lana dugu, *La Guerra de Franco. Los vascos y la Iglesia* deitutakoa¹⁸.

Espainiar Estatuari buruzko lanetan, asko aurreratu izan da azkeneko urteetan, bai zifrei dagokienez, eta baita ere, marko teorikoak sistematizatzerakoan. Egun, tokiko lanen argitalpena gora doanez, argazki beteagoa atera daiteke errepresio frankistaz (eta baita ere, ezkerreko errepresioaz). Hala ere, esan beharra dago errepresioari buruz oro har hitz egiten dutenen artean egon badagoela halako eztabaida handi bat egile ezberdinen artean, eta ez bakarrik zifrak direla eta. Egun, Espainiako historialarien artena, eztabaida historiografiko dinamikoak eman izan dira errepresioaren inguruan; bai errepresioaren faseak bereiztearen inguruan, zein errepresio bien (errepresioa gorriaren eta errepresio urdinaren) arteko ezberdintasunak bereiztean, zein bi errepresioen arteko harremana (“erantzute dinamika”, esaterako) ezagutzean.

Memoriaren inguruan, nolabait, trantsizioaren ikuspegia ordezkatzeko duen egilerik ezagunena Santos Julia dugu. Honek, zuzendutako lan batean, *Víctimas de la*

¹⁴ BELDARRAIN, Pablo: *Historia crítica de la guerra en Euskadi (1936-37)*. Intxorta Kultur Elkarte. Oñati, 2012; URGOITIA, Jose Antonio: *Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi peninsular*. Senda. Oiartzun, 1984.

¹⁵ EGAÑA, Iñaki: op. cit., 205-208. or.

¹⁶ ERRAZKIN AGIRREABALA, Mikel eta AGIRRE MAULEON, Joantxo (ed.): *1936ko Gerra Euskal Herrian. Historia eta Memoria*. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2009.

¹⁷ RODERO, Joaquin; MORENO, Juan; eta CASTRILLO, Jesus (ed.): *Represión franquista en el Frente Norte*. Eneida. Leon, 2008.

¹⁸ ITURRALDE, Juan: *La Guerra de Franco. Los vascos y la Iglesia* (2 liburuki). Donostia, 1978. Liburu honen originala, *La cruzada de Franco* izenburuarekin atera zen, eta lau liburuki zituen.

Guerra Civil liburuan, data eta izen bilketa handia egin izan du, nahiz eta data kontutan hartuta, agian pixka bat zaharkituta geratu den, ikerketa berriak atera dira eta¹⁹. Santos Juliari eginiko kritikarik handiena, “bi aldeen krimenak” modu berean ikertzea izan da, alde bakoitzean gertatu ziren dinamikak kontutan hartu gabe eta bien arteko ezberdintasuna koantitatiboa kontutan hartu gabe²⁰.

Errepresio gorriaren eta urdinaren arteko bereizketa egiten duten lanetan adibidez, erreferentziazkoa da Francisco Espinosa Maestrek zuzendutako lana, *Violencia roja y azul*²¹. Espinosa Maestrek oso ibilbide luzea du bortizkeria frankista ikertzen, lehenbizi Andaluziako eta Extremadurako tokiko lanak egin izan ditu, gerora Espainia osoko mailan aplikatu zuen metodo berritzailea ezartzen lagundu izan diotenak²². Beste lan batzuen artean aurkitzen ditugu, adibidez; Julio Prada Rodriguezen lana, Santiago Vega Sombriarena eta Mirta Diaz Balartena. Hiru kasuetan, errepresioaren atal koantitatiboak aztertzeaz gain, aspektu koalitatiboak eta sozialak ere aztertu izan dituzte, adibidez, beldurra eragitearena, edota tresna politiko gisa erabiltzeko nahiarena²³. Bestetik, kontzentrazio-eremuen inguruan, baditugu baita Javier Rodrigok eginiko ikerketak²⁴.

Bi ildo hauen arteko eztabaida oso gogorra izan da, eta Guda Zibilean gertatutakoaren mugak gainditu ditu, askotan kontzeptu juridikoen erabilera

¹⁹ JULIA, Santos (koord.): *Víctimas de la Guerra Civil*. Temas de hoy. Madril, 1999.

²⁰ Bi aldeak parekatzeko saiakera honetan, Francisco Espinosa Maestren ustez, Trantsizio garaian eman zen “berradiskidetze paktuaren” mitoa salbatzeko ahalegin ideologiko bat egongo zitekeen. Espinosa Maestren arabera, Santos Julia “ez da ez Guda Zibilaren ez errepresioaren arloko espezialista bat”. Ikus ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “De saturaciones y olvidos. Reflexiones en torno a un pasado que no puede volver a pasar” in *Hispania Nova. Revista de historia contemporánea* aldizkari digitala. 7. zkia., 2007. Arre gogorrako jotzen du Espinosak beste artikulua honetan: ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “La guerra en torno a la historia que ha de quedar” in AROSTEGUI, Julio; MARCO, Jorge; eta GOMEZ BRAVO, Gutmaro (koord.): *De Genocidios, Holocaustos Exterminios... Sobre los procesos represivos en España durante la Guerra Civil y la Dictadura* in *Hispania Nova. Revista de historia contemporánea* aldizkari digitala. 10. zkia., 2012. Azken honetan, “desagertuen” kategoriarekiko ezjakintasuna ere leporatzen dio Juliari. Juliarekiko ikuspegi ongariago bat ematen du Santiago Vega Sombriak: VEGA SOMBRÍA, Santiago: *La política del miedo. El papel de la represión en el franquismo*. Critica. Bartzelona, 2011, 18-19. or. Vega Sombriaren arabra, Santos Juliak koordinatutako lana aintzindari izan zen errepresio frankistaren mapa bat egiteko eta ordura arteko historiografia frankistak ontzat emandako zerbaki bidez eraikitako ikuspegi desitxuratua desmuntatzeko.

²¹ ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950*. Critica. Bartzelona, 2010.

²² ESPINOSA MAESTRE, Francisco: *Guerra y represión en el Sur de España. Entre la historia y la memoria*. Valentziako Unibertsitatea. Valentzia, 2010.

²³ PRADA RODRIGUEZ, Julio: *La España masacrada. La represión franquista de la guerra y posguerra*. Alianza argitaletxea. Madril, 2010; NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: *La gran represión. Los años de plomo del franquismo*. Flor de Viento argitaletxea. Bartzelona, 2009; VEGA SOMBRÍA, Santiago: op. cit.

²⁴ RODRIGO, Javier: *Cautivos. Campos de concentración en la España franquista, 1936-1947*. Critica. Bartzelona, 2005.

(“desagertuak” egon baziren ala ez, “genozidioa” bazen ala ez), edota Trantsizioaren aroan Gobernu ezberdinek oroimenaren inguruan izan duten politika eztabaidagai izan direlarik. Ildo hauen arteko eztabaida-gune nagusia *Hispania Nova* aldizkari digitala izan da; eta eleka-arrazoiak batez ere hiru izan dira: oroimenaren berreskurapena, Trantsizioan zehar helburu honen alde egindako politika eta guda zibilean gertatu zen bortizkeria.

Lehenaren inguruan historia eta oroimenaren arteko dialektika dugu nagusi. Alde batetik, Pedro Ruizek oroimenaren berreskurapenaren aldeko posizioa mantentzen du. Bere ustez, “oroimenaren alderdikeriaren” inguruko diskurtsoak, sektore eskuindar edo neofrankistetatik bultzatzen dira soilik Guda Zibilaz hitz egiterakoan, Espainiaren historiako bestelako gertaerak oroitzerakoan “historia bere neurrian jarri” bezalako adierazpide neutroak erabiltzen direlarik²⁵. Bestetik, Santos Juliak, posizio hau ihardesten du, historiaren oroimenarekiko autonomia mantentzearen alde eginez. Juliak dionez, oroimena norbanakoarena da, ez kolektiboa, ez bada instituzioen arabera bultzatutakoa, proiektu politiko bat azken finean. Egile honen arabera, beraz, oroimen historikoa berreskuratzeko saiakerak, eta saiakera honen aztarna jarraiki argitaratu liburuak, kutsu alderdikoi batez trufatuak dira²⁶. Francisco Espinosa Maestreren ustez, bestalde, “iragana ahaztearen” aldeko posizioak dira benetan arriskugarriak²⁷. Espinosa Maestrek salatzen duenaren arabera, trantsizioan zehar egindako “ahantzuraren politikek”, Guda Zibilaren inguruko ulermena zaildu egiten dute²⁸. Espinosaren arabera, oroimen kolektiboa aldarrikatu beharreko zerbait da, batez ere, ezagutzaren bidez erreparazioa lortzeko eta hala “bi aldeetako biktimen aldeko benetako berdintasuna eman dadin”. Finean Ruiz eta Espinosa “historia” eta “oroimen” kontzeptuak lotzearen edota identifikatzearen aldekoak dira, Santos Juliak bien arteko bereizketa argi bat proposatzen duelarik.

Bigarrena, Trantsizioaren inguruko eztabaida da. Hemen, garai honetan egin ziren politikekin nahasirik bestelako kontzeptu politiko-ideologikoen eta hauen zilegitasunaren inguruko eztabaida aurkitzen dugu. Alde batetik, Trantsizioan egin izan ziren politiken inguruan Pedro Ruiz Torresek esaten duenaren arabera, praktikoki

²⁵ RUIZ TORRES, Pedro: “Los discursos de la memoria histórica en España” in *Hispania Nova. Revista de historia contemporánea* aldizkari digitala, 7. zkia., 2007.

²⁶ JULIA, Santos: “De nuestras memorias y de nuestras miserias” in *Hispania Nova. Revista de historia contemporánea* aldizkari digitala, 7. zkia., 2007.

²⁷ ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “De saturaciones y olvidos...”, op. cit.

²⁸ ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “La guerra en torno a la historia..”, op. cit.

apenas zen argitaratu publikazio zientifikorik. Izan ere gaia ez zen praktikoki aipatu ere egin²⁹. Bestetik, Francisco Espinosak beste artikulua baten esan zuenez, Trantsizioan oroimenaren inguruko politika “ahantzuraren politika” izan zela esanaz; honetarako hiru argudio nagusi jarri: artxibategiek itxita jarraitu zutela, 1977.eko Amnistiaren Legeak bi bortizkeriak parekatzen zituela, eta bestetik, desagertuen inskripzioak egiten errazteko Estatuak batere beharrianik hartu ez zuela³⁰. Santos Juliak, ordea, nolabait Trantsizioaren defentsa egiten du. Juliaren arabera, trantsizioan hainbat eta hainbat aurreratu zen bai “oroimena berrekuratzeko” (komatxoaren artean jartzen dut, ezen Juliak zalantza handiak ditu “oroimen” kontzeptuaren inguruan) eta batez ere, Guda Zibilaren ondaretik “askatzeko”, hau da, hauxe atzean uzteko. Beraz, Juliak, bere posizioa trantsizioaren “berradiskidetze nazional” kontzeptuarekin lerroz-lerro jartzen du, eta bestetik, bere kritikoei, oroimenaren politikarekin aitzakiarekin berradiskidetze hori eta trantsizio politiko bera deslegitimatzen saiatzea leporatzen die³¹. Bestalde, Francisco Espinosaren arabera, trantsizioa zilegiztatzeko duten alderdiak (eskuinekoek zein ezkerrekoak), eurek egindako trantsizioa “demokraziaren abiapuntutzat” ezartzen dutelako. Hori dela eta, trantsizioaren eztabaidazintasuna, Espinosa Maestrek Errepublikaren balorapen negatiboarekin lotzen du, eta beraz, Errepublika “benetan demokratikoa ez zela”, edo “nahitaez Guda Zibilera bideratua zegoela” pentsatu arazteko saiakerekin³². Ruiz Torresek, bere aldetik, Juliaren argudioei beste ihardespun bat ematen die: “konfrontazioa ez zabaltzearen izenean ezin bada trantsizioa auzitan jarri, orduan zergatik hedatzen da hau Errepublikaren inguruko edozein balorazio positibo isiltzera?”³³.

Eta azkenik, bortizkeriaren arazoa dugu, honi nola deitu, edota bortizkeria bakarra, edo bortizkeria ezberdinak egon zirelaren inguruko eztabaida. Honen inguruan Espinosa Maestrek bilorik gabe hitz egiten du, eta Espainian “Argentinan eta Txilen, bietan batera egon zen baino hildako kopuru handiagoa izan zen altxatuen aldetik” dio. Bere arabera, “Guda Zibil” kontzeptuak soilik Espainia erdian gertatu zenari egiten dio erreferentzia, beste erdian gertatu zena “genozidioa” zela deritzolarik. Beraz, Francisco Espinosaren arabera, ezin esan daiteke “bi aldeetan berdina gertatu zenik”, inondik

²⁹ RUIZ TORRES, Pedro: op. cit.

³⁰ ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “De saturaciones y olvidos...”, op. cit.

³¹ JULIA, Santos: “De nuestras memorias...”: op. cit.

³² ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “De saturaciones y olvidos...”, op. cit.

³³ RUIZ TORRES, Pedro: op. cit.

inora ere ez³⁴. Pedro Ruiz Torresek ere, bortizkeriaren “berdintze-saiakerak” (*bi aldeak gaiztoak ziren, gaiztotasunean parean zeuden*), trantsizioaren politikarekin lotzen ditu, trantsizioa benetako berradiskidetze prozesu bat izan bazen, orduan bi aldeak “berdintsuak” zirelako izan zen, hau da, biek erru-karga antzeko batez libratzeko beharra ikusi behar izan zutelako, betiere, trantsizioaren kontakizun ofizialaren arabera³⁵. Bestalde, Juliaren arabera, orain arriskuri handiena, Guda Zibilean ezkerren biktimak izan ziren pertsonak ahaztea izango zatekeen, hau da, bigarren “memoria ofizial” bat ezartzea, bortizkeriaren alde bat isilaraziko zukeena³⁶.

Honekin bat badugu beste joera bat, ildo errebisionistakoa. Nahiz eta egun ildo honek proposatutako hipotesi gehienak ihardetsiak izan, aipatu beharra ikusten dut. Joera hau gehienetan soilik errepresioaren aspektu koantitatiboetan zentratzen da, bi aldeek euren aldeko elementuek egiten zituzten gehiegikerien aurreko erreakzioaren desberdintasuna kontutan izan gabe, edo errepresioaren mekanismoa eta honek boterearen hierarkiarekin zuen harremana kontutan hartu gabe. Ildo honetako lanek, nolabaiteko “eboluzioa” izan dute, hasiera batean, “bietan egon zen errepresioa, halere, zonalde gorrian handiagoa” esatetik, “Bietan antzeko errepresioa egon zen” esatera pasatu baitira, baina betiere altxatuekiko nolabaiteko justifikazioa aurkeztuz; izan ere askotan Espainian ezkerren aldetik iraultza bat martxan zegoenaren axiomatik abiatzen dira, beraz Guda Zibila demokratikoki ezarritako Gobernu baten kontrako altxamendua zela ezkutatzuz. Hauetan, Ramon Salas Larrazabal³⁷ edo Ricardo de la Cierva³⁸ dira ezagunenak; baina badago baita bere lanei itxura zientifikoago bat ematen dionik, Angel David Martin Rubio adibidez³⁹.

Garaiko lehen mailako iturriak artxibategietan eta garaiko prentsan aurkitu ditugu. Artxibategiei dagokionez, bai Udal ezberdinen artxibategiak (Beasaingoa nagusiki, baina bata ere Ordiziakoa edo Eibarkoa) bisitatu izan ditut. Gipuzkoa mailan, Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Forala edo Oñatin dagoen Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala bisitatu izan ditut. Artxibo pribatuak ere bisitatu izan ditut, adibidez, Aranzadi Zientzia Elkartearen Artxiboa, Donostian dagoena. Gipuzkoatik

³⁴ ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “La guerra en torno a la historia...”, op. cit..

³⁵ RUIZ TORRES, Pedro: op. cit.

³⁶ JULIA, Santos: “De nuestras memorias...”, op. cit.

³⁷ SALAS LARRAZABAL, Ramon: *Pérdidas de la guerra*. Planeta. Bartzelona, 1977.

³⁸ DE LA CIERVA, Ricardo: *Nueva y definitiva historia de la guerra civil española*. Epoca. Madril, 1986.

³⁹ MARTIN RUBIO, Angel David: *Paz, piedad, perdón... y verdad. La represión en la guerra civil: una síntesis definitiva*. Fenix argitaletxea. Toledo, 1997.

aterata, Bilbon dagoen Irargi Eusko Jaurlaritzaren Artxiboa ere bisitatu izan dut. Eta Espainian, batez ere Ferrolen dagoen Ipar-mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra bisitatu dut, bertan epaiketa militarren bilduma baitago. Bestalde, Avilako Artxibo Militar Orokorretik ere datu batzuk lortu izan ditut, Beasaingo borrokaldiari buruzkoak. Ez dut ordea, Beasain altxatuen alde hartu zuen Arapiles batailoien artxiboa (Aragoiko Mendi-Tropen Buruzagitzaren pe dagoena) ikusterik izan. Azkenik, kontutan izan behar ditugu baita ere sarean dauden artxiboak, Euskal Memoriaren data-basea bezalakoa, eta Eusko Jaurlaritzak egin zuen biktimei buruzko txostena; azken honek, akatsak akats, Beasainen bai egun hartan zein aurrerago hil zituzten pertsonen zerrenda bat baitakar, arrastoaren gainean jarri izan nauena.

Artxibategien artean, horietako bi izan ditut ardatz: Beasaingo Udal Artxiboa eta Ferrolgo Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra; oso arrazoi ezberdinengatik bada ere. Beasaingo Udal Artxiboak, tokiko bizitzari buruzko informazio asko topatu dut, Beasaingo zerbitzuei buruz, Beasaingo udal ekonomiari buruz eta oro har Beasaingo arlo ezberdinetako gertakariei buruz (langabeziari buruzko datuak, ekonomiari buruzko datuak, alderdien fundazioa eta ekitaldi ezberdinak, elkarre ezberdinen agertzea, Udal bileren aktak, krisiari irtenaldia emateko datu bilera ezberdinen aktak, eta abar). Baita ere, guda osteko egoera kaskarrari buruzko zeharkako datuak. Beste alde batetik, errepresioari buruz, Beasaingo artxiboan agertutako datu batzuk oso baliagarriak izan zaizkit; hain zuzen ere Beasaingo Batzorde Txostengileak (Francoren erregimenaren peko Udalak izendatutako hiru pertsonen osatutako batzorde bat) Beasaingo herritar ezberdinei buruz idatzitako txostenek Beasaingo herritar jazarrien mapa orokor bat egitea ahalbideratu izan dutelako.

Ferrolgo Artxibo Militarri esker, Beasainen epaitutako pertsonen buruzko datuak handitzeko eta hauek kartzelatik egindako “ibilbide errepresiboaren” arrastoa jarraitzeko gai izan naiz. Ferrolen epaiketa militarra jaso zituzten pertsonen espedienteak aurkitu ditut, eta horien bidez errepresioari buruzko argazki oso bat egiteaz gain, errepresaliatu bakoitzak Beasainen izan zuen ardurei buruz ezagutza gehiago izateko aukera izan dut. Presoen estatistika egiteko oso artxibategi baliagarria da. Hala ere, kontuan izan behar da han dagoen informazioa, epaitegi militar frankisten dokumentazioa dela, non epaiketak batere berme gabekoak izaten ziren eta horrez gain, epaitua askotan egin zuenagatik baino bere iraganagatik edo izaeragatik epaitzen zela. Hori dela eta, halako kasu bitxietan askotan ez akusatzaileek, ez akusatuak, ez lekukoek

ez dute egia osoa esaten, beraz, nolabaiteko kontuz hartu behar dira han aurkitutako zenbait informazio; oro har, fidagarriagoa da kuantitatiboki kualitatiboki baino.

Artxibategi hauez gain, beste artxibategi batzuetan ere aurkitu izan ditugu datuak, hemen aurkitutakoa osatu dezaketenak. Adibidez, errepresioari buruz, esan dugu Beasaingo Udal Artxiboan bertan ere, zenbait zantzu aurkitzen ditugula, eta datu hauen Ferrolen aurkitutakoarekin gurutza daitezkeela. Honetan, beste artxibategi garrantzitsu bi Aranzadiren Artxiboko datu-basea, non preso beasaindarren kontrako sententzia guztiak aurkitzen diren, eta Gipuzkoako Artxibo Historiko-Probintziala (Oñati) ditugu, azken honetan Ondarretako kartzelatik pasatutako presoek fitxak dituztelarik. Eusko Jaurlaritzaren irargi artxibategia ere kontuan izan behar dugu, hemen Eusko Jaurlaritzak errepresioari buruz egindako zenbait txosten aurkitzen baitira.

Irargi artxiboarekin jarraituz, han badago gudariei buruzko informazioa, batailoi ezberdinen nominak kontserbatzen baitira. Bestetik, *Euskal Memoria* erakundearen atarian hildako gudari beasaindarren zerrenda bat ere badago (zenbait akats azaltzen badituen arren, gero egiaztatu dugu hori).

Bestetik, Beasaingo bizitza soziala, ekonomikoa eta politikoari buruzko datuak osatzeko, Ordiziako eta Eibarko Udal Artxiboetara jo dut, eta batez ere Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorrean, non II Errepublikan Beasainen egin ziren hauteskundeek inguruko datuak bildu ditudan.

Erabili dudan beste iturri bat, egunkarietan aurkitzen da. Garaiko prentsa, oro har osagarri bezala erabili dut, garaiko berriak baieztatzeko edo hauen inguruko ñabardurak egiteko, eta baita ere, orduko berriak garaiko perspektibarekin nola hartu ziren jakiteko (adibide bat: 1936.eko uztailaren 27an sartu ziren altxatuak Beasainen, baina Donostiako prentsak horren berri ez zuen eman egun batzuk pasatu arte). Hainbat egunkari kontsultatu ditut, batez ere hauteskundeek inguruko berriak, edota 1934.eko iraultzan gertaturikoak zirela eta 1935.eko uztailan beasaindarren kontrako epaiketa jarraitzeko.

Baina esan bezala, lan honetarako oso garrantzitsua izan den dira, ahozko iturriak; ez soilik aztertu izan ditugun etapa ezberdinei (II Errepublikari, Guda Zibilari, guda-ondoari) buruzko lekukotza eman izan dutelako, baizik eta arlo ezberdinak jorratu izan dituztelako, eta modu honetan, lanari osotasuna eman diotelako. Lan honetarako,

guztira 45 elkarrizketa egin ditugu, bai euskaraz zein erdaraz, kopuru bertsuan. Ahozko testigantza hauek, lehen esan bezala, lan honetarako giltzarria dira, ez soilik *orain*, lan hau egiteko baliagarri izan den informazioa eman dutelako, baizik eta baita, oroimen hau gehiago gal ez dadin lagundu dutelako; modu honetan iturri berri bat sortu dugularik; etorkizuneko ikerlariek zein herritarrek erabili ahal izango dutena⁴⁰.

Egun, ahozko iturriak erabiltzea, gero eta zabalduago dago historian. Moduren batean, esan dezakegu historiografiaren oralizazio baterantz mugitzen hasi garela, batez ere 80. hamarkadatik hona, hasiera batean, Miren Llonak esaten duen moduan “historia akademikoan bide egiteko zailtasunak izan baziren ere” (Pilar Diazek honi salbuespen bat jartzen dio: Estatu Batuak. Hala ere Sanchezen arabera, akademiaren “objektibotasunaren kaltea” aipatzen zituzten arrazoiak atzean, historiaren demokratizazioari beldurra zegoen⁴¹). Kurioski, interpretazio honekin ezkontzen da Santos Juliak dioena, “historiagilearen autonomia” defendatuz “Oroimen historikoaren mugimenduaren” aurrean, hau da, historia egiten beste agenteekiko bereizketa defendatuz⁴²). Llonak iradokitzen duenaren arabera, iraganean, akademiatik ahozko historiarekiko izan den mespretxua, hauxe “bizipenekin” lotuta egon zelako, izan zitekeen, hau da, “oroimenarekin”, beraz subjektibitatearekin⁴³. Baina Shlomo Sandek esaten duen moduan, gizakiengan, eta baita ere historialariengan, norberaren memoriak pisu handia du pertsonarengan, izan ere, bere karrera edota arrazionaltasunean (nolabait esateko) diskurtsoaren iharduera baino lehenagokoa da, eta halako diskurtsoak baldintzatu egiten ditu (Sanden kasuan, adibidez, Estatu-ideologiak moldatutako memoria kolektiboak berarengan sortutako hasiera batetako nazionalismo israeldarra du buruan)⁴⁴. Izan ere, Miren Llonak esaten duen moduan, oroimena ez da estatikoa edo zurruna den zerbait, dinamikoa ere bada, gauzei edo gertakariei eman beharreko esanahi berriak produzitzeko modu bat ere bada; eta ez hori bakarrik, subjektu berriak eratzeko

⁴⁰ Ahozko artxibategien garrantziari buruz: JOUTARD, Philippe: *Esas voces que nos llegan del pasado. Fondo de cultura económica*. Mexiko Hiria, 1986, 284-317. or.

⁴¹ DIAZ SANCHEZ, Pilar: “Las fuentes orales y su contribución a la renovación de la historia de España” in LEONE, Santiago; eta MENDIOLA, Fernando (koord.): *Voces e imágenes en la historia. Fuentes Orales y Visuales: Investigación histórica y renovación pedagógica* (37-52. or). Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea, 2005, 39. eta 44. or.

⁴² JULIA, Santos: “De nuestras memorias...”, op. cit.

⁴³ LLONA, Miren (koord.): *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*. EHU. Bilbo, 2012, 9-11. or.

⁴⁴ SAND, Shlomo: *La invención del pueblo judío*. Akal. Madril, 2014, 24-25. or.

prozesuan parte hartzen duen funtsezko ezaugarria ere bada⁴⁵. Honi lotuta, Juan Sisinio Perezek bestelako enfoke bat ematen du, izan ere, egun ikusgarritasunaren eta mediatizazioaren aroan bizi garenok, objektibotasunaren eta subjektibotasunaren arteko eztabaida, jada gaindituztat eman dezakegu edo behintzat gainditze bidean eman dagoela ikus dezakegu. Hori dela eta, Juan Sisinio Perezen aburuz, egun ahozko historiak iturriak eraikitzaera (konstruktibismoa) eta hauek elkarren arteko harremanean jartzera jotzen du. Bestalde, Perezen ustez, egungo teknologia berriek, ahozko historiarako baliagarriak izan daitezkeen iturrien ugaltzea suposatzen dute (grabaketak, ordenagailuak, Interneteko bideoak), hori dela eta, ahozko historiak geroz eta garrantzi handiagoa hartuko duela uste dui⁴⁶.

Paul Thompson bezalako historiagile batek, ahozko historiaren agerpena batez ere langileen eta behartsuen kulturarekin eta lan munduaren eboluzioarekin (eta hauen berreskurapen zientifikoarekin) lotzen du ahozko historiaren baliagarritasuna⁴⁷. Miren Llonak, bere aldetik, ahozko historiaren balorazioa, 80. eta 90. hamarkadetan meta-kontakizunek, eta beraz, ziurtasun handiek izan zituen krisiarekin lotzen ditu, eta beraz, subjektu ezberdinen loratzearekin eta aintzatestearekin batera⁴⁸. Honen adibide ditugu, adibidez, emakumeak. Tradizionalki, historiak emakumeak ikusezin bihurtu izan dituela salatu izan da, batez ere egile feministen artean. Askotan, emakumeak, historia akademikoak bestelako subjektu “orokor” baten barruan murgildu ditu (“klase soziala”, “alderdia”; “ideologia”; “nazioa”, “lanbidea”); eta beraz, horrek subjektu orokor horren barruan gizonen itzalean ilunduta geratzea ekarri die. Ahozko historiak, historialariak lekukoak “aukeratzea” dakarrenez gero (eta ez nahitaezean dokumentuek aukeratutako lekukoekin lan egitea), emakumeen ahotsa ozenago entzutea eta entzunaraztea izan du ondorio. Adibide moduan, Pilar Dominguezek Mexikon erbesteratutako emakumeei buruzko artikuluan (ez dira gizonezko erbeste “orokorraren” eranskin bat, baizik eta

⁴⁵ LLONA, Miren: “Historia oral: la exploración de las identidades a través de la historia de la vida” in LLONA, Miren (koord.): *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales* (15-60. or.). EHU. Bilbo, 2012, 21-26. or.

⁴⁶ PEREZ GARZON, Juan Sisinio: “Sobre las fuentes orales y las realidades virtuales: reflexiones a propósito de los registros de las experiencias discontinuas” in LEONE, Santiago; eta MENDIOLA, Fernando: *Voces e imágenes en la historia. Fuentes Orales y Visuales: Investigación histórica y renovación pedagógica* (59-73. or.). Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea, 2005, 61-62. eta 68. or.

⁴⁷ THOMPSON, Paul: *La voz del pasado. Historia oral*. Edicions Alfons el Magnàmin. Valentzia, 1988, 85-115. or.

⁴⁸ LLONA, Miren (koord.): *Entreverse. Teoría y metodología...* op. cit., 9-11. or.

emakume erbesteratuak)⁴⁹, edo Pilar Diazek frankismoan aritu ziren emakumezko langileei buruz egindako artikuluan ditugu⁵⁰. Egile honek berak, beste artikulatu batean, esan zuen ahozko iturrien berezitasuna zela historiagileak iturri hauek “sortu egiten” zituela (gure kasuan, sortzeaz gain Beasaingo Udalarari eman dizkiogu, gerorako geratu daitezten eta kontrastagarriak izan daitezten); beraz, honela aukera gehiago dago “ahotsik ez dutenei” (dokumentuetako historian agertzen ez direnei) ahots hori emateko⁵¹. Hemen ñabardura bat egin beharra dugu, ezen Pilar Diazek “ahotsik gabekoak” aipatzen dituenean, kontutuan izan behar dugu ez garela soilik ari klase-posizioaz; hau askotan korrelatiboa izan badaitekeen arren, ez da hala halabeharrez, askotan langile *militanteak* edo *zuzendariak* kolektiboaren historia egiten denean agertzen baitira. Bestalde, Miren Llonak ahozko historiaren beste perspektiba kritiko bat eman digu: aurrerapenaren edo “progresoaren” ideia, zeinaren arabera, denboraren joana lerrokatua eta dimentsio bakarrekoa den, auzitan jartzeko balio izan du. Hau da, aurrerapen horiek, Llonaren arabera, ez dira linealak, edo ez pertsona guztientzat, edo hobeto esanda, pertsona guztiak ez dira era beran eta une berean aurrerapen horien kontziente izaten, eta baliteke ezta aurrerapentzat hartu ez izana ere⁵².

Gure lana, parte handi batean oroimen lan bat denez gero, eta gainera, parte handi batean behintzat, erregimen frankistari buruzkoa denez gero, ahozko iturrien baliagarritasunaren inguruan, bi iturri aipatu behar ditugu. Hauetako bat, Ronald Fraserren liburu famatua da⁵³. Fraser lehena izan zen Guda Zibila ahozko historiaren bidez ikertzen, horrez gain, nahiko elkarriketatu sorta zabal erabilita, 300 lekuko baino gehiago. Fraserren liburuan, izenburuak dakarren moduan, “oroimena” berreskuratzea helburu nagusitzat hartzen du; “oroimenari eustea” eta gainera “Besteei oroitzea” (oroimen hori besteei hedatzea). Gainera, kontuan izan behar dugu Fraserren liburu hau atera zenean (ingeleraz atera zen lehenengo bertsioa), oraindik Espainian diktadura zegoela, eta beraz, oroimen ofiziala Estatu-ideologiaren parte zela, hau da, oroimen

⁴⁹ DOMINGUEZ PRATS, Pilar: “Ellas nos cuentan: los relatos de vida en la historia del exilio republicano en México” in LLONA, Miren (koord.): *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales* (161-186. or.). EHU. Bilbo, 2012.

⁵⁰ DIAZ SANCHEZ, Pilar: “Las fuentes orales y la construcción de relatos biográficos: mujeres trabajadoras en la dictadura franquista” in LLONA, Miren (koord.): *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales* (187-216. or.). EHU. Bilbo, 2012.

⁵¹ DIAZ SANCHEZ, Pilar: “Las fuentes orales y su contribución...”, op. cit., 38. or.

⁵² LLONA, Miren: “Historia, memoria y oralidad” in LEONE, Santiago; eta MENDIOLA, Fernando (koord.): *Voces e imágenes en la historia. Fuentes Orales y Visuales: Investigación histórica y renovación pedagógica* (53-57. or.). Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea, 2005, 54. or.

⁵³ FRASER, Ronald: *Recuérdalo tú y recuérdalo a otros. Historia oral de la guerra civil española*. Crítica. Bartzelona, 2007.

desitxuratua zela populazioarengan hedatzen ari zena. Arlo horretatik, Fraserren lan handia egin zuen bestelako oroimenak (dokumentuetan isla izan ezin zutenak) argitara ateratzen. Horrez gain, ahozko historia benetan protagonista gisa ezartzen duen liburua da. Fraserren liburuan, joera guztietako militanteak dira elkarrizketatuak, hala ere, agian “langile arrunt” gehiago elkarrizketatzea pixkan faltan ikusten dugu. Baina kontuan izanik zein datetan atera izan zen liburu hori (erregimen frankista oraindik indarrean zegoenean, eta ezin dugu ahaztu erregimen honek populazioarengan izan zuen eragin despolitizatzailea eta axolagabekeriara bultzatzekoa), agian, historialari baten aurrean hitz egiteko prest zeuden pertsonen “laguna”, pertsona politizatuetara, hots, militanteetara murriztua geratzen dela ondorioztatu beharra dugu.

Erregimenaren urteei burua ari bagara, Ismael Sazek egiten dituen erreflexioak ere ezinbestekoak zaizkigu. Saz, Espainiar Estatuan frankismoa, erregimen hura bizi zuten langileen lekukotasunetik aztertzean aitzindari izan da, batez ere Valentziar Herrialdeko langileei eginiko elkarrizketetan oinarritutako ikerketa-proiektuen bidez. Sazen arabera, askotan historiak “dokumentuetako historia” egitean, normalean erakundeen eta bertan inplikaturako pertsonen historia egiteko arriskua dago; edo frankismoaren kasuan, boterean zeuden pertsonen historia, edo bestela, oposizioko jendearen historia. Hala ere, benetan, jende gehiena ez erregimenaren aldekoa, ez oposizioko borrokalaria ez zenaz jabetu behar gara, eta jende horri, askotan “historia handietatik” (dokumentuetatik) at geratzen denari, baina historiaren gorpila aurrera eramateko ezinbesteko direnei, “gizarteari” ahotsa emateko ezinbesteko tresna dela. Saz Camposen arabera, elkarrizketatuaren profila ahalik eta zabalena izan behar da, izan ere, historian zehar, eta gehiago frankismoan zehar “despolitizatutako jendea” gehiengo baitzen, eta hura baitzen “egunerokotasunari” argazki zehatzena ateratzeko profilik egokiena⁵⁴.

Hala ere, puntu honetan, ohartarazpen bat egin beharrean gaude. Izan ere, lan honen parte garrantzitsu bat 1936.eko uztailaren 27 eta 28 artean zer gertatu izan zen argitzea izan da; hori dela eta, elkarrizketatuen artean lagin garrantzitsu bat, sarraski horretan hil ziren pertsonen senideek osatzen dute. Beraz, modu batean, hor gako hau sartzerakoan, gogoan izan behar dugu elkarrizketatuaren profila “arruntasunetik” pixka

⁵⁴ SAZ CAMPOS, Ismael: *Fascismo y franquismo*. Valentziako Unibertsitatea. Valentzia, 2004, 198. or.

bat urrundu egiten dela; izan ere, elkarrizketatu askok frankismoaren biktima izatea konpartitzen dute.

Ahozko testigantzen artean, nahiz eta 1936.era jo zirenak gutxiengoa izan eta horrek nolabaiteko partzialtasuna ekarri, ezinbestekoak izan dira Beasaingo orduko aspektu ezberdinak kontuan hartzeko eta aspektu horien azterketari bide egiteko. Izan, ere, kontuan izan behar da, gizarte gehienetan, gatazkan murgildutako jendeak, nahiz eta tradizionalki Historiak (eta baita ere lan honek) lehenetsi, kontuan izan behar dugu normalean populazioaren gehiena ez dela bere borondatez gatazkaren parte. Gerta daiteke, kasuan gertatu zen bezala (Guda Zibila eta herriaren okupazio militarra pairatzeak hori baitakar), populazioaren parte handi bat, gatazkara eramana, edo “gatazkak irentsia” izatea, eurak politikoki aktiboak izan ez arren. Ahozko elkarrizketek, “sozializazio politikoaren” familia ezberdinak (sakonagoak edo azalekoagoak; borondatezkoak edota “jasandakoak” ezagutzeko parada eman digu.

Bestetik badugu beste modu batetako bibliografia mota bat: hau da, ahozko testigantzetan hainbeste zentratu gabe, halere, “herritar arruntaren” ikuspuntua lantzen duena; hau da, orduko (kasu honetan, Francoren erregimenaren peko) herritar anonimoaren (ez Erregimenaren erakundeen edo politikarien, eta ezta ere oposizioan zegoen gutxiengo militantearen erakundeen edota hauen ideologia eta estrategien) ikuspuntua lehenesten duen bibliografia. Bibliografia mota honek, batez ere galdera hauei erantzun nahi die: nola bizi ziren garai hartako espainiarrak (edo euskaldunak, edo katalanak...)? Zein harreman zuten erregimenarekin eta nola saiatzzen ziren erregimen honekiko aktuatzen? Izan ere, kontutan izanik garai horretako herritar gehienak, batez ere lehen hamarkadetan, izugarritzko pobrezian bizi izan zirela, baina beste alde batetik, erregimenak (hasierako isolatutako talde gerrillariak kenduta) 70.eko hamarkada arte apenas izan zuela honen kontrako oposizio antolatu eta “arriskutsurik”, bi faktore hauen arteko lotura bat egin beharrean gaude. Lotura hau egiteko, batez ere orduko herritarren pentsaera “deszifratzen” saiatu izan dira historialariak; honen ondorioa, hauxe delarik: herritarren despolitizazioa – beste lehentasun batzuk zituztelako, adibidez, gosearen kontra borrokatzea –, miseria egoera eta beldurra – Guda Zibilak ekarri zuen errepresio bortitzaren ondorioz –, Honek dakar, jende gehienak, erregimenaren azken urteetara arte, erregimenaren iraupena zalantzan ez jartzerik, ez gustuko zutelako, baina bai beldurragatik, edota ximpleki “besterik imajinatzen ez zutelako”. Horrela, erregimenak, herritar erlatiboki pasibo hauekin zer nola jokatu zuen,

eta herritar hauek zalantzan jartzen ez zuten baina zanpatzen zituen erregimen honekiko zuten jokaera ezberdina aztertu dute eskola honetako lanok, hauen artean, Antonio Cazorlaren lana⁵⁵, edo Miguel Angel Del Arcok (besteren artean) zuzendutako lan kolektiboa⁵⁶.

Bestetik, garai horietako beasaindarren bizitzan (nahiz eta ia beti, euren seme-alaba edo biloben ahotik izan) aspektu ezberdinak nola bilbatzen et erkatzen ziren jakiteko baliagarri egin zaigu herritarren memoria guregana ekartzea. Hala, modu batean edo bestean, hobeto hurbil gaitezke garai horietako beasaindarrek zituzten kezketara eta kezka horienganako optikara.

Beraz, iturri sorta zabala erabili izan dugu, lan honetarako, aldi berean tokiko lana dena, baina baita ere paradigma bat (Gipuzkoa mailan) ezarri dezakeen lan bat izanda, iturrien aniztasun hau abantaila bat dela uste dut, malgutasun handia ematen baitio lanari.

Hipotesia(k)

Lan honen ardatza XX. mendeko lehen herenean gertatu zen prozesu ekonomiko eta soziala, Beasain Gipuzkoako foko berritzaile bezala ezarri izan zuena, eta bestetik 1936.eko uztailan gertatu zen sarraskia (lehen azaldu izan dugun moduan bietan Gipuzkoan nolabaiteko salbuespen izan zelarik) lotzea izan da.

Askotan aipatu izan ohi da, Gipuzkoako prozesua “Bizkaian” edo Bilboko ibarrean eman zen prozesuaz ezberdina izan zela. “Bizkaia” komatxoan artean jarri dut ezen Ander Delgadoren arabera, Bizkaiko ekialdean eman zen modernizazio prozesua Bilbon eman zenaz nahiko ezberdina da; Gipuzkoan eman zenarekiko antzekotasun handiagoak dituelarik. Gure lanean azaltzen dugunez, Gipuzkoako modernizazio prozesuarekin bat dator erabat Beasainen eman zen prozesua. Bietan, ikusiko dugun moduan ageri da industrializazioak ekarri zuen mundu zaharraren eta mundu berriaren arteko nolabaiteko elkarkidetzak (batek bestea guztiz ordeztu ordez). Bestetik, gatazka sozialak Beasainen ez ziren Bilboko ibarrean eman ziren bezain indartsuak izan eta ez

⁵⁵ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016

⁵⁶ DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel; FUERTES MUÑOZ, Carlos; HERNANDEZ BURGOS, Claudio; eta MARCO, Jorge (ed.): *No sólo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura franquista (1936-1977)*. Comares argitaletxea. Granada, 2013.

soilik numerikoki halako gatazkarik planteatzeko indar txikiagoa zegoelako, baizik eta baita ere, alderdi ezberdinen jaiotza berantiarra izan zelako.

Beste alde batetik, lehen esan moduan, Beasainen II Errepublikan erakutsi zuen joera, Gipuzkoako herri handien antzekoa izan zen, hala ikusten dugu bai hauteskunde emaitzetan, zein Estatutuaren prozesuan, non Gipuzkoako Aldundiaren gestoraren proiektuaren alde egin zuen. 1934.ean Beasaingo Udalak, autonomiaren aldeko mugimenduan parte hartu zuen, baina kasu horretan Gipuzkoako udal gehienek parte hartu zuten, beraz, ezin dezakegu hartu Beasainen gertatutako bereizgarritzat; baizik eta momentu horretan Euskal Herrian autonomi Estatutuak zuen kontsentsuaren adierazgarritzat. Ezkerra, alderdi sozialista eta errepublikazaleak, izan zen nagusi urte horietan Beasainen. Jeltzaleek eragin txikiagoa izan zuten, une jakin batzuetan izan ezik, eta are txikiagoa eskuinak.

Hala ere, ikusiko dugun moduan, Beasainen, une puntual batzuetan eman ziren herri-barneko solidaritate kasuak, herritartasuna “arazo amankomunei” aurre egiteko tresna bezala erabili zelarik. Kontutan izan behar dugu Errepublikaren garaian eman zen polarizazioa handia izan bazen ere, kasu batzuetan herri berekoa izatea gailendu izan zela. Errepublikaren garaian halako sentimendua batez ere arazo ekonomikoen inguruan (CAFen kontratu falta, beraz plantilaren murriztea eta langabeziaren handitzea) agertu zen, arazo hori baitzen bai beasaindarren egunerokotasunari gehien eragin ziona, eta baita ere beasaindar guztiak, ziren ideologiakoak zirela kaltetzen zituen –zuzenean langileen kasuan, baina baita ere zeharka, tailer edo enpresa hornitzaileetan edota langileek kontsumi zezaketen dendetan lan egiten zuen jendearen kasuan-).

Halako ekintzak izan ziren Beasaini “herri aurrerakoi” edo “errepublikar” baten fama ekarri ziotenak. Azalpen hauek ez dira bazterrekoak, parte batetan, 1936.eko uztailaren 27ko masakrea azaltzen laguntzen baitute. Kontuan izan behar dugu masakre hori, bederatzi egun lehenago Errepublikaren aurka altxatu izan ziren tropek eragin zutela, eta modu batean, Estatu-kolpe horren logikarekin (“zenbat eta lasterren kontrakoaren erresistentzia menperatu”) logikan inskribatzen zela. Kasu horretan Beasaingo masakrea ez zen izan orduan Espainian ematen ziren masakreekiko salbuespena, eta ezta ere Euskal Herrian, Nafarroan zehazki eman zirenekiko salbuespena. Baina honek ez du esan nahi masakre guztiak patroik bakarren arabera egin zirenik. Altxatuek, lehen asteetan, helburu batekin jokatzeko bazuten ere, hau da,

boterea ahalik eta arinen lortzea probintzia edo eskualde bakoitzean sarraskiak eragiteko (eta 1936.ean gertatu ziren sarraskirik gehienak, behintzat modu “inkontrolatuan” eta masiboan) “arrazoi konkretuak” ezberdinak izan ziren tokian-tokian.

Bestalde, lehen esan dugun bezala, Beasainen gertatutakoa, Gipuzkoan gertatu zenarekiko nolabaiteko salbuespena izan zen. Horrek eramaten nau, Beasainen gertatutako sarraskia herriaren karakteristikekin lotuta dagoela, eskema orokor batekin baino gehiago (Gipuzkoan, beste sarraski batzuk, herria behin hartuta eta han kontrola aseguratuta izan baitziren, Hernanikoa kasu). Eta Beasaingo soziologia modu baten edo bestean Gipuzkoako beste herri askorekiko oso ezberdina zenez, bata eta bestea lotzera eraman izan nau horrek; honen inguruan Pablo Cayuela militar altxatuaren esaldi bat gogoratzea besterik ez dago: “hau gorrien herri bat da”. Esaldi horrek eta esaldi horren atzean dagoenak azaldu dezake gero erailak izan ziren beasaindarrak atxilotzeko militarrek erabili izan zuten portaera, eta baita beste hainbat eraso egitekoa ere (adibidez, etxeetan lapurtzea). Izan ere, herritarrak atxilotzerakoan, kasu askotan, “arrazoiren” bat adierazi izan bazuten ere (kera-deia apurtzea, militarrei protesta egitea, kalean egotea, argiren bat etxean piztuta izatea); halakoak eginda atxilotzera eta epaiketarik gabeko heriotzara eraman zituztela nekez ulertu zitezkeen berez herriaren kontrako “aurreiritzirik” ez balego.

Beste azalpen posible bat, Beasainen Nafarroa bere egin eta berehala konkistatu zuten herri bat izaki, Nafarroan gertatu zenarekin lotuta dagoen sarraski bat izatea litzateke. Izan ere, Nafarroan errepresioaren gorpila Gipuzkoan baino askoz ere handiagoa izan zen (hildakoen kopuru hirukoitza kalkulaten da, antzeko populazioa zutelarik). Bestetik, Gipuzkoa, eskuinaren kontrako populazioaren gehiengoa zuen probintzia bat izanik, Beasainen halako hilketa bat egitea (Beasain izan baitzen altxatuek hartu zuten 5.000 biztanletik gorako lehen herria), Gipuzkoa beldurtzeko eta hala, hango erresistentzia apaltzeko modu bat izan zitekeen. Hala ere, ideia honek ontzat emateko baldintzak baditu ere, ñabarduraren bat merezi du; izan ere, Nafarroan, eskuindarrak gehiengo ziren probintzia batetan, beraz “beldurra sartzeko” beharrian txikiagoa dagoen toki batean, hildako kopurua askoz ere handiagoa izan baitzen. Ñabardura horietako bat, izan daiteke, Gipuzkoan barrena egindako aurrerapen nolabaiteko errazak, Beasainen egindako sarraskiaren efektua altxatuen interesetarako “positiboa” izan zela daiteke, jada, metodo hori erabiltzea “beharrezko ez zelarik”. Alta, Nafarroan egindako sarraskia, Gipuzkoarekin konparatuz, altxatuek lehen momentutik

euren boterea finkatu beharrak, altxatuek frontea definitu gabe zutelarik, kolpearentzat lurralde-oinarria finkatu beharrak azal dezake.

Beasainen Guda ostean egon zen errepresioari ere so egin izan diogu. Kontuan izan behar da gehiengo ezkertiarra duen herri bat zela eta gutxiengo abertzale nahiko esanguratsu bat zuela, gudari eta miliziano asko eman zituen herri bat dela. Hau dela eta, Beasainen, herritar askok Errepublikaren alde borrokatu zuten fronteetan, honen bestez, gudako edo guda osteko epaitegi frankisten menpe geratu zirelarik. Horri gehitu behar zaio herrian bertan ere mekanismo errepresiboak egon zirela, adibidez, Falangek eta karlistek bat egin aurretik, alderdi bakarraren nolabaiteko papera betetzen zuen Guda Batzorde Karlista, Udaleko zinegotzi batzuek osatutako Batzorde Txostengilea, alkatea bera eta Beasaingo FET-JONS, diktaduraren alderdi bakarraren tokiko adarra. Hemengo kasuan ikus ditzakegu zein harreman egon zitezkeen. Izan ere, herritarrek errepresioan parte hartzeko aukera izateak, beste aspektu bat eman zion errepresioari, ideologiakoa edota “arrazionala” ez zena, baizik eta “pertsonala” edo herriko esperientziek bultzatutakoa. Hau presoentzat “aringarria” izan zitekeen, herriko (eskuineko) lekukoekin harreman ona bazuten, baina baita ere “lazgarria”, mendekua bezalako faktoreak tartean sar zitezkeelako.

Gudari buruz hitz eginez, hala ere, kontuan izan behar da Beasainen herritar asko eskuinarekin mobilizatu zirela. Halako askok bortxaz mobilizatuak izan ziren baina bazeuden baita gogoz joandakoak, eskuinaren alde gudan borrokatu nahi izan zutenak.

Guda ostean, Beasainen bizi izan zen egoera, oro har Espainiar Estatu osoan bizi izan zen moduan, egoera ekonomikoa oso prekarioa izan zen. Herri industrial bat izaki, enpresa handi bat zuelarik (CAF), enpresa hori, alde batetik, Estatuaren politika protekzionistaren onuradun izan zen. Baina beste alde batetik, diru-sarreraren banaketan atzerapausoa eman zen garai bat ere izan zen. Bestetik, herri industrial gisa, eta lehengaiak beste herrietan bezain eskura ez izateak, gosea handitu egin zuen Beasainen. Lan honetan, Guda ostean Beasainen, eta batez ere beasaindarren egunerokotasunean, bizitako estualdi ekonomikoaren larriagotzea ere aztergai izango dugu.

Beraz, Beasaingo ikerketa hau, moduren batean, herriaren ezaugarri bereziak kontutan hartuz, Gipuzkoako beste herri batzuk ikertzeko “kasu-ikerketa” bat izan daiteke. Beasainen gertatutakoa, Gipuzkoan gertatu zen errepresio tipologia baten kasua

dugu, eta honen bestez, herrialde honetan 1936.ean eta 1937.ean eman ziren errepresio zikloa hobeto argitzeko balio izan ahal digu.

Lanaren sarrera hau bukatzeko, lan honetan lagundu nautenak oroitu nahi ditut. Lehenik, anaia eta gurasoak, Paulo Kortazar Billelabeitia, Miren Billelabeitia Bengoa eta Jon Kortazar Uriarte; eta ostean, lan honen zuzendari lanak egin dituenak, Mikel Xabier Aizpuru Murua Garaiko Historiako EHUko irakaslea, bera gabe lan hau ez baitzen aurrera aterako. Unibertsitatearekin jarraituz, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet baita ere Aritz Ipiña Bidaurrezaga, Unai Belaustegi Bedialauneta, Iñaki Fernandez Redondo eta Joseba Iñaki Arregiri.

Era berean eskertu nahi dut Beasaingo jendea, eta beasaindarrak, bereziki bertako Memoriaren Herri Taldea (Jabier Garcia Bergara, Andon Sarriegi Eskisabel, Miguel Angel Ruiz de Gauna Lopez, Josu Lopez Castañares, Mikel Dorronsoro Ibarbia, eta Karlos Begue Aliende) zeinak asko lagundu nauen lan hau egiten. Beasainen gainera, gogoratu behar ditut Marije Gonzalez, Xabier Esnaola, Irizartarren sendia, Ander Jimenez, Joxe Manuel Nieto, Jon Olano eta Juan Pedro Aldasoro. Baita ere Beasaingo azken bi alkateak (eta luzaz, Udal-taldea), Koldo Agirre eta Aitor Aldasoro, lan honen proiektua laguntzarren.

Jakina, aipatu beharra daude baita artxibategi ezberdinetako langileak: Beasaingo, Ordiziako zein Eibarko Udal Artxiboetako pertsonala, Oñatin dagoen Gipuzkoako Artxibo Historiko-Probintzialarena, Tolosan dagoen Gipuzkoako Foru Artxibategiarena, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunearena, Bilbon dagoen Eusko Jaurlaritzaren Iraurgi Artxibategiarena, eta Ferrolgo Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibategi Militararena

Eskerrak eman nahi dizkiet baita ere Aranzadi Zientzia Elkarteari eta bere langileei, batez ere, Cristina Martin, Anais Rodriguez, Javier Buces eta Juantxo Agirreri.

Eta bukatzeko lagunak, Bizkaikoak zein Gipuzkoakoak, eurak gabe bizitzan aurrera egitea ezinezkoa zatekeelako.

1. KAPITULUA: BEASAIN MENDE HASIERAN: 1900-1931

Beasain, Gipuzkoako beste herriekin alderatuz, badakigu jakin nahiko berezia dugula. Izan ere, Beasainen bilakaera dinamikoak, gerora II. Errepublikan eman ziren gertakarietan eragin handia izan zuen. Beasainek, XIX. mende-bukaeran, norabide zehatz bat hartua zuen, herri industrialala bihurtzeko norabidea. Herri industrialak orduan Gipuzkoan gutxi ziren. Beraz, Beasain Gipuzkoa barnean kasu berezi bezala paratua dugu, bertan demografia, zein gizarte-aldaketa gogorak gertatu zirelako, Gipuzkoako beste herri askotan eman ez zirenak, hain zuzen ere.

Gaur egun edonork antzematen du halako demografia-gorabeherak eta herriaren gizarte-bizitasuna, batez ere “fabrika haundie” jarri izanari lotuta daudela. Esan beharra dugu, bagoien fabrika (CAF izena 1917tik aurrera hasi zen orokortzen), populazio-erakarle izateaz gain (baita krisi garaietan populazioaren igorle ere), gune berriztatzailea izan zela Beasainen: ohitura berrien hedatzailea, elkarketa-modu berrien suspertzailea, identifikazio berrien taxutzailea, beharrian berrien aurkako erantzunen sortzailea eta berrikuntza politikoaren faktore nagusia; hots, modernizazio politiko, sozial eta ekonomikoaren erakarle nagusia. Aldaketa horietako asko, enpresaren ekimenak izan ordez, fabrikaren errealitatearenak eta bertako beste aktoreenak, langileenak, izan ziren. Hau da, fabrikak ekarritako aldaketak eta eraginak ez ziren beti “goitik” etorritako aldaketak izan, “behetik” eragindako aldaketak ere ekarri zituen).

XIX-XX. mendeen artean, Beasain, baserritar herria izatetik, partzialki behintzat, kaletar bihurtu zen herri izatera pasatu zen; batez ere ekonomia-ekoizpenari begiratzen badiogu, nahiz eta XX. mende-hasieran, artean biztanleriaren gehiengoa ez zen industriako langile. Horrez gain, Beasainen industrializazioak, herri honek Goierri barnean izandako demografia-garrantzia handitu zuen. Esan bezala, mende-hasierako Beasain, (“fabrika haundie” 1862an hasia izan arren), artean nekazari-herria zen. Jenderik gehiena landa-gunean bizi zen eta Beasaingo herriguneak kale bakarra zuen. XIX. mende erdialdean, 282 etxebizitzetatik 182 baserriak ziren¹; eta oro har, “kalea” esaten zitzaion, gaur egungo Kale Nagusia denari. Beasaingo erroldetan kaleak ez ziren 1910. urtera arte agertzen hasi, ordura arteko erroldak etxeka egiten baitziren. Garai

¹ ZUFIAURRE GOYA, Jose: “Beasaingo etnografia” in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain. Udalerrri gipuzkoar baten historia*. Beasaingo Udala. Beasain, 1987, 301-302. or.

1. kapitulua

horretatik aurrera, ordea, industria erabat gailendu zen eta nekazari-herri izatetik industria-hiri izatera pasatu zenekoa.

1.1 Beasainen eta Gipuzkoaren industrializatzea.

Gipuzkoaren industrializatzeko modernoa, bereziki XIX. mende erdialdean hasi zena, batez ere, ekonomia tradizionalaren gainbeherarekin batera etorri zen. Izan ere, erabat desagertu aurretik, burdinolek ekarpen historiko bat utzi zuten, industria-forma berrietarako aldaketa prestatzea, hots, “industria-pentsamoldea” egikaritzea. Horrenbestez, XIX. mendean Euskal Herrian eman ziren industrializatzeko-pausoetan, industrian dedikazio osoz lan egiteko pausoak eman ziren: lehenengo papergintzako enpresa sortu zen Tolosaldean, Arrasateko sarrailagintza-burdinolek ere industria modernorantz jauzi egin zuten, eta Bilbon laster, 1848.ean, jarri zen Euskal Herriko lehen labe garaia 1841.ean fundatu zen Boluetako Santa Ana fabrikari (nahiz eta proiektuak lehenagotik zeuden).

Beraz, oro har, ondoriozta dezakegu gipuzkoar industrializatzeko modernoa ez zela izan burdinolen krisiaren eragile, baizik eta burdinolen krisiak eragina, nahiz eta krisi hori larritu eta burdinolen desagerpena bera azkartzea ekarri zuen.. Elena Legorbururen CAFi buruzko ikerketan Luis Castells aipatuz, 1867an Gipuzkoako ekonomia-estatistikak egiten zituztenek oso argi zuten burdinolak desagertzeko bidean zeudela, “Beasaingo fabrikarekin lehiatzea ezinezkoa izango zutelako”: 1870ean 42.000 kintal burdina ekoitzi zituen Beasaingo fabrikak eta urte berean 14 burdinolek 7.120 kintal². Beraz, Beasaingo fabrikak, joera sortu ez bazuen ere, aurreko joera bat azkartu egin zuen; eta hori baino gehiago, burdinolen desagerpena ekarri zuen, Gipuzkoa behin betiko industrializatzeko modernoaren bidean jarriz.

Horrez gain, izan ziren industrializatzea ekarri zuten beste faktore batzuk ere. XVIII. mendean, Gipuzkoan, demografia-hazkundera izan zela kontuan izanik, Gipuzkoako landa-guneetan nolabaiteko “eskulangileen stocka” sortu zen, pixkanaka bigarren sektorerantz (lehenik burdinolek, baina gero Gipuzkoako lehen fabriketara) joango zena. Horrez gain, XVIII. eta XIX. mendeetan, Gipuzkoako landa-guneetan beste prozesu bat ere izan zen, hain zuzen ere aberastasunaren kontzentrazioarena, batez

² LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. *Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 21. or.

ere aberastasun higiezinari zegokiona³. Baserritarrek, askotan zorrek itota, euren ondarea lur-jabe boteretsuenen eskuetan utzi behar izaten zuten. Goierriko eskualdea sartuta dagoen Tolosako epaitegi-barrutian, mende-aldaketaren garaian, nekazarien %27,94 soilik ziren jabeak eta %72,06 maizterrak ziren⁴.

Halaxe, apurka-apurka, baserri-munduan ere, soldatapekotza etorri zen, eta hala, baserritar askorengan, diru-sarrereren murrizketaz gain, lurrarekiko sentimenduen loturagabezia iritsi zen. Egoera hartan, jende askorengan, “kalera” joateko baldintzak ezarri ziren. Prozesu horren beste ondorio bat lur-jabe handien ahalduntze geroz eta handiagoa izan zen. XX. mendeko hauteskunde-prozesuetan halako jauntxoek eragin handia izaten zuten eta baserritar maizter askorekiko zuten botere-harremana hauteskunde prozesuak baldintzatzeko erabiltzen saiatzen ziren.

Kapitalen kontzentrazioarako beste faktore bat, lurren desamortizazioa izan zen. XIX. mendean, hainbat gudek eragindako gastu eta zorren eraginez, eta Espainian ezarri berria zen sistema liberalaren bultzadaz, hainbat Udalek euren lurrak saltzeari eta desamortizatzeari ekin zioten⁵.

Horrek guztiak noski, klase berri baten sorrera ekarri zuen. Jabe-merkatarien klase berri horrek, beste pentsamolde bat izan zuen, hain zuzen ere, inbertsioetan jarduteko pentsamoldearen jabe baitziren. Halaxe, industrializatzea gauzatzeko beste faktore bat sortu zen, inbertsiogileena. Ez da kasualitatea, Beasaingo “fabrika haundiaren” jabeak izatea, kapitala pilatu zuten bi merkatari eta ola-jabe (Goitia eta Usabiaga) eta lur-jabe bat (Arana).

Gipuzkoaren barruan Beasain industrializatzeko guneko bezala hautatzeko arrazoietakoa bat, herri honen kokapena izan zen. Izan ere, bidegurutze batean kokaturik, Nafarroatik eta Arabatik (eta Gaztelatik) itsasora eta Estatuaren arteko muga ezarrita zegoen Irunera joateko bidegurutze batean zegoen Beasain. Gainera, azoka ere bazuen⁶. Beraz, Beasain, igarotze handia zuen pasabidea zen. Horrek, trenbide-sarean geltoki bat

³ FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco. 1100-1850*. Siglo XXI. Madril, 1974, 231-232. or.

⁴ CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*. Madril, 1987, 122-123. or.

⁵ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Las crisis decimonónicas en Beasain” in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain. Udallerri gipuzkoar baten historia* (247. eta hurrengo or.). Beasaingo Udala, Beasain, 1987.

⁶ FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano: op. cit., 234. or.

1. kapitulua

kokatzeko aukera bikaina eskaini zion 1863tik aurrera⁷. Trena jartzeak ere burdinbideetako langile asko erakarri zituen Beasaina eta inguruetara.

Euskal Herriko industrializatzearen inguruko euskal historiografiaren arabera, nahiko adostasun badago gipuzkoar eta bizkaitar prozesuak bereiztean. Juan Pablo Fusi historiagilearen arabera, adibidez, lehen ereduaren ezaugarria ez zen bigarrena bezain bortitza izan, aurreko bizitza-modu eta ohiturekiko eraldaketa pausatuagoa izan zen. Fusiren arabera industrializatzeko gipuzkoar ereduaren ezaugarriak, aipatutako pixkanakako abiaduraz gain, honako hauek dira: enpresak oro har txikiak izatea, geografikoki anitza izatea (1911n 285 “gune industrial” zeuden 45 herritan) hiri jakin batzuetan bildu ordez, enpresa txiki eta banatuak izatea (1911n Gipuzkoako industria-lantegien batez besteko langile-kopurua 19 langilekoa zen), hirietan etorkin berrientzako egindako auzoen urbanizazioa aurreko urbanizazioekin bat etortzea harekiko hausturarik sortu gabe, eta azkenik, langileek, hasieran Gipuzkoa bertatik zetozenak, askotan aldi berean aurreko lana, hots, baserriko lana ere egiten jarraitzea. Gipuzkoar industrializatzeko-ereduaren beste ezaugarri bat, nahiko anitza izatearena da, ez soilik industria astunean eta siderometalurgian zentratutakoa, Bizkaian gertatu zen bezala, Gipuzkoan ere, zeramikagintzak edota papergintzak zeregin handia izan zuten. Bestalde, Gipuzkoan, industrigintza Bilboko eskualdean baino modu lasaiagoan sartu zenez, ez zuen ezabatu erabat aurreko bizitza. Beasaina etorriz, Beasain berri bat sortu zuen industriak, baina Beasain zaharrak ere herriko parte izaten jarraitu zuen, lehen baino indar gutxiagoz izan arren⁸.

Lehen aipatutako trenen fabrika, une hartan *Sociedad Española de Construcción de Materiales* (SECM) deitutako enpresa bati lotua zegoen. Jada trenen fabrika zen, nahiz eta hasiera batean ez zen modu horretan sortu. Izan ere, 1862an sortu zen, “*Fábrica de Hierros de San Martín de Urbietá*” izenez. 1862an, hasieran esan bezala, burdinoletako bi jabeek, Ihurreko olaren ustiatzaile zen Domingo Goitiak eta Igartzako olaren ustiatzaile zen Martín Usabiagak, eta Jose Frantzisko Arana kontratistak sortu zuten fabrika hori. Goitia kapitalaren %75aren jabe zen, baina Aranak bere Burugorriñe

⁷ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 19. or.

⁸ FUSI, Juan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 180-181. or.

(Burugorrienea) baserriko lurrak utzi zituen, Oria errekaaren ertzean, lehen fabrika egin zedin⁹.

Lantegian lehenengo unetik, 1862 urtetik jada, labe garai bat izan zuten. Horrela, Gipuzkoako lehen labe garaia, Beasaingo fabrikakoa izan zen. Jakinaenez, une hartan, teknikak traukil samarrak izan zitezkeen, lantegiak bilakaera bat izan arte. Lehen urteetan, beste toki batzuetan ekoiztako burdina pudelatu eta ijotzi (laminatu) soilik egiten zuten *San Martin* fabriketan. 1865ean bigarren labe garaia jarri ostean hasi ziren burdina bertan ekoizten. Santa Kruz apaizak geltokia erre (1873) eta fabrikaren ekoizpena eten ondoren, fabrikaren aldaketa erabatekoa izan zen. Lehenbizi, jada Bizkaian erabiltzen zen Bessemer motako bihurtailua ekarri zuten Beasaina, eta egur-ikatz, pixkanaka, koke ikatzaz ordeztu zuten. Enpresa berrabiarazterakoan egin zen beste aldaketa bat, Frantzisko Goitiaren jokatu zuen paper handia izan zen, bera kokatu baitzen jabe nagusi gisa (eta aldi berean, Beasaingo politikagintzan izan zuen papera ere handitu egin zen, elite tradizionalen desgusturako). Izan ere, foruak galtzearen ondoren, Aldundiak, industriarekiko presio fiskal txikiaren politika praktikatu zuen eta, horrela, inbertsioak erakartzea ahalbideratu zuen. Frantzisko Goitia, Domingo Goitia fundatzailearen semea zen eta Ingalaterrara joan zen hango teknika modernoak ikastera, gero Beasaina ekartzeko. Adibidez, Beasaingo fabrika izan zen Estatuan latorria (*hojalata*) lantzen hasi zen lehen fabrika (1882). Beasaingo fabrikak izan zuen fama hainbeste handitu zen, ezen fabrika horretako teknikari-koadro batzuk Sestaora joan zirela han Iberia lantegia hasten laguntzeko¹⁰.

Fabrikaren hurrengo aldaketa 1892an egin zen, Goitiak beste inbertsiogile batzuk erakartzea lortu ezina izan zuenean. Enpresari berriro ere izena aldatu zioten eta "*Maquinista Guipuzcoana*" izena jarri. Izen-aldaketak argi erakusten du trenekin lotutako materiala egiteko borondatea, baina hala ere marka horrekin, batez ere trenbideak egin zituzten. Enpresa berria 1892ko apirilaren 16an sortu zen eta 1.307.000 pezetako kapital soziala izan zuen¹¹, 1.000 pezetako 1.307 akziotan banatuta, eta Goitia familiak kontrolatu zuen akzioen gehiengoa: %40,1 Frantzisko Goitiak berak eta %9,5

⁹ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: "Transición de la sociedad preindustrial a una sociedad industrializada en el Gohierri: La Fábrica de Hierros de Beasain" in *II Congreso Mundial Vasco-Congreso de Historia de Euskal Herria* (aktak), 85-97. or., Donostia, 1988; eta LEGORBURU FAUS, op. cit., 20. or.

¹⁰ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 26. or.; eta AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 68. or.

¹¹ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 26-27. or.

1. kapitulua

bere arrebak. Beste inbertsiogile garrantzitsu batzuk ere sartu ziren, adibidez Lazkaoko jauna zen Valmedianoko markesa, Donostiako Matxinbarrena familia, edo hiri horretako Benito Jamar Domenech errepublikano ezaguna, baina batez ere, gerora paper garrantzitsua jokatuko zuen Luis Urkixo, Urkixoko markesa (honek ere akzioen %9,5 izan zituen)¹². Une hartan enpresak 200 bat langile zituen.

Hala ere, 1898an Espainiak azken koloniak galdu zituen gero, beste testuinguru bat ezarri zen Espainiako Estatuko enpresengan, batez ere, ordura arte barne-merkatua izandakoaren parte garrantzitsu bat galdu zutelako (gogoratu lehen esan duguna, hau da, Espainiako Estatuan industrializazioa bultzatu zuten enpresek lotura handia zutela Estatuarekin eta Estatuak interbentzio handia izan zuela industrializatzeko prozesuan). Merkatu galera hori Beasainen ere nabaritu zen, eta langileen galera bat ekartzeaz gain, MGk kapitalaren hedapen bat abian jarri behar izan zuen, 500 akzio milioi-erdi pezetan akziotan ateraz. Beraz, aurrekoa kontuan hartuta, guztira, 1.807.000 pezeta izan ziren 1.807 akziotan. Akzio horietatik gehienak (128) Urkixo markesak erosi zituen, berriz ere mugarri bat ezarriz “fabrika haundiaren” historian: bigarren mailako bazkide izatetik, lehen mailako akziodun izatera igaro zen Urkixo.

Hain zuzen ere, une horretan egin zen lantegian lehen greba, bere antolaketaz eta arrazoiez asko ez badakigu ere¹³. Ikusiko dugun bezala, halako mugimenduak Beasainen nahiko ahulak izan ziren Lehen Mundu Gudako testuingurua iritsi arte. 1907an egin zen beste bat; Zurbanoren arabera, Arrasateko greba batekin harremana izan zuela ere esan izan da¹⁴. Beste egile batek, Felix Luengok, urte horietan Beasaingo lantegiko buruak “hemen ez dago grebarik, langilea otzana eta ase da” esana zuela aipatzen du¹⁵. Horren adierazle dugu antolamendu politikoen sortze berantiarra.

Modu horretan sartu zen Beasaingo industria XX. mendean. Siderurgia-arloan aipatu beharra dago, CAF ez zela enpresa bakarra izan. Errepublika garaian Beasaingo alkate sozialista izango zen Viktor Bernedok bere enpresa siderurgikoa zuen, “*Bernedo, Echeverria y Elorza*” izenekoa. Jose Zufiaurreren arabera, enpresa hori, 1913ean sortu zen, orduan etorri zen Bernedo Elgoibartik (hangoa zen) Beasaina bizitzera¹⁶. Baina hiru

¹² LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain. Udalerrri gipuzkoar baten historia*. Beasaingo Udala. Beasain, 1987, 91. or.

¹³ CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Siglo XXI. Madril, 1993, 13-17. or.

¹⁴ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 118. or.

¹⁵ LUENGO, Felix: *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa 1917-1923*. Bilbo, 1990, 321. or.

¹⁶ ZUFIAURRE GOYA, Jose: “Alcaldes de Beasain” in *Beasain Jaietan* urtekaria, 2001 (17-21. or.).

bazkide izan arren, Bernedo izan zen enpresan protagonismo handiena izan zuena. Enpresa horrek “fabrika haundiarekin” bazuen puntu komun bat, berritzailea izatea. Hura, Gipuzkoako lehen labe garaia jartzen eta latorria fabrikatzen Espainiako Estatuan lehen enpresa izan zen moduan, Bernedorena giltza finkoak zein horztun giltza mugikorrek egiten lehenengo enpresa izan zen Espainiako Estatuan

Ordurako, 1901ean, Beasaingo MG enpresarekin batera, bazen halaber Arana familiaren “*Fábrica de Productos Químicos y Destilación de la Madera* (Produktu Kimikoen eta Egur Destilazioaren Fabrika)” lantegia. Egur-ikatz, alkaterna, galipota eta antzekoak lantzen zituen fabrika horrek. 1907an 23 langile zituen¹⁷. Hurrengo urtean Kale Berrian (gaur egungo Iturriotz eta Arana kaleak) “*Fábrica de Tintas Euzkalduna*” (“Euzkalduna Tinta Fabrika”) sortu zuen Joxe Martin Aranak, geroago Beasaingo alkate izango zenak. Joxe Martin, Frantziatik etorri zen Emilio Hunolt ingeniariarekin bazkide egin zen (senidetu ere egingo ziren gero, Emilio Hunolt, Aranaren alabarekin ezkondu baitzen). Arana 1921an hil zen fabrika seme-alabei pasatuta, baina 1931n itxi egin behar izan zuten fabrika hori, ekonomian izan zen krisialdi gogorraren testuinguruan. Antza denez, Arana bera inprenta bat zabaltzen saiatu zen, baina azkenean Zunzunegi eta Aranburu bazkideak izan ziren hori lortu zutenak, 1920an, Kale Nagusiko 15. zenbakian.

Aranatarrak, kimikaz gain, egurraren sektorean ere sartu ziren eta Joxe Martinen semeek, Serafin eta Pedro Aranak (ikusiko dugun bezala, 1931n Serafin Arana zinegotzi aukeratua izan zen, errepublikano gisa), “*Fábrica de Mimbres, Junco y Médula*” deitutako konpainia sortu zuten 1922an, Kale Nagusiko 12. eta 14. zenbakietan. Zurarekin lan egin zuten beste langile batzuk altzaringintzako enpresa bat sortu zuten 1930ean: “*Fábrica de Muebles Esquisabel y C^{ia}*”. Sortzaileak hauek izan ziren: Pedro Eskisabel, Joan Eskisabel, Pedro Irastortza eta Jose Ignazio Oiarbide. Azkenik, arbelgintza-sektorea Beasainen ere (Arriaranen) presente zegoela aipatzen du Zurbanok, baina ez zela Itsasondokoa bezain indartsua¹⁸.

Baina zalantzarik gabe, Beasain industrializatzeko modernoan sartu zuen enpresa “fabrika haundie” izan zen; eta ez soilik bere tamainagatik (aldaketa demografikoa ere ekarri baitzuen) edota herria Gipuzkoako edota Euskal Herriko kapitalisten inbertsio-

¹⁷ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 40-41. or.

¹⁸ Ibid., 43-44. or.

1. kapitulua

sareekin bat egitera eraman zuelako; baizik eta herriaren itxuraren eta hein handi batean izaeraren aldaketa ekarri zuelako eta Beasain industriaren bidean bete-betean sartu zuelako, hain zuzen ere XX. mende-hasieran bertan. Hori azaltzeko, orduko *Maquinista Guipuzcoana* enpresa, *Sociedad Española de Construcción de Materiales* bihurtzeko egindako prozesuaz hitz egin behar dugu¹⁹.

1901ean, Bilbon, *Sociedad Española de Construcción de Materiales* izeneko enpresa sortu zen eta hurrengo urtean 1902an, MG enpresa erosi zuen, Beasaingo fabrika bere eginez (Beasaingo fabrikari “*Fábrica de Vagones de Beasain*” izena jarri zion, izan ere, enpresa-talde hura ez zen soilik Beasaingo fabrikara mugatzen, eta lantegi eta akzio gehiago ere bazituen). Beasaingo fabrikaren (FVBren) zuzendari berria Jose Orueta izan zen, Bizkaian jaio eta Gipuzkoan bizi izan zena eta garai hartako liberal ezaguna. Hark ordezkatu zuen Goitia²⁰. Une hartan enpresak Beasainen 70.000 metro karratutan zehar barreiatuta tailer, biltegi, bulego eta teknikarientzako etxebizitzak zituen; denerako bi sarrera zituen eta trenbidetxoarentzako beste sarrera batek ematen zion pasabidea. Erosketaren ostean, enpresak bere instalazioak erabat aldatzeari ekin zion, instalazio guztiak berrituz. Instalazio berriak 1905erako guztiz prest zeuden, eta jada 1905eko otsailaren 1ean lehen entrega betetzeko gai izan ziren.

Fabrika berrian langilegoa murriztagoa zen: 469 langilek egiten zuten lan 1905ean. 1902ko zifrak 1908an gainditu ziren eta 869 langile izatera iritsi ziren (horietatik 22, 16 urtetik beherakoak, eta 22 horietatik 4, 14 urtetik beherakoak). Hala ere, instalazio eta teknika modernoagoekin (Martin-Siemens labeak), bagoiak geroz eta azkarrago egiten hasi ziren: 1908an 1.120 bagoi egin zituzten, eta 1914an 3.200 (guda aurretik). Langile-kopuruak ere gora egin zuen, 1913an mila baino gehiago ziren: 1.200. 1909an bi gurgil muntatudun ardatzak egiten hasi ziren, eta 1910an, bogieak edo orgak. Langileen osaketa (lehen teknikari kanpotarrak Goitiak XIX. mendeko 1880.eko hamarkadan ekarri zituen Ingalaterratik), batez ere gipuzkoarra zen XIX. mendean zehar (hala ere, ikusiko dugun bezala, Gipuzkoan bertan, immigrazio-tasa oso handiak izan zituen Beasainek), baina XX. mendean, Arabatik, Nafarroatik zein Gaztelatik etorritako jende asko sartu zen fabrika horretan, bereziki Lehen Mundu Gudaren bukaeran gertatu zen zabalkuntzaren ondoren (Julio Lazurteguik, 1911n eginiko ikerketa baten arabera,

¹⁹ Lantegiaren historia osoari buruz, ikusi Zurbano eta Legorbururen lanak.

²⁰ CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política...* op. cit., 298. eta 426. or.

lehen Mundu Guda aurreko immigrazio baxua baieztatu zuen)²¹. 1905eko datuak ditugu, Legorburu Faus idazleak utzitakoak: urte horretan langileen %58 euskal herritarrek ziren, eta %39 espainiarrak. Hala ere, teknikarien artean ez zen halakorik gertatzen eta maila horretako %23 soilik ziren euskaldunak, espainiarrak eta beste herrialdeetakoak %38na ziren bitartean.

Lehen Mundu Gudak koiuntura onean jarri zuen Beasaingo fabrika, eta oro har Euskal Herriko ekonomia osoa. Gerrak Frantziako merkatuaren atea zabaldu zizkion, eta baita kritika batzuek ere “Espainian ez saltzeagatik”²². Hala ere, oso urte onak izan ziren FVBrentzat, eta 1915ean, adibidez, 3.000 bagoi eta 200 bidaiari-bagoi egin zituen 14 milioi pezeta fakturatuta. 1918an 1.320 langile eta 120 enplegatu bazituen CAFek²³, eta 1920an 1.800 pertsona. Kontutan izan behar dugu, Lehen Mundu Guda hasi aurretik ere (1911) Beasaingo fabrika izan zela Gipuzkoako handiena alde handiz, 1.200 langilerekin eta horren ondoan Arrasateko *Unión Cerrajerak*, soilik 700 langile zituela. Garai hartako Gipuzkoan, batez bestekoa 19 langilekoa zen fabrika bakoitzeko²⁴.

Lehen Mundu Gudaren izandako gorakada horrek izan zuen bere ifrentzua ere: sinatutako kontratu asko ez zituztela bete. Izan ere, sinatutako kontratu askok, bete ezean (gogoratu Frantzia guda betean zegoela eta bere ekonomia guda-makinaria hori baldintzatuta zegoela), kalte-ordain handiak aurreikusiak zituzten, eta hala gertatu zen, Frantziako gobernuaren eskusartzearen aukera benetakoa izatera iritsi zenean. Ikusiko dugun bezala, horrek beste bira bat eginarazi zion enpresaren politikari. Enpresak beste maniobra bat egin behar izan zuen: 1917ko martxoaren 4an *Construcciones y Auxiliarios de Ferrocarriles* (CAF) enpresa sortu zen, Luis Urkixo lehendakari zela (eta bere banketxearen, Banco Urquijoren, laguntzaz). Lehendakariordea Valentin Ruiz Senen zen, eta idazkaria, Santiago Innerarity²⁵. Hasiera batean, hirurak akziodun nagusiak ziren arren (gutxi gorabehera akzio-kopuru berdinarekin), laster 4.000 akzio jarri zituzten salmentan, batez ere frantziar kapitalisten sarrera ahalbideratzeko. Urquijo Banketxeak akzio asko erosi zituen eta 1918rako akziodun nagusia zen 2.000 akzio baino gehiagorekin, baina zifra horretara hurbiltzen ziren bi enpresari frantses, Porier

²¹ Ikerketa honi eginiko erreferentzia iturri honetan ikusi dut: EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 17. or.

²² LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: *Beasain. Udalerri gipuzkoar baten historia...* op. cit., 92. or. eta LUENGO, Felix: op. cit., 127-128. or.

²³ Ibid., 128. or.

²⁴ FUSI, Juan Pablo: op. cit., 180-181. or.

²⁵ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 52-53. or.

1. kapitulua

eta Dusaix ere, eta haiek enpresaren gaineko nagusitasun frantsesa bermatu zuten. Baina 1922rako egoera aldatu egin zen: une hartan Firminy frantziar enpresa zen akziodun nagusia, Urkixoren taldearen gainetik, beraz enpresaren lehendakaritza zegokien (Urkixoren enpresak aurreko FVBren kontrola izan zuenean eduki zuen hainbesteko garrantzia).

1925ean, Urkixok berreskuratu zuen galdutako hegemonia eta CAFek FVBren kontrol zuzena bereganatu ostean, fabrikak 241.988 metro karratutako azalera zuen: 99.264 Beasainen, 34.694 Ordizian eta 108.020 Lazkaon..

Lehen Mundu Gudaren osteko garai horiek, ikusiko dugun bezala, greba-garaiak izan ziren. Grebak deitzeko arrazoirik nagusiena, aberastasun-banaketaren faltatik zetorren bizitzaren garestitzea izan zen. Izan ere, oparoaldi horretan, langileen soldatak gutxi igo ziren irabaziek (eta dendetan elikaduraren prezioek) gora asko egin zuten. Gerraosteak, bestetik, beste krisi bat ekarri zuen; 1923.ean plantila-murrizketa bat egon zelarik.

Primo de Riveraren diktadura-garaia oso urte oparoak izan ziren CAFentzat. Diktadura horrek, hein batean aurreko Berrezarkuntzaren erregimena hautsi gabe “leheneratu” nahi zuten klase nagusienetako sektoreek babestua zenak, bere helburuen artean ekonomia modernizatzea zuen, eta horren barruan, Estatuak are interbentzio-paper handiagoa jokatzea aurreikusten zen (eta aldi berean, langile-mobilizazioak bukatzea). Kasu honetan, CAFen eskaera-zorroa handitu egin zen, baina baita Estatuarekiko mendekotasuna ere. Estatuak aurrekontu-defizitarekin subentzionaturik, kontratu onak ematen zieten enpresei, adibidez, trenbideen sektoreari (sektore estrategikoetako enpresei emandako kontratueta urteko aurrekontuaren %20 bideratzen zen). 1928an eta 1929an Estatuak ere gastu publiko handia bideratu zuen halako enpresetara, zor-bonuak eta guzti jaulkiz. Azkeneko urtean, 10 urterako ohiz kanpoko aurrekontu berezi bat onartu zuen, baina ez zuen betetzerik izan, ekonomia-krisiaren ostean, erregimen berriak, II. Errepublikak, gastuari eusteko politika egin zuelako²⁶. Fabrikak bere aldetik aldeko testuinguru hori berrikuntza berriak egiteko baliatu zuen: 1928an gurpil-uztaiak edo bandajeak ekoizteko erabakia hartu zuen (1932an prest zegoen jada berrikuntza hori), eta urtebete lehenago, berriz, Espainiako Estatuan artean inork ere egiten ez zituen pieza bakarrek gurpilak (monobloc gurpilak)

²⁶ Ibid., 107-108. or.

egitekoa (1930an hasi ziren halako gurpilak egiten). 1928an Heroult markako galdategiko labe elektriko bat erosi zuen CAFek.

1.2 Beasaingo demografia eta hirigintza

Beasaingo populazioak goraldia handia izan zuen XX. mende-hasieran, eta argi dagoenez, industrializazioak bultzatu zuen hori. Kasu horretan Beasainen izandako prozesua ez zen Gipuzkoako beste herrietan izan zenarekiko ezberdina gertatu. Gipuzkoa herrialde hartzailea izan zen, eta horrez gain, Gipuzkoa barruan, herri txikietatik herri handietarako (hau da, industria zutenetarako) migrazio-prozesua ere izan zen. Hala, Gipuzkoa, Bizkaiarekin batera, XX. mendearen hasierako lehen heren honetan, Espainiako Estatuan populazio-hazkunde handiena izan zuen lurraldea izan zen²⁷.

Beasainen, populazio-hazkundera XX. mendearen lehen herenean gertatu zen batez ere. XIX. Mendearen bigarren erdialdean, dena den, ia-ia bikoiztu egin zuen biztanleria: 1857an 1.100 biztanle zituen eta 1900ean 1.940. Mende-aldaketarekin batera, faktoreak ere aldatu egin ziren (gogoratu 1902an fabrika instalazioak berritzen hasi zela, lehenik eraikuntzarako eta gero bertan lan egiteko langile asko ekarriz). Hala ere, XX. mendearen lehen tartea hartzen badugu, hau da, 1900etik 1930era, Joxe Manuel Azurmendi Dorronsororen zenbakiak erabiliz, lehen datan 1.920 biztanle zituen Beasainek eta bigarrenean 5.240²⁸. Beraz, tarte horretan, %172ko hazkundera izan zuen. Guda osteko populazio-hazkundera, batez ere 1920ko hamarkadaren bigarren bosturtekoan gertatu zen: %29koa hain zuzen ere. Hala ere, kontuan hartu behar dugu, 1927an Arriaran eta 1929ean Astigarreta Beasainen sartu zirela, zeintzuek nahiz eta jada hazkundera prozesu bortitzean murgilduta zegoen herriari populazio-masa handirik aportatu ez zioten baserri guneak izan, zenbakiak borobiltzen lagundu zuten²⁹.

²⁷ HERNANDEZ MARCO, J. L. eta PIQUERO ZARAUZ, Santiago: "Demografía e industrialización en el País Vasco" in FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano eta HERNANDEZ, J.L.: *La industrialización del norte de España*. Crítica eta EHU.artzelona, 1988, 206-221. or.; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 49-51. or.

²⁸ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: op. cit., 28. or. Zurbano Meleroren arabera, 1918an 3.780ko biztanleria zegoen, 1.924an 4.080koa eta 1930ean 5.260koa

²⁹ Antonio Cillanen arabera, Astigarretak, 1920.ean 193 biztanle zituen (ez du Arriarani buruzko daturik ematen, ez eta herria aipatzen). Serapio Mujikak biztanle kopuru bera ematen du 1915.ean. Bestalde, Arriaran, Beasainekin batu aurretik Itsasoren parte zen, Serapio Mujikaren arabera, Itsasok guztira 639 bbiztanle zituen 1915.ean, beraz, Arriaranek 100 bat izango zituen. Kontuan izanik baserriguneko nukleo bat izan zela, eta aldaketa sozioekonomikorik gertatu ez zela, Beasainekin bat egin zuenean, antzeko kopurua zuela uste dugu. MUGICA, Serapio: *Provincia de Guipúzcoa*. Alberto Martín.artzelona, 1915,

1. kapitulua

Ordura arteko immigrazioa txikia izan zen eta gehiena ondoko herrietatik bideratua, eta ez hainbeste kanpotik etorritakoa. Datu bat jartzeko 1860tik (gogoratu fabrika 1862an jarri zela Beasainen, eta geltokia 1863an inauguratu zela), 1910 arte, Gipuzkoan 39 herritako populazioa hazi egin ziren eta 51 herritakoa jaitsi, hots, inguruko herrietatik industrializatzeko-bidean zeuden herrietarako³⁰. Baina 1900etik aurrera, faktore hori aldatu egin zen, eta herri handiak demografia-arloan are gehiago urrunduz ziren herri txikietatik. Hala ere, horrek ez du esan nahi kanpotik etorritako jenderik ez zenik, eta Zurbano Meleroren arabera, jada 1910ean (hazkundearen bigarren uholdea teori aurretik) Beasainen bizi ziren pertsonen %60 ziren Gipuzkoan jaiotak (tartean, soilik %27 herrian bertan jaiotak, beste %33 Gipuzkoako beste herritan jaiotak izanik), eta %20,64 beste euskal lurraldeetan jaiotak (horien erdiak Araban jaiotak). Ia %17 genuen orduan Espainiako beste lurraldeetan jaiotak. Tradizionalki immigrazio handia jaso zuen beste herri gipuzkoar batekin, Errenteriarekin alderatuz gero, azken honen biztanleen %77 Gipuzkoan jaiotak ziren, eta ia %90 Euskal Herrian. Beraz, hor ikusten da zein zen Beasainen erakarpen-maila³¹.

Beraz, ondorio gisa, biztanleria mugimendu horiek Beasain Goierrin nabarmentzea eta bere zentralitatea indartzea ekarri zuten. Ander Gurrutxagak egindako ikerketa baten arabera, 1900ean Beasaingo biztanleria Goierrikoaren %9,3 zen, 1910an %12,65, 1920an %14,39 eta 1930ean %16,98³². Horrek ez zuen aldatu Goierri osoko populazioa oro har nekazaria eta ez kaletarra izatearen errealitatea, baina orduko egitate hori 1950eko hamarkadan aldatu zen: Zurbano Melero ikerlariaren arabera, 1900ean 20.000 goierritarretatik soilik 5.000 ziren kaletarrak, beste 15.000 baserritarrak ziren artean. 1930erako, kaletar goierritarren kopurua igo bazen ere (Beasain 1.940 biztanle izatetik 5.260 izatera pasatu zen, eta Ordizia, 1.500 inguru izatetik 4.000 ingurura; suposatzekoa da 6.000 inguru goierritar berri horietako gehienak kaletarrak zirela), ez zen hor azaldutako alde handi hori jateko beste izan³³. Ikusi dugu hori ez zela Beasainen kasua izan, non 1910erako jada kaletarrak baserritarrak baino gehiago ziren. Beraz, hor ere ikusten da Beasain Goierri baino azkarrago hazten ari zela. Hirietan kontzentratzeko

822-824. eta 863-865. or. CILLAN APALATEGUI, Antonio: *Sociología electoral de Guipúzcoa (1900-1936)*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia, 1975, 59. or.

³⁰ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: op. cit., 27. or.

³¹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 71-72. or.

³² GURRUTXAGA, Ander: *Estructura y progresos sociales en el País Vasco*. EHU. Euskal Herria, 1991. Kontuan izan behar da ikerketa honek Legazpi, Urretxu eta Zumarraga (Urola Garaia edo Goierri Garaia) ere Goierriren barruan sartzen dituela. Bertan esaten da Beasainek, Ordiziak, Urretxuk eta Zumarragak Goierriren hazkundearen %92 hartu zutela 1900-1930 epean.

³³ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 46-49. or.

prozesu hau Gipuzkoan gertatu zen prozesu demografikoarekin bat zetorren, izan ere, 1900.ean Gipuzkoan sei udalerrri bazeuden 5.000 biztanle baino populazio handiagoa zutenak (Donostia hiriburuaz gain; Azpeitia, Bergara, Irun, Oñati eta Tolosa; guztira gipuzkoarren %32,5 barnebiltzen zuten udalerrri hauek), 1930.ean 15 ziren (Beasain tartean), gipuzkoarren %68 udalerrri horietan bizi zelarik³⁴.

Demografiari lotuta beste arazo bat aurkitzen dugu, hau da, Beasainen bertan zegoen etxebizitza-falta (eta baita osasun zerbitzuen eskasia ere, baina azken hau hurrengo azpiatalean tratatuko dugu). Ikusiko dugun bezala, laster, lehen zabalkundea egin beharrean gertatu zen Beasaingo herria. Hala ere, laster erakutsiko dugun bezala, arazo hori demografiari loturik egonik, azken finean bagoi-lantegiko arazoekin estu-estu lotuta zegoen.

Gero eta garbiago gelditu zen Beasaingo etxebizitza-parkeak berrikuntza bat behar zuela; jende berria etortzen ari baitzen Beasaina. Jose Orueta fabrikako zuzendaria bezalako lekuko batzuen arabera, “gela batean 6 do 8 pertsona pila zitezkeen”³⁵. Konponbide bat topatu behar zen, eta ez etxebizitzei zegokienean bakarrik, baizik eta baita etxebizitza horien hornikuntzari zegokionean ere, adibidez urez hornitzeko.

Halako populazioaren igoera batez ere “fabrika haundian” lan egiten zuten langileek ekarri zutelarik, normala izan zen fabrika hori, bai SECM markapean, bai CAF markapean Udalarekin batera etxebizitza berriak egiteko elkarlanean aritu izana. Hori gertatu zen adibidez, 1902an Bideluzeko gunean egiten hasi ziren 28 etxebizitzekin (gaur egun, Arana kalea eta hein batean Iturriotz kalea eratzen dituztenak). Jose Migel Iturriotz alkate zuen Udalak lurra eman zion Bideluze ondoan enpresari etxeak egiteko Beasaingo Jose Zufiaurre etnografoaren arabera, 1907an, bukatu eta gutxira, kale horiek “Zabalgune” gisa ezagutzen ziren³⁶. Kale horiek 1910-11 artean asfaltatu ziren, Martin

³⁴ GARCIA ABAD, Rocio; GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, Jose; eta ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele: ““Leer y escribir”: desarrollo y modernización social. El País Vasco a través de Gipuzkoa (1877-1930)” in GONZALEZ PORTILLA, Manuel; BEASCOECHEA GANGOITI, Jose Maria; eta ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele (ed.): *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea* (311-341. or.). EHU. Bilbo, 2001, 311-312. or. Egile hauek azpimarratzen dutenez, hazkunde hori batez ere hiriburuaren inguruan egin izan zen; 1900ean, Donostialdean ez baitzegoen Donostia besterik 5.000tik gorako beste udalerririk; 1930.ean berriz hiru ziren (Erreterria, Pasaia eta Hernani). Beraz, hiri handiak berak hazkundea erakartzen duela ondorioztatu beharrean gaude.

³⁵ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 82. or.

³⁶ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia (Beasaingo paperak 4. zk.)*. Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1995, 74-77. or.

1. kapitulua

Lasa alkate zela³⁷. Egia esan Bideluzekoak ez ziren izan fabrikak egin zituen lehenengo etxeak, izan ere aurretik, gaur egungo Ezkiaga auzoan, egin baitziren, Legorburu Fausen arabera, Gipuzkoako lehen “langile-etxeak”. Legorbururen arabera, ez zuten askorik iraun, eta badirudi populazio “mugikor” edo “behin-behineko” bat hartzeko etxe probisionalak izan zirela³⁸.

Beraz, lehen “zabalkunde” handia, 1902ko hori izan zen. Urte horretan, Ezkiaga auzoan, 28 familientzako eraikin bat egin zuten, eta baita langileen “Etxe Nagusia” ere, aipatutako Bideluzeko gunean. Esan bezala, Udala bera ere inplikatu egin zen eta Jose Migel Iturriotz alkate zuen Udalak lurra eman zion Bideluze ondoan enpresari etxeak egiteko (Legorbururen arabera, 1901ko ekaineko 19ko agindu batek debekatu egiten zuen Udalek enpresei lurra doan ematea, beraz, kopuru sinboliko baten trukeko salmenta gisa eman zion lurra Udalak SECMri)³⁹. Etxe horiek 1903an hasi ziren eraikitzen, eta berez, 66 familientzako tokia egin behar izan zuten (fabrikaren zuzendari Jose Oruetaren arabera, gehiago ezin izan ziren egin, ur-hornikuntzak aukera gehiago eskaintzen ez zuelako)⁴⁰. Hala ere, badirudi Udalaren eta enpresaren arteko eten bat gertatu zela uraren inguruan (alde bakoitzak zioen uraren ekarrera beste aldeak egin eta ordaindu behar zuela) eta azkenean 13 etxejabe pribaturi saldu zitzaizkien. Horrela sortu zen “Zabalgunearen auzoa”, Bideluze Kaleak eta Kale Berriak osatua; geroago bi alkateren izenak jarri zitzaizkien: 1916an Bideluze kaleari Jose Martin Aranaren izena eman zitzaion, eta geroago, Kale Berriari Jose Migel Iturriotz izena, hain zuzen ere obra hura bultzatu zuen alkatearen izena⁴¹. Aldaketa horrek beste ondorio bat izan zuen: kaletar populazioaren nagusitasuna. Halaber, 1910ean, lehen aldiz Beasainen, hiriguneko populazioak landa-guneko populazioa jada gainditua zuen: 1900ean kaletarrak %42 baziren, 1910ean %58 ziren⁴².

Zabalkunde berriak ere egin ziren 1930. urte aldera. 1923 eta 1924 artean, Arana kalean zein Iturriotz kalean etxebizitza berriak egin ziren eta 1929an geltokira bidean, Urbi etxearen eta geltokiaren artean⁴³. 1924an plazako Eskola Berriak eta Udaletxearen

³⁷ ZUFIAURRE GOYA, Jose: “Alcaldes de Beasain...”, op. cit.

³⁸ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 85. or.

³⁹ Ibid., 90-91. or.

⁴⁰ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 62-63. or.

⁴¹ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia...* op. cit., 68-70. eta 74-77. or.

⁴² Ibid., 60. or.

⁴³ Ibid., 65-66. or.

eraikin berria egin ziren. 1929an abere-hiltegia eta zubia⁴⁴ egin ziren Urbietan. Beste alde batetik, 1910eko hamarkadan, orduko Andra Mari kalea asfaltatu egin zen⁴⁵.

Hala ere, bazegoen beste arazo handi bat, Bideluzeko etxeak egitean gorabehera handiak sortu zituen eta arazoa azaleratu zuena: etxeak zerbitzuz hornitzea, batez ere uraren hornikuntza egitea. Joxe Migel Iturriotz alkatea izan zen ur-ekarketak bultzatu zituen. XIX. mendean, Joxe Martin Arana alkate zela, Ugartemendiko ur-gordailutik (Aizpurun, egungo Institutuaren azpian dago ur-gordailu zahar hura) ur-ekartze bat egin zen, baina emaria urria gertatu zen hazkunde berriarentzako, beraz, argi gelditu zen ur gehiago ekarri beharra zegoela⁴⁶. Beraz, Iturriotzek 1909an beste ur-ekartze bat egin zuen, kasu honetan, Albizturko Santa Marina auzoko Zazpiturrietatik, eta geroago, bere bigarren agintaldian (1912-1920) ere ur-ekarketa gehigarri bat egin zuen Zazpiturrietan bertan Letamendiko ur-gordailuaren hornikuntza hobetzeko. Iturriotz liberalak, ekarketa horrekin tirabiraren bat izan zuen oposizioko zinegotzi karlistekin, haien ustez ekarketarako hodiak lodiegiak baitziren eta horrek gastu handia suposatzen baitzuen; karlistek hodi meheagoak jartzea (emari gutxiagorentzat eta gastu gutxiagorekin) jartzea defendatu zuten. Hala ere, geroak Iturriotzi eman zion arrazoa, eta hurrengo hamarkadetan ere, Beasainen hazkuntzak ur-eskasiaren arazo nabarmena izan zuen beti berekin.

1.3 Bestelako zerbitzuak eta elkarteak

Garai haietako Beasainek, bere egitekoen artean, bazituen hainbat betebeharrak betetzeke. Uraren ekarrera beharizan horren lekukoetako bat dugu, baina beste beharizan asko sortu zituen populazioaren igoerak. Beste alde batetik, jendearen pilaketak eta bizitzeko modua aldatzeak, jendearen ohitura kolektiboak ere aldatu egin zituen, eta horrela, jendeak, bere aldetik elkartzeko modu berriak sortu zituen. Kontuan hartu behar da, halako kasu askotan, fabrikaren papera ere aipatzekoa dela, izan ere, bertako langileentzako jarritako zerbitzuak, askotan, gero herri osora zabalduak izan baitziren, edota, beste batzuetan, arlo batzuetan herriak zuen zerbitzu-gabezia leuntzen lagundu zuen. Lehen aipatu dugun hirigintza da adibide bat, baina badaude gehiago ere, eta horietako bat eskolarena da.

⁴⁴ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 43-44. or.

⁴⁵ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia...* op. cit., 68-70 eta 13-14. or.

⁴⁶ ZUFIAURRE GOYA, Jose: "Alcaldes de Beasain...", op. cit.

1. kapitulua

Eskolatzearen inguruan, populazioaren goraldiak ere izan zuen eragina arlo honetan⁴⁷. Alde batetik, kontuan izan behar da, XIX. mende-erdialdean eskola bakarra zegoela Beasainen⁴⁸ (ditugun datuen arabera, 1844tik aurrera neskak ere eskolara joaten hasi ziren, eta ordutik aurrera ere, joan arren, mutilak baino proportzio txikiagoan joaten omen ziren⁴⁹). Garai haietan eskolek ikasle gutxi samar izaten zituzten, eta gehienak herrigunekoak. Baina industrializazioaren gorakadak umeen kopurua ere handitu egin zuen eta horrek eskola gehiagoren premia handitu egin zuen. Bai sare publikoan zein sare pribatuan, eskola berriak egin behar izan ziren, eta horretan ere nabaritu zen fabrikaren bultzada.

Hala ere, Beasainen bazegoen beste eskola bat, fabrikarena, eta hura langileen semeei klaseak emateko zabaldu zuen enpresak (zabaldu zenean mutilentzat soilik ireki zuen; langileen alabak nesken eskola publikora joaten ziren). Horrela, hein batean bederen, Udal-sareko eskolen gabezia leundu ahal izan zen. Fabrikaren eskola hori 1879 inguruan ireki zen 72 ikaslerekin, baina lehen urteetan batez ere, eskola horren oinarriko baliabideak, enpresaren gorabeheri oso lotuta egon ziren. Hala ere, 1895ean Probintziako Ikuskariaren bisita izan zuen eta hark goraipatu egin zuen. Elena Legorbururen arabera, eskola horretako ikasleek, eskola publikokoek baino nota hobeak ateratzen zituzten eta horretarako arrazoi bat, Legorbururen arabera, eskola horretako ikasleak, langileen semeak izanik, denak kaletarrak ziren, beraz, eskola etxetik hurbil zutenak; eskola publikoak, aldiz, baserriar jatorriko ikasle asko hartzen zituen eta ikasle askok klaseetara joateko zailtasunak zituzten, bai distantziengatik eta baita baserrian lanean lagundu behar izaten zutelako ere⁵⁰.

XX. mendean, hasierako sare eskas samar hori pixkanaka zabalduz joan zen. Mende-hasieran, haur-eskola bat egin zen, Udalak eratuta. Hala ere, sare pribatuan berrikuntza bat iritsi zen eta 1909an lasalletarren eskola hasi zen, Teresa Sangronizen

⁴⁷ Gipuzkoako eskolatzeari buruz gehiago jakiteko, ikus GARCIA ABAD, Rocio; GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, Jose; eta ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele: op. cit.

⁴⁸ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: op. cit., 18-19. or. Hala ere, Zurbano Meleroren arabera, Garinen eta Aratz-Matxinbentan ere auzo-eskolak bazeuden.

⁴⁹ Hala ere, kontutan izan behar dugu Espainiako beste lurraldeekin konparatuta, Gipuzkoan emakumezko alfabetatze tasa altua zela, gizonezkoen eta emakumezkoen alfabetatze tasa ezberdintasun txikiena baitzuen bai XIX mende bukaeran, 1930.era ezberdintasun hori ia desagertu zelarik (1930.ean emakumezkoen alfabetatze tasa gizonezkoena baino 3 puntu portzentual txikiagoa zen). GARCIA ABAD, Rocio; GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, Jose; eta ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele: op. cit., 331-339. or.

⁵⁰ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 101. or.

etxean, Andra Mari kalean⁵¹. Hasieran 60 ume hartzen zituen eta denak mutilak ziren. Hasiera batean, barnetegi-erregimenean egon ziren, harik eta 1920an erregimen irekia ezarri zen arte (eskaera handia zen-eta). 1926an Udalak, beste pabilioi berri bat eginez lagundu zion eskola hori, hain zuzen ere etxearen jabeek etxea saltzeko asmoa agertu zutelako eta eskola horrek eskaintzaren parte bat hartu zuelako (ordurako 200 ikasle zituen eskolak)⁵².

Udalak, horrez gain, SECMren laguntzaz, Arte eta Lanbide Eskola bat zabaldu zuen 1915ean, Andra Mari kalean, artean alkate Jose Migel Iturriotz zela. Alkate haren asmo berritzaileak argiro ikusi ziren, izan ere, bera izan baitzen ur-ekarketa berriak egiten hasi zena. Eskola horrek beasaindarrak industriarako prestatzea zuen helburu eta SECMko Feliciano Arizmendi delineaizailea izan zen zuzendari. Baina 1917an fabrikak bere eskola industrial propioa bultzatu zuen, beraz, 1923an Udalaren eskola industrialak laguntzeari utzi egin zion. Eskola bakoitzak, gutxi gora-behera 40 bat ikasle zituen⁵³.

Hala ere, dirudienez eskaintza ez zen nahikoa izan eta Errepublika garaian eskola-sarea handitu egin behar izan zuten, adibidez eta ikusiko dugun bezala auzoetan (Arriaranen), baina baita ere, herri barruan, sare pribatuak batez ere (Serora edo Moja Karmeldarren neskontzako eskola eta Akademia Berezia zabaldu ziren). Horrez gain, eskola publikoak hobeto hornitzeko saiakera ere egin zen.

Beasaingo eskola-eskaintzarekin amaitzeko, bestelako bi eskola mota aipatuko ditugu. Alde batetik, 1914an Udalak zabaldu zuen lehen Musika Eskola dugu, eta kontuan izan behar da garai hartarako bazegoela jada bultzada bat herriko txistulari- banda, musika-talde eta abarren inguruan, beraz, eskola horrek eta herriko musika-taldeek elkar elikatzen zutela suposa dezakegu. Beste alde batetik, Beasaingo Batzokian EAJk “Euzkel eskola” bat antolatzeko hainbat saiakera egin zituen, 1915an lehena, antza denez umeei klaseak emateko⁵⁴, eta 1936ko maiatzean bigarrena, azken hau

⁵¹ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia...* op. cit., 68-70 eta 13-14. or.

⁵² ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 96. or.

⁵³ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 92-93. or.; eta LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 1996, 102. or.

⁵⁴ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 33-35. or.; eta ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Irakaskuntza Beasainen*. (Beasaingo Paperak bildumako 23. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 2015, 116-117. or.

1. kapitulua

helduei euskara irakasteko⁵⁵. Hilabete eta erdiz jardun zuen eskola hark eta lauzpabost ikasle izan zituen. Eskolak, On Pedro Mari Usabiaga apaiz mutrikuarrak eman zituen. Aipatzekoa da Beasainen euskara irakasteko lehen saiakera izan zela. 1936ko gudak eta Francoren diktadurak jarraipena eten zuten.

Populazioaren hazkundeak, mediku-zerbitzuak handitu beharra ere ekarri zuen. Honetan ere Udal-zerbitzuak eta fabrikarenak bikoiztu egin ziren, izan ere, jakin badakigu fabrikak bere mediku propioak izan zituela, XX. mende hasieratik behintzat, orduan Jose Gabarain Arana izan baitzen zerbitzu hori eman zuena⁵⁶ (hala ere, langileentzako Osasun Sorospen Kutxa sortzeko 1924. urtera arte itxaron behar izan zen). Herriko zerbitzua kontuan izanik, modernizatzea ere beharrezkoa izan zen, kontuan harturik, XIX. mende-bukaeran, mediku bakar batek, Martzelino Agirrezabalek, Beasaingo jendeaz gain, Ordizia, Lazkao eta Zaldibiakoak ere artatu behar izaten zituela. Populazioaren hazkundera zer-nolakoa izan zen kontuan izanik, populazio industrialari lotua eta gainera pilaketa baldintzetan bizi zena (hirigintza eta populazioari buruzko paragrafoetan ikusi dugun bezala), Beasainek bere mediku-zuzkidura handitu egin behar izan zuen. Osasun-zerbitzuen lehenengo hazkuntza 1882an hasi zen, Martina Maiz ongileak finantzaturik, Arangoitiko erietxea egiten hasi zirenean. Erietxea 1903an handitu egin zen eta SECMk lagundu zuen handitze hori egiten⁵⁷. Beraz, ikusten dugun bezala, herriaren eta fabrikaren arteko elkarlana nabarmena izan zen modernizazio-dinamika horretan. Gertatu ohi zen halaber, fabrikako mediku zenak, gero herriko plaza publikoa hartzea ere eta hala gertatu zen, adibidez, Roman Unanue medikuarekin⁵⁸. 1918an, “gripe espainiarra” jasan zuen herriak eta 60 bat hildako izan ziren. 1931n, Errepublika jarri zen urtean, lau mediku (gehi fabrikari beste bat), bi farmazia-denda, erietxe handitu bat, eta horrez gain, fabrikako langileentzako premia Osasun Brigada bat, eta langile horiek gaixotasunen kontra babesten zituen Sorospen Kutxa bat ere bazeuden.

Modernizaziorako beste faktore garrantzitsu bat garraioa izan zen eta ez zen faktore txikia izan, trenbidea eta trena Beasaintzat zeinen garrantzitsuak izan ziren kontuan hartuta, izan ere, halako lantegi handi bat eta tren-geltoki bat bertan izateak,

⁵⁵ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: *Beasain Jaietan* urtekaria. 1987, 66. or. eta SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: *Alfabetatzearen hastapenak Goierriin*. Goierriko Euskal Eskola K. E., 2000, 16. or.

⁵⁶ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 99. or.

⁵⁷ Ibid., 98. or.

⁵⁸ Sara Unanue Donostian egindako elkarrizketa. Sara Unanue, Roman Unanue medikuaren alaba da.

industrializazioari bultzada erraldoia eman zion. Kontuan hartzekoa da, geltokiaren eraikuntza bera, langileen erakarpen-faktore izan zela, industrializatzeko orokorraren pizgarri izan aurretik. Ez da kasualitatea, bai fabrika eta baita geltokia ere, elkarren garaikide izatea.

Trenbidearen irekiera baino lehenago, Beasaingo garraio-zentroa, zalgurdiak edo diligentziak gelditzen zen tokia zen, han juxtu ere tren-geltokiaren aurrean, Barrendainen (baserri hura bota eta beste toki batean berregin behar izan zuten)⁵⁹. Baserri hura, zalgurdien eta posta-zerbitzuaren erdigunea zen. Bertan posta-zerbitzua gelditzen zen. Jakin badakigu XIX. mendearen erdialdean bazegoela Ormaiztegiko bainuetxerako garraio mota antolatu bat ere. XX. mendean motordun ibilgailuak ugaltzarekin batera, autobusak antolatzen hasi ziren, batez ere inguruko herrietatik jendea Beasaina tren-geltokira ekartzeko eta bertatik eramateko baina baita azoketara ekartzeko ere.

1878an Udalaren osoko bilkura batean, astero azoka egitea onartu zen, baina administrazioaren baimena lortzeko 1926 arte itxaron behar izan zen. Hala ere, badirudi 1920.eko hamarkadarako, nahiko ohitura finkatua izan zela, izan ere, 1920 eta 1922 artean Hornigaien Plaza eraiki baitzen. Gogoratu beharra dago azokak, jarduera ekonomiko garrantzitsua izateaz gain (kontuan hartu Gipuzkoan industrializazioak ez zuela aurreko bizitza-modua erabat ordezkatu) jendearen bilgune garrantzitsu izan ohi zirela aspaldidanik, batez ere industrializazioaren aurretik. Gainera, hiribilduetako hierarkien adierazgarri ere baziren, eta eskualde-buru ziren herrietan egiten ziren. Eta industrializatzeko-garaiaren ondoren ere lehen sektorearen topagune garrantzitsu izaten jarraitu zuten. Hori ikusten da adibidez, autobusen zerbitzuarekin: 1927an asteroko zerbitzuak zeuden Ordiziara, Tolosara eta Azpeitira merkatu egunetan. Horrez gain, urte haietan, Atauna, Zegamara, Idiazabala, Ormaiztegira zein Zaldibiara bazeuden autobusak eta egunean bat edo bi ateratzen ziren helmuga bakoitzera. Beraz, horrek ere erakusten du Beasainek nolabaiteko zentralitatea hartu zuela Goierrin eta inguruan.

Kontsumoaren inguruan ere nabaritzen hasi zen aldaketa. Izan ere, XIX. mendeko azken egunetara arte, banaketaren gaineko ia erabateko monopolioa Udal Alondegia eskuetan zegoen. Horrek lortzen zuen janaria eta bertako merkatariari (merkatari izateko Udalaren baimena behar zen) banatzen zien. Kontuan izan behar da

⁵⁹ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia...* op. cit., 18-20. or.

1. kapitulua

askotan “merkatariak” ere ez zirela espezializatuak, askotan baserri batzuetan, baserriko lana egiteaz gain, janariak edo edariak saltzen ziren. 1885ean ezarritako salmenta askeko sistemak ez zuen eredu hori desagerrarazi, baina bai “osotasunezko” denden irudia agerrarazi. Horrela, pixkanaka, halako dendariak agertzen hasi ziren. 1908rako jada 25 taberna zeuden Beasainen eta baita zazpi elikagai-denda ere (tartean, 1930-1931 urteetan alkate izango zen Joxe Bixente Iraola Lasak Kale Nagusian jarritakoa, edo Guda Zibilean fusilatu zuten Gillermo Ugartek Kale Berrian, gaurko J. M. Iturriotz kalean, jarritakoa) eta sei harategi. 1929rako igo egin zen kopuru hori eta hamar janari-denda, bederatzi harategi eta hiru zapata-denda izatera iritsi zen. Altzari-denda bat ere bazen ordurako Beasainen, 1915ean jarri zuten Kale Berrian Arrillaga, Murua eta Suarez bazkideek.

Hala ere, prezioen igoera kontuan izanda (geroago ere mintzatuko gara honetaz), prezioei aurre egiteko kontsumo-kooperatibak sortu ziren. Kooperatiba horiek, bai fabrikan, langileei kontsumoa errazteko, nahiz herrian sortu ziren. Antza denez, herrian bazegoen mende-aldaketa garaian Kontsumo Kooperatiba bat, kale nagusian jarria⁶⁰. Fabrikan sortu zen kooperatiba, 1898an jarri zen abian, nahiz eta, dirudienez, 1907an beste bulkada bat jaso zuen. Hala ere, kontuan hartu behar da hasiera batean ez zituela bere helburuak bete, eskari eskasa zuen, eta gainera bertako prezioak dendetakoak baino handiagoak ziren. Hala zeuden gauzak, beraz, ez da harritzekoa 1917-1919 artean Beasainen izandako langile-mobilizazioetan, kooperatibarekikoak aldarrikapenen parte izatea. Kooperatiba horrek 1909an, Udalak Senperen kooperatiba jeneroz hornitzeko baserri bat eraiki zezala eskatu zion, baina eskaera hori ez zen bete. 1917an, kooperatiba Ezkiaga auzotik Kale Nagusira aldatu zen.

Zerbitzuekin bukatzeko, ordena publikoaz hitz egin beharra dago. Halako sistema ekonomikoen testuinguruan gertatu ohi den moduan, jakina denez, zaintza jabetza pribatuarekin lotuta egoten da gehienetan, eta Beasainen ere, fabrikak interes berezia izan zuen ordena publikoaren arloan zaintza handiagoa izan zedin. Fabrikak XX. mende-hasieratik zituen guarda edo zaintzaile batzuk kontratatuta. Orduetik aurrera, guardien kopurua handitu egin zuen CAFek eta 1920an 32 zaintzaile kontratatuak zituen. FVBren kasuan, segurtasun publikoaren eta segurtasun pribatuaren arteko nahasketa ikusten da: 1912an, udaltzain bat ordaindu zuten Ezkiaga auzoa zaintzeko.

⁶⁰ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 81. or.

Are gehiago Guardia Zibilaren kuartela Beasainen eraikitzea, dirudienez, fabrikaren ekimen bat izan zen. Kuartela 1914an bukatua zen jada, eta jakina, Ezkiaga auzoaren hasieran kokatu zen, gaur egun Olanan fabrika izandako eraikinaren ondoan (CAF fabrika beraren parean)⁶¹.

Jose Gabriel Zurbano Meleroren arabera, industrializatzearen aurreko Beasainen, jendea elkartzeko modurik ohikoena, jaiak, ospakizunak, erlijio-ospakizunak eta abarrak izaten ziren, Hori dela-eta, jaien inguruan sortu zen Loinazko San Martinen Kofradia, jaien antolakuntzaren ardura “zibila” hartzen zuena (orduan jaiak beste modu batean ulertzen ziren eta erlijioak pisu handia zuen). Jaien inguruan, kontuan hartu behar da San Martinen jatorriaren inguruko eztabaida handi bat zegoela Beasain eta Bergararen artean, eta Kofradia horrek, santuaren beasaindartsunaren defentsa egiten zuela⁶². Kofradia horren banderadunak, baserri eta etxe jakinetakoak izan ohi dira oinordetzan ordezkapenak eginez eta, besteren artean, Barrendain etxeko Mendia familiakoak ere izan ziren, tartean, 1936an fusilatua izan zen Evaristo Mendia⁶³.

Aisialdi-taldeak ere osatzen joan ziren, bai euskal folkloreari lotutakoak, zein kirolari lotutakoak, zein bestelako jardunei lotutakoak. Elkarte berri horiek sortzea masa-gizarte modernoaren adierazgarrietako bat da eta gizartearen elkarketarako beste era bateko antolamendu-modu bat erakusten du. Pixkanaka, taldeen egituraketak pertsonen identifikazio kolektiboa perfilatzen lagundu zuen eta baita jendea taldeetan biltzen ere. Dugun informazioaren arabera, sortu ziren lehen taldeak euskal herri-kulturaren ingurukoak izan ziren. Halako taldeek, berez, ez zekarten industria-gizarte baten urratsik, aurretik zeuden elementuak kohesionatzen baitzituzten. Hala ere, pixkanaka kolektibotasun baten lehen aztarnak izan ziren, bestelako (hots, familiaz eta parrokiak at) “elkartzeko kultura” eratu zutenak. Hala, 1865 eta 1870 urteen artean, dirudienez, txistulari-taldeak sortu ziren, eta azken urte horretan, musika-txaranga bat ere osatu zela dirudi⁶⁴. Horren fruitu izan zen, 1881ean eratu zen Udal Musika Banda. Kirolari dagokionez, garai berean, bi pilotaleku egin ziren orain Bideluze Plaza dagoen tokian; Jose Zufiaurre Goia Beasaingo etnografoaren arabera, biak “Joxe Martin Arana

⁶¹ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 99. or.

⁶² ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 70-72. or.

⁶³ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale izenen historia...* op. cit., 68-70. eta 18-20. or.

⁶⁴ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: op. cit., 89-91. or.

1. kapitulua

Arregiren lehen alkate-aldian egin ziren”, beraz, 1876 eta 1878 artean egin zirela ondorioztatu beharra dago⁶⁵.

XX. mendeari itxaron behar izan zitzaion, kirol “berriak” Beasainen sartzeko. Halako gehienak Beasain Kirol Elkartearen babespean sortu ziren. Kirol Elkarte hori, beasaindarren artean kirola sustatzeko lan eginez, kirol ezberdinen praktikan aitzindari izan zen. Horietako bat, adibidez, mendiko taldea izan zen, 1905ean sortua (1961ean birsortu zen Aitzgorri izenarekin)⁶⁶. Laster, txirrindularitza-probak ere antolatzen hasi zen, adibidez, Joxe Manuel Azurmendik esaten digun moduan, 1916an lehen txirrindularitza-proba antolatu zen Beasainen, nahiz eta Loinatz proba izenekoa finkatzeko 1924. urtera arte itxaron behar izan zen.⁶⁷ 1920an Miguel Cerrajería lehendakari zela (gudaren osteko erregimen frankistan lehenik zinegotzi eta geroago, 1949 eta 1954 artean, alkate izan zena), Beasaingo Futbol Kluba izeneko Kirol-elkartea sortu zen eta garai hartan futbol-zelaia, Senperen zegoen “fabrika haundiko” lurretan. Hala ere, Jose Gabriel Zurbano Melerok esaten digunez, badirudi elkarte hori, “Futbol” izena jarri eta aurreko elkartearen jarraipeneko izan zela, mendizaleak eta txirrindularitza ere bere baitan baitzituen. Bere esanetan, lehen urteetan, futbolari batzuk musika-bandako kide ere bazirenez, lehen urteetan gatazkak ere sortzen bide ziren bi elkarten artean, futbolari-musikari batzuei isuna jartzeko punturaino. Futbol-partidak eta igandeetako plazako dantzaldiak ordu bertsuan zirelako, eta azkenean, dantzaldiak ordu erdiz atzeratu behar izan ziren, kirolak hartu zuen indarraren lekuko⁶⁸.

Atal hau bukatzeko, “klase-elkartek” ere izan ziren. Elkarte haiek bi motatako interesetakoak izan ziren: bazeuden sektore sozial jakin baten interesak defendatzen zituztenak, baina baita ere, defentsa sozioekonomikoa helburu zehatz gisa izan gabe, sektore horretako jendea batzen zutenak. Lehen multzoan, langileen aldetik, jakina, sindikatu ezberdinak sortu ziren XX. mende-hasieran, bai sozialistek, zein anarkistek zein jeltzaleek euren sindikatu propioak izan zituzten; hala ere, horiez hurrengo azpikapituluari hitz egingo dugu, langile-antolamendua aztergai izango dugunean. Bestetik, 1917an “Kafegileen, Tabernarien eta Antzekoen Elkarte” sortu zen, beste sektore batzuetako enpresariak batu zirelako. Hala ere “aisialdiko klase-elkartek” ere

⁶⁵ ZUFIAURRE GOYA, Jose: “Alcaldes de Beasain...”, op. cit.

⁶⁶ ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarte herrikoiak*. (Beasaingo Paperak bilduma, 1 zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 56. or.

⁶⁷ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: op. cit., 89. or.

⁶⁸ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 87-88. or.

sortzen hasi ziren. Esan bezala, aisialdia zuten lehen helburu gisa halako taldeek, baina zeharka bada ere, “elkartasun-kultura” bat susta zezaketen: halako lehen langile-elkartea 1904an sortu zuten SECMko langileek, Beasaingo *Casino Recreativo* (Aisialdiko Kasinoa) deitu zena, Emilio Poignon eta Baltasar Fernandezek eskutik eta Kale Berrian kokatu zen. Garai hartan sortu zela Beasaingo lehen langile-elkarte politikoa ere, *Agrupación Socialista* (Elkarte Sozialista); ez dugu honi buruzko informazio handirik, baina badakigu 1909an desagertu egin zela eta 1915ean berriz agertu. Badirudi bi elkarten artean nolabaiteko zubi-lana egin zela. Aisialdiko Kasinoa, Zurbano Meleroren arabera, “kultura liberala” sortzeko erabakigarria izan zen: 1910ean frontoian film bat eman zuten, eta 1920an Beasaingo lehen danborrada antolatu zuten. Burdinbideko langileek 1920an Burdinbideko Aisialdiko Elkarte, erdaraz *Sociedad Recreativa Ferroviaria* sortu zuten. Elkarte horrek, batez ere, gaueko ikuskizunak eta aisialdia egituratu zituen; dantzaldi modernoak eta abar⁶⁹.

Beste alde batetik, Usurbe elkarte ere aipatu beharra dago. Elkarte horrek, beste mota bateko jendea biltzen zuen, hau da, “profesionalak, industrialak, unibertsitateko ikasleak, merkatariak eta enplegatu bereziak”⁷⁰. Beraz, langileena baino areago, erdi edo goiko klaseetako pertsonak osatzen zuten elkarte hori (elkarte sortu zen garaiko alkatea bera, Pedro Arana Gaiztarro industrialak, elkarteko kide zen). Elkarte, Donostiako Gaztelubide Elkartearen “imitazioz” sortu zen 1920. urtean⁷¹, eta Zubimuzu plazan kokatua zen. Elkarte horretako pertsonak, Zesareo Ugarte bazkideak esaten zuenez “joera liberaleko jendea” ziren (hala ere, kontuan hartu behar dugu garai hartan ez zutela emakumerik onartzen bazkide gisa; guda ostean Martzelina Urteaga sukaldari gisa izan zen sartzen lehena; gaur egun bai, bazkide izan daitezke). Baina esan beharra dago, joera politiko-sozial oso ezberdineko jendea biltzen zela bertan, beraz, badirudi komunean zuten elementu nagusia, aisialdirako gustuaz gain, pertsona haien klase soziala zela, burgesiako edo burgesia txikiko pertsonak batzen baitziren. Elkartean gizartearen eta baita ere Udalaren arazoez asko eztabaidatzen zen, “politika egiten zen, beste modu batean bazen ere”. Baina aipatu bezala, joera ezberdinetako jendea biltzen zen bertan, horietako asko, lan horretan garrantzia izango zuten pertsonak: Errepublikan garaian ezkerreko alkate izandako Jazinto Urteaga eta Viktor Bernedo, adibidez, eta

⁶⁹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 89-90. or.

⁷⁰ UGARTE, Zesareo: “Usurbe Elkarte” in ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarte herrikoiak*. (*Beasaingo Paperak* bilduma, 1. zk.) (13-19 or.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 15. or.

⁷¹ *Ibid.*, 13-14. or.

1. kapitulua

joera errepublikanoko zinegotzi izandako Seberiano Azpeitia, Leontzio Ibarbia, Serafin Arana edo Pedro Azarola; baina baita eskuindarrak eta karlistak ere, adibidez, guda osteko lehen alkate Jose Luis Guridi edo bere Udal-taldeko zinegotzi Jose Aranburu eta Restituto Urteaga⁷².

1.4 Langile mobilizazioa

Langile-antolakuntza, Gipuzkoan, Bizkaian baino berantiarra goa izan zen, lehen aipatu bezala, industrializatzea Gipuzkoako lurretan hain traumatikoa izan ez zelako. Lehen mobilizazio handiak Lehen Mundu Gudaren bukaera aldean izan ziren, 1917-1919 arteko mobilizazio handietan (Espainiako Estatuan ere halako mobilizazioak izan ziren). Garai hartan bi faktore bat etorri ziren, bata, enpresen onurak handitzea baina horrek langileengan eragin positiborik ez izatea, eta bestea, bizi-kostua igotzea, prezioak garestitzea, alegia.

Miguel Angel Lopez Gonzalezek, 1891n Maquinista Guipuzcoanan mobilizazio bat egin zela aipatzen du, baina ez du datu handirik ematen⁷³. Ez dugu informazio handirik mugimendu horren inguruan. PSOeren *El Socialista* egunkariaren arabera, 1900an beste greba bat egin zen Beasainen, baina ez dago mugimendu hari buruzko informazio handirik⁷⁴. Hala ere, fabrikaren nondik-norakoak ezagutuz, badirudi greba hori, langile-kopuruaren murrizketa bategatik izan zela, Elena Legorburuk esaten digu 1899an langile-kopuruaren murrizketa egin zela eta agian hurrengo urteetan gehiago ere egin zirela, fabrika berrian (gogoratu 1904an instalazio berriak egin zirela), langile gutxiago sartu baitziren⁷⁵. Baina baliteke 1900an Beasainen eratu zen Langile Erreformatarako Batzordearen kontrako protesta izatea ere, izan ere, batzorde hori eratzeak langileen artean ezinegona piztu baitzuen, hain zuzen ere, batzorde horretako partaideen artean langilerik ez zelako⁷⁶. Luis Castells egilearen arabera, mugimendu hori doitzailen artean izan zen⁷⁷.

Lehen greba horiek bat-batekoak izaten ziren. Juan Pablo Fusiren arabera, Gipuzkoako lehen langile elkarte Eibarren 1897ko grebaren ondotik sortu zen armaginen elkarte izan zen. Hala ere, Fusik berak aitortzen du, "Eibar salbuespena izan

⁷² Ibid., 15. or.

⁷³ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: *Beasain: Udalerri gipuzkoar baten historia...* op. cit., 96. or.

⁷⁴ *El Socialista*, 1900-XII-8; in EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 22. or.

⁷⁵ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 33. eta 41. or.

⁷⁶ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 117. or.

⁷⁷ CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco...* op. cit., 13-17. or.

zela” eta “Gipuzkoako gainontzeko zentro industrialetan (Tolosan, Beasainen, Erreterian edo Pasaian), langileen antolakuntza berantiarragoa izan zela”. Ikusiko dugun bezala, askotan, langile-elkarte sindikalen eta elkarte sozialisten sorrera batera etorri ziren⁷⁸.

Jose Gabriel Zurbano Meleroren arabera, beste greba bat ere egin zen 1907an, abuztuaren 2an eta 3an izan zen mugimendu hori, eta langileek, aroztegiko kontramaisu bat botatzea izan zuten helburu. Zurbanoren arabera, litekeena da greba hori Arrasateko beste mugimendu batekin elkartuta egin izana, baina antza denez, mugimenduak porrot egin zuen. 63 langilek egin zuten bat⁷⁹, 1908ko datuen arabera, fabrikari 869 langile ziren⁸⁰.

Lehen Mundu Guda bukatzean egin ziren lehen greba-mugimendu koordinatuak. Guda hura hasi aurretik nahiko bare zegoen Gipuzkoa eta batez ere Beasain: 1911ko fabrikako informe batek adierazi zuen, langileria otzana zela eta ez zela grebetara emana; horren lekuko dugu 1910-1914 arteko barealdia. 1912an Tolosan greba handi bat egin zen papergintzan, baina oro har, Gipuzkoa giro barean murgildua zegoen⁸¹. Esanguratsua da, 1910 eta 1914 artean, Gipuzkoan egin ziren greba gehienak Donostian egin zirela eta industrialak ez ziren langileen artean eginak izan zirela (tabernariak, ile-moztaileak margolariak eta abar)⁸². Juan Pablo Fusiren arabera, langileen hasierako elkartze- eta sindikatze-tradizio falta hori, orduan Gipuzkoan nagusi zen pentsaera katolikoarengatik eta langile askoren jatorri baseritarrarengatik gertatu zen, non lanerako jarrera, lanarekiko eta betebeharrarekiko leialtasunarekin identifikatzen zen⁸³.

Hala ere, Lehen Mundu Gudak erabat aldatu zuen panorama, bai mobilizazio sindikalei zegokionez eta baita langileen autoidentifikazioari zegokionez ere. Lehen Mundu Gudaren Espainiaren neutraltasunak on egin zien Espainiako Estatuan kokatutako enpresei, eta onurak asko igo ziren, baina ez ziren ondo banatu. Izan ere, onurek gora egin bazuten ere (lehen mailako produktuen prezioekin batera), langileentzat gauzak ez

⁷⁸ FUSI, Juan Pablo: op. cit., 178-180. or.

⁷⁹ URBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 118. or.

⁸⁰ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 41. or.

⁸¹ LUENGO, Felix: op. cit., 1990, 321. or. Antzeko zerbait komentatzen du, adibidez, Juan Pablo Fusik, zeinak 1912ko greba hori Tolosan soilik egin zela dioen eta ez zela ezta Papelera Española enpresaren Erreteriarako enpresara ere zabaldu, Gipuzkoako beste papergintza-enpresetara alegia. Hala ere Fusik berak onartzen du greba horrek arrakasta izateaz gain, beste ondorio ongarri bat ere izan zuela: Euskal Herriko Papergintzako Sindikatua sortzea, alegia. FUSI, Juan Pablo: op. cit., 313-315. or.

⁸² Ibid., 314. or.

⁸³ Ibid., 180-181. or.

1. kapitulua

ziren onera joan, soldatak ez baitziren igo. 1917an hasi ziren lehen grebak Beasainen⁸⁴. Horietako bat, ekainaren 19 eta 23 artekoa izan zen, bost langile kalera bota zituztela-eta⁸⁵. Miren Barandiaran Contrerasen arabera baina, Euskal Herrian egin zen, metalurgiako greba batekin koordinatuta egin zen. Greba hori ELAk babestu bide zuen baina UGT kontra agertu zen⁸⁶. Hala ere, langile askori Lleidakoa meatze batera lanera joateko aukera eman ondoren adostasun batera heldu ziren, nahiz eta Ludger Mees ikerlariaren arabera, grebaren emaitza “porrota” izan⁸⁷. Ematen duenez, greba horrek nazionalisten eta sozialisten arteko harremanak okertu zituen Beasainen⁸⁸, Abuztuan beste greba bat egin zen Espainiako Estatu osoan PSOEk eta UGTk deitutako greba iraultzailearen markoan beste greba bat deitua izan zen eta CNT ere batu egin zen hartarako. Miren Barandiaranen arabera, ordea, ELA ez zen elkartu greba hartara, UGTk gonbita egin arren⁸⁹.

Abuztuko greba hartan, helburuak politikoagoak edo orokorragoak izan ziren, ez ekonomikoak edo fabrika edo herri baten ingurukoak: nahiz eta prezioen igoerak zeresana izan, badirudi sindikatu deitzaileek, erregimen monarkikoaren sinesgarritasun-falta zela-eta, monarkia uzkaileeko edota behintzat erreforma demokratiko sakonak ezarrarazteko asmoa izan zutela⁹⁰. Greba hura Euskal Herrian, Bizkaian bereziki, oso jarraitua izan zen (Bilbo eta batez ere Meatzaldea 13tik 20rako astean erabat geldituta egon ziren), baina ez hainbeste Gipuzkoan; Beasainen bai, ordea, eta grebaren toki beroetako bat izan zen. Greba hark istilu handiak sorrarazi zituen, alde batetik, Guardia Zibilak eta Armadak parte hartu zuten greba bertan behera utzarazten Jose Antonio Egidoren arabera (garaiko langileek kontatuta), garai hartan grebak puskatzeko erabiltzen zen beste taktika bat, ondoko herrietatik eskirolak ekartzea izaten zen⁹¹. Greba hartan, adibidez, eskirolen eta grebalarien arteko talka nahiko handia izan zen eta greba-egileen eta eskirolen arteko kolpeak ere izan ziren. Greba hartan, Elena

⁸⁴ Juan Pablo Fusik 1916an Beasainen trenbideko greba bat egin zela esaten du. Urte hartan Bizkaian metalurgiako langileek greba handi bat egin zen eta Gipuzkoako zenbait herritan, Arrasaten adibidez, greba-hotsak izan ziren. Ibid., 368-369. or.

⁸⁵ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 66. or.

⁸⁶ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 45 or.; eta MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, 154. or. 1917-VI-20ko *Euzkadi* egunkarian ere informazio horiek agertzen omen dira.

⁸⁷ MEES, Ludger: op. cit., 154. or.

⁸⁸ Ludger Meesen arabera, Bilboko *El Liberal* egunkari filozozialistaren berri-emailea “eskiroitzat” tratatu zuten Beasainen. Ibid., 146 or.

⁸⁹ LARRAÑAGA, Policarpo: *Contribución a la historia obrera del País Vasco*. Aranzadi. Donostia, 1976-77, 68-69. or.; eta BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 45-46. or.

⁹⁰ FUSI, Juan Pablo: op. cit., 370. or.

⁹¹ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 22. or.

Legorbururen arabera, 1.000 langile baino gehiago elkartu ziren, eta Zurbano Meleroren arabera, are gehiago, “16an, lanera, 700 bat, hots %53 inguru soilik itzuli ziren”, beraz, guztira, uneren batean behintzat 1.350 bat langilek greba egin zutela kontuan hartu beharko dugu. Izan gogoan, greba-olde horregatik, Gipuzkoan guda-egoera ezarri zela eta Elena Legorbururen arabera, “Gipuzkoa osoan zehar ez zuela jarraipen handirik izan”⁹², beraz, Beasaingo istiluak benetan handiak izan zirela ondorioztatu beharko dugu. Errepresioa ere handia izan zen, Beasaingo Lanbide Anitzetako Langile Elkarteko zuzendaritza osoa atxilotu baitzuten. Abuztuaren 25ean, atxilotuen askatasuna lortzeko istilu batzuk gertatu ziren Beasainen. Atxilotutako langile ia guztiak aske utzi zituzten⁹³. Fusiren arabera, greba hura porrota izan zen, ez baitzituen helburu politikoak lortu eta, gainera, sozialisten eta anarkisten arteko koordinazio-falta agerian utzi baitzuen⁹⁴. Halere, Legorburu Fausen arabera, soldata-igoera batzuk lortu zituzten langileek.

Kontuan hartu behar dugu 1917rako jada sindikatuak antolatzen hasiak zirela. Urte hartan Beasainen Lanbide Anitzetako Langile Elkartea sortu zen, Donostiako *Federación Local de Sociedades Obreras* (FLSO; Langile Elkarteen Tokiko Federazioa) elkarteari lotuta. Federazio hori, UGTren hurbilekoa zen hasieran, baina 20. hamarkadan, Donostian komunistek sindikatuetan zuten indarra zela-eta, sozialisten eta komunisten arteko borroka-leku ere izan zen⁹⁵. Beste alde batetik aipatu beharra dago, 1915ean Beasainen Elkarte Sozialista berriro berrerratu zela eta horrek gerora begira jada UGTren hazkundera iragar zezakeen. Urte hartan bertan sindikalismo katolikoa ere agertu zen Beasainen eta bi erakunderen bidez agertu ere, alde batetik ELA/SOV (Eusko Langileen Alkartasuna/Solidaridad de Obreros Vascos), ideologiaz katolikoa zena, Utrechteko Sindikatuen Konferentziari atxikia eta sindikalismo sozial kristauaren doktrina sindikala jarraitzen zuena, baina elizako hierarkiari lotuta ez zegoena⁹⁶ eta bestetik Elizaren Sindikatuak (Elizako hierarkiari ideologia eta antolamendu aldetik lotuagoak zirenak. Dirudienez, azken horiek Beasainen ez zuten pisu handirik izan, izan

⁹² LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 66-67. or.

⁹³ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 45-46. or.

⁹⁴ FUSI, Juan Pablo: op. cit., 376-377. or.

⁹⁵ 1930.eko hamarkadan, FLSO komunistekin lerratu zen.

⁹⁶ Beasainen ELA 1915ean sortu zela azaltzen digu Ludger Mees historiagileak ere. Meesen arabera, ELAk bost talde zituen orduan Gipuzkoan: Soraluze, Eibar, Antzuola eta Bergarakoak izan ziren lehenago sortuak. MEES, Ludger: op. cit., 145. or. Mikel Aizpururen arabera, ELAtik Sindikatu Katolikoen aurka egin zen salaketa nahiko erabilia izan zen, azken horiek “patronalaren mendeko sindikatuak” zirela adieraziz. AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. EHU. Euskal Herria, 2000, 192-193. or.

1. kapitulua

ere, Beasainen ez dugu halako sindikatuen beste erreferentziarik aurkitu)⁹⁷. Anarkistak, Legorbururen arabera, 1920an sortu ziren, Beasaingo Langileen Sindikatu bakarra eratu zenean, Pedro Lasa idazkari zela⁹⁸. Egile horrek berak ere aipatzen ditu, esanez, 1919an sortutako Beasaingo Langileen Elkarketak, Eugenio De Pedro lehendakari eta Juan Urbina idazkari zituela, eta Beasaingo Metalurgiako Sindikatuak, berriz, Nicolas Urbistondo zuela buru eta 1921ean Gipuzkoako Metalurgia Sindikatuan sartu zela. Antza denez, azken bi horiek sozialistekin edota UGTekin harremana izan zuten (sozialistena baitzen Beasaingo langile-talderik indartsuena).

1918an eta 1919an gora egin zuen asaldurak Gipuzkoan, baina Beasainen ez ordea hainbeste. Beasainen egoera nahiko lasaia izateko arrazoiak hauek izan ziren Elena Legorbururen arabera, alde batetik enpresak kontsumo-kooperatiban hobekuntzak egitea (1918tik aurrera, lokal berria zabaltzeaz gain, haragia saltzen ere hasi ziren bertan) eta baita lanegunak murriztea ere: 1919an 9 orduko laneguna jarri zen, eta 1923an 8koa, Gipuzkoan aitzindarietako bihurtuz. Kontuan hartu behar dugu halaber, lehen aipatutako soldata-igoerak egin zirela eta txikiak izan arren ere, nolabait, hobekuntza horiek, langileen egoera hobetzen lagundu zutela⁹⁹. Jose Gabriel Zurbanok 1920ko maiatzean eta ekainean greba-mugimenduak sumatu zirela dio, baina arlo politikoan kokatuak eta berme konstituzionalak bertan behera uztearen kontrako mugimenduak izan zirela aipatzen du. Urte hartako Maiatzaren Lehenean izan zen Beasainen Udal Musika Bandak¹⁰⁰ eta baita abertzaleek, bai EAJk zein ELAk, parte hartu zuten lehen aldia¹⁰¹.

Urte haiek, oso urte oparoak izan ziren langile-militantziarentzat; 1919-21 biurtekoan, adibidez, Donostian, sindikatutako langileak, 699 izatetik 4.053 izatera pasa ziren; Gipuzkoako Metalurgiako Langileen Sindikatuak, 1920ko ekainean, 1.659 langile sindikatu zituen eta Euskal Herriko Papergintzako Langileen Sindikatuak, Tolosan 1919an sortuak, 1921eko urtarrilean 2.492 langile zituen¹⁰². Beasaingo fabrikan

⁹⁷ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 120-121. or.; eta CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco...* op. cit., 48. eta hurrengo or. Ludger Meesen arabera, ELAren eta Elizako Sindikatuen arteko ezberdintasun hori, azken horiek Elizarekiko atxikimendu ideologikoaz gain hierarkiaren mendekotasuna izatean zetzan. ELAk hori kritikatu zuen, “enpresarien tresna” gisa ikusi zituztelako. MEES, Ludger: op. cit., 161-162. or.

⁹⁸ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 71. or.

⁹⁹ *Ibid.*, 68-70. or.

¹⁰⁰ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 121. or.

¹⁰¹ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 46-47. or.

¹⁰² FUSI, Juan Pablo: op. cit., 400-401. or. Une berean, Bizkaiko UGT 1918ko uztailean 6.226 langile izatetik 1920an 18.002 langile izatera pasa zen.

lanegunaren orduak murriztea ez zen salbuespena izan Euskal Herrian, izan ere, 1919a eta 1920a urte oparoak izan baitziren akordioetarako. Bizkaian adibidez, enpresa handi gehienetan zortzi orduko laneguna ezarri zen. Gipuzkoan halako neurriak jartzea pixka bat beranduxeago iritsi zen.

Primo de Riveraren Diktadurak kale-borrokak, eta beraz, langile-mobilizazioak apaltzea ekarri zuen hasiera batean, hori baitzen bere helburuetako bat. Primo de Riverak, langile-ordezkaritzarako, “Enpresetako Komite Parekideak” ezarri zituen 1926an, enpresariak eta langileak, biek, ordezkaritza batak adina besteak izango zituzten komiteak. Sindikatu batzuek, UGTk adibidez, Diktadura harekin kolaboratu egin zuten, langileen aldeko neurri batzuek hartzeko aukera bezala ikusi zuten-eta. Hein batean, arlo batzuetan amore eman zuten, eta ezarritako ekonomia-protektzionismo berriak (Primo de Riveraren helburu ekonomikoa kapitalismoa “espainiartzea” baitzen), nolabait ere langileen egoera aldi baterako baretzea lortu zuten; eta hori greben beheraldiarekin garbi ikusten da.

1.5 Mende hasierako politika Beasainen

Industrializatzek eta ekarri zuen gizarte-modernitateak, bai ordezkaritza-sistema eta baita jendearen komunitate-identifikazioa ere aldatzea ekarri zuten. Beraz, lehengo antolaketa-moduak desagertuz joan ziren, berriei tokia egiteko. Lehen ikusi dugu zer gertatu zen elkarteen kasuan, non kolektibitate berriak sortzen hasi ziren, zaharren ondoan edota haiek ordezkatuz, betiere testuinguru berri baten barruan. Politikari dagokionez, antzeko zerbait gertatu zen, ordezkapen-modu berriak sortu ziren, batez ere testuinguru berriari lotuta.

1876an Bigarren Guda Karlista bukatu ostean, Berrezarkuntzaren garaian ezarritako “demokraziaren” sistema formalak, boterearen aldeko bi alderdiren arteko txandakatze-sistema (liberalak eta kontserbadoreak, biak monarkia parlamentarioaren aldekoak) bermatu egin zuten. Kontuan hartu behar da Gipuzkoan karlismoak, batez ere baserriarren aldetik, herri-babes handia izan zuela (parte batean, herri-lurren defentsagatik), eta bestetik, antzinako erregimenaren defendatzaileak eta erregimen hari lotutako ekoizpen-moduei atxikitako pertsonak ere (lur-jabe tradizionalak edota elizgizonak), sistema horren defendatzaileak zirela. Beraz, Berrezarkuntzako sistemak

1. kapitulua

(nahiz eta 1890ean gizonezkoen sufragio “unibertsala” jarri Espainiako Estatuan¹⁰³ – emakumezkoen botoa 1931n onartu zen-), botoa emateak eta aukeraketa egiteak eliteen eta jauntxoaren esku jarraitzen zuten. Izan ere, 1890eko gizonezkoen sufragio “unibertsalaren”¹⁰⁴ legeak eta geroagoko, 1907ko lege berriak, ez zituzten hautagai izateko lehengo mugak kendu, eta beste alde batetik, bai probintziako Aldundirako eta baita Espainiako Parlamenturako ere, aukeraketa izen bakarreko barrutien arabera egiteak, politika, lotura onak zituzten tokiko pertsona “eragindunen” esku uzten zuten.

Industrializatzek, jakina, gizartearen aldaketa mota bat eragin bazuen ere, klase sozial berriak agerrarazi zituen eta horietako asko sistema liberalari lotuak. Gogorarazi behar da, liberalismoa, bai Gipuzkoan eta baita Euskal Herrian ere, hiriei eta hiribilduei lotua zegoela gehienbat, merkataritzari lotutako klaseen bitartez. Praktikan, Estatu liberal berriaren demokrazia maila oso mugatua zen eta oligarkiaren pisua oso handia. Alderdi horiek, askotan erregimen berriaren politika liberalizatzaileen onuradun izan zitezkeen pertsonak babesten zituzten, adibidez, industria-enpresariak, merkatariek eta abarrek; euren nagusitasun soziala erreformismo liberal apal batekin bilbatzen zuten. Bestalde, Berrezarkuntzak, ezaguna den bezala, Foruen indargabetzea edo deuseztapena ekarri zuen eta Itun edo Kontzertu Ekonomikoez ordeztu zituen. Hitzarmen Ekonomiko hori Estatuarekin aldizka-aldizka berritu beharra zegoenez gero, Aldundien paperak garrantzia hartu zuen, Udalen papera txikituz¹⁰⁵. Hala gertatu zen adibidez 1905eko Hitzarmenen berrikuntzarekin, Hego Euskal Herrian, eta batez ere Gipuzkoan, foruen berrezarkuntzaren aldeko kanpaina bati bide eman baitzioten.

Horrek, botere-modu tradizionalarekin ika-mikak sortu zituen; Beasainen, antzinako lur-jabeen eta fabrikaren inguruko pertsonen artekoak, adibidez. Kasu horietako bat Frantzisko Goitia enpresariarena izan zen. Goitia XIX. mende bukaeran Udalean sartu zen, eta, harago joanik, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako aukeratua izan zen. Hala ere, garai hartako Beasaingo Udalaren eta Goitiaren arteko harremanak oso onak ez zirela frogatzen du 1888an Udalak Goitari Beasaingo bizilagun izaten jarraitu behar al zuen galdetu izanak¹⁰⁶. Lur-jabeen eta industria-jabeen arteko borroka azaleratzen eta arlo politikoan barneratzen hasi zen. Euskal Herria bezalako

¹⁰³ 1868an egin zen gionezkoen sufragio unibertsala jartzeko saiakera bat, baina ez zuen iraun.

¹⁰⁴ Emakumeen bozka ez zen 1931 urtera arte onartu, horregatik, ezin dugu benetako sufragio unibertsalaz hitz egin.

¹⁰⁵ CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política...*, 225-226. or.

¹⁰⁶ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 128. or.

lurraldeetan, karlismoaren babes handia eta aldi berean industriaren gorakada handia aldi berean elkartu ziren tokian, hauteskundeetan, udaletakoetan zein foraletan batez ere, sistema liberalaren aldeko aldagai guztiak (Alderdi Liberala zein Alderdi Kontserbadorea Espainiako Gobernuan txandakatzten ziren sistemako alderdi “ofizialak” ziren eta, kasu batzuetan, Tolosako hauteskunde-barrutian adibidez, baita errepublikanoak ere), bat egitera eramaten zituen.

Gauzak horrela, eliteen arteko talka bizi izan zen (eliteen arteko talka izateak erakusten du askotan herria aparte samar zegoela; alderdien egoitzak berandu zabaldu izana ere kontuan hartu behar da, karlisten lokala 1907an zabaldu zen, eta liberalena 1918an¹⁰⁷). Ez da harrigarria, Beasainen, liberalen indarren oinarria CAF inguruan egotea, hori baitzen ekoizpen modu berrien, enpresa-kapitalismoaren, gunea. Hori izan zen karlisten kontrako deman liberalen babestokia. Goitia, talde liberal eta errepublikanoetan bolo-bolo sartu zen. Hala, Unai Belaustegi, Berrezarkuntza garaiko mugimendu errepublikanoan aditua den historialariaren arabera, Frantzisko Goitia errepublikanoen ordezkari gisa agertu zen Goierri-Tolosaldea barrutian¹⁰⁸. Goitia, Beasaingo fabrikako akziodun nagusi gisa eta Beasaingo errepublikanoen buru gisa, liberal monarkiko edo “ofizialistekin” (Berrezarkuntza-sistemaren aldekoekin) koalizioa egitearen aldekoa izan zen eta, hala, liberalen esku egon zen Beasaingo Udala mende-hasiera hartan (hor kontuan hartu behar dugu Jose Orueta FVBko zuzendaria “kidetzarik gabeko liberala”, eta horrek bien harreman ona ziurtatzen zuela). Hala ere, hauteskunde batzuetan irabazi arren, adibidez Gipuzkoako Aldundirako 1882ko hauteskundeetan, 1891n eta 1893an galdu egin zuen karlisten kontra¹⁰⁹. Aldiz, etxeko hauteskundeak, 1900etik aurrera batez ere, liberalentzat hobeak izan ziren, ezen mende-hasierako alkate denak liberalak izan ziren. Esan bezala, badirudi Beasainen mota guztietako liberalen arteko koalizioak egin zirela (bai Gobernuaren aldeko liberal monarkikoez zein errepublikanoek bultzatuta). Izan ere, nahiz eta Estatu motarekiko ezberdintasun handiak izan, beste balio batzuen inguruan antzekotasun handiak zituzten. Horren adibide dugu 1922 eta 1923 artean Beasaingo alkate Jazinto Urteaga izatea, gero 1931n berriz alkatetza “errepublikano” moduan lortu zuena.

¹⁰⁷ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 18. or.

¹⁰⁸ BELAUSTEGI BEDIAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. EHU. Euskal Herria, 2014.

¹⁰⁹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 129-130. or.

1. kapitulua

Karlistak ere antolatzen hasi ziren. Esan bezala 1907an Elkarte Tradizionalista ireki zen Beasainen, Santiago Elizegi beren lehendakari izanik. Zirkulu horrek, ikusiko dugun bezala, garrantzi handia izan zuen 1936ko gertaeretan. Kontatu dugun bezala, Beasain sartua zen Tolosako barrutian karlistak ziren nagusi, baina Beasain bera herri zaila zen karlistentzat. Ikusten ari garen bezala, XX. mende-hasieran, Udala liberalen aldagai ezberdinen esku egon zen. Karlistentzat, Tolosako hauteskunde-barrutia (Aldundirako zein Espainiako Parlamenturako hauteskundeetan) gotorleku bat izan zen arren, Beasaingo Udalean oposizioan egon ziren urte luzez.

Beasainen, indartsua izan zen beste alderdi bat errepublikanoena izan zen. Berrezarkuntza garaian, Gipuzkoan, hiri industrialetan batez ere, guneak osatu bazituen, ere, ez zen oso alderdi indartsua izan. Alderdi hori barne-zatiketen mendeko izan zen, izan ere, alderdi bateratu bat baino gehiago, hainbat alderdi errepublikano izan ziren, euren arteko batuketak eta zatiketak tarteko zirela. Beraz, agian, alderdi batez baino gehiago “joera” batez hitz egin beharko genuke. Izan ere, errepublikanismoa Gipuzkoan, hainbat aferarengatik zatituta ibili zen. Batzuek, balio liberalak lehenetsiz, erregimen hori, karlismoa atzean uzteko eta askatasun politiko liberalak garatzeko aukera bezala ikusi zuten; baina beste batzuek, ordea, errepublikanismoa lehenetsiz, erregimena monarkikoa zelako, jomugan ezarri behar zen helburu moduan ikusi zuten. Berrezarkuntzako erregimenaren aurreko jarreragatik, aliantza politikoaren inguruan (sozialistak, liberalak, jeltzaleak; denak izan ziren nolabait errepublikanismoaren alde edo pertsonaiaren batek tentatuak eta besteren batek arbuiatuak), foruekiko edo autonomiaren inguruan (federalak, antzinako euskal foruak autonomia zabal baten markoan gaurkotzearen aldekoak, etab.), demokraziaren ikur bezala ikusten zutenak alde batean egon ziren eta normalean Berrezarkuntzaren erregimena etsai nagusitzat hartu zuten, errepublikanismoaren barruan alderik erradikalenarekin batuz. Beste aldean, berriz, zentralistak kokatu ziren, euskal lurraldeak liberal bihurtzeko aukera bakar bezala Estatu zentralista bat izatea ikusten zutenak, liberal ofizialistekin eta Gobernuarekin elkartzearen aldekoago joera zutenak: dena dela, Euskal Herrian, ikusiko dugun bezala, foralismoa hain errotua zegoen, ezen errepublikanoen barruan ere foruzaletasuna ez zela soilik talde federalaren ondare, tarteko talde errepublikanoek eta abarrek ere foruzaletasunarekin bat egiteko joera izan zuten. Izan ere, errepublikanismoa oro har, erdi-mailako klaseko eta izaera liberaleko pertsonen alderdia izan zen, eta erdi-mailako klase horiek, gehienetan, errepublikanismoak proposatzen

zuen beste eraldaketa-prozesu batean sartu baino nahiago zuten klase gisa euren oparotasuna bermatzen zuten erregimen monarkikoaren alde paratu. Unai Belaustegi Bedialaunetaren arabera, gipuzkoar errepublikanoen artean nolabaiteko kohesioa, Benito Jamarrek¹¹⁰ sortutako *La Voz de Guipúzcoa* egunkari donostiarrak mantendu zuen, egunkari hori izan baitzen errepublikanoen benetako erreferentzia. Hala ere, Berrezarkuntza-sistemak aurrera egin ahala, eta monarkiarekiko etsai izango ziren indar berriak agertzeak, errepublikanismoari toki edo espazio politikoa kendu egin zion, eta pixkanaka, Gipuzkoan zuten garrantzia, XX. mende-hasieran goia jotakoa, murriztuz joan zen¹¹¹.

Unai Belaustegik komentatzen duenaren arabera, errepublikanoen barruan, Frantzisko Goitia beasaindarra federalen joeratik gertu ibili zen, nahiz eta berez oso errepublikano erradikala ez izan (Beasainen liberal monarkikoekin itunak egiteak hori ziurtatzen du). Oso goiz hasi zen Gipuzkoako errepublikanoen artean nabarmentzen, 1883an Tolosako barrutitik Gipuzkoako Aldundirako hautatua izan baitzen (liberalekin koalizioan)¹¹². Esan bezala, Goitia 1890ean aurkeztu zen Tolosako hauteskunde-barrutian parlamenturako hautagai gisa, baina hauteskundeak galdu egin zituen. Halere, aurkezte horrek erakusten digu zein izan zen beasaindarraren papera politikan¹¹³. 1983an berriz aurkeztu zen Goitia Parlamenturako, Tolosako hauteskunde-barrutian eta gizartearen aurrerapena (industriaren eta hezkuntzaren bidez) eta alderdi errepublikanoaren euskaltzaletasuna defendatu zituen, ez zela alderdi politiko espainiarraren sukurtsala eta foru-berrezarkuntza defendatzen zuela esanez. Berriz ere porrot egin zuen¹¹⁴. Hala ere, mende-aldaketarekin, Goierriko errepublikanismoa hazten hasi zen eta, 1901ean, Beasainez gain, Ordizian ere ordezkari izan zuten errepublikanoek¹¹⁵.

Goitiak *Autonomía Mundial* liburua argitaratu zuen 1907an¹¹⁶. Bertan, Goitiak defendatzen zituen ideiak, Estatu ezberdinetako deszentralizazio- eta autogobernu-kasu ezberdinei buruz ondo dokumentatu ostean, bere ikuspuntuak berretsiz adierazi zituen:

¹¹⁰ Berau ere, Maquinista Guipuzcoana enpresaren akzioduna izan zen: LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 28. or.

¹¹¹ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: op. cit., 367. or.

¹¹² Ibid., 93. or.

¹¹³ Ibid., 155. or.

¹¹⁴ Ibid., 207. or.

¹¹⁵ Ibid., 268-269. or.

¹¹⁶ GOITIA OSTOLAZA, Francisco: *Autonomía Mundial. Concepto moderno de la autonomía y su aplicación a las regiones españolas*. Librería Científico-Literaria de Jose Agusti. Bartzelona, 1907.

1. kapitulua

Euskal Herriko nortasuna defendatzea, ahalik eta autonomismo handiena defendatzea eta berezitasun historikoak defendatzea, baina hori bai, beti ere Espainiaren barruan, independentziaren alde egin gabe. Aurretik, *La Región Vasca* egunkarian, Goitiak berak idatzi zuen “autonomia herrien berebiziko egoera zela”.

Pixkanaka-pixkanaka, nahiz eta artean indar gehiegirik ez izan, alderdi berriak ere agertzen hasi ziren, gerora, II. Errepublikan batez ere, indar handia izango zutenak eta Gipuzkoako zein Euskal Herriko indarrak handienak izatera iritsiko zirenak. Hala ere, Berrezarkuntzaren sistemak kanpoan utzi zituen, “oposizioko” alderdi gisa. Bi alderdi horiek, ikusiko dugun moduan, oso zail izan zuten sistema horretan jokatzeko, eta euren papera sistematik at zeuden taldeak ordezkatzeko izan zen. Horrela, alderdi horiek, boterearen ohiko harremanetatik at, eta aldi berean, herri-klaseen defentsa beren egiten zutelako, masen politizazioa bultzatu zuten, horrela, masak politikara hurbilduz eta jauntxo-sistemaren ahultzea ekarriz. Beraz, XX. mendearen hasierako lehen herenean, alderdi horien presioa ezinbestekoa izan zen bizitza politikoan demokratizazioa pixkanaka zabaltzen joan zedin. Horrek azaltzen du, alegia, sistema gehiago demokratizatzerakoan, 1931n II. Errepublika iristean, alderdi horiek hain indartsu agertu izana. Mugimendu handiko bi alderdi horiek, Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV) eta *Partido Socialista Obrero Español* edo PSOE (Espainiako Langileen Alderdi Sozialista) izan ziren.

Abertzaleei buruz, informazio handiagoa dugu, izan ere, hor dago Miren Barandiaranek Beasaingo EAJri buruz ateratako liburua. Beasainen 1908an antolatutako ziren, Lazkaon antolatu eta urtebete geroago (sortzaileen taldean egon zen Victoriano Oñatibia, gero guda zibil garaian erail zutena)¹¹⁷. Batzokia urte hartako azaroaren 22an sortu zuten. Hala ere kontuan izan behar da batzokia jeltzaleen topaleku bazen ere, ez zirela gauza bera batzokia eta alderdia eta bi errealitate juridiko ezberdin gisa funtzionatu zuten, gutxienez ere 1936ko gudara arte (bakoitzak bere zuzendaritza propioa izan zuen). Batzokiak alderdiaren topaleku gisa funtzionatzeaz gain, beste ekitaldi batzuetarako balio izaten zuen, batez ere euskal kulturaren arloko ekitaldiak egiteko; adibidez, euskal antzerki-taldea eta euskal dantza-taldea zeuden Beasainen¹¹⁸. Kontuan hartu behar dugu halaber, euskararen egoera txarra kontuan hartuta, batzokitik ere euskarari bultzada ematea pentsatu zela: 1915ean euskarako klaseak emateko

¹¹⁷ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *op. cit.*, 21. or.

¹¹⁸ *Ibid.*, 28-35. or.

“Euzkel Eskola” bat sortu bide zen batzokiaren ekimenez, ume batzuei eskola emateko eta aipatzen denez Anastasia Aiestaranek zuzendua izan zen (hurrengo urtean Euzko Gaztedijak euskara erabiltzearen aldeko kanpainarako diru-bilketa egiten hasi zen)¹¹⁹. Jose Zufiaurrek aipatzen duenez, 1917ko uztailaren 27an Udalarari subentzio-eskaera bat egin zion beasaindar talde batek (Eusebio Aranburuk, Marcos Arrillagak, Agapito Zumaetak, Victoriano Oñatibiak, Fernando Gaztañagak eta izena soilik agertzen den seigarren batek) “Kale Nagusiko 33. zenbakian, 3. solairuan dagoen Euskal Eskolari laguntzeko, herriari eta gure hizkuntzari on egingo diolako”. Hala ere, 1917ko abuztuaren 7ko osoko bilkuran, Udalak ukatu egin zuen laguntza ematea (“eskola klandestino” deitu zuen erabaki-agirian, beraz, pentsatzen dugu garaiko legezketasunetik at zegoela eskola hura), Anastasia Aiestaranek hartarako behar zen titulurik ez zeukala argudiatuta¹²⁰. Gure ustez, litekeena da, Miren Barandiaranek aipatu bezalaxe 1915ean sortua izatea, eta lehen urteetan subentziorik gabe funtzionatzea, baina 1917an subentzinoa eskatzea (agian eskola horren zailtasun ekonomikoak medio). Ez dakigu noiz arte irauin zuen, baina gerora azaldutako aipamen urri batzuk tarteko, laguntza ukatu izateak ikastola-saiakera haren desagerpenean eragina izan zuela pentsa dezakegu.

Lehen urteetan, Euzko Alderdi Jeltzaleak Gipuzkoan bere espazio propioa lortzeari ekin zion eta hori zela bide, lehen aipatutako Foru Liga koalizio autonomistan sartzeari uko egin zioten¹²¹. Gipuzkoako Batzar Nagusietarako lehen diputatua 1915ean lortu zuten (Migel Urreta Donostiako hauteskunde-barrutian aukeratua izanik, karlistekin eta kontserbadoreekin koalizioan)¹²², eta 1918an lehen aldiz Gipuzkoan Espainiako Parlamenturako diputatu bat lortu zuten Bergarako hauteskunde-barrutian¹²³ (kontuan izan behar da Beasain eta Ekialdeko Goierri –Beasaindik hasi Ekialdera, orduan independenteak ziren Arriaran eta Astigarreta hartu gabe- Tolosako hauteskunde-barrutian sartuta zeudela). Izan ere, EAJk ondo jakin izan zuen 1917-1919 arteko uholde autonomistari etekina ateratzen, eta beste arrakasten artean, Gipuzkoan zein Nafarroan Madrilgo Parlamenturako bere lehen diputatuak lortu zituen, Bizkaian sei diputatutatik bost eta Bizkaiko Aldundia lortzeaz gainera. Mikel Aizpururen arabera,

¹¹⁹ Ibid., 33-35. or.; ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 97. or.; eta *Euzkadi*, 1916-V-28. Azken iturri honetan aipatzen da “umeentzako ikastola” bat zela.

¹²⁰ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Irakaskuntza Beasainen...* op. cit., 116-117. or.

¹²¹ AIZPURU MURUA, Mikel: op. cit., 123-129. or.

¹²² Ibid., 407. or.

¹²³ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 17-18. or.

1. kapitulua

alderdi horren militantzia gipuzkoarra, batez ere klase herrikoietakoa izan zen, langileak, baserritarrak eta burgesia txikia (dendariak, merkatari apalak, artisauak), jeltzaleen militantziaren gehiengoa izan ziren¹²⁴. Horrek azal dezake, garai haietan EAJk, ideologiaz kontserbadorea izan arren, orduko erregimenaren aurka zergatik jarduten zuen. Aizpuruk berak dio, 1910az aurreko militantzia jeltzalea, batez ere Alderdi Karlistatik eratorria izan zela, baina urte horretatik aurrera “politikoki berriak” ziren kideak bereganatu zituela EAJk¹²⁵.

Euzko Alderdi Jeltzalea hasiera baten hain ahula izanik (Alderdi horretan bi jauzi handi gertatu ziren: lehena 1910eko hamarkadaren bukaeran, Bizkaiko Aldundia kontrolatzera iritsi zirenean eta, bigarrena, II. Errepublika jartzean), koalizioak egitera behartua gertatu zen, ordezkaritza lortu nahi izatekotan behintzat. Barandiaranen arabera, EAJk 1909 eta 1917 artean koalizioak egin behar izan zituen, bai herrialdeko Batzar Nagusietarako, bai Espainiako Parlamenturako eta baita Udal-hauteskundeetarako ere. 1918ko Espainiako Parlamenturako hauteskundeetan, *Comuni3n Nacionalista Vasca* alderdia bere aldetik joan zen eta Bergaran aipatutako diputatua lortu zuen. 1911n Pedro Laskibar aurkeztu zuen Beasainen eta 197 boto lortu zituen. 1918an diputatua lortu zutenean, Beasainen Jose Maria Lardizabalek (bakarrik aurkeztu zen) 244 boto lortu zituen (%41,42), eta gutxigatik gelditu zen aukeratua izan gabe (une hori izan zen EAJren momenturik onena). 1923an, berriz, jeltzaleen eta jaimisten arteko koalizio batek Tolosako barrutian diputatua lortu zuen. Udal-hauteskundeetan, EAJk ere koalizioak egiten zituen askotan, izan ere, 1907ko legea zela-eta, bakarrik aurkeztea zaila izaten zen. Iturri batzuen arabera, EAJk bere lehen zinegotzia 1909an lortu zuen, Juan Olabe Agirrezabal, baina beste iturri batzuen arabera, pertsona hori independentea zen¹²⁶ (hauteskunde horiek, Miren Barandiaranen arabera, errepublikanoek irabazi zituzten). Hala ere, Beasaingo Udalean liberal-talde ezberdinek osatzen zuten koalizioaren boterea indartsuegia zen aurka egiteko: 1911n eta 1913an Jose Migel Iturriotzek borrokarik gabe irabazi zituen hauteskundeak. EAJk ez zuen zinegotzirik lortu Beasaingo Udalean, nahiz eta batzuetan, 1917an kasu, karlistekin koalizioan joan¹²⁷. 1920ko hauteskundeetan, Gipuzkoan EAJk 64 zinegotzi

¹²⁴ AIZPURU MURUA, Mikel: op. cit., 109. or.

¹²⁵ Ibid., 197. or.

¹²⁶ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 40. or. Liburu honen arabera, 1909ko abenduaren 18ko *Gipuzkoarra* egunkariak abertzaletzat jo zuen Juan Olabe, eta 1909ko abenduaren 6ko *El Pueblo Vasco*k independentetzat.

¹²⁷ Ibid., 40-42. or.

lortu zituen, baina Beasainen ez zuten arrakastarik izan (Beasaingo hautagaitza izan zen Gipuzkoan zinegotzirik lortu ez zuen hautagaitza bakarra)¹²⁸, baina *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikanoak “nazionalisten grina” goraiatu egin zuen¹²⁹.

EAJ hasiera batean alderdi sozialki kontserbadorea eta erlijiosoa izan zen, nahiz eta bere osagai sozialagatik (herri-klaseetako jendearen babesa zuen gehienbat, ugazaba batzuk ere alderdiko kideak izan arren) eta ideologiagatik, erregimen monarkikoak baztertuta izan. Hasiera batean, alderdi horren arerio nagusietako bat sozialismoa izan zen, bai ideologia sozialagatik ezberdina zelako (katolikotasuna eta klase-harmonia vs klase-borroka), eta baita jeltzaleen artean sozialistak askotan “kanpoko elementu” gisa ikusten zirelako ere¹³⁰. Hala ere, pixkanaka, hasierako “maketoen aurkakotasun” hori, gauditua izan zen Euzko Alderdi Jeltzalearen baitan, bai Alderdiaren zuzendaritzan izaera liberalagoko pertsonak sartuta eta baita ELA sindikatua sortuta ere, eta ideologian sozialismora ez hurbildu arren, pixkanaka, eremu praktikoa, abertzaletasunak kanpoko jatorriak zituzten langileekiko mesfidantza-sentimenduak leuntzea ekarri zuen¹³¹ eta langileen arazoak ere jeltzaletasunaren barruan tratatzea lortu zuen. ELAren “katolikotasun soziala” pixkanaka¹³², Alderdiaren ideologia bihurtzen joan zen eta horrela EAJk bere klase arteko osagai soziala aintzatestea lortu zuen¹³³, izan ere, Euzko Alderdi Jeltzaleak zuen oinarriaren parte handi bat langileek eta herri-klaseek osatzen baitzuten, ideologia antisozialistako alderdia izan arren. 1911n sortutako ELAk, 1913an lau tokiko erakunde zituen Gipuzkoan (denak Debarroko eskualdean), eta 1920rako hamasei talde izan zituen herrialdean, tartean, Beasainen eta Zumarragan¹³⁴. ELAk, hasiera batean, klase-borroka defendatu ordez, klase-harmonia defendatzen zuen¹³⁵, “euskal langileak elkarri laguntzeko” talde gisa sortu baitzen¹³⁶, beraz UGT eta CNT baino moderatuagoa izan zen (Meesen arabera, 1920tik aurrera erradikalizatzeko bat gauzatu zen bere jarreretan, baina betiere “kristautasun soziala” edota “katolikotasun

¹²⁸ AIZPURU MURUA, Mikel: op. cit., 432. or.

¹²⁹ *La Voz de Guipúzcoa*, 1920-II-5 in BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 41. or.

¹³⁰ BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 163. or.

¹³¹ MEES, Ludger: op. cit., 151. or.

¹³² BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 161. or.

¹³³ MEES, Ludger: op. cit., 192, 169-171. or.

¹³⁴ *Ibid*, 145. or.

¹³⁵ Zenbait egilek, tartean Pedro Barrusok, ELAren sorrera, klase-borrokaren aldeko sindikatu sozialisten aurrez aurreko erreakzio moderatuaren testuinguruan kokatzen dute, Elizako Sindikatuekin batera. BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 166. or.

¹³⁶ MEES, Ludger: op. cit., 143-144. or.

1. kapitulua

soziala” defendatuz eta sekula ez sozialismoaren ideologia bere eginez)¹³⁷. ELAren afiliazioa, beste sindikatuenarekin batera, hazi egin zen 1918-1920 arteko langile-mobilizazioen hirurtekoan eta 10.000 kide lortu zituen, baina hurrengo urteetan pixka bat jaitsi egin zen eta 1922an 7.000 eta 8.000 kide artean zituen¹³⁸.

Lehen aipatu dugu 1917-1919 arteko autonomia lortzeko kanpainak EAJra militante berri asko eta boto berriak erakarri zituela. Baina kanpaina horrek helburuak ez zituela bete ikusita (jakina denez, ez zen autonomiarik lortu orduan), garai hartako ilusioarekin alderdira joandako militante askoren artean atsekabea izan zen nagusi. Are gehiago, aurretik zetorren zatiketa (batzuen ustez Sabin Aranaren garaitik) areagotu egin zen eta autonomiaren bidetik joatea urratsa aurrera egitea zela uste zutenen eta independentziarako bidean oztopo zela uste zutenen arteko erabateko zatiketa ekarri zuen. Beraz, bi alderditan banatu zen: alde batetik *Comunión Nacionalista Vasca*, autonomistek zuzendutakoa eta bestetik *Aberri* (urte batzuen buruan hauek berreskuratu zuten EAJ-PNV marka), independentista setatsuak. Primo de Riveraren diktaduraren bukaera iritsi behar izan zen 1930ean, Bergaran, bi zatiak berriz ere alderdi bakarrean biltzeko. Beasainen zein Gipuzkoan, militante gehienak *Comunión* taldean gelditu ziren eta Aberrik ia batere indarririk ez zuen izan. Mikel Aizpuru Muruak baieztatu egiten du Gipuzkoan *Aberri* korronte independentista erradikalak izan zuten oihartzun falta¹³⁹ eta gipuzkoar abertzale batzuek bi korronteetako ekitaldietan parte hartu edo prentsan idatzi arren, bi korronteen arteko zatiketa, Alderdiaren oinarrian behintzat, ideologoen eta buruzagien artean izan zena bezain sakona ez zela izan erakusten duela azpimarratzen du¹⁴⁰.

Gipuzkoan korronte minoritarioa bazen ere, gutxienez ere ezagutzen dugu *Aberriko* beasaindar bat, gerora ezaguna egin zena: Jesus Larrañaga. Urretxun jaio eta Beasainen bizi zen beasaindar hau, bere biografia idatzi zuen Jose Antonio Egidoren arabera, Ordiziako batzokian afiliatu zen, bere lagunekin batera (Mikel Garmendia Itxarkundia batailoiko gudari izan zena eta lehenengo Jaurlaritzako Defentsa Saileko idazkari nagusi izan zen Joseba Rezola adiskide zituen). Egido Siguenzaren arabera, Elias Gallastegiren ideiak, non arazo nazionalari hein batean arazo soziala gehitzen

¹³⁷ Ibid., 151. eta hurrengo or.

¹³⁸ Ibid., 146-147. or

¹³⁹ AIZPURU MURUA, Mikel: op. cit., 314-324. or.

¹⁴⁰ Ibid., 314-315. or. Aizpururen arabera, batzokiak jurdikoki Alderdiarenak ez izateak (tokian tokiko batzokiaren zuzendaritza-batza eta Alderdiarena ezberdinak ziren), kasu batzuetan zatiketa hori leuntzen lagundu zuen eta batzokia “abertzale denen etxe komuna” izan zen.

zion, Larrañagaren prestakuntzarako ezinbestekoak izan ziren eta geroago komunismoranzko trantsizioan lagundu zioten (kontuan hartu behar da garai hartan, Alderdi Komunistaren Euskal Federazioaren tesiak abertzaletasunetik oso gertukoak zirela). Jesus Larrañaga ezaguna izan zen militante jeltzale gisa eta berak eta bere lagun batek, 1926an Primo de Rivera diktadorea Ordiziako geltokia inauguratzera etorri zenean, “Gora Euzkadi Askatuta!” oihu egin zuten eta horregatik biak atxilotu zituzten¹⁴¹.

Azkenik, PSOE, Espainiako Langileen Alderdi Sozialista dugu. Alderdi hori langile-arloan mugitu zen eta UGT sindikatuarekin harreman handia izan zuen; Alderdia, batez ere, produkzio-moldeak sozializatzerara emana zen. Sozialistek, mende-hasieran, langile-klasearen ordezkari-lana egin nahi zuten, eta langile klaseari onurak ekartzea zen euren betebeharr nagusia, Estatu-sistemaren ingurukoa gaiak (orduan) bigarren maila batean utziz. Hala ere, langile gaiez at, sozialistak errepublikanoekin ados egon ohi ziren hainbat gaitan, adibidez, laikotasunaren gaian. Horrek azaltzen du neurri batean, sozialistak eta errepublikanoak, bai Euskal Herrian, zein Gipuzkoan, zein Tolosako hauteskunde-barrutian, batzuetan hauteskundeetan elkarrekin joatea (nahiz eta harreman hori ez zen tirabirarik gabea izaten, bai alde batetik zein bestetik). Hala ere, askotan ordezkaritza lortzeko modu bakarra hori zuten, beraz, elkartzeko joera ere bazegoen (kontuan hartu behar da, oso zaila zela Berrezarkuntzaren sistemaren arabera ordezkaritza lortzea, hautagaiak aurkezteko baldintzak oso gogorrak baitziren; batez ere alderdi berrientzat edota sistematik kanpo zeuden alderdientzat), 1909tik aurrera bereziki.

Alderdi hori, jeltzaleekin gertatu zen moduan, Bizkaitik Gipuzkoara hedatu zen, Hasiera batean, Gipuzkoako sozialismoaren eragin praktikoa Eibarrera mugatuta gelditu zen eta Goierriko sozialismoaren lehen ekitaldia, PSOEren fundatzaile Pablo Iglesiasek 1900ean Ordizian emandako mitina izan omen zen, Euskal Herrian zehar mitin-bira bat egin zuenean¹⁴².

Prozesu horren parte edo fruitu izan ziren Beasaingo PSOE eta UGT ere. Antza denez, mende-hasieran bazegoen Beasainen Elkarte Sozialista bat, 1909an desagertu zena. 1915ean berriz sortu zen Elkarte Sozialista Beasainen¹⁴³; baina ez dirudi garrantzi

¹⁴¹ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 23. or.

¹⁴² EGUIGUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 24. or.

¹⁴³ LARRAÑAGA, Policarpo: op. cit., 68. or.

1. kapitulua

handia izan zuenik, gutxienez ere Primo de Riveraren Diktadura (1923-30) bukatu arte. Egigurenek adibidez, bere euskal sozialismoaren inguruko lanean, 1923ra arte ez du aipatzen Beasaingo Elkartea Sozialista, eta ez zuen ordezkartzarik bidali, ez 1919ko, ez 1920ko, ez 1921eko beren Biltzar Nagusietara (Biltzar Nagusi horiek izan ziren sozialisten eta komunisten arteko zatiketa ekarri zutenak)¹⁴⁴. Mende-hasieran, Errepublika heldu arte, Beasainen sozialistek ez zuten Udalean sartzerik izan, hein handi batean fabrikaren inguruko koalizio liberal-errepublikanoak (Frantzisko Goitia akziodun nagusia eta Jose Orueta zuzendaria buru zituela) zuen indar handiagatik, hain zuzen ere, fabrikaren oinarritua baitzegoen eta sozialisten bozkatzailerik potentzial ziren langileengan baitzuen eraginik handiena, sozialismoaren aurrerapena galaraziz. Hala ere, Errepublika garaian gauzak asko aldatu ziren, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Alderdi Sozialistaren zatiketarik sortu zen *Partido Comunista de España*, PCE (Espainiako Alderdi Komunista). Espainiako Alderdi Komunistaren sorrera, akademiko gehienek arabera, Errusiako Iraultzaren aurreko jarrerarekin bat egiten zuten aldeak biltzen zituen Hirugarren Internazionalen biltzeko erabakitik etorri zen. Sozialisten eta komunisten arteko ezberdintasunik handiena, biak banatzen zituen marra gorria “erreforma ala iraultza” dikotomia zenez gero, ez gaitu harritu behar Euskal Herrian PSOEk 1918tik aurrera, hain justu Euskal Herrian inoizko gatazka-mailarik handiena zegoen garaian, egindako itunen politikak atsekabetutakoek (gogoratu Indalecio Prieto euskal sozialisten buruak Bizkaian abertzaleen gorakada neutralizatzeko oligarkiaren alderdi monarkikoekin ituna egitea erabaki zuela) errusiar boltxebikeen tesiekin bat egin izatea. Izan ere, hauteskundeetako estrategia horrek, estrategia sindikalean ere eragina izan zuen, eta sindikalista sozialistak lan-gatazketan geroz eta moderatuago jokatzeko zuten, grebak deitzeko mesfidantza are handiagoa izanez.

Antza denez, Gipuzkoan, militante komunisten gunea Rafael Marinen inguruan hasi zen biltzen, garai hartako Zosimo Garcia militante komunista donostiarrak Jose Antonio Egidori kontatu zion moduan: “bera izan zen Gipuzkoara komunismoaren ideiak ekarri zituenak”¹⁴⁵. 1922an Gipuzkoako Federazio Komunista sortu zenean, Rafael Marin bera izan zen idazkari orokorra eta Leandro Carro (gerora erbestean Eusko Jaurlearitzako sailburu izan zena) sindikalgintzarako arduraduna¹⁴⁶. Gipuzkoako gune

¹⁴⁴ EGUIGUREN IMAZ, Jesus: op. cit., 17-24., 186., 199., 208. eta 212. or.

¹⁴⁵ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 25. or.

¹⁴⁶ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 218. or.

komunistan nabarmendu ziren beste batzuk zapiraindarrak, hiru anaia, izan ziren. Hala ere, Alderdi horrek garai horretan Beasainen ez zuen garrantzirik izan, gerora Alderdiaren buruzagi izan zen Jesus Larrañaga beasaindarra artean ez baitzegoen Alderdiaren barruan, nazionalista erradikala zen-eta.

Arazo nazionalaren inguruan, komunisten eta sozialisten arteko ezberdintasunak erabatekoak izan ziren. Komunistek, III. Internazionalaren politika jarraituz, herrien autodeterminazioa defendatzen zuten, eta koloniei dagokienez, independentzia osoa¹⁴⁷. Hori eta, Espainiar Estatuan, espainiar zentralismoa eta nazionalismoa ikusi zuten alor nazionallean etsai nagusi gisa, ez bestelako nazionalismoak. Hori dela-eta, Euskal Herriaren autodeterminazioaren alde kokatu ziren komunistak.

Beasainen, herri guztietan bezala, Primo de Riveraren Diktadurak goitik behera ezarritako Udalak izendatu zituen, eta sostengu-oinarria batez ere lehengo eskuineko sektoreetan eta pertsonetan izan zuten (monarkiko alfontsoarrak, Berrezarkuntzaren aldekoak, eta karlistak, aldi baterako bada ere, adiskidetzuz). Beasaingo alkate berria, 1923ko urriaren 1ean izendatua, Joxe Guridi Balantzategi izan zen eta bere agintaldian udaletxe- eta eskola-erakin berria eta abere-hiltegia eraiki ziren (nahiz eta lehen esan bezala, 1930ean hurrengo alkate izan zen Joxe Bixente Iraolak inauguratu) eta azokarako gunea ere prestatu zen plazapean¹⁴⁸ (aipatu bezala, garai hartan azoka ofizialdu egin zen, denbora laburrez baina, 1927an, azokak elkarrengandik 15 kilometro baino gutxiagora egotea galarazi egin baitzuten). 1930eko otsailean utzi zuen alkatetza Guridik eta bere ordez Joxe Bixente Iraola Lasa jarri zen (geroago aipatuko ditugu 1930 eta 1931 arteko gorabehera politikoak). Garai hartan izan zen zinegotzi Gillermo Ugarte Aeta karlista, 1936ko uztailaren 27an, kolpista militarrek Beasainen sartzean fusilatua izan zena. Hala ere, Primo de Riveraren Diktadurak, Beasainen bertan, abertzaleen guneen aurkako errepresioa ekarri zuen, adibidez, batzokia itxi egin zuen, eta Miren Barandiaranek esaten duen bezala, “abertzaletasuna soilik ekintza kulturaletan babestu behar izan zuen”, bere batzar politikoak isilpean egitera behartu zuten-eta: Senpereko zelaian egiten zituzten eta batzuetan Ordiziako abertzaleekin elkartzen ziren. Gogoratu beharra dago baita ere, prentsa abertzalearen kontrako oldarraldia egin zuela diktadurak

¹⁴⁷ Afrika, Asia eta Latinoamerikako kolonien independentzia, III. Internazionalan sartu nahi zuten Alderdiek onartu beharreko baldintza izan zen.

¹⁴⁸ ZUFIAURRE GOYA, Jose: “Alcaldes de Beasain...”, op. cit.

1. kapitulua

eta orduko EAJko alderdi erradikalenaren egunkaria, *Aberri*, itxi egin zuela, *Comunión* zeritzon alderik moderatuenaren *Euzkadi* ere zentsura militarren pean ezarriz¹⁴⁹.

1926an diktadorea Ordizian izan zen bisitan, tren-geltoki berria inauguratzera etorrita. Une hartan, bi gaztek, “Gora Euzkadi Askatuta!” oihu egin zuten eta atxilotuak izan ziren. Bietako bat beasaindarra zen, Jesus Larrañaga *Aberri*ko militantea. Beraz, Larrañagak, jada poliziaren jazarpena jasotzen hasita, erbesteratzeko beharra ikusi zuen eta Bokalera (Lapurdi) joan zen lan egitera¹⁵⁰. Bokale ingurua, Frantziako Alderdi Komunistaren (PCF) gune handi bat zen eta ideologia komunista bereganatu zuen han Larrañagak (Rafael Marin, orduko Donostiako komunisten burua ere Bokalen ezagutu zuen¹⁵¹). Gipuzkoara itzultzean, Donostiako militante sindikalak batuz Gipuzkoako talde komunista eratu zuen. Jose Antonio Egidoren arabera, Larrañaga, bere aurreko militantzia abertzalean, antiinperialismoz blai zegoen eta langile-aktibismoa ez zitzaion batere arrotz egiten (aurretik, ELAko militante gisa parte hartu zuen grebaren batean eta ikasle bezala zegoen FVBtik egotzia izan zen). Orduko Aberri taldea (kapitalismoarekin *Comunión* baino kritikoagoa zena), munduko borroka antiinperialistak eta antikolonialistak eredu gisa hartzen hasia zen; eta garai hartako Alderdi Komunistentzat eta Internazional Komunistarentzat borroka antikolonialista eta autodeterminazio-eskubidea, langile-internazionalismoaren oinarri ziren. Hori dela-eta, Larrañagaren biografo Jose Antonio Egidoren arabera, Larrañaga abertzaletasun erradikaletik komunismora pasatzea “ez zen etendura izan, jarraipena baizik”¹⁵².

1.6 Euskararen egoera

Euskararen egoera Beasainen, II. Errepublikaren aurretik, ez zen batere ona. Egia da Goierriz hitz egitean (bai eskualdean eta batez ere eskualdetik kanpo) beti egon dela halako eskualde oso euskaldunaren fama, nahiz eta XX. mendean hori guztiz erreala ez izan. Kontuan izan behar dugu eskualdean populazio erdaldun elebakarra kopuru handitan sartu zela XX. mende-hasieran (aipatutako datuek hala diote) eta, horrek, bertako hiztunen urruntzearekin eta eskolan euskara ez irakastearekin batera,

¹⁴⁹ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 48-50. or

¹⁵⁰ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 23-24. or.

¹⁵¹ Ibid., 25. or.

¹⁵² Ibid., 26. or.

euskararen atzeraldi handia ekarri zuen; XIX. mende-bukaera arte Beasain herri guztiz euskalduna izan zenaz ez dugu zalantzarik¹⁵³.

Baina, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendean zehar aldaketa etorri zen. Alde batetik Espainian Estatu modernoaren ezartzeko egindako saiakerak Estatu-organoen presentzia gizarte osoan are gehiago zabaldu zuen (eskolatzea, administrazio-organoen presentzia, soldaduska, Guardia Zibila eta abar) eta Estatuaren garai hartako hizkuntza (gaur egun ere mantentzen dena) espainiera zen. Estatuak euskara hizkuntza funtzional legez ez zuela, eta gaur egun ere, behintzat espainieraren pare, ez duela erabat aintzat hartzen kontuan izanda (eta are gehiago, garai hartan zigortu egiten zuela eta euskararen debekuak ugarituz eta orokortuz zihoazela), euskararekiko eta bidenabar euskaldunekiko mespretxua eta jazarpena handituz joan ziren. Bestetik, populazio erdaldun elebakar ugariaren etorrerak, ez zion batere mesederik egin euskarari, kaleko “komunikazio-hizkuntza” bakar gisa erdara ezarri zuelako, hain zuzen ere, euskara baztertuta eta hiztun berriak lortzeko ezindua zegoenean.

XX. mende-hasieran jada bazeuden Beasainen halako arazoak. Adibide bat jartzearen, Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorok kontatua duenaren arabera, bere aitari, bagoien fabrikako langile zenari, barre egiten zioten espainieraz ondo egiten ez zuelako. Berak esana da, bere aitari erdara ez jakitearen konplexua barnera sartu zitzaioala, eta seme-alabek (berak, seme bakarra izanik batez ere) erdaraz ondo egiteko ezinbesteko premia ikusi zuela aitak, euskararen kaltean izan arren. Horregatik, Joxe Manuel eta bere arreba guztiak, euskara ia ahaztera iritsi ziren eta, bere esanetan, inoiz ez ziren berriz behar bezala euskara berreskuratzen iritsi. Fabrika berez, komentatu dugun bezala, baserriarren eta kaletarren nahiz euskaldunen eta erdaldunen harreman-gune izan zena, erdara ikasi behar izateko eta euskara ahazteko eta baztertzeko gune bilakatu zen¹⁵⁴.

Hezkuntzan ere Beasainen ez zen euskaraz klaserik ematen. Aspalditik zetorren kontua zen eta 1730-I-09an jada, Beasaingo Udalak maisuarekin egindako kontratuan, hala jarri zuten “Y que no les permita hablar en vascuence sino en castellano, poniendo

¹⁵³ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: “Euskara Beasainen azken mendeetan” in *SIADeco: Euskara Beasainen* (7-18. or.). Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua. Beasain, 1990, 7. or.

¹⁵⁴ GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkarte. Oñati, 2004, 93. or.

1. kapitulua

anillo y castigándoles como merecen”¹⁵⁵. Bi mende geroago ere, kontuan hartu behar dugu Beasaingo eskolak denak erdaldunak zirela (aurretik aipatutako batzokiko eskola-orduz kanpoko saiakeratxo hura kenduta); Andoni Sarriegiren arabera, Errepublikaren garaiei itxaron behar izan zitzairen Beasainen eskolan euskaraz zerbait emateko (eta hala ere, kristau-dotrinaren ikasbidea soilik lortu zen lasalletarren eskola pribatuan, baina ez beste ikasgairik; asmoak baziren gaiak euskaraz irakasteko eta Bruño argitaletxearen liburu euskaratuak ere eskura ziren horretarako, baina asmo on haiek zapuztuak gertatu ziren)¹⁵⁶. Halako gertakaria, irakasleen afera baino, gehienbat sistemaren arabera baitzen eta araua, eskolak euskaraz ez baizik eta beti erdaraz eman behar izatea baitzen, irakasleak euskaldunak izan arren. Izan ere, bazeuden hainbat lege eskola-sistemak gazteleraz jardun behar zuela markatzen zutenak: 1857an atera zen “Hezkuntzarako Moyano Legea” eta harago zihoan 1902ko Errege Agindua nagusiki, zeintzuk eskoletan gazteleraz soilik mintzatzea (eta ez beste hizkuntzetan) agintzen zuten¹⁵⁷. Gainera, irakasle batzuek Goierriin erdalduntze-prozesu horren jokalaria aktibo izan ziren eta Pedro Balerdi ordiziarraren arabera, eskolan mehatxuak ere etengabe jasotzen zituzten¹⁵⁸. Beasainen ere eraztunak gogor funtzionatu zuen eskoletan¹⁵⁹. Salbuespen modura aipatu beharra dago, II. Errepublikako urteetan, Gipuzkoako Aldundiak gutxienez ere politika elebidun antzeko bat bultzatu zuela auzo-eskoletan eta, Garin auzoan bederen, On Teodoro Bikuña apaizaren lanari esker, euskara eta euskaraz ere irakatsi zizkiela gai batzuk auzoko umei¹⁶⁰.

Bestalde 1876an ezarritako derrigorrezko soldaduska izan zen mutil euskaldunentzat espainiera derrigorrez egin beharreko beste toki bat eta gainera, mende-amaierara bitartean Espainiaren Afrikako eta Amerikako kolonien galeraren inguruko borroketan buru-belarri sarraraziak izan ziren soldadu euskal herritarrak (asko

¹⁵⁵ AGIRREBEÑA, Aintzane; ALBERDI, Itziar, MENDIGUREN, Xabier eta SARASUA, Asier: *Beasaingo Euskara*. (*Beasaingo paperak* bilduma, 15. zkia). Beasaingo Udala, 2007, 11. or.; eta TORREALDAI, Joan Mari: *El libro negro del euskera*. Ttartalo, Donostia, 1998, 15. or.

¹⁵⁶ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: “Euskara Beasainen azken mendeetan...”, op. cit., 12-13. or. Ikus halaber ASKOREN ARTEAN idatzitako *Hizkuntz ordezkapenaren nondik-norakoak Goierriin*, SARRIEGI ESKISABEL, Andonik, idatzitako Beasaini buruzko atala. GEE Kultur Elkarte, Gerriko argitaletxea, Lazkao, 1992, 107. or.

¹⁵⁷ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: “Euskara Beasainen azken mendeetan...”, op. cit., 9. or.

¹⁵⁸ GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: op. cit., 93 or.

¹⁵⁹ AGIRREBEÑA, Aintzane; ALBERDI, Itziar, MENDIGUREN, Xabier eta SARASUA, Asier: op. cit., 12. or.

¹⁶⁰ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: “Euskara Beasainen azken mendeetan...”, op. cit., 13. or. eta ASKOREN ARTEAN idatzitako *Hizkuntz ordezkapenaren nondik-norakoak Goierriin*, SARRIEGI ESKISABEL, Andonik, idatzitako Beasaini buruzko atala. GEE Kultur Elkarte, Gerriko argitaletxea, Lazkao, 1992, 107. or.

elebakar euskaldunak). Horiek denek garbi erakusten dute politika antieuskaldunaren aitzindaria ez zela erregimen frankista soilik izan eta erregimen horrek ordura arteko eraso sistematikoak areagotu eta azken muturreraino eraman baizik ez zituela egin. Horren guztiaren aurrean, euskararen defentsa-gune nagusia etxea edo familia eta lagunartea bilakatu ziren, eta inoiz edo behin, Eliza. Goierrin adibidez, Lazkaoko fraide beneditarren euskaltzaletasuna aski ezaguna izan da. Goierrin, Elizetan eta parrokiatan hala nahi zutenei euskarazko dotrina-testuak irakasten zitzaizkien eta herri txikietan herritar guztiek hala ikasi ohi zuten. Herri handiagoetan, euskaraz aukera eskaini arren, gauzak nahasiagoak ziren. Elizkizunen arloan, berriz, ospakizunak garai hartan latinez izaten ziren nagusiki, baina sermoi, hitzaldi eta gisakoetan jada hizkuntza-borroka nabaria zen herririk handienetan eta horien artean Beasainen noski¹⁶¹.

Eskolaz, soldaduskaz, enpresez eta Estatuaren funtzionarioez gain, bazegoen erdalduntzeko beste jokalaria garrantzitsu bat: administrazioa. Kontuan izan behar dugu XX. mendearen azken urteak arte, administrazioa erabat erdalduna izan dela Euskal Herriko lurraldeetan. Beste alde batetik Udal-karguak edo enpleguak hartzeko (alkate, zinegotzi, mediku, idazkari eta abar izateko), espainieraz jakitea ezinbestekoa zen (nahiz eta herritar gehienek euskaraz jakin eta ia elebakarrak izan). Mendeetan zehar egoera paradoxiko hori mamitzen joan zen: hau da, herritarren gehiengoa euskaldun elebakarra izan eta beren herrian kargu horiek ezin hartu elebakar euskaldunek; kargu horiek erdara ikasteko aukera izan zuten pertsonen eremu eskusibo bilakatu ziren. Horrela, erdaraz jakitea, klase-, maila- eta prestigio-muga bihurtu zen, euskara klase apalenekin lotuz eta erdara piramide sozialean aurrera egiteko aukerekin. Hemen gogoratu beharra dago, gaur egun ere, espainiera ez dakitenak ez direla onartzen karguetarako, baina euskara ez dakitenek ez dutela inolako mugarik eta betebeharririk Euskal Herrian karguak hartzeko.

Antz handiko egoera izan zen garai hartan Goierriko beste herri handian ere, Ordizian alegia. Larraitz Garmendiak eta Karnele Etxabek egindako ikerketaren arabera, Ordiziako kalean (ez etxeetan) euskara “gudaren aurretik ere” asko galdu zen. Ordizian, kalean edo eskolan, euskaldunei edo erdaraz ez zekitenei barre egitea gauza normala zen¹⁶². Beraz, ikusten dugun bezala, Goierriko industrializazioaren zeharkako

¹⁶¹ Ibid., 13-14. or.

¹⁶² GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karnele: op. cit, 92-94., 98. eta 105. or. Eskolako barreei buruz, ikus lan horretako 94. or.

1. kapitulua

ondorio bat euskararen galera izan zen (noski, euskara garai haietan hezkuntza eta prestigio-gune orotatik at egoteak, oso ahul utzi zuen eta euskararekin batera, baita euskaldunak ere, ordurako jada bi hizkuntzen arteko kontaktua eta aurrez aurrekoa herrian erabatekoa zenean)¹⁶³.

¹⁶³ Aipatutako lanean halere, bitxi samarra den hipotesi edota hipotesi-oinarri bat aurkitzen dugu; izan ere, lan horretarako elkarrizketatuak izan ziren adineko ordiziarren arabera, gaur egun garai hartan baino gehiago (91-98. or.) eta hobeto (92-93. or.) hitz egiten da euskaraz (kontuan izan dezagun pertsona horiek bai orduan zein gaur egun bizitakoak direla, beraz, halako pertzepzioa dutela). Hala ere, aipatu beharra dago, Garmendia eta Etxabe ikerlariak ez datozela bat hipotesi horrekin eta euren arabera, erabilera agian igo egin da, baina ez, ordea, kalitatea (99. eta 115-118. or.); eta nahiko kezka ikusten dute gaur egungo euskararen inguruko gehiegizko baikortasun moduko hori.

2. KAPITULUA: BEASAIN ERREPUBLIKA GARAIAN

2.1 1931ko apiril-maiatzetako hauteskundeak Beasainen

2.1.a) *Hauteskunde prozesuak*

1931ko Udal-hauteskundeek monarkiaren erorketa ekarri zuten, zalantzarik gabe. Hala ere, hauteskunde haiek, Primo de Riveraren Diktadura erori ostean gertatutako prozesu baten barnean ulertu behar ditugu. Izan ere, apirilaren 12rako deituak izan ziren hauteskundeak ez ziren erreferendum moduan deitu, Udal-hauteskunde gisa baizik, nahiz eta geroago erreferendum baten itxura hartu eta erreferendum baten eskaera izan; Alfontso XIII.a erregeak alde egitea eta Errepublika jartzea ekarri baitzuten.

Hauteskunde horiek, monarkia-erregimenaren desegitea ekarri zuten hainbat gertakariren azkeneko txanpa izan ziren. Lehengo paragrafoan aipatu izan dugu monarkia ala errepublikaren inguruko “erreferendum moduan planteatu zirela” (batez ere ezkerreko alderdiek hala planteatu zutelako), ez Gobernuaren nahiagatik (zeinentzat hauteskunde horiek Primo de Riveraren Diktadura ostean “parlamentu-normaltasuna” berreskuratzeko lehen urratsa baino ez ziren), baizik eta gizartean monarkiarekiko zegoen desatxikimenduarengatik. Hori dela eta, ezkerreko alderdiek gaia erreferendum baten moduan aurkezteko aukera izan zuten.

Hauteskunde horiek 1877ko urriaren 2ko eta 1907ko abuztuaren 8ko legeen arabera arautu ziren. Lehen legeak, hauteskunde-sistema “zerrenda irekietakoa” zela arautzen zuen, hots, zerrenda oso bati botoa eman beharrean, pertsona batek hainbat izeni botoa emateko aukera zuen. Modu berean, udalerrri bakoitza “barruti” ezberdinetan zatitzea ere aurreikusten zuen, barruti bakoitzak bere hautagai propioak izanez. Bigarren legeak, botoa emateko eta hautagai izateko moduak definitzen zituen: botoa emateko eskubidea 25 urtetik gorako gizonezkoek soilik zuten¹ eta botoa emateko derrigortasuna

¹ Emakumezkoen boto-eskubidea 1931ko urrian onartu zuen Gobernu errepublikanoak. Espainiako Estatuan emakumeek lehen aldiz 1932ko Kataluniako autonomia-hauteskundeetan izan zuten botoa emateko aukera. Gainontzeko tokietan, emakumeek lehen aldiz botoa eman zuten aldia 1933ko apirilaren 23ko Udal-hauteskundeetan izan zen, baina hauteskunde horiek, 1931ean 29. artikulua aplikatu zen herrietan soilik burutu ziren, ez herri guztietan (Katalunian ez zen data horretan Udal-hauteskunderik egin, Autonomia Estatutua indarrean zuelako eta Udal-hauteskundeak Generalitatearen eskumena zirelako). Orokortasunez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 1933ko azaroaren 5eko Estatutuaren inguruko herri-galdekietan izan zuten estreinakoz aukera hori; Nafarroan eta Estatu Espainiarreko gainontzeko probintzietan, aldiz, azaroaren 19ko hauteskundeetan eman zuten botoa emakume guztiek lehenengoz. 1931ko apirileko hauteskunde horietan hautagaiak ere gizonezkoak soilik izan ahal ziren, hala ere, 1931ko ekaineko Errepublikaren parlamenturako lehen hauteskundeetan, emakumeak ere aukeratuak

2. kapitulua

aintzatesten zen, 1896.eko Belgikako hauteskunde-legetik hartutako ideia bat zelarik². Lege hau xehe aztertu duen German Lopezen arabera, abstentzio debekatuz, indar kontserbakorrek baserriguneetako bozka-emailea, apatikoagoa zena, mobilizatu nahi zuten, hirietan agertzen hasi ziren oposizioko korronteen indarra (sozialistak, errepublikanoak, federalistak eta abar) apaltzeko³. Hala ere, derrigortasun honek ez zuen abstentzioa desagerrarazi, adibidez Gipuzkoan, Cillan Apalateguiaren arabera, Gipuzkoan, 1907.tik 1923.era abstentzio tasa sekula ez zen %25 baino txikiagoa izan, 1923.ean %54,29koa izan zelarik⁴.

Baina lege horrek bazituen artikulua eztabaidagarriak ere. Bata, eta agian ezagunena, 29. artikulua zen. Artikulu horren arabera, “barruti batean, aukeratu beharreko hautagai-kopurua hautetsien edo karguen kopurua baino handiagoa ez izanez gero, aurkeztutako hautagaiak automatikoki aukeratuak izango ziren”. Horrek esan nahi zuen, hautagaitza bakarra aurkeztzen zen tokietan, hautagaitza hori automatikoki aukeratua gertatzen zela. Astebete lehenago (kasu honetan, apirilaren 5ean) ixten zen hautagaiak aurkezteko epea, beraz, egun horretan, oposiziorik gabeko alkate eta zinegotziak aukeratzeko ziren. Gipuzkoan eragin handia izan zuen lege horrek hauteskunde haietan eta 89 udalerritatik 42tan artikulua hori aplikatu izan zen. Eta ez da harritzekoa, artikulua hori ez baitzen salbuespenekoa, legea ez zegoen-eta artikulua hori gutxitan aplikatzeko moduan egina. Legearen eta artikulua honen defendatzaileek, artikulua honek herri-borondatea ez zuela desitxuratzen defendatzen zuten, hautagaitza bakarra aurkeztzen zen tokietan herria hautagaitza horren alde zegoela esan nahi baitzuen⁵. Hala ere, legearen beste artikulua batek, ezezagunagoa, baina

izateko aukera ezarri zen. Ohar hau bukatzeko, esan beharra dago Gipuzkoan eta Bizkaian, foruak indarrean zeuden garaian, emakumeek, zerga berezi baten truke botoa eman zezaketela; baina garai haietan boto-eskubidea (bi sexuentzat) ondasun-jabetza zutenei mugatua zen.

² Botorik ez emanez gero, abstenitu zirenen gaineko zergen igoera aurreikusten zuen legeak. (Ikus: ULL PONT, Eduardo: “El sufragio universal en España (1890-1936)” in *Revista de Estudios Políticos* aldizkaria, 208-209. zkia, (105-130. or.), 1976, 114. or.).

³ LOPEZ, German: “Un estudio sobre la reforma electoral conservadora de 1907 y sus posibilidades democratizadoras” in *Saitabi. Revista de la Facultat de Geografia i Història* aldizkaria, 48. zkia. (185-210. or.), 1998, 197-199. or. Hala ere, Lopez berak dio kontserbakorren proposamen hau liberalek eta errepublikanoek ondo ikusi zutela, hiritargoaren kontzientzia politikoa handitu zezakeelako.

⁴ CILLAN APALATEGUI, Antonio: *Sociología electoral de Guipúzcoa (1900-1936)*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia, 1975, 159. or.

⁵ Legearen aldekoek, lege hau “erregenerazionista” zela zioten, hau da, bazituela “jauntxokeria mugatzeko” zenbait puntu; adibidez, hautes-eroldaren kontrola Udalei kentzea eta Errolda Institutuari eta epaileei ematea. Ikus: ULL PONT, Eduardo: op. cit., 115. or.; eta DE CARRERAS SERRA, Francesc: *Legislación electoral de la Segunda República*. Doktorego-tesia (argitaratu gabea). Bartzelona, 1973. Tesi horren zirriborroa ikus hemen: www.tdx.cat/bitstream/handle/10803/5097/TFCS2de6.pdf?sequence=2 Urrutiago dihoa Jose Carlos Rueda, zeinaren arabera “Mauraren 1907.eko dekretuak, mugak muga, benetako demokratizazio baten zutariak ezarri zituen”. RUEDA, Jose Carlos (ed.): *Legislación electoral*

oztopatzaileagoa, 24. artikulua, hautagaiak aurkeztea asko zailtzen zuen. Hautagaiak, probintzia horretako diputatuek edo diputatu ohiek (Parlamenturako hauteskundeetan hautagai izateko hauekako hiruren bermea behar zen) edo herri horretako zinegotziek edo zinegotzi ohiek soilik aurkez zitezaketen (Udal-hauteskundeetan hautagai izateko, hauekako biren bermea behar zen); azken bide bat, hauteskunde-eroldaren %5aren sinadura (kontuan izanik 25 urtetik gorako gizonezkoak soilik zirela hauteskunde-eroldako partaide) lortzea zen, baina hori oso bide zaila gertatzen zen. Beraz, nahiz eta 24. artikulua 29.a bezain ezaguna ez izan, hau izan zen benetan 29. artikuluari zuen indarra eman ziona⁶. Beraz, boterean zeuden alderdi edo taldeek askoz ere errazago zuten euren hautagaiak aurkezteko aukera, eta horrek noski, indar monarkikoei (Berrezarkuntzaren monarkiaren aldekoiei) on egiten zien. Bestalde, garai horietan, botoaren sekretua ere ez zegoen bermatua⁷.

Bi lege horiek iruzurra egiteko bidea zabaltzen zuten⁸. Adibidez, lehen legerari (1877koari) dagokionez, barrutien banaketa indarrean zeuden udalen esku uzteak (gogoratu, asko Diktadura garaiko Udalak zirela), barrutiak emaitzak bideratzeko moduan banatu ahal izatea zekarren; adibidez Donostian (zortzi barruti zituen eta 39 zinegotzi aukeratzen zituen), Udalak, goi-klaseko auzoek zinegotzi gehiago aukeratzeko moduko banaketa onartu zuen, erabat bidegabea zena, hala, barruti horretako populazioa eskuindarren aldekoa izanik, hautagaitza horri mesede egiteko asmoz⁹. Bigarren legeak, 1907koak, 29. artikulua eta 24. artikulua bilbatuz, udalerrri asko, praktikan, oposiziorik gabe boterearen hautagaien esku uzten zituen udalerrri eta botere-postu asko (1910eko parlamenturako hauteskundeetan, parlamentarien herena 29. artikulua bidez aurkeztu zen)¹⁰. Gainera, kontuan hartu behar da tokiko jauntxoak kontrako hautagaiak presionatzeko moduak zituztela, Beasainen ikusiko dugun moduan, CAFen bidez, edota lurjabe handiek baserrien maizterrak “bideratzeko” moduak erabiltzen zituzten. Izan ere, lege hori egin zenean, helburua ez zen demokratizatzean aurrera egitea, baizik eta

española (1808-1975). Ariel. Bartzelona, 1998, 24. or. Antonio Cillanen arabera, artikulua hau Ingalaterratik hartua izan zen, eta han ez zen hain gaizki ikusia omen. Bere arabera, onartu zenean, artikulua honek ez zuen hainbeste eztabaida eragin. CILLAN APALATEGUI, Antonio: op. cit., 125. or.

⁶ LOPEZ, German: op. cit., 197-199. or.

⁷ Fermin Calbeton donostiar diputatuak bozkatzeko gutunazala eta kabina ezartzea proposatu zuen, baina proposamen hori ez zen onartua izan. Ibid., 194-195. or.

⁸ Lege hau “orain arteko hauteskunde lege hoberen” gisa (1976.ean idatzi zuen artikulua) defendatzen duen Eduardo Ull Pontek ere, bi artikulua hauek “iruzurrari bide egiten diotela” onartzen du: ULL PONT, Eduardo: op. cit., 115-116. or.

⁹ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutzaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 263-264. or.

¹⁰ LOPEZ, German: op. cit., 201. or.

2. kapitulua

sistemari egonkortasuna ematea, sistemaren barruko indarren arteko adostasuna bilatzea eta elkarren arteko talkak ekiditea, indar berriei instituzioetarako bidea oztopatuz. Lege berri honek lortu izan zuena “gizartearen parte-hartze politikoa handitzea baino murriztea izan zen”, abstentzioa debekatuz Gobernuak bere helburua kontrakoa zela bazioen arren¹¹.

Lege hori dela-eta, eskuineko indar monarkikoen zinegotzietan gain-ordezkapena izan zuten eta Espainian, zegokiena baino zinegotzi-kopuru handiagoa lortu zuten (nahiz eta ezaguna denez, Espainiako probintzietako hiriburu guztietan ezkerreko indarrek irabazi ondoren, Alfontso XIII.a erregeak alde egin zuenez, gehiago hori praktikan erabiltzerik ez izan)¹². Eskuineko egunkari batzuek apirilaren 13an eta 14an “garaipena” iragarri zuten; eta oraindik eskuineko kazetari edo historiagile batzuek, datu hori, zinegotzi-kopuruarena, “Errepublika modu antidemokratikoan etorri zen, herriaren gehiengoak monarkia bozkatu baitzuen” argudiatzeko erabiltzen dute. Hala ere, argudio horrek ez ditu hauteskunde haien baldintzak kontuan hartzen, ez baitzegoen sufragio guztiz askerako baldintzarik¹³. Baldintza aske eta garbiagoak zeuden tokietan, hirietan, ezkerreko hautagaitzen garaipena argia izan zen. Hauteskundeok ikertu dituzten historiagileek ez dute dudarik: Octavio Ruizek, adibidez, “emaitza zehatz-mehatz jakiterik ez badago ere, errepublikarren garaipena erabatekoa zenaren inguruan ez dago zalantzarik”¹⁴. Beasaindar batek, Juan Jose Usabiagak edo “Juan de Iturralde” dioen moduan, apirilaren 12an bertan, eskuineko politikari, funtzionario eta militar askok (tartean orduan Segurtasunerako Zuzendari Nagusi zen Emilio Molak, edo Gobernazio Ministro zen Hoyos markesak, Lan Ministro zen Gabriel Maurak eta baita Alfontso XIII erregeak berak) onartu zuten hauteskundeak garbiak izan zirela eta errepublikanoek irabazi

¹¹ Ibid., 200-204. or.

¹² Lege honek zuen garrantziaz eta baita ere polemikotasunaz ohartzeko, kontuan izan behar da, orduko Gobernu monarkikoak Parlamenturako proiektatu zituen hauteskundeetan (zeinak Uda-hauteskunde hauen ostean egin behar izan ziren), 29. artikulua kentzeko asmoa zuen; alta, Udal hauteskunde hauetan ez zuen kendu. RUIZ MANJON, Octavio: “Partidos elecciones y una nueva clase política” in CASAS SANCHEZ, Jose Luis; eta DURAN ALCALA, Francisco (eds.): *España ante la República. El amanecer de una nueva era, 1931. VI Congreso sobre el republicanismo* (kongresuko aktak) (31-62. or.). Kordobako Probintzi Diputazioa eta Niceto Alcalá-Zamora Partzuergoa. Kordoba, 2011, 42-43. or.

¹³ Javier Tusellek, bere 1931.eko ekaineko Parlamenturako hauteskunderi (Errepublikaren pean egin ziren hauteskunderi) buruz idatzitako liburuan, azken hauteskunde horiek “trantsizioko” bezala definitzen ditu, “demokratikoki ideialak ez baziren ere (...) aurreko hauteskundeak, 1931.eko apirilekoak barne, baino askoz ere demokratikoagoak zirelako”. TUSELL GOMEZ, Javier: *Las Constituyentes de 1931: unas elecciones de transición*. CIS. Madril, 1982, 19. or.

¹⁴ RUIZ MANJON, Octavio: op. cit., 45. or.

zutela¹⁵. Iturralde (zeina apaiza eta EAJren aldekoa zen, beraz ez bereziki ezkerreko indarren aldekoa) ondorio hau ateratzen du: “iritzi publikoa eta bozka izan zen tokietan (hau da, hirietan, eta ez jauntxokeria nagusi zen herrietan, *egilearen oharra*), hauxe Alfons XIII.arenaren kontra jarri zen (...) 1931.eko apirilean espainiar herriak inoiz baino argiago eta ozenago hitz egin zuen, eta nobleki, odolik isuri gabe, nahi izan zuena lortu zuen”¹⁶. Goardia Zibilaren zuzendari (eta geroago kolpista ezagun zen) Jose Sanjurjok jeneralak ere, bere tropei “garaipen errepublikano bidezkoa ospatzen ari diren adierazpen kolektiboak” ez tirokatzeko agindua eman zuen¹⁷. Beraz, gerora historiografia-korronte batzuek gertakari hau zalantzarik ez izan badute ere, garai hartan ez zen zalantzarik izan¹⁸.

Eskuinaren porrota ikusita, erregeak abdikatu eta Espainiatik alde egin zuen. Errepublika, jakina denez, Eibarren aldarrikatu zen lehenengo, jai-giroan aldarrikatu ere, Untzaga plazan, udaletxeko balkoian Errepublikako bandera ezarri zuten eta Udal-bandak kaleetan Marsellaise¹⁹ eta Gernikako Arbola jo zituen. Segituan zabaldu zen Errepublikaren aldeko aldarria Espainiako Estatu osoan. Gipuzkoan bertan ere, poza orokorra izan zen eta adibidez, Diego Martinez Barrio politikari ezaguna (Errepublikan ministro izan zen, eta Fronte Popularraren garaian, hilabete batzuek Gobernu buru ere bai) Ipar Euskal Herrietik Irunera sartu zenean, harrera ospetsua egin zioten herritarrek. Donostian, Clara Campoamor feministak Udaleko zinegotzi errepublikano eta sozialista hautatu berriekin bat Ondarretako kartzelara manifestazio bat antolatu zuen. Arrasaten, Bergaran, Pasaian..., pozezko eszenak gertatu ziren. Istilu batzuk ere izan ziren,

¹⁵ ITURRALDE, Juan: *La guerra de Franco, los vascos y la Iglesia* (1. lib.: *Quiénes y con qué fin prepararon la guerra y cómo comenzó*). Publicaciones Clero Vasco. Donostia, 1978, 23-26. or.

¹⁶ *Ibid.*, 26-27. or.

¹⁷ Hala ere, Madril, istilu batzuk gertatu ziren Goardia Zibilak tiro egin zuelako, bi hildako izan ziren. VILLALAIN, Pablo: *Las elecciones municipales de 1931 en Madrid*. El Avapies. Madril, 1987, 115. or.

¹⁸ Agian, historiografia zientifikoan, salbuespenetako bat, Fernando Del Rey dugu. Honen arabera, “emaitzak zehazki ezin direla jakin” onartzen badu ere, ez dator bat “29. artikulua edo jauntxokeria sareek nahi eta ez ustelkeria edo eroskeria esan nahi dutenik”. Bere arabera, herri askotan eskuinak garbi irabazi zuen, eta geroago, behin Errepublika ezarrita, ezkerrek, garaipen horiek belzteko erabili zuen jauntxokeriaren argudioa, hauteskundeak “toki askotan, modu ilegalean hauteskundeak errepikatu araziz”. Del Reyren iritziz, “nekazalgunean bizi ziren espainiarrek, eurekin gehien identifikatzen zuten aukera bozkatu zuten”. DEL REY REGUILLO, Fernando: *Paisanos en lucha. Exclusión política y violencia en la Segunda República española*. Biblioteca nueva. Madril, 2008, 90-101. or., batez ere, 100-101. or.

¹⁹ Frantziako ereserki nazionala giro errepublikazaleetan, Errepublikaren edo demokraziaren ideien naziarteko ereserki gisa ere jotzen zen, Frantziako iraultza eredu zelako monarkiaren aurkako ideiak edo ideia aurrerakoiak zituzten askorentzat. Beste eredu bat jartzearren, Errusiar Iraultzan ere presentzia izan zuen ereserki honek.

2. kapitulua

adibidez Orion, Orioko alkate monarkikoak ez baitzuen bandera errepublikanoa jarri nahi izan²⁰.

2.1.b) *Hauteskundeak Gipuzkoan eta Beasainen*

Hauteskunde horietan, Gipuzkoan, batez ere lau indarrek egin zuten borroka elkarren kontra: nazionalista jeltzaleek, sozialisten eta errepublikanoen arteko ezkerreko koalizioak, karlistek eta azkenik, indar bateratu gisa aurkeztu ez zen eta herriz herri izen ezberdinak erabili zituen talde zabal batek (gehienetan “monarkiko” edo “katoliko” gisa aurkeztuko zenak). Azken hori, Berrezarkuntza-sistemaren aldeko pertsona eta politikariek osatua zen, monarkia alfonsotarraren eta Gobernuaren politiken aldekoa, liberalismoa kontserbadore moderatu batekin eta batez ere (ziurrenik ideologiaren gainetik) “ordenaren” sentimenduarekin identifikatua zuena. Esan beharra dago, Gipuzkoako zenbait tokitan, batez ere hiri handietan (Donostian, adibidez) monarkiko horiek eta karlistak, biak eskuin espainiarrekoak, batera joan zirela hauteskundeetara. Lau horiek izan ziren indar nagusiak, nahiz eta herri batzuetan tokiko hautagai edo hautagaitza “independenteak”, “apolitikoak” edo “ez-alderdikoiak” ere aurkeztu ziren. Beste alde batetik, Alderdi Komunistak Donostiako barruti batzuetan soilik aurkeztu zituen zerrendak eta oso emaitza apalak lortu zituen.

Gipuzkoara ekarriz, 1931.eko hauteskunde hauetan, artikulua honek garrantzia handia izan zuen, izan ere, 89 udalerrietatik 42tan aplikatu zen, 859 zinegotzietatik 329 zinegotzi metodo honen bitartez izendatu zituztelarik. Praktikoki, gipuzkoarren %47a bozkatu gabe geratu zen²¹. Honen onuradun nagusiak, Gipuzkoan alderdi “ofizialistak”, Berrezarkuntzaren sistemaren aldekoak edo monarkiko alfonsotarrak izan ziren. Aukeratutako 329 zinegotzietatik 133 (%40tik gora) eta 19 alkate aukera honetakoak ziren -29. artikulua bidez aukeratutako 79 zinegotzi karlistak ziren eta jeltzaleak 65, soilik 6 ezkerrekoak-. Honek erakusten du, artikulua honek lehenbizi boterean zegoen alderdiari on egin ziola, eta gero beste aukera kontserbakorrei; beraz, nekazal-guneetan ezkerrearen indargune ziren herri handietan baino gehiago aplikatu zela²², eta batez ere jauntxokeria sareekin zenbat eta lotura estuagoa izan, lege honek zenbat eta aukera gehiago ematen zuela.

²⁰ *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-IV-15ekoa.

²¹ BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 270. or.

²² Gipuzkoako herri txiki eta ertainen artean, 69 herrietatik 37tan aplikatu zen. *Ibid.*, 272-273. or.

Beraz, apirilaren 12an Gipuzkoako 47 herritan izan ziren hauteskundeak (hauteskundek izateak ez du esan nahi hauek garbiak izan zirenik, kasu batzuetan hautagaien arteko akordioak izan baitziren), herritarren %79,16k eman zuen botoa²³. Egun honetan ere, eskuin alfontsoarra agertu zen garaile, 185 zinegotzi eta hainbat alkatetza, tartean Beasain eta Ordizia (halere bi herri hauetan hauteskundeak errepikatu behar izan ziren²⁴), lortuz. Jeltzaleek 110 zinegotzi eta bederatzi alkatetza lortu zituzten, eta ezkerreko hautagaitzek 100 zinegotzi eta bost alkatetza, tartean hiribururena, Donostia²⁵. Bi egunetako emaitzak bilduz, eskuin alfontsoarrak 839 zinegotzietatik 318 eta 89 alkatetzetatik 38 lortu zituzten, jeltzaleek 175 zinegotzi eta 14 alkatetza, karlistek 146 zinegotzi eta 16 alkatetza eta ezkertiarrek 106 zinegotzi eta 6 alkatetza.

Hauteskunde hauek erakutsi izan digutena da, Gipuzkoan, jauntxokeria babesten zuen hauteskunde-legeak emaitza borobildu bazuen ere, eskuinak, eta batez ere alderdi monarkiko alfontsoarrek irabazi zutela, Espainiar Estatuan gertatu zenaren kontrara; ezkerria Donostian eta Gipuzkoako herri handietan nagusitu zelarik. Beste ondorio handi bat Gipuzkoan EAJk erakutsi zuen indarra izan zen. Azken datu horrek erakusten du, Gipuzkoan, “Monarkia ala Errepublika” dilemaz gain, beste ardatz bat ere bazegoela, euskal autogobernuaren defentsarena. Alderdi hau oraindik Gipuzkoako alderdirik handiena ez bazen ere, 1932an eta 1933an hegemonia hori lortuko zuen; 1931.eko apirilean hauteskundek irabazi zituen eskuin alfontsoarra urtu zen bitarte horretan. Prozesu hau hurrengo atal eta azpiataletan xeheago azalduko dugu; baina labur esanda, faktore batzuk aurreratuko ditugu hemen: 1931.eko apirilean alderdi politikoak Gipuzkoan ez zeuden oso hedatuta ez antolatuta (zazpi urteko diktadura baten osteko hauteskundeak izan ziren); beraz, jauntxokeria-sareaz gain (Errepublika garaian ahuldu egin zen sare hori), arrazoi bat izan daiteke gipuzkoar askok, batez ere nekazal-guneetan “ideologiaz” baino. “joeraz” edo “berariaz” bozkatu izanda: erlijioa, ordena, nolabaiteko foruzaletasuna eta abar, monarkia baino gehiago. Errepublikaren etorrerak,

²³ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 132. or.

²⁴ Errepublikaren Gobernu aukeratu berriak, apirilaren 16an onartu zuen “hauteskundeetan iruzurra edo faltsutzea dela-eta protestak izandako herrietan hauteskundeak errepikatzeko” agindua, eta protestak egiteko epea, apirilaren 25ean bukatu zen. Maiatzaren 31n Gipuzkoan hamaika herritan egin zen hauteskunde-errepikapena, Beasain eta Ordiziaz gain, Bergaran eta Tolosan ere hauteskundeak errepikatu egin behar izan ziren. Herri batzuetan aldaketak izan baziren ere (Berastegin ezkerrek irabazi zuen, Bergaran, Deban eta Soraluzen abertzaleek; eta Goierriko bietan, ere ikusiko dugun bezala aldaketak izan ziren), beste batzuetan (Tolosan edo Ibarren, esaterako), eskuindarrek apirilean irabazitakoari eutsi egin zioten.

²⁵ Ezkerreko hautagaitzak Donostian lortu zuen garaipena erabatekoa izan zen; %85,5eko parte-hartzearekin, botoen %59,4 eta 39 zinegotzitatik 25 lortu baitzituzten. Alkate berria Fernando Sasiain errepublikano federala izan zen.

2. kapitulua

alfontsotarren aukera hau desegin zuen, bai jauntxokeria sareei kalte egin zielako, eta “Gobernuaren alderdi” izateak zekarkion “baliagarritasuna” kendu zielako. Bestetik, euskal estatutuaren eztabaida agertzeak, aukera honen bozka-emailek EAJra hurbiltzea ekarri zuen.

Beasainen egoera pixka bat konplexuagoa izan zen, hain zuzen ere, egun hartan, apirilaren 12an, gertatu zen iruzurra zela-eta. Hori dela-eta, ikusiko dugun moduan, apirilaren 12ko hauteskundeak baliorik gabe geratu ziren, eta maiatzaren 31n errepikatu egin ziren (Ordizian gauza berdina gertatu zen).

Apirilaren 12ko hauteskundeetan, Beasainen hauteskunde horietara bi zerrenda aurkeztu ziren, bata ezkerrekoa sozialistek eta errepublikanoek osatua, eta bestea eskuindar ezberdinek (jeltzaleak barne) osatua. Miren Barandiaranen arabera, eskuinarekin joateko erabakiak eztabaida sorrarazi zuen EAJren barruan. Barandiaranen arabera, Beasaingo EAJko kiderik beteranoenak aliantza hori egitearen aldekoak izan ziren, kiderik gazteenak aldiz, bakarrik edota ezkerrekin joatearen aldekoak ziren²⁶. Alfontso Ibaibarriaga Beasaingo jeltzale historikoak ere, elkarrizketa zahar batean, antzeko bertsio bat eman zuen, bere ustez Bernabe Aierdi Beobide izan zen eskuinarekin zerrenda bateratua egitearen aldeko kide nagusia, “erlijio kontuengatik”. Ibaibarriaga oso kritikoa ageri zen Aierdiren jarrerarekin, Alderdi barruan “saltsa sortu zuela” eta. Ibaibarriagaren arabera, ezkerrekin joateko aukera ere izan zuten jeltzaleek²⁷.

Hauteskunde horietan, Beasaini 13 zinegotzi zegozkion, bi barrutitan aukeratuak. Lehenengo barrutia, “udaletxekoa” zen, handiena, bertan zortzi zinegotzi aukeratu behar ziren, batez ere herriguneko biztanleek eman zuten botoa barruti horretan. Bigarren barrutian “eskoletako barrutian” (auzoetako eta baserrietako boto-emaileak biltzen ziren) bost zinegotzi aukeratu behar ziren. Barrutiok, hurrenez hurren 784 eta 433 boto-emaile zituzten (esan bezala, boto-emaile denak 25 urtetik gorako gizonezkoak ziren)²⁸.

²⁶ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itzaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 73-74 or.

²⁷ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

²⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 0545. karpeta, 35. dokumentua. 1931ko martxoaren 15eko dokumentua.

Hasiera batean, hauteskunde horietara 20 hautagai aurkeztu ziren, 12 lehenengo barrutian eta 8 bigarrean. Lehenengo barrutiko hamabi hautagaien artean, zortzi eskuindarren eta jeltzaleen arteko koaliziokoak izan ziren: Constantino Maiz Maiz, Jose Maria Larru Sierra, Eusebio Aramburu Otamendi eta Maximino Aramburu Otamendi jeltzaleak, eta eskuin espainiarraren aldetik Jose Maria Catarain Iturrioz, Vicente Telleria Ayestaran, Miguel Cerrajería Tiffe eta Manuel Perez Vazquez. Ezkerrak Leoncio Ibarbia Urquia, Severiano Azpeitia Arcelus, Gregorio Lasa Altuna eta Victor Bernedo Zubiaurre aurkezten zituen; lehen hirurak errepublikanoak, eta azkena sozialista. Bigarren barrutian ordea, eskuineko bost hautagai aurkeztu ziren: Liborio Goitia Garmendia (gero nekazarien sindikatu bateko burua izango zena), Juan Cruz Olano Sarasola, Joaquin Gaytan de Ayala Belarria eta Demetrio Cortadi Garmendia eskuin espainolistakoak eta Bernabe Ayerdi Beobide jeltzalea. Ezkerretik hiru, hirurak errepublikanoak: Jacinto Urteaga Yurrita, Serafin Arana Gaiztarro eta Pedro Azarola Gorrochategui²⁹.

Hala ere, CAFen presioak zirela-eta, ezkerrak bere hautagaitzak erretiratu egin zituen. Denek ez zuten atzera egin, bi ez ziren erretiratu: Severiano Azpeitia lehen barrutian eta Jacinto Urteaga, bigarren barrutian. Kontuan hartu behar da, Urteaga alkate izana zela, beraz, prestigioa izan zezakeela. Aukeratuak izan ziren biak, baina oso boto gutxirekin. Beraz, pentsatzekoa da beste zerrendako pertsonekin halako adostasun tazitu bat egon zitekeela, kontuan izanik, herrian eta baita herriko pertsona entzutetsuen artean ere, ondo ikusitako pertsonak zirela eta administrazioko esperientzia ere bazutela. Ezkerreko hautagaiak erretiratzea, *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikanoaren arabera, hauteskundeak baino egun bat lehenago gertatu zen, “langile-demokraziaren elementuek fabrika horren tailerretan lan egiten dutenez, eta mendeku-beldurrez (...) eta gainera momentuz Beasainen langabeak laguntzeko erresistentzia-kutxarik edo baliabide ekonomikorik ez dagoenez, langile-klaseari min gehiago ez emate aldera, hautagaitza erretiratzea erabaki dute³⁰”. Beraz, eskuinarentzat izan zen garaipena, dena alde baitzuen. Lehenengo barrutian Jose Maria Larru, Vicente Telleria, Jose Maria Catarain, Eusebio Aramburu, Maximino Aramburu, Miguel Ayestaran (seiak, bakoitza 130na botorekin) eta Severiano Azpeitia (5 botorekin) izan ziren aukeratuak³¹. Bigarren

²⁹ Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1211 dokumentu-sorta.

³⁰ *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-IV-15ekoa.

³¹ Dugun iturriak, Gipuzkoako Artxibo Orokorreko JDIT 1212 dokumentuak, lehen barrutian, bost botorekin Vicente Iraola Lasa (jarduneko alkatea) aukeratu izan zela esaten du, baina JDIT 1211

2. kapitulua

barrutian ordea, Juan Cruz Olano Sarasola (171 boto), Bernabe Ayerdi Beobide (170 boto), Joaquin Gaytan de Ayala (164 boto), Liborio Goitia (162 boto) eta Jacinto Urteaga (16 boto) izan ziren aukeratuak³². Beraz, eskuineko 11 zinegotzi (horietatik 4 jeltzaleak) eta ezkerreko 2 (biak errepublikanoak) izan ziren aukeratuak.

Goierriin ere, oro har, eskuineko indarrak, batez ere, indar “ofizialistak” (esan bezala, orduko Gobernuaren eta Alfontso XIII.aren aldekoak) izan ziren nagusi (Gipuzkoan izan ziren bezala).

Hala ere, esan bezala, hauteskundeak errepikatzen behartua izan zen Beasain, indarrean jarritako gobernu ezkertiarrek eta kolore politiko berdina zuen Gipuzkoako Aldundiaren Batzorde Gestoreak hauteskundeak errepikatzea agindu zuten, aurreko hauteskundeak, CAFen presioa zela-eta, iruzurtiak izan zirela argudiatuz (Ordizian ere gauza bera gertatu zen). Aipatutako hautagaiek ez zuten ezta kargua hartzerik ere izan, beraz, Jose Vicente Iraola Lasak jarraitu egin zuen karguan, harik eta, maiatzaren 5ean Gipuzkoako Gobernadore Zibil errepublikanoak kargutik kendu zuen arte³³.

Hauteskunde berriak maiatzaren 31n egin ziren, eta bertara bi indar soilik aurkeztu ziren, ezkerreko koalizioa (errepublikanoak eta sozialistak) eta eskuin espainiarreko kideak. Hauteskunde-errepikapen horretan, eskuinak ez zuen jeltzaleen babesik izan, antza denez, jeltzaleak ez ziren hauteskundeetara aurkeztu³⁴. Hala ere, hauteskundeak iritsi baino lehen, eskuina lehen barrutian erretiratu egin zen, kontuan izanik Espainian jaso zuen porrota handia izan zela (Errepublika jada ezarria zegoen) eta gainera Goierriko bi herri handietan “iruzurraren onuradun” gisa agertu zirela; ulertzekoa da beraz, eskuindarren atsekabea. Jose Antonio Rodriguez Ranzek *Euzkadi* egunkari jeltzalea aipatuz, beste bertsio bat ematen du: hauteskundeen aurretik sektore denek “Udal alderdi-anitz bat osatzeko ituna egin zutela (...) baina bezperan, Donostiatik errepublikanoei hauteskunde-borroka joateko agindua eman zieten (...)

dokumentuan, hautagaien aurkezpena dakarren dokumentuan, ez da agertzen Iraola Lasa aurkeztu zenik (bai ordea Miguel Cerrajería Tiffe eta Manuel Perez Vazquez). Beraz, ez dakigu azken bi hauetako zein izan zen aukeratu.

³² Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1212 dokumentu-sorta.

³³ ZUFIAURRE GOYA, Jose: “Alcaldes de Beasain” in *Beasain Jaietan* urtekaria, 2001 (17-21. or.).

³⁴ Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorren JDIT 1211 eta JDIT 1212 dokumentu-sortetan ez dugu Beasaingo 1931ko apirilko eta maiatzeko hauteskundeetan hautagai jeltzaleen parte-hartzerik ikusten. Hala ere, Miren Barandiaranek, bere EAJri buruzko liburuan eta 1931ko ekainaren 14an agertutako *Euzkadi* egunkarian agertutako komentario bat frogatu moduan jarrita, EAJ hauteskunde horietara bakarrik aurkeztu zela dio (BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 75 or.). Edonola ere, argi dago, bigarren hauteskunde horietan eskuinak ez zuela jeltzaleen laguntzarik izan.

beraz beste taldeak erretiratu egin ziren”³⁵. *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikanoak ere hala dio “aurreko egunean, eskuineko hautagaitzak erretiratzea erabaki zuen (...) beraz ez zen borrokarik antza” baina “azken momentuan (...) Sarriegui eta Urteaga eskuindar “independentetek” aurkeztea erabaki zuten”. Bi hautagai horiek azken momentuan aurkezteak, hautagaitza errepublikanoaren barruan susmoak sortu zituen “gutako hautagairen bat, arlo batzuetan antzeko iritzia dela bide, senitartekotasuna dela bide, eurekin adostasun batera iritsi ez ote den”³⁶. Badirudi, Jose Martin Sarriegui eta Restituto Urteaga, eskuindarrak izanik ere, beren kabuz aurkeztu zirela, ez alderdi baten hautagaitza moduan.

1931ko ekainaren 6ko dokumentu batean agertzen denaren arabera, hauek izan ziren zinegotzi bakoitzak lortutako boto-kopuruak³⁷:

Lehen barrutian (denak ezkerreko koaliziokoak):

- Gregorio Lasa Altunak 208 boto, errepublikanoa.
- Leoncio Ibarbia Urquiak 206 boto, errepublikanoa.
- Victor Bernedo Zubiaurrek 204 boto, sozialista.
- Pedro Lasa Seguiolak 201 boto, sozialista.
- Severiano Azpeitia Arcelusek 201 boto, errepublikanoa.
- Emiliano Arbaizar Trepianok 201 boto, errepublikanoa.
- Doroteo Aguado Larrichek 193 boto, sozialista.
- Dionisio Carrascal Aguadok 53 boto, sozialista.

Bigarren barrutian (lehen hirurak ezkerreko koaliziokoak, eta azken biak eskuineko koaliziokoak):

- Jacinto Urteaga Yurritak 72 boto, errepublikanoa.
- Serafin Arana Gaiztarrok 72 boto, errepublikanoa.
- Pedro Azarola Gorrochateguik 72 boto, errepublikanoa.
- Jose Martin Sarriegui Sasiainek 50 boto, eskuineko independentea.
- Restituto Urteaga Oteguik 50 boto, eskuineko independentea.

³⁵ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 331. or.

³⁶ *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-VI-2koa. Egunkari horrek, “eskuinak aurkeztuz gero, jarlekuak lortuko zituen (...) gutxi hala ere, herri horretan gure ideiak nagusi baitira” esan zuen.

³⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 061 dokumentua, 09 karpeta; Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 79. dokumentua eta Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1212 dokumentu-sorta.

2. kapitulua

Aipatu beharra dago baita ere, bigarren barrutian, garaituak izan ziren beste bi hautagai aurkeztu zirela: Fidel Fernandez Fernandez eta Angel Balaguer Alfaro. Bakoitzak 28na boto izan zituzten³⁸. Hautagai horien ideologia sozialista zen, biak CAFeko langileak ziren³⁹.

Beraz, 11 zinegotzi ezkertiar eta bi eskuindar. Alkate, Jacinto Urteaga jarri zuten (aurretik alkate ere izana zen, 1920 eta 1922 artean, liberalen aldetik), eta alkateorde, ohiz kanpoko sozialista bat, Victor Bernedo, Elgoibarren jaiotako enpresaria, “Bernedo” metalurgia fabrikako nagusia. Soziologikoki ere aldaketa txiki bat ekarri zuen, izan ere, langileen presentzia nabarmena izan zen Beasaingo Udalean (aukeratutako hiru zinegotzi behintzat, Aguado, Carrascal eta Lasa Segurola, langileak ziren). Hala ere, Udalaren buruzagitzan, bai Urteaga alkate errepublikanoa, zein Bernedo alkateorde sozialista, biak, Usurbe elkarteko kideak ziren. Elkarte horren pisua nabarmena zen Udal berrian; ezkerreko zein eskuineko zerrendetako kideak baitzeuden (aipatutako kideak eta gainera Serafin Arana, Pedro Azarola, Severiano Azpeitia edo Restituto Urteaga adibidez)⁴⁰. Beraz, nahiz eta ideologikoki aldaketa gertatu, soziologikoki mudantza txikia zen, klase herrikoietako zinegotziak izan arren, oraindik ere gehiengo goi-klaseetatik edo klase ertainetatik eratorritako pertsonen osatua zelako. Deigarria den beste errealitate bat, ezkerreko koalizioan errepublikanoek sozialistak baino zinegotzi gehiago izatea da, kontuan izanik, sozialistek Beasainen, errepublikanoek baino pisu handiagoa zutela (aparte aurkeztu ziren hauteskunde bakarrek, 1933koek, hori erakutsi zuten). Hau azal dezakeen hipotesi bat, hauteskundeetara aurkezteko zeuden baldintza zorrotzak izan daiteke: esan dugun bezala, aurretik ordezkari-tza-postuetan egoteak asko errazten zuen hautaketa, eta ezin dugu ahaztu errepublikano batzuk aurretik zinegotzi izanak zirela (Jacinto Urteaga alkatea, 1920-22 artean ere alkate izan baitzen). Beste hipotesi bat, errepublikanoak herrian pertsona ezagunagoak, esperientzia handiagokoak izatea izan daiteke. Ez dugu ahaztu behar hauteskunde horiek, berez, monarkiaren erregimenaren pean deitutako Udal-hauteskundeak zirela, eta beraz, lehen kapituluan azaldutako Berrezarkuntzaren garaian indarrean zeuden politika-eskemek, “pertsona

³⁸ Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1212 dokumentu-sorta.

³⁹ *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-VI-2koa. Egunkari horren arabera, hasiera batean ezkerreko zerrendak hamar hautagai soilik aurkeztu zituenez, beste hiru hutsuneak betetzeko Carrascal, Balaguer eta Fernandez aurkeztea erabaki zuten; baina Sarriegui eta Urteaga ere azken momentuan aurkeztu ziren eta aukeratuak izateko adina boto lortu zituztenez, Balaguer eta Fernandez kanpoan gelditu ziren.

⁴⁰ UGARTE, Cesareo: “Usurbe Elkarte” in ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarte herrikoiak*. (Beasaingo Paperak bilduma, 1. zk.) (13-19 or.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 15. or.

eragindunen” inguruko eskemek artean pisu handia zutela. Kasu honetan ez gaude salbuespen baten aurrean, adibidez Beasaindik urruti dagoen Mantxan hauteskunde hauek ikertu dituen Fernando del Reyk esaten duen moduan “errepublikanoek sozialistek baino sare asoziatibo ahulagoa izan arren, ezkerreko blokean hautagai gehienak eurenak ziren. Jatorri sozialaren arabera, (ezkerreko hautagaitzetan) gehiago ziren erdi-klasekoak langile ordezkariak baino”⁴¹.

Goierriko hauteskundeak errepikatu zituen beste herri handian, Ordizian, bai EAJk zein Eusko Abertzale Ekintzak osatutako koalizio abertzale batek irabazi zituen hauteskundeak. Koalizio abertzale horrek zortzi zinegotzi atera zituen (sei jeltzale eta bi ekintzaile), eta Alderdi Karlistak lau besterik ez. Alkate, Patxi Iturriotz Iztueta “Patxi Zabale” jarri zuten⁴². Goierriko emaitzak osorik begiratu ostean ikusten dugunez, Gipuzkoan bezala, eskuineko indarrek garaipen handia lortu zuten eta 20 herritatik 11tan, zalantzarik gabe, eskuindar zirenak gailendu ziren: seitan monarkiko alfonsotarrak (Gobernuaren zaleak) eta bostetan karlistak. Kontuan izan behar dugu halaber, hiru Udaletan (Gabirian, Olaberrian eta Zegaman), “talde apolitikoak” nagusitu zirela. Beraz, joera kontserbadorea nagusi zela ikusten dugu. Eta oposizioko alderdiek sei alkatetza soilik lortu zituzten, bost EAJk, eta bakarra ezkerreko koalizioak.

2.2 Udala eta Udal-politika errepublikanoa Beasainen

Beasaingo Udal errepublikanoak, hasiera batean, Errepublikaren politika laikoa jarraitu zuen. Adibidez, 1931ko uztailaren 2an, Pedro Lasa Segurola zinegotzi sozialistak, Loinazko San Martin plaza (*Plaza de San Martín de Loinaz*) Errepublikaren plaza (*Plaza de la República*) izenaz aldatzea proposatu zuen. Hala ere, ikusi zenez, proposamen hori herritarrek oso gaizki hartu zuten eta Arbaizar zinegotziaren dimisioa ekarri zuen (dokumentu batzuen arabera, uztailaren 7ko Udalaren osoko bilkuran, Pedro Lasa zinegotzi sozialistak aurkeztu zuen proposamen hori, baina ez du zentzurik uztailaren 2an erabakia hartua baitzegoen. Zinegotzi gehienek, Jose Martin Sarriegui eskuindarrak barne, mozio horren alde egin zuten eta Urteaga alkatea San Martinen izena mantentzearen alde egin zuen bakarra izan zen)⁴³. Uztailaren 20an, Arbaizarrek berak azaldu zuenez, “proposamen horrekin Beasaingo seme-alaben sentimenduak

⁴¹ DEL REY REGUILLO, Fernando: op. cit., 93-94. or.

⁴² ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 25 or.

⁴³ Beasaingo Udal Artxiboa. A010. Karpeta, 03. dokumentua.

2. kapitulua

iraindu zituen” eta uztailaren 9an proposamena erretiratzeko asmoa izan zuen; hala ere, proposamena okerra zela jabetzeaz gain, dimititzeko asmoa zuela adierazi zuen “berriz ere, ni Udalean egonda, halako akatsak errepika ez daitezen”. Udalak, uztailaren 24an dimisio hori onartu zuen⁴⁴. Serafin Arana Gaiztarrok, uztailaren 7an, erdibideko proposamen bat egin zuen: Merkatu-plazari (gaur egungo Bideluze plazari) “Errepublikaren plaza” izena jartzea⁴⁵. Aranaren proposamena uztailaren 9ko bilkuran aho batez onartu zen. Uztailaren 9ko bilkuraren aktan agertzen da, beasaindarrek prentsara jo zutela aldaketaren aurka zeudela adieraztera⁴⁶. Bi egun soilik igaro ziren bi bilkuren artean. Egia da izen-aldaketaren kontua ez zela tratatutako afera bakarra izan, baina beste aferak nahiko “ohikoak” izateak eta hain denbora-tarte txikian gertatzeak ongi erakusten dute beasaindarren erreakzioa sutsu samarra izan zela.

Baina hori ez zen izan Beasainen 1931ko uztailaren 7 horretan egin zen aldaketa bakarra. Kale Berriari, Pablo Iglesias kalea izena jarri zitzaion (Bernedo alkateordearen proposamena), Geltoki kaleari (gaur egungo Nafarroa etorbidea), parte batean (Urbi etxetik geltokiraino) Fermin Galan kalea izena jarri zitzaion (Severiano Azpeitia zinegotziaren proposamena), eta beste partean (geltokitik Igartzara) Garcia Hernandez kalea (Leoncio Ibarbia zinegotziaren proposamena)⁴⁷. Uztailaren 9an, Jose Migel Iturriotzen izena eman zitzaion Andra Mari kaleari (Restituto Urteagaren proposamena)⁴⁸. 1935ean, “Elizarako galtzada” deitutakoari Martina Maiz izena jarri zitzaion, Arangoitiko Ospitalea egiteko dirua eman zuen emakumearen omenez⁴⁹. 1935ko urrian, Udala eskuinaren eskuetan zegoenean, beste kale-izenen aldaketa bat egin zen, baina kasu horretan, ez zuen hainbesteko kutsu politiko-errepublikanorik izan: *Calleja* zeritzonari (gerora Goierri kalea), Leon Arregui kalea izena jarri zitzaion, CAFeko eskolako irakasle izan zenaren omenez. Uztailean, CAFen eskolako ikasle-

⁴⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 0137. karpeta, 34. dokumentua.

⁴⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 0151. karpeta, 35. dokumentua.

⁴⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 0142. karpeta, 01 dokumentua. Akta horretan agertzen denez, aurreko erabakiarekin sututa agertzen ziren herritar batzuek, erabaki hori “kanpotarrei” egotzi zieten.

⁴⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua. Fermin Galan eta Garcia Hernandez, 1930ean, jada komentatu dugun Jakako altxamendua gidatu zuten bi militar errepublikano ziren. Martxoan, Gobernu monarkikoak exekutatu ostean, Errepublikaren martiri bihurtu ziren.

⁴⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua. Proposamen horrek bitxikeria bat zekarren, izan ere, proposamenaren aurkezlea Restituto Urteaga zinegotzi eskuindarra izan zen, hauteskundera “katoliko” gisa aurkeztu zena.

⁴⁹ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia*. (Beasaingo paperak 4. zk.). Beasaingo kultura-batzordea. Beasaingo Udala. Beasain, 1995, 103-106. or. 1933ko azaroan jada Serafin Aranak herriko kaleren bati Martina Maizen izena ematea proposatu zuen. (Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua.).

-ohiek eskatu zioten Udalari Leon Arreguiaren izena kale bati jartzea, eta Udalak eskaera hori aintzat hartuz *Callejari* izena aldatzea erabaki zuen⁵⁰.

Hezkuntzara ere iritsi ziren haize berriak. 1931ko azaroaren 5eko Udal-bilkuran, Pedro Lasa zinegotzi sozialistak, eskola erlijiosoari subentzioa kentzeko proposamena aurkeztu zuen "Parlamentuan halako erabaki bat hartu da-eta". Hala ere, Serafin Arana zinegotzi errepublikanoak esan zion, erabaki hori artean ez zela indarrean sartu, beraz, neurri hori ez zen hartua izan⁵¹. Azaroaren 7an, Pedro Lasak berriz heldu zion gaiari, baina beste zinegotziek (eta batez ere Serafin Aranak) erantzun zioten, Udalak ez zuela eskola hartako 185 ikasleak hartzeko tokirik ez irakasle berriak kontratatzeko modurik. Bernedo alkateorde sozialistak esan zuen, "bera ez zela eskola erlijiosoak subentzionatzearen aldekoa"; baina "tokiko arazoa ikusirik", subentzioa kolpean ezin zitzaiola kendu eskola erlijioso horri (La Salleri). Beraz, azkenean, kendu ordez 1.000 pezetan murriztea erabaki zuten: 2.400 pezetatik 1.400 pezetara (Serafin Aranaren proposamena). Erabakia hartzean, Lasaren alde, Carrascal eta Aguado sozialistek egin zuten –baina hiru horiek ez zuten bozketan parte hartu, lehenago aretotik irten zirelako– eta baita Azpeitia errepublikanoak ere, baina beste inork ez)⁵². Hala ere, 1932ko maiatzean berriz egin zen eskaera hori, kasu horretan Elkarte Sozialistaren eskutik. Sozialista beasaindarren aburuz, eskola katolikoari diru-laguntzak kendu egin behar zitzaizkien, eskola horretako irakasleen jarrera Errepublikaren aurkakoa zelako, umeen paparretatik ikur errepublikanoak indarrez kentzen zituztela-eta. Udal-bilkurak kasu horretan ezezkoa erabaki zuen; subentzioa kentzeko "asmoa" bazuela esan zuen, baina "eskola berriak" (eskola bateratuak, proiektuz publikoa izan behar zuenak baina gerora karmeldarrek hartu zutenak) eraikitakoan, bestela herrian ez zegoela-eta eskaerari aurre egiteko adina eskola publiko. Ikur errepublikanoak kentzearen inguruan, "hori egia izanez gero gurasoek agintarien aurrean behar diren xehetasunak eman ez salatu egin beharko lituzkete" gaineratu zuen Udalak⁵³. Kontuan izan behar dugu, Udal-eskoletan 1936ko maiatza arte, haur-eskolak kleroaren esku zeudela, Victor Bernedo alkate zen garaian hori debekatu zen arte⁵⁴.

⁵⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

⁵¹ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 43. dokumentua.

⁵² Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.

⁵³ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

⁵⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 252. karpeta, 21. dokumentua.

2. kapitulua

Jaietan ere laikotasuna presente egon zen. 1931ko urrirako, Loinazko San Martinen irudia elizan kokatzeko ospakizunerako prozesioa egiteko Florencio Axpe erretoreak prozesioa egiteko baimena ere eskatu egin behar izan zuen. Udalak prozesioa egiteko baimena eman zuen, baina hala ere, Udala ez zen agertu elizkizunera⁵⁵. Hala ere, 1933an, Udalak bestelako erabaki bat ere hartu zuen, Errepublikaren bigarren urteurrena Kristoren Nekaldiaren egunarekin (Ostiral Santuarekin) bat zetorrela-eta, ospakizunak egun batez atzeratzea erabaki zuen, “kristauen sentimenduak ez mintze aldera”. Udal guztia bat etorri zen jaiegun hori atzeratzearekin, ez soilik katolikoek sentimenduak ez mintzeko, baizik-eta baita Udal-bilkurak “eskuin muturrari argudiorik ez emateko” ere, “iaz (1932an) (...) ezker muturrekoek probokatutako istiluak aurten errepika ez daitezten”. Udal-bilkuraren arabera, “bi muturrek Errepublikarenganako gorrotoa komuna” zutela esanez bukatu zuen beren adierazpena⁵⁶. Argi zegoen, bada, Udalean nagusi ziren indarrak, bai errepublikanoak zein sozialistak, Errepublikaren bide erreformistatik zihoazela, artean gizartea hurrengo urtean, 1934an, heldu zen polarizazio-mailara iritsi gabe zegoen-eta.

Eta politika laikoaren beste oinarrietako bat osasunaren sekularizazioa izan zen. Izan ere, erietxea, zerbitzu publikoa izan arren, haren kudeatzaileak lekaimeak ziren, eta, antza denez, batzuetan, bertan ostatu hartutakoak, sinesmenaren arabera diskriminatzen edota presionatzen zituzten. 1932ko otsailean, Udalak, Victor Bernedo alkateordearen ekimenez, “ospitalean ostatu hartu duten guztiak berdin tratatzea, euren sinesmenak denak direlakoak ere” eskatu zien⁵⁷. Laikotasun horrek sortu zuen halako ezinegon bat Beasaingo herritarrik erlijiosoenen artean, Maria Karmen Ibarbia Sarriegik kontatzen duen moduan, “Errepublika indarrean jarri zenean, batzuk beldur pixka bat izan zuten alde horretatik, fraideak botako zituztela eta gurutzeak kenduko zituztela-eta”⁵⁸. Hala ere, ikusiko dugunez, oro har, Beasaingo herriak, ondo hartu zuen Errepublikaren etorrera, “izebek kontatu zidatenaren arabera, jai-giroan ospatu zuten”; Maria Rosario Ugarte Sukiak esanaren arabera⁵⁹.

⁵⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 137. karpeta, 07. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 02. dokumentua.

⁵⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

⁵⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 01. dokumentua.

⁵⁸ Felipe Ibarbia Alustiza eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-19an.

⁵⁹ Arantza Ugarte Azkarate eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VIII-5ean.

Giro errepublikanoa asko nabaritu bide zen Beasainen, baita igandeetako dantzaldietan ere eta istiluren bat sortzeraino nabaritu ere. 1931ko ekainean, plazan, Udal-bandako zuzendari Pedro Jose Iguain Telleriaren eta Jose Maria Otaño deitutako gizon oñatiar batek zuzendutako herritar talde baten arteko eztabaida sutua gertatu zen⁶⁰. Izan ere, bigarrenak bultzatutako taldeak, doinu batzuk (Marseillaise edo Frantziako ereserkia, garai hartan errepublikazaleen nazioarteko ereserki gisa ere hartzen zena, eta Gernikako Arbola, euskal ereserki foruzalea) jotzeko eskatu zion Bandako zuzendariari, eta honen erantzuna, legeak, “*ereserki nazionala*” (garai hartan Riegoren Martxa edo Martxa Errepublikanoa) soilik jotzeko esaten zuela eta aldatzeko agintea inork bazuen hura alkatea zela eta ez beste inork erantzun zion. Iguainek Marsellaise eta Gernikako Arbola jotzeari uko egin ziolarik, herritar talde horrek iraindu eta txistukatu egin zuen. Iguainek eta Bandako beste 37 kidek alkateak eta alkateordeak beren jarrera desenkusatzeko eskatu zioten Udalari eta Udalak, uztailaren 2ko Udal-bilkuran Iguainen aldeko mozioa bozkatu zuten⁶¹ eta uztailaren 3an publikoki desenkusa aurkeztu zuten⁶². Bestalde, Udalak, abenduaren 11n, Alcala Zamora Errepublikako lehendakari izendatu behar zuten egunerako, Musika Bandarekin eta abarrekin jaialdi bat antolatu zuen Beasainen, kalejira eta dantzaldiak tarteko⁶³. Udalak eskoletan ere jaiegun izendatu zuen egun hori⁶⁴.

Ikur errepublikanoen presentzia ez zen soilik musikan eta jaialdietan nabaritu, baita eguneroko bizitzan ere, eraikin publikoetan ikusgarri eginez. 1931ko maiatzean (arteaz Beasainen Udal-talderik ez zegoela, izan ere, maiatzaren 5ean Gobernadoreak Iraola Lasa kargugabetu egin baitzuen), Beasaingo eskola publikoetan, Alfontso XIII.a erregearen argazkia kentzeko eta bandera monarkikoa bandera errepublikanoaz ordeztzeko agindua eman zuen⁶⁵. 1932ko otsailean, udaletxetik ikur erlijiosoak kentzeko eta Batzar Aretoan Errepublikaren ezkutua eta Alcala Zamora Errepublikako lehendakariaren argazkia jartzeko erabakia hartu zen⁶⁶. 1933an Udalaren balkoian kolore errepublikanoak jartzeko akordioa hartu zen eta oihalak Ignacio Cortes Ceballos

⁶⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua: uztailaren 2ko Udalaren osoko bilkuraren aktan, Jose Maria Otaño hori “kanpotarra” zela esaten da.

⁶¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 0142. karpeta, 01. dokumentua.

⁶² Beasaingo Udal Artxiboa. 138. karpeta, 40. dokumentua.

⁶³ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.

⁶⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 43. dokumentua.

⁶⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 43. dokumentua. Banderaz gain ezkutua aldatzeko ordena ere iritsi zen.

⁶⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

2. kapitulua

Beasaingo errepublikano famatuari (gero, guda zibilean, Beasaingo Defentsa Batzordeko Buru izango zenari) enkargatu zitzaizkion⁶⁷.

Errepublikako lehendakari Niceto Alcalá-Zamorak berak Beasaina bi bisita egin zituen. Lehenengo bisita 1932ko irailean izan zen, lehendakariak Gipuzkoara egin behar zuen bisita baten barruan, eta irudi bat ere badugu. Argazkian jendetza ikusten da tren-geltokian⁶⁸.

Ez dirudi Alcalá Zamorak denbora handirik egin zuenik Beasainen, baina hori ez zen beasaindarrek euren grina errepublikanoa adierazteko inolako oztopo izan. Harrera horrek, atxikimendu ideologikoa erakusteaz gain, bazuen zeharkako beste helburu bat: Beasaingo Udalak, garai hartan herria bizitzen ari zen egoera ekonomiko zailaz jabetuta, harrera, egoera hori jakinarazteko eta eskaerak luzatzeko (eta Errepublikako lehendakariak, hunkipen bidez-edo, kontuan izateko) baliatu izan zuen. Alcalá-Zamorari emandako testuan, Beasaingo egoera zaila berarengana jotzeko arrazoi gisa aipatu ostean, Beasainen “tradizio liberala” eta “lehen momentutik Errepublikari erakutsitako atxikimendua” zehazten dira, Beasainen izaera langilea (“langile saiatuz osatutako herria”, “langileek aberastutako hiria”) eta “herri honetako langileak erregimen errepublikanoari zailtasunik ez diotela jarri” azpimarratuz. Hori dela eta CAFen fabrikaren zailtasunak deskribatu ostean (“2.000 langileetatik erdiak baino gutxiago geratzen dira”, “langileek lanegun murriztua dute”), “Beasaingo Bagoien Fabrikarentzat lana ekar dezazun” eskatzen diote lehendakariari. Testua, jarduneko alkate Leoncio Ibarbiak eta Zentro Errepublikanoako lehendakari Serapio Urquiak sinatu zuten. Harrera, Udalak Zentro Errepublikanoaren laguntzaz antolatu zuen eta Udal-banda eta guzti egin zitzaion. Udal-taldeak trena hartu zuen Donostiarako bidean, Donostiako harrera-ekitaldian ere parte hartzeko⁶⁹.

Bigarren bisita 1933ko irailaren 20an egin zuen Alcalá Zamorak, lehengoa bezala, trena eta Donostiarako bidean zetorrela. Beasaingo Udalaren dokumentu baten arabera, irailaren 20an, goizeko 10:30ean zen trena Beasaina iristekoa. Udalak beste harrera-ekitaldi bat antolatu zuen, herritarrak, herriko zirkulu politikoak, joko-kasino bietako ordezkariak eta merkatarien elkarteak bertaratzeko gonbidatuz eta, horrez gain, etxeko balkoietan Errepublikaren banderak edo ikurrak jartzeko deia ere eginez. Musika

⁶⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

⁶⁸ Beasaingo Elkarte Sozialistak bere ordezkari Alfredo Goñiren bidez utzitako argazkia.

⁶⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

Banda ere bertan egon zen. Harreraren buru Urteaga alkatea eta Serafin Arana zinegotzia izan ziren. Horrez gain, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak Beasaingo Udala Donostiako harrerara gonbidatu zuen. Hurrengo egunean, ordea, berriz pasatu zen Alcala-Zamora Beasaindik, Oñatirako bidean. Kasu horretan autoz izan zen, Udalaren harrera (musika-bandarekin hura ere) Merkatuaren plazan egin zitzaion. Hala, beraz, bigarren bisita hori, beasaindarrei dagokienez, lehen bisitaren antzekoa izan zen⁷⁰.

2.2.a) Alderdi politiko ezberdinak Beasainen

Errepublikak gizartearen politizazioa ekarri zuen, bai Euskal Herrian zein Espainiako Estatuan, eta guri dagokigunez, nola Gipuzkoan hala Beasainen ere. Bizitza politikoaren susperraldi bat ere gertatu zen. Beasainen lehengo mitin-kopurua handitu egin zen (kontuan izan beharra dago CAFen egoera kaxkarrak asaldura sindikalak handitzea ekarri zuela). Badakigu jakin, azaroaren 20an, Merkatuaren plazan (gaur egun Loinazko San Martinen plazaren azpiko plazan) CNTk mitin bat egin zuela, hizlariak, Donostiako Sindikatu Bakarreko Manuel Perez, Tolosako Sindikatu Bakarreko Galo Diez eta CNTko Emilio Mira izanik. Mitin horretan “ilunpeko zortzi urteen bukaera” eta horrek ekarri zituen jardueren debekuak eta zentroen itxierak amaitzea ospatzeaz gain, gaur egungo arazoak eta “ekonomia burgesaren porrota” eta “egungo sindikalismoaren arazoak” eztabaidatu zituzten. Mitinean, proletalgoaren ekintzabide gisa “zuzeneko ekintza” defendatu zuten⁷¹. Antza denez, Goierrin, anarkisten ordezkariak Ordizian zegoen, irailean mitina egiteko baimen-eskaera Ordiziatik egin baitzen⁷². ELAk ere bere mitina egin zuen 1931ko urriaren 20an. Garai hartan ELAren Beasaingo ordezkaria Higinio Urbina zen⁷³. Beste alde batetik, Maiatzaren 1a publikoki ospatzen hasi zen, Udal-bandaren musika jota egindako dantzaldi eta guzti, ez zen jada “alderdiko” edo “ideologiako” jai bat, baizik eta “Beasaingo jaiak”, izaera publikoa izan zuena⁷⁴.

Lehen kapituluan esan dugun bezala, errepublikanoak aspalditik zeuden antolatuta Beasainen, baina orain herriaren korrante nagusietako bat ziren. Aurreko

⁷⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

⁷¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 525. karpeta, 12. dokumentua.

⁷² Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 30. dokumentua.

⁷³ Beasaingo Udal Artxiboa. 134. karpeta, 14. dokumentua.

⁷⁴ Adibidez, 1934ko maiatzaren 1ean Udal Bandak bai egunez zein gauzez eman zuen kontzertua Errepublikaren plazan (egungo Bideluze plazan). Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua. 1936an ere, Udal-bandak jo zuen, Sindikatu Metalurgikoak hala eskatuta. Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 45. dokumentua

2. kapitulua

kapituluan esan genuen “joera liberaleko” pertsonak, batez ere, elkarte gastronomiko edo aisialdi-elkarteetan biltzen zirela, edo bestela CAFen inguruan (Goitia, Orueta eta abar). Aipatu dugu herriko pentsamolde aurrerakoidun merkatari eta burgesen artean indar handia izan zutela (euren indargunea CAFen zegoen). Alkate beasaindarra bera, Jacinto Urteaga, tradizio horren froga dugu, 1920-1922 artean, monarkia-garaian, koalizio liberal baten barnean alkate izan baitzen. Errepublikanoek, II. Errepublikaren garaian, ezkerrera biratu zuten (sozialistekin lerratzen ziren batez ere), izan ere behin euren helburu politikoa lortuta (Errepublika), euren helburu sozialetara hurbilduko ziren lagunik onenak haiek zirela uste zutelako (gogoratu egin behar da 1934 arte sozialistak erreformista samarrak izan zirela).

Jarraitu aurretik argibide bat eman beharrean gaude; II. Errepublika-garaian eta ondorengo gerra-garaian, “errepublikano” izen edo kontzeptua aldakorra izan zen; 1931-1936ko bake-garaian zuen esanahia eta atxiki zitzaion giza-taldea ez zen izan 1936-1939ko Guda-garaian izan zuen esanahi bera eta atxiki zitzaion giza-taldea ere ez zen berdina izan. Bigarren aro horretan, Gudan zehar, “errepublikanoak” Francoren kontra aritu zirenen aldeari, hots, II. Errepublika-garaian hautestontzietatik atera zen zilegitasunezko agintaritza defendatzearen aldeko denei (errepublikano, sozialista, komunista eta anarkistei) deitu zitzaien. Baina 1931-1936 arteko aldian, “errepublikanoak” korronte politiko jakin bat ziren. Korronte horrek, Estatuaren forma politiko gisa Errepublika erako demokrazia parlamentarioa defendatzen zuen, alderdianitza, Estatuaren eta Elizaren arteko bereizketa zuena, eta klase ezberdinen arteko bizikidetzeta (ez klase-borroka) helburu zuena. Beraz, liberalismo aurrerakoiarekin lotu dezakegun korronte edo sektorea zen.

Errepublikanismoaren profila hirietakoa edo herri handietakoa eta gutxi gora-behera klase ertainetakoa izan zen: negozio txikiak (dendariak, artisauak) zituztenak edo “profesional liberalak” zirenak (abokatuak, medikuak, irakasleak) nabarmentzen ziren. Langileak edo herri txikietako biztanleak mugimendu horretatik at gelditu ziren. 1931n II. Errepublika etortzeak, errepublikanoen finkamendua handitu egin zuen Gipuzkoan, aurretik zeuden 8 zentro errepublikanoei beste 33 gehitu baitzitzaien,

tartean Beasaingoa eta Goierriko beste bost: Ordiziakoa, Lazkaokoa, Idiazabalgoa, Zaldibiakoa eta Ormaiztegiakoa⁷⁵.

Gipuzkoan errepublikanoen lurrunkortasun horrek ere izan zuen zerikusia aukera hegemoniko ez bihurtzeko (jeltzale, sozialista edota karlisten pare behintzat). Hala ere, bertan, Jose Antonio Rodriguez Ranzek azaltzen duen moduan, bazegoen dinamika propio bat, alderdi eta sektoreen arteko ezberdintasunak aparte uztearen aldekoa, eta batasun errepublikanoaren aldekoa. Halako joerak, gehiago gertatu ziren herrietan, non alderdi errepublikano “berezituak” Donostian eta bere eskualdean baino beranduago agertu ziren. Hori azaltzeko faktore bat azpimarra dezakegu: Donostia hiri handia eta tradizio liberal indartsukoa zenez gero, bertan alderdi errepublikanoak sortzea “aukera” izan zitekeen. Herri txikiagoetan ordea, tokiko “Zentro Errepublikanoa” zen errepublikanoen erreferentzia nagusia, herri bakoitzeko errepublikano guztiak (alderdi ezberdinei afiliatuak zein afiliatu gabeak) biltzeko eta kohesionatzeko tresna baitzen. Gipuzkoako errepublikanoen batasunerako joera hori, batez ere 1932 eta 1933 artean egin zen nabarmen, 1933ko azaroan, alderdi errepublikano guztiek hautagaitza bakarra ateratzea lortu baitzuten, sozialistengandik, eskuinarengandik eta jeltzaleengandik bereziaz. Hala ere, Rodriguez Ranzek arabera, Espainiako dinamika errepublikanoak, non alderdi ezberdinen arteko konfrontazioak nagusitu ziren, bateratzearen aldeko dinamika puskatu egin zuen, batez ere eta 1933tik aurrera atomizazio hori handituz joan zen, hain zuzen ere Espainiako alderdi errepublikano ezberdinak “ezkerrean” edo “eskuinean” kokatu zirenean. Ez da kasualitatea, Beasainen alderdi errepublikano berezi propioak 1934an agertu izana, *Izquierda Republicana* (Ezker Errepublikanoa) alderdia⁷⁶, ordezkari gisa Manuel Gorrochategui zuena⁷⁷, eta, maiatzaren 17an, *Unión Republicana* (Batasun Errepublikanoa) hain zuzen⁷⁸.

Beasainen errepublikanoen zatiketa horrek izan zuen ondorioz larriena, Udalean, 1934ko udako Udalen mugimendu autonomistaren harira, Gobernadoreak

⁷⁵ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 129-130. eta 132. or. 33 zentro berri horietatik bost, Ordiziakoa tartean, 1931ko apirileko hauteskundeetan aurretik sortu ziren.

⁷⁶ Ibid., 120. eta 127-129. or.; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 20. dokumentua. *Izquierda Republicana* alderdia Manuel Azañaren jarraitzaileen alderdia zen, 1933an Azañaren aurreko alderdi *Acción Republicana* zentro-ekzkerreko beste alderdi errepublikano txikiago batzuekin bat egin ondoren sortutakoa. 1936an ezkerreko Herri Frontearen parte izango zen.

⁷⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 70. dokumentua.

⁷⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 62. dokumentua. *Unión Republicana* alderdia, Lerrouxek Alderdi Errepublikano Erradikaletik ateratako zenbait pertsonen osatu zuten, Lerrouxek eskuinera emandako biraketarekin ados ez zeudenek. 1936an ezkerreko Herri-frontearen parte izan ziren.

2. kapitulua

Jacinto Urteaga alkatea kargugabetu eta elkartasunez zinegotzi guztiek, errepublikanoek barne, dimititu ondoren, Serafin Arana zinegotzi errepublikanoaren defekzioa izan zen. Izan ere, hark Udalean jarraitu eta Gobernadore Zibilak izendatutako Udal berriaren parte izan baitzen⁷⁹. Dirudienez, errepublikanoen zatiketa hori Beasainen handi samarra izan zen 1935ean eta 1936an “Zentro Errepublikanoaren” izenean bidalitako idazkiak edo antolatutako ekitaldien kopurua izugarri jaitsi zen eta Ezker Errepublikanoa izeneko alderdiak hartu zuen lekukoa, errepublikanoen ekintzak bere izenean agertzen hasiz; besteen artean 1936ko apirilaren 14an ospatu zen Errepublikaren Eguna⁸⁰. Hortik bi irakurketa egin daitezke: alde batetik 1934an bertan Jacinto Urteaga alkate errepublikanoaren kargugabetzeak (gubernuan eskuineko errepublikanoak, Lerrouxen jarraitzaileak zeudela) Beasaingo errepublikanoen artean sortu zuen mina, bertako batasuna puskatzeraino, eta bestetik, Beasaingo errepublikano gehienak ezkerreko jarreretan zeudela (hori erakusten du Urteaga kargugabetzean, beste sei zinegotzi errepublikanoetatik bostek berarekin elkartasunez dimititu izanak, Gobernuaren tesiekin soilik bakarra lerratuta).

Beasaingo *Centro Republicano (Zentro Errepublikanoa)*, 1931ko abuztuan sortu zen⁸¹. Serapio Urquiaren gidaritzapean, 1932ko irailean, Alcala Zamorari eginiko harrera-ekitaldia antolatzearen arduradunetakoa izan zen, Udalarekin batera⁸². Zentro horren eta Udalaren arteko harremanak bistan da oso onak zirela, 1932ko urrian Zentroak Errepublikaren omenezko koadro bat Udalari, Batzar Aretoan jartzeko eskaini baitzion⁸³. Harreman horien barruan, 1934ko otsailean, Beasaingo Udalari, herri-lanak esleitzean, tokiko enpresariei ematea eskatu zuen Zentro Errepublikanoak (hau baliteke Beasaingo errepublikanoen eta batez ere buruen oinarri soziala enpresariak izatean, euren interesak defendatzeko eskatu izatea)⁸⁴. Zentro Errepublikanok, Errepublikaren urteurrenetan bandarekin eta abarrekin jaia antolatu ohi zuen; jai hori 1935ean ere, Udala eskuindarren esku zegoenean ere, egin zen (nahiz eta kasu horretan jaiak Udalaren subentzio txikiagoa izan; Udalak orduko egoera ekonomiko txarra jarri zuen horren arrazoitzat)⁸⁵. Zentro Errepublikanoak, horrez gain, hitzaldiak ere antolatzen

⁷⁹ Gogoratu beharra dago orduko Gobernuburu Alejandro Lerroux, zentro-eskuin errepublikanoko Alderdi Erradikalekoa zela; ezkerreko errepublikanoak Gobernuarekiko oposizioan zeuden bitartean.

⁸⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 10. dokumentua.

⁸¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 164. karpeta, 29. dokumentua.

⁸² Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

⁸³ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

⁸⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 164. karpeta, 29. dokumentua.

⁸⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 60. dokumentua.

zituen, badugu 1932ko otsailaren 12an Irungo Juan Adarraga ekarri zutenaren lekukotzat⁸⁶. Beasainen Zentro Errepublikanoari lotuta, 1933an Gazteria Errepublikanoa ere sortu zen⁸⁷. Zentro Errepublikanoak 1934ko errepresioa jasan zuen eta jakin badakigu, adibidez, Ezker Errepublikanoa deitu alderdiak 1934-1936 arteko epean, eskuineko Udala boterean zegoela, bere batzarrak egiteko baimena zuela baina plazan egiteko, ez Zentroan bertan egiteko⁸⁸. 1936an, Herri-frontearen garaipenaren ostean ezkerreko erakundeen kontrako errepresioa desagertu zenean, berriz ere indartsu agertu ziren erreplikanoak: 1936ko apirilean Elkarte Sozialistarekin batera hezkuntzarako laikotasunaren aldeko mozio bat aurkeztu zioten Udalari, eskola erlijiosoei subentzioa kentzeko eskatuz⁸⁹. 1936ko Errepublikaren eguna ere Ezker Errepublikanoa alderdiak antolatu zuen, Udal-bandaren laguntzarekin⁹⁰. Beasaingo Ezker Errepublikanoaren lehendakaria, 1936ko apirilean, behintzat, Ignacio Cortes Ceballos merkataria zen, 1936ko Guda hasterakoan Beasaingo Defentsa Batzordeko buru izan zena, eta idazkaria Alfredo Najera⁹¹.

EAJ ere herrian indartzen hasi zen. Diktaduraren ostean, EAJk oso susperraldi handia izan zuen Euskal Herrian, eta, guri lan honetan interesatzen zaigunez, Gipuzkoan. 1931ko ekainerako Gipuzkoako 48 herritan finkatua zegoen (Beasainen, Ordizian, Lazkaon, Ataunen, Itsasondon, Legorretan, Ormaiztegin... eta Goierriko beste hainbat herritan), eta urte bukaerarako beste 15etara zabaldu zen. 1935erako, Gipuzkoako 66 herritan zegoen EAJ zabaldua⁹². EAJren arrakasta hori azaltzeko, Primo de Riveraren Diktadura osteko bat-bateko susperraldiaz gain, beste bi faktore azaldu behar ditugu. Alde batetik, 1930eko azaroaren 16an, Bergaran, EAJren bi alde historikoak, *Comuni3n* moderatuagoa eta *Aberrri* erradikalagoa, batu egin ziren, alderdia berriro bateratuz. Diktadura erortzeak eta alderdia batzeak, garrantzi handia izan zuten abertzaleen moralarentzat. Beste alde batetik, EAJ, alde batetik ordena kontserbadore bati lotua eta handik abiatutako mezua, baina bestetik eskuin tradizionalak baino mezu moderno eta sozialagoa emateko gai izan zen, batez ere 1932 eta 1933 urteetan. 1931ko apirilko hauteskundeetan eskuineko hautagaitzei botoa eman zien “katoliko ez

⁸⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 164. karpeta, 29. dokumentua.

⁸⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 164. karpeta, 29. dokumentua.

⁸⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 113. karpeta, 11. dokumentua.

⁸⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 14. dokumentua.

⁹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 10. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 45. dokumentua

⁹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 14. dokumentua.

⁹² RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 81-82. or.

2. kapitulua

militanteak” erakartzeko gai izan zen EAJ, hau da, politizatu gabeko gipuzkoar populazio nekazaria, joera kontserbadoreak zituen eta Monarkia erori ondoren noraezean bezala zegoena. Asmo horretan monarkikoen gerturagokoak ziren karlistei aurrea hartuz⁹³. Batez ere Euskal Estatutuaren inguruko propaganda oso tresna egokia izan zen EAJrentzat, hauteslego “pasibo” edo “apolitiko” bereganatu ahal izateko. EAJren arrakasta bere osaketan ikusten da Gipuzkoan, bai langileen, zein nekazarien, zein erdi-mailako pertsonen artean, herri handi zein txikietan babesa izan zuelako (bere hurbileko bi sindikatuek, langileen ELAk eta nekazarien ENBk, klase herrikoien artean oinarri sozial zabala bermatu zioten Alderdi Jeltzaleari).

Beasainen EAJ Primo de Riveraren osteko diktaduran berrantolatzeke lehen bilera, Alfontso Ibaibarriagaren kontakizuna jarraituz, 1930eko azaroaren 30ean egin zen, *Cafe Norte* izeneko tabernan eta bertan, 17-18 kide bildu ziren⁹⁴. Hala ere, lehenengo Beasaingo Uri Buru Batzarra eratzeko 1932 urtera arte itxaron behar izan zen (ikusiko dugun bezala, batzokia EAJren alderdi-egitura baino lehenago eratu zen). Ibaibarriagaren arabera, Bernabe Aierdi izan zen lehenengo burua, 1933 eta 1934 urteetan Antonio Sarasola, eta 1935ean eta 1936an bera, Alfontso Ibaibarriaga. Guda aurreko azken UBBren zuzendaritza, Ibaibarriagaz aparte, Cesareo Ugarte idazkariak eta Constantino Maiz eta Pedro Ayesta bokalek osatzen zuten⁹⁵.

1931ko apirilaren 26an batzokia berriro ireki zen Beasainen, kasu horretan Kale Berriaren 3. zenbakian kokatuta⁹⁶, Ibaibarriagaren familiakoak ziren Usabiagatarren etxean, “Goierriko Alkartasuna” egin arte⁹⁷. Hala ere, dirudienez, Beasaingo EAJk eta batzokiaren elkarteak berak, Errepublikari sortu aurretik jada halako jarduera bat bazuten, 1931ko urtarrilaren 10ean, batzar publiko baimendu bat egin baitzuten, eta batzokiaren araudia otsailean bidali zioten Udalari (dokumentuen arabera, batzokiko lehendakaria Constantino Maiz zen⁹⁸, baina lehen esan bezala, batzokia eta tokiko EAJ juridikoki bi errealitate ezberdin ziren; EAJren tokiko lehendakaria (Beasain Buru Batzarreko Burua)

⁹³ Ibid., 81. eta 97. or.

⁹⁴ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁹⁵ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁹⁶ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 56. or.

⁹⁷ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-IX-15ean.

⁹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 134. karpeta, 14. dokumentua.

Alfonso Ibaibarriaga baitzen⁹⁹). Alfontso Ibaibarriagaren familiaren etxean 1931ko apirilean batzokia zabaldu aurretik, badirudi jeltzaleek Eusebio Aramburu Otamendiren zapatagintza-tailerraren atzeko partea erabiltzen zutela gauzak gordetzeko edo elkartzeko¹⁰⁰. Ekainaren 21ean, mitin abertzale bat izan zen Beasainen, eta abenduan, hitzaldiak eman ziren batzokian. 1932an Arriaranen mitin-jaialdi bat egin zuten¹⁰¹, eta hitzaldiak ere antolatu ziren¹⁰². Ibaibarriagaren arabera, 1931n batzokiko lehendakaria Bernabe Aierdi izan zen, 1932an Constantino Maizek ordeztu zuen, 1933an Nikolas Sarriegi jarri zen, denbora laburrerako ordea, handik gutxira hil baitzen, eta beraz, Ibaibarriagak hartu zuen kargua 1933 eta 1934rako, 1935ean Domingo Etxeberria jarri zuten karguan, eta 1936an Cecilio Sarriegui¹⁰³. Hala ere, dokumentuekin ez dator bat Ibaibarriagaren kontakizuna, lerro batzuk gorago aipatutako dokumentuan 1931n batzokiko lehendakaria Constantino Maiz zela aipatzen baitzuten¹⁰⁴.

Sindikalismo jeltzalea dela eta, ELAren pisua nabaria bilakatu zen Beasainen¹⁰⁵. Aurretik esan bezala, EAJk lotura estua zuen ELA sindikatuarekin. ELA, ikusiko dugun bezala, Gipuzkoako sindikaturik garrantzitsuena bihurtu zen, batez ere, 1933tik aurrera. EAJren eta ELAren lotura hori garbi ikusten da 1934ko urtarrileko dokumentu batean ELAko ordezkaria EAJko militante ezaguna zen Constantino Maiz zela aipatzen denean¹⁰⁶. Hala ere, ELAren bulegoa ez zegoen batzokian, 1935eko urriko dokumenturen batek Pablo Iglesias kaleko 3. zenbakian aipatzen baitu ELAren egoitza. Data horretan Beasaingo ELAren lehendakari Jose Lozares Escolar zen, lehendakariorde Cecilio Sarriegui Aldanondo, idazkari Jesus Ibarbia Unzueta, diruzain Jose Soroa San Juan, eta zuzendaritza-batzako kide soil Juan Bautista Aldareguia Zubeldia, Francisco Zabaleta Guerrico, Antonio Zubillaga Azpiaz, Juan Jose Ayesta

⁹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 066. karpeta, 06. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 066. karpeta, 07. dokumentua.

¹⁰⁰ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarriketa. Donostia, 2015-IX-15.

¹⁰¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 134. karpeta, 14. dokumentua eta Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

¹⁰² Beasaingo Udal Artxiboa. 134. karpeta, 14. dokumentua.

¹⁰³ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarriketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

¹⁰⁴ Dokumentu horrek halaber aipatzen du 1931n Alfontso Ibaibarriaga zela Beasaingo Buru Batzarreko lehendakaria. Hala ere, Ibaibarriagaren arabera, Beasaingo Buru Batzarra ez zen 1932. urtera arte sortu eta orduan Bernabe Aierdi jarri zuten lehendakari (Ibaibarriagari jarraiki, bera ez zen Beasaingo EAJko lehendakari izan 1935. urtera arte).

¹⁰⁵ 1933an *Agrupación de Trabajadores Vascos de Oficios Varios* (Hainbat Lanbidetako Euskal Langileen Elkarte).

¹⁰⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

2. kapitulua

Mugica eta Jose Maiza Munduate ziren¹⁰⁷. ELAk, II. Errepublikaren garaian, Beasainen hazkunde handia izan zuen, 1931ko 200 bazkiderekin hasi zen, eta 1932rako jada 800 bazkide bazituen Dario Anselen arabera, hala ere, 1934an 150 kidera jaitsi zen afiliazioa (CAFen krisiarengatik), eta 1935-1936 biurtekoan, 250 kidetara igo zen¹⁰⁸.

EAJk izan zuen susperraldiaren barruan kokatu behar ditugu alderdiaren inguruko beste hainbat elkarte. Horietako bat, Emakume Abertzale Batza izan zen. Beasaingo EABk 1931ko azaroan entregatu zituen Gipuzkoako Gobernu Zibilean bere dokumentuak elkarte gisa sortzeko¹⁰⁹, hala ere, Miren Barandiaranen arabera, 1931ko urriaren 25ean sortu zen praktikoki. Barandiaranen arabera, EABren lehen zuzendaritza-batzordeko kideak Sabina Aranburu (lehendakaria), Jaiotza Sarasola (lehendakariordea), Felisa Urteaga (diruzaina), Martina Sarriegi, Pilar Gorrotxategi (bokalak) eta Paula Lasa (Lazkaoko ordezkaria) ziren. Beasaingo EABk, 1932ko maiatzean bere lokal propioa hartu zuen (gaurko J. M. Iturriotz kalean, orduko Pablo Iglesias kalean), ordura arte batzokian biltzen baitziren. Barandiaranen arabera, 1935ean Gipuzkoako EAB antolatu zen Zumarragan eta Beasaingo ordezkariak ere han izan zen¹¹⁰.

Beasaingo EAJren sarea osatu zuen beste talde bat, Mendigoizale-taldea izan zen eta horiek ere, Beasainen talde gisa Errepublika garaian sortu ziren, nahiz eta aurretik Beasainen mendigoizale abertzaleak bazeuden (Gipuzkoan, mendigoizale-batza 1921ean sortu, debekatuta egon eta ostera 1931n birsortu zen). Mendigoizaleek, mendirako irteerak propaganda politikoa egiteko (mitinak, erromeriak, ikurrinak jartzea eta abar) aprobetxatzen zituzten. Horrez gain, mendigoizaleen irteerek, abertzaleen arteko harremanak estutzeko balio izaten zuten. Aipatu beharra dago halaber, Mendigoizaleen erakundeetan, Beasainen behintzat, gazteak zirela nagusi (horrek azal dezake, Beasainen Errepublika garaian Euzko Gaztedi taldea antolatu ez izana). Mendigoizaleen lehendakari Alfontso Ibaibarriaga zen¹¹¹.

¹⁰⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 57. dokumentua. Hala ere, Maria Pilar Lozares Sarasqueta, Jose Maria Lozaresen alabak beste bertsio bat ematen digu, bere aita ELAko lehendakari 1936an, guda hasi baino pixka bat lehentxeago aukeratua izan zela esan digu. (Maria Pilar Lozares Sarasquetari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-3an). Agian bigarren data hori Lozares karguan berretsi zuteneko data izan daiteke.

¹⁰⁸ ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera*. Txalaparta. Tafalla, 2001, 97. or.

¹⁰⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 30. dokumentua.

¹¹⁰ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 57-58. or.

¹¹¹ Ibid., 59. or.; eta Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

1933ko maiatzaren 24an, Euzko Nekazarien Bazkunaren (ENB) Beasaingo adarra sortu zen¹¹² eta elkarte horrek nekazari abertzaleen interesak defendatzen zituen. Talde horrek Gipuzkoan indar handia hartu zuen eta Goierrin ere bai eta ezin dugu ahanzi bere sortzaileetako, Gabino Murua, gabiriarra izan zela. Baserritarrei (garai hartan joera kontserbadoreak zituen sektorea zenik ezin dugu ahanzi) aukera abertzale bat eman zieten, sektore hori ohiko kontserbadoreen esku gera ez zedin. ENBren borroketako bat, baserritar maizterrak (gogora ezazue lehen kapituluan esandakoa, baserritar asko ez ziren euren baserriaren jabe, baizik eta baserriak lurjabe handienak ziren askotan) etxegabetze-prozesuetatik defendatzea izan zen (Beasainen halako arazoa ez zen hainbeste nabaritu, baina bai Goierrin, Lazkaon adibidez). 1933ko azaroan, Beasaingo etxean egindako sagardoaren gaineko zerga-salbuespen osoa eskatu zuten, “Aldundiak egin bezala”, baina Beasaingo Udalak ez zuen hori onartu honako hau adierazita: “Aldundiak ez bezala, guk ez dugu beste diru-iturririk”¹¹³.

Abertzaleen artean, aisialdi taldeak ere antolatu ziren. Hala sortu ziren dantzari-taldeak, musika edo abesbatza taldeak, pilota taldeak edo antzerki taldeak antolatu ziren. Batzokian euskara-klaseak ere eman ziren garai hartan. Beraz, garaiko jardueraz jeltzaleei errebaso bat egin ostean, atera dezakegun ondorioa da, jeltzaleak ez zirela (edo euren asmoetan ez zegoela) alderdi soil bat, “komunitate soziopolitiko” gisa antolatu izan zirela, non politika eta ideologia hedatzeko modu gisa aisialdia ere erabiltzen zuten, modu horretan, pertsona batek bere zaletasunak edo ohiko jarduerak alderdiaren inguruan burutu zitzaizkela. Horrek guztiak egin zuen, Beasaingo jeltzaletasunaren ikerlari Miren Barandiaran Contrerasen arabera, “Errepublikaren aroa, politikoki abertzaletasunarentzat arorik aberatsenetako bat” izatea¹¹⁴.

Militantziaren igoerari aurre egiteko EAJ areto berri baten bila hasi zen. Egia esan, eta hauteskunde emaitzek hala islatzen dute, Gipuzkoan abertzaletasunaren goraldia 1932 eta 1933 urteen artean gertatu zen, Autonomia Estatutuaren kanpainak bizitza politikoaren zentraltasuna hartu zuenean (EAJk trebeki lortu zuen Euskal Herriko gizartearen zati handi baten aldarrikapena zen autonomia, Alderdiarekin identifikatzea, bere burua “Estatutuaren Alderdi” gisa identifikatzea alegia). Aipatu izan dugu, 1931n, batzokia Kale Berriko 3. zenbakian zegoela. Hala ere, EAJren asmo

¹¹² Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 37. dokumentua.

¹¹³ Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 164. karpeta, 19. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 064. karpeta, 21. dokumentua.

¹¹⁴ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 60. eta 63-69. or.

2. kapitulua

zaharra eraikin oso bat berarentzat egitea zen. Miren Barandiaranen arabera, asmo horiek 1934ko batzar batean onartu ziren, Bernabe Aierdi batzokiko lehendakari zela (eta batzokiko zuzendaritzako beste kide bat, besteak beste, Victoriano Oñatibia zen, 1936ko Gudan fusilatua izan zena. Hala ere, Alfontso Ibaibarriagak 1934an batzokiko lehendakaria bera, Ibaibarriaga, zela esaten du, eta Bernabe Aierdi berriz “obraren promotorea” izan zela)¹¹⁵. Kale Nagusiaren 19 eta 21 zenbakien artean zegoen orubea izan zen eraikina egiteko aukeratutako tokia, eta eraikina, 1934an hasi ziren egiten, hain zuzen ere, ekainaren 6ko Udal-bilkuran eman zen lanak hasteko baimena. Baimen hori, hurrengo egunean, ekainaren 7an lortu zuten¹¹⁶, eta lehen harria ekainaren 11n jarri zuten¹¹⁷. Elkarte kooperatibo bat (herri-akzioen bidez egin zena) ere sortu zuten, Goierriko Alkartasuna izenarekin, eraikuntza-lan hori eta batzokia bera finantzatzeko eta kudeatzeko. Goierriko Alkartasunak abuztuaren 14an aurkeztu zituen lanen planoak Udalean, baina data horretan Udala behin-behineko egoeran zegoen alkatea atxilotua izan baitzen, beraz baimena ematea atzeratu egin zen, irailaren amaiera arte. Goierriko Alkartasunaren batzokian dendak irekitzeko ere gai izan ziren. 1935eko uztailean Rosa Ortega Carrillok fruta-denda bat zabaldu zuen eraikinaren beheko oinean¹¹⁸, Pedro Garin Mugicak jostun-denda bat jarri zuen urte horretako maiatzean¹¹⁹ eta Victoria Echeverriak beste fruta-denda bat 1936ko martxoan¹²⁰.

EAJ-k errepublika garaian susperraldi handia izan bazuen ere, kontuan izan behar da Beasainen bertan ez zela alderdi nagusi bihurtu, normalean Beasainen hauteskundeak irabazten ez zituen alderdia zen. 1931ko Udal-hauteskundeetan ez zuen zinegotzirik lortu. Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiaga, Alfontso Ibaibarriaga jeltzale historikoaren semeak kontatu digun moduan, “Beasainen errepublikanoak eta sozialistak ziren nagusi. Jeltzaleei indarra hartzea kosta egin zitzaien”¹²¹. Hala ere, pixkanaka indarra hartuz joan ziren, batez ere eskuinaren bizkar, Alfontso Ibaibarriagak

¹¹⁵ Ibid. 89-90. or.; eta Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

¹¹⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

¹¹⁷ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

¹¹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 58. dokumentua.

¹¹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 59. dokumentua.

¹²⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

¹²¹ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-IX-15ean.

esan zuen “karlisten ume denak gurekin ibiltzen hasi ziren”. Ikusiko dugun fenomeno hori, Gipuzkoan nahiko arrunt bilakatu zen¹²².

Alderdi hau klasearteko samarra zen eta, ikusi dugun bezala, langileak (ELA sindikatuan biltzen zirenak zein goi-mailako jendea zegoen bilduta bertan. Adibidez, Alfontso Ibaibarriaga Beasaingo EAJko zuzendari ezaguna, langilea izan zen, Bernedo fabrikakoa. Bere seme-alabek esan zigutenez “beste sindikalistekin harreman ona zuen, sozialistekin, anarkistekin..., batez ere anarkistekin, oso jende irakurria zen eta, eurekin asko ikasi zuela zioen”¹²³. Beste bat, gudari ibilitako Jose Luis Telleria izan zen, CAFen 13 urterekin lanean sartu zena¹²⁴. Edota baita Juan Jose Ayesta Mugica ere, CAFeko langilea zena¹²⁵. Beste batzuk ordea, “enplegatuak” ziren, adibidez, Banco Guipuzcoanoko kobratzaile zen Maximino Aranburu Otamendi¹²⁶. Baina jende “prestigiduna” ere izan zen EAJn, adibidez medikuak: Cesareo Ugarte bera, “gure etxean jeltzaleak ziren” Cesareo Ugarteren alaba Arantza Ugarte Azkaratek kontatu zigun moduan¹²⁷. Baita ere enpresari txikiak, adibidez, gerora fusilatua izan zen Victoriano Oñatibia, tailer txiki baten jabe zena¹²⁸, edo Eusebio Aranburu Otamendi, zapatagintzako tailerra eta denda zituena¹²⁹.

Gipuzkoan pisu handia izan zuen beste alderdi bat, Monarkiaren garaian alderdi txiki samarra izan arren, Alderdi Sozialista izan zen. Aurreko kapituluan azaldu dugu Alderdi Sozialistaren ideologia, beraz hemen ez dugu erreplikatu; laburbilduz langile-interesak ikuspuntu marxistatik defendatzen zituen alderdia zela esan genezake; horrek, alderdi barruan alde erreformista edo moderatuaren (alderdi errepublikanoekin aliatzearen aldekoen eta II. Errepublika aukera gisa ikusten zutenen) eta alde erradikalagoaren (Alderdi Komunistarekin aliatzearen aldekoen eta II. Errepublika burgesa ahalik eta azkarren gaitzetearen aldekoen) artean tentsioak eragin zituen,

¹²² Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

¹²³ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-IX-15ean.

¹²⁴ Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-25ean.

¹²⁵ Eleuterio Ayestari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-11n.

¹²⁶ Milagros Aranburu Mugicari egindako elkarrizketa. 2014-VIII-5ean.

¹²⁷ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VIII-5ean.

¹²⁸ Milagros Aranburu Mugicari egindako elkarrizketa. 2014-VIII-5ean.

¹²⁹ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-IX-15ean. Garai batean, Eusebio Aranbururen zapatagintzako tailerra gauzak gordetzeko ere erabili zuten.

2. kapitulua

alderdiaren ideologia marxistaren interpretazio taktikoaren bi ikuspegi hauen arteko tentsioak kronikoak izan ziren II. Errepublikaren aldian.

Euskal Herrian, gehienbat, alde moderatuaren aldeko jarrera ikusiko dugu; hori hainbat faktorerengatik izan zen: bai euskal buruzagi sozialistak ildo horretakoak zirelako (ildo horren burua, Indalecio Prieto, bilbotarra zen, baina Enrique De Francisco tolosarra ere aipatu beharra dago, azken horren eragina erabakigarria izan baitzen lehen kapituluan aipatu dugun sozialisten eta komunisten arteko banaketan, Gipuzkoako kide gehienak sozialistekin gelditzeko), Euskal Herrian (batez ere Bizkaian) Alderdi Komunistak indar handia zuelako eta horrek PSOE haiengandik banatzera bultzatzen zuelako, eta azkenik, alde “erradikalaren” buru zen Largo Caballerorekiko nolabaiteko mesfidantza zegoelako. Largo Caballero, Errepublikaren azken urteetan “sozialismo iraultzailearen” ordezkari gisa nabarmendu bazen ere, Primo de Riveraren garaian Diktadurarekin kolaboratu zuen (Laneko ministro-orde izatera iritsi zen) eta trukean PSOErantzat eta UGTrentzat abantaila politikoak lortu zituen. 1928ko ekainean PSOEk egindako Biltzar Nagusian, PSOEn “*Federación Vasco-Navarra*” (Hego Euskal Herriko Federazioa) izan zen Alderdiaren kudeaketa (hau da, Largo Caballerorena) kritikatu zuen federazio bakarra¹³⁰.

Alderdi Sozialista, garai horretako Gipuzkoako hiru alderdi handienetako bat (jeltzaleekin eta karlistekin batera) izateraino hazi zen, baina hala ere, bere hazkundera, herri industrialetara mugatuta, pixka bat moteldu egin zen. Goierrin adibidez, Beasainen eta Ordizian soilik izan zuen presentzia¹³¹, baina beste alde batetik Gipuzkoako herri handietan (Errenteria, Eibar, Arrasate, Irun, Hernani, Pasaia) puntako alderdia izan zen, adibidez, gure herrian, Beasainen, alderdi nagusia izan zen. Oro har, Gipuzkoako sozialistak, alderdi handia baina ez hegemonikoa izanagatik errepublikanoekin bat egiteko joera izan zuten, ezkerreko bi indarren artean jeltzaleei edota eskuinari nagusigoa lehiatzeko asmoz. PSOEn arrakastan, garbi dago UGTren presentziak paper garrantzitsua jokatu zuela, UGT Gipuzkoako langile-sindikaturik indartsuena baitzen 1931 urtean. Esan beharra dago UGTk PSOEk baino afiliatu gehiago zituela, baina hori ez da harritzekoa, UGT sindikatua izaki eta langileen tokiko eta berehalako onurengatik borrokatzean, helburu “abstraktuagoak” zituen alderdi politikoak baino erakargarritasun

¹³⁰ EGUIGUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 224-225., 227-228. eta 232. or.

¹³¹ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 134. or.

handiagoa zuelako. Bestalde II. Errepublika ezartzea bezalako garaipen politiko batek (gogoratu errepublikanoek eta sozialistek koalizioan irabazitako hauteskunde batzuen emaitza izan zela) izen handia eman zien sozialistei eta baita ideia sozialistak gauzatzeko aukera posible zenaren itxaropena ere langile askori. Horren adibide dugu Espainian PSOEk izan zuen afiliazio-hazkundera, 1930ean 18.207 afiliatu soilik zituen eta 1933an 81.777 afiliatu. Euskal Herriko eta Gipuzkoako sozialismoak goranzko olatu horren onurak ere jaso zituzten: Gipuzkoan 1930ean 200 bat afiliatu izatetik 1931 bukaeran 550 baino gehiago izatera pasatu zen, eta Jose Antonio Rodriguez Ranz historiagilearen aburuz, 1934an eta 1936an ere, gorako joera izan zuen¹³². Euskal Herrian, II. Errepublikaren hasieran 2.000 kide eta 24 elkarte zituen Alderdi Sozialistak, hala ere, Egigurenen arabera, “nahiz eta II. Errepublikan euskal sozialismoak PSOEren hazkundera parte hartu zuen”, sozialisten kopurua Euskal Herrian beste tokietan baino gutxiago hazi zenez “PSOEren barruan euskal sozialismoaren pisua txikitu egin zen”¹³³.

Beasainen bazen Elkarte Sozialista ere, aurreko kapituluan azaldu denaren arabera. Pablo Iglesias kaleko (gaur egungo Jose Migel Iturriotz) 12. zenbakian, Norte taberna zegoen eraikinean (gaur egun “Amore” pizza eta kebaben negozioa dagoen eraikinean) zegoen Elkarte Sozialistaren egoitza¹³⁴. 1932ko uztailaren 27ko dokumentu baten arabera, Beasaingo Elkarte Sozialistaren zuzendaritzaren kide Julian Blanco lehendakaria, Angel Gomez de las Heras lehendakariordea, Anastasio Menaza idazkaria, Liborio Macero diruzaina eta Miguel Garbayo, Vicente Sanchez, Alfonso Olave eta Maximo Garcia batzarkideak izan ziren¹³⁵. 1934ko uztailaren 8an, zuzendaritza berria aukeratu zuen Elkarte Sozialistak, lehendakari Antonio Menaza Bermudez jarriz (beraz bera izan zen sozialisten ordezkaria 1934ko gertakariak gertatu zirenean)¹³⁶, lehendakariorde Agapito Noriega, idazkari Valentin Gonzalez, idazkariorde Juan Lopez, kontuen ikuskatzaile Laureano Rodriguez eta Enrique Sanchez eta batzordekide Aurelio Garcia eta Manuel Sanzo¹³⁷. Hala ere, badago 1936ko apiril-

¹³² Ibid., 144-145. or.

¹³³ EGUIGUREN IMAZ, Jesus: op. cit., 224-245. or.

¹³⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 27. dokumentua. Angel Lamata Villahozek esan digunez “egoitza Politena taberna egon zenaren gainean zegoen”. Hala ere, Politena taberna ez zegoen Norte taberna zegoen tokian, haren parean baizik, gaur egun Basakana taberna dagoen tokian. Litekeena da Angel Lamataren oroitzapenak baita bestarekin trukatu izana. Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahozzi egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

¹³⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

¹³⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

¹³⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 171. karpeta, 26. dokumentua.

2. kapitulua

maiatzetako dokumentu bat, Beasaingo Elkarte Sozialistako lehendakari gisa Julian Blancok sinatuta azaltzen dena¹³⁸. Beste kide batzuk ere agertu zaizkigu, adibidez, Angel Lamata Villahozen arabera, “nire aita, Francisco Lamata, sozialista zen, Beasainen mugimendu sozialista zuzentzen zutenetarikoa bat¹³⁹”. Edo baita ere Rafael eta Valerio Polo Carrascal, gero gudari ibili ziren anaiak (Valerio Kantabrian fusilatua izan zen): “gure familian sozialistak, UGTkoak ziren” dioskue Rafael Poloren alaba Alicia Polok eta honen seme Mikel Apaolazak¹⁴⁰. Baita ere CAFen lan egiten zuen Angel Ruiz de Apodaca, gudaria halaber¹⁴¹.

Errepublika garaian Elkarte Sozialistak bere kabuz (hau da, UGTren lan sindikala alde batera utzita) egindako jardueraren lehenengo aztarnak 1932. urtean ditugu. Jakin badakigu urte hartan, Beasainen batzar batzuk egin zituztela, uztailaren 27an eta abenduaren 10ean. Bi batzar horiek Gobernadore Zibilaren baimena izan zuten. Horrez gain, euren lokaletan hitzaldiak eta abar egiten zituzten¹⁴². Lehen kapituluan esan bezala, sozialismoa langile-mugimenduari lotutako alderdi bat izan zen, batez ere UGT sindikatuari lotutakoa. Sindikatu hori Beasainen 1917tik antolatua bazegoen, ere, Errepublika garaian hazi zen, sekzio berriak sortuz, adibidez, 1934an, Altzari Langileen Sindikatua sortu zen Beasainen¹⁴³ (gogoratu behar dugu Beasainen altzari-fabrikak bazeudela, Eskisabelena esaterako). UGTn garrantzitsuena zen sektorearen, Sindikatu Metalurgikoaren, tokiko besoaren ordezkariak, Beasainen Gumersindo Capa Mendizabal lehendakaria (ordiziarra bera) eta Antonio San Martin San Vicente idazkaria izan ziren¹⁴⁴. Hala ere, 1935eko urriaren 23ko beste dokumentu baten arabera, berriro aldatu zen zuzendaritza. Dokumentu horren arabera, Metalurgiako Sindikatuak 350 bazkide zituen. Bertako lehendakari Julian Blanco zen, idazkari Antonio San Martin, idazkariorde Tiburcio Lopez, diruzain Jose Miralles, kontu-arduradun Benigno Gomez, eta zuzendaritza-batzordeko kide soil Ambrosio San Vicente eta Nicolas Palacios¹⁴⁵. Ikusten dugunez, UGT sindikatuko lehendakari izan aurretik, Julian Blanco bera Elkarte Sozialistako lehendakari izan zen, beraz, argi eta garbi dago Alderdi

¹³⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 14. dokumentua.

¹³⁹ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoz eginiko elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

¹⁴⁰ Alicia Polori eta Mikel Apaolazari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-30ean. Bi anaiek oinarri gisa egiten zuten lan, Ezkiaga auzoan.

¹⁴¹ Pako Ruiz de Apodakari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-18an.

¹⁴² Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

¹⁴³ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

¹⁴⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 27. dokumentua.

¹⁴⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 57. dokumentua.

Sozialistaren eta UGTren arteko lotura¹⁴⁶. 1936an, ordea, Tiburcio Lopez Rodriguez agertzen zaigu Sindikatuko lehendakari gisa¹⁴⁷.

Elkarte Sozialista, alderdi barruko edota ideologiaren arloko ekintzak egiteaz gain, herriko aferez ere kezkatzen zen eta Udalean zinegotzi sozialistak oso aktiboak izan ziren, euren jardun-mailagatik nabarmenduz. Arreta-guneetako bat, hezkuntza eta zehazki eskola publikoen funtzionamendua zen. Eskola publikoek ikastoki duinak izateaz ere kezkatzen zen, 1932ko ekainaren 27ko idatziak frogatzen duen legez. Idatzi horretan eskola publikoetan ematen zen pilaketa salatu zuten¹⁴⁸. Hezkuntza publikotik at, hezkuntza pribatuan zegoen egoeraz ere iritzia plazaratzen zuten beasaindar sozialistek: 1932ko martxoan eskola kristauei subentzioa kentzea eskatu zuten, “han, irakasleek umeen paparretatik Errepublikaren ikurrak bortizki erausten dituzte-eta”¹⁴⁹. Afera honi buruz esan, 1936ko apirilean, itzuli zirela Sozialistak Udalera Ezker Errepublikanoarekin batera eta beste mozio bat aurkeztu zuten, eskola erlijiosoek subentzioak kentzea eskatuz. Sozialistek eta errepublikanoek salatzen zuten, Beasaingo Udalaren 1936ko aurrekontuetan (1935. urtearen bukaeran egin ziren, artean alkate Manuel Perez eskuindarra zela), “bestelakoak” atalean, eskola erlijiosoak subentzionatzeko dirua jarrita zegoen; lekaimeen haur-eskola erlijioso bat egotea (Udalarena ere egonda) eta Udal-lokaletan egonik “erlijio-ekitaldiak” egitea salatu zuten (Udalarena zen eraikinean zegoen lekaimeen haur-eskolan lekaimeek ematen zizkieten eskolak umei). Aldi berean, Garinen auzo-eskola berria hainbat arinen egitea eskatu zuten “Garingo umeak ezin baitira eskolara joan”¹⁵⁰. Ekainean antzeko kexu bat azaldu zuten Elkarte Sozialistak, gainera kasu honetan “eskola berriak” (Martina Maiz kalekoak) oso irismen txarra zuela salatuz eta arazo hori konpontzea eskatuz¹⁵¹. Udalak, 1936ko maiatzaren 2an, Victor Bernedo sozialista alkate zela, halako eskakizunei baiezkua eman zien, Udal-eskoletan erlijiosoek haur-eskolako umei klaseak ematea debekatuz, Garinen eskola bat egiteko konpromisoa hartuz eta hurrengo urterako aurrekontuetan (Udal horrek ez zuen aurrekontu horiek egiterik izan, Guda sortu zutelako) eskola erlijiosoentzako zeharkako kontusailik ez jartzeko konpromisoa ere

¹⁴⁶ Blanco 1936ko Gudan hil zen, Rusia batailoiarekin borrokan ari zela.

¹⁴⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 45. dokumentua.

¹⁴⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

¹⁴⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

¹⁵⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 14. dokumentua.

¹⁵¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 08. dokumentua.

2. kapitulua

hartuz¹⁵². Mozio hori gehiengo zabalez onartua izan zen (Restituto Urteagak soilik bozkatu zuen aurka). Hala ere, kontuan izan behar dugu, Udal-talde ezkertiar horrek 1932an, eskola erlijiosoei subentzioa kentzeko proposamenari uko egin ziola eta subentzioa “murriztu” soilik egin zietela. Joera-aldaketa hori bi arrazoirengatik uler daiteke: 1933an Kongregazio Katolikoei hezkuntzan aritzea debekatzen zien legea atera izana (Beasaingo eskola erlijiosoak “eskola pribatu” arrunt bihurtu ziren ofizialki eta irakasleek, eskolak emateko, fraide-jantzia edo lekaime-jantzia kendu egin behar izan zuten), eta bestetik, 1936ko giro politikoaren polarizazioa.

Elkarte Sozialistaren beste kezka bat langabeen egoera izan zen eta hainbat proposamen aurkeztu zituzten langabetuen egoera hobetzeko. Norabide horretan, 1932an, Loinatz jaietarako jarri beharreko Udal-aurrekontua ezabatzea eskatu zuten, diru hori langabetuak laguntzeko erabil zedila eskatuz. Kasu horretan, Udalak jaietarako aurrekontua erdira jaistea onartu zuen, baina ez erabat kentzea “jaiek Beasaina kanpotar asko ekartzen dituztelako eta horrek herriko merkataritzari on egiten diolako”¹⁵³. 1933ko martxoaren 9an alkateari bidalitako eskaera batean, langabeek medikua eta botikak dohainik izatea eskatzen zuten eta mozio hori Pedro Lasa zinegotzi sozialistak defendatu zuen Udalean¹⁵⁴. Baina eskaera horrek ez zuen erantzun baikorrik izan eta 1933ko martxoaren 20ko Udal-bilkuran, Udalak, gastu horiek Udalaren esku izatea garestiegia zela erabaki zuen, Udalak jada “hamar familia pobre” eta “eskaleak” ere artatzen zituela gaineratuz¹⁵⁵. 1936ko urtarrilean Metalurgiako Langileen Sindikatuak eskaera egin zion Beasaingo Udalari, langabeen poltsatik hartuta lan egiten zuten langileek egunean zazpi pezetako jornala kobratu ordez, zortzi pezetakoa kobra zezaten, langileek hori kobratzen baitzuten¹⁵⁶. 1936ko apirilean beste eskaera bat egin zuten langabeek, Langabeen Poltsan zeundenak Udalak herri-lanetarako kontratatzerakoan, asteen 44 ordu baino gehiago ez zezatela lan egin, horrela lana langabe gehiagoren artean bana zedin¹⁵⁷.

Anarkistek (Metalgintzako Sindikatu Bakarra deitutakoa, CNTri lotua) ere presentzia izan zuten Beasainen, hasierako mitinaz harago. Antza denez, haien egoitza Ordizian zegoen (1933ko eragileen arteko bilera bateko aktak “Ordiziako Metalgintza

¹⁵² Beasaingo Udal Artxiboa. 252. karpeta, 21. dokumentua.

¹⁵³ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

¹⁵⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 18. dokumentua.

¹⁵⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 18. dokumentua.

¹⁵⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

¹⁵⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

Sindikatuak” aipatzen du¹⁵⁸) baina 1935eko urrian Beasainen aretoa irekitzea lortu zuten. Litekeena da, ordura arte zabaldu ez izana 1934ko iraultzaren osteko errepresioaren ondorio izatea¹⁵⁹. 1932ko apirilean Merkatu plazan batzar ireki bat egiteko eskaera egin zuten, baina baimen hori ukatu egin zitzaaien Udaletik eta, horren ordean, batzarra anarkisten aretoan egiteko esan zitzaaien. Esan beharra dago, anarkistak (eta komunistak) 1932an Gobernu ezkertiarren ildo erreformistaren aurka zeudela, eta Gipuzkoako langile-gatazka ia guztiak, eurek sustatuak izan zirela¹⁶⁰.

Komunistez berriz, aipatu beharra dago 1935ean sortutako *Euzkadiko Partidu Komunistaren* idazkari nagusia Jesus Larrañaga “*Goierrri*” Urretxun jaio eta Beasainen bizi zena zela. Pertsona horrek Beasainen ospe handia izan arren, komunisten presentzia txiki samarra izan zen gure herrian. Beasainen, presentzia komunistak antolatua inguruko lehen zantzuak 1936ko uztailaren 10ean agertzen dira, Guda hasi baino astebete lehenago *Lateñarteko Sorospen Gorrija*¹⁶¹ (*Socorro Rojo Internacional*) sortu zenean. Erakunde hori presoak babesteko erakundea zen; garai hartan Beasaingo eta Goierriko preso guztiak aske ziren, baina 1934-1936 artean izandako kartzelatzeek asko astindu zuten Beasaingo herria¹⁶².

Eskuinari dagokionez, Beasainen eta Gipuzkoan alderdirik indartsuena karlistena izan zen Errepublika-garaian (monarkiko alfonsotarrak Gipuzkoa osoan galdu zuten euren indarra). Karlisten alderdia, 1931n, barne-zatiketek ahuldurik hiltorian zegoen, bai Gipuzkoan eta baita Espainiako Estatuan ere “joana zen eta itzuliko ez zen gizarte mota baten ordezkari” gisa ikusia baitzegoen, ideologiaren transmisio-kate ia bakarra familia zuela¹⁶³. Gainera karlismoak, ikurtzat zuen dinastia-borroka aparte utzita, defendatzen zituen aldarrikapen “sozial” gehienak (foruak, euskaltzaletasuna, baserriaren defentsa oligarkiaren aurrean) eskuinean jaio zen beste indar herrikoi batek, EAJk hain zuzen ere, defendatzen zituen eta modu askoz ere errealistagoan gainera (aldarrikapen horiek euskal nazioarekin edo euskaltzaletasunarekin lotzeak “benetako dinastiarekin” lotzeak baino itxura errealistagoa ematen zien). Gainera, aurreko garaian hiru fakziotan banandu ziren

¹⁵⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

¹⁵⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 138. karpeta, 32. dokumentua.

¹⁶⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 36. dokumentua.

¹⁶¹ Hori zen garai hartako ortografiaren arabera, euskaraz erabiltzen zuten izena.

¹⁶² Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 16. dokumentua.

¹⁶³ Martin Blinkhorn-en arabera, karlistek Elizaren babesaren galdu zuten “Nafarroan izan ezik”. BLINKHORN, Martin: *Carlismo y contrarrevolución en España. 1931-1939*. Editorial Crítica. Bartzelona, 1979, 298. or.

2. kapitulua

(integristak, jaimistak eta mellistak), karlismoaren ikerlari Cristina Barreiroren arabera, “hamarkada (1930.ekoa) hasterakoan, karlismoa, indar politiko gisa, praktikoki hila zen”¹⁶⁴. Baina Errepublikara-garaian susperraldi bat izan zuen karlismoak, ezarri berri zen erregimen errepublikanoaren aurkako mezua gogorren zabaltzen zuen alderdia izaki. Karlismoaren barruan 1920.eko hamarkadan agertutako hiru joerak, Errepublikaren etorrerarekin batera berriz bildu ziren alderdi bakarrean. Halako “larrialdiko egoera” batean bizitako susperraldia ez zen berria karlismoaren barnean, Vicente Garmendia historiagilearen arabera ere, XIX mendeko erdialdera ere karlismoa behea jota zegoen eta 1868.eko iraultzak, “Seiurteko Demokratikoari” hasiera eman zionak, ekarri zuen karlismoa suspertzea, ordura arte ideologia honetatik at zeuden kontserbadore asko erakartzeko aukera eman ziolako¹⁶⁵. 1931rako zentro karlista guztiak berriro biziberritu ziren (Goierrin zeudenak, Beasaingoa, Ordiziakoa, Lazkaokoa eta Itsasondokoa barne)¹⁶⁶. 1932 eta 1934 artean Olaberria, Zaldibia, Segura eta Zegamako zirkuluak ere eratu ziren, eta 1933.eko ekainaren 6an Zumarragan “Tradizioaren Jai Handia” antolatu zuen alderdi honek¹⁶⁷. Karlismoaren biziberritze hori, 1934an Espainiako karlisten idazkari nagusi, Fal Conde jartzean baieztatuko zen, horrek askoz ere aurpegi “ekintzaileagoa” eman baitzion karlismoari (Erreketeen prestakuntza eta entrenamendu militarrek ordutik hasi ziren orokortzen¹⁶⁸, nahiz eta, Gonzalez Callejaren arabera, 1931ko irailean hasi berez erreketeen hedapena¹⁶⁹).

Karlismoaren antolaketa, Gipuzkoa osora zabaldu zen, bai hiri eta herri industrial handietara eta baita herri txikietara ere, parte batean EAJren antolaketa moduarekin identifikatuta. Karlistek ere, mugimendu sozio-komunitario gisa egituratu zuten euren mugimendua, gaztetzako, emakumeentzako eta langileentzako mugimenduak ere eratuta. Aldi berean, Zirkulu Tradizionalistetan, ekintza politiko hutsetatik harago, aisialdi-, kultura- edo kirol-ekintzak ere egin zituzten. Hala karlismoaren ezarpena, Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, klaseartekoa izan zen

¹⁶⁴ BARREIRO GORDILLO, Cristina: *El carlismo y su red de prensa en la Segunda República*. Actas Editorial. San Sebastian de los Reyes (Madril), 2003, 13-14. or.

¹⁶⁵ GARMENDIA, Vicente: *Jaungoicoa eta foruac. El carlismo vasconavarro frente a la democracia española (1868-1872)*. Autoedizioa eta EHU. Bilbo, 1999, 10. or.

¹⁶⁶ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 55-57. or.

¹⁶⁷ GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Contrarrevolucionarios. Radicalización violenta de las derechas durante la Segunda República, 1931-1936*. Alianza Editorial. Madril, 2011, 194. or.

¹⁶⁸ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 58. or.

¹⁶⁹ Gonzalez Callejaren arabera, karlisten eta alfonsotarren arteko konspirazio militarreko kontaktuak puskatu eta berehala hasi ziren karlistak euren indar paramilitar propioa indartzen: GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Contrarrevolucionarios...* op. cit., 44. or. Konspirazio honi buruz hurrengo orrietan hitz egingo dugu.

(goiko klaseetatik zein klase apaletatik zetozen kide karlistak) eta afiliatu berri gazteak lortzeko gai izan zen; baina horrek ez zuen esan nahi klaseartekotasun hori zuzendaritzara ere iristen zenik, karlismo gipuzkoarraren zuzendaritzaren parterik handiena aristokratek eta burgesek osatzen baitzuten¹⁷⁰.

Karlisten alderdia, esan bezala, garai honetan berrantolatu egin zen, eta ez soilik alderdia zatitu zeneko hiru sekzioek bat egin zutelako, baizik eta alderdiak berak, bere antolamendu kapilarra handitu egin zuelako. Honen adierazlerik garbiena, dugu, adibidez, bere prentsa-sarea handitu izana. Prentsez gain, karlistak nabarmendu ziren beste arlo bat, lehen aipatu ditugun bere indar paramilitarrak izan ziren. 1931.eko ekainean (Gonzalez Calleja ikerlariaren arabera, “ekainaren 14a baino pixka bat beranduago”, Azpeitian eginiko batzar batetan, zuzendaritza karlistak “erreketeak” deitutako paramilitarrak berraktibatzea erabaki zuten, eta ez soilik kaleko borroketan aritzeko milizia defentsibo gisa, baizik eta baita Errepublika uzkaileko asmoz sortutako talde gisa¹⁷¹. Erreketeak bere fundaziotik, klerutzaren sektore baten laguntza izan zuten, batez ere Nafarroan. Eta ez zen batere harrigarria izan karlista batzuek 1932.eko abuztuan Jose Sanjurjoren konspirazio militarrean parte hartu izana, zuzendaritzan egon ez ziren arren, eta kontraesan askorekin bazen ere –adibidez, Fal Condek Sevillako erreketeen parte-hartzea debekatu zuen¹⁷² (halere, Sanjurjoren eta karlisten arteko harremana oso estua egin zen momentu honetatik aurrera)¹⁷³.

Kontuan izan behar den beste puntu bat, karlismoa, eskuineko beste alderdiekin konparatuz, pixka bat “federalagoa” zela izan zen, tradizio foralistatik baitzeturten (XIX. mendeko Guda Karlistetan, foruak karlistek euren ikur bezala erabili zuten, ez soilik Euskal Herrian baizik eta baita ere foruak ezabatuta zeuden tokietan, adibidez, Katalunian¹⁷⁴). Karlismoak, XX. mendean nolabaiteko ibilbide bat osatu zuen autogobernuaren inguruan, adibidez, Katalunian, 1906.ean Solidaritat Catalana koalizioa osatu zuen errepublikanoekin eta katalan abertzaleekin, eta are 1917.ean

¹⁷⁰ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 60-69. or.

¹⁷¹ GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Contrarrevolucionarios...* op. cit., 68-69. or. eta 79. or. Blinkhornek erreketeak sortzeko erabakia Leitzan “ekainaren erdialdera” hartu zela dio: BLINKHORN, Martin: op. cit., 16-18. or. Edonola ere, Jaime III “erreformista” bizirik zenean hartu zuten erabaki hori.

¹⁷² GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Contrarrevolucionarios...* op. cit., 89-94. eta 101. or.

¹⁷³ Konspirazioaren honetan, Beasainekin harremana zuen pertsona bat azaltzen zaigu: Infantadoko Dukea, Lazkaoko jauna, konspirazioaren data (1932.eko abuztuaren 10) jarri zuen batzarra, Madrilen zuen bere jabetza batean burutu baitzen, 1932.eko abuztuaren 8an.

¹⁷⁴ Ikus adibidez: CLEMENTE, Josep Carles: *El carlismo. Historia de una disidencia social (1833-1976)*. Ariel. Bartzelona, 1990, 60. or.; OLCINA, Evarist: *El carlismo y las autonomías regionales*. Hora H. Madril, 1974; eta MONTERO DIAZ, Julio: *El Estado carlista*. Aportes XIX. Madril, 1992.

2. kapitulua

onartutako Kataluniako Mancomunitat delako proiektua gaitzetsi egin zuen Kataluniari nahi beste autonomia ematen ez ziolakoan¹⁷⁵. XX mende hasieran, teoriko karlista ezagunenek, Juan Vazquez de Mellak edo Joan Bardinak, federalismoa edo “Monarkia federala” bezalako kontzeptuak defendatu zituzten¹⁷⁶; eta are 1934.eko ekainaren 29an Komunio Tradizionalistak eginiko “Manifestuan” “Estatu federalaren berrespena” kontzeptua agertu izan zen¹⁷⁷. Olcinaren arabera, karlismoaren zantzu edota saiakera autonomistak indartsuagoak izan ziren Katalunian Euskal Herrian baino, han foruak 1714.ean ezabatu izan zirenez gero “Euskal Herrian foruzaletasuna tradizioaren jarraipen huts bezala aurkeztu zitekeelako, Katalunian jada foralismo zaharra berri indarrean jartzea ezinezko ikusten zenez, autogobernuaren edo foruen aldeko karlisten aldarrikapenek “indar, gaurkotasun eta irudimen handiagoa zuten”¹⁷⁸. Baina hemendik ez da ondorioztatu behar abertzaletasunarekiko hurbiltasuna, azken hau, mugimendu politiko gisa, karlismoaren etsai izan baitzen. Errepublikaren garaian, karlismoaren eta abertzaletasunaren ekintza amankomunak urtebete eskas iraun zuen. Eta ez da ondorioztatu behar ezta ere, erregimen frankistaren aurrean karlistek euskal izaera edota kulturaren aldeko jarrera bat izan zutenik edota erregimenaren instantzia edota aginte-organuetan halako posizio baten alde egin zutenik. Salbuespenak salbuespen, ez zen hala gertatu eta.

Beasainen, lehen kapituluan kontatu dugun bezala, 1907tik aurrera izan zen Elkarte Tradizionalista, Andra Mari kalean (garai hartan, Iturriotz kalea). Lehen aipatu susperraldiaren froga bat, 1932an Beasainen “margariten” taldea, hau da, emakume tradizionalisten taldea sortzea izan zen eta bere ordezkaria Telesfora Imaz izan zen¹⁷⁹. Karlistek, beste alderdiek bezala, hitzaldiak antolatzen zituzten Beasainen, adibidez, 1932ko ekainean, Tolosako Alejandro Barrenechea ekarri zuten. Bestalde, 1932an, karlistek eskuorri-banaketa bat egin izanaren lekukotza ere badugu¹⁸⁰. Alderdi karlista oso interklasista zen (eskuineko beste alderdiak ez bezala), bai Usurbe elkarteko kide zirenak (Restituto Ugarte, Joxe Aranburu) zein langileak biltzen zituen; adibidez, gudaren ostean zinegotzi izan zen Rufo Artolain. Bere biloba Juan Unanuak esan zuen

¹⁷⁵ OLCINA, Evarist: op. cit., 190-191., 197-198. eta 205-206. or.

¹⁷⁶ SEVILLA BENITO, Francisco: *Sociedad y regionalismo en Vázquez de Mella. La sistematización doctrinal del carlismo*. Actas Editorial. San Sebastian de los Reyes (Madril), 2009, 140-141., 162. eta 165. or.; BLINKHORN, Martin: op. cit., 46-48. or. eta OLCINA, Evarist: op. cit., 188-198. eta 202-205 or.

¹⁷⁷ CLEMENTE, Josep Carles: op. cit., 113. or.

¹⁷⁸ OLCINA, Evarist: op. cit., 193. or.

¹⁷⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 41. dokumentua.

¹⁸⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 518. karpeta, 21. dokumentua.

bezala “Nire aitona 13 urterekin hasi zen lanean, CAFen”, beraz klase apaleko jendea erakartzeko gaitasuna zuen alderdia ere bazen¹⁸¹. Horrek karlistei indar handia eman zien, Joxe Manuel Azurmendi Dorronsororen arabera, “nik uste guda aurretik Aldedi Karlista zela alderdirik indartsuena”¹⁸².

Eskuinean, karlistez gain, beste erakunde bat ere bazegoen, *Sindicato de Labradores* edo Nekazarien Sindikatua. Talde horrek, nekazariak jabetzaren eta erlijioaren aintzatespeneko ikuspuntutik defendatzen zituen. Hala, bere aldarrikapenak, izaera profesionalekoak edo kudeaketakoak izaten ziren, klase-borrokakoak baino gehiago. 1931ko otsailaren 4an zuzendaritza berria aukeratu zuen Nekazarien Sindikatuak eta karguak honela banatu ziren: Liborio Goitia lehendakari, Martin Jose Peña lehendakariorde, Ignacio Beguiristain diruzain, Joaquin Lizarralde idazkari eta Esteban Goitia, Santos Lasa, Pedro Urretavizcaya eta Juan Antonio Ceberio zuzendaritza-batzako kide¹⁸³. 1933ko otsailean zuzendaritza hori aldatu egin zen, eta gero zinegotzi frankista izango zen Jose Luis Garin jarri zuten lehendakari-postuan. Zuzendaritza berri horretan, lehendakariorde postuan Jose Maria Arancegui egon zen, diruzain-postuan Jose Manuel Echeverria, idazkari Gabriel Mugica eta kide gisa Julian Sarasola, Jose Manuel Mendizabal, Silvestre Lasa eta Juan Barandiaran¹⁸⁴. Astigarreta eta Garingo ordezkari gisa, berriz, Mateo Lasa Arregui agertzen zen¹⁸⁵. 1935eko otsailean hirugarren aldaketa gertatu zen sindikatuaren zuzendaritzan; lehendakari postuan Antonio Sarasola, lehendakariorde Juan Barandiaran, Idazkari Miguel Jose Leunda, diruzain Sebastian Odriozola, erosketen arduradun Jose Urdangarin eta zuzendaritza-batzako kide Gregorio Eguren, Jose Mugica eta Martin Jauregi jarri zituzten¹⁸⁶.

Sindikatu horrek, 1931ko irailean, Jose Martin Sarriegui zinegotziaren bitartez, uzta-garaian, nekazarien jabetza babesteko basozain armatuen zerbitzua ezartzea eskatu zuen¹⁸⁷. 1935ean, Sindikatu horrek berriz eskatu zuen basozainak (zinpeko zaindarien

¹⁸¹ Juan Unanuari eginiko elkarrizketa. Beasainen, 2014-IX-5ean.

¹⁸² Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-IX-10ean.

¹⁸³ Beasaingo Udal Artxiboa. 141. karpeta, 06. dokumentua. Hala ere, 1932ko urtarrilean zuzendaritza-batzako kide batzuk aldatu egin ziren: lehendakariordetzan Jose Maria Aranzadik Martin Jose Peña ordeztu zuen; eta Silvestre Lasak, Jose Manuel Echeverriak eta Julian Sarasolak, Santos Lasa, Pedro Urretavizcaya eta Juan Antonio Ceberio. (Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 28. dokumentua).

¹⁸⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 29. dokumentua.

¹⁸⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 14. dokumentua.

¹⁸⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 113. karpeta, 10. dokumentua.

¹⁸⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 141. karpeta, 06. dokumentua.

2. kapitulua

formula pean) ezartzea, “bata udalerriaren Iparraldeko gunean eta bestea Hegoaldeko gunean”. Bigarren saiakera horretan, Udalak (garai hartan eskuinaren eskuetan zegoen), onartu egin zuen eta 1935eko urrian bi basozaintzako postuak sortu ziren. Postuok Jesus Ibarbia Unzueta eta Bonifacio Apalategui Zurutzaren esku geratu ziren¹⁸⁸.

Zergen inguruko eskaerak ere egin zituen sindikatuak. 1932ko urtarrilean, Udalari protesta bat luzatu zioten, Udalak sagardoaren gaineko 4 pezetako zerga bat ezarri zuelako eta horrek ekoizle txikiak kalte zitzakeelako, beraz etxeko sagardoaren gaineko zerga kentzea eskatu zuen eta Udalak hori onartu egin zuen¹⁸⁹. Hala ere, ez zen izan lortu zuten zerga-salbuespen bakarra, urte hartako urrian “pitarraren” (sagardo-muztio berriaren) gaineko zerga erretiratzea ere lortu baitzuten¹⁹⁰. Abere-hiltegiaren hobekuntzaren inguruan ere mintzatu izan ziren, balantzen beharra ikusten zuten “pisatzeak fidagarriagoak izateko”¹⁹¹. Agian egindako eskaerarik berritzaileena, Udalak Astigarretan eta Garinen argindar-zerbitzua jartzearen ingurukoa izan zen: 1933ko otsailean adierazi zutenez, argindarra jartzeko zerbitzua eurak jarri zuten, nahiz-eta “Guridiren eta Iraolaren garaian” Udal-zerbitzuak mantentzea, argindarra barne, Udalaren kontura izango zela adostu, beraz Udalak ordainketa horri aurre egitea eskatu zuen¹⁹². 1936an, Beasaingo kaleetan, esne-saltzaile homologatugabeek esnea saltzen ibiltzea debekatzeko eskatu zioten Udalari¹⁹³.

Eskuinarekin jarraituz, 1934ko urtarrilaren 30ean CAFen krisiari irtenbide bat topatzeko egindako bilera batean, bildutako hainbat eragileren artean, *Sindicato Católico Profesional* (Sindikatu Katoliko Profesionala) deitutako talde bat ere aipatzen da¹⁹⁴. Dokumentu horren arabera, bere ordezkaria, geroago zinegotzi frankista izan zen Eusebio Asla Lapart izan zen. Litekeena da sindikatu hori eta 1934an, Beasainen, sortutako *Sindicato Profesional de Oficios Varios* (Lanbide Anitzetako Sindikatu Profesionala) sindikatu bera izatea¹⁹⁵. Azken horrek, Lanbide Anitzetako Sindikatu Profesionalak, 1935eko urriko dokumentu baten arabera, 54 bazkide zituen. Bere

¹⁸⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 141 karpeta, 06 dokumentua eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

¹⁸⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 64. karpeta, 15. dokumentua. Hala ere, 1932. urteko zerga kobratzea erabaki zuten. (Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 01. dokumentua).

¹⁹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 64. karpeta, 14. dokumentua.

¹⁹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 29. dokumentua.

¹⁹² Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 14. dokumentua.

¹⁹³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

¹⁹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

¹⁹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 22. dokumentua.

zuzendaritza-batza ondorengoek osatua izan zen: lehendakari Miguel Garin Mugica, lehendakariorde Eusebio Asla Lapart, idazkari Abundio Montejo Zarate, idazkariorde Francisco Lecuona Odriozola, diruzain Jose Catarain Urrestarazu, diruzaindegi-arduradun Jose Arruabarrena Camino eta zuzendaritzako kide soil gisa Guillermo Cortaberria Biain, Miguel Quintas Fernandez eta Cipriano Lahidalga Hinoja¹⁹⁶. Zuzendaritza-batza horretan, Eusebio Asla Lapart, erregimen frankista garaian zinegotzi izan zenaz gain, 1931n hautagai izan zen Jose Catarain eta 1936an karlistekin zuen harremana zela-eta errepublikanoek atxilotua izan zen Miguel Quintas aurkitzen ditugu; beraz sindikatu horren profil politikoa erabat eskuindarra zela ondorioztatu behar dugu.

Azkenik, lur-jabeak ordezteko beste elkarte bat ere izan zen, *Asociación Libre de Propietarios de Fincas Urbanas* (Hirilur Jabeen Elkarte Askea), buru Jose Luis Guridi Aramburu kontratista (eta gero, erregimen frankistaren garaiko lehenengo alkate izan zena) buru zela. Elkarte horrek lurjabeen interesak defendatzen zituen, adibidez, 1933an Udalak hiri-lurren gaineko zerga igotzeko zuen asmoaren kontra protesta egin zuen¹⁹⁷.

Eskuin alfonsotarrari dagokionez, Errepublika garaian, Gipuzkoan ia desagertuta egon zen sozialki (nahiz eta hauteskundeetan, “eskuineko batasuneko” hautagaitzetan joera horretako hautagairen bat sartu, gehiengo karlistaren ondoan). 1931ko apirilko hauteskundeek hautagaitza “monarkiko-katolikoei” Gipuzkoako hautetsi gehienak lortzeko parada eman arren (%37,02), sektore horrek ez zuen jarraipenik izan. Izan ere, hautetsietan izandako emaitza hain handia bi arrazoiengatik gertatu zen: esan bezala, aurkezteko zailtasunak zirela-eta herri askotan hautagaitza hori bakarrik aurkeztu izana (ez dezagun ahaztu orduan boterearen gertukoak ziren pertsonak osatutako hautagaitzak zirela), beraz, aipatutako 29. artikulua arabera hautetsiak aukeratu izana, eta beste alde batetik, populazioaren despolitizazio handiak, toki askotan jendeak “boterearen alderdiari” botoa ematera eramanez zuela. Nekazaritza-guneetan batez ere, batzokiak eta zirkulu tradizionalistak eratzen hasi orduko, sektore sozial hori, 1931ko apirilean eskuineko hautagaitza horien alde egin zuen sektore hori berenganatzen saiatu iziren, talde monarkiko alfonsotarren oinarri soziala hustuz. Beraz, Beasainen ez zen egon berez antolatutako indar alfonsotarririk.

¹⁹⁶ Beasaingo Udaltzaren Artxiboa. 059. karpeta, 57. dokumentua.

¹⁹⁷ Beasaingo Udaltzaren Artxiboa. A010. karpeta, 05. dokumentua.

2. kapitulua

Monarkiko alfonsotarrak, karlistak ez bezala, oso elitistak izan ziren, praktikoki Donostiatik at ez zuten batere hedapenik izan. 1933ko maiatzean *Unión Regionalista Guipuzcoana* (Gipuzkoako Batasun Eskualdezalea) sortu zen, *Renovación Española* alderdi alfonsotar erradikalari lotutakoa¹⁹⁸, eta 1934an *Derecha Vasca Autónoma* (Euskal Eskuin Autonomoa), CEDAri lotutakoa (alderdi hau, Jose R. Monteroren arabera, Euskal Herrian EAJren eskuinera kokatzen zen)¹⁹⁹. Bi alderdiok, karlismoarekin zituzten ezberdintasunak, ideologiaz aparte (batzuk liberalismoa, merkatu-ekonomia eta gizartearen modernizazioa aintzatesten zuten, besteek, ordea, “Erregimen Zaharrera” itzuli nahi zuten), Donostialdera mugatutako alderdiak izatea eta eurek osatu zituztenak askoz ere elitistagoak izatea ziren²⁰⁰; CEDAren kasuan, errealitate honek Espainian zuen “masa-alderdi” izaerarekin kontrastea egiten zuen.

Azkenik, ideologiez aparte, CAFeko Enplegatuen Ongintza Elkartea dugu, lehendik ere sortua zena, baina garai haietako krisia zela-eta (langabeziak gogor jo zituen bai CAF eta baita Beasain ere), garrantzi handia hartuko zuena. Elkarte horren helburua, CAFeko premiadun langileen beharrak arintzen laguntzea zen, betiere, ikuspegi ez-sindikalko batetik (lehen kapituluan aipatu izan da enpresak berak babestutako elkarte zela)²⁰¹. Antza denez, Ongintza Elkartea, CAFeko Laguntza Kutxarekin

¹⁹⁸ *Renovación Española*l, Berrezarkuntzaren balioak aldarrikatu arren (liberalismo kontserbadorea, monarkia parlamentarioa), laster autoritarismorantz edo totalitarismorantz biratu zuen eta faxismotik oso hurbil egon zen alderdi bihurtu zen. Alderdi honek ez zuen Errepublikaren legezketasuna batere onartzen, eta Estatu-kolpea hasiera batetik ontzat jotzen zuen. Alderdi honen sorrerari eta Estatu-kolpea errekurtsio bezala erabiltzeko zaletasunari buruz, ikus: GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Contrarrevolucionarios...* op. cit., 106-122. eta 248-259. or.; edota PRESTON, Paul: *Las derechas españolas en el siglo XX: autoritarismo, fascismo y golpismo*. Editorial Sistema. Madril, 1986, 57-60. eta 79-95. or. Alderdi honen ideologiari buruzko laburpen txiki eta sintetiko batetarako, ikus GONZALEZ CUEVAS, Pedro Carlos: *El pensamiento político de la derecha española en el siglo XX. De la crisis de la Restauración al Estado de partidos (1898-2000)*. Tecnos. Madril, 2005, 127-133. or. *Renovación Española*ri buruzko informazio zabalagoa izateko, ikus GIL PECHARROMAN, Julio: *Renovación Española. Una alternativa monárquica a la Segunda República* (bi liburuki). Doktorego tesia. Madrilgo Complutense Unibertsitatea. 1983.

¹⁹⁹ MONTERO, Jose R.: *La CEDA. El catolicismo social y político en la II República* (I lib.). Ediciones de la Revista de Trabajo. Madril, 1977, 409. or.

²⁰⁰ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 70-78. or. Julio Gil Pecharromanek jada badio Gipuzkoako *Renovación Española*ren sekzioa “Bizkaikoa baino ahulagoa” zela, eta “goi-klaseetan errotu zela batez ere”. Gil Pecharromanen arabera, “euskal monarkikoak, beste toki batzuetakoak baino muturrekoagoak ziren, giroa oso kontra zuten eta”. GIL PECHARROMAN, Julio: op. cit., I. lib., 344-345. or. Hala ere, alderdi hau ez zen oso masakoa izan, Paul Prestonen arabera, “*Renovación Española* ez zituen 10.000 kide baino gehiago”. PRESTON, Paul: op. cit., 55. or. *Derecha Vasca Autónoma*ri buruz, honen buru Juan Pablo Lojendiok esan zuen moduan “gure alderdian klase sozial guztietako kideak daude, baina batez ere Donostiako merkatari ia denak eta profesional zein enplegatu kopuru oso handi bat (...) eta baita abertzaleak izandako asko, EAJk azken urteetan egin duen politikaz atsekabetutakoak”. Hau 1934ean idatzia zelarik, Lojendiok aipatutako “EAJren azken urteetako politika” hori ezkerrearekin adostasuna bilatzea zela pentsatzen dugu; beraz modu batean Gipuzkoan CEDA EAJren eskuinean zegoela esaten ari da. *El Debate*, 1934-XI-10 in MONTERO, Jose R.: op. cit., 411-412. or.

²⁰¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 30. dokumentua.

harremanak zegoen. Kutxa horren kudeaketarako, kide hauek egon ziren zuzendaritzan: Emilio Senosiain (lehendakaria), Gregorio Orue (lehendakariordea), Juan Beitia (diruzaina), Angel Garate (idazkaria), Rufo Zaldua, Vicente Sarasola, Jose Zubiarrain, Jose Albisu, Juan Bastarrica, Manuel Verdugo, Domingo Mingo, Alejandro Chinchurreta (ordiziar sozialista hau, Guda Zibilaren hasieran altxatuek fusilatu egin zuten), Andres Zabaleta, Pedro Barandiaran, Eugenio Zaldua, Ramon Lasa, Ignacio Inchausti eta Amalio Lamata izan ziren²⁰².

Ikusten dugun moduan, nonahi hazi zen, bai Beasainen zein Gipuzkoan, alderdi, sindikatu eta elkarte politiko edo sozial ezberdinen kopurua; korrante ezberdin bakoitzeko taldeak antolatuz. Fenomeno hori, Errepublikaren garaian gertatutako fenomeno arrunta izan zen, aurreko garaiko “pertsonek eragindun politikatik” “alderdi-politikara” pasatzeko urratsak eman baitziren.

Beasaingo giro politikoa hainbeste hazi zen, ezen, zinegotzi batek, Severiano Azpeitiak (1936ko martxotik aurrera alkateorde izango zenak), 1932ko maiatzean Udal-karguan dimisioa aurkeztu zuen, Udaleko zereginen denbora asko kentzen ziotela-eta “bere negozioari” (*Construcciones Azpeitia* enpresako jabea zen) behar bezala erantzuteko; beraz, bere lan profesionalak Udalari berak nahi izango zukeen arreta eskaintzea galarazi egiten zion. Hala ere, ekainaren 3an Jacinto Urteaga alkateak komunikatu zion bere dimisioa ez zuela onartu²⁰³. Aurreko egunean Udal-bilkurak Azpeitiaren dimisioa ukatu egin zuen, “justifikatu gabea zelako” eta “zinegotzi hori lan ona egiten ari zelako”²⁰⁴. Azpeitia ez zen dimisioa aurkeztu zuen bakarria izan, 1932ko ekainaren 9an Dionisio Carrascal Aguado sozialistak ere dimisioa aurkeztu zuen, kasu horretan “osasun-arrazoiak” tarteko. Udalaren erantzuna halakoxea izan zen, dimisioa ez onartzea justifikazioa nahikoa ez zelako eta bere lana “bikaina” izaten ari zelako²⁰⁵. Hala ere, ofizialki Udalaren parte izaten jarraitzen bazuen ere, Udalean gehiago parterik ez hartzea erabaki zuen Carrascalek, 1936ko otsailaren 27an, 1931n aukeratutako eta 1934an kargugabetutako Udala berriz indarrean jarri osteko lehen bilkuran,

²⁰² Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 23. dokumentua. Hala ere, enpresak babestutako elkarte bat izateak ezin digu pentsarazi kide guztiak ez-sindikalak edo “horiak” zirela. Goian aipatutako zuzendaritza-batzan, adibidez, Alejandro Chinchurreta ordiziarra ageri da, 1934ko istiluetan inplikaturik egoteagatik epaitua eta kondenatua izan zena eta geroago frankistek fusilatua, edo Amalio Lamata gero gudari ibilitakoa; horiek bezalako langile borrokalariak ere aurki ditzakegu zerrendan.

²⁰³ Beasaingo Udal Artxiboa. 64. karpeta, 12. dokumentua.

²⁰⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

²⁰⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

2. kapitulua

“sinbolikoki” parte hartzen zuela iragarri zuen, baina ez zela gehiago agertuko “berak bere buruari ezarritako arauari” jarraituz²⁰⁶.

2.3 Krisi ekonomiko-industriala Beasainen

2.3.a) Demografia eta ekonomia arloak

Erregimen monarkikoaren erorketak, bai Beasainen, zein Euskal Herrian eta hainbat tokitan ilusio handiak piztu bazituen ere, lasta handi bat izan zuen: krisi ekonomikoa. Krisi hori, lehen bi urteetan indarrean egon zen alderdi ezkertiarrek osatutako Gobernuaren asmo eraldatzaileentzako balazta handia izan zen. Ikusiko dugun bezala, tentsio asko hortik eratorriak izan ziren.

Aurreko hamarkadetan, esan bezala, Beasaina jende aunitz etorri zen beste herri batzuetatik. Beasaina etorritako immigrazio horrek bai ondoko herrietan zein Gipuzkoan edota Euskal Herrian nahiz Euskal Herritik kanpo izan zituen sustraiak, baina gehienak Beasaingo industria handira edota trenbidera lan egitera etorritakoak izan ziren, adibidez, badugu trenbidean lan egin zuten zegamarren kasua²⁰⁷. Ondoko herrietatik ere CAFera lanera etorri ziren, adibidez Irizar Zurutuza familia, Antonio Irizar Zurutuza gudariaren gurasoak²⁰⁸. Joxe Apalategi Etxeberria bera, Olaberrian jaioa, 1931n, umea zela, etorri zen bere familiarekin Olaberrietik Beasaina²⁰⁹. Alfontso Ibaibarriaga, Ondarroan jaiotakoa, Zumaiatik eta Pasaiatik pasatu zen, Beasainen, Bernedo-enean kokatu aurretik²¹⁰. Euskal Herriko beste lurraldeetatik etorritakoen artean aurkitzen ditugu, adibidez, Begue familia, Zentronikotik etorria²¹¹; eta baita Ruiz de Apodaca familia ere, hauek ere CAFera lan egitera, Gasteiztik etorriak²¹². Beste batzuk ordea urrutiagotik etorri ziren, gehienak CAFen edo trenbidean lan egitera. Hori izan zen, adibidez, Jesus Lopez Gallegoren familiaren kasua, zeina Gaztelan jaioa izanik, Frantzia lan egiten saiatu ostean, Beasaingo CAFen finkatu zen²¹³. Ramon Perez Onesimok ere kontatzen digu bere familiakoak (amaren partetik, Onesimotarrak

²⁰⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

²⁰⁷ Lourdes Martinez Otaegiri eta Pello Martinez Otaegiri egindako elkarrizketa. Ordizian, 2014-XII-17an.

²⁰⁸ Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-9an.

²⁰⁹ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-25ean.

²¹⁰ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-IX-15ean.

²¹¹ Roberto Begue Sarasolari eta Yolanda Begue Redondori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-27an.

²¹² Pako Ruiz de Apodakari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-18an.

²¹³ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-25ean.

sozialistak zirela eta, haietako bat, Ignacio Onesimo Beasainen militarrek hil zuten), Valladolidetik eta Errioxako Cañas herritik etorriak izan zirela²¹⁴. CAFera ez etorri arren, Beasaina etorritako beste batzuk, adibidez Polo Carrascal familiakoak izan ziren (bi anaia gudari ibili ziren eta haietako bat fusilatua izan zen). Horiek otarregile gisa aritu ziren lanean Ezkiaga auzoan²¹⁵. Baina halako kasuetan ohikoa izan ohi da, industria indartsu batek sortzen duen populazio-igoerak industria deribatuen hazkundera eragitea, eta gero horrek ere etorkin berriak erakartzea. Kanpotik etorritakoen artean ere izan ziren abertzaleekin militatzea erabaki zutenak, adibidez, Beasaingo ELAko lehendakari izan zen Jose Maria Lozares Escolar Burgosko Villasur de Gredosen jaio zen eta hamaika urte zituela etorri zen Beasaina²¹⁶.

Nazioarteko finantza-krisiak, industria gogor jo zuen eta Euskal Herriak eta batez ere Beasainek, herri oso industrialia izaki, larrutik ordaindu zuten. Ez da arraroa hamarkada hura, 1930 eta 1940 artekoa izana XX. mendean Beasainen populazioa jaitsi zeneko hamarkada bakarra. CAFen langileak murriztearekin batera etorri zen biztanle-galera. Izan ere, 1930erako 5.260 pertsonako biztanleria bazuen herriak, 1940an 4.986 zituen, 5.000ko langaren azpitik. Eta 1936ko Gudak horretan nolabaiteko eragina izan zuen arren, Beasaindik pertsona askok ihes egitea ekarri baitzuen, egia da halaber, populazioaren beherakada 1936a baino lehenagokoa izan zela. Izan ere, 1936an, Beasaingo populazioa, Jose Gabriel Zurbano Meleroren arabera, 5.172 biztanlekoa zen²¹⁷, beraz, 1931ko neurritik behera zegoen (1910 eta 1936 artean, oro har, hazkundera %94koa izan zela kontuan izanik, 1930 eta 1936 artean halako beherakada gertatu izana oso azpimarragarria da). Kontuan hartu behar da 1900 eta 1930 arteko Beasainen hazkundera, proportzioan, Gipuzkoako bigarrena izan zela Pasaiaren atzetik eta Errenteria, Arrasate eta Eibarren aurretik. Horrek, Beasain, Gipuzkoako 16 udalerrri handien artean (5.000 biztanletik gorakoen artean) jarri zuen; Gipuzkoako 89 udalerrietatik 73k, 5.000 biztanle baino gutxiago zituzten (eta 38k 1.000 baino gutxiago). 1933ko Udalaren biztanleriaren datuen arabera, Beasaingo populazioa, 5.618 biztanlekoa zen legez eta 5.583 biztanlekoa berez²¹⁸. Zurbano Melero beraren arabera, 1934an, Beasaingo populazioa 5.714 biztanlekoa zen, baina urte hartako erroldaren

²¹⁴ Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-30ean.

²¹⁵ Alicia Polori eta Mikel Apaolazari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-30ean.

²¹⁶ Mari Pilar Lozares Sarasquetari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-3an.

²¹⁷ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 48. or.

²¹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. A023 karpeta, 19. dokumentua.

2. kapitulua

zuzenketak Beasaingo populazioa legez 4.934 biztanletakoa zela dio eta berez 5.048 biztanletakoa²¹⁹. Beraz, datu horiek ontzat hartuz gero 1934rako gertatua zen beheraldia.

Populazioaren krisi hori Gipuzkoa osoan gertatu zen 1930eko hamarkadan. 1920.eko hamarkada osoan, Gipuzkoako berezko hazkundera handia izan zen, Espainiako batez bestekoa baino handiagoa. 1930-1936 epean, Gipuzkoako berezko hazkundera Espainiaren batez bestekoaren azpitik ibili zen (baita Arabakoa eta Bizkaikoa ere), Espainiako batez bestekoa ere jaitsi egin zen arren. Aurreko hamarkadan, zenbaki absolutuetan 43.772koa izan zen Gipuzkoako berezko hazkundera, 1930-40 hamarkadan aldiz, 29.248koa²²⁰. 1930an, Gipuzkoak 302.329 biztanle zituen (154.676 emakumezko eta 147.653 gizonezko), kilometro karratuko 160,39 biztanle, Espainiako Estatuko laugarren dentsitate-tasarik handiena izanez (Bartzelona, Bizkaia eta Madrilen atzetik). Modu berean, Gipuzkoako herrialdetik kanpo jaiotako gehien hartzen zituen Estatuko laugarren probintzia zen 1930ean: garai hartan gipuzkoarren %78,58 Gipuzkoan jaiotakoen ziren, eta beste %8,95 Hego Euskal Herrian (gehienak Nafarroan). Gipuzkoaren izaera oso industrialak markatzen du horrek, eta are gehiago populazioa hiri handietan kontzentratzen zela ikusten badugu; lehen Gipuzkoako 89 herrietatik 5.000 biztanleko langa 16k soilik gainditzen zutela aipatu izan badugu, orain, 16 udalerririk horiek gipuzkoarren %67,96 jasotzen zutela esan beharrean gaude (10.000 biztanletik gorako lau udalerririk, Donostiak, Irunek, Eibarrek eta Tolosak, lauren artean Gipuzkoako biztanleen %40,17 biltzen zuten)²²¹.

Kontuan hartu behar dugu, krisiaren ondorioak behintzat 1931tik nabaritzen hasi zirela Beasainen (Errepublikak lan publikoetarako aurrekontuak bertan behera utzi zituen, eta CAFen ekoizpena 1931n hasi zen behera egiten). CAFeko langileen murrizketa 1931-32 sasoiari hasi zen eta sasoi horretan hain zuzen ere, langilegoa 2.120 langiletatik 1.720ra jaitsi zen²²². Urte horretarako, Udalak Gipuzkoako Probintziako Batzordeari bidalitako dokumentu baten arabera, lan-astea jada murrizten hasia zen: langileek hileko bi astetan lau egunez soilik lan egiten zuten. Dokumentu horrek zera dio: “eskaerak %50 jaitsi dira” eta “herrian ezinegona dago, lan-faltak merkataritzaren

²¹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 06. dokumentua.

²²⁰ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 28. or. Barrusok EUSTATen zifrak erabiltzen ditu.

²²¹ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 11-13. or.

²²² “Orduan 2.000k edo 3.000k egiten zuten lan CAFen”, diosku fabrikako langile baten seme zen Jesus Lopez Gallegok. Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-25ean.

beherakada eta bildutako zergen beherakada dakartzalako”²²³. Eta 1932an zehar, beste 984 langile kaleratu zituzten, Zurbano Meleroren arabera, horietako 242 beasaindarrak eta beste gehienak goierritarrak izan zirelarik²²⁴ (Legorburu Fausen arabera, 1932ko apirilean 456 langile bota zituzten)²²⁵. 1932ko irailean Niceto Alcalá Zamora Errepublikako lehendakariak Gipuzkoara eginiko bisitaldian, Udalak laguntza eskatzeko luzatu zion testuan, CAFen “diren 2.000 langileetatik erdiak baino gutxiago ari dira lanean (...) eta lanean ari direnek ere lanegun murriztuak dituzte” esaten zen²²⁶. 1933ko urtarrileko CAFen datuek, “botatako 1.500 langile” eta “hiru eguneko lan-astea” aipatzen dituzte²²⁷, eta 1933ko abuztuan Goierriko hainbat eragilek egindako bilera batean “1931 bukaeratik hona, langile kopurua 2.100 langileetatik 500 geratu arte jaitsi da” aipatzen dute²²⁸. 1934ko abendurako, CAFen 754 langile soilik zeuden eta hain zuzen ere data horretan lortu zuen fabrikak 400 bagoi egiteko kontratu bat²²⁹ (Egidok, UGTko zifrak hartuz, 700 langile zirela dio²³⁰). 1936an CAFek bere jardura eten zuenean, 1.154 langile zituen²³¹. Beraz, argi gelditzen da, CAFeko langile-kopurua murrizketaren eta Beasaingo populazio-galeraren arteko harremana. Sara Bujanda Olaranek, –beraren familia Lazkaon eta Olaberriari bizi izan zen guda aurretik eta aitak CAFen lan egiten zuen–, hauxe diosku: “garai hartan jende asko bota zuten kalera. Gure aita CAFetik bota zutenean Nafarroako Bianara joan behar izan genuen bizitzera. Berriz hartu zutenean, Olaberrira itzuli ginen”²³².

Langabeziaren igoera, Gipuzkoa osoan gertatu zen atzerakada izan zen, baina Beasaingo ekonomiaren ezaugarriak zirela bide (enpresa handi baten kontzentrazioa, hain juxtu gogorren jotakoa zen azpisektorekoa, metalurgiakoa, eta Estatu-kontratuen oso mendekoa), langabeziarako joera are larriagoa izan zen, arazo sozial bihurtzeko punturaino izan ere. 1931n 922 langabe zeuden Beasainen eta populazioa 5.260koa zen. Hurrengo urteetan langabeziaren hazkundea handiagoa izan zen (1933an 2.000 langile

²²³ Beasaingo Udala Artxiboa. 062. karpeta, 40. dokumentua.

²²⁴ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 38. or.

²²⁵ LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. *Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 119. or.

²²⁶ Beasaingo Udala Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

²²⁷ Beasaingo Udala Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

²²⁸ Beasaingo Udala Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

²²⁹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 38. or.

²³⁰ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 68. or.

²³¹ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 125. or.

²³² Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarriketa. Beasainen, 2014-IX-18an.

2. kapitulua

pasatxotik 1.500 kaleratu zituztela aipatu dugu), beraz, pentsatzekoa da zein izan zitekeen Beasaingo herriaren egoera une hartan. Garai hartarako, 1930erako jada, industriak Gipuzkoako populazio aktiboaren %43,9a biltzen zuen, hirugarren sektorean %29,2 (hau batez ere Donostian zentratuta, non %51,15 hirugarren sektorean ari zen) eta lehen sektoreak %26,7 biltzen zuen. Emakumezkoak, langileen %22,5 ziren, gehienbat, hirugarren sektorean kontzentratuak, non sektore horretako langileen %34, eta emakume langileen %55 osatzen zuten. Gipuzkoan, 1932ko langabezia %14,77koa zen, 1934koa %17,44koa eta 1936koa %20koa²³³. Beraz, lurralde industrial bat izaki, gogotik sufrituko zuen krisia (Bizkaiarekin konparatuz egoera leunagoa izan bazen ere) Gipuzkoak, eta Gipuzkoaren barruan Beasainek. Izan ere, Beasainen zegoen orduko Gipuzkoako fabrikarik handiena, CAF (Arrasateko *Unión Cerrajerarekin* bat, 1930ean 1.000 langile baino gehiago zituen enpresa gipuzkoar bakarra zen). kontuan izanik Gipuzkoan orduan 47.800 langile industrial eta 2.149 lantegi zeudela, orduan lehen kapituluan esan genuena, hots, Gipuzkoako industria nahiko txikia zela (soilik 48 enpresek zuten 100 langile baino gehiago, hots Gipuzkoako enpresen %1,78k). Beste alde batetik, nahiko dibertsifikatua ere bazen, metalurgian, azpisektorerik garrantzitsuenean, 47.800 langile horietako 11.337k soilik egiten baitzuten lan, guztira %23,7ak²³⁴. Geografikoki ere aniztasuna zen nagusi, Gipuzkoako 89 herrietatik 80k bazuten industria-lantegiren bat, eta 21 herrik bazuten halaber 100 langiletik gorako lantegi bat. Beraz, Gipuzkoan bazegoen halako industriaren “geografia-oreka” bat, zentro industrial garrantzitsuak, izan bazirenak, gipuzkoar geografia osoan zehar barreiatuta baitzeuden. Hori dela-eta, industria bere geografian zehar barreiatuta edukitzeagatik eta hazkunde harmoniatsuagoa izateagatik, Dario Anselen aburuz, “Gipuzkoako ekonomia-sistemak (...) Bizkaikoak baino hobeto egin zien aurre krisi ekonomikoaren eraginei”²³⁵. Hala ere, errepikatu egin behar dugu, Beasaingo tokiko baldintzek (metal-enpresa handia, Gipuzkoako 1.000 langiletik gorako bakanetakoa edukitzeak), krisia Beasainen ere gogorra izaten lagundu zuten²³⁶, baina Gipuzkoa barruan nolabaiteko salbuespena izan zen.

²³³ ANSEL, Dario: op. cit, 30. or.

²³⁴ Gipuzkoako industrian, emakume langileen kopurua 1930ean, 7.237 langilekoa zen, %15ekoa beraz. Gehienek josten, industria kimikoan edo oihalgintzan egiten zuten lan.

²³⁵ ANSEL, Dario: op. cit., 23-25. or.

²³⁶ Hori Dario Ansel berak ere onartu behar du, Eibarko eta inguruko armagintzarekin batera, Gipuzkoan salbuespena izan baitzen. Ibid., 26. or.

Egia esan, krisi hori, CAFentzat gauzak ezin hobeto zihoazela zirudienean etorri zen, 1920.eko hamarkada-bukaeran goia jo baitzuen enpresak. 1929an, krisiaren urtean, 1.670 bagoi egin ziren eta 1930ean 30.000. zenbakidun bagoia egin zen²³⁷. Baina 1931 eta 1936 arteko aroa oso zaila izan zen, bosturteko horretan 675 bagoi soilik egin baitziren (okerrena 1932. urtea izan zen, bagoi bakarra egin zen-eta). 1931 eta 1939 arteko tartean, ez zen balantze positibo batekin itxitako urterik izan “fabrika haundian”²³⁸.

Hain zuzen ere, krisi hori, CAFek bere fabrikari berrikuntza handi bat hasi zuenean suertatu zen. Izan ere, 1928 eta 1932 urteen artean, CAFek, bere instalazioetan bandajeen eraikuntza berritzeko, gorputz bakarreko "monobloc" gurpilak egiteko berrikuntza bat sartu zuen. Halako piezak egiten zituen beste lantegirik ez zegoen Espainiako Estatutan²³⁹. CAFen 1928ko modernizazio-planak, horrez gain, Heroult markako labe berri bat erostea ere ekarri zuen, lehen atalean azaldu izan dugun bezala. Lehenago aipatu dugu, CAF Gipuzkoako enpresarik handiena zela II Errepublikaren garai horretan.

1933rako “fabrika haundiak” halako instalazioak zituen: Gurpildegia-saila (gurpilak forjatu eta ijezteko tailerra, bandajeak forjatu eta ijezteko tailerra eta mekanizatzeko tailerra barne zituela), moldeatze-saila (moldeatzeko tailer bat eta eranskinak, brontzea eta burdina eta altzairua moldeatzeko tailerrak eta moldeatutako piezak bukatzeko tailerra barne zituela), altzairuen saila 16 tonako Siemens Martin labearekin eta 35 tonako Siemens-Maerz labearekin, muntaketa-saila (muntaketa tailerra, aroztegi mekanizatu, profilak lantzeko tailerra eta margotze-tailerra barne zituela), argi-ingar zerbitzu ezberdinak (Zaldibiako zentraltxoa, argi-ingar eraldatzeko sareak eta lantegi barruan argi-ingar hori banatzeko sareak), hiru laborategi (kimikoa, metalografikoa eta saiakuntza mekanikoak egiteko laborategia), biltegiak, suteen aurkako zerbitzuak, edateko ura banatzeko tutueria eta trenbideak (bai fabrikaren barruko sarea eta baita trenbide orokorrarekiko lotura ere)²⁴⁰.

Hala ere, Beasainen, Gipuzkoako enpresarik handiena bazegoen arren, krisiak gogorren jo zuen sektoreko, metalurgiako, enpresa zen lantegi hori. Krisia berez,

²³⁷ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 36-37. or.

²³⁸ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 118-119. or.

²³⁹ Ibid., 109. or.

²⁴⁰ Ibid., 109-111. or.

2. kapitulua

1929ko New Yorkeko burtsak hondoa jo zuenean hasi zen, baina Espainiako Estatuaren kasuan, eta euskal industriaren kasuan, batez ere ekonomia-egitura babeslea izan zelako etorri zen (CAF horren adibide dugu eta lehen kapituluan esan genuen batez ere Estatuaren kontratuetatik ateratzen zituela eskaintzak), gastu publikoaren murrizketak ekarria izan zen eta CAFekiko eta metalurgia-enpresa askoren eskaerak jaistearen ondorioz, haien krisiak eta lanpostu-galerak, gainontzeko enpresei eragin egin zien, askok enpresa handi horientzat hornikuntza-lanak egiten baitzituzten.

Zergatik hasi zen Beasaingo populazioaren beherakada 1934an, krisia 1931n hasita eta 1934. urtearen bukaeran susperraldi txiki bat izanda? Egia esan, ez dugu arrazoi zehatzik galdera horri erantzuteko eta gainera ikerketa honen asmoak gainditu egiten ditu, baina erantzun posible batzuk aurreratuko ditugu. Erantzun horietako bat, aurreko zifrak ontzat hartuz gero, hau izan daiteke: Beasaingo langile-familiek, Beasaindik joateko bazutela halako “mesfidantza” moduko bat eta erroak hemen botata egonik hemendik beste norabait joateko itxaropenik ez zutela, beraz, askok joateari uko egin ziotela lehen urteetan, baina 1934. urtearen erdialdera beheraldiaren unerik gogorrena izan zenean egoera gogortu egin zela. Kontuan hartu behar dugu garai hartan ez zegoela lantegitik kalera botatakoak laguntzeko plan berezirik; 1901ean gaixotasunen aurkako plan bat bazen arren, horrek ez zituen kalera botatakoak babesten²⁴¹. Gehienez ere Enpresak ordaindutako 15 eguneko soldata izan zen kalte-ordain gisa ordaindu zena²⁴². Beraz, beste norabait joaten ahalegindu zirela. Beste hipotesi bat hau izan daiteke 1934ko beherakada azaltzeko: langileek hemen etorkizunerako itxaropena galdua izatea. Lau urte zeramatzan CAFek egoerari bueltarik eman gabe eta gero eta jende gehiago gelditzen zela langabezian. Orduan "exodoa" hasi zela kanporantz eta langile asko euren familiekin joan bide zirela; hurrengo urteetan, ordea, 1935-1936 biurtekoan, susperraldiarekin, CAFeko langile zirenak soilik itzuli zirela baina familiarik gabe. Beste hipotesi bat, berezko hazkundearen geldialdia zein kanpotik etorritako etorkinen etenaldia izan daiteke.

2.3.b) Beasaingo Udalaren eta eragile ezberdinen erantzuna krisiari

Jakin badakigu Beasaingo Udala (errepublikanoen eta sozialisten eskuetan) lanik gabe geratu ziren pertsonak laguntzen saiatu zela. Adibidez, Udalak, lanik gabe zegoen

²⁴¹ Langile gaixoak babesteko plan hori *Compañía de Seguros Vasco-Navarra* enpresaren bitartez kudeatzen zen. ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 106-107. or.

²⁴² LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 120. or.

jendeari laguntzeko arropa-bilketak sustatu zituen²⁴³ eta langabetuen seme-alabentzako doako jangelak jarri zituen Udal-eskoletan²⁴⁴, edo 1933ko Loinatz jaietan²⁴⁵ zein 1933ko Gabonetan²⁴⁶ premia handieneko langabeei laguntzeko dirua bildu zuen. Halako ekimenekin, herriko talde ezberdinek laguntza eman zuten, Zurbano Meleroren arabera, “sindikatuak eta elizak” Udal arropa-biltegi horrentzako arropa bildu zuten eta Miren Barandiaranek, ELAren ekarpena nabarmentzen du²⁴⁷. Langabeziaren aurka hartzea pentsatu zen beste neurri bat, langabeziaren aurkako zerga bereziak (kontsumoaren zein esportazioaren gainekoak, eta ekoizpenaren gaineko %4ko zerga; diferentzia langabetuentzat izateko) jartzea izan zen (1931ko azaroan Eibarko Udalak proposatu zituen neurriok). Hilabete horretako azaroaren 6ko bilkuran, Beasaingo Udalak, herriko enpresarien artean galdeketa bat egiten hastea proposatu zuen. Hala ere, Beasaingo fabrika handiak (tartean Severiano Azpeitia zinegotzi ezkertiarrena zen Construcciones Azpeitia fabrikak) zerga hori jartzea arriskutsua zela esan ostean, azkenean ez zen halako neurririk hartu²⁴⁸.

Alabaina, herrian bertan ahal zen lanik gehien topatzen ere saiatu ziren, langabetuentzako lan-poltsak sortuta. Jose Gabriel Zurbanoren arabera, 1935 eta 1936 artean 150 bat langile zeuden lan-poltsetan izena emanda, horietako %90 baino gehiago CAFekoak ziren²⁴⁹. Lan-poltsa horietan sartzeko baldintzak 1934ko urtarrilaren 4ko Udal-bilkuran onartu ziren; beste batzuen artean, langabe guztiek lan-poltsan izena emateko eskubidea zutela esan zen, baina horrekin batera langabetuaren liburuxka bat eramane behar zuten, lana topatzerakoan, gehienez ere zortzi egun igarota udaletxean utzi behar zutena. Udalaren arabera, langabeen bi zerrenda egon behar zuten: adinekoena eta adin txikikoena hain zuzen ere, eta hilero joan behar zuten zerrendan

²⁴³ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 119. or.

²⁴⁴ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 108. or.; eta LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 121. or.

²⁴⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 18. dokumentua. Hala ere, horrek eztabaida txiki bat piztu zuen, izan ere, Udalak ez zuen onartu langabeen bilketa-modua.

²⁴⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua. Proposamen hori 1933ko abenduaren 16an onartu zen. Diru-bilketa horretan Udalak zenbat jarri behar zuen aferak eztabaida piztu zuen (400 pezeta jarri zituen Udalak, Pedro Lasak 500 pezeta proposatu bazituen ere). Beste eztabaida bat, diru-bilketa hori Arriaran-Garin errepidea egiten lanean ari ziren langabeentzat (Langabeen Batzordeak eskatzen zuen bezala) edo lan-poltsan izena emandako denentzat izatearen inguruan izan zen, azkenean bigarrena hobetsiz. Hala ere, zazpi egun beranduago, abenduaren 23an, langabeen batzordeak berriz ere protesta egin zuen gai horregatik Udalaren aurrean.

²⁴⁷ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 108. or.; eta BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 105. or.

²⁴⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. F014 karpeta, 41. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 02. dokumentua

²⁴⁹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 123. or.

2. kapitulua

euren izena baieztatzen; bi aldiz segidan huts eginez gero langabeen poltsatik kanpo gelditzen ziren. Bestalde, momentuan eskaintako lanetarako (momentu horretan Arriaran eta Garin arteko errepidea egiten ari ziren) gai ez ziren langileek, ezgaitasun hori justifikatu egin behar zuten. Lan-txandak hamabost egunekoak ziren, langabe denek lan egiteko modua izan zezaten²⁵⁰. 1935ko abuztuan, Udalak jakinarazi zuen, guztira 321.342,32 pezeta kosta zela errepide hura egitea (hasierako aurrekontua 235.640 pezetakoa zen), eta gainera, artean eskatutako kredituaren 16.450 pezeta zor zirela²⁵¹.

Jose Antonio Egidoren arabera, langabetuek, beste lan batzuen artean, auzo-errepide batzuk egin zituzten, adibidez, herritik Erauskin auzorako errepidea, edota Arriaran eta Garin auzoen arteko errepidea²⁵². Errepide horren lanen inguruan, Zabaleta kontratistak, langabetuen lan-poltsan zeuden %40 kontratatzeke konpromisoa hartu zuen, lan-taldetxoak egin eta taldetxo bakoitza bi astez aritzeko²⁵³. Zaldibiatik Gaintzarako errepidea egin zuten langileen artean, %25 langabetuak izan ziren, hasieran, %60 hala izango zirela uste izan zen arren (Egidok enpresa kontratatzaileak kontratuaren baldintzak apurtu zituelako aurreikusitakoa baino langabetu gutxiago kontratatu zirela dio)²⁵⁴. Hausturaren arrazoia, dirudienez, Aldundiarekin egindako hiru aldeetako kontratua guztiz argia ez izatea izan zen²⁵⁵). Gaintzarako bidea egiterakoan kontratistak erabili zituen kontratazio-moduak langabe-poltsan zeuden langileek oso kritikatuak izan ziren; langile batzuk “finko” bezala eraman zituela-eta. Hori dela-eta, kexu bat aurkeztu zuten Beasaingo Udalean, honek 1934ko maiatzaren 5ean egin zuen bilkuran²⁵⁶.

Herri-lan gehiago ere proposatu zituzten Beasaingo Udalean: 1934ko urtarrilaren 8an, Aguado Larriche eta Lasa Segurola zinegotzi sozialistek Beasaingo

²⁵⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua. Mozioa Beasaingo Langabeen Batzordeak prestatu zuen eta Doroteo Aguadok eta Pedro Lasak aurkeztu zuten.

²⁵¹ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

²⁵² EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 22. or.; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua. Hala ere, errepide hori egiterako langileak hartzeko modua zela-eta, langile batzuk 1933ko apirilean kexua agertu zuten. 1933ko martxoaren 27ko Udal-bilkuran garindar biztanle batzuk, kontratatzeke orduan, garindar langabetuak lehenesteko eskatu zuten. Uztailaren 13an, ordea, Pedro Lasa Segurola zinegotzi sozialistak langabetuen kexuak Udal-bilkuran agertu zituen, kontratistak txanda bakoitzean adostutakoa baino langabe gutxiago kontratatzen zituela-eta.

²⁵³ Beasaingo Udal Artxiboa A010 karpeta, 05. dokumentua.

²⁵⁴ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 22. or. Bestalde, 1934-V-5ean eginiko Beasaingo Udalaren bilkuran, langabeak (Beasaingoak, Ordiziakoak, Lazkaokoak zein Ataungoak), langile-kopuru osoaren %70 izan behar zutela esaten zuten. Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 06. dokumentua.

²⁵⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 06. dokumentua.

²⁵⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 06. dokumentua.

langabeek ur-gordailua handitzeko lanetan, Lazkaorako bidean zubia egiteko lanetan, pilotaleku berria egiteko lanetan eta Antzizarko pasabidea kentzeko lanetan aritzeko kontratatzea proposatu zuten. Hala ere, urtarrilaren 11ko bilkuran, pilotaleku berria egiteko proposamena bertan behera gelditu zen, alkatearen ustez “une hartan” lan hori egingarria ez zelako (hala ere, ekainaren 2ko bilkuran Leoncio Ibarbia zinegotziaren ekimenez, frontoia konpontzeko proposamena onartua izan zen²⁵⁷. Udal-aldaketa zela-eta, 1936ko maiatzean egikaritu zen frontoia konpontzeko proiektuaren hasiera²⁵⁸). Beste hiru lanak egiteko asmoak “aztertzea” erabaki zen, lehenengoari buruz “aurrekariak aztertzea” eskatu eta onartua izan zen, eta zubiaz eta pasabideaz, Aldundiari lanetan laguntzeko eskatzea²⁵⁹. Antzizarko pasabidea egiteko lanak azkar hasi ziren, 1934ko urriaren 31n, zazpi langabetu kontratatuz. Baina beste biak, Zazpiburriaren ur-gordailuaren handitze-lanak eta Lazkaorako bidean zubia egitea, Gobernadoreak Udal berria inposatzearekin batera, moteldu egin ziren. Manuel Perezen garaiak, hori bai, Udalak 300.000 pezetako subentzio bat jaso zuen langabeak birkokatzen saiatzeko²⁶⁰, baina Udal horrek proiektu berriak onartu zituen, Lazkaoko pasabidea alde batera utziz (ur-gordailuari dagokionez, Zazpiburriakoa ez, Arkasingoa handitzea erabaki zuen Udal berriak). 1935 urtea amaitzean, *Esquisabel y Compañía* altzari-enpresak beste pabilioi berri bat egitea eskatu zuenean, lan horietan erabiliko zituen langileen %80 lan-poltsatik hartuko zituela esan zuen²⁶¹. Beste alde batetik, langabeak hilerriaren berrikuntza egiteko ere erabili ziren eta lan hori Jose Luis Guridi kontratistari esleitu zitzaion; guztira, 4.362,30 pezetako subentzioa izan zuten lanek Langabeziaren Aurkako Batzordearen aldetik eta 1936ko maiatzean bukatu ziren²⁶².

Bestalde, Enrique De Francisco Madrilen PSOEn aldetik diputatu zen tolosarrak, Beasaingo langabetuei eskola berriak (Martina Maiz kalekoak, Estatuak 1931n onartu zituen haiexek) egiteko enkargua emateko bitartekaritza lana egin zuela ezaguna dugu²⁶³. Baina ezin dugu pentsatu langabeen eskaera guztiak onartuak izan zirenik: Pedro Lasa zinegotzi sozialistak langabetuen mediku-kontsultak eta botiken

²⁵⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

²⁵⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

²⁵⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 2138. karpeta, 33. dokumentua.

²⁶⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

²⁶¹ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

²⁶² Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

²⁶³ Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 43. or.

2. kapitulua

gastuak Udalak ordaintzeko Elkarte Sozialistaren proposamena aurkeztu zuen, baina hura ez zen onartua izan²⁶⁴.

Horrez gain, Beasaingo Udalak, bertan lana topatu ezinik zebilen, eta beraz, herrian gelditu ezin zen jendeari bere herrira itzultzeko tren-txartela ordaindu zion (Ordiziako Udalak ere erabaki hori hartu zuen)²⁶⁵. Halako erabakia gauzatzeko, 1932an 2.500 pezeta gastatu zituen Beasaingo Udalak²⁶⁶. 1932ko azaroan, 140 txartel ordaindu zituen Beasaingo Udalak, eta beste bat abenduan. Helmugen artean, bost Arabara joan ziren, beste zortzi Nafarroara, eta gainontzekoak Euskal Herritik kanpo²⁶⁷.

Jose Antonio Egidori garaiko lekuko batek (Joxe Manuel Ibarbiak) kontatu zionaren arabera, jendetza bildu omen zen tren-geltokian joatera zihoazenei agur egitera, eta haiek trenetik “bagoaz baina laster itzuliko gara!” erantzuten omen zuten²⁶⁸. Halako testigantzek erakusten dute bertan kanpotik etorritako langileen eta bertan jaiotakoen artean, jada garai hartarako bazegoela elkarrekikotasuna eta konplizitatea. Antzeko zerbait gertatu zen Ordizian, non etorriekiko abegikortasuna ere bultzatu zen eta horren lekuko 1934an Ordiziako alkate Patxi Iturriotzek, “Patxi Zabale” ezizena zuenak, esan zituen hitzak: “Goierriko hiriburuko seme-alaba izateaz harro gaudenok beti eman diogu kanpotik hona zetorrenari oso harrera abegikorra”²⁶⁹. Ordizian ere langabetuen lan-poltsa bat sortu zen, ordiziar langabetuek Gaintzako errepidea eta Legorretako pasabidea egin zituzten²⁷⁰; herri honetako lan-poltsa erregulatzeko batzordean UGTren eta ELAren ordezkariak ere onartu zuten; eta Beasainen bezala, langabeei euren herrira itzultzeko aukera eman zien Udalak treneko txartelak ordainduz²⁷¹. Baina halako laguntza eman izanak ez du esan nahi tentsiorik izan ez zenik. Izan ere, 1935-1936 aldera “fabrika haundiko” langile batzuk, susperraldi-itxaropena zela-eta, itzultzen hasi ziren, eta berriz ere lanak gora egin zuenean

²⁶⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 18. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

²⁶⁵ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 122. or.; eta ZURBANO MELERO, Jose: op. cit., 108. or.

²⁶⁶ Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa). JDIT 3278-1 dokumentu-sorta.

²⁶⁷ Probintziak jarriko ditugu hemen datuak, Beasaina lanera etorritako langileen jatorriaz datuak ematen baitira: Valladolidera 60; Burgosera 23; Errioxara 14; Palentziara 13; Madrilera 8; Kantabriara 5, Lugora 2, Asturiasera 1 eta Bartzelonara 1. Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 40. dokumentua.

²⁶⁸ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 22. or.

²⁶⁹ GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkarte. Oñati, 2004, 93. or.

²⁷⁰ Lan horiek 1933. urtearen bukaeran hasi ziren, eta bertan enplegatu beharrekoen %40 langabetu ordiziarrek eta %20 langabetu legorretarrak izan ziren. Hala ere, 1933ko irailaren 9ko Udal-bilkuran Beasaingo Udalak, Ordizian langabeziak behera egin zuela-eta, langabetu beasaindarrak hartzeko eskaera egitea erabaki zuen.

²⁷¹ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 23. or.

(gogoratu 1934an 754 langile gelditzen zirela CAFen eta 1936ko uztailaren 18rako 1.154 langile zirela, beraz, 400 lanpostu gehiago), berreskuratutako lanpostuak “berriz hartzeko” bi irizpide ezberdin agertu ziren: batzuek (ziurrenik, joandako askok), eskarmentua, antzinasuna eta gisako ohiko irizpideak kontuan hartzea eskatu zuten, eta hala izan zen; baina horrek beste langile batzuk, Beasainen gelditutako asko, atsekabetu zituen, horiek herrian gelditzea erabaki zutenei lehentasuna ematea eskatzen baitzuten²⁷². Halako gatazka bat Udal-bilkurara ere pasatu zen, 1934ko apirilaren 26ko Udal-bilkuran Udalak, Serafin Arana zinegotzi errepublikanoak proposatuta, CAFek langabeak hartzekotan, “herrian edo oraindik industria-ingurune honetan daudenak” lehenestea onartu baitzuen. Kontrako ikuspuntua Pedro Lasa Segurola sozialistak defendatu zuen, esanez, proposamen horrek legea urratzen zuela eta CAFetik krisia dela eta botatako denak CAFeko langileak zirenez gero, berronartuak izateko eskubidea zutela denek, langabezia egon ziren bitartean Beasainen geldituak edota beste toki batera joanak izan. Aranaren mozioa zinegotzi errepublikano eta eskuindarren botoaz onartua izan zen, sozialistek aurka bozkatu zuten²⁷³. Hori ez zen izan 1934ko urritik aurrera Manuel Perez alkatearen eta Gobernadoreak izendatu zuen Udal eskuindarraren iritzia. Udal horrek, 1935ean Madrilen egindako kudeaketa batzuen inguruko gutun baten arabera, bertan gelditu ziren langileak lehenetsi behar zirela zioen²⁷⁴. 1936an zehar Langabetuen Batzordeak eta Udalak (Victor Bernedo alkate zela) egindako bilera batzuetan ere, langabeek (Beasaingo Udalaren lan-poltsan izena emanda zeudenek) Laneko Oinarrien 29. artikulua, kalera botatako langileak berronartzerakoan antzinasuna lehenesten zuena, kentzea eskatu zuten berriz ere²⁷⁵. Langabeak 1936ko ekainaren 6ko bilkura oztopatzera iritsi ziren “Lana nahi dugu!” oihukatuz. Langabeek esan zuten euren atsekabea ez zihoala Udalari bideratua, horrek “ahal duena egin baitu”, baizik eta Gipuzkoako eta Estatuko agintarien aurka zihoala, haiek ez omen zutela egiten-eta euren eskuetan zegoena²⁷⁶. Hala ere, hori izan zen, 1934ko iraultza kenduta (eta iraultza horrek ez zuen berez langabezia-egoera konpontzea xede, langabetuek iraultza hori bultzatu zuten arren), Beasaingo langileek adostasun-gabezia azaltzeko egin zuten ekintza apurretako bat, ordura arte, erakundeekin elkarlana egitea ikusi baitzuten CAFeko langabeziaren auzia konpontzeko bide moduan. Hala ere,

²⁷² LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 122. or.

²⁷³ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 06. dokumentua.

²⁷⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

²⁷⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

²⁷⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

2. kapitulua

interesgarria da ez zutela zuzenean Beasaingo Udala eraso, baizik-eta “goragoko erakundeak”. Hau da, langileak jabetuak ziren egoera hori egiturakoa zela, ez inguruabarrekoa, beraz Estatuko agintarien aurka egin zuten protesta. Hala ere, horrek erakusten du, halako krisien aurrean, tokian tokiko protesten muga herritik gutxi aldentzen dela eta Beasaingo langabeen protestak, Gipuzkoako edo eremu zabalago bateko langabeekin koordinatu ezean, tokiko izaera izango zuela derrigorrez, hain zuzen ere langabeen aldeko zerbitzuak kudeatzen zituen Udalaren aurrean egina.

Krisiaren aurrean, CAFek bultzatutako politika, ekoizpena dibertsifikatzen saiatzea (gogoratu behar dugu CAFek beti ez zuela trenbide materiala eskusibotasunez egin eta XX. mendera arte batez ere bestelako industria-ekipamendua ere egiten zuela) eta Estatuaren aldetik kontratuak lortzea izan zen. Adibidez, 1933an nekazaritzako makineria egiten hasi zen, bestelako lanen faltan²⁷⁷. Nekazaritzarako makineria egiteak 150 lanpostu sortzea ekarri zion eta lan-astea bost egunekoa izatera pasatzea²⁷⁸. Beste alde batetik, Estatuaren aldetik, kontratuak lortzeko bidea itxi samarra zegoen, izan ere, Errepublikako Gobernuak, nazioarteko krisia zela-eta, aurrekontu bereziak, trenbideetakoak barne, geratzeko agindua eman zuen²⁷⁹ (gastu publikoa eta zor publikoa jaulkitzen murrizketak egitea, Errepublikako gobernu ezberdinen politika ekonomikoaren ezaugarri izan zen, Gobernu ezkertiarren agintaldietan ere eta 1933ko CAFen dokumentu batek 1932an zioenez, “ez zegoen krediturik bagoi berriak ordaintzeko”²⁸⁰). Kontuan izanik Espainiako kapitalismoaren (kasu honetan euskal enpresak ere etiketa horren barruan sartuko ditugu, Euskal Herriko industriaren garapena Espainiakoaren pare joan izan baita, kasu askotan aitzindari izan den arren) izaera oso babeslea zela, eta Estatuaren aldetik esleitutako herri-lanen edo enkarguen mendekotasuna handia izan zuela, halako berri bat oso kolpe latza izan zen halako enpresa batentzat. Hala ere, CAFek kontratu batzuk lortu ahal izan zituen, txikiak izan arren²⁸¹. CAFeko enpresariak, normalean, Gipuzkoako ordezkari politikoekin (Aldundiarekin, alkate ezberdinekin, Madrilgo parlamentuko gipuzkoar diputatuekin) bildu ohi ziren, enpresa aurrera ateratzeko. Era berean, ordezkari sindikalak ere, Gobernuari (kasu honetan ahaidetasun ideologiko ere bazegoen, ezkerreko Gobernuan

²⁷⁷ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 118. or.; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 38. or.

²⁷⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 251 karpeta, 04 dokumentua.

²⁷⁹ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 114-115. or.

²⁸⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua. Dokumentu horretan, bagoien prezioak “finkatuta” zeudela dio eta merkatzea ezinezkoa zela ere esaten du.

²⁸¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

sozialistak ere bazeuden-eta), lana bermatzeko neurriak eskatzen zizkieten. Ez ziren gutxi izan Madrilera, arazoari konponbide bat topatzera, joandako “gipuzkoar ordezkariak” (aipatzekoa da, praktikan, halakoak lurraldeko indar guztiek ahots batez hitz egiten zuten kasu bakanetakoak zirela)²⁸². Horietako baten berri badugu eta 1933ko abuztuan, Indalecio Prieto ministroak esan zien, “berak ezin zuela ezer egin, krisia nazioartekoa zela-eta” eta “trenbide-konpainiek ezin zutela diru gehiago gastatu”²⁸³.

Beasainen bertan ere halako Batzar handi batzuk antolatu ziren: lehena, dirudienez Ordiziako Udalaren ekimenez, Ordiziako, Beasaingo eta Lazkaoko Udalak, eta bi sindikatu nagusien ordezkariak (UGT eta ELA) agertu zirenekoa. 1932an, Madrilera langabetuen ordezkariak bat bidaltzea adostu zuten eta ordezkariak hori Juan Usabiaga diputatu errepublikanoak, iraganean Ordiziako zinegotzi izandakoak lagundu zuten (batzar horretan 55 bagoi egiteko kontratu bat lortu zuten –hala ere 600 egiteko eskaera egin zuten-, eta beste kontratu batzuk ere eskatu zituzten, bai Mendebaldeko Burdinbideetan eta baita Madril-Zaragoza-Alacant trenbidean ere)²⁸⁴. Bigarren batzar bat 1933ko abuztuan bildu zen, Beasainen halaber. Gainera batzar horren akta ere badugu: bildutakoak bost alkate (Beasaingoaz gain, Ordiziakoa, Lazkaokoa, Ataungoa eta Olaberrikoa), Beasaingo lau elkarte politiko (Elkarte Sozialista, Zentro Errepublikanoa, Zirkulu Tradizionalista eta “Euzko Etxea”, hau ziurrenik batzokia izango zen), Beasaingo eta Lazkako ELA, Ordiziako Metalurgiako Sindikatua, Beasaingo Merkatarien Elkarte, Beasaingo Jabeen Elkarte bildu ziren eta Beasaingo Elkarte biak, Joko Kasinoa eta Burdinbideetako Joko Elkarte bildu ziren. Batzarrean, aurreko kontratuko 55 bagoiak bukatzeaz zeudela eta nekazaritzarako makineriaren lanak ia beteak zeudela-eta, berriz ere egoera okertzeko arriskua zegoela jakinarazi zuten. Batzar horretan Ministerioari enkargu berrien enkanteak egiteko eskatzea adostu zuten, eta egoera leuntzeko Udalen lana eta Aldundiaren zein gobernadorearen laguntza aintzatetsi ziren²⁸⁵.

²⁸² Eta esan beharra dago baita ere, garai hartako Espainiako Estatuko politikan, Errepublika nondik zetorren jakinda, hots, Berrezarkuntza Monarkikoaren erregimenetik, erregimen haren ohitura guztiak ez zirela izan osoro ezabatuak. Ohitura horietako bat hau zen, hots, “eragina zuten pertsonen” inguruko politika egitea. Kontuan izan behar da halaber, 1931n Gipuzkoan aukeratutako diputatu errepublikano bat, Juan Usabiaga, Ordiziako zinegotzia izana zela (sortzez donostiarra zen arren), beraz eskualdearen interesak defendatzen gogor saiatu zen.

²⁸³ *Euskadi Roja*, 1933-VIII-26koa. Prietoren erantzun hori gogor kritikatu zuten komunistek euren prentsan.

²⁸⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua; eta ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 23. or.

²⁸⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

2. kapitulua

Azkenik, Beasainen bertan 1934ko urtarrilaren 26an beste batzar bat egin zen. Batzar horretatik dakiguna, Lan Publikoen Ministerioari bidalitako gutun batek dioena da (orduan Gobernuak jada eskuinaren eskuetan zegoen). Gutun hori, Beasaingo Ordiziako eta Lazkaoko Udalek, eta PSOEek, ELAk, eta *Sindicato Católico Profesional* (Sindikatu Katoliko Profesionala) izenekoak eta CAFeko ordezkariak sinatu zuten²⁸⁶; eta horiez gain Goierriko herri ezberdinetako erakunde sindikalak eta Zaldibiako, Ataungo, Olaberriko, Idiazabalgo, Segurako eta Zegamako Udalak ere ordezkariak egon ziren²⁸⁷. Gutun horretan, aurretik Gipuzkoako gobernadore zibila eginiko bitartekari-tza-saiakerak aipatu izan dira, CAFi bagoi berriak egiteko enkargu berririk ez baitziztaion eman. Gutun horretan, CAFen egoera gaitza deskribatzeaz gain, haren eskaerei entzungor egin izana gogorarazten da (azkena, 5.000 bagoi konpontzeko/ordezteko eskaera, azkenean 600 bagoitara murriztu zena). Idatzi horretan, 600 bagoi horien eraldaketa egin artean, lan-astea eta lanegunak beren onera itzul daitezkeela esaten du, baina bukatzean, lan-aste murriztura itzuliko zirela eta bitartean hartutako langileak berriz kalera bota beharko zituztela esaten zuten. Bildutakoek, Lan Publikoetako Ministerioari, aldi baterako laneko ziklo horretatik ateratzeko, CAFi Madril-Zaragoza-Alacant trenbiderako lau automotore egiteko enkargua emateko proposamena luzatu zioten; CAFek egoera horretatik ateratzeko lana behar zuela eta “enkante gehiago” deitzeko aldarria egin zuten²⁸⁸. Ikusten den bezala, Estatuaren aldetik kontratuak murrizteak ekarri zuen CAFen hondamendia, eta kontratu horiek berreskuratzea ezinbestekoa ikusten zuen enpresak lanean jarraitu ahal izateko.

Eskualdetik kanpo ere bildu ziren halako eragile batzuen batzarrak, adibidez, Donostiako Aldundiaren egoitzan, 1934ko otsailaren 4an, Gipuzkoako Ahalduen Nagusia bera eta Madrilen EAJren aldetik diputatu ziren Rafael Picavea eta Juan Antonio Irazusta ere bildu ziren. Bilera horretan, hurrengo kontratuak lortzeko bitartekari-tza diputatuen esku uztea erabaki zen. Beste alde batetik, 600 bagoi eraldatzeko (piezak ordezteko) akordioa lortu zen arren, 5.000 bagoirentzako eskaerak lortzeko itzaropena ere bazen, hori baitzen berri beharrean zeuden bagoien kopurua²⁸⁹.

²⁸⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua. Hurrenez hurren, Jacinto Urteaga, Francisco Iturriotz, Francisco Albisu, Antonio Menaza, Constantino Maiz, Eusebio Asla eta Antonio Sierra.

²⁸⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

²⁸⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

²⁸⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 2.138. karpeta, 33. dokumentua eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 39. or.

Bestalde, Beasaingo alkateak ere karta bat bidali zion Indalecio Prieto Lan Publikoetako ministroari, 1933ko urtarrilaren 17an, CAF-entzat lan gehiago eskatuz²⁹⁰.

Hala ere, emaitzak hala-moduzkoak izan ziren, kontratu txiki batzuk lortu ziren, baina ez eskatutakoak beste. Ikusi dugun bezala; 1932an Estatuaren aldetik, 55 bagoi egiteko eskaria lortu zuen (600 egiteko eskaria jasotzeko itxaropena izanda), eta urte batzuk geroago²⁹¹, 1934aren bukaeran, CAFek Madrilgo diputatu gipuzkoarren laguntzaz (batez ere, Udalak 1934ko azaroan aldarrikatuaren ildotik, Juan Usabiaga errepublikanoaren eta Ramiro Maeztu monarkikoaren bitartekaritza-lanari esker; azken hori arabarra zen baina Gipuzkoa ordezkatzeko zuten), Madril-Zaragoza-Alacant trenbide-sarerako 400 bagoiko kontratua lortu zuen CAFek²⁹². Horiek ziurrenik 1934ko otsailean Gipuzkoako Aldundian egindako bileran aipatutako 475 bagoien sailekoak izango ziren. Eraikuntzak, ez ezik, berrikuntzak ere egin zituen CAFek; aipatu izan dugu 1933an Lan Publikoen Ministerioak, bagoien parke publikoko 600 bagoi berrizatzeko enkargua eman ziola CAFi, nahiz-eta enpresa horrek 5.000 bagoi berrizatzeko eskaera egin, baina ez dugu eskaera gehiagoren berririk²⁹³. 1932. urtearen bukaeran ere izan zen bi elementuak (materiala dibertsifikatzea eta kontratu publikoak lortzen saiatzea) uztartu zituen proposamen bitxi bat: Udal-bilkura batean, Udalak eta Beasaingo elkarte politikoek eta aisialdikoek (bi Joko Elkartek) CAFek Estatuko Armadarentzat materiala egin zezan proposatu zuten. Ez dugu proposamen horren inguruko beste arrastorik, beraz ez zela onartu ematen du²⁹⁴. CAFek urte batzuen buruan egin zuen noski ekoizpen militarra, 1936an, guda-garaian militarizatua izan zenean hain zuzen ere, baina ideologiaz erabat kontrakoa zen armada batentzat: armada frankistarentzat, 1936ko Gudaren testuinguruan. Beste alde batetik, CAFek bere produkzioa “nazioartekotzea” lortu zuen 1934an, Argentinara eta Txilera ere makineria saltzea lortu zuenean²⁹⁵.

²⁹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

²⁹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua. Bagoi horiek egiteko eskaera *Compañía del Oeste* delakoaren bitartez lortu zen, eta enkantea Bartzelonako konpainia batekin erdibana irabazi zuen. CAF-en, dokumentu horren arabera, horrek “hilabete baterako lana” soilik eman zezakeen.

²⁹² Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 38. or.

²⁹³ Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua. Eskaera hori azkenean 600 bagoitara murriztua gelditu zen.

²⁹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. A010. Karpeta, 04. dokumentua

²⁹⁵ LEGORBURU FAUS, Elena: op. cit., 118-119. or.

2. kapitulua

1934aren bukaeran eta 1935ean, Manuel Perezen agintepean, Udalak ere kudeaketak egin zituen. 1934ko azaroan, 400 bagoi eta 5 furgoi egiteko kontratua lortu zuen Beasaingo Udalak, Juan Usabiaga diputatuaren bitartekaritzari esker (nahiz eta Ramiro Maeztuk ere parte hartu zuen negoziazio horietan, Usabiagarena izan zen bitartekaritza-lanaren zama nagusia). Bagoiok *Ferrocarriles del Oeste* konpainiarentzako egitekoak ziren²⁹⁶. Victor Bernedoren agintaldian ere, krisi hori konpontzeko saiakerak egin ziren: 1936ko maiatzean Miguel Liceaga izeneko gizon bati eskatu zion bitartekaritza-lana egitea²⁹⁷.

Beste enpresa batzuek ere krisia sufritu zuten. Adibidez, Serafin eta Pedro Arana Gaiztarroren “Euzkalduna” tinta-fabrika 1931ko azaroaren hasieran itxi egin zen eta 16 langilek lana galdu zuten²⁹⁸. Hala ere, beste fabrika batzuek aurrera egin zuten. Lehen esan dugu, Beasainen bazeudela fabrika gehiago, adibidez, Bernedo alkatearena (metalgintzako sektorean), Arana anaia beraien “*Fabrica de mimbres, junco y médula*” (egurraren sektorean), edota Esquisabel anaien, Irastorzaren eta Oyarbideren “*Esquisabel y Compañía*” altzari-fabrika (egurraren sektorekoa hura ere). Arana anaiek, euren negozioa hobetzeko planak izan zituzten eta 1931ko maiatzean, Oria ibaian, euren fabrikako ekoizpena lagunduko zuen plataforma bat jartzeko baimena eskatu zuten²⁹⁹. 1932an, Bernedo fabrikak antzeko eskaera bat egin zuen, Oria ibaian fabrikaren ezkerreko aldean halako beste plataforma bat eraikitzeke eskatu baitzuen³⁰⁰. Bi eskaerak onartuak izan ziren. 1935eko maiatzean *Esquisabel y Compañía* enpresak, Gipuzkoa plazan (abere-hiltegiaren ondoan), lehengoaren ondoan beste pabilioi bat egiteko baimena eskatu zuen eta onartu egin zioten eskaera³⁰¹. Bestalde *Azkar* enpresak, Beasainen zituen lurak enpresari txiki gelditu zitzaizkiola eta Beasainen lur berriak lortzea zaila izango zuelako, Beasaindik Lazkaora edo Ordiziara joateko proposamenak izan zituela badakigu jakin, izan ere 1935eko uztailan jakinarazi baitzion hori Udalari³⁰². Eta 1935eko urte-bukaerako memoria batean azaltzen da bi aldeek ez zutela akordiorik lortu, nahiz-eta horretan zerabiltzaten negoziazioak ez ziren hautsi³⁰³.

²⁹⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

²⁹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

²⁹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 40. dokumentua; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 42-43. or.

²⁹⁹ Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa). JDIT 1035-6 dokumentu-sorta.

³⁰⁰ Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa). JDIT 1025-7 dokumentu-sorta.

³⁰¹ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

³⁰² Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

³⁰³ Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.

Krisia ondoen pasatu zuen enpresen artean Hunolt tinta-fabrika izan zen, zeinak, 1932an Udalarik bere enpresa handitzea ahalbideratzeko lursail bat, Etxeluze lursaila, saltzeko eskatu zion. Horrez gain, 1932ko ekain eta uztail artean, Beasaingo Udalak, beste fabrika bat jartzeko modua izateko, Estatuari, trenbidearen eta ibaiaren arteko lursailak erosi zizkion (lursail horiek RENFErenak ziren). Proiektu hori oso ambizio handikoa zen, bertan Michelin pneumatikoen fabrika jarri nahi izan baitzuten. Hala ere, lur horiek ezin izan zituzten erosi, Infantadoko Dukeak lur horiekiko beto-eskubidea zuelako eta eragiketa horren aurka azaldu zelako. Beasaingo Udala saiatu zen Michelin fabrikako jabe eta ordezkariekin hitz egiten, bertan jar zezaten lortzeko, baina alferrik izan zen eta 1932ko abuzturako frantziar etxeak fabrika Lasarten egitea pentsatu zuen. Hemen berriz ere nobleziaren klase zaharrak industrializazioari zion beldurraren adierazgarri bat aurkitzen dugu, kasu honetan Beasaingo herriari aukera on bat galaraziz³⁰⁴.

1934ko apirilaren 23ko estatistika baten arabera, Beasainen, CAFez gain, beste bi industria metalurgiko zeuden; Bernedoren fabrika, erremintak eta estanzapazio-lanak egiten zituen eta *Construcciones Azpeitia* izenekoak, makinaria egiten zuena. Horrez gain Emilio Hunolten tinta-fabrika eta lau altzari-fabrika zeuden: Joaquin Aranarena, Esquisabelena, Esnaola eta Apalateguirena eta Aseguinolazarena³⁰⁵.

2.3.d) Langileen mobilizazioa eta agitazioa

CAFen krisiaren aurrean, sindikatuak nagusiki kontziliazioaren bidetik jo zuten. Jose Antonio Egidok aipatzen duenaren arabera, greba-mugimendu apalak egon ziren Goierrin. Egidoren arabera, eta Ordiziako memoria historikoaren taldeak baieztatzen duenez, 1931n Ordizian greba-mugimendu bat ernaltzen hasi zen, baina halere, UGT ez zegoen oso ados, adostasun-bidearen aldekoa baitzen³⁰⁶. Izan ere, garai hartan sozialistak gobernuan zeudela, sindikatu sozialistek, moderazioaren aldeko jarrera izan zuten. Beasaingo eta Ordiziako langileen ordezkariak bat Madrilera joan zen Lan Publikoetako Ministro zen Indalecio Prietorekin elkarrizketatzera, baina hark erantzun zien “lehentasuna Errepublika sendotzen” zegoela, eta horretarako denbora beharko zela³⁰⁷. Beasainen bertan ere langabetuak antolatu egin ziren eta 1932ko abuztuaren

³⁰⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

³⁰⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 63. dokumentua.

³⁰⁶ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 62. or.; eta ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 23 or.

³⁰⁷ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 62. or.

2. kapitulua

10ean, Beasaingo udaletxeko batzar-aretoan bildu ziren, “gure klasearen interesen defentsan batera aritzeko”. Langabetuen batzar horrek, dirudienez, Udal ezkertiarrekin hurbiltasun handia zuen, zinegotzi bat batzordeko kide izatea proposatu baitzuten³⁰⁸. Abuztuan, Udalak bere batzorde horretarako ordezkaria izendatu zuen, Doroteo Aguado zinegotzi sozialista hain zuzen ere³⁰⁹. Azaroan beste eskaera bat luzatu zioten Udalari; Udaleko lanak langabe ezberdinei txandaka eman ziezaieten. Udalaren erantzuna positiboa izan zen, baina aldi berean, Udalak txandakatzea ahalik eta gehien mantentzen zuela erantzun zuen³¹⁰.

Ikusten dugun bezala, Beasaingo langile-klasearen politika nahiko moderatua izan zen, langile-gatazkara joan ordez, beti enprekin zein Udalarekin elkarlanean aritzearen aldeko apustua egin zuten. Errepublikaren aldi osoan, 1934ko langile-iraultza (gero komentatuko duguna) kenduta, Beasainen ez zen grebarik egin (Ordizian bat). Parte batean, ahal zena lortzeko jarrera Beasaingo industriaren motor zen CAF enpresaren ezaugarriengatik izan zitekeen, enpresa horrek Estatuaren kontratuen mendekotasun handia zuenez gero, botere publikoen inplikazioa bilatzen zen enpresarentzako lan-eskaerak bilatzeko, izan ere, horiek topatuta, langabeak berriz berronartzeko esperantza baitzegoen (1936ko berreskurapen-prozesu txikian zehar, langile batzuk berronartuak izan ziren). Beraz, enpresaren lan-karga zen arazoa, ez hainbeste enpresa barruko lan-baldintzak edo langile-multzoa enpresaren ekimenez murriztu izana.

Baina badaude halaber jarrera hori azaltzeko bestelako arrazoi batzuk ere, adibidez, garai hartako Gipuzkoako langileagoaren portaera. CAFen sindikaltze-tasa altu samarra zen, baina betiere langile moderatuei lotuta: 1932ko apirilean (jada langile-kopurua jaisten ari zela) CAFen UGTko 450 langile eta ELAko 300 langile baitzeuden³¹¹. Izan ere, gure herrialdean, garai horretan gatazka gutxi samar izan zen, 1931-1933 aldian batez ere. Halako jarrerak garai horretan langile mugimenduak zuen jarrerarekin bat zetozen, Errepublikaren lehen urteetan ezkerreko alderdienganako langile-mugimenduaren konfiantza hori oso arrunta baitzen. 1931-1932 urteetan Gipuzkoan langile-gatazken kopurua asko jaitsi zen, hein batean langile mugimenduko osagarri garrantzitsu baten eta Gobernuko alderdi baten artean identitate handia

³⁰⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 18. dokumentua.

³⁰⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua

³¹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 18. dokumentua.

³¹¹ *El Día* 1932-IV-39 in ANSEL, Dario: op. cit., 97. or.

zegoelako, eta horrek elkarriketa erraz zezakeelako, eta baita bide instituzionaletik lorpenak eskuratzeko itzaropena zegoelako ere. Aldiz, 1934. urtean, eskuina gobernura iritsi zenean, greben hazkundera nabarmena izan zuten, 1935ean ordea, errepresio-garaia izan zenez, grebak erabat murriztu ziren, eta 1936an berriz, beste hazkundera bat gertatu zen. Greben kopuruaren gora-beherak ulertzeko, Gobernuaren kolorea zein zen kontuan izateaz gain, Gipuzkoako sindikalisten afiliazioa ere kontuan hartu beharko genuke. Konparazio batera, Pedro Barrusok ematen dituen zenbakien arabera, Gipuzkoan 1931 eta 1933 artean, Bizkaian baino askoz ere greba gutxiago egin ziren: 1931n, 13 eta Bizkaian 35; 1932an, 16 eta Bizkaian 26; eta 1933an, 12 eta Bizkaian 17. 1934 izan zen Gipuzkoak Bizkaia gainditu zuen lehen urtea, bietan ere grebek goraldia izanik: 26 Gipuzkoan eta 20 Bizkaian. 1935eko (3 Gipuzkoan eta 5 Bizkaian) eta 1936ko (27 bakoitzean) zenbakiak nahiko parekatuak dira bi herrialdeen artean³¹². Ikusten dugun bezala, 1934az geroztik, Gipuzkoako eta Bizkaiko langile-gatazkak antzeko samarrak izan ziren, bai puntako uneetan zein une apalagoetan. 1931 eta 1933 artean ezberdinu egin zen patroia hori.

Patroi ezberdin horiei azalpen bat topatzekotan, hori langile-erakundeen tamainari so eginez atzeman dezakegu. Gipuzkoan, UGT eta ELA sindikatuak ziren nagusi eta komunistek eta anarkistek askoz ere pisu txikiagoa zuten (nahiz eta, komentatu dugun moduan, Donostian komunistak Donostiako Tokiko Langile Elkarteen Federazio historikoan nagusi izatea lortu zuten). Eta hain zuzen ere, 1931 eta 1933 artean, bi sindikatu horiek oso estrategia moderatuekin zebiltzan buru-belarri: ELA bere izaeragatik, eta UGT, Alderdi Sozialista gobernua zegoelako, “Errepublika sendotzeari” lehentasuna emanda. Egia esan, 1931 eta 1933 arteko “biurteko eraldatzailean”; komunistak eta anarkistak Errepublikaren oso aurkakoak izan ziren, Errepublika burgesa omen zela-eta. Bi mugimendu horiek Bizkaian pisu handiagoa izateak ekarri zuen bi herrialdeen arteko desberdintasuna.

1931n, Errepublika aldarrikatu orduko Gipuzkoako Sindikatu nagusia UGT bazen ere, hurrengo urteetan ELAk aurrea hartu zion. Pedro Barrusoren arabera UGTk 7.631 kide zituen Gipuzkoan (654.403 Espainiako Estatu osoan), eta Policarpo Larrañagaren arabera, 13.000³¹³; Gipuzkoako indar handiena metalean eta papergintzan

³¹² BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 99. or.

³¹³ LARRAÑAGA, Policarpo: *Contribución a la historia obrera del País Vasco*. Aranzadi. Donostia, 1976-77, 114. or.

2. kapitulua

izan zuen sindikatu sozialistak. Sindikatu hori, batez ere industria-herri handietan zen indartsua, baina herri txikietan ahulagoa zen (%90etik gora herri handietan)³¹⁴. 1932a nahiko urte ona izan zen UGTrentzat, izan ere, Alderdi Sozialista boterean egon izanak langile asko erakartzeko aukera eman zion. 1932rako 9.000 bat kide bazituen Gipuzkoan, eta 1933rako 10.500 bat kide, 1931-1933 aroan, urtero mila afiliatutan hazi zen. Argi dago, Alderdi Sozialistarekin gertatu bezala, Errepublikaren etorrerak langile-klasearen baitan itxaropen bereziak sorrarazi zituela eta horrek bai PSOeren zein UGTren aldeko afiliazioa handitzea ekarri zuen (aipatu dugu PSOeren kidetza handitzearen kasua). Hala ere, Gobernua galtzarekin batera (1933ko irailean), kideak galdu egin zituen UGTk, adibidez, 1934an 8.000 kide zituen. Garai hartan, UGTren hazkundeak jasandako beherakada, sozialismoaren botere-galerarekin lotu daiteke. Izan ere, sindikatuaren ideologia-helburuak gora-behera, kontuan hartu behar dugu, langile guztiak ez zirela sindikatzen ideia filosofiko batzuegatik, nahi eta ez, eta norberaren egoera pertsonala hobetzeko egindako afiliazioak ere kontuan ihartu behar dira. UGTk, Alderdi Sozialista gobernuan egotearen txapela galdu zuenean, eta bestetik ELAren garapenak (1933rako EAJ Gipuzkoako alderdirik handiena izan zen) UGTtik ELAra lekualdaketa bat motiba zezakeen. Eta beste alde batetik, Errepublikarengan jarritako itxaropenak pixka bat apaltzea (erregimen berriak ezin izan baitzituen langabezia ez krisia konpondu, eta ezta ere langileen aldeko neurri erradikalik hartu). 1934ko iraultzaren ostean, UGTk, errepresioa pairatu zuenez, kidetza berririk ezin izan zuen egin. Alta, 1936an, Herri Fronteak hauteskundeak irabazi ostean (eta ikusiko dugun bezala, sindikatu komunista eta sozialista batzeko prozesuaren ondorioz, UGTren afiliazioa berriz ere hazi egin zen, 1932-1933 biurtekoko zenbakietara helduz³¹⁵). Azken hazkunde horretan, kontuan hartu behar dugu sindikatu komunistak 1935ean UGTrekin bat egiteak ere nolabaiteko zerikusia izan zuela.

ELAk, nahiz eta 1931n, Errepublika aldarrikatzerakoan, UGTren atzetik Gipuzkoako bigarren sindikatua izan, Errepublikaren aldirian bertan, sindikatu hori gainditu egin zuen. Sindikatu horrek, hasieran, “sozialismoaren kontrako erreakzioa” bere osagai garrantzitsuena bazuen ere (eta sozialismoaren aldetik halako pertzepzioa egon zen hurrengo urteetan ELArekiko), lehen kapituluan esan bezala, pixkanaka mobilizazio sozialetan maizago aritu zen eta garai hartako burgesiarekin harmonia

³¹⁴ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 157. or. UGTk bazuen baseri-langileentzako adar bat, *Federación Nacional de Trabajadores de la Tierra*, baina askoz ere txikiagoa zen.

³¹⁵ Ibid., 139-140., 145., 148-149. eta 157. or.

soziala ezinezko bihurtu zuen. Hala ere, ELAren arabera, borroka sindikala ez zegoen klase sozialen arteko borrokarekin eta klaserik gabeko gizarte baten helburuarekin lotuta, baizik eta lehen komentatutako klaseen harmonia hori posible egitearekin. Hau da, sistema horren barruan langileak kapitalismoaren gehiegikerietatik defendatzea zuen helburu (adibidez, krisi ekonomiko horrek eragina zuen langabeziatik), eta sistemak sor zitzakeen injustiziak konpontzea, sistema puskatzea baino gehiago. Bere ideiak, Elizaren dotrina sozialetik eratorriak ziren eta ez marxismotik, beraz, populazioaren sektore kontserbadoreen gizarte-oinarriari erantzuteko posizio hobean zegoen, herri txikietakoei batik bat. 1931ko emaitzak kontuan izanik, jada komentatutakoak eta aipatutakoak hain zuzen, gehiengo eskuinari eman zioten, eta soziologia kontuan izanik, batez ere populazioaren politizazio eskuindarragatik baino areago erlijioari eta ohiturei lotutako soziologia batengatik; ELAk, jende hori langile-borroka erakartzeko UGTk baino aukera gehiago izan zituen. ELAk, hala, klaseen arteko konfrontazio zuzeneko tresnak erabiltzeaz gain, beste tresna batzuk era erabili zituen, adibidez, langileen arteko mutualismoaren tresna³¹⁶. Beste modu batean esanda, ELAren helburua, iraultzak ekarriko zuen klaserik gabeko “gizarte berri” bat (sozialismoa) baino, klase sozial ezberdinen artean harik eta “berdintasun” gehien ekarriko zuen sistema bat lortzea zen. Kapitalismoa sistema berriago batek ordeztzea baino, antzinako euskal gizarte “berdinkiderantz” “itzultzea” zen gakoa, ikuspegi horrek garai haietako abertzale jeltzaleen ideologiarekin bat egiten zuen³¹⁷.

Beste alde batetik, aurreko lerroketan aipatu izan dugun bezala, PSOE gubernetik ateratzerakoan UGTk afiliatuak galdu zituen eta beste batetik, urte horietan (1933-1934an) EAJren igoera politikoa gertatu izanenez, era berean ELAren hedapen sindikala eman zen³¹⁸. Faktore politikoek panorama sindikalean eragina izan zuten, eta 1933.ean ELAk UGT aurreratu zuen kide gipuzkoarren kopuruari zegokionean. ELAk 2.663 eta 4.673 kide artean (zenbakien arabera) zituen 1931n (1929an, diktadura bukatzean egin zuen Bergarako Biltzarrean 1.500 kide zituen)³¹⁹. 1932rako, Pedro Barrusok Aitzolen dokumentuetan oinarrituta, 7.117 kide ematen zizkion ELAri³²⁰, eta garai hartan, Euskal Herriko ELAren afiliazioa ere hazi egin zen: 20.000 kideetik 40.000

³¹⁶ ANSEL, Dario: op. cit., 40. or.

³¹⁷ Ibid., 60-61. or.

³¹⁸ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 145-146. eta 206-208. or.

³¹⁹ Estimazio baxua Barrusoren da, eta altua Larrañagarena. BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 148-149. or.; eta LARRAÑAGA, Policarpo: op. cit., 114. or..

³²⁰ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 196. or.

2. kapitulua

kide izatera pasa zen ELA³²¹. ELAren hazkundera, EAJren indartzearekin lotu daiteke; EAJ indartsu sartu zen Gipuzkoan 1931ko hauteskundeetan (bai apirileko Udal-hauteskundeetan eta baita ekaineko Espainiako parlamenturako hauteskundeetan ere); eta Estatutuaren kanpainak zentraltasun handia eman zion Alderdi Jeltzaleari. Beraz, Alderdi Jeltzalearengana langile gehiago hurbiltzea ekarri zuen horrek; horri lehen aipatutako arrazoi ideologikoa gehitu behar zaio: erlijio-sinesmenak edo ideologia ez-sozialista zuten gipuzkoarengana (orduaz gehiengoa zirela, gogoratu behar dugu) hobeki hurbil zitekeen. Hala EAJk eta ELAk, nahiz eta elkarrekiko independenteak izan (eta noizbehinka elkarren arteko talkak ere izan) praktikan elkarren hazkundera lagundu zuten. Horrez gain, ulertu behar da baita ere, ELAren ekintza-sistemak, langileen sektore handi batentzat (batez ere ideologikoki iraultzaileak ez zirentzat), sindikaturik “eraginkorrena” izatea ekarri zuen: euren egunerokoan, adibidez, langabezia zeuden langileekin mutualismoa edo asistentzialismoa garatzea³²². Zalantzarik gabe 1933a izan zen ELAren hazkunderako urterik onena, urte horretan herri industrialetatik at herri txikietan ere ezartzeko gaitasuna erakutsi baitzuen sindikatuak, hain zuzen ere, Dario Anselen arabera, “ELA erradikalizatzeko fase batean sartu zen urtea” dugu hori³²³. Urte bukaerarako UGTren zifrak gainditu zituen, Gipuzkoan 11.000 eta 15.000 afiliatu artean izanez³²⁴. Jada urte horretarako ELAk Gipuzkoa osoan zuten presentzia. Jakina denez, 1934an greba-ziklo batean sartu zen Gipuzkoa, ELAren parte-hartzea ere izan zelarik. Prozesu hori 1934ko urriko iraultzan geratu zen, eta iraultza horretan ELAren parte-hartzea txikia izan zen arren, ELAk ere errepresioa jasan zuen eta bere egoitzak itxi egin zituzten. Hala, afiliazioaren hazkunde-erritmoa pixka bat geratu egin zen eta 1935ean landunen eta langabeen artean, 15.000 kide zituen³²⁵, beraz, zalantzarik gabe jada Gipuzkoako sindikatu handienaren posizioa sendotu egin zuen. Gipuzkoan ELAren hazkundera, ELAren Elkarten bidez ere neur daiteke: 1931n 44 elkarte zituen, 1936an ordea, 120. Dario Anselen arabera, hazkunde hori “harrigarria” izan zen, Errepublikaren aurretik ELAk mila kide bakarrik zituela kontuan hartuta. ELA, II. Errepublikan zehar Euskal Herri osoan hazi zen arren, Gipuzkoa izan zen gehien hazi zen herrialdea, eta datu horiek ematerakoan, Anselen arabera, Gipuzkoako ekonomia mota (industria

³²¹ ANSEL, Dario: op. cit., 83. or.

³²² Ibid., 85. or.

³²³ Ibid., 2001, 82. or.

³²⁴ Bi zenbakiak Aitzol tolosar sindikalista, apaiz eta idazleak eman zituen, lehena *Euzkadi* egunkariko 1933-II-22eko artikuluko batean, eta bigarrena Bilbon emandako hitzaldi batean. BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 199. or.

³²⁵ *El Día*, 1935-V-16.

astunak ez zuen Bizkaian adinako indarririk eta ekonomia tradizionala hankaz gora ez zuen bota eta berarekin elkartu zen, lehen kapituluan adierazi dugun bezala), askoz ere hobeto zetorkion ELAren bezalako ideologia zuen sindikatu bati³²⁶.

Beste sindikatuak, anarkistek eta komunistek askoz ere kidetza txikiagoa zuten. CNT anarkistaren kasuan, Gipuzkoan, CNTk ez zuen (beste tokietan bezala) “Tokiko Federaziorik”, baizik eta Gipuzkoako Federazioa soilik zegoen. Horrek, alde batetik, sindikatu anarkistaren ahulezia erlatiboa adierazten du (Gipuzkoan CNT beste sindikatuak baino beranduago sortu zen, 1919an), nahiz eta egia izan, bazeudela sektore batzuk (Pasaiaiko arrantzaleetan, adibidez) anarkisten presentzia oso handia izan zutenak. Bestalde, eraikuntzan ere presentzia izan zuen CNTk, baina betiere gutxiengo gisa. 1931ko CNTren Madrilgo Biltzar Nagusian, Gipuzkoako lau erakunde soilik agertu ziren eta 965 afiliaturen ordezkariak zuten. Sindikatu horren inguruko informazioa txikiagoa da, baina badirudi 1931-1934 aldirian, beste sindikatuak bezala (hala ere maila apalagoan) hazi egin zela, azken urte horretan bederatzi elkarte sindikal baitzeuden Gipuzkoan. Guda hasterako, 1.400 afiliatu zituzten anarkistek, Gipuzkoa osoko eskualdeetan barreiatuta, hala ere, ez herri guztietan: Donostia, Errenteria, Pasaia, Tolosa, Beasain eta Deba arroa ziren anarkisten guneak³²⁷.

Sindikatuaren afiliazioa ikusita, eta sindikatu moderatuak erradikalak baino askoz ere indartsuagoak zirenez jabetuta, Gipuzkoako gatazka-kopuru baxu erlatiboa, batez ere 1931-1933 garaian, zergatik gertatu zen ikus dezakegu. Izan ere, 1931-1933ko greba-tokien arabera begiratu gero, horietako gehienak Donostialdea-Oarsoaldean-Bidasoa eskualdeetan izan zirela konturatu gara, hain zuzen ere komunistek eta anarkistek pisurik handiena zuten tokietan. Pedro Barrusoren zenbakiak jarraituz, 1931ko Gipuzkoako 13 grebetatik 12 bertan egin ziren eta 1932ko 16tik 12 ere bai; 1933an patroia pixka bat aldatu egin zen eta 12 grebetatik 5 soilik izan ziren ingurune horretan eta 6 Deba arroan izan ziren. Horri, populazioaren azalpena eman ahal zaio, hau da, Donostialdean, Oarsoaldean eta Bidasoan Gipuzkoako industria gehienak eta populazio gehiena zegoela bilduta, baina horrek azalpenaren parte bat eman arren, ez du guztia ematen. Izan ere, 1931n eta 1932an Arrasate edo Beasain bezalako herri ezkeriarretan ez zen greba bat bera ere egin, eta Eibarren bakarra. 1933an greba bakarra

³²⁶ ANSEL, Dario: op. cit., 84. eta 95. or.

³²⁷ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 238-239., 241-242. eta 269. or.

2. kapitulua

izan zen Arrasaten eta bi Eibarren, baina horiek ELAk gidatutako grebak izan ziren³²⁸. Horrek ez du esan nahi sozialistek garai horietan ez zutela grebarik egin, baina euren parte-hartzea oso txikia izan zen, eta oro har, 1931-1933 biurtekoan grebak egitea ekidin nahi izan zuen UGTk. Pedro Barrusok esan zuen bezala “sindikatuak bere afiliatuei greba bat hasteko oso baldintza gogorrek jarri zizkien”³²⁹.

Garai hartako greba gehienak, egia esan, lan-arrazoiengatik hasitako grebak izan ziren, ez hainbeste arrazoi politikoengatik (horiek ere izan baziren arren). Hala ere, lan-greba horiek deitzeko orduan, berez sistema politikoaren aurka zeuden indarrek (horiek agian greba politiko bihurtzeko asmoz, edo agian ez, baina zalantzarik gabe, ezegonkortasunari beldur gutxiago ziotenak) deitu zituzten. Beste alde batetik, polizia errepublikanoa ere, gogor aritu zen grebalariei aurka, batez ere “muturreko” mugimenduek deitzen bazuten. Horren adibide dugu, adibidez, 1931ko maiatzeko Pasaiako greba (hemen, antza denez, Jesus Larrañaga beasaindarrak paper nabarmena jokatu zuen, Pasaiako ordezkari komunista Juan Astigarriak berak baino askoz ere handiagoa)³³⁰.

1934an dinamika guztiz aldatu zen. Esan bezala, Gipuzkoako greba-kopurua hazi egin zen (aipatu dugu Bizkaiko kopurua gainditu egin zuela). Grebak ere bortitzagoak izan ziren 1934an. Kasu horretan, testuinguru politikoaren aldaketak eragin zuen greba-kopuruaren igoera horretan, sindikatu guztiak, moderatuak zein erradikalak, greba-bideetara errazago jotzen hasi ziren. Alde batetik, eskuina boterera igotzeak, eta 1931-1933ko lanaren inguruko lege batzuk atzera botatzeak, langile-mugimendua erradikaldu egin zuen eta gatazkara erakarri zuen. Beste alde batetik, UGT barruan ere erradikaltze ideologikoa gertatu zen, Errepublikarekiko erabateko leialtasunetik sozialismoa lortzea helburu gisa jarri baitzuten. Prozesu horrek 1934ko urriko iraultzan jo zuen gailurra. 1934 osoan, urriko iraultza alde batera utzita, bederatzi tokiko greba orokor izan ziren Gipuzkoan eta udalerrri bakarrekoak izan arren, halako greba oso bat egiteko, sindikatu ezberdinen arteko elkarlana behar izan zuten³³¹.

³²⁸ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 81-91. or.; eta ANSEL, Dario: op. cit., 211. or.

³²⁹ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 83. or.

³³⁰ Orduko Donostiako alkate Fernando Sasiain errepublikanoaren ustez, greba Larrañagaren ikuskeraren ondorio izan zen, Juan Astigarriak halako aurrez aurreko zuzen batera joaterekiko askoz ere mesfidantza handiagoa baitzuen. Bestalde, gero, frankismoan polizia-inspektore ezaguna izan zen Eduardo Comin poliziak greba horren atzean PCEko idazkari nagusi Jose Bullejos egon zela esan zuen, baina ez dirudi hori egia izan zenik. EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 45-46. or.

³³¹ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 92-95. or.

1935ean langile-gatazken kopurua jaitsi egin zen, Gipuzkoan soilik hiru greba egin ziren. Jaitsiera hori, 1934ko urriko iraultzaren ondoko langile-erakundeen aurkako errepresioa zela-eta gertatu zela ulertu behar dugu, ez Gipuzkoako errealitate gisa. 1936an ordea, langile-gatazkek berriz ere hazi egin ziren, urtarril eta uztail artean (Guda hasi arte) Gipuzkoan 27 greba egin ziren (maiatzean hamaika eta ekainean zortzi). Otsailetik aurrera berriz ere ezkerre boterean egoteak, oraingoan ez zuen 1931-1933 biurtekoan bezala langile-gatazken kopurua apaltzeko eraginik izan, aurkakoa baizik. Hala ere, egoera oso ezberdina izan zen 1936an eta 1931n. Ezker-eskuin haustura are handiagoa zen (1936ko otsaileko hauteskundeetan bi ikuskera bateraezinen arteko lehia irudikatu zen); eta gainera, 1935eko errepresioaren ostean, langileek, alde batetik eskuinaren eta hau ordezkatzeko zuten patroiekiko arrangura-sentimendua izan zutelako ulertu behar dugu eta errepresioak inposatutako isiltasun-aldia bukatzean, erreprimatutako sentimenduek gainezka egitea ere normalizat jo daiteke. Beste alde batetik, Herri Fronteak, 1931-1933ko lan-legedia berreskuratu zuen (eskuina atzera eragiten saiatu zen arren), eta hor sindikatuak aukera bat ikusi zuten. Bestalde, Pedro Barrusok azaltzen duen moduan, 1934ko gertakariak eta 1935eko errepresioak (eta baita langile-erakundeetan gertatutako bilakaera politikoak), sindikatu ezberdinen arteko hurbilketa ekarri zuen, eta horrela, grebak batera eta indarrarekin antolatzea errazago izan zitzaien³³².

Ikusten dugun bezala, Gipuzkoako lan-arloko harremanak, testuinguruaren arabera aldakorrak izan ziren: 1931-1933 arteko moderazioaren eta 1934-1936 arteko erradikaltasunaren artean mugituz. Erradikaltze hori, barrutik baino, hein batean behintzat, kanpoko faktoreek eragina izan zen, Gipuzkoan erakunderik moderatuenak (UGT eta ELA) nagusi izan arren. Sindikatu horiek, esan bezala, 1931-1933 arteko moderazioaren berme izan zirenak, errepresioa pairatu zuten eta pixkanaka aurrez aurreko konfrontazioaren logikara joan ziren. Hala ere, ikusi dugun moduan, Gipuzkoako logika horrek ez zuen Beasainen eraginik izan, bertan, grebak (1934ko urrikoa kenduta) ez baitziren egin beste tokietan bezala. Beasainek bere ekonomia-modu propioagatik (CAFekiko oso menpekoa zen eta hura Estatuari oso lotuta zegoen) eta UGT eta ELA sindikatu moderatuegoen nagusitasuna tarteko, ez zuen grebarako joerarik izan. Horrek ez du esan nahi enpresarien aldetik jarrera ulerkorragoa izan zenik. Errepublika-garaiko krisia, berez nazioarteko krisi batetik etorria zena, Gipuzkoako

³³² Ibid., 95-98. or.

2. kapitulua

enpresarien aburuz, Errepublikaren lan-araudi sozialarengatik eta “*Langile-erakundeek deklaratu dioten hil ala biziko gudarengatik*” gertatu zen (Errepublikako Gobernuari egindako kritika batzuk diotenez, adibidez, gastu publikoa handitzeak, ez zuen zentzu handirik izan, Errepublikaren gobernuek, ezkertiarrek barne, gastu publikoari eutsi egin baitzioten).

Langile-borrokaren bidez lortutako lege bat, 1932ko urriaren 8an onartu zen *Istripuen Kontrako Legea* izan zen. Beasaingo kasuari erreparatuz, hori zela-eta, CAFeko langile batzuek euren eskubideak bermatuak zirela ikusi zuten. Istripua izan zuten langileek Udalaren eta alkatearen bitartekaritza eskatu ahal izan zuten, ez zeuden soilik enpresaren irizpideen mende³³³. Kasu batzuetan, adibidez, Victor Esteban Arribas langilearen kasuan, bilerara Metaleko Sindikatuaren orduko burua, Gumersindo Capa Mendizabal joan zen langilea defendatzeko. Halako kasuren baten testigantza eman zigun Jesus Lopez Gallegok ere: “Nire aitak CAFen egiten zuen lan. Haren lagun bat, lanera zihoala hil zen. Sierraren (fabrikako zuzendariaren) bitartekaritzari esker, lan-istripu bezala hartua izatea lortu genuen”. Sierraren borondatea gora-behera, orduko legeek asko lagundu zuten³³⁴. Orduan istripuak nahiko arruntak izaten ziren fabriketan, emaitza tragikoarekin askotan, adibidez Eleuterio Ayestak esan zigunez, “Nire osaba bat (Eleuterio Ayesta Mugica) CAFen istripu batean hil zen”³³⁵.

Langileek, Errepublikako beste Gobernuen pean lortu zituzten aurrerapenetako batzuk, 1931ko azaroaren 27an onartu zen *Artekaritza Mistoaren Legea* bezalakoak izan ziren, Lanaren Ministro Francisco Largo Caballero sozialista eta UGTko sindikalista ezaguna izan zenean. Lege horrek, enpresa barruan, bai langile-sindikatuak, zein enpresarien ordezkariak, zein Estatuaren ordezkariak osatutako Bitartekaritza Mistoaren Batzordeak sorrarazten zituen eta Batzorde horrek arautu behar zituen enpresaren barruko baldintzak: egutegia, soldatak eta abar. Gobernu sozialista bat boterean egonda, lege horrek, sindikatuei ahots handia eman zien enpresen barruko erabakimenean. Bitartekaritza Misto horiek, nahiz eta Primo de Riveraren diktaduran, 1925ean sortutako Batzorde Parekideetan oinarrituta egon, askoz ere botere handiagoa ematen zien langileei eta hauen erakundeei, lehengoak praktikan enpresarien kontrolpean zeuden-eta. Bitartekaritza Mistoak eta horiek sortu zituen legea, enpresari-klasearen

³³³ Beasaingo Udal Artxiboa. 080. karpeta, 01. dokumentua.

³³⁴ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-25ean.

³³⁵ Eleuterio Ayestari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-11n.

mamu beltza izan ziren eta langileei gehiegizko boterea ematen zitelakoan zeuden (eskuineko gobernuak, 1934an, ez zuen Lege hori baliogabetu, baina bai Bitartekaritza Mistoak edukiz husteko legea “berritu edo aldatu”); Errepublikako Gobernuen politika, berez nahiko moderatua izan zela hartu behar dugu kontuan (gastu publikoaren arloan, adibidez, gastu hori murriztu egin zuten). Beste aurrerapen bat 1936ko martxoan Herri Frontearen Gobernupean lortu zuten langileek, lan-astea 48 orduetik 44 ordura jaitsi zutenean.

Langileen soldataren inguruan, ez dugu garai hartako Beasaingo fabriken daturik, baina Pedro Barrusoren lanean agertzen zaigu Gipuzkoako soldatak gutxi gorabehera zenbatekoak ziren. Hala ere, soldatak oso handiak ez zirela ondoriozta dezakegu, testigantzek esaten dutenetik. Adibidez, Isabel Peñagarikano Dorronsorok, trenbidean lan egiten zuen euren aitaz komentatu zuen “gutxi irabazten zuela (...) Lanetik kanpo, baratzean lan eginez bizitza ateratzeko modua zuen”³³⁶. Juan Ramon Ortegak ere esan digu “soldatak nahiko txarrak ziren garai hartan, eta etxebizitzak ere ez ziren oso onak”³³⁷. Barrusok, datu-faltan, dio 1931 eta 1936 artekoa, oro har, soldatak ez igotzearen (soldatak izoztearen) epea izan zela, eta litekeena da, 1936an soldatak igo izana, hala ere, ez dago datu handirik halakorik esateko. Barrusoren arabera, soldatak oso ezberdinak ziren azpisektorearen eta enpresaren arabera, asko aldatzen ziren. Adibidez, industria handietan, askoz hobeto kobratzen zen txikietan baino, horretarako, Barrusoren ereduak, Lezoko arrabotatzeko makinen fabrika bat eta *Cementos Rezola* fabrika konparatzea da: bigarren horren kasuan, lehen mailako langileek egunean 12,50 pezeta irabazten zuten; Lezoko arrabotatzeko makinen fabrikan ordea, lehen mailako langileek 8 pezeta soilik irabazten zuten. Gizonezko eta emakumezko langileen arteko zanga ere oso handia zen, adibidez, Arrasateko Elma industria-lantegian, emakume batek egunean 4,75 pezeta irabazten zituen, 16 urteko langile-ikasle batek adina. Barrusok, CAFeko datuak ez baina *Union Cerrajera* lantegikoak ematen ditu. Bertan, doitzailak, trokelgileak eta moldeatzaileak; egunean 12,90 pezeta irabazten zituzten lehen mailakoak izanda, 11 bigarren mailakoak izanda, 9,50 pezeta hirugarren mailakoak izanda eta 8,25 laugarren mailakoak izanda. Lehen mailako arrabotariak eta tornulariak 11 pezeta irabazten zituzten egunean, bigarrenenak 10, hirugarrenenak 9, eta laugarrenenak 8,25. Artezleak egunean 10,50 pezeta lehen mailakoak, 10 bigarren

³³⁶ Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-9an.

³³⁷ Juan Ramon Ortegari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2013-VII-9an.

2. kapitulua

mailakoek eta 9,50 hirugarren mailakoek. Sarrailagintzan eta arotzen arloetan, lehen mailako langileek egunean 10 pezeta irabazten zituzten eta bigarren mailakoek 9. Peoiek 8 eta 8,50 pezeta inguru irabazten zituzten³³⁸. Arrasateko zifra horiek jarri ditugu, izan ere, Beasaingo CAF antzeko tamaina zuen lantegia izanik, irakurlearentzako erreferentziazkoak izan daitezke.

2.4 Beasaingo udala autonomia-proiektuen aurrean

2.4.a) 1931ko autonomiaren inguruko eztabaidak

Errepublika garaian, euskal gizartean pisu handienetakoa izan zuten gai politikoa Autonomi Estatutuarena izan zen. Proiektu hau, kontzeptu abstraktu edo ideologiko gisa, euskal alderdi orok babesten zuen garai horretan (ezkerreko zein eskuineko, abertzale ala ez), baina noski, autonomiaren proiektu konkretuan sortu izan ziren kalapitak: bai lurraldetasunaren inguruan, zein autonomiaren eta foruen kontzeptuaren inguruan (abertzaleen ustez foruak euskal burujabetasunaren ondorio zen, ez-abertzaleen ustez euskal foruak Espainiari eman beharreko eredu ziren: ezkerrearen ustez demokraziaren eredu, eskuinaren ustez lege tradizionalaren eredu), zein herrialdeen barne-autogobernuaren inguruan, zein autonomiaren “funtzionalitatearen” inguruan (batzuek Errepublika sendotzeko erabili nahi izan zuten autonomia, beste batzuk aldiz, Errepublika suntsitzeko puntal gisa, edo are Euskal Herria Errepublikak ekarri asmo zituen berrikuntzez at uzteko nahian). Eta guzti hori, autonomia indar politiko ezberdinek autonomia euren hegemonia politiko propioa lortzeko bandera gisa erabiltzen ez zutenean. Honenbestez, Euskal Herrian gertatu ziren hainbat hauteskunde-deialdi guztietan, autonomiaren arazoak hauteskunde guztiak baldintzatu zituela, Espainian ematen ziren “ezker-eskuin” eztabaida orokorrek ondoan beste ardatz bat ezarriz eta are autonomiaren inguruko aliantza politikoak sortuz (1931n gertatu izan zen moduan).

Errepublikaren aurretik jada, autonomiaren aldeko mugimenduak nabaritu ziren erakundeetan eta baita Beasainen ere: 1931ko urtarrilean Beasaingo Udalak, Bilboko Udaleko zinegotzi Vicente Alayo Zuazoren partetik, Gernikan Foru Berrezarkuntza eskatzeko egin zen batzar batean parte hartzeko gonbita jaso zuen. Mozio horretan, Foruak demokraziarekin lotzen ziren, eta lau euskal lurraldeetako Udalei egiten zitzaien deia. Otsailaren 7an, Udalak batzar hartan parte hartzea eskatzen zuen mozioa onartu

³³⁸ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 57-59. or.

egin zuen³³⁹. Kontuan izan behar dugu 1930ean Eusko Ikaskuntzak jada egina zuela bere autonomiaren inguruko aurreproiektua, indar ezberdinek euren autonomi-proiektuetarako oinarri gisa erabiliko zutena (proiektu horiek euren artean desberdinak izan baziren ere).

Errepublika ekarri zuten 1931.eko apirilko Udal-hauteskondeek Euskal Herrian eman zituzten emaitzak ikusita, EAJk, euskal gizartean lehen indarra zela ikusita, Euskal Herriko autonomia ezartzeko legitimatua zelakoan zegoen. EAJren interpretazioaren arabera, Errepublika Udal-hauteskunde horien emaitzengan zilegiztatua ezarri bazen, Euskal Herrian autonomia ezarri beharra zegoen. Horrela, EAJk, batez ere karlisten, eta oro har, eskuindarren babesarekin, Udalen mugimendu bat antolatu zuen autonomiaren alde; lehenik Bizkaian, Getxoko alkate Jose Antonio Agirrek deitua, eta gerora beste hiru herrialdeetan (jakina, eskuinaren interesa ez zen hainbeste autonomia baitarakoa, baizik eta autonomia horrek Errepublika laikoari suposa ziezaiokeen balazta). Asanblada hauen helburua, euskal udalek Eusko Ikaskuntzaren proiektua eztabaidatzea eta eztabaida horietatik autonomi-proiektu bat idatzi eta onartzea izan zen. Asmo horrek, botere berriarekiko kontrabotere alternatibo bat suposa zezakeenez -udalen zilegitasunean oinarrituta-, ezin izan zuen indar ezkertiarren babesik bildu, Errepublikaren aldekoek euren proiektua egiteari ekin zioten, Udaletan baino Aldundien Behin-behineko Gestoretan oinarrituta. ezin ahaztu Errepublika aldarrikatu ondoren Aldundietan ezarritako gestorak ezkerreko indarrez osatuak zeudela.

Gipuzkoan, ekainaren 11n, Udal gehienak Azpeitian bildu ziren; baina ez Beasaingoa. Azpeitiko batzar horretan, proiektu honentzat, eta hedapenez, euskal politikarentzat, oso baldintzagarria izan zen emendakin bat onartu zuten: Estatutuak, Euskal Herriari Vatikanoarekin Konkordatu bat sinatzeko eskubidea biltzea onartzen zuten emendakina. Emendakin hau, hiru egun beranduago, ekainaren 14an, Lizarrako euskal Udalen Asanbladan onartu zen, behin-betiko proiektuan hartu zelarik, eta ia-ia Estatutu proiektu honen, “Lizarrako Estatutuaren” ikur bihurtuz. Hau akats handia izan zen, izan ere, ezkerrekin zubi guztiak hautsi zuen, proiektu hau ezkerrekin bateraezin eginez, eta Errepublikarekin bateraezina zatekeen eskuinaren halako

³³⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. A055 karpeta, 19. dokumentua.

2. kapitulua

errebindikazio-ikur bat onartuz, gerora emendakin hau gabeko edozein proiekturi babesa kentzeko aitzakia ematen zitzaion³⁴⁰.

Beste alde batetik, ezkerreko indarrek ekainaren 14an bertan egin zuten Gipuzkoako Udal ezkertiarren bilkura, zenbaki absolutuetan Gipuzkoako Udal gutxi, baina populazioari begira Gipuzkoako Udal nagusienak (Beasain barne, eta baita Donostia, Irun, Pasaia, Errenteria, Eibar, Arrasate, Altza, Lezo, Hondarribia, Aia, Zegama, Berastegi, Berrobi eta Irura ere; gehi beste Udal batzuetako ezkerreko gutxiengoak) han zirela³⁴¹. *La Voz de Guipúzcoa*ren arabera “Gipuzkoako ordezkariaren parterik garrantzitsuen bildu zen” Batzar hartan³⁴². Batzarra, Jose Treku Ahaldu Nagusi (Gestoraren lehendakari) errepublikanoak gidatu zuen, zeinak “zilegatasuna izanda Udalak deitu zituela” esanez hasi zuen bilkura. Bilkuran, bildutako Udalek “Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektuaren arabera Estatutu proiektua aurkezteko” nahia erakutsi zuten, hiru egun lehenago Azpeitian bildutako Batzarrean “Eusko Ikaskuntzaren aurkako izpirituan dagoen proiektu bat” onartu zela esanez; horrela “bi aldeak bereizita geratzen direla”. Argi zegoen bada, zilegatasun- eta ideologia-talka gorenera iritsi zela³⁴³. Bilera horretan, Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektuaren oinarrian, Estatutu-proiektua idatzi zuen Batzorde bat eratzea erabaki zen, bertako kide Jacinto Urteaga Beasaingo alkatea zela (Eibarko, Zumaiako, Donostiako eta Irungo alkateekin batera). Nahiz eta ezkerreko indar guztiak Estatutuaren alde izan, sozialistek emendakin batzuk aurkeztu zituzten Eusko Ikaskuntzaren testuari: Legebiltzarrerako herrialde bakoitzak 20 kide hautatu beharrean (hasierako egitasmoak esaten zuen bezala), kide horiek biztanleen proportzioan aukeratzea, justiziako funtzionarioentzako euskara jakiteko derrigortasunik ez izatea eta Euskal Estatuan ezarri beharreko zergak “inolaz

³⁴⁰ *El Día*, 1931-VI-16koa; *El Pueblo Vasco*, 1931-VI-16koa; *La Constancia*, 11931-VI-16koa; eta *Euzkadi*, 1931-VI-16koa. Hala ere, esan beharra dago *La Constancia* egunkariak, ekitaldi horri, Iruñean egin zen ekitaldi katolikoari adinako garrantzia eman ziola (*La Constancia*, 1931-VI-14koa). Beste alde batetik, ezkerreko prentsak ia ez zuen eman Batzar horren berri (ikus, adibidez, *El Liberal*, 1931-VI-16koa): *La Voz de Guipúzcoa*k zortzigarren orrialdean eman zuen berria, garrantzirik ez zuela izan nabarmenduz (*La Voz de Guipúzcoa*; 1931-VI-16koa).

³⁴¹ FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 75. or.; *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-VI-16koa; eta *El Liberal*, 1931-VI-16koa. Garai hartako egunkari batek zioenez, Lizarrako Asanbladan soilik bost Udal falta izan ziren: Donostia, Irun, Errenteria, Eibar eta Arrasate (*El Pueblo Vasco*, 1931-VI-16). Hala ere, pentsatzekoa da gehiago ere falta izana, Beasain tartean, Miren Barandiaranen liburuan ageri denez, uztailaren 29an Beasaingo jeltzaleek hori kritikatu idatzi bat egin zuten. BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 78-79. or.

³⁴² *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-VI-16koa.

³⁴³ Ziur aski, ohar hau “Azpeitiko emendakinak” direla-eta egin bide zuten.

ere Espainiako Estatuan ezarritakoak baino txikiagoak ez izatea” izan ziren aldaketarik ezagunenak³⁴⁴. Prentsa abertzaleak ez zuen Batzar horren berri eman³⁴⁵.

Beasainen, maiatzeko Udal-hauteskundeek (gogoratu Beasainen hauteskundeak errepikatu egin behar izan zirela) Beasainen ezkerreko indarrei eman zien gehiengoa. Pentsa zitekeen, beraz, Beasaingo Udala eta herria, Autonomia Estatutuaren oso aldekoa zela; izan ere, ezkerreko alderdi horiek nolabaiteko autonomismoa aintzatesten zuten, ikuspegi propio batetatik (Errepublikaren instituzioekiko apurtzailea izatea ekiditen zuen ikuspegi batetatik) bazen ere. Hala ere, alderdien dinamikak ere, Beasaingo tokiko dinamika zipriztindu egin zuen. Miren Barandiaranen arabera, Beasaingo Udala ez zen batu momentu horretan babes handiena zuen abertzaleen eta karlisten proiektura (Beasaingo ordekaritza ez zen agertu Azpeitian 1931ko ekainaren 11n egin zen bilkurara)³⁴⁶; eta ezkerreko alderdiek (Aldundietako Gestorak kide errepublikano eta sozialistez osatuak eta Gobernuak izendatuak izan baitziren) bultzatutako egitasmoari eman zion baietza, 1931ko uztailaren 16ko Udal-bilkurako aktan agertzen denez³⁴⁷. Gainera, esan beharra dago Jacinto Urteagak ezkerreko Estatutu horren proiektuan parte hartu zuela, ekainaren 14an Gipuzkoako ezkerreko Udalen bileran parte hartu baitzuen³⁴⁸. Gipuzkoako Aldundiak, ekainaren 18an onartu zuen Estatutu-egitasmo hori eta lau Aldundiek 21ean berretsi zuten, jada aipatu dugun moduan, bigarren proiektu hau “ezkerraren Estatutu” bezala ezagutu zen.

2.4.b) 1931ko ekaineko hauteskundeak

Hala iritsi zen Euskal Herria 1931ko ekainaren 28ko hauteskunde konstituziogileetara, eta egia esan, hauteskunde horiek zatiketa hura areagotu egin zuten. Hauteskunde haietan, aurreko apirilaren 12ko Udal-hauteskundeetako lege bera zegoen indarrean, baina Errepublikak 1931ko maiatzaren 8ko Dekretuaren bitartez, aldaketa batzuk txertatu zituen. Aldaketa horietan, emakumezkoei boto-eskubidea eman ez bazitzaie ere, aukeratuak izateko eskubidea eman zitzaie (eta hiru emakume izan

³⁴⁴ FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: op. cit., 71-72. or.

³⁴⁵ Ikus *El Pueblo Vasco*, 1931-VI-14; *El Día*, 1931-VI-14; eta *Euzkadi* 1931-VI-14koa.

³⁴⁶ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 78-79. or. Euskal Herriko 549 Udaletatik 485ek egitasmo horri baiezkua eman ziotenez, Beasaingo abertzaleak asko atsekabetu ziren Udaleko gehiengo ezkertiarrekin. *Euzkadi* egunkarian 1931-VII-29an agertu zen artikulua batean, beasaingar jeltzaleek “penagarritzat” jo zuten alkateak egitasmo horri babesik ez ematea, “tokiko masen babesa izanagatik ere, kasu horretan masa horiek antieuskaldunak ziratekeelako”.

³⁴⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 103. dokumentua.

³⁴⁸ ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia: *La construcción de la nacionalidad vasca. El autonomismo de Euzkadi (1918-1931)*. Euzko Ikaskuntza. Donostia, 1990, 382 eta 475-476 or.

2. kapitulua

ziren aukeratuak hauteskunde haietan, bi alderdi errepublikanoen aldetik eta bat Alderdi Sozialistaren partetik). Beste alde batetik, gizonezkoen kasuan, botoa emateko gutxieneko adina 25 urtetik 23 urtera jaitsi zen. Bestalde, diputatuak probintzietako hauteskunde-barrutien arabera aukeratu ziren, 100.000 biztanletik gorako hirietan izan ezik, horiek barruti propioa eratu baitzuten (Monarkiaren garaian, probintzia bakoitzean hautagai bakarra aukeratzen zuten hainbat barruti zeuden). Hori dela-eta, Euskal Herrian bost hauteskunde-barruti izan ziren: Araba, Bilboko hiria, Bizkaiko herrialdea, Gipuzkoa eta Nafarroa. Herrialde bakoitzean, diputatuak zerrenda irekietatik aukeratzen ziren, betiere boto-emaile bakoitzak aukeratu beharreko diputatu-kopuru osoa baino kopuru txikiagoa aukeratuz. Adibidez, Gipuzkoan, sei diputatu aukeratzen ziren eta boto-emaile bakoitzak lau aukeratu behar zituen. Hori, praktikan, hautagaitza irabazleak diputatu denak ateratzea saihesteko zen, eta hautagaitza galtzaileari (edo galtzaileetan lehenari) gutxieneko bat bermatzeko pentsatua izan zen. Gipuzkoan adibidez, sei diputatu aukeratu behar zirelarik, sei izenik bozkatuenek lortuko zituzten karguak, baina boto-eskubidea zuen gipuzkoar bakoitzak lau izen soilik bozka zitzakeen³⁴⁹. Beraz, sistema hori, bere hutsekin ere, aurrekoa baino demokratikoagoa zen, tokiko jauntxokeria hein batean bederen saihesten zuelako, eta Gipuzkoa osoan alderdi ezberdinak bozkatu ahal izatea ahalbideratu zuen. Beste alde batetik gutxiengoaren ahotsa bermatzen zuen. Hala ere, bazuen bere ifrentzua: kontuan izan behar dugu Gipuzkoan (eta Hego Euskal Herri osoan) hiru bloke edo multzo handi zeuden: abertzaleak, eskuindarrak eta ezkertiarak, beraz, sistema horrek, praktikoki, herrialde bakoitzean bloke bat kanpoan uzteko arrisku handia zuen.

1931ko hauteskunde haietan, Gipuzkoan praktikoki bi Estatutuak, alkateen mugimenduak ernaldutako Lizarrako Estatutua eta Gestoren bidetik egindako proiektua ordezkatzeko zituzten bi hautagaitza izan ziren. Alde batetik *Candidatura Vasca en Defensa del Estatuto* (Estatutuaren Aldeko Euskal Hautagaitza) izan genuen, jeltzaleek eta karlistek osatua. Bestetik, *Conjunción Republicano-Socialista-Acción Nacionalista Vasca* (Errepublikanoen, Sozialisten eta Eusko Abertzale Ekintzaren Elkarketa) zegoen eta horrek 1931ko apirilaren 12an Espainian Udal-hauteskundeak irabazteko erabilitako formula berdina aurkeztu zuen. Gipuzkoan, alderdi errepublikanoez eta PSOEz gain, Eusko Abertzale Ekintza ere aurkeztu zen koalizio horretan (ez ordea Bizkaian). Hirugarren hautagaitza bat ere izan zen, Alderdi Komunistarena, zeinak beasaindar bat,

³⁴⁹ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 339-340. or.

Jesus Larrañaga zeraman zerrendan. Hala ere, hautagaitza horrek ez zuen pisurik izan, ez Beasainen eta ezta Gipuzkoan ere.

Kontuan izan behar dugu hautagaitza hori, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan aurkeztu zela eta alkateen mugimenduarekin elkarlanean osatutako hautagaitza izan zela, alkateek Lizarrako Estatutua defendatuko zuen euskal hautagaitza bateratu baterako deia egin baitzuen³⁵⁰. Azkenean, hautagaitza horretako partaide izan ziren, gero lehenengo Eusko Jaurlaritzako Sailburu eta gero erbestean lehendakari izan zen Jesus Maria Leizaola jeltzalea, Euskaltzaindian euskaltzain zen Julio Urquijo karlista³⁵¹ eta bi independente: Antonio Pildain lezoarra, katedraleko kalongea; eta Rafael Pikabea oiartuarra, *El Pueblo Vasco* egunkariaren jabea, jeltzaleen aldetik Monarkiaren garaian diputatu izandakoa (nahiz eta ofizialki EAJren militante ez izan, eta independente bezala aukeratua izan). Beraz, hautagaitza horrek, bai euskararen inguruko munduan zein mundu katolikoan ospe handikoak ziren pertsonak bildu zituen. Beraz, nahiko argi dago hautagaitza horrek zer-nolako profila bilatzen zuen³⁵².

Ezkerrekoek ere hautagaitza plurala atera zuten Gipuzkoan. Hautagaitza horrek, bi errepublikano, Juan Usabiaga (Ordiziako zinegotzi izandakoa) eta Jose Maria Amilibia, sozialista bat, Enrique De Francisco tolosarra (legealdi horretan PSOEn parlamentuko bozeramaile izan zena) eta abertzale bat, Justo Garate aurkeztu zituen. Hautagaitza sortzeko tirabira handiak izan ziren, ez soilik alderdien arteko ezberdintasun ideologikoak zirela-eta, edo behin Errepublika jarrita, errepublikano batzuk EAE-ANV bezalako alderdi abertzale batekin loturarik nahi ez zutelako, baizik eta Estatutuaren atzerakadarekin gaizki-ulertuak ere izan zirelako. Espainiako alderdi ezkertiarrek, noski, ez zuten Lizarrako Estatutua defendatzen, eta EAE-ANVrekiko susmoa zabaldu zuten batzuek, nahiz eta EAEkoek Estatutu hori ez defendatu eta aldiz bai Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektua. Bestalde, EAEk Eusko Ikaskuntzaren Estatutua defendatzen ez zuten alderdiekin hauteskundeetara ez joateko konpromisoa hartzeak, Bizkaian eta Bilbon EAEk ezkerrekin ez joateko erabakia hartzea ekarri zuen³⁵³.

Hirugarren hautagaitza, nahiz eta Gipuzkoan oso presentzia txikia izan, Alderdi Komunistarena izan zen. Bertan, Jesus Larrañaga beasaindarra, Luis Zapirain

³⁵⁰ Ibid., 347. or.

³⁵¹ Eusko Ikaskuntzaren RIEV aldizkariaren sortzaile izan zen.

³⁵² RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 346-350. or.

³⁵³ Ibid., 350-359. or. Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, Gipuzkoan EAEk artean indar txikia zuen.

2. kapitulua

donostiarra, Juan Astigarribia pasaitarra (hiru hauek une hartan Ondarretan preso zeuden Pasaiako greban gertatu istiluak zirela-eta), eta orduan Espainiako Alderdi Komunistaren idazkari zen Jose Bullejos hautagaiak aurkeztu ziren³⁵⁴.

Hauteskundeen atarian tentsio handi samarra zegoen, Errepublikaren politika laikoa zela-eta (kontuan hartu behar da Mateo Muxika, Idiazabalen jaioa eta Beasainen hazia, Gasteizko gotzaina zela), gotzainek “katolikoek batasunerako” deia egin zuten Adierazpen Pastoral batean (Gipuzkoan, Estatutuaren Aldeko Euskal Hautagaitzak, kalonge bat zeraman zerrendan, Pildain). Beste alde batetik, Gipuzkoako Gobernadore Zibil Ramon Aldasoro Bizkaian ezkerreko hautagaitzaren parte izateak³⁵⁵, eskuinaren aldetik kexa batzuk eragin zituen. Bi zerrenda nagusien arteko lehia, batez ere Estatutu ezberdinen inguruan eta Errepublika berriaren izaeran zentratu zen. Alde batetik, Jose Antonio Rodriguez Ranzek esan bezala, eskuinak eta nazionalistek eginiko hautagaitzaren izena “Estatutuaren aldekoa” eta ez “Lizarrako Estatutuaren aldekoa” zela jartzeak, hautagaitza hori Estatutuaren aldeko hautagaitza bakar bezala aurkezteko nahia erakutsi zuen. Beste ertzean, ezkerreko hautagaitzak, bere burua Errepublika salbatzeko hautagaitza bakar bezala aurkeztu zuen, Estatutuaren defentsa (egin izan zena, baita), bigarren maila baten utziz. Hala, eskuineko plataformak bere burua Estatutuaren (“Euskal Herriaren nahiaren”) ordezkari bakar gisa ezarri zuen eta bere kanpaina praktikoki horretan zentratu zen, hedapenez, gipuzkoar euskaldunen “betiko izaeraren” ordezkari azalduz (adibidez, erlijioaren defentsan); ezkerreko hautagaitza laikoa, izaera horren aurkakoa omen zelarik (Estatutuaren Hautagaitzaren aldeko prentsak behin eta berriz esan zuen, adibidez, ezkerreko hautagaitzaren autonomismoa “oportunista” zela, ez benetakoa). Bestalde, ezkerreko hautagaitzak, bere burua “Errepublikaren defendatzaile” bakar bezala jotzen zuen, beste hautagaitzaren garaipen batek Errepublika kolokan jar baleza bezala (eta egia zen eskuineko hautagaitzan Errepublika uzkaile nahi zuten indarrak bazeudela, karlistak kasu, baina baita ere halako intentziorik erakutsi ez zutenak, EAJ kasu). Ezkerreko hautagaitzaren arabera, eskuinaren eta jeltzaleen autonomismoan Errepublikaren erreformen aurkako hesi bat jartzea zegoen helburutzat, ez benetako autonomismoa. Hautagaitza horrek “Errepublika federala” defendatzen zuen, eta bazituen bestelako aldarrikapenak ere, hezkuntza

³⁵⁴ Bullejos euskalduna izan ez arren, gogoratu behar dugu urte batzuek Bilbon bizi izan zela lehen kapituluan esan bezala.

³⁵⁵ Ramon Maria Aldasoro, geroago Eusko Jaurlaritzako sailburu izan zen.

publiko eta laikoa, Udal-autonomia, zerga-sistemaren hobekuntza, baserritar maizterren defentsa eta abar³⁵⁶.

Praktikan, bi hautagaitzek euren buruak “benetako autonomiazale bakar” gisa jo zituzten, beste hautagaitzaren autonomismoa instrumentista izango bailitzan. Praktikoki, herriaren barne-adostasuna edo kontsentsua zailago bihurtu zuen eta bi sektoreak erabat urundu ziren elkarrengandik. Hori, autonomiaren kausarentzat txarra izan zen. Eta Gipuzkoan, ekainaren 28an, hauteskundearen egunean bertan, parte-hartze handia izan zen arren, %85ekoa, Estatuko handienetakoa³⁵⁷ (goizeko hamarretarako %50ak bozkatu zuen³⁵⁸); bortizkeria handiko eguna ere izan zen. Gipuzkoa osoan, mehatxuak, kolpeak, borrokak, botoak faltsutzearen salaketak, botoak erosteko saiakerak eta abar gertatu ziren eta baita tiroketak ere (Tolosan bi zauritu izan ziren eta Bergaran Miguel Aranburu izeneko gizon bat hil zen, antza denez ezkerreko pertsonak egindako tiroen ondorioz (prentsaren bertsioak nahiko nahasgarriak dira³⁵⁹).

<i>Herria</i>	<i>Jeltzaleek + karlistek</i>		<i>Ezkerrak</i>	
	<i>Botoak</i>	<i>Ehunekoa</i>	<i>Botoak</i>	<i>Ehunekoa</i>
Altzaga	46	100,00	0	00,00
Arama	25	100,00	0	00,00
Ataun	614	100,00	0	00,00
BEASAIN	509	45,44	610	54,46
Ezkio	107	84,25	20	15,74
Gabiria	194	95,09	10	04,90
Gaintza	69	98,57	1	01,43
Idiazabal	208	79,08	55	20,91
Itsaso	79	75,96	25	24,03
Itsasondo	141	88,12	19	11,87
Lazkao	312	90,96	31	09,04

³⁵⁶ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 366-377. or.

³⁵⁷ DE LA GRANJA SAINZ, Jose Luis: *Nacionalismo y II República en el País Vasco*. CIS. Madril, 1986, 211. or. De la Granjaren arabera, “euskal gizartearen politizazio handiak” eragin zuen parte-hartzea horren altua izatea.

³⁵⁸ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 366-378. or.

³⁵⁹ Ibid., 378-379. or.

2. kapitulua

Legorreta	150	84,74	27	15,25
Mutiloa	94	81,03	22	18,96
Olaberría	112	86,82	17	13,17
Ordizia	496	56,23	386	43,76
Ormaiztegi	132	85,71	22	14,28
Segura	246	97,61	6	02,38
Zaldibia	338	97,97	7	02,03
Zegama	347	88,07	47	11,92
Zerain	115	100,00	0	00,00 ³⁶⁰

Emaitzei dagokienez, Gipuzkoan eskuineko hautagaitza autonomistak irabazi zuen; bozen %57,87 ateraz. Goierrin ere, eskuinaren garaipena erabatekoa izan zen, Beasainen izan ezik, hemen ezkerak irabazi baitzuen. Horrek erakusten du herri honetan ezkeraren pisua eta tradizioa oso indartsuak zirela Beasainen. Gainera, kontuan hartu behar dugu, Gipuzkoako 89 udalerrietatik, ezkerak irabazi zuen seietako bat izan zela Beasain. Ezkerak, oro har, herri handi eta industrialetan irabazi zuen, 1931ko apirilko Udal-hauteskundeetan erakutsi zuen joera baieztatuz: gure herriaz gain, Donostian, Irunen, Pasaian, Hernanin eta Eibarren (ordukoan Erreterian ez zuten irabazi, gertu izan baziren ere). Alderdi Komunistaren emaitzak, oso bazterrekoak izan ziren, soilik 10 herritan lortu zuen botoen %1 baino gehiago ateratzea³⁶¹. Emaitza horiek Gipuzkoan ezkerria jada erabat barneratuta zegoela erakusten dute, baina eskuineko indarren erabateko nagusitasuna ere erakusten dute, Rodriguez Ranzek arabera, “Gipuzkoako herri handietako 18tatik 13tan irabazi baitzuten” (eta batzuetan %95etik gorako botoez, Azkoitian eta Azpeitian, esaterako). Ezkerak nahiko emaitza onak izan zituen Altzan, Erreterian, Tolosan, Elgoibarren edo Ordizian³⁶². Beraz, emaitza horien arabera, lau diputatu izan ziren hautagaitza jeltzale-eskuindarretik aukeratuak (botoen ordenaren arabera: Antonio Pildain, Rafael Pikabea, Jesus Maria Leizaola eta Julio

³⁶⁰ Botoen kalkulua Jose Antonio Rodriguez Ranzek egin du hautagaitza bakoitzeko hautagaien botoen batez bestekoa eta hautagairik bozkatuena zein izan zen kalkulatu. Ezkerak Beasainen soilik irabazi zuen, eta hortik at Ordizian soilik lortu zituen emaitza txukunak. Lau herritan ez zen izan ezkeraren aldeko botorik eta bederatzitan gelditu zen ezkerria %10etik behera. Ezkerak lau herritan soilik lortu zuen %20a gaintzea: Beasainen, Idiazabalen, Itsason eta Ordizian.

³⁶¹ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 385. or.

³⁶² Ibid., 390. eta 393. or.

Urkixo) eta bi ezkerreko hautagaitzatik: Juan Usabiaga errepublikano donostiarra (ordiziar sustraiak zituena) eta Enrique De Francisco sozialista tolosarra.

Baina hauteskunde-eztabaida Estatutuaren proiektu ezberdinen artekoa dela badiogu, orduan esan beharra dugu politikoki ez alde batez ez besteak ez zuela irabazi, Errepublikako sortu berri zen Gobernuak biak alde batera utzi baitzituen: Lizarrako Estatutua klerikala zelako, eta ezkerrearen Estatutua, Estatu federal bat aurreikusten zuelako, Konstituzioan definitzen zen “Estatu integralarekin” bateraezina zelarik. Beraz, berriz hasi behar izan zen Estatutua idazteko prozesua, horretarako argibideak Indalecio Prieto ministro sozialistak abenduaren 8an ateratako dekretu batetan agertzen zirelarik: Estatutua Aldundiaren Gestorek idatziko zuten, Udalek onartzeko edo ukatzeko aukera zutelarik³⁶³.

2.4.d) Gestoren estatutua eta 1933ko erreferenduma

Estatutuaren bigarren etapan, Estatutu “laikoaren” edo “konstituzionalaren” lorpenaren aldekoan, Beasaingo Udalak, ezkertiarren gehiengoa zuenez, Estatutuaren alde agertu zen, inolako zalantzarik gabe. 1932ko urtarrilaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Gipuzkoako Aldundian urtarrilaren 31n egin beharreko Udal gipuzkoarren batzarrerako, Udal-taldeak “Euskal Probintzia denentzako Estatutu bakarraren, edo probintzia bakoitzarentzako Estatutu banaren arteko aukeran, Udalak, bere ordezkari gisa Jacinto Urteaga alkatea izendatu eta Estatutu bakarraren aldeko botoa eman dezala” erabaki zuen³⁶⁴. Hurrengo hilabeteetan, 1932ko otsailean, Euskal Unibertsitatearen Aldeko Batzorde bat egiteko gonbitari ere baiezkoko erantzuna eman zion Udalak, otsailaren 28an Batzorde horrek Bilbon egin behar zuen Batzarrera Severiano Azpeitia zinegotzia ordezkari gisa bidaliz³⁶⁵.

Fase horretan, Beasaingo Udal errepublikanoak, indar guztiz borrokatu zuen Estatutu “errepublikanoaren” alde. 1932ko maiatzaren 12ko bilkuran, Iruñeko Euskal Herri osoko Udalen Batzarrean parte hartzea eta Urteaga alkatea eta Bernedo eta Ibarbia alkateordeek osatutako ordezkari bidaltzea erabaki zen³⁶⁶. Baina, Udalaz gain, kaleko eraginari dagokionez ere, Beasain ez zen Autonomi Estatutuaren aldeko propagandatik

³⁶³ FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: op. cit., 77. eta 82. or.

³⁶⁴ *La Constancia*, 1932-II-2koa.

³⁶⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 01. dokumentua.

³⁶⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

2. kapitulua

aparte gelditu. Adibidez, 1932ko ekainean, EAJko kideek Autonomi Estatutuaren aldeko kartelak jarri zituzten Beasainen zehar³⁶⁷.

1933ko tentsioaren igoera Beasainen ere nabaritu zen: bai errepide nagusian, Ordiziarako bidean, eta baita Senpere auzoan ere, Lazkaorako bidean, Aldundietako Gestoren aurkako pintaketak agertu omen ziren “Behera gestorak!” “Errepublika bai, baina euskalduna”, “Gora Euzkadi Askatuta!” eta abar. Beasaingo Udalak pintaketak kentzeko agindua eman zuen³⁶⁸.

1933ko apirilean egin ziren Udal-hauteskunde partzialek ez zuten giroa baretzerik lortu. Hauteskunde haietan, 1931ko apirilean, 29. *artikulua* zela bide aukeratutako Udalak (hau da, hautagaitza bakarrarekin eta lehiarik gabe) berritu behar ziren³⁶⁹. Gipuzkoan 42 Udaletan izan ziren hauteskundeak, 329 zinegotziren postuak jokoan jarritz, tartean, Goierriko hamar herritan³⁷⁰. Herri horietako gehienak, salbuespen batzuekin, (Azkoitia, Azpeitia, Hernani, Oiartzun eta Pasaia kasu) herri txikiak izan ziren, gehienetan 1931n eskuin alfonsotarra (orduan “boterean zeudenen alderdia”) Udal-boterean jarri zutenak. Orain, alderdi edo sektore hori “desegitearekin batera”; haien botere-postu asko beste alderdi batzuen aldera joan zitezkeen.

Kapitulu honen lehen orrialdeetan aipatu dugu herri askotan sektore monarkiko alfonsotarra boterean jartzeko (boto bidez edo behintzat aurkako alderdirik ez aurkeztearen bidez) edo berari botoa emateko arrazoi nagusiak bi izan zirela: alde batetik populazio kontserbadore eta bereziki politizatu gabekoaren “inertzia” eta beste alde batetik jauntxoaren eragina. Bi faktore horiek eta herri horietako askotan alderdien talde antolatuturik ez egoteak handitu egin zituen alfonsotarren emaitzak. Hala ere, Errepublikak, jauntxoaren boterea murriztea eta populazioaren politizazioa (Euskal Herrian horri Estatutuaren gaia gehitu zitzaion) ekarri zituen, alderdi ezberdinak, ikusi dugun bezala, Gipuzkoako ia txoko guztietara hedatuz³⁷¹. Gauzak horrela, pentsatzekoa zen beste alderdien artean sektore horren botoak norik bereganatuko lehia handia izango zela, batez ere beste bi aukera kontserbadoreen artean: EAJren eta karlisten artean.

³⁶⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 134. karpeta, 14. dokumentua.

³⁶⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 34 dokumentua.

³⁶⁹ Hala ere, ikusiko dugun moduan ez ziren berriztu 29. artikuluari antzeko prozedurak erabiliz; adibidez, alderdi ezberdinen arteko itunaren bidez, iskin egin zioten herrietako Udalak.

³⁷⁰ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 405-409. or. Goierri; Altzaga, Arama, Ataun, Itsaso, Lazkao, Mutiloa, Olaberria, Ormaiztegi, Segura eta Zegama izan ziren hauteskundeak izan zituzten herriak.

³⁷¹ 1933ko apirilera, jeltzaleak 42 udalherri horietatik 38tan zeuden presente jada, karlistak 21etan, eta ezkertiarak 17tan. Ibid., 404. or.

Apirilaren 23an egin ziren hauteskunde haietako parte-hartzea %70 ingurukoa izan zen. Garaile nagusia EAJ izan zen, 42 herrietatik 30etan nagusitu baitzen, jokoan zeuden 329 zinegotzietatik 188 lortuz (%57,32), hauteskunderen aurretik, haiek egin zirenetako 5 Udaletan soilik gehiengoa zuenean, eta haietan 65 zinegotzi (%19,76 zituenean). Beherakada nagusia, pentsatzekoa zen bezala, eskuin alfontsoarrak izan zuten, bi urte lehenago Udal horietan 133 zinegotzi (%40,43) eta 19 alkatetza izatetik, bi urte beranduago aukeratutako 37 zinegotzi soilik (%11,28) izatera pasatu zen, sektore horren “ondorengo” gisa har zitezkeenak kontuan hartuta. Karlistek ere atzera egin zuten: 79 zinegotzi (%24,01) eta 8 alkatetza izatetik, 63 zinegotzi izatera (%19,21) pasatu baitziren. Ezkerrak bere posizioak oro har hobetu zituen arren (6 zinegotzi – %1,82– izatetik, 11 –%3,35– izatera), Hernaniko Udala, hautaketak ziren Udaletan euren kontrolpean zegoen bakarra, galdu egin zuten eta jeltzaleen esku gelditu zen. Bukatzeko, aukeratu ziren 29 zinegotzi (%8,84) “filiaziorik gabeak” edo “independentek” izan ziren (bi urte lehenago, Udal horietan 46 –%13,98– izan ziren)³⁷². Aipatzekoa da, oro har, Euskal Herrian, EAJren edota eskuineko alderdien garaipena gertatu zela, Espainia osoan ezkerreko alderdien garaipena gertatu zen bitartean.

Herria	Irabazleak	Besteak	1931ko garaileak
Altzaga	EAJk: 6	Besterik ez zen izan	Monarkikoak/EAJ
Arama	Karlistek: 6	Besterik ez zen izan	Karlistak
Ataun	EAJk: 6	Karlistek: 2 “Katoliko-monarkikoek”: 2	Monarkikoak
BEASAIN	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza ezkerrearen esku		
Ezki#	EAJk: 5	Karlistek: 2	Karlistak/EAJ
Gabiria#	EAJk: 6	“Katoliko monarkikoek”: 2	“Independentek”
Gaintza	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza “monarkikoen” esku		
Idiazabal	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza karlisten esku		
Itsaso	“Independentek”: 4	EAJk: 2	Monarkikoak
Itsasondo	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza EAJren esku		
Lazkao	EAJk: 6	Karlistek: 2	EAJ

³⁷² Ibid., 407-409. or.

2. kapitulua

Legorreta	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza “monarkikoen” esku		
Mutiloa	EAJk: 4	Karlistek: 2	Karlistak
Olaberria*	EAJk: 4	Karlistek: 2, Ezkerrak: 1	“Independenteak”
Ordizia	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza EAJren esku		
Ormaiztegi*	EAJk: 4	“Katoliko monarkikoeak”: 3	Monarkikoak
Segura	Karlistek: 6	EAJk: 3	Karlistak
Zaldibia	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza EAJren esku		
Zegama	Karlistek: 9	Besterik ez zen izan	“Independenteak”
Zerain#	EAJk: 4	Karlistek: 2, Independenteek: 1	EAJ ³⁷³

Hemen ikusten diren Goierriko emaitzek argi uzten dute nondik norako hori eta EAJren gorakada. 1933ko apiriletik aurrera, EAJk hamabi alkatetza (tartean, Ordizia, Ataun eta Lazkao) izan zituen Goierriin; karlistak soilik laurekin gelditu ziren bitartean. Monarkiko alfonsotarren beherakada ere garbi ikusten da, bi alkatetza soilik lortu zituzten (biak 1933an hauteskundeak errepikatu gabekoak). Ezkerra Beasainen gotortua gertatu zen, jakina den bezala. Itsasoko alkatetza, ordea, talde independente baten esku gelditu zen. EAJren nagusitasun hori 1933ko hauteskunde horietan oinarritu zen, hamabi alkatetzetatik bederatzi (Ordizia, Itsasondo eta Zaldibia ezik) 1933an lortu edo berretsi egin baitzituen. Kontuan izan behar dugu 1933ko apiril horretan EAJk irabazitako bederatzi herrietatik bitan soilik irabazi zuela 1931n (Lazkaon eta Zerainen), beste bitan berdinketa izanik. Beste bostetan, EAJk beste alderdiren bati aurrea hartu zion (bitan monarkikoei, bitan bertako talde independenteei eta beste batean karlistei). Beraz, alderdi jeltzalearen gorakada garbia ikusten da. Monarkikoei dagokionez, beherakada nabarmena da, 1931ko sei alkatetzetatik 2 soilik mantendu baitzituzten, eta esan bezala, bi herri horietan ez zen hauteskunderik egin (galdu zituzten lauetatik hiru jeltzaleen esku galdu zituzten, eta bat “independenteen alde”). Karlisten kasuan, alkatetza bat galdu zuten, Ezkio eta Mutiloa jeltzaleen aldera pasatu baitziren, baina

³⁷³ Olaberriaren EAJk eta ezkerrak (errepublikano federaletik) koalizio bat egin zuten. Ormaiztegin EAJk eta katoliko monarkikoei ere bai. # ikurra duten herrietan, Rodriguez Ranzen arabera, adostasun praktikoa bat egon zen, izan ere, aukeratuak izan ziren hautagai denek boto guztiak bildu zituzten. Altzagan, Araman eta Zegaman alderdi bakarrak lortu zituen ordezkariak, hala ere, Rodriguez Ranzek “borroka politikoa” izandako herri bezala aipatzen ditu (agian izan zen eta alderdi batek bestea erabat menderatu zuen; karlistek Altzagan “presentziarik ez zutela izan” aipatu zuten –ez dakigu aurkeztu ez zirelako ala propagandarik egin ez zutelako. (Euren *La Constancia* egunkarian, 1933-IV-28an).

bitartean Zegama (lehen “Independenteen” esku zegoena) “irabazi” zuten. Beste ondorio bat horixe izan zen, “lerrokatu gabeko hautagaitzak” desagertzea: 1933ko apiriletik aurrera Itsason soilik egon zen boterean halako talde bat, aldiz, 1931n Gabirian, Olaberrian eta Zegaman “ideologiarik gabeko taldeak” jarri ziren boterean. Gipuzkoaren politizazioa nabaria izan zen bi urte horietan.

Beraz, argi geratu zen Gipuzkoan, eta batez ere herri txiki nekazarietan EAJk zuela hegemonia, eta baita ere herritar “kontserbadore despolitizatuak” “politizatze” lanean karlistei aurrea hartu zietela. Emaidza horiek, errepublikanoentzat alde batetik berri onak ekarri zituzten, 1931ko eskuindarren botere-guneak moderazio prozesuan sartu eta Errepublika onartzen zuen alderdi batengana pasatuta, izan ere, gerta baitzitekeen beste aukera bat nagusitzea ere, hots, erabat errepublikaren aurkakoa zen alderdi baten eskuetara pasatzea, baina hori ez zen gertatu. Baina beste alde batetik, Euskal Herriko bi lurralde populatuenetan, Gipuzkoan eta Bizkaian EAJk irabazteak, Euskal Herriko herrialdeetan lehen alderdia eta tarte are handiagoarekin izatea ekarri zuen eta horrek Estatutuaren aldeko lanean bidaide izan ziren ezkerreko indarren mesfidantza sortu zuen. Ezkerreko horiek lehendik zuten beldurra, hots, Estatutuak “eskuinaren” (kasu honetan EAJren) hegemonia berrestekoa, handitu eta gauzatu egin zen.

Estatutu-prozesua ia-ia lur-jota zegoen, eta berori bide onera eramatea ia-ia ezinezkoa zela ematen zuen. Estatutua idazteko batzordeak azkar lan egin behar izan zuen eta horrek lortu zuen Estatutua aurrera ateratzea. 1933ko apirilean Nafarroari atea zabalik uzteko akordio bat lortu zen. 1933ko uztailan, Estatutuaren aurreproiektua idatzita, Gasteizen, Estatutua bozkatzeko Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Udalen Batzarra deitu zen, abuztuaren 6rako³⁷⁴.

Batzar hartara, Beasaingo alkate Jacinto Urteaga ere joan zen, 1933ko uztailaren 28ko Udal-bilkurak aho batez hala erabakita³⁷⁵. *Euzkadi* egunkariak, okerbidez, Beasaingo alkatea ez zela joan baina “babesa bidali zuela” esan zuen; baina Beasaingo ordezkaria han izan zen³⁷⁶. 1933ko urrian, Beasaingo Udala berriro ere agertu zen Estatutuaren aldeko ekitaldi batean (Urteaga alkateak eta Veriztain idazkariak

³⁷⁴ FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: op. cit., 101. or.

³⁷⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua

³⁷⁶ *Euzkadi*, 1933-VIII-8koa.

2. kapitulua

ordezkatuta), Arabako Mateo Moraza foralista historikoaren omenaldian hain zuzen ere³⁷⁷.

1933ko azaroaren 5ean izan zen erreferenduma. Erreferendumaren aurrean, abertzaleek zein ezkerrek, oro har, aldeko jarrera hartu zuten. Hala ere, ezkertiarren artean izan ziren nolabaiteko desadostasunak. Bizkaian alderdi errepublikano batzuetako lehendakariak eta Bizkaiko Alderdi Sozialistaren lehendakariak abstentzioa eskatzen zuten gutun ireki bat sinatu zuten azaroaren 2an³⁷⁸. Gipuzkoan, Fusiren arabera “komunisten salbuespenarekin, ezker osoak Estatutua babestu zuten”³⁷⁹; hala ere, egia izan arren Gipuzkoako Federazio Sozialistak eta Elkarte Errepublikano ezberdinek aldeko botoa eman zutela (errepublikanoek maiatzean esan zutenaren aurka, orduan, giro politiko bortitzak eraginda aurka azaldu ziren-eta), salbuespenen bat agertu zen, adibidez Eibarko Elkarte Sozialista, “langile-elkarte eta sindikatuei erreferenduma kontrolatzen utzi ez zitzaenez”, abstentzioa eskatu baitzuen³⁸⁰. Alderdi Komunistak, bere aldetik, Estatutuaren kontrako posizioa hartu zuen, Estatutu hau “amore ematearen Estatutu” edota “burgesia inperialistaren Estatutu” gisa ikusten zutelako. Eskuina Estatutuaren aurka agertu zen. Monarkiko alfonsotarrak aurkako botoa eskatu zuten, eta karlistek, 1933ko urriaren 25ean Bergaran bildurik, ez zuten Estatutuaren aldeko aukerarik jarri eta ez zuten bozka-irizpiderik eman. Baina esan beharra dago erreferendumaren aurrean, gipuzkoar prentsa karlistaren doinua oro har Estatutuaren aurkakoa izan zela. Hala ere, karlista gipuzkoar batzuk, Julian Elorza eta Ignacio Perez Arregi kasu, Estatutuaren alde agertu ziren eta azken honek, 1933ko azaroaren 2an, Estatutuaren aldeko artikulua bat atera zuen, prentsa abertzalean, *El Día*n eta *El Pueblo Vascon* argitaratu zena; esanguratsua izan zen *La Constancia* prentsa karlistak artikulua ez ateratzea³⁸¹.

Erreferendum horretan, 1931n onartu zen bezala, emakumeek ere bozkatzeko eskubidea izan zuten. Hala, 166.635 gipuzkoar izan ziren bozkatzera deituak eta horietatik 151.862k, hots, %91,13k botoa eman zuten (beraz abstentzioa %8,87koa izan zen, 14.773 pertsona abstenitu ziren). Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, bai

³⁷⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua.

³⁷⁸ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 417. or. Hala ere Juan Pablo Fusi Aizpuruaren arabera, gutun horrek “Balio sinbolikoa besterik ez zuen izan” eta ez zuen Bizkaiko elkarte eta militante errepublikano eta sozialisten iritzi osoa ordezkatu. FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: op. cit., 106. or.

³⁷⁹ FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: op. cit. 106. or.

³⁸⁰ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 214. or.

³⁸¹ Ibid., 163., 170. eta 174. or.

Donostian, zein herri ertainetan, zein herri txikietan, parte-hartzea %90tik gorakoa izan zen (Donostian, %98,11koa izan zen). Herri handietan (Donostia kenduta) ordea, ez zen %90era iritsi, %89,24koa izan baitzen. Gipuzkoan, 149.221 pertsonak (boto-emaileen %98,26k, zentsuaren %89,55k) baiezkoa eman zuten, eta 2.390k (boto emaileen %1,57k, zentsuaren %1,43k) ezezkoa. 251 boto (boto-emaileen %0,17, zentsuaren %0,15) zuriak izan ziren³⁸².

<i>Herria</i>	<i>Parte-hartzea</i>	<i>Abstentzioak</i>	<i>Baiezkoak</i>	<i>Ezezkoak</i>	<i>Zuriak/BG</i>
Altzaga	%95,45	%04,55	%100	-	-
Arama	%45,21	%54,79	%100	-	-
Ataun	%94,39	%05,61	%100	-	-
BEASAIN	%55,23	%44,77	%85,97	%13,96	%00,07
Ezkio	%100	-	%100	-	-
Gabiria	%89,46	%10,54	%100	-	-
Gaintza	%34,50	%65,50	%100	-	-
Idiazabal	%96,11	%03,89	%99,42	%00,58	-
Itsaso	%99,12	%00,88	%100	-	-
Itsasondo	%91,34	%08,66	%99,71	%00,29	-
Lazkao	%97,34	%02,66	%99,87	%00,13	-
Legorreta	%97,02	%02,98	%99,74	%00,26	-
Mutiloa	%92,64	%07,36	%100	-	-
Olaberria	%97,41	%02,59	%100	-	-
Ordizia	%98,30	%01,70	%98,80	%00,93	%00,27
Ormaiztegi	%96,80	%03,20	%100	-	-
Segura	%84,20	%15,80	%99,09	%00,91	
Zaldibia	%96,87	%03,13	%100	-	-
Zegama	%16,94	%83,06	%96,18	%02,73	%01,09
Zerain	%78,65	%21,35	%100	-	- ³⁸³

³⁸² Ibid., 417-418. or.

³⁸³ Goierrin zenbait puntutan abstentzioa oso altua izan zen; hemen ditugu abstentzio tasa altuena eman zuten bi herriak (Zegama eta Gaintza), laugarren eta bosgarren tasarik altuena eman zutenak (Arama eta Beasain; zeinek ezezko tasarik altuena ere eman zuten) eta Zerainek, Segurak eta Gabiriak ere %10a baino

2. kapitulua

Ikusten denez, Goierrin gehiengo handi batek Estatutuaren alde egin zuen. Hala ere, toki batzuetan, adibidez Beasainen bertan (ezker errepublikanoak eta sozialistak nagusi zirela), parte-hartzea oso txikia izan zen, eta beste hiru herritan, Araman, Gaintzan eta Zegaman, eskuindarrak nagusi ziren herrietan, ez zen %50ra iritsi³⁸⁴. Horren azalpena nahiko argia da, alde batetik tradizionalistek emandako abstentzioaren aldeko kontsignak, euren oinarriaren parte batean eragina izan zuen. Ez eragin osoa, eskuindarrak nagusi izan ziren beste herri batzuetan, Idiazabalen, Legorretan eta Seguran kasu, parte-hartzea eta “baiezko” botoak gehiago izan baitziren. Errepublikanoek eta sozialistek, aldiz, estatutu-prozesuan izan zituzten zalantza-aldiek (une batzuetan prozesuarekiko iritziz negatiboa ere izan baitzuten), euren oinarri sozialaren parte batek, dena delako arrazoiengatik (nahasmena, iritziz negatiboek eragin ideologikoa izatea, nekea) abstentziora jo zuen eta Beasaingo kasua horixe izan zen.

Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, parte-hartze altuegi horiek direla-eta, litekeena da nonbaiten iruzurra eta “datu-puztea” gertatu izana. Adibidez, erreferendum horretan, Gipuzkoan, bi aste beranduago izan ziren hauteskundeetan baino parte-hartze askoz ere altuagoak izan ziren (orduan, gipuzkoarren %78,07k bozkatu zuen). Guztira, Gipuzkoako 10 herritan %100ek bozkatu zuten (baita, Donostiako 14 mahaitan ere) eta 89 herrietatik 59tan, boto-emaileen %95ek baino gehiagok bozkatu zuen, herri batzuetan oso ehuneko altuak ateraz: adibidez Irunen, mahai guztietan %97koa baino parte hartze altuagoa izan zen, Erreterian mahai guztietan %96koa baino parte-hartze altuagoa, eta Arrasaten, mahai guztietan %95ekoa baino parte-hartze handiagoa. Donostian ere, auzo guztietan %97k baino gehiagok bozkatu zuten. Herri horietan, gehiengo errepublikano-sozialistak izaki, hain parte-hartze altuak izatea, joera berdineko Beasainen parte-hartzea %55ekoa izan zenean, susmagarri samarra ere bada. Rodriguez Ranz ikerlariaren arabera, erreferendumaren inguruan izan ziren protesten kopuru txikia aintzat hartuta, ziur aski, hau gertatu bide zen, “ezezkoaren” aldeko botoak “baiezkoaren” alde bihurtzen saiatu gabe, toki batzuetan “baiezkoaren” aldekoen boto-kopurua “puztu” egin bide zuten, abstentzioa “irensteko” asmoz. Rodriguez Ranzen arabera, hala ere, Estatutuak herri-babes handia izan zuen eta ez zuen iruzurren

abstentzio handiagoa izan zuten. Rodriguez Ranzen arabera, susmagarria da Ordizian, Zaldibian eta Mutiloan karlistek estatutuari emandako erabateko babes hori.

³⁸⁴ Kontuan izan behar da Aramako eta Gaintzako Udalen ordezkariak Gasteizeko 1933ko abuztuaren 6ko Udalen Batzarrean Estatutuaren aurkako botoa eman zutela.

beharririk izan, nahiz eta emaitzak “biribiltzeko” agian prozedura irregularrak erabili³⁸⁵. Hala ere, tokiko irregulartasun horiek ez ziren izan *La Constancia* egunkari karlistak salatutako “50 edo 60 aldiz bozkatu zutenak” eta “milaka eta milaka boto bikoitz sartu dira” eta gisako esaldietan adierazitakoak adinakoak³⁸⁶.

Oro har, guztira, hiru lurraldeetako 490.157 herritarretatik 425.952k bozkatu zuten, %86,90k. Baiezkoaren alde 411.756 herritar agertu ziren (boto-emaileen %96,66 eta zentsuarekiko %84) eta ezezekoaren alde 14.196 herritar (boto-emaileekiko %3,33 eta zentsuarekiko %2,89)³⁸⁷.

Baina, ikusiko dugun bezala, 1934ko Gobernu-aldaketak Estatutuaren blokeoa ekarri zuen eta 1934ko abuztuan Gobernuak zerga mota berri bat ezarri zuela-eta, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Udalek aldarrikapen-mugimendu berri bat hasi zuten eta Beasaingo Udalak ere horretan parte hartu zuen. Hurrengo azpi-kapituluan ikusiko dugun moduan, erabaki horrek Beasaingo Udala kargugabetzea ekarri zuen.

2.5 1934ko gertakariak Beasainen

2.5.a) 1933ko hauteskundeak. Eskuineko Gobernu berria.

Lehen esan dugun bezala, bai Estatutuaren arazoa zein langile-arazoa asko larriagotu ziren 1934an eskuineko Gobernuak boterea hartzerakoan, izan ere, Gobernu hori errepublikaren aurkako indarren babesaz (*CEDA*) sortua izan baitzen, eta hilabete batzuen ostean, haiek Gobernuan sartu ziren. Hala, atzerakada bat gertatzeko beldurra sartu zen, aurreko biurtekoan lortutako aurrerapen guztiak geldiarazi eta lehenera itzuliko zenaren beldurra, eta are gehiago beste diktadura bat ezartzearen beldurra ere zabaldu zen. Gobernu horren jardunaren ondorioak, Beasainen asko nabaritu ziren 1934. urtean zehar.

Hauteskunde berriak 1933ko azaroaren 17an izan ziren. Hauteskunde horietan, Espainiako Estatuan lehenengo aldiz parte hartu ahal izan zuten emakumezkoek. Beraz, 23 urte beteak zituzten Estatuko herritar guztiak parte hartu ahal izan zuten hauteskunde haietan. Horrek, Gipuzkoako boto-emaileen kopurua bikoiztea ekarri zuen: 1931ko ekainean 73.108 gipuzkoarrek izan zuten botoa emateko eskubidea eta 1933ko

³⁸⁵ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 419-423. or.

³⁸⁶ *La Constancia*, 1933-XI-7koa. Botoak faltsutze hori beste ertzean zegoen Alderdi Komunistak ere salatu zuen. *Euskadi Roja*, 1933-XI-11koa.

³⁸⁷ Datuen iturria ondorengo loturan ikus daiteke:

http://www.euskadi.net/emaitzak/república/result_1933_referendum/ref_result_circunsp_1933_c.htm.

2. kapitulua

azaroan 166.635 gipuzkoarrek bozkatu ahal izan zuten³⁸⁸. 1931ko urriaren lehen Espainiako Parlamentuak emakumezkoen boto-eskubidea ematea erabaki zuen; sozialisten, jeltzaleen eta eskuinaren aldeko botoekin. Errepublikanoak (talde guztietakoak, Azañaren aldekoak, zein Lerrouxen aldekoak, zein besteak) aurka azaldu ziren, izan ere, emakumeak Elizaren eragin kontserbadorearen azpian zeudela uste zuten, emakumeen boto-eskubidea ematea kontserbadore katolikoen abantaila ematea zela eta “Errepublikaren laiktasuna arriskuan” jarriko zela uste baitzuten. Haien ustez, lehenbizi emakumeak “balio errepublikanoetan hezi” (Elizaren eraginetik atera) behar ziren boto-eskubidea eman aurretik. 1933ko azaroko hauteskunde haietan eskuinak irabazterakoan, errepublikano askok emakumeen botoengan jarri zuen gertaera horren arrazoiak; gaur egun, ordea, jakin badakigu aldaketa politiko hartarako hainbat beste arrazoi izan zirela.

Arrazoi nagusia ezkerreko Gobernuaren ahultasuna zen: nahiz eta 1931.ean babes handi batekin atera, 1932-33 artean Gobernua galtzen hasi zen, bai aliatuak galdu zituelako, eta bai Gobernuko kide izaten segitu zuten artean programen ezberdintasunak desadostasunak areagotzen hasi zirelako. 1931.eko abenduan, lehen arrakala egin zen, Alejandro Lerrouxek zuzentzen zuen Alderdi Erradikalak (*Partido Republicano Radical*), Gobernuan parte hartzeari uko egin ziolako, sozialistak kanpoan gelditu ezean. Hurrengo bi urteetan, alderdi hau, errepublikanoa baina zentro-eskuinekoa, eskuinarekin bat aritu zen ezkerreko Gobernuaren lege-proiektu sozialen aurka.

Beraz, Azañaren Gobernua bi fronteetan aritu zen, alde batetik legedia laikoaren ezarkuntzan (kasu horretan alderdi katolikoak eta monarkikoak zituen aurka), eta bestetik legedia soziala ezarriz (hor, Errepublika ekartzeko orduan aliatu izan ziren Lerrouxen erradikalak ere oposizioarekin bat zeuden). Lehenari buruz, nahiz eta parlamentuan alderdi katolikoek indar gutxi izan³⁸⁹, egia da herritarren artean eskuinak kanpaina egiteko eta katolikoak Gobernuaren kontra aztoratzeko aukera izan zuela, horrela, eskuineko partiduak masa partidu bihurtuz eta kohesionatuz. Bigarrenari buruz; Nekazal Erreformak (latifundio handiak urrik gabeko baserriaren edo kooperatiben

³⁸⁸ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 408-409. or.

³⁸⁹ Hau ez zen ez Euskal Herriko ez Gipuzkoako kasua, hemen bi alderdi katoliko (EAJ eta karlistak) indartsuak baitziren. Kontuan hartu behar dugu Gipuzkoan eskola erlijiosoetan matrikulatutako umekopururik handiena zegoela, eta baita ere fraideen laugarren komunitaterik altuena eta mojen bosgarren komunitaterik handiena (Gipuzkoak orduan, populazio kopuruan Espainiako 38. handiena zen). (RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 233. eta 408-409. or.).

artean banatzeko proiektuak) aurrez-aurre lurjabeen oposizioa izan zuen; eta Largo Caballero Lan Ministroaren lan erreformak (zeinak sindikatuei indarra ematen zien, segurtasun sozialaren hastapena zekarren, oporraldi ordainduak aurreikusten zituen, eta lan-gatazkak konpontzeko sindikatuen eta enpresarien ordezkariez osatutako Artekaritza Mistoak ezartzen zituen). Legedi honek eskuinaren eta enpresarien aurkakotasuna izan zuen, baina baita ere anarkisten eta komunisten aldetik, zeintzuek UGT sindikatu sozialista puzteko eta langile-klasea “Estatu korporatibo” baten menpeko bihurtzeko asmoa ikusten zuten erreforma honen atzean.

1932.ean oposizioa kontrolpean zegoela ematean bazuen ere (eskuinaren arte batek porrot egindako Sanjurjoren kolpe militarra babesteak, eskuin hori neutralizatu egin zuen; gainera EAJ Errepublikarekin kolaboratzen hasi zen), 1933.ean, krisi ekonomikoa okerragotzeak legedi sozialaren parte handi bat antzu eta betetzeko zail egin zuen, honek, batez ere baserrigunean istiluak eragin zituelarik. Ezkerreko gobernuak greben kontra errepresio bortitza erabili zuen, kasurik ezagunena, 1933.eko urtarrilean Kadizko Casas Viejas herrian Goardia Zibilak 20tik gora pertsona hiltzea izan zelarik. Halako istiluek ezkerreko gobernu asko kaltetu zuten, alde batetik euren bozka-emaileak atsekabetu zituelako, greben kontrako errepresioak sozialistak gero eta deserosoago egotea egiten zuelako (hauen oinarri soziala langile-klasean zegoen), eta bestetik, eskuineko indarrak “Ordena berma zezaketen” aukera bakar gisa agertzen zirelako. Hala, ezberdintasun programatikoak ere gaineratuz, errepublikanoen eta sozialisten koalizioak irautea ezinezko zuen, eta azkenean Azañak 1933.eko irailean dimititu zuen, Euskal Estatutuaren proiektua azken txanpan zegoenean. Gobernu berria osatzeko alderdi ezberdinak ados jarri ez zirelarik, azarorako hauteskundeak deitu zituzten.

Emakumezkoen botoez gain, hauteskunde horiek 1931ko hauteskundeekiko beste berrikuntza bat ere izan zuten: 1933ko uztailaren 27an beste dekretu bat atera zen, non barruti batean, hautagairik bozkatuenak, gutxienez ere botoen %40 izan behar zituen eta gainerakoek gutxienez ere %20 izan behar zituzten diputatu gisa lehen itzulian izendatuak izateko. Hautagaitzarik bozkatuenak botoen %40rik lortzen ez bazuen edo besteek %20rik lortzen ez bazuten, barruti horrek bi asteren buruan hauteskundeen bigarren itzulia egin beharra izango zuen³⁹⁰.

³⁹⁰ Ibid., 423-424. or.

2. kapitulua

Gipuzkoan ere zatiketa hori handitu egin zen. 1931n hiru hautagaitza bakarrik aurkeztu baziren, 1933an sei hautagaitza aurkeztu ziren: sozialistak, errepublikanoak, eskuina, jeltzaleak, Eusko Abertzale Ekintza eta Alderdi Komunista. Eskuindarren eta jeltzaleen arteko apurketa normala zen, aurreko bi urteetan batzuen eta besteen bideak erabat bereizi zirelako. Jeltzaleek Errepublikaren onarpenera jo zuten, eskuindarrek aldiz bai Estatutuaren zein Errepublikaren aurka egitera. Baina beste alde batetik, ezkerren artean ere zatiketa izan zen. Kasu horretan ez zen arraroa izan, azken bi urteetako Gobernu-esperientziak, batez ere helburu ezberdinak zituzten alderdien artean zatiketak eragin zituen; bai errepublikano eta sozialisten artean, zein errepublikanoen talde ezberdinen artean. 1930eko Donostiako Itunarekin hasi zen eta 1931n jarraipena izan zuen ituna, jada agortuta zegoen. Beraz, sozialistak eta errepublikanoak hautagaitza ezberdinetan joan ziren. Gipuzkoan, hala ere, talde errepublikano ezberdinek hautagaitza bateratua egitea lortu zuten, nahiz eta Espainian alderdi horien arteko harremanak oso txarrak izan. Izan ere Gipuzkoan, errepublikanoek euren aldetik zuten indar txikia (hirietan eta herri handietan soilik zuten pisua, eta 1931ko Udal-hauteskundeetan zinegotziak eta alkateak lortu bazituzten, hein handi batean euren orduko aliatu sozialisten botoak zirela-eta lortu zituzten), batasun horri eusteko arrazoi bat, eta ez txikia, izan zitekeen. Alderdi Sozialista bakarrik joan zen, kasu horretan inolako bidaidetik gabe. Hautagaitzen zerrenda itxiz, Eusko Abertzale Ekintza eta Alderdi Komunista, biak aukerarik gabe (azken honek bere zerrendetan Urretxun jaio eta Beasainen hazitako Jesus Larrañaga aurkeztu zuen).

1931n batera joan ziren eskuindarren eta jeltzaleen arteko talkak bi gune izan zituen: Estatutua eta erlijioa, lehenean bi hautagaitzen artean desadostasun sakona piztu zelako, eta bigarrean, biek Gipuzkoan oso indartsu zen gai bat berenganatu nahi zutelako. Eskuindarren hautagaitzak *Eskuindarren Batasuna* (gazteleraz, *Unión de Derechas*) izena izan zuen eta batez ere karlistez osatua izan zen: lautik hiru karlistak baitziren: Agustin Telleria, Antonio Pagoaga eta Maria Rosa Urraca Pastor bizkaitarra. Monarkiko alfonsotarren *Unión Regionalista Guipuzcoanak* (*Renovación Española* alderdiaren parte) Ramiro Maeztu arabar filosofo ezaguna aurkeztu zuen. Azken bi horiek gipuzkoarrak ez izateak gipuzkoar karlismoaren sektore batzuetan ezinegona piztu zuen³⁹¹. EAJk bestalde, bi aste lehenago izan zen Estatutuaren aldeko erreferenduma bere alde kapitalizatzeke aukera ikusi zuen. Gipuzkoako EAJk

³⁹¹ Ibid., 427-428. or.

“Estatutuaren alde zeuden indar guztiak hautagaitza batean joatea” proposatu zuen, eskuinarekin zein ezkerrekin bat eginez, baina beste alderdiek ezezkoa eman zioten gonbidapen horri³⁹² (EAJ eta Lerrouxen jarraitzaileen arteko koalizio “zentrista” baten posibilitateez ere hitz egina zen)³⁹³. EAJk, orduan, bere hautagaitza propioa aurkeztu zuen, bost hautagaiz osatua: Leizaola eta Pikabea diputatuez gain, Manuel Irujo nafarra, Telesforo Monzon gerora ezaguna egingo zen politikari bergararra eta Juan Antonio Irazusta agertzen ziren³⁹⁴. Estrategia arriskutsua zen, boto-emaile bakoitzak lau hautagai soilik aukera zitzakeelako, eta beraz, lau hautagaitik gora aurkezteak bozka hautagai ezberdinen artean zatitzea eta hautagai horiek kanpoan gelditzea ekar zezakeen.

Eskuindarrek eta jeltzaleek Elizaren eta bere ordezkarien aldekatasuna lortzeko gogor borrokatu zuten. Eskuindarrek “Errepublika laikoa” desagitea lehen helburu gisa jarritz “katoliko” izendapenaren monopolioa lortzea zuten helburua, “hautagaitza benetan katolikoa” eurak zirela esanez, eta besteak “katolikoaren etsaiak” edota etsaien “laguntzaileak” zirela esanez (horren atzean EAJren deslegitimazioa zegoen). Hala ere, eskuinak, Errepublika/Errepublika-aurkako lehia horretan ez zuen lortu Eliza eta Elizaren ordezkariak berak nahi bezala inplikatzetik, izan ere, Mateo Muxika Gotzainak (Gozain bat eta bera zuten Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan) ez baitzuen hautagaitza jakin baten aldeko botorik eskatu³⁹⁵. Bestalde, Elizari eta katolikotasunari gehien lotutako egunkari gipuzkoarrak, *El Díak*, hauteskunde horietan jeltzaleen aldeko jarrera argia izan zuen³⁹⁶.

Bestetik jeltzaleen aldetik, Estatutuaren defentsan zentratu zuen bere kanpaina EAJren hautagaitzak. Alde horretatik, 1931ko ekainean “Estatutuaren Defentsarako Euskal Hautagaitzaren” antzeko estrategia erabili zuen, hau da, hautagaitza bat Estatutuaren kausaren defendatzaile bakar bezala agertuz. Alde horretatik, estrategia horrek EAJren alde oso lan ona egin zuen eta EAJren boto-kopurua handitzeko oso baliagarria izan zen. Beste alde batetik, EAJk *Eskuindarren Batasunaren* aurka zentratu

³⁹² Ibid., 429-432. or. Rodríguez Ranz arabera, proposamen hori hasieratik zegoen porrotera emana, beraz agian hautesleriari begira eginiko estrategia izan zen.

³⁹³ FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: op. cit., 106. or.

³⁹⁴ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 1994, 432. or.

³⁹⁵ Mateo Muxikaren jarrera horrek biziki haserretu zituen eskuindarrak. Kontutan hartu behar dugu Idiazabalen jaio eta Beasainen hazitako gotzainak, bi aste lehenago burutu zen Estatutuaren erreferendumean baiezko botoa eskatu ez zuen arren, “arau katolikoaren arabera, baietz bozkatzea zilegi zela” esan zuela, eta berak, pertsonalki, botoa eman zuela. Muxikak, 1931ko ekainean “katolikoaren alde” botoa emateko deia egin zuen, baina orduan eskuindarrak eta jeltzaleak batera zeuden hautagaitza bakarrean.

³⁹⁶ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 427-428. eta 452-457. or.

2. kapitulua

zituen erasoak (haiek bere aurka egin bezala), “Estatutuaren etsaiak” zirela esanez (beste hautagaitzak “Estatutuaren inguruko oportunistak” soilik ziren), eta euren katolikotasuna monopolizatzeko estrategia, “erlijioaz abusatzea” zela esan zuten. EAJk eskuindarren argudioa beren aurka itzularazi nahi izan zuen, esanez, Gipuzkoako alderdi katoliko nagusia eurak baziren, beste “alderdi katolikoak” (*Eskuindarren Batasuna* kasu horretan) “laikoen laguntzaileak ziratekeela”³⁹⁷. Eskuinaren eta jeltzaleen arteko beste marruskadura puntu bat, eskuinak jauntxoan partetik zuen babesaren izan zen. Lehen kapituluan esana dugun bezala, azken mendeetan, baserri-guneetan, Goierri ere bai, baserriar asko, zorrak tarteko, euren lurak edota baserria jauntxoei saltzera behartuak gertatu ziren, hala eurak eta beren ondorengoak, errenta ordaintzearen truke maizter bihurtuz. Abertzaleek, *Euzko Nekazari Bazkuna* nekazaritzako sindikatuaren bitartez, nekazariak eta tartean maizter horiek defendatzen saiatu ziren, baserriatik botatzearen aurka joz. Hala, eskuinak “jabetza pribatuaren” aldeko propaganda egiten zuen, abertzaleek hura ez zutela defendatzen esanez. Afera horren punturik dramatikoena, jauntxo batzuk, eskuinaren jarraitzaileak izanik, botoa hautagaitza horri eman ezean baserriarrak mehatxatzen zituztenean gertatzen zen. Horixe gertatu zen gure eskualdean ere, Lazkaoko Infantadoko Dukeak eskuindarren hautagaitza bozkatu ezean bere maizterrak mehatxatu egin baitzituen³⁹⁸.

Ezkerren artean, errepublikanoak eta sozialistak erabat urrunduta agertu ziren orainoan, 1931ko koalizioa errepikatzeke aukerarik gabe. Bestalde, errepublikanoen artean, Azañaren jarraitzaile ziren zentro-ezkerreko alderdi ezberdinak eta Lerrouxen jarraitzaile zen zentro-eskuineko Alderdi Erradikala ere, euren artean asko urundu ziren. Eta beste alde batetik, sozialistek urrian bertan Gipuzkoako gestora uztea erabaki zuten (jada Estatutua bideratua zegoen, beraz ez zuen askorik eragin horretan). Beraz, ezkerreko errepublikanoek (Azañaren aldekoek) sozialistekin koalizioa egin nahi zuten arren, sozialistek bide hori ukatu egin zieten, nahiko etsita irten ziren-eta errepublikanoekin izandako Gobernu-elkarlanetik. Gainera, euren barne-erradikalizazioak beste helburu batzuk finkatzera (sozialismora heltzea) eraman zituen eta horrek errepublikanoekin bat egitea ezinezko bihurtu zuen. Sozialistak proiektu zen elkargo horretatik ateratzeak, Gipuzkoako sektore errepublikano guztien artean koalizioa egitea erraztu zuen eta azaroaren 10ean iragarri zuten elkartze hori. Lau

³⁹⁷ Ibid., 459-464. or.

³⁹⁸ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 28. or.; eta *El Día*, 1933-VI-18koa.

hautagaiak, Juan Usabiaga Laskibar ordiziar zinegotzi-ohia eta 1931n diputatu aukeratua (Alderdi Erradikaletik), Nikolas Bizkarrondo, “Bilintx” bertsolariaren iloba (Azañaren aldeko *Acción Republicana* alderditik), Manuel De la Torre (Alderdi Federaletik³⁹⁹) eta Jose Miguel Gomendio (Gipuzkoako Elkarte Errepublikanoen Federaziotik) izan ziren. Akordio horrek, Espainian alderdi errepublikano ezberdinen arteko harremanak nolakoak ziren kontuan izanda, tirabira handiak eragin zituen errepublikanoen artean, nahiz eta hautagaitza bakarra osatzeko gai izan⁴⁰⁰.

Sozialistek bestalde, urriaren 15ean Gipuzkoan hauteskundeetara bakarrik joateko erabakia iragarri zuten, beraz errepublikanoekin edozein itun egitea ere baztertu egin zuten. Sozialisten erabaki hori barneko kontraesanen emaitza izan zen, hau da, errepublikano burgesekin itun oro hausteko ildoan alderdiaren baitan nagusitzearen emaitza. Gipuzkoako Alderdi Sozialistaren hautagaitza osatzen zutenak, Enrique De Francisco diputatu tolosarra, Toribio Echevarria eibartar gidari historikoa eta euskal idazlea, Julia Alvarez eta Federico Angulo izan ziren⁴⁰¹. Sozialistak eta eskuindar hautagaitza izan ziren, emakumezko hautagai bana aurkeztu zuten hautagaitza bakarrak. Bestalde, beste antzekotasun bat ere izan zuten eskuindar hautagaitzarekin: gipuzkoarrak ez ziren hautagaiak aurkeztea, kasu horretan Julia Alvarez nafarra⁴⁰². Duela hilabete gutxi arte Gobernua elkarbanatzen zuten bi hautagaitzek hauteskunde horietan mezu zeharo desberdinak zabaldu zituzten: errepublikanoek indarrean zegoen II. Errepublikaren aldeko defentsa egin zuten, eta “bi arriskuak”, hots eskuineko diktaduraren edota monarkiaren eta ezker sozialistaren iraultza parekatu zituzten, euren burua demokrata bakartzat aurkeztuz, “diktadura zuriaren” edota “diktadura gorriaren” aurka. Horrez gain “gipuzkoar ekonomiaren” defentsa egin zuten, Juan Usabiaga diputatu eta hautagai ordiziarrek Gipuzkoako enpresen eta gure lurraldeko ekonomiaren alde egindako bitartekaritza-kudeaketak nabarmenduz. Beraz, klaseetatik at gelditzen zen mezu bat zabaldu zuten. Sozialistek ordea, II. Errepublikaren hasierako urteetan izandako ordena berriaren identifikazioa ahaztuta, askoz ere terminologia marxistagoa erabili zuten (“sozialismoa”, “errepublika burgesaren aurka”, “boterea proletalgoarentzat”). Beraz, bi aukera horiek inoiz baino urunduago egon ziren. Bi hautagaitza horien arteko arerio-giro horretan, Gipuzkoako egunkari ezkertiarra zen *La*

³⁹⁹ Alderdi hori nahiko txikia zen, baina Gipuzkoan bazuen nahiko indar, hainbeste izan ere, ezen Fernando Sasiain Donostiako alkatea alderdi horretakoa zela.

⁴⁰⁰ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 435-437. or.

⁴⁰¹ Ibid., 437-438. or.

⁴⁰² Federico Angulo Vazquez Salamancan jaioa bazen ere, 1930etik aurrera Donostian bizitakoa zen.

2. kapitulua

*Voz de Guipúzcoa*k hautagaitza errepublikanoaren alde egin zuen erabat, sozialisten aurka eginez eta haien protestak ozenduz⁴⁰³.

Komunistek Jesus Larrañaga urretxuar beasaindarta aurkeztu zuten. Gipuzkoar komunista ezagunarekin batera, Juan Astigarribia pasaitarra eta Luis Zampirain eta Ricardo Urondo donostiarrak aurkeztu zituzten. Komunistak garai hartan II. Errepublikarekiko, haren erakundeekiko eta haren alde zeuden alderdiekiko ere erabateko aurkakotasuna erakutsi zuten eta horixe erakusten saiatu ziren kanpainen zehar. Hala, beste alderdi guztien aukako kanpaina egin zuten, bai ezkerrekoen zein eskuinekoen aurka; “Langileen eta Nekazarien Gobernuaren alde”. Alderdi Komunistak, sozialisten demagogia kritikatu zuen, aurreko bi urteetan Gobernuaren izaki, “errepresioaren gaizkide” izan zirelako⁴⁰⁴. Alderdi Komunistak Gipuzkoa osoan, eta Goierri ere bai, kanpaina egin zuen, bere hautagai nagusiaren jatorria bertan zegoen-eta⁴⁰⁵.

Eusko Abertzale Ekintzak Estatutuaren aldeko hautagaitza bakarra aurkeztea helburu bazuen ere (EAJrekin bat eginez), azkenean, asmo horiek ez gauzatzean, hautagai bakarra aurkeztu zuten, EAek Gipuzkoan zuen indar txikia ikusita. Hautagai hura Jose Imaz Arrieta izan zen. Bestalde, gipuzkoar bakoitzak lau izen bozka zitzakeenez, Juan Usabiaga eta Nicolas Bizcarrondo errepublikanoentzako eta Jesus Maria Leizaola jeltzalearentzako botoa ere eskatu zuten. EAeren helburu nagusia, alderdia ezagutaraztea zen, hauteskundeetan bazterrean gelditzeko arriskua alboan utzita⁴⁰⁶.

1931ko ekainekoarekin konparatuz (gogora dezagun Bergaran hildako bat izan zela), hauteskunde-kanpaina lasai samarra izan zen. Horrek ez du esan nahi bortizkeriazko pasadizorik izan ez zenik. Bestalde, Antzuolan, karlistek adin txikikoak ziren boto-ikuskatzaileak erabili zituztela ere salatua izan zen⁴⁰⁷. Hala ere, guztiz lasaia izan zenik ere ezin dugu esan, Francisco Cuenca militante komunistak, Jose Antonio Egidori kontatutako testigantza araberak “Larrañagarekin batera Goierri osoan egin

⁴⁰³ Ibid., 446-469. or.

⁴⁰⁴ Komunisten hauteskundearen aurreko planteamenduari buruzko informazio gehiago honako argitalpen hauetan: *Euskadi Roja*, 1933-X-28koa; *Euskadi Roja*, 1933-XI-4koa; *Euskadi Roja*, 1933-XI-11koa eta *Euskadi Roja*, 1933-XI-18koa.

⁴⁰⁵ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 61. or.

⁴⁰⁶ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 438-440. or.

⁴⁰⁷ Ibid., 475. or.

nuen kanpaina. Guk gurekin pistola generaman, istilurik gertatzen bazen ere⁴⁰⁸. Ordizian mitin karlista bat izan zenean, herritarrek, abertzaleek zein ezkertiarrek, Urraca Pastor hizlari karlista iraindu zuten eta bere hitzak abesti abertzaleekin batzuek, eta Internazionalarekin besteek, moztu zuten; hizlariak ikusleak ere iraindu zituen. Guardia Zibilak hizlaria babestu behar izan zuen⁴⁰⁹.

Azaroaren 19an, eguraldi oneko egunean, 130.098 gipuzkoarrek eman zuten botoa, %78,07k, beraz, 1931n baino gutxiagok proportzioan (orduan, gizonezkoek soilik eman zezaketen botoa eta %85,56k eman zuten). Parte-hartzea, bai Donostian, zein herri handietan eta txikietan antzeko samarra izan zen. Jose Antonio Rodriguez Ranzen kalkuluen arabera, EAJk 58.041 herritarren babesia lortu zuen (%45,13), *Eskuindarren Batasunak* 32.025 herritarrena (%24,76), Alderdi Sozialistak 20.414 herritarrena (%15,77), Koalizio Errepublikanoak 14.122 herritarrena (%10,91), Alderdi Komunistak 2.330 herritarrena (%1,80) eta Eusko Abertzale Ekintzak 2.106 herritarrena (%1,63). Sei hautagaietatik, bost jeltzale izan ziren aukeratuak: Jesus Maria Leizaola (56.449 boto), Telesforo Monzon (45.923 boto), Manuel Irujo (45.742 boto), Juan Antonio Irazusta (45.427 boto) eta Rafael Pikabea (42.636 boto). Seigarrena eskuindar bat izan zen aukeratua, Ramiro Maeztu (32.320 boto). Azken hori ozta-ozta izan zen aukeratua, bere hautagaitzako kide zen Antonio Pagoaga karlistak 32.055 boto lortu baitzituen (beste biek gutxixeago lortu zituzten; Agustin Telleriak 31.708 boto eta Maria Rosa Urraca Pastorrek 31.618 boto). Inguruabar horrek haserrea piztu zuen karlisten artean, izan ere, eskuindarren artean karlista ez zen hautagai bakarria izan zen aukeratua. Maeztu bera babesten zuen alderdia, *Unión Regionalista Guipuzcoana*, Gipuzkoan oso txikia zen eta karlistek euren botoak euren ez zen hautagai bat aukeratzeko eman izanaren atsekabea izan zuten. Prentsa karlistan salatu egin zen monarkiko alfonsotar gipuzkoarrek Maezturen izena soilik markatzen zutela, beste hiru hautagaiak kanpoan utziz, leialtasun-falta gisa salatu zuten gertakari hori. Beste hautagaiak oso urrun gelditu ziren: hautagai sozialista bozkatuena Enrique De Francisco tolosarra izan zen, baina ez zuen diputatu gisa errepikatzerik izan (21.596 boto lortu zituen). Juan Usabiaga ordiziarra izan zen errepublikanorik bozkatuena 15.698 botorekin (horrek ere ez zuen errepikatzerik izan). Alderdi Komunistan, nabarmenena Juan Astigarribia pasaitarra izan zen 2.381 botorekin (Jesus Larrañaga goierritarrak

⁴⁰⁸ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 61. or.

⁴⁰⁹ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura*...op. cit., 28. or.

2. kapitulua

2.349 boto bildu zituen). Azkenik, Eusko Abertzale Ekintzako Jose Imazek 2.116 boto⁴¹⁰.

EAJren garaipena erabatekoa izan zen, bai botoei dagokienez, eta baita ere hauteskunde sistema menperatzen jakin zuelako: bost diputatu lortu zituen, hautesle bakoitzak lau hautagai soilik bozkatu zituztelarik. Horretarako, jeltzaleek, aldeko denek Leizaolaren alde bozkatea gomendatu zuten (honek %40ko gutxiengo langa gaindi zezan), beste hiru bozkak hiru hautagaien artean banatzen zituztelarik. Halako “estrategia” egiteko erabateko nagusitasuna izan behar zen, eta hala izan zen, EAJ Gipuzkoako 89 herrietatik 75tan nagusitu baitzen⁴¹¹. Eskubien Batasuna 12 herritan nagusitu zen (horietatik 11 Goierrin eta Tolosaldean), eta Alderdi Sozialista bitan (Eibarren eta Pasaian). Ezkertiarren kasuan, banatuta joateak kalte egin zien, batera botoen %30 lortuko baitzuten; 1931an bano gutxiago, baina kontuan hartu behar da Gobernuko urteen desgastea, eta batez ere Gipuzkoako hautesleriak, hauteskunde hauei begira, Errepublika defendatzea baino beste lehentasun batzuk zituela, Estatutua esaterako. Ezkerraren aldean, beste joera bat nabarmendu zen: Donostian eta herri handietan sozialistak errepublikanoen aurretik jarri ziren, herri txikietan aldiz alderantziz izan zen. Honek sozialistak Gipuzkoako hirugarren alderdi bezala ezarri zituen⁴¹².

Goierrin ere antzerako emaitzak ikusten ditugu. Gure eskualdeko 20 herrietatik 15etan EAJ izan zen lehen alderdia, eta Eskubien Batasuna 5 herritan nagusitu zen. Jeltzaleek 5.238 boto atera zituzten gure eskualdean, Goierriko kopuru osoaren erdiak, eta eskuindarrek 3.647 (%37,80). Oso atzean gelditu ziren sozialistak eta errepublikanoak, hurrenez hurren 774 (%7,38) eta 737 (%7,03) boto atera baitzituzten. EAEn eta komunisten boto-kopurua sinbolikoa izan zen. Herriz herri joanez gero, EAJk alkatetzak zituen 12 herrietatik 10etan irabazi zuen, eta bost berri “lortu” zituen, tartean, Beasain. Gure herrian, ezkerraren gotorlekuan, 726 bozka lortu zituen, %36,8; eskuinak 523 (%26,5) lortu zituen bitartean. Ezkerreko hautagaitzentzat, eta batez ere indar handia zuen Alderdi Sozialistarentzat porrot handia izan zen, izan ere hirugarren gelditu baitziren 482 botorekin (%24,4), errepublikanoek 231 (%11,72) lortu zituzten

⁴¹⁰ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 479-483. or. Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, EAJren bost hautagaiek, denek batera 236.177 boto lortu zituzten, Eskubien Batasunaren lau hautagaiek 127.701 boto, Alderdi Sozialistaren lau hautagaiek 81.560 boto, Koalizio Errepublikanoaren lau hautagaiek 55.327 boto eta Alderdi Komunistaren lau hautagaiek 9.365 boto.

⁴¹¹ Ibid., 484. or.

⁴¹² Ibid., 486-492. or.

bitartean. Ezkerreko lau hautagaitzak batuta ere ez ziren EAJren emaitzetara iritsi, 721 boto lortu baitzituzten (%36,6). Emaitza horiek erakusten dute 1931ko maiatzeko ezkerren erabateko garaipenak Beasainen ezkerrek zuen indar handia erakutsi bazuen ere, benetan ez zela emaitzak erakutsi zuena adinakoa, bai orduan EAJ aurkeztu ez zelako, eta baita testuingurua orduan ezkerrentzat oso aldekoa zelako ere (hala ere akats bera izan liteke 1933ko emaitza horiek, ezkerrek oso testuinguru txarra zuenean izandakoak, Beasaingo emaitza finkatu moduan hartzea). Esan bezala, EAJk garaipen handia izan zuen, Beasain bera ere lortuta, baina Ordizian (non alkatetza zuen) galdu egin zuen, Zaldibian bezala. Jeltzaleek garaipena izandako bost herri berriak, Beasain ezkertiarra eta “independenteeek” alkatetza lortu zuten Itsaso kenduta, Legorreta, Ormaiztegi eta Segura izan ziren (hirurak eskuinekoak). Eskuinak garaipena lortutako bost herrietatik hiru, Arama, Gaintza eta Zegama, Estatutuaren erreferendumean oso parte-hartze txikia izandako herriak izan ziren, hirurak eskuineko alkateak zituztenak. Hala ere, eskuineko alkateak zituzten beste hiru herritan, Idiazabalen, Legorretan eta Seguran ez zuen garaipenik lortu, baina Zaldibian eta Ordizia garrantzitsuan irabaztea lortu zuten. Ezkertiarrei dagokienez, oro har oso emaitza txarrak izan zituzten. Lehengo lerrokadan aipatu dugu sozialistek errepublikanoek baino emaitza hobek izan zituztela herri handi eta ertainetan, baina txarragoak herri txikietan. Goierrin, zenbait ñabardurekin, eskema hori jarraitu zuten hauteskunde horietan, sozialistek Beasainen, errepublikanoek baino 250 boto gehiago lortu zituzten eta beste lau herritan soilik izan zituzten errepublikanoek baino boto gehiago (Ordizian, Lazkaon eta Idiazabalen gutxiago izan zituzten). Sozialistak, Beasaindik kanpo, Ordizian soilik gainditu zuten %10a (%11,20), Legorretan gertu ibili baziren ere (%9,84). Horrez gain, beste herri bakar batean, Ormaiztegin, gainditu zuten %5eko langa. Errepublikanoei dagokienez, lau herritan gainditu zuten %10eko langa: Beasainen, Gaintzan, Idiazabalen eta Ordizian; beste hirutan, Gabirian, Ormaiztegin eta Zegaman %5ekoa gainditu zuten. Aipagarria izan zen hautagaitza horrek Gabirian bigarren indarra izatea lortu zuela, eskuindarren aurretik.

2.5.b) 1934ko Udalen mugimendua

Gobernu eskuindar berriaren politikaren aurkako sektoreen ezinegona argia izan zen, eta 1934an bi gertakari izan ziren, ezinegon hori modu oso bortitzean azaleratu zutenak: bata udan, euskal Udalen “matxinadarekin”, eta bestea, urrian, 1934ko “Urriko Iraultza” zela bide. Azken iraultza hori, batez ere Asturiasen gertatu zen, baina Euskal

2. kapitulua

Herrian ere bere txinpartak zabaldu zituen⁴¹³. Mugimenduok oso izaera ezberdinekoak izan ziren, bata autogobernuaren aldekoa izan zen eta bestea izaera sozial eta proletariokoa, baina egia da pertsona batzuek bi mugimenduetan parte hartu zutela (Udalen matxinada sozialistek eta ezkerreko errepublikanoek ere babestu baitzuten, eta are gehiago, Bilboko eta Donostiako Udalek, biak errepublikanoek zuzenduak, protagonismo berezia izan zuten). Bi mugimenduen artean ez zen lotura organikorik izan, eta alderdien inplikazioa ere ezberdina izan zen, mugimendu bakoitzaren izaera berezia zehaztu zutenak (lehenean jeltzaleek zein ezkerrek hartu zuten parte, bigarrenean langileen ezkerreko alderdiek soilik parte hartu zuten alderdi gisa, ELAko militante batzuek toki batzuetan batu baziren ere); eta EAJk adibidez, behin eta berriz ukatu zuen bi mugimenduen arteko ahaidetasuna. Baina egia da baita ere, lehen mugimenduak Euskal Herrian bigarrena azkartzen lagundu zuela, Gobernuaren kontrako giroa hedatu egin baitzuen. Nahiz eta aliantza formalik ez egon (ELAren zuzendaritzak ez zuen bat egin 1934ko urriko iraultzarekin), giroan, oro har, bi mugimenduan artean Gobernuaren kontrako elkartasun moduko bat sortzea lortu zuten. Eta Beasaini dagokionez, bi gertakariak arrasto sakona utzi zuten gure herrian, bai mobilizazio aldetik eta baita errepresio aldetik ere: lehenak alkatea atxilotzea eta Udaleko zinegotzi denek (batek salbu) dimititzea ekarri zuen eta, Gobernadore Zibilak, herriak aukeratu gabeko Udal berria inposatu zuen; eta bigarrenari dagokionez, 31 herritar atxilotu egin zituzten polizia-indarrek eta horietatik 20ri baino gehiagori kartzela-zigorra ezarri zieten.

Udalen mugimendua sortzeko, lehen mailako faktorea izan zen Gobernuak (nekazaritza-munduko oligarkiako diputatu batzuen proposamenez), ardoaren gaineko zergak kentzeko legea atera izana. Lege hori, foru-haustea izateaz gain, euskal udalen ogasunentzat arriskua ere bazen, izan ere, ardoaren gaineko zergak udalen aurrekontuen zati garrantzitsua betetzen baitzuen (hala ere garbi zegoen Gobernuaren aldetik foruen kontra joateko borondatea ere bazegoela, Marraco Ogasun ministroak esan zuen “Estatuaren barrenean ezin da muga ekonomikorik izaten utzi”). Gainera, horri Estatutuaren geldialdia gehitu behar zaio, eskuina ez baitzegoen Estatutua indarren jartzeko batere interesatuta. Euskal Herrian bertan ere, Gobernuak ez zuen gauza

⁴¹³ Katalunian ere egon zen urrian mugimendu matxino bat, Generalitateko lehendakari Lluís Companysen “Espainiako Errepublika Federalaren barneko Estatu Katalana” aldarrikatu baitzuen. Hala ere, Kataluniako matxinada hori (*Fets de Prats de Molló*) erabat nazionalista izan zen, beraz ez zuen Asturiaskoarekin zerikusirik izan, Euskal Herrikoak ez bezala. Euskal Herriko urriko gertaerak, bereziki izaera sozialekoak izan ziren, beraz Asturiasko Iraultzarekin zerikusia izan zuten.

handirik egin bertako erakundeak demokratizatzeko, Aldundietan Gestorak ez zituzten ordezkatu herriak aukeratutako ahaldunez; gestoren kolore politikoa soilik aldatu zen: ezkerreko alderdietako kideak Lerrouxen zentro-eskuineko alderdiko kideek ordezkatu zituzten, Euskal Herrian erabat gutxiengokoa zen alderdi bateko kideek alegia. Gogoratu behar dugu Gestorak ez aukeratuak izatea abertzaleen salaketa nagusietako bat izan zela eta 1931-1933ko ezkerreko alderdien nagusitasun-garaian eskuinak salaketa horrekin bat egin zuela. Gero ordea, Gestorak izendatzeko aukera hori bere alde erabili zuen eskuinak, Alderdi Erradikal Lerroux-zaleak Euskal Herrian zuen pisu txikia ikaragarri handituz (ezkerrak behintzat, Gestoren aukera bere alde erabili bazuen ere, Euskal Herrian pisu handia zuen une hartan). Bestalde, ekainean EAJko diputatuak legebiltzarretik erretiratu egin ziren, Gobernuak Kataluniako Generalitatek onartutako “Ereintza Kontratuen Legea” bertan behera utzi ostean. Ikusten den moduan, oro har, mugimendu autonomista edo abertzalea ere izan zen, baina ezkerreko alderdiek (ezkerreko errepublikanoek zein sozialistek) ere parte hartu zuten.

Euskal erakundeak beren Hitzarmen Ekonomikoen alde koordinatzen hasi ziren. Hala ere, kontuan izan beharra dago, horien zati bat (Gobernadore Zibilak eta Aldundietako Gestorak), Gobernuaren aldeko Alderdi Erradikalaren esku zeudela. Hala, 1934ko ekainaren 12an, hiriburuetako alkateak Aldundietako Gestorekin bildu ziren, eta azken horiek Marraco Ogasun Ministroarekin negoziatzea adostu zuten. Baina negoziazio hori tratatzean, ekainaren 25ean, Marracok bere posturari eutsi egin zion, eta gainera horretarako Aldundietako Gestoren laguntza izan zuen. Ekainaren 25ean argi gelditu zitzairen euskal udalei Gestorak ez zituztela auzi horretan alde izango, autogobernuaren gainetik alderdiarekiko leialtasuna zutela alegia.

Hala, Bilboko Udalaren ekimenez (zeina ez zegoen jeltzaleen esku, ezkertiarren esku baizik) Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Udalek, uztailaren 5ean Bilbon elkartzea erabaki zuten. Bilbon izan zen Batzar hartan, Beasaingo Udalaren ordezkaria ere bertaratu zen, Jacinto Urteaga alkatea hain zuzen ere⁴¹⁴. Bilboko Batzarrean, euskal udalek probintzietako Udalen arteko Batzordea eratzea onartu zuten, Udalen eta autogobernuaren defentsan aritzeko. Gipuzkoak, 20 ordezkari izan behar zituen, Bizkaiak beste 20 eta Arabak 12. Abuztuaren 12an udalek aukeratu behar zituzten (udal bakoitzeko zinegotziek bozkatu behar zuten eta zinegotzi bakoitzaren botoa balio

⁴¹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

2. kapitulua

desberdinekoa izan behar zuen jasotako botoen arabera). Gipuzkoaren kasuan, lau barruti ziren eta barruti bakoitzeko bost ordezkari izango ziren. Udalen Batzar horretan, Abuztuaren 12ko aukeraketa iritsi artean, lurralde bakoitzak bost ordezkariz osatutako behin-behineko batzorde bat osatzea erabaki zuten: bat hiriburuaren ordezkari gisa, beste bat 10.000 biztanletik gorako udalerrien aldetik, beste bat Auzitegi-barrutiko buru ziren 10.000 biztanletik beherako Udalen aldetik, beste bat Auzitegi-barruti izan gabe 10.000 biztanletik beherakoak ziren herrien aldetik eta beste bat, 2.000 biztanletik beherako herrien aldetik⁴¹⁵. Udalen mugimendu berri bat hasi zen.

Espainiako Gobernuak halako mugimenduak etsaitasun handiz ikusi zituen. Alderdi Erradikaleko politikarien arabera, Euskal Udalek Aldundien kontrola nahi zuten, Gobernuak ezarritako Aldundien Gestorak ordezkatzuz (izan ere, aukeratu gabekoak izateaz gain, euskal autogobernuaren alde aritu ez zirenez, Udalen mugimendu berri horren arabera, egia da, izan zezaketen zilegitasun apurra ere galdu egin zutela). Udalen mugimendu horrek, bazuen aurrekari bat, 1931ko udalen mugimendua: bietan udalak ziren protagonista (oposizioko udalak ere bai) eta autonomia zegoen erdigunean. Eskuinak hor, ezkerren aldetik (abertzaletasuna bidelagun omen zuela) eskuineko Gobernuak uzkailetzeko edo higatzeko mugimendu bat ikusi zuen eta ez zuen erakutsi elkarrizketarako inolako borondaterik (garai hartan, Espainiako Gobernuak, Kataluniako Gobernu Autonomoaren Ereintza Legea, jurnalarien interesak defendatzen zituena, deuseztatu egin zuen). Hala, berez negoziatzaileak ziren batzordeei Gobernuak berak eman zien izaera politikoa edota “iraultzailea”: abuztuaren 1ean Bizkaiko Gobernadore Zibilak, Velardek, abuztuaren 12ko hauteskundeak debekatu egin zituen⁴¹⁶.

Egun batzuk geroago, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Emeterio Mugak, bide berbera jarraitu zuen: 1934ko abuztuaren 4an, Beasaingo Udal-bilkurak, Gobernadore Zibilaren oharra jaso izanaren berri eman zuen eta ohar horretan “Errepublikako agintariek, Udal-legetik at zeuden ekintzak ez zituztela baimenduko” jakinarazi zuten⁴¹⁷. Beraz, haustura erabatekoa izan zen eta horren arduraduna Espainiako Gobernu eta eskuineko alderdiak izan ziren, Euskal Udalen mugimenduak ez baitzuen matxinadarako asmorik (EAJ urrian parlamentura itzuli zen, ezkerria ez, urrian gertatu

⁴¹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

⁴¹⁶ FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: op. cit., 113-115. or.

⁴¹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16 dokumentua.

zen langile-iraultzaren ostean erabat Gobernuaren kontra baitzegoen)⁴¹⁸. Azkenean, abuztuaren 12rako gelditu ziren Beasaingo zinegotziak ordezkarien aukeraketa hori egiteko. Goizeko hamaiketan hasi zen Udal-bilkura hartara, hamaika zinegotzi agertu ziren, Arbaizarrek eta Carrascalek soilik egin zuten huts (gogoratu egin behar dugu lehenak dimititu egin zuela 1931n, eta bigarrenak, ofizialki Udalaren parte bazen ere, 1932ko ekainaren 9tik bere burua “dimitituzat” zuela). Guardia Zibilaren tokiko tenientea⁴¹⁹ bertan izan zen, baina ez zuen antza bilkura mozteko saiakerarik egin eta txosten bat idatzi besterik ez zuen egin, gero Auzitegira bidali zuena⁴²⁰. Hasieratik, Serafin Arana bozketaren kontra agertu zen, beraz, ez zuen botorik eman. Boto-sistema, zinegotzi bakoitzak berak nahi zituen hautagaiak izendatzean zetzan, baina zinegotzien botoa ez zen baliokidea, 1931ko maiatzaren 31n lortutako boto-kopuruaren arabera baizik. Bozketa hasi aurretik Urteaga alkateak zinegotziei euren erantzukizunaz jabetuak al ziren galdetu zien eta bozketarekin ados al zeuden galdetu zien. Serafin Arana soilik azaldu zen aurka, horrela, bere “erantzukizuna salbatuz”. Ez dugu Serafin Aranaren jarrera hau argitzeko lagun diezagukeen datu zehatzik, baina kontuan izanda Arana 1931n errepublikano gisa aurkeztu zela orain bozketan parte hartzen ari zirenekin batera (1931n errepublikano guztiak bat eginda zeuden), pentsa genezake Espainiako Gobernuko Alderdi Erradikalarekin identifikatzen zela. Bozketan, bi zinegotzi eskuindarrek, Restituto Urteagak eta Jose Martin Sarrieguik (bakoitzak 50 boto zituen), Ordiziako alkate Patxi Iturrioz, Andoaingo alkate Pablo Eguibar eta Tolosako alkate Antonio Labayenen alde eman zuten botoa eta hirurak jeltzaleak ziren. Bertan zeuden zinegotzi ezkertiar gehienek, zazpik, Jose Alberto Labadiaren aldeko botoa eman zuten eta guztira 1.285 boto lortu zituen. Bere kabuz botoa eman zuen bakarra, Jacinto Urteaga alkatea izan zen, bere 72 botoak Juan Goibururen alde jarri baitzituen⁴²¹.

Tolosako barrutian hiru jeltzale horiez gain (Iturrioz, Eguibar eta Labayen), beste bi izan ziren aukeratuak, Basilio Fernandez Zumarragako alkatea eta Domingo Berriochoa Urretxuko alkatea. Gipuzkoako hogeitazortietatik, EAJko hamaika, bost errepublikano, hiru sozialista eta EAeko bat izan ziren izendatuak⁴²². Hauteskunde edota aukeraketa hari dagokionez, udalen mugimenduaren bozeramaileen ustez,

⁴¹⁸ FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: op. cit., 120-122. or.

⁴¹⁹ Agian Alejo Beñaran izan zen, 1936an frankistek fusilatutako berbera.

⁴²⁰ *La Constancia*, 1934-VIII-14koa; eta *El Día*, 1934-VIII-14koa.

⁴²¹ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16 dokumentua.

⁴²² RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 502. or.

2. kapitulua

Gipuzkoako ia udal denetan egin zen hautaketa, 71 udaletan alegia⁴²³. Gobernu Zibilaren arabera, 22tan soilik egin zen, beste 14tan indar polizialek hautaketa galarazi egin zuten, 8tan udalek indar publikoek egindako ohartarazpenaren arrear, bilera bertan behera utzi zuten, bitan atzeratu egin zuten eta 43tan hautaketarik ez zen izan⁴²⁴. Bizkaian ere antzeko desadostasun bat izan zen: hango Gobernadore Zibilaren arabera 117 udaletatik 41 udalek parte hartu zuten, Bizkaiko Udalen Batzordearen arabera, ordea, Bizkaiko ia udal denek egin zuten hautaketa⁴²⁵. Arabako Gobernadore Zibilak hasiera batean Gasteizen soilik egin zirela esan zuen, baina gero udal gehiagotan ere egin zirela onartu beharra izan zuen⁴²⁶. Hautaketa gauzatu zen zenbait tokitan, Beasainen kasu, Guardia Zibilak alkatea atxilotu zuen: *La Constancia* egunkari eskuindarraren arabera, 28 alkate izan ziren atxilotuak egun hartan, tartean Donostiakoa, Irungoa, Eibarkoa eta Errenteriakoa⁴²⁷. Donostiako alkateari, Gobernadore Zibilaren komunikazio baten bidez komunikatu zitzaion atxiloketa, Donostiako Udaletik ez ateratzeko agindua emanez, eta gero etxeko atxiloketa agindua emanez⁴²⁸. Donostiako alkatearen atxiloketak elkertasun-korrante handia sortu zuen, telegrama aunitz jaso zituen egun hartan Udal donostiarrak, bai Gipuzkoatik zein Gipuzkoaz kanpotik⁴²⁹.

Jakin badakigunez, egun hartan Guardia Zibilak Jacinto Urteaga alkatea atxilotu zuen, ez zuzenean, baina bai haiek idatzitako txosten baten bidez Tolosako epaitegira deklaratzera deituz⁴³⁰. Atxiloketaren inguruko datu gehiegirik ez dugu, baina Udal-bilkuraren ostean izan behar zuen, izan ere, akta zinegotzi denek sinatu baitzuten⁴³¹. Abuztuaren 16an, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak Beasaingo Udalarik alkatea

⁴²³ *El Día* egunkariak, “9 Udaletatik 80tan baino gehiagotan izan zela aukeraketa” esan zuen. *El Día*, 1934-VIII-14koa.

⁴²⁴ *El Día*, 1934-VIII-14koa; *El Pueblo Vasco*, 1934-VIII-14koa; eta *La Constancia*, 1934-VIII-14koa. Hala ere ez dira oso datu fidagarriak; datu horien arabera, adibidez Ordizian ez bide zen bilerarik egin, jakin badakigunean Ordizian bilera egin zela. Bestalde, datu horien arabera, “indar publikoak bilera galarazitako” udalen zerrendan Donostia eta Beasain agertzen dira, Udal horietan bilera eta hautaketa egindako akta egon badagoenean (*El Día*, 1934-VIII-14koa). Ordiziako oroimen historikoaren liburuan, Gipuzkoako 89 udaletatik 80tan bozketak egin zirela esaten da. ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 30. or.

⁴²⁵ *El Día*, 1934-VIII-14koa. Bizkaian laurogei Udal baino gehiagotan hautaketa egin egin zela esaten du *El Día*ak.

⁴²⁶ FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: op. cit., 118. or.

⁴²⁷ *La Constancia*, 1934-VIII-14koa. Hala ere, egunkari ezberdinen kroniken arabera, alkate gehienak, deklaratu ostean egun berean aske gelditu ziren.

⁴²⁸ *El Día*, 1934-VIII-14koa; *El Pueblo Vasco*, 1934-VIII-14koa; eta *La Constancia*, 1934-VIII-14koa.

⁴²⁹ Adibidez, Barakaldoko edo Bartzelonako Udalek elkertasuna erakutsi zioten. *El Día*, 1934-VIII-14koa.

⁴³⁰ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 84-85 or.; ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 134. or.; eta *La Constancia*, 1934-VIII-14koa. *La Voz de Guipúzcoa* Beasaingo alkatea “epailearen esku utzi zutela” baino ez zuen aipatu. *La Voz de Guipúzcoa*, 1934-VIII-14koa.

⁴³¹ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

kargugabetu egingo zuela jakinarazi zion eta alkate gisa, behin-behinean, lehen alkateordea, Leoncio Ibarbia, ezarri behar zela jakinarazi⁴³² (nahiz eta antza denez, Urteagaren kargugabetzea atxiloketaren hurrengo egunean, abuztuaren 13an, gertatu⁴³³). Ordizian ere behin-behineko alkatea (EAEko Anton Luzuriaga) atxilotu egin zuten, goizeko 11:30ak inguruan, baina hala ere, beranduago beste zinegotziak bildu egin ziren, bozketa egiteko. Abuztuaren 13an bertan eta hurrengo egunetan, Gipuzkoako hainbat alkate, 20 inguru izan ziren kargugabetuak, abuztuaren 19an, oraindik indarrean zeudenek eurekiko elkartasuna adierazten zuen agiri bat sinatu zutelarik⁴³⁴.

Udal-bilkura ez zen abuztuaren 25a arte berriz bildu eta orduan Ibarbia alkateordearen buruzagitzapean bildu zen. Bilkura horretara hamar zinegotzi joan ziren, Urteaga kargugabetua, Arbaizar dimititua eta Dionisio Carrascal soilik falta izan ziren. Ibarbiak, alkatearen kargugabetzearen berri jakinda, bere elkartasuna adierazi zion eta “Udalan jarraitzeko ezintasuna” aldarrikatu zuen, berak ere dimitituz eta dimisio hori zinegotzi denek onartu zuten, Serafin Aranak izan ezik. Horren ostean, beste alkateordearen, Victor Bernedoren txanda izan zen, eta honek ere dimisio-prozedura bera jarraitu zuen (berriz ere Aranaren kontrako botoarekin)⁴³⁵. Beasaingo Udala, praktikan, desegina izan zen (nahiz eta beste iturri batzuen arabera, beste zinegotzien dimisioa irailaren 7an izan⁴³⁶, baina praktikoki abuztuaren 25ekoa izan zen Udal-talde horren azken bilkura, harik eta 1936ko otsailean Herri Frontearen Gobernuak berriz indarrean jarri zuen arte). Serafin Arana Gaiztarro zinegotziaren portaera, bera 1931ko maiatzean errepublikanoen eta sozialisten zerrenda ezkertiarrean aukeratua izan zen, errepublikanoen barne-eztabaiden eta Errepublikaren urteetan euren artean izandako hausturaren testuinguruan ulertu behar dugu; beste zinegotziak zentro-ezkerreko alderdien alde paratu ziren (Beasainen 1934an sortu ziren *Izquierda Republicana* eta *Unión Republicana* alderdiak) eta 1931tik aurrera zentro-ezkerreko errepublikanoek hautatu zuten bide autonomista moderatuarekin koherente jokatu zuten, baina Serafin Arana, orduan boterean zegoen zentro-eskuineko Alderdi Erradikalarekin lerratu zen.

⁴³² Miren Barandiaranek bere liburuan alkatetza Victor Bernedori eskaini izan zitzaioela esaten du; hala ere badirudi datu hori okerra dela, lehen alkategaia Ibarbia baitzen, eta gainera berak zuzendu zuen Urteaga kargugabetu ondorengo lehen Udal-bilkura, Udaleko zinegotzi gehienek dimititu zutenekoa. Egia da Bernedori ere postua eskaini zitzaioela, baina ikusiko dugunez, Ibarbiaren ondoren, Ibarbiari eskaini eta hark dimititu ondoren alegia. Bernedoren ondoren ere zenbait zinegotziri eskaini zitzaizen kargua baina ez zuten onartu. BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 84-85 or.

⁴³³ Beasaingo Udal Artxiboa. 063 karpeta, 15. dokumentua.

⁴³⁴ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 30. or.

⁴³⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

⁴³⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 063 karpeta, 15. dokumentua.

2. kapitulua

Gobernadore Zibilak, hurrengo egunetan, boto-kopuru handienetik txikienera atera zituzten zinegotziei jarduneko alkate kargua eskaintzeko agindua eman zuen. Hala, alkate kargua eskaini zitzairen zinegotzien artean, Gregorio Lasak (abuztuaren 26an), Severiano Azpeitiak (abuztuaren 27an), Pedro Lasak (abuztuaren 28an) eta Doroteo Aguadok (abuztuaren 29an) uko egin zioten karguari. Abuztuaren 30ean kargua Serafin Aranari eskaini zion, eta honek abuztuaren 31n onartu egin zuen⁴³⁷. Beraz, data horretan jarduneko alkate kargua hartu zuen eta irailaren 7an, berretsia izan zen⁴³⁸.

Alkate batzuk indarrez kargugabetuta, Udalen mugimenduak erantzuna prestatu zuen. Abuztuaren 21ean, alkateen mugimenduko kideak Donostiako Udalean batzekoak ziren, mugimenduaren batzorde exekutiboa aukeratzeko, baina Goardia Zibilak Udala inguratua izan zuen, eta berriz ere alkate batzuk atxilotu zituzten (honekin bat, guztira, 38 ziren Gipuzkoan prozesu osoan atxilotutako edo salatutako alkateak)⁴³⁹. Batzorde exekutibo hori hurrengo egunean aukeratu zuten, Gipuzkoako zein hiru herrialdeetako mugimenduaren bozeramaile Fernando Sasiain Donostiako alkatea aukeratu zutelarik⁴⁴⁰. Irailaren 2an beste pausu bat egin zuten, Zumarragako Udaletxean oraindik kalean zeuden alkate guztiekin eta Euskal Herriko diputatu jeltzale eta ezkertiarrekin⁴⁴¹ batzarra deituz (Kataluniako diputatu abertzale batzuk ere gonbidatu zituzten). Juan Pablo Fusi historiagilearen arabera, batzar honen garrantzia puztu egin zen, benetako akordiorik ez baitzen lortu, baina Gobernuaren erantzunak, zeinak Zumarraga poliziaz inguratu zuen, eta jeltzalek eta sozialistak autogobernuaren alde batera aritzeak, berezko garrantzia sinbolikoa eman zion ekitaldiari. Hurrengo egunean, Gernikan, diputatuei eginiko omenaldi batean, poliziak kargatu egin zuen, eta istilu handiak izan ziren⁴⁴². Honen aurrean, Udalen mugimenduak zinegotzi eta alkateen dimisio kolektiboa proposatu zuen; Jose Antonio Ranzen arabera, Gipuzkoan 352 zinegotzik dimititu zuten (Gobernu Zibilaren arabera 290k); 19 alkate epailearen aurrera eramane zituzten, eta beste 17 kargugabetu⁴⁴³. Udal karguak betetzeko, Gobernadore Zibilek, Udaletan eurek aukeratutako gestorak izendatu zituzten, eskuineko pertsonen osatutakoak, beraz, herriak aukeratu gabekoak. Honek monarkiaren garaiak gogorarazten zituen. Azkenik,

⁴³⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 35 dokumentua.

⁴³⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 063 karpeta, 15 dokumentua.

⁴³⁹ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 30. or.; eta FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: op. cit., 119. or.

⁴⁴⁰ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 502. or.; eta FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: op. cit., 117-118. or.

⁴⁴¹ Euskal Herrian ezkerak zituen bi diputatutatik bakarra, Indalecio Prieto sozialista, azaldu zen.

⁴⁴² FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: op. cit., 119. or.

⁴⁴³ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 503. or.

irailaren 10ean, Bilboko alkatea eta 30 zinegotzi atxilotu eta Burgosen espetxeratu zituen Gobernuak. Eskuineko Gobernuak euskal gizartearengandik erabat urrundua zegoen.

2.5.d) Beasaingo Udal-gobernu eskuindarraren Gobernu-ekintza

Beasaingo Udalarari dagokionez, Serafin Arana Gaiztarro gelditu zen behin-behineko alkate gisa, beste denek dimititu egin baitzuten. Serafin Aranaren lehenengo lana, Udal berria osatu nahi zuten zinegotziak bilatzea izan zen. Oso gutxi onartu zuten hasiera batean, Jose Mendia soilik izan zen hasiera batean onartu zuen bakarra⁴⁴⁴. Azkenean, Udal berria osatzeko adina lagun bi hilabete pasatu ondoren bildu zituen, 1934ko urriaren 31n. Horrek esan nahi du, urriaren hasierako gertakariak gertatu zirenean, langile-matxinada gertatu zenean, Serafin Arana zegoela Udalaren arduradun gisa. Beraz, urriaren 31n osatu zen Udala; Serafin Aranaz gain, alkate berria izango zen Manuel Pérez Vázquez, alkateorde berriak izango ziren Constantino Imaz Nazabal eta Jose Mendia Lasa eta zinegotzi soil izango ziren Inocencio Aguirre Pagola, Francisco Amiano Azurmendi, Eusebio Asla Lapart, Miguel Cerrajería Tiffe, Juan Irizar Viquendi, Juan Jauregui Amiano, Ernesto Poignon Martin, Vicente Tellería Ayestaran eta Felipe Villaluenga Casasempere izan ziren Udala osatu zutenak. Serafin Arana zinegotzi-sindikoa izendatu zuten. Kargudun bakoitza; alkatea, bi alkateordeak eta zinegotzi-sindikoa aho batez aukeratuak izan ziren (boto zuri bat izan zen soilik bozketa bakoitzean, ziurrenik, aukeratuak berak bere buruaren alde ez bozkatzearen emana)⁴⁴⁵.

Izendatutako zinegotzien profila begiratuta, bertan gero erregimen frankistarekin zinegotzi izango ziren bi (Eusebio Asla eta Miguel Cerrajería, azken hori alkate ere izango zena) aurkitzen ditugu, eta baita 1931ko apirilaren 12an, bertan-behera gelditu ziren hauteskundeetan eskuinaren aldetik aukeratuak izan ziren bi zinegotzi ere: Manuel Pérez alkate berria eta Vicente Tellería. Profil gutxi gorabehera ezkertiarra izan zuen bakarra Serafin Arana, aurreko Udaleko zinegotzia zen. Zinegotzi horiek, “behin-behineko zinegotzi” bezala definitu zituzten euren buruak, baina eurak kargua hartu egin zuten eta Udal-bilkuran esan zuten, Gobernadoreari “eskerrak” eman zizkioten, “berak gonbidatu baikaitu postu hauek hartzera”. Zinegotziok “ñabardura politikorik gabeko errepublikano” gisa definitu zituzten euren buruak, eta Udaleko

⁴⁴⁴ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 84-85 or. Barandiaranek Agapito Oyarbide izeneko gizon batek ere kargua onartu zuela diosku, baina urriaren 31n osatu zen Udal berri horretan ez zaigu Oyarbide horren konstantziarik agertzen.

⁴⁴⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

2. kapitulua

postuak “administratiboki Udala normalizatzeko asmoz” hartu zituztela berretsi zuten, aurreko zinegotzien dimisioarekin “Udalak ez baitzuen normal funtzionatzen”⁴⁴⁶. Euren helburu bakarra “Udala aurrera ateratzea” zela esan zuten. Hala ere, halako adierazpen “tekniko” eta apolitikoak egin arren, argi eta garbi, eskuinarekin lerratutako Udala izan zen Udal hori. Autonomia Estatutuaren gaiaren inguruko eztabaidak, Udal horrek erabat kanpoan utzi zituen. 1934ko urte-bukaeran eta 1935. urtean, Beasaingo Udalak Autonomiaren alde egindako ekintza bakar bat bera ere ez dugu ezagutzen.

Udalaren profil “teknikoa”, Udalaren osaketan baino gehiago nabaritu zen Udalak hartu zuen ibilbidean: erabaki handirik hartzen ez zuen udala izan zen, lehengoak baino paper pasiboagoa izan zuen, ohiko arazo administratiboak konpontzen jardun zuen⁴⁴⁷, eta langabeentzako herri-lan berriak egiteko proiektuen egitasmoak egin zituzten (Goierri kalea izan zena zabaltzea, kale batzuek berritzea, ur-hornikuntza berria (Bernedo-enera), Arkasingo ur-hartunea handitzea, Garinen eskola berria egitea, Arriaranen beste errepide bat egitea), nahiz-eta horietako batzuek aurreko Udalaren garaian ere jada pentsatuak izan⁴⁴⁸. Udal-zinegotzien arteko eztabaidak, zinegotziek mozioak aurkeztu eta mozioen inguruko askotariko ekarpenak, etab., 1931-1934 aldian hain normalak izan zirenak, 1934tik aurrerako urte eta ardi horretan asko jaitsi ziren kopuruz (hala ere, esan beharra dago 1935eko Errepublikaren Eguneko ospakizunak mantendu egin zituztela, diru-laguntza txikiagoekin izan arren)⁴⁴⁹. Nolanahi ere, Udalak zenbait erabaki eztabaidatsu hartu zituen, adibidez, Beasaingo Guardia Zibilaren zuzkidura handitzea, horren atzean (1910eko hamarkadan bezala), ondasun-jabeen klasea zegoen, kasu horretan, zehazki, Gipuzkoako Ekoizleen Liga (*Liga de Productores de Guipúzcoa*), 1934ko iraultzaren ostean polizia-indarren presentzia handitzea eskatu zuena. Udal hori, beraz, eskuinekoa eta berez langile mugimenduen kontrakoa izaki, iradokizun horrekin ados azaldu zen⁴⁵⁰. Udal horren akats nagusia, gastu handiegiak egitea izan zen eta, 1935eko abenduan, Udal-zorraren hartzekodunei,

⁴⁴⁶ Alta, 1934ko urriaren 25eko *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak esan zuen “bost karlistek kargua onartu dute, baina oraindik Udala ez dago osatua”. Jakin badakigu Eusebio Asla Lapart karlista zela, Vicente Telleria 1931n eskuineko hautagaitzarekin aurkeztu zela eta Miguel Cerrajería ere eskuindarra zela. Hala ere, azken bi horiek joera karlistakoak zirenik ezin dugu ziurtatu. Beste bi karlistak nortzuk ziren jakiterik ez dugu izan.

⁴⁴⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 063 karpeta, 15. dokumentua.

⁴⁴⁸ Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa). JDIT 3270-a dokumentu-sorta; Beasaingo Udal Artxiboa. 254. karpeta, 19. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 49. dokumentua.

⁴⁴⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 60. dokumentua.

⁴⁵⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.

zor-baleen interesak %5etik %4ra jaistea eskatu behar izan zien (kontutan izan behar da 1934ko urtarrilean Beasaingo udalaren egoera Gipuzkoako beste herriein konparatuz, ontzat jo zutela ezkerreko zinegotziek). Hala ere, gastu gehien, gainezka egin zion ohiko gastuetan izan zela ematen du eta ez hainbeste lan handiak egiten⁴⁵¹. 1935eko otsailean jada, Perezen Udalak esan zuen okerrera egin zuela Udalaren egoerak⁴⁵². Urte horretako kudeaketa-memorian, Udal-talde hori bere burua zuritzen saiatu zen, 1934an “bi hilabetez” soilik egon zirela eta 24.000 pezetatik gorako defizita aurkitu zutela eta jesapenak erabiltzera behartuta gertatu zirela esanez. Perezen taldeak, Ospitalean zegoela gastu nagusia esaten zuen, geroz eta jende gehiagok eskatzen zuela-eta han sartzea (eta aldi berean, uraren arloan, Udalaren diru-sarrerak murriztu egin zirela). Gainera, Garingo bidea zela-eta, Udalak ordaintzeko modurik izan ez zuenez, kontratistak Udalaren aurkako salaketa jarri zuen⁴⁵³. Salaketa horrek, 33.200 pezetako gain-kostua ekarri zion 1936ko ekainean Beasaingo Udalari (berriz ere ezkertiarren agindupean zegoela) hartaz txostena egin zuenean. 1934-1935eko Udal-talde horrek, gain-kostu hura ordaintzeko Aldundiaren aldetik laguntzarik ez zuela jaso-eta, Udalak beste 100.000 pezetako kreditu berri bat eskatu behar izan zion Gipuzkoako Aurrezki Kutxari⁴⁵⁴.

Udal horren lehen arazoa, Martina Maiz kaleko eskola bateratuen inguruko bi mozioekin zer egin izan zen. Udal-talde horrek kargua hartu zuenean, bi mozio zeuden mahaiari: batek (Aguado eta Lasa sozialistek aurkeztutako mozioak) eskola bateratu horietan eskola berri bat segituan martxan jartzea aipatzen zuen eta, besteak, errepublikanoek (tartean aurreko Udaleko zein Udal berriko kide zen Serafin Aranak defendatua) momentuz eskola berririk ez irekitzea defendatzen zuten. 1935ean hartu zen behin betiko erabakia, hau da, eskola berria zabaldu ordez, lokal haietara eskola publiko zaharreko (Udaletxe ondoan zegoeneko) geletakoak eramatea, batez ere eskolaurreko adinekoak⁴⁵⁵, eta hala jakinarazi zen 1935eko maiatzaren 22ko osoko bilkuran⁴⁵⁶. Hala ere, konponbide hori behin-behineko konponbide gisa hartua izan zen arren, berez eskola berria zabaltzeko zegoen helburua sekula ez zen bete; urte batzuk igarota, erregimen frankistaren garaian, eskola hura karmeldarren esku gelditu zen. Udal hori,

⁴⁵¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

⁴⁵² Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 03. dokumentua.

⁴⁵³ Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.

⁴⁵⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

⁴⁵⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. A132 karpeta, 10. dokumentua.

⁴⁵⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

2. kapitulua

1936ko otsailera arte egon zen agintean, Herri Fronteak (*Frente Popular*) hauteskundeak irabaztean berriz ere 1931ko hauteskundeetan hautatutako Udalak hartu baitzuen agintea. Kargua berriz hartzerakoan, ordea, Udalak Victor Bernedo izan zuen alkate, 1935eko urriaren 8an Jacinto Urteaga Yurrita hil egin baitzen (haren hiletara, Manuel Perez alkatea buru zela, ofizialki joan zen Udala eta dolu-eguna egitea ere dekretatu zuen)⁴⁵⁷.

Tarteko Udal horren barne-batasuna ere ez zen oso handia izan: 1935eko abenduaren 27ko Udal-bilkuran zinegotzi batzuek dimititzeko asmoa erakutsi zuten. Agian, litekeena da Gobernadore Zibilak jarritako, eta ez herriak aukeratutako, Udala izateak, alde batetik herritarren presioa ekarri izana, eta beste aldetik zinegotzien barne-higadura ere handiagoa izatea (kontuan hartu behar da, 1934ko abuztuaren bukaeran Udal ezkertiarrek dimititu zutenetik 1934ko urriaren bukaeran Udal hori jarri zen arte bi hilabete igaro zirela eta zinegotzi askorengan zinegotzi-kargua hartzeko eta karguan jarduteko gogoia ere moteldu egin bide zen, beraz, kargua, “beste inork hartu ezean” hartu izana ere litekeena da). Litekeena da halaber Udal-kideen arteko desberdintasunak egon izana ere, baina halakorik ez dugu aurkitu dokumentuetan (kontuan izan behar dugu oso profil politiko baxuko Udala zela). Eta baliteke baita ere, Gobernadore Zibilaren iritziaren kontra, eta antza denez haren baimenik gabe, herriko azoka asteartean egiteko erabakiak (larunbatetan egin beharrean), tentsioa sortu izana eta tentsio horiek Udal-kide batzuk higatu izana (gerora ere luzatu zen azokaren aferaren inguruan). Bata edo bestea izan, abenduaren 27 hartan, Udalak adierazi zuenez, “egunkarietan”, Udal osoak dimititu egin behar zuela agertu bide zen⁴⁵⁸, baina Udalak argitu zuen “Udal-taldearen zati batek” soilik agertu zuela asmo hori. Asmo hori zutenak hauek izan ziren: Manuel Perez alkatea, Constantino Imaz alkateordea eta Inocencio Aguire, Miguel Cerrajería, Juan Irizar, Ernesto Poignon eta Felipe Villaluenga zinegotziak⁴⁵⁹. Hala ere, Serafin Arana zinegotzi-sindikoak “Gobernadore Zibilak haien dimisioa onartu arte”, euren postuetan jarrai zezatela eskatu zien dimititzeko asmoa erakutsi zutenei eta haien ados agertu ziren horrekin. Ez dakigu Gobernadore Zibilak dimisiorik onartu zuen ala ez, edota hauteskundeen gertutasuna zela-eta (1936ko otsailean egin ziren), gelditzen zen tarte txikirako dimisioekin atzera

⁴⁵⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

⁴⁵⁸ Hala ere, garaiko prentsan ez dut gertakizun horren arrastorik aurkitu.

⁴⁵⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

egitea erabaki zuten, baina badakigu 1936ko lehenengo osoko bilkuretan karguan jarraitu zutela, 1936ko urtarrileko eta otsaileko udal-bilkuren aktek hala baitiote⁴⁶⁰.

2.5.e) 1934ko Iraultza Beasainen

1934.eko gertakizun politikorik garrantzitsuenaren Urriko Iraultza izan zen, eta horrek, nola ez, Beasainen zerikusia izan zuen, hona ere iritsi bait ziren iraultza horren txinpartak. Langile iraultza hau Asturiasekin identifikatu izan bada ere, egia esan asmotan Espainiako Estatu osora zabaltzeko asmoz eginiko iraultza bat izan zen. Asko idatzi izan da iraultza honen arrazoiengatik, eta askotan CEDA Gobernua sartzearekin lotu izan bada ere, egia esan, sozialistek iraultza aurretik prestatuta zeukaten, nahiz eta CEDA Gobernua sartzearekin bat piztuaraztea pentsatua izan⁴⁶¹. Izan ere, garai horietan, CEDA faxismorantz hurbiltzen zebilen (beren buru Gil Robles Alderdi Naziaren Biltzar Nagusia egon zen 1934.ean Nuremberg hirian), eta ezkerak II Errepublika suntsituko zuenaren beldurra zuen.

Hala ere, “faxismoari beldurra” ez zen izan iraultza hau ekarri zuen arrazoi bakarra. Beste arrazoiengatik “eskuinak egin zezakeena” baino, eskuinak egin zuena zegoen; adibidez, ezkerak onartutako Arartekaritza Mistoena Legea, sindikatuei eta langileei negoziazio botere handia ematen ziona edukiz hustea eta Arartekaritza Mistoak “Kontsulta-organo” bat soilik bezala uztea. 1931-1933eko politika ekonomikoa, gastu publikoari zegokionez kontserbakorra izan zen, baina lege horrek langileei negoziazio boterea eman zien⁴⁶². Eskuineko gobernuak legearen indarra neutralizatean, langileak atsekabetu zituen. Hirugarren arrazoi bat krisi ekonomikoa izan zen. Ikusi dugun moduan, krisi honek, industriguneetan langileen estutasunak handitzea ekarri zuen. Laugarren arrazoiak, langileen eta batez ere Alderdi Sozialistaren erradikaltzea dugu. Komunistak eta anarkistak indartzeaz gain, sozialistek, 1933.eko udatik aurrera, batez ere Largo Caballeroren eskutik (zein ordura arte politikari moderatua zen), errepublikanoekin hautsi eta proletargoaren diktadura ahalik eta azkarren ezartzeko programa onartu zuen, parte batean, Errepublika *burgesa* oinarri sozialistari “txiki” geratu izanak nolabaiteko eragina izan zuen erradikaltze honetan⁴⁶³. Eta azkenik,

⁴⁶⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24. dokumentua.

⁴⁶¹ Hala ere, diskurtso mailan, CEDA Gobernua sartzeari iraultzaileek erabili izan zuten iraultza “probokazio atzerakoiari” erantzuna izan denaren argudioa.

⁴⁶² 1932.ean Gipuzkoako enpresariak kexatu egin ziren araudi soziala “gehiegizkoa” zela eta. BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 55. or. eta RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 29. or.

⁴⁶³ Arrasateko Gazteria Sozialistetako militante Jose Maria Arriaranek oso zentzu onean laburbiltzen ditu langile sozialista askoren sentipenak: “Guk askoz gehiago espero genuen Errepublikarengandik, bi urtez

2. kapitulua

badago beste bosgarren arrazoi bat Euskal Herrian eragin zuena eta hemen beste tokietan izan ez zen iraultza gerta zedin azaltzen duena: Euskal Herrian, udako Udalen mugimenduak Gobernuak herriak aukeratutako hainbat Udal kargugabetzea ekarri zuen, Gobernuak ezarritako Udalez ordeztuz. Beraz, Euskal Herrian Gobernuarekiko haserre handia zegoen (Estatutua ere blokeatuta zegoen), eta iraultzaileek askotan aipatzen zuten “eskuinak Espainia diktadura batetara darama” esaldi, 1934.ean, Euskal Herrian jendeak inon baino garbiago ikusten zuen.

Iraultza honek Asturiasen izan zuen nukleo nagusia, batez ere han sozialistek, komunistek eta anarkistek bat egitea lortu zutelako⁴⁶⁴. Gainera, kontuan izan behar da, Asturiasen urte hartan hainbat greba orokor egin zirela, beraz, hango langileek borroka-prestaketa handia zutela. Asturiasen sozialisten, komunisten eta anarkisten arteko aliantza erabatekoa (izan zen) beste toki batzuetan ez bezala. Iraultzaileek, helburu bezala, ez zuten 1931-1933 arteko egoerara itzultzea, baizik eta sozialismoa ezartzea⁴⁶⁵. Iraultzaileek Asturiaseko hiririk garrantzitsuenak urriaren 5 eta 11 artean kontrolpean izan zituzten, urriaren 15ean Armadaren aurrean errenditu zirelarik. Guztira, 350 pertsona hil ziren iraultzaileen eskuetan eta 1.000-1.500 Gobernuaren eskuetan (30.000 eta 40.000 pertsona artean preso sartu zituzten)⁴⁶⁶.

Euskal Herrian iraultza honek 52 hildako utzi zituen (2.000 atxilotu)⁴⁶⁷, 24 Gipuzkoan⁴⁶⁸. Euskal Herrian greba urriaren 5etik 12ra izan zen, nahiz eta gune batzuek (Bizkaiko Meatzaldeko zenbait auzo) iraultzaileen kontrolpean egun batzuk gehiago egon. Gipuzkoari dagokionez, greba honek, urriaren 5 eta 12 artean iraun zuen, eta batez ere Eibarren eta Arrasaten izan zuen babes handiena, bi herriok ordu batzuek iraultzaileen kontrolpean egon baitziren. Bizkaian zein Gipuzkoan iraultzaileek koordinazio txarra izan zutela, sozialistek ez zuten iraultza egiteko beste indarrik

Gobernuan errepublikanoak egon baitziren. Atsekabe horrek 1933ko azaroan hauteskundeak eskuinak irabaz zituzten lagundu zuen. Gure artean, langile-klasearen aldarrikapenak betetzeko, Errepublika burgesa bai ala bai suntsitu beharra zegoela, eta hori bortxaz soilik lortuko zelako ideia barneratzen hasi zen. Gainera, 1933ko hauteskundeen ostean, ugazabak fabriketan geroz eta harroputzago azaltzen hasi ziren”. GARAI BENGEOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución, insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkarte. Oñati, 2014, 169. or.

⁴⁶⁴ MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 87. or.

⁴⁶⁵ GARAI BENGEOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: op. cit., 32-34. or.

⁴⁶⁶ MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA: op. cit., 88. or.

⁴⁶⁷ GARAI BENGEOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: op. cit., 48., 145. eta 255-256. or.

⁴⁶⁸ Ibid., 145. or.

kontuan hartu⁴⁶⁹ (nahiz eta komunistek eta anarkistek bat egin, eta baita, toki batzuetan, ELAko kideek, euren sindikatuaren eta EAJren iritziaren kontra)⁴⁷⁰. Euskal Herrian iraultza honek izan zuen koordinazio maila eskasaren adierazgarrikerik agerikoena izan zen mugimenduak izaera bateraturik ez izatea; Gipuzkoan bertan toki batzuetan iraultza-saiakera izan zen, beste batzuetan berriz (tartean, Beasainen) greba orokorra egon arren, baketsua izan zen. Honek langileen artean nora eza sortu zuen.

Iraultza honek utzi zuen ondorioz gogorrena errepresioa izan zen; preso kopuru handiaz gain (Herri Fronteak 1936eko hauteskundeetan amnistia bere kanpainarako gai nagusienetako bat egin zuen) urte betez, sindikatuen egoitzak itxiak egon ziren (Euskal Herrian baita ere iraultza saiakeran parte hartu ez zuen ELArenak).

Esan bezala, gure herrian ere, mugimendua izan zen. Lehen aipatu dugu Beasain berez herri lasaia izan zela langile-gatazkei zegokienean Errepublika-garaian zehar. Hala ere, 1934ko urrikoa salbuespena izan zela esan daiteke. Beasainen beste tokietan bezala, Alderdi Sozialistak izan zuen mugimenduaren ekimena, nahiz eta bertan ELA ere parte hartu (CNTren parte-hartzea txikiagoa izan zen, eta komunistak ez zeuden antolatuta Beasainen). Beasainen, ondoren egindako epaiketan Beasaingo Elkarte Sozialistako buru Antonio Menaza Bermudezek egindako epaiketa-adierazpenaren arabera, Tolosako Elkarte Sozialistako kideek pasatu zuten abisua Beasaina eta autoz etorri ziren. Segituan, Menaza bera, eta Beasaingo EAJko kide ezagun bat, Alfontso Ibaibarriaga edo Jose Ibarbia, CAFeko zuzendari Antonio Sierrarengana joan ziren greba aldarrikatuta zegoela eta fabrika itxi egin behar zuela esanez⁴⁷¹. Horri buruz, esan beharra dago 1935eko uztailaren 26an egindako epaiketan, CNTko Francisco Ruizen abokatu zen Cuartero kapitainak hau esan zuela: bere defendatua, Ruiz, eta bere kideak,

⁴⁶⁹ Sebastian Zapirain komunistaren arabera: “matxinadarako sozialistek ez zuten ez komunistekin ez anarkistekin kontatu (...) Alderdi Komunistan filtrazioen bidez enteratu ginen (...) Gu saiatu ginen sozialistei akats bat zela ohartarazten, baina eurek erabakia hartu zegoela esan, eta eurei jarraitu ala ez erabaki behar genuela esan ziguten”. JIMENEZ DE ABERASTURI, Juan Carlos: “Protagonistas de la Historia Vasca 1923-1950: Sebastian Zapirain”. Eusko Ikaskuntzaren *Cuadernos de Sección de Historia y Geografía* aldizkaria, Donostia, 1984, 140 or.; in GARAI BENGEOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: op. cit., 67. eta 151 or.

⁴⁷⁰ ANSEL, Dario: op. cit., 222-229. or.; GARAI BENGEOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: op. cit., 44-46. eta 159. or.; eta BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 339. or.

⁴⁷¹ Juan Ramon Garai, Jesus Gutierrez eta Josu Chuecaren arabera, Alfontso Ibaibarriaga izan zen jeltzale hori. GARAI BENGEOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: op. cit., 187. or. Hala ere, Miren Barandiaranen arabera, Alfontso Ibaibarriagak ez zuen izan parte-hartze handirik greba hartan, *Gurutzepe* antzezlanaren ikustetik zetorrela atxilotu zutela baitio. BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 86-87. or. Gainera, Alfontso Ibaibarriaga ez zen epaitua izan, eta ez zen CAFeko langilea ere, Bernedo-enean egiten baitzuen lan. Ziurrenik, Ibaibarriaga ez baizik eta Jose Ibarbia ELAko arduradun beasainarra izan zitekeen ordezkari horretan parte hartu zuena.

2. kapitulua

CAFeko zuzendariarengana “langileentzako hobekuntza batzuk eginez gero arriskuak saihestu zitezkeela iradokitzen” joan zirela⁴⁷²; beraz, funtsean, xehetasun horrek, grebak izaera baketsua izan zuela pentsarazten digu. Epaiketan halaber, (*El Pueblo Vasco* egunkariaren arabera), “defentsak”, greba, “langile-sindikatu guztien hausnarketa baten ondorio” izan zela dio, beraz, ez zela mehatxurik izan⁴⁷³. Aldi berean, UGTko kideek beste langileei greba egiteko esaten zieten. Beraz, Alderdi Sozialistaren inplikazioa oso argi dugu Beasainen. ELAri dagokionez, herrian buru zen Constantino Maizek epailearen aurrean esan zuen sozialistek esan ziotela grebarekin bat egiteko, baina berak Gipuzkoako zuzendaritzaren baimena behar zuela esan zuen “telefonoz ordu bete itxaroten egon ostean, bat egitea erabaki genuen, langileen arteko talkarik izan ez zedin”. Gauean, Bernabe Aierdik bat egiteko erabakia komunikatu zuen, jada Beasain greban zegoenean. Constantino Maizek, adierazpen horietan esan zuen CNTko ordezkari Francisco Ruizek ere grebarekin bat egiteko agindua eman zuela UGTkoekin eta ELAkoekin batera; baina epaiketan, CNTko Angel Galarretak esan zuen, berak, CNTko afiliatu gisa ez zuela izan batere parte-hartzerik greban eta hura “Alderdi Sozialistak gidatutako mugimendua izan zela”⁴⁷⁴.

Oro har, Beasaingo iraultzaileak, Gipuzkoakoak bezala, oso gaizki armatuta zeuden. Beasaingo anarkistek ere pistolak zeramatzen, hain zuzen, Galarretak berak, Basilio Pascualek eta Francisco Oronozek. Jakin dugunaren arabera, armak bazituzten eta atxilotua izan ondoren, polizia-indarrek Tiburcio Lopez kartzelatik Beasaina ekarri zuten errekan gordeta zituzten armak ateratzera⁴⁷⁵. 1935ko uztailaren 26an Beasaingo iraultzaileen aurka egin zen epaiketan, Davila fiskalak, armak udan biltzeaz eta “iraultza hasi baino egun bat lehenago banatzeaz” (hots, 1934ko urriaren 4an) salatu zituen iraultzaileak⁴⁷⁶. Hala ere, arma batzuk izateak ez du esan nahi behar adina armatuta zeudenik, izan ere, Beasaingo sozialistak eta jeltzale batzuk Ataungo harrobira joan baitziren (Rufino Sarasola, Francisco Zabaleta, Agapito Noriega, Fidel Areta eta Jose Ibarbia ELAko Gipuzkoako burua), han lana geratzera, eta pentsatzen dugunez, handik

⁴⁷² *El Día*, 1935-VII-27koa.

⁴⁷³ *El Pueblo Vasco*, 1935-VII-27koa.

⁴⁷⁴ GARAI BENGUA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: op. cit., 187-188. or.

⁴⁷⁵ Datu hori Tiburcio Lopezen iloba Miguel Angel Ruiz de Gauna Lopezek eman digu.

⁴⁷⁶ *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-VII-27koa; eta *El Diario Vasco*, 1937-VII-27koa. *El Pueblo Vasco*, fiskalak “armak mugimendu iraultzailea hasi baino lehenago banatu zituzten” esan zuela dio, baina datarik eman gabe (*El Pueblo Vasco*, 1935-VII-27koa).

dinamita lapurtzera⁴⁷⁷. Sozialistek telefonoen eta trenbideko kableak ere moztu zituzten herria isolatzeko (Angel Galarretaren arabera, Rafael Polo, Juan Lopez, Francisco Hernandez, Laureano Rodriguez, Tiburcio Lopez, Angel Galarreta bera eta “Rodriguez karamelu-saltzailea”⁴⁷⁸ izan ziren).

Hala ere, beste herrietan gertatu zen bezala, Beasainen ez dugu polizia-endarren aurkako asaltorik edo saiakerarik ezagutzen (kontutan hartu behar dugu Beasainen Guardia Zibilaren kuartela zegoela); Beasainen armamentu eskasa zuten, beste herrietan baino eskasagoa eta hori har daiteke borroka armaturik ez egin izanaren arrazoi bat bezala. Grebaren izaera baketsuaren inguruko gure uste hori, 1935eko uztailean istilu horiengatik atxilotuak izan ziren langileen abokatuak, Eustasio Amilibiak, epaiketan egin zituen adierazpenek berresten dute. Amilibiak esan zuenez, “indar publikoek Beasainen ez zuten esku hartzeko arrazoi edo beharrik izan”, eta “matxinada hori Gipuzkoara zabaltzeko asmorik ere ez zen izan”. Amilibiak halaber, bere ustez “Asturiasko matxinadarekin loturarik ez zuela izan” ere esan zuen eta guztia “mehatxu txiki batzuek egitera” mugatu zela. Baieztapen hori egia da arlo praktikoari dagokionez, izan ere, beasaindar matxinatuek oso laguntza praktiko gutxi izan zuten eta beren kasa mugitu ziren, tokiko testuinguru eta markoan, eta gainera oso modu baketsuan. Hala ere, ez gaude hain ziur hori euren borondatez izan zenaz, izan ere, argi ikusten baitugu Asturiasko eta Gipuzkoako beste tokietako iraultzaileekin elkartasun ideologikoa partekatzen zutela⁴⁷⁹.

Horrek guztiak 32 goierritarren (gehienak beasaindarrak, Zurbano Melerok horietako 13 soilik zirela beasaindarrak esaten badu ere; gehiago zirela ziurta dezakegu)⁴⁸⁰ atxiloketa eta epaiketa ekarri zuen. Halako kopuru handiaren zergatia ulertzeko, haiek egindakoa baino gehiago (triskantza material edo pertsonal handirik ez baitzen gertatu), bizitu zen egoeran istilu haiek gertatu izanagatik zigortu zituzten beasaindar langileak. Ikusiko dugun bezala, atxilotu gehienak sozialistak izan ziren,

⁴⁷⁷ GARAI BENGOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: op. cit., 188. or.

⁴⁷⁸ Hori ziurrenik, Isidoro Rodriguez izan zen, epaiketako kroniketan *La Constancia*, *El Diario Vasco* eta *El Pueblo Vasco* egunkariak, Isidoro Rodriguezen ezizena “kamareroa” zela esaten baitute. Ziurrenik pertsona bera ziren Isidoro Rodriguez eta “kamareroa”.

⁴⁷⁹ *El Día*, 1935-VII-27koa; eta *El Diario Vasco*, 1935-VII-25koa.

⁴⁸⁰ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 123. or.

2. kapitulua

baina izan ziren baita ere anarkistak eta jeltzaleak, horien artean Gipuzkoako ELAko buruzagi garrantzitsua zen Jose Ibarbia⁴⁸¹.

Matxinadaren porrota azaltzeko, bi arrazoi aipa genitzake: alde batetik, prestakuntza eskasa, Alderdi Sozialistak bere kasa antolatu nahi izan baitzuen matxinada, eta gainera, Hego Euskal Herriko puntu ezberdinen arteko batere koordinaziorik izan gabe (Hego Euskal Herrian, Espainian izan ziren koordinazio akats berdinak errepikatu ziren). Hego Euskal Herrian, herri bakoitzeko iraultzaileak euren herrian ahal izan zutena egitera mugatu ziren eta emaitza ezberdinak izan zituzten. Bigarrenik, Gipuzkoan batez ere, iraultzaileek zituzten armak oso urriak izan ziren halako mugimendu batean garaipena lortzeko. Hego Euskal Herrian, iraultzaileen ausardia gora-behera, Asturiasen matxinada galarazi zuten kontrako faktoreak errepikatu ziren, modu larriagoan, eta gainera haien antolaketa bertuterik izan gabe.

Errepresioa oso gogorra izan zen. 1934ko urriaren 17an heriotza-zigorra berrezarri zen Estatuan eta iraultzan parte hartu zuten euskaldun batzuei zigor hori ezarri zitzaien (1936ko otsailean ezkerrek hauteskundeak irabazteak eta amnistia emateak salbatu zituen patu beltz hartatik). Guda-egoera indarrean zegoenez, iraultzaileak bide militarretik, hots, Guda-kontseilu militar bidez epaitu zituzten. Guda-egoerak 1935ko urtarrilaren 23a arte iraun zuen Araban, eta apirilaren 9a arte Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan. Langile askok Gobernuaren aginduz lana galdu zuten eta industria asko administrazio militarren mende gelditu ziren. Esan bezala, zentro politiko eta sindikal denak, eskuinekoak izan ezik, itxiak izan ziren; sindikatuen lokal batzuk 1935aren bukaeran hasi ziren zabaltzen eta erakunde sindikalen lana “soilik kooperatiba eta laguntza-arloko lanetarako” baimentzen hasi ziren⁴⁸². ELAk, adibidez, 1935eko maiatzaren 16an soilik izan zuen baimena bere jardueri berriz ekiteko⁴⁸³, eta sindikatu ezkertiarrek geroago, 1935eko udazkenean. Prentsa abertzalea edo ezkertiarra ere itxi egin zuten. Kaleetan, eskuineko alderdien gazteriek osatutako talde paramilitarrak agertu ziren eta horiek betiere banketxeek edota burgesiak finantzatzen zituen⁴⁸⁴. Izan ere, iraultza eta 1934ko udako Udalen mugimendua kronologian bateratsu etortzeak, eskuinaren isolamendu-egoera handitu egin zuen, eta

⁴⁸¹ ELAren ideologia kristaua eta moderatua ez zen izan errepresioaren aurkako hesi eta bere egoitzak, ez soilik Beasainen, baizik eta Gipuzkoa osoan ere itxiak izan ziren.

⁴⁸² ANSEL, Dario: op. cit., 224. or.

⁴⁸³ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 341. or.

⁴⁸⁴ GARAI BENGEOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: op. cit., 259. or.

Bizkaian eta Gipuzkoan behintzat garbi gelditu zitzaion gutxiengoa zela eta iraganeko hegemonia ez zuela berreskuratuko, eta horren ondorioz, setio-pentsamolde horrek bortizkeriara jotzeko logika bat ezarri zuen eskuindarren adimen kolektiboan.

Torturak ere orokortu egin ziren. Gero lehendakari izango zen EAJko Jose Antonio Agirre diputatuaren esanetan, “1934ko urrian eta azaroan izandako errepresioa hain basatia izan zen, hain zibilizazioaren aurkakoa, ezen orduan bizi izandakoa (bera ere atxilotua izan zen) ez dut sekula ahaztuko”. Bai Bizkaian⁴⁸⁵ zein Gipuzkoan orokortu egin ziren torturak eta azken herrialde horretan bai Guadalupeko gotorlekuan preso zeudenak zein Ondarretako kartzelan preso zeudenak izan ziren torturen biktima; baina ez haiek bakarrik, iraultzaren gunetako bat izan zen Eibarren adibidez, iraultzaren aldekoak izatearen susmagarri zirenak noizbehinka atxilotu eta jipoitu egiten zituen Guardia Zibilak. Gipuzkoako kartzeletan, Lehoz tenientea eta Beorlegui teniente-koronela⁴⁸⁶ nabarmendu ziren presoek kontrako jipoi eta mehatxuetan. Juan Astigarribia zuzendari komunista pasaitarraren testigantza ere ikaragarria da: “Euskadin errepresioa ez zen nolana izan, Bilbon jipoi handiak ematen ziren (...) Guardia Zibila ni atxilotzera etorri zenean, haurdun zegoen emaztea ere atxilotu egin zuten (...) Kuartelean erditu behar izan zuen”. Orduan bizi zirenek jasandako errepresioa inoiz bitarteko gogorrena izan zen arren, gutxi espero zezaketen, bi urteren buruan Hego Euskal Herrian, Francoren diktaturak agintea ezartzean, 1934ko errepresioa bortizkerian eta indarkerian gaituta izango zenik⁴⁸⁷.

Esan bezala, iraultzaileen kontra Guda-kontseiluak egin zituzten. Gipuzkoan, atxilotuak kolektiboki, herri bakoitzeko denak batera epaitzen zituzten, gehienetan Donostian, ia beti epailea Leon Carrasco Amilibia Gipuzkoako Gobernadore militarra zelarik. Hala ere salbuespen bat egon zen: eibartarren kontrakoa, 1936.eko urtarrilaren 21ean Iruñean egindakoa. Zigortuak Herri Frontea gobernura iristearekin bat amnistiatu zituzten⁴⁸⁸.

Beasaindarrek eta goierritarrek 1935eko uztailaren 26an izan zuten epaiketa, Donostian. 32 epaitu izan ziren eta euretako gehienak beasaindarrak: Julian Blanco,

⁴⁸⁵ Bizkaian behintzat bi pertsona hil ziren hurrengo egunetan torturaren ondorioz: Abanto-Zierbenako Enrique Ortega eta Portugaleteko Marcos San Esteban, EAE-ANVko kidea. Ibid., 268. or.

⁴⁸⁶ Alfonso Beorlegui 1936ko gudan, Gipuzkoan sartu ziren tropa frankisten buruetako bat izan zen. Oiarzango frontean hil zen.

⁴⁸⁷ GARAI BENGUA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: op. cit., 259-272. or.

⁴⁸⁸ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 342-344. or.

2. kapitulua

Dionisio Carrascal, Fabriciano Diez, Fidel Fernandez, Angel Galarreta Maestre, Miguel Garbayo Rodriguez, Telesforo Gomez Arce, Valentin Gomez Arce, Francisco Hernandez Toves, Jose Ibarbia Unzueta, Juan Bernardo Lopez, Tiburcio Lopez, Antonio Menaza Bermudez, Agapito Noriega Garcia, Severiano Onesimo Matute, Faustino Oronoz, Rafael Polo Carrascal, Francisco Rodriguez Antolin, Isidoro Rodriguez Picazo, Laureano Rodriguez Picazo, Francisco Ruiz de Apodaca Fernandez, Rufino Sarasola Laso, Higinio Urbina eta Francisco Zabaleta Guerrico. Beste bat, Basilio Pascual Juarros litekeena da beasaindarra izatea⁴⁸⁹. Beraz, 32tatik 24 beasaindarrak zirela ziurta dezakegu eta beharbada beste bat ere bai. Bestalde lau ordiziar aurkitu ditugu: Pablo Aguado⁴⁹⁰, Alvaro Calvillo⁴⁹¹, Gumersindo Capa eta Alejandro Chinchurreta. Bosgarren bat ere, Jose Miguel Maiz, agian ordiziarra zatekeen⁴⁹². Beste bi epaituen (Fidel Areta eta Joaquin Zulaicaren) herritartasuna ez dugu zehazterik izan.

Epaituetako hiru 1936ko gudan fusilatutako izan ziren, hain zuzen ere, Francisco Ruiz de Apodaca Fernandez de Ocariz beasaindarra⁴⁹³, CNTko kidea, Beasainen bertan⁴⁹⁴, Jose Ibarbia Unzueta beasaindarra, ELAko buruzagia, 1937an Santoñan, eta Alejandro Chinchurreta sozialista ordiziarra. Beste bat, Rufino Sarasola, ELAko kide beasaindarra, 1948an bere buruaz beste egitera bultzatua izan zen erregimenekoan jazarpenagatik⁴⁹⁵. Julian Blanco 1931-1933 artean Elkarte Sozialistako lehendakari izan zena (gero, Metalgintzako Sindikatuko zuzendarietako bat), gudan hil zen, 1937an,

⁴⁸⁹ Beasaingo Udalak, 1934ko abenduan Gobernadore Zibilaria bidali zion eskutitz batean, zortzi presori Gabonetan “jaiak familiarekin igaro ditzaten” aldi baterako askatasuna ematea eskatu zion eta Basilio Pascual ere eskutitz horretan izendatuak azaltzen denez, beasaindarra zirela pentsatzen dugu; baina zerrenda horretan Alvaro Calvillo eta Pablo Aguado ordiziarrek ere azaltzen dira, beraz, badirudi aldi baterako askatasun hori, une hartan (1934ko abenduan artean epaitu gabe, epaiketa aurreko kartzela-aldian zeuden) preso zeuden beasaindarren zatia eta inguruko besteren batzuentzat ere eskatu zutela. Hori dela-eta, ezin dugu esan bete-betean Basilio Pascual beasaindarra zenik.

⁴⁹⁰ Pablo Aguado 1936ko gudan frankistek preso hartu eta 1941ean aske uztean, Beasainen jarri zen bizitzen; baina Ordizian jaioa zenez, bere gaztaro osoa Ordizian egin zuenez eta bere militantzia politikoa han hasi eta garatu zuenez (eta gainera 1934-1935ean artean Ordizian bizi zen), ordiziarren zatia jotzen dugu.

⁴⁹¹ Alvaro Calvillo Lopez Beasainen jaio zen 1912an, baina ordurako Ordizian bizi zen.

⁴⁹² 1930eko Ordiziako erroldan “Jose M. Maiz Maiz” bat agertzen da eta bere ogibidea “jornalaria” dela dio. Beasaingo ordurako erroldan ez dugu Jose Miguel Maiz deitutako herritarrik aurkitu.

⁴⁹³ Pertsona honen izena egunkari gehienek “Francisco Ruiz” edo “Francisco Ruiz Fernandez” gisa jartzen dute. Hala ere, *La Constancia* egunkariaren kronikan (*La Constancia*, 1935-VII-27koa), “Francisco Ruiz de Apodaca” azaltzen da. Kontuan izanik epaituaren bigarren abizena “Fernandez” zela, eta Beasainen fusilatutakoaren bigarren abizena “Fernandez de Ocariz” zela, nahiko argi dago “Francisco Ruiz Fernandez” eta “Francisco Ruiz de Apodaca Fernandez de Ocariz” fusilatua pertsona bera zirela.

⁴⁹⁴ Epaietaren eta iraultzaren inguruko datuen arabera, CNTko kide izan zen. Hala ere, bere iloba Pako Ruiz de Apodakak kontatu digunez, familia hartan EAE-ANVko kideak ziren; bere bi anaia, Angel Ruiz de Apodaca (Pako Ruiz de Apodakaren aita) eta Luis Ruiz de Apodaca EAE-ANVko batailoietan gudari gisa aritu ziren. Luis Ruiz de Apodaca frontean hil zen. Hala ere, horrek ez du esan nahi Francisco Ruiz de Apodaca ere EAE-ANVkoa zenik, eta epaietaren inguruko datuek bere militantzia anarkista azpimarratzen dute. (Pako Ruiz de Apodaca Galarzari eginiko elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-18an).

⁴⁹⁵ Roberto Begue Sarasolari eta Yolanda Begue Redondori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

borrokan ari zela, *Rusia* batailoiko kidea zen. Tiburcio Lopez Rodriguez, geroago, 1936an, Beasaingo Metalgintzako Sindikatuaren buru izan zena⁴⁹⁶ (une hartan, kargu horretan, beste epaitu bat, Gumersindo Capa ordiziarra zegoen) gudan hil zen halaber, baina ez frontean, atzeguardian baizik, tuberkulosiak jota⁴⁹⁷. Tiburcio Lopez Ingeniarren 2. Batailoiko kide zen. Severiano Onesimoren eta Rafael Poloren anaiak (sozialistak biak), Ignacio Onesimo eta Valerio Polo fusilatutakoak izan ziren, lehena 1936ko uztailean Beasainen eta bigarrena 1937an Ciriegoko kartzelan Kantabrian.

Beasaindarren artean garbi dago sozialisten kopurua dela nagusiena. Aipatutako Julian Blanco, Tiburcio Lopez, Severiano Onesimo eta Rafael Poloz gain, epaitutako beste hamabi beasaindar ere sozialistak ziren. Haietako bat, Dionisio Carrascal, 1931n aukeratutako eta 1934an dimititutako zinegotzi sozialista zen. Hauteskunde haietara Fidel Fernandez ere aurkeztu zen, baina ez zen hautatua izan⁴⁹⁸. Bestetik, Antonio Menaza, orduko Beasaingo Elkarte Sozialistako lehendakaria zen. Sozialistak ziren besteak, Miguel Garbayo (1932ko Elkarte Sozialistaren zuzendaritzakoa⁴⁹⁹), Agapito Noriega (1934an Elkarte Sozialistaren zuzendaritzakoa, lehendakariordea⁵⁰⁰), Juan Bernardo Lopez (1934an, Elkarte Sozialistaren zuzendaritzako idazkariordea⁵⁰¹), Laureano Rodriguez Picazo (1934an Elkarte Sozialistaren zuzendaritzako kontuen ikuskatzailea⁵⁰²), Telesforo Gomez Arce eta Valentin Gomez Arce (Elkarte Sozialistaren zuzendaritzako idazkaria) -azken bi horiek kartzeletako fitxetan edota Udal frankistek egindako fitxetan agertzen dira⁵⁰³ - eta Fabriciano Diez ziren (honen buruz ez dugu datu zehatzik Eustasio Amilibia abokatu sozialistak defendatu zuenaz haratago; eta jakin badakigu abokatu honek epaitu sozialistak defendatu zituela bai goierritarren kontrako Guda-kontseiluan eta baita beste Guda-kontseilu batzuetan ere). ELAko kideak, aipatu ditugun Jose Ibarbia eta Rufino Sarasolaz gain, Francisco

⁴⁹⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 45. dokumentua.

⁴⁹⁷ Datu hau Tiburcio Lopezen iloba Miguel Angel Ruiz de Gaunak eman digu.

⁴⁹⁸ *La Voz de Guipúzcoa*, 1931-VI-2koa.

⁴⁹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

⁵⁰⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 171. karpeta, 26. dokumentua.

⁵⁰¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 171. karpeta, 26. dokumentua.

⁵⁰² Beasaingo Udal Artxiboa. 171. karpeta, 26. dokumentua.

⁵⁰³ Telesforo Gomez Arceri buruzko dokumentuak: Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 01. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 073. karpeta, 23. dokumentua; eta Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala. 2837. kutxa; 86. espedientea. Valentin Gomez Arceri buruzko dokumentuak: Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 01. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 3189. karpeta, 19. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 1169. karpeta, 02. dokumentua; eta Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 3597. kutxa; 8. espedientea. Bi anaiak, bai Telesforo zein Valentin, 1936ko guda garaian, Beasaingo Defentsa Batzordeko kide izan ziren.

2. kapitulua

Zabaleta Guerrico (1935ean Beasaingo ELAko zuzendaritzako kide zena⁵⁰⁴) eta Higinio Urbina (1931n ELAko ordezkaria Beasainen⁵⁰⁵) izan ziren. Anarkisten aldetik, bi beasaindar aurkitu ditugu, aipatutako Francisco Ruiz de Apodaca Fernandez de Ocariz, CNTko ordezkari zena⁵⁰⁶ eta Angel Galarreta Maestre. Francisco Hernandez Toves, Faustino Oronoz Amigot, Francisco Rodriguez Antolin eta Isidoro Rodriguez Picazoren filiazio politikoa ez dugu zehazterik izan.

Aurreko orrialdeetan komentatu dugu zalantza dugula Pascual Juarros, beasaindarra ote zen ala ez eta ez dugu ez horren eta ez bere ideologiaren gaineko ziurtasunik. Beste alde batetik, lau ordiziarren inguruan; aipatu izan dugu Alejandro Chinchurreta sozialista fusilatua izan zela, armada frankista Ordiziara sartzean atxilotu eta 1936ko abenduaren 1ean Iruñean fusilatu zuten. Beste bi sozialista ere bazeuden tartean, Gumersindo Capa, UGTren Metaleko Sailaren buru zena⁵⁰⁷, eta Alvaro Calvillo Lopez (gero 1936ko gudan gudari ibili zena). Laugarren ordiziarra, Pablo Aguado, CNTko kide historikoa izan zen Goierrin, eta batailoi anarkista batean borrokatu zuen gudan. Guda ostean, 1941 arte, preso egon zen⁵⁰⁸. Lehen ordiziarra izatea litekeena dela esan dugun Jose Miguel Maizen ideologia ez dugu ezagutzen eta euren herritartasuna jakiterik izan ez dugun Fidel Areta eta Julio Zulaica epaituen filiazio politikoaz, ez dugu arrastorik.

Epaiaketaren aurretik, badakigu behintzat zortzi lagun preso egon zirela, 1934ko abenduan, Beasaingo Udalak horientzako Gabonetarako askatasuna eskatu baitzuen. Hala ere, *El Pueblo Vasco* egunkariaren arabera, epaitu denak egon ziren “preso-aldi arinduan” epaiketa iritsi arte⁵⁰⁹. Preso horiek Pablo Aguado, Alvaro Calvillo, Fabriciano Diez, Jose Ibarbia Basilio Pascual, Francisco Ruiz de Apodaca, Rufino Sarasola eta Francisco Zabaleta izan ziren⁵¹⁰. Bestalde, aipatu izan dugu Tiburcio Lopezen kasua, zeina kartzelatik ekarri zuten errekarra, han gordeta zituen armak ateratzera⁵¹¹.

⁵⁰⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 059 karpeta, 57 dokumentua.

⁵⁰⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 134 karpeta, 14 dokumentua.

⁵⁰⁶ GARAI BENGOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: op. cit., 187. or.

⁵⁰⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 27. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 080. karpeta, 01. dokumentua.

⁵⁰⁸ Ordiziar horien inguruko informazio gehiago izan nahi duenak, ikus beza ondorengo liburua: ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit.

⁵⁰⁹ *El Pueblo Vasco*, 1935-VII-27koa.

⁵¹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 55. dokumentua.

⁵¹¹ Informazio hau, Tiburcio Lopezen iloba Miguel Angel Ruiz de Gauna Lopezek emana izan da.

Epaiketa, esan bezala, 1935eko uztailaren 26an izan zen. Hurrengo egunean atera zen berria egunkarietan (kasualitatez, 1936ko gudan altxatuak Beasaina sartu baino urtebete lehenago). Guk, zazpi egunkari kontsultatu ditugu gai horri buruz: Donostiako *La Constancia*, *El Día*, *El Diario Vasco*, *El Pueblo Vasco* eta *La Voz de Guipúzcoa* eta Bilboko *Euzkadi* eta *El Liberal*. Informaziorik zabalena *El Día* eta *La Voz de Guipúzcoa* ematen dute, epaiketaren kronika osoa egiten baitute. Donostiako beste hiru egunkariak, gutxi gorabehera, akusatuentzako zigor-eskaerak, akusatuen abokatuak, epaile eta fiskalak eta akusatu bakoitzari ezarritako zigorra azaltzen dute, baina abokatuen argudioekiko zehaztasun handirik eman gabe. Hala ere, hirurek, akusatu bakoitzaren izena eta bi abizenak ematen dituzte⁵¹². Bilboko egunkariak, askoz ere informazio laburragoa ematen dute. Esan beharra dago, egunkari gehienek, “Beasaingo herritarrak” aipatu zituztela, nahiz eta badakigun batzuk ez zirela beasaindarrak. Epaiketa Donostiako Epategi Militarrean egin zen, Garibai kalean, Tabako fabrika zaharrean⁵¹³. 32 prozesatu epaitu zituen epaile militarra, ingeniarietako Jose Vallespin teniente-koronela izan zen⁵¹⁴ eta epaile instruktorea Antonio Jimenez de Blas. Epaietako bokalak zazpi kapitain izan ziren: Serres, Sancho, Piris (edo Peris), Carnero, Tiestos, Rodríguez Hinojosa eta (Gutierrez) Alzaga⁵¹⁵. Fiskal gisa Davila aritu zen.

Defentsari dagokionez, gehienak militarrek izan ziren, ziur aski ofiziozko abokatuak: Cuartero, Lambea eta Cadena Iraizos kapitainak⁵¹⁶ eta Morencos tenientea. Hala ere, hiru zibilek ere jardun zuten defentsan: Eustasio Amilibiak, German Maria Iñurrateguik eta Fermin Vega de Seoanek. Eustasio Amilibia Machimbarrena Gipuzkoako sozialista famatua izan zen, Miguel Amilibia sozialistaren anaia. Miguel Amilibia, PSOEko Gipuzkoako zuzendarietako izateaz gain, 1936ko gudan Gipuzkoako Defentsa Batzordeko buru ere izan zen⁵¹⁷. Bederatzi kide defendatu zituen Amilibiak, denak ideia sozialistetakoak: Gumersindo Capa, Alejandro Chinchurreta,

⁵¹² *La Constancia*, 1937-VII-27koa; *El Pueblo Vasco*, 1935-VII-27koa; eta *El Diario Vasco*, 1935-VII-27.

⁵¹³ *El Día*, 1935-VII-27koa eta *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-VII-27koa.

⁵¹⁴ *El Día* egunkariak, okerbidez, “Jose Vallestin” bezala aipatzen du (*El Día*, 1935-VII-27). Jose Vallespin Cobian, 1936.eko uztailaren 27ko *El Día*aren kronikan “Piris” eta “Gutierrez Alzaga” bezala agertzen dira.

⁵¹⁵ 1935eko uztailaren 27ko *El Día*aren kronikan “Peris” eta “Alzaga” ordea.

⁵¹⁶ *El Día* egunkariaren kronikan, gizon hau, modu okerrean “Cadenas Iraizos” moduan aipatzen dute. *El Día*, 1935-VII-27koa.

⁵¹⁷ Francoren agintaldiaren ondoren, trantsizio-garai deituan, Herri Batasuneko kide izan zen eta Mahai Nazionalako kide ere bai.

2. kapitulua

Fabriciano Diez, Valentin Gomez Arce, Juan Bernardo Lopez, Tiburcio Lopez, Agapito Noriega Garcia, Rafael Polo Carrascal eta Laureano Rodriguez Picazo⁵¹⁸. German Maria Iñurrategui, 1931n Tolosan zinegotzi jeltzale aukeratua izan zenak⁵¹⁹ hiru akusatu defendatu zituen eta hirurak joera abertzalekoak: Jose Ibarbia, Rufino Sarasola eta Francisco Zabaleta⁵²⁰. Fermin Vega de Seoane *Izquierda Republicana* alderdiko militantea zen abokatuak akusatu bakarria defendatu zuen: Antonio Menaza Bermudez hain zuzen (1934ko gertakariak gertatu zirenean, Elkarre Sozialistaren lehendakari zena). Beraz, 32 akusatuetatik 13, abokatu zibilek defendatu zituzten, elkartasun politiko-ideologikoan topa genitzake arrazoiak. Hala ere, defendatu gehienek ofiziozko abokatuak izan zituzten eta litekeena da baliabide faltagatik izatea (ez ahaztu gehienak langileak zirela).

Ofiziozko abokatuen artean, Lambea kapitaina izan zen akusatu gehienak defendatu zituen, 11 guztira: Pablo Aguado, Fidel Areta, Julian Blanco, Miguel Garbayo, Telesforo Gomez Arce, Francisco Hernandez, Jose Miguel Maiz, Severiano Onesimo Matute, Basilio Pascual Juarros, Isidoro Rodriguez eta Joaquin Zulaica (Francisco Zabaletaren defentsaz, *El Día* eta *La Voz de Guipúzcoa* egunkarien kronikek, bi toki ezberdinetan, German Maria Iñurrateguik eta Lambea kapitainak egin zutela esaten du. Zabaletaren ideologia abertzalea zela-eta, ziurrago ikusten dugu Iñurrateguik defendatu izana. *El Diario Vasco*ren kronikak ordea, Francisco Zabaleta Iñurrateguiren defendatuen artean sartzen du, baina ez du Jose Miguel Maiz Lambea kapitainak defendatuen zerrendan sartzen). Cuartero kapitainak hiruzpalau pertsona defendatu zituen: Alvaro Calvillo, Dionisio Carrascal Aguado, Francisco Ruiz Fernandez eta iturri batzuen arabera Higinio Urbina⁵²¹. Morenos tenienteak, gure datuen arabera, bakarria defendatu zuen: Angel Galarreta⁵²². Beste hiru preso, Higinio Urbina Estadillo, Fidel Fernandez eta Faustino Oronoz Amigot, iturri batzuen arabera, Cadena Iraizos

⁵¹⁸ *La Voz de Guipúzcoa* eta *El Día* egunkariak bederatzi hauek kontatzen dituzte. *El Diario Vasco*k, aldiz, zortzi, Rafael Polo ez du zerrenda horretan sartzen. *El Pueblo Vasco*ren arabera, sei ziren Amilibiak defendatutakoak; Rafael Poloz gain, Tiburcio Lopez eta Laureano Rodriguez uzten baititu zerrendatik kanpo. (*El Día*, 1935-VII-25koa; *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-VII-27koa; *El Diario Vasco*, 1935-VII-27koa; *El Pueblo Vasco*, 1935-VII-27koa).

⁵¹⁹ 1935ean ez zuen kargu hori, 1934ko Udalen mugimendua zela-eta kargugabetua izan zelako.

⁵²⁰ *El Día*ko kronikak (1935-VII-27koa) ez du argi uzten Francisco Zabaletaren defentsa norik egin zuen, toki batean German Maria Iñurrateguik defendatu zuela dio eta beste batean Lambea kapitainak defendatu zuela. *La Voz de Guipúzcoa*ko kronikak ere hala dio (1935-VII-27koa).

⁵²¹ Bai *La Voz de Guipúzcoa* zein *El Día*ko, Higinio Urbina Cuartero kapitainak defendatu zuela diote, baina *El Diario Vasco*ren eta *El Pueblo Vasco*ren arabera, Cadenas Iraizos kapitainak defendatu zuen. *El Día*, 1935-VII-27koa; *La Voz de Guipúzcoa* 1935-VII-27koa; *El Diario Vasco*, 1935-VII-27koa; eta *El Pueblo Vasco*, 1935-VII-27koa.

⁵²² *El Diario Vasco*, 1935-VII-27koa; eta *El Pueblo Vasco*, 1935-VII-27koa.

kapitainak defendatu zituen⁵²³. Gure datuen arabera, Francisco Rodriguez nork defendatu zuen ez dugu jakiterik izan.

Bai *El Día* egunkariak, zein *La Voz de Guipúzcoa*, zein *Euzkadik*, Angel Galarretaren izena nabarmentzen dute, beraz, pentsatzekoa da nolabait Beasaingo gertakariak Angel Galarretaren izenarekin lotuta egotea. *Euzkadiren* (hots, Gipuzkoan ateratzen ez zen egunkari batean ere) kronikan “Angel Galarreta eta Beasaingo beste 30 herritar epaitu dituzte” aipatzen dute (esan dugu denak ez zirela beasaindarrak)⁵²⁴; eta esaldi bera agertzen da *La Voz de Guipúzcoa*⁵²⁵. *El Día*n, ordea, “Angel Galarreta eta epaitutako beste hogeita hamar pertsona” aipatzen dituzte⁵²⁶. *El Pueblo Vasco*k, *El Diario Vasco*k, *La Constanciak* eta *El Liberalek* ez dute Galarretaren izena nabarmentzen. Hala ere, ikusiko dugunez, Angel Galarreta ez zen izan ardura gehien izan zuena; nahiz eta hasieran, fiskalak eskatutako zigorrak gogorrena berarentzat izan (Gumersindo Capa, Antonio Menaza eta Severiano Onesimorekin batera): 20 urteko kartzela-aldia eskatu zieten, eta Severiano Onesimorekin batera zigorrak gogorrena izan zuten: 6 urteko kartzelaldia.

Antonio Jimenez de Blas epaile instruktorearen arabera, epaituek “Gazteria Sozialistaren ordenak” jarraitu zituzten, Beasaingo fabriketan zein Trenbide Konpainian “sabotajek egiteko eta langileak, lana utz zezaten mehatxatzeko” ados jarritz. Ideia hori, Gazteria Sozialistaren inplikazioa, izan zen Angel Galarretaren defentsarako argudio nagusia, bera CNTko kidea zela-eta, mugimenduaren prestakuntzan ez zuela parterik hartu argudiatu baitzuen defentsak. Fiskalak, Davilak, beste delitu batzuen artean (adibidez, armak ilegalki izatea), matxinada militarra laguntzea leporatu zien, eta epaitu guztiak arduradun jo zituen. Davilaren arabera, udatik hasi ziren “Beasaingo elementu sozialistak” armak biltzen eta “Iraultzaren aurreko egunean banatu zituzten”⁵²⁷. Hortaz, aipatutako lauren aurka, 20 urteko kartzela zigorra eskatu zuen, beste bosten kontra (Pablo Aguado⁵²⁸, Dionisio Carrascal, Fidel Fernandez, Faustino Oronoz eta Higinio Urbina) hamasei urteko kartzela-zigorra eta beste denentzat hamabi urteko kartzela-

⁵²³ *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-VII-27koa. Hiru horien erreferentzia egunkari horretan soilik agertzen da, *El Día*n ez.

⁵²⁴ *Euzkadi*, 1935-VII-27koa.

⁵²⁵ *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-VII-27koa.

⁵²⁶ *El Día*, 1935-VII-27koa.

⁵²⁷ *La Voz de Guipúzcoa*; 1935-VII-27koa.

⁵²⁸ *El Día* egunkariaren kronikan, okerbidez, Pablo Aguado, 16 urteko zigor-eskaera zein 12 urteko zigor-eskaera zutenen zerrendetan sartzen dute. *La Voz de Guipúzcoa*ren eta *La Constanciaren* arabera, hamasei urteko kartzela-zigorra eskatu zuen fiskalak bere aurka, beraz, irizpide hori hobetsiko dugu.

2. kapitulua

-zigorra. Francisco Rodriguez eta Isidoro Rodriguezen aurkako zigorrik ez dugu ezagutzen; hala ere badakigu Tiburcio Lopezek zein Isidoro Rodriguez “kamareroak” trenbideko kableak mozten lagundu zutela, beraz, ziur aski zigor-eskaera gogorra izan bide zuten: Galarretaren arabera, trenaren kableak moztera joan zirenak –Tiburcio Lopez, Laureano Rodriguez, Rafael Polo eta Francisco Hernandez- 12 urteko kartzela-zigorraren eskaera izan zuten eta, Galarretak berak, eskaera gogorragoa izan zuen: 20 urtekoa. Hirugarren bati, Tiburcio Lopezi, *La Constancia* egunkariaren arabera, 12 urteko kartzela-zigorra eskatu zitzaiola esaten du, baina egunkari horrek bakarrik dakar hori eta beste denek ez dute aipamenik egiten⁵²⁹.

Abokatu defendatzaileen estrategia, mehatxuak egitea eta armen legez kanpoko jabetza onartzea izan zen, baina matxinada militarra laguntzea edo prestatzea ukatzekoa izan zen. Beraz, delitu bakunengatik soilik epaituak izan behar zuten eta ez plan handiago baten parte izateagatik. Eustasio Amilibiak, akusatuak langile zintzoak zirela esan zuen eta halako plan handi bat prestatzeko gaitasunik ez zutela, beraz, absoluizioa ematea edota zigorra egin zezaketen delituaren arabera jartzea (delitu isolatu baten arabera) zela bidezkoa esan zuen. Amilibiaren arabera, asko jota “mehatxuz” edo “desordenaz” bakarrik errudun daitezke epaitutako goierritarrak. Antzeko ildo jarraitu zuen Fermin Vega de Seoanek eta bere defendatu bakarra, Antonio Menaza, errudun izatekotan armak legez kanpo edukitzeagatik soilik izan zitekeela esan zuen, beraz, errugabetzea edo asko jota lau urteko zigorra jartzea zegokiola esan zuen. Bai Lambea kapitainak, Cadenas Iraizos kapitainak, zein Cuartero kapitainak, beren defendatuentzako errugabetze osoa eskatu zuten⁵³⁰. Aipatu beharra dago, Cuartero kapitainaren arabera, bere defendatuetako batek, Francisco Ruiz anarkistak, Antonio Menaza sozialistarekin eta ELAko kide batekin (Jose Ibarbia, ematen duenez), Antonio Sierra CAFeko zuzendariarekin bilera batean parte hartu zuela eta “hobekuntza batzuen truke” greba bertan behera uztea ere eskaini ziotela. Beraz azpimarratu zuenez, ekintza, greba maila ekonomikora mugatzeko saiakera izan zen, karga politiko edo matxinada-joerarik gabea eta izaera baketsukoa⁵³¹. Morencos tenienteak, arratsaldez defendatu zuen bere defendatu bakarra⁵³²: Angel Galarreta. Lauetan hasi zen⁵³³

⁵²⁹ *La Constancia*, 1935-VII-27koa.

⁵³⁰ *El Día*, 1935-VII-27koa; eta *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-VII-27koa.

⁵³¹ *El Día*, 1935-VII-27koa.

⁵³² Sei egunkaririk Morencosek salbu abokatu denek goizez hitz egin zutela badiote ere, *El Liberal* egunkariaren arabera, “seigarren abokatu bat hitz egiten ari zela epaiketa eten egin zen eta arratsaldez

defentsa-saio hartan, Morencosek Galarreta, CNTko kide zela esan zuen, beraz, mugimenduarekin ez zetorrela bat, “Alderdi Sozialistaren guztiz aurkako ideologia” zuelako. Galarretaren parte-hartzea mugimenduaren “indarra jasanezina zelako” izan zela azaldu zuen Morencosek⁵³⁴.

El Díaren kronikaren arabera, defentsa-abokaturik onena German Maria Iñurrategui izan zen (*El Día* ez zen berez egunkari jeltzalea, baina bai alderdi horrekiko oso hurbilekoa, beraz, balorazio hori, abokatuaren eta egunkariaren ideologia hurbilekoak zirelako izan zitekeen. *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikanoan, ordea, Iñurrateguiaren lana, besteen lanaren pare komentatu zuten eta aseptikotasun berdinez deskribatu zuten⁵³⁵. Beste egunkariak ez zuten abokatuaren lanaren gaineko aparteko aipamenik egin). Iñurrategui, bere defendatuen alde, ordenaren eta kristautasunaren ideologia zuten erakundeetan militatzen zutela esan zuen (goizez izan zen Iñurrateguiaren defentsa-saioa eta ikusi dugun moduan Morencos abokatuak ildo hori bera, Alderdi Sozialistarekiko loturarik ez izatea, erabili zuen Galarreta anarkista defendatzeko). Abokatu horrek, besteek bezala, ez zela kalterik egin, eta beraz, egitate hori gailendu egin behar zela nabarmendu zuen. Baina Iñurrategui erabilitako argudiorik garrantzitsuena, betiere *El Díaren* kronikaren arabera, “Beasaingo herriaren egoera” aipatzea izan zen. Hau da, Beasainen, jakin dakizuen moduan, 1934ko urriaren hasieran Serafin Arana zegoen behin-behineko alkate-postuan (Gobernadoreak, Udala osatzeko, eskuineko zinegotzi gehiago izendatu zain), aurreko alkate hautetsia, Jacinto Urteaga, 1934ko abuztuan, mugimendu autonomistan parte hartzeagatik kargugabetua izan zelako. Hau da, horrek kapitulu honen hasieran aipatu dugun arrazoi batekin egiten du bat, eskuineko Gobernuak Euskal Herrian alkate batzuk kargugabetu eta haien ordezkari eskuineko Udal-agintariak jarri izanak, ezkerretik hainbeste aipatzen den eskuinaren “izaera totalitarioa” nabarmendu zutela, matxinadari zilegitasuna emanaz. Pentsatzekoa da, defentsa-elementu horrek asko lagundu ziela, ez soilik abokatu horren defendatuei, epaitu zituzten guztiei baizik⁵³⁶.

Azkenik, *El Pueblo Vasco* egunkariak dakarrenez, “defentsak” (egunkari horrek ez du zehazten nork, abokatu bakoitzaren adierazpenen berri ez baitzuen eman), greba

berak eta zazpigarren abokatuak (Morencosek) jarraitu zuten”. (*El Liberal*, 1935-VII-27koa). Beste egunkariak kontsultaturik, seigarren abokatu hori Cadena Iraizos kapitaina zela pentsa genezake.

⁵³³ *El Diario Vasco*, 1935-VII-27koa.

⁵³⁴ *El Día*, 1935-VII-27koa; eta *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-VII-27koa.

⁵³⁵ *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-VII-27koa.

⁵³⁶ *El Día*, 1935-VII-27koa.

2. kapitulua

baketsua izan zela esan zuen, eta mehatxurik ez zela izan “sindikatu guztien hausnarketan ondorio” izan zelako⁵³⁷.

Arratsaldeko saioan, azken abokatuak, Morencos kapitainak, bere defentsa bukatu ondoren, Davila fiskalak berriz hitz egin zuen. Kasu horretan, bere hasierako akusazioak apaldu egin zituen. Lehenik eta behin, Alvaro Calvillo Lopezen kasuan, une batez eskuetan pistola bat izatea soilik leporatu zitzaioela esan zuen, beraz, bere kontrako salaketa guztiak erretiratzeko zituela eta errugabetua gelditzen zela. Beste alde batetik, sei akusaturi; Pablo Aguadori, Julian Blancori, Fabriciano Diezi, Miguel Garbayori, Telesforo Gomezi eta Jose Miguel Maizi matxinada militarra lagundu izanaren delitu-salaketa erretiratu egin ziren, baina armak legez kanpo edukitzearen delitu-salaketa mantendu egin zuen; beraz, hasierako zigor-eskaera jaitsi eta bi urtetan utzi zuen eskaera (kontuan izan behar dugu horietako bostentzat hasieran hamabi urteko kartzela-zigorra eskatu zuela; Pablo Aguadoren kasuan, hamasei urtekoa). Beste guztiekiko, euren kontrako salaketak apaltzeko edo erretiratzeko modurik ez zuela ikusten esan zuen, baina delituak eta ondorioak larriak izan ez zirenez gero, tribunalaren “sentimendu kristauei” dei egin ziren, “erruki izan zezaten eta ahal zen zigorrik txikienak ezar ziezazkieten”⁵³⁸.

Arratsaldeko jardunetan, abokatuak askoz ere lasaiago aritu ziren eta euren jardunen arabera, helburuaren parte handi bat lortua zutela eta euren tesiak (matxinada militarren laguntzearen salaketa erretiratzea, kalteen salaketa erretiratzea eta asko jota mehatxuak eta batzuen kasuan armak legez kanpo izatearen salaketak soilik mantentzea) nagusitu izanaren sententzia izan zuten. Amilibiak, Beasaingo istiluak Asturiasko matxinadarekiko loturarik gabe utzi zituen, Beasainen gertatutakoak Asturiasko iraultzaileen garaipenerako ekarpenik ez zuela egin azpimarratuz, beraz, asko jota “ordena publikoko falta” soilik izan zela esan zuen. Horri, Beasainen greba-deialdia guda-egoera aldarrikatu aurretik egin zela gehitu zion; eta bere esperientzia baliatuz, “beste guda-kontseiluetan halakoak mehatxuagatik soilik epaitu izan zirela” esan zuen. Fermin Vega de Seoanek eta Cuartero kapitainak bat egin zuten Amilibiarekin, eta beraz, gertatutakoak delitu baino falta moduan kontsideratzea eskatu zuten. Vega de Seoaneren arabera, berak defendatua, Antonio Menaza, soilik armak legez kanpo izateaz akusa zitekeen; eta Cuarteroren arabera, berak defendatutako Francisco Ruiz,

⁵³⁷ *El Pueblo Vasco*, 1935-VII-27koa.

⁵³⁸ *El Día*, 1935-VII-27koa; eta *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-VII-27koa.

CAFen zuzendariarengana “arriskuak ekiditeko hobekuntza batzuk iradokitzen joan zen”. Inurrateguik, zigorrak are gehiago apaltzeko eskatu zuen eta berak defendatutakoak, asko jota, bi hilabeteko kartzela-zigorra merezi zutela esan zuen (soilik armak izatearren zigor zitezkeela esan zuen). Azken hiru abokatuek, Lambea kapitainak, Cadenas Iraizos kapitainak eta Morencos tenienteak, “frogatuzat” eman zuten Beasainen matxinada militarrik edo antzekorik ez zela izan eta epaitegiak horri buruzko “ideia argia” izango zutenaren konfiantza adierazi zuten⁵³⁹.

*El Día*ren kronikaren arabera, jardun eta hitzaldi guztiak entzun ondoren, epaitegiak “denbora dezente igaro ondoren” hartu zuen erabakia. Matxinada militarren delitua “saiakera-mailan” mantendu zuen, eta horrez gain, sabotajea (trenbidearen kontra), lapurreta (Ataungo harrobitik dinamita lapurtu zuten) eta mehatxuak leporatu zizkien. Zigorrik gogorrenak Severiano Onesimo Matute eta Angel Galarretarentzat izan ziren, bakoitzari sei urteko kartzela zigorra ezarri baitzitzairen (Galarretak, bere adierazpenen arabera, bai Ataungo harrobiko lapurretan zein trenaren kontrako sabotajeetan parte hartu zuen), biei “Matxinada militarra laguntzearen”⁵⁴⁰. Lau urteko zigorrak jarri zizkien Gumersindo Capa eta Dionisio Carrascali. Kontuan izanik bat Beasaingo UGTko buru zela eta bestea zinegotzi sozialista dimititu berria, agian xehetasun horiek nolabaiteko pisua izan zuten. Bi urteko zigorra jaso zuten Antonio Menazak (CAFeko zuzendariarekin fabrika ixteko esanez hitz egitera joan zenetako batek), Fidel Aretak eta Faustino Oronozek. Agapito Noriegak, Francisco Hernandezek, Rafael Polok, Laureano Rodriguezek eta Francisco Rodriguezek⁵⁴¹ urtebeteko kartzela-zigorra jaso zuten. Aldiz, zortzi hilabeteko kartzela-zigorra jarri zuten epaitegiak Alejandro Chinchurretari, Fidel Fernandezi, Valentin Gomez Arceri, Basilio Pascual Juarrosi, Rufino Sarasola Lasari eta Higinio Urbinari. Zigorretan apalenetakoa sei hilabeteko arrastatze handia izan zen, hamaika presok jasotakoa: Pablo Aguadok, Julian Blancok, Miguel Garbayok, Telesforo Gomez Arcek, Jose Ibarbiak, Juan Bernardo Lopezek, Tiburcio Lopezek, Isidoro Rodriguezek, Francisco Ruizek, Francisco Zabaletak eta Joaquin Zulaicak⁵⁴². Fabriciano Diez, *El Pueblo Vasco*ren arabera, (baina ez *El Día*, ez *La Voz de Guipúzcoa*ren arabera) lau hilabeteko kartzela-aldira izan zen

⁵³⁹ *El Día*, 1935-VII-27koa.

⁵⁴⁰ *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-VII-27koa.

⁵⁴¹ *El Liberal* egunkariak Francisco Ruiz nahasten du Francisco Rodriguezekin, Ruizi urtebeteko zigorra jarri zitzaioala oker esanez (sei hilabeteko zigorra ezarri zioten). (*El Liberal*, 1935-VII-27koa)

⁵⁴² Hamaika horien zigorrez, *El Día*k soilik ematen du berri. Beste egunkari batzuek, *La Voz de Guipúzcoa*k, *El Diario Vasco*k edo *El Liberal*ek, esaterako; sei kondenatu soilik aipatzen dituzte: Jose Ibarbia, Juan Bernardo Lopez, Tiburcio Lopez, Isidoro Rodriguez, Francisco Zabaleta eta Julio Zulaica.

2. kapitulua

kondenatua⁵⁴³. *El Pueblo Vasco* beste lau akusaturi lau hilabeteko zigorra jarri zietela esaten du (Pablo Aguadori, Julian Blancori, Miguel Garbayori eta Telesforo Gomez Arceri), beraz *El Día*ekin desadostasuna ikusten dugu hemen⁵⁴⁴. Jose Miguel Maizen kasuan, ez dakigu nolako zigorra izan zuen, baina badakigu armak soilik izatearren zigortu zutela⁵⁴⁵, beraz, litekeena da 4 hilabeteko kartzela-zigorra izatea, Diezek bezalaxe. Horrez gain, 31 horietatik 25i, armak legez kanpo izateagatik sei hilabeteko arrastatze handiko zigorra ezarri zitzairen. Horietako sei, lehen aipatutako seiak, arratsaldeko saioan Davilak euren kontrako matxinada militarreko saiakera-akusazioa erretiratu zienak dira: Aguado, Blanco, Diez, Garbayo, Telesforo Gomez eta Maiz; baina ezin dugu besteen kasuan jakin nor izan zen matxinada militarra laguntzeagatik soilik kondenatua eta nor izan zen bi delituengatik kondenatua.

Beraz, azkenean kale egin zuen langile-iraultzak. Iraultza horren aurkako errepresioa, esan bezala oso gogorra izan zen, ez soilik hildakoen zenbaki handiari begiratuta, baita preso en zenbatekoari eta errepresioak utzi zuen arrastoari begiratuta ere. Presoen aferak asko hunkitu zituen ezkertiarrek eta langile-klaseetako jendea, baina elkartasuna ere handia izan zen. Horrez geroztik, “Amnistiaren” leloa, 1936ko otsaileko hauteskundeetan Herri Frontearen (*Frente Popular*) lelo nagusietakoa bilakatu zen. Horrez gain, langile-antolamenduen egoitzak urtebetez gutxi gora behera itxita egon ziren eta biltzeko eskubiderik ere ez zuten izan. Ekintza sindikalak ere debekatuak izan ziren.

Beasainen, 1934ko bi krisiek errepresioa eragin zuten eta hori izan zen urte hartako balantzerik nabarmenena. Lehenak, alkatea atxilotzea eta kargugabetzea, eta haren ondorengo Udalaren aldaketa ekarri zuen eta, bigarrenak, hainbat abertzaleren egoitzak eta sindikatu guztienak itxita gelditzea (Batzoki berria obretan ari zen artean). Ezkerrak, boteretik at, eta kaleko presentziarik gabe, ekarpen askorik egiterik ez zuen izan eta Beasainen nabaria izan zen halako ideien pisuaren hutsunea.

Hala ere, 1935. urtearen erdi aldera, Beasainen Ezker Errepublikano alderdia jada funtzionatzen ari zen, batzarrak eta abar, egiten zituzten (lehendabizi Gobernadore Zibilaria baimena eskatu behar izaten zioten arren); baina hori bai, merkatu-plazan, ez

⁵⁴³ *El Pueblo Vasco*, 1935-VII-27koa.

⁵⁴⁴ *El Pueblo Vasco*, 1935-VII-27koa. *El Pueblo Vasco*, akats bat egin zuen: Valentin Gomez bi aldiz aipatu, bat zerrenda horretan eta beste bat lau hilabeteko kondena jaso zutenen artean.

⁵⁴⁵ *El Día*, 1935-VII-27koa; eta *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-VII-27koa.

beren egoitza zen Zentro Errepublikanoan⁵⁴⁶. Beasainen, 1935eko urrian, Langileen Sindikatu Bakarrak (CNTren mendeko erakundea) bere lokala ireki zuen, ordura arte Ordizian soilik baitzuen. Beraz, 1935. urtearen amaieran nolabaiteko pixkanakako suspertzea hasi zela ikusten da⁵⁴⁷.

Beasainen eta eskualdean ere errepresaliatuen aldeko ekintzak nabarmendu egin ziren. Udalak, orduan eskuindarren esku zegoen arren, herritarren nahiari erantzunez, 1934ko abenduaren 22an, epaiketaren zain zeuden zortzi preso beasaindarrek behintzat Gabonak familiekin pasatzeko aldi baterako askatasuna izan zezaten eskatu zuen. Preso horiek, Francisco Ruiz, Alvaro Calvillo, Pablo Aguado, Basilio Pascual, Fabriciano Diez, Francisco Zabaleta, Jose Ibarbia eta Rufino Sarasola ziren⁵⁴⁸. Are gehiago, 1935eko martxoan, herriko hainbat eragileren presentziarekin (ELA, eskuineko Sindikatu Profesionala, eskuineko Nekazarien Sindikatua, Merkatarien Elkarte, Jabeen Elkarte, Trenbideko Joko Elkarte, EAJ, Izquierda Republicana, Langileen Ekonomatoa eta Langileen Kooperatiba) batzar bat antolatu zuen Udalak eta batzar horretan bost eragile falta zirela esan zuen Manuel Perez alkateak eta deigarria da sozialistarik agertu ez izana –ez UGT, ez Elkarte Sozialista– nahiz-eta kartzelatutako gehienak sozialistak izan (agian Udal eskuindarrarekiko erabateko oposizioa erakutsi nahi izan zuten).

Batzarraren helburua, CAFeko zuzendari Antonio Sierrari, epaiketaren zain zeuden beasaindarrak eta goierritarrak, aske utziz gero, enpresan berriz onartzeko eskaera egitea zen⁵⁴⁹. Bestalde, Gobernadore Militarrari, epaiketa ahalik eta lasterren burutu zedila eskatu zioten. Proposamen hori, antza denez, Ignacio Cortes merkatarri errepublikanoaren eskutik etorri zen. Cortesek, bitartekaritzarako eta negoziatziorako trebezia handia erakutsi zuen halaber 1936ko Estatu-kolpearen hurrengo egunetan, bere etsai ideologikoen (eskuindarren) alde bitartekaritza-lanak egitean eta Beasaingo kartzelatik askatzea lortzean. Baina 1935eko martxoko batzarrera itzulita, batzarkideen artean zenbait tirabira izan ziren. Adibidez, ELAko ordezkari Jose Maria Lozaresek “berronartzeko kudeaketak CAFez gainerako fabriketan” ere egitea eskatu zuenean, tartean Legazpiko Patricio Echeverria fabrikari lan egiten zuen beasaindar baten kasua aipatu zuen. Udalaren ordezkariak ordea, Beasaingo Udalak Legazpin zer esanik ez

⁵⁴⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 119 karpeta, 11 dokumentua.

⁵⁴⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 138 karpeta, 32 dokumentua.

⁵⁴⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 55 dokumentua.

⁵⁴⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 70. dokumentua.

2. kapitulua

zuela esaten zuten. Beste alde batetik, jabeen ordezkari zen Pedro Jose Iguainek (Musikako Udal-bandaren zuzendari ere bazenak) errugabeen eta zigortuen artean bereiztea eskatu zuen; langileren bat zigortua bazen, enpresariei ezin zitzaizela berronartzea *eskatu* adierazi zuen, *iradoki* baizik ezin zitekeela egin, legearen gainetik jartzea ezinezkoa zela-eta, beraz epaiketa egin arte itxarotea eskatu zuen, zenbat errugabe eta zenbat zigortu ziren jakiteko. Beste batzarkideek Tolosan eta Azpeitian zigortutako langileak ere berronartze-prozesuan sartu zituztela erantzun zioten. Beste alde batetik batzarrean kartzelatu haien eta gainerako langabeen (118 aipatzen ziren) egoera alderatu zen eta nola har zitezkeen zigortuak galdetu, zenbat denborarako zigortuta zeuden kontuan hartu gabe, aldi berean herrian hainbeste langabe zeudela kontuan izanda. *Izquierda Republicanako* Manuel Gorrochateguik erantzun zuen, langabe “arrunt” gehienak gazteak zirela eta lana topatzerik bazutela, alta, kartzelan zeuden edo epaiketaren zain zeuden ia denak, familiadun gizonak zirela. Berriz ere, krisi ekonomiko garaietan langile-klasearen barruan izandako zailtasunen eta barne-arazoen adibide bat topatzen dugu hemen⁵⁵⁰.

Bestalde, 1935ean Gipuzkoan Presoen Aldeko Batzordea (*Comité Pro-Presos de Guipúzcoa*) sortu zen, komunisten Laterriarteko Sorospen Gorrija (*Socorro Rojo Internacional*) taldeak bultzatuta. Presoen Aldeko Batzorde horrek, Gipuzkoa osoan zehar diru-bilketa handi bat hasi zuen eta 1935eko uztaileko 31rako 290.328,30 pezeta bilduak zituen, horietako 7.447 pezeta Beasainen⁵⁵¹. Goierriko presoen aldeko ekitaldiak ez ziren soilik Beasainen egin, Ordizian, 1935eko azaroaren 30ean, Etxezarreta antzokian, Goierriko presoen aldeko gaua antolatu zen, presoen familiak diruz laguntzeko asmoz⁵⁵². Halako elkartasun- eta laguntza-ekitaldiak, Gipuzkoan eta Hego Euskal Herri osoan egin ziren modu bertsuan (baita Asturiasen ere) eta presoen alde hainbat erakundek egindako lan komun horrek, 1936an Herri Frontea (*Frente Popular*) eratzea erraztu zuen eta, agian, hori izan zen porrot haren ondorio baikor bakarretakoa ezkerrentzat: 1935eko abenduaren 30ean Gipuzkoan sindikatu komunistak UGTn sartzeko prozesua hasi zen eta 1936ko urtarrilaren 1ean, Donostian,

⁵⁵⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 70. dokumentua.

⁵⁵¹ GARAI BENGEOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: op. cit., 201. or.

⁵⁵² ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 24. or.

sozialisten eta komunisten arteko lehen mitin bateratua ospatu zen, Jesus Larrañaga goierritarra ere bertan zelarrik⁵⁵³.

Politikoki, matxinada haren ondorioz, “ezkerreko” eta “eskuineko” blokeak sendotu egin zituen iraultza hark. Bi blokeen arteko lubakia handitu egin zen, eta bien arteko elkarlaguntza ia ezinezko bihurtu zen, adibidez, orduan Gobernuan zegoen Alderdi Erradikalaren barruan (zentro-eskuineko alderdi errepublikanoa), “eskuineko” izaerak gain hartu zion “errepublikano” izaerari. Bloke horietako bakoitzean ere, aldaketak nabaritu ziren: ezkerrean, lehen urteetako ezinikusia gaituta, batez ere langile-erakundeen artekoa (sozialistak, komunistak eta anarkistak), euren arteko hurbiltze bat nabaritzen hasi zen, batez ere esperientzia gogor haren eraginez. Eskuinean, aldiz, Armadaren esku-hartzeak, “ordenaren jarraipena” bermatu zuenak, ospe handia lortu zuen eta eskuindar politikarien barruan “Iraultzaren aurrean Armada ez den beste defentsarik ez dago” pentsamendua sortu zuen, hain zuzen ere gero, 1936ko Estatu-kolpea ematera eramanez.

2.6 Beasaingo udalaren zerbitzuak

Euskal Herriko eta Espainiako gertakizun politikoek Beasainen izan zuten eragina aztertu ondoren, tarte bat eskaini behar diogu Beasaingo egunerokotasunari eta honen kudeaketari, honek garaiko beasaindarren bizimoduaren inguruan zantzuak ematen baitizkigu. Urte hauetako egoera ekonomiko kaxkarra zela eta, Beasainen urte hauetan Udalaren gastu garrantzitsu bat, lehen azaldu bezala, langabeak laguntzera emana izan zen. Ikusi dugun bezala, Beasaingo Udalak langabe-poltsa sortu zuen, eta hala-nola langabe hauen artean aldikako lana izan zezaten saiatzeko.

Horrez gain, krisia zela eta, Beasaingo aurrekontua ez zen oso handia ezta ere: 1931.ean 209 pezeta ingurukoa bazen, 1936erakoa 219.000 pezeta ingurukoa zen, beraz, oso hazkunde txikia gertatu zen (1934.ean are txikiagoa izan zen, 197.500 pezeta ingurukoa)⁵⁵⁴. Nahiz eta 1934.ean Beasaingo bi zinegotzik “gure herriaren egoera ekonomikoa, Gipuzkoako beste herriekin konparatuz, on xamarra da” esan⁵⁵⁵; egia esan, Beasaingo Udalak arazo bat baino gehiago zuen: 1932.eko maiatzean, Gipuzkoako

⁵⁵³ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 34-35. or.

⁵⁵⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 14. dokumentua.

⁵⁵⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 2.138. karpeta, 33. dokumentua.

2. kapitulua

Aurrezki Kutxari 175.000 pezetako kreditu bat eskatu zion⁵⁵⁶; 1935.ean 100.000 pezetako kreditu bat⁵⁵⁷; eta 1936.ean 100.000 ezetako beste kreditu bat⁵⁵⁸. Honez gain, 1933.ean eta 1935.ean aparteko bi aurrekontu egin zituen Beasaingo Udalak⁵⁵⁹. Oro har, 1935.ean Udalaren zorra 844.500 pezetakoa zen (kontratista batzuek, ordaindu ezean Udala epaitegira eramateko mehatxua egin zuten)⁵⁶⁰. Egoera zail honen aurrean, 1935.ean, Beasaingo Udalak bere hartzekodunei zor publikoaren interesak %5etik %4ra jaistea erabaki zuen⁵⁶¹.

Beasainen hobera egin zuen arlo bat hezkuntzarena izan zen. Beasainen eskola berri bat egin zen, Arriaran auzoan hain zuzen ere. Eskola hau, Aldundiak 1930.ean (beraz, Errepublikaren ezarri baino urtebete lehenago), 100 baserri-eskola egiteko plan baten parte zen. Plan honek (Bizkaiko Aldundiak 1917.ean egin zuenaren antzera), baserri-auzoetako umeei hezkuntza eskubide bermatu nahi izan zien, eta horrez gain, Gipuzkoan lehen aldiz, euskararen irakaskuntza sistematikoa aurreikusten zuen, eskola hauetan aritu beharreko irakasleei euskara jakitea (euskara-azterketa baten bidez frogatuko zutena) exijitzen baitzieten. Eskolok, hasiera batean, Aldundiaren, Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren eta Udalen artean finantzatuak behar izan ziren, baina Udalek hartu beharreko zama handia zela eta (gogoratu behar dugu krisi egoera batean zeudela), azkenean, 1936.ean aurreikusitako 100 eskoletatik 20 bakarrik egin ziren Gipuzkoan (ikusiko dugun moduan, Francoren erregimenak plan hau bertan-behera utzi zuen eta gainera egindako eskolak Estatuak bereganatzea agindu zuen).

Eraikuntza bukatu zuen eskoletako bat, gure herriko aipatutako eskola izan zen, Arriaran auzoan. Eskola hau egiteko lanak 1932an hasi ziren, eta azkenik 1934.eko apirilaren 13an inauguratu ziren, osora 49.168ko gainkostua izan zutelarik⁵⁶². Honez gain, Martina Maiz kalean 1934.ean eskola berriak eraikitzen bukatu ziren, zeinak herrian ezkerren eta eskuinaren artean polemika bat zabaldu zuten, eskola hauek publikoak edota erlijiosoak izan behar ote zirenaren inguruan (Errepublika garaian

⁵⁵⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

⁵⁵⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

⁵⁵⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentua.

⁵⁵⁹ Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 3278-1 dokumentu-sorta.

⁵⁶⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.

⁵⁶¹ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

⁵⁶² Arriarango eskolari buruzko datuak: Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1455/1971 dokumentu-sorta eta Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 4278 dokumentu-sorta. Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 3.256. karpeta, 20. dokumentua.

eskola hauen publikoak izan ziren, eta umeen gela batzuk hara eramane zituzten, baina Francoren erregimenarekin bat eskola hauek erlijiosoak izatera pasa ziren)⁵⁶³. Gainera, 1932.ean Donostiako Institutuaren menpeko Arte Berezien Akademia zabaldu izan zen Beasainen⁵⁶⁴. Hori dela eta, Errepublika garaian Beasainen zegoen eskola sarean, Beasainen zeuden bi eskola publikoak (graduatuak 595 ikasle eta Martina Maizekoak 190 ikasle) Arriarango auzo-eskola, Astigarretako auzo-eskola⁵⁶⁵ eta Aratz-Matxinbentako auzo-eskola; hiru eskola pribatu, neskontzako *Nuestra Señora del Carmen* eskola 90 ikaslerekin, mutilentzako salesianoen Loinazko San Martin eskola 230 ikaslerekin, eta CAFen langileen semeentzako CAFeko eskola genituen; eta horrez gain, oinarrizko hezkuntzatik kanpo, Arte eta Ofizioen bi Eskola (Udalarena eta CAFena), Arte Berezien Akademia eta Musika Eskola genituen⁵⁶⁶.

Halere, honekin ez ziren bukatu Beasainen hezkuntza arloan izan zituen arazoak. Alde batetik, Garingo auzoan ez eskolarik ez bertako umei klaseak emateko irakaslerik ez zegoela eta, umeek Astigarretako eskolara joan behar izan ohi zuten, beraz, Udala behin bano gehiagotan saiatu izan zen auzo honek ere bere eskola bat izan zezan⁵⁶⁷. Bestetik, herri barruan, eskolen gain-okupazio bat bazegoen, batez ere 1934.a arte, Martina Maizeko eskolak egitea bukatu arte⁵⁶⁸. Bestalde, herriak jasaten zuen egoera larria zela eta, Pedro Lasa Segurola zinegotzi sozialistaren inizatibaz, 1933.ean eskoletan jangela sozialak jarri izan ziren⁵⁶⁹.

Beste afera bat, noski, eskolen laiktasunaren ingurukoa izan zen. 1932 eta 1933 urteetan nabariak izan ziren Elkarte Sozialistak zein Udaleko zinegotzi sozialistek Beasaingo eskola pribatu erlijiosoei Udal-laguntzak kentzeko eskaerak. Udalak, laguntzak murriztu zituen arren, sekula ez zituen kendu, eskola horietako umeak sare publikoan “hartzeko” tokirik ez zegoela argudiatuz (esan beharra dago Martina Maiz

⁵⁶³ Eskola hauei buruzko informazioa: ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 94-96. or; Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A132 karpeta, 10. dokumentua.

⁵⁶⁴ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 94-95. or.

⁵⁶⁵ Astigarretako auzo-eskolaren inguruan, orduko emakumeen aurkako aurreiritzien adibide bat eman zen, 1935.ean bertako bizilagunek eskolako irakasle moduan Teresa Recondo onartzen ez zutela eta trukean gizonetzko irakasle bat ekartzea eskatu baitzuten. Beasaingo Udal Artxiboa. 066. karpeta, 14. dokumentua.

⁵⁶⁶ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 95-96. or.

⁵⁶⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 43. Dokumentua, eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

⁵⁶⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

⁵⁶⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. Dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

2. kapitulua

kaleko lokalak 1935. urtera arte ez zirela bukatu). Hala ere, Victor Bernedo Zubiaurre 1936an alkate jartzean laikotasunaren aldeko borroka gogortu egin zuen: Udal-eskoletan, haur-eskolan erlijio-eskolak ematearen aurkako mozioa onartuko zuen Udalak (ordura arte, erlijiosoek haur-eskolako eskolak ematen zituzten eskola publikoan)⁵⁷⁰. 1936an Severiano Azpeitia alkateordea eta Victor Bernedo alkatea Donostiara joan ziren Aldundikoekin biltzera eta Garinen eskola egiteko proiektua zehaztera. Nahiz eta proiektua bideratu samartua izan (eskola eraiki artean, irakasle postu bat sortzeko eta bitartean han zegoen apaiza eskolatik kanporatzeko konpromisoa hartua zen) batzarraren ostean, denok dakigu 1936ko gudak ez zuela eskola berriaren egitasmo hori aurrera eramaten utzi⁵⁷¹.

Beasainek orduan zuen arazo kroniko batek Errepublika garaian ere bere buruhaustek eman zituen. Hain zuzen ere, uraren arazoaz ari gara. Garai hauetan, ur-horniketa bermatua zegoen herritar guztientzat (eta baita argi-indarra, hala adierazi zion Udalak Foru Aldundiari 1934.eko uztailen)⁵⁷², baina egoera horretara iristeko zenbait lan egin behar izan zen: 1931.eko uztailen uraren ekarketa Igartzatik Antzizar auzora hedatu zuten⁵⁷³, eta 1934.eko otsailen Zazpiburrietako ur harrera handitzea erabaki zuen Udalak. Hala ere, urarekin izan ziren arazo handiena, ez ziren faltagatik izan, baizik eta 1933.eko ekainean izan ziren uholdeek ekarri zuten, zeintzuek kalte batzuk sortu zituzten bai Beasaingo herrigunean zein Aratz-Matxinbenta auzoan⁵⁷⁴, Gipuzkoako Aldundiaren arabera, 750.000 pezetan estimatutako kalteak eraginez⁵⁷⁵.

Honekin lotuta, hirigintzaren arazoa dugu. Errepublikaren garaian, Beasainen lan txiki batzuk egin ziren –auzoetarako errepideak, baldosak jartzea, Jose Migel Iturriotz kalea (gaurko Andra Mari) zabaltzea, Martina Maiz kalea zabaltzea, egun Gipuzkoa Plaza dena egitea eta abar- herriaren itxura hobetzeko, eta bide batez, langabeei lan pixka bat emateko asmoz. Azken honi dagokionez, 1934.ean Pedro Lasa eta Doroteo Aguado zinegotzi sozialistak mozio bat aurkeztu zuten hainbat proiektu egin zitezten: Lazkaorako zubi bat egitea eta Antzizarreko treneko pasabidea kentzea, halere, eurek proposatu zuten frontoi berriaren proiektua ez zen aurrera atera (bai ordea frontoia

⁵⁷⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 252. karpeta, 21. dokumentua.

⁵⁷¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

⁵⁷² Beasaingo Udal Artxiboa. 3.186. karpeta, 40. dokumentua.

⁵⁷³ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.

⁵⁷⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 145. karpeta, 38. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

⁵⁷⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 145. karpeta, 38. dokumentua.

konpontzea eskatzen zuen emendakin bat)⁵⁷⁶. Mozio honez gain, lehen aipatutako Zazpitarrietako ur-ekarketa handitzea, Gantzarain edo Arriaranerako errepedeak egitea edo Lazkaorako bidean zegoen tren-pasabidea kentzea izan ziren langabeei enkargatutako lanak⁵⁷⁷. Honi, dagokionez, agian proiekturik handiena, Tren Konpainiaren langileentzako etxe berri bat eraikitzea (ordura arte zegoen “Karola Etxea” botaz) izan zen, proiektua adostua izan zen 1936.ean, baina altxamenduak proiektua gauzatzea galarazi zuen⁵⁷⁸.

Azkenik, garai honetan Beasainek izan zuen zerbitzu-aurrerapenik handiena, agian, batez ere herri-oroimenaren ikuspuntutik, asteko azokaren berreskurapena izan zen. 1927.ean Primo de Riveraren dekretu baten ondorioz (elkarrengandik 15 kilometro baino gutxiagora zeuden herrietan azokak egotea debekatzen zuena), Beasaingo azoka bertan behera geratu zen, bai Errepublikak 1935.ean dekretu hori ezabatu egin zuen⁵⁷⁹. Halere, badugu azoka hau lehendik egiten zenaren ustea, ezen 1933.eko maiatzeko Udal-Bilkura batean Serafin Arana zinegotzi errepublikanoak merkatu-eguna larunbatetik asteartera pasatzea proposatu zuen⁵⁸⁰. Asteartean edo larunbatean egitearen gaia ez zen gauza ezdeusa, izan ere, Ordizian azoka asteazkenetan zenez gero, ordiziarrek ez zuten begi onez ikusten Beasainen azoka egun bat lehenago jartzea eta hori dela eta, Beasaingo merkatua legeztatuz gero, larunbatean izan zedin eskatzen zuten. Adibidez, *Diario Vasco* egunkarian agertu zen, Beasaingo Udalaren 1935.eko abenduaren 11ko erabakia, merkatu-eguna asteartetan finkatzen zuena (1935eko abenduaren 24an izan zen azokaren itzulera eguna), “legez kanpoko zena” eta “Beasaingo udala Gobernadorearekiko errebellian ezartzen zuela”⁵⁸¹. Hala ere, 1936.ean Beasaingo merkatu eguna asteartea izango zela baieztatua izan zen⁵⁸². Azokarekin batera, elikadurarekin zerikusia zuen beste zerbitzu batek hobera egin zuen Beasainen, hiltegiak hain zuten ere: 1930.ean ireki zen hiltegia, 1931.ean handitzeko erabakia hartu zuen Udalak⁵⁸³.

⁵⁷⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 2.138 karpeta, 33. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua

⁵⁷⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 061 karpeta, 20 dokumentua.

⁵⁷⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24. dokumentua.

⁵⁷⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.

⁵⁸⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

⁵⁸¹ *El Diario Vasco*, 1936-I-28koa.

⁵⁸² GOZALO, J.: “Ekonomia komunikazioak eta merkataritza-jarduera” in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain: Udalerrri gipuzkoar baten historia*. Beasaingo Udala. Beasain, 1987, 114. or.; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: op. cit., 84-85. or.

⁵⁸³ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua. Dokumentu hori 1933koa da.

2. kapitulua

Honi buruz ari garela, prezioen inguruan hitz egitera behartuta gaude. Kontuan izanik garai horretan langile baten eguneko soldata 9 eta 12 pezeta artekoa zela, janariaren prezioa ez zen batere merkea. Pedro Barrusoren arabera, hilean familia batek 1931ean 23,7 pezeta, 1933ko irailean 20,5 pezeta eta 1936an 19 pezeta gastatzen zuen janaritan⁵⁸⁴. Egoerak pixkanaka hobera egin bazuen ere, (soldatak nolabait igo egin ziren, eta janaria merkatu), janariak oro har irabazien parte bat hartzen zuen. Beasainen, merkatarien arabera, prezioak Ordizian edo Tolosan baino merkeagoak ziren⁵⁸⁵. Gipuzkoako prezio orokorrak hartuz, adibidez, Errepublika garaian Gipuzkoan ogi kiloak 0,65 pezeta balio zituen, txitxirio kiloak 1,2 eta 1,7 artean, arroz kiloak pezeta inguru, arraultza dozenak 3 eta 4 pezeta artean, eta haragiak 3 eta 3,5 kilo artean⁵⁸⁶.

Kontuan izan behar dugu baita, Errepublikaren garaian, Beasainek beste arlo batean ere aurrera egin zuela, medikuntzarenean. Garai horietan herrian zeuden lau medikuekin (hiru “publikoak” ziren eta bat CAFena), bi erizainekin, bi praktikanterekin eta larrialdietarako talde berezi batekin, XIX-XX mende bitarteko estualdiak joanak izan ziren. Gainera, 1935.ean Arangoitiko ospitalea (jada 40 ohe zituen) handitzeko erabakia hartu zuten. 1935.ean Udalak beste pausu bat eman zuen, Arriaran, Astigarreta eta Garin auzoei, medikuntza-estaldura pixka bat ematea erabaki zuen, erizain bat kontratatuz⁵⁸⁷.

Errepublika garaian ere, telefonoen zerbitzua bueltatu zen Beasaina, izan ere, 1932.eko ekainean, Beasainek lehen mailako estazio bat izateko eskubidea berreskuratu zuen (diktaduraren garaia azpizentrala itxi egin zen). Zerbitzu honen berreskurapenean Enrique De Francsco diputatu tolosarraren bitartekaritza lana erabakigarria izan zen⁵⁸⁸.

Ordena publikoari zegokionez, 1934.eko azaroan, Manuel Perezek zuzendutako Udal eskuindarrak Goardia Zibilaren koartela handitzeko proposamena egin zuen, aurretik Gipuzkoako Ekoizleen Ligak Gipuzkoa osoan koartelak handitzeko egindako iradokizun bati jarraiki (ziurrenik erabaki horretan Urriko Iraultzaren eragina izan zen). Perezen Udalak 20 goardientzako zuzkidura proposatzen zuen⁵⁸⁹. Hala ere, 1935.ean Gipuzkoako Goardia Zibilak esan zuen nahiago zuela herri gehiagotan koartelak

⁵⁸⁴ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 60-67. or.

⁵⁸⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 75. dokumentua.

⁵⁸⁶ BARRUSO BARES, Pedro: op. cit., 60-67. or.

⁵⁸⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

⁵⁸⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

⁵⁸⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

zabaldu jada zeudenak handitzea baino, beraz, proiektua bertan behera geratu zen⁵⁹⁰ (gogoratu behar da 1934.eko abuztuko gertaeretan Goardia Zibila izan zela orduko Urteaga alkatea epailearen aurrera eraman zuena, beraz herrian ezinezona sor zezakeen goardia zibil gehiago ekartzeak). Hala ere, azaroan, koartelak gutxieneko baldintzak betetzen ez zituela eta, fisikoki (dotazio berririk ekarri gabe) handitzea proposatu zuen Udalak, Goardia Zibilak hori egin ezean Beasaingo postua utzi egingo zuela esan ziola eta. Proiektu hori 1936.ean Beasainen ezkerre berriz indarrean jartzean bertan behera geratu zen⁵⁹¹.

Beasaingo elkarte-bizitzari dagokionez, Errepublika garaian bi elkarte berri sortu ziren gure herrian: bata *Aitz-zorrotz* ehiza elkarte⁵⁹², eta bestea, arabar jatorriko jendea biltzen zuen *Colonia Alavesa* deitutakoa (zeinak erakusten duen zein izan zen agarain horietan Beasainen immigrazioak zuen pisua, bere baitako elkarteak sortzeko gai baitzen)⁵⁹³. Beasainen aisialdiak garai honetan aurrerapausu bat eman zuen, zinema baten eraikuntzarekin. Zinema ustiatzeko kontratua Irungo Comas enpresarekin egin zuen Udala, 1934.ean, jada herrian eginda zegoen lokal bat horretara bideratuz⁵⁹⁴.

Bestalde, Beasainen aurretik zeuden elkarteek funtzionatzen jarraitu zuten, bai aisialdi elkarteek (Beasaingo Joko Kasinoa Futbol Taldea, Beasaingo Burdinbideetako Joko Elkarte eta Usurbe Elkarte; lehen biak langile klaseko bazkideak hartzen zituztenak eta azkena erdi-klaseko bazkideak hartzen zituena), zein beharizanetarako elkarteek (Kooperatiba Herrikoa eta Langile Ekonomatoa). Elkarte hauei dagokionez, aipatzekoa da Burdinbideetako Joko Elkarteak 1935.ean bere hamabosgarren urteurrena ospatu zuela⁵⁹⁵.

2.7 1936ko hauteskundeak eta horiek Beasainen izan zuten eragina

1935. urtearen bukaerarako, Alderdi Erradikalaren eta *CEDA*ren Gobernuak hondoa jo zuen, batez ere bi arrazoiengatik: ustelkeria-kasu larriak izan zirelako eta

⁵⁹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.

⁵⁹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 988. karpeta, 01. dokumentua.

⁵⁹² ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarte herrikoiak*. (Beasaingo Paperak bilduma, 1. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 29. or.

⁵⁹³ Beasaingo Udal Artxiboa. 448. karpeta, 14. dokumentua.

⁵⁹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A132 karpeta, 12. dokumentua.

⁵⁹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 113. karpeta, 06. dokumentua. Elkarte honen popularitatea nahiko handia zen, batez ere bere ohitura liberal edo aurrerakoiak zirela eta; adibidez bere dantzaldiek jende asko erakartzeko gaitasuna zuten, alderdi eta kolore guztietakoak (Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarriketa. Donostian, 2015-XI-15ean).

2. kapitulua

1931-1933 biurtekoan egindako aurrerapen guztiak atzera itzularazten aritu zirelako. Hori zela-eta, Niceto Alcalá-Zamora 1935. bukaeran jada sinesgarritasunik gabeko Alderdi Erradikalaren eta *CEDA*ren Gobernu kargugabetu eta zentroko elementuek osatuta behin-behineko Gobernu berria indarrean jarri zuen. Gobernu horrek, 1936ko otsailerako hauteskunde-deia egin zuen.

Eskuineko Gobernuaren porroterako arrazoiak hainbat izan ziren, eta emaitza bezala Gobernu hau guztiz bakartua geratu zen. Gobernu honek egindako oker entzutetsuena, ustelkeriarena izan zen, Alejandro Lerroux lehen ministroa ere zikindu zituztelarik⁵⁹⁶.

Bestetik Gobernuak ere ez zuen aliatuak lortzerik izan. Langile klasearekin, azaldu dugun bezala oso etsaitua zegoen, baita ere nekazariekin (Nekazal Erreforma desitxuratzen zituen hainbat lege atera zituen, adibidez maizterren desetxeratzea errazten zuena)⁵⁹⁷, langileekin (Arartekaritza Mistoak baliorik gabe uztearren eta 1934.eko urrian “gehiegizko grebak” debekatzearren; eta horrez gain, 1934.eko Urriko Iraultzako errepresioagatik), burgesia moderatuarekin (1932.eko Estatu-kolpea eman zutenen amnistia dekretatzearren eta politika laikoa itzularazten saiatzearren) eta baita katalan zein euskal nazionalistekin (Autonomi Estatutuak blokeatzearren edo edukiz husten saiatzearren). Azkenik, Alderdi Erradikalaren eta *CEDA*ren arteko desadostasun programatikoak handitu egin ziren, batez ere *CEDA*ko buruak Jose Maria Gil Roblesek Gobernuburu postua nahi zuelako eta batez ere 1931.eko Konstituzioa aldatu nahi zuelako; beraz II Errepublika beste erregimen bategatik –“Estatu Berriagatik”- aldatu nahi zuten.

*CEDA*ko, esan bezala, erregimen autoritario bat ezarri nahi zuen, 1931-1933 biurteko politika “zuzentzeko”, eta pixkanaka, faxismorantz hurbiltzen hasi zen, batez ere bere gazte-erakundearen bidez⁵⁹⁸ erretorikoki eta estetikoki bederen (adibidez

⁵⁹⁶ Halako kasu batean egin zen ezagun “estraperlo” terminoa: Gobernuak baimendutako erruleta mota bati egiten zion erreferentzia hasieran, erruleta mota horren asmatzaileen izenak aintzat hartuz (Strauss eta Perlowitz); baina geroago, frankismo-garaian, merkatu beltza izendatzeko erabili zen hitz hori berbera.

⁵⁹⁷ Aipatu beharra dago, paradoxikoki, Gobernu honen garaian nekazaritzarekiko garairik bareena 1934.eko urrian *CEDA* Gobernuan sartu zenean, eta Nekazaritzarako Ministeritzan *CEDA*ko Manuel Gimenez Fernandezek Alderdi Erradikaleko Cirilo Del Rio ordeztu zuenean izan zen. Gimenez Fernandezek, nolabait, nekazal-erreforma 1931-33eko Gobernuaren izpiritua mantentzen saiatu zen (eta eskuineko prentsak “ezkertiar infiltratu” bezala tratatu zuen). 1935.eko maiatzean, *CEDA*ko Nicasio Velayosengatik ordeztu zuen.

⁵⁹⁸ JAPEN bilakaerari, antolamenduari eta ideologiari buruz, MONTERO, Jose R.: *La CEDA. El catolicismo social y político en la II República* (I lib.). Ediciones de la Revista de Trabajo. Madril, 1977,

Engelbert Dollfuss austriar lehen ministro faxista CEDAren eredu bihurtu zen)⁵⁹⁹. Halako adierazpen ideologikoei, bere aliatu zentro-eskuineko errepublikanoen (tartean Errepublikako lehendakari Niceto Alcalá-Zamora) deserosotasuna handitu egin zuten.

Bitartean, ezkerreko oposizioa antolatzen hasi zen. Alde batetik, zentro-ezkerreko alderdi errepublikanoen arteko biltze prozesu bat izan zen; Azañaren *Acción Republicana* alderdia beste alderdi batzuekin bat egin ondoren *Izquierda Republicana* alderdia sortu zen. Bestetik, Diego Martínez Barrio Alderdi Erradikaleko kide ohiak, Lerroux-en eskubirako biraketarekin ados ez zegoela eta, *Unión Republicana* alderdia sortu zuen. Bi alderdiek 1935ean hauteskundeetara batera joateko hitzarmena sinatu zuten. Bestetik, Alderdi Komunistan, 1934.ean zantzuak hartu zituen taktikak, beste alderdiekin elkarlanean aritzekoak, 1935.ean berretsi egin zen, Internazional Komunistak egindako Kongresuan “fronte antifaxistak” eratzea erabaki zuenean. Egia esan, aurreko urteetan, Alderdi Komunista beste langile indarrei hurbiltzen hasi zitzaien,

582-656. or. JAPen manifestu eta Estatutuak: MONTERO, Jose R.: *La CEDA. El catolicismo social y político en la II República* (II lib.). Ediciones de la Revista de Trabajo. Madril, 1977, 639-643. or. Monteroren JAPi buruzko ondorio nagusiak bi dira: CEDAn faxismoaren hurbilekoena zen taldea zela, eta baita alderdian eragin handia zuela, alderdiaren atal ideologizatuena zelako.

⁵⁹⁹ CEDAren faxismoarekiko sinpatia hori zein puntutaraino zen erretorikoa edo miresmen soila (1930.eko hamarkadan europar eskuinaren parte handi batek elkarbanatzen zuten faxismoarekiko miresmena “ordenaren zaintzaile” edota “iraultzaren kontrako hesi” gisa) eta zenbateraino zen asimilazio ideologikoa, historiagileen arteko eztabaida luzea sorrarazi duen afera da, eta guk ez dugu hemen horretan sakontzeko tokirik. Hala ere esan behar da, CEDAren ideologiaren eta faxismoaren artean antzekotasun handiak izan zirela. Ikus, adibidez, GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Contrarrevolucionarios...* op. cit., 174-183. eta 285--289. or.; edo MONTERO, Jose R.: *La CEDA. El catolicismo social y político en la II República* (II lib.), op. cit., 5-37. eta 241-267. or. (255. orrialdean, CEDAren hurbileko prentsak Gil Robles “espainiar Dollfuss” deitzen ziolakoaren erreferentzia). Beste lan batean, ordea, Eduardo Gonzalez Callejak CEDAko buru Gil Robles Dollfussekin bano Greziako Tsaldarisekin erkatzen du, honek hauteskunde garaipenaren bidez Greziara monarkiaren berrezaruntza eta Estatu-autoritarioa ekarri baitzuten: GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: “José María Gil Robles: ¿Quién soy yo?” in QUIROGA FERNANDEZ DE SOTO, Alejandro eta DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel (ed.): *Soldados de Dios y Apóstoles de la Patria. Las derechas españolas en la Europa de entreguerras* (304-329. or.). Comares Historia. Granada, 2010. CEDAren irudi positiboago bat ematen du Manuel Alvarez Tardio, bere artikuluetan: honen ustez CEDA Gobernuaren eraso laizistei emaniko erantzun bat izan zen, alderdia “ez zen antierrepublikanoa (...) baizik eta hori historiografiaren aurritzi bat besterik ez da” eta Errepublikarekiko mesfidantza, ezkerreko Errepublika patrimonializatu eta CEDA kanpoan utzi nahi zuelako izan zen, CEDAren tentazio autoritarioak ez ziren pisu handikoak, alderdi demokratizatzen baitu eta Estatu Berriari buruzko hizketa maila teorikoan soilik eman zela baitio, eta ezkerreko alderdi honetako kideak jazarri egiten zuela dio (Alvarez Tardioren arabera, Errepublika garaiko bortizkeriaren erantzule nagusia ezkerreko alderdia zen). ALVAREZ TARDIO, Manuel: “La CEDA y la encrucijada de los conservadores católicos en los años treinta” in CAÑELLAS, Antonio (ed.): *Conservadores y tradicionalistas en la España del siglo XX* (37-71. or.). Ediciones Trea. Gijón, 2013. CEDA (JAP barne) faxismoarengandik disoziatzeko, eta honen “moderazioa” aldarrikatzeko saiakera bat, hemen: GONZALEZ CUEVAS, Pedro Carlos: op. cit., 133-144. or. Azkenik, interesgarria da baita ere Paul Prestonen iritzia, zeina CEDAren “moderazio” eta “integrazio” edota “antisektarismo” mitoaren ibilbide historiografikoa berreraikitzen duen, eta CEDA, boterea izan zuenean, politika arras sektarioa burutu zuela salatzen duen: PRESTON, Paul: op. cit., 111-124. or.

2. kapitulua

baina kasu honetan errepublikano burgesekin bat egiteko atea ere zabaldu zuten; eta bestetik “fronteak” eratze horrek are izaera premiazoagoa hartu zuen, “gomendio” bat baino gehiago izatera pasa zen⁶⁰⁰. Ezkerreko alderdiak elkarri hurbiltzen zebiltzaten eta Herri Frontearen oinarriak jarriak zeuden.

Errepublikanoen aldetik batera joateak, eta komunisten aldetik ezkerreko indarrak batu nahi izateak, 1936ko urtarrilaren 15an Herri Frontearen (*Frente Popular*) ituna sinatzea ekarri zuen. Koalizio hori osatzea ere oso onuragarria izan zen Alderdi Sozialistarentzat, orduan Indalecio Prietoren ildo moderatuaren eta Francisco Largo Caballeroren ildo erradikalaren arteko barne-tentsioak puri-purian baitzeuden: lehenak alderdi errepublikanoekin bat egin nahi zuen⁶⁰¹, baina bigarrenak (1933-1934tik aurrera ezkerreko biraketa pertsonala izan zuenak) Alderdi Komunistarekin batzea nahi zuen. Bi multzoak batera joateak, Alderdi Sozialistari erraztu zion erabakimena⁶⁰². Beraz, 1936ko urtarrilaren 15ean, Herri Fronteak eratzeaz gain, 13 puntuko gutxieneko programa bat aurkeztu zuen: programa hori iraultzailea baino gehiago erreforma-zalea izan zen eta batez ere ezkerreko errepublikanoen programa bildu zuen: 1931ko erreformismoa berriz indarrean jartzea, gizarte-gaietako legeria berreskuratzea (eta ez ekoizpenaren gaineko langile-kontrola) lurra “birbanatzea” (eta ez nazionalizatzea), “eskualdeen” autonomia (eta ez autodeterminazioa)⁶⁰³, zergen banaketa zuzenagoa, zergen birbanaketa justuagoa (eta ez inolako nazionalizazioa, ezta Banketxeena ere, hasieran hala pentsatua bazen ere, eta orduan European Banketxeak nazionalizatzea iraultzailatzat hartua ez bazen ere)⁶⁰⁴, etxegabetzeak gelditzea eta “Errepublika

⁶⁰⁰ MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA: op. cit., 77-79., 82. eta 90. or.

⁶⁰¹ Jose Carlos Gibaja historiagilearen arabera, 1935.eko apiriletik zuen postura hori Prietok. GIBAJA VELAZQUEZ, Jose Carlos: *Indalecio Prieto y el socialismo español*. Pablo Iglesias argitaletxea. Madril, 1995, 71. or.

⁶⁰² Fernando Hernandezen zein Jose Luis Martin Ramosen arabera, komunistek eskuzabaltasun handiz jokatu zuten negoziazioetan, errepublikanoek programa eratzeko elkarrizketetatik at ere utzi nahi zituzten eta. HERNANDEZ SANCHEZ, Fernando: *Guerra o Revolución. El Partido Comunista de España en la guerra civil*. Critica. Bartzelona, 2010, 70. or.; eta MARTIN RAMOS, Jose Luis: *El Frente Popular. Victoria y derrota de la democracia en España*. Pasado & Presente. Bartzelona, 2015, 134. or. Errepublikanoek aldea ikertzen duen lan baten hau baieztatzen du: AVILES FARRE, Juan: *La izquierda burguesa y la tragedia de la II República*. Madrilgo Erkidego Autonomia. Madril, 2006, 383. or. Hala ere, ikusiko dugun moduan, Prieto-Caballero deman, Herri Frontearen osaketa “menia” bat izan zen, ez “bakea”.

⁶⁰³ Martin Ramosen arabera, PCEk autodeterminazioa programaren parte izan zedin defendatu zuen, baina PSOEek atzera bota zuen eskakizun hau: MARTIN RAMOS, Jose Luis: op. cit., 136. or.

⁶⁰⁴ Herri Frontearen programa, hautagaitzak eta bien osaketari buruzko informazio gehiagorako, ikus: Ibid., 133-140. or. Konkretuki, Banketxeen nazionalizazioa, sozialistek eta komunistek adostutako aurreproiektu batean agertzen zen, non beste nazionalizazio guztiak baztertzaren ziren. Gerora, errepublikanoek hau ere baztertzeari erabaki zuten. Jose Carlos Velazquezen arabera, baztertzeari honetan, Prietok izan zuen zerikusia. Velazquezen arabera, Alderdi Sozialistan orduan Largo Caballeroren aldekoak ziren nagusi, eta eurek erabaki zuten Alderdi Komunistarekin aipatutako aurreproiektua adostea.

demokratikoa, hiritar guztiena izatea eta ez klase batena” defendatzen zen (hots, langileen Errepublikari uko egiten zitzaion). Akordio hori, ezkerreko bi partidu errepublikanoek (*Izquierda Republicanak* eta *Union Republicanak*), PSOEk, UGTk, Gazteria Sozialistak, Alderdi Komunistak, eta beste ezker muturreko alderdi txiki bik; *Partido Obrero de Unificacion Marxista* eta *Partido Sindicalista*⁶⁰⁵ alderdiek sinatu zuten. CNT sindikatu anarkistak ez zuen itun hori sinatu (bere Estatutuen kontra zihoan hauteskundeetan parte hartzea), eta asko idatzi izan da oinarrizko kide anarkistek hauteskunde hauekiko izan zuten jarreraz, eztabaida historiografikoa piztu izan duelarik⁶⁰⁶. Hurrengo egunetan, tokiko alderdi abertzaleei tokia egiteko tokiko itunak sinatu ziren, adibidez, otsailaren 4an Katalunian ezkerreko katalan abertzaleak (Kataluniako alderdi nagusia) batzeko ituna sinatu zen. Herri Frontearen zerrendak erabakitze orduan, hainbat tira-birarekin, azkenean programarekin gertatu zena errepikatu zen: hegemonia errepublikanoena izan zen, hautagaitzak sortzeko ardura

Ikus GIBAJA VELAZQUEZ, Jose Carlos: op. cit., 72-73. eta 77-78 or. Joan Estruchen arabera, komunistekiko oso kritikoa den lan batean, Herri Frontearen programa moderatua komunisten inposaketa bat izan zen, sozialisten programa erradikala apaltzen buru-belarri saiatu omen baitziren. Estruchen arabera, komunisten politika SESBk inposatzen zuen, eta praktikan “errepublikanoen politika burgesa” sendotzea ekarri zuen “Masek eskatzen zuten iraultza sozialaren eskakizuna balaztatuz”. ESTRUCH, Joan: *Historia del P.C.E. (I) (1920-1939)*. El Viejo Topo. Sant Adrià del Besòs (Bartzelona), 1978, 90-95. or. Bestelako ikuskera bat ematen digu, Rafael Cruzek, honen arabera, Alderdi Komunistaren fronte antifaxistarekiko eratze prozesua, eta beste indarrekiko, batez ere Alderdi Sozialistarekiko hurbiltzen prozesua, Espainian bertan hasi zen 1935.eko hasieran, Internazional Komunistak 1935.eko udan Herri Fronteen politika bere egin aurrerik. CRUZ, Rafael: *El Partido Comunista de España en la II República*. Alianza Universidad. Madril, 1987, 217-236. or. Azken honen ikuspuntua babesten du, adibidez, Fernando Hernandezek, bere ustez, Alderdi Komunistaren politika berriari zerikusirik handiagoa izan zuen 1934.eko iraultzaren porrotak SESBen edo Internazional Komunistaren gomendioek baino: HERNANDEZ SANCHEZ, Fernando: op. cit., 66-68. or.

⁶⁰⁵ POUM alderdia troskismotik gertu zegoen alderdia zen, bere burua marxistatzen zuen, baina SESBekiko eta haren lider Stalinekiko aurkakotasun gogorra erakutsi zuen. Alderdi Sindikalista CNTren banaketa posibilibatetik jaiotako alderdia zen.

⁶⁰⁶ Roberto Villa historiagilearen arabera, 1936.eko kanpaina zuzendari anarkistek eta prentsa anarkistak egindako adierazpenak jarraituz, anarkistek Herri Frontearen kontrako oso jarrera gogorra izan zutela defendatzen du, eta historiografia nagusiaren kontra, ez zela Herri Frontearekiko inolako meniarik edo hurbiltzaririk izan: VILLA GARCIA, Roberto: “Obreros no votéis. La CNT y el Frente Popular en las elecciones de 1936” in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea* aldizkaria, 13. zkia. (173-196. or.), 2014. Santos Juliaren arabera, CNTk kanpaina abstentzionista egin zuen, baina doinu leunean, “1933.eko doinu oldarkorra erabili gabe. JULIA, Santos: *La izquierda del PSOE (1935-1936)*. Siglo XXI. Madril, 1977, 230-236. or. Hala ere, parte batean, CNTren oinarrizko kideek, beste hauteskundeetan baino abstentziorako joera txikiagoa izan zutenaz espekulatu izan da (Villa berak onartzen du CNT bezalako masa-erakunde deszentralizatu batean kideek eta are tokiko edo arlo zehatzetako erakundeek beren aldetik jokatzeko posible zela). Hipotesi hori, adibidez Jose Luis Martinek defendatzen du: MARTIN RAMOS, Jose Luis: op. cit., 141. or. Aviles Farre urrutiajoa eta CNTko kideen “garaipenari egindako ekarpena” “garrantzitsua” zela dio: AVILES FARRE, Juan: op. cit., 389. or. Anarkismotik, Juan Pablo Calerok erdibideko interpretazio bat ematen digu: CNTk ezkerrearen alde bozkatzeraz zihoan kidearen jarrera “ulertu” zuen, baina horrek ez du esan nahi Herri Frontearen alde egin zuenik, ezta ere CNTko oinarri osoa bozkatzeraz joan zenik. CALERO, Juan Pablo: “Vísperas de revolución. El Congreso de la CNT (1936)” in *Germinal* aldizkaria, 7. zkia. (97-132. or.), 2000, 98-100. or.

2. kapitulua

batez ere Azañaren esku geratu baitzen⁶⁰⁷. Gipuzkoan, Herri Frontearen aliantza zazpi egun beranduago sinatu zuten alderdi ezberdinek, sinatzaileak, Gipuzkoan presentzia zuten alderdiak izan ziren: *Izquierda Republicana*, *Unión Republicana*, Alderdi Sozialista, Alderdi Komunista, UGT, Gazteria Sozialista, Eusko Abertzale Ekintza eta *Ezkerra Vasca Federal* deitutako alderdia (alderdi hori Fernando Sasiain Donostiako alkatearen jarraitzailek osatutako alderdia izan zen eta bere presentzia Donostiara mugatu zen).

Horren aurrean, eskuineko liderrek, eta batez ere *CEDA*ko buru Jose Maria Gil Roblesek, “Fronte Nazional Kontrairaultzailea” deitutako koalizio bat osatzeko deia egin zuten, eskuineko indar guztiak “Espainiaren defentsan” eta “erlijioaren defentsan”, “Iraultzari aurre egiteko” biltzarren. Hala ere, eskuineko koalizioa ez zen izan Herri Frontea bezain bateratua eta koordinatua: probintzia gutxitan lortu zuen eskuineko indar guztien koalizioa egitea, izan ere, batzuetan eskuin muturreko monarkikoekin eta karlistekin eta beste batzuetan zentro-eskuineko errepublikanoekin joan baitzen. *CEDA*ren helburua beste erregimen bat ezartzea zen, 1931koa aldatuz; baina bazekien helburu hori lortzeko lehenik ezkerra garaitu behar zuela, eta horretarako, toki batzuetan, helburu hori ez zuten indarrekin ere (zentro-eskuineko alderdiekin) bat egin beharra zeukala. Beraz, nahiz eta *CEDA*k argi izan bere helburua Konstituzioa aldatzea zela (helburu horretan eskuin muturrak, monarkikoek eta karlistek bat egiten zuten), hauteskundeak konstituziogile gisa hartuz, baina helburu hori hain argi azaldu gabe, “iraultzarekiko aurkakotasuna” saldu zuen. Beste alde batetik, orduko behin-behineko Manuel Portelaren Gobernua saiatu zen “zentroko” aukera bat gorpuzten, sinesgarritasuna galdu zuen Alderdi Erradikalaren lekua betetzeko.

Panorama hori izan zen 1936ko otsailaren 16ko hauteskundeak egin zirenean. Ezkerreko eta eskuineko blokeak erabat elkarren aurka jarrita zeuden, batez ere 1934ko urriko iraultzaren ostean, izan ere, eskuinekoak “Aberriaren zaintzaile” edo “ordenaren bermatzaile” gisa euren konfiantza “Armada” (Armada izan baitzen iraultza zapaldu zuena) jarria baitzuten, erakunde demokratikoetan jarri ordez. Eta ez hori bakarrik, 1931ko apirilean II. Errepublikak izan zuen adostasun handia jada desagertua zen, bi

⁶⁰⁷ Eta ondorioz, sozialista batzuek, batez ere Largo Caballeroren aldekoek, “iruzurra” salatu zuten, errepublikanoek diputatuak “gure sakrifizioen kontura” lortu zutela esanez. DE BLAS GUERRERO, Andres: *El socialismo radical en la II República*. Tucur. Madril, 1978, 154-155. or. Ikus baita: AVILES FARRE, Juan: op. cit., 385. or. Javier Tusellen arabera, hautagaien %56 errepublikanoa izan zen, eta %44 langile erakundeetakoak. TUSELL GOMEZ, Javier: *Las elecciones del Frente Popular* (2 lib.). Edicusa, Madril, 1971, II lib., 157-158. or.

blokeek marko hori gaindituztat jotzen zutelako: ezkerak, Herri Frontearen programan 1931ko erreformak aipatu arren, erreformetan sakondu nahi zuen (edo komunisten eta sozialista batzuen kasuan errepublika sozialista baterantz abiatu) eta eskuinak erregimen autoritario bat ezarri nahi zuen. Hauteskunde horiek, nolabait 1931ko apirileko hauteskundeekin antzekotasun bat izan zuten: erreferendum bezala deituak izan zirela.

Gipuzkoan, hiru hautagaitza aurkeztu ziren. Esan bezala, Herri Fronteak urtarrilaren 22an aurkeztu zuen bere Gipuzkoako ituna. Hala ere, hautagaitza osatzeko orduan zailtasun batzuk agertu ziren. Lau hautagaiz osatutako zerrendan, bi errepublikano, sozialista bat eta komunista bat aurkeztea erabaki zuten, hautagaitzaren oreka ideologikoa mantentzeko; baina logikoa zirudien hautaketa horrek ika-mika batzuk eragin zituen. Alde batetik, EA Eren hautagairik ez hartzeak tirabira batzuk eragin zituen, alderdi horren barruan nolabaiteko deserosotasuna sortu zuelako, nahiz eta tirabirok alderdi abertzaleak bere babesa erretiratzea ekarri ez. Bestetik, alderdi errepublikanoek babesa eman zuten arren, ez ziren izan Gipuzkoan hautagaiak bilatzeko gai eta hautagai izateko gai ziren pertsonen artean (Gipuzkoako errepublikanoen arteko zuzendarien edota pertsona ezagunen artean), izan ere, inork ez baitzuen bere izena komunistekin batera zerrenda batean ikusi nahi. Beraz gipuzkoarrak ez ziren hautagaiak aukeratu behar izan zituzten: Mariano Anso nafarra, 1931n Nafarroatik diputatu izan zena eta euskal autonomiaren aldeko porrokatua eta Luis Apraiz gasteiztarra⁶⁰⁸. Sozialistek Miguel Amilibia Machimbarrena donostiarra aukeratu zuten, orduan behin-behinean Gipuzkoako Aurrezki Kutxako zuzendari zena, 1936ko gudan Gipuzkoako Defentsa Batzordeko lehendakari izango zena eta 1935eko epaiketan langile beasaindarrak defendatu zituen Eustasio Amilibia abokatuaren anaia⁶⁰⁹. Komunistek Jesus Larrañaga goierritarra hautatu zuten; Jose Antonio Egidoren arabera, aukera honetan Euzkadiko Partidu Komunistaren Komite Zentralak pisu erabakigarria izan zuen, hasieran Espainiako Alderdi Komunistak Juan Astigarribia nahiago zuen eta. Larrañaga aukeratzeko arrazoiak “masen artean duen izen handia” zen, “masa nazionalistek “Goierriengan” askkapen naizonalera eramango duten liderra ikusten dute”⁶¹⁰.

⁶⁰⁸ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 517. or.

⁶⁰⁹ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 80. or.; eta RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 518. or.

⁶¹⁰ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 80. or

2. kapitulua

Eskuinak Gipuzkoan 1933ko partaide berak izan zituen: gipuzkoar eskuinean erabat hegemonikoa eta nagusi zen Alderdi Karlista, *Union Regionalista Guipuzcoana* monarkikoa eta *Derecha Vasca Autonoma*, estatuko CEDAren adarra. Oraingoan, eskuineko hautagaitzaren izena Koalizio Kontrairaultzailea (*Coalición Contrarrevolucionaria*) izan zen; eta 1933ko hauteskudeekiko beste aldaketa bat CEDAko hautagai bat aurkeztea izan zen. Hautagai hori Juan Pablo Lojendio Irure abokatu eta diplomatikoa zen⁶¹¹. Beraz, karlistek, bi hautagai bakarrik aurkeztu zituzten, Antonio Paguaga (1933an ere hautagai izan zena) eta Ricardo Oreja, 1934ko iraultzan hil zen Marcelino Orejaren anaia (izendapen horren bitartez, sentimenduzko botoak jaso nahi zituzten). URGk, 1933an aurkeztutako Ramiro Maeztu berriz aurkeztea oso zaila zela ikusita (karlisten inguruan utzi zuen oroimen txarrarengatik), Donostiako abokatuen dekanoa zen Jose Mugica aurkeztu zuen⁶¹². Beraz, errepublikaren aurkako eskuin indarrak soilik aurkeztu ziren: Alderdi Erradikalak uko egin zion hautagaitza horri eta baita beste edozein babesteari ere, eta EAJrekin koalizioa egitea jada ezinezkotzat jotzen zen, aurreko bi urteetan gertatu zena ikusita bi indarrak erabat aldentuta agertzen baitziren. Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, *CEDA* (gogora dezagun iraultzaren kontrako ahalik eta indar gehien biltzea zuela helburu hauteskudeak irabazteko) eta bere hautagai Lojendio saiatu ziren halako hurbilketa bat egiten, baina ez EAJk, ez Gipuzkoako eskuineko alderdi nagusi zen Alderdi Karlistak ez zuten hura ondo ikusi⁶¹³.

EAJk, 1933an egin zuen bezala, bakarrik aurkezteko erabakia hartu zuen, eta 1933an jarraitu zuen estrategia arrakastatsua errepikatu nahi izan zuen: bost hautagai aurkeztu zituen. Horietako lau, 1933an aukeratutako diputatuak ziren: Juan Antonio Irazusta, Manuel Irujo, Telesforo Monzon eta Rafael Pikabea. Bosgarrena, Leizaolaren tokia hartu zuen Jose Maria Lasarte izan zen, ELAren hurbileko gizona. Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, Gobernuaren eta Gobernadore Zibilaren aldetik egin zen EAJrekiko hurbiltze-saiakera bat, Gipuzkoan EAJ “zentroaren aukera” eraikitzeke erabiltzeko. Gobernuak, berriki Alderdi Erradikaletik egotzitako Juan Usabiaga diputatu eta ministro-ohi ordiziarra zentroko hautagai gisa babestea erabaki zuen, baina bakarrik aurkezteko indar gutxi zuela jabeturik, Usabiaga EAJren zerrendan pakto bidez sartzen

⁶¹¹ Francoren diktaduraren garaian Espainiako enbaxadore izan zen Kuban.

⁶¹² RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 512-513. or.

⁶¹³ Ibid., 509. eta 511. or.

saiatu zen, baina saiakera hori antzua izan zen⁶¹⁴. Uko horren aurrean, Usabiagak, bakarrik aurkezteko keinua egin zuen arren, azkenean erretiratu egin zen eta Gipuzkoako hautagaitza-kopurua hirura mugatu zen.

Gipuzkoako hauteskunde-kanpaina, tentsio handikoa izan zen arren eta ahozko nahiz hitzeko erasoak asko izan ziren arren, nahiko baketsua izan zen eta istilu handirik ez zen gertatu (egia esan, 1931koa eta 1933koa baino lasaiagoa izan zen). Hainbat gai ukitu ziren kanpaina horretan, alde batetik, Espainiako kanpainarekin bat eginik, Estatuaren eta erregimenaren etorkizuna izan zen gehien aipatu zen gaietako bat, baina Euskal Herriko gaiak ere aipatu ziren: adibidez, baserritar maizterrak etxegabetzea, edo Estatutua. Kanpaina hartan, Rodriguez Ranzen arabera, emakumezkoen presentzia gutxitu egin zen eta berrikuntzen artean, bertsolarien erabilera aipatzen du. Bestalde, Donostiako prentsaren jarrera ere aipatu beharra dago, egunkariak kanpainan buru-belarri sartu ziren, eta ez soilik informazio-emaile gisa, baizik eta alderdi jakin bat babesteko asmoarekin. Hala, *El Pueblo Vasco* eta *El Día* egunkariak jeltzaleen alde jarri ziren erabat (*El Día*k 1931ko “batasun katolikorako” deiak ahaztuak zituen) eta *La Constancia* eta *El Diario Vasco* (azken hori 1934an monarkikoek sortu zuten), Koalizio Kontrairaultzailearen alde. Herri Fronteak, ordea, ez zuen beste bi hautagaitzek bezala hain alde zuen egunkaririk izan: ordura arte errepublikanotasunarekin identifikatzen zen *La Voz de Guipúzcoa*, Juan Usabiagaren egunkaria zen, beraz sozialistak eta komunistak barneratzen zituen hautagaitza batekiko urruntasuna agertu zuen. Egunkari horrek oso berandu eta oso modu zehatzean bakarrik erakutsi zuen ezkerreko hautagaitzaren aldeko babesa; beste egunkariak beren aldekoak “gureak” gisa tratatzen bazituzten ere, *La Voz de Guipúzcoa*k Herri Frontea “gaitzerdi” moduan tratatu zuen, bestelako hautagaitza bat aurkez zitekeenaren desioa agertuz. “Zentroko hautagaitza” aurkeztearen aldeko jarrera erakutsi zuen lehenbizi eta hautagaitza hori ez zela aurkeztuko garbi gelditu zenean soilik, eta zeharbidez, babestu zuen Herri Frontea⁶¹⁵.

Esan bezala, hauteskunde haietan, garrantzi handiko elementu bat, Estatuaren izaerari buruzkoa izan zen. Alde horretatik, eskuinaren propaganda, aurreko hauteskundeetakoaren antzekoa izan zen; Espainiaren defentsa, erlijio katolikoaren

⁶¹⁴ Ibid., 510-513. or. Rodriguez Ranzen arabera, Gobernuaren ordezkariak, Usabiaga zerrendan sartzearen truke, Gipuzkoako EAJren alkate eta zinegotzi denak berehala euren karguan berriz indarrean jartzea, euskararen ofizialkidetasunaren inguruko dekretu bat eta Gipuzkoako hurrengo Gobernadore Zibila EAJk aukeratzea eskaini zituen.

⁶¹⁵ Ibid., 522-528. or.

2. kapitulua

defentsa eta bere burua hautagai katoliko edo ordenadun bakar bezala aurkeztea. Kasu horretan, eskuinak antzeko kanpaina egin zuen, ezkerra etsai nagusizat hartuz eta EAJ “iraultzaren gaizkide” moduan zilegitasuna kentzen saiatuz. Leloa horixe bera zen: “Iraultzaren eta gaizkideen aurka!”. Hala ere, EAJren kontrako kanpaina, 1931ko apirilean eta 1933ko azaroan agertu ez zen elementu bat agertu zen: independentziaren aurkako kritika. “Separatismoaren arriskua” ia ez zen agertu aurreko kanpainetan, bai ordea 1936an (Estatutua eskuineko indarrek Parlamentuan blokeatuta zuten, eta euren blokeo horretarako argudioetako bat Estatutua “independentista” omen zela esatea zen). Beste alde batetik, EAJ “Iraultzaren gaizkide” izatearen akusazioa oraingoan zehaztu egin zen, 1934ko udako Udalen mugimendua edo 1934ko urriko iraultza aipatuz (esan dugun bezala, bigarren horretan ez zen EAJren inplikaziorik izan). Eskuinaren kanpainak oso kolpe handia jaso zuen Gasteizko gotzainaren aldetik eta bikario nagusi Jaime Berastegik “batasun katolikorako” deia egiteaz gain, batasun hori egin ezean, “katolikoentzat edozein hautagaitza katoliko bozkatzea” zilegi zela esan zuen. Beraz, Apezpikutzak ez zuen eskuineko hautagaitza “hautagaitza katoliko bakar” gisa zilegiztatu eta eskuinari kolpe gogorra eman zion⁶¹⁶.

EAJ, bere aurkako kanpaina horri erantzunez, eskuinarengandik urruntzen saiatu zen lehia hartan eta bere burua, alderdi katoliko-sozial gisa aurkeztu zuen; eskuina jauntxoan alderdi babilizatekeen aurkeztuz eta EAJ “klase apal katolikoan” alderdi legez. Kanpaina garrantzi handia hartu zuen baserritar maizterren etxegabetzeak, kasu horretan, kanpaina-aldian bertan, Azpeitiko Etxezuri baserriko maizterra zen Miguel Arrieta baserri haren jabe eskuindarrak kaleratzeak. Migel Arrieta, abertzalea izaki, baserritik botatzearen atzean arrazoi politikoak egon zitezkeela salatu zuen EAJk⁶¹⁷. EAJk, 1933an egin bezala, iraultzaren “benetako gaizkideak” eskuinekoak zirela esan zuen, baina orain ez jada “Gipuzkoako alderdi katoliko nagusia geu garelako eta beraz sektarioak haiek direlako”, baizik eta, eskuinak erreforma sozialen programa bat ez duelako eta beharrik ere ikusten ez duelako, langile-klasea eta oro har klase apalak “iraultzara bultzatzen dituelako”. Eskuinaren “diruzalatasuna” asko kritikatu zuen EAJk kanpaina hartan eta bere aurpegiarik sozialena erakutsi zuen. Beste alde batetik, EAJk hauteskunde haien iraultza-kontrairaultza erreferendum-planteamendua hauteskundeetatik albora jartzen saiatu zen, hirugarren bidea edo eredia aurkeztuz.

⁶¹⁶ Ibid., 530-533. eta 540-547. or.

⁶¹⁷ Kasu honi buruz, ikus adibidez, *El Día*, 1936-I-28koa; edo *El Pueblo Vasco*, 1936-II-12koa. Hala ere, prentsa abertzaleak kanpaina handia egin zuen kasu horri buruz, eta egunero aurki daitezke artikuluak.

Kasu hartan, EAJren “bi diktaduren” edo “bi muturren” aurkako diskurtsoa, 1933an errepublikanoek erabili zutenaren antzekoa izan zen, baina kasu horretan, “muturkerien” aurkako konponbide gisa “Errepublika” aipatu beharrean “euskal askatasuna” aipatu zuten (“euskal askatasunaren” kontzeptu abstraktu bat erabiliz, “Estatutua”, iraganeko kanpainetan hain presente zegoena, erabili orde). EAJren leloa “*Zibilizazio kristauaren alde! Justizia Sozialaren alde! Euskal askatasunaren alde!*” izan zen⁶¹⁸.

Estatutuaren gaia, Herri Fronteak erabili zuen gehien. Herri Fronteak behin baino gehiagotan aipatu zuen Estatutuaren gaia. Herri Fronteak, hauteskundeak irabazten bazituen, Euskal Estatutua segituan indarrean jartzeko promesa egin zuen, euskararen ofizialtasuna ezartzearekin batera⁶¹⁹. Komunisten aldizkarian defenditzen zenez, Herri Fronteak, bere prentsan, masa abertzaleari ere ezkerreko hautagaitza bozkatzeko deia egin zion, hautagaitza horrek bai eskubide nazionalak zein sozialak defendatzen zituelako⁶²⁰. Beste alde batetik, Herri Frontearen kanpainan Amnistia bezalako erreibindikazioak oso presente egon ziren, une hartan, Gipuzkoan 600 eta 700 arteko preso-kopurua baitzegoen eta Espainiako Estatu osoan 30.000 inguru (hori kargugabetutako Udaletako kargudunak kontuan izan gabe)⁶²¹. Gipuzkoako Herri Fronteak, beste alde batetik, baserritar maizterren defentsa egin zuen. Herri Fronteak, kasu honetan, EAJ kritikatu zuen gehiena, kanpainan erakusten ari zen biraketa soziala ez zela benetakoa esanez: ezkertiarrek behin baino gehiagotan gogoratu zuten kanpainan zehar EAJk Espainiako Parlamentuan eskuineko Gobernuaren Baso-lurren Alokairuen Legearen alde bozkatu zuela eta horrek baserritarrak eta maizterrak arriskuan jartzen zituela⁶²². Oro har, Herri Frontearen kanpaina gutxienekoen programa batean zentratu zen, hau da, II. Errepublikaren markoa puskatzeko erreferentziak ez ziren presente egon kanpaina hartan (nahiz eta egia izan, komunistek, “langileek boterea” lortzeko hauteskundeak irabazi beharra zegoela aipatu zutela, hura urrutiko helburu gisa ikusten zuten arren); eta batez ere lan-arloan zein politika publikoetan hobekuntzak eta

⁶¹⁸ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 547-554. or.

⁶¹⁹ *Euskadi Roja*, 1936-II-13koa.

⁶²⁰ *Euskadi Roja*, 1936-II-1ekoa. Ale hori euskal nazionalismoaren fundatzaile Sabino Aranaren aipua erabiltzera ere iritsi zen. *Euskadi Roja*, 1936-II-15koa. Ale horretan “Inperialismotik eta klerikalismotik aske izango zen Euzkadi” aldarrikatu zuten.

⁶²¹ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 557. or.

⁶²² Adibidez; *Euskadi Roja*, 1936-I-25ekoa; *Euskadi Roja*, 1936-II-1ekoa; *Euskadi Roja*, 1936-II-13koa eta *Euskadi Roja*, 1936-II-15ekoa.

2. kapitulua

demokraziaren defentsa defendatu zituzten. Herri Frontearen leloa “*Amnistia! Estatutua! Etxegabetze gehiago ez!*” izan zen⁶²³.

Bestalde, kanpaina hartan, prentsa jarraituz (batez ere egunkari abertzale eta ezkertiarretan agertu ziren halako berriak), baserritarrei eta txiroei bozka erosteko ahaleginak salatu izan dira, batez ere Koalizio Kontrairaultzaileari leporatu izan zitzaion amarru horiek erabili izana.

Gure herrian ere mitin ezberdinak izan ziren. Jose Antonio Egidoren arabera, urtarrilaren 26an Herri Fronteak mitin jendetsu bat eman zuen, 3.000 pertsonaren aurrean. Mitin horretan Jesus Larrañaga egon zen noski, eta horrekin batera, Luis Zapirain komunista donostiarra, Juan Alonso sozialista eta Fermin Vega de Seoane errepublikanoa, beasaindar ezkertiarrentzat oso oroitzapen onekoa izan zena, 1935eko uztaileko epaiketan langile beasaindarren defentsan parte hartu baitzuen⁶²⁴. Herri Fronteak beste mitin bat ere eman zuen Beasainen, otsailaren 11n eta kasu hartan Jesus Larrañagarekin batera Miguel Amilibia hautagai sozialista agertu zen. Mitina gaueko bederatzietan izan zen, merkatu-plazan⁶²⁵. Herri Frontea ez zen izan Beasainen mitinak eman zituen bakarra. Otsailaren 7an eskuinak ere eman zuen mitina gure herrian, Caballero, Arredondo eta Muguruza izan ziren hizlari. Mitina goizeko 11etan izan zen⁶²⁶. Hala ere, eskuineko prentsan ez dugu aurkitu mitin horren inguruko informazio handiegirik, izan ere, egun hartan bertan Irunen eskuineko lau hautagaiek parte hartu baitzuten mitin batean eta hurrengo eguneko *La Constancia* eta *El Diario Vasco* Irungo mitinaz aritu ziren buru-belarri⁶²⁷. Hauteskundeen bezperan, otsailaren 15ean, arratsaldeko zortzi eta erdietan, EAJren txanda iritsi zen eta merkatu-plazan izan zen mitin hartan bi izan ziren hizlariak, Jose Maria Lasarte hautagaiak euskaraz hitz egin zuen eta Manuel Irujok espainieraz⁶²⁸.

⁶²³ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 554-559. or.

⁶²⁴ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 81. or. Miren Barandiaranek ordea, Luis Zapirainek eta Fermin Vega de Seoanek soilik parte hartu zutela dio bere liburuan. BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 87-88. or. Informazio gehiago: *La Voz de Guipúzcoa*, 1936-II-6 eta hurrengo egunak.

⁶²⁵ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: op. cit., 82. or.

⁶²⁶ *La Constancia*, 1936-II-7; eta *El Diario Vasco*, 1936-II-7. Antza denez mitina erdaraz izan zen, bi egunkariak Gipuzkoako eskuinaren mitin ezberdinak iragartzerakoan hizlari bakoitzak euskaraz egingo bazuen iragartzen zuten, kasu honetan halakorik iragarri ez zutelarik.

⁶²⁷ *La Constancia*, 1936-II-8koa; eta *El Diario Vasco*, 1936-II-8koa.

⁶²⁸ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 87-88. or. Mitin abertzalerako informazioa: *El Día*, 1936-II-15koa; *El Pueblo Vasco*, 1936-II-15koa; eta *El Día*, 1936-II-16koa.

1936ko otsailaren 16a, harrigarria bazen ere, oso lasaia izan zen Gipuzkoan. Kasu hartan, Gipuzkoa, ordea, nahiko salbuespena izan zen eta beste probintzia askotan hautagaitzek, elkarri tranpa egitea, botoak faltsutzea, aktak lapurtzea, eta abar, leporatu zioten. Gipuzkoan apenas izan zen istilurik. Guztira 136.654 gipuzkoarrek eman zuten botoa, eskubidea zutenetatik %78,93k, beraz, parte-hartzea 1933koa baino handiagoa izan zen (ez 1931koa bezain handia -%85,56- baina kontuan hartu orduan gizonezkoek soilik zutela botoa emateko eskubidea)⁶²⁹.

Emaitzei begiratuta, EAJk beste garaipen bat lortu zuela ikusten dugu. Jose Antonio Rodriguez Ranzen kalkuluen arabera, 50.285 gipuzkoarrek eman zieten botoa jeltzaleei, %36,85k. Eskuinari 45.095 herritarrek eman zieten botoa, boto-emaitzen %33,05ek. Herri Fronteak, Rodriguez Ranzen arabera, 41.073 gipuzkoarren babesa izan zuen, %30,10ena. Beraz, emaitza haiek Errepublika garaian Gipuzkoan izan ziren hauteskunderik parekatuenak izan ziren, “hiruki” ia-perfektua osatzeraino⁶³⁰. Hala ere, EAJk bost hautagai aurkeztu zituen, eta bozka-kopuruan jaitsiera nabarmena izan zuenez, eguna jeltzaleentzako porrotean bukatzeaz zegoen: 1933.eko estrategia jarraituz, asmoa denek Irujori bozkatzea eta beste hiru botoak bete lau hautagaien artean banatzea zen, baina kasu honetan, bost hautagaiak aukeratzeko boto nahikorik ez zituztenez, azken lau hautagaiak kanpoan geratzeaz izan ziren: lau hautagai eskuindarrek bozka gehiago behar zituzten eta. Alfontso Ibaibarriagaren jeltzale historikoaren arabera, eguerdian Leizaola jabetu zen arrisku horretaz, eta ordutik aurrera Irujori ezik beste denek bozkatzeko agindua eman zuen, Irujok botoen %40ko gutxieneko langa gaindi ez zezan, eta hala bigarren itzulia gerta zedin⁶³¹.

Emaitzei begiratuta, nahiz eta Herri Frontea irabaztetik gertu egon, praktikoki, 1933.eko azaroan ezkerreko indarrek lortu zituzten pareko lortu zituen (orduan ezkerreko indarrak banaturik joan ziren). Herri Frontea Gipuzkoako zazpi udalerritan gailendu zen, zonalde industrialetan batez ere. Bestetik, ikusten dugunez, EAJtik boto kopuru bat joan zen eskuinera; boto-aldaketa hau herri txikietan askoz handiagoa izan zelarik (handietan ere eman zen arren); hala ere, bai herri handietan –Donostian izan ezin- zein txikietan jeltzaleak oraindik nagusi ziren⁶³². 1933an EAJk 75 herritan eta

⁶²⁹ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 560-561. or.

⁶³⁰ Ibid., 562-564. or.

⁶³¹ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁶³² RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 570-575. eta 584. or.

2. kapitulua

eskuinak 12tan irabazi bazuten, 1936an EAJk 52 herritan eta eskuinak 30tan irabazi zuten.

Honen bestez, boro korrelazio “ia-perfektu” horren bidez bi ondorio atera ditzazkegu. Alde batetik, kontuan izanik ezkerak apenas egin zuela aurrera bototan, honek herri batzuetan irabaztea EAJren atzerakada zela eta izan zen (adibidez, kasu hau da gure herri Beasainena). Batera joateak, Gipuzkoan, indarra erakusteko aukera eman zion ezkerari. Bigarrenik, EAJren eta eskuinaren arteko “balantzaka” zeuden sektoreei buruz, kontuan izanik sektore hauek herri txikietakoak zirela batez ere (beraz, alderdi-politikan hainbeste murgildu gabe), hauteskudeen testuinguruari egin behar diogu so. 1933.ean Estatutua zen hauteskudeetako gai nagusia, 1936.ean berriz Errepublikaren etorkizuna izan zen (ezkeraren eta eskuinaren arteko dema). Aurreko azpiataletan aipatu dugu 1931-1933an EAJk izan zuen hazkundera, 1931.ean botoa “monarkikoei” eman zietenen kontura izan zela, hau da “oso politizatuta ez zegoen instintu kontserbakordun sektorearen kontura”. Estatutua eztabaidagai zenean, sektore honek EAJra egin zuen, baina 1936.ean, eskuinak kanpaina “iraultza ala gu” lelopean egin zuenean, zati bat eskuinera itzuli zen.

Herria	EAJ		Eskuina		Herri Frontea	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Altzaga	72	68,57	33	31,42	0	-
Arama	23	34,42	43	64,17	1	01,49
Ataun	612	59,24	411	39,78	10	00,97
BEASAIN	657	33,60	569	29,10	729	37,28
Ezkio	149	68,03	56	25,57	14	06,39
Gabiria	246	65,25	117	31,03	14	03,71
Gaintza	36	26,27	96	70,07	5	03,65
Idiazabal	330	59,13	179	32,07	49	08,78
Itsaso	69	38,76	105	58,98	4	02,25
Itsasondo	190	55,71	135	39,58	16	04,69
Lazkao	379	63,91	170	28,66	44	07,42

Legorreta	175	51,62	125	36,87	39	11,50
Mutiloa	98	46,88	106	50,71	5	02,39
Olaberria	109	47,18	102	44,15	20	08,66
Ordizia	601	32,73	774	42,15	461	25,10
Ormaiztegi	156	48,90	122	38,24	41	12,85
Segura	271	49,81	268	49,26	5	00,92
Zaldibia	237	35,21	435	64,63	1	00,15
Zegama	178	20,72	632	73,57	49	05,70
Zerain	120	55,29	97	44,70	0	-
<i>Guztira</i>	4.708	43,63	4.575	42,40	1.506	13,96

Goierriko emaitzak ikusten baditugu, patroia Gipuzkoan gertatu zenaren antzekoa izan zela jabetuko gara. Herri Fronteak ezkerren gotorleku zen Beasainen irabazi egin zuen, baina 729 boto lortuta, hots, 1933an ezkerreko hautagaitza guztienak batuta zituzten 721 botoekiko oso hazkunde apala lortuta. EAJ, berriz, hemen ere jaitsi egin zen, 1933ko 726 bototatik, 1936ko 657 bototara eta hori eskuinak probestu zuen, Beasainen hazkunde txiki bat izan baitzuen. Beasainez gain, Herri Fronteak Ordizian soilik lortu zuen botoen %20a baino gehiago ateratzea eta beste bitan gaintu zuen %10aren langa: Legorretan eta Ormaiztegin (Itsasondon eta Olaberrian hurbildu egin zen %10era). Guztira, EAJk, Goierriko hogeit hamar herrietatik hamabitan irabazi zuen; 1933an hamabostetan garaitu zuen, beraz hiru herri “galdu” zituen: aipatutako Beasain ezkerren alde eta Itsaso eta Mutiloa eskuinaren alde. Eskuindarrek, bi horiek lortzeaz gain, Araman, Gaintzan, Ordizian, Zaldibian eta Zegaman garaipena errepikatu zuten. Zazpi herri horietatik, eskuinak hiru herritan zuen alkatetza (Araman, Gaintzan eta Zegaman) eta Itsason “independentee” agintzen zuten. Eskuinak alkatetza zuen hiru herrietan; Idiazabal, Legorreta eta Seguran, ez zuen irabazterik izan eta haietan EAJ berriz nagusitu zen. Hala ere, eskuinak Goierriko herri denetan boto-kopurutan gora egin zuen (Lazkaon boto-kopuru absolutuetan berdin gelditu zen, baina ehunekotan gora egin zuen) eta EAJk 20 herritatik hamabostetan boto-kopuruetan behera egin zuen eta lautan soilik hobetu zituen bere emaitzak (Alzagan –hala ere, boto-ehuneko txikiagoarekin-, Gaintzan, Itsasondon eta Zegaman; Araman boto-kopuru berdina izan

2. kapitulua

zuen, baina ehuneko txikiagoa). Boto-aldaketa hori, herri gehiagotan ere iraultzeko zorian izan zen: Olaberrian, Ormaiztegin eta Seguran hain zuzen ere. Laburbilduz, Goierriin, Gipuzkoan azaldu ziren patroik berberak errepikatu ziren; alde batetik, ezkerrearen emaitzak 1933koekiko berdin samarrak izan ziren (1936an Herri Fronteak 1.507 goierriarren babesa izan zuen, %13,96rena; 1933an lau hautagaitza ezkerreari 1.595 boto bildu zituzten, %15,21) eta euren boto-harrobia herri handietan bildu zen (Beasainen eta Ordiziaren artean 1.190 boto bildu zituzten, Goierriin bildutakoaren %78,96). Bestetik, EAJtik eskuinerako boto-aldaketa ere gertatu zen: 1933an EAJk garaipen argia lortu zuen 5.238 boto lortuta (%49,98), eskuinaren 3.647 botoen aurka (%34,79); 1936an, aldiz, EAJren garaipena askoz ere estuagoa izan zen, jeltzaleen alde 4.708 goierriarren aldeotasuna izan baitzen, eskuindarrek 4.575ena izan zuten bitartean (boto-ehunekotan, %43,73 jeltzaleen alde eta %42,40 eskuinaren alde).

Euskal Herrian, egun hartan, bost barrutietatik bitan soilik eman izan zen aldaketa; Nafarroan (eskuinaren garaipena, zazpi diputatuak lortuz) eta Bilbon (Herri Frontearen garaipena, lau diputatu lortuz; EAJk bi lortu zituen). Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan martxoaren lehen bigarren itzulia egin behar izan zen. Ez da arraroa euskal barruti gehienetan bigarren itzuli hori egin behar izana, hiru hautagaitza indartsu egoteak zail egiten baitzuen %40 hura lehen itzulian lortzea.

Hauteskunde haietan, probintzia batzuetan bigarren itzulia egin behar izan zen arren, hauteskundeen egunean argi gelditu zen ezkerreko hautagaitzek hauteskundeak irabazi zituztela. Espainiako Estatuan, Errepublikara-garaian parte-hartzerik handiena izan zen hauteskunde haietan (%72,9; hala ere, Gipuzkoakoa baino txikiagoa). Emaitza guztien berri jakiteko itxaron egin behar izan zen (bost probintzietan bigarren itzulira joan behar izan zen –horietatik hiru Euskal Herrikoak izan ziren- eta bitan hauteskundeak deuseztatu egin ziren; beste probintzia batzuetan ere, salaketak –gezurrezkoak eta egiazkoak zirela adieraziz- eta zurrumurruek ugaltu egin ziren eta akten argitalpenen atzerapenak ere gertatu ziren, baina hauteskunde egunean bertan, faltsutze-helegiteak egin izan ziren barrutiak eta bigarren itzulia egin behar izan ziren barrutiak kenduta, hau da, eztabaidarik gabe egun hartan erabakitako barrutiak soilik hartuta, Herri Fronteak 259 diputatu lortu zituen, jada gehiengo absolutua zena⁶³³).

⁶³³ MARTIN RAMOS, Jose Luis: op. cit. 145-146. or. Hala ere, gerora, eskuineko historiografiak, errepikapen eta salaketa hauek erabili izan ditu ezkerrearen garaipena belzteko. Bestetik Martin Ramosek aipatzen du Herri Frontea, lege batzuk onartzeko beharrezkoa zen bi herenen gehiengotik oso urruti

Ezkerreko masak otsailaren 16an bertan atera ziren kalera manifestazioen bidez garaipena ospatzera; manifestazio horietan Herri Fronteak Gobernua har zezan eskatu zuten (ikusiko dugun bezala manifestazio haiek Herri Frontearen gobernua bermatu zuten, lehengo goi-kargudun asko ez baitzeuden boterea Herri Fronteari pasatzeko asmoz)⁶³⁴. Egia esan, bi hauteskunde-txandak igaro ondoren, Herri Frontearen garaipena zalantzagabea izan zen arren, nahiko estua izan zen botoei zegokienez: estimazio gehienek %47-48ko babesak eman zioten Herri Fronteari eta eskuinari %45,5-46koa (beste %5 inguru lerrotatu gabeko indarretara joan ziren)⁶³⁵. Adibidez Jose Luis Martinen estimazioaren arabera, Herri Fronteak %47-49 lortu zuen, eta eskuinak %45,6 (eskuin “ez errepublikanoak” bakarrik aurkezterakoan, %19 lortu zuen Martin Ramosen arabera)⁶³⁶. Javier Tusellen arabera, Herri Fronteak populazioaren (ez boto-emaileen) %34,3 lortu zuen, eta eskuinak, zentroko indarrekin egin zuten koalizioak barne, %33,2 (“eskuina soilik” kontatuz gero, %13,76 izango ziratekeen)⁶³⁷. Eskuineko historiografiak ideia batetan zentratzen da, hau da “Herri Fronteak botoetan ez zuen irabazi”. Hau da adibidez Gabriele Ranzatok ematen duen iritzia, bere arabera, Herri Fronteak botoen %47 soilik lortu zituen (4.700.000 boto) eta “eskuinak” %46, eta (4.500.000 boto) eta “zentruak” %5 (500.000 boto), beraz, azken bi bloke hauek aurrea hartu omen zioten Herri Fronteari⁶³⁸. Interpretazio hau oso kritikatu da, hain zuzen, “zentroko” hautagaiak bloke bakar batean sartzen dituelako eta bestetik eskuin osoa

zegoela, beraz, hauteskundeak errepikatu beharreko tokietan diputatu denak lortuta ere, ezin izango zuen langa hori gaintu (beraz, Parlamentuaren gehiengo ezkertiarak ez zuen hauteskunde-errepikapenak manipulatzeko “helburu politikorik”). Azkenik, Martin Ramosen arabera, Granadan eta Cuencan maiatzean errepikatu ziren hauteskundeetan eskuina edo ez zen aurkeztu (Granada) edo hautagaitza baliogabe bat aurkeztu zuen (Cuenca), ezkerreko gehiengoa puztuz; horretan Martin Ramosen “eskuinak jada demokrazian zuen interes faltaren” adierazle bat ikusten du.

⁶³⁴ MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA: op. cit., 95. or.

⁶³⁵ Ez da erraza horren datu zehatzak ateratzea, esan dugun bezala, botoak ez baitziren zerrenda oso baten alde, hautagai jakin batzuen alde baizik (hautesle bakoitzak zerrenda ezberdinetako hautagaiak aukera zitezkeen). Gainera Herri Frontea Espainiako Estatuko probintzia guztietan batera eta kohesionatuta aurkeztu bazen ere, eskuinak ez zuen hala egin (lehenago esan dugu CEDAk probintzia batzuetan zentro-eskuineko indar errepublikanoekin egin zuela koalizioa eta beste batzuetan eskuin muturreko errepublikaren aurkakoekin), eta probintzia batzuetan bi zerrenda eskuindar ere aurkeztu ziren.

⁶³⁶ MARTIN RAMOS, Jose Luis: op. cit., 151. or.

⁶³⁷ TUSELL GOMEZ, Javier: op. cit., II. lib., 13-18. or. Jose Luis Martin Ramos Tusellek “ondorio egokiak baina kalkulatzeko sistema okerrak” atetzen zituela dio, boto-emaileak baino populazio osoa kalkulatzearren, eta “portzentaian” (ez boto-kopuruan), “zentroa eta eskuina koalizioan” eta “eskuin anti errepublikanoa” batera aurkeztuarren.

⁶³⁸ RANZATO, Gabriele: *El gran miedo de 1936. Cómo España se precipitó en la guerra civil*. La Esfera de los libros. Madril, 2014, 93. or. Are gogorragoa da Roberto Villa, zeinaren arabera “ezkerrak %46 soilik lortu zuen, eta bere kontrakoek (bereizi gabe) %54”. Villaren arabera, eskuinak bakarrik %47 lortu zuen, Herri Fronteak baino gehiago. Irakurketa hau, garaiak eskuineko prentsa batek zabaldu zuen, baina historiografian salbuespena dela uste dut. VILLA GARCIA, Roberto: *España en las urnas. Una historia electoral (1810-2015)*. Catarata. Madril, 2016, 122 or.

2. kapitulua

bloke bakar batean sartzen duelako (probintzia askotan bi hautagaitza eskuindar izan ziren), hain zuzen ere Herri Fronteak irabazi ez zuenaren inpresioa emateko.

Hala ere, gehiengo sistema zela-eta, Herri Fronteak 263 diputatu lortu zituen, eskuineko indarrek 163 eta beste 54 lerrokatu gabeko indarren artekoak izan ziren⁶³⁹. Hego Euskal Herrian, bi txandak jokatu ostean, EAJk Gipuzkoan eta Bizkaian irabazi zuen bederatzi diputatu lortuta (Gipuzkoan lau, Bizkaian hiru eta Bilbon bi), eskuinak Araban eta Nafarroan irabazi zuen zortzi diputatu lortuta (Nafarroako zazpiak eta Araban beste bat; horietako bost karlistak ziren, bi *CEDA*koak eta bat independentea), eta Herri Fronteak Bilbon irabazi zuen eta guztira zazpi diputatu lortu zituen (Bilbon lau, Gipuzkoan bi eta Araban bat; horietako hiru errepublikanoak ziren, beste hiru sozialistak eta bat komunista).

Eskuina, gerora hauteskunde hauen edota Gobernu honen zilegitasun falta frogatzen saiatu zen (bost hilabete geroago, Francok eman zuen Estatu-kolpearen zurigarri gisa erabili zuen “Herri Frontearen Gobernuaren kaosa”⁶⁴⁰); otsailaren 17an eta 18an, militar batzuek, ezkerreko herri-manifestazioak eta “desordena” aitzakiatzat hartuta Estatu-kolpea ematen saiatu ziren (Franco bera tartean zela) eta guda-egoera aldarrikatu zuten hauteskundeak deuseztatzeko asmoz. Baina esan beharra dago, emaitzak jakin orduko, eskuineko iritzi publikoak eta prentsak ez zuten “iruzur masiborik” aipatu hauteskunde hurrengo egunetan⁶⁴¹; gerora justifikazio moduan sortu zen “teoria” bat izan zen. Hala ere Estatu-kolpearen saiakera horrek ez zuen arrakastarik izan⁶⁴². Manuel Portela Gobernuburuak ere, alarma-egoera aldarrikatu

⁶³⁹ Ezkerreko 263 diputatuen artean, 99 Alderdi Sozialistakoak zioen (diputatu gehien zuen alderdia), 87 Azañaren jarraitzaileen *Izquierda Republicanakoak*, 37 *Unión Republicanakoak*, 17 Alderdi Komunistakoak (gehi beste lau Kataluniako beste alderdi komunistetakoak), eta 30 bat ezkerreko katalan abertzaleak. Eskuineko 156 diputatuen artean, 88 *CEDA*koak ziren, 15 bat monarkiko-alfonsotarrak eta 12 bat karlistak (beste denak beste talde txikiagoetakoak edo independenteak). Lerrokatu gabeko 54 diputatuen artean, 21 Portelak sortu zuen Zentroko Alderdikoak ziren, 9 EAJkoak, eta 5 Alderdi Erradikalekoak. Alderdi horrek sekularako kolpea jaso zuen (gainerakoak alderdi txikiagoetakoak ziren).

⁶⁴⁰ Akusazio hori ez zen egiazkoa izan eta lan-munduaren aztoramena izan zen arren, bai hirietan zein baserri-guneetan, Errepublikaren beste urteetan eman zenaren antzekoa txikiagoa izan zen eta ez zegoen Gobernuaren uzkailean bilatzen zuen planik (Are gutxiago plan koordinaturik). Are gehiago, Espainiaren hegoaldean, baserri batzuei, 1931-1933ko nekazaritza-berrikuntzak aplikatu zitzaizkien baina 1934an desjabetutako lurak hartzen saiatu zirenean, eskuineko Gobernuak, Herri Frontearen gobernua ezarritako aldaketa horiek desegin zituen.

⁶⁴¹ TUSELL GOMEZ, Javier: *Las elecciones...* op. cit., I. lib. 106-119. or

⁶⁴² Herri Frontearen Gobernuko buru Manuel Azañak, kolpe horretan ibili ziren militar susmagarriak Armadatik bota beharrean edo kargua kendu beharrean, Madriletik aldentu egin zituen: Franco Kanarietara bidali zuen, Godek Balearretara eta Emilio Mola Nafarroara. Geroak frogatu zuen zigor bigun horiek ez zirela behar bestekoak izan eta benetako zigorrik izan ez zutelako, 1936ko uztailen, beste altxamendu bat egin zuten, diktadura ekarriko zutelarik.

zuen, baina herriaren aldetik presioa hainbestearainokoa izan zen, ezen Gobernu postua utzi egin zuen, botere-igarotzea modu patxadatsuan egin zedin galaraziz.

Otsailaren 19an Manuel Azaña Gobernuko presidente izendatu behar izan zuten herri-babesak hala eskatuta (parlamentua eratu baino lehenago, hura martxoaren 15ean, hauteskunderen bigarren txandaren ondoren eratu behar izan baitzen)⁶⁴³. Azañaren Gobernuak ezkerreko errepublikanoak soilik izan zituen bidaide eta sozialistarik eta komunistarik ez zuen izan tartean. Herri Frontearen programako zenbait puntu berehala aplikatu ziren: otsailaren 21ean amnistia eman zuen, bai presoak kaleratzeko eta baita kargugabetutako kargudunak karguetara itzultzeko ere, otsailaren 28an, 1934ko gertakariengatik lanetik botatakoak lantokian berriro onartzeko agindua eman zuen (bi lege horiek garrantzi handia izan zuten Beasainen, izan ere, gure herrian, jada aipatua izan den moduan, 1934ko gertakariak Udalaren aldaketa, herritar batzuk preso sartzea eta preso horietako batzuk CAFeko langile izateagatik, lanik gabe gelditzea ekarri baitzuten) eta martxoaren 1ean Kataluniaren autonomia berriz indarrean jarri zen. Martxoaren 1 horretan izan zen Azañak, Herri Fronteko ordezkariekin, hauteskunde osteko ospakizun- (eta bijilantzia-, Estatu-kolpea saihesteko, edota presio-, Gobernu bere programaren puntu batzuk betetzera behartzeko) manifestazioak bukatzea paktatu zuen eguna, manifestazioen lehen olatua horrela geratu zen (udaberrian greba ekonomikoez osatutako beste olatu bat izango zen)⁶⁴⁴.

Gipuzkoan jokatu zen bigarren itzulian, martxoaren 1ean, bi hautagaitza soilik aurkeztu ziren: Herri Frontearena eta EAJrena, eskuinak jada ikusi baitzuen hauteskunde orokorrak galduak zituela. Hala ere, eskuinaren aldetik ez zen jarrera homogeneousik izan: karlistek eta *Union Regionalista Guipuzcoanakoek* (Renovación Española ren gipuzkoar adarra) ez zuten inolako hautagaitzarik babestu, eta hori eman zuten argitara otsailaren 26an, beren hiru hautagaien, Mugica, Paguaga eta Orejaren bitartez. CEDAko gipuzkoar adarra zen *Derecha Vasca Autónoma* eta bere hautagai Juan Pablo Lojendiok, ordea, EAJ babesteko deia egin zuten, hura baitzen “hauteskunde haietan agertu zen hautagaitza katoliko bakarra”. Bigarren itzuli honetan, Herri Fronteak lehen itzulian aurkeztu zituen hautagai berak aurkeztu zituen (Amilibia, Anso, Apraiz

⁶⁴³ Antza denez, Azañak ez zuen boterea modu horretan hartu nahi eta bide “formalak” erabiltzearen aldekoa zen: hau da, Parlamentua berriz ireki arte boterea ez hartzearen aldekoa; herri-manifestazioek bera boterera eramatea ez zuen begi onez ikusi, herri-presioak koalizioak berak baino ezkererago eraman zezakeelako. MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA: op. cit., 95-96. or.

⁶⁴⁴ MARTIN RAMOS, Jose Luis: op. cit., 154. eta 156. or

2. kapitulua

eta Larrañaga); EAJk ordea, lau hautagai soilik aurkeztu zituen (Irazusta, Irujo, Lasarte eta Pikabea), Telesforo Monzon kanpoan utziz⁶⁴⁵.

Bazirudien, eskuina erretiratzeak hauteskunde-kanpaina askoz ere lasaiago bihurtu behar zuela, baina ez zen hala gertatu. Istilu aunitz gertatu ziren, borrokak, pistolen bidezko mehatxuak eta abar. Oartzunen Herri Frontearen ikuskatzaile bat tiroz hila izan zen. Gipuzkoa osoan izan ziren emaitza-faltsutzeak eta haien salaketak eta Donostiako bost mahaitan ere, martxoaren 3an, ostera hauteskundeak errepikatu behar izan ziren⁶⁴⁶. Azkenean EAJk irabazi zuen, Rodriguez Ranzen arabera 63.641 boto lortuta (%58,92), lau hautagai jeltzaleek batera 250.842 boto lortu zituzten. Herri Fronteak 43.302 boto izan zituen (%40,20) eta haren hautagaiek batera 164.518 boto. Hautagai bozkatuena Jose Maria Lasarte izan zen, 63.150 botorekin. Bere alderdikide Pikabeak, Irujok eta Irazustak, 62.613, 62.500 eta 62.434 boto bildu zituzten hurrenez hurren. Herri Frontearen aldetik Mariano Anso (42.228 boto) eta Miguel Amilibia (41.836 boto) izan ziren aukeratuak: Apraizek 40.649 boto izan zituen eta Jesus Larrañaga goierritarrak 39.805 boto⁶⁴⁷.

Hauteskunde haietan, EAJk Gipuzkoako 89 herritatik 83tan irabazi zuen, tartean Beasainen, hamazazpi botoko aldearekin⁶⁴⁸. Herri Fronteak bere gotorlekuetan irabazi egin zuen berriz ere. Bestalde, eskuineko boto-emaileen parte batek, gutxiengoak, baina ez gutxiengo marjinalak, EAJri eman zion botoa: Rodriguez Ranzen kalkuluen arabera, otsailaren 16an, eskuinari botoa eman zioten 45.095 gipuzkoarretatik 13.202k EAJren aldeko botoa eman zuten eta gehiengo nagusia -31.893 - abstenitu egin zen (hori eskuineko gipuzkoar boto-emaileen %29,28 zen). Rodriguez Ranzen ondorio bitxi bat ateratzen du: 1933ko azaroko hauteskundeetan eskuinari 32.035 gipuzkoarrek eman zioten botoa eta kopuru hori martxoko bigarren txanda hartan EAJri botoa emateari uko egin zion kopuruaren antzekoa da. Beraz, litekeena da 1933an EAJri eta 1936an

⁶⁴⁵ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 587-588. or.

⁶⁴⁶ Errepikapen horretan, Apraiz errepublikanoa erretiratu egin zen eta botoa Anso errepublikanoari eta Amilibia sozialistari soilik ematea gomendatu zuen, Larrañaga komunistari bidea ixteko. Urtarril-otsailen komunisten eta errepublikanoen artean azaleratutako ika-mikak ez ziren guztiz itzali.

⁶⁴⁷ Ibid., 590-593. Parte-hartzea %62,62koa izan zen.

⁶⁴⁸ Alfontso Ibaibarriagaren adierazpenen arabera, garaipen hori oso ospatua izan zen Beasaingo jeltzaleen artean. Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

eskuinari botoa eman ziotenek, bigarren txanda hartan EAJri berriz ere botoa ematea, “betiko eskuindarrek” abstenitzea erabaki ondoren⁶⁴⁹.

Beasaingo Udalaren etapa berri honi buruz hitz egiterakoan, lehen esan dugu otsailaren 21ean, amnistiaren dekretua sinatzerakoan, 1931n aukeratu eta 1934ko abuztu-irailetan kargugabetutako Udal-taldea, berriro agintera itzultzeko modua zabaldu zela eta epaitegiek kondenatuak etxera itzultzeko aukera ere ireki egin zen. Beasainen, otsailaren 23an bildu ziren berriz karguan jartzeko 1931n aukeratutako zinegotziak. Bederatzi bildu ziren guztira eta lau falta ziren; Jacinto Urteaga alkate-ohia eta Emiliano Arbaizar hilak zirelako (Arbaizarrek 1931n dimititu egin zuen gainera), Serafin Arana parterik ez hartzea erabaki zuelako (ez zuen aldi honetako saio batean ere parte hartu) eta Dionisio Carrascal kartzelatik aurreko egunean irten zelako, 1934ko gertakariengatik kartzelan zegoen-eta. Bertan bildu ziren ordea, 1934an beste kideekin batera dimititu zuten bi zinegotzi eskuindarrak, Jose Martin Sarriegui eta Restituto Urteaga. Udal berriak, Victor Bernedo sozialista aukeratu zuen alkate eta Severiano Azpeitia eta Gregorio Lasa errepublikanoak alkateorde⁶⁵⁰.

Victor Bernedo Zubiaurre, Elgoibarren jaiotako pertsona, Eibartik etorri zen Beasainera. Berez enpresaduna eta enpresa-bokazioko gizona bazen ere, konbikzio sozialista indartsuak zituen gizona ere izan zen. Klase sozial baten parte izan eta beste baten interesak garai haietan uztartzea zaila zenez, halakoetan salbuespena dugu Bernedo; hala ere, bere integritatea dela eta, lortu zuen enpresa-arloan zuzentasunez jokatzeko eta politika arloan langileen alde egitea. Elgoibartarra jaiotzez eta Beasainen alkate izan bazen ere, “kultura” aldetik eibartar petoa genuen Bernedo; eta ez soilik bere aktibitate politikoak Eibarren hasi zituelako, baizik eta Eibarko tradizio bi elkartu zituelako: armagintza batetik (arma enpresaria izan baitzen) eta sozialismoa bestetik. 1912.aren (1913.ean ireki zuen bere tailer propioa, Aristondo enpresariari erosi ostean) eta 1920.aren artean izan zuen arma-enpresa Eibarren; baina aurretik Jose Acedo deitutako beste eibartar sozialista batekin mekanika tailer bat zuen, zeinarekin arma-enpresa erosteko moduko aberastasuna ekarri zion⁶⁵¹. Victor Bernedo enpresari

⁶⁴⁹ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: op. cit., 595-597.

⁶⁵⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

⁶⁵¹ ETXEBARRIA, Toribio: *Viaje por el país de los recuerdos*. Sociedad guipuzcoana de editores. Donostia, 1990. Etxebarriak liburu honetan anekdota hau kontatzen du Bernedo enpresariak: “euskaldunak gaztelarrak eta katalanak bereizten zituen. Euskaldun bat tailerrera etortzen bazitzaion, agur egin aurretik “lanik ba al dago?” galdetzen zuen. Gaztelar bat etortzen bazitzaion, agur egin eta gero

2. kapitulua

arrakastatsua izan zenik ezin dugu ukatu: bai enplegatutako langile kopuruaren arabera (1914.ean 10-20 langile artean zituen, 1916.ean 20-30 artean, 1917.ean 30-40 artean, eta 1919.ean krisi bat izan ostean, 1920.ean berriz 20-30 langile izatera iritsi zen)⁶⁵², eta baita ere patente bi atera zituelako: pistolen kainoiak zulatzeko taladragailu bat (1909.ean⁶⁵³) bat eta pistola oso bat, 1919.ean, 6,35 milimetroko kainoiduna eta 69952 patente zenbakiarekin (nahiz eta bere fabrikan 7,65 milimetrodun pistolak “Eibar motakoak” ere ekoitzi)⁶⁵⁴. Bere markak “VB”, “Bc” eta “Bernedo” etiketen pean saltzen ziren⁶⁵⁵. Batez ere Frantziara saltzen zituen pistolak, non akatsen bat medio, “Vincent Bernedo” bezala komertzializatzen ziren. 1921.ean etorri zen Eibartik, bere tailerra Bonifacio Etxebarriari, orduko Eibarko armagintza-enpresaririk garrantzitsuenari saldu ostean⁶⁵⁶, eta gure herrian erreminta-tailer bat ireki zuen. Beasainera etortzean, sozialista izan arren, posizio sozialaren arabera bertako “elitearen” kide ere bazenez, Usurbe elkarteko kide egin zen.

Politikoki, Beasaina etorri aurretik Eibarren *¡Adelante!* astekariaren zuzendaria izan zen. Toribio Etxebarria Eibarko buruzagi sozialista ospetsuaren arabera, Eibarko sozialismoa eta baita *¡Adelante!* astekaria sortu zituen taldekoa izan zen Bernedo⁶⁵⁷. 1905.ean idatzitako artikulu batek, 1906.ean Auzitegi Gorenak, hiru urte eta sei hilabetetarako kartzela-zigorra ezartzea ekarri zion, eta baita 250 pezetako multa ordainaraztea ere⁶⁵⁸ (zigor hori errebisatua izatekoan izan zen 1906ko azaroan⁶⁵⁹). Horrez gain, zinegotzi sozialista izan zen, 1910eko hamarkadan⁶⁶⁰. 1917eko maiatzean, *Eibarko Liga Antigermanofiloa* sortu zuen Eibarko beste sozialista eta liberal batzuekin batera (talde horretan Juan Etxebarria eta Akilino Amuategi Eibarko sozialista historikoak zeuden). Liga horren helburua, iritzi publikoa I. Mundu Gudan gudan ari

“soldatarik ba al dago?” galdetzen zuen. Katalanak, hamaika agur egin ostean “negoziorik ba al dago?” galdetzen zuen””.

⁶⁵² Ikus lotura: <http://www.catalogacionarmas.com/public/42-eibar-9.pdf> Hala ere beste lotura honen arabera

(http://apps.elsevier.es/watermark/ctl_servlet? f=10&pident articulo=90050051&pident usuario=0&pco ntactid=&pident revista=328&ty=83&accion=L&origen=zonadelectura&web=www.elsevier.es&lan=es &fichero=328v06n16a90050051pdf001.pdf), 1914.ean Victor Bernedok 38 langile zituen 1914.ean.

⁶⁵³ Espainiako Buletin Ofiziala, 1910-I-22.

⁶⁵⁴ Ikus lotura: <http://www.catalogacionarmas.com/public/42-eibar-9.pdf>

⁶⁵⁵ Ikus www.historiadelasarmasdefuego.blogspot.com bloga Bernedoren pistolen inguruko informazio gehiago lortzeko.

⁶⁵⁶ Bonifacio Etxebarriak Goardia Zibilaren aldetik 56.000 “Star” motako pistoletako eskaera lortu zuen 1921.ean.

⁶⁵⁷ ETXEBARRIA, Toribio: op. cit.

⁶⁵⁸ *El Socialista*, 1906-VII-27.

⁶⁵⁹ *El Socialista*, 1906-XI-10.

⁶⁶⁰ NARBAIZA AZKUE, Antxon: *Akilino Amuategi (1877-1919). XX. mende hasierako mitinlari sozialista*. Eibarko Udala. Astigarraga, 1984, 20. or.

ziren aldean artean Mendebaldeko aliatuen alde mobilizatzea izan zen, alemaniarren aurka. Izan ere iritzi aurrerazalean parte batek (errepublikanoek eta sozialista moderatuek) Frantziaren eta Britainia Handiaren aliantzan demokraziaren balioen defentsa ikusi zuten, Alemaniak Erregimen Zaharra defendatzen omen zuelarik⁶⁶¹. Victor Bernedo Liga Antigermanofiloko bokala izan zen⁶⁶². Hala ere, kontutan izanik orduan Victor Bernedo Eibarko enpresari armagina zela eta batez ere Frantzian saltzen zuela, baliteke pentsatzea bere Liga Antigermanofilorekiko konpromezua, ideologikoaz gain, pertsonala ere bazela. Guztira 11.500 pistola saldu zizkien Bernedok aliatuei⁶⁶³.

Beraz, Gipuzkoako sozialismoaren lehen garaietatik kide izan zen pertsona bat dugu Bernedo. Halere, atxilotu osteko Guda-kontseilua egin ziotenean, Bernedok kidetza sozialista utzia zuela esan zuen, Beasaina etortzean militatzeari utzi egin ziola, 1931.ean “sozialista independente” gisa aurkeztu zela, eta 1933.ean errepublikanoen kide egin zela⁶⁶⁴. Hala ere, Udaleko aktek erakusten duenak, adierazpen hori zalantzan jartzen dute: baliteke epaitegi frankisten aurrean Bernedok bere kidetasun sozialista ezkutatu nahi izatea, hauek langile klasearen alderdi gisa (errepublikanoak erdi-mailako “ordenako klaseetan” ugariagoak ziren langileen artean baino) agintari eta funtzionario frankistek errepublikanoak baino okerrago ikusitako alderdi bat zen eta.

Egun hartan bertan, bi mozio irakurri zituzten. Lehena, Bernedo alkatearena izan zen, eta bertan, “joan zen igandean (hots, hauteskundeetan, Herri Fronteari garaipena emanaz) herriak egindako ahalegin handia” goraiatu zuen alkate berriak eta “biurteko beltzaren borrokoak (eskuineko gobernua)” deitoratu egin zituen. Mozio hori, hildako bi Udal-kideak gogoratuz eta Carrascal zinegotziaren askatasuna ospatuz bukatzen zen. Beste mozioa Restituto Urteaga eskuindarrarena izan zen. Mozio hartan, Urteagak Gobernu berriari eskerrak ematen zizkion “Euskal Herriaren interesen alde borrokatzearen utzi behar izan genituen karguetan berriz jartzeko keinu noblea izan duelako”. Urteagak “mugimendu hartan, gure autonomiaren hondar den Hitzarmen Ekonomikoaren aurka Gobernuak egindako erasoaren aurrean udal guztiok altxatu

⁶⁶¹ Mugimendu sozialista osoak ez zuen ikuskera hau babestu. Izan ere, sozialista batzuen neutraltasuna aldarrikatu zuten Zimmerwaldeko 1915.eko Konferentzian, eta horietako batzuek, Leninek gidaturik, “nazioarteko guda klase-guda” bihurtzeko deia egin zuten, mugimendu komunista eratu zutelarik.

⁶⁶² NARBAIZA AZKUE, Antxon: op. cit., 1984, 86-87. or.

⁶⁶³ Lotura honetan informazioa: http://www.usc.es//estaticos/congresos/histec05/b3_goni_mendizabal.pdf

⁶⁶⁴ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 196-36 kausa, Victor Bernedo Zubiaurreri dagokiona.

2. kapitulua

ginen” gogorarazi zuen eta orduko Gipuzkoako agintariak (Gobernadore Zibila eta Aldundiaren Gestora) deitoratu zituen “herriaren interesak baino Gobernuaren interes zikinak” defendatzearren. Urteagak Gipuzkoan agintea “herriak eta ez Estatuak aukeratutakoak izan zezaten” dei egin zuen (Alderdi Jeltzalearen erreibindikazio historiko batekin bat eginez) eta “herriak bozkatutako Euskal Estatutua berehala indarrean jar zedin” ere bai. Harrigarria suerta daiteke, Restituto Urteagak mozio hura aurkeztu eta bost hilabetera, Armada kolpistak Beasainen inposatutako Udalean ostera parte-hartzea erabaki izana⁶⁶⁵. Hori ez zen izan Beasaingo Udalak aldi labur hartan Estatutuaren alde egin zuen ekintza bakarra, izan ere, 1936ko ekainean, Gipuzkoako Aldundiaren Gestorak Hitzarmen Ekonomikoaren alde Udal gipuzkoar guztiei bideratutako kanpaina batean parte hartzea erabaki baitzuen⁶⁶⁶. Argi zegoen halako ekimena 1933ko abendutik itxaroten zen Estatutuaren aplikazioaren alde presionatzeko modu bat zela. Beste alde batetik, Udalak, Euzkaldunak elkarteak euskararen alde antolatu zuen jaialdi bati, edo Euzko Pizkunde Bazkuna elkarteak Estatutuaren alde antolatu zituen kanpainei subentzioa ematea onartu zuen⁶⁶⁷.

Hurrengo bilkuran, otsailaren 27an, zinegotzi-sindikoko gisa Pedro Azarola Gorrochategui aukeratu zuen Udalak. Udal-bilkura hartan, 1932ko ekainetik parte hartzen ez zuen Dionisio Carrascalek ere sinbolikoki parte hartu zuen eta Udalari bere askatasunaren aldeko lana eskertu nahi izan zion, baina 1932an dimititu egin nahi izan zuela-eta, berriz beste bilkura batean parterik ez zuela hartuko esan zuen⁶⁶⁸.

Beasaingo Udalak, 1936ko martxoaren 21ean Donostiako Udalaren proposamen batekin bat egin zuen eta 1934. urtearen bukaeran eta 1935ean Gobernadoreak Gipuzkoan ezarritako behin-behineko Udalek (Beasaingo kasuan, Manuel Perezen Udalak) egindako balantze ekonomikoaren auditoria egin eta haiek hartutako neurriak eta itunak bertan behera uzteko ahalmena defendatzen zuen proposamen horrek (kontuan hartu behar dugu 1930eko hamarkada osoan Gipuzkoa krisi ekonomiko larrian sartuta zegoela eta hori dela-eta, edozein gain-kostuk Udalen egoera kolokan jar zezakeela)⁶⁶⁹.

⁶⁶⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

⁶⁶⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

⁶⁶⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

⁶⁶⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

⁶⁶⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

Hala ere, Udal berritu hark neurri propioak hartzeko oso aukera gutxi izan zuen, bost hilabete geroago Estatu-kolpea izan baitzen (eta agindu zuten bost hilabete haietan, aurreko Udal-taldeak eginiko aurrekontuarekin agindu behar izan zuen). Hirigintzari dagokionez, aipatutako Fermin Galan kalean espaloietan baldosak jartzea onartu zuen Udalak⁶⁷⁰. Beste alde batetik, Garingo errepidearen gain-kostua ordaintzeko, eta langabeekin egiteko kontratatu zituzten lanei eusteko, beste 100.000 pezetako kreditu bat sinatu behar izan zuen Udalak⁶⁷¹.

⁶⁷⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

⁶⁷¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

3. KAPITULUA ALTXATUAK BEASAINEN: UZTAILAREN 27KO GAU BELTZA ETA ERREPRESIOA

3.1 Gerraren hasiera

1936ko uztailaren 18an eskuineko militar talde batek indarrean zegoen Gobernu demokratikoaren aurkako Estatu-kolpea bat eman zuen. Asko idatzi izan da kolpe horren “arrazoiei” buruz, askotan eskuineko historiografiak kolpe hori eta garai horretan indarrean zegoen egoera (“iraultza sozialista abian”, “bortizkeria jasanezina”, “lege eza”) lotu izan baititu. Urte askotan iraultzaren gaia izanda mitorik errepikatuen eta aldi berean, Estatu kolpea justifikatzeko erabiliena.

Hala ere, egun historiografiak badaki ez dagoela iraultza berehala egiteko asmoa justifikatzeko daturik. Gobernua alderdi errepublikanoek osatua zen, eta bere programa osoki errepublikanoa zen. Juan Iturralde beasaindar apaiz eta idazleak esan zuen bezala, “iraultza programan zuten alderdiak baziren ere, ez zegoen 1936ko udarako matxinada bat prestatuta (...) Francoren aldekoek ez zuten izan berau egiaztatuko zukeen froga argirik aurkezterik (...) 1936.ean zegoena, Armadak eta bere laguntzaileek jasan ezin zuten demokratikoki aukeratutako Gobernu baten programa zen”¹. Eta are uztailaren 11n (hil baino bi egun lehenago) Calvo Sotelo oposizioko buruetako batek esan zuen “Espainian ez dago matxinada marxista batek garaipena lor dezakeeneko arriskurik”².

Iraultza-plangintzaren tesia deskartatuta, bada noizean behin botatzen den beste argudio bat: nahiz eta Gobernuak iraultza egin nahi ez, Herri Frontearen masek Gobernu “ahul” baten gaintetik, batez ere greben eta lurren okupazioaren bidez, aginteari gainezka eginez, iraultza inposatu nahi izan zutela. Hala ere, Jose Luis Martin Ramosen arabera, orduko greba kopurua ez zen izan beste garai batzuetakoa (1918-1919 adibidez, edota are 1913-33 biurtekoa) baino handiagoa³. Greba edota lur okupazio gehienek, egia esan Herri Frontearen programa ekonomikoa betetzea, soldatak igotzea, edo kasuan, banatuak izateko ziren lurren banaketa “bermatzea” izan zuten helburu; eta hauen legezkotasun teknikoak eztabaidagarria bada ere, ez zen inolaz ere iraultza baten aurreko

¹ ITURRALDE, Juan: *La guerra de Franco, los vascos y la Iglesia* (1. lib.: *Quiénes y con qué fin prepararon la guerra y cómo comenzó*). Publicaciones Clero Vasco. Donostia, 1978, 145-152. or. Iturraldeko oso gogor kritikatu du batez ere 1937.eko uztailean gotzainek Francoren matxinada justifikatzeko egindako dokumentua.

² GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Contrarrevolucionarios. Radicalización violenta de las derechas durante la Segunda República, 1931-1936*. Alianza Editorial. Madril, 2011, 333. or.

³ MARTIN RAMOS, Jose Luis: *El Frente Popular. Victoria y derrota de la democracia en España*. Pasado & Presente. Bartzelona, 2015, 158-166. or.

3. kapitulua

egoera bat, baizik eta gehiago, mobilizazio ziklo gorakor bat, “aldeko” Gobernu bat aukeratua izateak lagundua⁴. Adibidez, Fronte Popularraren garaian Frantzia Espainian baino greba gehiago eta gogorragoak izan ziren⁵.

Izan ere, kontuan izan behar dugu iraultza batek, irabazteko aldeko indarren batasuna izan behar duela. 1936.eko Espainian ez zen halakorik eman, lan-gatazken aurrean ere anarkistak, komunistak eta sozialistak (eta hauek bi sektoretan) erabat zatituta baitzeuden. Ironikoki, Alderdi Komunista (propaganda frankistaren arabera, plan iraultzaileak zuzentzen zituen alderdia zena), nahiko moderatua zen, hau da, bai industri-grebekiko zein lurren okupazioarekiko egoera gehiegi ez behartzearen aldeko apustua egin zuen (lur-okupazio gehienak ez zituen babestu, ezta ere, UGTk eta CNTk eskatzen zuten 36 ordutako lan-astea). Alor politikoari zegokionez, Alderdi Komunista Herri Frontea mantentzearen eta hau sendotzearen alde zegoen, ez bapateko iraultza sozialistaren alde. Politika moderatu honek, paradoxikoki komunistak Indalecio Prietoren sozialista moderatuen inguruan ezarri zituen, Francisco Largo Caballeroren sozialista erradikalek berehala langile boterea ezartzea (beraz Herri Frontea gainditzea) eskatzen zuten bitartean⁶. Bestalde, ezker muturreko indarrek, hots, sozialista erradikalek eta anarkistek ere, ez zuten euren arteko estrategia bateratu amankomunik⁷. Beraz, hemengo datuak kontutan izanik, ezin dugu esan ez “Botere-hutsune” bat, ez “Masek Gobernuari gainezka egitea” egon zenik.

Eskuineko historiografiak urte askotan ezarri izan du uztailaren 13an Jose Calvo Sotelo hil izana kolpearen justifikazio gisa. Hala ere, kontuan izan behar dugu, Estatu-kolpea emateko plana nahiko aurreratuagoa zegoela hilketa horren aurretik. Are

⁴ SANCHEZ PEREZ, Francisco: “Las protestas del trabajo en la primavera de 1936” in BAHAMONDE MAGRO, Angel (koord.): *La España del Frente Popular. L'Espagne du Front populaire* (77-101. or.). Mélanges de la Casa de Velazquez bilduma (41-1 lib.). Madril, 2011, 86-90. or.; MONTES, Pablo: “El radicalismo político y el Frente Popular. Una reflexión crítica” in GONZALEZ CALLEJA, Eduardo; eta NAVARRO COMAS, Rocio: *La España del Frente Popular. Política, sociedad, conflicto y cultura en la España de 1936* (9-20. or.). Comares Historia. Granada, 2011; eta AVILES FARRE, Juan: *La izquierda burguesa y la tragedia de la II República*. Madrilgo Erkidego Autonomoa. Madril, 2006, 409. or.

⁵ SANCHEZ PEREZ, Francisco: op. cit., 82. or.; eta MARTIN RAMOS, Jose Luis: op. cit., 152. or.

⁶ Alderdi Komunistaren lan-arloko jarrera moderatuari buruz, HERNANDEZ SANCHEZ, Fernando: *Guerra o Revolución. El Partido Comunista de España en la guerra civil*. Critica. Bartzelona, 2010, 73-76. or.; eta CRUZ, Rafael: *El Partido Comunista de España en la II República*. Alianza Universidad. Madril, 1987, 182-183., 261-262. eta 264. or. Sozialista erradikalen jarrerari buruz: CONTRERAS, Manuel: *El PSOE en la II República: organización e ideología*. CIS. Madril, 1980, 247-283. or.; DE BLAS GUERRERO, Andres: *El socialismo radical en la II República*. Tucur. Madril, 1978, 137-142. eta 149-175. or.; eta JULIA, Santos: *La izquierda del PSOE (1935-1936)*. Siglo XXI. Madril, 1977. Santos Juliaren arabera, sozialista erradikalek, erretolikaz haratago, ez zuten Gobernu errepublikanoa uzkailezko batere planik. Lan-arloko UGTren jarrera gogorragoari buruz: AVILES FARRE, Juan: op. cit., 409. or.

⁷ JULIA, Santos: op. cit., 258-264. or.

gehiago, uztailleko kolpearen aurretik beste bi Estatu-kolpe saiakera egin zituzten eskuineko militarrek: otsailean eta apirilean. Otsailean, hauteskunderen egunean bertan, Francisco Franco bera tartean zegoen talde batek Manuel Portelari guda-egoera aldarrika zezan eta hauteskunderak bertan behera utz zitzaion eskatu zion. Apirilean Rodriguez del Barrio eta Orgaz jeneralek Madrilen Estatu-kolpe bat emateko asmoa zuten, Gobernu botatzeko eta “ordena berrezarri artean diktadura errepublikano indartsu bat” ezartzeko (beraz, Errepublikaren kontra baino, Herri Frontearen aurkako Estatu-kolpea zen hau)⁸. Beraz, Estatu-kolperako asmoak uztaila baino askoz ere lehenagoak izan ziren, ez zuten ustezko “iraultza” batekin edo “botere-hutsune egoerarekin” zerikusirik.

Eskuineko historiografiak erabiltzen duen beste argudio baten arabera, ezkerre boterera “legez kanpoko moduan” iritsi zen, hau da, hauteskunde-osteko datak errespetatu gabe, oraindik hauteskunderen bigarren itzulia jokatzeko zegoelarik. Hala ere, esan beharra dago, behin-behineko Gobernuburu Manuel Portelak kargua bapatean utzi zuela otsailaren 19an, hauteskunderak pasa eta hiru egun geroago, botere-iragaztea modu egokian egin gabe. Hala, Azañak boterea berehala hartzea beste aukerarik ez zuen izan. Bestetik, Estatu-kolpe zurrumurrak handitzen zihoazen, hori dela eta, lehen egunetan, herri-presio handia egin zuten Herri Frontearen aldekoek. Hala ere, hau ez zen inolako iraultza-saiorik izan, batez ere, Gobernu indarrean ezartzeko berme-asmoz egindako mobilizazioak baizik⁹.

Kasu batzuetan, eskuinak “iraultzaren” ordez, Herri Fronteak boterea modu “esklusiboan” erabili zuela salatzen du. Beraz, puntu honetan, Herri Frontearen aurkakoek, itxuraz, kontraesan bat aurkezten dute, alde batetik iraultza kontrolatu ezin zuen Estatu ahul bat irudikatzen baitute, eta bestetik Estatu gogor ia-polizial bat. Eskuineko politikariak Herri Frontearen Gobernuak bere Gobernu-aldian eskubide politikoak murriztu egin zituela eta alarma-egoera (beraz eskubideen murrizketa) egun kopuru handiz ezarri zutela salatzen dute. Egungo historiografia kontserbakorrak bat

⁸ GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Contrarrevolucionarios...* op. cit., 333-334. or.

⁹ Hala ere, egia da kasu batzuetan, Gobernuak Amnistia dekretua, edo 1934.eko Udalak berrezartzeko dekretua eman aurretik (biak otsailaren 28an), herri mobilizazio batzuek halako Udal batzuk berrezarri edo preso batzuk askatu zituztela. Aspektu hau azpimarratzen du, batez ere, historiografia kontserbakorrak. DEL REY REGUILLO, Fernando: *Paisanos en lucha. Exclusión política y violencia en la Segunda República Española*. Biblioteca Nueva. Madril, 2008, 488-497. or.; eta VILLA GARCIA, Roberto: *España en las urnas. Una historia electoral (1810-2015)*. Catarata. Madril, 2016, 123. or.

3. kapitulua

egiten du ikuspuntu horrekin¹⁰. Hala ere, kontuan izan behar dugu Herri Frontearen garaian, manifestazio eskubidearen kontrako lege berririk ez zela egin. Beraz, askotan alarma-egoerak, bortizkeria-klimari emandako erantzun bat izan zitezkeen, ez Herri Frontearen eskusio asmoen emaitza. Rafael Cruzek dioenez, Gobernua manifestazio eta mobilizazio klima “kontrolatzen” saiatu zen “debekatzen” baino¹¹. Hala ere, kontutan izan behar dugu (hurrengo parrafoetan berresten dugun moduan), askotan indar polizialak ez zeudela ezkerreko Gobernuarekin lankidetzan, batzuen eta besteen arteko ezberdintasun ideologikoa zela eta¹².

Herri Frontearen garaian, bortizkeria politikoak gorantz egin zuen, halere, ez zen, askotan esan izan den moduan ezkerrearen aldekarreko bortizkeria. Egia da Herri Frontearen lehen egunetan, batez ere Portelak Gobernua ziztada batean uzteak nolabaiteko “botere-hutsunea” probokatu zuela, eta egoera hala egoteak bortizkeria handitu zuela. Baina martxotik aurrera, egoera baretzen hasia zenean, Falangek ekin zion atentatuen politika bati, hain zuzen ere, kontrako erantzuna eta horrenbestez, ezinegon-egoera bat probokatzeko asmoz¹³. Arlo honetan, historiografian, agian salbuespena Fernando Del Rey da, zeinaren arabera, martxoko bortizkeria oldea ezkerrek hasi zuen Falangeren kontra¹⁴. Bortizkeria honen aurrean, ezkerreko indarrek ez zuten batera erantzun, adibidez, Alderdi Komunistak legearen tresnen arabera

¹⁰ Adibidez, Fernando Del Reyk, askatasun publikoekiko zuten postura “zorrotza” zela eta, Azañaren zein Casares Quirogaren Gobernuak eskuina “akosatu” egin zutela dio. DEL REY REGUILLO, Fernando: op. cit., 520-521. or. Honen gaineko ikuspuntu gehiago: DEL REY REGUILLO, Fernando (zuz.): *Palabras como puños. La intransigencia política en la Segunda República Española* (158-225. or). Tecnos. Madril, 2001, 224-225. or.; edo ALVAREZ TARDIO, Manuel: “La CEDA y la democracia republicana” in DEL REY REGUILLO, Fernando (zuz.): *Palabras como puños. La intransigencia política en la Segunda República Española* (341-418. or). Tecnos. Madril, 2001, 412-413. eta 417-418. or.

¹¹ CRUZ, Rafael: *En el nombre del pueblo. República, rebelión y guerra en la España de 1936*. Siglo XXI. Madril, 2006, 167-170. or.

¹² Ibid., 176-180. or.; eta PRADA RODRIGUEZ, Julio: “Violencia política y protesta social durante la primavera trágica. Su contribución a la estrategia del “cuanto peor, mejor”” in GONZALEZ CALLEJA, Eduardo; eta NAVARRO COMAS, Rocio: *La España del Frente Popular. Política, sociedad, conflicto y cultura en la España de 1936* (121-137. or.). Rafael Cruzen arabera, Azañaren eta Casares Quirogaren Gobernuak ez ziren “ez bereziki bigunak ez gogorrak” izan, Salbuespena, Fernando del Rey da, zeinen ustez, polizia eta Gobernuaren arteko lankidetzak izan zen “eskubideak murrizteko orduan”. DEL REY REGUILLO, Fernando: op. cit., 520-521. or.

¹³ GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Contrarrevolucionarios...* op. cit., 311-315., 332. eta 388. or.; eta SAZ CAMPOS, Ismael: *Franquismo y fascismo*. Valentziako Unibertsitatea. Valentzia, 2004, 71-72. eta 76. or. Bi egile hauen arabera, Primo de Riverak Falange alderdia talka-indar bihur zedin birmoldatu zuen, eta bere tentsio estrategia eskuinarekin koordinatu zuen; bortizkeria falangistak “izaera sistematikoa eta desegonkortzailea hartu zuelarik”. Hirugarren historiagile batek, Julio Rodriguezek, istilu bortitz guztiak eskuinak probokatu ez zituela badion ere, “etekin politikoa ateratzeko gaitasuna” honek izan zuela dio. PRADA RODRIGUEZ, Julio: op. cit., 125. eta 134-135. or.

¹⁴ DEL REY REGUILLO, Fernando: op. cit., 520., 523. eta 527-528. or. Del Reyren arabera, 1936.eko eskuineko bortizkeria ez zen Estatuak “eskubide politikoak” murrizteko adinako modukoa izan.

erantzuteko deia egin zuen, hain zuzen ere, Azañarekin haustura politikoa gerta ez zedin nahi zuelako; sozialista erradikalen eta anarkisten postura zuzenean erantzutea zelarik¹⁵. Azkenik, askotan aipatzen den beste gai bat, Elizaren kontrako bortizkeria da. Egia baldin bada bortizkeria hori egon bazela, baina batez ere gudan zehar izan zen, hau da, Estatu-kolpeari emaniko erantzun bat izan zen, gehiegizkoa bazen ere, ez honen ondorio. Manuel Alvarez Tardiok eta Roberto Villak egin duten ikerketa baten arabera, Herri Frontearen bake garaian 957 bortizkeria kasu kontatu zituzten, baina hauetako erdia soilik izan ziren kasu larriak¹⁶; eta gaineratu behar denez, Francisco Espinosak eta Jose Maria Garcia Marquezek esaten duten moduan, “Herri Frontearen bake garaian ez zen apaiz bat bera ere hil”¹⁷.

Hildakoei dagokienez, egia da Fronte Popularraren garaian 350 pertsona hil zirela, zeina oso kopuru handia izan zen. Alta, Errepublikako beste garai batzuk (edota lehenagokoak) ere ez ziren oso garai baketsuak, adibidez, 1933.ean 205 pertsona hil ziren¹⁸. Herri Frontearen garaiko hilketa kopurua ezkerrekin identifikatzea eta hau Gobernuaren ardura lotzea batez ere eskuineko bi buru parlamentariok, Gil Roblese eta Calvo Sotelok Parlamentuan eginiko salaketetatik dator¹⁹. Gaur egun jakin badakigu hildako gehienak ezkertiarak izan zirela: Eduardo Gonzalez Callejaren arabera, hildakoen % 42 ezkertiarak izan ziren, % 29 eskuindarrak eta % 23 zehaztugabeak (egile honen arabera, hauetako gehienak klase apalekoak izanagatik, zitekeenez ezkertiarak ziren)²⁰. Jose Luis Martinen arabera, hildakoen % 60 ziren ezkertiarak eta

¹⁵ CRUZ, Rafael: *El Partido Comunista de España ...* op. cit., 269. or.; eta HERNANDEZ SANCHEZ, Fernando: op. cit., 74-75. or. Bortizkeria epeltzeko politika hori Internazional Komunistak gomendatu zuen, beraz, egitate hau, “Errusiatik” iraultza prestatzen zeneko suposizioarekin kontrastean da.

¹⁶ ALVAREZ TARDIO, Manuel; eta VILLA GARCIA, Roberto: “El impacto de la violencia anticlerical en la primavera de 1936 y la respuesta de las autoridades” in *Hispania Sacra* aldizkaria, 132. zkia., 2013.

¹⁷ ESPINOSA MAESTRE, Francisco; eta GARCIA MARQUEZ, Jose Maria: *Por la religión y la patria. La iglesia y el golpe militar de julio de 1936*. Critica. Bartzelona, 2014, 26. or.

¹⁸ AVILES FARRE, Juan: op. cit., 418. or. Europako beste tokietan ere, 20. eta 30. hamarkadetakoa demokrazietan bortizkeria maila altua zegoen, adibidez, Italian, Estatu-kolpe faxistaren aurretikako bi urteetan, 2.500 pertsona hil ziren, tartean 2.000 ezkertiar; eta inori ez zaio bururatzen Estatu kolpe faxista justifikatzea. GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: “La necro-lógica de la violencia sociopolítica en la primavera de 1936” in BAHAMONDE MAGRO, Angel (koord.): *La España del Frente Popular. L'Espagne du Front populaire* (37-60. or.). Mélanges de la Casa de Velazquez bilduma (41-1 lib.). Madril, 2011, 38. or.

¹⁹ Ikuskera hauei eginiko kritika: GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: “La necro-lógica de la violencia...” op. cit., 40. or.; GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Contrarrevolucionarios...* op. cit., 333-334. or.; AVILES FARRE, Juan: op. cit., 418. or. Salbuespena historiografian Fernando Del Rey da, zeinaren arabera, bi politikari eskuindarrak “agian labur geratu ziren”. Hala ere, Del Reyk badio “bortizkeria honek ez duela Estatu-kolpea justifikatzen”. DEL REY REGUILLO, Fernando: op. cit., 528. or.

²⁰ GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: “La necro-lógica de la violencia...” , op. cit., 47-51. or.

3. kapitulua

% 30 eskuindarrak (zehaztugabeen beste % 10 batekin)²¹. Hildakoen eragileei buruz aritzerakoan, kontutan izan behar dugu indar publikoetako kideek eragindako hilketa kopuru handia. Rafael Cruzen arabera, hildakoen % 43 indar publikoek eragin zituzten, % 20,6 ezkertiarrek eta % 17 eskuineko elementuek²². Gonzalez Callejaren arabera, hildakoen % 29,6 eskuindarrek eragin zituzten, % 28,4 ezkertiarrek, eta % 21 Estatuaren indarrek²³. Beraz, arazoa horrela dagoelarik, askotan eztabaida historiografikoa Estatuaren indarrek eragindako hildakoak Herri Frontearen edo Gobernuaren ardurakoak izatean zentratzen da egun. Egia esan, Rafael Cruzi jarraituz, hauetako hildako gehienak nekazalgunean izan ziren (baita ere garai honetan gertatutako sarraskirik txarrena, ekainean Estatu indarrek Albaceteko Yeste herrian 18 pertsona hiltzea), beraz, garai honetako klima politiko bereziari lotuta baino, aurretik zetozen gatazka sozialen jarraipenen emaitza zitezkeen, gehiago Goardia Zibilaren nekazalgatazken aurreko erantzun-psikologiaren emaitza Herri Frontearekin lotutako edozein plan iraultzailerena baino²⁴.

Uztailean izan zen azkenean Estatu-kolpea, 17an hasi zen, gero 18an izan zela popularizatu. Estatu-kolpe honek bi bektore nagusi zituen, alde batetik “militar profesionalak”, Mola eta Queipo de Llano modukoak, asko errepublikano kontserbakorrak izandakoak, Errepublika Gobernu-formaren baino, Herri Frontearen aurkakoak; eta bestetik, *Unión Militar Española* taldean batutako ofizial monarkikoak, ideologia atzerakoiaz blai eginikoak. Beraz, bi bektore hauek trama bakar batean batzeko, asmoak eta akordioak alde aurretik ezarriak egon behar izan ziren (Eduardo Gonzalez Callejaren arabera, militar askok 1936ko martxoaren 8an erabaki zuten Estatu-kolpea ematea “aberria arriskuan balego”, azken egoera hau definitu ez bazuten ere). Emilio Molak ekainaren 2an ezarri zuen uztailaren 17a Estatu-kolperako data moduan. Beraz, aspalditik zeuden asmo horiek finkatuta, Calvo Sotelo hil baino lehenago. Hurrengo egunetan, altxatuek Andaluzia erdia (Sevilla barne), Gaztela-Leon,

²¹ MARTIN RAMOS, Jose Luis: op. cit., 168. or. Rafael Cruzek hildako kopuru txikiagoa ematen du (262) et bertatik hildakoen %56,9 ezkertiarrek ziren, %19 eskuindarrak eta beste %7,2 indar publikoetako kideak. CRUZ, Rafael: *En el nombre del pueblo...*, op. cit., 167-170. or.

CRUZ, Rafael: *En el nombre del pueblo...*, op. cit., 167-170. or. Izan ere, oso zaila da indar publikoak Herri Frontearen “iraultza-proiektuaren esanetara” zeudela argudiatzea, uztailaren 18an euretako gehienak Estatu kolpearen alde lerratu baitziren.

²³ GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: “La necro-lógica de la violencia...”, op. cit., 47-51. or. Gonzalez Callejak, poliziek ezkerreko edo eskuineko militante bezala jarduten zutenean eragindako erailketak, erailketa alderdikoi gisa tratatzen ditu, ez erailketa polizial gisa.

²⁴ CRUZ, Rafael: *En el nombre del pueblo...*, op. cit., 167-170. or. Cruzek aipatzen duen beste datu bat izan zen, batez ere hildakoak Madrilen (non oihartzun-gaitasun handiagoa zegoen) edo nekazal-guneetan izan ziren; gainontzeko industrigune “gatazkatsuetan” lasaitasuna izan zen nagusi.

Aragoiren erdia (Zaragoza, Oska, Teruel eta Jaka hiriak barne), Galizia, Balearrak (Menorca ezik), Oviedo (baina ez gainontzeko Asturias), Errioxa, Araba eta Nafarroa kontrolatzen zuten (Extremaduran Estatu-kolpeak ez zuen arrakastarik izan, baina segituan konkistatu zuten). Nafarroan, Emilio Molak sekulako sarraskia egin zuen, 3.000 pertsona hil zituelarik. Kolpea eman eta egun gutxira bere tropak Gipuzkoan hiru tokitatik sartu ziren: Aritxulegi eta Endarlatzatik Oiartzunerako bidean, Leitza eta Betelurik Tolosalderako bidean, eta Altsasutik Goierriko bidean, Otsaurte, Lizarrusti eta Eitzagarate zeharkatuz.

3.2 Estatu kolpea Beasainen eta lehen egunak

Estatu-kolpea Beasainen, nahiko ustekabean izan zen hartua. Egia zen, CAF fabrikak berehalakoan eten zuela ekoizpena, baina hortik haratago herrian zegoen giroa kontutan izanda, nahiko ustekabekoa izan zen Estatu-kolpea.

Izan ere, egun hartan, jakina da EAJk batzokian jai bat planteatu zuela batzokiaren inaugurazio gisa. Inaugurazio jai horretan, Alfontso Ibaibarriagak esaten duenaren arabera; goi-mailako mitinlariak ekarri zituzten, adibidez Estepan Urkiaga “Lauaxeta” edo Manuel Irujo. Alfontso Ibaibarriagaren arabera, Karlos Linazasoro “Altzeta” zumarragatarra ekartzear ere egon ziren (“Altzeta” fama handiko gizona zen Gipuzkoako jeltzaleen artean), baina Urretxuko gazte abertzaleek (Ibaibarriagak, Arratibel izeneko pertsona bat aipatzen du “Urretxuko mendigoizaleen presidentea zena”) boikota iragarri zuten Linazasoro agertzen bazen; izan ere orduan egurraren sektorean lan gatazka bat martxan zegoen, eta Linazasorok, tailer baten jabea zenak, patronalaren sektorerik gogorrena ordezkatzeko zuen²⁵. Hori zela eta, Urretxuko Mendigoizaleek Linazasororekiko ezinikusia zuten. Ibaibarriagak kontatzen duenaren arabera, Donostiara joan behar izan zen hizlari aldaketa eskatzera²⁶. Ibaibarriagak esaten duenaren arabera, Irujok aurreko egunean Madrildik bidali zuen telegrama bat “egoera

²⁵ Miguel Legarra erreketek eta gipuzkoar militante karlista esanguratsuen arabera, zeinak bere haurtaroan uda batzuk Zumarragan familia honen etxean egin zituen (“nire aitak Karlosekin zuen harremana zela eta”), guda hasterakoan “Karlos, *mendigoizaleen* buru zena, ez zen bat etorri euskal abertzaletasuna Herri Frontearen alde jartzearekin, eta burukideen presioari aurre eginez, alde batera geratu zen”. Esan beharra dago Legarra familia Donostiako burgesiako familia ezagun bat zela, beraz “Altzetak” hauekin laguntasuna izateak, “Altzetaren” giroaz pista bat ematen digu. LEGARRA BELASTEGUI, Miguel: *De la calle Pi i Margall al Tercio de San Miguel (Recuerdos de un requeté)*. Actas argitaletxea. Madril, 2008, 67. or.

²⁶ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

3. kapitulua

nahasgarria zela eta; ekitaldi politikoa bertan behera uztea” eskatzen zuena²⁷. Hala ere, jaialdiaren parte bat egin zuten, Ibaibarriagak dioenez; goizeko ekitaldiak egin ziren: hasierako txiste-kontaketa, Zumarragako aktoreen antzezlanak, inaugurazio-meza eta bazkaria (gogoratu beharra dugu Goierriko Alkartasunaren batzokiak 1935.etik zabalik zeramala, baina orduko giro nahsia zela eta, inauguraziomeza atzeratuz joan zen). Bazkarian heldu omen zen abisua, eta horren ondoren bertso batuk bota zituen “Basarri” bertsolariak, 1935.ean Euskal Herriko Bertso Txapelketa irabazi zuenak. Basarriren bertsoen ostean bukatu zen jaialdia, Ibaibarriagaren arabera, nahiz eta “sekulako jaia prestatua genuen arratsalderako: bertsolariak, txistulariak...”²⁸.

Miren Barandiaranen arabera, Ordiziako Orfeoia ere ekarri izan zuten inaugurazio horretan parte hartzeko. Horrez gain, piano kontzertua eta pilota partidak ere iragarriak zeudela gehitzen du. Miren Barandiaranek esaten digun moduan Agirre, Irujo eta Monzon izan ziren iragarritako hizlariak (beraz, ulertu dezakegu, Ibaibarriagaren gestioen ondoren, Linazasoro “Altzeta” Monzonez ordeztu zutela). Hala ere, ez dirudi Irujok (nahiz eta biak bat egon horretan) inaugurazio jai horretan egon ahal zenik, izan ere, bai Barandiaranek eta bai Ibaibarriagak diote bera izan zela Madriletik ekitaldi politikoa bertan behera uzteko eskatzen zuen telegrama bidali zuena (bien ustez, Irujok abisua Bernabe Aierdiri eman zion)²⁹. Miren Barandiaranen arabera, altxamendua hasi zenaren iragarpenak jende asko atzera bota zuen, izan ere; hasiera baten 200 pertsonak eman omen zuten bazkarira agertzeko izena eta azkenean 100 soilik agertu izan ziren³⁰.

Ekitaldi honetan polemika piztu zuen beste gai bat, apaizaren kontua izan zen EAJ orduan ofizialki alderdi katolikoa izaki, beren batzokia inauguratzeko apaiz baten beharra ikusi zuen alderdiak. Orduko Beasaingo apaiz erretore zen Florencio Aspe oso gaizki ikusia zegoen Beasaingo jeltzaleen aldetik. Alfontso Ibaibarriagak kontatzen duenez, berak Lazkaoko beneditarrak ekartzea nahiago zuen, baina azkenean Bernabe

²⁷ Erdaraz, Ibaibarriagaren testigantzen arabera: “Situación confusa aquí, suspendan los actos políticos”. Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

²⁸ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

²⁹ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 91-93 or.; eta Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

³⁰ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 91-93 or.

Aierdiren iritzia gailendu zen eta Florencio Aspe eraman zuten inaugurazio-jaira³¹. Florencio Aspek jai horretan esker oneko hitzak eman zizkien abertzaleei: Ibaibarriagaren arabera “Euzko Alderdi Jeltzaleari esker erlijio katolikoa Beasainen salbu dago”³². Andoni Sarriegik emandako testigantzaaren arabera, bedeinkatzerakoan “Hemen entregatzen dizuet zuen etxea, gazteriarentzako gauza handi bat egin duzue” esan omen zuen³³. Bederatzi egun geroago falangistek Batzokia okupatu zutenean, hitz berdinak erabili zituen Aspe apaizak falangistek eskatu zioten “bir-bedeinkapenean”.

Gerora, Florencio Asperen guda-osteko jarrera erabat fanatikoa izan zen frankisten alde; gudan garaituak izan zireneko gorroto bitxia erakutsiz, eta euskararen kontrako jarrera nabarmena izan zuelarik. Baina zenbait iturriren arabera, batzokiaren bedeinkapen hori zela eta, nahiko gaizki pasatu omen zuen Florentzio Aspe frankistak sartu eta gutxira. Andoni Sarriegik kontatzen duenez, apaiza preso izan zuten nonbait, Geltokian ala Matias-Enea etxean³⁴. Jose Antonio Egido urrunago joaten da eta Aspe fusilatzeaz egon zirela esatera irizten da³⁵. Jose Vicente Iraola alkate ohiaren arabera, Florencio Aspe ez zuten atxilotu batzokiaren bedeinkapena zela eta, baizik eta gizon bat, Sagarminaga farmaziako langilea, ez atxilotzeko honen aldeko informe onak idaztearren³⁶. (Hala ere nahiko sinesgaitza da hau, kontutan izanik guda ostean Florencio Aspe zenbait salaketa egin zituela eta hainbat pertsonaren aldeko informeak sinatzeari uko egin ziola).

3.3 Borrokaldia eta altxatuen sarrera

Esan bezala, tropa frankistak uztailaren 27an sartu ziren Beasainen. Estatu-kolpea gertutako eta egun gutxira sartu baziren ere, sarrera ez zitzaien erabat erraza izan. Baina ez zen, batzuetan errepikatzen bada ere, “bertakoen eta kanpokoen” arteko

³¹ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

³² Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia. Gazteleraz aipatzen du Ibaibarriagak: “gracias al Partido Nacionalista Vasco la Religión Católica está a salvo en Beasain”:

³³ Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6. Esaldia gazteleraz esan zuen Aspek. Alfontso Ibaibarriaga bat dator horrekin: “Aquí os entrego vuestro hogar” esan omen zien. Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

³⁴ Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6.

³⁵ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 92-95. or.

³⁶ IRAOLA, Jose Vicente: “Informe de Jose Vicente Iraola” in BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi* (351-353. or.). Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005, 352. or.

3. kapitulua

guda bat izan. Guda Zibila guda ideologiko bat izan zen, eta Beasainen, berez ezkerreko gehiengo bat zuelako Francoren kontrako gehiengo bat izanagatik ere, altxatuen aldeko jendea ere bazegoen. Euskal Herrian ere, guda hau batez ere ideologikoa izan zen (ezin dugu ahaztu gipuzkoarren %33ak eskuinaren aldeko bozka eman zuela 1936ko otsaileko hauteskundeetan; ezta ere, hauteskunde horietan Euskal Herrian aukeratutako diputatuen herena -24tik 8-eskuindarrak zirenik); nahiz eta, ondorioei dagokionez, euskararen kontrako erasoak eta Euskal Herriaren berezko nortasuna suntsitzeko puntuan uztea ekarri zuen altxatuen garaipenak.

3.3.a) *Beasain Defentsa-Komitearen pean*

Beasaini dagokionez, Beasainen ere bazegoen erreketete talde bat antolatuta, gerora, Gipuzkoako Oriamendi tertzioaren Loinazko San Martinen Konpainia (IV konpainia) osatu zuten. Talde honek, Aitor Garmendia Goitiak kontaktzen digunez, Antzizarreko tuneletan burutzen zituzten entrenamenduak “eta han, gero herrian pisua izan zuten pertsona asko ibiltzen ziren”³⁷ (ez da harrigarria, kontuan harturik eskuinaren aldetik karlistak izan zirela indar nagusia, ez falangistak). Arantza Ibaibarriagak esaten digun moduan “Beasainen ere bazegoen karlista talde bat altxatuak herrira noiz sartu itxaroten”³⁸. Talde hau, nahiz eta erreketeten barruan kokatu, *oraindik* ez zen Oriamendi tertzioaren IV konpainia, Loinazko San Martinen Konpainia. (Oriamendi tertzioa 1936ko urrian sortu zen³⁹). Hala ere, unitate autonomo honetan ibili ziren erreketeten eta Loinazko San Martinen Konpainiaren arteko jarraikortasuna nahiko argia izan zen, hainbestearino ezen unitate autonomo hau entrenatzen zuen Jesus Ibañez Arcajo⁴⁰ (burgostarra jaiotzez, baina donostiarra bizitzez) Loinazko San Martin Konpainiako lehen kapitaina izan zen⁴¹. Talde honek ere armak erabiltzen zituen, Alfontso Ibaibarriagaren arabera, Martin Esnaolaren ferreterian gordetzen zituzten armak⁴².

³⁷ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

³⁸ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

³⁹ AROSTEGUI, Julio: *Combatientes requetés en la Guerra Civil Española (1936-1939)*. La esfera de los libros. Madril, 2013, 461-462. or.

⁴⁰ Zalantzan egon gara persona honen izena Jesus Ibañez Orcajo edo Jesus Ibañez Arcajo ote zen (iturri ezberdinetan bi izendapenak agertu izan dira). Bigarren hura lehenetsi dugu, bere erreketete fitxan (http://www.fpev.es/images/jcgg/JCGG_F_2020.pdf loturan ikusgarri), “Orcajo”-ren gainean “Arcajo” jartzen duelako, zuzentze asmoz. Eskelan ere, “Jesus Ibañez Arcajo” azaltzen zaigu. Bestetik “Jesus Ibañez Areajo” ere ikusi izan dugu nonbait aipatua.

⁴¹ Jesus Ibañez Arcajoren erreketete fitxa Fundacion Popular de Estudios Vascos delakoaren weborrialdean ikus daiteke, http://www.fpev.es/images/jcgg/JCGG_F_2020.pdf loturan (bilatzailean, okerbidez “Jesus Ibañez Areajo” jartzen badu ere). Ibañez Orcajo 1937ko apirilaren 6an zendu zen, Aretxabaletako

Jakina, Beasaingo zilegizko agintea ere gudarako prestatzen hasia zen. Hala ere, ikusiko dugun bezala prestaketa handirik egiteko betarik ez zuen izan, izan ere, Donostian uztailaren 20an militarrek altxatu izan ziren ostean, hara bideratu izan baitziren defentsa-indar gehienak, tartea jada Gasteiz erasotzeko prest Eibar eta Arrasate artean zeuden 3.000 gizonak⁴³. Haatik, nolabaiteko defentsa prekario bat antolatzea izan zuten. Beasaingo Udalak, Defentsa Komite bat osatu zuen (hala ere, kontutan izan behar dugu Defentsa Komite honi buruzko informazio ia dena, Jose Luis Guridik idatzitako txostenetatik edota ezkerreko pertsonen kontrako epaiketetatik datorrela; hots, dokumentazio frankista dela, beraz kontuz hartu beharrekoa dela). Udal Komite horren buru Ignacio Cortes Ceballos izan zen, dendaria eta *Izquierda Republicana* alderdiko burua. Cortesek arrazoi honengatik sei urtetako kartzela zigorra jaso zuen (hasiera batean 30 urtekoa zen zigor hori, baina auditorreak sei urtetan utzi zuen). Esan beharra dago, epaiketa horretan Cortesek ukatu egin zuen bera Komiteko lehendakaria izan zenik eta bere lana “telefonoa hartzera mugatu zela” esan zuen⁴⁴. Lehendakari-ordea, hainbeste iturritan agertzen ez bada ere, Severiano Azpeitia Arcelus izan zen, *Izquierda Republicanakoa* baita, orduko alkateordea⁴⁵. Azpeitiak ere ukatu egin zuen bera “indar gorrien antolatzailea” zenik, eta berak zioenez, “gau batean, Goardia Zibileko kaporalak eta lau agente nire etxera etorri ziren nire beharra zutela esanaz”, bere arabera, horrela sartu zuten errepublikanoen defentsan⁴⁶. Beste kideak hauetxek izan ziren: Doroteo Aguado Larriche, Juan Aramburu Irizar, Candelario Aramburu Mugica⁴⁷, Justo Arnaez Rodriguez, Marcelo Arnaez Rodriguez, Bernabe Ayerdi Beobide, Severiano Azpeitia

frontean zauritua izan ostean. Beasaingo Udal Artxibategia; 1109 karpeta, 02 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxibategia; 0543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

⁴² Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarriketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁴³ BELDARRAIN, Pablo: *Historia crítica de la guerra en Euskadi (1936-37)*. Intxorta Kultur Elkarte. Oñati, 2012, 28. or. Tartean, beasaindar batzuk ere Donostiara joan ziren hango matxinada zapaltzera. Euren kontrako epaiketetan, Antonio Lorenzo Sanchez, Santiago Peñaricano Amundarain, Valentin Gomez Arce eta Jose Sarriegui Aldanondo akusatu zituzten Loiolako koartela asaltatzeaz. Epaitegi frankisten dokumentazioa literaltasunean sinestearekin kontuz ibili behar bada ere, akusazio hori bati baino gehiagori ezartzeagatik, posible ikusten dugu beasaindar batzuk hara borrokatzera joan izana (nahiz eta ezinbestean ez dugun esan nahi hiru hauen kontrako akusazioa zuzena edo egiazkoa zenik).

⁴⁴ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3044-40 kausa, Ignacio Cortes Ceballosi dagokiona. Bere epaiketetan azaltzen den arabera, behin altxatuek Beasain hartua, Cortes Ordiziara joan zen eta Ordiziako Komiteko kide ere izan zen, lau egunez, altxatuek Ordizia hartu arte.

⁴⁵ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2413-41 kausa, Agustin Chapartegui Goenagari dagokiona; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4215-42 kausa, Severiano Azpeitia Arcelusi dagokiona.

⁴⁶ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4215-42 kausa, Severiano Azpeitia Arcelusi dagokiona.

⁴⁷ Zenbait iturritan, pertsona hau, okerbidez, “Sandelio Aramburu Mugica” bezala aipatzen dute, adibidez: Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 14922-39 kausa, Telesforo Gomez Arceri dagokiona

3. kapitulua

Arcelus, Agustin Chapartegui Goenaga, Joaquin Echeverria Mugica, Miguel Garbayo Larrain, Victorino Garcia Perez⁴⁸, Restituto Garcia Segura⁴⁹, Telesforo Gomez Arce, Valentin Gomez Arce, Teodomiro Gonzalez Alonso, Manuel Gorrochategui Urrebazo, Alfonso Ibaibarriaga Badiola, Santiago Juanes Duque, Bernardo Larrañaga Guereñu, Segundo Lozares Escobar (sic)⁵⁰, Constantino Maiz Maiz, Aurelio Mateo Navazo, Jose Miralles Fando, Cecilio Sarriegui Aldanondo eta Manuel Verdugo Perez. Hala ere, ditugun iturrien arabera, zerrenda luzeagoa izan zitekeen⁵¹. Komitearen idazkari lanetan ibili zena, Aurelio Mateo Navazo izan zen, honek “baleak eta salbokonduktuak” sinatzen zituen antza denez⁵². Udal epaile lanetan, Joaquin Echeverria Mugica aritu izan zen, Joaquin Gaytan de Ayala epailea kanporatu (eta atxilotu) ostean (Joaquin Echeverria berak bere epaiketan esan zuenez, “galdeketak batez ere Goardia Zibilaren kaporalak (Carlos Gonzalezek) egiten zituen”)⁵³.

⁴⁸ Zenbait iturritan, pertsona hau, okerbidez, “Victor Garcia Perez” bezala aipatzen dute, adibidez, Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 15515-39 kausa, Rafael Polo Carrascal dagokiona.

⁴⁹ Pertsona honen izena, Jose Luis Guridik, Komitearen kideen zerrendarekin txosten bat idazterakoan, okerbidez “Restituto Garcia Perez” idazten du (Beasaingo Udal Artxiboa. 525 karpeta, 36 dokumentu-sorta). Hala agertzen da baita, adibidez, Manuel Gorrochategui Urrebazoren kontrako kausan (Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3079-39 kausa, Manuel Gorrochategui Urrebazori dagokiona). Beste iturri batzuetan, “Restituto Garcia Segurola” bezala agertzen da, adibidez: Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4215-42 kausa, Severiano Azpeitia Arcelus dagokiona. Hala ere, bere kontrako kausa tarteko, jakin badakigu Restituto Garcia Segura dela (Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 14527-38 kausa, Restituto Garcia Segurari dagokiona).

⁵⁰ Jakin badakigu persona honen bigarren abizena “Escolar” zela eta ez “Escobar”. Bere anai Jose Maria ELAko Beasaingo ordezkaria zen.

⁵¹ Datu hauek bi iturri ezberdinetatik atera ditugu: Alde batetik, 1941ean, orduko alkate frankista zen Jose Luis Guridi Aramburuk sinatutako dokumentu bitan (1941ko urtarrilaren 25ean eta 1941ko ekainaren 24an) agertzen dira. Jose Luis Guridik Donostiako 4. Epaitegi Militarreko epaile-instruktoreari erantzunez ematen dio zerrenda hau. Guridiren arabera, “orduaz gauzak argi ez zeudenez, eta gorriak oso antolatua ez zeudenez (...) oso zaila da zerrenda zehatz bat egitea eta lehendakariarena ezik, beste ardurarik zehazte ezinezkoa da”. Beasaingo Udal Artxiboa. 525 karpeta, 36 dokumentu-sorta. Bestetik guda-kausak ditugu, Ferrolgo Artxibo Militarrean topatutakoak, dokumentu hauek edo honen berdinak erabili zutenak, batzuk aipatzearen: Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2413-41 kausa, Agustin Chapartegui Goenagari dagokiona; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3079-39 kausa, Manuel Gorrochategui Urrebazori dagokiona. Bada beste dokumentu bat, Goardia Zibilak eta FET-JONSen informazio zerbitzuek erabiltzen dutena, non karguak (lehendakaria: Ignacio Cortes, lehendakariordea: Severiano Azpeitia, eta epailea: Joaquin Echeverria) zehaztuta dakartzan, baina dokumentu honetan, komitekide baten izena, Teodomiro Gonzalezena ez da agertzen. Azken dokumentu hau, Severiano Azpeitiaren eta Rafael Poloren kontrako kausetan erabilia izan da. (Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4215-42 kausa, Severiano Azpeitia Arcelus dagokiona; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 15515-39 kausa, Rafael Polo Carrascal dagokiona).

⁵² Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 976-38 kausa, Aurelio Mateo Navazori dagokiona.

⁵³ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 1722-38 kausa, Joaquin Echeverria Mugicari dagokiona.

Esan beharra dago kargu hauek –lehendakaria, lehendakariordea, idazkaria, Udal-epailea...- nahiko “formalak” zirela; geroago Beasaingo antifrankistek, epaituak izan zirenean, benetako antolatzaileak edo administrazioaren eta ordena publikoaren bizkarrezurra beste batzuk izan zirela baitiote. Kasu horretan, gehienek Carlos Gonzalez Garzon Beasaingo Goardia Zibileko postuko burua (izenez, edo “Goardia Zibileko kaporal bat” esaldiaz) edo Antonio Menaza Bermudez sozialista aipatzen dute; eta lekuko bezala deituak izan ziren eskuindar batzuek, arduradunen multzo horretan Manuel Gorrochategui Urrebazo errepublikanoa sartzen dute. Kausaren batean, Victorino Garcia Perez ere arduradunen talde horretakotzat jotzen dute⁵⁴.

Ikusten dugun bezala, nahiz eta ezkerreko elementuen presentzia nabarmena izan (tartean, Komiteko lehendakari Ignacio Cortes, Severiano Azpeitia alkateorde errepublikanoa eta Doroteo Aguado zinegotzi sozialista), abertzaleak ere bazeuden Komite honetan. Honek erakusten du Beasainen behintzat, jeltzaleen konpromezua hasieratikoa izan zela, Estatutuarekin zer gertatzen zen itxaron gabe⁵⁵. Alfontso Ibaibarriagaren arabera, Komitea uztailaren 18an bertan eratu zen, eta EAJkoak hurrengo egunean joan ziren laguntza eskaintzera. Ibaibarriagaren ustez eztabaida “laburra baina gogorra” izan zen, “kapa beltzak” (sotanak) tartean zeudela eta (agian Bernabe Aierdi alderdiko ordezkariari eginiko erreferentzia bat da, izan ere, aipatzen dugun elkarrizketan Ibaibarriagak beti aipatu izan du Aierdi erlijioarekiko hurbileko bezala; bai 1931ko hauteskundeak egin zirenean eskuinarekin koalizioa egitea horrela justifikatu zuelako, bai Florentzio Asperen gertutasunagatik eta abarregatik). Ibaibarriagaren arabera, Beasaingo EAJk hartutako erabaki hori Gipuzkoako EAJren baimenarekin edo oniritziarekin izan zen, “19an bertan Donostian Ander Arzelusekin egon nintzen eta hark esan zidan Alderdiak jada Errepublikarekin joateko erabakia hartu

⁵⁴ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2152-39 kausa, Victorino Garcia Perez dagokiona.

⁵⁵ Estatutuaren afera hau egile askok EAJk gudan zilegitasun errepublikanoarekin bat egitearen erabakiarekin lotzen dute. Argudio honen arabera, EAJ eskuin totalitarioaren eta Estatutua eman zezakeen baina erlijioaren aurka zegoen ezkerrearen artean zalantzati izan zen (pragmatismo nazionalak alde batera mugiarazten zuen, baina bestetik, “erlijio eta ideologia” arloan hurbilago omen zeuden eskuindarregandik). Beste batzuen arabera (tartean egile jeltzaleak), EAJ jada eskuinaren biraketa autoritarioarekin distantziatu egin zen, hauteskundeak baino lehenago baita ere, beraz, alderdi honen “demokratismoa” frogatua zegokeen, Estatutuaren afera alde batera utzita. Gure ustez, bi teoriak dituzte argudio sendoak eta biek azaltzen dute egiaren parte bat: egia zen EAJ jada zentrorantz bidea hasi zuen alderdi bat zela, eta autoritarismotik eta totalitarismotik guztiz urrundua zegoela, baina horrek ez zuen esan nahi Fronte Popularra bezalako koalizio bat (gogoratu programa moderatua zuela, baina alderdi erradikalak ere kide zirela) bidelagun atsegina zitzaionik; eta orduan koalizio honek ordezkatzan zuen legedia errepublikanoa (guda beraz, ideologikoki oso polarizatua zegoen). Eztabaida hau ez da gure esparrukoa, eta hemen ez dugu bertan sakonduko, soilik Beasaingo tokiko kasua azaltzea da gure asmoa.

3. kapitulua

zuela⁵⁶. Miren Barandiaran historialariak bertsio hau baieztatzen du, Barandiaranen ustez, 18 eta 19 arteko gauean izan zen EAJk faxismoaren kontrako posizioa finkatu zuen eguna⁵⁷. Beste iritzi bat ematen digu Guillermo Ugarteren seme Zesareo Ugartek, orduan herriko medikua zenak. Ugartek Jose Antonio Egidori esan zionaren arabera, EAJ ordura arte oso pasiboa zen, eta Beasaingo hilketek mugiarazi zuten Errepublikaren alde lerratzer⁵⁸.

Komitearen lehen ekintzetako bat, Altsasutik zetozen errefuxiatuei ostatu ematea izan zen (Altsasu uztailaren 20an hartu zuten Cayuelaren tropek, bertan errepresio gogor bat burutuz). Guda ostean, Goardia Zibilak txosten batean esan zuen Angel Artigas izeneko gizon batek tren batean bildu zituela Altsasutik Beasainera zetozen errefuxiatuak⁵⁹. Bestalde Marcelo Arnaezi errefuxiatu horiei ostatu ematearen arduradun izatea leporatu zitzaion bere kontrako epaiketan⁶⁰. Egon zen baita ere Altsasutik etorrira Beasain armaz defendatu zuenik, adibidez, Jose Garcia Atuñedo izeneko pertsona bat⁶¹.

Beste batetik, Beasaingo Udalak atxiloketa batzuk egin zituen herriko eskuindarren artean. Errepresio politikoa Guda Zibilean bi aldeetan eman izan zen, ez dago hori zertan ezkutatzerik (hori ezkutatzeak bestetik errebisionismoari on egiten baitio). Hala ere, esan beharra dago, ez koantitatiboki, ez koalitatiboki errepresioa ez zela izan bi aldeetan berdina, ezta bere motibazioak ere. Gaur egun, jakin badakigu, errepresioa ikertu dutenen ikerlariei esker batez ere, Guda Zibilean eman zen errepresioaren inguruko koadro orokor bat. Errepresioaren teoriko, ikerlari eta historialariek ondo bereizten dituzten bi aldeetako errepresioak, “frankistena” edo “errepresio urdina” eta bestetik Errepublikaren zilegitasunaren aldekoena, Herri Frontea gutxi-gora-behera babesten zuten taldeena, “errepresio gorria”; bai koantitatiboki (zifren aldetik), zein errepresioa egiteko moduaren aldetik, zein izan zituzten arrazoen

⁵⁶ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁵⁷ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 91-93 or.

⁵⁸ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 92. or. Zesareo Ugarte ezin dezakegu EAJren kontrako aurreiritziak dituen pertsonatzat hartu, frankismo ostean EAJ berraktibatu zuen taldean egon baitzen.

⁵⁹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 1238-38 kausa, Angel Artigas Arini dagokiona.

⁶⁰ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 2613-37 kausa, Marcelo Arnaez Rodriguezi dagokiona.

⁶¹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 268-37 kausa, Jose Garcia Atuñedori dagokiona.

aldetik⁶². Ezin dugu bidezidorrik hartu eta alde bateko errepresioa existitu izan zela soilik esan (ez baita egia) edo historia manikeoa egin; baina ez da onargarria ezta ere “hura sarraski izugarri bat izan zen” bezalako esaldi inperzonalak erabiltzea, edo “bi aldeek krimenak egin zituzten” bezalako topiko sasi-orekatzaile (eta beraz, desitxuratzaila) tranpatiak erabili. Alde batetako zein besteko errepresioa aztertu behar da, bien arteko ezberdintasunak zeintzuk izan ziren ondo jakiteko, eta erantzukizunak ondo zehaztu ditzagun⁶³.

Francisco Espinosa Maestreren arabera, “errepresio urdinak” bere jatorriak Estatu-kolpean izan zituen, Errepublikaren kontrako altxamenduan. Praktikan, Estatu frankistaren beste arma bat izan zen. “Bortizkeria gorriak”; ordea, bere jatorria Estatu-kolpearen kontrako erantzunean izan zuen jatorria, eta nolabait, Estatu-kolpeak eta honi emandako erantzunak ekarri zuten erradikalizazio politikoaren ondorioz⁶⁴ izan zen errepresioa izan zen. Espinosa Maestreren arabera, “bortizkeria gorria” ez zen izan Gobernu errepublikanoak berariaz erabili zuen arma bat, baizik eta botere errepublikanoaren alde (nolabait) zeuden talde ezberdinek euren helburuen interpretazioaren arabera erabilitako arma bat, zeina Gobernu errepublikarrak ez zuen bultzatu. Are gehiago, Francisco Espinosaren arabera, Gobernu errepublikanoak, hilabete batzuk pasatuta, gutxi-gora-behera halako bortizkeria kontrolagabea geratzea lortu zuen (geratzeko asmoa baitzuen), Francoren aldeak ordea, bere “amorrugarbitzailea” ez zuen geratu ezta guda bukatuta ere; izan ere, honen helburua ez baitzen

⁶² Bortizkeria edo errepresio “urdina” eta “gorria” Francisco Espinosa Maestrek koordinatutako *Violencia roja y azul. España 1936-1950* liburutik hartu dut. ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950*. Critica.artzelona, 2010.

⁶³ Adibide bat jartzearen, arlo koantitatiboari begiratuko diogu. Francisco Espinosa Maestreren arabera, nahiz eta errepresio frankistaren zifra osoak jakiteko moduko ikerketa oraindik bete ez egon; frankistek gutxienez 130.199 pertsona hil izan zituzten, eta errepublikanoek (hauen errepresioaren zifrak hobeto ezagutzen dira, honen aztarnak ezabatzen interesaturiko diktadurarik egon ez zelako), 49.272. Hau konparatzekoa da Ramon Salas Larrazabal historiagile frankistak esandakoarekin, zeinaren arabera, frankistek 57.808 pertsona hil zituzten eta errepublikanoek 72.337. ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “La represión franquista: un combate por la historia y la memoria” in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950* (15-78. or.). Critica.artzelona, 2010, 15. eta 77-78. or.

⁶⁴ Hona hemen kolpisten paradoxa: Behin eta berriz esan zuten Estatu-kolpea “iraultza saihesteko” zela, bana 1936ko udaberrian eta uda hasieran Espainian ez zegoen iraultzarik; hain zuzen ere, Estatu-kolpeak probokatu zuen iraultza Gudaren hasieran Errepublikaren alde geratu ziren zonaldeetan. Honez gain, bigarren paradoxa bat azaltzen zaigu: Francoren erregimenaren propagandisten ustez edota frankisten zama historikoa arindu edo honen historia zuritu nahi duten kazetariarentzat, Errepublika jada “Moskuk” kontrolatua zen, hain zuzen ere, SESBek Espainian eskusartzeko asmorik ez zuenean. SESBek Espainian esku sartzea Estatu-kolpeak eta gudak ekarri zuten, ez beste ezerk (hau konparatu behar da gudaren aurretik Italiarekin tratuetan zebiltzaten altxatuen jarrerarekin, Estatu-kolpea eman aurretik ere, Italiaren babesa paktatu baitzuten).

3. kapitulua

soilik guda irabaztea, baizik eta Errepublika eta honen aztarna guztiak (bere jarraitzaileak barne) betirako Espainiatik ezabatzea, berriz esperientzia errepublikano eraldatzailerik errepikatu ez zedin⁶⁵. Bestetik Julio Prada Rodriguezen arabera, 1936ko uztailaren aldetik, zonalde errepublikanoan, nolabaiteko “kantonalismoa” eman zen, hau da, antolaketa falta ez soilik hierarkikoa, baizik eta geografikoa (hilabete batzuez tokiko komiteak edota alderdi bakoitzeko tokiko sekzioak toki horretan jaun eta jabe egin zitezkeen, Gobernuaren edota are bere alderdiaren gaineratik)⁶⁶. Jose Luis Ledesma, bi bortizkerien artean lau ezberdintasun handi ezartzen ditu: alde batetik koantitatiboa (frankisten bortizkeria askoz handiagoa izan zen), eta bestetik jomugen nolakotasuna: “bortizkeria urdinak” Errepublikaren aldeko edo ezkerreko militantek zituen jomugan, batez ere masatakoak, hauek garbitzearen bidez, ideia errepublikarrak desagerraraziko zirelakoan. “Bortizkeria gorriaren” jomugan ordea, goi-mailako pertsonak izaten ziren, batez ere “aurreko ordena” sozialaren identifikatutako pertsona “nabarmenak” (eskuineko zinegotziak edo diputatuak, jabeak, enpresetako arduradunak, apaizak eta abar). Klase-izaera faktore bat bihurtu zen, beraz⁶⁷; baina Jose Luis Ledesma berak dioen moduan, “ez zegoen Fronte Popularraren aldetik bere etsaia “garbitzeko” asmorik, ez plan sistematikorik”⁶⁸ (Julio Prada Rodriguezek honi ñabardura batzuk jartzen dizkio. Bere arabera, nahiz eta plan sistematikorik ez egon tokiko komite ezkertiarrek “iraultzaren etsai” zirenak jomugan jartzen zituzten eta errepresioa “iraultzaren aldeko” tresna bezala ikusten zuten)⁶⁹. Eta honek hirugarren ezberdintasunera garamatza: “errepresio urdina” batez ere “goitik” agindutako zerbait izan bazen ere (nahiz eta “eskala urdinaren” beheko mailetan militante falangista edo karlista batzuek askotan “goitikako” aginduen beharrik behar izan ez etsaia garbitzeko, eta are agindu horiei aurrea zein gaina hartu; “goitikako” instantzien plan garbitzaile bat egon bazegoen); “errepresio gorria” ez zen halakorik izan, edo ez bakarrik; batez ere, “behetik” hasi zen

⁶⁵ ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “Introducción” in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950* (8-13. or.). Critica. Bartzelona, 2010, 8-11. or. Espinosa Maestren arabera, Francoren errepresioaren neurriak hain izan ziren gogorak, ezen gudaren bukaerak ez zuela inolako ezberdintasunik suposatu. Bestetik, kontuan izan behar dugu, Emilio Molaren kolperako instrukzioek garbi ezartzen zutela “esterminioa” kolpearen ezinbesteko tresna bezala.

⁶⁶ PRADA RODRIGUEZ, Julio: *La España masacrada. La represión franquista de la guerra y posguerra*. Alianza argitaletxea. Madril, 2010, 396. or.

⁶⁷ LEDESMA; Jose Luis: “Una retaguardia al rojo” in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950* (147-247. or.). Critica. Bartzelona, 2010, 176-177. or. Tesi honekin bat egiten du Julio Prada Rodriguezek: PRADA RODRIGUEZ, Julio: op. cit., 403. or.

⁶⁸ LEDESMA; Jose Luis: op. cit., 200-201. or.

⁶⁹ PRADA RODRIGUEZ, Julio: op. cit., 402-403. or.

bortizkeria bat izan zen, gertatzen zenerako, instantzia ofizialek edo egiturek hura “baimendu” –baina gehienetan, ez bultzatu- egin zutelarik; nahiz eta tokian-tokian edo txitean-pitean erakunde iraultzaile batzuen egiturek errepresio horren ardura nagusiak euren gain hartu. Azkenik, laugarren ezberdintasun mota dugu: “errepresio urdina” ez zen guda bukatu artean bukatu, eta guda bukatuta ere jarraitu egin zuen gerra-ondoko lehen urteetan. Errepresio gorriak, ordea 1936.eneko uda izan zuen klimax gisa, hortik aurrera erabat jaitsi zen; batez ere, erakunde iraultzaileek hura bukatzeko interesa erakutsi zutelako⁷⁰. Izan ere, Errepublikaren aldean Gobernuko zenbait pertsonalitatek bortizkeria hura gera zedin deiak egin zituzten (Azañak, edo Indalecio Prietok adibidez), frankisten kasuan ez zen egongo inolako deirik bortizkeria mugatze aldera, eta ezta ere, Errepublikaren aldeko gunean gertatu bezala, erakunde erradikalen komunikaturik non bidegabekeria heriotz-zigorraz zigortuko zela aldarrikatuz, edota norbere aldeko erakundeek erabilitako gehiegikerien kontrako epaiketarik⁷¹. Julio Prada Rodriguezek bosgarren ezberdintasun bat ezartzen digu: nahiz eta bi aldeek euren burua “erasoa” bezala ezarri, eta aurrekoa “erasotzailea” balitz bezala (altxatuentzat iraultzak “ordena erasotzen” zuen, beraz, ordenaren izenean “defendatzeko eskubidea” zegoen; ezkertiarrentzat, faxismoak edo militarrek Errepublika edota “herria” erasotu zituzten), zilegitasun bakar bat zegoen 1936ko uztailaren 18an: Gobernu errepublikarrarena, hautsontzietatik ateratako Gobernuarena, honek baitzuen legez eraso eta erasotzailea nortzuk ziren markatzeko tresna demokratikoak⁷². Mikel Aizpurrentzat, bere Hernaniko lanean, “errepresio urdinak” hiru helburu zituen: ordura arte neutrala zen jendea matxinadaren alde jartzea, gobernu errepublikazalearen aldekoak geratzea eta atzegoardian mugimendu berririk sor zedin ekiditea. Beraz, Aizpurrentzat, altxatuen gerra operazioak eta errepresio urdina bereiztezinak ziren⁷³.

Beasainen ezkerak eginiko atxilotetek, herriko eskuindar ezagunei eragin zien. Atxilotutakoak; Justo Aguado Baza, Martin Aramburu Urteaga, Epifanio Arguiñano Arzoz, Rufo Artolain Gaztañategui, Eusebio Asla Lapart, Pablo Chinchurreta Amundarain, Francisco Ezquiaga Beracoechea, Florencio Gallego Saez, Joaquin Gaytan de Ayala Belarrosa, Antonio Hernando Villahoz, Daniel Inchausti Dorronsoro⁷⁴, Juan

⁷⁰ LEDESMA; Jose Luis: op. cit., 202-209. or.

⁷¹ PRADA RODRIGUEZ, Julio: op. cit., 394-395. or.

⁷² Ibid., 403. or.

⁷³ AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIOZOLA, Jon: *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Alberdania eta Hernaniko Udala. Hernani, 2007, 99-100. or.

⁷⁴ Pertsona hau, Ataunen jaioa, Bilbon bizi zen. Ataunen atxilotu zuten.

3. kapitulua

Jauregui Amiano, German Martin Olmedo, Ismael Mateos Navazo (sic)⁷⁵, Jose Mendia Lasa, Enrique Montejo Zarate, Fermin Perez Martinez, Miguel Quintas Fernandez eta Luis Zubiaga Imaz⁷⁶ izan ziren; hemeretzi guztira. Hauetako batzuk behintzat gauez atxilotu zituzten⁷⁷. Hemeretzi pertsona hauek, orduko Udal-kartzelan izan zituzten preso, Udal-eskolen eraikinean. Beste sei pertsona; Micaela Arrieta Ayestaran, Martin Esnaola Gorostidi, Candido Iraola Corta, Abundio Montejo Zarate, Fermin Montejo Zarate eta Francisco Unzueta Jauregui etxeko zaintzapean utzi zituzten⁷⁸. Ikusten dugun bezala, atxilotuen artean, gehienak karlistak izan ziren; Zirkuluko kideak; tartean alkate izan zen bat (Martin Esnaola), zinegotzi izan ziren batzuk (Rufo Artolain, Eusebio Asla, Francisco Ezquiaga, Francisco Jauregui eta Jose Mendia), erreketen kapitaina izan zen Epifanio Arguiñano; eta baita ere erreketen bezala ibili izan ziren batzuk (Justo Aguado Baza, gudan hil zena, adibidez). Juan Unanuaren arabera “atxilotutako gehienak Zirkulu Karlistan ibiltzen zirenak izan ziren”⁷⁹. Atxilotutako gehienek, errepublikanoen kontrako epaitegietan lekuko “fidagarri” bezala aritu zirenek (euren ideologia eskuindarra zela kontutan izaki, ezkertiarren kontrako “lekuko” gisa deituak izaten ziren maiz) epaiketa horietan uztailaren 21ean atxilotuak izan zirela eta uztailaren 27an, altxatuen tropak Beasainen sartu ziren egunean izan ziren askatuak Hala ere, Estatu-kolpea eman zutenen tropak sartu baino lehenago atera ziren, nahiz eta horietako baten batek, Epifanio Arguiñanok kasu “tropa nazionalak (Altxatuek) askatu ninduten” esan, egia ez zena⁸⁰. Uztailaren 21an sartu \leftrightarrow uztailaren 27an atera eskema horrekiko zenbait salbuespen egon ziren; adibidez Ataunen atxilotua izan zen Daniel Inchausti uztailaren 19an izan zen atxilotua⁸¹, eta Joaquin Gaytan de Ayala ordura arteko Udal-

⁷⁵ Pertsona honen lehen abizena “Mateo” zen, ez Mateos.

⁷⁶ Pertsona hau Amorebietan bizi zen. Olaberrian atxilotu zuten. Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3044-40 kausa, Ignacio Cortes Ceballosi dagokiona.

⁷⁷ Hauxe dugu adibidez, Rufo Artolain Gaztañateguiaren kasua. Juan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-5.

⁷⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 525 karpeta, 38 dokumentu-sorta. Kasu honetan ere, gure iturria Jose Luis Guridi Aramburu alkate frankistak sinatutako dokumentu bat da. Dokumentu hau 1940ko maiatzaren 24an sinatu zuen, Donostiako 10. Epaitegi Militarrek hala eskatuta. Guridik egindako beste erlazio hori, Beasaingo Defentsa Komiteko lehendakari zen Ignacio Cortes Ceballosen kontrako kausan erabiltzeko eskatu zuen epaitegi militarrek eta kausa horretan azaltzen da (Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3044-40 kausa, Ignacio Cortes Ceballosi dagokiona).

⁷⁹ Juan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-5.

⁸⁰ Victorino Garcia Perezen kontrako kausan lekuko bezala ari zela esan zuen hori. Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2152-39 kausa, Victorino Garcia Perezari dagokiona.

⁸¹ Daniel Inchausti Angel Zufiaurre, Eugenio Etura eta Felipe Bueno beasaindarrek atxilotu zuten, euren epaiketan deklaratu zutenaren arabera, “Beasaingo Goardia Zibileko kaporal baten (Carlos Gonzalez Garzon) aginduz”. Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2110-38 kausa, Eugenio Etura Berasateguiri dagokiona.

epailea, uztailaren 22an Astigarretan⁸². Bazeuden baita lehenago atera zirenak: Enrique Montejo kasu, uztailaren 24an atera zena⁸³, edo Rufo Artolain baita, uztailaren 25ean atera zena⁸⁴. 1943.eko otsailaren 22an, Martin Esnaola Elicegui jada alkate frankista zenak (eta orain ikusi dugun bezala, preso izan zen egun horietan), atxiloketa hauek Ignacio Cortes Defentsa Komiteko lehendakariak agindu zituela idatzi zuen txosten batean (txosten hori Gipuzkoako Gobernu Zibilak eskatua izan zen)⁸⁵. Hala ere, guretzat Esnaolaren bertsioa ez da sinesgarria, orain ikusiko dugun bezala Cortes berak egun batzuen buruan preso horiek *askatzea* agindu baitzuen. Beste alde batetik, atxilotzaile gehienek diote aginduak ez zituela Cortesek ematen (ikusiko dugun bezala, berak ere uko egin zuen Komiteko lehendakaria zela aitortzeari, nahiz eta epaitegi frankista batean hori zigorra arintzeko modu bat izan zitekeen), Goardia Zibileko kabo Carlos Gonzalezek, Manuel Gorrochateguik edo Miguel Garbayok baizik. Beste txosten batzuren arabera, Cecilio Sarriegui abertzalea izan zen eskuindar hauen atxiloketa agindu zuena⁸⁶. Atxilotuei eginiko galdeketak, eskuindar batzuek (Eusebio Aslak eta Francisco Ezquiagak) Cortesek egiten zituela esan bazuten ere⁸⁷, antza denez Carlos Gonzalez Beasaingo Goardia Zibileko buruak egin zituen (hori baieztatzen du baita Udal-epaile gisa ibili zen Joaquin Echeverriak)⁸⁸.

Hauen atxiloaldia ez zen oso gogorra izan. Atxilotutakoetako baten bilobak, Juan Unanua Artolainek komentatu zigun bezala, janaria “Bar Navarro”-ko pertsona batek eramaten zien, Arretxea izeneko batek, presoak kartzelak ematen zien janaria ez baitziren fidatzen (pozoitu egingo zituztela edo zurrumurruak zabaltzen hasi ziren)⁸⁹.

⁸² Joaquin Gaytan de Ayalaren arabera, Manuel Urrebazo Gorrochategui kotxe batean joan zitzaion bera atxilotzera. Gaytan de Ayalak dioenez, Gorrochateguik atxiloketa “badaezpadakoa” izan zela esan zion “baliteke zu kartelan kalean baino ziurrago egotea eta”. Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3079-39 kausa, Manuel Gorrochategui Urrebazori dagokiona.

⁸³ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3044-40 kausa, Ignacio Cortes Ceballosi dagokiona.

⁸⁴ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 153-37 kausa, Mariano Olea Fernandezi dagokiona.

⁸⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 01 dokumentu-sorta. Urte batzuk lehenago, 1939.eko otsailean, Jose Luis Guridik bertsio bera eman zuen: Beasaingo Udal Artxiboa. A008 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

⁸⁶ 1938.eko azaroaren 8an Jose Luis Guridi alkate frankistak idatzitako txostena eta 1938.eko abenduaren 24an Beasaingo Batzorde txostengilearen (Asla, Ezquiaga eta Unzueta zinegotzi frankistek osatutakoa) “idazkariak”, sinadura pertsonalik gabe idatzitako txostena. Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 01 dokumentu-sorta. Jose Luis Guridik 1938.eko ekainaren 10eko beste txosten batean Sarrieguik Florencio Gallego atxilotu zuela esan zuen. Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

⁸⁷ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3044-40 kausa, Ignacio Cortes Ceballosi dagokiona.

⁸⁸ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 1722-38 kausa, Joaquin Echeverria Mugicari dagokiona.

⁸⁹ Juan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-5.

3. kapitulua

Miliziano batzuek, adibidez, Rafael Polok, preso batzuentzat enkarguak ere egiten zituzten⁹⁰. Guda Zibilean presoek jabetxe batek janaria eramatea (eta preso hauek kartzelan zituen aginteak hura baimentzea) ez zen ohiko gauza izan. Jose Antonio Egidok bere liburuan biltzen du orduko alkate sozialista Victor Bernedok atxilo zegoen Jose Mendia Lasari atxilotuei ezer ez zitzaiela gertatuko bermatu ziola⁹¹. Gainera, Ataunen atxilotutako Daniel Inchaustiren gaineko kezka agertzera etorri ziren Beasaina Ataungo jeltzale batzuk, eta preso hartu zituzten ezkertiarren aldetik hau beste inora ez eramateko hitza hartu zuten⁹². Atxilotutako gehienek esan zuten (ezkertiarren kontrako kausa ezberdinetan lekuko bezala agertu ziren kausetan), ez zutela Komitearen aldetik batere tratatu txarrik jasan; eta epaitegi frankista bat, Komiteko kide zen Aurelio Mateo Navazoren kausan, hori berrestera iristen da⁹³. Gehienez, eskuindar batzuek esan zuten “irainduak” izan zirela, adibidez Eusebio Aslak, Ignacio Cortes Komiteko lehendakariaren kontrako kausan⁹⁴. Guda ostean bi emakumeren kontrako kausa ere zabaldu zuten, “irainak” eta are “pozoitzeko ahaleginak” edota milizianoak presoek kontra salatzeko ahaleginak zirela eta. Bi emakume horiek, gazte sozialista bi izan ziren, Maria Socorro Sanchez Begue eta Nicolasa Zarate Velasco. Hala ere, badirudi presoak hiltzeko asmoak (pozoituz edo milizianoak euren kotra xaxatuz) ez zirela egiazkoak, euren kasuan lekuko gehienek ez baitute hori esaten, eta beste batzuek iraindu egin zituztenik ere ukatu egiten baitute⁹⁵. Presoen askatzea, antza denez, Udaletxe parean izan zen. Presoak zaintzen zegoen pertsona bati, Julian Margaretori eginiko galdeketan, badirudi honek presoak Beasaingo kartzela zen Udal-eskolatik Udaletxe aurrera lekualdatzeko ardura izan zuela. Eusebio Aslaren arabera (orduko preso eskuindarra zen), “kriminalak bagina, oso modu txarrez” atera zituen Margaretok presoak eta “Armada Nazionalaren etorrerak soilik salbatu gintuen fusilatzetik”, baina ez dirudi hau

⁹⁰ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 15515-39 kausa, Rafael Polo Carrasacali dagokiona. Rafael Polok ere presoren batzuk aske utz zitzaten bitartekaritza lana egin zuen, adibidez, Epifanio Arguiñanoren alde. Bere anaia Valerio Polo gudan fusilatua izan zen.

⁹¹ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 90-91. or.

⁹² BARANDIARAN, Pia Maria: “Informe de Pia Maria de Baraindian” in BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi* (647-652. or.). Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005, 647. or.

⁹³ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 976-38 kausa, Aurelio Mateo Navazori dagokiona.

⁹⁴ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3044-40 kausa, Ignacio Cortes Ceballosi dagokiona.

⁹⁵ Zorte ezberdina izan zuten biek: Maria Socorro Sanchez sei urtetako akrtzela-zigorra ezarri zion epaileak, eta Nicolasa Zarateren kasuan fiskalak epaiketara heldu aurretik kausa erretiratu egin zuen. Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2329-39 kausa, Maria Socorro Sanchez Begueri dagokiona; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3366-39 kausa, Julain Margareto Gasparri dagokiona.

egia denik, beste lekuko batzuek, German Martin Olmedok adibidez, halako tratu txarrak ez baitzituzten aipatu (eta lehen ere esan eta frogatu dugu presoak altxatuen Armadak askatu zituela ez dela egia)⁹⁶.

Pozoitzearen kasuan, geroago Udal frankistarekin udaltzainburu izan zen Melchor Garcia Josak, Ignacio Cortes Ceballosen kontrako kausan esan zuen, Cortesek behin miliziano bati (agian txantxaz) “farmazian pozoirik indartsuena erosi behar dugu hauei gosariarekin batera emateko” esaten entzun egin zionean, Cortes berak miliziano hau postu horretatik bota eta frontera bidaltzeko eskatu zuela⁹⁷. Honekin lotuta, badaude epaiketako hiru testigantza ezberdin zeintzuen arabera, “miliziano batzuek” kartzelako giltzak eskatu zizkietela eta Komiteko arduradunek eman ez zizkietela azaltzen dutenak. Testigantza horiek Ignacio Cortes lehendakariarenak, Aurelio Mateo idazkariarenak eta Francisco Donazar gauzainarenak dira⁹⁸. Egia da epaiketetan esaten dena kontu handiz hartu beharra dagoela (azken finean, epaitegi frankista baten aurrean esaten da, izaera politikoagatik epaitzen eta zigor handi bat jartzeaz mehatxatzen ari dena); baina akusatuek milizianoen giltzarengatik eskaera “asaltu saiakera” gisa puztu badezaketen arren; kasu honetan hiru testigantza ditugu bertsiio hau berresten, beraz badirudi beasaindar agintariek preso eskuindarren osasuna babesteko kezka zutela, kezka hori erreala izan ala ez. Beraz, esan dezakegu Beasainen ezarritako agintarien artean, kontu oso handiz ibili zirela euren etsai ideologikoen bizia zaintzerakoan; hori onartu zuten baita euren etsaiek; Ignacio Cortesen kontrako kausan, Miguel Cerrajería lekukoak (orduan zinegotzi frankista izan zenak) esan zuen “Ignacio Cortesi esker ez zen Beasainen biktimarik egon” eta epaiketa horretako autoak ere bazioen Cortesek “Beasaingo kartzela asaltatzea ekidin zuen” (hala ere, milizianoek giltzak eskatze hori “asaltatze” moduan interpretatzea eta biktimarik egon ez izanaren meritua soilik pertsona bakar baten edo gutxi batzuen bizkar utzi izana; izan daiteke errepublikanoen “gaiztakeria kolektiboa” azpimarratzeko modu bat –biktimarik ez egotea norbanako “onbera” batzuegatik soilik gertatu izango balitz, eta ez errepublikarren zonaldean

⁹⁶ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 1781-39 kausa, Nicolasa Zarate Velascori dagokiona.

⁹⁷ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3044-40 kausa, Ignacio Cortes Ceballosi dagokiona.

⁹⁸ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3044-40 kausa, Ignacio Cortes Ceballosi dagokiona; Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 692-37 kausa, Francisco Donazar Zabalzari dagokiona; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 976-38 kausa, Aurelio Mateo Navazori dagokiona.

3. kapitulua

errepresio maila txikiagoa zelako-)⁹⁹. Aurelio Mateoren kontrako epaiketan, sententzian bertan jartzen du “Komiteari esker, Beasainen ez zen basakeriarik gertatu”¹⁰⁰.

Beste alde batetik, mojak zeuden tokian ere bijilantzia armatua jarri zuen Defentsa Komiteak. Defentsa Komite horrek mojetara bidali zituen gazte batzuk armatuta, ezkertiarak, Ibaibarriagaren arabera¹⁰¹. Hala ere, ematen duenez mojek beldurrarekin hartu zituzten, “ezagutzen ez zituztelako, arrotzak zirelako” (aipatu beharra dugu, gero goardia horiek egin zuten ezkertiarretako batzuek, euren kontrako epaiketan, goardia horiek “inork mojei min egin ez ziezaion” ezarri izan zituzten; adibidez, Mariano Olea Fernandez tetigantza dugu)¹⁰². Ibaibarriaga bertaratu zenean, bere kontakizunaren arabera, ezagutzen zuen mojetako batek (Gloria Markiegik) erreleboa aldatzeko eskatu zuen, eta “Alderdiak (EAJk) bereak jar zitzala”.. Ibaibarriagak hala dio, nahiz baita nabarmendu “han gure aurretik izan zirenak mutil onak zirela”¹⁰³. Alfontso Ibaibarriaga berak kontatzen duenaren arabera, arratsalde horretan bertan joan zen goardia aldatetaz hitz egitera Defentsa Komitera, eta han “ondo hartu” zuten. “Han zeuden Ignacio Cortes, Severiano Azpeitia, (Doroteo) Aguado sindikalista eta beste batzuk”. Beraz, honek erakusten du, Beasainen behintzat, Defentsa Komiteko kide ezberdinen arteko harremana nahiko ona zela¹⁰⁴. Lazkaon ere, beneditarren monastegian ez zuten inolako erregistrorik egin (frankistek egindakoen kontrara)¹⁰⁵.

Honez gain, Besaindik kanpo, Bilbon gertatutko epaiketa baten berri eman behar dugu, Bilbon, abuztuaren 23ko eta 25eko dekretu batzuen ostean Gipuzkoan eta Bizkaian Herri-Epaitegia sortu zen, azarotik aurrera Euzkadiko Herri Epaitegia deitu zena; gero Euzkadiko Epaitegi Militarra ere sortu zelarik. Irailaren 11n Donostia erortzekoa ia Gipuzkoa osoa (Eibar eta Elgeta izan ezik) altxatuen menpe egon zirenez,

⁹⁹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3044-40 kausa, Ignacio Cortes Ceballosi dagokiona.

¹⁰⁰ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 976-38 kausa, Aurelio Mateo Navazori dagokiona.

¹⁰¹ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarriketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

¹⁰² Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 153-37 kausa, Mariano Olea Fernandezi dagokiona.

¹⁰³ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarriketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

¹⁰⁴ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarriketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

¹⁰⁵ MENDIZABAL, Veremundo: “Informe del P. Veremundo Mendizabal” in BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi* (119-120. or.). Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005, 118. or.

Euzkadiko Herri-Epaitegiak ia ez zuen batere eraginik izan Gipuzkoan, baina horrek ez du esan nahi gipuzkoarrak epaitu ez zituenik (Bizkaian zeudenak, edo Gipuzkoan atxilotu eta Bizkaiara eramandakoak). Guztira 171 gipuzkoar epaitu zituzten¹⁰⁶, hoiengan artean beasaindar bat, Matias Oruezabal Asurabarrena, Astigarretako auzo-alkatea. Oruezabal gainera, errepublikanoek epaitutako gipuzkoarren artean abertzale bakarra izan zen. Bere gain zegoen kargua, behin erreketek Astigarretan sartu ostean, hango 1933.eko, 1934.eko eta 1935.eko kintak mobilizatzea eta beraz, altxamendu militarrekin kolaboratzea izan zen. Oruezabal 1936.eko abenduan Bilbon atxilotua izan zen, eta atxilotu zuena Eusko Jaurlaritzaren polizia (*Ertzaña*, orduko grafiaz) izan zen, Elkano kaleko koartelean izan zutelarik (Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailera bidali zen notifikazioa, Jaurlaritzako Segurtasunerako Zuzendariak idatzi zuelarik). 1937.eko otsailaren 22an, Euzkadiko Herri Epaitegiko epaile dekanok Manuel Bellidok epaiketa-arteke baldintzarik gabeko kartzela-zigorra dekretatu zuen¹⁰⁷. Euzkadiko Herri-epaitegiaren 1. Instrukzio-Epaitegi Bereziak epaitu zuen, 22. zenbakiko kausan, fiskalak bere kontrako diligentziak 1937.eko martxoaren 1ean zabaldu zituen¹⁰⁸. Matias Oruezabalen abokatua Aurelio Rozas Quintanilla izan zen¹⁰⁹. 1937.eko martxoaren 10eko ahozko epaiketan, Matias Oruezabalek agari horretan Astigarretako auzo-alkatea zela baieztatu zuen, baina uko egin zuen 1933.eko, 1934.eko eta 1935.eko kintak mobilizatu zituenik, baizik eta idazkariak esandakoa tabernan herritar batuzei jakinaraztera mugatu zela esan zuen, ordena hau berez altxatuek emana zela jakin gabe (Astigarreta garai horietan fronteen arteko zonaldea zen, “inorena ez zen lurraldea”). Dionisio Mazorra eta Jose Luis Lambarri epaileek zuzendutako epaitegiak errugabe deklaratu zuen¹¹⁰.

Epaiketa honez gain, Bilbon beasaindarren kontrako beste bi atxiloketa izan ziren. Hauek, Emilio Amiano Imaz Bizkaiko Aldundiko langilea eta Ricardo Amiano Garmendia Akademiako irakaslea izan ziren, eta Bilboko Rhin kafetegian atxilotu zituzten 1936.eko irailean, Juan Urteaga donostiarrarekin batera, euren ideologia karlista zela eta (Emilio Amiano Beasaingo Zirkulu Tradizionalistan afiliatua zegoen,

¹⁰⁶ BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*. Hiria. Donostia, 2005, 92. or.

¹⁰⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 2734 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

¹⁰⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 2734 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

¹⁰⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 2734 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

¹¹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 2734 karpeta, 19 dokumentu-sorta. Pedro Barruso Baresek ere badakar kasu hau, baina “Matias Ormazabal Arruabarrena” bezala oker aipatzen du epaitua. BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...* op. cit., 93-94. or.

3. kapitulua

1927.eko urtetik). Atxilotzailea izateaz beasaindar bat, Victorino Garcia Perez, Beasaingo Defentsako Komiteko kidea, *Izquierda Republicanako* kidea, izan zena izan zen akusatua eta baita kondenatua, 1940.eko otsailean 12 urteko kartzela zigorra jaso zuen Victorino Garciak¹¹¹. Emilio Amianok, Garciaren kontrako epaiketan, atxilotzaileen lehen asmoa auto batetara igotzea eta “paseatzea” (hau da, arauz kanpo exekutatzeko) zela dio; baina bere insistenziaren arabera, Gobernu Zibilak duen egoitzara eraman behar izan zutela dio. Hala ere, ez dirudi hau oso konbentzigarria denik, ordu batzuetara aske geratu baitziren hiru atxilotuok, eta Emilio Amianok Bizkaiko Aldundian lan egiten jarraitu baitzuen (1936.eko azaroan Euzkadiko Gobernuak armadarako mobilizatu zuen arte), beraz ez du ematen errepublikarrentzat gogor jazarri edo hari kalte handia egin beharreko pertsona zenik¹¹². Bilbon egon zen atxilotua halaber Santiago Aramburu Elicegui izeneko eskuindar beasaindar bat ere, baina dirudienez, pertsona horrek ez zuen zailtasun handirik izan, beasaindar ezkertiar edo abertzale batzuek bere aldeko bitartekaritza-lana egin baitzuten; adibidez, Juan Aramburuk edo Cecilio eta Jose Sarriegui anaiek¹¹³.

Bestetik gertatu zen baita errepublikanoek euren aldeko beasaindarrak susmoak, diziplina falta edota eguneroko bizitzako gertakariak direla eta euren aldeko pertsonak epaitu edo atxilotu izana. Adibidez, 1937.eko apirilean Bilbon Jose Alfonso Busquet sozialista epaitua izan zen, borroka bat zela medio¹¹⁴. Enrique Maeso Mardonesek, bere kontrako epaiketan esan zuen Azpeitira ihes egin zuenean, Urrestillan atxilotu zutela, segituan aske utzi bazuten ere¹¹⁵. Francisco Donazarrek, bere aldetik, Santanderren bi egun kartzelan pasatu zituela ere esan zuen¹¹⁶. Errepublikanoek atxilotutako ezkertiarren zerrendarekin bukatzeko, Victorino Garcia aipatu behar dugu, Bartzelonan atxilotua

¹¹¹ 1940.eko abuztuan sei urteko zigorrak kommutatu zioten hasierako zigor hau.

¹¹² Parrafo honetako informazioa: Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2152-39 kausa, Victorino Garcia Perez dagokiona.

¹¹³ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 2532-37 eta Gipuzkoa 16148-39 kausak, Juan Aramburu Irizarri dagokionak; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 12804-38 eta Gipuzkoa 12804-38 kausak, Jose Sarriegui Aldanondori dagokionak.

¹¹⁴ Parrafo honetako informazioa: Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 10032-39 kausa, Jose Alfonso Busqueti dagokiona.

¹¹⁵ Parrafo honetako informazioa: Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 54-37 kausa, Enrique Maeso Mardonesi dagokiona.

¹¹⁶ Parrafo honetako informazioa: Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 692-37 kausa, Francisco Donazar Zabalzari dagokiona.

izan zena, Santandertik Bartzelonara (Frantziar Estatutik pasatuz) pasaporte faltsuarekin bidaiatzeagatik. Segituan izan zen askatua¹¹⁷.

Guk dakigunez, hauxe izan zen errepresio errepublikanoak Beasainen egin izan zuen gauza bakarra. Ikusi dugunez, ez zuen legearen markoa gainditu eta atxiloketa batzuk egiteko irizpide politikoa erabili bazuen ere (eta hori gainera, Estatu-kolpea eman ondoren egin zuen, ez aurretik, nahiz eta Beasaingo erreketek jada entrenatzen ari izan ziren¹¹⁸, Udal ezkertiarak ez zuen atxiltzeko agindurik eman. Ziurrenik horren jakinean ez zeudelako, baina jakinaren gainean ez egoteak erakusten du jazarpen politiko handirik ez zela egon gure herrian); egia esan, pertsonen osotasuna eta integritate fisikoa errespetatu egin zituen. Atxiloketa hauek “erantzutearen” edo “kontraerasoaren logikan” sartzen dira¹¹⁹, Estatu-kolpearen kontrako babes prebentibo gisan. Bortizkeria iraultzaileak, egia da, zenbait tokitan, Estatu-kolpea hasi eta lehen egunetan, inkontrolatuen bidez zenbait erailketa eragin zituen¹²⁰; baina hori ez zen gure herriaren kasua izan. Bukatzeko, esan beharra dago, gure herrian, guda-aurreko legezko agintetik at (Udaletik at) organu berri bat sortu bazen ere (Defentsa Komitea) eta hau izan bazen ere atxiloketa horiek gauzatzearen erantzulea, Defentsa Komite hori zilegitasun errepublikanoa osatzen zuten alderdi ezberdinez (EAJ barne) osatua zegoela, ez soilik “iraultzaileez” eta 1931eko erregimen errepublikanoa “gainditu” nahi zuten indarrez. Honen lehendakaria, Ignacio Cortes Ceballos, *Izquierda Republicanako* kidea, gizon oso moderatua eta orekatua zen, esan bezala berak egin zuen bitartekaritza lana Beasaingo preso eskuindarrak kalera atera zitezten. Eta Beasainera ez zen etorri inondik “justizia iraultzailea ezartzera” gizon armatuen patruilarik (nahiz eta kasu honetan esan beharra dago, Donostia defendatzera joan zirela zilegitasunaren aldeko gizon armatu gehienak, beraz ez zegoela horretarako aukera handirik). Beraz, gure herrian, Estatu-kolpearen ondorioz edo honi erantzunez zonalde errepublikanoetan gertatu izan zen gainezkatze iraultzailerik ez zen izan (agian, halako gainezkatzerako saiakera bakarra, eta gertatu izan bazen –ez dugu ahaztu behar hau esateko gure iturri bakarrak epaitegi frankisten dokumentuak direla, beraz zalantzan jartzekoak- uztailaren 27an miliziano batzuek Ignacio Cortes Komiteko lehendakariari Aurelio Mateo idazkariari eta Francisco Donazar gauzainari kartzelako giltzak ematea esijitzearena izan zen, hauen

¹¹⁷ Parrafo honetako informazioa: Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2152-39 kausa, Victorino Garcia Perezi dagokiona.

¹¹⁸ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

¹¹⁹ LEDESMA; Jose Luis: op. cit., 157-163. or.

¹²⁰ Ibid., 152-154. or.

3. kapitulua

erantzuna ezezkoa izan zelarik)¹²¹. Hau ez zen izan Gipuzkoako edota Euskal Herriko eskema orokorra, Euskal Herrian ere masa-bortizkera kasuan gertatu izan baitziren; adibidez, Tolosan, non preso batzuk hartu, Donostara eraman eta han hil zituzten errepublikanoek, Gipuzkoako Defentsa Komiteko Ordenaren sailburu gisa Telesforo Monzonen dimisioa ekarri¹²²; edo Donostian, han, militarrek uztailearen 20an altxatu zirelarik eta uztailearen 27an errenditu zirelarik ere, hilketa batzuk gertatu ziren ezkerren aldetik.

Adibidez, Gipuzkoako hiriburuan, Donostian, Pedro Barrusoren arabera, Herri Frontearen alderdiak nagusitu ziren, behintzat, “uztailearen 21etik”. Noski, jakina da, Donostian, matxinada militarra barnetik etorri izanagatik (eta ez kanpotik Beasainen bezala), Donostian bertan, orduko aginteak modu eraginkorrago batean funtziona zezakeen aginte (iraultzaileago) bategatik ordezte. Hots, beste toki batzuetan (Madrilen, Bartzelonan) gertatu izan bezala, “gainezkatze iraultzailea” gertatu izana, hau da, Estatu errepublikanoa matxinadari aurre egiteko ezgai izan zelarik *ad hoc* botere berri bat sortzea prozesu nahiko antzerako bat izan zen. Hala ere, kontutan izan behar dugu Donostian botere batetik besterako trantsizioa nahiko modu “ordenatua” eta baketsuan izan zela, hau da, Miguel Amilibia sozialista buru zuen Gipuzkoako Defentsa Batzordeak (uztailearen 27an sortu zen erakunde hori), Errepublikako gobernuaren aldeko alderdi guztiak (EAJ barne) bildu zituen; ez zen izan alderdi bakar bat edo programa bat bat ordezkatzeko zuen Batzorde bat, baizik eta programa zabal bat ordezkatzeko zuena. Haatik esan beharra dago, bertan alderdi iraultzaileek, anarkistek eta komunistek, hauteskundeek erakutsi zutena baino indar handiago zutela, beraz nolabait aginte berriaren “iraultzailetasuna” modu horretan nabari zen¹²³.

Uztailearen 27an sortutako Gipuzkoako Defentsa Batzordeak Miguel Amilibia sozialista zuen lehendakari, esan dugun moduan, eta sei komisariotza izango zituen; hauetako bat, Guda Komisariotza, Jesus Larrañaga komunista beasaindarraren pean egon zelarik. Gainera, Guda Komisariotzako kide bat, ordiziarra zen, Joseba Rezola. Beste bost komisariotzak, Hornikuntza (Sergio Etxeberria sozialistak zuzendua), Garraioa (*Izquierda Republicanako* Jose Aguadok zuzendua), Ordena Publikoa

¹²¹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3044-40 kausa, Ignacio Cortes Ceballosi dagokiona; Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 976-38 kausa, Aurelio Mateo Navazori dagokiona; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 692-37 kausa, Francisco Donazar Zabalzari dagokiona.

¹²² BELDARRAIN, Pablo: op. cit., 28-29. or.

¹²³ BARRUSO BARES, Pedro: *La guerra civil en Guipúzcoa*. Hiria. Donostia, 1984, 110-111. or.

(Telesforo Monzon jeltzaleak zuzendutakoa), Informaziokoa (Miguel Gonzalez Inestal anarkistak zuzendutakoa) eta Finantzak (Eusko Abertzale Ekintzako Joxe Imazek zuzendutakoa) izan ziren. Komisariotzak eta beren kide guztiak, uztailaren 28an eta hurrengo egunetan *Frente Popular* egunkariak argitaratu zituen¹²⁴. Uztailaren 27an beste bi Komisariotza sortu ziren: Lan Komisariotza (Guillermo Torrijos sozialistak zuzendua) eta Laguntza Sozialaren Komisariotza (Rafael Garciak zuzendua). Lan Komisariotzaren kide beste beasaindar bat izan genuen, Joxe Ibarbia, gero Santoñan fusilatua izan zena¹²⁵. Gipuzkoako beste toki batzuetan, “gainezkatze iraultzailea” Donostian baino askoz ere handiagoa izan zen, adibidez Tolosan, non ikusiko dugunez, Komite Sozialista Iraultzaile batek Tolosako Fronte Popularra bera gainezkatu egin zuen. Beste toki batzuetan, ordea, adibidez Erreterian, Irunen edo Pasaian, Fronte Popularreko alderdiek osatu zituzten tokiko Defentsa Batzordeak, kasu askotan Alderdi Komunistaren pisu handiarekin. Gipuzkoako Mendebalden ordea (Debarroan eta Urolan), bai Fronte Popularreko zein EAJko kideek osatzen zituzten Defentsa Batzordeak. Beasainen ikusi dugun bezala, bertako Defentsa Komiteak eskema hau jarraitu zuen, altxatuen kontrako kide guztiein bide eginez eta horrez gain, hemen indar moderatuek (sozialistek eta errepublikanoek) hegemonia izan zuten.

Gipuzkoako “bortizkeria gorria” hoberen ikertu duena Pedro Barruso Bares izan zen. Honen arabera, bi motatako “bortizkeria gorria” egon zen, “hasierakoa”, hau da, Donostiako matxinada zapaldu arte (uztailaren 27a arte), eta bestea uztailaren 27tik abuztu-iraila artean eman zena. Lehen fasean, tokiko komiteek erabakitzen omen zuten nor atxilotu eta nor ez, askotan eskuineko pertsona “susmagarriak” atxilotzen zituztelarik, erailketa batzuk ere eman zirelarik, Irunen adibidez, edo Tolosan, non badirudi hango “Komite Sozialista Iraultzailea”, sozialistez osatua, Tolosako Elkarte Sozialistarekiko eta zinegotzi sozialistekiko independentea zen. Hala ere bortizkeria nahiko txikia izan zen lehen fase honetan, Barrusoren arabera¹²⁶. Beste gauza bat izan zen behin Donostiako matxinada garaituta; uztailaren 30ean Ondarretan, uztailaren 31n Tolosako presoek hilketa eta abuztuaren 30ean Irungo Guadalupen egindako hilketak, adibidez. Hilketa hauek kronologikoki azaltzeko, kontuan izan behar dugu bai Donostiako matxinada garaitu izana, eta baita ere gure herrian, Beasainen gertatu

¹²⁴ *Frente Popular*, 1936-VII-28; eta *Frente Popular*, 1936-VII-29.

¹²⁵ BARRUSO BARES, Pedro: *La guerra civil...*, op. cit., 117. or.

¹²⁶ BARRUSO BARES, Pedro: “La represión en Guipúzcoa” in URGOITIA, Jose Antonio: *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi peninsular*. (I lib., II parte: *La caída de Guipúzcoa*), (315-334. or.). Sendoa. Oartzun, 1984, 316-317. or.

3. kapitulua

izandako errepresioa; bi gertakari hauen ostean etorri baitziren, ziurrenik gertakarioi emandako erreakzioaren ondoren izan zirelarik. Barrusoren arabera, hilketa horiek Gipuzkoak indar nagusiak kontutan izan gabe egin ziren, espontaneoki, ez ziren Gipuzkoako aginte legalaren baimenarekin egin (Jesus Larrañaga Guda Komisariotzaren buruzagi beasaindarrak behin matxinada garaituta esan zuen “errudunak Justiziaren aurrean ezarri behar zirela”); Tolosako presoek hilketen ondoren Monzonek dimititu egin zuen eta EAJk Guadalupera gizon batzuk eraman zituen bertako preso eskuindarren bizitza zaintzeko)¹²⁷; baizik eta nahiko espontaneoak izan ziren (Tolosakoa adibidez, bertako ezkerreko elementu batzuk egin zuten, Tolosako ezkerreko ordezkari-taldeen borondatearen gainetik). Zalantzarik handiena ematen duena Ondarretako sarraskia izan zen, zeina ematen duenez, eta Egidok bildu duenez, Francisco Cuenca komunista iturri gisa erabiliz, Jesus Larrañaga komunista goierritarrak, orduan Gipuzkoako Guda komisarioa zenak agindu zuen. Cuencak Egidori esan zion moduan: “Larrañagak esan zidan, “hoa Ondarretara eta fusilatu itzak””¹²⁸.

Hala ere, Larrañagaren familiak bestelako bertsio bat ematen digu, bere iloba Miren Atxaga Larrañagaren arabera, uztailaren 29an fusilatu zuten Leon Carrasco Gipuzkoako Gobernadore Militar ohia hil ez zezaten bitartekaritza egiten saiatu zen, baina, “berarengana iritsi zirenerako, jada fusilatua zegoen”¹²⁹. Askotan, hauxe aurreko egunetan garaitutako matxinada militarrengatik mendeku gisa agertua izan da, baina kontutan izan behar dugu egun batzuk lehenago, uztailaren 27an bertan, beste gertakizun bat gertatu zela, guri gehiago interesatzen zaiguna: Beasaingo altxatuen sarraskia (beraz, kronologikoki era, modu masiboan, “errepresio urdina” “errepresio gorriaren” aurretik izan zen Gipuzkoan). Jesus Larrañagak, beasaindarra izaki, ziur aski bere herrian gertatutakoak hunkitu egingo zuen, eta Jose Antonio Egidoren arabera hura izan zen Ondarretako eskuindar presoek hilketa baimentzeko arrazoi nagusia¹³⁰. Larrañagak Carrascorekiko halako jarrera erakutsi izana kontraesanenean dago Ondarretako hilketen aurrean bere bizkar jartzen diren ardurekin bat datorren

¹²⁷ Ibid., 321-323. or.

¹²⁸ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 90. or. Jesus Larrañagaren kontrako kausan, Gipuzkoako Goardia Zibilak “Ondarretako kartzelaren kontrako asaltuaren susmagarria da” dio, baina ez du borobil baieztatzen. Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4135-42 kausa, Jesus Larrañaga Churrucari dagokiona.

¹²⁹ Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-V-26an.

¹³⁰ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 90. or.

jarrerarekin. Larrañagaren inplikazioa dudan jartzeko datuak ematen dituen beste bat, eta kasu honetan ezin da esan berekiko sinpatia duelako, Miguel Legarra donostiar karlista da, hau AET ikasle karlisten Gipuzkoako adarraren burua eta *Diario Vasco*ko kazetaria zen orduan. Legarrak, hilketa hauen arduradun gisa, beste komunista bat, Ricardo Urondo aipatzen du, sekula ez Larrañaga¹³¹. Ondarretako heriotzen gertakizun honekin bukatzeko, aipatu beharra dago baita ere, egun horietan, Ondarretako presoan artean besaindar bat egon zela, Agapito Oyarbide, berak 1939.ean epaiketa batean hala deklaratu zuenez: “Beasain gorrien menpe (1936.eko uztailaren 18tik 27ran, beraz, heriotza horiek gertatu ziren unetik kronologikoki gertu zeuden egun hauek), ni Ondarretan egon nintzen preso”¹³².

Ondarretako kasu honetan ere, “errepresio gorriaren” aldetik, “erantzunezko errepresioaren” eskema ikusten dugu, Jose Luis Ledesma irakasleak aipatutakoa. Bestetik, ñabardura bat egin behar da, kontutan izan behar da Gipuzkoako Defentsa Komiteak ez zuela hilketa hau baimendu, ez zela izan politika kontziente baten ondorioa (hau azaltzeko, Larrañagaren eta EAJko kideen arteko polemikak eta ikamikak ditugu adibide; adibidez Monzonen dimisioa, edo uztailaren 29an, Leon Carrasco Amelibia Gobernadore militar ohia fusilatzerara eraman zutenean, Manuel Irujok fusilatze hori ekidin nahia. Hala ere, badirudi Carrasco ez zutela Larrañagaren ordena baten ostean hil, baizik eta soldaduen euren aldetiko erabakia izan zela¹³³. Izan ere, fusilatzea ekiditeko Larrañagaren emaztearen bila joan ziren Larrañagak bitartekaritza egin zezan, “baina topatu zutenerako fusilatu egin zuten”¹³⁴).

Uztailaren 31n hildako eskuindar tolosarren kasua (zehazteko 11 tolosar eta albizurtar bat), Mikel Errazkin eta Joxemi Saizarrek ikertu dute. Uztailaren 19 eta 26 artan, Tolosako Komite Sozialista Iraultzaileak 78 gizon eta emakume tolosar atxilotu zituen. Errazkin eta Saizarrek aipatzen duten moduan, abuztuaren lehen “inongo kontrolik gabeko” milizianoek, Tolosatik Donostiara 12 preso hauek eraman zituzten,

¹³¹ Legarraren liburua, nahiz eta egileak Donostiako izen handiko eskuindar ezberdinen artean zituen kontaktu oparoez (hauetako asko, tartean bere anaia, Ondarretan preso zeuden orduan) emaniko informazio askoz jantzia izan, ezkertiar eta abertzaleen kontrako irainez betea da, eta partzialtasun handiarekin idatzia dago, beraz ez du Larrañaga “zuritzeko” asmorik. LEGARRA BELASTEGUI, Miguel: op. cit., 86., 130-134. eta 253-260. or.

¹³² Agapito Oyarbidek Gregorio Antonio Beotivarren kontrako kausan lekuko bezala egindako adierazpenak. Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2090-38 kausa, Gregorio Antonio Beotivar Castelli dagokiona.

¹³³ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 90. or.

¹³⁴ Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-V-26an.

3. kapitulua

eta Donostiako Pasealeku Berrian hil zituzten, tartean Pedro Caballero Tolosako alkate ohia eta Jose Maria Raguean Tolosako erreketen burua. Beasaindar bat, Felix Gaztañaga Urrutia, Alderdi Sozialistako eta UGTko kidea 1939.eko amiatzaren 3an Donostian heriotzara kondenatua izan zen, eta hiri berean 1939.eko azaroaren 13an exekutatua, hilketa hauen arduradunetako bat izatea leporatuta¹³⁵. Honenbestez, Tolosako Fronte Popularrak dimisioa eman zuen, ez baitzen hilketa hauekin ados egon. Hau ez zen errepikatuko beste presoekin, izan ere, Tolosako beste preso guztiak abuztuaren 10ean Ondarretara eraman bazituzten ere, gehienek handik gutxira askatasuna lortu zuten¹³⁶. Beraz, ikusten dugun bezala, kasu honetan ere, Estatu errepublikanoari gainezka eginez gertatu ziren fusilatze hauek, ez honek ahal aginduta eta ezta ere ezkerren plan koordinatu baten emaitza gisa. Hots, Gipuzkoan ere, errepresio gorria behetik hasitako errepresio bat izan zen, kasuren batean, Ondarretako kasuan adibidez, “goiko” elementu baten ardura izan bazen ere.

Gipuzkoako egoera baretu (une baterako behintzat) orduko, errepresio gorria ere “legeztatu” egin zen. Adibidez, abuztuaren 13an, uztailaren 20ko matxinadaren zuzendari izan ziren zortzi militarren kontra. Jesus Larrañaga beasaindarra izan zen epaiketa horretan epaile eta akusatuek (denak komandanteak, koronelak, kapitainak eta lotinantak) defentsa-abokatu bat ere izan zuten: Alberto Insausti. Azkenean, heriotz-zigorra aplikatu zitzaizen militar horiei. Beste bi epaiketa eman ziren, sei militar eta zibil bat epaitu zituzten abuztuaren 18an (lau heriotz zigor) eta abuztuaren 26an Muslera jenerala eta Baselga koronela (heriotza zigorra eta hurrengo egunean exekutatuak)¹³⁷. Hala ere, Pedro Barrusoren arabera, heriotz zigor hauek aplikatzeak Gipuzkoako Defentsa Batzordean tira-birak sortu zituen, adibidez, Ordena Publikoaren saila, EAJren kontrolpean zegoena, ez baitzegoen presoak exekutatearen alde.

Pedro Barrusoren arabera, preso izandako eskuindar gipuzkoarrak, gehienetan kartzela legeletan zeuden, ez kartzela alderdikoietan (“cheka” izenez gerora ezagutuak). Donostian izan zen “cheka” bakarra, CNTk izan zuen Larramendi kalean, baina egun gutxiz egon zen. Barrusoren arabera, Ordena Publikoko saila EAJren menpe egoteak

¹³⁵ Epaietan, hainbat lekukok, Felix Gaztañaga presondegiko “burua” zela esan zuten, eta baita ere 1936.eko uztailaren 31ean, exekutatuak izan ziren zenbait pertsonen ziegetara joan eta ateratzeko agindu ziena. Kasu honetaz hurrengo kappituluan arituko gara luzeago. Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 14346-38 kausa, Felix Gaztañaga Urrutiari dagokiona.

¹³⁶ ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel eta SAIZAR AROSTEGI, Joxemi: *1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*. Galtzaundi Euskara Taldea eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Tolosa, 2008, 62-63. or.

¹³⁷ BARRUSO BARES, Pedro: “La represión...”, op. cit., 326. eta 328. or.

lagundu egin zuen errepresioa kontroletik at atera ez zedin (nahiz eta presoek kontrako asalto batzuk gertatu izan ziren): Gipuzkoan ezkerrek agindu bitartean atxilotu ziteun 260 pertsonetatik 105 aske utzi zituen Gipuzkoako Defentsa Komiteak. Bestetik esan beharra dago, kartzelen kontrako asaltorik gehienak eskuinaren Donostia edota Irunen aurkako bonbaketen ostean eman zirela, eta Donostia altxatuen esku erortzeaz zegoela, irailaren 8an, Gipuzkoako Defentsa Batzordeak Donostian zeuden preso eskuindarrak Bilbora itsasontziz eraman zituela, Barrusoren arabera “hauen bizia errespetatzeko saiakera bat izan zen, ezkerreko militanterik muturrenekoek egin zezaketen asalto berri baten esku utzi gabe”¹³⁸.

Beraz, “bortizkeria gorriak” Gipuzkoan eragin zituen hildako gehienak Donostiako matxinada bukatu ostean izan ziren. Guztira “errepresio gorriak”, “espontaneoki” 340 bat hildako eragin zituen Gipuzkoan Pedro Barrusoren arabera¹³⁹; gehienak Donostian (tartean, 1934-35 arteko alkate eskuindarra izan zen Jose Maria Paternina barne, abuztuaren 14an hila); eta inguruko herrietan (Hernanin edo Irunen); eta hauez gain, Tolosako salbuespena dugu (abuztuaren 1eko hilketak). Honi, abuztuaren 13an “legalki” exekutaturako 8 militarrek, abuztuaren 18an exekutaturako laurak eta abuztuaren 27an exekutaturako biak gehitu behar zaizkie: 350 bat hildako guztira. Heriotza gehienak uztailean izan ziren, honek erakusten du uztailearen 20-27ko matxinada militarra behin zantpatuta eta ezkerreko instituzioak eraikitzen hasi ahala, halako “justizioa espontaneo”, hots kontrolatzeko gaitzagoa zena, beheranzko joera batean sartuko zela.

Zergatik Beasainen ez zen halako errepresiorik gertatu? Garbi dago, nahiz eta Beasainen “Kontrol errepublikanoa” 1936ko udako egun batzuetara mugatu (hau da, “bortizkeria gorriaren” klimaxa purian zegoen garai batera mugatu)¹⁴⁰, Beasainen ez zirela halako gertaerarik eman. Galdera honi erantzun beterik eman ezin badiogu ere, hainbat arrazoi aurki ditzazkegu. Horietako bat, Beasaingo langile klasearen eta honen elkarrean moderazio ideologikoa izan daiteke. Horren adibiderik nagusia 1934ko greba iraultzailean beasaindarrek izan zuten portaera izan zen; sindikalisten ordezkari bat (Antonio Menaza Bermudez sozialista, Francisco Ruiz de Apodaca Fernandez de

¹³⁸ Ibid., 330. eta 332. or.

¹³⁹ BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...* op. cit., 54. or.

¹⁴⁰ 1936ko udako “bortizkeria gorriaren” igoera eta udazkenean sartu ostean bortizkeria horren “izoztearen” eskema kronologikoa Jose Luis Ledesmanen ikerketaren emaitza da. LEDESMA; Jose Luis: op. cit.

3. kapitulua

Ocariz anarkista eta jeltzale bat, litekeenez Jose Ibarbia) CAFeko zuzendari Antonio Sierrarengana joan zen grebaz ohartaraztera, eta are negoziazioa eskaini zuten. Horrez gain, Beasainen ez zen gertatu beste toki batzuetan gertatu ziren botere-guneen kontrako asalto-saiakerarik. Beste alde batetik, Beasainen indartsuenak ziren elkarte ezkertiarrek sozialistak eta errepublikanoak ziren (anarkisten lehen sindikatua 1935.ean ezarri zen Beasainen, eta komunisten lehen erakundea, presoan aldeko elkarte bat, 1936.ean bertan), hau da, 1931ko apirileko erregimenari leialak zitzaienak eta huraxe gainditzeko batere interesik ez zutenak. Beraz, erregimen honen inguruko adostasuna bilatzen zuten indarrak ziren, ez gainezka egitea, eta are gutxiago konfrontazio gogor baten bidez¹⁴¹. Bigarrenik, Beasainen indarra hartzen zihoan EAJ, laster batu zen Defentsa Komitera; eta hau ere moderazio faktore bat izan zitekeen (gudak iraun zuen artean bazirudien ezkertiarren eta jeltzaleen arteko harremana nahiko ona zela). Hirugarrenez, Beasainen Udal-gobernu eskuindar inposatua izan zen garaietan ere, adostasunerako eta hurbilketarako zenbait keinu eman ziren, adibidez, lanpostuen defentsarako asanbladak, edo 1934ko greba iraultzailearen ondorioz preso zeuden langileen lana eta soldataren inguruan eztabaidatzeko asanbladak. Ezkerrekoen jarrera hau, zenbait eskuindarrek ez zuten kopiatu 1936ko uztailaren 27an frankistak Beasainen sartu zirenean, batzuk salaketetan eta markaketan kolaboratu baitzuten.

Hala ere, faktore hauek ez ziren izan bakarrik. Izan ere, Gipuzkoako beste toki batzuetan (Deban edo Arrasaten adibidez), non Defentsa Komiteak nahiko pluralak izan ziren (EAJ barne zela)¹⁴², hilketa gutxi batzuk gertatu izan ziren. Zergatik ez zen halakorik izan Beasainen? Alde bateik kontuan hartu behar da Beasaingo atxilotu denak herritarrak izan zirela, beraz atxilotzaileen ezagunak. Bestetik, Beasainen ez zegoen beste herrietan bezala “pertsona esanguratsurik” atxilotuen artean (agian Ataungo Daniel Inchausti kenduta, baina ezkertiarrek hau atxilotzerakoan Ataungo abertzaleekin itundu zuten ez zutela beste inora eramango) eta bestetik ez zutela batere kontakturik (ziurrenik) Donostian gertatu zeneko matxinada militarrekin. Bestetik baita kontutan hartu behar dugu Beasaingo Defentsa Komiteko pertsonarik esanguratsuen artean (Ignacio Cortes, Severiano Azpeitia, Alfontso Ibaibarriaga, Doroteo Aguado eta beste) moderazioa izan zela nagusi.

¹⁴¹ Jose Luis Ledesmanen arabera, Errepublikaren zilegitasunaren alde gertatu ziren zonaldeetan, Errepublikaren aurreko egitura zutik mantendu zen tokietan eta gainezkatze iraultzailerik gertatu ez zen tokietan (adibidez, Bizkaian) “boztizkeria gorria” askoz ere txikiagoa izan zen. Beasain eskema horretan sar daiteke. *Ibid.*, 186-187. or.

¹⁴² BARRUSO BARES, Pedro: *La guerra civil en Guipúzcoa*. Hiria. Donostia, 1984, 122-123. or.

3.3.b) *Beasaingo borrokaldia*

Beasainen ezkertiarrek egin zuten defentsa armatua oso aukera txikikoa izan zen (kontutan hartuta Gipuzkoan zilegitasunaren aldean geratu ziren indar gehienak Donostiara bideratuak izan zirela hango matxinada zapaltzera; *El Liberal* egunkariaren 1936eko abuztuaren 13ko kronikaren arabera, Beasaingo goardia zibilak ere Donostira lekualdatuak izan ziren¹⁴³). Kontuan izan behar da, era berean, Estatu-kolpearen osteko lehen egunetan Perez Garmendia militar errepublikarraren zutabe bat Beasaindik pasatzekoa zela Gasteiz hartzeko, baina Donostiako matxinada zela eta, itzuli egin behar izan zela. Anselmo Ruiz herritarrak utzi digun idatzi baten arabera, Miguel Amilibia diputatu sozialistak Beasaingo enparantzan esan omen zuen Donostian militarrek matxinatu egin zirela eta soldaduak Donostiara itzuli behar izan zirela. Herrian bildu zituzten armak izan zuten ia defentsa bakarra. Ruizek gaineratzen du Beasaindik Donostiara joateko pasatzen ziren gehienak “Galdakaoko EAeko kideak” zirela¹⁴⁴. Martin Jose Mendiak Jose Antonio Egidori esan zion bezala “pena ematen zuten, etxeko eskopetak soilik zuten euren buruak defendatzeko”¹⁴⁵. Beasaindarrek zuten defentsarako arsenal bakarra, Goardia Zibilaren armez gain, uztailaren lehen egunetan Ordizian Felipe Bueno Arizmendik zuen armeriatik hartutako arma batzuk¹⁴⁶, CAFen aurkitu zitezkeen arma batzuk¹⁴⁷ eta Eibarren lortutako arma batzuk izan ziren. Eibarren armak lortzeko bidaiak egitearren Marcelo Arnaez Rodriguez sozialista, Antonio Lorenzo Sanchez anarkista eta Severiano Azpeitia Arcelus alkateorde errepublikanoa izan ziren akusatuak¹⁴⁸. Ziur aski, bidaiia horretan negoziatu zuten Eibartik miliziano batzuk ekartzea, Marcelo Arnaezen kontrako akusazioan agertzen den bezala, “akusatuak,

¹⁴³ *El Liberal*, 1936-VIII-13. Ikusiko dugun bezala, datu hau ez zen guztiz zuzena izan, Beasainen atxilotutako eta fusilatutako hiru goardia zibil behintzat, aurretik Beasainen destinatuta baitzeuden.

¹⁴⁴ Anselmo Ruizekukoaren testigantza.

¹⁴⁵ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 91. or.

¹⁴⁶ Valentin Gomez Arceren kontrako kausa. Gomez Arce Beasainen armategi batzuk zakuratzear izan zen akusatua, baina akusazio hori ez zen egiazkoa, Beasaingo armategiak ez baitziren zakuratuak izan. Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 41-38 kausa, Valentin Gomez Arceri dagokiona.

¹⁴⁷ Agustin Chapartegui Goenaga CAFetik 10 ametrailadore hartzeaz akusatua izan zen, baina ez dirudi oso posiblea CAFen hamar ametrailagailu egotea (baliteke bestelako arma arinagoak izatea). Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2413-41 kausa, Agustin Chapartegui Goenagari dagokiona.

¹⁴⁸ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 2613-37 kausa, Marcelo Arnaez Rodriguezi dagokiona; Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4215-42 kausa, Severiano Azpeitia Arcelus dagokiona eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 11895-38 eta Santander 172-37 kausak, Antonio Lorenzo Sanchezzi dagozkionak.

3. kapitulua

Eibarko Udaltzainburuarekin (Amos Ruizekin) tratuak izan baitzituen¹⁴⁹. Balak egiteaz, Agustin Chapartegui Goenaga akusatu zuten, CAFetik hartutako 20 kilo berun Martin Esnaola karlistaren tailerlean funditzeaz hain zuzen¹⁵⁰. Kopuruz ere sobera ez zebiltzaten, Severiano Azpeitiaren kontrako kausan azaltzen den moduan, uztailaren 19-20 alde horretan 150-200 kide soilik ziren¹⁵¹. Kontuan izan behar dugu uztailaren 23 aldera Eibartik miliziano eta goardia zibil batzuk etorri zirela, baina eibartar gehienak Donostiako matxinada militarra zapaltzera joanak zirela kontuan hartzen badugu, ezin ziren asko ere izan. Guztira, Beasainen gehienez 250 errepublikano armatu zeudela kalkulatu dugu, beraz, bai kopuru aldetik zein armamentu adetik askoz ere gutxiago ziren.

Horrezgain, egun horietan gauza arraroak gertatu ziren Beasainen, agian altxatuen inteligentziarekin lotutakoak. Jabier Garcia Bergararen arabera, “eskuindar militarrek herrian sartu baino egun batzuk lehenago hiru emakume etorri ziren Beasainera esanez militarrek ez zirela Gipuzkoan Beasainen bidez sartuko. Agintariak engainatzen saiatu ziren¹⁵². Hori lotuta egon zitekeen Anselmo Ruizek guri luzatutako idatzi batean jasotakoa: “zurumuru asko zeuden, eta kotxe batzuk sartu eta irten ari ziren. Behin Beasaingo bat, Martin Aranburu, zihoan kotxe bat tirokatu zuten Ordizian, eta Galdakaoko bat (EAEko boluntario bat) hil egin zen¹⁵³”.

Beasaindarrek, altxatuen tropak geldiarazteko edo behintzat zelatatzeke inguruan halamoduzko irtenaldi batzuk egin zituzten. Horietan handiena, Zegamara eginiko irtenaldia izan zen, uztailaren 22an eginikoa¹⁵⁴. Kanpotik etorri zen errefortzu bakarra, Eibartik etorri izan ziren bolondres batzuk izan ziren. Horien buru Alejo Beñaran Garin Goardia Zibilaren kapitaina zetorren; Eibarko miliziano batzuekin batera (hauetako batzuk borrokan hil ziren, laster ikusiko dugun moduan), eta Jose Antonio Egidoren arabera, Beñaranek “lauzpabost” goardia zibil batzuk ekarri omen zituen berarekin batera (goardia zibil hauen kasura geroago bueltatuko gara). Beñaranekin

¹⁴⁹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 2613-37 kausa, Marcelo Arnaez Rodriguezi dagokiona

¹⁵⁰ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2413-41 kausa, Agustin Chapartegui Goenagari dagokiona.

¹⁵¹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4215-42 kausa, Severiano Azpeitia Arcelusi dagokiona

¹⁵² Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

¹⁵³ Anselmo Ruiz lekukoaren testigantza.

¹⁵⁴ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 14405-38 kausa, Julio Martinez Romeori dagokiona.

batera, Amos Ruiz Eibarko Udaltzainburu sozialista ere etorri zen Beasain defendatzera¹⁵⁵. 1939.eko otsailean Jose Luis Guridi alkate frankistak Ondasunen Inkautazioaren Epaitegiari idatzi zion txosten baten arabera, Severiano Azpeitia alkateordeak negoziatu zuen Eibarren bertan eibartarrak (goardia zibilak eta udaltzainak barne) Beasain defendatzera etorri izana “uztailaren 24an iritsi zirelarik” (hala ere, Guridi alkatearen inplikazio politikoak kontutan hartuta, informazio hauek zalantzan jartzekoak ere badira)¹⁵⁶. Beasain Eibartik etorri ziren miliziano gehienak Amuategi milizetako kideak ziren (ez denak, ikusiko dugun bezala). Milizia hauek, uztailaren 18an bertan sortu ziren Errepublikaren alde jotzeko, eta Gipuzkoa osoan aritu ziren (denak ez ziren Beasaina etorri, baizik eta asko Donostiako matxinada deusezteraere joan ziren)¹⁵⁷. Beñaran kapitaina, urretxuarra zena, orduan Eibarren destinatua zegoena, 1934 arte Beasainen izan zen destinatua¹⁵⁸, eta oso karisma handiko gizona omen zen; eta oso harreman handia zuen bai herriarekin zein bere herritarrekin. Herritar askok Beñaran gogoratzen dute Beasainen zegoenena, zald zuri baten gainean, “oso gizon maitatua” zela diote, eta umeezko zaletasuna ere aipatzen dute, “nahiz eta berak seme-alabarik ez izan”¹⁵⁹. Herritar askok konfidantza asko zuten Beñaranengan, Anselmo

¹⁵⁵ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit.; eta GUTIERREZ AROSA, Jesus: *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta*. Eibarko Udala eta Elgetako Udala. Eibar eta Elgeta, 2007, 27. or.

¹⁵⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 02 dokumentu-sorta. 1942.ean Martin Esnaola alkateak idatzitako beste txosten baten arabera, Azpeitia “erresistentzia armatuaren antolatzaileetako bat izan zen”, baina ez du easten Eibarrera handik milizianoak ekartzera joan zenik. Beasaingo Udal Artxiboa. 073 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹⁵⁷ Eusko Jaurlaritzaren Irargi Artxiboa 11 kutxa, 3 dokumentu-sorta.

¹⁵⁸ Beñaran 1934an Beasaindik Eibarrera aldatzeko, bere igoera izan zatekeen, lotinant kargutik kapitain kargura gora egin baitzuen. Bere igoerari buruzko berri bat, lotura honetan (*Guda Ministerioaren Buletin Ofiziala*, 1934-III-6): http://bibliotecavirtualdefensa.es/BVMDefensa/i18n/catalogo_imagenes/grupo.cmd?path=14822 1901.an sartu zen Goardia Zibilean; lotura hemen (*Gudako Ministerioaren Buletin Ofiziala*, 1901-VII-21): http://bibliotecavirtualdefensa.es/BVMDefensa/i18n/catalogo_imagenes/grupo.cmd?path=6045 Jose Luis Cerveroren arabera, 13 urterekin Goardia Zibilaren Valdemoroko Akademian izena eman zuen (CERVERO, Jose Luis: *Los rojos de la Guardia Civil*. La esfera de los libros. Madril, 2006, 343. or.). Hala ere, liburu horrek altxatuek Beñaran Beasainen “ustekabeen harrapatu” zutela dio, eta ikusi dugun bzeala erabaki kontziente bat medio (bazezien borrokara zihoala) joan zen Beasainera. Liburu honek ez du aipatzen ezta ere Beñaran Eibarko postuan baino lehenago Beasaingo postuan egon zenik. Lan batzuek, okerbidez, Beñaran Oñatitik etorri zela esaten dute, adibidez; LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Gerra Zibila: Beasainen erorketa” in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain, Udalerri gipuzkoar baten historia* (269-277. or.). Beasaingo Udala. Beasain, 1987, 269. or. Jose Antonio Egidok, Beñaran “oñatiar” bezala identifikatzen du, urretxuarra zelarik: EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 91. or. 1936ko abuztuaren 13ko *El Liberal* egunkariak “Oñatiko lotinant” bait aipatzen du, baina hau ez du Beñaranekin (zeina “Villaran” bezala identifikatzen dute) lotzen, baizik eta “traizio” egin zuen goardia zibil batekin. *El Liberal*, 1936-VIII-13.

¹⁵⁹ Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9; Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25; Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5; eta Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

3. kapitulua

Ruizek dion moduan “jendea ziur zegoen Beñaranek ez zituela traizionatuko”¹⁶⁰ (hala ere, esan beharra dago bere kapitain karguagatik Beñaranek defentsaren alor militarrean ardurarik nagusia izan zuen arren; barnera begira, ordena publikoaren arloan, ardura nagusia beste goardia zibil batek, Carlos Gonzalez kaporalak, zuela).

Beñaran eskuindarra zen, monarkikoa¹⁶¹ baina Eibartik etorri zen Beasainen Errepublika defendatzera (hala ere, bada Beñaran errepublikano bezala identifikatzen duenik¹⁶²). Hau azaltzeko hainbat motibo aurki ditzakegu, horietako bat, Errepublikari zin egin ziola¹⁶³. Beste bat, honekin lotuta, Beñaranek bere ideialak gora-behera, indarrezko Estatu-kolpearen errekurtsioa gaitzestea, eta herriak aukeratutako gobernu baten kontra ez altxatzea izan zitekeen. Eta azkenik, altxamenduaren hurrengo egunetan, militar altxatuek Altsasun burututako sarraskiak Beasainen gerta zitekeenaren inguruan Beñaran hunkitu zezakeen. Hala ere, azken hau ez dut uste Beñaranen lerroketarako arrazoi definitiboa denik, izan ere, Eibarko postuko kapitaina zelarik, Eibarren Goardia Zibilak Beistegui Hermanos arma-fabrikan Mauser-Beistegui markako 3.000 pistola hartu eta errepublikanoen artean banatu zituen. Gertakari hau altxamendua gertatu eta gutxira izan zen, oraindik Altsasuko sarraskia gertatu gabe zela. Beraz, sarraski honek Beñaran hunkitu bazezakeen ere, ez zen Errepublikaren aldera lerrokatzean erabakigarria, erabaki hori lehendik hartua baitzuen¹⁶⁴. Hala ere, baliteke jada Errepublikaren alde lerratzeko erabakia hartua bazuen ere, Altsasuko sarraskiak Beñaran lerrotze honen barne beste erabaki bat hartzera bultzatu izana: Beasainera etortzeko erabakia hartzera bultzatu izana (Eibarren geratu ordez, edo Donostiara joan ordez). Antza denez, Beñaran prestigio handiko komandantea zen, nork bere aldera, bi aldeek erakarri nahi zutelako: Joxe Manuel Azurmendiren arabera; “bi aldeek beren aldera erakarri nahi izan zuten (...) Leon Carrasco Gobernadore militarrekin asko hitz egiten zuen telefonoz”¹⁶⁵. *El Liberal* egunkariak esaten duen arabera, “Villaran (sic)

¹⁶⁰ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

¹⁶¹ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsororen arabera “herrian jada ezaguna zen eskuindarra eta monarkikoa zela”. Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

¹⁶² Arantza Ugarte Azkaratek hola diosku: “Nik uste Beñaran errepublikanoa zela”. Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

¹⁶³ Herri testigantzen artean; Felipe Ibarbiak (Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19), Joxe Apalategi (Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25), Milagros Aranburuk (Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. 2014-VIII-5) eta Sara Unanuek (Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-X-1) interpretazio honekin bat egiten dute.

¹⁶⁴ GUTIERREZ AROSA, Jesus: op. cit., 19. or.

¹⁶⁵ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

kapitainak, ideia monarkikoak eta katolikoak zituenak” diskurtsu bat egin zien “bere menpekoei”: “Legearen kausaren, hots, Errepublikaren Gobernuaren kausaren, ez baitago besterik, alde borrokatuko eta behar bada hil egingo gara”¹⁶⁶.

Guda Zibilean Eibarren jazotako gertaerak ikertu dituen Jesus Gutierrez Arosaren arabera, Beñaranek eta bere menpeko gizonek ibilgailu batekin tanke artesanal bat egin zuten, Valentin Lluvia izeneko batek gidatzen zuena¹⁶⁷. Ibilgailu honek borrokaldian zehar buruhauste asko eman zien altxatuei, eta ikusiko dugun moduan, posibilitate handiak daude “tanke” hau, uztailaren 27ko arratsaldean Hunolt tinta fabrikaren ondoan erretzen ari ziren ibilgailua izateko (eta erretze honetaz ohartarazteak Guillermo Ugarteri heriotza ekarri zion).

Gainera kontuan izan behar da ordurako jende ia gehiena alde eginda zegoela. Jose Antonio Egidori esan ziotenez, altxatuak herrian sartu baino lehenago, jada jende askok ihes egin zuen Beasaindik; bai altxatuen jomugan zeudelako edo baita defentsa hobe antolatuta zegoen beste toki batzuetara joteko¹⁶⁸. Miren Barandiaranen arabera, “uztailaren 25erako, jende askok alde egin zuen herritik”¹⁶⁹. Alfontso Ibaibarriagaren arabera, Beasainen egun horietan gertatu zena “desbandada” bat izan zen¹⁷⁰. Herriko alkateak, Victor Bernedok uztailaren 26an egin zuen ihes Azpeitia aldera¹⁷¹. Datu bat eman beharra dago: 1936ko uztailaren 30ean (frankistak sartu eta gutxira), Udal bandak Beasainen bederatzi kide bakarrik zituen, gutxi-gora-behera kideen herena (Beasaingo Udalaren 1936ko abuztuaren 20ko Osoko-Bilkurak esan zuen inguruabar hau)¹⁷².

Herritar gehienek, altxatuen tropak hurbildu ahala, ondoko baserrietara egin zuten ihes, borrokaldietatik seguru egoteko eta egoerak nora egin ahala itxarote tarte batean egoteko. Hala egin zuen adibidez, Jose Vicente Iraolak, zeina uztailaren 26an Basarte Goikoa baserrira igo zen eta uztailaren 27 arratsaldea arte ez zen Beasaina

¹⁶⁶ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

¹⁶⁷ GUTIERREZ AROSA, Jesus: op. cit., 27. or.

¹⁶⁸ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 91-92. or.

¹⁶⁹ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 100. or.

¹⁷⁰ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia. Hainbat herriko testigantzek hori berresten dute: Alicia Polo eta Mikel Apaolazari eginiko elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30; Pako Ruiz de Apodaka Galarzari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-18; Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean; Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6; eta Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

¹⁷¹ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 95. or.

¹⁷² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

3. kapitulua

itzuli, jada frankisten esku zegoelarik¹⁷³. Hainbat herritarrek ere antzeko jarrera izan zuten¹⁷⁴. Nahiko tragikoa izan zen Barrendain familian bizi zen Mendia sendiaren kasua, familia osoak Erauskin auzora joan ziren, baina behi bat txahala erditzera zihoala eta, Evaristo Mendia eta bere seme nagusi Florencio Mendia baserrian geratu ziren. Erabaki horrek bizia kostatu zion Evaristori eta ia-ia Florenciori¹⁷⁵. Halako gehienek tiroketak bukatuta etorri ziren Beasaina, Jabier Garciak dionaren arabera, Joaquina Guillen Azurmendi deitutako emakume bat izan zen jendea Beasaina jaisteko esaten zuena¹⁷⁶.

Beste batzuk erietxera egin zuten aterpe bila, adibidez Andoni Sarriegi lekukoaren izeba bik (Martina Sarriegi Aldanondok eta Romana Sarriegi Aldanondok)¹⁷⁷, edo Milagros Aranburuk¹⁷⁸. Beasainen inora joaterik ez zutenek, leihoetan koltxoiak jarri zituzten, sartu ahal ziren tiroengandik babesteko¹⁷⁹; hala egin zuten adibidez Eleuterio Aiestaren familian, Andra Maria kalean¹⁸⁰. Juan Jose Garcia Urcelayetak ere aipatzen du hori bere artikulu laburrean¹⁸¹.

Bestetik, Juan Jose Garcia Urcelayetaren arabera, Beasain inguruko zubiak dinamitatu zituen Defentsa Komiteak, adibidez, Ordiziako mugan dagoen Malkasko zubia. Ezequiel Echezabal izeneko batek bete omen zuen lan hori¹⁸². Hala ere, Echezabalen kontrako kausan lan hori Echezabalek gogoz kontra egin zuela aipatzen du ia gaixo zegoela, Antonio Menaza Bermudez Elkarte Sozialistako buruak, Carlos Gonzalez goardia zibilaren kaboak eta Segundo Lozares algoazilak behartu zuten zubi hori botatzera. Horren ostean Idiazabalgo bidean zegoen Jilimonea zubia ere bota zuten, eta baita ere Ormaiztegirako bidean zegoen Makinetxe zubia; hirurak behartuta (lan hau behartuta egin zutela aipatzen dute baita lan horietan parte hartu zuten beste bik:

¹⁷³ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 351. or.

¹⁷⁴ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16; Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9; Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25; Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19; Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22); eta Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

¹⁷⁵ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

¹⁷⁶ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

¹⁷⁷ Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6

¹⁷⁸ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. 2014-VIII-5.

¹⁷⁹ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

¹⁸⁰ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

¹⁸¹ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: "Beasain: Una noche sangrienta (27-28 de julio de 1936)", in *Ikuska* aldizkaria, 3. zkia. (56-74. or.), 1993ko uztaila-iraila, 60. or.

¹⁸² *Ibid.*, 57. or.

Benigno Martinezek eta Manuel Palacios Ferrerrek)¹⁸³. Horrez gain, Pia Maria Barandiaranen arabera, Kaseta zubia bota zuten ezkertiarrek Ataunen (uztailaren 19an izan zen) eta Ordiziako Joseba Rezola jeltzalearen aginduz (geroago Eusko Jaurlaritzako defentsa sailburuordea izan zen), Kasetatik Lizarrustira zihoan bidea moztutako zuhaitzez blokeatu zuten¹⁸⁴. Kasetako zubiaren botatzearen inguruko erreferentziak Beasaingo ezkertiarren kontrako kausetan aurkitzen dugu. Zehazki Felipe Bueno beasaindarrak deklaritzen duenez, Ordiziako bi goardia zibilekin batera, (Ignacio Sebastian Fernandez eta Joaquin Perez Gaibar) Ordiziako Otegi armeriatik hartu zuten dinamita gero Kaseta zubia botatzeko¹⁸⁵, eta bidean beste bi beasaindar aurkitu zituzten: Angel Zufiaurre eta Eugenio Etura. Arratsaldean, zubia botata, Ataunen Daniel Inchausti ingeniaria atxilotu zuten¹⁸⁶. Bestalde, Barandiaranen arabera, Beasaingo ezkertiarrek zeramatzen kotxe batzuk ibili ziren Ataunen zehar, patruila egiten, baina “jendeari enbarazurik egin gabe eta jendeari esloganak oihukatu arazi gabe”¹⁸⁷.

Halakoa ez zen gertatu altxatuak Ataunen sartu zirenean, non herritarrak izutu (Sutegi baserrikoak, adibidez), batzokia itxi, isunak jarri, umiliazioak egin eta abar egin zituzten. Ataunen zortzi hilotz agertu ziren altxatuak sartu eta ondorengo egunetan: honek erakutsiko zuzen zer egin zezaketen frankistek Beasainen sartzerakoan¹⁸⁸. Donostiako matxinada nahikoa erraz kontrolatu zuten errepublikanoek (batez ere anarkistei esker), uztailaren 21rako jada Donostian amotinatu ziren soldaduak euren koarteletara itzuli behar izan ziren, baina azkeneko erresistentzia ez zen uztailaren 27a arte garaituko, Beasain frankistek hartu zuten eguna arte. Matxinada hau garaitze gako bat, Beorlegui eta Ortiz de Zarate militar frankisten tropei Oiartzunen jarritako

¹⁸³ Zubiak botatzeari buruz; Ezequiel Echezabalen kontrako kausa ikus daiteke: Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 1858-38 kausa, Ezequiel Echezabal Belozpideri, Benigno Martinez Lopezi eta Manuel Palacios Ferrerri dagokiena. Baita ere: Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 13074-38 kausa, Gregorio Sanchez Garciari dagokiona.

¹⁸⁴ BARANDIARAN, Pia Maria: op. cit., 647-648. or.

¹⁸⁵ Felipe Buenoren kontrako kausan, honek esan zuen Ordiziako bi guardia zibilei agindua Ordiziako postuko komandante Angel Latorrek eman ziela, hauek ordea, Beasaingo postuko buru Carlos Gonzalez Garzonek eman zuela. Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3088-38 kausa, Felipe Bueno Arizmendiri dagokiona.

¹⁸⁶ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3088-38 kausa, Felipe Bueno Arizmendiri dagokiona; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2110-38 kausa, Angel Zufiaurre Caminori eta Eugenio Etura Berasateguiri dagokiena. Atxiloketa honen inguruan hiruak bat datoz agindua Carlos Gonzalezek eman zuela diotenean.

¹⁸⁷ BARANDIARAN, Pia Maria: op. cit., 648. or.

¹⁸⁸ Ibid., 648-650. or.

3. kapitulua

erresistentzia izan zen, hauek Oiartzun abuztuaren lehen egunetan hartzea izan zuten, baina jada Donostiako matxinada zanpatua zegoenean¹⁸⁹.

Arma falta zen Gipuzkoako defendatzaileen arazo nagusia. Frantzian Bizkaiko ezkertiar batzuek egindako gestioek ez zuten balio izan antza denez: Gipuzkoako Defentsa Batzordeko burua zen Miguel Amilibiaren arabera, “ez geneukan ia balarik. Madriletik egunero etortzen zen hegazkin bat, 40 kutxarekin, bakoitzean 1.600 bala zeudelarik, baina borroka bi ordutan 16.000 bala gastatu zitezkeen”¹⁹⁰.

Momentu hartan, hiru frontetan erasotzen zuten Gipuzkoaren kontra altxatuak. Bat esan dugu, Oiartzungo frontea izan zen. Beste bat, esan bezala Goierriin, Beasainen kontrako eraso. Hirugarrena, Tolosaldearen okupazioa izan zen. Izan ere, uztailaren 22an frankistak Betelura iritsi ziren, eta 23an Gipuzkoako mugan sartu ziren. Uztailaren 25ean, Becerra komandantearen pean Lizartza okupatu zuten. Beste talde batek, batez ere erreketek osatuta, Tutor buru, uztailaren 24an Berastegi eta Urto mendia okupatu zituen¹⁹¹, eta bi taldeak uztailaren 30ean Leaburun batu ziren, Tolosa mehatxatzeko prest¹⁹².

Tropa altxatuak, Beasaina, kopuru handian etorri ziren; Julio Arosteguiaren arabera, guztira 400 soldadu etorri ziren Goierriara¹⁹³, baina datu guztiak erkatuta, baliteke gehiago izatea, 600 eta 700 artean (iturri batzuek Malcamporen zutabeen soilik 300 erreketek zeudela esaten baitute). Bai erreketek zein Iruñean zegoen Armada erregularreko *Arapiles* batailoiko soldaduak izan ziren hemen sartutakoak, eta Pablo Cayuela lotinant-koronela izan ziren bertan sartutako zutabeen arduradun nagusia. Hiru zutabetan sartu ziren militarrek Beasainen. Julio Arostegui historialariak bere erreketek buruzko liburuan esaten duen bezala, sartu zirenak honela banatzen ditu: Iruñetik Jose Malcampok gidatutako zutabe bat, zeinak Arbizutik zehar Lizarrustitik gora egingo zuen, uztailaren 24an Ataunen sartuz¹⁹⁴. Bertan 100 eta 300 erreketek artean (iturri ezberdinen arabera), Jurramendiko Tertzioaren 3. Gorputz Espedizionariokoak eta

¹⁸⁹ BELDARRAIN, Pablo: op. cit., 28-29. or.

¹⁹⁰ Ibid., 31. or.

¹⁹¹ LEGARRA BELASTEGUI, Miguel: op. cit., 345. or.

¹⁹² BARRUSO BARES, Pedro: *La guerra civil en Guipúzcoa*. Hiria. Donostia, 1984, 214-215. or.

¹⁹³ AROSTEGUI, Julio: op. cit., 316. or.

¹⁹⁴ Pia Maria Barandiaranen arabera, 25ean iritsi ziren Ataungo San Martinera (BARANDIARAN, Pia Maria: op. cit., 648. or.). Kontuan izanez (geroago aipatuko dugun bezala) Julio Arosteguiaren arabera, 25ean Idiazabalen zeuden Cayuelaren zutabearekin *ofizialki, baina ez fisikoki* bat egin zutela, posible da bi bertsioek arrazoiaren parte bat izatea: 24an Ataungo udalerrian sartu izana, baina San Martinera 25ean iritsi izana.

Nuestra Señora del Camino konpainiakoak; eta 80 falangista ziren¹⁹⁵. Jose Antonio Urgoitiaren arabera, zutabe horretan 300 erreketek ziren¹⁹⁶. Miren Barandiaranek ere datu horri eusten dio¹⁹⁷. Malcamporen tropak “Caparrosoko tertzioa” bezala ezagutu ziren hasiera batean, eta izen hau darabil Angel Irigorasek baita¹⁹⁸, baina ez zen izen ofiziala izan, eta Malcampo borrokan zauritua izan ostean termino hau erabiltzeari utzi egin zioten; 1937.eko otsailean sortutako Nuestra Señora del Camino herenean sartu ziren hauetako erreketek gehienak. Malcamporen esanetara Martinez de Irujo eta Muruzabal ofizialak eta Martin, Sardina eta Val lotinantak izan ziren. Zutabe honetan zetorren Borja Arteaga, Lazkaoko Jaunaren (Infantadoko Dukearen) semea¹⁹⁹. Malcamporen tropak Ataunera iritsi zirenean hango jendea mehatxatu (Sutegi baserria erreko zutela esan zuten) eta hainbat zigor zein lapurreta egin zituzten, sartu eta berehala²⁰⁰. Andoni Sarriegik eta Aitor Garmendiak esan zutenaren arabera, Beasaina sartu ziren erreketek ez ziren Nafarroako zonalde euskaldunetakoak, gehienak “Nafarrak bai, baina ez euskaldunak” ziren eta. “Agian baten bat euskalduna zen, baina oro har ez”²⁰¹.

Beste alde batetik, Pablo Cayuela Ferreira, Arapiles batailoiko lotinant-koronela izan zena, Lizarratik abiatu zen, konpainia horren 7. batailoiarekin eta erreketek batzuekin, Julio Arosteguiaren arabera, 27 erreketerekin (baina Cayuelaren peko zutabeetan erreketek gutxiengoa izan ziren, gehienak erregularrak ziren. Cayuelaren peko erreketek ez ziren gero osatu zen Lizarrako Erreketen 1. Konpainiakoak)²⁰². Konpainia hau 19an Altsasura iritsi zen, han sekulako errepresioa burutuz (Anselmo Ruizek esaten du Altsasuko “ehun bat pertsona” etorri zirela Beasainera aldera pasatuz, han sufritutako errepresioaz alde egiteko²⁰³). Bertan fusileroen bi konpainia, ametrailatzaile sekzio bat, akonpasamendu-makinen sekzio bat, transmisioen sekzio bat, eta Falangearen eta Erreketen sekzio bana zituen Cayuelak. Roca, Mellid eta Cortazar kapitainak zeuden Cayuelaren esanetara. Eta hirugarren zutabea, Jesus Albizuren menpe

¹⁹⁵ AROSTEGUI, Julio: op. cit., 314. or.

¹⁹⁶ URGOITIA BADIOLA, Jose Antonio: “La insurrección en Guipúzcoa” in URGOITIA, Jose Antonio: *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi peninsular*. (I lib., I parte: *La caída de Guipúzcoa*), (193-233. or.). Sendoa. Oiartzun, 1984, 225. or.

¹⁹⁷ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 96. or.

¹⁹⁸ IRIGORAS, Angel: *Herri zapalkuntzaren lekuko batzuk. 1936-2006 Lehen orain eta beti: Eskubide berdinak pertsona guztientzat*. Erroteta. Bizkaia, 2006, 174. or.

¹⁹⁹ AROSTEGUI, Julio: op. cit., 314-316. or.

²⁰⁰ BARANDIARAN, Pia Maria: op. cit.

²⁰¹ Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6; eta Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

²⁰² AROSTEGUI, Julio: op. cit., 314. or.

²⁰³ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

3. kapitulua

zegoen. Jesus Albizu kapitainaren tropak uztailearen 24an abiatu ziren Lizarratik, egun horretan bertan Zegama hartzeko²⁰⁴. Beasaingo borrokan parte hartu ez zuen unitate militarra Benedicto Barandallaren partida etxarriarra izan. Hauek Beasainen ibili izan ziren, baina behin borrokaldia pasata. Lazkaomendi eta Ordizia artean uztailearen 29an zeuden partida horretako hogeitik gora lagun soldadu errepublikanoek atxilotu zituzten.

Uztailearen 25ean Cayuelaren tropak Altsasutik Idiazabalera iritsi ziren (Auñamendi entziklopediak, okerbidez, 20an jada Idiazabalen zeudela dio), eta hemen bat egin zuten Zegaman zeuden Albizuren tropekin eta Ataunen zeuden Malcamporen erreketeeekin²⁰⁵. Cayuelaren guda-egunkariaren arabera²⁰⁶ orduan izan zuen kontaktua Albizuren tropekin, eta bera bai bere zutabearen, zein Albizuren, zein Malcamporen gainetik ezarri zen, bere zutabea Francisco Roca kapitainaren ardurapean geratuz²⁰⁷.

Jose Antonio Urgoitiaren arabera, uztailearen 26an Idiazabaldik Beasainen kontrako saiakera bat egin zuten, Albizuren eta Rocaren zutabeak Cayuelak zuzentzen zituelarik. Urgoitiak dioenez, egun horretako arratsaldean Albizuren indarrak Rocarenek ordeztu zuten borroka-oinaren aurrekaldean. Egun horretan Beasain hartzea ezinezkoa zelarik; helburua aldatu egin zen eta Malcampok Lazkao okupatu zuen, eta Albizuk eta Rocak Olaberria²⁰⁸. Hori bera dio Cayuelaren guda-egunkariak. (Angel Irigorasen arabera, aurreko egunean okupatu zuten Olaberria, Beasainen aurkako porrot eginiko saiakera aurretik; eta ez saiakera horrek porrot egitearen ondorio gisa²⁰⁹). Olaberriaren okupazioa Anselmo Ruiz lekukoak idatzi baten bidez utzi digu: “Beasainen frankistak sartu ziren eguneko bezperan (hau da, uztailearen 26an) Olaberriatik beasaindar asko korrika etorri ziren, han erasotu egin zituztela eta. Horietako batzuk Juanito Valdivielso eta Valentin Gomez²¹⁰ izan ziren”²¹¹. Veremundo Mendizabalen arabera, uztailearen 26an okupatu zuten altxatuek Lazkao, eta Martinez alferezak beneditarren komentua erregistratzea agindu zuen (ezkerrekoek ez zuten halakorik egin)²¹². Ane Barandiaran lekukoa egun horretan Lazkaon zegoen eta soldaduak pasatzen ikusi omen zituen.

²⁰⁴ AROSTEGUI, Julio: op. cit., 314-315. or.

²⁰⁵ URGOITIA BADIOLA, Jose Antonio: op. cit., 225. or.

²⁰⁶ Avilako Artxibo Militar Nagusia, C-2677, 23-B karpeta.

²⁰⁷ Hala ere, Julio Arosteguiaren arabera, bateratzen hau “ofiziala” soilik izan zen, benetan altxatuen hiru zutabeak uztailearen 26an batu ziren. AROSTEGUI, Julio: op. cit., 316. or.

²⁰⁸ URGOITIA BADIOLA, Jose Antonio: op. cit., 226. or.

²⁰⁹ IRIGORAS, Angel: op. cit., 174. or.

²¹⁰ Hau Valentin Gomez Arce zen, Beasaingo Defentsa Komiteko kidea, gudan borrokatu zuena eta gudaren ostean heriotza-kondena (geroago konmutatua) izan zuena.

²¹¹ Anselmo Ruizek idatzitako testigantza.

²¹² MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 118. or.

Barandiaranen arabera “tiroketaren bat izan zen Lazkaon, uste dut tiro batzuk euren artekoak izan zirela”. Barandiaranen arabera, Lazkaon emakume batzuei ilea moztu zieten²¹³.

Uztailaren 26ko gauean (Irigorasen arabera 25ean²¹⁴), altxatuak Olaberrian kontzentratuta zeudelarik, Beasaingo mediku bat joan zitzaien ohartaraztera “Beasainen ez dago inolako defentsarik, gauzaina kanpaia joz ere hartzeko gai izango zen”. Medikuri hori, herriko mediku titularra zen, Hilario Urteaga, herriko zenbait testigantzek esaten duten moduan. Jose Antonio Egidok eta Angel Irigorasek, okerbidez, medikuri hori Roman Unanue izan zela dioskue²¹⁵. Kasu honetan informazio hau okerra dela esan dezakegu, herriaren testigantzarik gehienek kontrakoa adierazten baitutelako, eta bestetik, Roman Unanue bera, abertzalea zena, frankistek fusilatzeaz egon zelako, “abertzale eta separatista izatearren”²¹⁶.

Uztailaren 26ko eraso horrek nahiko amorru sorrarazi behar izan zien altxatuei. Cayuela berak dio “etsaiak (errepublikanoek) zuen indarrak kontutan hartuta, helburuz aldatu behar izan genuen (...) etsaiarekin tiroketa oparoa izan genuen”²¹⁷. Izan ere, defendatzaileak gutxiago ziren, eta arma eskasagoak zituzten, baina ematen duenez ondo antolatuta zeuden, eta frankotiratzaile trebeak izan zituzten. Beñaran kapitainak bere gizonak mendiko posizioetan jarri zituen²¹⁸. Zehaztasun handiko tiroak botatzen zituen, Paulino Aranburuaren arabera “Beñaranek hogeitiro botatzen bazituen, hogeitiro nafar (erreketez ari da) lurrera zihoazen”²¹⁹. Jesus Lopez Gallegok ere badiosku: “halako hots bat entzuten zen “pakun!” eta orduan soldaduek zioten: “Ofizial bat hil da. Tiro hau ofizial baten kontra joan da””²²⁰. Milagros Aranburu Mujikak ere badio: “Botatzen zuen tiro bakoitza, altxatuen hildako bat zen”²²¹. Beste ezkertiar batzuk ordea Udaletxeko dorrean izan ziren. Ez zen ezkertiarrik izan Elizako dorrean, nahiz eta geroago altxatuek hori leporatu Beasain defendatzen ari zirenei, batez ere Beñaran kapitainari²²². Mila Mendiaren arabera, “lehenengo eraso hori Lazkaotik izan zen; baina

²¹³ Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12.

²¹⁴ IRIGORAS, Angel: op. cit., 174. or.

²¹⁵ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 92. or.; eta IRIGORAS, Angel: op. cit., 174-175 or.

²¹⁶ Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-X-1. “Por nacionalista, separatista y gran propagandista” zigortu zuten Roman Unanue, Sara Unanueren hitzetan.

²¹⁷ Avilako Artxibo Militar Nagusia, C-2677, 23B karpeta.

²¹⁸ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

²¹⁹ Testigantza hau ez dago grabatua.

²²⁰ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

²²¹ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

²²² MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 120-121. or.

3. kapitulua

baja batzuk izan zituzten. Agian horrek amorrarazi zituen. Hurrengo saiakeran Loinazpetik sartu ziren²²³. Mila Mendiaren kontakizuan nahiko erreala da, izan ere, Geltokia zen altxatuaren lehen helburua, eta gainera, bestetik, okupaziorako saiakera arakastatsuan Antzizar okupatu zuten lehenik²²⁴. Miren Barandiaranen arabera, ere “26an tren geltokia hartzen saiatu ziren (...) baina hartu zuten lehena Zumarragarako bidea izan zen²²⁵” (hots, Antzizar eta Loinazpe auzoak; hauek hurrengo egunean, ikusiko dugunez). Juan Jose Garcia Urcelayetaren arabera, uztailaren 26an, arratsalde partean saiatu ziren eskuindarrak Olaberetik Beasaina sartzten²²⁶. Jabier Garcia Bergararen arabera, Senpereko Altune baserrian saiatu ziren errepublikarrak Molaren tropei aurre egiten. Gero baserri horretako Sarriegi altxatuek errepresaliatua izan zen²²⁷. Hauekin bat dator Anselmo Ruizek utzitako testigantza idatzia: “Beasainen sartu zireneko bezpera-egunen Lazkaoko hilerritik soldadu asko zeudela ikusi genuen. Goardia zibil batzuk eta asaltozko goardiako beste batzuk, Senperen eta fabrika jarri ziren²²⁸”.

Uztailaren 27an jo zuten Beasainen kontrako azken erasoaldia; eskuinetik (Lazkaotik) Malcampo zetorrelartik, erditik (Geltokiaren kontra) Roca, eta ezkerretik (Antzizar eta Igartza aldetik), Albizu. Cayuelaren guda-egunkariaren arabera, goizaldean hasi ziren Beasain erasotzen²²⁹. Errepublikarrek gogor borrokatu zuten ordu haietan, baina gutxiago izan ziren, eta azkenean garaituak izan ziren; Malcampo eta Roca zauritu zituzten arren (Solchaga etorri behar izan zen Iruñetik operazioa bukatzera). Erresistentzia oso gogorra izan zen. Joxe Apalategik ere erresistentzia gogorra izan zela aipatzen du: “Hemen frankistak oso gaizki hartuak izan ziren. Eurek uste zuten Beasain oso erraz hartuko zutela²³⁰”.

Erresistentzia gogorra izan bazen ere, altxatuak gehiago numerikoa eta arma-gehiengoa zuten: 400-600 pertsona izango ziren, defendatzaileen artean asko jota 200 soilik izan zirelarik (honek azaltzen du parte batean baita zergatik izan zituzten borrokan hildako gehiago eskuindarrek ezkertiarrek baino). Horrez gain, armen aldetik nagusitasuna ere bazuten: Olaberrian kainoi bat izan zuten eta harekin herriaren kontra

²²³ Mila Mendi Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

²²⁴ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

²²⁵ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 99-100. or.

²²⁶ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 59. or.

²²⁷ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

²²⁸ Anselmo Ruizek idatzitako testigantza.

²²⁹ Avilako Artxibo Militar Nagusia, C-2677, 23B karpeta.

²³⁰ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

tiratzen zuen. Joxe Apalategi Etxeberriak dio bera bizi zen etxea (egungo Nafarroa Etorbidean) obus batekin jo zutela altxatuek²³¹. Maria Karmen Ibarbia eta Felipe Ibarbia lehengusu-lehengusinek ere badiote Beasain artilleriaz bonbatua izan zela; etxe batzuk erreak izan zirelarik²³². Anselmo Ruizek, orduan Bideluze kalean (gaur egun, Arana kalea) bizi zenak ere gogoratzen du nola jo zuen kainoikada batek bere etxean²³³. Gainera berak ere esaten du etxe batzuk erretzen ibili zirela Beasainen erdian, “Katarainen etxea” deitzen zuten etxea, adibidez²³⁴. Jose Vicente Iraola Lasak ere esan zuen bere etxea, Kale Nagusiko 25 zenbakian zegoena, eta honen ondoko batzuk erreak izan zirela²³⁵. Errepublikarrek ez zuten gauza handirik, fusil batzuk (“Eibarko milizianoek ekarritakoak bertakoenak baino hobeak ziren”, Jabier Garciaren arabera²³⁶), eta asko jota, eskuzko bonba batzuk, Jabier Garcia Bergarak esaten duenaren arabera: “nire senitarteko batzuk soldadu errepublikano batzuekin topo egin zuten eta hauek eskuzko bonba batzuk zeramatzatela ikusi zuten”²³⁷. Eskuzko bonba horien inguruan, esan beharra dago guda ostean Jose Luis Guridik idatzi zituen hiru txostenen arabera; “Victor Bernedo alkatea, herritarrei Mugimendu Nazional loriatsuari aurre egiteko eskuzko-bonbak banatzen ibili zen taldean ibili zen”²³⁸ (akusazio hauen atzean motibazio politikoak egon daitezke). Beste txosten batzuetan, agintari frankistek armak ezkertiarren artean banatzea Cecilio Sarriegui abertzaleari leporatu zioten²³⁹. Bestalde,

²³¹ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

²³² Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

²³³ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25.

²³⁴ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25.

²³⁵ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 352. or. Joxe Manuel Azurmendik obus hori erortzen ikusi zuela dio (Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10). Iraolaren etxea eta Katarainen etxea elkarren ondoan zeuden, Kale Nagusiko 25. zenbakia eta 23. zenbakia ziren hurrenez-hurren.

²³⁶ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

²³⁷ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

²³⁸ Hiru txosten hauek 1937.eko uztailaren 13an, 1938.eko martxoaren 29an eta 1940.eko urtarrilaren 10ean daude, orduan Bernedo kartzelan zegoelarik; beraz pentsatzekoa da Bernedori heriotza-zigorra jarri ziotenean eragin handia izan zutela. Txostenok Beasaingo Udal Artxiboko A088 karpeta 01 dokumentu-sortan ikus daitezke. Beste alde batetik Martin Esnaolak, alkate zela, bat egin zuen akusazio hauekin; datarik gabeko txosten batean hau baieztatu egin baitzuen. Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 03 dokumentu-sorta.

²³⁹ Halako lehenengo txostena Beasaingo “Batzore txostengileko” lehendakari Francisco Ezquiagak sinatzen du 1937.eko abenduaren 24an, eta Jose Luis Guridi alkateak 1938.eko ekainaren 10ean berreti (Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 03 dokumentu-sorta). Jose Luis Guridik beste txosten bat idazten du, akusazio horiek errepikatuz, 1938.eko azaroaren 8an; eta “Batzorde txostengileak” (kasu honetan sinaurarik gabe; baina Ezquiagaz gain Eusebio Asla eta Francisco Unzueta ziren batzorde honen parte), 1938.eko abenduaren 24an (Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 01 dokumentu-sorta). Guridik eta Ezquiagak, armak banatzearen akusazioa, 1938.eko urtean Beasainen preso zegoen Enrique

3. kapitulua

errepublikanoek bazuten, tanke artesanal hura, Eibarko milizianoek eta Beñaranek egina eta Valentin Lluvia milizianoak gidatua. Tanke hori, kotxe batean ezarritako jaurtigailu edo metrailadore higigarri bat zen, ez gehiagorik.

Goizeko seiretan hasi ziren tiroketak, Joxe Manuel Azurmendiren arabera²⁴⁰. Antzizar auzotik sartu ziren, “Ihurretik eta Olaberriatik” Azurmendi Dorronsororen hitzetan²⁴¹. Aitor Garmendia Goitiaren arabera, bere familiaren baserria izan zen altxatuek hartu zuten lehena, Antzizar-berri izenekoa hain zuzen ere²⁴². Jakina, euren bila zetozela jakinda, Garmendia Goitiaren familiak ihes egin zuen amonak bera hartuta, Gudugarreta auzora, eta Aitor Garmendia berak kontatzen digunez, bidean tiro egin zuten bere amonaren aurka, jo ez bazuten ere. Gerora, Garmendia Goitiaren arabera, bere familiaren kontrako salaketa jarri zuten, “hitz gogorrez gainera”. “48 orduko ultimatum eman ziguten gure aitona (Alejandro Garmendia) non zegoen esan zezagun, bestela etxeari su emango ziotela”. Bere esanetan, “salaketa herritar batek jarri zuen, baina ez dakigu nork”²⁴³. Okupatu zituztenak erreketek izan ziren “nafarrak, baina ez euskaldunak, ez zuten euskararik egiten”²⁴⁴. Garmendia Goitiaren arabera, erreketek etxean sartu zirenean, “maindireak eta abar” lapurtu omen zituzten. Ez zen kasu bakarra izango, ez lapurretarena (orokorra izan baitzen Beasainen, gerora ikusiko dugun bezala), ez salaketa herritar batek egitearena, ez beldurrez auzoetara joatearena. Aitor Garmendiak esan digunaren arabera, kapitaina etorri zenean, liburuak ikusi eta “hau ez zen nik bilatzen nuena” esan zuen; eta orduan salaketa bertan behera utzi zuten “baina kaltea jada eginda zegoen”. Hala ere, borrokaldiak bukatuta, Aitorren aita Anselmo Garmendia atxilotua izan zen²⁴⁵. Antzizarreko sarraldia Jabier Garcia Bergarak konfirmatzen digu. Herritar honen testigantza arabera, “gaur egun Estanda dagoen tokitik sartu ziren altxatuak Beasaina. Antzizarretik jarraitu zuten, eta Sorobideta bidearen barna (gaur egun Sorobideta bidea zegoenaren gainean Oriamendi kalea dago) aurrera egin zuten herrirantz”²⁴⁶. Antzizar pasata, Cayuelaren guda-egunkariaren arabera, Francisco Roca kapitaina zauritua izan zen, bere postua Cayuelak zuzenean

Zubizarretaren adierazpenetan oinarritzen dute (Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 01 dokumentu-sortan).

²⁴⁰ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

²⁴¹ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

²⁴² Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

²⁴³ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

²⁴⁴ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

²⁴⁵ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

²⁴⁶ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

hartu behar izan zuelarik. Berarekin batera zihoazen Jacinto Lasa kapitaina, Gabreiel Pairet lotinanta, Antonio Oña alfereza eta Jose Rodriguez sarjentua.

Okupatzaileen indar nagusitasuna zela eta, atzera egin behar izan zuten indar leialek. Cayuelaren arabera, Geltokia okupatuta “herrik beste eraikinak okupatzen hasi ginen, baina tiroketa gogorren ostean”. Joxe Manuel Azurmendik esan digunez, “Goardia Zibila eskoletan gorde zen”²⁴⁷. Anselmo Ruizek ere berdina dio “goardia zibilak eskola berrietan eta geltokian egon ziren”²⁴⁸. Agian hauxe borrokaren azken faseetan izan zitekeen, behin menditik jaitsi zirenean; lekukoaren arabera, goardia zibilek, “goiko posizioetatik” tiratzen baitzuten, frankotiratzaile gisa (izan ere, Ramon Perez Onesimoren arabera, bere osaba Ignacio Perez Onesimo, Guardia Zibilarekin batera borrokan zebilena “menditik jaisterakoan” atxilotu zuten altxatuek)²⁴⁹. *El Liberalen* arabera, menditik jaistearen erabakia “Oñatitik etorri zen lotinant batek hartu zuen (...) eta erabaki horren bidez Gobernuaren aldeko indarrek nagusitasun estrategikoa galdu zuten. Lotinant hori ziurrenik traidorea izan zen, hortik aurrera ez leialek ez baitzuten bere berririk izan, ziurrenik altxatuen aldera pasa zen”²⁵⁰. Baliteke baita beste aukera bat izatea batzuk mendian egon izana eta beste batzuk herrian. Jabier Garcia Bergararen arabera, ordea, guardia zibila batzuk eta Defentsa Komiteko lehendakari Ignacio Cortes Udaletxeko dorrean zeuden; eta Jose Antonio Egidoren arabera, Eibarko udaltzainburu Amos Ruiz baita²⁵¹. Honek zentzua dauka, handik frankotiratzaile lanak egin ahal zituzten eta²⁵². Hurrengo orduetan, errepublikanoek Geltokiko etxetik eskuzko bonba batzuk bota zituzten (Jabier Garcia Bergararen arabera, gero altxatuek etxe horretako jabe ziren senar-emazteak hil egin zituzten), han eskuindarren aurreratzea geldiarazten saiatuz²⁵³. Hortik aurrera, Kale Nagusian hurbileko tiroketa bat ere eman zen, herritar honen arabera: “Errepublikanoek Loinatz taberna itxia dagoen gaineko etxetik botatzen zuten, eta erreketek orain puskatua dagoen etxetik”. Bi etxe horiek Beasaingo Kale Nagusian daude, parez-pare²⁵⁴. Lekuko honen arabera, Udaletxeko dorretik errepublikazaleek bukaera arte iraun arte zuten tiroka, baita ere zaurituak izan ondoren.

²⁴⁷ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

²⁴⁸ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

²⁴⁹ Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

²⁵⁰ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

²⁵¹ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 92-93. or.

²⁵² Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

²⁵³ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

²⁵⁴ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

3. kapitulua

Hala ere, arratsalde parterako jada eskuindarrak Beasainen nagusitzen hasi ziren. Bi faktore egon daitezke honetarako, alde batetik, *El Liberal* egunkarian dakarren moduan, “Oñatitik etorritako lotinantaren” traizioa, zeinak mendian zeuden goardia zibil errepublikanoak handik jaitsiarazi zituen, hala nagusitasun geografikoa eta tiro egiteko posizio-nagusitasuna galduz. Bestetik, Valentin Lluviak eramaten zuen mortari higigarria (“tanke” artsanala) puskatzea. Jabier Garcia Bergararen arabera, Alejo Beñaran zen ibilgailu horren erantzule arratsalde horretan: “Mortaria erabilgaitz egin eta berehala, ezkaratze batean atxilotu zuten Beñaran”²⁵⁵. Eskuindarrak, Melliz lotinanta buru, artilleriazko mortari batekin eta 40-50 inguru soldadurekin Udaletxea, errepublikanoen azken defentsa gunea asaltatzeko prest egon zen. Orduan Zesareo Ugarte medikuari eskatu omen zion bitartekaritza lanak egitea, Udaletxeko errepublikanoak errenditu zitezen²⁵⁶. Ez dakigu zer dela eta eskatu zuen bitartekaritza hori, agian bere tropen artean baja gehiago izan nahi ez zituelako. Amos Ruizek idatziz eskatu zuen errenditzeko eskaintza, eta Zesareo Ugarte eskaintza idatziarekin itzuli zenean “ordu erdi” eskatu zuen. Melliz kapitainak bost minutu soilik eman zituen, haiek nahiko izan ziren Amos Ruizek eta bere gizonak alde egin zezaten (Jose Fernandez Iruritararen arabera “eraikinaren atzekaldetik egin zuten ihes milizianoek”)²⁵⁷. Batzuek alde egin zuten egun horretan harrapatuak izan baino lehen. Halako kasu bat, Rafael Polo sozialistarena izan zen, zeina Udaletxean zegoen hortik eskuindarren erasoari aurre egiten. Ihes egin omen zuen azken momentuan²⁵⁸. Anselmo Ruizen bidez “sokak erabili zituzten Udaletxetik ihes egiteko, garbigelara joan ziren, eta handik Beasaingo kartzelara, eta gero handik karmeliten ortuetara”²⁵⁹. Frankistak sartu ahala, kera-deia ezarri eta herritarrak (kalean zeudenak behintzat) Elizara joateko agindua eman zuten²⁶⁰.

Gudak iraun zuen arean, mojen eskolan, Zesareo Ugarte medikuak erietxe inprobisatu bat sortu zuen. Hor, Roman Unanue medikua ere egon zen zaurituak

²⁵⁵ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

²⁵⁶ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 92. or.

²⁵⁷ FERNANDEZ IRURITA, Jose: “Testimonio: José Fernández Irurita” in BARRUSO BARES, Pedro; BLAZQUEZ BRIMEZ, Manuel; eta VILLANUEVA TELLERIA, Jose Mari: *Cien años de socialismo en Tolosa 1981-1991* (69-92 or.). Tolosako Elkarte Sozialista. Tolosa, 1991, 80. or.

²⁵⁸ Alicia Polo eta Mikel Apaolazari eginiko elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

²⁵⁹ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

²⁶⁰ Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5; Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11; eta Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoz egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-VII-17an.

artatzen²⁶¹. Ospitale horren bi aldeetako borrokalariak eta baita zibilak artatu zituen²⁶². Jose Antonio Egidoren liburuaren arabera, 27 zauritu artatu behar izan zituen Ugartek “gehienak, altxatuen aldekoak”; miliziano errepublikanoek baja asko eragin baitzituzten²⁶³. Zesareo Ugarteren ospitalean laguntzen egon zen beste pertsona bat, Joxe Usabiaga izan zen, abertzalea zena. Hala ere, altxatuak handik pasatu zirenean, ezagutu egin zuten, eta eurekin erreketek joan arazi egin zuten²⁶⁴. Han gertaera tragiko batzuk eman ziren, adibidez, altxatuak sartu eta egun batzuetara, Hilario Igartua eta Genaro Sanchez ezkertiar zaurituen bila pasa ziren altxatuak. Sanchez ez zuten aurkitu, baina Igartua bai, eta Iruñerako bidean hil egin zuten²⁶⁵. Veremundo Mendizabalen arabera, Pablo Cayuela Ferreira lotinant-koronela bera ere sendatu behar izan zuen Ugartek erietxe horretan, Cayuela Ugarteren aita Guillermo Ugarte fusilatzearen arduradun izan bazen ere. Mendizabalen arabera “Cayuelak Ugarteri barkamena eskatu zion”²⁶⁶.

Altxatuen aldetik, Cayuelaren guda-egunkariaren arabera, 5 hildako eta 20 zauritutik gora izan zituzten²⁶⁷; zaurituen artean Jose Malcampo komandantea, Francisco Roca, Eduardo Gortazar eta Jacinto Lasa kapitainak eta Julio Montero lotinanta izan ziren²⁶⁸. Hildakoen artean Guillermo Ezcurra kapitaina izan zen. Errepublikanoen aldetik, zazpi pertsona hil ziren borroketan: Jazinto Arias Garmendia, Bixente Kortazar Bengoa, Viktor Kortazar Bengoa eta Bixente Kortazar Longarte eibartarrak; Matias Jimenez Perez donostiarra, Pedro Iraguen Gurtubai basauritarra eta Antonio Santin Lopez bilbotarra. Kortazar Bengoa bi anaiak ELAko kideak ziren²⁶⁹. Bixente Kortazar Longarte, antza denez, sozialista zen, Amuategi milizietako kide baitzen²⁷⁰. Jose Fernandez Irurita, borrokan parte hartu zuen sozialista tolosarraren

²⁶¹ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

²⁶² GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 72. or.

²⁶³ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 92. or.

²⁶⁴ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

²⁶⁵ Andoni Sarriegi Eskisabeli eskertzen diot datu hau eman izana.

²⁶⁶ MENDIZABAL, Veremundo: op. cit. 120. or.

²⁶⁷ Avilako Artxibo Militar Nagusia, C-2677, 23B karpeta.

²⁶⁸ Egun, Arapiles-7 erregimendua zena, Gironan destinatua eta Aragoiko Mendiko Tropen Buruzagitzaren pean dago Arapiles-62 izen ebriarekin. Beraiengana jo izan dut, erregimendu horren guda egunkarian egun horiei buruzko informazioa lortzearen (bertan egun horretan izan zituzten baja kopurua azalduko zelakoan), baina ez dut erantzunik izan.

²⁶⁹ GUTIERREZ AROSA, Jesus: op. cit., 30. or.

²⁷⁰ Eusko Jaurlaritzaren Irargi Artxiboa 11 kutxa, 3 dokumentu-sorta. Amuategi miliziak Eibarko sozialistek eratuak izan ziren eta Gipuzkoa osoan borrokatu zuten; bai beasainen, zein Ordizian, zein Tolosan, zein Donostian. Geroago, milizia hauetatik “Amuategi Batailoia” sortu zen, baina Beasaingo

3. kapitulua

arabera, gehiago izan zitezkeen errepublikanoen alde hildakoak: “Geltokian, aurre egin genien eta miliziano asko hil ziren bertan”²⁷¹. Bestalde, uztailaren 24an, Beasainen zibil bat hil zen, Miren Abasolo Gordobil, bi urte besterik ez zuela. Hala ere, zaila zaigu hilketa hau gudarekin harremantzea, uztailaren 24an altxatuen tropak oraindik Ataunen eta Zegaman baitzeuden, Idiazabalera oraindik heldu gabe.

Joxe Manuel Azurmendiren arabera, “arratsaldeko ordubietara” izan ziren tiroketak²⁷². Jose Antonio Egidok lehenago ezartzen ditu lehen errendizio-negoziatioak, eguerdiko hamabietan izan omen zen hoietako lehena²⁷³. Juan Jose Garcia Urcelayetaren arabera, ordea, “lauretan jada ez zen tiro hotsik aditzen” eta gainera “Udaletxean eta beste eraikin batzuetan bandera zuria jarrita zegoen” (bere arabera lau eta erdietan atxilotu zuten frankistek Beasaingo erdian)²⁷⁴. Anselmo Ruizen arabera erresistentziak bostak arte iraun zuen²⁷⁵. Bat dator baita ere Serafin Arana enpresaria eta zinegotzi errepublikano ohia, honek Carlos Guereñu *Izquierda Republicanako* kidearen kontrako kausan deklaratu zuen moduan, “zorionez, bataila gogor batean, indar nazionalak bostetan herrian sartzen lortu zuten”²⁷⁶. Jose Vicente Iraolak “arratsaldeko sei eta erdietan” ikusi zituen erreketek errepublikanoen barrikadak bidetik kentzen”²⁷⁷. Jose Antonio Urgoitiaren arabera, borrokaldia arratsaldeko zapietan eten zen²⁷⁸. Cayuelak ere bat egiten du iritzi horrekin, hala-dakar bere egunkarian “19etarako (arratsaldeko zazpiretarako) herriko eraikin guztiak okupatu genituen”. Uztailaren 28an, Pablo Cayuelak Udal errepublikanoa kargutik kendu zuen. Hurrengo egunean iritsi zen Alberto Ruiz Moriones komandantea, 100 falangistekin (beraz, Goierrin altxatuek zuten indarra handitu egin zen hala) eta Udal berria ezarri zuen. Beraz, ordutik aurrera, Beasainen altxatuek sortutako erregimena ezarri zen, esperientzia errepublikanoa modu horetan bukatuz.

borrokaldia eman zenean, raindik ez zegoen Euskal Armada antolatutik, beraz formalki ez ziren “batailoia”.

²⁷¹ FERNANDEZ IRURITA, Jose: op. cit., 80. or.

²⁷² Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

²⁷³ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 92-93. or.

²⁷⁴ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 60. or.

²⁷⁵ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

²⁷⁶ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 11502-38 kausa, Carlos Guereñu Aizpioleari dagokiona dagokiona.

²⁷⁷ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 352. or.

²⁷⁸ URGOITIA BADIOLA, Jose Antonio: op. cit., 209. or.

Porrot hori ez zen berehala iragarria izan aldeko prentsaren aldetik; hauek errealtateak erakusten zuena baino doinu askoz ere baikorrago bat erakusten baitzuten. Donostian uztailaren 27an bertan agertu zen *Frente Popular* egunkarian (nagusiki gaztelaniaz, euskarazko berri batzuk tartekatzen bazituen ere) 27an, “Nafarroa askatzeko” deia egiten zen “baikortasuna” nagusi omen zelarik, eta baita ere “Espainian matxinada faxista zanpatua izatear dagoela”²⁷⁹. Egun horretan ez genuen ikusi Goierrin matxinatuen egin zuten aurrerapenen (Ataun, Zegama, Idiazabal, Olaberria, Lazkao) berririk. 28an, Donostiako matxinada zanpatzea izan zen lehen orriko berria (“Errepublikaren zilegizko aginteak hiriaren kontrol osoa berreskuratu du”); eta bigarren orrialdean “Tolosako milizianoek Beasainen erreketek geldiarazi zituzten eta hiribildu horretan sartzea galarazi diete” eta kronikan “zauritu asko egon badira ere, ez da hildako borrokalaririk”²⁸⁰. Uztailaren 29an, “Tolosar miliziek eskualde osoan matxinoak geldiarazi eta uxatu dituzte”. Kronika horretan hala ere “menditik Ordiziara eta Beasaina herri-miliziak joan ziren, azken puntu hau *errekonkistatzeko* nahiarekin”. Beraz, kasu honetan, Beasain altxatuek hartua zela onartu zuten. Halere, kronika horretan “artilleria hain indartsua izan zen, ezen indar matxinoak Beasaingo bagoien fabrikari gorde behar izan ziren (...) baja asko egin zizkieten matxinoei” (uztailaren 29an altxatuek Ordiziaren kontrako euren lehen saiakera egin zuten). Egia izan zen uztailaren 28an heldu zirela tolosar milizianoak eta CAF bonbatu zutela, baina bonbaketa oso ahula izan zen. *Frente Popular* egunkariaren kronikan ere bazetorren “leialek Beasaingo eskuin alde osoa kontrolatzen zuten, matxinoek hortik horniketa jaso zezaten galaraziz”²⁸¹. Hau da, Beasaingo Ezkiaga auzoa eta Ordiziaren arteko guneari da egunkaria.

Are gehiago, uztailaren 30ean, oraindik “milizia antifaxistek Beasainen 22 erreketek atxilotu dituzte” zekarren lehen orrialdean *Frente Popularrek*, nahiz eta berrian geroago “Lazkaoko eskola batean atxilotuak” izan zirela²⁸². Atxilotu hauek, Benedicto Barandallaren partidakoak, Lazkaomendi eta Ordizia artean izan ziren atxilotuak (Zaldibia ez zen frankistek hartua izan abuztuaren lehen egunak arte). Javier Ugarteren arabera, partida hau autonomia zen (hau da, ez zela Nafarroako Erreketek ofizialaren parte izan; abuztuaren 8an esan zieten Cayuelaren menpe jartzeko, baina ez ziren jarri),

²⁷⁹ *Frente Popular*, 1936-VII-27.

²⁸⁰ *Frente Popular*, 1936-VII-28.

²⁸¹ *Frente Popular*, 1936-VII-29.

²⁸² *Frente Popular*, 1936-VII-30.

3. kapitulua

eta uztailaren 29an, Lazkao jartzen du atxiloketa horren tokia²⁸³. Kontutan izanda uztailaren 26tik aurrera Lazkao frankistek okupatua izan zela; ziur asko, eskola hori Lazkaomendiko auzo-eskola izan zen, orduan izan bazegoen eta halako eskola bat. *Frente Popular* berak esaten du Ordiziako milizianoak Lazkaora “Nafarroara hedatzen den mendikatetik” joan zela. “Lazkaoko eskolan” ustekabezko eraso baten bidez izan ziren atxilotuak erreketek. Enrique Mendoza Garcia eta Daniel Osua Garcia izan ziren errepublikanoen partidaren buru²⁸⁴, baina Jose Fernandez Iruritaren arabera Eduardo Urtizberea mikeleteen kapitaina zen halako batiden azken erantzulea²⁸⁵, Atxilotutako 22 erreketen partidaren buru ordea, Fernando Ijurco Etxarriko zinegotzia izan zen. Atxilotutako karlista hauen adierazpenen arabera, eurak zeudena baino “beherago” (Lazkaon?) erregimendu indartsu batz zegoela esan zuten, Armadako ofizial bat buru zutela²⁸⁶. Atxilotuak Donostian kartzelaratu zituzten, Fernando Ijurco han hil zuten²⁸⁷. Uztailaren 31an, oraindik *Frente Popularrek* “Partida karlistek Oiartzunen eta Beasainen zigor gogorak jaso dituzte”. Hala ere, “Beasain” aipatzean, badirudi jada gehiago aipatzen zutela Beasaingo frontea, Beasaingo herria baino; izan ere “karlistek Ordizia inguruko mendiak hartzen saiatu ziren, baina ezin izan zuten”, jartzen baitu, hau da, jada Ordizia defendatzeaz hitz egiten zuten, Beasain defendatzeaz baino. Itsasondon zegoen bateria batek, Ordizia hartzea galerazi ziela aipatzen zuten, eta bateria horrek Beasaingo fabrika frontea bonbatzen zuela baita²⁸⁸. Abuztuaren 1ean, “Oiartzun eta Beasaingo fronteetan etsaia bere posizioetatik bota ditugu” zabaltzen zuen egunkari ezkertiarak lehen orrialdean; hala ere, erreketek Rafael Conde lotinant errepublikarra hil zutela ere esan zuten. “Etsaiak muniziorik ez zuela” eta “Ordizian dagoen operazio militarren buruak karlistek operatzeko modua bikain aztertuta, eurak erasotzeko beharrezko zutabeak antolatu zituen”. Emaitza bezala, “etsaiarenak ziren posizioak hartu ditugu”. *Frente Popular* egunkariaren arabera, “Beasainen, erreketek leihoetan emakumeak jartzen zituzten eta euren atzetik tiratzen zuten (...) halako prozedura

²⁸³ UGARTE TELLERIA, Javier: *La nueva Covadonga insurgente*. Biblioteca nueva. Madril, 1998, 401. or.

²⁸⁴ *Frente Popular*, 1936-VII-30.

²⁸⁵ FERNANDEZ IRURITA, Jose: op. cit., 80 or. Fernandez Iruritaren arabera, 19 izan ziren atxiotutako erreketek, ez 22.

²⁸⁶ *Frente Popular*, 1936-VII-30.

²⁸⁷ UGARTE TELLERIA, Javier: op. cit., 401. or.

²⁸⁸ *Frente Popular*, 1936-VII-31.

kriminalak erabili zituzten”²⁸⁹. Hala ere, doinu hau oso baikorra zen, kontutan izanik abuztuaren leian altxatuek Ordizia hartzea lortu zutela.

Euzkadi EAJren egunkariaren arabera, ordea, uztailaren 29an, Gipuzkoan, matxinoak guztiz garaituak izan ziren. Lehen orrialdean agertu zuten “La insurrección ha quedado totalmente dominada en Gipuzkoa” izenburua²⁹⁰. Hala ere, kronika osoa Donostiako matxinada zanpatzeaz izan zen, Gipuzkoako Hegoaldean gertatzen ari zen aurrerapen frankistaz ez zekarren berririk. Abuztuaren 4an “Beasainen eta Ordiziako sektorean erabateko normaltasuna” zegoela esan zuen egunkari honek. “Artilleriak mendian erreketek zituzten posizioak erasotu zituzten” eta “altxatuak moralez oso gaizki dabilta” esan zuen²⁹¹.

3.4 Erailketak

3.4.a) Beasainen 1936ko uztailaren 27tik 28ra hildakoak

Eraiketen inguruan hainbat zenbaki eman izan dira. Beasaingo parrokiak adibidez, 1936ko uztailaren 28ko goizaldean, 20 pertsona hil zirela esaten du²⁹². Erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzak 1939ko txosten batean, Beasainen 21 hildako identifikatzen ditu, baina “30 bat izan zitezkeela” ere badio²⁹³. Mikel Aizpuruk zuzendutako Hernaniri buruzko lan kolektiboan, Beasainen “25 eta 32 artean” hil zituztela esaten da²⁹⁴. Miguel Angel Gonzalezek, bere liburuan 35 hildako zerrendatzen ditu²⁹⁵, eta zenbaki hauekin bat egiten du Miren Barandiaran Contrerasek²⁹⁶. Jose Migel Barandiaranek, bere iturrietan oinarrituta, 37 hildakoren zifra ematen du²⁹⁷. Bai 35 hildakoena, zein 37 hildakoena nahiko datu sinesgarriak dira, kontutan izanik batzuek kasua oraindik ez dela guztiz argitu. *Ahaztuen mindura* Ordiziako oroimena jasotzeko egin den lan kolektiboan, Beasainen “uztailaren 27ko gauean hirurogei bat pertsona hil

²⁸⁹ *Frente Popular*, 1936-VIII-1.

²⁹⁰ *Euzkadi*, 1936-VII-29.

²⁹¹ *Euzkadi*, 1936-VIII-4.

²⁹² ELIZONDO, Mauro: “Beasain: una noche sangrienta (27-28 de julio de 1936)” in *Ikuska* aldizkaria, 4. zkia (43-53. or.), 1993ko urria-abendua, 43. or. Elizondok badio parrokiaren zerrenda horretan “ez direla Beasaingo fusilatu denak agertzen”.

²⁹³ *Euzkadi bajo el régimen de Franco: La represión en Guipúzcoa*. Eusko Jaurlaritzaren Artxiboa, Sancho de Beurko funtsa, 13 kutxa, 5 dokumentu-sorta, 5:1 zenbakidun dokumentua.

²⁹⁴ AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIOZOLA, Jon: op. cit., 101. or.

²⁹⁵ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Gerra Zibila...”, op. cit., 276. or.

²⁹⁶ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 100-101. or.

²⁹⁷ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 352. or.; eta BARANDIARAN FUNDAZIOA: *Jose Miguel Barandiaran. Diario personal. Volumen II (1936-1953). Durante los años de su exilio en el País Vasco continental*. Barandiaran Fundazioa. Ataun, Gipuzkoa, 2009, 517. or.

3. kapitulua

zituzten” esaten da²⁹⁸. Datu honek Pedro Barruso Bares irakaslearen lana du oinarri, bertan aipatzen baita “orduko iturrien arabera” hirurogei hildakoen kopurua²⁹⁹, orduko iturri hori, Bilboko *El Liberal* egunkariaren kronika bat delarik³⁰⁰. Hala ere, Barruso berak esaten duenez “litekeena da hildakoen kopurua *El Liberalek* esaten duena bezain altua ez izatea”³⁰¹. Zenbaki hau neurritz kanpoko da, eta litekeena da egun horretan Beasainen fusilatutakoen eta gerora fusilatutako beasaindarren kopuruak batu izana (bi kopuruek bat eginda 54 hildako ematen baitituzte).

Gure datuen arabera, egun hartan, 35 pertsona erail zituen Armada kolpistak Beasainen. Erail diogunean, borrokan hildakoak kanpoan uzten ditugu, hots erailketa indar-nagusitasun posizio batetatik eta “kontrakoak” defendatzeko modurik ez duelarik eginiko ekintza kontzientetzat hartzen dugu, borrokan hildakoetatik bereiziz. Beraz, hiru faktore hauek kontutan hartzen ditugu, nagusitasun armatua, kontrakoaren ezintasuna eta ekintzarekiko eta inguruabarrekiko kontzientzia. Ia guztiak identifikatuta ditugu, horietako hiruren salbuespenarekin. Horietako bi, militar errepublikano bi dira, Juan Jose Garcia Urcelayetak, bere artikulua ezagunean, *Ikuska* aldizkarian argitaratutakoan, aipatzen zituenak, eta hirugarrena soldadu bat. Bi militarren identitatea erdi argituta dugu. Izan ere, Garcia Urcelayetak berak dio berarekin atxilotuta egon ziren bi militarrek Gasteizetik zetozela (Gasteiz gudan altxatuen alde geratu zen), errepublikanoekin bat egiteko eta Mauro Elizondo ñabartzen du hauek Idiazabalen atxilotuak izan zirela³⁰². Garaiko prentsak, bai *Euzko Deya* egunkariak, zein *La Vozek*, “Albania” (sic) izeneko bat (“Albaina” ziurrenik) eta “Lanciego” izeneko beste bat aipatzen dute, “Albania” delakoa gasteiztarra zela esanez³⁰³. Gure ustez, badago zantzurik bi hauek Beasainen hildako militarrek zirela esateko, horiek Garcia Urcelayetaren testigantzaaren arabera Gasteiztik baitzetozen, eta bi abizenak arabarrak baitira; baina ez dugu ziurtatzerik. Soldaduaaren arrastorik ez dugu, momentuz.

²⁹⁸ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 54. or.

²⁹⁹ BARRUSO BARES, Pedro: *La guerra civil...*, op. cit., 213. or.

³⁰⁰ *El Liberal*, 1936-VIII-13. Hala ere, kronika honek dioenez, “egun bakar batean 22 hil zituzten, eta guztira 60”: Honela ulertzen dugu, *El Liberalen* arabera, hilketek egun bat baino gehiago iraun zutela eta guztiar 60 hildako izan zirela. Hala ere, 1936.ean, uztailearen 27tik 28rako sarraskia kenduta, beste bost beasaindar soilik hil zituzten altxatuek, beraz, esan beharra dugu *El Liberalen* zenbakiak puztuta daudela.

³⁰¹ BARRUSO BARES, Pedro: *La guerra civil...*, op. cit., 213. or.

³⁰² GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 63. or.; eta ELIZONDO, Mauro: op. cit., 45. or.

³⁰³ *El Liberal*, 1936-VIII-13; *Euzko Deya*, 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16.

Beste denak, nahiko identifikatuta daude, baina horrek ez du esan nahi denen inguruko ezagutza maila berdina dugunik, ezta ere denen kasuen zirkunstantziak berdin akklaratzea lortu dugunik. Batez ere bi iturritatik egin izan dugu egun hartan gertatutakoaren berreraiketa; alde batetik herritarren testigantzen arabera (bai fusilatuen ondorengoak, zein beste herritar arruntenak) eta bestetik, prentsaren kroniken arabera. Garaiko prentsan, hiru kronika aurkitu ditugu, hirurek Beasaindik alde egindako pertsonen testigantzak iturri gisa erabili izan dituztenak: 1936ko abuztuaren 13an, Bilbon ateratzen zen *El Liberal* egunkariaren (sozialisten aldeko komunikabidea) kronika, 1937ko martxoaren 21ean Parisen ateratzen zen Eusko Jaurlaritzaren *Euzko Deya* aldizkariaren kronika eta 1937ko maiatzaren 16an Madrilen argitaratzen zen *La Voz* egunkariaren kronika. Hiru hauek, nahiz eta fusilatuen inguruko nolabaiteko argazki orokor bat erakutsi, euren mugak ere badituzte. Izan ere, egunkari hauen iturria Beasaindik egotzitako pertsonen testigantzak batuz egin zituzten bi kronikak (nahiko antzekoak dira elkarren artean). Kronikok, Beasainen eraildako pertsona guztien kasuak narratzen saiatzen dira, baina bigarren eskuko iturriak dituzte (ez dira han egondako kronista batek idatzitako kronikak). Bestetik kontuan izan behar da atxiloketak ez zirela ez toki berean, ez momentu berean izan, ez zela atxiloketentzako patroï bakar bat egon (aipatu izan dugu, hilketa gehienen protagonista, soldadu okupatzaileen “amorruesterminatzailea” izan zela; baina halako amorruek, hain zuzen horrexegatik, izaera kaotiko bat du) eta horrek lekukoen aldetik heriotzen identifikazioa zailtzen du. Gainera, kontuan izan behar da lekuko horiek, bi egunkarien arabera, Beasaindik Bilbora egotzitakoak izan zirela, eta euren testigantzak emateko orduan emozioek eta hunkidurak joak izan daitezkeela. Bestelako testigantza bat eman digu Juan Jose Garcia Urcelayeta herritar beasaindarrak, 1993an *Ikuska* aldizkariako hirugarren zenbakian utzi diguna (*Beasain: Una noche sangrienta (27-28 de julio de 1936)*)³⁰⁴. Garcia Urcelayeta, uztailaren 27an atxilotua izan zena, fusilatua izateko zorian egon zen eta fusilatua izan ziren askorekin batera egon zen atxiloaldian; beraz lehen presentzian kontaktzen digu gau hartan gertatutakoa eta gertaeren eskema (behintzat, fusilatu askori dagokionean). Garcia Urcelayetaren kontakizunaren mugak beste batzuk dira: fusilamenduak gertatu zirenetik (1936) berak kontatu zituenera arte (1993), 57 urteko distantzia dagoela, beraz hor badago kontraesanak gertatzeko aukera, eta eman izan dira bere kontakizunean oro har, nahiko osatua bada ere). Juan Jose Garcia Urcelayetari, *Ikuska* aldizkariaren

³⁰⁴ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit.

3. kapitulua

hurrengo zenbakian Mauro Elizondo deitutako fraide batek ñabardura batzuk egiten dizkio³⁰⁵. Elizondok hildakoen zerrenda bat aurkezten digu, Beasaingo parrokiakoa, osatu gabea dagoena (bertan 20 izen besterik ez dira agertzen). Azkenik, beste lan batzuen artean, Miguel Angel Lopez Gonzalezen lana ere badugu (*Gerra Zibila: Beasainen erorketa*, berak zuzendutako Beasain, udalerrri gipuzkoar baten historia lanean)³⁰⁶, zeinak Beasaingo erregistroan agertzen diren 32 izenen zerrenda ekartzen digun (orain arte zerrendarik osatuena). Bestetik, baditugu Iñaki Egañaren lana³⁰⁷; zeina parte handi batean Bilbon Eusko Jaurlaritzak duen Irargi artxibategian gordetzen den *Euzkadi bajo el régimen de Franco: la represión en Guipúzcoa* txostenean oinarritua dagoen³⁰⁸. Azkenik, datu batzuk, Goierriko beste herrien historia kontatzen duten liburuekin osatu dugu; kasu, Angel Irigorasen *Herri zapalkuntzaren lekuko batzuk. 1936-2006 Lehen orain eta beti: Eskubide berdinak pertsona guztiarentzat*; Zegamako historia kontatzen duena. Liburu hau, pretentsio akademikorik gabe idatzitakoa, Zegaman zentratzen da, baina kontutan izanik Beasainen fusilatu zituzten hiru herritar zegamarrak zirela eta egun hartan fusilatu zuten bat (Andres Izaguirre) eta gerora fusilatutako beste bat (Gregorio Begue) zegamarrekin ezkonduak zeudela, datu horiek osatzeko baliagarria izan zaigu³⁰⁹. Ordiziari buruzko liburua ere kontsultatu izan dugu (*Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*), hemen Beasaingo fusilatuei buruzko datu gutxiago agertzen bazaizkigu ere³¹⁰. Eta horrez gain, Jose Migel Barandiaranek, bere liburuetako bitan Beasainen jasotako testigantza batzuk idatzita uzten dizkigu. Liburuok *La Guerra Civil en Euzkadi*³¹¹ eta bere egunkaria³¹² dira. Baina idatzizko iturriak bezain garrantzitsua, kasu honetan bertsio ez-osatu askoren zuloak tapatzen lagundu diguna, datu berriak aipatu dizkiguna, eta horrez gain, ikuskera pertsonal bat eman diguna, eta ikuskera pertsonal horren bitartez ate berriak zabaldu dizkiguna (adibidez, hilketen ondoko familien erreakzioaz, salaketez edo altxatuen aldeko soldaduen eta herritarren arteko tratua egunerokotasunaz), ahozko

³⁰⁵ ELIZONDO, Mauro: op. cit

³⁰⁶ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Gerra Zibila...”, op. cit.

³⁰⁷ EGAÑA, Iñaki: 1936. *Guerra Civil en Euskal Herria*. (IV lib., *La Guerra en Gipuzkoa*). Aise liburuak. Andoain, 1999, 205-208. or.

³⁰⁸ Eusko Jaurlaritzaren Artxiboa, Sancho de Beurko funtsa, 13 kutxa, 5 dokumentu-sorta, 5:1 zenbakidun dokumentua.

³⁰⁹ IRIGORAS, Angel: op. cit.

³¹⁰ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...*

³¹¹ BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi*. Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005.

³¹² BARANDIARAN FUNDAZIOA: op. cit., 2009.

testigantzak izan dira. Ahozko testigantza horiek izan dira gertakizunak argitzeko eta berreraikitze erabili dugun zutarri nagusia.

Beste arazo bat izan zen hildakoen “identitate kolektiboa”, eta honen inguruko hausnarketak heriotzen eta hauen aginduen inguruko logikaren bat argitzen duen laguntzen badigu. Hildakoak testuinguru sozial, ekonomiko eta ideologiko hain ezberdin batetakoak izateak, eta askoren heriotzaren zirkunstantziek, gure iritzian bi gauza erakusten dituzte: a) heriotzak aurreko urteetan Beasainen gertatukoaz independenteak izan zirela; eta b) erailketak egiteko agindua, Beasaingo tokiko eskuinaren partetik baino aginte militarren partetik etorri zela. Honek ez du esan nahi Beasaingo zenbait eskuindar elementuk ez zutela heriotza honen agindu, “gomendatu” edota exekuzioetan parterik hartu; ezta ere herria Beasain bera izateak (eta ez beste bat) eraginik izan ez zuenik. Erailketetan nolabaiteko “logika beasaindar” bat bazegoen, batez ere Beasainen osaketa ideologiko eta soziologikoa behatuz gero laster atzematen dena. Baina logika makabro hori martxan jartzean, eragile bezala, ardura handiagoa izan zuten militarrek Beasaingo eskuinak baino.

Izan ere, Estatu-kolpea eman zen momentutik izan zen errepresio militarren bidez etsaia “garbitzeko” asmoa. Estatu-kolpearen aldekoak “kalera atera orduko hasi ziren izua aplikatzen”. Julio Prada Rodriguezen arabera, lehen egun horietan gertatutako errepresioa “oposiziorik aurkitu ez zuen errepresioa” izan zen³¹³, eta hala gertatu zen Beasainen.

Ia guztizko probabilitatearekin, egun horretan erail zituzten lehenak, Isidro Igartua Polo eta Juan Andres Otaegi Berasategi izan ziren. Isidro Igartua, Bizkaitik etorri zen familia batetako kidea zen; gerora, ikusiko dugun moduan, bere aita (Jose Maria Igartua Lastra) eta anai bat (Hilario Igartua Polo) ere frankistek erail zituzten. Juan Andres Otaegi ordea, zegamarra zen, burdinbideetan lan egiten zuen pertsona bat zen. Biak, arratsaldeko lauak aldera hil zituzten, borrokak amaitu ez zirelarik, baina testigantzen arabera, ezin ditugu borrokan hildakotzat hartu (zenbaitek, heriotzaren eguna eta orduaren datuak nahastuta horrela pentsatu izan dute). Hala ere, lan honetan, eta hemen bildu ditugun testigantzek, erailak izan zirelako argitzeko aukera eman digute.

³¹³ PRADA RODRIGUEZ, Julio: op. cit., 119. or.

3. kapitulua

Eraildako beste guztien inguruan, identifikatu gabeko hiru militarrez gain, beste zortzi pertsona ere, borroketan ibiltzearren atxilotu eta erail zituzten. Pertsona horiek, eraildako zazpi goardia zibilak eta eurekin batera atxilotutako Ignacio Onesimo Matute “periodistaren semea” (kasu honetan “periodista” ez da ulertu behar “kazetari” hitzaren sinonimo bezala, baizik eta kiosko baten jabea bezala) herritarra izan ziren. Hamabi hauez gain, Manuel Ibañez de Opacua Larzabal mikeleteen kapitaina, Isidro Igartua, borrokan zauritua izan ostean errematatua izan zena, eta agian Francisco Ruiz de Apodaca, litekeenez kasu bera izan zuena gehitu behar ditugu. Beste baten kasuan, Evaristo Mendiarenean hain zuzen, altxatuen paranoiak eragindako erailketa bat izan zitekeen. Beste bat, Jaime Agurruza iruindarra, antzeko egoera batean hil zuten, baina kasu honetan ematen duenez, benetan preso bat laguntzen saiatu zen.

Hamasei hauez kanpo, beste hemeretziaren artean, “borrokaldiarekin harremanik izan ez zutelarik erail zituztenen artean”, ez dugu topatzen patroï amankomun bat, zeinek hildakoak halakoak edo bestelakoak zirela azal dezakeena. Kasu honetan ez nago ados Mikel Aizpuruk zuzendatutako taldeak esandakoarekin: “(Beasainen altxatuek) susmagarriak ziren auzokoak erailtzeari” ekin ziotela diotenean³¹⁴. Ikusiko dugun moduan, Beasainen egindako sarraskian, askotan “susmoa” ere ez zen behar pertsona bat hiltzeko. Euren artean aniztasun sozial, kronologiko (adinaren arabera) eta ideologiko handia egon zen. Ez ziren herriko pertsonarik aktibistenak bilatu (hemeretzi hauetatik agian bi soilik, Marcelo Bergara eta Saturnino San Martin, biak Gazteria Sozialistakoak, izan ziren euren militantzia politikoarekin zerikusi zerbait zutela eta gertatuko erailketa “zibil” bakarrak. Hala ere, kontutan izan behar dugu bai Bergara eta bai San Martin, nahiko gazteak izan zirela hil zituztenean, eta ez zirela Beasaingo Alderdi Sozialistako pertsonarik ezagunenak). Kontutan izan behar dugu baita, ordurako herritik pertsona askok alde egin zutela, eta pixkanaka, Gipuzkoan sortzen ari ziren talde bolondres ezberdinetan izena ematen hasi zirela. Agian, euren arteko amankomuntasun bakarra hauxe izan zen: armada okupatzaileari kexaren bat agertu izana, edo asko jota, kalean, okupatzaileen bidean egon izana.

Beraz, hauek izan ziren hildakoak: Jaime Agurruza Martinez (Iruñea, 28 urte), Angel Alvarez Garcia (Trobajo del Cerecedo, Leon, 37 urte), Angel Alvarez Tellechea

³¹⁴ AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIUZOLA, Jon: op. cit, 53. or. Hala ere, geroago “(herriak jarritako) erresistentziak gogaiturik (soldaduek eta nafar erreketek) sekulako triskantza burutu zuten herrian, bereizketarik gabeko zigor-ekintza” diote (95. eta 97. or.). Hau nire ustez zuzenagoa da.

(Zentroniko, Nafarroa, 45 urte), Blas Aramburu Irastorza (Gaintza, 73 urte), Pedro Martin Arrizabalaga Ariztimuño (Zegama, 40 urte), Alejo Beñaran Garin (Urretxu, 54 urte), Marcelo Bergara Lozares (Beasain, 18 urte), Francisco Chocarro Martinez (Berbintzana, Nafarroa 30 urte), Ramon Crespo Igarza (Villanueva de la Peña, Kantabria, 40 urte), Claro Felipe Sanchez (San Esteban de los Catos, Avila, 42 urte), Domiciano Garcia Diez (Burgos, 16 urte), Antonio Garcia Hernandez, Juan Miguel Garmendia Mendia (Beasain, 37 urte), Juan Gonzalez, Luis Gonzalez Hernandez (Salamanca, 50 urte), Victoria Huergo Tofe (Gravalos, Errioxa, 54 urte), Luis Ibañez de Opacua Larzabal (Irun, 33 urte), Isidro Igartua Polo (Begoña, Bizkaia, 20 urte), Jose Ignacio Insausti Baztarrika (Beasain, 34 urte), Jose Ignacio Insausti Berastegi (Olaberria, 72 urte), Andres Izaguirre Aldanondo (Barakaldo, Bizkaia, 32 urte), Pedro Larrea Ormazabal (Zegama, 46 urte), Evaristo Mendia Zabalo (Legazpi, 58 urte), Teofilo Miguel Merino (Celadilla-Sotobrin, Burgos, 37 urte), Ignacio Onesimo Matute (Beasain, 19 urte), Ignacio Ormaechea Aroma (Urbina, Araba, 47 urte), Juan Andres Otaegi Berasategi (Zegama, 39 urte), Francisco Recio Ruiz (Nueva Montaña, Kantabria, 19 urte), Francisco Ruiz de Apodaca Fernandez de Ocariz (Beasain, 25 urte), Saturnino San Martin Gibaja (Beasain, 22 urte), Guillermo Ugarte Aeta (Oñati, 58 urte), Victor Uribe-Etxebarria Bengoa (Aretxabaleta, 64 urte) eta identifikatu gabeko hiru militar (bi graduazioarekin eta bat soldadu arrunta)³¹⁵.

Hildakoen artean gauza batek deitzen du atentzioa; Beasainen jaiotako pertsonen kopuru urria. Nahiz eta “militarrak”, beraz, propio borrokan zeudenak edo bertara destinatuak izan zirenak kendu (identifikatu gabeko hirurak, Ibañez de Opakua mikeletea, okupatzaileekin etorritako eta eurek hildako Agurruza eta zazpi goardia zibilak; Alvarez Garcia, Beñaran, Chocarro, Felipe, Garcia Hernandez, Ormaechea eta

³¹⁵ Miguel Angel Lopez Gonzalezek 35 pertsona identifikatzen ditu, batez ere erregistro zibila oinarri bezala hartuz. Bere zerrendan ez du Juan Gonzalez sartzen. Bestalde, Lopez Gonzalezek identifikatu gabeko soldadua “matxinoen soldadu bat, atxilotutako bati ihes egiteko saio batean laguntzeagatik” eraila izan zela dio (hau da, soldadu honen historia eta Agurruzarena biak bat egiten ditu, nahiz eta biak aipatu, Agurruza “Agurrura” bezala). LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Gerra Zibila...”, op. cit., 276. or. Mauro Elizondok ordea, 20 pertsona aipatzen ditu, parrokiako zerrenda hartzen du, eta hogeit hildako aipatzen ditu zerrenda horrek: Jaime “Arruza” (sic) Martinez, Pedro Martin Agirrezabala Ariztimuño, Alejo Beñaran Garin, Marcelo Bergara Lozares, Ramon Crespo Igarza, Domiciano Garcia Diez, Juan Miguel Garmendia Mendia, Luis Gonzalez Hernandez, Victoria Huergo “Tofe” (sic), Isidro Igartua Polo, Jose Ignacio Insausti Baztarrika, Jose Ignacio Insausti Berastegi, Andres Izaguirre Aldanondo, Pedro Larrea Ormazabal, Evaristo Mendia Zabalo, Teofilo Miguel Merino, Ignacio Onesimo Matute, Francisco Ruiz de Apodaca Fernandez de Ocariz, Saturnino San Martin Gibaja, Guillermo Ugarte “Asta” (sic) eta Victor Uribe-Etxebarria. Zerrenda honetan, “zibilak” soilik sartzen ditu, “militar” bakarraren salbuespenarekin: Alejo Beñaran Garin. Hogeit eta hiru zibiletatik soilik 19 aipatzen ditu; denak Blas Aramburu Irastorza, Juan Gonzalez, Jose Ignacio Insausti Berasategui eta Juan Andres Otaegui Berasategui izan ezik. ELIZONDO, Mauro: op. cit., 46. or.

3. kapitulua

Recio); oraindik eraildako 23 zibiletatik, soilik sei dira Beasainen jaiotakoak (beste zortzi Gipuzkoako beste herrietakoak ziren –tartean, sei goierritar-, eta beste hiru gehiago Euskal Herriko gainontzeko herrialdeetakoak. Beste bost Euskal Herritik kanpoko jaiotakoak ziren, eta baten jaioterria zein den ez dakigu). Honek, Beasainen immigrazio tasa altuaren ideia garbi bat ematen digu. Bestetik fusilatutakoetatik bat ere ez zen izan Beasaingo Defentsa Komiteko kidea (Komiteko kide gehienek Beasaindik alde egin zuten, beraz, horrek adierazten du bere izaera politikoagatik beldurra zuen zibilak Beasaindik alde eginda zeudela eta herrian gelditu zirenen artean ia ez zegoela inor politikan nabarmendutakorik). Gainera, hildakoen atean ezkerreko alderdi ezberdinetako edo EAJko hainbat kide bazeuden ere militantziagatik nabarmendu zen bakarra Francisco Ruiz de Apodaca Fernandez de Ocariz izan zen, 1934ko greba iraultzailean inplikaturik izan zena (CNTko ordezkaria izan zen) eta hori zela eta urte eta erdi kartzelan egin zituena. Honek erakusten du Beasainen sartu zirenak erabat aurretik “garbiketa” bat egitea pentsatua izatea litekeena izatea, baina ez *nor garbitu* pentsatua izatea. Horrek beste pista bat ematen digu heriotzaren inguruan: ez zen izan “hilketa selektibo” batzuen segida bat, edota “kausa-sarraskia” eskeman sartzen, baizik eta “amorrutako hilketa kaotikoaren” eskema batean. Bestetik, jabetu behar gara Beasainen, non 25 eta 26 artean jende askok ihes egin zuenez, militante konprometitu asko (behintzat arlo “zibilean” edo politikoan) ez zirela geratzen Beasainen (ihes egindako asko, gero Eusko Gudarostearen edo ezkerreko milizietako parte izan ziren). Azkenik, esan beharra dago hildakoei ez zitzaizela inongo epaiketarik ez kausarik aurkeztu, baizik eta bapateko hilketak, guztiz arbitrarioak, izan zirela. Egindako galdeketa guztiak batere garantiarik gabekoak izan ziren, eta horietako batzuetan, tortura erabilia izan zela frogatuta dago (adibidez, zazpi goardia zibilen kasuan, edo Evaristo Mendia herritarraren kasuan³¹⁶; eta zitekeena da baita Ignacio Onesimo Matuteren kasuan hala izana). Batzuk (Isidro Igartua Polo, edo Francisco Ruiz de Apodaca) behin zaurituak izan zirela errematatu egin zituzten. Hala ere, legez kanpoko exekuzio hauek (askotan inskripziorik gabeak baita) nahiko normalak izan ohi ziren frankisten aldetik. Francisco Espinosa Maestre ikerlariaren arabera, “frankistek guda-bandoen erabilera ilegal oso zabala” egin zuten, eta 1936an eta 1937aren hasieran oso normala izan zen halako bandoak erabili izana (gehienetan biktimak ezta erregistratu ere egin ez zirelarik.

³¹⁶ Evaristo Mendiaren kasuan, Juan Jose Garcia Urcelayetak ikusi zuen behingoz hiltzeko erregutzen ari zitzaizela soldadu altxatuei. GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 67. or.

Beasaingo kasuan zortea izan dugu, biktima gehienak erregistratuak izan baitziren)³¹⁷. Frankistek, errepresioa justifikatzeko erabiltzen zuten argudioa askotan “matxinadari laguntzea” izan zen, hau da, euren arabera, Errepublikaren alde egitea “matxinadaren alde egitea” izan zen, historia horrela alderantzizko bidera itzularaziz. Hala ere, juridikoki, kontzeptu hauek, Beasaingo sarraskian garrantzi gutxi izan zuten, izan ere, esan bezala, Beasainen fusilamentuak estrajuridikoak izan ziren. Baina horrek ez du esan nahi errepresioa kontrolgabea izan zenik. Francisco Espinosak eta Jose Maria Garcia Marquezek esan zuten moduan, “ezin da esan eskuineko boluntarioek (Falangeak edo erreketek) errepresioan parterik handiena euren kabuz hartu zutenik (...) Falangea, erreketek edo Goardia Zibila, makinaria baten peoiak ziren, eta hauek ezarritako papera bete zuten”³¹⁸. Hots ez zen egon elementu fanatikoaren errepresio bortitz bat, baizik eta errepresio kalkulatu.

Kontuan izanik Beasainen ez zela inongo neurrigabeko “bortizkeria gorririk” eman, ez zela inongo iraultzarik eman, eta bertako populazioa nahiko moderatua izan zela (1934ko gertakariak eta horren ondorengoko gertakariak erakusten duten moduan); zergatik eman zen halako “bortizkeria urdina” gure herrian? Zergatik hil zituzten hainbeste pertsona, batzuk gainera eskuinekoak edota herritarrak ez zirenak? Bortizkeriaren “logika beasaindar” bati buruz hitz egiterik ba al dago?

Lehen galderari erantzunez, kontuan izan behar dugu Beasain hartzea nahiko zaila egin izan zitzaiela tropa frankistei. Beasain, oso herri handia ez izaki, eta oso defendatua ez zegoelarik (tropa errepublikano gehienak Donostian zeuden, hango matxinada zapaltzen), hartzen nahiko zaila suertatu zitzaien, altxatuek, kontuan izanik 26an saiatu zirela barnera sartzen eta ezin izan zutela 27ko uztaile arte. Kontuan izanik orduan Iruñetik iparralderanzko bidea zeinen erraz egin zuten, eta zein erresistentzia gutxi topatu zuten ordura arte (eta Hilario Urteaga medikuak Olaberriaren esan zela “Beasain hartzea oso erraza zela”, pentsatzekoa da eurek ere erresistentzia gutxi espera zutela Beasainen), Beasainen sartzeko zailtasunak nolabaiteko amorrua sorraraztea. Hala ere kontutan izan behar dugu altxatuen tropak herriren batean sartzen zirenean ez

³¹⁷ ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “La represión franquista...”, op. cit., 15. eta 18. or.

³¹⁸ ESPINOSA MAESTRE, Francisco eta GARCIA MARQUEZ, Jose Maria: “La desinfección del solar patrio. La represión judicial militar: Huelva (1936-1945)” in NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: *La gran represión. Los años de plomo del franquismo* (285-429. or.). Flor de Viento argitaletxea.artzelona, 2009, 316 or.

3. kapitulua

zutela inolako kupidarik izaten bertako jendeaz³¹⁹. Julio Prada Rodriguezen arabera, halako errepresioak batez ere nolabaiteko “asmo estrategikoa” izanen zuen, hau da, Estatu-kolpeak bere etorkizuna sendotzeko (orduan toki nagusienetan, Madrilen eta Bartzelonan esaterako, galdu egin baitzuen) lortu behar zituen helburu estrategiko militarrek (Madril ahalik eta azkarren setiatzea eta hartzea, edo kasu honetan, Irunen bidez Lapurdi eta frantziar estaturako muga ixtea) ahalik eta azkarren lortzeko erresistentzia foko guztiak, errealak edo hipotetikoak (kontuan hartu behar dugu Gipuzkoan eta batez ere Beasainen eskuina minorian zegoela, beraz frankisten ustez “etsaien herria” zitekeen) garbitu behar zituzten. Santiago Vega Sombria ikerlariaren arabera, frankisten errepresioaren bereizgarri bat izan zen “klase-izaera”, hau da, ezkerreko bozka gehien zeuden herri eta auzoetan gertatzea; adibidez, Sevillan Triana eta Macarena auzoak izan ziren gogorren zigortuak³²⁰. Honela, Beasain herri ezkertiarra izaki (Alderdi Sozialista zen Beasaingo alderdirik indartsuena eta UGT sindikaturik jendetsuena; eta Gipuzkoan ezkerrek irabazten zuen toki apurrenetakoa zen); errepresio urdinak baliteke hor arrazoa ikustea Beasain “gaizkiaz garbitzeko” (gogora dezagun errepresio urdina, koordinatua eta esterminatzailea izaki, Errepublikaren ideiak errotik ezabatzeke helburuarekin hasitako errepresioa zela). Ikerlari berak esaten duen bezala, “aurreko moderazioa” (Beasainen Errepublika garaian ez zen bortizkeria kasurik eman, lehen esan dugun bezala) ez zen berme izan, bazeuden tokiak (Soria edo Segovia esaterako), Errepublika garaian toki baketsuak eta prozesu iraultzailek gabekoak izan zirenak, non eskuineko errepresioak gogor eragin zuen. Prozesu iraultzailea egon izana izatea errepresioa gogortzeko eta orokortzeko “datua” zen; baina kontrakoan ez zen hala gertatzen, prozesu iraultzaile eza ez zen errepresio urdinaren kontrako “salbokonduktua”. Pedro Barruso Baresen arabera, Beasaina iritsi arte frankistek ez zuten halako erresistentzia gogorrik izan. Horrek azalduko zukeen parte batean Beasainen izandako errepresioa. Beste alde batetik, bertan eskuindarrak ere hiltzeak, errepresio honen helburua beasaindarren (eta gipuzkoarren) artean beldurra eragitea izan zen³²¹.

Baina egia da baita Beasain (agian Arrasaterekin batera) Gipuzkoan nolabaiteko salbuespena izan zela “lehen momentuko” bortizkeria horrek izan zuen

³¹⁹ PRADA RODRIGUEZ, Julio: op. cit., 406. or.

³²⁰ VEGA SOMBRÍA, Santiago: *La política del miedo. El papel de la represión en el franquismo*. Crítica. Bartzelona, 2011, 41. or.

³²¹ BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...*, op. cit., 114-115. or.

intentsitateagatik. Beasainen lehen egunean, 35 pertsona hil zituzten (guk identifikatuta, badaude zantzu batzuk beste hiru zerrenda honetara gehitzeko), gehi 1936 osoan beste lau beasaindar izan ziren hilak (bosgarren beasaindar bat, Antonio Zubiaga Getarian hil zen 1936.eko azaroan, baina kasu honetan, Getarian hila izateak, bere zirkunstantziak “logika” beasaindar honetatik kanpo ezartzen du). Kontuan izanik, 1931.ean Beasaingo erroldak 5.260 biztanle ematen zituela, eta Jose Gabriel Zurbano Meleroren arabera, 1936.ean Beasainen 5.172 pertsona bizi zirela³²²; lehen egun hartan populazioaren %0,67 hil zituztela esan behar dugu; eta “logika beasaindarra” aplikatuz, guztira populazioaren %0,75 hil zirela esan behar dugu (zalantzazko kasuak gehituz, %0,73 eta %0,81 izango ziratekeen). Halako zifrek, Beasain, Espainiar Estatuan errepresiorik gogorrena jaso zuten probintzien pare utziko zuketena –Granada (%1,9), Huelva (%1,7), Kordoba (%1,7), Sevilla (%1,4) eta Malaga (%1,2) Andaluzian; Zaragoza (%1,2) Aragoian; Leon (%1,3) eta Valladolid (%1,1) Gaztela-Leonen, Badajoz (%1) Extremaduran; eta Errioxa (%1,0); antzeko zifrak dituzte Nafarroak (%0,9), Asturiasek (%0,9) eta Toledok (%0,8)³²³ - eta zer esanik ez, Gipuzkoako (%0,3) eta Euskal Herriko batz-besteckoaren gainera, Beasain, Gipuzkoan zifra gogorrenak pairatu zituen herrien artean baitago (egia izan baita Euskal Herrian hasierako errepresioa, behintzat hildakoak soilik kontutan hartuz, ez zela izan Andaluzian edo Gaztelan eman zenaren parekoa, beste gauza batzuentzat, hemen prozesu iraultzailerik eman ez zelako edo Afrikan ibilitako militarrek pisu gutxiago izan zutelako). Arrazoiak asko topa daitezke. Hala ere, hau esanda, esan behar dugu guk Beasainen gertatutakoak argitzeko eta azaltzeko datuak direla ez besterik. Hau ez da errepresioaren inguruko lehiaketa bat, ezta ere zilegitasun politikoa eman edota kentzeko eztabaida bat.

Gipuzkoan “errepresio urdinak” eragindako zifren inguruan ez dago praktikoki adostasunik; izan ere, alde batetik, lehen momentutik idatzitako txosten eta kronika ezberdinek ahozko iturriak erabiliz eta bizi zen garaiak ikerketa hotz baterako tarterik uzten ez zuelarik, inpresioak iturritzat eta salaketa doinuz idatzita egoteagatik, zifrak altuegiak joera erakusten zuten³²⁴. Beste alde batetik, Ramon Salas Larrazabal

³²² ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 48. or.

³²³ Zifra hauek Julio Prada Rodriguezen liburutik hartu ditut, nahiz eta berak milako proportzioan jarri. PRADA RODRIGUEZ, Julio: op. cit., 432-438. or.

³²⁴ Eusko Jaurlaritzak hiru txosten idatzi zituen. Lehen, *La represión franquista en Euzkadi* izenekoa, 1938eko martxoan atera zen, eta Hego Euskal Herrian, 20.000 pertsona hil zirela defendatzen du. Bigarrena *Datos numéricos de la persecución en Euzkadi. Abril 1938* izan zen, 1938.eko apirilaren

3. kapitulua

historiagile militar frankistaren ikerketa ere badugu, Erregistro Zibilak iturri ia bakartzat dituena; honek Gipuzkoan “errepresio urdinak” 324 hildako eragin zituela esaten du³²⁵. Honi Mikel Aizpuruk zuzendutako taldeak kritika zehatza egiten dio: Erregistro Zibilak ez dira nahikoa, hain zuzen ere, altxatuek, lehen esan bezala, “legez kanpoko errepresioa”, erregistratu gabekoa, neurri handia erabili baitzuten³²⁶. Pedro Barruso Bares ikerlariak, estimazio kontserbakor baten arabera, 485 eta 500 hildako artean izan zirela aipatzen du³²⁷. Barrusok, praktikoki “dokumentazioa utzi dituzten hilketak” soilik aipatzen ditu bere estimazioan (azkenak, Jesus Larrañaga beasaindarra eta Imanol Asarta hernaniarra; biak 1942.ean Madrilen hildakoak). Hala ere, berak dioenez “Hernanin eta Oiartzunen fosa amankomunak aurki daitezte, han gorpu asko daudela esaten da”³²⁸. Hain zuzen, inguruabar honek, errepresioaren parte handi bat oroimenetik ezabatu nahi izanak, eta horren inguruan informazio idatzirik ez izanak, zenbaki zehatzak ematea zaildu egiten du. Barrusoren arabera, badaude beste testigantza batzuk, adibidez, frantziar enbaxadorearen arabera, urriaren 15aren eta azaroaren 15aren artean 400 eta 500 lagun artean hil zituzten³²⁹, eta Jean Pelletier frantziar abiatzailearen artean (Aitzol abertzalearekin batera preso egon zena), hilabete horretan 800 bat hil zituzten³³⁰. Iñaki Egañak zifra hori 1.000 bat hildakotan ezartzen du, asko eta asko izen-abizenekin zerrendatuz³³¹. Hala ere, Hernaniko fusilatzean ikertu dituen Mikel Aizpururen taldearen arabera, Egañaren lanak oinarri bezala balio badezake ere, baditu zenbait gabezia; hain zuzen, iturriei erreferentzia ez egitea, zerrendetan aurkitzen diren zenbait akats (aurreko faktoreak larriagotzen duena) eta hilketa mekanismoen eta karakterizazioen inguruko lan teorikoaren falta. Hernaniko fusilatzeak aztertu dituen talde hau oso kritiko ageri izan da Gipuzkoako errepresio urdina aztertzeke moduarekin, euren ustez ez da egin ordura arte inolako ikerketa sistematikorik eta horrek zaildu egin

ateratakoa. Txosten horren arabera, 13.853 pertsona hil zituzteen frankistek Hego Euskal Herrian, horietako 2.500 Gipuzkoan. Hirugarren txostena 1939ko maiatzean atera zen, *Euzkadi bajo el régimen de Franco* izenekoa. Azken txosten hau Beasaingorako iturri gisa erabili dugu, Beasainen hildako batzuk identifikatzen baititu. Txosten honek, Gipuzkoan 3.000 hildako izan zirela esaten du, nahiz eta 340 soilik identifikatzen dituen (Beasainen, 21). Txosten hau kontsultagarri dago Eusko Jaurlaritzaren Artxiboan, Sancho de Beurko funtsan, 13 kutxan, 5 dokumentu sortan, 5:1 zenbakidun dokumentua da.

³²⁵ SALAS LARRAZABAL, Ramon: *Pérdidas de la guerra*. Planeta. Bartzelona, 1977, 213. or.

³²⁶ AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIOZOLA, Jon: op. cit., 96. or.

³²⁷ BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...* op. cit., 120-121. or.

³²⁸ Ibid., 120. or.

³²⁹ Testigantza hau Candida Calvo Vicentek 1994an Salamancako Unibertsitatean atera zuen *Poder y consenso en Guipúzcoa durante el franquismo, 1936-1951* doktorego-tesian aurkitu du Pedro Barrusok. (BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...* op. cit., 120. or.)

³³⁰ PELLETIER, Jean: *Seis meses en las prisiones de Franco. Crónica de los hechos vividos*. Madril, 1937, 97. or.

³³¹ EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil...* (IV lib.), op. cit.

du zenbaki zehatzez mintzatzea, batez ere Gipuzkoan errepresio “ez legalak, ezta erregistratuak” garrantzia handia izan zuela kontutan izanik. Bestetik, instituzioen aldetik frogen suntsiketa eta ikerketetarako trabak ere salatu dituzte. Ikerlari talde honek, “kopuru zehatza jakitea ia ezinezkoa bada ere”, ontzat ematen ditu (lehen esan bezala tentuz bada ere) Iñaki Egañaren zenbakiak, zeinen arabera 1.000 bat pertsona hil ziren Gipuzkoan errepresio urdina dela eta³³².

Pedro Barrusoren arabera, errepresioaren lehen hilabeteetan gertatu izan ziren hilketa estrajudizial gehien Gipuzkoan; beraz, Gipuzkoako “errepresio gorriarekin konparatuz”, eskema nahiko antzekoa da, lehen hilabeteetan errepresio espontaneoago bat eman zen, eta gerora errepresio arautu batek ordeztu zuen. Barrusoren arabera, 1938an, jada heriotzara kondenatuak izan ziren gehienak ez ziren exekutatuak izaten, baizik eta azkenean zigorra kommutatua izaten zen³³³. Barrusoren arabera, zigorren kommutazio hori denborak aurrera egin ahala gero eta ugariagoa izatea normala izan zen baita ere Gipuzkoatik kanpo, beraz kasu honetan Gipuzkoak ez du beste toki batzuekiko ezberdina den joerarik aurkezten³³⁴.

Beste alde batetik, kontutan izan behar dugu, errepresio urdina aztertzerakoan, honen aspektu ustez “kontrolagaitzak” ez zirela hain kontrolagaitzak. Hau da, errepresioa goitik behera eraman izan zen, Gipuzkoako agintari frankisten erabateko adostasunaz. Lehen esan dugu Mikel Aizpuruk zuzentzen zuen taldearentzat, altxatuen errepresioa eta guda operazioak txanpon beraren bi aurpegiak zirela. Talde honek, Gipuzkoan gertatu izan ziren lau heriotza mota bereizten ditu: frontean errematatutakoak, etxean atxilotu eta berehala hildakoak, kartzelara eraman eta han “aske utzi ondoren” hildakoak (Hernanin hildakoak, azken “taktika” honi jarraiki hil zituzten gehienak) eta azkenik guda-kontseiluen bitartez (lehen esan bezala Guda-bandoa aplikatuz edo bestela batere bermerik gabeko epaiketen bidez) hiltzen zituzten³³⁵. Ikusiko dugun bezala, Beasainen hil zituzten gehienak, bigarren motarekin elkartuko dira, gehienak herrian bertan (kalean edo etxean) atxilotutako pertsonak izan baitziren. Hala ere, egon bazeuden bai borrokaren ostean errematatutakoak (Isidro

³³² AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIOZOLA, Jon: op. cit., 87-88., 95-97. eta 99. or.

³³³ Barrusok adibidez, 1938an heriotzara kondenatutako artean beren zigorra “errebisatu” zituzten 109 presoetatik 94ri kommutazioa eman ziotela aipatzen du.

³³⁴ BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...* op. cit., 121. eta 124. or.

³³⁵ AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIOZOLA, Jon: op. cit., 100. or.

3. kapitulua

Igartua edo Francisco Ruiz de Apodaca, adibidez), bai “aske utzi ondoren” erailakoak (Gregorio Begue) eta bai epaiketa egin ostean hildako beasaindarrak (bost pertsona hain zuzen).

Mikel Aizpuru, Urko Apaolaza, Jesus Mari Gomez eta Jon Odriozolaren arabera, halako errepresio “ez arautua” Gipuzkoan ez zen bukatu lehen egunak pasata, hau da, Oriako bailara, eta Goierri-Beterri aldea kontrolatuta (Gipuzkoako hiririk handienak eta errepide nagusia duen aldea kontrolatuta). 1937.eko martxoan eta apirilean hilketak izan ziren Mendaron eta Elgetan³³⁶. Kasu honetan, Gipuzkoan Espainian gertatu bezala izan zen, jaiotzen ari zen Estatu eskuindarrak ez zuen bortizkeria “itsua” (“arauz kanpoko”) hasieran, boterea “sendotu aurretik” (ustez norbere indarrak kontrolagaitzagoak zirela) soilik erabili, baizik eta boterea sendotua zegoenean ere, ez zuen halako bortizkeria erabiltzeari utzi.

Pedro Barrusoren arabera, geografikoki, hilketaren punturik handienak, Beasainekin batera, Donostia hiriburua alde batera utzita, Tolosa, Arrasate eta Eibar izan ziren. Arrasaten izan ziren Beasainekin batera hilketa gehien, baina heriotz-kondena gehien jaso zituztenak, Arrasate eta Eibar izan ziren (Barrusoren ondorioak partzialak dira, Hernaniko fosa amankomunaren inguruko datuak aintzat hartzen ez dituzenez gero). Pedro Barrusoren arabera, Arrasaten 43 pertsona erail zituzten eta beste 13 heriotz-zigorraren bidez fusilatu, Beasainen ordea 40 pertsona erail zituzten (bai 1936.ean zein hurrengo hilabetetan) eta bakarra fusilatu³³⁷ (guk dakigunez, bost beasaindar izan ziren fusilatuak: Jose Ibarbia, Valerio Polo, Lazaro Blanco, Felix Gaztañaga eta Jesus Larrañaga; horrez gain beste bost beasaindarri heriotza zigorra ezarri zieten baina gero kommutatuak izan ziren³³⁸). Barrusoren datuen arabera, heriotza kopuru gehien eman ziren hurrengo herriak Errenteria (30 eraildako eta 9 fusilatu), Eibar (29 eraildako eta 4 fusilatu), Pasaia (14 eraildako eta 8 fusilatu) eta Tolosa (20 eraildako) izan ziren³³⁹. Donostian, ordea, han fusilatutako denak, donostiarrak ez

³³⁶ Ibid., 101. or.

³³⁷ BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...* op. cit., 208-210. or.

³³⁸ Bonifacio Apalategui, Victor Bernedo zilegizko alkatea, Valentin Gomez Arce, Santiago Juanes, eta Antonio Lorenzo izan ziren bost hauek. Beasainekin zerikusia izan zuen seigarren bat, Esteban Asensio Areizaga donostiarra ere hasiera batean zigor honekin zigortu zuten, gero kommutatua izan bazitzaion ere.

³³⁹ BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...* op. cit., 210. or. Hala ere, gerora, Mikel Errazkin eta Joxemi Saizarrek gudan zehar 85 tolosar fusilatu zituztela (Tolosan bertan 54 pertsona, tolosarrak edo kanpotarrak frogatu zituzten). ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel eta SAIZAR AROSTEGI, Joxemi: op. cit., 69-72. or.

baziren ere; epaiketarik gabe 78 pertsona hil zituzten eta beste 47 epaiketarekin (guztira 125 pertsona)³⁴⁰. Hala ere, kontutan izan behar dugu ikerketa hau 2005.ean atera zela eta beraz, datu batzuk pixka bat zaharkiturik daudela (Beasainen, eraildakoen kopuru osoa 48koa zen, adibidez).

Datuen aktualizazioa gora-behera, Barrusoren datuetatik ondorio argi bat atera dezakegu; hau da, hilketa era heriotz-kondena gehienak Donostian eta herri handietan gertatu izan zirela (%78), eta batez ere, Donostia kenduta, bi puntu gogor ditugula, hasierako errepresio arbitrario hori bereziki gogorra izan zena: Beasain eta Arrasate. Beste kasu batzuetan ordea, errepresio numerikoa handia izan bazen ere, unean-unean, hau da, altxatuak bertara sartu zirenean, errepresioa ez zen izan Beasainen izan zen bezalakoa. Adibidez, Tolosan, non 54 pertsona hil zituzten (bertan eta kanpoan altxatuak hildako tolosarrak 85 izan ziren), altxatuak Tolosan abuztuaren 11n sartu eta hurrengo egunetan 15 pertsona hil zituzten, eta hil osoan beste 21 pertsona³⁴¹; Beasainen egun batean 35 pertsona hil zituztelarik, eta hurrengo egunak kontatuta 40. Hau da, Beasainen gertatutakoa (Tolosa baino herri txikiagoa izanik), sarraldian bertan izan zen errepresioaren parterik handiena, kasu honetan Gipuzkoan salbuespenetako bat izan zelarik, Arrasaterekin batera.

Azken herri honen gainean, Oktubre Taldeak ematen dituen datuen arabera, 46 arrasatear hil zituzten altxatuak (lehen egunetan hildakoak, ondoren hildakoak eta epaiketa batean hildakoak kontuan hartuz)³⁴². Hala ere, kontuan izanik altxatuak Arrasaten 1936.eko irailaren 26an sartu zirela; hilketa gehienak, 29, irailaren 30aren eta azaroaren 6aren artean izan ziren³⁴³: irailaren 30.ean bi pertsona erail zituzten Arrasaten, urriaren 20an hamar arrasatear (eta ondoko herrietako beste 12 pertsona) herriko kartzelatik Hernanira eraman zituzten hurrengo egunean hiltzeko, urriaren 25 eta 26an bi arrasatear (eta herriarekin zerikusia zuten beste bi apaiz) Oiartzunen hil zituzten, eta azkenik, 15 pertsonako talde bat, azaroaren 2an atxilotutakoa, azaroaren

³⁴⁰ BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...* op. cit., 211. or.

³⁴¹ ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel eta SAIZAR AROSTEGI, Joxemi: op. cit., 71-72. or.

³⁴² OKTUBRE TALDEA: *Arrasate 1936. Una generación cortada*. Arabera. Arrasate, 2003 (2. edizioa), 381. or. Badago baita euskarazko bertsioa, baina kasu honetan, autoedizioa ematen du, eta ez da ageri argitalpen datarik (nahiz eta badirudien 1986.ean atera) ez ISBN zenbakirik. Kasu honetan, 42 fusilaturen zifra ematen dute. Ikus: OKTUBRE TALDEA: *Arrasate 1936. Belaunaldi etena*. Autoedizioa. Datarik gabe, 297. or.

³⁴³ Beste bat, Rufino Ormaetxea sozialista, Etxarrin (Nafarroa) 1936.eko uztailaren 28an hil zuten, baina hau Arrasatetik kanpo izan zen eta Arrasate faxistek hartu aurretik, beraz "logika" honetatik kanpo dago. OKTUBRE TALDEA: *Arrasate 1936. Una generación cortada*. op. cit. 195. or.

3. kapitulua

Saren eta 6aren artean Oiartzunen hil zuten³⁴⁴. Beraz, kasu honetan, 43 hildako hauek, Beasainekin batera, Gipuzkoako herri batean gertatutako berehalako sarraskien salbuespentzat har ditzakegu.

Hala ere, esan beharra dago, bi kasuetan, errepresioa eragin zutenen partetik, motibazioa nahiko ezberdina izan zatekeela, bi herrietan Errepublika garaian, gertakarien eboluzioa ezberdina izan baitzen: sarraskiak alderatuz, ez mekanika, ez hildakoen profila, ez “erabakimena” ez zen berdina izan Arrasaten eta Beasainen; beraz, “logika” ezberdin bi aurkitzen ditugu. “Mekanikarena” da lehen ezberdintasuna: Beasainen Errepublika garaian eta baita guda zibilean, altxatuak sartu aurretik baretasuna izan zen nagusi. Arrasaten ordea, 1934. urteko greban bortizkeriazko gertakariak izan ziren, bi eskuindar, Dagoberto Rezusta Lerrouxen alderdi errepublikar eskuindarrekoa eta Marcelino Oreja karlista (biak ala biak Union Cerrajera fabrikako Administrazio-kontseilukoak) hil egin baitzituzten. Beraz, Arrasateren kontrako errepresioan egon zitekeen halako “mendekuaren” faktore bat bai militarren eta bai bertako eskuindarren artean³⁴⁵. Beasainen ordea ez zegoen halako “gosea” adierazi zezakeen ezer, eta horrek agian argiago uzten du halako sarraski bat egiteko bai erabakia hartu zutenak eta bai hau burutzeko arrazoiak erabat “militarrak” izan zirela (hau da, Gipuzkoako populazioa beldurraren bidez “baretzea”), nahiz eta behin heriotzaren gurpila abian jarrita bertako zenbait elementu eskuindarrek parte hartu.

Honekin, bigarren ezberdintasunarekin egiten dugu topo: “erabakimenarenarekin”: Arrasaten, barne eta kanpo faktoreen konbinaketa handiagoa eman zitekeela pentsatzekoa da, eta baita ere barne faktoreak izatea batez ere “gurpila abian” jarri izan zutenak (hau ikusten da baita lehen egunak pasatu ostean Arrasaten oraindik heriotz-zigorren eta salaketen kopurua handia izan baitzen). Oktubre Taldearen lanak erakusten du “heriotz logika arrasatearrean” bertako eskuinak izan zuen paper handia. Hau ikus daiteke adibidez anekdotetan, esaterako herriko margaritek atxilotuak kamioietara igotzean egiten zizkieten irainetan³⁴⁶, eta baita ere pisuzko arrazoietan. Argigarria da Hernanin urriaren 25-26an fusilatutakoekin zer gertatu zen: hauek urriaren

³⁴⁴ Ibid., 301-331. or. Azken hamabost hauekin batera eraman zuten Victoriano Balerdi ez zen fusilatua izan, baina 1938.ean erail zuten Lazkaon, Beasainen lan egiten ari zela. Hurrengo kapituluan berari buruz ariko gara.

³⁴⁵ Jose Maria Uranga arrasatear karlistak “ezer justifikatu nahi gabe”; karlisten joera “ulertzeko argudio” zerrenda bat eman zuen; tartean hilketa hauek, uztailan altxatzen saiatu ziren erreketek batzuk preso egin izana, frontean arrasatear erreketek batzuk hil izana eta “Arrasateko giro iraultzailea” eman zituen. Halako “arrazoi” bat ere ez zen Beasainen. Informazio horretarako, ikus: Ibid., 303-304. or.

³⁴⁶ Ibid., 303., 310. eta 319. or.

15ean izan ziren atxilotuak eta 21ean Donostiara eramanak, baina hauetako asko, aurretik urriaren 5ean atxilotuak eta Vara del Rey kapitainaren aginduz urriaren 9an aske utziak izan ziren. Hala ere, beste bilera batean berriz atxilotzea erabaki zuten, Vara del Rey kapitainaren arabera, “guk aske utzi baditugu deliturik atzeman ez diegulako da. Orain beste batzuek atxilotu badituzte, gure ardura ez da, *zibilen ardura da*”. Honetara, kontuan izan behar dira bi gauza: Arrasaten bertako karlistek zerrenda beltzak erabili izana eta urriaren 15ean bertan, Arrasateko Udaletxean karlistek (tartean Urraca Pastor karlista ezagunak parte hartu zuen) burututako bilera bat, non antza denez, atxilotuak hiltzeko erabakia hartu zuten. Bertan izan zen batek esan zuen moduan “gorrotozko hitzak besterik ez ziren entzuten: “denak fusilatu!””. Bide honetan, kontuan izan behar da urriaren 15ean, behi-behineko Udalak dimititu zuela (agian jakinaren gainean zegoelako) eta 16an beste Udal bat izendatu behar izan zutela, eta egun horietan Arrasateko komandante militar gisa Latorre koronela izendatu zutela³⁴⁷.

Arlo honetan ere kontuan izan behar da heriotzen geografia: Beasaingo kasuan 1936eko uztailaren 27 eta 28 artean hildako denak Beasainen hil zituzten³⁴⁸, Arrasateko kasuan, ordea, 1936.eko iraila eta azaroan hildako gehienak Hernanira edo Oiartzunera eraman zituzten hiltzera (irailaren 30ean Arrasaten bertan hil zituzten biak salbuetsita). Eta kontuan izan behar dugu baita, Beasainen hildako gehienak hurrengo egunetan hildako bezala erregistratu zituztela; hildako arrasatearrak, ordea, “aske geratzeko ordena” eman ostean izan ziren erailak, beraz, ofizialki “desagertuak” izan ziren. Honek bi gauza erakusten digu: hilketen “planifikazio” handiagoa, hau da, hilketa hauen atzean “logika-hoztasun” handiagoa topa genezakeela, eta bigarrenik, tokiko markoa gaindituz, Gipuzkoako markoan jada errepresioa askoz ere sistematizatuagoa zegoela.

Azkenik, hirugarren ezberdintasuna dugu, hildakoen “profilarena”. Hildako 29 arrasatear hauen kasuan, gehienetan “profil politiko” bat dutela, hau dal alderdi baten kideak direla edo aldeketasun edo boto-orientazio ezagunekoak zirela. Hala ere, esan beharra dago, kasurik gehienetan abertzaleak zirela, eta 1934.eko iraultzan paper handiena izan zuen indarra alderdi sozialista izan zela³⁴⁹. Hau da, erailak “politikoak” izatea, baina ez nahitaez 1934.eko iraultzan parte hartu zuten alderdikoak, bi gauza

³⁴⁷ Datu hauek berrikusteko, ikus Ibid., 302-307. or. Latorre komandanteak, aurretik Irungo Pikoketan bertako 14 herritar hil zituen.

³⁴⁸ Hurrengo asteetan hildakoen artean, ordea egon zen urrutiago hildakorik, baina kasu horietan ere, batzuk Mutiloa edo Ataun bezalako gertuko tokietan hil zituzten.

³⁴⁹ GARAI, Juan Ramon: *Celestino Uriarte. Clandestinidad y resistencia comunista*. Txalaparta. Tafalla (Nafarroa), 2008, 89. or.

3. kapitulua

erakusten ditu: batetik, heriotzak agindu zituztenak, ez zutela nolabait “berotan” (kalean egotearren, adibidez³⁵⁰) agindu, hau da, ez zela soilik “jendea beldurtzea”, baizik eta aurreko zerbait justifikatzea, *hau da, 1934.eko heriotzen mendekua justifikatzea* (justifikazio hori berez faltsua izan arren)³⁵¹; eta bigarrenik krimenak agindu eta egin zituztenen buruetan jeltzaleen eta ezkertiarren arteko identifikazioa erabatekoa zela, nahiz eta 1934.ean halakorik ez izan. Jada, batzuk eta besteak “iraultzaren gaizkide” ziren altxatuentzat³⁵². Beasainen, ordea, hildakoen profila (borrokan parte hartu ez bazuten) “apolitikoak” izan zen.

Faktore guzti hauek konparazioan jartzearren erakusten digu heriotzaren “logika beasaindarraren” eta “logika arrasatearraren” arteko ezberdintasuna: Beasainen errepresioa indiskriminatuagoa izan zen, eta erabakiak askoz gehiago “berotan”, *kanpoko elementuek* (herria ezagutzen ez zutenek) hartutakoak izan ziren; Arrasaten, konparazioz erabakien atzean bazegoen nolabaiteko “arrazionaltasun” kriminal bat, selektiboagoa izan zena, *barneko elementuek* (herria eta bertako dinamika ezagutzen zutenek) martxan jarritakoa. Beasainen eman zena, Santiago Vega Sombriak “izuaren bidez geldiaraztea” deitutakoaren eskeman bat sartzen da³⁵³.

Intentsitate horren logika azaltzeko, agian izan genezake Beasainen izaera zela eta, eskuindarrek gure herriarekiko nolabaiteko herra izan zezaketela. Pablo Cayuela lotinant-koronelak, adibidez, behin esan omen zuen “Beasain komunisten eta ezkertiarren herri bat” zela³⁵⁴. Mila Mendiak horren inguruan oso ondo azaltzen digu; bere arabera, baliteke CAFen sindikalistak izateak frankistei herriaren kontrako herra hartzea eragitea, baijan berak esaten duen moduan “hildako denak ez ziren CAFekoak izan”³⁵⁵; hots, CAFen egoerak militarrei Beasainekiko mentalitate zehatz eta oso negatibo bat izatera bultzatzea bazitekeen, baina behin mentalitate horrek forma hartuta,

³⁵⁰ Salbuespena izan daiteke irailaren 30ean Arrasaten bertan hildako bi herritarrak: bat salbokonduktoa ez ematearren hil zuten, bestea aurrekoari salbokonduktoa ematen saiatzearen. Baina hau, “Beasaingo logikan” kasu “arrunta” zena, Arrasaten salbuespena zen.

³⁵¹ Jose Maria Uranga bezalako karlista batek esan zuen “Ondarretara eraman zituztenei (urriaren 20an, gero Hernanin 25-26 artean hiltzeko) “Orejaren hiltzaile” deitu zieten, baina hori baino gauza okerragorik ez dago”. GARAI, Juan Ramon: op. cit., 2008, 89. or. Hala ere, “justifikazio” hau erabil izanak, ezin gaitu justifikazio hau ez balekoa ez egiazkoa denik pentsatzera eraman, “justifikazioa” berez propagandarako edota kontzientziak arintzeko ere erabil baitaiteke. Orduko arrasatear baten testigantzak esaten duen moduan “Ongi dakite horiek (erailtzeko erabakia hartu zutenek) guda-arazoetan ibili diren guztiek alde egin dutela, hemen ez dela jende baketsu, umil eta on-ona baino”. OKTUBRE TALDEA: op. cit., 303. or.

³⁵² Parrafo honetan aurkitzen den informaziorako, ikus: Ibid., 301-331. or.

³⁵³ VEGA SOMBRIA, Santiago: op. cit., 50-54. or.

³⁵⁴ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22). Jabier Garcia Bergarak kontaktzen duenez, Beasaingo herritar Fernando Laborderen ahotan entzun zuen hau.

³⁵⁵ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

CAFekoak zirenak eta ez zirenak hil zituzten Beasainen (hau da, mentalitate “esterminatzaile” hori, mentalitatearen eragile-esparrua –CAF, sindikalismoa, ezkerrekiko zaletasuna- gainditzeko gai izan zen). Beraz, gure ustez, sarraskiaren “logika beasaindarra”, ezaugarrei hauen arabera definitu daiteke: a) Militarrek erabakitako sarraskia, euren arrazoiak eta kontsiderazioak erabiliz (politikoak, hau da Gipuzkoa beldurtzea, zein erresistentziazkoak, beasaindarrek ezarritako erresistentzia militarra zigortzea); b) komunitate oso baten kontrako herra eta komunitate zigortuaren homogeneousatzea; hau da, Beasain zena (ezkerreko herri bat) eta Beasainek “egindakoa” (militarren kontra erresistentzia jarri izana) nahasten dira, bi ezaugarri hauek bai uztailaren 27an Beasainen zegoen edonori ezar ahal zizkiotelarik³⁵⁶: bai kanpotik Beasain defendatzera etorritako borrokalariari edo Beasaingo edozein herritarrei. “Beasain” izate kolektiboak, herritar konkretuak zirenari edo herritar hauek egindakoari (ezkerrekoa izatea, okupatzaileak iraintzea) gaina hartu zituen, izaera kolektiboak kasu konkretuei gaina hartu zien. Militarren amorruek eskuineko beasaindar batzuk ere harrapatu zituen; eta azkenik d) arin zigortzeko, zigor azkarra, berehalakoa eta erabateko ezartzeko logika. 35 pertsona hil zituzten egun berean eta beste lau Beasainen bertan hurrengo egunetan. Beraz, honek egiten du sarraldiak berak ematea balio bat errepresioari. Horrez gain, heriotzaren ondoko zigorra ere ezarri zioten familia batzuei; adibidez fusilatu batzuen alargunei ilea moztu eta umiliazio publikora eramane zituzten.

Beasainen hilketa horiek gertatzen ari zirelarik, frankistek ere egin zituzten beste hainbat hilketa “arbitrario” (hau da, euren ezarritako “legeaz kanpo”). Adibidez, abuztuan, Pikoketan 14 borrokalari komunista hil zituzten, errenditu izan zirenean, eta batere epaiketarik gabe. Pedro Barrusoren arabera, behin Gipuzkoan altxatuak “euren Estatua” ezarrita (beraz, euren funtzionatzeko moduak ezarrita), ez zen halako “justizia arbitrarioa” desagertu (1937.eko apirilean frankistak Elgetan sartu zirenean ere halako krimenak burutu zituzten)³⁵⁷.

Hala ere, halako amorruek bizia kanpotik etorri bazen ere, horrek ez du esan nahi Beasaingo eskuindarrek ez zutelarik hilketetan parte hartu. *La Voz* eta *Euzko Deya* egunkariak, errepresioaren erantzule nagusi gisa Jose Luis Guridi alkatea eta “Roberto Mariones” (sic; Alberto Ruiz Moriones komandantea aipatzen ari dira) aipatzen

³⁵⁶ Horregatik “heriotzaren logika beasaindarak” eragitatekoen artean hartzen ditugu uztailaren 27 eta 28 artean beasaindarrik izan gabe Beasainen hildakoak, bana kanpoan uzten dugu 1936.eko azaroan Getarian hildako Antonio Zubiaga beasaindarra.

³⁵⁷ BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...* op. cit., 118. or.

3. kapitulua

dituzte³⁵⁸. Baina kontutan hartu behar dugu Alberto Ruiz Moriones, hurrengo egunean, uztailaren 29an iritsi zela Beasainera, 100 gizonekin, beraz ezin izan zuen uztailaren 27tik 28ra gertatutako hilketak agintzean parterik hartu (honek ez du esan nahi ez zenik izan errepresio mota baten arduradun, baina betiere, uztailaren 29tik aurrera). Beasainen inguruan egindako kroniketan “Beasaingo Guda Batzorde Karlista” aipatzen dute salaketen eta hil beharreko pertsonen markaketen arduradun gisa. *Euzko Deyaren* arabera, Batzorde hori, Epifanio Arguiñanok³⁵⁹, Agustin Mendiak³⁶⁰, “Ezkioga izeneko batek” (sic)³⁶¹, “Asla izeneko batek”³⁶², eta Fermin Perezek osatzen zuten³⁶³. Izen hauek banan-banan “orduan hemengo buruak zirenak”, Joxe Apalategi Etxeberriak aipatzen dizkigu³⁶⁴. Herri testigantza gehienak, ordea, Epifanio Arguiñanon zentratzen dira salaketen arduradun gisa; adibidez Milagros Aranburu Mujikarena dinosku: “Epifanio Arguiñano eta Eusebio Asla, horiek Guridi alkatea baino okerragoak ziren”³⁶⁵, edo Ibarbia lehengusu lehengusinek: “Epifanio Arguiñano eta bere neba-arreba batzuk, Jesus Arguiñano Dibisio Urdinera joan zena, edo Felisa arreba... okerrago portatu ziren”³⁶⁶. Ordiziako errepresioan ere nolabaiteko parte-hartzea izan omen zuen, hala diosku Yolanda Begue Redondok: “nire ama salatu zuena (Tomasa Redondok denda bat zuen Ordizian) bere burua gero trenera bota zuen. Pertsona horrek jende asko hil zuen Ordizian”³⁶⁷. Herri testigantza batzuen arabera Arguiñano hau biktimen ondorengoek interpelatu egiten zuten, euren senideak non zeuden jakin nahian eta abar, eta berak, gehienetan aitzakiekin edo ihes-eleekin erantzuten zuen (kasu batzuetan barkamena eskatuz ibili zela esan diguten senitarteko batzuek)³⁶⁸. Honez gain, Beasaingo hilerrian

³⁵⁸ *Euzko Deya*, 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16.

³⁵⁹ Epifanio Arguiñano Beasaingo karlista ezagun bat izan zen, eta erreketetan, kapitain gradua izatera iritsi zen, 1938.etik aurrera, Loinazko San Martinen erreketek-konpainiaren buru zelarik.

³⁶⁰ Pertsona hau Agustin Mendia Zufiria zen, ezkertiar zein bartzaleen kontrako hainbat kausetan “lekuko” bezala txostenak egiten aritutakoa.

³⁶¹ “Ezkioga” hori, Francisco Ezquiaga Beraceochea zen, inprenta baten jabe, Udal frankistako zinegotzi eta 1936.ean Udal frankistak izendatu zuen batzorde txostengilearen lehendakari. *La Vozek*, okerbidez, “Juan Ezquiaga” deitzen du (*La Voz*, 1937-V-16).

³⁶² Asla, Eusebio Asla Lapart zen, CAFeko enplegatu, Udal frankistako zinegotzi eta 1936.ean Udalak izendatutako batzorde txostengilearen kide. *La Vozek*, okerbidez, “Juan Asla” deitzen du. (*La Voz*, 1937-V-16)

³⁶³ *Euzko Deya*, 1937-III-21.

³⁶⁴ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. *Beasain*, 2014-VI-25.

³⁶⁵ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. *Beasain*, 2014-VIII-5.

³⁶⁶ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. *Beasain*, 2014-VI-19.

³⁶⁷ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. *Beasain*, 2014-VI-27.

³⁶⁸ Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. *Beasain*, 2014-IX-14; Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. *Beasain*, 2014-VI-11; eta Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: *Beasain*, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22): Barkamen eskaerei buruz: Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. *Ordizia*, 2014-XII-17; eta

kasuren batean interbentziorik izan zuen, adibidez Pablo Ventureira deitutako herritar bat ez fusilatzea lortu zuen (baina ez zuen berdina egin beste herritar batzuekin, beraz Ventureirarena salbuespen bat izan zela uste dugu). Beste alde batetik, Jabier Garcia Bergarak ere kontaktu izan digu bere aitona, Bergara abizena zuen jeltzale bat, ez zutela fusilatu eskuindarrek euren artean izandako eztabaida baten ondoren³⁶⁹. Herri testigantza askok, Jose Aramburu zinegotzi karlista aipatzen digute “herritarrak laguntzen saiatu zen zinegotzia” bezala. Honek erakusten digu, parte batean, “tokiko elementuen arbitrarietatea” “kanpoko militarren arbitrarietatearen” menpeko bazen ere (edota hauxe izan bazen kausa, eta hura “efektua”), hark nolabaiteko tartea izan zuela eragina izateko.

Beasaingo uztailaren 27tik 28rako hilketetan, , ez zen batere epaiketarik izan kasu horietan, asko jota “galdeketa bat (...) aurretiaz kondenatua zegoelako³⁷⁰”. Beraz, Beasaingo hilak, teknikoki, “fusilatua” baino “erailak” izan ziren, ez baitzegoen batere epaiketarik, ez heriotza-kondenarik, ezta guda-legeen arabeko pelotoi-osaketarik; erailketa zuzena baizik³⁷¹. Kontutan izan behar dugu, militar altxatu buruzagien Defentsa Nazionalerako Batzordeak (*Junta de Defensa Nacional*), bere errepresioaren inguruko lehen bandoa 1936ko uztailaren 28an argitaratu zuela³⁷²; beraz ordura arteko errepresio osoa kontrolatu gabekoa izan zen, tokiko militarren edota falangisten edo erreketen edo beste eskuindarren arabekoa.

Epaiketa eza, ez zen izan inolaz ere frankisten aldetik “kontrolgabeko” elementu batzuk zeudelako, baizik eta “justizia” frankistak epaiketaz kanpoko hilketarik arma bezala erabili zituela hasiera batetik. “Gudako bandoaren” aplikazioa, edozein legez harandinokoa, nahiko ondo aztertu du Jose Maria Garcia Marquez historialariak, zeinaren arabera, 1936.enean behintzat, bortizkeria militarra halako epaiketarik gabeko “guda bandoetan” oinarritzen zen³⁷³. 1936.eko fusilamendu edota exekutatzeko ia guztiak

Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

³⁶⁹ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

³⁷⁰ Mila Mendia Aramendik adibidez, bere aitona Evaristo Mendia fusilatu aurretik halako “galdeketa” bat egin ziotela esan digu. Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

³⁷¹ Behin ohar hau eginda, irakurleari irakurketa errazteko, “erailketa” eta “fusilamendu” terminoak ez ditugu bereiziko. Honi gehitu behar diogu orduko justizia militar kolpistaren funtzionatzeko modua, praktikoki aurretik hartutako erabaki bat berrestekoa zela.

³⁷² VEGA SOMBRIA, Santiago: op. cit., 79. or.

³⁷³ GARCIA MARQUEZ, Jose Maria: “El triunfo del golpe militar” in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950* (79-145. or.). Critica. Bartzelona, 2010.

3. kapitulua

batez ere estrajudizialki eginak izanak ez du esan nahi modu hau “beharregatik” edo “besterik ez zegoelako” erabili zenik; frankismoaren Estatuak hasiera batetik baitzituen guda kontseiluak martxan, eta bestetik exekuzio estrajudizialek ere 1939.ean gertatzen jarraitzen zuten. Egile batzuen arabera, ez dago batere loturarik exekuzio estrajudizialen handitzearen eta Francoren Estatuaren ustezko “sendotasun falta” baten artean, exekuzio estrajudizialak altxatuen Estatuak guda bukatu arte erabilitako arma bat izan ziren³⁷⁴. Pablo Gil Vico urutiago joaten da, bere arabera, exekuzio estrajudizialak eta guda-kontseilu “arautuak”, “burmuin berdinek erabili zituzten tresna bi izan ziren”. Lehen aldi horietan, batez ere, “guda-kontseiluak” nolabaiteko nabarmentasuna zuten pertsonaiei aplikatzen zitzairen, baina normalean arauz kanpoko fusilatzeak egiten ziren³⁷⁵. Mikel Aizpuruk zuzendutako talderen arabera, erabat “arauz kanpo” zegoen errepresioak 1937.etik aurrera behera egin zuen, ordutik aurrera altxatuen errepresioaren gutxieneko parte bihurtu zelarik. Talde honek esaten duenez, 1937.etik aurrera, heriotza gehienek jada Francoren oniritzia zuten, beraz ez ziren guztiz inkontrolatuak, Estatu frankistaren nolabaiteko prozedura eta arautze bat agertu zen. Hala ere, honek ez du esan nahi bermeak handitzen zirenik, baizik eta soilik Franco beraren agintea handitu egin zela tokiko komandante edota aginteekiko. Berme handiagotze batena baino, “efikazia” handiagotze baten marka genuke hau³⁷⁶. Mirta Nuñez Diaz-Balarten ustez, errepresioak bazuen helburu bat: “populazioak altxatuen doktrina zenbat eta azkarren bere egitea”³⁷⁷.

Beasainen kasuan oso gutxi izan ziren “arautu” ondoren hildako pertsonak estralegalki hildakoekin konparatuz gero; eta hauen artean, bat ere ez zen izan 1936ko uztailaren 27 eta 28ko hilketetan gertatu. Bost beasaindar soilik ezagutzen ditugu nolabaiteko “epaiketa” eta horrenbesteko kondena izan zutenak, horietako hiru, frontean fusilatutakoak (Lazaro Cebrian, Jose Ibarbia eta Valerio Polo). Beste biak, Felix Gaztañaga Tolosan bizi zen gaztea eta Jesus Larrañaga buruzagi komunista ezaguna

³⁷⁴ PRADA RODRIGUEZ, Julio: op. cit., 410-411. or. Prada Rodriguezen arabera, egia da tokiko komandante frankistek nolabaiteko erabakimena izan zutela errepresioa nolakoa izango zen zehazteko orduan, baina inondik ere ez zela Estatuaren baimenik edo oniritzirik gabeko metodori erabiltzen.

³⁷⁵ GIL VICO, Pablo: “Derecho y ficción” in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950* (249-346. or.). Crítica. Bartzelona, 2010, 270-271. eta 274. or.

³⁷⁶ AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIOZOLA, Jon: op. cit., 170-174. or.

³⁷⁷ NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: “El porqué y para qué de la represión” in NUÑEZ DIAZ-BALART (zuz.): *La gran represión. Los años de plomo del franquismo* (21-52 or.). Flor de Viento argitaletxea. Bartzelona, 2009, 21. or.

izan ziren. Beraz, 27tik 28ra hildako 35 pertsonen gain, hurrengo egun, aste eta hilabeteetan, beste hamar beasaindar hil zituzten altxatuek inolako garantiarik gabe.

1936ko uztailaren 27 eta 28 artean gertatutako fusilatzeen inguruko zirkunstantzien inguruan, gaur egun arte, Juan Jose Garcia Urcelayetak utzi du testimoniorik osatuena, eta honi, Mauro Elizondo apaizak egin dizkio zuzenketa batzuk. Hura izan da gaur egunera arte izan dugun oinarria, eta meritu handiko artikulua iruditzen zaigu, egun horretan gertatu zenaren inguruko oinarritzko elementuak ezarri izan baititu (atxilotuen profila, hots, kalean, aleatorioki atxilotutakoak, horietako atxilotu askoren ibilbidea, hau da Geltokiko kartzela inprobisatuen eduki eta hortik Matias Enea etxera eramatea, eta gero han “askatzeko baldintza” –hots, atxilotu bakoitzak hiru arma ekartzea- planteatzea eta 27tik 28rako goizaldean fusilatzea). Hala ere, esan beharra dago, fusilatu guztiek ez zutela bide hori egin, batzuk, esan bezala, borrokan parte hartzeagatik harrapatutako tokian hilak izan baitziren (ezta ere “borrokatik kanpo zeuden fusilatu” guztiek). Bestalde, Garcia Urcelayetak esaten duen arabera, fusilatzeak goizaldean izan ziren, eta berak Matias Enetik entzun egin zuen, baina ez du argi uzten (berak ez baitzituen ikusi) fusilatze horiek gertatu ziren tokia.

Lehen erailketak, posibleki eta ia ziurtasun osoz, Isidro Igartua Polo eta Juan Andres Otaegi Berasategirenak izan ziren. Hauek, Beasaingo Karola deitutako etxeetan, burdinbideko langileentzako egindako etxeetan hil zituzten (gaur egun, Gernika pasealekuko frontoi txikia dagoen tokian zegoen etxe hori). Juan Andres Otaegi Berasategi, “Juan Txiki” goitizenez, Zegaman jaio zen 1897ko ekainaren 8an, Gorospela Errota baserrian. Burdinbideetan lana topatuta, Beasainera bizitzera joan zen, hain zuzen burdinbideetako langileentzako eginiko Karola etxean. Politikoki errepublikanoa zen³⁷⁸. Isidro Igartua, aldiz, Bizkaitik etorri zen Beasaina bizitzera, bere gurasoak (Jose Maria Igartua eta Agripina Polo) Bizkaian jaio ziren, eta bera ere bai, hain zuzen, Begoñan (bera jaio zenean, Begoña oraindik ez zen Bilbo, 1923an fusionatu zen). Politikoki sozialista zen, familia sozialista batetako kidea zen³⁷⁹. Beasaingo Pablo Iglesias kaleko (gaur egungo Jose Migel Iturriotz) 13. zenbakian bizi zen.. Bi kide hauen heriotza, nolabaiteko moduan, Angel Irigorasen Zegamari buruzko liburuan (*Herri zapalkuntzaren lekuko batzuk. 1936-2006 Lehen orain eta beti: Eskubide*

³⁷⁸ IRIGORAS, Angel: op. cit.. 99. or.; eta Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarriketa. Ordizia, 2014-XII-17.

³⁷⁹ Agripina Polo, Francoren emazte Carmen Poloren lehengusina zen.

3. kapitulua

berdinak pertsona guztiarentzat) aurkitzen da. Hala ere ikusiko dugun bezala, Irigorasen kontakizunak akats bat du. Beste bertsio bat, Otaegi Berasategiren familiaren ondorengo Lourdes Martinez Otaegi eta Peio Martinez Otaegiren ahozko testigantzarengandik jaso dugu. Bi testigantzok esaten dute jada Isidro Igartua, borrokan zauritua, Juan Andres Otaegi bizi zen Karola etxera gerturatu zela laguntza eske, eta azken honek lagundu egin zuela, bere etxera sartzen utziz; baina hemendik aurrera bi bertsio ezberdintzen dira: Irigorasen arabera, kanpotik atea jo zutenean Bixente Arregi emaztea eta hiru seme-alabak sotoan gorde ziren eta beraz Otaegik zabaldu zuen atea³⁸⁰; Martinez Otaegi neba-arreben arabera, Arregik esan zuen atea berak zabalduko zuela, baina Otaegi aurreragu egin zen³⁸¹. Peio Martinez Otaegiren arabera, bortizkeria handiz sartu ziren, atea ireki bezain laster bota egin baitzuten; eta horrez gain, ematen duenez Isidro Igartua hil zuten “aitonak esan zien laguna hil zuten bezala bera ere hiltzeko”³⁸². Beraz etxean biak hil zituzten, eta horrez gain, frankistek Juan Andres Otaegirena zen eskopeta eraman zuten³⁸³.

Isidro Igartua momentu honetan artatze prozesuan egoteak nolabaiteko nahaste bibliografikoa sortu du gerora. Askok Zesareo Ugartek artatu zuela esan izan dute (Zesareo Ugartek zauritu asko artatu zituen eta, hortik maiz atera izan da ere Igartua Zesareo Ugartek artatua izan omen zela). Jose Antonio Egidoren liburuan, adibidez, “Agripina Poloren semeetako bat, Zesareo Ugartek osatu ostean hil zuten”³⁸⁴. Ziur gaude Egido Isidro Igartuaz ari dela. *La Voz* egunkariak, ordea, “Jose Luis Igartua, igartuatarreneko semeetako bat”, “zauritua izan ostean osatua izan zen, eta osatu eta gero Iruñera eraman zuten, han askatasuna eman eta bueltan Beasainen hil zutelarik”³⁸⁵. Kontakizun honetan hainbat gertakizun ageri dira nahasirik. Izan ere, Jose Maria Igartua Lastra, Igartua familiako aita zen. Beste alde batetik, hildako bi semeen istorioak nahasi egin dituzte, eta pertsona bakar batean fusionatu (*La Voz* egunkaria Madrilen argitaratua zen, eta bigarren eskuko lekukotzak izateak honakoak ekartzen ditu sarri): Iruñera eramatera zihoanean bidean hil zutena Hilario Igartua Polo anaia izan zen. Bestetik, bai *La Voz* egunkariak zein *Euzko Deya* egunkariak, “Carlota izeneko emakume baten bi

³⁸⁰ IRIGORAS, Angel: op. cit., 99. or.; eta Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizia, 2014-XII-17.

³⁸¹ Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizia, 2014-XII-17.

³⁸² Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizia, 2014-XII-17.

³⁸³ Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizia, 2014-XII-17.

³⁸⁴ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 93-94. or.

³⁸⁵ *La Voz*, 1937-V-16.

seme” hil zituztela³⁸⁶. Gure ustez hori nahasketa bat da burdinbideko langileak (beraz baita ere Juan Andres Otaegi Berasategi) bizi ziren etxeari “Karola etxea” deitzen baitzizaion Beasainen.

Nahiko goiz hil zuten beste pertsona bat Francisco Ruiz de Apodaca Fernandez de Ocariz izan zen. Pertsona hau, gainera, egun hartan eraildakoan artean, agian militantzia politikorik nabarmenena izan zuen pertsona zen; 1934ko urriko greban parte hartu baitzuen CNTko ordezkari gisa, eta 1935an epaitua eta kartzela-zigorra jasotzera zigortua izan baitzen. Hala ere, pertsona honen erailketaren ingurukoak askoz ere ilunagoak dira, izan ere, testigantza bakar bat dugu (ahozko testigantza bat, bere iloba Pako Ruiz de Apodakarena, hain zuzen). Hala ere, Pako Ruiz de Apodakak kontatzen digun moduan, bere etxean EAE-ANVren zaleak ziren. Izan ere, bere bi anai, Angel Ruiz de Apodaca (Pako Ruiz de Apodakaren aita) eta Luis Ruiz de Apodaca EAE-ANVren *Indarra* Batailoiaren kide izan ziren³⁸⁷ (Luis borrokan hil zen, Bizkargin). Pako Ruiz de Apodakak bere amari entzundakoa kontatzen digu, Francisco Ruiz de Apodaca etxe batetik zauritua atera zela, eta agian bihotzean jo zutela. Orduan bertan, kalean errematatu zuten³⁸⁸.

Hala ere badugu zalantza txiki bat, ez heriotza honen gertakarien inguruan, baizik eta kronologiaren inguruan. Jabier Garcia Bergara lekukoaren arabera, erreketek eta oro har, altxatuak Beasainen sartzen ari zirenean, Beasaingo Geltokitik ezkertiarrek eskuzko bonba batzuk bota zituzten. Gerora, erreketek etxe horretan sartu zirenean, ezkerreko borrokalarik ez, baina senar-emazteak aurkitu zituzten, eta bertan hil omen zituzten³⁸⁹. Hala balitz, uztailaren 27an Beasainen hildako lehen zibilak izan zitezkeen. Haatik, testigantza hau beste iturriekin erkatzerik ez dugu lortu, eta gainera bi senar-emazteak ez ditugu identifikatzerik lortu. (Gerora itzuliko gara gai honetara).

Lehen aipatu dugu Juan Jose Garcia Urcelayetak gertakarien inguruko eskema nahiko osatu bat idatzi zuela 1993 urtean. Garcia Urcelayetaren arabera, borrokak goizean hasi baziren ere, lauretan “jada ez zen” hotsik entzuten, beraz, ulertu behar dugu ordu honetarako, jada tropa altxatuak Beasain barruan zeudela (beraz, zitekeena zen Otaegi eta Isidro Igartuaren heriotza momentu horretan, edota pixka bat lehenago

³⁸⁶ *Euzko Deya*, 1937-III-21; *La Voz*, 1937-V-16.

³⁸⁷ Pako Ruiz de Apodaka Galarzari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-18.

³⁸⁸ Pako Ruiz de Apodaka Galarzari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-18.

³⁸⁹ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

3. kapitulua

izatea). Garcia Urcelayetaren arabera, Geltokirako bidean (Arana kalean bizi zen) aitarentzako enkargu bat egitera zihoala, arratsaldeko lau eta erdiak aldera izan zen atxilotua, Karola etxea zegoen tokitik gertu, juxtu aurrean. Garcia Urcelayetak ez du aipamenik egiten Karola etxean bortizkeriarik ikusi zuenari edota tirorik entzun zuenari buruz; beraz, bere kontakizunari jarraiki, ordurako Juan Andres Otaegi eta Isidro Igartua hilak zirela pentsatzen dugu³⁹⁰. Angel Irigorasek, okerbidez, frankistek Isidro Igartua bertan hil ez zutela, baizik eta osatu arte itxaron eta Iruñeko kartzela probintzian errematatu zutela esaten du. Hau ez zen hala izan, lehen ean dugun moduan, Isidroren anai Hilario Igartua hil zuten Nafarroan (Iruñeko bidean, eta ez Iruñeko kartzelan, Irigorasek esan bezala)³⁹¹. Beraz, hauek izan ziren egun hartan Beasainen erailtzat eman genitzazkeen hildakoen arten hiltzen lehenak. Martinez Otaegi neba-arrebek salaketa bat egon ote zeneko aukera zabalik utzi digute (Igartua Karola etxean zegoela tropa frankistei esan zien herritarren bat), baina “salataria nor izan zen jakiterik ez dugu izan”³⁹².

Urcelayetaren atxiloteta, testigantzen arabera, beste askorenaren antzekoa izan zen, hau da, kalean egotearren. Garcia Urcelayetaren testimonioari jarraiki, ordu eta erdiz izan zuten bertan atxilotuta, eta seirak aldera, CAFeko bi zaintzaile, atxilotuak baita, pasa ziren bere ondotik. Victor Uribe-Etxebarria eta Matias Alvarez ziren, eta hirurak Geltokira eraman zituzten³⁹³. Garcia Urcelayetak dioenez, Geltokira iristerakoan, hildako soldadu bat (zitekeenez, orduan fusilatua, jada seirak ziren eta borrokan hila izango balitz, altxatuek gorpuak erretiratzeko nahiko denbora izango zuten), eta zenbait atxilotu ikusi zituen, “burdinbideetako langileren bat”, “herritar batzu” (ez ditu identifikatzen) eta militar bi (ez ditu izendatzen)³⁹⁴, eta gerora “herriko

³⁹⁰ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 61. or.

³⁹¹ IRIGORAS, Angel: op. cit., 99. or. Egia esan, Igartua familian aita eta bi seme hil izanak, eta iturri ezberdinek igartuatar ezberdinen izenak askotan nahasi egin zituztela kontuan izanda, pentsatzen dugu horrek eraman duela Irigoras nahastera.

³⁹² Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizia, 2014-XII-17. Hauek esaten dute “gero bere burua trenbidera bota zuen pertsona bat” (hots, Epifanio Argiñano, erreketen kapitaina izandakoa) izan zitekeela salataria, behin euren osabari, Luis Otaegiri, Juan Andres Otaegiren semeari “yo no tengo nada que ver con lo de tu padre” esan omen ziola eta familiak bere inguruan susmoa zuela.

³⁹³ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 61-62. or.

³⁹⁴ Juan Jose Garcia Urcelayetak dio batek “sei puntako izar bat zuela”, beraz, nolabaiteko kargua izango zuen horrek. Ibid., 62. or. Mauro Elizondoren arabera, bi militar horiek Gasteiztik ihesi zetozen errepublikanoekin bat egiteko eta Idiazabalen atxilotuak izan ziren. ELIZONDO, Mauro: “Beasain: una noche sangrienta (27-28 de julio de 1936)” in *Ikuska* aldizkaria, 4. zkia (43-53. or.), 1993ko urria-abendua, 43. or.

jende gehiago etorriko zen”: “Andres Eizaguirre” (sic)³⁹⁵, Guillermo Ugarte, Miguel Quintas, Epifanio Arguiñano³⁹⁶, Marcelo Bergara, Saturnino San Martin, “nire ustez, Gallego izeneko burdinbidetako langile bat”³⁹⁷, “Pajarero ezizeneko bat” (Ramon Crespo Igarza) eta “Farro ezizeneko pertsona bat”³⁹⁸. Gure datuen arabera, Marcelo Bergara eta Saturnino San Martin, ematen duenez, ez ziren geltokian egon, baizik eta Herriko Etxearen parean atxilotuak izan ziren, eta handik zuzenean eraman zituzten fusilatzerara. Bestalde, Garcia Urcelayetak dio “han geundenetako inor ez ginen ezkerrekoa”³⁹⁹, baina jakin badakigu Marcelo Bergara eta Saturnino San Martin Gazteria Sozialistako kideak zirela eta zirudienez, “Farro” zelakoa, Alderdi Sozialistakoa zen. Hala ere, halako akatsak kenduta, esan dezakegu Garcia Urcelayetaren testigantza nahiko fidagarria dela⁴⁰⁰. Honen bestez, geroago hil zituzten Andres Izaguirre, Ramon Crespo, Juan Gonzalez “Farro” eta Guillermo Ugarte⁴⁰¹ seirak aurretik izan ziren atxilotuak (Garcia Urcelayeta atxilotu eta ondoren), eta ziur aski lau eta erdiak baino aurretik, eta Victor Uribe Etxebarria eta Matias Alvarez seirak baino zertxobait lehenago, Juan Jose Garcia Urcelayetarekin batera. Identifikatu gabeko bi militarrek eta identifikatu gabeko herritar batzuk (tartean burdinbideetako langileren bat) seirak aurretik izan ziren atxilotuak, hau da, Juan Jose Garcia Urcelayeta baino lehenago, jada han bait bazeuden. Modu berean, Urcelayetaren arabera, Geltokian atxilotutako batzuek euren testigantzak eman zizkieten, gerora Beasaingo lekukoek guri eman zizkiguten testigantzekin bat datozenak. Urcelayetak kontatzen duenez, Andres Izaguirrek, Zirkulu Tradizionalistako lehendakariak, Ramon Crespo Igarza, “Pajarero” goitizenez, atxilotua zela ikusi zuenean, honen alde bitartekaritza lana egiten saiatu zen eta bera ere atxilotua izan zen. Garcia Urcelayetaren arabera, Izaguirre agertu aurretik, Pedro Mokoroa apaiza zegoen Ramon Crespo defendatzen militarren aurrean. Horretan berak (agian Zirkulu Tradizionalistako lehendakaria izanda bera atxilotuko ez zutela

³⁹⁵ *Ikuska* aldizkariaren hurrengo alean, Mauro Elizondo berak zehazten du Andres Izaguirre zela, ez Eizaguirre. *Ibid.*, 46. or.

³⁹⁶ Epifanio Arguiñano frankistak besarkatzerara joan omen zen erreketek sartzerakoan. Anselmo Ruizek kontatzen zuen arabera. Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25.

³⁹⁷ Zitekeena da Florencio Gallego izeneko burdinbideetako langile bat izatea, hau eskuindarra zelarik. Izan ere, ez zen egun hartan atxilotutako bakarra. Andoni Sarriegi Eskisabeli eskertzen diot datu hau.

³⁹⁸ Bere benetako izena Juan Gonzalez zen. Iñaki Egañak “Juan Gonzalez Farro” bezala identifikatzen du, eta “sozialista” zela dio.

³⁹⁹ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: *op. cit.*, 63. or.

⁴⁰⁰ Kontutan hartu behar dugu 1936tik zituen oroitzapen hauek Garcia Urcelayetak 1993an idatzi zituela, 57 urte beranduago, beraz normala da gauza batzuek hain ondo ez gogoratzea.

⁴⁰¹ Anselmo Ruizen arabera, “Farro” eta Guillermo Ugarte batera atxilotu zituzten. Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25. Garcia Urcelayetak ez du hau aipatzen.

3. kapitulua

pentsatu zuen Izaguirrek; Garcia Urcelayeta berak zioen “pozik” zegoela Izaguirre tropa kolpistak herrira heldu zirela eta, eta gainera bere harategiko haragia ere eskaini ziela) jarraituko zuela esan omen zion Mokoroari, baina ez zuen beste ezer lortu, bera atxilotzea baino. Guillermo Ugarte, karlista baita ere, Garcia Urcelayetaren arabera, militarrek kotxe bat Hunolt Tinta fabrikatik hurbil (Hunolt Tinta Fabrika, gaur egun Gipuzkoa Plazara eramaten duen zubitik hurbil zegoen) erre zutela eta, hauei atentzio deitzean, atxilotua izan zen. Guillermo Ugarte Aeta, oñatiarra jaiotzez, Miguel Primo de Riveraren diktadura garaian, Joxe Guridi Balantzategi alkate zen garaian zinegotzi izan zen, eta Zesareo Ugarte medikuaren aita izan zen⁴⁰².

Lortu ditugun ahozko testigantza gehienek bat egiten dute Juan Jose Garcia Urcelayetaren esaldi hauekin. Adibidez, Izaguirre eta Cresporen kasuan, eskema hau (lehenengo Crespo atxilotzea eta honen ondoren, bere alde ateratzearen, Izaguirre) batek baino gehiagok aipatzen du⁴⁰³. Ramon Crespo Igarzaren atxiloketaren inguruan, bere biloba Juan Ramon Imaz Crespok ere xehetasun handiak ematen ditu. Honen arabera, behin kolpistak herrian sartu zirenean, biztanle denak Elizara joateko agindu zuten, baina bere alaba, Ramona Crespo, etxean ez zela eta (idazkariaren etxean zegoen lanean), kalera atera zen honen bila. Juan Ramon Imazen arabera, Ramon Crespo Geltokitik hurbil “pergoletan” izan zen atxilotua⁴⁰⁴. Imaz Crespok esaten digunez “karlista bat” (Izaguirre) joan zen Ramon Crespo Igarza defendatzera “ez dakit atxiloketa balkoitik ikusi zuelako edo”, “hau pertsona ona da!” esanez; eta behin biak atxilotuta Geltokira eraman zituzten⁴⁰⁵.

Juan Ramon Imazena ez da testigantza bakarra. Jose Antonio Egidoren arabera, Ramon Crespo lehenik Elizan gorde zen, baina han jabetu zen bere alaba Ramona falta zela eta bere bila abiatu zen, kalean atxilotua izan zelarik⁴⁰⁶. Angel Irigorasen arabera, Ramona Crespo alabak eta Pedro Mokoroa apaizak jo zuten Izaguirrerengana, behin hauek Ramon Cresporen atxiloketa burutu zutenean. Irigorasek aipatzen duena arabera, Izaguirrek Crespo Igarza ez zela inongo alderdiko kide esan zien soldaduei, hauek aske

⁴⁰² GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 62-63. eta 71-72. or.

⁴⁰³ Agian salbuespena *Euzkadi bajo el régimen de Franco: la represión en Guipúzcoa* (Eusko Jauriaritzaren Artxiboa, Sancho de Beurko funtsa, 13 kutxa, 5 dokumentu-sorta, 5:1 zenbakidun dokumentua.) txostena da; non Andres Izaguirrek Gregorio Begue errepublikanoa defendatzen zuela eaten baitzen. Ez zaigu hau oso posible iruditzen, Gregorio Begue ez baitzuten egun horretan hil, aste batzuen buruan baizik.

⁴⁰⁴ Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁴⁰⁵ Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁴⁰⁶ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 93-94. or.

utz zezaten asmoz, alferrik izan zelarik. Irigorasen arabera, Izaguirrek beste atxilotu batzuen askatasuna lortzeko ahaleginak ere egin izan zituen⁴⁰⁷. Jesus Lopez Gallegok baieztatzen du Izagirrek “Andra Mari kalean bizi zen pertsona bat” (Ramon Crespo) ikusi zutela “fusilatzeraz eramanen” eta “Hori pertsona ona da!” esan zuenean (beraz, Juan Ramon Imaz Cresporen testigantzarekin bat etortzen da), “A bai? Ba zu ere gurekin, fusilatzeraz!” esan omen zioten soldaduek⁴⁰⁸. Antzeko bertsioa ematen digute Felipe Ibarbia Alustiza eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegi lehengusu-lehengusinek⁴⁰⁹. Ramon Crespo alabaren bila atera zela atxilotu zutenaren bertsioa beste batzuen artean Eleuterio Aiestak⁴¹⁰, Patxi Lasa Imazek⁴¹¹, Anselmo Ruizek⁴¹² eta Jabier Garcia Bergarak⁴¹³ ere konfirmatzen digute⁴¹⁴. Prentsako bi iturrietan, *La Vozen zein Euzko Deyan*, Andres Izaguirrek Ramon Crespo laguntzerakoan atxilotu zutela ere badakar (eta biek azpimarratzen dute Izaguirreren filiazio karlista) beraz, nahiko argia zaigu kasu hau⁴¹⁵.

Guillermo Ugarteren atxilotetaren gainean, bilobetako biren, Arantza Ugarte Azkarate eta Maria Rosario Ugarte Sukiaren testigantza ere badugu. Bi biloba hauen arabera, Guillermo Ugarte Aetak leihotik ikusi zuen kamioi hori Hunolt fabrikaren ondoan erretzen eta etxetik jaitsi zen frankistei ohartaraztera han ezin zutela erre, hura egiten bazuten, tinta-fabrika bera eta inguruko etxe guztiak erre egingo zirela eta (Guillermo Ugarte zinemaren parean bizi zen, Iturriotz kalean). Orduan, soldaduek bera

⁴⁰⁷ IRIGORAS, Angel: op. cit., 108-111. or. Anselmo Ruizen arabera, Andres Izaguirrek militarrei Cresporengatik “Hau gureetakoa (eskuinekoa) da!” esan zien, eta militarrek “Guretakoa edo ez, biak zatozte gurekin!” erantzun omen zieten. Hala ere, ez dugu oso posible ikusten, inor ez baitu Crespo eskuindartzat identifikatzen. Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

⁴⁰⁸ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014ko ekainaren 25.

⁴⁰⁹ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁴¹⁰ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

⁴¹¹ Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁴¹² Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

⁴¹³ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁴¹⁴ Beraz, Izaguirre Cresporen alde bitartekaritza egiteagatik hiltzen saiatzea hain argi agertu izanak Iñaki Egañak bere lanen batean emandako hipotesia deskartatzen du. Egañaren arabera “Beasaingo Alderdi Karlistaren zuzendariek Errepublikaren alde jartzea aukeratu zuten”. Gure ustez hori okerra da, egia da hiru karlista ezagun (Izaguirre bera, Evaristo Mendia eta Guillermo Ugarte) hil zituztela, baina horietako bat ere ez zuten hil “zilegizko Gobernuaren alde jartzearen” (are gehiago Izaguirrek, atxilotua izan aurretik, bere harategiko haragia eskaini zien Beasain okupatzen ari ziren altxatuei). Gainera, kontutan hartu behar da karlista beasaindarrek erreketek konpainia bat osatu zutela Francoren armadan borrokatzeko, eta Beasaingo lehen Udal frankista ia erabat karlistez osatuz zela. EGAÑA, Iñaki: *Los crímenes de Franco en Euskal Herria. 1936-1940*. Txalaparta. Tafalla, 2009, 98. or.

⁴¹⁵ *Eusko Deya*, 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16. *Euzko Deyak*, Izaguirre ordez “Itzaguirre” bezala aipatzen du Izaguirre. Bestetik *La Vozek* dio Crespo “mutiko” bat zela, zuzena ez dena.

3. kapitulua

ere kamioian sartu zuten⁴¹⁶. Bi Ugarte lehengusinen arabera, tropa kolpistekin batera sartu zen soldadu batek “uste dugu txoferrak” Ugarte lagundu nahi omen zuen, baina ezin izan zuen eta bera ere atxilotua izan zen⁴¹⁷. Maria Rosario Ugarteren arabera, Guillermo Ugarte behin atxilotuta, geltokira (non Garcia Urcelayetarekin eta beste atxilotuekin batera egongo zen) eta handik Matias-Enea etxera (gaur egun, Zapatari kalearen eta Nafarroa etorbidearen arteko gurutzebidean egongo zatekeen, egun honetan fusilatutakoen omenez egindako monumentutik hurbil)⁴¹⁸. Anselmo Ruizek, momentuan atxilotetako tokitik oso hurbil zegoen pertsonak “hilerrira eramán zuten” berresten du⁴¹⁹. Anselmo Ruizek zehaztasun gehiago ematen digu: bere ustez Guillermo Ugartek ibilgailua ikusi izan zuenean, Antolin abizeneko pertsona baten dendan sartu zen “autobus bat erreko dute, eta egiten duen haizearekin herri osoa erre daiteke” esanez. Antolin bera ez zen ausartu ezer egitera, “begira nola dauden!” esan omen zuen; baina Guillermo Ugarte bai (agian bera eskuinekoa izateak bere buruari konfidantza eman zion). Anselmo Ruizek elkarrizketa hori zuzenean entzun zuen, bera momentu horretan dendan zegoelako⁴²⁰

Hau izan zen garaiko prentsan agertu zen bertsioa, bai *Euzko Deyak* zein *La Vozek* bertsio hau atera zuten⁴²¹. Bertsio hau beste hainbat testigantzek baieztatzen digute, adibidez, Jesus Lopez Gallegok. Ugartek (“dendari batek”, bere hitzetan) “hau ezin duzue hemen erre” esan omen zien militarrei (hala ere, berak entzundakoa, Ugarte orduan momentuan hil zutela, okerra dela dirudi)⁴²². Joxe Apalategi Etxeberriak beste elementu bat ematen digu: Ugarte antza denez autobusean bertan hiltzen (erretzearen bidez?) saiatu ziren, baina soldadu baten laguntza-saiakerak eragotzi zuen hori (“lehen saiakera autobusean hiltzea izan zen”), eta orduan gertatu zen Ugarteren bilobek eta Garcia Urcelayetak aipatzen dutena: atxilotuta geltokira eramán zutela⁴²³. Beraz horixe da hain zuzen ere bertsiorik sinesgarriena (bai ahozko testigantzek, familiarenak barne,

⁴¹⁶ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁴¹⁷ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁴¹⁸ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁴¹⁹ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25. Anselmo Ruizek ez du aipatzen lehenago Geltokira edo Matias-Enera eramán zituztenik (hala ere, ukatu ere ez du egiten).

⁴²⁰ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25.

⁴²¹ *Euzko Deya*, 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16.

⁴²² Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁴²³ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

zein idatzizko testigantzek, tartean berarekin egondako batek emandakoak baieztatzen baitute): bertzio honen arabera, Ugartek Hunolt tinta-fabrikaren ondoan autoa erretzen ari zirelako ohartarazi zituen eta orduan bera ere hiltzea erabaki zuten eta autobusetik irten arren, fusilatzerara eraman zuten.

Hala ere, Ugarteren atxiloketaren gainean, beste bertzio batzuk ere entzun ditugu ahozko testigantzetan. Adibidez, Angel Lamata Villahozen arabera, ez zen Guillermo Ugarte izan militarrei kotxe hura ez erretzeko eskatu ziena, euren amona (fusilatua izan zena baita) Victoria Huergo Tofe baizik. Guillermo Ugarte Victoria Huergoren atxiloketa saihesten saiatu zela atxilotu zuten Angel Lamatak entzundako bertzioaren arabera, baina ez zen izan bera lehen momentuan kotxearen erreketa ohartarazi ziena⁴²⁴. Beste bertzio batzuk ere horretan kokatzen dute Guillermo Ugarte, beste pertsona batzuen atxiloketa bat saihesten saiatzen. Adibidez, Jose Maria San Martin Osinalderen arabera, bere arbaso izandako Saturnino San Martin Gibaja eta honen lagun Marcelo Bergara Lozares (biak fusilatuak izan ziren) ikusi zituen atxilotuak izango zirela eta militarrei gazte hauek ez atxilotzea eskatzerakoan atxilotu zuten Ugarte⁴²⁵. (Victoria Huergo, Marcelo Bergara eta Saturnino San Martinen kasuetara geroago itzuliko gara. Orain esan dezagun Jose Maria San Martinen arabera, Saturnino San Martin eta Marcelo Bergara zuzenean eraman zituztela hilerrira, beraz ez zirela geltokitik pasa, Ugarte geltokira eraman zutelarik⁴²⁶). Xanti Lasa Aranburuk etxean entzundako bertzioaren arabera ere, “Zesareo Ugarte medikuaren aitak kalean pertsona bat atxilotzen ikusi zuen” eta haren alde ateratzearen atxilotu zuten. Xanti Lasaren bertzioan Ugartek defendatu nahi zuen gazte hura ez da identifikatzen⁴²⁷. Azkenik, Amaia Gamarraren arabera, kotxearen edo kamioiaren erreketa saihesten saiatu zena, Victor Uribe-Etxebarria izan zen, ez Guillermo Ugarte⁴²⁸. Bestetik, 1936eko abuztuaren 13an agertu zen *El Liberal* egunkariaren kronikaren arabera, “gizon karlista batek, medikuaren aitak” (zeina Guillermo Ugarte besterik ezin zitelkeen izan), kotxe bat erretzen ikusi zuela eta hura erretzea arriskutsua zela esan zuela eta “bertan hil zutela”. Beraz, honekiko, bertzio nagusiarekin bat egiten du *El Liberalek*, baina ez du esaten

⁴²⁴ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoz egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-VII-17an.

⁴²⁵ Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁴²⁶ Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁴²⁷ Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁴²⁸ Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-1. Amaia Gamarrak Victor Uribe-Etxebarria “eskuindar” bezala identifikatzen du, baina hauxe jeltzalea zen. Agian hemen bi oroitzapenen (Uribe-Etxebarriari buruzkoa eta Ugarteri buruzkoa) nahastea aurkitzen dia.

3. kapitulua

Ugarte kotxean bertan sartu zutenik, ezta soldadu bat laguntzen saiatu izan zenik. Kasu hauek, beste testuinguru batean aipatzen ditu *El Liberalek*⁴²⁹.

Badago beste testigantza bat beste pertsona bat aipatzen duena. Anselmo Ruizen arabera “Farro” ezizena zuen pertsona (Juan Gonzalez), “hamabi seme-alaba” zituen pertsona bat zegoen Ugarterekin. Testigantza hau, ikusiko dugun bezala oso garrantzizkoa zaigu, izan ere “Farro” izeneko pertsona honen heriotza ez dago erregistratua. Garcia Urcelayetak ez du hau aipatzen (Garcia Urcelayeta bai “Farro” zelakoarekin eta bai Guillermo Ugarterekin egon zen preso Geltokian eta Matias-Enea etxean)⁴³⁰.

Ikusten dugun bezala, Ugarteren kasuak Igartuarenarekin eta Otaegirenarekin alde batetik, eta bestetik Cresporenarekin eta Izaguirrenarekin antzekotasun handia izan zuen: hau da, “elkartasun kate” batek eraman zituen heriotzara. Lehen kasuan Otaegik zauritua zuen Igartua lagundu nahi izan zuen, azkenean biak zigortuak izan zirelarik; bigarrenean, Crespo bere alabaz kezkatuta atera zen kalera, bera atxilotu zutelarik, eta Andres Izaguirre honi laguntzen saiatzerakoan, biak atxilotuak izan ziren. Ugarteren kasuan, berak kotxe bat zegoen tokian ez erretzeko eskatu zien militarrei (tinta-fabrikaren eta etxeen erreketeta eta auzokideentzako galera fisiko zein materialak saihestu asmoz), bera atxilotua izan zelarik. Orduan, goian aipatu den bezala, soldadu bat bere defentsan atera zen, eta bera salbatze saiatze horrek, soldadu haren atxiloteta eta heriotza ere ekarri zituen.

Baina oraindik baditugu hemen beste bi elementu, kotxea eta soldadua. Nor zen Ugarteren alde atera zen soldadua? Zergatik saiatu ziren soldadu frankistak hain arriskutsua zen toki hartan kotxe edo kamioi hura erretzen? Kotxe honen kasua aipatuz, hainbat bertsio aipatu ditugu. Alde batetik, Joxe Apalategi Etxeberriaren arabera, ibilgailu hori, Ormaiztegi eta Gabiriarako bidaiak egiten zituen autobusa izan zen⁴³¹. Jesus Lopez Gallegoren arabera ordea, “kotxe txato bat zen. Nik hasieran, kotxe hura fabrikarena zela uste nuen, fabrikak izan baitzuen kotxe txato bat (...) gurpilean tiro egin eta orduan erretzen saiatu ziren. Baina gero entzun nuen baita Eibartik milizianoak

⁴²⁹ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁴³⁰ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25.

⁴³¹ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

ekartzeko erabili izan zutela kotxe hura”⁴³². Anselmo Ruizek ere berdina diosku: “hor Beasain defendatu zuten indarrak etorri ziren”, eta gainera autobus bat izan zela zehazten digu⁴³³. Argi zegoen kotxe edo ibilgailu horren kontrako berezko gogo handia zutela okupatzaileek. Bestetik ezin dugu ahaztu Beasainen defendatzaileek, Eibartik Beñaranen zuzendaritzapean etorri ziren milizianoek bereziki, kotxe bat parapetatu zutela tanke bezala erabiltzeko. Kotxe hau Hunolt fabrikaren erre behar zutena izandakoa ere ezin dugu deskartatu. Gerta zitekeen baita Joxe Apalategik aipatutako Ormaiztegirako eta Gabiriarako autobusa izana Beñaranek eta milizianoek tanke bezala “berrerabilitako” ibilgailua izatea, edota Jesus Lopezek aipatzen duen “kotxe txatoa” izatea. Batean edo bestean, Hunolt fabrikaren inguruetan bezala toki arriskutsuan erretzen saiatu izanak, hura erretzeko gogo bizia eta amorrua erakusten du.

Soldadua inguruan, ia ziurtzat jo dezakegu Guillermo Ugarte laguntzen saiatu zen soldadua Jaime Agurruza izan zela. Jaime Agurruza Martinez, abertzalea zen, nahiz eta bere familiaren parte bat, gurasoak barne, karlista izan. Jaime Agurruzaren familiaren beste parte bat, bere osaba Serafin Beola eta abar, abertzaleak ziren, hala esaten digu Serafin Beolaren biloba Iñako Beolak, “Arturo Kanpionen miresleak ziren”, eta antza denez, Jaime Agurruzak kontaktu handia zuen familiaren parte honekin⁴³⁴. Uztailaren 18an erreketek Iruñean bildu zirenean, Iñako Beolaren arabera, Serafin Beolak ezkutatu egin behar izan zuen, eta Jaime Agurruzarekin kontaktua galdu izan zuen. Hala ere, ematen zuenez, Jaime Agurruzak, Estatu-kolpea gertatu eta gutxira, Serafin Beolarekin egoteko aukera izan zuen, eta hauxe esan omen zion: “alistatu egin naute”. Bere familia karlistako norbaitek alistatu egin omen zuen, bere gogoaren kontra; eta Iñako Beolaren testigantza arabera, Serafin Beolak Jaime Agurruzari ihes egiteko aholkua eman zion⁴³⁵. Hala ere, Jaime Agurruzak ez zuen ihes egin, eta Iruñetik Altsasura eta Altsasutik Beasainera iritsi zen, non tropa frankistek hil egin zuten. Hemendik aurrera, gauzak nahasiago agertzen zaizkigu.

Egia da Guillermo Ugarte atxilotua laguntzen saiatu zela altxatuekin etorritako pertsona bat (soldadu bat), hau ahozko hainbat bertsiok diote. Litekeena da Jaime Agurruza izatea laguntza eskaintzen saiatu zen soldadu hori: bera izan baitzen kolpistek

⁴³² Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁴³³ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25.

⁴³⁴ Iñako Beolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁴³⁵ Iñako Beolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

3. kapitulua

euren tropa barnean hildako bakarra eta guk ez dugu ezagutzen tropa kolpistako beste kideren batek fusilatu bati halako laguntzarik eman zionik. Baina oro bat ziurtatzerik ez dugu izan, izan ere, Iñako Beola berak esaten digunez, “agian Jaime Agurruza izan zen Ugarte lagundu nahi zuena”, baina baita ere “agian berak momentua aprobetxatu nahi izan zuen ihes egiteko”. Baina Beolaren arabera, “ihes egin nahi bazuen, logikoena zibilez jantztea izango zen”; eta ez militarrez (beste lekukoek zioten Ugarte laguntzen saiatu zena “soldadua” zela)⁴³⁶. Beste alde batetik, Iñako Beolak, Juan Jose Garcia Urcelayetaren kontakizunean aipatzen diren “bi militarren” aukera ematen digu, agian militar hauek bat Jaime Agurruza izan zitekeelakoan. Hori hala balitz, Beasainen hildakoak 34 izango ziratekeen, eta ez 35.

Gure ustez, aukera hau ez da posibleena hainbat arrazoiengatik: lehenik, Garcia Urcelayetak bere kontakizunean militarren ahotik entzundako testigantza araberak, bi militarrek Gasteiztik etorriak izan zirela indar errepublikanoekin bat egiteko (Gasteiz eta Araban kolpeak arrakasta izan zuen), ez Iruñetik; bigarrenik, Garcia Urcelayeta arratsaldeko seiretan Geltokira atxilotua iritsi zenean bi militarrek han zeuden jada, eta Ugarte beranduago iritsi zen; eta hirugarrenik, Urcelayetaren arabera, militar batek graduazioa zuen (beraz ezin zitekeen izan gogoz kontra alistatutako Agurruza izan), eta bestea “urdinez jantzita” zihoan (hori ez da erreketen uniforme, marroixka baizik). Aukera gehiago zeudekeen Agurruza Garcia Urcelayetak Geltokira iristerakoan ikusitako “soldadu hila” izateko (Garcia Urcelayetak soldadu honen janzkera ez du deskribatzen). Hortarako posibilitate bat onartzen dut, baina gehiago egiten dut soldadu hori eta Jaime Agurruza bi pertsona ezberdin izan zirela pentsatze aldera. Izan ere, berriz kronologiarekin egiten dugu topo: soldadu hori jada hila zegoen Garcia Urcelayeta geltokira iritsi orduko, eta Ugarte bere ostean iritsi zen. Baliteke soldadua “traizioa” zela eta zuzenean hiltzea, eta Ugarte denbora batez han izatea, Garcia Urcelayeta izan zuten moduan (azken finean, ohartarazpen bat, eta atxilotu bati ihes egitea laguntzea, pentsamendu militarrentzat ez dira pisu bereko delituak). Baina kontutan hartuz “laguna laguntzeagatik” militarrei aurre egin zieten pertsonak, bai Juan Andres Otaegi zein Andres Izaguirre segituan atxilotu eta geltokira eraman zituztela, ez dut uste Ugarterekin ezberdin izan zenik. Kontutan izan behar dugu gainera, Ugarte militarrek herri erdian erre nahi zuten kotxe batengatik ohartaraztearren atxilotu zutela; beraz, Ugarte atxilotzeko momentuan, altxatuek jada herriaren kontrol militar osoa

⁴³⁶ Iñako Beolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

ziurtatuta zuten. Hau da, ezin izan zen eguerdian edo arratsaldeko lehen orduetan gertatu izan (oraindik tiroak entzuten zirelarik, edota kontrola guztiz ziurtatuta ez zegoelarik), baizik eta arratsaldeak ondo sartua izan behar zuen gertakizun hori gertatzean. Beraz, Ugarte geltokira seietatik aurrera (Garcia Urcelayetaren ostean) iritsi baldin bazen, litekeena da, atxilotu eta segituan eramatea; baina hildako soldadua jada han zegoen. Beste alde batetik Garcia Urcelayetak ez du aipatzen Ugartek soldadu hura ezagutu zuenik “bera laguntzen saiatu zen soldadu gisa”⁴³⁷. Beraz, modu borobilean esaterik ez badago ere, gure ustez, Agurruza ez zen geltokian egon zen hiru soldadu identifikatu gabeko bat bera ere ez.

Bertara iritsitako beste pertsona bat Victor Uribe-Etxeberria izan zen. Victor Uribe-Etxeberria, seirak aldera izan zen atxilotua, eta Matias Alvarez eta Juan Jose Garcia Urcelayetarekin batera iritsi zen. Victor Uribe-Etxeberria eta Matias Alvarez CAF enpresako segurtasun-langileak izan ziren, eta Victor Uribe-Etxeberria bere etxea erretzeaz kexatzeagatik atxilotu zuten⁴³⁸. Parisen argitaratzen zen *Euzko Deya* egunkariak ere bertsio honekin bat egiten du: Uribe-Etxebarria bere etxea erretzen ikusita kexatzerakoan atxilotu egin zutela⁴³⁹.

Victor Uribe-Etxeberriaren inguruan, bertsio posibleena eta aipatuena horixe bada ere, beste bertsio batzuk ere azaldu izan dira. Aipatu izan dugu jada Amaia Gamarraren arabera, Victor Uribe-Etxeberria Hunolt fabrikaren ondoan erretzen ari zen kotxeaz ohartarazteagatik atxilotu zutela⁴⁴⁰. Bestalde Jose Maria Alonso Lamataren arabera, Victor Uribe-Etxeberria Victoria Huergo Tofe atxilotzen zutela ikusita honen defentsan ateratzearen atxilotu zuten⁴⁴¹. Bertsio hau bere etxean entzun omen zuen Jose Maria Alonsok (Victoria Huergo bere amona izan zen). Hala ere, kontutan izan behar dugu Garcia Urcelayetak, Uribe-Etxeberriarekin batera atxilotua egon zenak, ez zuela berarekin batera, ez geltokian ez Matias-Enean emakumerik ikusi atxilotua (eta gainera, atxiloaldian Uribe-Etxeberriak etxeak erretzeagatik kexatzeagatik atxilotu zutela komentatu omen zuen)⁴⁴². *La Voz* egunkariaren arabera, Victor Uribe-Etxebarria

⁴³⁷ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 62-63. or.

⁴³⁸ Ibid., 63. eta 71. or.

⁴³⁹ *Euzko Deya*; 1937-III-21.

⁴⁴⁰ Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-1.

⁴⁴¹ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoz egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-VII-17an.

⁴⁴² GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 63. eta 71. or.

3. kapitulua

hilerrira eramana eta han fusilatua izan zen, etxeak erre egin zirela eta kexatzeagatik⁴⁴³. Honekin bat egiten du Veremundo Mendizabal apaizak, Jose Migel Barandiarani kontatu zion testigantza arabera, “zer pena etxe horiek erretzea!”. Mendizabalen arabera, “margarita” bat (gazte karlista bat), Argiñano abizenekoa gerturatu zen “gizon honek ez du ezer egin!” esaten, baina militarrek ez zioten jaramonik egin⁴⁴⁴. Mendizabalek kontatzen digun bertsio hau ez dakigu egia den ala ez; hala ere ikusten dugun bezala, Beasaingo fusilatzei buruzko testigantzetan, fusilatzaera doazen pertsona bat laguntzera gerturatzen doan bigarren baten irudi hori, lekuko askoren ahotan edo lumetan agertzen da.

Aipatu dugun bezala, bai Otaegi-Igartua kasuan, zein Crespo-Izaguirre kasuan, zein Ugarte-Agurruza kasuan “elkartasun katearen” eskema eman zen, hiru kasuetan. Kasu hauetan, heriotza aurkitu zutenek, “eskema selektibo” batean sartu zirelako baino (adibidez, iraganean zerbait egin zutelako, edo euren aktibismo politikoa ezaguna zelako) jada, Beasainera sartu zirenek zuten “furia” baten biktima izan ziren (kontutan izan behar dugu hiru kasuetan ez zituztela armada kolpistako kideak iraindu edo hauen kontra ezer egin, are gehiago, nahiko gauza zentzudunak egin zituzten, eta are gehiago, Andres Izaguire eta Guillermo Ugarte eskuindarrak ziren). Hauei lotu behar zaie Victor Uribe-Etxeberriaren kasua, zeina ez zuten besteak bezala momentuan beste pertsona bat laguntzearren atxilotu, baina bai kexa “zentzudun” bat egitearren: herritar askoren etxeak erre egin zirela (eta berarekin batera, bere lankide Matias Alvarez atxilotu zuten; geroago Alvarez fusilamendutik libratu zen). Beraz, heriotza hauetan, praktikoki armadaren psikologia jo dezakegu arduraduntzat, berez, Beasainera sartu aurretik (eta lehen esan bezala, Beasaingo elementu eskuindarren eta hauen motibazioen eragin handirik gabe) bere egindako psikologia bat (adibidez, “Gipuzkoa probintzia hostila beldurtzea” izan zitekeen arrazoietakoa bat) izan zen halako heriotzen eragilea. Guri euren testigantza eman diguten lekukoek ere hori konfirmatzen digute, adibidez, Maria Karmen Ibarbia eta Felipe Ibarbia lehengusu-lehengusinen arabera “fusilatutako gehienak kalean harrapatutakoak izan ziren, errugabeak”⁴⁴⁵. Patxi Lasa Imazek ere antzeko zerbait esaten du: “Harrapatzen zuten oro eramaten zuten frankistek”⁴⁴⁶. Jesus Lopez Gallegoren arabera, “apaizekin batera sartu ziren, harroxko, matoiak bezala.

⁴⁴³ *La Voz*, 1937-V-16.

⁴⁴⁴ MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 120. or.

⁴⁴⁵ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁴⁴⁶ Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

Apaizek *Viva Cristo Rey, me cago en la hostia!* oihukatzen zuten⁴⁴⁷. Eleuterio Aiestak ere kontatzen digu: “Erreketeak guztiz fanatizatuta sartu ziren herrian, drogatuta zeuden edo batek daki. Erakutsi zuten portaera ez zen batere normala izan⁴⁴⁸. Eleuterio Aiestaren kasuan, bere ama, Frantziska Kristobalena Markiz, ere atxilotzekotan egon ziren militarrek, koltxoi bat kendu ziotela eta koltxoiaren errexisapenez kexatzera joan zenean, errequete bik, Mendigorriakoak hauek, geratu eta “eraman ezazu koltxoa eta ez zaitugu hemendik berriz ikusi ere egin nahi!” esan zioten. Aiestaren arabera, bere ama Frantziska Kristobalena kontatzen zuen bera izatez nafarra zelako ez zutela hil errequeteek⁴⁴⁹. Honekin bat egiten du Bilboko *El Liberal* egunkariak, bere 1936.eko abuztuaren 13ko kronikan: “Erreketeak, eta eurekin zetozen zainbat soldadu, topatzen zuten edozein gizon atxilotzera eta hiltzera emanak izan ziren, euren kausaren aldekoak ziren edo ez galdetu gabe. Euren aldeko batzuk ere hil egin zituzten⁴⁵⁰. Egunkari hau, zeinen iturria “Beasaindik ihes egindako senar-emazte batzuk” izan zen, herri testigantzekin bat dator bai okupatzaileen jarrera azaltzerakoan, eta bai hiltzaileak batez ere errequeteak zirela esaterakoan.

Arrazoirik gabe atxilotu eta hildako beste bi Pedro Martin Arrizabalaga Ariztimuño eta Pedro Larrea Ormazabal burdinbideetako langile zegamarrak izan ziren. Hauek, eta Pedro Larrearen anai Lino Larrea burdinbideetako langileen “Karola” etxeetan atxilotu zituzten, oraindik ezagutzen ez ditugun arrazoiak tarteko. Larrearen alaba Rosario Larreak “nire aita ez zegoen inolako alderditan sartuta (...) agian EAJrekiko hurbilekoa izango zen, baina badakit ez zela inongo kide⁴⁵¹. Hala ere, Beasaingo alkate ohi Jose Vicente Iraolak Jose Migel Barandiarani kontatu zionaren arabera, “bere nagusiek aginduta, burdinbideetan goardia egiten egotearren hil zuten (...) horregatik bakarrik deliturik egin gabe⁴⁵² (Iraola 1930-1931 aroan izan zen alkate, Errepublikan aldarrikatu baino pixka bat lehenago, beraz ez zen ezkerreko inongo erradikala). Iraolaren esaldi hau beste testigantza batzuek baieztatzen dute, adibidez, atxilotu eta aste batzuk geroago preso egindako Gregorio Begue, RENFEko makinista

⁴⁴⁷ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁴⁴⁸ Eleuterio Aiesta Kristobalena egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11. Felipe Ibarbia eta Maria Karmen Ibarbia lehengusu-lehengusinen arabera “oso harroxko sartu ziren errequeteak herrira”. Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁴⁴⁹ Eleuterio Aiesta Kristobalena egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

⁴⁵⁰ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁴⁵¹ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasain, 2012-IV-14.

⁴⁵² IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 352. or.

3. kapitulua

zena, fusil batekin armatua ibili izan zen⁴⁵³. Hiru hauek herriko kartzelara eraman zituzten eta handik Matias-Enea etxera (ez dirudi geltokitik pasa zirenik, Garcia Urcelayetak ez baitzituen han ikusi)⁴⁵⁴.

Militarren “amorru suntsitzaile” honen eskemari lotutako beste hilketa bat Victoria Huergo Toferena zatekeen. Garaiko prentsaren arabera (Madrilen editatu zen *La Voz* egunkariaren arabera), “La mata” (sic)⁴⁵⁵ ezizeneko andre bat (Victoria Huergo) kalean izan zen atxilotua, bere “eraildako semeengatik” bere arropak puskatzen zebilela-eta militarrek intzirika ikusi zutelako. Behin hauek galdetuta “zure semeak zer ziren?” Huergoren erantzuna “komunistak, ni bezalaxe” izan zen. Orduan Huergo hantxe bertan fusilatu omen zuten⁴⁵⁶. *La Voz* egunkariaren arabera, falangistak izan ziren Huergo hil zutenak (baliteke, baina ez da gauzarik posibleena, Beasaina militarrek eta erreketek sartu bait ziren nagusiki, eta boluntario falangistak oso gutxi baitziren). Beste alde batetik, Parisen argitaratzen zen *Euzko Deya* egunkariaren arabera, Huergo itaundu zutenak “erreketek” ziren, baina bestela, *La Voz* egunkarian agertzen den bertsioa errepikatu egiten du egunkari honek⁴⁵⁷. *Euzko Deyaren* arabera, Huergo Toferen seme gazte bat Bilbora egotzi zuten gerora frankistek⁴⁵⁸. Hala ere, esan bezala, familiaren arabera, bertsio hau ez da zuzena. Amaia Alonso Garatek kontatu izan digun moduan “bertsio hori niri ez zait gustatu (...) eta familiaren gainera errua botatzea ondorio izan du”⁴⁵⁹. Elkarrizketatu honek aipatzen duenez, “kalean zegoela, arropak puskatzen eta seme hilengatik garrasi egiten... ez da sinesgarria. Agian Victoria Huergok gaixotasunen bat zuen, baina ez dakigu zein puntutarainokoa, eta ez horrela ibiltzeko modukoa. Gainera bi semeak ez zizkieten hil; gudan borrokatu zuten”⁴⁶⁰. Huergoren heriotzaren inguruan, hiru bertsio ezberdin aurkeztu dizkigute bere familiako hiru kide ezberdinek. Hala ere, eurek diote bertsiook ez direla zuzenean bizitakoaren ondorio, baizik eta eurek etxean edo herrian entzundakora mugatzen direla.

⁴⁵³ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁴⁵⁴ IRIGORAS, Angel: op. cit., 100-101. or.

⁴⁵⁵ Lamata Victoria Huergoren senarraren abizena zen.

⁴⁵⁶ *La Voz*, 1937-V-16.

⁴⁵⁷ *Euzko Deya*; 1937-III-21.

⁴⁵⁸ *Euzko Deya*; 1937-III-21.

⁴⁵⁹ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamateri, Sara Alonso Lamateri eta Angel Lamata Villahozki egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

⁴⁶⁰ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamateri, Sara Alonso Lamateri eta Angel Lamata Villahozki egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

Angel Lamata Villahozek berak esaten du “nire aita Francisco Lamatak (Victoria Huergoren semeak) kartzelatik ateratzerakoan ez zuen hitzik egin nahi gertatutakoaz”. Lamata Villahozek entzundako bertsioaren arabera “altxatuak tinta fabrikaren ondoan kotxe bat erretzen zebiltzan, eta orduan gure amonak esan zien hor ezin zutela erre, etxe askok sua hartzeko arriskua izango baitzuten. Orduan bera preso hartu zuten, eta Guillermo Ugartek esan zien ea nora eramaten zuten emakume hura eta azkenean biak hartu zituzten preso”⁴⁶¹. Guillermo Ugarteren atxiloketa narratzerakoan esan dugu herriaren gehiengoaren arabera, erretzen zebiltzan autoarengatik errieta egin ziena Guillermo Ugarte izan zela; beraz, ez dugu uste bertsio hau zuzena denik. Angel Lamatak iradokitzen duenez “agian Victoria Huergo Tofe Matias-Enea etxera eraman zuten besteekin batera”⁴⁶². Hala ere, Juan Jose Garcia Urcelayetak, gau osoan etxe horretan egon zenak, ez digu esaten Victoria Huergo han ikusi zuenik⁴⁶³. Jose Maria Alonso Lamatak entzundako bertsioaren arabera, “kalean harrapatu zuten, bere ahizparentzako kipula batzuk eramatera zihoala. Victor Uribe-Etxebarriak nola atxilotzen zuten ikusi zuen eta “nora daramazue hamaika umeren ama den emakume hori?” itaundu zien militarrei. Orduan, Victor Uribe-Etxebarria bera ere atxilotu zuten”⁴⁶⁴. Bertsio honek ere ez dugu uste fidagarritasun handia duenik, izan ere, Garcia Urcelayetak berak aipatzen du bai geltokian eta bai Matias-Enea etxean egon zela Uribe-Etxebarriarekin batera, honek bere atxiloketaren inguruabarrak kontatu zizkiolarik; hau da, etxe batzuk erretzen ikustea. Garcia Urcelayetak ez du aipatzen Uribe-Etxebarriak Victoria Huergoz ezer ere esan zionik⁴⁶⁵. Azkenik, Amaia Alonso Garateren bertsioa dugu. Azken honek entzun eta transmititutakoari jaramon eginez “ziur asko “kera-deia” edo “etxeratze-agindua” errespetatu ez zuelako, eta ordu batetik aurrera kalean ikusi zutelako atxilotu eta hil zuten”. Amaia Alonsoren arabera “ortura joan zitzaizkion atxilotzera”⁴⁶⁶.

Gure datuen arabera, azken bertsio hau da fidagarriena; alde batetik beste bi bertsioetan agertzen diren beste protagonistak beste toki batzuetan kokatzeko adina

⁴⁶¹ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoziki egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

⁴⁶² Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoziki egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

⁴⁶³ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit.

⁴⁶⁴ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoziki egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

⁴⁶⁵ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit..

⁴⁶⁶ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoziki egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

3. kapitulua

xehetasun egon badagoelako; eta beste alde batetik, Sara Alonso Lamatak esan digun bezala “nik etxean (eta ez kalean) beti entzun izan dut ortuan aurkitu zutela” (beraz oso zaila zatekeen beste pertsona batek momentu horretan Victoria Huergo lagundu izana)⁴⁶⁷. Beste alde batetik, gutxi-gora-behera badakigu Beasaingo zein zonaldetan hil eta lurperatu zituzten Victor Uribe-Etxebarria eta Guillermo Ugarte. Victoria Huergo hil zuteneko eta ehortzi zuteneko tokiaz ez dugu ziurtasunik (beste biek lagundua izango balitz, beste biengandik hurbil egongo zatekeen)⁴⁶⁸. Pentsatzekoa da ortuan atxilotu zutela eta han hil zutela (nahiz eta “kera-deia” kalean puskatu), kontutan izanda nolako amorru biziz sartu ziren altxatuak⁴⁶⁹. *El Liberal* egunkariaren kronikak, ordea, “hilerria eraman eta han hil zuten” esaten digu (posiblea dena baita ere)⁴⁷⁰. Bertsio honekin bat dator Ordizian bizi den Huergo Toferen biloba bat, Victoria Martin Lamata: “amona, Beasaingo hilerriko horman fusilatu zuten”⁴⁷¹.

Hala ere, badago beste bertsio bat, familiaz kanpo entzundakoa: Maria Pilar Lozaresen arabera (Marcelo Bergara Lozares hildakoaren familiakoa), hau eta bere lagun Saturnino San Martin Iturriotz kalean atxilotu zituzten, *Norte* tabernaren inguruan (*Norte* taberna zenaren gainean sozialisten egoitza zegoela gogoratu behar dugu), “frankistengandik iheska zihoazela, emakume batekin”. Kontuan izanez Bergara eta San Martin fusilatuak izan zirela, pentsatzekoa da emakume hori ere fusilatu egin zutela, oso posiblea baita. Beraz, pentsatu daiteke emakume hori Victoria Huergo zela⁴⁷². Baina bestetik, *El Liberal* egunkariak Huergo Toferen ingurukoak (“gaixo zegoen emakume bat hilerrian hil zuten”) eta Herriko Etxean topatutako *beste* emakume baten kasua bereizten digu⁴⁷³ (beraz, hemen esandakoa egia bada, bigarren emakume bat fusilatuko zuketean frankistek). Amaia Alonsok laburtu digun moduan “garbi dagoen gauza bakarra da hamaika seme-alaben ama zen emakume bat hil zutela. Hortik aurrera hasten dira

⁴⁶⁷ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoziki egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an. Gainera, Anselmo Ruizek (zeinak gertakariak jazo zirenean 13 urte zituen, beraz nahiko nagusia zen gertatutakoaz irudi zehatz bat izateko) ere badio “Lamatatarren ama orduan atxilotu zuten”. Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizeki egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

⁴⁶⁸ Amaia Alonso Garatek esan zigun moduan “ez dakigu non lurperatu zuten, baina horren inguruan leienda beltz asko dago”. Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoziki egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

⁴⁶⁹ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoziki egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

⁴⁷⁰ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁴⁷¹ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...*, 206. or.

⁴⁷² Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁴⁷³ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

bertsioak⁴⁷⁴. Victoria Huergo Errioxako Gravalos herrian jaiotakoa zen eta hiltzeko momentuan 54 urte zituen. Beasainen “Elizako Galtzadako” (gaur egun, Martina Maiz kaleko) 5. zenbakian bizi zen⁴⁷⁵. Egun horretan, guk frogatu dugunaren arabera, altxatuek hil zuten emakume bakarra izan zen.

Antzeko kasu gertatu zen Jose Ignacio Insausti Berasategi olaberriarraren hilketan. Pertsona hau ere “kera-deia” ez errespetatzeagatik hil zuten. Insaustiren heriotzaren buruzko testigantza bakarrak Veremundo Mendizabal zumarragar apaizarena (orduan Lazkaon zegoen, beneditarren artean) eta *El Liberal* egunkariaren kronikarenak dira; kasu honetan bigarren honek lehenak esaten duena baieztatzen digularik. Mendizabalek “Ignacio, Olaberriakoa, CAFeko langilea” aipatzen du, eta gure ustez hori Ignacio Insausti besterik ezin daiteke izan. Veremundo Mendizabalen arabera, Ignacio “gutziz gorra” zen (hau, Insausti Berasategiren adinarekin, 72 urte, bat dator). Mendizabalek dionaren arabera, Insaustik ez zuen entzun kera-deiak etxeetan zegoen jendeak leihoetan edo balkoietan agertzea debekatuta zegoela, eta agertu orduko kaletik tiro egin eta hil egin zuten. Hil ondoren, altxatuek bere etxea zakuratu egin omen zuten⁴⁷⁶. *El Liberal* egunkariaren arabera “Bi egunez” egon zen Jose Ignacio Insaustiren hilotza ehortzi gabe⁴⁷⁷. Insausti Berasategiren seme Jose Ignacio Insausti Baztarrika ere tropa altxatuek eraila izan zen. Veremundo Mendizabalek kontatzen duena, hots, Insaustiren etxea zakuratua izan zela bera hil ondoren, posible ikusten dugu matxinoek semea, Insausti Baztarrika han topatu izana eta bertan hil izana (*El Liberalek* dio, Ignacio Insausti “agurea” “etxean bakarrik” zegoela⁴⁷⁸, orduan posible da baita Insausti Baztarrika bere aitaren heriotzaz enteratutakoan kexatzera joan zenean hila izatea). Insaustitarren etxea Pablo Iglesias kalearen (gaur egungo Jose Migel Iturriotz kalearen) 19. zenbakian zegoen⁴⁷⁹.

Kasu batzuetan, halako “amorrua” nolabaiteko “kausa arrazoiarekin” lotu dezakegu; hau da, “amorruek” batek, edo jada “garbitzeko gogoak” militarrek eurak ikusi zuten egitate bat “arrazoi” bihurtu arte handizkatu izana, gero pertsona hori garbitzera eramango zituen amorruek hori justifikatzeko. Autojustifikazio honek, Evaristo

⁴⁷⁴ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoz egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

⁴⁷⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. Beasaingo 1930.eko errolda.

⁴⁷⁶ MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 120. or.

⁴⁷⁷ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁴⁷⁸ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁴⁷⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. Beasaingo erroldaren 1934.eko zuzenketa.

3. kapitulua

Mendiaren erailketaren kasuan funtzionatu omen zuen. Evaristo Mendia, bertsiio denen arabera, bere baserriaren inguruan, behia erditzera zihoala eta, kandela batekin ibili zen behi hura erditzen laguntzeko⁴⁸⁰, eta militarrek seinaleak egiten zebiltzala uste izan zuten. Evaristo Mendia karlista zen⁴⁸¹, nahiz eta oso eskuzabala (“edozeini laguntzeko prest zegoen horietakoa” bere biloba Mila Mendiaren arabera⁴⁸²) eta oso familia ezagun batetako kidea zen, Loinazko San Martinen prozesioan Udalaren bandera eramateko eta dantzatzeko arduraduna bera baitzen⁴⁸³; eta Barrendain baserrian bizi zen, gaur egun izen bera daraman plazaren ondoan zegoen baserrian (geltokiaren parean)⁴⁸⁴. Bere biloba Mila Mendiaren arabera, egun hartan familia honetan kide ia denek ihes egin zuten baserrietik eta Erauskin auzora joan ziren. Geratu ziren bakarrak Evaristo Mendia eta bere seme Florencio Mendia izan ziren, hain zuzen ere behiari erditzen laguntzeko⁴⁸⁵. Kandela batekin ibili zirela eta, orduan ondorioztatu beharra dugu gaua zela atxilotu zituzten momentuan, bera, agian Beasaingo azkenengoetarikoak izan ziren atxilotuak izaten. Mila Mendiaren testigantza arabera, Matias-Enea etxera eraman zituzten, eta han “aitonari, Evaristo Mendiari” galdeketa txiki bat egin zioten; baina jada kondenatua zegoen⁴⁸⁶.

Atxilotu ostean, Evaristo Mendia kontsolatzen saiatu zen Francisco Elzo Urrestarazu (1930eko hamarkadan Realeko atezain izan zena) atxilotzeko mehatxua ere egin zuten militarrek⁴⁸⁷. Esan bezala, Matias-Eneara eraman zuten, izan ere, Juan Jose Garcia Urcelayetaren testigantza arabera, Evaristo Mendia Matias-Enea etxean ikusi zuen, baina ez geltokian (honek esan nahi du gauez atxilotu zituztela, ikusiko dugun bezala, geltokian atxilotuak izan zirenak gauez izan baitziren Matias-Enea etxera

⁴⁸⁰ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2. Iturri gehienek arabera, Evaristo Mendiak momentu horretan zeramatzanak “argiak” izan ziren. Hala diote, adibidez, *Eusko Deya* egunkariak (*Eusko Deya*, 1937-III-21) eta *La Voz* egunkariak (1937-V-16).

⁴⁸¹ Jose Antonio Egidok dio, Evaristo Mendia “karlismoaren eta EAJren artean” zebilela. EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 93-94. or. Hala ere, beste hainbat iturrik karlista gisa jotzen dute Evaristo Mendia, tartean *La Voz*en (*La Voz*, 1937-V-16) eta *Euzko Deyaren* kronikek (*Euzko Deya*, 1937-III-21).

⁴⁸² Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2. Mila Mendiak zalantzan jartzen du bere aitona Evaristo Mendia karlista zenik “bai, hori esaten dute, baina ez dakit benetan hala zenik”. Bestalde, Felipe Ibarbiak komentatu izan digu “batere errurik gabeko jendea hil zuten, Mendia adibidez”. Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁴⁸³ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia*. (*Beasaingo paperak* 4. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1995, 68-70. eta 18-20. or.

⁴⁸⁴ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁴⁸⁵ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁴⁸⁶ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁴⁸⁷ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 93-94. or. Francisco Elzo Urrestarazuren portaera nahiko ona izan omen zen urte batzuk pasatuta ere, hala esaten digu Mila Mendiak: “Francisco Elzo oso ondo portatu zen gure aitarekin”. Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

eramanak)⁴⁸⁸. Mila Mendiak kontatu izan digunez (ziur asko Florencio Mendiak berari kontatuta) “kondenatu zuten pertsona gehienak ezezagunak izan ziren, baina tartean bazegoen bat, Zegamakoa, aldeko testigantza eman zezakeena, baina eman ez zuena. Sekula ez dugu jakin nor izan zen”⁴⁸⁹. *La Voz*eko kronikak, Evaristo Mendia “fusil-kolpeka” hilerrira eraman zutela esan zuen, eta bere seme Florencio Mendiari hobia aitzurrez irekitzea agindu ziotela⁴⁹⁰; baina, ikusi dugun moduan, testigantzek Matias-Enean kokatzen dute Evaristo Mendia (hala ere, “Matias-Enea” etxera bada ere, sinesgarria da kolpeka eraman izan zituztela, Juan Jose Garcia Urcelayetaren arabera, berak topatu zuenean, Evaristo Mendiak izugarritzko kolpeak jasan izan baitzituen, hainbestearainokoak, ezen “fusilatu zezaten eskatzen zuen etengabe”⁴⁹¹). Horrez gain, soldadu altxatuek Mendiatarren baserria zakuratu zuten, Mila Mendiaren arabera, “Errepublikaren koloreak zituzten katilu batzuk” ere puskatu egin zituzten⁴⁹².

Beste alde batetik, bete pertsona fusilatu bi Marcelo Bergara Lozares eta Saturnino San Martin Gibaja izan ziren. Bi hauen kasuan Juan Jose Garcia Urcelayetak Geltokian ikusi zituela dio⁴⁹³, baina kasu honetan, bere testigantza okerra zela iruditzen zaigu; beste hainbat testigantzek ez baitute hura baieztatzen eta gainera beste narrazio bat ematen digute. Biak, elkarren lagun minak, Gazteria Sozialistako kideak ziren. Hain estua zen bien arteko harremana, ezen bakoitza lagunaren arrebaren bikotekidea zen⁴⁹⁴. Elkarrizketatu bik, biak gazte hauen ondorengoak direlarik, kalean, gaur egungo Iturriotz kalean (orduan Pablo Iglesias kalean) atxilotu zituztela esaten dute⁴⁹⁵. Jose Maria San Martinen arabera, “Iturriotz kalean atxilotu zituzten, portal batean zeudela. Kamioi bat pasatu eta handik eraman zituzten”⁴⁹⁶. Maria Pilar Lozaresen arabera, Marcelo Bergararen amak kontatuta (senitartekoa zuten) “euren delitu bakarra frankistak kaletik zetoztela ihes egitea zen. Agian *Norte* tabernan gorde ziren, Herriko Etxea zegoen tokian”⁴⁹⁷. Lozaresen testigantzaren arabera “gero fusilatua izan zen

⁴⁸⁸ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 67. or.

⁴⁸⁹ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁴⁹⁰ *La Voz*, 1937-V-16.

⁴⁹¹ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 67. or.

⁴⁹² Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁴⁹³ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 62. or. Gainera, Garcia Urcelayetaren arabera, San Martin eta Bergara ez ziren ezkertiarak (“Geltokian atxilotu gintuztenetako inor ez ginen ezkerrekoa”), baina biak Gazteria Sozialistakoak ziren artean.

⁴⁹⁴ Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁴⁹⁵ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3. Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁴⁹⁶ Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁴⁹⁷ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

3. kapitulua

emakume batekin ezkututzen saiatu ziren”⁴⁹⁸. Emakume hori Victoria Huergo izan zitekeen, hura baita Beasainen hil zuten emakume bakarra, guk zehaztu dugun moduan. Baina beste alde batetik, Huergoren inguruan eman izan diren bertsio ezberdinetako batek ere ez du aipatzen Herriko Etxearen inguruan egon zenik (posibleena Huergo ortuan atxilotua izatea zela esaten dugu). Eta bestetik, *El Liberal* egunkariaren arabera, Herriko Etxean hil zuten emakumea *ez zen Huergo Tofe* zeina beste eszena batean identifikatzen du (egunkari honek bi emakume aipatzen ditu)⁴⁹⁹. Emakume honek etxe hori egoitza sozialista izateaz gain, auzokideen etxea ere bazela esan zuen, eta horregatik fusilatu zuten, betiere *El Liberalen* arabera. Beraz, honek beste hildako baten kasu posible bat erakusten digu. Hala ere, esan behar dugu *El Liberalek* akats batzuk egiten dituela: Herriko Etxean ikusitako bi gazteak (testigantza guztien arabera, Bergara eta San Martin direnak) bi “neskatorekin” identifikatzen dituela ez bi “mutikorekin”; eta bestetik, hauek, atxilotu ostean, “erreketeekin zetorren soldadu bat” laguntzen saiatu zela (Jaime Agurruza)⁵⁰⁰. Jaime Agurruza ez zen hauek laguntzen saiatzearen atxilotua izan, Guillermo Ugarte laguntzen saiatzearen baino. Beraz, kronika honen xehetasun batzuk nahiko ilunak agertzen zaizkigu.

Maria Pilar Lozaresen ere esaten du nahiko azkar enteratu zirela Bergararen etxean haxe atxilotua izan zela; beste anai batek amari esan ziola. Amaren hitzak “uste dut berriz ez dugula ikusiko” izan omen ziren⁵⁰¹. Antza denez, bai Jose Maria San Martin, zein Marcelo Bergara hilerrira eramane zituzten fusilatzerak. Ez Jose Maria San Martin Osinalderen bertsioan, ez Maria Pilar Lozares Sarasketaren bertsioan ez dugu Geltokia ez Matias-Enea aipatzerik entzun, beraz ez dugu uste han egon zirenik (*El Liberalek*, Herriko Etxean atxilotutako “bi neska gazteak” hilerrira eramane eta han fusilatuak izan zirela dio)⁵⁰². Garaian *La Voz* eta *Euzko Deyak* idatzi zutenaren arabera, hauei “tranpa” bat egin zieten, hau da, Herriko Etxea zegoen eraikina bonbardatuko zutela hots egin zuten eta atera arazi egin zieten. Kalera atera zirenean orduan izan ziren atxilotuak⁵⁰³. Prentsa kronika hauen arabera, hortxe bertan, kalean izan ziren fusilatuak. Hala ere, ez du ematen hau ere zuzena denik, izan ere Maria Pilar Lozaresen arabera, Marcelo Bergararen anai batek honen *atxiloketaren* berri eman zion amari (ikusita egin

⁴⁹⁸ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁴⁹⁹ *El Liberal*, 1936-VIII-13. “Gaixotasuna zuen emakume bat” aipatzen du Huergo Tofegatik beste eszena horretan.

⁵⁰⁰ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁵⁰¹ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁵⁰² *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁵⁰³ *La Voz*, 1937-V-16; eta *Euzko Deya*, 1937-III-21.

zuelako edo bertsio hurbileko bat izan zuelako), ez hilketarena. Honek, atxiloketaren eta erailketaren artean denbora pixka bat pasatu zenaren pista bat ematen digu⁵⁰⁴. Anselmo Ruizen arabera, atxiloketa hau eta Ugarterena (eta bere ustez Juan Gonzalezena), denboraz nahiko gertu ibili ziren. Bere ustez, etxeak erretzen hasi zirela, bertako auzolagunei jaisteko esan zieten, sua etxez etxe komunikatu zitekeen eta. Ruizek gaineratzen du “atxilotu hauek ez ziren kontziente zer gertatuko zenaz (...) Nik ikusi nituenean, plazatik gertu, ez zituzten tratu txarrez eraman”⁵⁰⁵ (gerora sufrutuko zituzten, atxilotu gehienek behintzat). Orduan atxilotu zituzten San Martin eta Bergara⁵⁰⁶. Marcelo Bergarak 18 urte zituen fusilatu zutenean eta Arana Kaleko 12. zenbakian bizi zen. Saturnino San Martinek 21 urte zituen eta Kale Nagusiko 18. zenbakian bizi zen⁵⁰⁷.

Hildako “zibil” guztietatik, Bergara eta San Martin “politizatuenetakoak” izan ziren Gazteria Sozialistetako kideak izan baitziren. Hala ere, ez du ematen inolaz ere inolako “nabarmentzerik” izan zutenik auzi politikoetan. Jose Maria San Martin Osinalderen arabera, “kalean hartu zituzten ezer egin gabe. Noizbait entzun dugu eskuorri batzuk banatzen ari zirela esaten zuen bertsio bat, baina ez dugu sekula ere sinetsi”⁵⁰⁸.

Anselmo Ruizen arabera, Marcelo Bergaraz eta Saturnino San Martinez gain (eta again hil zuten emakume ezezagun horrez gain), beste pertsona bat hiltzear zeuden frankistak, *Norte* tabernako jabea, “nire lagun Pedrotxoren aita zen hura”⁵⁰⁹. Anselmo Ruizen arabera, gizon hau ere atxilotu zuten, baina eramaterakoan, su hartu zuten etxe batzuek ikusi eta “ni suhiltzailea naiz” esan zien militarrei. Horrela, hauek “ba orduan itzal ezazu su hori!” esan zioten, eta Suhiltzaileen postura joan zen, han abisua eman eta suhiltzailez jantzita bueltatu zen sua itzaltzera, modu horretan bizia salbatu zuelarik⁵¹⁰.

Kasu hau ez da txiripaz salbatu zen pertsona bakarra. Adibidez, Usategi baserrian, Maria Karmen Ibarbiak kontatzen digunez “nire aitonaren bila sartu ziren”:

⁵⁰⁴ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁵⁰⁵ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

⁵⁰⁶ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

⁵⁰⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. Beasaingo 1930.eko errolda.

⁵⁰⁸ Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁵⁰⁹ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

⁵¹⁰ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

3. kapitulua

Nire aitona belar meta batean ezkutatu zen, eta erreketek sarda batekin belar metaren kontra jo eta jo aritu ziren, baina sardak kasualitatez aitona ez zuen jo, eta hala libratu egin zen⁵¹¹. Peñagarikano Dorronsoro sendiaren etxean ere sartu ziren frankistak, Esteban Peñagarikanoren bila, baina honen emazteak “ez, ez dago etxean, joan egin da” esanaz lortu zuen senarra libratzea⁵¹².

Errepublikaren alde jarritako zazpi goardia zibilen atxilotetak kontutan hartu behar ditugu ondoko orrialdeetan. Eurekin, edo euretako batzuekin batera izan zen atxilotua Ignacio Onesimo Matute herritarra. Honen iloba Ramon Perez Onesimok kontatu izan digun bezala, “Ignacio Onesimok, zetozen eskuindarrei aurre egiteko erresistentziarekin bat egitea erabaki zuen. Nire amonak ez zuen nahi baina... Ignaciok hemeretzi urte zituen eta gaztea zenez...”⁵¹³. Ignacio Onesimo Matute ideologia ezkertiar nabarmenekoa zen, bere anaia Severiano Onesimo 1934ko grebako parte-hartzaile bat izan zen, eta hori zela eta kartzela-aldia pairatu zuen. Hauek, zehatz-mehatz non atxilotu zituzten (edo denak batera atxilotu zituzten) jakiterik ez badugu ere, momentuz pentsatu dezakegu Usurbe magalean, Beasainmendi auzotik gertu atxilotuak izan zirela euretako batzuk (Ignacio Onesimo barne)⁵¹⁴. Hala ere badaude Beñaranen atxiloteta beste tokiren batean kokatzen duenik. Adibidez, Jabier Garcia Bergararen arabera, Beñaran mortari batekin (ziur aski eibartarrekin batera egin zuen ibilgailuaz arituko zen) zegoen tiro egiten, eta behin hura galdu zuenean atxilotu egin zuten, Nafarroa etorbidean⁵¹⁵. Jose Antonio Urgoitiren arabera “Errepublikaren alde borrokan ari zen goardia zibilaren kapitaina Geltokiaren ondoan izan zen atxilotua”⁵¹⁶ (halere, bertsio hau ez dugu uste zehatza denik, izango balitz, altxatuek Geltokian atxilo izandako preso beasaindarrek zerbait ikusiko zuketelako). Behin Ignacio Onesimo hil ostean, amaren, Avelina Matuteren, denda zakuratu egin zuten⁵¹⁷. Bai *La Vozen* zein *Euzko Deyan* Onesimoren (“periodistaren semearen”) etxea zakuratu zutela esan

⁵¹¹ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁵¹² Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9.

⁵¹³ Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁵¹⁴ *La Vozen* eta *Euzko Deyaren* arabera, horietako lau erietxean eri zeudelarik atxilotu zituzten. Hala ere, azken egunkari honek dio “bat galiziarra zela, beste bat oraintsu igotako brigada bat, eta beste biak nafarrak”. Beasainen guardia zibil nafar bakarra (Francisco Chocarro) hil zuten, eta galiziarrik ez. Bestalde ez zegoen brigada maila zuen inor. (*Euzko Deya*; 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16).

⁵¹⁵ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁵¹⁶ URGOITIA BADIOLA, Jose Antonio: op. cit., 226. or.

⁵¹⁷ Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

zuten⁵¹⁸, baina Ramon Perez Onesimoren testigantzari jarraiki, esan behar dugu zitekeena zela egunkariak “etxea” eta “familiaren denda” nahastu izana. Ignacio Onesimo Matutek 19 urte zituen fusilatu zutenean, eta Arana kaleko 3. zenbakian bizi zen (Beasaingo 1930ko erroldaren arabera)⁵¹⁹.

Behin atxilotuta, goardia zibilak (eta zitekeena zenez, Ignacio Onesimo Matute baita), jipoituak izan ziren, Beñaran kapitaina batez ere, honekin sadismora iritsi zirelarik. Beraz ez da zuzena Jose Luis Cerverok Errepublikaren alde lerratutako goardia zibilei buruzko liburuan kontatzen duena: “Beñaran atxilotu eta berehala fusilatu zuten”⁵²⁰, ikusiko dugun moduan ordu batzuek torturatua izan baitzen. Tratu txar eta umilazio horiek Goardia Zibileko Baeza kapitainak zuzentzen zituen iturri guztien arabera, eta antza denez, Matias Eneko etxean gertatu ziren⁵²¹. Baeza kapitainarena idatziz uzten du Juan Jose Garcia Urcelayetak⁵²². Hala ere, badugu beste testigantza bat; Joxe Manuel Azurmendi Dorronsororena. Honi bere ezagun batek kontatu zizkion Beñaranek jasandakoak, eta bere arabera, Baezak etengabe “traidore!” deitzen zion, eta “zu eta biok, kapitainak gara biak, baina zuk gorputza traizionatu egin duzu eta nik ez!” bezalako esaldiak erabiltzen zituen. Jose Migel Barandiaranen arabera, Beñaranek “ez naiz traidore, zuek deitzen didazuen bezala, leiala baizik, nire ohoreari leial izan bainatzaio” esanez erantzun omen zien⁵²³. Beñaran lurretik txapelokerra jasotzen joan zelarik zaplasteko bat eman omen zion Baezak⁵²⁴. Jabier Garcia Bergararen arabera, gainera, alikateekin azkazalak kendu zizkieten, hankak moztu eta bibotea eta genitalak erre zizkieten (Garcia Bergararen arabera, goardia zibil guztiei “berdina egin zietela uste dut”⁵²⁵). Kasu horretan zitekeena da Ignacio Onesimo Matuteri ere antzeko torturak aplikatu izana, *La Voz* egunkariak dio “matxete-kolpez bere gorpua

⁵¹⁸ *Euzko Deya*, 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16.

⁵¹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. Beasaingo 1930.eko errolda.

⁵²⁰ CERVERO, Jose Luis: op. cit., 343. or.

⁵²¹ Badaude Beñaranen kontrako tratu txarrak eta haren fusilamendua beste nonbait kokatzen duenik ere. Felipe Ibarbiaren arabera, adibidez, Goardia Zibilaren koartelean izan zen (gaur egungo Olaran fabrikaren ondoan zegoen orube batean). Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19. Jose Maria Bujanda Olaranen arabera, Lazkaomendin fusilatu zuten Beñaran. Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14. Jose Vicente Iraolaren arabera, “Kristo baten ondoan hil zituzten (...) Matias Eneatik gertu”. IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 352. or. *El Liberal* egunkariaren kronikaren arabera, hilerrian torturatu eta hil egin zuten; *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁵²² GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 73-74. or. IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 352. or.

⁵²³ BARANDIARAN FUNDAZIOA: op. cit. 34-35. or. Barandiaranek datu hori Veremundo Mendizabalengandik hartu du: MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 120. or.

⁵²⁴ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

⁵²⁵ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

3. kapitulua

hautsi” zutela⁵²⁶). Tortura horiek hain handiak izan ziren, ezen euren garrasiak ondoko baserrietatik entzuten ziren, Usategi baseritik, adibidez⁵²⁷. Beñaranen azken uneak, entzun ditugun testigantzen arabera, oso dramatikoak izan ziren. Altxatuetako soldadu batek fusilen bat eman omen zion bere buruaz beste egin zezan, baina honek ukatu egin zuen, bera hil egin beharko zutela esanaz⁵²⁸. Arantza Ugarteren arabera, bere amari entzunda, Beñaran “Gora Errepublikak!” oihukatuz hil egin zen⁵²⁹. Baeza kapitaina, Beasainen egon aurretik Lizarran egon zen hango errepresioa zuzentzen. Zesareo Ugarteren arabera “benetan gaiztoa izan zen hura Lizarran galde dezakezu hari buruz”⁵³⁰. Geroago, Baeza Intxortako frontean zauritua izan zen⁵³¹.

Beasainen eraildako goardia zibilen artean⁵³², batzuek Beasainen zeudenak ziren, eta beste batzuk kanpotik etorritakoak. Fusilatuetako zazpitik bi momentu horietan Beasainen zeuden; Ignacio Ormaechea Aroma (behintzat 1930tik Beasainen⁵³³) eta Claro Felipe Sanchez (behintzat 1932etik Beasainen⁵³⁴). Zerrenda askotan Carlos Gonzalez Garzon (1936.ean Beasaingo koarteleko kaporala zena⁵³⁵) Beasainen eraildakotzat ematen bada ere⁵³⁶, ez zen bertan hil eta ez zen eraila izan; baizik eta egun batzuk geroago, 1936.eko uztailaren 30ean, Ordizian borrokan hil zen. Hirugarren fusilatua, Eibartik etorritako Beñaran zen (1934.ean lotinantetik kapitain izatera igo zen arte, Beasainen egon zen). Beraz, datu honek gezurtatu egiten du 1936.eko abuztuaren 13an *El Liberal* egunkariak esandakoa, hots, Beasaingo goardiazibilak, “Villaran (sic; Beñaranez ari da) kapitaina” ezik Donostiara lekualdatuak izan zirela hango matxinada zapaltzera⁵³⁷. Eibartik etorri zen goardia zibil bat ere badugu: Francisco Chocarro

⁵²⁶ *La Voz*, 1937-V-16.

⁵²⁷ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁵²⁸ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

⁵²⁹ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁵³⁰ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 95. or.

⁵³¹ GUTIERREZ AROSA, Jesus: op. cit., 30. or.

⁵³² Anselmo Ruizen arabera, bazegoen baita errepublikarrekin borrokatu zuen goardia zibil bat, fusilatu ez zutena: “agian lehenago errenditu zelako”. Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25.

⁵³³ Beasaingo Udal Artxiboa. 1930.eko Beasaingo errolda.

⁵³⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 1934.eko Beasaingo erroldaren zuzenketa. Esan beharra dugu baita ere, Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorok emandako datuen arabera, bai Claro Felipe Sanchez zein Ignacio Ormaechea Aroma Arrasaten zeudela 1936.ean. Datu hauek zuzenak balira, 1936.ean lekualdatuak izan zirela pentsatzekoa da.

⁵³⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua. Otsaileko plenoetan agertzen da.

⁵³⁶ Adibidez, Iñaki Egañak aurkezten duen zerrendan. EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil...* (IV lib.), op. cit., 206. or. Eusko Jaurilaritzaren txostenean, ere, Carlos Gonzalez Garzon Beasainen 1936.eko uztailaren 28an hil zela dakar.

⁵³⁷ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

Martinez, kaporala⁵³⁸. Hala ere, pertsona hau ez da azaltzen Eibarko 1935.eko erroldan⁵³⁹, beraz, Estatu-kolpea baino pixka bat lehenago Eibarrera lekualdatua izan zela pentsa genezake. Beste bi, Angel Alvarez Garcia eta Francisco Recio Ruiz Arrasatetik etorri ziren⁵⁴⁰. Azkenaren kasuan, Antonio Garcia Hernandezen kasuan ez dugu jakiterik nondik etorri zen 1930ko Ordiziako errolda eta 1935ko Eibarko errolda ikusi izan ditugu, baina bere izenik ez dugu aurkitu⁵⁴¹. Beraz, zitekeena da azken orduan, Estatu-kolpea baino egun batzuk lehenago Gipuzkoara lekualdatua izatea, baina zein herritara (Ordiziara, Eibarrera edo zuzenean Beasaina) lekualdatua ote izan ziren ez dugu jakiterik izan. Hildako hauen kasuan, Ignacio Ormaechearen alargun Francisca Letonak eskatu zuen alarguntza-pentsio bat, 1944.ean. Epaille batek diligentziak zabaldu omen zituen “gorrien nagusigopean gertatutako heriotza hau argitzeko” eta bertan “hildakoak Goardia Zibilean izan zuen jarrera ona aintzatesten zutela (...) baina matxinoen (sic; horrela deitzen zieten frankistek Errepublika defendatu zutenei) alde jokatu zuela, Mugimendu Nazionalaren kontra armak hartuz” jarri omen zuen. Iñaki Egañaren arabera, hau, “Estatu frankistak pertsona bat hil zuela onartu zuen kasu apurrenetako bat izan zen”⁵⁴².

Ilundu zenean, Geltokian atxilotuta zeudenei zegokienez; hamarretan, altxatuen aldeko militar batek “gorrien preso egondakoak etortzeko” hots egin zuen, eta Epifanio Arguiñano eta Miguel Quintas atera egin ziren eta fusil banaz armatu zituzten, Momentu horretan Andres Izaguirrek besteen alde egiteko eskatu zien, baina Arguiñanok erantzun zuen “badakizu momentu honetan ezin dudala ezer egin”. Garcia Urceleyetak fusilarekin ikusi zituen, beraz pentsatzekoa da biak, momenturen batean akaso, beste presoak, ordura arte, preso-lagunak, zaintzen egon izana⁵⁴³.

Hamabietan, Gallego burdinbideetako langileak zorabiatua zegoela esan zuen, eta orduan altxatuetako batek esan omen zien “ez dik luzaroan iraungo, fusilatu egingo zaituztegu”. Hori izan zen, Juan Jose Garciaren arabera, fusilatzeko asmoa komunikatu zieten lehen aldia, beraz, litekeenez, orduan jabetu zen talde hau fusilatu egingo zituztenaz. Hortik gutxira, banan-banango lerroan, Guillermo Ugarte buru zela, eraman

⁵³⁸ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori eskaintzen diot datu hau eman izana.

⁵³⁹ Eibarko Udal Artxiboa. Eibarko 1935.eko errolda.

⁵⁴⁰ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori eskertezn diot datu hau.

⁵⁴¹ Ordiziako Udal Artxiboa. Ordiziako 1930-eko errolda; eta Eibarko Udal Artxiboa. Eibarko 1935.eko errolda.

⁵⁴² EGAÑA, Iñaki: *Los crímenes de Franco...* op. cit., 99. or.

⁵⁴³ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 63-64. or.

3. kapitulua

zituzten Matias-Enea aldera, gaur egun fusilatuen omenez dagoen ondoan zegoen etxe batetara (“Ormaiztegirako bidean”; Garcia Urcelayetaren arabera⁵⁴⁴). Juan Jose Garciak kontatzen du ihes egiten saiatu zela, baina ez zuela lortu. Garcia Urcelayetaren arabera, kaleko argiak itzalita zeuden eta kamioi bat zegoen atzetik argia ematen, presoan ilarak, alde bakoitzean soldadu armatuz osatutako eskolta zeramalarik⁵⁴⁵. Matias-Enea iritsitakoan “lotinant-koronelak” hau da, Cayuelak, banan-banan sartzeko agindua eman zien eta beste militar batek (“sei puntako izarra zeraman”, Garcia Urcelayetaren arabera), “hiru arma ekarri ezean” fusilatuak izango zirela esan zien (“eskaintza” hori ez zieten egin identifikatu gabeko bi militar errepublikanoei, hauek zuzenean “fusilatzeke” bezala sailkatu omen zituzten)⁵⁴⁶. Beraz, badakigu “eskaintza” hau egin zen momentuan Pablo Cayuela Ferreyra lotinant-koronela present zegoela⁵⁴⁷.

Preso gehienek hiru arma lortzea ezinezkoa zitzaizela erantzun zuten. Bik soilik erantzun ekarri ahal zutela, zalantza handiekin bada ere, Matias Alvarez CAFeko goardiak (Victor Uribe-Etxebarriarekin atxilotua izan zenak) eta Juan Jose Garcia Urcelayeta berak. Hori zela eta besteengandik banatu egin zituzten, eta arma bila joateko agindu zieten. Hala ere, Matias Alvarezek esan zien gauzez ezin izan zuela armarik ekarri, eta orduan, hurrengo eguneko goizean ekartzekotan gelditu ziren. Hurrengo goizean, militarren batek “hiru armaren orde, bost” ekarri behar zituztela

⁵⁴⁴ Ibid., 65. or.

⁵⁴⁵ Juan Jose Garcia Urcelayetaren arabera, gauzez zen Matias Enea etxera iritsi zirenean. Hala ere, Frantziska Peñagarikano Dorronsororen arabera, bere amak preso batzuk ikusi zituen Matias Enean lotuta “arratsalde (..) eta ezagunak ziren denak” (Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9). Hala ere, ematen du hau ez zela Juan Jose Garcia Urcelayetarekin batera iritsitako taldea. Geroago azaltzen dugu hildako batzuen inguruko inguruabarrak azaltzerik ez dugula izan (zortzirena hain zuzen). Agian hauek ziren Frantziska Peñagarikanok aipatutakoak?

⁵⁴⁶ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 64-65. or.

⁵⁴⁷ “Eskaintza” hau nahiko orokorra izan zen. Jose Maria San Martin Osinalderen arabera, Marcelo Bergarari eta Saturnino San Martini ere eskaintza hori egin zieten (nahiz eta hauen kasuan, ez dakigu zehatz-mehatz Matias Enean egin izan bazieten). Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30. Andoni Sarriegi lekukoaren arabera, Florencio Aspe apaizari ere esan egin omen zioten arma bi ekartzeko, eta beste apaiz batek, Pedro Mokoroak lortu omen zizkion (Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6). Jabier Garcia Bergara lekukoaren arabera, Altune baserrian bizi zen Sarriegi deitutako gizon bati ere berdina esan omen zioten, eta “asko kostatuta” lortu omen zituen armak (Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22)). Frantziska Peñagarikano Dorronsorok kontaktu digunez, bere amak herrian “Tistone” deitura zuen gizon bat ikusi zuen, hau ere altxatuentzako arma bila zebilen, lortzen ez bazituen hil egingo zutenaren mehatxupearan (Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9). Rosario Larrearen arabera, bere osaba bati –bere aita Pedro Larrea Ormazabal hil egin zuten- armak ekartzeko eskaintza egin zioten, eta honek armarik ez zuelako “menditik Zegamara ihes egin zuen bere bizia salbatzeko” (Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasain, 2012-IV-14). Mila Mendia Aramendiren arabera, bere aita, Florencio Mendia (Evaristo Mendiaren semea), doi-doi libratu zen arma bat ekarrita (Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2).

esan omen zien Garciari eta Alvarezzi. Momentu batean, Garcia Urcelayetak eurak ere hilko zituztela pentsatu zuen, eta arkatz batekin “Juan Jose Garcia Urcelayeta. 1936ko uztailaren 28an fusilatua” idatzi omen zuen gazteleraz hormaren batean. Zortzietan atera omen zen Garcia Urcelayeta arma bila Matias-Enetik, bizirik; eta bera baino pixka bat beranduago atera zen Matias Alvarez⁵⁴⁸. Garcia Urcelayetak ikusi ez zuelako esaten ez badu ere, Alvarez eta bera ez ziren izan bizirik atera ziren bakarrak. Florencio Mendia eta Paulino Paredes farmaziako langileak ere arma bat ekartzea lortu zuten, libre ateratzea lortu zuten (kasu horretaz geroago xeheago hitz egingo dugu)⁵⁴⁹. Bestetik, Gallego abizena zuen burdinbideetako langilearekin zer gertatu zen ere ez digu guztiz argitzen Garcia Urcelayetak, jakin baibadakigu ez zela fusilatua izan. Hala ere, Andoni Sarriegi Eskisabelen arabera, hau eskuindarra izateagatik, ziur aski aske geratu zen (nahiz eta Garcia Urcelayetaren arabera, beste bi eskuindarrak, Epifanio Arguiñano eta Miguel Quintas aske uzterakoan, Gallego hori aske ez utzi).

Matias Enera eramanda hil zituzten Guillermo Ugarte, Victor-Urbe Etxebarria, Andres Izaguirre, Ignacio Onesimo Matute, Ramon Crespo Igarza, Pedro Larrea Ormazabal, Pedro Martin Arrizabalaga, agian Saturnino San Martin eta Marcelo Bergara (nire ustez hau zalantzan jartzekoa bada ere), Evaristo Mendia, identifikatu gabeko bi militarrek eta zazpi goardia zibilak.

Guillermo Ugarte, Zesareo Ugarte medikuaren aita, janari-denda batetako jabea zen (“pepitenetakoa” ezizenaz ezagutzen zen). Karlista zen, eta esan bezala, zinegotzi izan zen Primo de Riveraren diktaduraren garaian (Beasaingo alkate Jose Guridi Balantzategi). Oñatiarra zen jaiotzez. 58 urte zituen hil zutenean.

Victor Uribe-Etxebarria Bengoak 64 urte zituen fusilatu zutenean. Aretxabaletan jaiotzen ere, Beasaingo Kale Nagusiko 25. zenbakian bizi zen. Emeteria Igarzabalekin ezkondua zegoen eta sei seme-alaba zituen⁵⁵⁰. CAFeko zinpeko goardia zen. Bera hil ostean, Emeteria Igarzabalek bere etxea utzi egin behar zuen, errenta ezin ordaindu zebilen eta, Jabier Garcia Bergarak komentatzen duenaren arabera: “gure familiaren etxean egon zen bizitzen denbora batez”⁵⁵¹.

⁵⁴⁸ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 65-70. or.

⁵⁴⁹ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁵⁵⁰ Beasaingo Udal artxiboa Beasaingo 1930.eko errolda.

⁵⁵¹ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

3. kapitulua

Ramon Crespo Igarzak 40 urte zituen hil zutenean, eta Kantabrian jaioa zen. Ofiziosz moldeatzailea zen⁵⁵², iturri batzuek, okerbidez “jornalaria” zela esaten badute ere⁵⁵³. Hala ere, bere benetako zaletasuna eta herrian ezaguna egin zuena, txoriak ehizatzea eta zaintzea zen, horregatik “pajarero” deitzen zioten. Bere biloba Juan Ramon Imazek esaten duen moduan “artista bat zen, edozein txori harrapatzeko gai zen”⁵⁵⁴. Andra Mari kalean bizi zen, ironikoki, erregimen frankistarekin Beasaingo alkate izan zen Jose Luis Guridirena zen etxean⁵⁵⁵. Zazpi seme-alaba zituen. Bera hiltzerakoan, bere emazte Juana Alustizak ezin omen zuen etxearen errenta ordaindu eta etxetik joan behar izan omen zuen⁵⁵⁶. Ez omen zen inongo alderdiko kide.

Andres Izaguire Aldanondo Barakaldon jaio izan zen, eta harakina zen. Esan bezala, Andres Izaguirre Zirkulu Tradizionalistako lehendakaria zen, eta antzaenez poztu egin zen militarrek eta erreketek Beasainen sartu zirenean; Juan Jose Garcia Urcelayetak aipatzen duenez, haragia eskaini izan baitzien Beasainen sartu zirenean⁵⁵⁷. Argitu dugun bezala, Ramon Crespo Igarza defendatzearen hil zuten. Urriaren 25ean Zirkulu Karlistak bere aldeko meza antolatu zuen Beasainen nork hil zuen esan gabe. Bere seme Luis Izagirre Berasategik, 1970.ean, Ordiziako Udalari gutun bat bidali zion Pablo Cayuela Ferreyraren omenezko plaka bat kentzeko 30 eguneko ultimatum eman. Ordiziako Udalak kendu ez zuenez, harrika apurtu zuen plaka.

Evaristo Mendia Zabalo, jaiotzez legazpiarrak, 54 urte zituen Beasainen hil zutenean. Barrendain baserrian bizi zen, eta lehen esan bezala, iturri gehienek karlista bezala jotzen dute, bere biloba Mila Mendiak hura zalantzan jartzen badu ere⁵⁵⁸. Zazpi seme-alaba zituen, eta baseritik zerbait ateratzen bazuen ere, 1930ko erroldaren arabera, langilea zen⁵⁵⁹. Hil egin zutenean zabaldu zen bertsiio baten arabera, bere seme (eta berarekin batera atxilotutako) Florencio Mendiari bere aita lurperatuko zuten zuloa

⁵⁵² Beasaingo Udal Artxiboa. Beasaingo 1930eko errolda.

⁵⁵³ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Gerra Zibila...”, op. cit., 276. or.; eta EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil...* (IV lib.), op. cit., 205. or.

⁵⁵⁴ Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁵⁵⁵ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22). Hala ere, 1930ko erroldak dio Lazkaibarren biziz zela (Beasaingo Udal Artxiboa. Beasaingo 1930eko errolda).

⁵⁵⁶ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁵⁵⁷ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 63. or.

⁵⁵⁸ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁵⁵⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. Beasaingo 1930-eko errolda.

egitea agindu zioten⁵⁶⁰. Hala ere, ez dator horrekin bat Evaristo Mendiaren iloba eta Florencio Mendiaren alaba Mila Mendia Aramendi: “Testu batzuetan gure aita aitonaren gorpua sartzeko zuloa egitera behar zutela dakar, baina niri etxean horri buruz ez didate ezer esan”⁵⁶¹. Hori bai, Florencio Mendiak urte askotan “dardar atakeak” izan omen zituen, bere alabaren arabera⁵⁶². Aita hil eta gero, gainera, gudara erreketek joan azari zuten Florencio.

Pedro Arrizabalaga Ariztimuño, Zegamako Arrieta-Garakoa baserrian jaio zen, 1896ko urtarrilaren 31n, 40 urte zuten fusilatu zutenean⁵⁶³. Karola etxeetan bizi zen, orduko Fermin Galan kalean (gaur egun Nafarroa etorbidea).

Pedro Larrea Ormazabal ere zegamarra zen jaiotzez. Beasainen, Lazkaorako Bideko 6. zenbakian bizi zen⁵⁶⁴. Bi seme-alaba izan zituen, Juan eta Rosario. Azken honen arabera, “gure aita ez zen etxetik joan gu bakarrik ez uztearren. Horrek bizia galtzea ekarri zion”⁵⁶⁵. Pedro Larrea ere hilerrian hil zuten Matias-enera eraman eta gero⁵⁶⁶. Berarekin batera, bere anai Lino Larrea Ormazabal atxilotu zuten, eta hau izan zen ihes egitea lortu zuen bakarra, Angel Irigorasen⁵⁶⁷ eta Joxe Apalategiren arabera⁵⁶⁸, Matias-Enea etxetik egin zuen ihes Lino Larreak, baina ematen duenez, fusilatzen egin zuen ihes. Mutiloan jaiotako bere iloba Bernardina Aldasorearen arabera, fusilatu zituztenean, lehen deskarga egin zenean, lurrera bota zuen bere burua plantak eginez, eta altxatuak hila zegoelarik ez zioten “graziazko tirorik” egin. Hor geratu zen ezkutatuta, “nire ustez ez denbora askoan”, Aldasorearen arabera, ahalik eta bazter batetik ihes egitea lortu eta etxera itzultzea lortu zuen arte⁵⁶⁹. Halako kasu bakarrenetakoa izan zen. Pedro Larrearen alaba Rosario Larrearen arabera “beste osaba

⁵⁶⁰ Hori aipatzen dute, besteren artean, garaiko kronikek (*La Voz*, 1937-V-16; eta *Euzko Deya*, 1937-III-21). Iñaki Egañak interpretazio honi jarraitzen dio (EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil...* (IV lib.), op. cit., 205. or.).

⁵⁶¹ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁵⁶² Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁵⁶³ IRIGORAS, Angel: op. cit., 100. or.

⁵⁶⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. Beasaingo 1930.eko errolda.

⁵⁶⁵ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasain, 2012-IV-14.

⁵⁶⁶ IRIGORAS, Angel: op. cit., 101. or.

⁵⁶⁷ Ibid., 101. or.

⁵⁶⁸ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁵⁶⁹ Bernardina Aldasoro Ormazabali egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-X-30.

3. kapitulua

bati arma bat ekartzeko agindu zioten (...) baina guk ez genuen armarik (...) Orduan gure amak Zegamara joateko esan zion, bestela hil egingo zutela eta. Hala egin zuen”⁵⁷⁰.

Zortzi eraildakoren atxiloketa eta fusilamendu kasuak ez ditugu guztiz xehatzerik izan. Hauek Angel Alvarez Tellechea, Blas Aramburu Irastorza, Domiciano Garcia Diez, Juan Miguel Garmendia Mendia, Juan Gonzalez, Luis Gonzalez Hernandez, Luis Ibañez de Opacua Larzabal eta Teofilo Miguel Merino dira. Hala ere, zortzi hauetako zazpi erregistratuta daude erregistro zibilean⁵⁷¹ eta horietako bost parrokiaren erregistroan⁵⁷², beraz ez dute zalantzarik. Zazpi horietatik, Luis Gonzalezen kasua aipatzen dute 1937.eko prentsako kronikek; bi egunkarien arabera, Matias-Enera eramana eta bertan hil zuten⁵⁷³. Bi egunkariak “Manuel Larzabal” bat aipatzen dute hildako gisa, ziurrenik, Luis Ibañez de Opakuari buruz ari dira, honen bigarren abizena Larzabal baitzen⁵⁷⁴. Zalantzarako tarte bakarra uzten duen kasua Juan Gonzalezena da; hau ez baita inongo erregistroetan agertzen eta beraren inguruko aipamenak nahiko kontraesankorrak baitira. *Euzkadi bajo el régimen de Franco: la represión en Guipúzcoa* 1939eko maiatzean idatzitako txostenaren arabera⁵⁷⁵, Juan Gonzalez Farro izeneko pertsona bat, sozialista zena, Beasainen, “tropak sartzerakoan” eraila izan zen. Iñaki Egañak datu hori bildu egiten du baita⁵⁷⁶. Bestetik, Juan Jose Garcia Urcelayetak, berarekin batera geltokian, eta beraz Matias Enera eramana eta han gertu fusilatu bezala aipatzen du “Farro” deiturako pertsona bat, baina garbi esaten du ezizen bat zela (erdaraz “apodado el Farro” idazten du Juan Jose Garciak)⁵⁷⁷; eta honekin bat egiten du Anselmo Ruizek, bere ahozko testigantzan ere “el Farro” bezala aipatzen baitu⁵⁷⁸. Azkenik, Milagros Aranburu Mujika herritarrak bere ahozko testigantzan ere aipatzen du “Farro” izeneko pertsona bat⁵⁷⁹. Esan beharra dugu 1930eneko erroldan “Juan

⁵⁷⁰ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasain, 2012-IV-14.

⁵⁷¹ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Gerra Zibila...”, op. cit., 276. or. Lopezek eskaintzen duen erregistro zibilaren zerrendan, Juan Gonzalez falta da.

⁵⁷² ELIZONDO, Mauro: op. cit., 43. or. Elizondok eskaintzen duen eliz-erregistroaren zerrendan, Blas Aramburu Irastorza, Juan Gonzalez eta Luis Ibañez de Opacua Larzabal falta dira.

⁵⁷³ *Euzko Deya*, 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16.

⁵⁷⁴ *Euzko Deya*, 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16.

⁵⁷⁵ *Euzkadi bajo el régimen de Franco: la represión en Guipúzcoa txostena*. Eusko Jaurlaritzaren Irargi Artxiboa. 13 kutxa, 5 dokumentu-sorta, 5:2.

⁵⁷⁶ EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil...* (IV lib.), op. cit., 205. or.

⁵⁷⁷ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 62. or.

⁵⁷⁸ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25.

⁵⁷⁹ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

Gonzalez” izeneko pertsona bat topatu dugula⁵⁸⁰. Beraz, gure arabera, oso posiblea da Juan Gonzalez izeneko sozialista bat Beasainen eraila izatea, eta hori eta “Farro” delakoa pertsona bera izatea; baina ezin dugu zehaztu Farro Juan Gonzalezen bigarren abizena edo ezizena denik. Hala ere, pertsona honen heriotzaren inguruko ziurtasun nahiko garbia ematen digu Anselmo Ruiz lekukoak, berak ikusi zuen Farro izeneko pertsona hau nola atxilotu zuten⁵⁸¹.

3.4.b) Aklaratu gabeko, frogatu gabeko edo iturrietan agertzen diren Beasaindik kanpoko erailketen kasuak

Behin hildakoez aritu izan garela, eta hildako 35 pertsonen zerrenda egin, kausak eta inguruabarrak xehatu eta justifikatu dugularik, hain argi ez dauden kasuez hitz egin beharko genuke. Izan ere, iturri ezberdinek hainbat izen aipatzen dizkigute, 1936.eko uztailaren 27tik 28rako egunean eta goizaldean erail zituztela esateko nahikoa froga ez dugularik.

Horietako batzuk, Jabier Garcia Bergarak aipatzen dizkigu. Jada aipatu izan dugu, herritar honen testigantzaren arabera, arratsaldean, altxatuak, Geltokiaren gaineko etxera sartu eta handik eskuzko bonba bat jaurti zietela eta, bertan bizi ziren senar-emazteak hil zituztela. Bestalde, herritar honek, bere amari entzunda, aipatu izan digunez, Beasaingo Ezkiaga auzoan beste emakume bat hil omen zuten⁵⁸². Lehen kasuari dagokionez, senar-emazte horien inguruan, *El Liberalen* aipatutako erreportaiak ere zerbait aipatzen du kasu horrekin batera, bana kasu honetan hildako senar-emazte horiek ez ditu Geltokiko etxean kokatzen, burdinbideetako langileen “Karola” etxean baino⁵⁸³. *El Liberalen* eta Jabier Garcia Bergararen arteko beste ezberdintasun bat, herritar honek bikote hau etxean bertan hil zutela diola, eta egunkariaren arabera, etxetik ateratzen zirela hil zituztela da. Anselmo Ruizek, ordea “Geltokiko margolariaren etxean bi gorpu aurkitu zituzten” dio, zitekeena da gorpu hauek aipatzen ditugun kasukoak izatea⁵⁸⁴. Hala ere, hiru iturri dira gutxienez, oraindik identifikatu gabeko senar-emazte hauek aipatu izan dituztenak, gainera hurbiltasun kontzeptual eta geografiko bat azalduz (Geltokia iturri batek eta treneko langileen etea besteak; bi

⁵⁸⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. Beasaingo 1930.eko errolda.

⁵⁸¹ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25.

⁵⁸² Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁵⁸³ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁵⁸⁴ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

3. kapitulua

etxeok elkarrengandik nahiko hurbil zeuden), beraz, kasu berdinez ari direla ondorioztatzen dugu. Horrenbestez, ezin dugu besterik gabe deskartatu hauek hilak izan zirenik, eta aterean bat zabalik utzi behar diogu hauek eraildakoen zerrendara batzeko hipotesiari.

Berdin gertatzen zaigu *El Liberal*ek Herriko Etxean aipatzen duen emakume horrekin⁵⁸⁵. Maria Pilar Lozaresen ere emakume bat (identifikatu gabekoa baina Lozaresen ere “fusilatua” izan zela” diosku) Herriko Etxean Marcelo Bergara eta Saturnino San Martinekin atxilotua izan zela esaten digu⁵⁸⁶; beraz hemen ere, iturri batek baino gehiagok aukera hori baliosten dute.

Beste kasu bat, Paulino Paredesena zatekeen, hau Antonio Sagarminaga farmazeutikoaren langilea zen. Juan Jose Garcia Urcelayetak esan zuen hau Matias-Enean ikusi zuela errezatzen, bere amarekin batera, bere ama negar batean ari zelarik⁵⁸⁷. Bi kronikek, bai *La Voz*en kronikak zein *Euzko Deyaren*ak “Samaniego izeneko baten langilea” erail zutela aipatzen dute⁵⁸⁸ (*Euzko Deyak* erailketa hori Ormaiztegin izan zela aipatzen du⁵⁸⁹, eta *La Voz*en arabera, Samaniego delakoa eskuindarra zen⁵⁹⁰). Kasu honetan, nahiko argi azaltzen zaigu “Samaniego” hau eta Antonio Sagarminaga pertsona bera zirela, eta bere langilea Juan Jose Garciak ikusitako Paulino Paredes zela. Hala ere, Juan Jose Garciak honetaz hitz egiten ez badu ere (ez baitzuen ikusi), ez zen fusilatua izan. Mila Mendiaren arabera, Paredesek eta Florencio Mendiak armak lortzea izan zuten. Bere testigantzaren arabera, “nire aitari eta Sagarminaga farmaziako langile bati arma bat topatuz gero aske geratuko zirela agindu zieten, Barrendain baserrira joan ziren, eta han ez omen zegoen armarik, baina bat topatu zuten”⁵⁹¹. Jose Vicente Iraola alkate ohiak beste bertsio bat ematen digu: bere arabera, Florencio Aspe apaizak egin nahi izan zuen Paulino Paredesen alde, baina idatzi zuen informea hain ona izan zen, ezen militarrek ez zioten sinetsi eta Aspe bera ere atxilotu izan zuten, berari ere bi arma ekartzeko eskatuz⁵⁹². Gure ustez, sinesgarriagoa da Mila Mendiaren bertsioa, kontutan izanik zein izan zen Asperen guda-ondoko portaera.

⁵⁸⁵ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁵⁸⁶ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁵⁸⁷ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 67. or.

⁵⁸⁸ *Euzko Deya*, 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16.

⁵⁸⁹ *Euzko Deya*, 1937-III-21.

⁵⁹⁰ *La Voz*, 1937-V-16.

⁵⁹¹ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁵⁹² IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 352. or.

Zalantza asko sortu dizkigun kasu bat, lehen aipatu dugun Carlos Gonzalez Garzonena da. Gonzalez, 1936ko uztailean Beasaingo Guardia Zibilaren kuarteleko kaporal edo kaboa zen (ez zen tenientea izan, zenbait iturritan hala badakar ere); eta lehen aipatu dugun legez, Beasaingo defentsaren antolatzaileetako bat izan zen, aginduak eta abar ematen baitzituen. Beraz, hemendik ondorioztatu behar dugu Gonzalez Garzon konbikzio ezkertiar indartsuak zituen pertsona zela. Carlos Gonzalez, Madrigal de las Altas Torres herrian jaiotakoa, Guardia Zibilean sartu aurretik, Armadan aritu zen Infanteriako soldadu gisa 1921ean eta Saboya konpainiako 6. batailoian sarjentu izatera iritsi zen. 1923an, Guardia Zibilean sartu zen eta 1930ean kaporal edo kabo kargua lortu zuen⁵⁹³ eta 1935ean Beasaingo postura destinatua izan zen⁵⁹⁴. Gonzalez Garzonen heriotza, Beasainen erregistratu zuten 1941eko otsailaren 24an, Alberto Sorondo Legarra Udalerriko Bake-epaileak eta Antonio Ayestaran Irastorza Bake-epaitegiko idazkariak, Tolosako epai-barrutiko instrukzio epaileak 1941eko otsailaren 22an emandako agindu baten ondorioz. Erregistro horretan, Carlos Gonzalez Garzonen heriotza-data 1936ko uztailearen 30ean jarri zuten, “suzko armek eragindako zaurien ondorioz”; baina tokia zein zen zehaztu gabe⁵⁹⁵. Agian horrek, heriotza Beasainen erregistratu izanak (beraz, hala erregistratu bazen heriotza bera ere Beasainen izan zela pentsa dezakegu automatikoki) eta data uztailearen 28aren hurbilekoa izateak eraman dute Iñaki Egaña hildako hori Beasainen hila izan zela ondorioztatzera⁵⁹⁶. Ez zen hala izan; bere biloba Maria Soledad Malaxetxebarria Gonzalezek lortutako datuen arabera, Gonzalez Garzon Ordizian hil zen borrokan⁵⁹⁷. Badaude datu gehiago Malaxetxebarriaren hipotesia indartzen dutenak: adibidez, Agustin Chapartegui Goenagaren kontrako kausan (lehen aipatu izan dugu Chapartegui Goenaga CAFetik beruna hartzeaz eta balak egiteko erabili izanaz akusatua izan zela, berak hori Gonzalez Garzonen aginduz egin zuela deklaratu zuen), Carlos Gonzalez

⁵⁹³ Informazio hau Felipe Bueno Arizmendi beasaindarraren aurkako kausan agertzen da. Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3088-38 kausa, Felipe Bueno Arizmendiri dagokiona.

⁵⁹⁴ Maria Soledad Malaxetxebarria Gonzalezzi eskertzen diot datu hau. Datu hau berak Guardia Zibilari eskatu zion Carlos Gonzalez Garzonen historialetik dator.

⁵⁹⁵ Erregistroa, Beasaingo Bake-Epaitegian edota Felipe Bueno Arizmendiren kontrako kausan topa daiteke (Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3088-38 kausa, Felipe Bueno Arizmendiri dagokiona).

⁵⁹⁶ EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil...* (IV lib.), op. cit., 206. or.

⁵⁹⁷ Maria Soledad Malaxetxebarria Gonzalezzi eskertzen diot datu hau. Datu hau berak Guardia Zibilari eskatu zion Carlos Gonzalez Garzonen historialetik dator.

3. kapitulua

“gorrien aldean” hila izan zela esaten dute agintari frankistek⁵⁹⁸, beraz ezinezkoa zen Beasainen fusilatua izatea (Ordizia altxatuek ez zuten 1936ko abuztuaren 1a arte hartu, beraz, 1936ko uztailaren 30ean hila izan bazen, artean “gorrien aldean” zebilen Carlos Gonzalez). Beraz, esan dezakegu, Gonzalez Garzon izan zela guda-ekintza batean errepublikanoen alde hildako lehen “beasaindarra”. Zirkunstantzia horrek ez zion batere lagundu bere familiari bere senitartekoaren heriotzaren ingurukoak argitzen. Adibidez, alargunak alarguntza-pentsioa eskatu zuen, baina ez zitzaion eman eta Maria Soledad Malaxetxebarriaren arabera, “1980.eneko hamarkadara arte itxaron behar izan genuen, eta orduan eman ziguten pensioa ere, oso kaxkarra izan zen. Ez zioten ezta teniente-kargua ere kontuan hartu. Eta gainera, harrigarria bada ere, paperak betetzeko garaian, erregeari bideratutako barkamen-eskaera bat bete behar izan genuen”⁵⁹⁹

Euzko Deyari eta *La Vozi* buruz hitz egiterakoan, hauek hainbat izen aipatzen dituzte, Beasainen hildako gisa, adibidez, Txintxurreta, CAFeko idazkari zen Domingo Martinez, Oñativia, Redondo, langilea eta “Beasaingo bandakoa” zen Soto, edo “Pedro Mori”⁶⁰⁰. Txintxurreta, Redondo eta Soto ordiziarrak ziren eta ez ziren Beasainen fusilatuak izan, aipatutako kroniketan hala azaldu arren. Lehena, Alejandro Txintxurreta, 1934.eko greba iraultzailean parte hartu zuena eta 1935.ean epaitua izan zena, UGTko kide bat zen. 1936ko abenduaren 1ean fusilatu zuten Iruñean⁶⁰¹. Francisco Miguel Soto Udal-langile anarkista, Ordiziako txistulari bandakoa zen (ez Beasaingo bandakoa, egunkariak esaten duten moduan). 1936ko azaroaren 17an fusilatu zuten Donostian. Hil eta gero, frankistek bere emazte Esperanza Sanchez Soto aske utzia zelako gezurra esan zioten⁶⁰². Azkenik, Benito Redondo dendari bat zen, apolitikoa. Bere biloba Yolanda Begue Redondoren arabera, “denekin ondo konpontzen zen horietakoa (...) denei saltzen zien, beraz, ez zen lerratzen”⁶⁰³. Yolanda Begueren arabera, Benito Redondo “inbidiak tarteko salatu zuten”⁶⁰⁴. Redondo Iruñeko San Cristobal presondegira eraman zuten, eta 1936ko abenduaren 4an Etxarri Aranatz eta Altsasu artean fusilatu zuten⁶⁰⁵. Bere gorputza oraindik bere familiak ez du aurkitu⁶⁰⁶.

⁵⁹⁸ Espainiako Espainiako Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2413-41 kausa, Agustin Chapartegui Goenagari dagokiona.

⁵⁹⁹ Maria Soledad Malaxetxebarriari eskertzen diot datu hau. Testigantza hau ez dago grabatua.

⁶⁰⁰ *Euzko Deya*, 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16.

⁶⁰¹ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...*, 299. or.

⁶⁰² *Ibid.*, 298. or.

⁶⁰³ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁶⁰⁴ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁶⁰⁵ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...*, 291. or.; eta Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

Benito Redondoren seme bat, Fausto Redondo ere fusilatua izan zen, Asturiasen, preso egin eta gero. Beasaingo erreketek batzuk salatu eta fusilatu zuten 1937ko azaroaren 27an⁶⁰⁷; bere familiaren arabera, Beasaingo erreketek horien buru Epifanio Arguiñano zen⁶⁰⁸.

“Pedro Mori”; bi egunkariak “hildako apaiz” bezala deskribatzen duten hori⁶⁰⁹, ezin da Pedro Maria Usabiaga apaiza baino beste izan. Usabiaga, frankistek sartu eta hurrengo egunetan atxilotua eta herriko kartzelan preso hartutakoa izan zen, baina ez zuten fusilatu (bai ordea 3.000 pezetako isuna jarri)⁶¹⁰. Miren Barandiaranen arabera, “desagertu” egin zen⁶¹¹, baina Iraolak eta Veremundo Mendizabalek atxilotua zela esan zuten, gainera Iraola berarekin egon zen atxilo-aldian.

Domingo Martinez CAFeko idazkaria eta Oñativia banku kobratzailea fusilatu egin zituzten, baina aste batzuk pasatuta, ez egun honetan. Ulergarria da, kronikak Beasain hartu eta egun batzuetara idatzita izan direlarik, ordura arte Beasainen hildako guztiak zerrendatu izana. Hala ere, guk hauen berri hurrengo azpikapituluan emango dugu, uztailaren 27-28an hildakoen eta gerora hildakoen zerrendak bereizten baitugu. Oñatibia Beasainen fusilatua izan zen 1936an, eta Martinez Iruñean, 1938an (kontutan izanik kronikak 1937koak direla, beraz, zitekeena da agian kronika hau informatzaileek atxilotetaren berri izana eta beraz momentu horretan hiltzat ematea).

Bi egunkariak aipatzen duten kasu bat, tabernari batena da. *Euzko Deyak* “Olaberriako tabernaria” aipatzen du⁶¹², eta *La Vozek* “Olavarria tabernaria”⁶¹³. “Tabernari” hori, Bujanda izeneko pertsona bat zen, jaiotzez Nafarroako Bianakoa, eta Olaberriari bizi zena. Egia esan, CAFeko langilea zen, ez tabernaria; bere emaztea zen Olaberriari taberna zuena. Bujanda izeneko pertsona hau Ataunen hil zuten, CAFen lanean zela bahitu ostean⁶¹⁴. Honen kasuaren xehetasunak ere aurrerago emango ditugu.

⁶⁰⁶ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁶⁰⁷ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...*, 292. or.

⁶⁰⁸ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁶⁰⁹ *Euzko Deya*, 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16.

⁶¹⁰ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 352-353. or.; eta MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 120. or.

⁶¹¹ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 100-101. or.

⁶¹² *Euzko Deya*, 1937-III-21.

⁶¹³ *La Voz*, 1937-V-16.

⁶¹⁴ Jose Maria Bujanda Olarani eta Sara Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-18.

3. kapitulua

Bestalde, bai *La Vozek* zein *Euzko Deyak* “Joko Elkarteko lehendakaria Fermin Perez izeneko batek salatua eta fusilatua” izan zela aipatzen dute⁶¹⁵. “Joko Elkarte” izena zuen elkarte beasaindar bakarra Trenbideko Joko Elkartea zen. Honen lehendakari, 1936ko ekainean bertan, Valentin Toribio Toranzo zen⁶¹⁶, zeina ez zen fusilatua izan, eta gure datuen arabera ez zuen errepresiorik sufritu (ez dugu izan bere filiazio politikoaren inguruko daturik izaterik). Bazegoen aisialdirako beste elkarte bat, Beasaingo Futbol Taldearen Joko-Kasinoa, eta honen lehendakaria Juan Aramburu Irizar zen, zeina kartzelaratua izan zen (1940an irten zen kartzelatik) baina ez fusilatua⁶¹⁷. Bi elkarteak nahiko ezkertiarak ziren, eta beraz, pentsa genezake fusilatutako pertsona batzuk elkarteotako kideak izan zirela, baina lehendakariak ez zituzten fusilatu (azken uneko lehendakari aldaketaren bat, guk ezagutzeko modurik izan ez duguna, gertatu izan ez bazen).

Azkenik, guri momentuz zalantza gehien eragin digun kasua Julio Rodriguez Adebarena izan da. Miguel Angel Lopezek pertsona hau Beasainen 1936ko uztailaren 27an hil zutela biltzen du⁶¹⁸; bere heriotzaren erregistroan oinarriturik, hori bere tesiaren aldeko datu garrantzitsua delarik. Baina Julio Rodriguezen familiak helarazi digunez, Rodriguez Adebak ez zuten fusilatu, Errepublikaren alde gudan ari zela hil omen zuten, Teruelgo frontean. Erregistroak Beasainen hildakotzat ematen badu ere, baditugu zantzuak kontrakoa pentsatzeko: erregistro hori Tolosan, epai-barrutiaren hiriburuan egin zen (ez Beasainen), 1948an, ustezko gertakaria gertatu eta hamabi urte beranduago; beraz, erregistratzea atipikoa izan zen. Eta zantzu honez gain, badugu are datu erabakigarriago bat: 1937ko soldaduskarako errekrutatzerako deitua izana izatea.. Hildakoak “zerrendatik kanpo” uzten ziren, baina ez zuten hau egin Julio Rodriguez Adebarekin (bai ordea kinta horretakoa zen baina 1936ko uztailaren 27an hil zuten Saturnino San Martinekin). Otsailaren 21ean egin zen errekonozimendu-deialdira Julio Rodriguez ez zen agertu eta “iheslari” espedientea egiteko agindua eman zuen Beasaingo Udal frankistak⁶¹⁹. Beraz, horrek adierazten digu norbaitek (Beasaingo agintariek) Julio Rodriguez egun hartan hor egotea espero zuela (edo exijitzen ziola), beraz hori 1936ko uztailaren 27an erail zuteneko hipotesiaren kontrako froga indartsua

⁶¹⁵ *Euzko Deya*, 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16.

⁶¹⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24. dokumentua.

⁶¹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 01. dokumentua.

⁶¹⁸ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Gerra Zibila...”, op. cit., 276. or.

⁶¹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

da; are gehiago jakinda deialdi horretarako zerrendak prestatzen zituztenak Beasaingo tokiko agintariak zirela, egun hartan Beasainen zer gertatu zen jakin bazekitenak⁶²⁰.

Beraz, kasu hauen inguruan, iturrietan Beasainen egun hartan hildakotzat eman izan badira ere; nahasketak argitze aldera, edo Beasainen hilak izan ez zirela, edo geroago hilak izan zirela, edo zuzenean, ez zituztela hil argitzea nahi izan dugu, gerora irakurleak nahasketarik izan ez dezan. Hala ere, badaude kasu batzuk hori ere argitzerik izan ez duguna, Jabier Garcia Bergarak edota *El Liberalen* kronikak aipatutakoena, eta hauek Beasaingo gau beltz hartan hildakoen zerrenda handitu dezaketenaren aukera zabalik uzten dugu.

3.4.d) *Fusilatzeen eta ehorzteen tokia*

Guretzat zehazten zaila izandako zerbait, hildakoak Matias Enea etxean edo hilerrian izan zirela izan zen. Juan Jose Garcia Urcelayetaren arabera, bera, Matias Enean zegoenean jendea hiltzen entzun zuen. Berak dioenez, Matias Alvarez eta bera (Geltokitik atxilotutan zetorren taldea altxatuek eskatutako armak ekartzeko modua zuten bakarrak) gela batera sartu arazi zituzten, eta geroxeago berak fusilatzen entzun zuen. Garcia Urcelayetaren arabera, “ez dakigu apaizen batek absoluzioa eman izan bazien”⁶²¹, baina Jose Migel Barandiaranen arabera, apaiz erreketek batek eman zien absoluzioa⁶²². Bestetik, Pedro Barrusoren liburuan ondo dokumentatuta azaltzen den moduan, Oronozko apaiz Miguel Conde Zabaleta egon zen fusilatuei azken momentuan absoluzioa ematen, behintzat Andres Izaguirreren kasuan⁶²³. Beraz, Garcia Urcelayetaren testigantza irakurrita ematen du Matias Enean bertan hil zituztela, berak hala garbi esaten ez badu ere. Hala ere, kontutan izan behar dugu handik gertu hilerria zegoela, eta hildakoak, testigantza askoren arabera, hilerrian bertan edo inguruetan ehortzi zituztela: Mauro Elizondoren arabera, fusilatzeen hurrengo egunean, uztailaren 28an kamioilari bat odolez zikindua joan zen Bernabe Aierdiren gasolindegira, eta

⁶²⁰ Ez zatekeen batere konbentzigarria izango Beasaingo agintari frankistek Julio Rodriguez soldaduskarako zerrenda horretan bere erailketa hipotetikoa enmaskartzeko asmoz sartu zutelako ihardestea; uztailaren 27an eraildako Saturnino San Martin Gibajaz, kintaz zerrenda horretan egon beharko zukeenaz, espresuki “heriotza dela eta zerrendatik kanpo dago” esaten baita. Rodriguez Adebak ere uztailaren 27an hila izango balitz, zergatik ez berdina egin berarekin?

⁶²¹ GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: op. cit., 67. or.

⁶²² BARANDIARAN FUNDAZIOA: op. cit., 34-35. or. Barandiaranek datu hori Veremndu Mendizabalengandik hartu du MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 120. or.

⁶²³ BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...* op. cit., 144. or. Pedro Barrusok, 1941.ean Andres Izaguirreren largun Justina Berasategik jarritako helegite batean Miguel Conde Zabaleta berak emandako testigantza jartzen du berak esandakoaren frogara gisa. Helegite horren gora beherakoak Alcalá de Henaresko Administrazioaren Artxibo Orokorrean (*Archivo General de la Administración*) daude.

3. kapitulua

hilketak hilerrian izan zirela eta hildakoak han ehortzi zituztela kontatu zion⁶²⁴. Beraz, fusilatzeak gertatu zireneko toki posible bi ditugu: Matias-Enea eta hilerria. Non izan ziren fusilatzeak?

Garcia Urcelayetaren testigantza ez da bakarra izan Matias Enea fusilatzeen toki bezala apuntatzeko orduan. Herri testigantza batzuek ere hori aipatzen dute. Adibidez, Aitor Garmendia Goitiak⁶²⁵ eta Juan Ramon Imaz Crespok⁶²⁶. Argi dagoena da hildakoak Matias Enean izan zituztela denbora batez, eta baita ere han torturatu egin zituztela, hainbate herriko testigantzek diotenaren arabera⁶²⁷. Bestalde, Jose Maria Alonso Lamatak goizeko ordu batean ezartzen du heriotzaren ordua (ez du non zehazten), “bertatik auzokide batek tiro-andana bat entzun zuen eta”⁶²⁸.

Hala ere, testigantza gehienek, erailketak hilerrian izan zirela diote⁶²⁹. Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorok bere zalantzak ditu “baten bat hilerrian hil zutela” esaten baitigu⁶³⁰. Batzuek, Joxe Apalategi⁶³¹ eta Frantziska Peñagarikano Dorronsorok⁶³² adibidez, erailketak hilerriak izan baziren ere, tiroak entzun zituztela esaten dute (azken honek esan digun moduan “27 tiro kontatu nituen”). Beraz, herri-testigantza gehienak hilerrian hil zituztenaren hipotesiaren alde agertzen zaizkigu. Hala ere, hauez gain badaude zeinbait testigantza hilerriaren hipotesiari indar gehiago ematen dietenak. Hauetako bat, Bernardina Aldasoro Ormazabalena da. Honek, ihes egitea lortu zuen preso bakar Lino Larrearen familiakoa izaki, bere testigantza zuzena jaso zuen.

⁶²⁴ ELIZONDO, Mauro: op. cit., 44-45. or.

⁶²⁵ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁶²⁶ Juan Ramon Imaz Crespok egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁶²⁷ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25; Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19; Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22); eta Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9.

⁶²⁸ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoz egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-VII-17an.

⁶²⁹ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25; Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2; Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25; Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5; Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostia, 2015-XI-15ean; Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19; Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9; Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3; Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5; Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-X-1; Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30; Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁶³⁰ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

⁶³¹ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁶³² Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9.

Lino Larreak kontatzen zuenez, hilerriko horma baten kontra fusilatu zituzten, eta bera harri baten ondora erori zen, han hildakoaren plantak eginez egon zelarik⁶³³. Beraz hilerrian fusilatu zituzten, tartean bere anaia Pedro Larrea Ormazabal. Honekin batera hildakoenak talde handia behar zuen izan, horietako batek itxurak egin eta horretan arrakasta izateko, fusilatzaileak ez konturatzeko moduko itxurak egin behar izan zituen, eta hori talde txiki batean gertatzea oso zaila da. Beste testigantza indartsua Martin Dorronsoro Murgiondok eman digu. Dorronsoro Murgiondoren arabera, bere amak, bere baserritik, Andramendi baserritik (orduan hilerri zaharretik oso gertu zegoen baserria) ikusi zuen hilerriko atzekaldearen hormaren kontra nola hil zituzten presoak⁶³⁴.

Beraz, esan dezakegu, orokorrean, presoak hilerrian hilak izan zirela. Salbuespeneko kasuak ere eman ziren; adibidez, Isidro Igartua eta Juan Andres Otaegi, azken honen etxean hildakoak, Victoria Huergo, ziur aski bere ortuan hildakoa, Jose Ignacio Insausti Berasategi, bere etxeko leihora hurbildu zela tiro egin ziotena (eta agian bere seme Jose Ignacio Insausti Baztarrika etxe horretan aurkitutakoa), eta baliteke Jaime Agurruza, Saturnino San Martin eta Marcelo Bergara. Baina denak erakusten digu, patroï orokorra hildakoak hilerrian fusilatzea izan zela.

Honen inguruan beste datu interesgarri bat ematen digu Jabier Garcia Bergarak. Herritar honek kontatzen digun moduan, 1950.eko hamarkadan behin elizara joan zela, han Jose Luis Guridi frankisten erregimenean lehen alkatea izan zena (jada karguan ez zegoen hau gertatu zenean) ikusi zuen beste batzuekin hizketan. Jabier Garcia Bergarak entzun egin zuen elkarrizketa; eta horietako batek Guridiri zer moduz zegoen galdetzerakoan, honen erantzuna “bihotzean min dut (...) hilerrian fusilatzeak ikusten behartu zidatenetik”⁶³⁵. Ez dakigu Jose Luis Guridik esandako hori autojustifikazio gogoz esan zuen (Jose Vicente Iraolaren arabera, zeinak fusilatzeen ondorengo egunean Guridi ikusi zuen, fusilatzeak komentatzen ari zela Guridik entzun eta “horiek gezurrak dira” komentatu omen zuen, beraz ez zirudien oso damutua⁶³⁶) edo benetan larritu zen hura ikusi zuelako, baina denak dio egia zela esan zuena: bertan egon zela. Izan ere, Jose Luis Guridi obren kontratista zen, eta bere menpeko langile zen Anastasio Elguea

⁶³³ Bernardina Aldasoro Ormazabali egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-X-30.

⁶³⁴ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean. Martin Dorronsoro Murgiondok elkarrizketa honetan une batez parte hartu zuen, hain zuzen ere datu hau aportatzeko.

⁶³⁵ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁶³⁶ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 352. or.

3. kapitulua

ere berarekin zegoen hilketak gertatu zirenean. Jabier Garcia Bergarak kontatu digunez, Elgueak gerorago esan zuen fusilatu berri zituzten pertsonen hankak soka batez lotu behar izan zituztela, eta horrela eraman zituztela hobi amankomunetara⁶³⁷.

Guridi ez zen izan hilerrian egon zen eskuindar bakarra. Jabier Garcia Bergarak beste bi kasu kontatzen dizkigu. Horietako bat, Epifanio Arguiñanorena izan zen. Garcia Bergarak kontatzen digunez, Pablo Ventureira deitutako gizon bat fusilamendu-hormatik bertatik atera egin zuen, Ventureira “familia handi baten aita” zela esanez. Beste kasu batean, Jabier Garcia Bergararen aitona izan zen, Beasaingo eskuindar batek, Agapito Oiarbidek⁶³⁸, beste bati, Rufo Artolaini (gero zinegotzia izan zen) “Bergararekin zer egin” galdetu zionean Artolainek “Bergara ez ukitu! Herri honetan odol asko isuria izan da jada!” erantzun omen zion⁶³⁹. Beraz honek erakusten du nahiz eta heriotzen logika militar okupatzaileek martxan jarri, Beasaingo eskuinak izan zuela tarte bat, edo espazioen bat, kasu batzuetan baldintzatzeko edo hauen gaineko eragina izateko.

Beraz, nahiko argi dugu guk gehienak hilerrian erail zituztela. Orain beste zalantza birekin egiten dugu topo: non ehortzi zituzten, kanpoan ala barruan? Denak batera ehortzi zituzten? Kontatzen denez, fosa amankomunetan ehortzi zituzten (nahiz eta hildakoen senitarteko batzuek izan zuten hilerri ingurura joateko adorea eta han eren familia-arteak ezagutzekoa, eta hala, euren familia hilobietan enterratzeko aukera izan zuten). Hala ere, kontuan izan behar dugu halako kutsu erlijiosoak hartu zituen “gurutzada” batean, altxatuen aurkakoak erlijioaren etsaitzat hartzen zirela, beraz baliteke batzuk hilerri kanpoan ehortzi izana, hildako hauek, sinbolikoki bada ere “deskristautzeko” asmoz.

Ebidentzien inguruan paratuta, horietako bat, lehenetakoa agian, fusilatzeak gertatu eta hurrengo egunean ematen digu Bernabe Aierdi Beobidek, Mauro Elizondok biltzen duen moduan. Elizondoren arabera, Bernabe Aierdi uztailaren 28ko goizeko hamar eta erdietan Beasaingo hilerrira joan zenean, han gorpuekin hiru multzo ikusi zituen, “eskuinetara goardia zibilez osatutako multzo bat, eta ezkerretara gizon gazteez

⁶³⁷ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁶³⁸ Agapito Oiarbide hau, Miren Barandiaranen arabera, 1934an, Udalak dimisioa eman zuenean, Gobernadorearen oniritziz Udal berria osatzera zihoanean, zinegotzi kargua onartzekotan egon zen. BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 84-85. or. Jabier Garcia Bergararen ustetan, bere burua balkoitik bera botata hil zen, jada zahartzarora iritsita (Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22)).

⁶³⁹ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

osatutako beste multzo bat”⁶⁴⁰. Jose Vicente Iraolak ere halako testigantza bat entzun zuen hurrengo egunean –uztailaren 28an-, kasu honetan Zesareo Ugarte medikuaren ahotik. Zesareo Ugarteren arabera, hilerrian aurkitu zuen bere aitaren eta beste batzuen gorpua⁶⁴¹. Beraz, baditugu bi testigantza indartsu hildakoak han ehortzi zituztela baieztatzeko.

Zerk eragin digu guri zalantza? Alde batetik, noski, hilerrian, baina hilerri-perimetrotik kanpo fusilatuak izateak. Hilerritik kanpo fusilatu bazituzten, modu batean logikoa da pentsatzea hildakoak han bertan lurperatu zituztela. Bestetik, testigantza batzuek esaten dute “hilerriaren inguruan” ehortzi zituztela, hau da, kanpoan ehortzi zutelakoaren iradokizuna egiten dute. Halako kasua da, adibidez, Iñako Beolarena, bere ustez, hildakoak “hilerritik kanpo” izan ziren lurperatuak (kontuan izan behar da bere aitona Serafin Beola bertan egon zela Jaime Agurruzaren gorpua berreskuratzeraz)⁶⁴². Edo Eleuterio Aiestarena, zeinaren arabera “hilerri atzean, zanga batean lurperatu zituzten”⁶⁴³. Baina herri-testigantza gehienek kontrakoa diote; hilerri barruan ehortziak izan zirela. Hemendik aurrera hasten dira desadostasunak; bakoitzak hilerri zahararen toki ezberdin batean kokatzen baititu hildakoen hobiak. Adibidez, Isabel Peñagarikanoren arabera, hildakoen hobi bat “erabat ondo dakit non zegoen. Hilerrian sartu eta eskuinetara”⁶⁴⁴. Ramon Perez Onesimok ere berdina diosku: “uste dut hilerriaren eskuin aldean lurperatu zituztela”⁶⁴⁵. Baina Xanti Lasa Aranburuk, Anselmo Ruizek eta Patxi Lasa Imazek bestelako iritzia dute; hau da, hilerri zaharrean sartu eta ezkerretara ehortzi zituztela hildakoak⁶⁴⁶. Bestetik gogorarazi behar dugu hasierako Bernabe Aierdiren testigantza, hiru multzotan zeudela gorpuak⁶⁴⁷. Hala ere, ematen duenez, hobi amankomun batean edo askotan identifikatu gabe ehortzi zituztela nahiko garbi azaltzen zaigu; horren inguruko adostasuna erabatekoa da.

Beraz, gure ustez, posibleena, hobi amankomun bat baino gehiago egon zela da. Hala ere, badakigu egon zela hobi amankomun horretatik kanpo lurperatu zutenik

⁶⁴⁰ ELIZONDO, Mauro: op. cit., 43. or.

⁶⁴¹ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 352. or.

⁶⁴² Iñako Beolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁶⁴³ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

⁶⁴⁴ Frantziska Peñagarikano Dorrnsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrnsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9.

⁶⁴⁵ Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁶⁴⁶ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25; Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5; eta Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁶⁴⁷ ELIZONDO, Mauro: op. cit., 45. or.

3. kapitulua

Horietako bat, kasu, Victoria Huergo izan zitekeenaren ia erabateko ziurtasuna dugu. Hori, Frantziska Peñagarikanok kontatzen digu, emakumezkoen gorpu bat ikusi zutela behin erreka-ondoan gaizki ehortzita zegoela⁶⁴⁸. Anselmo Ruizek ere badio “Victoria Huergo zanga batean urperatu zuten, erdi barruan, erdi agerian”. Hala ere, honen arabera, hilerriaren atzean zegoen zanga hori⁶⁴⁹. Kasu honetan, toki batean edo bestean izan, argi geratzen zaiguna da emakume honen lurperatzea erabat iraingarria izan zen. Victoria Huergoren ehorzketa errespeturik gabearen ingurukoari buruz *El Liberal* egunkariak beste pista bat ematen digu, Huergo Toferen “senitarteko bat pertsona hartaz galdezka ibili zela, baina ez herriko lurperatzaileak ez beste inork ez zuela hari buruzko pistarik ematerik izan. Gero herritik kanpo topatu zuten bere gorpua, erdi lurperatuta, erdi agerian”⁶⁵⁰ (beraz hemendik ateratzen dugu hilerrietik at lurperatu zutela). Jesus Lopezek ere komunikatu digu hobi amankomunetatik at, beste tokiren batean gorpuren bat lurperatuta egotea posible zela⁶⁵¹. Bestalde, Jabier Garciaren arabera, goardia zibilen gorpuak “erreak” izan ziren, eta hilerriaren atzealdean lurperatuak hain zuzen⁶⁵².

3.4.e) *Familien eta senideen erreakzioa*

Hildako familien erreakzioa nahiko ezberdina izan zen egun horietan. Izan ere, lehen deskribatu dugun bezala, herrian sartzen ari ziren frankisten helburu nagusia herrian beldurra hedatzea izan zen, eta hura lortu, gogotik lortu zuten, ez soilik atxiloketen eta heriotzen bidez, baizik eta baita ere lapurreta arbitrarioen edota mehatxu edota tratu txarren bidez. Lehen kontatu dugu kasu batzuetan koltxoia lapurtu eta are lapurreta salatzearen atxiloketa jasateko koxkan egon zirela batzuk⁶⁵³.

Hala ere, batzuek fusilatzeen ondoren euren familia artekoak ezagutzera joateko gai izan ziren. Horietako bat Zesareo Ugarte izan zen. Bere aita hil zutenean, Zesareo Ugarte berak eratutako ospitalean lanean zegoen. Jose Vicente Iraolaren arabera, bere aita etxeratzen ez zela eta inon ere agertzen ez zela jabeturik hasi zen konturatzen bere

⁶⁴⁸ Frantziska Peñagarikano Dorrnsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrnsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9. Frantziska Peñagarikanoren arabera “jolasten ari ginela topatu genuen gorpua. Errekaren ondoan zegoen”.

⁶⁴⁹ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25. Hala ere, Anselmo Ruizek ere zehazten du “nik bere gorpua ez nuen ikusi”, beraz ematen du orduan herrian entzun zuten bertso bat izan zela.

⁶⁵⁰ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁶⁵¹ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014ko ekainaren 25.

⁶⁵² Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁶⁵³ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

aita han egon zitekeela⁶⁵⁴. Arantza Ugarteren arabera, familia batek ikusi zuen Guillermo Ugarte nola atxilotzen zuten, baina ez ziren ausartzen ezer esatera, euren integritate fisikoa gordetze aldera. Gauez joan omen ziren Zesareo Ugarteri berri hura kontatzera, eta Zesareo hilerrira joan zenerako, jada Guillermo Ugarte hila zegoen⁶⁵⁵. Maria Pilar Lozaresen arabera, Zesareo Ugarte hain aztoratua zegoen, ezen ezin izan zuen lehenengotan bere aitaren gorpua ezagutu, bertan bere semearen bila zebilen Maria Lozares Arinek seinlatu behar izan omen zion⁶⁵⁶. Marcelo Bergara Lozaresen amak bere beste seme baten bitartez jakin zuen Marcelo atxilotu egin zutela Maria Pilar Lozaresek kontatu digun moduan, orduan jabetu zen ez zegoela zer eginik. Hala ere, gauez hilerrira joatea erabaki zuen Hilerrian sartzeko komeriak pasatu behar izan zituen, hilerriko bidean soldadu bi baitzeuden inori pasatzea galarazten, eta hilerriko atean beste bi. Bai lehen bikoteari zein besteari hainbat aldiz eskatu behar izan zien pasatzen uzteko, eta azkenean lortu zuen pasatzea. Maria Pilar Lozaresen arabera, Maria Lozaresek bere seme Marcelo Bergararen gorpua identifikatzea lortu zuenean, zapia atera eta aurpegia odolez garbitu egin zion. Ez zen gehiago Beasaingo hilerrira itzuli⁶⁵⁷.

Evaristo Mendiaren familia ere bertara joan zen, hain zuzen Luzia Mendia, bere senitartekoaren gorpua ezagutzera. Luzia Mendiak “gestio” batzuk egin behar izan omen zituen hilerrira joan eta gorpua errekuperatu ahal izateko, baina azkenean lortu egin zuten eta orain familia panteoi batean ehortzirik dago Evaristo Mendia⁶⁵⁸. Beste alde batetik, Saturnino San Martinen familiak nahiago izan zuen berririk ez jakin eta honi itxaron. Jose Maria San Martin Osinaldek kontatu digun bezala, “lehen egunean ez zuten ezer jakin, bigarrean ere ez, hirugarren egunean jakin zuten fusilatu egin zutela”⁶⁵⁹. Ikusten dugun bezala, familia bakoitzak erreakzio ezberdina izan zuen zorigaitzaren aurrean.

Victoria Huergo Toferen kasuan, *El Liberal* egunkariaren kronikaren arabera, Huergo Toferen senitarteko batek ere galdetu omen zuen bere sendiko emakume erailari buruz, “inork ere non zegoen jakinarazi ez ziolarik”⁶⁶⁰. Egunkari honen arabera, “herriaren kanpoaldean, erdi lurpean erdi agerian” topatu zuten Huergo Toferen gorpua.

⁶⁵⁴ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 351-352. or.

⁶⁵⁵ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁶⁵⁶ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁶⁵⁷ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁶⁵⁸ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁶⁵⁹ Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁶⁶⁰ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

3. kapitulua

Honek erakusten digu, hildako honen senitartekoak ere saiatu ian zirela bere senidea bilatzen. Bertsio ezberdin bat ematen digu, hildakoaren biloba ordiziar batek, Victoria Martin Lamatak: honen arabera, “hil zutenaren abisua pasa zioten amari (Victoriaren alabari). Ama hilerrira joan zenerako hilda zegoen”⁶⁶¹. Hala ere, bertsio honek badu arazo bat: lehen azaldu dugun moduan, Lamata-Huergo sendiaren artean, bertsio ezberdinen inguruko zalantza handia dago Victoria Hergo Toferen heriotzaren inguruan. Victoria Martinen bertsioa “garbiegia” da gero hainbesteko zalantzak egon daitezzen.

Baina kasurik dramatikoena, Jaime Agurruzaren familiaren kasua izan zen. Lehen komentatu izan dugu gazte iruindarra erreketekin sartu zela Beasainen Bera hil zenean, bere familiako baten bat, bere osaba jeltzale Serafin Beolarengana joan zen “zuek hil duzue, zuen ideiek hil dute, zuek ekarriko duzue!” esatera. Beolaren erantzuna “ideiek ez dute hiltzen” izan zen, baina ez zioten jaramonik egin, izan ere “zuen ideiek hil dute!” esaldiak “zuen ideiek hila izan behar du” ideia ezkututzen zuen; hau da, Jaime Agurruzaren heriotzaren “errekreazio” bat emango zen, familia karlistaren narratiban ondo sar zedin. Kasu honetan, ikusten den bezala, heriotzaren inguruko desitxuraketa narratiboa egiten da, gudara joan nahi ez zuenean gudan hiltzearren, guda horretara bultzatu zuenak errua hirugarren bati botatzean, eta horrela heriotza bat “heroikoagoa” egiterakoan. Serafin Beola orduan kotxez Beasainera etorri zen, eta Beasainen hilerrira sartzea izan zuen (Iñako Beolaren ustez, familia karlistak kontaktuak zituen eta horrela lortu zuen senitarteko bat gorpua berreskuratzea joatea), Jaime Agurruza identifikatzera. Identifikatzea lortu zuen, nahiz eta gorpuk “oso deskonposatuta” zeuden. Gaur egun, Jaime Agurruza Iruñeko Askatasun Plazan dagoen “erorien” mausoleoan dago, “Jainkoaren eta Espainiaren alde” erori zirenekin batera. Jaime Agurruzaren omenezko domina bat ere eman zioten bere familiari. Istorioa (edo historiaren desitxuraketa) sinesgarriagoa egiteko, heriotza-data ere aldatu egin izan zuten: 1936ko uztailaren 27an eurek hil zutena, 1938ko uztailaren 28an “Jainkoaren eta Espainiaren alde” hilda agertzen da. Iñako Beolak ematen digu honen definiziorik onena: “memoria faltsutzea da hori, argi eta garbi”⁶⁶².

Ehorzketa hauen inguruan, Beasaingo udal frankistak, 1936ko abuztuaren 13ko Osoko Bilkurako aktan dakarrenez, dio “hamar langile” erabili behar izan zituela “sei orduz lan egiten”, “Mugimendu Nazionalaren ondorioz hil zirenak ehorztek”o. Ez du

⁶⁶¹ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...*, 206. or.

⁶⁶² Iñako Beolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

beste xehetasunik ematen (ez eta non edo nola hil ziren zehazten). Ordainketa hori atzeratuta zegoela ohartarazi zuen Beasaingo udal plenoak⁶⁶³.

Urte batzuen ostean, familiakide batzuek nolabaiteko erreparazioa eskatu zieten agintari frankistei. Halako kasu bat izan ziren Andres Izaguirreraren familiarena. Honen alardun Justina Berasategi zegamarrak 1941.ean Gipuzkoako FET-JONS alderdi bakarraren buruari idatzi zion “nire senarrarengan egindako bidegabekeria” konpontzeko eskatuz. Idatzi hau Zegamako FET-JONSeko buru Julian Aseguinolaza Asurmendik abalatzten zuen (Justina Berasategi zegamarra zen berez), eta baita Beasaingo borrokan arte hartu zuten zortzi erreketek, zein erreketekin etorri zen Oronoz-Mugaireko apaiz Miguel Conde Zabaletak. Hauen arabera, Izaguirre “kristau baten moduan” hil zen. Pedro Barrusoren arabera, erreklamazio hau Mugimendu Nazionalaren Idazkaritza Nagusiaren Ministeriora eta Armadaren Ministeriora iritsi zen, baina hauek, Izaguirreraren heriotza “akatsa” izan zela esan bazuten ere, erreklamazio horri ezezkoa eman zioten, helegite horri men egiteko legerik ez zegoela argudiatuta⁶⁶⁴.

3.5 Bestelako berehalako errepresioa

Behin altxatuak Beasainen sartu zirelarik, aipatu 35 pertsonak hil ostean, beasaindarrekiko jazarpenak ez zuen etenik izan. Hurrengo asteak eta hilabeteak bereziki gogorak izan ziren beasaindarrentzat.

Beasain hartu eta hurrengo egunean Alberto Ruiz Moriones komandantea etorri zen Beasaina, Beasainen zeuden tropa okupatzaileen ardura hartzeko. Herri testigantza gehienen arabera, Morionesek hasierako errepresio gogorra nolabait “geratu” egin zuen; adibidez, Milagros Mujika Aranbururen testigantzaren arabera, “harritu egin zen hainbeste preso ikusi zuelarik”⁶⁶⁵. Jose Antonio Egidok bere liburuan ezartzen duenez, Alberto Ruiz Morionesek “berriz ordena ezarri zuen, eta ihes egindakoak berriz lanera itzul zitezten deitu zuen”. Hala ere, Beasaingo fabrikak militarizatu egin zituen, beraz, ihes egindako langileak etxera itzultzeko deia utilitarioa zen humanitarioa baino⁶⁶⁶. Miren Barandiaranen arabera, 48 ordu eman zieten ihes egindako langileei lanera itzul

⁶⁶³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁶⁶⁴ BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...* op. cit., 113-114. or. Lehen esan dugun bezala, bere seme Luis Izaguirre Berasategin 1970.ean Ordiziako plazako horman zegoen Cayuelaren ohorezko plaka harrika apurtu zuen.

⁶⁶⁵ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. 2014-VIII-5

⁶⁶⁶ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 95. or.

3. kapitulua

zitezen⁶⁶⁷. Herri testigantza batzuek ere baieztatzen dute Morionesek ardurak hartu zituenetik, kaosa murriztu egin zela eta arbitrariedade gutxiago eman zela. Adibidez, grabatu ezin genuen testigantza batean, Paulino Aranburuk, “Morionesek hilketak moztu egin zituen”. Jesus Lopez Gallegok esaten digun moduan, “falangistek asko lapurtu zuten (...) nire arreba modistari makina bat ere lapurtu zioten, baina Alberto Ruiz Morionesek itzultzeko agindu zuen”⁶⁶⁸. Arantza Ugarte Azkarateren arabera, bere aitona Pako Azkarateren fondaren kontrako salaketa bat egon zein behin, han batzar klandestinoak egiten zirela eta (“Pakoren fondara” askotan joaten ziren abertzaleak)⁶⁶⁹. Hala ere, Ruiz Moriones bera joan zitzaion Pako Azkarateri ea egia zen hala ez, eta Azkaratek ezezkoa esan zuenean, Alberto Ruiz Morionesek salaketa apurtu egin omen zuen. Bigarren salaketa batekin ere berdina gertatu omen zen, baina Morionesek ohartarazi zuen: “hirugarren salaketa bat iristen bada, nik ezin izango dut apurtu”. Arantza Ugarteren arabera “eskerrak, ez zela hirugarren salaketarik iritsi”⁶⁷⁰.

3.5.a) *Kartzelaratuak eta hurrengo asteetan hildakoak*

Hala ere, horrek ez du esan nahi errepresioak jarraitu ez zuenik, jarraitu izan baitzuen, eta oso modu gogorrean gainera. Beasaingo hainbat pertsona, kasu honetan ezkerrekoak edo jeltzaleak herriko kartzelan sartu zituzten. Jose Vicente Iraolaren arabera 22 preso egin zituzten Beasainen (kontuan izanik, ezkertiar edo jeltzale gehienek ihes egin zutela)⁶⁷¹. *Euzko Deya* egunkariaren arabera, 20 bat pertsona atxilotu zituzten⁶⁷², beraz zifra honen ingurumariak (20-22) ontzat eman ditzazkegu. Preso hauetako batzuek, Pedro Mari Usabiaga apaiza⁶⁷³, Bernabe Aierdi Beobide jeltzalea, Jose Vicente Iraola Lasa bera⁶⁷⁴, Victoriano Oñatibia banku-kobratzailea⁶⁷⁵, Gregorio Begue Aguado Tren-konpainiako makinista, errepublikanoa ideiez⁶⁷⁶, Maximino

⁶⁶⁷ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 104. or.

⁶⁶⁸ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014ko ekainaren 25.

⁶⁶⁹ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 110-111. or.; eta Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁶⁷⁰ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁶⁷¹ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 352. or.

⁶⁷² *Euzko Deya*, 1937-V-16.

⁶⁷³ Apaiz hau frankisten barne txosten batean “Asaldata” gisa sailatu zuten. ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...*, 117. or.

⁶⁷⁴ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 353. or.

⁶⁷⁵ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. 2014-VIII-5; eta Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

⁶⁷⁶ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27; Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. 2014-VIII-5; eta Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

Aranburu Otamendi jeltzalea eta bere anaiak, Eusebio Aranburu Otamendi⁶⁷⁷ eta Santiago Aranburu Otamendi⁶⁷⁸, Eusebio Ibarbia Unzueta⁶⁷⁹, Anselmo Garmendia⁶⁸⁰, abertzalea baita ere, Julian Onesimo Palacios “periodista”, *Izquierda Republicanako* kidea zena, Ollakarizketa⁶⁸¹, agian Amilibia izeneko pertsona bat, egurrikatz negozioa zuena⁶⁸², Telleria doktorea⁶⁸³, eta beste zenbait izan ziren (*Euzko Deyaren* arabera, emakume bat ere bazegoen atxilotuta⁶⁸⁴). Atxilotzeko arrazoiak, batez ere politikoak izan zitezkeen, baina askotan inbidiagatik ere axilotu zituzten. Adibidez, Gregorio Begueren kasuan, honen aktibitate handiena arma bat jasotzea izan zen, Trenbide-konpainiako langile guztiek beren posizioa defendatzeko jaso baitzuten. Anselmo Ruizek, kontatu izan du nola izan zen Begue atxilotua: “Nik ikusi nuen garai hartan Gregorio Begue nola eraman zuten kolpeka”⁶⁸⁵. Hala ere, familiaren arabera, inbidia kontuak tarteko salatu zuten Gregorio Begue⁶⁸⁶. Antzeko kasu bat gertatu zen Victoriano Oñatibiarekin. Oñatibia, banku-kobratzailea izan zen, eta Jose Vicente Iraolaren testigantzen arabera, Arregi deitutako lankide oñatiar batek salatu zuen, lan-kontuak tarteko⁶⁸⁷. Bestetik, Jose Vicente Iraola bera arrazoi politikoengatik atxilotzea nahiko gauza arraroa zitekeen, kontutan izanik 1930-1931 artean, hau da Primo de Riveraren Diktaduraren osteko urtean (baina Diktadura horren legeak indarrean zeudenean) alkate izan zela, eta Errepublika izan zela kargutik kendu zuena (beraz ez zirudien politikoki ezkerrekoa).

Kartzelan sartutakoei janaria eramatearen ardura, Francisco Azcarateren kontura zegoen, Beasaingo Udalaren 1936ko abuztuaren 20ko Udal-Bilkurak hala markatzen zuen moduan⁶⁸⁸. Hala ere, ez omen zen nahikoa, Maria Karmen Ibarbia Sarriegiren arabera (bere aita Eusebio Ibarbia Unzueta kartzelan zegoen), “gure aitari janaria eta

⁶⁷⁷ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁶⁷⁸ Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁶⁷⁹ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁶⁸⁰ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁶⁸¹ Clara Ollakarizketak Jabier Garcia Bergarari 2014.ean emandako testigantza. Testigantza hau ez dago grabatua.

⁶⁸² Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁶⁸³ *Euzko Deya*, 1937-V-16.

⁶⁸⁴ *Euzko Deya*, 1937-V-16.

⁶⁸⁵ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25.

⁶⁸⁶ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27

⁶⁸⁷ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 353. or.

⁶⁸⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

3. kapitulua

mantak etxetik eraman behar izan genizkion”⁶⁸⁹. Preso denek gela berean jan eta lo egiten zuten, eta “egunero errezatzen genuen”⁶⁹⁰. Batzuk egunez lanera ateratzen zituzten, adibidez, Santiago Aranburu Otamendi, bere biloba Xanti Lasak kontatzen digun arabera⁶⁹¹. Jose Vicente Iraolaren arabera, Pedro Maria Usabiaga apaiza, bere apaiz-lagunek ere ez zuten bisitatu: “Florencio Aspe eta Pedro Garayalde koadjutorea ez ziren behin ere etorri bera ikustera. Denbora anitz zuen (Aspek) euskaldunen kontrako sermoiak botatzeko, baina ez zoritxarrekoak bisitatzeko”. Iraolaren arabera, Pedro Usabiagak igandetan soilik eman zezakeen meza⁶⁹². Usabiaga horren kontrako sentimenduak nahiko handiak izan ziren Beasaingo altxatuen artean, Veremundo Mendizabalen arabera, Beasaingo gazte karlista batek: “ez dakit zergatik ez duten hori (Usabiaga) behingoan fusilatzen”. Mendizabalen arabera, Pedro Mokoroa apaiza izan zen Usabiagaren kartzela-aldia arintzen saiatu zen apaiz bakarra, “baina ez zuen ezer lortu”⁶⁹³. Emandako tratua nahiko txarra izan omen zen. Aitor Garmendiaren arabera (bere aita Anselmo Garmendia atxilo egon zen), behin militar batek “Azkoitiako frontean hiltzen duten bakoitzagartik, zuetako hogeitau hilko ditugu” mehatxatu zuen⁶⁹⁴. Ez zuten mehatxua hala bete, baina atxilotutako bi behintzat (Gregorio Begue eta Victoriano Oñatibia) erailak izan ziren. Milagros Aranbururen arabera, “nik uste dut nire aita ez zutela torturatu, biana Iruñera eramandakoak bai”⁶⁹⁵.

Aske geratu zirenean, Jose Vicente Iraolaren arabera, 500 pezetako isuna jarri zieten preso batzuei, tartean, Pedro Maria Usabiagari, Bernabe Aierdiri eta Iraola berari; eta gauero komandantearengana joateko beharrezana ere ezarri zieten⁶⁹⁶. *Euzko Deya* egunkariaren arabera, Telleria doktoreari 12.000 pezetako multa ordaindu arazi egin zioten⁶⁹⁷. Beste batzuen arabera, Usabiagari jarritako isuna, handiagoa izan zen. Aske geratzerakoan, Anselmo Garmendiari “jar ezak hire jaka, hoa eta ez haugu berriz herrian ikusi nahi!” esan omen zioten, bere seme Aitor Garmendiak kontatzen duena arabera⁶⁹⁸.

⁶⁸⁹ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁶⁹⁰ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 353. or.

⁶⁹¹ Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁶⁹² IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 353. or.

⁶⁹³ MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 2005, 120. or.

⁶⁹⁴ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁶⁹⁵ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁶⁹⁶ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 353. or.

⁶⁹⁷ *Euzko Deya*, 1937-V-16.

⁶⁹⁸ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16. Beste alde batetik, Milagros Aranburu Mujikaren arabera, “Anselmo Garmendia abertzalea izatearren fusilatzeokotan izan ziren”. Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

Aitor Garmendiak esaten digun arabera, Anselmo Garmendia “demakratuta” ikusi zuen Beasaingo emakume batek (Angeles izenekoak) geltokiaren parean, etxerako bidean zihoala, eta honek “zer egin dizute?” galdetzerakoan, Anselmo Garmendiak “kalean ez nautela ikusi nahi” esan dute. Hori dela eta emakume horrek Igartzako errotoako atzetik Antzizarrera joatea gomendatu omen zion, eta hala egin zuen Garmendiak. Aitor Garmendiak kontatzen digun bezala “aitak beti esan zigun emakume hark bizia salbatu ziola”⁶⁹⁹. Besteren bat, Julian Onesimo Palacios, aske geratu aurretik Iruñera eraman zuten, “liburu eta aldizkari pornografikoak saltzeaz” salatuta⁷⁰⁰. Hauxe aske geratu bazen ere, ikusiko dugun moduan Iruñera eraman zuten besteren bat, Gregorio Begue kasu, han hilegin zuten.

Florencio Aspe erretoreak preso horiek ez bisitatzearen arrazoiak asko izan zitezkeen, baina batez ere, bere frankismoarekiko konpromezu politiko eta ideologikoa jarri behar dugu lehen lerroan. Lazkaoko Veremundo Mendizabalen arabera, Florencio Aspek Lazkaoko hiru apaiz (aita Veremundo bera, aita Emiliano eta aita Bernardo) salatu zituen eskuinaren blokearen kontra agertzearen. Horrez gain, Florencio Aspek mezetan sarraskirako deiak egiten zituzten hitzaldiak botatzen zituen, adibidez, Veremundo Mendizabalen hitzetan Aspek (erdaraz) “errekotok eta falangistok; hil itzazuen marxistak, garbitu itzazue!” bezalakoak esaten zituen⁷⁰¹. Ihes egindako pertsonentzat ere hitz oso gogorak izan zituen Aspek, askorengatik “joan dira jada, ez dira itzuliko!” esaten baitzuen⁷⁰²; edo gorriak “Satalinen (sic; Satan eta Stalinen arteko hitz joko) ikasle” bezala tratatzen zituen sermoietan⁷⁰³. Euskararen kontrako jarrera gogorra ere erakutsi zuen Aspek, erdaraz predikatzen zuela justifikatzeko behin “batzuek euskaraz egiten dudalako kritikatzten naute, beste batzuek erdaraz egiten dudalako; beraz, nire ama-hizkuntzan egingo dut” esan zuen eta segidan sermoiari erdaraz ekin zion, benetan bere ama-hizkuntza euskara bazen ere⁷⁰⁴.

Baina klerutza abertzalearen kontrako errepresioaren Beasaingo adierazle nagusia, Beasaingo kartzelan atxilotua egon ez bazen ere, Juan Jose Usobiaga

⁶⁹⁹ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁷⁰⁰ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2458-38 kausa, Julian Onesimo Palaciosi dagokiona.

⁷⁰¹ MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 118-119. or.

⁷⁰² Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6.

⁷⁰³ Paulino Aranbururi eskertzen diot datu hau. Testigantza hau ez dago grabatuta.

⁷⁰⁴ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: “Beasain. Euskara azken mendeetan” (7-18. or.) in *SIADeco: Euskara Beasainen. Azterketa soziolinguistikoaren laburpena*. Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua-Beasaingo Udala, Beasain, 1990. 13. eta 14. or.

3. kapitulua

Irazustabarrena, *Juan Iturralde* da, apaiza izatez gain idazlea eta 1936ko estatu-kolpearen motibazio politiko zein militar eta nondik-norakoen ikerlaria izan zena. 1936an Juan Iturralde Tolosako Sakramentu Santuaren komentuan bizi zen. Lehenik, 1936ko abuztuan atxilotu zuten Beasainen, Altamira baserrian zegoela bere koinatu karlistarekin izandako eztabaida politiko-erlijioso baten ostean; bere senitartekoak Euskal Estatutua eta Muxika gotzaina iraindu eta Euskal Estatutua kritikatu zituelarik, Iturraldek erantzun egin zion. Hurrengo egunean bi goardia zibilek esan zioten Alberto Ruiz Moriones komandantarengana joan behar zela; Morionesek, Iturralde “abertzalea” zela eta etxeko-atxiloaldia ezarri ziolarik. Iturraldek ziur zegoen bera salatu zuena bere koinatua izan zela, “bere aurrean bakarrik hitz egin nuelako Estatutuaz eta banderaz, eta honi buruz txantxa bat besterik ez nuen egin” baina argitzen du “ziur nago beste norbaitek xaxatu zuela nire kontrako salaketa jartzera”. Hamabost egunez egon zen Juan Iturralde Beasainen, arreba baten etxean preso, eta gero Tolosara joateko esan zioten, baina komentuan atxilo geratzeko, meza ematea galarazi ziotelarik⁷⁰⁵.

Iturralderen kontrako atxiloketa 1937.eko maiatzaren 16an izan zen, Tolosan zeuden beste bi apaizekin (Francisco Ezizolazarekin eta Angel Garciarekin) batera. Ondarretako kartzelara eraman zituzten zuzenean. Han inkomunikatuta egon ziren, bisita gabe eta eskutitzak idazteko aukerarik gabe; eta kartzelan jasotako tratua oso txarra izan zen: bai janaria, bai kartzeleroen tratua oso txarrak ziren. Usobiagaren arabera, bere kontrako salaketa Tolosako komentu barrutik etorri zen, bera berez “etxeko atxiloaldian” zegoelako eta kanpoko munduarekin ez zuelako batere kontakturik. Bere arabera “pentsamendua” izan zen bera salatzeko arrazoia, eta ez ekintza konkretu bat “Beasainen jasandako atxiloketaren ostean, ez bainuen inorekin politikaz aritzeko gogorik”⁷⁰⁶.

Iturralderen arabera, eurak salatu zituenak, epaiketari aurpegia ez ematearren, “gu zigortu nahi izan gintuen, eta lortu zuen, baina akusazio konkreturik gabe”. Hala, maiatzaren 31an, Beorlegui izeneko militar nafar batek, askatasuna sinatu-arazi egin zien, baina kartzelatik atera eta berehala, Gobernadore Militarraren erbesteratzeko

⁷⁰⁵ USOBIAGA, Juan: “Informe del P. Juan Usobiaga” in BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi* (233-248. or.). Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005, 234-236. or. Berez pertsona horren izena Juan Usabiaga da (ezizenez *Juan Iturralde*), baina liburu horretan “Juan Usobiaga” azaltzen da; hori dela eta, testuan “Juan Usabiaga” bezala aipatzen dugu baina aipu bibliograikoetan, aldiz, “Juan Usobiaga” utzi dugu.

⁷⁰⁶ *Ibid.*, 234. eta 238-241. or.

agindua heldu zen. Jada apaiz erbesteratuak Hendaiara eramango zituen kotxea prest zegoen; beraz, amarrua aurretik pentsatua izan zuten Donostiako agintari frankistek⁷⁰⁷.

Kontutan izan behar dugu baita ere, altxatuak Beasainen apaiz batekin sartu zirela, “apaiz gizen batekin”, Jesus Lopezen arabera⁷⁰⁸. Apaiz horrek pistola bat erabiltzen omen zuen, Arantza Ugarteren arabera, “eta nire amak galdetzen zuen nola zen posible apaiz bat pistolarekin ibiltzea”⁷⁰⁹. Jakin badakigu Oronoz Mugaireko apaiz Miguel Conde erreketekin Beasaina etorri zela, eta baita ere hildako batzuei hilerrian konfesioa eman ziela⁷¹⁰. Lezaungo apaiz Monico Azpilicueta ere bertan ibili zen, erreketekin⁷¹¹; baina Julio Arosteguiaren arabera, Beasainen ibilitako zutabeetako erreketek asko Leatxeko apaiz Jesus Ancinek errekrutatu zituen, beraz, baliteke hau ere izatea Beasainera etorri zena⁷¹².

Elizan erdara inposatu zuten agintari frankistek, Veremundo Mendizabalen arabera, beneditarren komentuko prioreak erdaraz egin behar zuen “Militarren inposizioz, ordura arte hizkuntzan horretan elizkizunak egiteko ohiturarik ez bazen ere”⁷¹³. Ataunen ere elizkizunak erdaraz inposatu zituzten, eta “Ave Maria hitz latinoekin hasi arazi (...) “Agur” hitza esatea ere debekatu baitzuten (...) Beasaingo komandanteak horregatik Marcelino Errezola apaiza deitu zuen”. Pia Maria Barandiaranen arabera “horregatik jende askok uko egin zion elizara gehiago joateari” eta “etxe partikularretan, adibidez Ataungo Sutegi etxean euskarazko otoitzaldiak egiten zituzten kristau ataundarrek”⁷¹⁴.

Apezgo abertzalearekiko, edota filoabertzalearekiko zigorrak ez ziren soilik norbanakoen kontrakoak. Veremundo Mendizabalen arabera, Lazkaoko beneditarren komentuko arauak aldatu egin zituzten, Infantadoko dukearen nagusitasuna azpimarratu nahian; eta baita ere komentu barruan euskaraz hitz egiteko debekua ezarri zuten arau

⁷⁰⁷ Ibid. 247-248. or.

⁷⁰⁸ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014ko ekainaren 25.

⁷⁰⁹ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁷¹⁰ BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión...* op. cit., 114. or.

⁷¹¹ Andoni Sarriegi Eskisabeli eskertzen diot datu hau.

⁷¹² AROSTEGUI, Julio: op. cit., 315. or.

⁷¹³ MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 119. or.

⁷¹⁴ BARANDIARAN, Pia Maria: op. cit., 652. or.

3. kapitulua

berriok. Gainera, “Espainia osoko apaizak” onartzea ontzat ematen zuten arau berriek baina “Frantziatik zetozen apaizak” Lazkaon sartzea debekatzen zuten⁷¹⁵.

3.5.b) *Hurrengo egunetan hildakoak*

Beasainen preso zeuden pertsonengana itzuliko gara orain. Jose Vicente Iraolaren arabera Beasaingo kartzelan zeuden presoak, abuztuaren 14an atxilotu zituzten eta irailaren 19an atera zituzten. Aitor Garmendiaren arabera “bi hilabete inguru” egin zituzten presoek kartzelan⁷¹⁶. Hala ere, preso horietako batzuk hilak izan ziren. Horietako bat, Victoriano Oñatibia banku kobratzailea izan zen. Iraolaren arabera, “askatu eta bi astetara”, beraz irailaren azken egunetan suposatzen dugunez, berriz atxilotua izan zen, “Arregi izeneko lankide batek jarritako denuntzia bat dela medio”⁷¹⁷. Victoriano Oñatibia Donostian, Ondarretan fusilatu zuten. Iñaki Egañaren lanaren arabera, Victoriano Oñatibia Aramburu 1936eko azaroaren 17an fusilatu zuten Ondarretan, Donostian⁷¹⁸; (Milagros Aranburu Mujikaren arabera, Iruñera eramane zuten fusilatzeraz, baina gure ustez hau ez da zuzena)⁷¹⁹. Beasaingo erregistroan heriotza hori 1936.eko azaroaren 17ko datarekin erregistratu baitzen. Erregistroari dagoionez, esan beharra dago 1981.ean Oñatibiaren alaba Margarita Oñatibia Maizek aurkeztutako instantzia baten ondorioz, 1981.eko irailaren 18an erregistroan heriotza kausa bezala “Espainiar Guda Zibila” ezarri zutela. Azurmendik esaten duenez, berak Oñatibia ezagutzen zuelarik, Oñatibia nazionalista zela esaten digu, beraz bere kasuan, inbidiez at, arrazoi politikoak ere atzeman ditzazkegu.

Talde horretan fusilatutako beste bat, Gregorio Begue izan zen, tren-konpainiaren makinista. Gregorio Begue Iruñera eramane izan zen, eta han fusilatu zuten.⁷²⁰ Bere familiak esaten duenean arabera, susmoa dute, Iruñean, “askatasuna” sinatu ostean, fusilatu edo erail zutenekoa, garai haietan altxatuek erabiltzen zuten praktika hau nahiko arrunta izan zen (*La Voz* egunkariaren arabera, 500 pezeta ordaindu behar izan zituen “aske geratzeko” eta behin aske utzi zutenean fusilatu egin zuten, baina Begue familiak ez digu halakorik esan⁷²¹). Izan ere, Gregorio Begueren biloba

⁷¹⁵ MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 738. or.

⁷¹⁶ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁷¹⁷ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 353. or.

⁷¹⁸ EGAÑA, Iñaki: 1936. *Guerra Civil...* (IV lib.), op. cit., 207. or.

⁷¹⁹ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁷²⁰ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁷²¹ *La Voz*, 1937-V-16. Baliteke Gregorio Begue, Iruñera joan aurretik Beasaingo kartelan egondakoa zenez, agian bertan zegoela ezartzea 500 pezetako “askatasun berme” hori, eta behin ordainduta berriz atxilotzea. Victoriano Oñatibiarekin prozedura hori erabili zuten altxatuek.

Yolanda Begue Redondok kontatzen digun bezala, “aske utzitako baten bat ez zen fidatu, eta errepidetik etorri ordeztatik etorri zen Beasaina. Haren bidez jakin zuten familian fusilatu egin zutela”⁷²². Gregorio Begueren bi ondorengoen arabera, familiak ez zuen izan fusilamenduen inguruko inolako berri ofizialik, eta herritar horren bidez jakin izan zuten. Hori dela eta familiak behin Gregorio Begue hil ondoren ere, Iruñeko kartzelara arropa bidaltzen zuen. Orain arte familiak ez daki Begueren gorpua non dagoen⁷²³ (*La Voz* egunkariak dio Beasainen bere “lau seme-alaben aurrean” hil zutela, baina ez dugu uste hau zuzena denik)⁷²⁴. Yolanda Beguek kontatzen digun moduan, bere aita, Gregorio Begueren semea (Arturo Begue) “behin Falangearen egoitzan sartu zen bere aitaren heriotzaren ingurukoak ikertzen. Ez dakit zer ikusi zuen, baina ikusitakoaz ez zuen hitzik egin nahi, zerbait izugarria behar zuen harek”⁷²⁵. Bestalde, Ordiziako oroimen historikoari buruzko lanean, Begueren erraiak, Tomasa Redondo ordiziarak (honen aita eta anai bat ere fusilatuak izan ziren) kontatu izan du bere senarrak, Gregorioren seme Arturo Beguek “lortu zuela jakitea Gregorio Begue nork salatu zuen. Antza denez, apaiz batek zerikusiren bat izan zuen, baina senarrak ez zidan kontatu zekien dena”⁷²⁶. Gregorio Begue Aguado 1936ko irailaren 22an fusilatu zuten, Beasaingo erregistro zibilean agertzen den moduan.

Izan ziren baita ere etxetik zuzenean atera eta fusilatutako beasaindarrak. Horietako bi Igartua sendiko kideak izan ziren, aita (Jose Maria Igartua Lastra) eta beste seme bat (Hilario Igartua Polo). Kasu hauetan, uztailaren 27an hildako Isidro Igartua Polorekin batera, sendi honetako hiru pertsona hil zirela esan behar dugu. Familia honen kasuan, gainera, sendi bereko hiru pertsona hiltzeak, askotan historiagileek (eta kronikagileek) izenak, datak eta zirkustantziak nahastea ekarri du. (hiru hildakotatik biren gorpuak aurkitu ez izanak, beste alde batetik nahasketa honetan “laguntzen” du). Eta honez gain, familia hau oso borrokalaria, sozialista petoa zenez eta horren ondorioz errepresio handia sufritzeak ere, historiagileen nahasketa hori handitzea ekar zezakeen. Adibidez bat jartzearen, *La Voz* egunkariak “Igartua familiako seme bat, Jose Maria “Mutilos” (sic; Mutiloa) herriaz ari da) deitutako meatzera eramana, eta han biluztua eta

⁷²² Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁷²³ Yolanda Begue Redondoren aitona zen Gregorio Begue. Emakume honen amaren familiaren (Redondo familiaren) aldeko aitona (Benito Redondo) eta osaba bat (Fausto Redondo) ere hil egin zuten altxatuek. Gorpu hauek ere ez dira aurkitu.

⁷²⁴ *La Voz*, 1937-V-16.

⁷²⁵ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁷²⁶ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...*, 150. eta 153. or.

3. kapitulua

eraila izan zen” dio⁷²⁷. Nahiko zuzena, baina akats bat du: Jose Maria Igartua ez zen “seme bat” igartuatarren aita baizik. Beste iturri batzuk are gehiago okertzen dira⁷²⁸.

Herri testigantza gehienek esaten dutenez, *Euzko Deyak* Jose Maria Igartua aitari buruz esandakoa ontzat jotzen dute: etxetik atera, Mutiloara eraman eta han hiltzen ikusi zutela⁷²⁹. Lekuko batek, Joxe Manuel Azurmendik, berak “igartuatarren aita, etxetik bahitua, arrastaka nola eramaten zuten” dio⁷³⁰. Hala ere, beste batek, Bernardina Aldasoro mutiloarrak, erailketaren toki zehatza ematen digu: “Igartua, Mutiloako Sagasti baserriaren kontra hil zuten, Uhaldeko terrenoetan”⁷³¹. Dataren inguruan, erregistroaren arabera, hildakoa abuztuaren 10ean hil zen, hala dakar 1942.eko martxoaren 30ean egindako Jose Maria Igartua Lastraren heriotza-aktak. Akta horretan hainbat datu interesgarri azaltzen zaizkigu, adibidez, Mutiloan hila izan zela, hango hilerrian ehortzia izan zela, eta are interesgarriago; bere heriotzaren arrazoi gisa “fusilamendua” ezartzen du. Sistemak, berak eragindako erahilketa bat onartzen zuen kasu apurrenetakoa izan zen hau⁷³².

Aitren kasua ikertuta, nahiko argi geratzen zaigu gizon hau Iruñerako bidean hil zela (aipatutako iturri batzuek hori diote, baina beste batzuek inguruabar hau, okerbidez aitaren heriotzarekin lotzen dute). Joxe Manuel Azurmendi Dorronsororen arabera, San Kristobaleko kartzelatik gertu hil zuten, Zubiaga izaneko falangista bat hau hiltzearen arduraduna zela ere bazion Azurmendik⁷³³. Hilario Igartuaren atxiloketaren inguruan, dokumentu idatzietan ez dugu batere ebidentziarik aurkitu. Soilik zantzu bakarra aurkitu dugu. Zantzu honen arabera, Hilario Igartua Elizako kanpaidorrera igo zelarik izan zen zauritua, hara, (armarik gabe) Genaro Sanchezekin batera igo zelarik. Zauri honen ostean, Igartua eta Sanchez, biak, Arangoitiko klinikara eraman zituzten. Altxatuak

⁷²⁷ *La Voz*, 1937-V-16.

⁷²⁸ Adibidez, *Euzko Deya*, 1937-III-21; EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 93-94. or.; ELIZONDO, Mauro: op. cit., 43. or.; eta EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil...* (IV lib.), op. cit., 205. or. *Euzko Deyak* nahiko ondo identifikatzen ditu Jose Maria Igartua aitaren inguruabarrak (data izan ezik), ez ordea Hilario Igartua semearenak.

⁷²⁹ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19; Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. Beasain, 2013-III-25 eta Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁷³⁰ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

⁷³¹ Bernardina Aldasoro Ormazabali egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-X-30.

⁷³² Hala ere, “fusilamendua” kontzeptuaren atzean gaizki-ulertze bat edota eufemismo txiki bat ere egon daiteke; izan ere, teknikoki eta juridikoki Jose Maria Igartua ez zen fusilatua izan, eraila baino. Fusilamendua, eipaketa batean kondena jaso ostean, fusilamendu-pikete arautu bat osatu ostean burutzen den tiroz egindako exekuzioa da. Igartuaren kasuan, ez zen ez epaiketarik, ez kondenaren aktarik ez pikete arauturik egon, beraz fusilamendua baino, erailketa izan zen.

⁷³³ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

Beasainen sartzekoan bien bila joan ziren, baina Igartua soilik agertu zuten, Sanchezek zauri arinagoak zituela eta etxera bidali zuten eta⁷³⁴. Genaro Sanchezen etxera joan zirenean, honen amak, hau tuberkulosiak jota zegoela esan omen zien soldaduei, eta hauek ihes egin zuten. Hala Sanchezek bizitza salbatu zuelarik⁷³⁵. Beraz, Hilario Igartua eraman zuten, eta hauxe izan zen Iruñerako bidean tokiren batean hil zutena. Oraindik ez dakigu non hil zuten, ezta ere bere gorpua non dagoen. Bere data zehatza ere ez dugu zehatz mehatz ezagutzen, nahiz eta Mauro Elizondoren arabera “anaia (Isidro Igartua) hil eta hamar egunera”, hau da, abuztuaren 6an hil zuten⁷³⁶.

Badago 1936ean hildako bosgarren beasaindar bat, Antonio Zubiaga izenekoa. Bildutako datuen arabera, pertsona hau Getarian hil zuten, 1936.eko azaroaren 17an. Iñaki Egañaren arabera, atxilotu eta sei ordutara hil zuten⁷³⁷. Hala ere, ematen duenez, pertsona hau hiltzea Beasainen gertatu zenarekiko guztiz independentea zen (1936an, uztailaren 28az geroztik hildako beste laurak ordea, hau da, Gregorio Begue, Jose Maria Igartua, Hilario Igartua eta Victoriano Oñatibia hiltzea; uztailaren 27an altxatuak Beasainen sartzearekin lotuta daude), hori dela eta, gure ustez “heriotzen logika beasaindarrarekin” kanpo izan zen heriotza hori.

Bestalde, hildakoen artean markatu behar da Bujandaren kasua, Beasainen bahitua izan zena. Ez dugu Beasaingo estatistiketan sartu, izan ere Olaberriakoa baitzen, eta Ataunen hil baitzuten, baina Beasainen bahitua izan zenez gero, bere kasuaren gainean aritzeko premia izan badugu. Bujanda CAFeko langilea izan zen, eta horrez gain, bere seme-alaben arabera, “sindikatu batetako delegatua” izan zen⁷³⁸. Halako batean, “inbidiagatik” edo, norbaitek salatu egin omen zuen, eta eskuindarren pelotoi bat joan zen bere bila. Pelotoi horren buru “gero CAFen segurtasun goardia bezala lan egiten zuen bat (...) trenera bere burua bota zuen bat, Arguiñano izeneko bat” izan zen⁷³⁹. Bujanda neba-arrebek azaltzen duten moduan, “makinan lanean ari zela pelotoi

⁷³⁴ Kontuan izan behar dugu, *Euzko Deya* egunkariaren arabera (*Euzko Deya*, 1937-III-21) “Lau guardia zibil, zaurituak zeudela, ospitaletik atera zituzten fusilatzeke”. Gure ustez ez da oso gertagarria guardia zibil haiek ospitaletik bahitu izana; litekeena da *Euzko Deyak* guardia zibilen gertakizuna eta Hilario Igaruarena nahastea.

⁷³⁵ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25. Andoni Sarriegi Eskisabelek ere datu hori baieztatu dit, grabatu gabeko elkarrizketa batean.

⁷³⁶ ELIZONDO, Mauro: op. cit., 43. or.

⁷³⁷ EGAÑA, Iñaki: 1936. *Guerra Civil...* (IV lib.), op. cit., 208. or.

⁷³⁸ Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14.

⁷³⁹ Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14. Deskripzioak Epifanio Arguiñanorekin bat egiten du, nahiz eta Bujanda neba-arrebek bere izena espresuki ez esan.

3. kapitulua

bat etorri zen eta eurekin joateko esan zioten. Gure aitak esan zien jaka hartu behar zuela, eta eurek (erdaraz) “egingo duan bidaiarako ez duk jakaren beharrik izango”⁷⁴⁰. Ataungo San Gregorio pasatuta, Lizarrusti igotzeko mendian hil omen zuten; Bujanda neba-arreben arabera, han lanean, egurretan zegoen pertsona batek ikusi zuen kamioi bat etortzen eta gorde egin zen. Kamioitik bi pertsona ikusi zituen jaisten “aita (Bujanda) eta beste bat, ez dakigu nor eta sekula ez dugu jakin”.

Pertsona hori agian Emeterio Garmendia izan zitekeen, ordiziarra eta EAEko afiliatua, Lizarrustin hilda baita. Bere heriotza, “1936.eko abuztuaren erdialdera” izan arren, 1936eko urriaren 8an erregistratua izan zen. Hala ere ez dugu jakiterik, izan ere, Lizarrustin fusilatze bat baino gehiago izan zen⁷⁴¹. Bujanda neba-arreben arabera, Lizarrustin zegoen basomutilak gordeta ikusi zuen dena, bera ere beldurrez baitzegoen. Frankistak joandakoan, Ataungo Aiako apaizari (hots, Joxe Paskasio Bikuñari, abertzalea omen zenari, honi frankistek mila pezetako multa jarri zioten arrazoi horrengatik⁷⁴²) kontatu zion bi gorpuak han zeudela. Apaizak eta basomutilak Ataungo Aian lurperatu zituzten, toki ezezagun batean⁷⁴³. Pia Maria Barandiaranek bertsio hori baieztatu egiten du, bere arabera “Olaberriko gazte bat Lizarrustiko produktu kimikoen fabrikaren eta Nafarroarako muga-katearen “kaseta”-ren ondoan hil zuten. Harizti baten ondoan lurperatu zuten”⁷⁴⁴. Esan beharra dago, Lizarrustiko fusilatze batzuen lekuko izan zela Joxe Agirre Arratibel ataundarra, baina honek hiru gorpu ikusi zituen “Erriondoko inguruetan (...) bertan eskopetarekin zeuden gizon batzuek ez begiratzeko eta aurrera segitzeko esan zigun” (arrebarekin zihoan Joxe Agirre). Bere arabera, berak gero Bikuña apaizari hildako horiek hor zeudela esan zion, eta lurperatu egin zituzten⁷⁴⁵. Hala ere, kontutan izanik Lizarrustin fusilatze bat baino gehiago egon zela, ez dago argi Joxe Agirrek ikusi zuen gorpuetako bat Bujandarena zenik (Bujandaren seme-alabek egun horretan bi fusilatu zituztela esan zuten, eta lekukoa, basomutila, “gordeka” zebilela; Joxe Agirrek aldiz, hiru gorpu ikusi zituen, eta gainera, exekutatzailleekin topo egin zuen).

⁷⁴⁰ Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14.

⁷⁴¹ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...*, 163. or. Hemen jasotzen den moduan, Lizarrustin fusilatutako bost pertsonetatik, izen-abizenekin erregistratutako bakarra ordiziar hau, Emeterio Garmendia da, besteak, Bujanda barne, zizen gabe ageri dira.

⁷⁴² BARANDIARAN, Pia Maria: op. cit., 649. or.

⁷⁴³ Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14

⁷⁴⁴ BARANDIARAN, Pia Maria: op. cit., 650. or. Olaberriako gazte hori, Bujanda besterik ezin zitekeen izan, izan ere, Ataunen ez zuten beste olaberriarik hil, eta gainera, hildako beste guztiak, Barandiaranen arabera, Ataungo Aiako hilerrian lurperatu zituzten (Bujandarekin ez zen halakorik gertatu).

⁷⁴⁵ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...*, 163. or.

Bujanda neba-arrebek exekutatzaileen izenik ez dute ezagutzen, soilik pelotoiaren buru izan zen Arguiñanorena. Honek gainera, herrian, Bujandaz galdetzen ziotenean, “hortik desagertu diren horiengatik egin daitekeen gauzarik onena, euren alde Gure Aita otoitz egitea da” esaten omen zuen⁷⁴⁶. Pia Maria Barandiaranen arabera, Ataunen, aurreko exekuzio batzuetan (Ordiziako bi eta Itsasondoko bat) exekutore moduan aritu zena Jose Antonio Urdangarin izan zen, Ataungo Auzmendi baserrikoa; baina ez du zehazten Bujandaren kasuan ere hala izan zenik⁷⁴⁷.

Azkenik, aipatu behara dugu baita ere, Iruñean, 1936.eko abuztuaren 15ean hildako Escalante deitutako ordiziar bat. Ordiziako memoria historikoaren liburuan agertzen denez, pertsona honen abizena eta fusilatzearen data eta tokia soilik ezagutzen dira, ez bere ponte izena ez sorterri data. Lan hori egin izan duen lantaldearen arabera, pertsona honen erreferentzia, Euzko Jaurlaritzaren Irargi artxibategian aurkitzen da, *Euzkadi bajo el régimen de Franco: La represión en Guipúzcoa* txostenean. Liburu horretan azaltzen denez, bere lanbidea ere ez dago argi: Euzko Jaurlaritzak egin zuen fitxaren arabera, Tren-apeaderoaren burua zen, Jose Migel Barandiaranek biltzen duenaren arabera, egunkari-saltzailea. Hala ere, guri interesatzen zaiguna Beasainekin zuen lotura da. Ordiziako memoria historikoa egin zuen taldearen arabera, pertsona hau 1936an Beasainen bizi zen, baina ez dute hori baieztatzen duen daturik ematen. Bestetik, Jose Migel Barandiaranek biltzen duenaren arabera, “altxatuak Ordizian sartu zirenean, Beasainen ezkutatu zen. Egun batzuk geroago Beasaingo komandante militarrengana joan zen, eta honek Ordiziako etxera joan zitekeela esan zion; hara heltzean atxilotua, Iruñera eramana eta han hil zutelarik”⁷⁴⁸.

3.5.d) Usategi baserriko heriotzak

Usategiko baserria zenaren inguruan (baserri hori egungo Igartzako errostatik hurbil zegoen), 1936ko urriaren 14an bi heriotza jazo izan ziren; 57 urteko Juana Martina Alustiza Goitia eta 28 urteko Maria Ramona Lakarra Alustiza ama-alabak hil egin ziren. Bi hildako hauek Euzko Jaurlaritzaren txostenaren arabera “fusilatu” gisa agertzen dira. Ane Beledoren *Gipuzkoa: Udal errepublikanoetatik frankistetara* lanean

⁷⁴⁶ Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14.

⁷⁴⁷ BARANDIARAN, Pia Maria: op. cit., 650. or.

⁷⁴⁸ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 120-121. or.

3. kapitulua

Juana Martina Alustiza Goitia “exekutatu” izan zela dakar⁷⁴⁹; eta Iñaki Egañak, bere *Guerra Civil en Euskal Herria* lanean, bi pertsonak, Alustiza eta Lakarra “beren Usategi baserrian indarkeriaz hilda agertu ziren, inguruabar hauek ez ziren sekula ikertu eta tokiko agintariak ezkutatu egin zituzten”⁷⁵⁰. Hori dela eta, zenbait lanetan bi pertsona hauek exekutatuak edo fusilatuak izan zirenen inpresioa gera daiteke.

Hala ere, ez zen halakorik gertatu: bi pertsona hauen heriotza gudaren ondorioa izan zen, baina ez erailketa. Usategi baserriaren beste bizitzan bizi ziren ibarbiatarrekin izandako elkarriketan kasu hau argitzeko aukera izan dugu. Gertatu izan zena zen Alustiza-Lakarra familiako osaba batek granada bat topatu zuela soroan eta etxera ekarri zuela bitxikeria moduan. Ama-alabak topatu zituen baserrian, eta hauek, nahi gabe kaskoa askatu zuten, eragindako eztandak hil egin zituelarik. Baserriko atarian izan zen hori. Osaba hura, jada barruan, sukaldean zegoelako libratu egin zen: Maria Karmen Ibarbiaren arabera “Zer egin dut? Zer egin dut?” oihuka atera zelarik. Ondo gogoratzen du gertakari hura handik gertu zegoen Felipe Ibarbiak: “danbatekoa indartsua izan zen. Aita eta biok eskailera batekin mahatsak biltzen geunden, eta danbatekoak eskailera eta biok bota gintuen lurrera”⁷⁵¹. Honen bestez, Juana Martina Alustiza eta Maria Ramona Lakarra, gudaren ondorioz hildako herritarrak ditugu, guda gertatu izan ez balitz istripu hori gertatuko ez zatekeelako, baina ez gudan fusilatutako edo exekututako herritarrak.

3.5.e) *Errepresio politikoa*

Ihes egindako Udal-langileei enplegua eta soldata bertan behera uztea erabaki zuen Beasaingo udalak 1936ko abuztuaren 27ko bilkuran, “ihes egitea justifikatzen ez duten artean”⁷⁵². 1936.eko azaroan, behintzat lau langile izan ziren euren postuetatik kanporatuak, Beasaindik ihes egin zutela eta: Candelario Aramburu Mugica idazkaritza-ofiziala (euskal abertzalea), Juan Aramburu Irizar arbitrioen arduraduna (Herri Frontearen aldekoa), Segundo Lozares Escobar (sic)⁷⁵³ algoazila (*Izquierda Republicana* alderdikoa) eta Francisco Zabaleta Donazar (joera jakinik gabekoa)⁷⁵⁴.

⁷⁴⁹ BELEDO, Ane: *Gipuzkoa: Udal errepublikarretatik frankistetara*. Aranzadi eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Donostia, 2010, 56. or.

⁷⁵⁰ EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil...* (IV lib.), op. cit., 208. or.

⁷⁵¹ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarriketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁷⁵² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁷⁵³ Pertsona honen benetako izena Segundo Lozares Escolar zen, ez “Escobar”.

⁷⁵⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 11 dokumentu-sorta.

Candelario Arambururen kasuan, 1923.etik Udal-langilea zen eta 1933tik aurrera idazkaritza-ofiziala zen pertsona hau; 1944ko abuztuaren 19an izan zen erabat depuratua, Beasaingo Udalaren akordio baten ondoren (nahiz eta aurretik lanetik apartatua izan zen). Depurazioari oniritzia eman zion Beasaingo bake-epailea, Eusebio Asla Lapart zinegotzi frankista izan zen. 1979. urteari itxaron behar izan zion bere zahartzaro-saria eta bestelako eskubideak onartuak izateko⁷⁵⁵. Halako kaleratzeen emaitza bezala topatzen dugu 1936.eko azaroan, Udal-langile guztiak, bi izan ezik, denak altxatuen aldekoak (edo eskuindar espainolistak) izan zirela⁷⁵⁶.

Irakasleen artean ere berdina gertatu zen. Izan ere, dakigunaren arabera, 1936ko urriaren 1ean, bost irakasle (hiru gizonezko eta bi emakumezko⁷⁵⁷) ez ziren agertu beren klaseak ematera. Hori dela eta, euren postuak galdu zituzten. Jakin badakigu, urriaren 22an, beste lau pertsona aurkeztu zirela postu horiek betetzera; tartean gudan zeuden bi bolondres erreketek (Andres Catarain Urrestarazu eta Jose Ignacio Aramburu Aguirre), eta “izena ez dakigun” falangista bat⁷⁵⁸. Beraz, hemen ere, postuen ideologiaren araberrako adjudikazioa ikusten dugu. Emakumezko irakasleen postuak betetzeko, kasua bitxiagoa izan zen: 1936.eko urriaren 9an Ezkia-txiki baserriko Teresa Lasa Sarasola izeneko andreak eskaini zuen bere burua⁷⁵⁹. Teresa Lasa, 1934.eko greban parte hartu zuen, eta 1935.ean epaitu eta preso izandako, eta gero gudari ibili eta berriz preso hartutako, eta aske gelditu ostean errepresioa jasandako Rufino Lasa Sarasola abertzalearen arreba zen.

Horrez gain, armada frankistarentzat diru-bilketa edota material-bilketa egin behar izan zenean, ezkerreko pertsonak edota abertzaleek ere kontribuzioa egin behar izaten zuten (behartuta, edota beste ezbeharren baten beldurrez). Adibidez, 1936eko urriaren 3an Armada frankistaren alde egin zen arropa-bilketan, non 67 subjektuk (pertsonak eta familiek) parte hartu zuten, Azpeitiaren familiak (alkateorde errepublikanoa, frankistek kargutik kendutakoa), Jacinto Urteagaren (1931-1934 arteko alkate errepublikanoaren) alargunak parte hartu zuten; eta baita ere fusilatu batzuen familiek, Guillermo Ugarterenak eta Andres Izaguirrerrenak, adibidez. Eta are gehiago:

⁷⁵⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 4248 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

⁷⁵⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 11 dokumentu-sorta.

⁷⁵⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 03. dokumentu-sorta. Emakumezkoetako bat Teresa Setien izan zen, gaixo zegoena, azaroan berrinkorporatu zen bere pstura. Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 04. dokumentu-sorta

⁷⁵⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 06. dokumentu-sorta

⁷⁵⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 252 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

3. kapitulua

gutxira fusilatua izan zen Victoriano Oñatibiak ere jertse bi eman zituen⁷⁶⁰. Beraz hau esanda, argi geratzen zaigu “borondatezko” bilketa honetan koertzio osagarri handi bat izan zela, beraz errepresio bezala hartu dezakegu, behintzat beasaindar askoren kasuan (nahiz eta egia den bazeudela arropak afinitate ideologikoagatik, beraz, borondatez batu zituzten beasaindarrak ere izan bazirela).

Jakina zenez, hainbat pertsona zigortzeaz gain, ideia berrien kontrako edozein joera polemiko zigortua izan zen. Hauen kide aktiborik gehienek Beasaindik ihes egin zuten, eta ia jenderik gabe geratu baziren ere, euren izaera legala eta euren jabetzako materiala lapurtu zieten. Hala gertatu zen, adibidez, Batzokiarekin, zeina, FET-JONS alderdi bakarraren egoitza izatera pasatu zen. Alderdi eta sindikatu gehienak Burgoseko Gobernuaren erabakiz zuzenean legez kanpo utziak izan baziren ere, Euzko Nekazarien Bazkunaren kasuan, Gipuzkoako Guda Batzorde Karlistaren bidez debekatu zuten. Honek, abuztuaren 28an, Tolosan egoitza hartua zuelarik bidali zien agindua Euzko Nekazari Bazkuna zegoen altxatuen kontrolpeko herri guztietako alkateei (Beasaingoari barne), erakunde honen izenean ekitaldiak egitea edo honi kotizatzea debekatua geratzen zela azalduz, eta agindu hau nekazari eta albaitari guzitei jakinarazteko agindua emanez⁷⁶¹.

Bestalde, esan beharra dago Beasainen, 1936.ean bertan Batzorde Txostengilea sortu zela, herritarrei buruzko informazioa batzeko eta hauei buruz txostenak egiteko. Batzorde horren kideak hiru ziren, hirurak Udaleko zinegotziak: Francisco Ezquiaga Beracoechea buru bezala; eta Francisco Unzueta Jauregui eta Eusebio Asla Lapart, bakoitzak tarteka idazkari lanak egiten zituelarik. Batzorde txostengile hau noiz sortu zen ez dakigu, baina, jakin badakigu zein izan zen euren funtzionatzeko era: Gehienetan kanpoko erakunde batek (militarrek, epaitegiren batek edo agian tren-konpainiak, garai haietan militarri interbenitua zegoela kontuan izan behar dugu) eskatzen zuen herritarren “joera politikoari” buruzko txostena egitea, alkateari bidalitako gutun bate bidez. Alkateak, Jose Luis Guridik, txosten hau egiteko enkargua batzordeari pasatzen zion; eta honek txostena egiten zuen, gehienetan bost puntu biltzen zituelarik: ezkerreko alderdi edo sindikatu batekiko kidetza, 1936.eko otsaileko bere bozka, 1936.eko uztailean altxatuek Beasainen sartzekoan erresistentzia jarri ote zuen edo armak erabili ote zituen, mezetara edo erlijio-ospakizunetara joaten ote zen eta bere “jarrera

⁷⁶⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 12 dokumentu-sorta.

⁷⁶¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 164 karpeta, 25 dokumentu-sorta.

soziala” zein zen. Batzorde honek 1936an eta 1937an funtzionatu izan zuen, eta guztira 350 bat herritarren txostenak egin zituzten⁷⁶². Kasu batzuetan txostenak alkateak berak egiten zituen, Batzorde Txostengileak parterik hartu gabe, halako kasua da adibidez irakasleen gaineko txostena. Kasu honetan, herrian pertsona ezagunak izaki, posible da alkateak beharrezko ikusi ez izana batzorde txostengilea konbokatu beharra⁷⁶³. Beste batzuetan, batez ere 1937 urtea baino geroago eskatu izan baziren txostenak alkateak bakarrik egiten zituen⁷⁶⁴, izan ere, urte horien ostean txostenak egiten “premia” jaitsi egin zen (jada frankistek euren boterea sendotua ikusi zuten tokietan errepresioa eta kontrol sozialerako behar hori jaitsi egin ziren); edo aurreko txostenen baieztapena denean. Behin batzorde txostengileak txostena osatuta, berriz alkateari bidaltzen zion, honek erakunde eskatzaileari bidal ziezaion (kasu batzuetan txostena pixka bat “moldatzen” zuen alkateak). Ikusten den bezala, batzorde txostengilearen eta alkatearen lan hau erabat politikoa zen, ezkertiarren zein abertzaleen kontrako errepresioaren oinarri izan zirelarik (hauen txostenak froga judizial bezala erabili ohi ziren; eta askotan txostengileek “aukera” hori baliatzen zuten txostenaren objektuaren kontra erabiltzeko, adibidez Victor Bernedo alkate ohiaren kasuan).

3.5.f) *Errepresio ekonomikoa*

Errepresio ekonomiko arautuaren kasu handirik aurkitzen ez badugu ere, erreketeez gehienetan, salaketak zirela aprobetxatuta, edota gudan familia batzuek etxean erreketeez izatera behartuak izan zirelarik, hauen etxe horietan lapurtu edo familien bizkar jaten zuten.

Errepresio ekonomiko arautuaren artean, bederatzi kaltetu aurkitzen ditugu; hain zuzen ere Bernabe Aierdi Beobide (*Mertxenea* etxea interbenitu zioten), Josefa Arbillaga Leturiondo (*Otogoena* etxea interbenitu zioten zioten), Pedro Azarola Gorrochategui (Fermin Galan kaleako –egun, Nafarroa Etorbidea- 19. Zenbakian zuen etxean interbenitu zioten), Severiano Azpeitia Arcelus (bi lursail interbenitu zizkieten, bata 1256 metro karratutakoa eta bestea 1464 metro karratutakoa), Telesforo Gomez Arce (Igartza aldean zuen lursail baten laurdena interbenitu zioten), Valentin Gomez Arce (aurreko lursailaren beste laurden bat kendu zioten), Ladislao Iguain Telleria

⁷⁶² Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 01 dokumentu-sorta; Beasaingo Udal Artxiboa. 073 karpeta, 23 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 02 dokumentu-sorta..

⁷⁶³ Beasaingo Udal Artxiboa. 152 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

⁷⁶⁴ Adibidez; Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 02 dokumentu-sorta; edo Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 03 dokumentu-sorta.

3. kapitulua

(Garcia Hernandez kaleko –egun, Nafarroa kalea- 7. Zenbakiko etxean jabetzan zuen partea (%14) interbenitu zioten), Zacarias Luengo Gimenez (lursail baten erdia interbenitu zioten) eta Juan Urbina Saez (Kale Berrian –egungo Arana kalea- zuen lursail bat interbenitu zioten)⁷⁶⁵. Hauen artean, bi zinegotzi errepublikano (Pedro Azarola eta Severiano Azpeitia), Beasaingo jeltzale ezagun bat (Bernabe Aierdi) eta Defentsa Komitean egondako pertsona bi (Telesforo eta Valentin Gomez Arce anaiak) aurkitzen ditugu. Hauetako bat, Valentin Gomez Arce heriotz-zigorra jasotzera zigortu zuten (1938.eko maiatzean jaso zuen, 1939.eko apirilean 30 urtetara kommutatu zioten, eta 1951.ean atera zen kartzelatik); eta beste bi, Telesforo Gomez Arce eta Bernabe Aierdi ere kartzelan egon ziren (Telesforo Gomez Arce bost urtez, 1937an Bizkaian atxilotua izan zenetik 1942ra).

Hala ere, esan bezala, kasurik ezagunenak arautu gabekoak izan ziren. *Euzko Deya* egunkariak esan zuen moduan, “langileei edo dendariei, edozeini lapurtzen zioten”⁷⁶⁶. Errepresio “arautuaren” kasu bakanetako bat, Paulino Azurmendi, Nekola baserriko jabeari, Arapiles erregimenduko zazpigarren batailoiko kideek txahala espropiatzearena izan zen, gerora balio zuena itzuliko ziotelakoan. Hala ere, ematen duenez, diru hori ez zitzaion itzuli, azaroaren 11n, Azurmendik alkateari protesta bat luzatu baitzion, kexa hau agertuz⁷⁶⁷. Beste alde batetik, lehenago aipatu dugun atxilo egindako batzuek (Jose Vicente Iraolak, Telleria doktoreak, Pedro Maria Usabiagak edota Bernabe Aierdi Beobidek) aske geratzeko isunak ordaindu behar izan zituztela. Errepresio ekonomikoak bazuen nolabaiteko aspektu politikoa; adibidez, Lazkaon, Emakume Abertzale Batzako kide guztiei 150 eta 300 pezeta arteko zigorrak jarri zizkieten. Veremundo Mendizabalek kontatzen duen arabera, Mutiloan, nekazal sindikatutako kide guztiei multa jarri zieten, baina nekazari karlisten aurkako isuna bost pezetakoa zen, eta nekazari abertzaleen kontrakoa 50 pezetakoa. Lekuko beraren arabera “Beasain eta Lazkao arteko etxeetan zegoen guztia lapurtu zuten erreketek eta Nafarroara eraman”⁷⁶⁸. Halako lapurreta asko mehatxuekin egin izan zituzten, adibidez, *El Liberal* egunkariaren kronikak kontatzen duenaren arabera, Etxe batean emakume bati pistola atera zioten, honek erreketek lapurretan ikusterakoan “erlijioak ez du

⁷⁶⁵ Datu hauek eman izana Iñaki Egañari eskertzen diot.

⁷⁶⁶ *Euzko Deya*, 1937-III-21

⁷⁶⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 080 karpeta, 15 dokumentu-sorta.

⁷⁶⁸ MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 119. or.

honelakorik baimentzen!” esan omen zuelako⁷⁶⁹. Pia Maria Barandiaranen arabera, “erreketeek, Beasainen Ordizian, Tolosan eta Gipuzkoako beste herrietan, abertzaleen etxean altzariak hainbeste lapurtu eta Nafarroara eraman zituzten; ezen Iruñea Gipuzkoako altzariz betea zegoela esaten zen”⁷⁷⁰. Veremundo Mendizabalen arabera, Ordizian ere multa gogorak jarri zituzten altxatuek, adibidez, Lina Ondarrari 30.000 pezetako multa eta Perez medikuari 5.000 pezetakoa, bere CAFeko mediku postutik botatzeaz gain⁷⁷¹.

Lapurreta nonahi izaten zen, bai zuzena, eta bai “etxean eduki beharreko” soldaduek zegokiena baino gehiago hartzen zutelako. Adibidez, Jesus Lopez Gallegok esaten digunaren arabera, “falangistek nonahi lapurtzen zuten, kooperatibatik eta” lapurtu egin zuten⁷⁷². Iritzi bera azaldu zion Felipe Ibarbiak Jose Antonio Egidori: “edozein tokitan lapurtu zuten okupatzaileek”⁷⁷³. Aitor Garmendiaren etxean ere (okupatutako lehen etxea izan zena), salaketa baten ondoren, erreketeek, “maindireak eta abar” eraman zituzten, nahiz eta kapitaina (arduraduna) etortzerakoan, liburu batzuk eramatea saihestu egin zuen⁷⁷⁴. Felipe Ibarbiaren arabera, “gure etxean (egungo Nafarroa etorbidean), atea apurtu eta koltxoiak eraman zituzten”⁷⁷⁵. Andoni Sarriegi Eskisabelen arabera, uztailaren 26an, Txintxurreta etxea (Senperen, Lazkao eta Beasain artean) leku arriskutsuan zegoela-eta, familia, etxea utzi eta Arangoiti ospitalera joan zen gaua pasatzera. Altxatuak herrian sartu ondoren itzuli ziren ostera Txintxurretara eta ordurako erreketeak bere familiaren etxean, sartuak ziren eta okupatua zuten (bere aita eta osaba jeltzaleak ziren; gainera bere aita, Cecilio Sarriegui, zerbait nabarmendu zen herriko EAJren barruan, batzokiko presidente ere izan baitzen). Beasainen gelditu ziren familiako lau kideak beren etxebizitzara itzuli zirenean, etxe osoa arpilatuta aurkitu zuten “balkoietatik ere paperak, gordetako egunkariak, etab., kalera bota zituzten eta harrapatu zuten guztia eraman”⁷⁷⁶. Evaristo Mendiaren familiaren baserrian, Barrendainen, ere lapurtu egin zuten erreketeek, eta Errepublikaren koloreak zituen

⁷⁶⁹ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁷⁷⁰ BARANDIARAN, Pia Maria: op. cit., 651. or.

⁷⁷¹ MENDIZABAL, Veremundo: op. cit., 121. or.

⁷⁷² Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014ko ekainaren 25. Lehen aipatu izan dugu Lopez Gallegok kontatu zuela bere arrebaa modistari falangistek josteko makina lapurtu ziotela, baina Alberto Ruiz Morionesek itzularazi egin zuela.

⁷⁷³ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 95. or.

⁷⁷⁴ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁷⁷⁵ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁷⁷⁶ Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VI-6an.

3. kapitulua

katilu batzuk apurtu baita⁷⁷⁷. Rosario Larreak ere esan digu euren etxean lapurtu zutela, gainera amarruak erabiliz: “soldaduek gure etxea toki txarrean zegoela esan ziguten eta etxetik atera behar genuela. Itzuli ginenean dena lapurtu zigutela ikusi genuen. Etxetik alde egin behar izan genuen, ez baikenuen ezer”⁷⁷⁸. Ez zen izan lapurreta jasan zuen fusilatuen senitarteko bakarra: Maria Pilar Lozaresen arabera, bere etxea (bere aita Marcelo Bergara Lozaresen lehengusua zen) arpilatu eta okupatu zuten erreketek eta bere ama (aita orduan kartzelan zegoen) etxetik kalera bota zuten⁷⁷⁹. Herri testigantza ezberdinen arabera, Francisco Unzueta zinegotzi frankistak Batzokiko pianoa ere lapurtu zuen⁷⁸⁰. Erreketeak zeuden etxeetan ere, neurritz kanpo hartzen zuten jana⁷⁸¹, adibidez, Aitor Garmendiaren arabera, behin erreketek familiarentzako zen jana eurentzat hartu nahi izan zuten, eta bere aitonak aurre egin behar izan zien, horren aurrean erreketek batek pistola batekin apuntatu ziolarik⁷⁸². Patxi Lasa Imazen arabera, ere, soldadu batzuk euren etxean sartu ziren olio eta urdaiazpiko bila, etxekoei “eta zuek ez al dakizue “Arriba España!” esaten edo zer?” modu txarrean galdetu-mehatxatu ondoren⁷⁸³. Oro har hori izan zen herritarrekiko tratua, Milagros Aranburuk esaten duen moduan “nazionalistak (sic; altxatuez ari da, ez jeltzaleez), herrian sartu zirenean oso gaizki portatu ziren”⁷⁸⁴. Haritzmendi baserriko Paulino Aranburuk ematen digu deskripziorik onena: “baserri hau erreketek okupatua izan zen, Beasaindik Ordiziarako mendizko bidea kontrolatzeko. Zenbait hilabetetan egon ziren hemen, nahi zutena jan eta edanez. Askotan esaten zuten “*¡Si esto es la guerra que no se acabe nunca!*”⁷⁸⁵.

Etxe partikularrez gain, instituzioetan ere lapurtu zuten tropa okupatzaileek. *El Liberal* egunkariaren arabera, CAFen sartu ziren, eta han suntsiketak eta lapurretak ere egin zituzten, eta baita ere kooperatiban, hango emakume batzuk errifleekin

⁷⁷⁷ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁷⁷⁸ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasain, 2012-IV-14.

⁷⁷⁹ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁷⁸⁰ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁷⁸¹ Hala ere, egon zen salbuespenen bat. Roberto Begue Sarasolaren arabera (bere osaba Gregorio Begue Aguago fusilatua izan zen), “gure amonaren baserria (Ezkia-txiki) okupatu zuten altxatuek, handik CAF bijilatzeke. Behintzat haiek ondo portatu ziren”. Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁷⁸² Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁷⁸³ Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁷⁸⁴ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁷⁸⁵ Paulino Aranbururen testigantza. Testigantza hau ez dago grabatua.

mehatxatuz. Are okerrago, Udal Aurrezki Kutxan sartu ziren eta han zeuden diru-gordailuak eraman zituzten, Beasaingo herritarren aurrezkiak lapurtuz⁷⁸⁶.

Errepresio ekonomikoaren beste arlo bat enpresen militarizatzea izan zen. Isabel Peñagarikanok dioskun bezala: “hemen dena militarizatu zuten; fabrikak, enpresak, trenbideak, dena”⁷⁸⁷. Honen bidez, praktikan, herriko ekonomia altxatuen gerra-beharrizanen zerbitzura jarri izan zuten. Lehen esan dugu jada, matxinoek Beasain hartzeko asmoetako bat CAF hartzea eta berau militarizatzea izan zela, eta ez duten horretan gehiegirik tardatu: 1936.eko azaroan fabrika militarizatua zegoen; abuztuaren 4an lanera itzuli bazen ere, Beasainen gertatutako ihesaldiak ere eragina izan zuen “fabrika handian”; Elena Legorburururen arabera, 1936.eko abuztuaren 4an 633 langilerekin soilik itzuli zen CAF⁷⁸⁸. Aitor Garmendiaren arabera, “han bonbak egin izan ziren”⁷⁸⁹. Hala ere, ez zen militarizatutako fabrika bakarra, kargutik kendutako, eta 1937.ean atxilotutako Victor Bernedo alkate ohiaren fabrika ere militarizatu egin zuten⁷⁹⁰. Beasain okupatuta, ondoko herria, Ormaiztegi okupatzen hilabete tardatu zuten, irailaren 17an izan baitzen okupatua. *La Voz* egunkariaren arabera, lanaren militarizatzeko, hots, “lehentasun ekonomikoak markatze” horren arabera, herria pobretu egin zen, bertara joan beharreko langileak “soilik eguneko bi otordu eskasen truke” lanegun luzeetan lan egin behar izan zutelako. Emakumeak ere han lan egitera behar zituzten; eta halako lan-kontzentrazioaren ondorioz “Beasaingo landa eremua erein gabe dago”⁷⁹¹. Jabier Garcia Bergarak ere badio: “frontea Bergaran eta Aretxabaletan zegoen artean, Udal hiltegiko animalia asko hil zituzten soldaduak elikatzeko”⁷⁹²; horrek Beasaingo herritarrentzat kalte ekonomikoa izan zuelarik. *La Voz*ek 1937.eko maiatzeko esaten duen arabera, “Beasaingo egoera ekonomikoa miseriazkoa da”⁷⁹³.

Hala ere, egia da parte batean, tropa frankistek faktura batzuk ordaindu egin zituztela. Eskura ditugun dokumentu batzuen arabera, 1936ko uztail eta azaro artean

⁷⁸⁶ *El Liberal*, 1936-VIII-13.

⁷⁸⁷ Frantziska Peñagarikano Dorrnsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrnsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9.

⁷⁸⁸ LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. *Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 125-126. or.

⁷⁸⁹ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁷⁹⁰ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁷⁹¹ *La Voz*, 1937-V-16.

⁷⁹² Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁷⁹³ *La Voz*, 1937-V-16.

3. kapitulua

7.844 pezeta ordaindu zuten kontsumoarengatik, batez ere esnearengatik, nahiz eta jakin badakigun, gastu asko ez zirela ordaintzen, lapurreta handiak eman izan zirela⁷⁹⁴. Bestetik, Beasaingo Zirkulu Tradizionalistak Leon Aranbururen alargunari, abuztuan egindako gastuegatik 100 pezeta ordaindu zituen⁷⁹⁵. Militarren goi-karguak, egon ziren artean, Pakoren fondan hartu zuten ostatu batzuek, eta beste batzuek, CAFeko teknikarien txaletetan⁷⁹⁶.

3.5.g) *Emakumeen kontrako errepresioa*

Honez gain, bereziki aztertu behar dugun gai bezala azaltzen zaigu emakumeen kontrako errepresioa. Izan ere, emakumeek nolabaiteko errepresio berezi eta propioa jasan izan zuten Guda Zibilean zehar, baita Beasainen ere. Oso zaharra da gizateriaren historian gudetan emakumearen “kosifikazioa”, hots, gudako “garaikur” bat bezala erabiltzea edota tratatzea. Historian zehar, kasu askotan emakumeak umiliatzearen bidez “etsaiaren komunitatea” umiliatzea bilatzen zuen armada garaileak. Guda Zibilean, ezagunak dira Sevillatik altxatuen jeneral Gonzalo Queipo de Llanok botatzen zituenak, “gorrien emakumeak” bortxatzeko deiak eginez. Hala ere, Queipo de Llanorena ez da salbuespen bat, Giuliana Di Febok azaltzen duen moduan, bazegoen zirkular frankista bat, non “herri bat hartzerakoan, bertako agintariak zigortu behar dira (...) hauek aurkitu ezean, beren *senideak* zigortu behar dira, zigorrak izaera ahalik eta publikoena eta hunkigarriena izan behar du”⁷⁹⁷. Emakumeak, kasu askotan, baita ere “falta den etsaiaren” pertsonifikazio bezala har zitezkeen, hau da, euren senarren, gurasoen edo semeen “erruak” ordaindu behar izaten zituztenak, frankismoak emakumeari ematen zion papera “etxeko bertuteen zaindari” izatea “egoki ez betetzearren”⁷⁹⁸. Ikusiko dugun moduan, Beasainen, zigortutako emakume batzuk (fusilatuen alargunak) horrexegatik izan ziren zigortuak.

⁷⁹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. A034 karpeta, 05 dokumentu-sorta.

⁷⁹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. A034 karpeta, 05 dokumentu-sorta.

⁷⁹⁶ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarriketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁷⁹⁷ DI FEBO, Guiliana: *Resistencia y Movimiento de Mujeres en España 1936-1976*. Icaria. L'Hospitalet de Llobregat (Bartzelona), 1979, 18. or. Zigor mota hau 40. hamarkadan, “makien” kontrako guda ere erabili zuten franksitek. ROMEU ALFARO, Fernanda: *El silencio roto. Mujeres contra el franquismo*. Autoedizioa. Oviedo, 1994, 45. or.

⁷⁹⁸ DI FEBO, Guiliana: op. cit., 18. or.; VINYES, Ricard: *Irredentas. Las presas políticas y sus hijos en las cárceles franquistas*. Temas de Hoy. Madril, 2002, 224. or.; eta RICHARDS, Michael: *Un tiempo de silencio. La guerra civil y la cultura de la represión en la España de Franco, 1936-1945*. Critica. Bartzelona, 1999, 55-56. or.

Emakumeen kontrako errepresioaren teorikorik nagusiena agian Antonio Vallejo-Nagera psikiatra ezaguna izan zen. Nageraren ustez Espainiak bazuen bere esentzia genetikoa, espainiartasuna bermatzen zuena, eta hauxe garbi mantendu behar zen, zikintzen edo endekatzen zituzten arriskuetatik (“komunismoarengandik” batez ere). Vallejo-Nagerarentzat gaitz hori edo gen-endekatu hori iraunaraztearen errudun nagusia “emakume gorriak” izan ziren: bere ustez “emakume gorriak” “azpiko arraza” bat ziren, animalien parekoak, gizatasunik gabekoak⁷⁹⁹. Esan beharra dago Vallejo Nagera ospe handiko psikiatra zela, 1938.ean sortutako Espaniar (altxatutako) Armadaren Psikiatria Zerbituzko buru izendatzeko modukoa, beraz, bere emakumeen aurkako teoriak entzute handia zuten, ez ziren “bazterreko elementu” baten iritziak. Beraz, teoria hauek, emakume ezkertarrei, eta batez ere ama zirenei (umea zutenei, hau da, “birus gorria” iraunarazi zezaketenei) edozein zigor ezartzeko bidea zabaltzen zieten, azken unean umeen lapurretara iritsiz. Adibidez, frankismo garaian Madrilen egin zen “ama-presoen kartzela”, “apartheid-kartzela” bezala eraiki zuten⁸⁰⁰.

Gudan zehar, hau da, “araz kanpoko” errepresioari dagokionean, emakumeen kontrako zigor motarik ezagunena eta nolabait “ideologikoena” (hau da, emakumea lotsaraztea eta ere berean “pekatuez garbitzea” sinbolizatzen zuena), ilea moztea izan zen⁸⁰¹. Kasu batzuetan, mozteaz gain, buruan ikur umiliagarriren bat jartzen zioten: Juan Iturralde apaiz beasaindarrak honela kontatzen digu: “Emakumeei, ilea guztiz moztu ondoren buruan tinta txinatarrez UHP siglak jartzen zizkieten (ezkerrak erabiltzen zituen siglak, emakumea ezkertiar gisa markatzeko), edo lis lorea marrazten zioten (monarkiaren ikurra). Beste batzuetan ile-motostxo bakarra uzten zioten honi Espainiako banderaren koloreak zeramatzan xingola bat lotuz”⁸⁰². Hala, ere bestelako zigor motak sistematikoki erabili izana ezin dugu baztertu, tartean irainak, behartutako lan publikoa⁸⁰³, edo bortxaketak⁸⁰⁴. Altxatuen errepresioak Estatu frankistan emakumeak izango zuen papera ere iragartzen zuen: “frankismoak, emakumeak

⁷⁹⁹ RICHARDS, Michael: op. cit., 52-65. or.

⁸⁰⁰ DI FEBO, Guiliana: op. cit., 36. or.

⁸⁰¹ RICHARDS, Michael: op. cit., 58-59. or.

⁸⁰² ITURRALDE, Juan: op. cit., 459-460. or.

⁸⁰³ DI FEBO, Guiliana: op. cit., 20-22. or.; eta ROMEU ALFARO, Fernanda: op. cit., 40. or.

⁸⁰⁴ DI FEBO, Guiliana: op. cit., 21. or.; eta RICHARDS, Michael: op. cit., 55. or.

3. kapitulua

Errepublikara irabazi zituen eskubide guztiak, politikan parte-hartzea ahalbideratu zizkiotenak, ezabatu zituen”⁸⁰⁵.

Emakumeekiko berezko errepresio honen inguruko datuak Gipuzkoako testuinguruan ere aurkitzen ditugu. Hernaniko emakumeen inguruan atera den ikerketa batek azaltzen duenez, han nahiko arrunta izan zen emakumeei ilea moztea eta herrian hala erakustsi-araztea. Horrez gain, altxatuen soldaduek, batez ere italiarrek, herria okupatzerakoan bertako emakumeekin harremanetan zuten tratu axolagabea eta mespretxuzkoa ere salatzen du lan honek: emakumeak haurdun utzi eta herritik beste destino batetara alde egiterakoan batere ardurarik hartzen ez zutela; eta hori, kasurik okerrenaz, bortxaketaz hitz ez egitearren ezean⁸⁰⁶.

Beasainen, altxatuek euren nagusitasuna finkatu zutelarik, emakumeen kontrako errepresioa ere ezarri zuten. Halako “errepresio” berezirik hedatuena, emakumeei ilea zeroan moztea izan zen. Ez dugu ezagutzen Beasainen umiliazio mota hori aplikatu zitzaien gizonik. Honen bidez, bi helburu lortu nahi zituzten altxatuek: alde batetik, umiliatutako emakumeak bisibilizatzea eta “markatzea” (ikusgarri egitea), eta bestetik emakumea publikoki lotsaraztea, bere gorputzaren parte bat (ilea) eraitsiz. Beasainen hainbat emakumeri moztu zieten ilea, halere, kopurua eta horietako batzuen identitatea zehaztea zaila izan zaigu; bai iturrien aniztasunagatik eta bai kasu honetan, heriotzak izan ez zirelako, beraz, ziurrenik hainbeste hunkitu ez zuelako, iturrien gogoratzeko gaitasuna hain osatua ez dagoelako⁸⁰⁷. Horietako batzuk fusilatuen alargunak izan ziren. Ematen duenez, Beasainen nahiko orokorra izan zen hau, eta gainera kasu askotan, errizino-olioa aipatzen dute testigantzek, hau da laxante bezala funtzionatzen zuen olioia, horrela zigortutako emakumea are gehiago lotsarazten zutelarik. Hau iturri askok konfirmatzen digute, adibidez *Euzko Deyaren* eta *La Vozen* kronikek⁸⁰⁸. Baita ere

⁸⁰⁵ DI FEBO, Guiliana: op. cit., 127-128. or.; eta ROMEU ALFARO, Fernanda: op. cit., 39. or. Romeu Alfaroren arabera Errepublika garaian emakumeek Espainian zituzten eskubideak “beste herrialdeetan zituztenak baino handiagoak izan zitezkeen”.

⁸⁰⁶ BARRUTIABENGOA, Usoa; ELIAS, Nerea; GONZALEZ, Garoa eta RODRIGUEZ, Araitz: *Voces. Mujeres en la historia de Hernani (1936-1970)*. Hernaniko Udala. Hernani, 2004, 36-37. or.

⁸⁰⁷ Kontuan izan behar dugu iturri gehienak “bigarren mailako iturriak” direla, hau da, hura bizi zuen norbaiten seme-alabak, ilobak edo bilobak (eta hura bizi zutenak askotan umeak ziren gertatu zirenean). Beraz, eurei beste norbaitek transmititutakoa transmititu izan digute. Heriotza batek asko hunkitzen du, komunitatearen kontrako eraso bat delako, betirako delako (hilaren falta betirako geratzen da, ez da itzultzen) eta gainera, hura gogoratzeko nolabaiteko gogoia sortzen du “injustizia oroitu eta erreparatzeko” gogoia ekartzen du. Ilea moztearena, azken finean, zigor “pertsonalizatuago” bat delarik (behintzat itxuraz), “ahazteko gogoia” ere ekartzen du. Izan ere, ile-mozketa horiek badute bigarren ondorio bat; “erasotutako komunitatea” apurtzea edo arrakalaztea.

⁸⁰⁸ *Euzko Deya*, 1937-III-21; eta *La Voz*, 1937-V-16.

zenbait herri testigantzek⁸⁰⁹. Xanti Lasak zehazten digu “ez dakit nortzuk izan ziren ilea moztutakoak, baina bai ilea mozten nor ibiltzen zen: Montejo anaien ama zen (Zarate abizena zuen), karlista, margaritetakoa”⁸¹⁰. Baita ere *Euzko Deya* eta *La Vozen* kronikek praktika horietaz ohartarazten gaituzte. *La Vozen* arabera, Herri Frontearen pean zerbitzatu zuten erizain guztiei ilea moztu zieten eta plazan biluztu egin zituzten⁸¹¹. Egunkari honen arabera, “emakumeen kontrako errepresioa bereziki gogorra izan zen”. *Euzko Deya* egunkariaren arabera, erizain horiek lau ziren “Hiru gazte eta ezkonduetako bat”; eta lau horietako bat, “ezkongabe bat”, publikoki biluztu zuten plazan⁸¹². Beraz, emakumeen kontrako umiliazioa bilatzen zuten frankistek zigor hauen bidez. Hildakoen kasuan emakume kopurua baxua izan bazen ere (uztailaren 27an guztiz ziurtzat eman ditzakegun hildakoen artean soilik emakume bat dugu), gerorako errepresioa, jomugatzat hartutako emakumeen aurka bereziki gogorra izan zen.

Ilea moztutako emakume batzuen identitatea zehaztea lortu dugu. Hauetako bat, adibidez, Joaquina Sanchez izan zen, fusilatutako Gregorio Begueren familiakoa⁸¹³. Jesus Lopez Gallegoren arabera, Sarasola izeneko emakume bati ere zigor hori jarri zioten: ilearen mozketa eta errizino-olioa edatea⁸¹⁴. Milagros Aranburu Mujikaren arabera, “Atzeko kaleko” (Arana Kalea) emakume askori moztu zieten ilea, “tartearen Migueleta” deitzen zioten bati”⁸¹⁵. Frantziska Peñagarikano eta Isabel Peñagarikanoren arabera, Vicenta Gonzalez Gaspar izeneko emakume batek ere zigor hori pairatu behar izan zuen⁸¹⁶. Herriko testigantza batzuen arabera (grabatu gabekoak) Emilia Tolosa izeneko bat ere modu honetan zigortu zuten⁸¹⁷. Maria Karmen Ibarbia eta Felipe Ibarbiaren arabera, Ines Manso deitutako emakume bati ere ilea moztu eta errizino-olioa eman zioten, burla egiten zioten bitartean, “baina hauxe burua tente joaten zen “nirekin

⁸⁰⁹ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16; Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5; Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-1; Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5; Pako Ruiz de Apodaka Galarzari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-18; Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22); eta Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁸¹⁰ Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁸¹¹ *La Voz*, 1937-V-16.

⁸¹² *Euzko Deya*, 1937-V-16.

⁸¹³ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁸¹⁴ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014ko ekainaren 25.

⁸¹⁵ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁸¹⁶ Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9.

⁸¹⁷ Miguel Angel Ruiz de Gauna Lopez beasaindar herritarrari eskertzen diot datu hau.

3. kapitulua

ezin duzue!” esaten ariko balitz bezala⁸¹⁸. Bistan da emakume batzuek desafioaren aldeko hautua egiteko adina adore topatu zutela. Ibarbia lehengusu-lehengusinen arabera “Ezkiaga auzoko Lamata abizena zuen bati ere ilea moztu zioten”⁸¹⁹. Kasu honetan esan beharra dago “Lamata” hau ez zela uztailaren 27an eraildako Victoria Huergo Toferekin egindako nahasketa bat (Huergo Tofe egungo Martina Maiz kalean bizi zen, ez Ezkiaga auzoan), baizik eta familia horretako beste emakume batez ari direla. Fusilatuen alargun batzuei ere ilea moztu zieten, Jabier Garcia Bergarak zehatz-mehatz azaltzen digu Emeteria Igarzabal Zumalderi, Juana Alustiza Murgiondori eta Bernarda Elizegiri ere moztu zieten ilea: “Victor Uribe-Etxebarria, Ramon Crespo Igarza eta Evaristo Mendiaren alargunei (goian aipatutako emakumeak, hurrenez-hurren) ilea moztu, errizino-olioa edaten eman eta gainera Udal-banda jotzen zelarrik kalejiran atera zituzten”⁸²⁰. Garcia Bergararen arabera “uste dut fusilatuen alargun guztiekin berdina egin zutela, baina hori jada ez dakit. Batzuetan mehatxuak ere egin zituzten, hala gertatu zen adibidez, fusilatu batzuen alargunekin, Guillermo Ugarteren alargunarekin (Estefania Peñagarikano), zeinari 500 pezetako isuna ordaintzea edo ilea moztearen “aukera” eman zioten. Arantza Ugarte Azkarate bilobaren arabera, “ez zizkiola ordainduko erantzun zion, eta ilea moztu nahi bazion, mozteko, baina hala ere, ez zion moztu”⁸²¹. Juan Andres Otaegiren alargun Bixenta Agirrek ere mehatxu bera jaso zuen; Lourdes Martinez Otaegiren arabera, “tropei agur ez agitearren” jaso zuen mehatxu hori⁸²². Hala ere, lehen esan dugun bezala, euren kasuaz berri izan dugun emakume hauez gain, badaude beste asko ilea moztu zietenak, eta testigantzek aipatu izan diguten bezala, “ilea moztu eta errizino-olioa edaten eman” orokorki aipatzen dute, kolektiboki ezarri izan zen zigor gisa.

Beasainez gain, inguruko herrietan ere gertatu izan ziren halakoak. Adibidez, Ataunen, irailaren 9an, Etxarriko alkateak zenbait emakumeri ilea moztu zien, esate baterako, Sutegi etxeko Karmele Arreseri⁸²³. Pia Maria Barandiaranen arabera, erreket

⁸¹⁸ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁸¹⁹ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁸²⁰ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁸²¹ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁸²² Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizia, 2014-XII-17.

⁸²³ Etxarriko alkate hau, Angel Irigorasen arabera, Benedicto Barandalla zen. IRIGORAS, Angel: op. cit., 169 or. Pia Maria Barandiaranen arabera, ordea, Marcelino Jauregui zen. BARANDIARAN, Pia Maria: op. cit, 649. or.

batek Arrese apuntatu egin zuen, ilea mozten zioten artean. Ataunen eskuindarrek, tartean Arteaga apaizak, burla egiten zioten elizara joan behar zuen bakoitzean⁸²⁴. Olaberrian ere egin zioten, bujandatarren familiako emakume bati. Jose Maria Bujanda Olaranek kontatzen duene moduan “gu laguntzera etorri zen Bianako lehengusina bati ere ilea moztu zioten, “¡Arriba España!” esaten zutelarik (...) Gure amak esan zion burua zapi batez estaltzeko, eta berak ezetz, ez zuela ezertaz lotsatu, bere burua ilea moztu ziotenen lotsarako zela”⁸²⁵. Beste kasu honetan topatzen dugu desafioaren aldeko hautua egin zuen beste emakume bat. Ane Barandiaranek ere badio Lazkaon emakume batzuei ilea moztu egin zitzaiea⁸²⁶.

Bestalde, emakume batzuek Beasaindik alde egin behar izan zuten euren familiekin. Honako hauek ziren: Josefa Barber, Purificacion Barber, Rosalia Bernardo, Maria Busnadiago, Rosario Busnadiago, Sabina Collado, Manuela Chinchurreta, Segunda Chinchurreta, Ascension Del Valle, Aquilina Deva, Catalina Elorza, Alejandra Garcia Alvarez, Nici Gotor Garcia, Angeles Hernandez, Felisa Hernandez Marcos, Maria Lasa Aramburu, Prudencia Lozano, Maria Martin, Isidora Mateos, Dolores Mendizabal, Teresa Neguerela, Agripina Polo, Luisa San Miguel, Rosario Sanchez eta Dolores Velasco. Hogeitabost emakume hauen izenak, Iñaki Egañaren lan *La Guerra Civil en Euskal Herriaren* zortzigarren liburukian, *Los protagonistas de la guerra* izenekoan agertzen dira⁸²⁷.

Azkenik, memoriaren lapurretak eta hauen saiakerak ere eman izan ziren guda zibilean, hau da fusilatutakoen alargunei euren senar-emazteen heriotzaz bertsio faltsu bat ematea eskaintzea (ezkertiarrek hil zutela) zenbait “laguntzaren” truke. Kasu honetan, askotan txirotasunean geratutako “alargunaren” egoeraz baliatzea bilatzen zuten altxatuek. Beasainen praktika honen kasu bat behintzat ezagutzen dugu, Agripina Poloren kasua, zeinaren senar Jose Maria Igartua Lastra eta bi seme, Isidro Igartua Polo eta Hilario Igartua Polo hil zituzten eskuindarrek. Izan ere, agintari frankistek Agripina Polori, beren senarra eta semeak “gorriek hil zituztela” esaten baldin bazuen, agintariek bere egoeran lagunduko ziotela agindu zioten, semeek debalde ikasiko zutela, eta abar. *Euzko Deya* egunkariaren arabera, semeak “Italiara edo Alemaniara” eramango zituztela

⁸²⁴ BARANDIARAN, Pia Maria: op. cit., 649. or.

⁸²⁵ Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14.

⁸²⁶ Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12.

⁸²⁷ EGAÑA, Iñaki: 1936. *Guerra Civil en Euskal Herria*. (VIII lib., *Los protagonistas de la guerra*). Aise liburuak. Andoain, 1999.

3. kapitulua

“gizon eginda itzul zitezen”, eta Polok ezetz esaterakoan, ez zituela bere semeak frankisten esku utziko “ez zaitez ergela izan” erantzun omen zioten⁸²⁸. Iturri hau nahiko ahula iruditzen zaionak (azken finean *Euzko Deyaren* artikulua ikusi dugun bezala datu batzuk nahastu ditu); Martinez Otaegi neba-arreben testigantza entzun dezake (neba-arreba hauen aitona Juan Andres Otaegi Agripina Poloren seme Isidro Igartuarekin batera hil zuten, eta garai batean harremana zuten bi familiek). Martinez Otaegitarren arabera, semeak eta senarra “gorriek hil bazuten” laguntza izango zuela; “baina berak ezetz esan zuen, ez zuela zertan lotsatu beharrik”⁸²⁹. Egoera kritikoa geratzen diren emakume hauek, adibidez, Bujanda Olanan neba-arreben amak Nafarroako Bianara ihes egin behar izan zuen bere lau seme-alabekin, Goierriin bertako frankisten presioa ez jasateko⁸³⁰.

Izan ere, alargun geratutako familiek oso gaizki pasa zuten; seme-alabak eurak bakarrik altxatu behar izan zituztelako, eta horrez gain, agintarien etengabeko presiopean bizi zirelako. Gainera, kontuan harturik garai horietako gizartean, normalean gizonezkoek egiten zutela etxetik kanpo lana eta emakumeak lan-merkatutik at zeudela. Hori ikusten da errolda gehienetan (Beasaingo 1930-eko erroldan, adibidez), kalean (ez baserrietan) bizi ziren emakume askoren lanpostua “bere lanak” bezala agertzean. Halako presio ekonomikoa, Agripina Polori egindako xantaian agertzen da (kontutan izan behar da Polo gaztaina-saltzailea zela eta bazuela dirua ateratzea). Baina ez zen kasu bakarra. Bujanda Olanan neba-arrebek esan zuten moduan “gure familian, gure amak pasa zuen okerren, lau seme-alaba zituen, eta berak bakarrik hazi beharra”⁸³¹ (Bujandaren alargunak, Olanarek, taberna zuen Olaberriaren, baina halere, agintarien presioa jasan behar izan zuen). Beste batzuen kasuan, bizi ziren etxetik atera egin behar izan ziren, errenta ordaintzeko modurik ez zutelako (eta ezta ere agintarien aldetik batere laguntzarik). Hori gertatu zitzairen, adibidez Juana Alustizari eta Emeteria Igarzabali (hurrenez-hurren, Ramon Cresporen eta Victor Uribe-Etxeberriaren alargunak)⁸³². Rosario Larreak ere, eurek (etxe horretako aita Pedro Larrea Ormazabal eraila izan zen) pairamen berdina jaso zuten: “beste etxeetara joan behar izan ginen,

⁸²⁸ *Euzko Deya*, 1937-III-21.

⁸²⁹ Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizia, 2014-XII-17.

⁸³⁰ Sara Bujanda Olanari eta Jose Maria Bujanda Olanari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14.

⁸³¹ Sara Bujanda Olanari eta Jose Maria Bujanda Olanari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14.

⁸³² Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

gure etxean geneukan dena lapurtu baitzuten (soldaduek)»⁸³³. Clara Ollakarizketaren arabera, bere familiak ere pairamen bera jaso behar izan zuen, Leku-Alai etxea utzi behar izan baitzuten⁸³⁴. Jabier Garciaren arabera, Bideluzen bizi zen Begue izeneko emakume batek “bere senarrak eta sei seme errepublikarrak eta gorriak izanagatik Beasaindik ihes egin behar izan zuten”, bere etxeko jabeak etxetik bota zuen errenta ordaintzeko zer ez zuela. Begue andereak, legea alde zuela argudiatuta ere “zure senarra eta semeak ez dira Beasaina itzuliko, gorriak baitira, eta ez duzue nola ordaintzerik izango” erantzun zion⁸³⁵. Kasu hauetan errepresio ekonomikoa eta emakumeen kontrako errepresioa bilbatu egiten dira.

Beasainen, galdetu dugun arren, ez dugu aurkitu bortxaketen inguruko testigantza eman duen inor. Hala ere, badago nahiko arrazoi pentsatzeko Beasainen ere eman zirela. Pia Maria Barandiaranen arabera “Beasainen, Ordizian eta inguruko herrietan, falangistek hainbatekoak egin zituzten”. 1937eko udazkenean bere arabera Zaldibian “bi ume mairutxo” jaio ziren, hau da, Francoren armada mairuaren bortxaketen ondorioetako bat huraxe zelarik⁸³⁶. Lekuko beraren arabera, Ataunen 1937an, han atsedean hartzen ari ziren tropa frankistak bertako neskek jazartzen zituzten⁸³⁷. Beraz pentsatzekoa da eta oso posible da Beasainen ere ahalko bortxaketak egin izatea, izan ere, ez baita sinesgarria altxatuen tropek Zaldibian eta Ataunen halako sexu-erasoak egin izana, eta Beasainen, Goierrin beste inon baino hilketa gehien gertatu ziren tokian eta bortizkeria neurrigabekoa erakutsi zuten tokian, halako gehiegikeriarik ez egitea; baina momentuz, hipotesi gisan soilik hitz egin dezakegu, ez baitugu hura frogatzeko daturik.

3.6 Beasaingo agintari frankistak

Beasainen, tropa frankistak sartu bezain pronto, hartutako lehen erabakia indarrean zegoen Udala kentzea izan zen. Udaleko agintari ezkertiarak Pablo Cayuelak kargugabetu zituen, uztailaren 28an⁸³⁸. Hurrengo egunean, uztailaren 29an, Alberto

⁸³³ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasain, 2012-IV-14.

⁸³⁴ Clara Ollakarizketak Jabier Garcia Bergarari 2014.ean emandako testigantza. Testigantza hau ez dago grabatua.

⁸³⁵ Jabier Garcia Bergarari eskertzen diot datu hau eman izana.

⁸³⁶ BARANDIARAN, Pia Maria: op. cit., 651. or.

⁸³⁷ Ibid., 652. or.

⁸³⁸ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Gerra Zibila...”, op. cit., 269. or.; eta BELEDO, Ane: op. cit., 57. or.

3. kapitulua

Ruiz Morionesek ezarri zuen Udal berria⁸³⁹. Honenbestez bukatu zen Beasainek izan zuen lehen alkate sozialista Victor Bernedo Zubiaurreren agintaldi laburra.

Bernedok, orduan ihes egina zegoenak, “erbestean” artean errepublikanoek kontrolatzen zuten lurretan, nolabaiteko “Udal antifaxista” bat eratu zuen, Donostiako Aldundiaren egoitzan. Udal hark, Donostian, bere langileei ordaintzeko 5.000 pezeta atera zituen banketxetik, beraz, nolabaiteko funtzionamendua bazuen, modu horretan zilegitasuna lehiatzeko asmoa agertu zuen (Pedro Lasa Seguiolaren kontrako kausan, Gipuzkoako Kutxak, Beasaingo Udalak 1936ko uztailaren 18an bertan 25.000 pezeta atera zituela esan zuen, baina *artean indarrean zegoen* Udala zen hura)⁸⁴⁰. Donostia ebakuatu ostean, Bilbon zein Getxon ezarri zen Udal hura⁸⁴¹. Udal-egitura haren langile izan ziren Juan Aramburu Irizar, Severiano Azpeitia Arcelus, Francisco Donazar Zabalza, Restituto Garcia Segura, Pedro Lasa Seguiola eta Segundo Lozares Escolar⁸⁴². Aramburu, *Izquierda Republicanako* kidea, Beasaingo Defentsa Batzordeko kidea izan zen, Donostian sartu zen Udal hartan, eta gero, Bilbon, aste batzuez borrokan ibili zen. Azpeitia, *Izquierda Republicanako*, Defentsa Batzordeko kide eta Udaleko alkateorde zen. Donazar, Beasainen gauzaina izan zena, Donostiako Aldundian gehitu zitzaion erakunde hari. Donostia ebakuatzerakoan, 1936ko apirilean, Bilboko Udalaren zerbitzuan jarri zen, udaltzain bezala⁸⁴³. Restituto Garcia, Beasaingo Defentsa Batzordeko kidea eta UGTri lotutako Trenbideko Sindikatuko Beasaingo buru izan zena ere egitura haren parte izan zen⁸⁴⁴. Pedro Lasa Seguiola ez zen Batzordeko kidea, 1931n zinegotzi sozialista aukeratua izan bazen ere (berak, geroago, bere kontrako epaiketan esan zuen, 1934an Alderdi horretatik baja eman zuela eta *Izquierda Republicanan* izena

⁸³⁹ IRIGORAS, Angel: op. cit., 175 or.; eta BELEDO, Ane: op. cit., 57. or.

⁸⁴⁰ Pedro Lasak deklaratu zuen, berak hilean 400 pezeta kobratzen zituela, beraz, erbesteko Udal honetarako erreferentzia moduan datu hau erabil dezakegu). Pedro Lasa Seguiolari dagokiona; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 12827-38 kausa, Segundo Lozares Escolari dagokiona.

⁸⁴¹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 196-36 kausa, Victor Bernedo Zubiaurreri dagokiona.

⁸⁴² Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 2532-37 eta Gipuzkoa 16148-39 kausak, Juan Aramburu Irizarri dagozkionak; Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4215-42 kausa, Severiano Azpeitia Arcelusi dagokiona; Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 692-37 kausa, Francisco Donazar Zabalzari dagokiona; Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 15427-38 kausa, Restituto Garcia Segurari dagokiona; Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3168-38 kausa, Pedro Lasa Seguiolari dagokiona; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 12827-38 kausa, Segundo Lozares Escolari dagokiona.

⁸⁴³ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 692-37 kausa, Francisco Donazar Zabalzari dagokiona.

⁸⁴⁴ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 15427-38 kausa, Restituto Garcia Segurari dagokiona.

eman zuela; horrek bere kide-ohiekin liskarren bat ekarri zion. Ez dugu datu hori berrestetik izan⁸⁴⁵). Segundo Lozares Escolar, Beasainen aguazila izan zena eta guda garaian ere Defentsa Batzordeko kide zena, ordenantza moduan aritu zen “erbesteko” Udal haren lanetan⁸⁴⁶.

Aurreko kapituluan aipatu dugun bezala Victor Bernedo sozialista zen arren, bere kontrako kausan, Bernedok, Beasaina etortzean, Alderdi Sozialistan militatzeari utzi ziola dio, 1920tik aurrera jada ez zela alderdiko kide, eta 1931ko hauteskundeetan “sozialista independente” bezala aurkeztu zela. Bernedok dioenez, bera, 1933an Manuel Azaña buru zuen *Acción Republicana* alderdiko kide egin zen (1934an *Izquierda Republicana* bilakatu zen alderdia). Hala ere, gerta daiteke adierazpen hori epaitegi frankistaren aurrean (orduko sistema judizialak batez ere presoan izaera politikoaren arabera funtzionatzen zuen) beraren kontrako susmoak leuntzeko modu bat zitekeen⁸⁴⁷.

Zenbait bertsiok Victor Bernedo gudan fusilatua izan zela esaten dute. Adibidez hori diote Iñaki Egañak, Bilbon fusilatua izan zela zehaztuz⁸⁴⁸; eta *Gipuzkoa: Udal errepublikarretatik frankistetara* lanak ere berdina dio⁸⁴⁹. Baita ere Gipuzkoako Batzar Nagusiek egin zieten omenaldi batean⁸⁵⁰. Eusko Jaurlaritzaren txostenak ere badio Bilbon fusilatua izan zela. Hala ere, hori ez zen hala gertatu. Egia da Victor Bernedok altxatuak Beasainen sartu arren egunean Azpeitiara egin zuela ihes⁸⁵¹, eta handik Bilbora, non Castaños kalean bizi izan zen. Han izan zen atxilotua, 1937.eko ekainaren 20an, atxilotzaileen artean, beasaingar bat, 1941.ean alkate izan zen Martin Esnaola Elicegui izan zelarik⁸⁵²; baina ez fusilatua: 1937.eko uztailaren 20ko sententzian heriotza-zigorra jaso bazuen ere, 1937.eko uztailaren 31ean 30 urteko kartzela-zigorragatik konmutatua izan zitzaion; eta zigor hau 1943.eko urtarrilaren 4an berriz konmutatua izan zen, 12 urteko kartzela zigorrarengatik. Victor Bernedok kartzela-

⁸⁴⁵ Kontutan hartu behar da, epaitegi frankisten aurrean Alderdi Sozialistak Izquierda Republicanak baino “erru-karga” handiagoa zuela. Pedro Lasa Segurolari dagokiona; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 12827-38 kausa, Segundo Lozares Escolari dagokiona.

⁸⁴⁶ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 12827-38 kausa, Segundo Lozares Escolari dagokiona.

⁸⁴⁷ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 196-36 kausa, Victor Bernedo Zubiaurreri dagokiona.

⁸⁴⁸ EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil...* (IV lib.), op. cit., 208. or.

⁸⁴⁹ BELEDO, Ane: op. cit., 56. or.

⁸⁵⁰ *Diario Vasco*, 2011-III-4.

⁸⁵¹ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 95. or. Datu bera agertzen da Martin Esnaola alkate frankistak idatzi zuen txosten batean. Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 03 dokumentu-sorta.

⁸⁵² Atxilotu zuen beste pertsona Juan Miguel Echeverri izan zen. Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 196-36 kausa, Victor Bernedo Zubiaurreri dagokiona.

3. kapitulua

aldia Segoviako kartzelan pasatu zuen 1937.eko urriaren 9tik aurrera; ahalik eta 1944.eko uztailaren 4an Bilboko San Simon kartzelara ekarri zutena arte⁸⁵³. 1944.eko bukaeran gaixotasunak jota hilzorian zegoela atera zuten kartzelatik, etxean hil zedin, 1944.eko abenduaren 17an hil zen. Hain zuzen ere, kartzelatik ateratzen lagundu izan ziona, orduan Udalean idazkari-laguntzaile izan zen Joxe Manuel Azurmendi Dorronsoro izan zen. Berak gogoratzen digu: “Nik neuk hartu nuen parte Bernedo kartzelatik ateratzeko kudeaketetan. Bitartekaritza lan hura suhiak eskatuta egin genuen”⁸⁵⁴.

Uztailaren 29an Udal berria izendatu zuen Alberto Ruiz Moriones komandante militarrek. Udal berria osatzen zutenen artean, Jose Luis Guridi alkatea, Miguel Cerrajería Tiffe eta Pedro Arana Gaiztarro alkateordeak, Restituto Urteaga Otegui zinegotzi-sindikoa eta Jose Aramburu Aramburu, Rufo Artolain Gaztañategui, Eusebio Asla Lapart, Martin Esnaola EliceGUI, Francisco Ezquiaga Beracoechea, Jose Luis Garin Insausti, Jose Mendia Lasa, Francisco Unzueta Jauregui eta German Zaballos Imaz zinegotziak zeuden. Udal berriarekin, klase-aldetik ere aldaketa bat ere eman zen. Izan ere, zinegotzi ia denak, erdi-mailako klaseetakoak edo ziren. Hau arrunta zen XX. mendeko Beasaingo udaletan, baina Errepublika garaian, behe klaseko zinegotzi gehiago sartu ziren (Aguado, Carrascal eta Lasa Segurola sozialistak langileak ziren, eta Sarriegui eskuindarra baserritarra) eta orekatze bat eman zen; eta orain kontrako bidera itzuli zen Udala: burgesiaren nagusitasuna eman zen; Jose Luis Guridi lan-kontratista zen, Pedro Arana tinta enpresa baten jabea (bere aita Joxe Martin Arana CAFeko akziodun nagusia eta fundatzailea izan zen), eta Miguel Cerrajería burdinen enpresa baten jabea. Bestetik, enplegatu koalifikatuak ere bazeuden, German Zaballosek Bernedo fabrikari, Eusebio Aslak CAFen, edo Francisco Unzuetak trenbide konpainian, Tolosan, faktore gisa lan egiten baitzuten, hirurek postu koalifikatuetan. Zinegotzi gehienak enpresa txikien jabe ziren: Aramburuk okindegi bat zuen, Urteagak elikadura-denda bat, Ezquiagak inprimategi bat eta Esnaolak ferreteria bat. Salbuespena, langile bakarra, Rufo Artolain zen, CAFen langile baitzen⁸⁵⁵.

Udala batez ere karlista zen, zinegotzi gehienak ere joera honetakoak izan ziren. Udalak azaroaren 24an Gipuzkoa eta Bizkaiko Gobernadore Zibilaria bidali zion

⁸⁵³ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 196-36 kausa, Victor Bernedo Zubiaurreri dagokiona.

⁸⁵⁴ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

⁸⁵⁵ Juan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-5.

dokumentu bati esker dakizkigu Udaleko zinegotzi bakoitzaren joerak. Dokumentu honen arabera, “kargudun berezidunez”, hots, alkateaz, alkateordeez eta zinegotzi-sindikoz “filiazio politikorik gabekoa, eskuindarra eta erabat espainolista” esaten du agiriak. (“Filiazio politikorik gabekoa” esaldiarekin, ulertu bedi Armada altxatua babesten zuen fakzio konkretu batekoak –falangistak, karlistak, CEDAkoak- ez zirela, baina ez “apolitikoak” edo “neutrala”); baizik eta betiere eskuinaren barruan edo altxatuen erregimanari atxikimendua erakutsiz, honen barneko fakzio batean kokatu gabe “gutxiengo minimoekin” bat zetorren pertsona bat). Hala ere Cerrajería “Falangeko tokiko burua” zela esaten zen; hemendik ondorioztatzen dugu Cerrajeríak ez zeramala denbora asko Falangean, 1936. aurretik Beasainen ez baitzegoen Falangeren ordezkariarik, eta gainera, Cerrajería 1934 eta 1936. eneko urtarrilaren arteko Udalean zinegotzi izan zen. Beste zortzi zinegotziz; Aramburuz, Artolainez, Aslaz, Esnaolaz, Ezquiagaz, Mendiaz, Unzuetaz eta Zaballosez, “filiazio tradizionalistakoak” zirela esaten zuen agiriak (Jose Luis Garin zen zerrendan agertzen ez den bakarra, agian omisio batengatik)⁸⁵⁶. Dokumentu hori, 1936ko azaroaren 4an, Jose Maria Arellano Gipuzkoako eta Bizkaiko Gobernadore Zibilak bidalitako agindu baten fruitua da, agindu horretan Arellanok, frankisten kontrolpeko Gipuzkoako eta Bizkaiko herri guztietako Udal-taldeak kideak eta Udal-langileak zerrendatzea eta haien “joera politikoak” deskribatzea eskatzen zuen. Agindu hori Gipuzkoako Buletin Ofizialean, azaroaren 6an agertu zen⁸⁵⁷. Honez gain, Errepublikaren garaian zinegotzi hauetako batzuek politikoki euren joerak erakutsi zituzten. Adibidez, hauetako bi Errepublikaren garaian ere zinegotziak izan ziren: Restituto Urteaga Otegui 1931.ean aukeratua (eta 1936.ean berrezarria) izan zen “eskuineko independente gisa”. 1934.ean ezkerreko zinegotzi guztiek bezala (Serafin Aranak izan ezik) dimititu egin zuen Jacinto Urteaga alkateari elkartasuna erakutsiz, beraz, “Udalen mugimenduari” ados zegoela erakutsi zuen. 1936.ean, Fronte Popularrak bere karguan berretsi zuenean, euskararen aldeko mozio bat ere aurkeztu zuen; Udal-langile berriak kontratatzeke hauek euskara jakin dezaten exijituz. Kasu honetan, nahiko ezustekoa izan daiteke ezkerreko nahiko hurbil egon zen zinegotzi bat orain erregimen frankistaren aldera pasatzea. Restituto Urteagaren arrazoiak zeintzuk ziren ez dakigu, baina Rufo Artolaini buruz bere biloba Juan Unanuak kontatzen duenez “agian aitonak beldur pixka bat zuen eta horregatik

⁸⁵⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 11 dokumentu-sorta.

⁸⁵⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 11 dokumentu-sorta.

3. kapitulua

sartu zen Udalean (...) nire aitona frankista baino karlista baitzen”⁸⁵⁸ eta agian Urteagak arrazoi horiek izan zitzakeen (hala ere, ezin dugu baztertu, agian Rufo Artolainek bere bilobari emandako testigantzetan nolabaiteko autojustifikazio bat egon daitekeenik). Miguel Cerrajería Tiffe eta Eusebio Asla Lapart, 1934.eko urrian Gobernadoreak izendatutako Udal eskuindarreko zinegotzi izan ziren, 1936eko otsailean Herri Frontearen gobernuak 1931.ean aukeratutako Udala berriz indarrean jarri zuen arte (gainera, Cerrajería, 1931.eko apirilaren 12an, Beasainen baliogabetuak izan ziren hauteskundeetan ere aukeratu egin zuten). Bi hauez gain; Rufo Artolain, Eusebio Asla, Francisco Ezquiaga, Jose Mendia eta Francisco Unzueta Estatu-kolpearen ondoko egunetan errepublikanoek atxilotuak izan ziren⁸⁵⁹. Zinegotzi hauetako batzuek aurretik eskuineko joera erakutsi zuten: Jose Luis Guridi alkate berria Errepublika garaian, Hiri-Lurren Jabeen Elkarte Askeko (*Asociación Libre de Propietarios de Fincas Urbanas*) lehendakaria izan zen; eta Jose Luis Garin zinegotziak Nekazarien Sindikatuan parte hartu zuen, 1933 eta 1935 artean honen lehendakari izan zelarik⁸⁶⁰. Bestetik, Pedro Arana, 1931.ean zinegotzi aukeratutako Serafin Aranaren anaia izan zen, eta horrez gain, 1920.eko apirilaren eta 1922.eko martxoaren artean (Alfontso XIII.aren monarkiaren garaian) Beasaingo alkate izandakoa zen⁸⁶¹. Pedro Arana garai hartan Beasainen nagusi zen koalizio liberalaren kide zen (monarkikoez eta errepublikanoez osatua), Alderdi Karlistari aurre egiten zion koaliziokoa (sozialistek eta jeltzaleek, Beasainen ez zuten hainbeste indar garai haietan). Beraz, nahiko arraroa izan daiteke karlisten kontra lehiatzen zen liberal bat orain Udal karlista batean zinegotzi gisa ikustea eta “Liberalismoaren kontra” omen zegoen erregimen bat ordezkatzeko; baina honek erakusten digu, frankismoaren oinarri sozialaren parte nahiko handi bat, euren klase-interesek gidaturik, euren interesak eta jabetzak defendatzen omen zituen alde lerratutako pertsonez osatua zegoela, ideologia konkretuen gainetik (antzeko kasu bat gertatzen da Miguel Cerrajeriarekin, zeinak, 1934.ean eskuineko Gobernuak Beasaingo zinegotzi izendatu zuenean, “kolorerik gabeko errepublikano” gisa definitu zuen bere burua). Martin Esnaola, dokumentuak “tradizionalista” definitutakoa, 1941.eko otsailetik aurrera, Beasaingo Udaleko alkate izan zen, 1949.erarte iraungo zuelarik. Bere ostean, aipatu dugun Miguel Cerrajería izan zen alkate (1949 eta 1954 artean), eta

⁸⁵⁸ Juan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-IX-5ean.

⁸⁵⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 525 karpeta, 38 dokumentu-sorta

⁸⁶⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 29 dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 113. karpeta, 10. dokumentua.

⁸⁶¹ ZUFIAURRE GOYA, Jose: “Alcaldes de Beasain” in *Beasain Jaietan* urtekaria, 2001 (17-21. or.), 18. or.

honen ostean German Zaballos (1954 eta 1957 artean)⁸⁶². Beraz, 1957. urteari itxaron behar zitzaion Udal-talde honetan parte hartu ez zuen alkate bat (Pablo Hunolt Arana) Beasain zuzentzen ikusteko⁸⁶³. Lehen Udal-talde honetan parte hartutako kideek alkate postuan hainbeste irauteak, erakusten du lehenengo asmoak gora-behera (karlisten kasuan erregimen tradizionalera bueltatzea), eta euren proiektuaren porrotaren gainetik, frankismoaren inguruko “koalizioa” osatzen zuten fakzioetako kide asko erregimenaren dinamiketan integratu egin zirela eta hau izan zen praktikan fakzio horietako sektore “maximalistenen” porrotera gehien lagundu zuen faktoreetako bat. Azkenik, orain arte aipatu ez dugun bakarra Jose Aramburu zinegotzia da. Aramburu, “Santinekoa” ezinenez eta okina ogibidez, herritarren ustez, “borondate oneko pertsona” zen, gudan galtzaileen aldean zeuden pertsonak (ezkertiarrek eta abertzaleak) asko lagundu zituen.

Horrez gain, 1936ko azaroaren 24ko dokumentu honek Udalaren langileak ere zerrendatzen dizkigu, beren ideologiarekin batera. Idazkari postuan Jose Veriztain Zubiaga tradizionalista zegoen, depositario postuan Bautista Telleria Ayestaran, tradizionalista baita, arbitrioen administratzaile gisa, Francisco Elzo Urrestarazu eta honen laguntzaile gisa Martin Aramburu Urteaga⁸⁶⁴ (tradizionalistak biak), mediku gisa Hilario Urteaga Otegui⁸⁶⁵ (monarkikoa, joera tradizionalistekin), praktikante bezala Justo Aguado Baza (tradizionalista)⁸⁶⁶, garbiketa inspektore Pedro Urquia Goena (independentea baina erabat espainiar eskuindarra), hiltegiko abere-hiltzaile gisa Jose Antonio Aduriz Isasa (independentea, baina euskal nazionalistekiko joerarekin), tripazain, Antonia Bares Tolosa (ezkertiarra, UGTko kidea), Udal-bandaren zuzendaria Pedro Jose Iguain Telleria (independentea, baina erabat espainiar eskuindarra)⁸⁶⁷, danbor-jotzailea Victoriano Telleria (euskal nazionalista, “baina Armadan zerbitzuan”), sobrestantea Felix Arizmendi Echenique (independente baina erabat espainiar eskuindarra), alguazilen kabo Melchor Garcia Jose (independentea, baina tradizionalistekiko joerarekin), aguazila Esteban Peñagaricano Arazco (independentea,

⁸⁶² Ibid., 19-20. or.

⁸⁶³ Hala ere, Pablo Hunolt ez zen Guda Zibilarekiko arrotza, Guda Zibilean Loinazko San Martinen erreketek konpainian altxatuen alde borrokatu baitzuen.

⁸⁶⁴ Gaur egun kale bat dago Martin Arambururen izenean Beasainen, Zapatari eta Nabarro Larreategi kaleetatik gertu.

⁸⁶⁵ Hilario Urteaga izan zen 1936.eko uztailan Olaberrian tropa okupatzaileei “Beasain hartzea oso erraza izango zaizue” esan ziena. Honen anaia bat, Restituto Urteaga Otegui, zinegotzia zen.

⁸⁶⁶ Justo Aguado Baza, 1937ko martxoan gudan hil egin zen erreketek bezala borrokan ari zelarik, Aretxabaletan.

⁸⁶⁷ Pertsona hau, dokumentu honetan hala markatuta zegoen arren, oso euskaltzale bezala ezagutua zen herrian. Andoni Sarriegi Eskisabeli eskertzen dio datu hau eman izana.

3. kapitulua

baina erabat eskuindar espainiarra), gauzain Ignacio Irastorza Uranga (independentea, erabat eskuindar espainiarra), kale-garbitzaileak Jose Querejeta Gogorza, Fermin Cid Arraras (tradizionalistak biak), Agustin Cacho Mendia, Josefa Aramburu Uranga eta Sabina Garcia Garcia (hirurak, independenteak, espainiar eskuinekoak)⁸⁶⁸. Honez gain, “Indar nazionalak” Beasainen sartu zirenean, ihes egitearren bost langile euren postuetatik at geratu zirela deskribatzen du dokumentu horrek: Candelario Aramburu Mugica idazkari-ofiziala (euskal abertzalea), Juan Aramburu Irizar arbitrioen arduraduna (Herri Frontearen aldekoa), Segundo Lozares Escobar (sic)⁸⁶⁹ alguazila (*Izquierda Republicana* alderdikoa) eta Francisco Zabaleta Donazar (joera jakinik gabekoa)⁸⁷⁰. Bosgarrenaz, idazkaritza-laguntzaile Emilio Muñoz Novilloz, “Fronte Popularraren aldekoa, baina gaur egun Falangeren lerroetan borrokan” zegoela esaten zuten⁸⁷¹. Hala ere, azken hau ez dugu ziurtzat jotzen, kontutan izan behar baitugu Fronte Popularraren garaian, Emilio Muñoz Novillo kalean atxilotua izan zela “Gora faxismoa!” oihuka ibiltzearren⁸⁷², beraz ulertzen dugu ez zela inondik inora azken orduan Falangean izena emandako “Fronte Popularraren aldekoa”; baizik eta Falangearekiko aldektasuna lehenagokoa izango zela. Ikusten dugun bezala, purga egin ostean, Udal-langileen gorputz ia osoa izango zen eskuindarra (karlisten gehiengo batekin), soilik bi salbuespenekin: Aduriz abere-hiltzailea eta Bares tripazaina.

Irakasleei dagokionean, ere ordezketak (depurazioak) eman ziren. Errepublikaren, edo jeltzaleen, aldeko irakasleek ere herritik ihes egin zuten, erregimen berriaren indarren errepresioaren jomugan egon zitezkeelako. Hala, 1936.eko urriaren 1ean (urriaren 8an alkateak Gobernadore Zibilari bidalitako dokumentu baten arabera), Beasaingo hamalau irakasleetatik zortzi bakarrik azaldu ziren: emakumezko bederatzi irakasleetatik sei (Dolores Mendiola Otegui, Saturnina Lopez Rey, Teresa Puente Paz⁸⁷³, Justa Ibero Larrayoz, Isabel Herrera Ruiz de Azua eta Maria Consolacion Iturrioz; zazpigarren bat, Teresa Setien gaixo zegoen, azaroan bere postura batuko

⁸⁶⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 11 dokumentu-sorta. Ideologiaren datuak dokumentu horretan azaltzen diren moduan bildu ditugu. Ez gaude ziur hor jasotzen diren kasu guztientzat hori hala denez.

⁸⁶⁹ Pertsona honen benetako izena Segundo Lozares Escolar zen, ez “Escobar”.

⁸⁷⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 11 dokumentu-sorta.

⁸⁷¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 11 dokumentu-sorta.

⁸⁷² Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua. Emilio Muñoz Novillo gudan hila izan zen, 1938.eko martxoan, Jaengo probintzian, Legioaren 2. tertzioko 11. banderan borrokan ari zela.

⁸⁷³ Irakasle honi buruz, badaukagu Beasaingo alkateak, Jose Luis Guridik, 1936ko azaroaren 3an idatzitako “jarrera-txosten” bat. Txosten honen arabera, Puente Pazek “portera erlijioso ona” zuen, “bere joera politikoa ezezaguna” zelarik. Beasaingo Udal Artxiboa. 252 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

zelarik. Azken hau atxilotuta zegoen Adolfo Crespo Saiz irakaslearen emaztea zen⁸⁷⁴), eta gizonezko bost irakasleetatik bi (Alvaro Garcia eta Domingo Garcia). Irakasleetako bat, Adolfo Crespo, ideia sozialistetakoa eta UGTko kidea izanik, Lasarten atxilotua zegoen egun horietarako (1937ko martxoan atera zen kalera)⁸⁷⁵. Bestetik, Astigarretako (Teresa Arrieta) eta Arriarango (Maria Teresa Arrillaga) irakasleak beren postuan zeudela esaten zuen dokumentuak; Matxinbentako eskolakoa (Jose Garcia Zapico), ordea, “Asturiasen zegoela”; beste xehetasunik eman gabe⁸⁷⁶. Joandako irakasleen postua betetzeko, urriaren 22rako lau pertsonak euren buruak eskaini zituztela jakinarazi zuen Udalak: bi karlistak eta erreketek ziren; Jose Ignacio Aramburu Aguirre eta Andres Catarain Urrestarazu, hirugarrena Guillermo Garate Aguirre zen, eta laugarrena “bere izena ez dakigun falangista bat”⁸⁷⁷. Eskolei dagokionez, neskatoen eskolan 200 neska zeuden matrikulatuta, baina eskolaren dokumentuen arabera “matrikulatzeko adinean dauden 24 neska herritik at daude” eta beste 4 ez ziren klasera azaltzen. Mutikoen eskolari dagokionez, 163 mutil zeuden matrikulatuta⁸⁷⁸.

Beasaingo Udal frankistak bere lehen pleno efektiboa abuztuaren 6an egin zuen. Bere lehen lana, zinegotziak batzordeka banatzea izan zen; hala Pedro Arana alkateorde kargurako eta Restituto Urteaga zinegotzi-sindikoko kargurako igotzeaz gain; Hornikuntza Komisionan Jose Aramburu, Eusebio Asla eta Restituto Urteaga izendatu zituzten (Pedro Garin laguntzaile zutelarik); Gurutze Gorriaren eta benefizentzia Komisionan Pedro Arana eta Martin Esnaola (Hilario Urteaga medikua laguntzaile zutelarik); Garbitasunaren Komisionan, Francisco Unzueta eta Jose Mendia (laguntzaile Feliciano Arizmendi Udal sobrestantea zutelarik); eta Asistentzia Sozialean Francisco Ezquiaga, Rufo Artolain, Jose Luis Garin eta German Zaballos, Pedro Jose Iguain laguntzaile zutelarik. (Hala ere, momentuz Ogasun Komisia ez zen eratu, eratzen zen artean, Pedro Arana et alkatea arduradun bezala aritu behar zirelarik). Komisia denetako lehendakaria alkatea izango zela ere adostu zuten⁸⁷⁹. Abuztuaren 13an osatu zituzten Komisia berriak: Benefizentzia, Udal-banda eta Gobernazioan (udaltzaingoan), Miguel Cerrajería, Jose Aramburu eta Rufo Artolain egonen ziren; Ogasun Komisionan, Guridi

⁸⁷⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 04. dokumentu-sorta.

⁸⁷⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 03. dokumentu-sorta; eta Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 279-37 kausa, Adolfo Crespo Saizi dagokiona.

⁸⁷⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 03. dokumentu-sorta.

⁸⁷⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 06. dokumentu-sorta.

⁸⁷⁸ Nesken inguruko informea Maria Dolores Mandiola irakasleak egin zuen, eta mutilei zegokiona, Domingo Garciak. Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 07. dokumentu-sorta.

⁸⁷⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

3. kapitulua

alkatea, Jose Mendia eta Pedro Arana; Uren Komision, Francisco Unzueta, Francisco Ezquiaga eta Martin Esnaola; eta Horniketa eta Azoka Komision Restituto Urteaga, Jose Luis Garin eta German Zaballos. Honez gain, Klinikarako ordezkaria Guridi alkatea izango zela, eskoletarako ordezkaria, Eusebio Asla, Eskola jatetxeetarako Guridi alkatea, Pedro Arana eta Eusebio Asla, eta Hauteskunde Zentsurako ordezkaria, Miguel Cerrajería izango zela adostu zuten⁸⁸⁰. Udal horrek, ekainetik abendura bitartean Osoko Bilkurak astero egin bazituen ere, abenduaren 3an, Eusebio Asla zinegotziak hala proposatuta, hamabostean behin egitea erabaki zuen⁸⁸¹. Azkenik, irailaren 3an Lehen Hezkuntzako Udal kontseilua osatu zen, Guridi alkateak, Miguel Cerrajería eta Eusebio Asla zinegotziek (hau da, udalaren Hezkuntza komisioak) Florencio Aspe apaizak, Hilario Urteaga medikuak eta gurasoen ordezkari bik (Natalia Azurzak eta Jose Albizuk) osatzen zutelarik. Komisio honen esku egon zen irailaren 15ean hasi behar zen ikasturte berriari hasiera emateko ekitaldiak antolatzea. Ikasturte berriaren hasierak beste esanahi bat izan zuen: askoz ere erlijiosoagoa eta tradizionalagoa zena, “Estatu Berriaren” ildoari jarraiki⁸⁸². Komisio hauen helburua (Gipuzkoako herri bakoitzean bat eratu zen), 1936.eko abuztuaren 31n Gipuzkoako Guda Batzorde Karlistak dokumentu batean esan bezala “Irakaskuntzaren bidez”, umeengan “Izpiritu espainiarra eta katolikoa hedatzea” izan zen. Horretarako, eskola publikoetan ikasturtea irailaren 15ean hasi behar zela esateaz gain, eskola publiko zein pribatu guztietan espainiar bandera jarri behar zutela, irakaskuntzak “katolikoa eta espainolista” izan behar zuela, ikasteguna hasi eta bukatzerakoan Aita Gurea errezatu behar zela, “euskaldunek eta bereziki gipuzkoarrek nazio espainiarrari egindako ekarpenak gogo biziz” erakutsi behar zirela, eta azkenik, “euskaraz bakarrik dakien umeari, euskaraz erakutsiko zaio, baina erdara grina osoz erakutsiz. Erdara dakienari, erdaraz erakutsiko zaio” (hots, bi hizkuntzak zekizkienari erdaraz erakutsiko zitzaion, eta euskaraz zekienari, euskaraz, soilik erdaraz jakin arte, euskaraz jakitea aldi batera ezgaitasun bezala hartzen zelarik praktikoki). Gipuzkoako hezkuntzarako inspektore gisa Manuel Jimenez Cachon jarri zuten⁸⁸³.

⁸⁸⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

⁸⁸¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁸⁸² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 252 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

⁸⁸³ Beasaingo Udal Artxiboa. E073 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

Udal berriaren kolore karlista berehala nabari izan zen eta ez soilik Udalaren osaketari begira, baizik eta bere lehen ekintzak halakoak izan zirelako. Behin komisiok banatuta, hartu zuten lehen erabakia Lizarrako alkateari “esker oneko telegrama bat bidaltzea izan zen” (Beasain hartu zuten zutabeetako bat Lizarratik abiatu izan zen), eta bigarrena, “Guda Batzorde Karlistaren instrukzioei jaramon eginez” (instrukzio hauek Gipuzkoako Guda Batzorde-Karlistak abuztuaren 5ean eman zituen, Ordiziarik); bandera (bi koloredun monarkikoa, zeina oraindik altxatuen aldean ofiziala ez zena) eraikin ofizialetan jartzea, eskoletan berriz gurutzea jartzea, Udaletxean Jesusen Bihotz Sakratuaren irudia jartzea eta Udala ekitaldi erlijioso denetara joatea⁸⁸⁴. Azken puntu hau Udalak azaroaren 25ean aurkeztutako mozio baten bidez bete zuen, non mezara joaterakoan alkatea (edo bere orde zihen zinegotzia) agente-makilarekin joan behar zela jasotzen zuten⁸⁸⁵. Honez gain, Udalak “mugimendura bolondreski batzen ziren guztiei neurriak hartu” behar zizkiela agintzen zen instrukzio horietan (beraz, Udalak Guda-Batzorde Karlistak antolatutako mugimenduan kolaboratu beharko zukeela adierazten zuten)⁸⁸⁶. Udal berriak, abuztuaren 13an, Gipuzkoako Guda Batzorde Karlistari hamabi mila pezeta ematea adostu zuen, nahiz eta “Udalaren egoera kaskarra dela eta”; lehen epe batetan soilik zortzi mila pezeta eman⁸⁸⁷. Hala ere, abuztuaren 23ko bilkuran, Udalak, beasaindarren artean Gipuzkoako Guda-Batzorde Karlistarendako “herri diru-bilketa” antolatze erabaki zuen⁸⁸⁸. Bestalde, “zilegitasun juridikoaren” arloan, ere, Beasaingo Udal frankistak, “altxatuen” aldeko merituak ere erakutsi nahi izan zituen; irailaren 3ko Osoko Bilkuran, Donostiako Udalean (orduan oraindik Donostia errepublikanoen esku zegoen egindako aldaketa baten inguruan), Guridi alkateak zinegotzien aldaketa hori “legez kanpokoa” zela iritzi zion eta hori zela eta “protesta” bat bidaltze erabaki zuen Udalak. Praktikoki, “kexa” hori, borroka sinbolikoaren barne ulertu behar da (pentsaezina da errepublikanoen alde zegoen udal batek, Gipuzkoako hiriburukoa izan arren; kolpisten aldean zegoen Udal bati bere barne funtzionamenduaren berri eman behar izatea): zilegitasuna ez aintzatestearen inguruko mugimendu bat besterik ez zen izan⁸⁸⁹. 1936.eko urriaren 3an, azkenik, Jose Luis Guridi alkateak Franco jeneralari, altxatuen aldeko militar taldeak irailaren bukaeran

⁸⁸⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 23 dokumentu-sorta. Lizarrako alkateari bidalitako telegramarena, Joxe Manuel Azurmendik ere kontatu digu. Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

⁸⁸⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 06 dokumentu-sorta

⁸⁸⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁸⁸⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁸⁸⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁸⁸⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

3. kapitulua

“Estatuburu” (altxatuen aldean zeuden lurraldeetan eraikitzen ari ziren erregimenaren Estatuburu, alegia) izendatu zuela eta, zoriontzeko telegrama bidali zion⁸⁹⁰.

Bestalde, karlisten eta falangisten arteko tirabirak Beasainen hainbeste nabarmendu izan ez baziren ere (batez ere bertako eskuinaren gainean karlismoak zuen nagusitasuna oso handia zela kontuan hartuz, halako tirabiretarako tarte oso txikia zegoen), karlisten aldetik egon zen falangistekiko mesfidantza. 1936ko urriaren 1eko Udal-bilkuran, Eusebio Asla zinegotziaren galdera izan zen, ea zergatik jarri behar zen eskola publikoen kanpoaldean Falangeri erreferentzia egiten zion kartel bat eta alderdi honen bandera, hura alderdi haren zentru politiko bihurtuko ote zen eta. Guridi alkateak erantzun zion bertan ez zela zentru politikorik egingo, baizik eta emakume batzuek bertako komandante militarri (Alberto Ruiz Morionesi) frontean zeuden soldaduentzat arropa egiteko boluntaritza eskaini zietela, eta eskola erabili zutela arropa hori egiteko, beraz, iharduera horrek iraun bitartean egongo zirela Falangeren bandera eta kartela eskola publikoaren eraikinean⁸⁹¹. Jabier Garcia Bergarak ere hitz hura baieztatzen digu: “guda garaian, emakume falangista batzuek, tropa nazionalentzako arropa josteta antolatu zuten”⁸⁹².

Herriaren egoera dramatikoa zen, ez bakarrik errepresio aldetik zein gose aldetik. *La Voz* egunkariak 1937an esan zuen “Beasainen jendeak beldur zuela kalera ateratzeko” eta “miseria nonahi aurki daitekeela”⁸⁹³. *La Voz* egunkariak huraxe 1937ko maiatzean esan bazuen ere, bazirudien 1936ean egoera berdina zela, abuztuaren 13ko plenoak, herritarren artean, bakoitzari patata kilo bina eta arraultza dozena bana banatzeko erabakia hartu baitzuen. Horrez gain, CAFi, herritarren artean banatzeko ikatz pixka bat ematea negoziatzea adostu zuen Udalak⁸⁹⁴. Ikatza CAFetik lortzeko gestioek ematen zuenez, ez zuten helburu handirik lortu, abuztuaren 20ko Udal-Bilkuran ikatza Tolosatik ekartzeko gestioak aztertzea erabaki izan baitzuten⁸⁹⁵; eta urriaren 8ko Udal bilkuran, Ponferradako enpresa bati ehun tona ikatz eskatu zitzaizkiola publiko egin zen. Ponferradako enpresak ehun tonak bidaltzea ezinezko zela esan zuen, eta beraz, CAFi berriz eskatzea erabaki zuen Udalak, CAFek urriaren 15ean

⁸⁹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 3186 karpeta, 45 dokumentu-sorta

⁸⁹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁸⁹² Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁸⁹³ *La Voz*, 1937-V-16.

⁸⁹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁸⁹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

eskaera horri baiezkoa eman ziolarik⁸⁹⁶. Abuztuaren 23an, Beasaingo merkatariari “Udalak premiazko produktuak eros zitzaizun”, 10.000 pezetako donatibo bat eskatu zitzaizun. Eskaera hori merkatariak onartu egin zuten, horretarako ordezkaria Serafin Arana zinegotzi errepublikano ohia (1934an dimititu izan zuena) izan zen⁸⁹⁷. Serafin Arana Pedro Arana orduko alkateordearen anaia zen, beraz horrek ondo erakusten zuen elite liberal burges batek frankismoaren alde egindako apustua. Azaroan, adibidez, Eskolako Jantokia zabaldu behar izan zuten, goserik zegoen jendeari jaten emateko (agindua azaroan eman bazen, inaugurazioaren berri abenduaren 3ko bilkuran izan genuen)⁸⁹⁸. Jose Luis Guridi alkateak sinatutako dokumentu baten arabera, 1937ko urtarrilean 90 umek jaten zuten jantoki sozial horretatik⁸⁹⁹ (Milagros Larreak kontatzen duenaren arabera “han ematen zutena ez zegoen jaterik”⁹⁰⁰). CAFek, azaroaren 12an, egunean bost esne litro ematea erabaki zuen, Udalak ez baitzuen errekurtsio nahikorik⁹⁰¹. Ez zen hura CAFek egin zuen kontribuzio bakarra: Abenduaren 10eko bilkuran CAFek jantoki horretarako hilean ehun pezetako laguntza emango zuela jakinarazi zuen Udalak⁹⁰². Beasaingo pobrezia oso handia zen, 1936.eko azaroaren 10eko dokumentu baten arabera, Beasaingo 138 familia Udalaren laguntza jasotzeko zerrenda batean apuntatuak zeuden. Egoera hau, Errepublikako krisi ekonomikoak ekarri zuena baino nahiko larriagoa izan zen⁹⁰³. 1937.eko urtarrilean Benefizentzia Batzordea sortu beharra izan zuen Beasaingo Udalak, alkatea, zinegotzi batzuk, apaiza, medikua eta irakasle bat kide zirelarik; egoerari erantzun bat emateko arduraz⁹⁰⁴. Batzorde honek, beste gauza batzuen artean, helburu bezala, Beasaingo herritarrei Jantoki Sozialarekin kolaboratzea eskatzea zuen⁹⁰⁵.

Udalaren egoera oker zezakeen beste afera bat, Salbatoretik Garinerako bidea gaizki egin izana (behar baino luzeagoa) izan zen, zeinak, bidea behar baino gehiago egin zela eta, Gipuzkoako Aldundiarekin zerga handitzea ekarri zuen. 1936ko urriaren

⁸⁹⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁸⁹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁸⁹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁸⁹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

⁹⁰⁰ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasain, 2012-IV-14.

⁹⁰¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 2941 karpeta, 35 dokumentu-sorta. Rosario Larrearen arabera, han ematen zuten esnea umezurtz geratu zirenentzako izan zen –bere kasua ere halakoa izan zen-. Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasain, 2012-IV-14.

⁹⁰² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹⁰³ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 08. dokumentu-sorta.

⁹⁰⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

⁹⁰⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

3. kapitulua

15eko Udal-Bilkuran, oraindik Gipuzkoako Foru Aldundia eratua ez zegoenez, eratzen zenerako Cerrajería eta Ezquiaga zinegotziak zerga horren ingurukoak negoziatzeko arduradun izendatzea erabaki zuten⁹⁰⁶.

Udal honek berehala hartuko zuen beste erabaki bat, Martina Maizeko eskolak, publikoak izan behar zituztenak, pribatizatu eta moja karmeliten eskuetan uztea izan zen “lokal hauek libre geratu baitziren”. Miguel Cerrajería izan zen erabaki honen bultzatzaile nagusia eta bere argudioa “haur-eskolako eskola nazionalen maila jada beharrezkoa ez zela” izan zen, baina Udaleko Hezkuntza Komisioak (Cerrajería berak, Guridi alkateak eta Eusebio Aslak osatutakoak, herriko beste ordezkari batzuekin batera) baiezkota eman zion proiektu hari. Beraz, Errepublika garaian han eskola publikoa egiteko proiektua bazegoen ere, hain eztabaidatua izan zen proiektu hori, segituan desegin zuen Udal frankistak, Miguel Cerrajeríaren inpultsuz hartutako erabaki baten ostean⁹⁰⁷. Eskola horiek, irailaren 13an, igandez, bedeinkatzeko ekitaldia antolatzea erabaki zuen Beasaingo udalak irailaren 3ko bilkuran, bedeinkapen-ekitaldia meza batekin hasiko zenez⁹⁰⁸. Bestalde, Beasaingo Lehen Hezkuntzako Udakomisioak (lehen esan bezala; alkateak –Guridik-, zinegotzi bik –Aslak eta Cerrajeríak, medikuak apaizak eta gurasoen ordezkari bik osatutakoak) irailaren zazpian egindako bilkura batean hura berretsi zuten. Komisio honen arabera, eskola-eraikin horren inaugurazio ofiziala “Errepublika garaian” egin zenez eta inaugurazio horrek “bedeinkapena falta zuenez”, ezin zen benetako inauguraziotzat hartu, beraz, bedeinkapen erlijiosoak beharrezkoa behar zuten⁹⁰⁹. Udalak, ekitaldi horretara, Probintziako Lehen Hezkuntzako Inspektorea (Manuel Jimenez Cachon) ere gonbidatu zuen, trszendentzia handia eman ziolarik⁹¹⁰. Botere erlijioso eta botere zibikoa bat eginda beraz, Estatu berriaren sektore elizkoi edota tradizionalistak nahi zuen ildotik; eta aldi berean, Errepublikaren aztarna guztiak ezabatu egin nahi ziren: hau da, Errepublikaren lorpen bat (Beasaintzat eskola berri bat lortzea) “baliogabetu” nahi izan zuten: lorpen hori onuragarria ez zela erakutsi nahi zuten, Estatu Berriaren oinarri ideologikoekin (espazio publikoaren “erlijiosotzearekin” kasu honetan) bat ez zetorrelako, beraz “berriz, modu zuzenean” inauguratu behar zen, lorpen hori “baliagarria” izan zedin. Gainera, esan beharra da hau ez zela izan bat-bateko erabaki

⁹⁰⁶ Beasaingo Udak Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹⁰⁷ Beasaingo Udak Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹⁰⁸ Beasaingo Udak Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹⁰⁹ Beasaingo Udak Artxiboa. E073 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

⁹¹⁰ Beasaingo Udak Artxiboa. 252 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

bat, izan ere, karmelitek, udan klaseak emateko baimena eskatu zioten eta lortu zuten Udalarengandik. 1936.eko abuztuaren 18an egin zuten eskaera horretan, beste gauza batzuen artean, “gure klaseak zabaltzeko baimena” eskatzen zioten alkateari, hau da, klaseak emateko toki bat izango zutela praktikoki egitatetzat zuten⁹¹¹.

1936ko azaroaren 7ko Udal-bilkuran, Gipuzkoa eta Bizkaiko lehen Gobernadore Zibilak, Horniketa Batzordeko kide gisa, arrautzen prezioak markatu zituela jakinarazi zuen; 4 pezeta dozenako⁹¹². Hala ere, azaroaren 23ko Buletin Ofizialean, bestelako prezio batzuk azaltzen ziren; 4 dozenako, estra motako arrautzetarako izango zen, 3,75 arrautza arrunten dozenarako eta 3,25 “Kutzako arrautzen” dozena bakoitzeko⁹¹³. Arroz kilo bakoitzak 1,60 pezeta balio behar zituen, eta Eskoziako edo Islandiako makailoak kiloko 3,30 pezeta. Gatza industrialeko tona 70 pezetatan zegoen, eta lixiba, litroko 0,50 eta 0,55 pezeta artean⁹¹⁴. Altxatuen peko lehen hilabeteetarako merkatu prezioen eboluzio txiki bat ere ezarri dezakegu (prezioa pezetatan):

Produktua	1936-XII ⁹¹⁵	1937-II ⁹¹⁶	1937-III ⁹¹⁷
Arrautzak (dozena)	4	3,40	2,25
Gazta (kiloa)	5	6	3,30
Mahats beltzak (kiloa)	0,80	-----	-----
Udareak (kiloa)	-----	2	2
Sagar bereziak (otzara)	1	1,50	2,20
Sagar arruntak (otzara)	0,60	0,90	1,80
Gaztainak (fanega)	20	-----	-----
Babarrunak (kiloa)	3,75	3,25	3,50
Patatak (kiloa)	0,30	0,35	0,25

⁹¹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 252 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

⁹¹² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹¹³ Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

⁹¹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

⁹¹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 171 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁹¹⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

⁹¹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

3. kapitulua

Aza (sorta)	0,30	0,40	0,40
Kipula (dozena)	0,90	1,20	1,60
Oilo parea	12	12	12
Oilasko parea	10/11	12	12
Untxia (kiloa)	10,90	Parea: 1,90	Parea: 1,80
Usoa	2	2,25	2,25
Txahala (kiloa)	3,60	2,70	5
Behikia (kiloa)	2,80	2,70	2,80
Aker-haragia (kiloa)	1,20	-----	
Arkumea (kiloa)	-----	4	1,75
Txerria	40	35	32
Legatza (kiloa)	6	6	6,75
Merlenka (kiloa)	3	2,50	2,80
Muxila (kiloa)	3	3	3
Bixigua (kiloa)	2,50	2	2,50
Txipiroiak (kiloa)	3	-----	1,20
Krispetak (kiloa)	-----	1,90	-----

Egoera nahiko kritikoa zela erakusten duen beste zantzu bat, Alberto Ruiz Morionesek 1936.eko azaroaren 13an, diruaren espekulazioaren eta akumulazioaren kontra atera zuen dekretua izan zen halako bilketa egiten duena “patriota txar bezala hartua (...) eta gogorki zigortua” izango zela ohartaraziz; beraz, halako dekretu bat atera behar izanak erakusten du halako praktikak gertatzen zirela⁹¹⁸.

⁹¹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 57 dokumentu-sorta.

Bestalde oso kuriooa da Udal honek nola gertuko oroimena desitxuratzen zuen. Abuztuaren 27an hartutako erabaki baten arabera, “Elizaren ondoko pabiloia konpontzeko” erabakia hartu zuen Udalak, baina kaltetutako pabilioi hori (eraikin erlijioso bat zena) nola kaltetu zen ez zuen azaldu. Kaltetze hori, uztaileko borrokaldien ondorio besterik ezin zitekeen izan, nahiz eta Guridik zuzendutako Udal karlistak ez zuen huraxe esan nahi, Francoren tropek “gurutzada” batean borrokatzen zuteneko iruditeriarekiko kaltegarria izan zitekeelako⁹¹⁹. Azaroaren 28ko bileran, Pedro Arana zinegotziak “Kale Nagusian su hartu zuten etxeen hondarrak erretiratzeko” mozio bat ere aurkeztu zuen. Ez mozio horretan ez aktan ez zen esan zer zela eta hartu zuten su etxe horiek (1936.ean Beasainen ez zen sute naturalik izan)⁹²⁰.

3.7 Beasaingo aginte frankistaren autozelebrazioa

Jaiak antolatzea betidanik, eta are gehiago masa gizarte modernoetan, izan da edozein botere politikoren egiteko garrantzitsu bat, uste baino garrantzitsuagoa. Jaiak botere politiko batentzat hiru funtzio garrantzitsu betetzen dituzte: mezu propioa “kodifikatzea” (sinplifikatzea), populazioaren “parte-hartzea” irudikatzea (betiere oso kanal estu batean eta gidoi prestatu batean) populazioaren eta gobernuaren arteko “zanga itxiz” (aldi baterako bada ere), eta azkenik “espazio publikoa” okupatzea (fisikoa, hau da, kalea, desfileen edo monumentuen bidez; edota adimenekoa, adibidez egutegian erregimenak egun “bereziak” markatzea, edo hizkera eta kode komunikatibo batzuk inposatzea).

Erregimen faxista edota totalitarioetan (frankismoaren izaerari buruz eztabaidatzea ez da lan honen helburua; baina inork gutxik jarriko zukeen zalantzan 1945 urtea arte behintzat frankismoa ezaugarri faxistak nagusi ziren erregimen totalitario bat zela), jaiak erregimenaren ideologiarekin bat eginez, faxismoak bilatzen zuen komunitate nazional batu (klase-gatazkarik gabeko), homogineoa eta liderraren pekoa irudikatzeko balio izan dute. Frankismoa ez zen salbuespen bat izan.

Zira Box estatubatuar irakasleak ondo aztertu du frankismoaren jaien dinamika⁹²¹. Bere ustez, 1936ko uztailearen 18an altxatutako edo altxamendu hau babestu zuten sektore militar eta zibilen arteko “koalizioa”, “negatiboan” definitzen zen

⁹¹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹²⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹²¹ BOX, Zira: *España, año cero. La construcción simbólica del franquismo*. Alianza Editorial. Madril, 2010.

3. kapitulua

gehiago zerbaiten aurka joatearen, zerbaiten alde egotearren baino; marxismoaren kontra, liberalismoaren kontra, Errepublikaren kontra eta abar. Hori zela eta, frankismoarentzat “Espainia”, “Benetako Espainia” 1936ko uztailaren 18an eta 1939ko apirilaren 1ean hasi zen, hura bait zen Estatu berria eraikitzeko mugarriak. Beraz, jai ezberdinetan, bi data hauek goratu zituzten; “kanpora begira” ospatzeko, hau da, “kanpokoak”, hots, gudan galtzaileak, ospakizun hauetatik, beraz Estatu berritik kanpo uzten zituen. Beste alde batetik, kontuan izan behar da baita Francoren Espainia “garaipen” batetan fundatutako estatua zela, beraz “garaipen” hau oso garrantzitsua zen Estatu berriaren iruditeriarako. Behin eta berriz ospatzen zuten hori, handitasunez eta “kolosalismoz”⁹²². Baina garaipen guztiek, galtzaile bat dute, eta kasu honetan alde errepublikanoan egon zirenak izan ziren. Beraz, ospakizun hauen eta hauek zabaltzen laguntzen zuten iruditeriaren bidez, Estatu berritik kanpo zeudela adierazten zieten.

Beste alde batetik, “barnera begira”, halako jaiak frankismoaren fakzio ezberdinentzako eta euren arteko lehia politiko ez guztiz ageriarendako borroka-zelai bat izan ziren. Hau da, bakoitzak gudan aliatu eta politikan lehiakide ziren beste fakzioekiko zelaia markatzeko erabiltzen zituen. Francoren aldeak “Jainkoa eta Espainia” zuen goiburu gisa, baina fakzio guztientzat “Jainkoak” eta “Espainiak” elkarren artean izan behar zuten harremana ez zen berdina. Falangistentzat nazioa zen denaren hasiera eta bukaera, erlijioaren gainetik, honi nolabaiteko paper “historikoa” onartzen bazioten ere; karlistentzat eta nazionalismo erlijioso baten aldekoentzat oro har, erlijioa eta moral katolikoa Estatuaren gainetik zegoen, nazioak berak erabat katolikoa izan behar baitzuen, bestela ez zen Espainiarik. “Espainia” horren definizioan ere ez zetozen erabat bat; karlistentzat iraganeko zerbait zen, Erregimen Zaharrekoa, “tradizioaren legearen arabera” gobernatu behar zena, hots, “itzultzeke” zegoen zerbait zen; falangistentzat ordea, faxismoaren jarraitzaile gisa, etorkizun faxista batek moldeatuko zuen zerbait zen, “eraikitzeke” zegoen zerbait zen. Hori fakzio bi aipatzearren, bestelakoek -Elizak, monarkiko alfonsotarrek, militarrek- bestelako proiektuak izan baitzezaketen. Estatuaren paperaren inguruan (falangistentzat Estatuak totalitarioa izan behar zuen, beste fakzioentzat beste gorputzekin bat orekatu behar zen -Elizarekin, bestelako elkarteekin, “lege tradizionalarekin” eta abarrekin-). Jai hauen bitartez, fakzio bakoitzak “Espainia” definitzeko aukera bilatzen zuen, hau da, bere proiektu politikoa frankismoaren beste fakzioen proiektuen aurretik aintzinaraztea.

⁹²² Ibid., 24-25., 30. eta 365. or.

Kontutan izan behar da fakzio ezberdinetako batek ere ez zuela lortu bere kabuz irabaztea, eta guda zibilaren garaipena bazen, 1939ko garaipen hori ez zen fakzio ezberdinetako batek ere ez %100ean nahi zuena. Zira Boxek esaten duen moduan “erregimenaren itxurazko batasunaren azpian (...) Estatu Berriaren sinbologia, fakzio ezberdinen arteko, nazioaren esentziak bere arabera definitzeko asmoz, borroka-zela bilakatu zen”. Hala ere, guda zibilean, talde hauek arteko nolabaiteko “minimalismoa” eta euren arteko batasuna lehenetsi beharrean izan behar ziren, bakoitzaren programa amankomunaren gainetik. Altxatuen aldearen alde zeuden talde horiek batzen zituen erregimenak, eta honen nukleoak (Francok eta armadak), eskuindar ezberdinen arteko “amankomuntasan” hau zabaltzeko (eta batzuen zein besteen maximalismoak baztertzeko) erabiltzen zituen jai hauek⁹²³.

Beasain, karlistek kontrolatutako, edo karlistek pisu handi zuten herria izanik, kontuan hartu behar da jaiak ere zentzu horretan joango zirela, gehiago iraganeko sinboloak berreskuratzera, sinbolo berrien eraikuntzara (eraikuntza faxista batetara) baino. Adibidez, Beasaingo lehenengo jai-omenaldia, 1936ko urriaren 2an egin zen “banderari omenaldia” izan zen, non Espainiako bandera monarkikoa omentzeaz gain, Erreketeen Loinazko San Martin Konpainiaren burua (Jesus Ibañez Arcajo) gonbidatu zuten⁹²⁴. Bestetik, urriaren 1ean bertan, Francisco Ezquiaga zinegotziaren proposamenez, urriaren 25ean, Kristo Erregearen egunean (jai hau berez elizkoa zen, ez erregimen frankistak asmatutakoa) Jesusen Bihotz Sakratua Udalaren bilkura-aretoan tronuratzea onartu zuen Udalak⁹²⁵. Jesusen Bihotz Sakratua ezartzea nahiko sinbolikoa bazen ere, gurutzeak edozein tokitan jartzeko erabakia izan zuen Udalak, lehen komentatu dugu eskola publikoan gurutzea eta bandera jartzea Udal berriaren lehen erabakia izan bazen, urriaren 15ean, Arriarango eskoletan jartzea erabaki zutela, horretarako Zonaldeko Komandante Militarra bera era gonbidatuz⁹²⁶. Honez gain, abenduaren 3an egindako Osoko Bilkuran, Udalak igandetako mezara ordezkaritza bidal

⁹²³ BOX, Zira: op. cit., 34-44., 87-89., 109-113., 116., 360. eta 363. or. Zira Boxen arabera, erregimenak bere itxura aldatzeko gaitasuna mantendu zuen (lehen urtetako falangismotik “nasionakatoizismora” edo teknokratisimora) hain zuzen, fakzio ezberdinen arteko batuketa bat zelako, eta hauek arteko orekari eustea lortu zuelako, baita ere eraikuntza sinbolikoari dagokionez. Hain zuzen ere, erregimenak bere fakzioak, falangistak batez ere, “erabiltzea” lortu zuen.

⁹²⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹²⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹²⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

3. kapitulua

zezan adostu zuen Udal bilkurak, Eusebio Asla eta Francisco Ezquiaga zinegotziek proposatuta⁹²⁷.

Udal frankistak (eta honen agintariak) gudan zehar gehien omendu zuten elementua armada frankista bera izan zen. Guda hau, “mugimendu nazionalaren” edo “Mugimendu salbatzailearen” arabera, “iraultzatik” eta “kanpoko potentzien dominioetik” (masoitzak edo Sobietar Batasuna izan) “aberria salbatzeko” mugimendu bat izan zen, beraz, bertan parte hartzea “hiritarraren betebeharrak” bezala ikusten zen, edota betela esanda, ekintza eredugarri gisa. Beasainen izan bagenuen nagusiki bertako erreketek osatutako formazio bat, Oriamendi herenaren barneko “Laugarren Konpainia: Loinazko San Martinen Konpainia” (ataundarrak, lazkaotarrak eta olaberriarrak ere barruan bazeuden ere; eta baita ere gudak aurrera egin ahala, beste formazio batzuetatik sartutako erreketek). Beraz, Oriamendi herenaren barruko Loinazko San Martinen Konpainiaren erreketek omenaldi aunitz jasotzea “arrunta” bilakatu zen frankismoaren agintaldiaren pean. Guk dakigunez, 1937ko azaroan 7an, bazkari bat egin zen Beasainen konpainia honetako kideak ohoratzeko⁹²⁸. Hala ere, askoz handiagoa izan zen 1939.eko maiatzean (herriko festak zirela) gudaren bukaera ospatzeko Beasainen Loinazko San Martinen konpainiaren omenez egin zen jaia. Erreketeak frontetik ekartzeko, maiatzaren 16an kamioi bat eta 17an bi bagoi ere eskatu zion Udalak CAFi, eta maiatzaren 16an, Ormaiztegiko Jose Luis Telleria izeneko gizon bati kamioi bat baita⁹²⁹. Bazkarirako txartelak 15 pezetan saltzen ziren, eta Ataungo, Olaberriako eta Lazkaoko alkateak ere gonbidatu zituen Beasaingo Udalak. Dokumentuen arabera, konpainia 1939ko maiatzaren 20an (larunbatez) iritsi zen Beasaina, 22an (astelehenez) San Martinen omenezko prozesio batean parte hartu zuten, eta bazkaria maiatzaren 28an (igandez) izan zen⁹³⁰.

Loinazko San Martinen Konpainiaren aldeko jaiek, guda bukatuta ere iraun zuten, Adibidez, 1940.eko uztailaren 7an, Estatuak erreketek Armadako “ohorezko lotinant” egin behar zituztela ospatzeko, Beasaingo Udalak ospakizun batzuk pentsatu zituen, hauen barruan, San Martinen Basilikan meza eta apaizari Konpainiaren “bandera-ematea” izango zelarik (ekitaldi hau Guridik Espainiako Barne Ministroari

⁹²⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹²⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

⁹²⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

⁹³⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

jakinarazi zion, 1940eko ekainaren 10ean)⁹³¹. Ekitaldi horretan Epifanio Arguiñano kapitaina ere egon zen, ez soilik konpainia ordezkatzuz, baizik eta baita Gipuzkoako FET-JONSeko milizia ordezkatzuz. Hala ere, joaterik izan ez zuena, Alberto Ruiz Moriones jenerala, 1936.ean Beasaingo plazako komandantea izandakoa izan zen, honek telegrama bat bidali zuen ez joatearren barkamena eskatzuz. Bestalde, jaiez kanpo, 1938an Udalak Loinazko San Martinen Konpainiaren aldeko diru-bilketa kanpaina bat hasi zuen⁹³².

Beste alde batetik, hildakoen inguruko ospakizunak ere ematen ziren. Izan ere, gudan hildakoen aldeko ospakizunek ere funtzio bat betetzen zuten. Hildako horiek “eginkizun goren batean “ (guda batean, “Aberria salbatzeko gurutzadan”) hildakoak izan zirenez, “eredugarri” ziren beste herritarrentzat eta Nazioarentzat. Hau da hildakoen memoriaren aldeko ospakizunak familiaren esparrua gainditzen du nazioaren esparruan sartzeko, nazioarentzat eredu izan behar zirelako (eta kontutan harturik Errepublikaren –“marxismoaren”, “separatismoaren”, “liberalismoaren”- aurka guda egiten ari zirelarik, guda hori egitea eredugarria zen espainiarrentzat, edo tokiko kasua hartuta, beasaindarrentzat). Zira Boxen arabera, hildakoen inguruko halako ospakizunak, hildakoen sakralizatzeko hori ez zuen faxismoak asmatu, nahiz eta bere egin zuen. Halako ospakizunak lehenbizi Frantziako Iraultzan erabiltzen hasi ziren⁹³³ (ironikoki, faxistek ukatzen zuten iraultza bat⁹³⁴), eta 1914-1918ko munduko Gudan berreskuratu ziren (ziurrenik hemendik hartu zuten faxistek halako ehorzketak erritual bezala erabiltzeko ohitura, gogora dezagun Europako lider faxista askok Lehen Mundu Gudan borrokatu zutelak). Baina Boxen arabera bazegoen beste arrazoi bat heriotza horiek hainbeste santifikatzeko: guda zibilean gertatutako heriotza kopuru handia (bai borrokan eta bai atzegoardiako errepresioan, kasu honetan Francoren aldeak

⁹³¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

⁹³² Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

⁹³³ Gogora dezagun Frantzia izan zela “soldadu ezezagunari” ehorztoki bat eskaini zion lehen Estatuak. Hau da, ehorztoki hori ez zen pertsona konkretu bati eskaintzen, baizik eta “Aberriaren aldeko borrokalariari”. Honek, noski, nazioaren sakralizazioaren zentzu bat du, pertsonaren sakralizazioaren gainetik. Jakina denez, halako ehorztokiak eraikitzeak ere nolabaiteko zentzu laikoa edo “antierlijiosoa” ere badu, hain zuzen ere, “erlijio laiko” baten asmakuntzan sartzen da (kristau erlijioaren arabera, hileta elizkizun garrantzitsua da, eta gorputza erritu katolikoaren arabera ehortzi behar da, arima beste munduan bizi dadin. Gorputz ezagunik gabeko ehorzketa batek ez du batere zentzurik pentsamendu kristauaren arabera. Horregatik diogu erlijioa nazioaren erlijioaz ordeztoko pausu bat dela).

⁹³⁴ Faxistendako, Frantziar Iraultza, demokraziaren, liberalismoaren, materialismoaren eta pentsamendu arrazionalaren garaipen gisa, ukatzekoa zen. Hala ere, kontutan izan behar dugu faxismoak bazituela zenbait elementu Frantziar Iraultzatik hartzen zituenak: adibidez, hauxe bera, nazioaren sakralizazioa ororen gainetik, Estatuaren lehentasuna eta Estatuan zein nazioan oinarritutako “erlijio laikoaren” zutarritzea. Hau ez zen gertatuko tradizionalisten (karlisten) kasuan, hauengan, Frantziar Iraultzarekiko ukoa erabatekoa zen.

3. kapitulua

egindakoak, bereziki). Beste erregimen faxistak ez ziren boterera iritsi guda zibil baten bidez (eurentzat esperientzia odoltsu hori Bigarren Mundu Guda izan zen, eurek, faxistek probokatutakoa)⁹³⁵. Francoren erregimena bai ordea. Horregatik behar zen hilketa horiek “leuntzeko”, heriotza horiei esangura berri bat eman: “Aberri berriaren kimuak” izango ziren. Hala ere, hildakoen inguruko ospakizun hauek ere, falangisten eta karlisten (eta beste sektoreen) arteko tirabiretatik aske ez ziren egon. Lehen komentatu izan dugu “Jainkoaren” eta “Espainiaren” arteko harremana definitzea zela falangisten eta sektore katolikoan (karlistak barne) arteko tirabira bat. Hildakoen aldeko omenaldien inguruan, tirabira hauek erreproduzitu egin ziren; nolakoak izan behar ziren ehorzketa horiek? Fakzio bakoitzak bere erantzuna zuen galde horri erantzuteko: karlistendako Espainiaren alde hiltzen zena Jainkoaren alde hiltzen zen, hau da, heriotza erlijioso bat zen sufritu zuena; falangistendako Espainiaren alde, eta horrekin datorrenaren alde: Estatu berriaren alde, ideia faxistaren alde, etorkizuneko Espainiaren alde hil ziren, ez Jainkoaren alde bereziki. Gainera, kontutan izan behar dugu halako ospakizun handi “Politikoak”, tradizio katolikoan gertatzen ez zirenak, arrotzak zirela berez Elizarentzat eta karlistentzat, beraz, hauek halako ospakizunetan eroso egoteko, “esanahi erlijioso” oso kargatu bat ematea beharrezko zitzaiela⁹³⁶.

Beasainen hildako hauek (alde batetako hildakoek soilik, noski) ohoratzeko asmoa segituan erakutsi zuen Udal frankista berriak. 1936ko irailaren 10ean egin zen halako lehen omenaldia, beraz Beasainekin lotura zuzenik ez zuen pertsona baten omenez. Pertsona hori Joaquin Beunza nafar zuzendari karlista zen (1931an eta 1932an Euskal Estatutuaren aldeko jarrera erakutsi zuena). Beunza Ondarretako kartzelan hil zen, irailaren 4an, fusilatua izan zelarik. Beunzak Beasainekin lotura eskasa zuen, bere seme Daniel Beunza Goierri eskualdeko Segura herriko notarioa izatea baino ez. Lotura eskasa beraz, hala ere, Besaingo udalak bat egin zuen Daniel Beunzarekin eta Segurako Udalarekin, Joaquin Beunzaren aldeko meza eta omenaldia antolatzerakoan⁹³⁷.

Beunzaren ondoren, tronurako hautagai karlistaren heriotza etorri zen. Hauxe, Alfonso Carlos Borbon, 1936an bertan hil zen, eta Zirkulu Tradizionalistak, 1936ko

⁹³⁵ Gogora dezagun frankismoaren monumenturik adierazgarriena, “Valle de los Caidos/Eroritakoen harana” dela, 1936ko Gudaren hildakoei egindako hilerrir erraldoia.

⁹³⁶ Falangistek halako ehorzketak Errepublikara garaian antolatzen hasi ziren, Guda Zibilik egon ez zenean baita. Ikus BOX, Zira: op. cit., 121-127., 131-134. or. eta 146-150. or.

⁹³⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

urriaren 15ean udala honen aldeko elizkizunera agertzera gonbidatu zuen. Udalak onartu egin zuen gonbidapen hori⁹³⁸.

Altxatuen aldean zuzendaritza lanean aritu ziren militarren alde ere egin ziren halako hileta-omenaldiak: 1937.eko ekainaren 13an, Udalak Emilio Molaren aldeko hileta antolatu zuen, eta horretarako, Zirkulu Tradizionalistari, kideak eta “miliziak” (laguntza-erreketeke kideak), uniformatuta joan behar zirela agindu zien (1937.eko ekainaren 11ko agindua). Mezara joan aurretik, Udaleko alkate eta zinegotziak eta kide karlistak, hamaikak laurden gutxiagotan Loinazko San Martinen Plazan egon behar zirela egindu zuen Udalak, Elizara denak batera joan zitezten⁹³⁹.

Oriamendi herenaren Loinazko San Martinen Konpainian borrokan ari ziren erreketen heriotzogatik, Udalak ere omenaldia egiten zien, kasurik gehienetan, Udala, nor zelarik, erreketen hauen alde egiten ziren mezetara joaten zirelarik. 1938eko urtarrilaren 22an, Udalak Enrique Gimenez Porrás kapitainaren heriotza zela eta, bere familiakoei doluminak ematea adostu zuen eta bere aldeko hileta ere antolatu zuen, Ordiziako alkatea ere bertan zelarik (Gimenez Porrás Mallorcakoa zen. Hala ere, kontutan izan behar da Loinazko San Martinen Konpainiako kapitaina izan zela Jesus Ibañez hil ostean⁹⁴⁰). Antzeko formula erabili zuen (familiari doluminak erakustea eta hileta handia antolatze), konpainiako hurrengo kapitaina, Joaquin Amenabar Cortajarena hil zenean⁹⁴¹. Kasu batzuetan, beasainarrak ez ziren erreketek Beasainen ehorztea ere eman zen. Hura gertatu zen Manuel Gimenez Porrás kapitainarekin eta baita ere Leongo Novalto herriko Manuel del Prado Alvarez erreketearekin (Kataluniako frontean hila), zeina Beasainen ehortzi zutela jakinarazi zien 1939.eko urtarrilaren 19an Guridi alkateak honen senitartekoei⁹⁴². Beasaingo Udalak, hildako soldaduen senitarteko soldaduak hiletara etor zitezene ere lizentziak eskatu zituen, adibidez, 1939.eko urtarrilaren 20an, hildako Isidro Aramburu Nazabal soldadu erregularraren hiletara etortzeko baimena eskatu zuen bere anai Francisco Aramburu Nazabal erreketearentzat⁹⁴³.

⁹³⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹³⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁹⁴⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta; eta Enrique Gimenez Porrásen erreketefitxa: http://www.fpev.es/images/jcgg/JCGG_F_2924.pdf

⁹⁴¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta; eta joaquin Amenabar Cortajarenaren erreketefitxa: http://www.fpev.es/images/jcgg/JCGG_F_2141.pdf

⁹⁴² Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

⁹⁴³ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

3. kapitulua

Jaien inguruko beste borroka-zelai bat egutegiaren ingurukoa zen; hau da, zeintzuk izan behar ziren “Espainia Berriaren” jaiegun ofizialak. Egutegiak, sinbolismo garrantzitsua du, herritar denen bizitza antolatzeko edo baldintzatzeko gaitasuna baitu (jaiegun “bereziak” markatzearena, zergatik egin behar ziren, jaiegun horien eta esanahiaren inguruko propaganda eta abar). Izan ere, fakzio ezberdinak, jatorri ezberdinak izaki, bakoitzak bere ikurrak zituen “egutegian” baita. Beraz, erregimenak, nahiz eta fakzio ezberdinen egutegiak partzialki “hartu”, denen artean orekatzen saiatzeko beharra zuen.

Frankismoak ere bere “jaiegun ofizialak” egutegian jarri zituen. Hauetako batzuk jada lehendik zeuden jaiak ziren; erlijiosoak edota espainiar nazioari erreferentzia egiten zioten datak (maiatzaren 2a edo urriaren 12a); erregimenak bere egindakoak. Bestetik erregimenak berak sortutako datak zeuden: apirilaren 1a (Guda Zibila irabaztea omentzen zen), apirilaren 19a (FET-JONSen bateratzearen eguna), uztailaren 18an (Estatu-kolpea), urriaren 1a (“Kaudilloaren” eguna) eta azaroaren 20a (Falangeren sortzaile Primo de Rivera hil zuteneko eguna)⁹⁴⁴. Alde horretatik karlistak agertu ziren galtzaile, eurentzat garrantzitsua zen “Tradizioaren Martirien Eguna”, martxoaren 9a, ez baitzen erregimenaren jaiegun bezala ezarri, nahiz eta Gipuzkoan (eta Euskal Herrian), eskuinaren barruan karlismoak zuen garrantzagaririk, eta beraz, erregimeneko kargu gehienak edo asko behintzat karlistak zirenez, jai horren ospakizuna egin⁹⁴⁵.

Beste jaiegun batzuk, hiri garrantzitsuren bat hartzen zenean egunena egindako omenaldiak izaten ziren. Beasainen kasuan, badakigu 1937eko uztailaren 27an eta 1938.eko uztailaren 27an, Beasain frankistek konkistatu zuteneko bigarren urteurrena ospatu zutela⁹⁴⁶.

Ikusten dugun bezala, eta Beasainen ere isla izan zuen moduan, “Madril hartzeak” bere biziko garrantzia izan zuen erregimen frankistarentzat. Madril hartzea nahiko erraztat ematen zuten frankistek, 1936.eko udazkenean bertan hartu behar omen zutela: 1936ko irailaren bukaeran Toledo hartuta, lau egunetako kontua izanen zela uste baitzuten. Bai prentsa frankistak zein nazioartekoak Madril Francoren tropen eskuetan

⁹⁴⁴ BOX, Zira: op. cit., 131-134. or. eta 199-200. or.

⁹⁴⁵ Ibid., 152-154. or. Egun hau karlismoak presentzia handia zuen probintzietatik at ere ospatzen zen, baina askoz ere herri-babes gutxiagorekin, eta gainera, askoz ere “kutsu karlista” txikiagorekin. Ikus Ibid., 122-156-159. or.

⁹⁴⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

erortzea berehalakotzat jotzen zuten⁹⁴⁷. 1936ko azaroan, sobietar laguntza Espainiaratzearekin batera goizegi iragarritako entusiasmo horiek bukatu egin ziren, baina hala ere, bitartean, Madrilen inguruko “hartzearen” jaialdi batzuk prestatuta izan ziren (baita ere Beasainen). 1936.eko azaroaren 11ko Gipuzkoako Probintzia-Buletin Ofizialak adierazten zuenez, Madrilen hartzea komunikatu orduko Beasainen kanpaiak jotzeko eta etxafuegoak botatzeko agindua eman zuen Jose Luis Guridi alkateak. Egun horretan Udal-bandak Beasaindik zehar kalejira egin behar zuen, herritarrek euren balkoietan Espainiako bandera (bi koloreduna, monarkikoa) jarri behar zutelarik. Hori gertatu eta hurrengo egunean, goizeko bederatzietan Udal-bandak kalejira bat egin behar izango zuen, eta hamarretan meza burutu beharko zen, Udala, komandante militarra (Alberto Ruiz Moriones) eta falangistak, emakume karlistak (margaritak) eta gazte karlistak (pelaioak) uniformeaz joango zirelarik. Meza bukatuta, manifestazio bat egingo zen Udaletxeko plazaraino, eta ordubatetan, zazpi pezetaren truke, herri bazkaria eskainiko zen koartelean. Arratsaldean, bostetatik zazpiretara Loinazko San Martinen Plazan (Udaletxearen Plazak) Udal-bandak jotzea aurreikusia zegoen. Bestetik, herriko denda guztiak itxita egotea eskatzen zuen Guridiren aginduak⁹⁴⁸. Hala ere, ikusi dugun bezala, 1936ko azarorako aurreikusia zegoen ospakizun hori ez zen burutzerik izan, altxatuak Madril hartzeak 1939.eko martxoko 28a arte (guda ofizialki bukatu eta hiru egun lehenago arte) itxaron behar izan baitzuen; hala ere, ondo adierazten du 1936.eko udazkenean altxatuen aldetik zegoen euforia gogoia, eta beste alde batetik Madril hartzeak altxatuentzat zuen sinbolismoak; Madrilen hartzea altxatuentzat euren garaipenaren sinbolo bezala ospatzeko moduko garrantzizkoa egiten zutelarik, are alde aurretik ospakizunak prest izateko ere.

Azkenik, zentzu zabalean ospakizun bezala sar dezakegu, behitzat bai iruditeriaren proiektio gisa, kaleen izenen aldaketa. Beasainen, Udal frankistak 1936ko urriaren lehen erabaki zuen kaleen izenak aldatzea, iraganeko izen errepublikarrak kenduz, Errepublikaren aztarnak Beasaindik ezabatuz; eta herriari “Estatu Berriari” bat zetorkion proiektioa emateko asmoz. Izen berri hauek Fermin Galan eta Garcia Hernandez kaleen ordez, *Avenida de Navarra* jartzea (egun, Nafarroa Etorbidea, euskaraz); Pablo Iglesias kaleari Jose Migel Iturriotz kalea jartzea (egun izen bera du,

⁹⁴⁷ BOX, Zira: op. cit., 59-63. or.

⁹⁴⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 3155. karpeta, 04. dokumentu-sorta.

3. kapitulua

egia esan, Errepublika aurretik ere izen hori zuen)⁹⁴⁹, 1931-1936 arteko Jose Migel Iturriotz kaleari *Santa Maria* kalea jartzea (izen hau, berria baino aurreko berreskurapen bat izan zen; egun kale hori, euskaraz Andra Mari kalea deitzen da), Errepublikaren Enparantzaren ordezt Espainia Enparantza jartzea (egun, Bideluze Enparantza), eta Elizarako Galtzada zelakoari Martina Maiz jartzea (egun, izen bera du). Bestetik, haur-eskolen gelei “Leon Arregui Haur-Eskolak” izena jartzea erabaki zuten (aurreko kapituluan azaldu genuen moduan, Leon Arregui CAFeko eskolako irakaslea izan zen)⁹⁵⁰. Izen aldaketa hauetan, alde batetik aurreko izenak berreskuratzeko saiakera bat topatzen zen, adibidez, tokien izen erlijiosoak berreskuratuz, Errepublikaren “akats laikoa” zuzendu behar izango balitz bezala. Baina beste batzuetan izenek Francoren Estatu berriaren karga politiko zuzena zuten, adibidez Nafarroa Etorbideak (erreketeen omenez jarritako izena izaki), edo Espainiaren Enparantzak (nazionalismo espainiarrari eginiko omenaldia). Hirugarren talde batean, Beasaingo pertsonalitateen errebindikazioa aurkitzen dugu, Leon Arregui irakaslearena, edo Martina Maiz aberats filantropoarena (lehen kapituluan azaldu bezala, Arangoiti Klinika egiten lagundu zuen). Kasu honetan, berez irudi ez oso politikoak baziren ere, hiritar burges “eredugarria” errebindikatzeko klabeak ikus daitezke. Kaleon izen berrien plaken erakuste jaia, urriaren 25ean egin beharko zen, hain zuzen ere Kristo Erregearen egunean, Udaleko bilkura-aretoan Jesusen Bihotz Sakratua tronuratu behar zen egun berean. Urriaren 22ko Udal-Bilkuraren aktak erakusten zuen bezala, tronuratzeen eta kaleen izen berriak zeramatzen plakak erakustearekin batera, “Urteaga alkate ohiaren alargunaren fondan” Udalak eta “beste agintariak” bazkari bat egitea aurreikusten zuten. Ikusten den moduan, berriz agertzen dira bat agintari zibikoak eta erlijiosoak, ekitaldi zibiko bat (kaleen izen aldaketa) eta erlijioso bat (Bihotz Sakratuaren tronuratzea). Ekitaldi horretara Nafarroako Foru Aldundia ere gonbidatu zuten, azkenean agertu ez bazen ere⁹⁵¹.

Esan bezala, Falangeak, Beasaingo espazio publikoan euren “alderdikide” (1937ko apirilean Francok falangista eta karlisten arteko bateratzea agindu zuen) karlistek baino askoz ere presentzia gutxiago zuten. Tokiko Falangeren burua, Miguel

⁹⁴⁹ 1936ko urriaren 22an Nafarroako Foru Aldundiaren telegrama bat irakurriko zuen alkateak Osoko Bilkuran, bertan, Nafarroako Aldundiaren esker ona azaltzen zen Beasaingo etorbide horrek Nafarroaren izena izango zuelako. Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹⁵⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹⁵¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta. Azaroaren zazpiko Osoko-bilkuran agertu zen Nafarroako Foru Aldundiaren desenkusazioa.

Cerrajería Tiffe zen⁹⁵². Cerrajería berez, frankismoaren oinarri sozialaren eredu oso garbia zen; hau da, tokiko burgesia kontsebakorra, Fronte Popularraren aurka klase-interesa zela eta Francoren aldera pasatutakoa. Halako sektoreak, Falangeko kide egiterakoan, “Falangekoak” baino, “Francoren alderdikoak” egin ziren, hau da, euren lehenengo leialtasuna proiektu falangistarekiko eta honek ezarri nahi zuen “Estatu nazional-sindikalistarekiko” baino, militarrek ezarri zuten statu quoarekiko zen⁹⁵³. Baina izatez, Beasainen Falangeak bere aldetik (1937aren ostean juridikoki karlistak Falangearen parte izan arte) ez zuen presentziarik, beraz, jai berezki falangistak oso gutxi izan ziren. Miguel Cerrajería garai hartan zinegotzi izan zenak, abenduaren 16ko bilkuran proposatu zuen Falangek “banderak omentzeko gaian” Udal –bandak jo zezan, eta Udalak bat egin zuen, baina “oraindik jai horretarako egunik ez da ezarri”⁹⁵⁴.

3.8 Beasaindarrak Gudan

Beasaindarrek Gudan bi aldeetan borrokatu zuten, alde errepublikanoen zein matxinoen aldean. Suposatzekoa da bi aldeetan benetako bolondresak eta bortxaz joan arazitakoak izan zirela; baina kontutan izan behar da matxinoek Beasain hain laster hartzerakoan, alde batetik, Beasainen geratutako gazteak modu “antolatuagoan” errekrutatzeko aukera izan zutela... eta bestetik koertzioaz errekrutatzeko aukera gehiago ere baita.

Errepublikazaleen aldetik hainbat gudarik eta milizianoek parte hartu zuten gudan⁹⁵⁵. Guk zuzenean ikusi ditugun datuak eta beste batzuk aipatutakoak batuta,

⁹⁵² Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁹⁵³ Garai hartan, Falangeko militante beterranoen, edo “alkandora zaharren” artean kritika batzuk agertu izan ziren, halako militante berri “oportunistak” alderdian izena eman zutela eta, Falangearen jatorriko proiektua aurrera eramatea zailagoa izango zena.

⁹⁵⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁹⁵⁵ Euskal Herrian zilegizko agintarien alde borrokatu zuten gerlari guztiak biltzeko denominazio moduan “gudari eta miliziano” edo generikoren bat (“borrokalari”, “gerlari”, “soldadu”) erabiliko dugu. Azkenotan bada Euskal Herrian borrokatu zuten gerlari guztiei “gudari” deitzeko joera bat; egilearen ustez guztiz zuzena ez dena; kontutan izanik Euzko Gudarosteak, Azpeitian 1936.eko irailean bildu zenak, antolakunde abertzaleetako kideak soilik biltzen zituela (ez Herri Frontekoak, zeintzuek 1937.eko urtarrilean “Euzkadiko Herri-Milizia Bateratuak” osatu zituzten). “Gudari” generiko gisa erabiltzeko arrazoi posible bat zatekeen bi erakundeak Eusko Jaurlaritzaren pean batu balira (batzuetan esaten da: “denak zeuden Eusko Jaurlaritzaren pe, beraz denak ziren eusko gudariak”), baina, modu formalean behintzat, ez zen hala gertatu: nahiz eta praktikan, Iparraldeko Frontaren isolamendua zela eta (eta arrazoi politikoak barne) Eusko Jaurlaritzak ardura handiak hartu, teoriarik bere eskuduntzak batez ere errekrutamendua eta atzegoardiako zerbitzuak izan ziren, euskal batailoiak Errepublikaren Armada barneko *Cuerpo del Ejército Vasco* delakoaren parte zirelarik. VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: “Guipuzcoanos en los batallones del Frente Popular de Euzkadi (1936-1937)” in *Bilduma*, 10. zkia. (45-85. or.), 1996, 49-52. or.; eta VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: “Gudaris guipuzcoanos en el “Euzko Gudarostea” (1936-1937)” in *Bilduma*, 13. zkia. (191-236. or.), 1999, 194-195. eta 198-199. or.

3. kapitulua

guztira, 216 borrokalari lokalizatu ditugu Beasainen. Hala ere, kontutan izan behar da, gehiago ere izan zitezkeela. Izan ere, Beasain guda hasi eta berehala frankisten menpe erori izanak, guda osoan zehar Udala frankisten aldekoa izatea ekarri zuen, eta horren bidez, Udal honetara bidaltzen zen informazio guztia edo ia guztia frankisten aldekoa izan zen. Ezkerrreko borrokalarien eta gudarien buruzko informazioa batez ere ahozko testigantzen, edo Iñaki Egañaren zerrendaren arabera lortu dugu⁹⁵⁶. Hala ere, kontutan izan behar da azken zerrenda honetan borrokalarien jatorrizko herriak ez direla agertzen, beraz, beste informazio iturri batzuen bidez (herrian txostenak jaso zituzten pertsonen bidez, herriko altxatuen aldeko kinta-deialdiaren aurrean ihes egin zuten pertsonen zerrendaren bidez eta abarreko zerrenden bidez), izenak bat egiten dituzten pertsonak bilatu izan dugu. Hala, oso posible daiteke izen batzuk guri ihes egitea eta zerrenda osoa handiagoa izatea.

Guztira hogeitabi beasaindar hil ziren Errepublikaren alde: Tomas Ajuriagerra Bergaretxe, Zelestino Arrieta Letamendi, Julian Blanco Blanco, Fernando Briz Arce, Fabriciano Diez Remiro, Faustino Garcia Luis, Felipe Goikoetxea Fernandez, Teodomiro Gonzalez Alonso⁹⁵⁷, Carlos Gonzalez Garzon, Abdon Gonzalez de Galdeano Ruiz de Azua, Francisco Holgado Hernandez, Marcelino Lanciego Martinez, Felix Lasa Etxaniz, Fabian Lopez Gallego, Eutimio Lopez Gallego, Lorenzo Lopez Gallego, Luis Ruiz de Apodaca Fernandez de Ocariz⁹⁵⁸, Jose Soto Arizmendi, Marcelino Wangeneberg Apaolaza, Frantzisko Zabaleta Guerrico, Jose Zaldúa Txintxurreta eta Emilio Zarate Seguino. Hogeita hirugarren pertsona bat, Antonio Lozares Escolar gudan desagertu zen⁹⁵⁹. Ez zen gudan hil ordea Vicente Martinez Nograro, Eusko Jaurlaritzaren zerrendek hala azaltzen badute ere. Pertsona honek Sacco y Vanzetti batailoian borrokatu bazuen ere, ez zen hil, baizik eta Bilbo altxatuen alde erortzerakoan Bizkaitik ateratzea lortu zuen, baina Zaragozan atxilotu zuten. Bere kontrako kausa militarra zabaldu zuten, kausa hori sobreseitua izan arren Langile Batailoi batera kondenatua izan zen Vicente Martinez⁹⁶⁰.

Hauetako gehienak, Euskal Herriko frontean hil ziren, baina bazeuden batzuk Asturiasen hil zirenak baita, adibidez, Abdon Gonzalez de Galdeano (1936.eko urrian,

⁹⁵⁶ EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil...* (VIII lib.), op. cit., 410-457. or.

⁹⁵⁷ Teodomiro Gonzalez ez zen borrokan hila izan, frontean eraila baino.

⁹⁵⁸ Bere anai Francisco Ruiz de Apodaca Fernandez de Ocariz Beasainen eraila izan zen.

⁹⁵⁹ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁹⁶⁰ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 2784-37 kausa, Vicente Martinez Nograrori dagokiona.

beraz badirudi euskaldunek asturiarrei Oviedo konkistatzeko ofentsibara bidali zuten laguntza-tropean parte zela⁹⁶¹), edo Marcelino Lanciego⁹⁶². Fabriciano Diez Remiro Madrilen hil zen, eta Felix Lasa Etxaniz, ordea, Cartagenan hil zen, gudaren bukaeran, 1939.eko martxoan, beraz, Cartagenan, errepublikazaleen aldean egon ziren barneborroketan hil zela posibletzat jozen dugu⁹⁶³. Etxanizen heriotza, Beasaingo Bake-Epaitegian erregistratu zen 1944.eko apirilaren 13an; bere heriotza 1939.eko martxoaren 6an gertatu zela esan zuen orduko Udal-epaile Alberto Sorondo Legarrak, eta heriotzaren kausa bezala “guda” aipatu zuen, ez besterik. Bestetik, Jose Zaldua Txintxurretaren heriotza tokia ez dugu ondo ezagutzen, nahiz eta kontutan izanik 1937eko maiatzaren 15ean hil zutela, ziurrenik, altxatuek Bilboren kontra bideratu zuten azken erasoan hil zen (*Amuategi* batailoiko kide izan zen).

Horietatik hiltzen lehena, Carlos Gonzalez Garzon izan zen, 1936ko uztailaren 30ean, Ordizian. Gonzalez Garzon esan bezala, Beasaingo Guardia Zibileko postuko burua zen (kaporal edo kaboa), eta Beasaingo defentsa antolatzen ibili zenetako bat izan zen. Beraz, litekeena da, Beasain altxatuek hartua izatean, Ordiziara alde egitea lortu izana eta han borrokan jarraitzea. Beasaingo postuko burua izateak, Beasainen hila edo fusilatua izan zela pentsarazi dezakeen arren, lehen esan dugun moduan, litekeena da Ordizian hila izatea. Bere kasuaren ñabardurak lehenago aipatu ditugu.

Gutxi gorabehera egitura militar antolatu baten pean borrokatuz hil ziren lehen boluntarioak Fernando Briz eta Felipe Goikoetxea izan ziren, Akondian (Eibar inguruan), 1936.eko bukaeran; eta kronologikoki aldi berean Frantzisko Zabaleta Gerriko hil zen, Urduñan. 1937-eko martxo-apirilean Gipuzkoako frontea puskatu izan zenean, Fabian Lopez Gallego (Udala mendian) eta Faustino Garcia Luis (Akondian) hil ziren; eta garai berdinean (1937.eko apirilaren 7an), Jose Soto Arizmendi hil zen Barazarren. Ofentsiba honen barne hil zen baita Emilio Zarate Seguino, Durangon bertan, frankistek herri hori bombardatu zutenean. Francisco Holgado (1937.eko

⁹⁶¹ MAOC-Gipuzkoa edo “Larrañaga” batailoiairen parte zen. Larrañagak ofentsiba horietan parte hartu zuen.

⁹⁶² Asturiasen hil zen baita Tedomiro Gonzalez Alonso, baina ez 1936.ean, baizik eta 1937.ean, frankistek “Iparraldeko fronte” osoa garbitu zutenean.

⁹⁶³ 1939ko martxoan, ordura arte Errepublikarke alde borrokan ari ziren militar batzuek, Segismundo Casado jenerala buru, Juan Negrin sozialistaren Gobernuaren kontra altxatu ziren, eskuindarrekin negoziazioak hasi eta nolabaiteko “bake ohoretsu” bat lortzeko asmarekin. Matxinada hori Madrilen eta Cartagenan izan zen (Madrilen arrakasta izan zuen, Cartagenan ez). Casadoren alde zenbait errepublikano, sozialista eta anarkista ezarri ziren, eta Madrilen, boterea lortu ostean, komunisten kontrako errepresioa agindu zuen, hiria Francori entregatu arte.

3. kapitulua

martxoaren 31n) Araban hil zen, Eusko Jaurlaritzak Legutio askatzeko egin zuen erasoan. Guda Euskal Herrian bukatzen ari zela, Amorebietako eta Sollubeko frontean hiru borrokalari hil ziren: Marcelino Wangeneberg Apaolaza (Solluben, 1937.eko maiatzaren 4an), Lorenzo Lopez Gallego (Euban, 1937.eko maiatzaren 10ean) eta Luis Ruiz de Apodaca Fernandez de Ocariz (Bizkargin, 1937.eko maiatzaren 11n). Eutimio Lopez Gallegoren heriotza datarik ez dugu, baina bere anai Jesus Lopezen arabera, Lemoako Haitzetako borrokan hil zen⁹⁶⁴. Gudaren bukaeran, 1937.eko ekainaren 13an, Zelestino Arrieta eta Julian Blanco hil ziren, erietxe zibilean.

Badaude euren heriotza nolabaiteko kasu berezizat hartzen ditugun borrokalari batzuk. Horietako bat, Teodomiro Gonzalez Alonso da, zeina ez zen izan propio borrokan hila izan, baizik eta frontean exekutatua. Bestetik, Tomas Ajuriagerra Bergaretxe Durangoko ospitalean hil zen, herri hartako bonbaketaren ondoren. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren batailoi baten parte izanagatik (Ordena Publikoaren batailoiko parte), zerrenda honetan sartzea erabaki dugu. Azkenik, kontutan izan behar da baita ere Antonio Irizar Zurutuza gudaria, Lazkaon jaio izan zen arren, urte askoz Beasainen bizi izan zena, Otxandion hildakoa. Azkenik, Tiburcio Lopezen kasua aipatu behar dugu, Ingeniarien 2. Bataioiko borrokalari hau gudan gaixotasunez hil zen⁹⁶⁵.

Hildako gudarien eta milizianoen inguruan ezagutzen dugun filiazioari buruz; gehienak ezkerreko batailoietako kideak ziren: 20 hauetatik bederatzi, guk dakigunez (ziurrenik hamar) langile ezkerreko batailoietako kide izan baitziren; zazpi komunisten batailoietakoak (EPK edo JSU gazteriarren batailoietakoak): Julian Blanco Blanco (*Rusia*), Faustino Garcia Ruiz (*Stalin*), Abdon Gonzalez de Galdeano Ruiz de Azua (*Larrañaga*), Francisco Holgado Sanchez (*Dragones*⁹⁶⁶), Lorenzo Lopez Gallego (*Larrañaga* baita ere⁹⁶⁷), Jose Soto Arizmendi (*Perezagua*⁹⁶⁸) eta Jose Zaldua

⁹⁶⁴ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁹⁶⁵ Miguel Angel Ruiz de Gauna Lopezi eskertzen diot datu hau.

⁹⁶⁶ Vargasen arabera, *Dragones* batailoi honetako gehienak gipuzkoarrak ziren, eta kopuru handienetako bat Beasainek aportatu zuen. Besteei dagokienez, *Rusia* batailoian gehienak gipuzkoarrak ere baziren, beasaindarren presentziarik ez du bertan destakutzen; eta *Stalin* batez ere bizkaitarrek osatutakoa izan zen. VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: "Guipuzcoanos en los batallones del Frente Popular de Euzkadi (1936-1937)" in *Bilduma*, 10. zkia. (45-85. or.), 1996, 60-65. or.

⁹⁶⁷ Francisco Vargasen arabera, *Dragones* batailoiarekin batera, hauxe izan zen beasaindar gehiena izan zuena: "Batailoi honetan, gipuzkoarren artean, gehienak donostiarrak ziren, (besteen artean) beasaindarrel ere destakutzen zutelarik". Batailoi honetan gipuzkoarren eta bizkaitarren kopurua orekatua zen. VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: "Guipuzcoanos en los batallones del Frente Popular..." in op. cit., 70. or.;

Txintxurreta (*Amuategi*⁹⁶⁹). Batailoi guzti hauek, beste bataioi komunista, sozialista eta errepublikanoekin batera, 1937.eko urtarrilean Euzkadiko Herri-Milizia Antifaxistak edota Euzkadiko Milizia Batuak eratu zituzten. Batailoi hauek, batailoi forman, 1936.eko irailean hasi ziren eratzen, baina hauen jatorria altxamendua gertatu eta berehala (eta kasu batzuetan, lehenago 1934.eko Iraultzarekin bat) ezkerreko alderdi ezberdinek sortu zituzten “alderdi-milizietan” dugu. Milizia hauek, hasiera batean, Gipuzkoako borrokaldian, defentsaren parte nagusia izan ziren (kontuan izan beharra dago abertzaleek 1936.eko irailean soatu zutela Euzko Gudarostea Azpeitian, Gipuzkoako Mendebaldean, orduan borroka ekialdean ematen zirelarik)⁹⁷⁰.

Beste bat batailoi anarkistetako kidea zen: Fabian Lopez Gallego (*Malatesta*). Bederatzigarrena, Fernando Briz Arce, Herri-Milizietan ibili izan zen, beraz ezkerreko erakunde batekoa zela pentsatzen dugu (esan beharra dago, 1936.eko azaroaren 18an hil zela, oraindik batailoi denak osatuak ez zeudelarik eta aurreko antolaketa ereduaren aztarnak zeudelarik). Bestelde, Eutimio Lopez Gallego, bere anai Jesus Lopez Gallegoren esanetan ideia komunistetako zena, ziurrenik, ezkerreko batailoi batean izena emanda egon zen⁹⁷¹. Hamaikagarren bat, Fabriciano Diez Remiro, Errepublikaren Armadan borrokan ari zela hil zen, Madrilen, Moncloako sektorean⁹⁷². Pertsona hori, Beasainen frankistak sartu eta gutxira, Valladolidera ihes egindakoa izan zen, bere familiaren etxera⁹⁷³; eta litekeena da handik Madrilerara joan izana alistatzera. Ez dugu jakiterik izan Fabriciano Diez Madrilgo Euskal Milizia Antifaxisten barruan lerratu zenik edo ez, milizia hauek ere Moncloako sektorean borrokatu baitzuten⁹⁷⁴. Beste bi EAE-ANV alderdi abertzale aurrerakoiaren batailoietako kide zirelarik hil ziren: Luis

⁹⁶⁸ Vargas Alonsoren arabera, Perezagua batailoaren barne “ez dugu gipuzkoarren presentziarik aurkitu”. Beraz, Jesus Soto batailoi honetako gipuzkoar eskasenetako bat zatekeen. VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: “Guipuzcoanos en los batallones del Frente Popular...” in op. cit., 69. or.;

⁹⁶⁹ Amuategi batailoia, herri-milizia bolondres batetatik batailoi batera eboluzionatu zuen kasu paradigmaticoa dugu. Aipatu dugu uztailean bertan Eibarko sozialistek eratutako milizia bat izan zela (Beasaingo defentsan parte hartu zuten), baina 1936.eko azaro aldera jada batailoi bezala eratu ziren, jada Gazteria Sozialista Bateratuaren (Gazteria Sozialistaren eta Gazteria Komunistaren arteko batasuna, PCEn diziplinapean) kontrolpean. VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: “Guipuzcoanos en los batallones del Frente Popular...” in op. cit., 66-67. or.

⁹⁷⁰ Honek ez du esan nahi Gipuzkoako Ekialdeko borroketan abertzale edo jeltzalerik egon ez zelarik (Beasaingo Defentsa Komitearen kasua ikusi dugu), baina pisu nagusia langile alderdi edo sindikatuen miliziana izan zen.

⁹⁷¹ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁹⁷² Dorabel Diez Mosquerari eskertzen diot datu hau. Testigantza hau ez dago grabatua.

⁹⁷³ Dorabel Diez Mosquerari eskertzen diot datu hau. Testigantza hau ez dago grabatua.

⁹⁷⁴ Euskal Milizia Antifaxistak (*Milicias Vasca Antifascistas*) Madrilgo euskaldunak biltzen zituen unitate militarra zen, batez ere komunistek sortua, nahiz eta alderdi guztietako militanteak batzen zituen. Honi buruz gehiago: VELASCO NUÑEZ, Alfredo: *Euskal Milizia Antifaxistak Espainiar Faxista Altxamenduan Zehar (1936-1939)*. DDT Liburuak. Bilbo, 2014, batez ere 45. 61. or.

3. kapitulua

Ruiz de Apodaca Fernandez de Ocariz eta Marcelino Wangeneberg Apaolaza. Wangeneberg ANV-1 edo *Olabarri* batailoikoa zen, eta Euskal Memoriaren databasean batailoiei horretan ezartzen du baita Ruiz de Apodaca, hala ere, hau Bizkargi mendian hila izanak *Euzko Indarrako* kide zela penta-arazten gaitu⁹⁷⁵. Beraz esan dezakegu guztira hamabi edo hamahiru -Eutimio Lopez Gallego barne sartuz gero- beasaindar hil zirela ezkerreko alderdien batailoien parte zirelarik⁹⁷⁶. Bataioi jeltzaleetan parte zelarik hil zirenen artean beasaindar bakarra aurkitu dugu; Francisco Zabaleta Guerrico, hain zuzen ere, 1934.eko greban parte hartu zuen gudari bat. Hauxe, Euskal Memoriaren databaseak *Loiola* batailoiairen parte identifikatzen du, baina Francisco Vargasek *Amaiur* batailoikoa zela dio⁹⁷⁷. Beste hiru, zuzenean Eusko Jaurlaritzak zuzendutako bataioien parte ziren: Tomas Ajuriagerra Ordena Publikoaren batailoiairen kide zen, Teodomoio Gonzalez Ingeniarrien lehen batailoiairen parte eta Emilio Zarate Guda-Komisaldegiaren batailoiairen parte. Zelestino Arrietaren, Julian Blancoren, Felipe Goikoetxearen, Marcelino Lanciegoren eta Felix Lasa Etxanizen batailoiei buruz ez dugu berririk.

Gudan paperik garrantzitsuena bete zuen beasaindarra Jesus Larrañaga izan zen, 1936.eko uztailaren 27an sortu zen Gipuzkoako Defentsa Komitearen Guda Komisariotzaren buru izan baitzen, beraz Gipuzkoako afera militarrek bere esku zeuden⁹⁷⁸: adibidez fronteak finkatzea, armak lortzea, Donostiako Estatu-kolpea eman

⁹⁷⁵ Batailoiei hau batez ere bizkaitarrek osatua zen, nahiz eta Francisco Manuel Vargas ikerlariaren arabera “1.000 gizonetatik %5 bat gizpukoarrak izan”. Bere lehen komandantea EAeko Idazkari Nagusi Tomas Etxabe zen. *Euzko Indarran*, ordea, EAeko militante gipuzkoarrek hartu zuten parte, eta hau izan zen Bizkargin borrokatu zuen EAeko batailoiei bakarra. VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: “Guipuzcoanos en las milicias de ANV durante la Guerra Civil (1936-1937)” in *Bilduma*, 11 zkia. (81-104. or.), 1997, 87-95. or.

⁹⁷⁶ Hala ere, EAE-ANVren ildo militarrek ez zuten bat egiten sozialisten eta komunistenarekin, adibidez hauek 1937.eko urtarrilean sortutako Euzkadiko Herri-Milizia Antifaxisten Batasunarekin ez zuten bat egin, 1937.eko martxoan EAeren Milizia Komandantzia (autonomoa) sortu zelarik. VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: “Guipuzcoanos en las milicias de ANV...”, op. cit., 83-86. or. Vargas Alonsoren arabera, 1937.eko martxotik aurrera, EAeren tesi militarrek EAJrenekin bat egin zuten.

⁹⁷⁷ Bai *Loiola* zein *Amaiur* batez ere gipuzkoarrek osatutako batailoiak ziren, eta biek zituzten Goierriko borrokalariak. *Loiolan* bazegoen “Zumarraga” deitutako konpainia bat, eta *Amaiurreko* komandantea Rufino Rezola ordiziarra zen, osebata Rezola Defentsako Saileko Idazkariaren anaia. Hala ere, Vargas Alonsoren arabera, 1936.eko abenduan Orduñako frontean *Amaiur* batailoia zegoen, beraz Zabaleta Guerrico konpainia honetakoa zela uste dugu. VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: “Gudaris guipuzcoanos...”, op. cit., 203-205 eta 232. or.

⁹⁷⁸ BARRUSO BARES, Pedro: *La guerra civil...* op. cit., 213. or.; EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 89-90. eta 131-132. or. eta Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-V-26an. Pedro Barrusoren arabera, Alberto Montaud komandantearen ekintzak Larrañagarren kontrolpean zeuden beti (BARRUSO BARES, Pedro: *La guerra civil...* op. cit. 129-130. or.)

zutenei epaiketak antolatzea⁹⁷⁹, edota ebakuazioa antolatzea. Gipuzkoa erori ostean, Eusko Jaurlaritzaren menpe, Larrañagak Eusko Jaurlaritzaren menpe ardurak izan zituen; adibidez “MAOC-1” (edo “Larrañaga”) batailoia zuzendu zuen⁹⁸⁰. Batailoi honek Kanpantzarren, Bizkargin eta baita Euskal Herritik kanpo, Asturiasen borrokatu zuelarik, besteak beste Pablo Beldarrain komandantearen eta Francesc Ciutat jeneralaren aipu-ona jaso zuelarik.

Euskal armadaren barruan, Larrañaga, Eusko Jaurlaritzak izendatutako bost komisario-ikuskatzaileetatik bat izan zen. Hala ere, ematen duenez, posizio horretan Larrañaga ezartzearen kontra izan ziren hasiera batean Eusko Jaurlaritza eta EAJ, komisarioen kargugabetzea Jaurlaritzaren esku geratuko zela bermatzerakoan onartu zuten⁹⁸¹. Kargu honetan sozialistekin izan zituen harremanek ere txarrera egin zuten, eta 1937.ean Indalecio Prietok kargugabetu egin zuen, Kantabrian eta Asturiasen soldadu soil gisa borrokatu zuelarik, Juan Ibarrolaren menpeko 134. Brigadan⁹⁸². Iparraldeko Fronte osoa altxatuek hartu ostean, Frantziaren bidez zonalde errepublikanora pasatzea izan zuen, han Astigarribiarekin batera Alderdiak ezarritako autokritika bat egin behar izan zuelarik⁹⁸³. Larrañagak guda bukaera arte bere ardura politikoak mantendu zituen, Ramon Salas Larrazabalen arabera, PCEk Penintsulan 70.eko hamarkada arte egin zuen

⁹⁷⁹ BARRUSO BARES, Pedro: *La guerra civil...* op. cit., 1984, 137-145. or. Epaiketa hauetan, Donostian Estatu-kolpea eman zuten arduradun nagusiak epaitu zituten: 115 pertsonek epaitu zituzten guztira. Gipuzkoako Defenta Batzordearen peko justizia miitarrak hamalau pertsona fusilatu zituen. Pedro Barruso Baresen arabera, epaitegi militar honen lana, Justiziaren “gainezkatze iraultzailearen” eredu bat izan zen, Estatuaren instituzioez at, ad hoc sortutako epaitegi batek eginiko epaiketak zian ziren. Ni ez nator guztiz bat; Gipuzkoako Defentsa Komitean iraultzaileek pisu handia bazuten ere, indar guztien kontentsuz eraturako organo bat izan zen, bere programa ez zen iraultzailea, Errepublikaren Gobernuarekin bat egiten zuena baizik, eta epaitu zituen delituak Errepublikarek kontrako altxamendu-delituak ziren, ez optika iraultzaile batetatik delitutzat hartutakoak.

⁹⁸⁰ AMBOU, Juan: *Los comunistas en la resistencia nacional republicana*. Hispamerca. Madril, 1987, 249 orr.

⁹⁸¹ Ibid., 107-108. or.; eta Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-V-26an. Egidoren arabera, Larrañagari kargu hau onartu zezan Espainiako orduko Gobernuburu Largo Caballerok “ziria” sartu zion. Larrañagaren familiaren arabera, EAJren mesfidantzez gain

⁹⁸² Ibid., 112-115. or.

⁹⁸³ Autokritika honetan, Astigarribiaren “EAJren menpekotasuna” salatu zuen Alderdi Komunistak (Ibid., 117-120. or.). Larrañagaren familiak dioen moduan “Astigarribiak zenbait gauza ez zituen ondo egin, eta biei ezarri zieten autokritika egiteko beharra. Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-V-26an. Azkenean Astigarribia bota zuten alderditik, ez ordea Larrañaga.

3. kapitulua

azken bileran parte hartu zuen⁹⁸⁴. Albaceteko kotzentrazio-eremuan hartu zuten, baina handik ihes egitea lortu zuen, Ipar Euskal Herrira joan zelarik⁹⁸⁵.

Gipuzkoan guda garaian arduradun ibili zen beste beasaindarra Jose Ibarbia Unzueta izan zen. Hauxe, Gipuzkoako Defentsa Batzordearen menpe 1936.eko abuztuaren 24an sortu zen Lan Komisariotzako lehendakariorde izan zen, lehendakaria UGTko zuzendari historiko Guillermo Torrijos donostiarra zelarik (beste lehendakariordea Manuel Chiapuso anarkista izan zen). Lan Komisariotzak Gipuzkoako industria, lan-gatazkak eta portuko itsasontziak (itsasontzi zibilak) zituen bere ardurapean. Gipuzkoako industria osoa Komisariotza honetan ardurepean izan zen, 41 industria “nazionalizatu” (hots, Defentsa Batzordearen pe ezarriz) eta beste 52 “interbenituz” (Defentsa Batzordearekin adostutako Lantegi Komiteen pe ezarriz) (normalean Lantegi Komite hauek, Lan Komisariotzaren antzeko egitura zuten: bi kide sozialista, ELAko bi, eta anarkista bi)⁹⁸⁶.

3.8.a) Errepresioa frontean errepublikazale beasaindarren kontra

Frontean, errepresioa jasan zuten baita beasaindarrek, batez ere, Loinazko San Martinen erreketeko kideekin, euren ezagun eta herkideekin, topo eginez gero. Hori adierazten digu adibidez; Inaxio Imaz gudariaren kasua. Hau italiarrek atxilotu zuten Santoñan, baina bere biloba Juan Ramon Imaz Cresporen arabera, bera atxilotzeko zerrendak “Beasaingo erreketek” egin zituzten, tartean “geroago bere burua bota zuen batek (Epifanio Arguiñanok)”⁹⁸⁷. Borrokalari beasaindar gehienak atxilotuak izatean, langile-batailoietara bidaliak zituzten, beste batzuek heriotza-zigorra (Valentin Gomez Arcek, Rufino Sarasolak, Bonifacio Apalateguik edo Pablo Aguadok, adibidez) edo kartzela zigor luzeak izan zituztelarik.

Hiru beasaindar izan ziren gudaren ostean epaiketa baten ondoren hilak: Lazaro Cebrian, Jose Ibarbia eta Valerio Polo. Jose Ibarbiari buruz esana dugu ELAko kide moduan Gipuzkoako Defentsa Batzordeko kide izan zela, Lan Komisariotzan. Donostia erori zenean, Bizkaiara joan zen, eta han atxilotu zuten. Behin atxilotuta Kantabriara eramán zuten, Santoñako Dueso kartzelara. Ibarbiak, kartzelan zegoela kartak bidaltzen

⁹⁸⁴ SALAS LARRAZABAL, Ramon: *Historia general de la guerra de España*. Rialp. Madril, 1986, 408. or.

⁹⁸⁵ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit, 125-126. or.; eta Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-V-26an.

⁹⁸⁶ BARRUSO BARES, Pedro: *La guerra civil...* op. cit., 179-183. or.

⁹⁸⁷ Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

zizkion familiari, eta karta horietan agertzen den moduan, jakitun zen fusilatu egingo zutenaz. 1937ko urriaren 15ean fusilatu zuten, beste 13 pertsonekin batera. Ibarbiarekin fusilatu zituzteneen artean, bai sozialistak, komunistak, errepublikanoak zein jeltzaleak zeuden; frankistek Agirreren Gobernuan indar ezberdinek zuten ordezkartzaren arabera osatu zuten fusilatu beharreko 14 lagun hauen taldea⁹⁸⁸ (hala ere Antonio Ontañon kantabriar historialariaren arabera, 14 hauetatik denak ez ziren euskaldunak, hiru kantabriar ere baipazeuden⁹⁸⁹). Bere ondorengoan arabera, Juan Ajuriagerra zuzendari jeltzalea ere bertan zegoen, baina hura jeltzaleek “kanjeatzea” lortu zuten⁹⁹⁰. Ibarbiak hil aurretik jauna hartzea eta konfesatzea lortu zuen, kartzelako apaizak Beasaingo familiari gutun batean idatzi zuen bezala “kristau on baten moduan jardun zuen eta hala hil zen”. Bere iloba Maria Karmen Ibarbiaren arabera, honen aita Eusebio Ibarbia Unzueta (Beasainen frankistak sartu ostean aste batzuk Beasaingo kartzelan egin zituenak) apaiz harekin hitz egitea lortu zuen, eta honek “ez dakit nola esaten duten “Gora Kristo errege!” oihukatuz hil ziren pertsona batzuek gorriak zirenik”. Joxe Ibarbia Unzueta lehengusu bat, Francisco Unzueta orduan Beasaingo Udal frankistako zinegotzi zen, eta bere familia honi laguntza eskatzera joan zitzaion. Unzuetak ez zituen euren erregruak entzun nahi ere, erantzun oso hotza eman zien: “Aberriaren alde bizitza eman behar bada, familiarengatik hasiko gara!” esan omen zien. Jesus Ibarbia eta berarekin batera fusilatutako 14ak Santoñako hondartzan exekutatu zituzten; Antonio Ontañonen arabera haxe salbuespen bat izan zen, gehienak exekutatzeko Santanderrera eramaten baitzituzten⁹⁹¹. Datu bitxi bezala, Jose Ibarbia EAJko zuzendari Juan Ajuriagerrarekin preso egon zela aipatu digute Ibarbia lehengusu-lehengusinek.

Lazaro Cebrian Blanco milizianoa bi hilabete geroago hil zuten, Derioko hilerrian. Cebrian, Gazteria Sozialista Batuak antolatutako Rusia Batailoiko kidea izan zen. Gazteria Sozialista Batuak 1936an Gazteria Sozialistaren eta Gazteria Komunistaren batasunaren emaitza bezala sortutako erakundea zen, Alderdi Komunistaren eraginpean zegoen. Santanderren preso hartu zuten, baina Bizkaira lekualdatu zuten. Derioko hilerriaren erregistroen arabera, 1937ko abenduaren 16an hila izan zen. Cebrian bere azken testimonioak emateko gai izan zen. *Udal*

⁹⁸⁸ EGAÑA, Iñaki: *Los crímenes de Franco...* op. cit., 224. or.

⁹⁸⁹ ONTAÑON, Antonio: *Rescatados del olvido*. Autoedizioa. Santander, 2004, 71. or.

⁹⁹⁰ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁹⁹¹ *Ibid.*, 71. or.

3. kapitulua

errepublikanoetatik frankistetara lanaren arabera, “ideial bat azken unerarte defendatu duen gizon baten bezala hiltzen naiz. Rusia batailoiko kide naiz eta espero dut noizbait gaizkile hauen (frankisten) kontrako justizia egingo dela”⁹⁹². Beste lan batek, fusilatuen testigantzak biltzen dituen *Cómo mueren los vascos* liburuak, bere azken gutuna osorik dakar. Horrela zioen: “Nire bizitzako azken lau hitzak esango ditut. Bere ideialaren alde azken unera arte borrokatu duen gizon baten moduan hiltzen naiz. Ulermen-gaitasuna nuenetik sozialista izandako gazte bat naiz, eta uztailaren 18an gaizkileen kontra armak hartu nituen, gazte sozialista baten betebeharra hori baitzen. Errusia batailoikoa izan naiz, kaporala, eta gaizkile hauen kontra noizbait justizia egin dadin besterik ez dut espero. Errepublikaren alde borrokatu dut eta beregatik hilko naiz. Gora Errepublika! Gora Euzkadi Askatuta!”⁹⁹³.

Valerio Polo Carrascal 1938ko martxoaren 26an hil zuten, Santanderren ondoko Ciriegoko hilerrian. Hau ere Rusia batailoiko kidea izan zen⁹⁹⁴. Berak epaiketaren aurrean emandako testigantzen arabera, Rusia batailoian alistatu zen (aurretik infanteriako 3 batailoian egon zen)⁹⁹⁵, eta Bizkaian, eta Kantabrian borrokatu zuen, 1937ko apirilaren 4an zauritua eta abuztuaren 22an atxilotu zutelarik. Ez zun Beasaingo defentsan parte hartu, bere anaia Rafaelek egin bezala⁹⁹⁶; izan ere, Donostiara joan zen borrokatzera (nahiz eta azkenean borroketan parte hartu ez)⁹⁹⁷. El Dueso kartzelan izan zuten, eta bere ondorengo Mikel Apaolaza Poloren arabera “baliteke kartzelan Lazaro Cebrian Blancorekin batera egon izana”⁹⁹⁸. Apaolazaren arabera, martxoaren 24an Santoñatik Santanderrera eraman zuten, eta handik bi egunetara fusilatu⁹⁹⁹. Mikel Apaolazak dio Polo Ciriegoko hilerriko hegoaldeko hormaren ondoan lurperatu zutela¹⁰⁰⁰. Apaolazak esaten duenaren arabera, “desagertu” bezala apuntatu zuen apaizak, ez “hildako” bezala, “hau Ciriegoko hilerrian hildakoekin gauza arrunta izan zen”¹⁰⁰¹. Antonio Ontañon historialariaren arabera, apaiz hura Tomas Soto Pidal izan

⁹⁹² BELEDO, Ane: op. cit., 56. or.

⁹⁹³ ASKOREN ARTEAN: *Cómo mueren los vascos. Testimonios póstumos de los fusilados en Euzkadi por los invasoren franquistas*. Eusko Jaurlaritz. Gasteiz, 2009, 23. or.

⁹⁹⁴ Alicia Polo eta Mikel Apaolazari eginiko elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁹⁹⁵ APAOLAZA POLO, Mikel: “Rescatados del olvido” in *Beasain Jaietan* urtekaria, 2013 (82-85. or.), 83. or.

⁹⁹⁶ Alicia Polo eta Mikel Apaolazari eginiko elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁹⁹⁷ APAOLAZA POLO, Mikel: op. cit., 83. or.

⁹⁹⁸ Alicia Polo eta Mikel Apaolazari eginiko elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁹⁹⁹ Alicia Polo eta Mikel Apaolazari eginiko elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

¹⁰⁰⁰ APAOLAZA POLO, Mikel: op. cit., 84. or.

¹⁰⁰¹ Alicia Polo eta Mikel Apaolazari eginiko elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

zen¹⁰⁰². 1927tik 1962ra Ciriegoko Hilerriko Administratzaile-Kapilauau izan zena. Valerio Poloren iloba Alicia Poloren arabera, “geroago apaiz horrek gutun bal bidali zion familiari, baina nik gutun hori ez nuen ikusi”¹⁰⁰³. Antonio Ontañon historialariaren arabera, Ciriegoko hilerrian hildakoak “ezezagunak” gisa apuntatu zituzten, hilerriaren araudia apurtuz. Ontañonek dio, bertan hildakoak ezagunak zirela agintari frankistentzat, fusilatzeraz zihoan pelotoiaren buruak preso bakoitzaren izena eta zenbaki bat zeramalako. Apaizak, Ciriegoko Hilerriaren araudiaren arabera Hilerriko buru nagusia zenak, egun bakoitzean egun hartan fusilatuak ziren presoen zenbakiak erregistratzen zituen, baina ez izenak, hauek, besterik gabe “ezezagun” bezala ezarri; beraz, “ezezagun” bezala erregistratze horren atzean berariazko arrazoi politikoak izan ziren¹⁰⁰⁴. Alicia Poloren eta Mikel Apaolazaren arabera, mediku batek Valerio Poloren gorpua identifikatu zuelako jakin ahal izan zuten familian Valerio Polo fusilatua izan zela. Frankistek Valerio Polo hil ostean ere ez zuten bakean utzi, 1939an bere kontrako epaiketa sumarisimo bat hasi zuten¹⁰⁰⁵, 1938.ean beste kausa bat ireki ziotelarik. Honek krudelkeria puntu oso gogor bat erakutsi zuen, 1938.eko apirilaren 26an Beasaingo alkateak “non zegoen ez zekiela” komunikatu baitzion epaileari, eta 1940.eko uztailean errebeldean deklaratu zuten¹⁰⁰⁶.

Laugarrena, Teodomiro Gonzalez Alonso, Ingeniarien 1. Batailoikoa Asturiasen hil zen fusilatua, baina kasu honetan ez zioten guda-kontseilurik ez epaiketarik egin. Frankistek, antza, aurkitu zutelarik hil egin zuten, 1937ko urriaren 24an. Jabier Garcia Bergararen testigantzaaren arabera, Gonzalez Alonsoren alaba Pepi Gonzalezek Epifanio Arguiñano erreketea egin zuen hilketa horren errudun, behin berak ikusi zuen elkarrizketa batean, “Epifanio Arguiñanok burua jaitsi zuelarik”¹⁰⁰⁷. (Gudaren ostean botere handiko pertsona zen Arguiñano, nahiz eta Udalean kargurik ez izan). Kontutan izan behar dugu, lehen aipatu bezala Arguiñanok Ordiziako Fausto Redondo soldadu

¹⁰⁰² ONTAÑON, Antonio: op. cit., 322. or. 1964.ean Santanderreko Udalak Tomas Soto bere Semetzako egin zuen.

¹⁰⁰³ Alicia Polo eta Mikel Apaolazari eginiko elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

¹⁰⁰⁴ ONTAÑON, Antonio: op. cit., 322. or.

¹⁰⁰⁵ APAOLAZA POLO, Mikel: op. cit., 85. or.

¹⁰⁰⁶ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 11946-38 kausa, Valerio Polo Carrascal dagokiona.

¹⁰⁰⁷ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

3. kapitulua

errepublikanoaran heriotza agindu zuela Asturiasen¹⁰⁰⁸; beraz Garcia Bergararen kontakizuna nahiko zuzena izan daiteke.

3.8.b) *Altxatuen alde borrokatu zuten beasaindarrak*

Beasaingo erreketek, Loinazko San Martinen Konpainia, Oriamendi herenaren laugarren konpainia osatu zuten. Unitate hori, 1936ko urriaren 1ean fundatu zen. Egun horretan egin zuten bandera hartze eta emate ekitaldia, Udala bera ere gonbidatu zutelarik¹⁰⁰⁹. Momentu hartan Epifanio Arguiano zen bertako erreketeen buru; hala ere, behin erreketeen formazio hau frontera joan eta osorik militarizatu zenean, kapitain gisa Jesus Ibañez jarri zuten. Erreketeen historia ikertu duen Julio Arosteguiaren arabera, ofizialki Oriamendi herena urrian sortu zen¹⁰¹⁰, beraz Loinazko San Martinen Konpainiarekin batera (honek esan nahi du honen integrazioa nahiko goiztiarra izan zela). Ekitaldi hau goizeko zortzietan hasi zen, erreketek eta “pelaioak” (gaztelera, *pelayos*, Alderdi Karlistaren gazteak) bedeinkatuz; gero, hamabietan Beasaingo kaleetatik sortu berriko Konpainiako kideek desfile militarra egin zuten, eta ordubatetan bazkaria egin zuten¹⁰¹¹. Hala ere, kontutan izan behar dugu paramilitar karlisten eta Beasaingo Udalaren arteko kolaborazioa ez zela egun horetan jaio. 1936.eko abuztuaren 5ean, Ordizian egoitza zuen Gipuzkoako Guda-Batzorde Karlistak Udalak “mugimenduan boluntarioki parte hartu nahi dutenei neurriak hartu behar dizkiela” agindu zuen; hau da, Gipuzkoako Guda-Batzorde Karlistak antolatutako mugimenduan parte hartzeko erraztasunak ematea agindu zion Beasaingo Udalari¹⁰¹². Hau da, errekrutatzeak nolabaiteko kutsu “ofiziala” izan zuen, Beasaingo Udalak berak, kolaboratu baitzuen (beraz, pentsatzekoa da bere datuak, errolda eta abar, erakunde paramilitarraren esku utzi zituela). Joxe Apalategiren arabera, “batzokian zen eraikinean (FET-JONSen egoitza bihurtuta) egiten zuten errekrutatzea”¹⁰¹³. Apalategiren arabera,

¹⁰⁰⁸ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...*, 292. or.; eta Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

¹⁰⁰⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 501 karpeta, 32 dokumentu-sorta.

¹⁰¹⁰ AROSTEGUI, Julio: op. cit., 461-462. or. Arostegui, konpainia honen sortzaile gisa “Arguiñano” (aipatu dugun Epifanio Arguiñano), “Montejo” (abizen horrekin hiru anai karlista zeuden Beasainen, Abundio Montejo, Enrique Montejo eta Fermin Montejo) eta “Aparicio” (Miguel Aparicio, gudan hil zena izan zitekeen) aipatzen ditu.

¹⁰¹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 501 karpeta, 32 dokumentu-sorta.

¹⁰¹² Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹⁰¹³ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

Jesus Ibañez kapitaina aritu izan zen errekrutatzearen buru¹⁰¹⁴. Dau hau Julio Arostegui historiagileak konfirmatzen digu¹⁰¹⁵.

Beraz, bai orduan Beasainen bizi izan zen beldur eta mehatxu giroak eta beste alde batetik errekrutatzean Udalak parte hartu izanak (laguntzaile bezala bada ere), beasaindar asko konpainia honetan izena ematera behartuta egotea ekarri zuen. Halako kasua izan zen Florencio Mendiarena, zeinaren aita fusilatu egin zuten (eta bere amari ilea moztu eta publikoki Beasaindik atera). Mila Mendiak kontatzen duen bezala “disgustu handiarekin eraman zuten”¹⁰¹⁶. Mila Mendiaren arabera, bere aita Florencio Mendia “erreketeen mandoekin ez zen ondo eramaten; bai ordea behe-maialko soldaduekin”¹⁰¹⁷. Behartuta izan zen beste pertsona bat Jose Usabiaga izan zen, gudan hil zena, eta Pedro Usabiaga Beasainen EAJ fundatu zuen taldeko kidearen semea. Jose Usabiaga Donostian zegoen ikasten baina altxatuak Beasainen sartu zirenean, bertan harrapatu zuten. Bere familiaren arabera, “Zesareo Ugarteren ospitalean erizain kamuflatu saiatu zen”, baina “nor bait han zegoela konturatu zen eta salatu egin zuen”. Hala izan zen Oriamendi herenaren Loinazko San Martinen Konpainian izena ematera behartua¹⁰¹⁸. Usabiaga 1937ko ekainean hil zen, Bizkaian, baina familiaren arabera, ez zen frontean hil, baizik eta frontetik etxerako bidean (agian zauritu eta gero)¹⁰¹⁹. Hauek ez ziren kasu bakarrak, erreketekin “boluntario” joan behar izan zen beste pertsona bat Inaxio Garmendia Goitia izan zen, Anselmo Garmendia Goitia abertzalearen anaia¹⁰²⁰. Errekrutatzeari uko egin zion bat Zesareo Ugarte medikua izan zen, baina geroago mediku bezala altxatuen aldeko Armada erregularrak errekrutatu zuen. Errekrutatzeari ihes egiteak zigorra ekartzen zuen, Zesareo Ugarteren bi anai, Martin eta Angel Ugarte Peñagarikano Oñatin kartzelan egon ziren arrazoi hori zela medio¹⁰²¹.

Andoni Sarriegiren arabera, erreketek Senpereko futbol-zelaian egiten zuten instrukzioa, frontera abiatu baino lehen¹⁰²². Frontera, azaroaren 4ean bidali zituzten,

¹⁰¹⁴ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

¹⁰¹⁵ AROSTEGUI, Julio: op. cit., 466. or.

¹⁰¹⁶ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

¹⁰¹⁷ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

¹⁰¹⁸ Arantza Ibaibariaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibariaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

¹⁰¹⁹ Arantza Ibaibariaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibariaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

¹⁰²⁰ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

¹⁰²¹ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

¹⁰²² Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6.

3. kapitulua

Aretxabaleta-Arrasateko frontera hain zuzen ere, Luis Maria Inchaurrendieta apaizarekin, Ibañez kapitaina Loinazko San Martin konpainiako buru izan zela eta Luis Guijosa tertzio osoaren buru zela. Julio Arosteguiaren arabera, lehenengo hilabeteen, 1937ko martxo bitartean lasaitasunezko hilabeteak izan ziren¹⁰²³; eta datuek hala esaten digute, 1937ko martxoaren aurretik oso hildako gutxi gertatu izan baitziren Loinazko erreketen lerroetan. 1937ko martxoa aurretik, beasaindarrak zirenak edo Beasainekin zerikusia zutenen artean bi pertsona soilik hil ziren, eta bat ere ez zen erreketea: Bonifacio Martinez goardia zibila, Oiartzungo frontean desagertu zena¹⁰²⁴, eta Ignacio Oyarzabal Olano olaberriarra, CAFeko langilea (soldadua eta ez erreketea)¹⁰²⁵.

1937ko martxoaren 31n izan zituen konpainia honek bere lehendako hildakoak. Hauek Miguel Aparicio Aldanondo kaporal zumarragarra eta Justo Aguado Baza alferez beasaindara izan ziren (Arosteguiaren arabera Konpainiaren antolatzaileetako bat izan zena)¹⁰²⁶. Miguel Aparicioz eta Justo Aguadoz gain, Aretxabaletatik Bilbora arteko frontean hil zirenen artean lau erreketek beasaindar ditugu: aipatu dugun Jose Usabiaga Mugica, Javier Urteaga Elzo, Jose Joaquin Iraola, eta Vicente Lasa Larrea. Azken hau ez zen Oriamendi herenekoa, baizik eta San Ignacio herenekoa, azpeitiarrekin batera, Aratz-Matxinbenta auzokoa baitzen. Loinazko San Martineko kide ziren beste hiru lagun ere hil ziren erasoaldi horretan; Francisco Murua Zurutuza lazkaotarra, Jose Antonio Urdangarin Munduate ataudarra eta Jesus Ibañez kapitaina ditugu¹⁰²⁷. Bizkaiko frontean hil zen baita Vicente Murua Aizpurua ordiziarra, CAFeko langilea zena¹⁰²⁸.

Joxe Apalategiaren arabera, Jesus Ibañez kapitaina “Iruñetik etorri zen militarra”, bere gizonek hil zuten, atzetik tirokatuta, “benetan gizon gaiztoa baitzen”¹⁰²⁹. Jesus Ibañezen fitxan bere heriotza eragin zuen zauria “eskualde sakratuan, eskualde perirektalaren orifizioa zeharkatuz” izan zela argitzen du. Beraz, honek Joxe Apalategi emandako bertsioaren alde egiten du, eta tiroa atzetik izan zela baieztatu (honek ez du

¹⁰²³ AROSTEGUI, Julio: op. cit., 463. or.

¹⁰²⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

¹⁰²⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 525 karpeta, 46 dokumentu-sorta.

¹⁰²⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 02 dokumentu-sorta. Bien erreketek-fitxak lotura honetan aurki daitezke: <http://www.fpev.es/index.php/fichas-junta-carlista>

¹⁰²⁷ Hauen fitxak lotura honetan ikus daitezke: <http://www.fpev.es/index.php/fichas-junta-carlista>

¹⁰²⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 525 karpeta, 46 dokumentu-sorta.

¹⁰²⁹ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

esan nahi ezinbestean bere gizonak tirokatu zutenik bere kontra, baina bertsio honek indarra hartzen du)¹⁰³⁰.

Bizkaiko frontean, gainera Loinazko San Martinen konpainian eta Oriamendi tertzioan aldaketa batzuk gertatu ziren. Alde batetik, Gipuzkoako Zumalacarreghi tertzioaren bigarren eta hirugarren konpainiak Oriamendirekin bat egin zuten. Hemen anekdota bat kontatu behar dugu, izan ere, Zumalacarreghi tertzioaren hirugarren konpainia horretan, errusiar zuri batzuk baitzeuden¹⁰³¹. Honez gain, 1937ko abenduan, Loinazko San Martin konpainian, Bizkaiko erreketek batzuk sartu ziren.

Hortik aurrera beste hainbat frontetan ibili ziren erreketek beasaindarrak eta bestelakoak; adibidez, Santander-Asturiaseko frontean (praktikan Bizkaiko frontearen jarraipen bat izan zena), Teruelen eta Katalunian¹⁰³². Teruelgo frontean beste bost erreketek beasaindar hil ziren: Juan Blas Albisu Aseguinolaza, Gonzalo Arana Altolaguirre, Juan Bautista Ceberio Jauregui, Alberto Mendia Mendia¹⁰³³ eta Jose Salsamendi Iraola¹⁰³⁴; baina baita ere beasaindarrak ez ziren Loinazko San Martin Konpainiako beste hamahiru erreketek. Beraz, dudarik gabe, Teruelgo frontea izan zen Loinazko San Martinen Konpainiarentzat punturik beltzena. Beste lau karlista beasaindar Kataluniako frontean hil ziren: Pedro Esnaola Arregui, Enrique Garijo Sesma, Jose Lahidalga Lopez de la Calle¹⁰³⁵ eta Pedro Zaldua Urquiola¹⁰³⁶; eta honez gain, konpainiako beste hiru erreketek ere han hil ziren.

Konpainiako buruak kapitain maila zuen. Lau kapitain izan zituen Loinazko San Martinen Konpainiak: Jesus Ibañez Arcajo burgostarra, Enrique Gimenez Porrás mallorcarra, Joaquin Amenabar Cortajarena andoaindarra eta Epifanio Arguiñano Arzo beasaindarra, tropa altxatuak Beasainen sartu zirenean errepresio-lanetan nabarmendu

¹⁰³⁰ Jesus Ibañezen erreketek-fitxa lotura honetan: http://www.fpev.es/images/jcgg/JCGG_F_2020.pdf

¹⁰³¹ AROSTEGUI, Julio: op. cit., 489. or. Lotura honen arabera <http://www.requetes.com/rusos.html> Zumalacarreghi tertzioan zerrendatzen den errusiar bakarra Nikolai Xinkarenko-Brusilov jenerala izan zen.

¹⁰³² Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

¹⁰³³ Alberto Mendiak oso harreman handia zuen behartuta erreketek joan zen Florencio Mendiarekin (Evaristo Mendia fusilatua semea). Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

¹⁰³⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 02 dokumentu-sorta. Hauen erreketek-fitxak lotura honetan aurki daitezke: <http://www.fpev.es/index.php/fichas-junta-carlista>

¹⁰³⁵ Jose Lahidalga CAFeko langilea zen. Beasaingo Udal Artxiboa. 525 karpeta, 46 dokumentu-sorta.

¹⁰³⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 525 karpeta, 46 dokumentu-sorta; Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta; Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 02 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 1170 karpeta, 01 dokumentu-sorta. Hauen erreketek-fitxak lotura honetan aurki daitezke: <http://www.fpev.es/index.php/fichas-junta-carlista>

3. kapitulua

zena. Hiru aldaketetan, arrazoia aurreko kapitainaren heriotza izan zen. Aipatu dugu jada Jesus Ibañez Arcajo Aretxabaletako frontean hil zela. Enrique Gimenez Porrás Teruelgo frontean hil zen, 1938.eko urtarrilaren 11n. Hil ostean, Beasainen bere gizonekin batera lurperatzea eskatu zuen¹⁰³⁷. Joaquin Amenabar Cortajarena 1938.eko abenduaren 28an hil zen, Kataluniako frontean, Pallars Jussa eskualdean, Tremp herriaren inguruan¹⁰³⁸.

Hala ere, azken aldaketa ez zen izan uste izan zen bezain erraza. Izan ere, Andoainen sortu eta Legorretan bizi zen Joaquin Amenabar Cortajarena hil zenean, postu hori egun batzuez bete gabe egon zen. Hala, Beasaingo alkate Jose Luis Guridik, Arroyo koronelari 1939ko urtarrilaren 5ean bidali zion gutun batean, Jesus Pagola Arana beasaindarrak postu hori har zezan gomendatu zion (orduan Nuestra Señora del Camino konpainian zegoen), “herriarentzako oso berri pozgarria zatekeelako” (ez zuen Epifanio Arguiñano Arzozez hitzik egin)¹⁰³⁹.

Guztira, Loinazko San Martin Konpainiak 34 gizon galdu zituen; horietako 14 beasaindarrak ziren, eta beste 20 kanpokoak¹⁰⁴⁰. Hauei gehitu behar zaie baita Vicente Lasa Larrea erreketek beasaindarra, San Ignacio tertzio azpeitiarrean borrokatu zuena, eta CAFen lan egiten zuten Urdaneta konpainia ordiziarreko bi erreketek ordiziar: Vicente Murua Aizpurua eta Auxencio Olangua Martinez¹⁰⁴¹. Beraz, gudan 15 erreketek beasaindar, eta beasaindarak izan gabe Beasainekin nolabaiteko zerikusia zuten beste 22 erreketek hil ziren.

Gainera, bigarren lerroko erreketek ere bazen Beasainen, bigarren lerroan edo atzegoardian zeuden erreketek ere bazeudela, “Laguntza-Erreketeko” (*Requeté Auxiliar*) kideak. 1936ko azaroaren 10ean Jose Luis Guridi alkateak sinatutako dokumentu baten arabera, 51 kide zituen laguntza-erreketek Beasainen eta bete 13 Olaberrian¹⁰⁴². Hala ere, 1937.eko urtarrilerako, Beasainen 17 kide berri sartu ziren (68

¹⁰³⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 02 dokumentu-sorta; eta Gimenez Porrásen erreketek-fitxa http://www.fpev.es/images/jcgg/JCGG_F_2924.pdf loturan.

¹⁰³⁸ Joaquin Amenabar Cortajarenaren erreketek-fitxa http://www.fpev.es/images/jcgg/JCGG_F_2141.pdf loturan.

¹⁰³⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

¹⁰⁴⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta; Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 01 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

¹⁰⁴¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 525 karpeta, 46 dokumentu-sorta.

¹⁰⁴² Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

eginez) eta Olaberrian, sei gehiago (19 eginez), ez baten ez bestean bajarik eman ez zelarik¹⁰⁴³.

Horrez gain, abenduaren 10ean egindako idatzi batean, Beasaingo Udalak, “errekete-laguntzaileei” (Beasainen geratu ziren erreketearen kideei), herrian goardia egiten zeudelarik otoruntza bat ematea adostu zuen, Severiano Garijo laguntza-errekete ordezkariari hala komunikatu ziotelarik¹⁰⁴⁴. Hau berretsi egin zen 1937ko urtarrilaren 21ean¹⁰⁴⁵. 1937ko urtarrilaren 23an haratago joan zen Beasaingo Udala, laguntza-errekete kideei gauzain soldata ematea adostu baitzuen¹⁰⁴⁶.

Loinazko San Martin Konpainia babesteko Beasaingo Udalak hainbat ekitaldi antolatu zituen, adibidez, komentatu dugu lehen 1936an arropa-bilketa bat antolatu zuela (non fusilatuen familiek ere parte hartu behar izan zuten)¹⁰⁴⁷, 1938an beste diru eta material bilketa bat (Erreketeek frontetik hura eskertu zioten Udalari)¹⁰⁴⁸. Urte horretako otsailean, konpainia honen mesederako pilota partidak antolatu zituzten Beasaingo frontoian¹⁰⁴⁹.

Erreketez gain, Beasainen bazeuden altxatuen alde soldadu erregular bezala borrokatu zutenak. 1937.eko, 1938.eko eta 1939.eko kintak deitu zituzten lehenik.. Hala ere, soldadu erregularren errekrutatzea ez zen oso arrakastatsua izan; alde batetik, Beasain ezkertiarren herria izanda, gazte asko ihes eginda zeudelako (bai 1936.eko uztailean altxatuak herrian sartu zirenean errepresioaren beldur, edo baita 1937.ean bertan errekrutatze deia entzuterakoan, askok errepublikazaleen kontra ez borrokatzeko ihes egin zutelako). Gainera, errekrutatze prest zeudenekiko (eskuindarrak zirelako, edo herrian geratuta, gaitz okerrago bat saihesteko gudara joateko prest zeudelako), armada erregularrean sartu aurretik, Loinazko San Martinen izena ematen zuten, beraz, altxatuen armada erregularrarako errekrutatzea asko murriztu zen. Adibidez, 1937.eko deialdian aurkez zitezkeen 56 gaztetatik 32 jada ihes eginda zeuden, bik osasun arazoak zirela medio erreklamazioa aurkeztu zuten, 12 jada Loinazko San Martinen errekkete konpainian alistatua zeuden; beraz, armada erregularrarekin soilik 10 alistatu ziren (eta

¹⁰⁴³ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

¹⁰⁴⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

¹⁰⁴⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 501 karpeta, 32 dokumentu-sorta.

¹⁰⁴⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 501 karpeta, 32 dokumentu-sorta.

¹⁰⁴⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 12 dokumentu-sorta.

¹⁰⁴⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 501 karpeta, 32 dokumentu-sorta.

¹⁰⁴⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

3. kapitulua

deitu zituzten 1933.eko kintako beste sei soldaduetatik hiru ere ihes eginda zeuden, eta beste batek helegitea jarri zuen. 1935.eko kintatik deitu zituzten bost gazteetatik bat ere ihes eginda zegoen)¹⁰⁵⁰. 1939an deitu behar ziren kintak, frankistek 1937.ean deitzea erabaki zuten; kinta horretan 66 gaztetatik 34 ez ziren deialdira aurkeztu “iheslari” gisa geratuz. Geratzen ziren 30etatik, 22 alistatu ziren armada erregularrean (bi laguntzaile gisa, eta beste bi azken momentuan Beasaindik kanpo), eta zortzik jada erreketean zeudela esan zuten¹⁰⁵¹. 1938.eko deialdian, ordea, deitutako 82 gaztetatik 58 pertsona izan ziren deialdira joan ez zirenak eta beraz “iheslari” gisa markatuak geratu zirenak¹⁰⁵². Beste 24 gaztetatik 11 jada erreketetan alistatuta zeuden, eta 3 “erabateko ezgai” kontsideratuak izan ziren¹⁰⁵³. Beraz, soilik 10 pertsona errekrutatu zitzakeen altxatuen armada erregularrak, gainera horietako bat laguntza-lanetarako soilik deitu ahal izan zuen¹⁰⁵⁴. Datu hauek erakusten dutena da Beasainen erregimen frankistarekiko oposizio handia zegoela, oposizio hau aktiboa (berariaz ihes egin izana, erregimen frankistaren alde ez borrokatzeko) edo pasiboa bazen ere (errepresalien beldur ihes egin izana), izan ere 1937ko, 1938ko eta 1939ko kintetan deitutako 204 gaztetatik 124k uko egin zioten aurkeztuari; eta beste alde batetik, Beasaingo erregimen berriaren barruan, karlismoak indar handia zuela, Udalaren eta Loinazko San Martinen arteko kidetza oso emankorra izan zen karlistentzat: kinta ofizialetako deituak izan ziren gazteak soilik kontutan hartuz, Loinazko San Martinen Konpainiak ia armada erregularrak beste gazte errekrutatzea lortu zuen: 33 lagun talde paramilitar karlistan eta 42 armada erregularrean (gainera, Loinazko San Martin konpainiak “soldaduskara joatekoa adinetik” kanpo zeuden pertsonak ere bildu zituen boluntario moduan).

17 soldadu erregular beasaindar hil ziren guda zibilean: Jose Maria Aguirrezabal Lizarralde, Jose Ramon Aramburu Elicegui, Isidro Aramburu Nazabal, Secundino Arrugaeta Rodriguez, Simon Balerdi Albisu, Jose Goena Urteaga, Francisco Landa Mendia, Juan Margareto Prieto, Candido Muñoz Novillo, Emilio Muñoz Novillo, Juan Odriozola Aramburu, Benito Oyarbide Rezusta, Juan Luis Rezusta Irastorza, Angel Rodriguez Adeba¹⁰⁵⁵, Damian Sarasola Echave, Ramon Zabaleta Guerrico¹⁰⁵⁶ eta

¹⁰⁵⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

¹⁰⁵¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 1170 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

¹⁰⁵² Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

¹⁰⁵³ Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

¹⁰⁵⁴ Azken gazte hau Juan Jose Garcia Urcelayeta izan zen, hain zuzen Beasaingo sarraskiari buruz lekukotza idatzia eman diguna.

¹⁰⁵⁵ Honen anai bat, Julio Rodriguez Adeba errepublikanoen alde borrokan hila izan zen.

Rufino Zufiaurre Jauregui. Gainera, CAFen lan egiten zuten beste bost hildako ere kontatu behar ditugu: Francisco Garmendia Apalategui zaldibiarra, Sabino Larrañaga Irizar lazkaotarra, Luis Lopez de Echezarreta Velez de Mendizabal ordiziarra, Jose Olano Iparragirre lazkaotarra eta Ignacio Oyarzabal Olano olaberriarra¹⁰⁵⁷. Hogei eta bi hauei, beste lau gizon gehitu behar zaizkie, Ignacio Aguirregomezcorta Peñagaricano, bere unitate militarra ezagutzen ez duguna¹⁰⁵⁸, Ignacio Aramburu Mendizabal beasaindarra, Falangeren 5. banderan borrokatu zuena (1938.eko apirilean Huescan hila)¹⁰⁵⁹, Borja Arteaga, Infantadoko dukearen semea, Bizkaian hildakoa¹⁰⁶⁰; eta bere anaia Jaime Arteaga¹⁰⁶¹. Beraz, erreketek, erregularrak eta beste indarretakoak gehituz, Beasainekin harremana zuten 63 pertsona hil ziren; horietako 34 beasaindarrak ziren, eta beste 29 Beasainekin nolabaiteko harremana izan zutenak (20 Loinazko San Martinen konpainiako kide, CAFeko 7 langile¹⁰⁶², eta Infantadoko dukearen bi semeak). Zerrenda honetan, desagertutako bat, agian 64. hildakoa zatekeena ere gehitu behar dugu: Oiartzungo frontean desagertutako Bonifacio Martinez goardia zibila¹⁰⁶³.

¹⁰⁵⁶ Honen anai bat, Francisco Zabaleta Guerrico, 1934.eko greban parte hartu eta atxilotutetako bat izan zen. Francisco Zabaleta ELAko kidea izan zen.

¹⁰⁵⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 525 karpeta, 46 dokumentu-sorta.

¹⁰⁵⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

¹⁰⁵⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 02 dokumentu-sorta..

¹⁰⁶⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

¹⁰⁶¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

¹⁰⁶² CAFek zortzi langie galdu zituen altxatuen alde borrokan; beste bi, aipatu dugun bezala bi erreketek ordiziarrek ziren (Vicente Murua Aizpurua eta Auxencio Olangua Martinez), eta zortzigarrena Jose Lahidalga Lopez de la Calle beasaindarra izan zen. Beasaingo Udal Artxiboa. 525 karpeta, 46 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 02 dokumentu-sorta. Gainera, Jose Lahildalgaren erreketek-fitxa http://www.fpev.es/images/jcgg/JCGG_F_1692.pdf loturan ikus daiteke.

¹⁰⁶³ Beasaingo Udal Artxiboa. 1169 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

4. KAPITULUA: GUDA OSTEA BEASAINEN (1937-1945)

4.1 Sarrera

Behin gudan gertatutakoak ikertuta eta gertaera horien gainen nolabait argitzen saiatu ondoren, orain Beasainen, guda ostean aginte berriak izandako jardunaz mintzatuko gara. Izan ere, aurreko kapituluetan argi utzi dugu altxatuak ez zirela ongi etorriak izan Beasainen, ez politikoki (herriaren gehiengoa ezkerrekoa baitzen, eta abertzaleek ere indar handia baitzuten), ezta militarri (borroka gogorra egon baitzen) ere. Beraz, eskuinaren aginteak Beasainen, nolabaiteko “okupazio” izaera izan zuen Beasainen, herritarren gehiengoa erregimen berriaren aurkakoa baitzen.

Horrela, kapitulu honetan, gutxiengo garailearen agintearen eta gehiengo garaituaren (beraz, politikan eragiteko bide legalik gabeko gehiengoaren) arteko harremanak nolakoak izan ziren argitzen saiatuko gara. Erregimenarentzat (edozein erregimenentzat) bere agintea “normaltasunaren” bidez zilegiztatzea helburua bazen, Beasainen halakoa lortzean nahiko zaila izan zitzaien printzipioz. Euren agintearen inguruko herritarren “adostasuna” (adostasun pasiboa gehienetan, hots, kontra modu argian ez egitea) eta euren agintearekiko “jasangarritasuna” lortzeko estrategia ezberdinak aztertuko ditugu: bai indarraren bidez (koertzioa, autoritarismoa), zein beste bide batzuen bidez (eguneroko zerbitzuak ematea). Honen inguruan, asko ikertu duen historiagile bat Candida Calvo Vicente gipuzkoarra da. Calvok halako mekanismoak hainbat modutan definitu izan ditu eta bere esanetan, erregimenak “kantsentsuaren antolaketa” egiteko hiru modu bereizten ditu: lehena, erregimenaren beraren aldeko propaganda positiboa, bigarrena egunerokotasunean ohitura batzuk barneratzea eta azkenik, balizko kritikaren neutralizaziora bideratutako saiakerak. Historiagile horren arabera, halako “Kantsentsuaren antolaketak” osagarri bat izan behar du: egunerokotasunean populazioak bere bizitza kalitatea hobetzea)¹. Calvo Vicente bide hau zabaldu duenetako bat da: diktadura bat soilik koertzioaren bidez mantentzea ezinezkoa dela (nahiz eta elementu honen garrantzia ez du ukatzen), beste mekanismo batzuk ere bilatu behar dituela. Hots, diktadura bat badela baita ere populazio sektore batzuen “Interesen inbertsioa” (esatea bego, Italian, hango diktadura faxistaren inguruan

¹ CALVO VICENTE, Candida: “El concepto del consenso y su aplicación al estudio del régimen franquista” in *España Contemporánea*, 7. zkia. (141-158. or.), 1995, 142-143. or.

4. kapitulua

ildo honek “kotsentsuarenak” baduela nolabaiteko bide zabalxeagoa: adibidez, Renzo De Felicek ikertu ditu mekanismo horiek Mussoliniren diktaduraren inguruan².

Calvo Vicentek ikuspegi original bat erakusten du, frankismoa erregimen “totalitario” gisa ezartzen du (ez “autoritario” gisa), baina erregimenaren “adostasun totalitario” hori, instituzio faxisten bidez kanalizatu ordez (lehen urteen salbuespenarekin), “erakunde tradizionalen bidez” (hau da, elizaren bidez) izan zen kanalizatua³. Hau da, Calvo Vicenteren ustez, bi gauza azpimarratu behar dira: “adostasuna” edo “kotsentsua” sortzeak ez dakarrela erregimen baten totalitarismo maila txikiagoa izatea, eta “totalitarioa” izateak ez dakarrela berez ideia horrekin sortutako alderdi jakin baten hegemonia.

Hala ere, badira historiagileak Calvo Vicenteren ikuspegia kritikatzan dutenak: batez ere “onarpena” eta “kotsentsuaren” arteko lotura zuzena egiten dutenak, edo bien arteko tartea nabarmentzen dutenak. Antonio Cazorlaren ustez, frankismoak (erregimen totalitario askoren kasuan bezalaxe, baina partikulariki frankismoaren kasuan Guda Zibil odoltsu batekin abiatu zelako) populazioarengan ezarritako “onarpena” batez ere beldurraren arabera ezarri zen⁴, eta antzera pentsatzen du Javier Rodrigok. Azken horren arabera erregimenak bere hastapenetan eginiko “bortizkerian inbertsioa” klabea izan zen erregimenaren iraupenerako⁵. Italiaren kasurako, adibidez, Nicola Tranfaglia dugu, zeinaren arabera, ezinezko da “kotsentsu” kontzeptua diktadura bati ezartzea, izan ere, bere esanetan, termino horrek bi aukerak baldintza berdinetan edo bertsuetan daudenean ematen den adostasunari soilik egin diezaioke erreferentzia⁶. Azken finean honen bidez, galdera bat agertzen zaigu: “adostasun” edo “kotsentsu” terminoa soilik demokrazia formal baten testuinguruan da erabilgarria?⁷

² DE FELICE, Renzo: *Mussolini il Duce. Gli anni del consenso 1929-1934*. Einaudi. Torino, 1974.

³ CALVO VICENTE, Candida: “El concepto del consenso...” op. cit., 152-153. or.

⁴ Bere azken lanean azaltzen da batez ere ideia hori modu oso garbian: CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016.

⁵ RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008.

⁶ TRANFAGLIA, Nicola: “Coerzione e “consenso”” in TRANFAGLIA, Nicola: *Labirinto italiano. Il fascismo, l'antifascismo, gli storici*. La Nuova Italia, 1989, 60-61. or. Hala ere, Tranfaglia berak, beste lan batean esaten du “diktadura batek, populazioaren sektore batzuen aldeotasuna edo onarpen pasiboa izan zezakeela”. TRANFAGLIA, Nicola: *La prima guerra mondiale e il fascismo*. UTET, Torino, 1995, 466. or.

⁷ Galdera hau Ismael Sazek egiten du. SAZ CAMPOS, Ismael: *Fascismo y franquismo*. Valentziako Unibertsitatea. Valentzia, 2004, 171. or.

Hala ere, kontutan hartu behar dugu, nahi hala ez, diktadura batek badituela indarrezkoak ez diren errekursoak populazioaren aldekotasuna lortzeko edo populaizo hori neutralizatzeko, eta beste alde batetik tresna hauek populazioarengan eragina badutela. Hori dela eta, Ismael Sazek dioen bezala, “indarra vs kontsentsua” bezalako eskema bat ez da nahikoa “diktadura batean barruan herritarren aldetik eman ahal diren egunerokotasuneko erantzunen konplexutasuna ulertzeko”. Sazen arabera, “kontsentsu” bezalako terminoek, eztabaidagarriak ala ez, “bideari hasiera eman diote” (hau da, herritarren jarreraren arazoa ulertzeko bideari hasiera eman diote), baina ez ordea, bukaera. Bide honetan jarraitzeko, Sazek “kontsentu aktiboaren” eta “kontsentsu pasiboaren” artean bereiztea proposatzen du⁸. Sazen arabera, herritarren artean ez zeuden soilik jarrera posible bi (“kolaborazioa” eta “erresistentzia”), baizik eta jarrera mota-sorta oso bat zabaltzen zen, herritarrak euren artean oso ezberdinak ere baziren eta. Adibidez, herritarrek frankismoarekin kolaboratu zezaketen zenbait arlotan, baina beste arlo batzuetan ez, edo diktaduraren ekintza, kanpaina edo erakunde batzuek iritzi ona izan eta besteez iritzi txarra; hau da, “kontsentsua” (edo “kontsentsuak”) ez da modu unilineal batean eraikitzen ezta ere modu berdinkidean arlo guztietan, baizik eta gora-behera handiko fenomeno bat izan zen. Adibide bat jartzearen, Sazek bere ikerketetan elkarrizketatu zituen valentizar langile ia guztiak “erregimenaren aurkakoak” ziren, baina erakunde konkretu batzuekiko, edo Giron Lan Ministro falangistarekiko iritzi positiboa zuten⁹.

Gaur egun nagusitzen ari den joeraren arabera, diktadura batean, honek askotan nahi ez bazuen ere eta populazioa “aldekoen” eta “kontrakoen” artean bereizten bazuen ere, jarrera aniztasunarena da. Alde batetik, berez “galtzaileak” zirenen artean ikus dezakegu halako joera hori. Baina ez bakarrik, baita irabazle zirenen artean ere. Adibidez, Candida Calvok jasotzen duenez, gure herrialdean, Gipuzkoan, karlistak “erregimenaren alde” egon zitezkeen, baina horrek ez zuen esan nahi Falange alderdia (teorian, 1937.eko Bateratzearen ondoren eurak parte ziren alderdia) maite zutenik. Bestalde, Calvo Vicentek esaten duen moduan, egon zitezkeen erregimenaren aldeko pertsonen aldetik nolabaiteko “erresistentzia puntualeko kasuak” edota erregimenaren

⁸ Ibid. or. Sazen arabera, halako eskema batek, eskuineko erregimen totalitario edo autoritario batek faxismoaren doktrinareiko zuen hurbiltasun maila hurbiltzeko ere balio ezake. Hala ere, beste hau, faxismoaren izaerari buruzkoa, beste eztabaida bat da.

⁹ Ibid., 181., 224-226. eta 230-236. or.

4. kapitulua

eta “herri xumearen” artean, bigarren hau aukeratu zutenak¹⁰. Beasainen batez ere Jose Aramburu zinegotziarekin identifikatu izan dira halako jarrerak (baita ere gure elkarrizketatuaen aldetik, gehienetan erregimenaren kontrako profila duen jendea delarik). Hala ere, ez da komeni halako “frankista ondratuen” keinuak gainbaloratzea, gehienetan ekintza puntualak baitziren, ez jarriak, eta erregimenaren oinarriak zalantzan jartzen ez zutenak.

Laugarren atal honetan, halako galderei erantzuten saiatuko gara; Beasaingo herritarren egunerokotasunera hurbilketa bat eginez. Atal honetako lehen arazoa, Beasaini buruz ari garela, periodizazio kronologikoa dugu. Izan ere, berez, Guda Zibila 1939.ean bukatu zen, eta azken borroka gogorak urte horren hasieran izan ziren. Beraz, lan askotan frankismoaz, Estatu frankistaz eta bere egiturez eta honek herritarrengan izan zituen hitz egiten denean, 1939 urtea hartzen da erreferentzia moduan, behin fronteko borroka bukatuta, 1936eko uztailean altxatu zirenek euren proiektu politikoa aurrea eramateko aukera betea izan zutela ulertzen baita. Baina kontuan izanik altxatuak Beasainen 1936eko uztailaren 27an sartu zirela, 1936.eko irail-urrian Gipuzkoa osoa (Elgeta eta Eibar izan ezik) eta 1937.ean Euskal Herri osoa kontrolatzen zutela, borroka frontetik mehatxu gutxi zuen Beasaingo eskuindarren aginteak. Gainera kontutan izan behar dugu “Francorena izango zen erregimenak” bere behin betiko forma hartzen lagunduko zizkion neurriak hartu baino lehen: 1936.eko irailaren 29an Franco bera izan zen altxatuen zonaldeko “Estatuaren” Estatuburu izendatua, 1936.eko bukaeran bere aldeko alderdien milizia paramilitarrak “aginte militar bateratu baten menpe” ezarri zituen, hau da, altxatuen aldeko Armadaren menpe eta 1937.ean falangistak eta karlistak bateratu egin zituen FET-JONS alderdi bakarrean. Gertakari guzti hauek gertatu zirenerako, Beasainen jada bazegoen altxatuen aldea gobernatzen, eta bere funtzionamendu-eredua inposatzen.

Zergatik 1937.etik hasi eta ez beste data bat? Gure ustez, 1936.eko azken hilabeteetan, Beasainen oraindik aginte frankisten egiteko nagusia errepresioa izan zen (eta horretan militarrek indar handia izan zuten). Beraz, 1936.ean frankistek Beasainen izandako aginteak oraindik lotura handia zuen 1936.eko uztailaren 27tik 28ra gertatutako sarraskiarekin. Horregatik nahiago izan dut aurreko kapituluan sailkatzea.

¹⁰ CALVO VICENTE, Candida: “Las relaciones de poder en el ámbito local durante el primer franquismo: El caso de Guipúzcoa” in TRUJILLANO SANCHEZ, Jose Manuel (ed.): *Jornadas “Historia y fuentes orales”. Memoria y Sociedad en la España Contemporánea. Actas III Jornadas* (kongresuko aktak) (193-200. or.). Avilako Diputazioa. Avila, 1992, 193. eta 196. or.

Bestalde, kapituluaren beraren barne mugarri bat ezarri dugu, hain zuzen 1941.eko urtea; urte horretan alkatetzan aldaketa bat eman baitzen: Martin Esnaola Eliceguik Jose Luis Guridi Aramburu ordeztu baitzuen.

Honez gain, kontuan izan behar dugu Beasainek eta bere herritarrek beren egunerokotasunean hainbat arazori aurre egin ziotela, oso egoera gogorrean; izan ere, guda osteko urteetan gosea nagusi izan zen. Horrez gain, kontutan izanik frankismoaren garaian aberastasunaren birbanaketa erregresiboa eman zela, eta horrek herritar gehienek kaltea eragin zuela. Are gehiago, kontutan hartu behar da frankismoak mobilitate sozialaren “igogailua” zurrundu egin zuela, hau da herritar gehienek euren egoera soziala hobetzeko aukerak moztuta ikusi zituztela.

Ezin ahaztu, bestetik, herritar askok euren eguneroko hizkuntza, euskara, etxetik kanpo erabiltzea murriztua edo debekatua ikusi zutela; eta horrez gain hizkuntza horretan mintzatzea “konpondu beharreko akats” bat gisan ikusten zutela agintariak; herritar askorengan trauma handia (eta kasu batzuetan, zigor fisikoen objektu izatea) suposatu zuelarik. Gure hizkuntzarentzat, Errepublika garaian hasitako berreskurapen geldoaren joera errotik moztua zen, eta beraz aurreko euskararen kontrako egoerara itzuliko ginen. Hala ere, Monarkiaren gobernu ezberdinen euskararen kontrako jarrerak eta Francoren euskararen kontrako jarrerak (batez ere lehen urteetan, guk ikertu behar dugun tarte honetan) ezberdintasun bat zuen: lehenengok ez zutela euskara erabat desagerrarazteko berezko helbururik, baizik eta erdara herritarrengan zabaltzeko eta erdarak hegemonia soziala lortzea. Frankismoaren garaian ordea, erdara “Inperioaren hizkuntza” bezala identifikatzen zen, hots, proiektu politikoaren hizkuntza, eta Estatu totalitarioa izaki, herritar guztiek haren politikan parte hartzea eta proiektu politikoa Espainiako azken txokora eta azken herritarrarengana zabaltzea helburu zuenez, hizkuntza mailan ere nabari zen asmo hori. Euskara ez zen soilik hezkuntzatik kanpo geratuko, helburua edozein tokitik kanpo geratzea zen. Arlo honetan ere, agintarien eta herritarren arteko harremana ikusiko dugu. Izan ere, Beasaingo populazioaren parte euskaldun elebakarra (praktikoki), frankismoaren helburu horrekiko oztopo handi bat izan zen. Beste alde batetik, Beasaingo euskaldunek euren hizkuntzari eusteko erabili zituzten estrategietan ere sakonduko dugu.

Horren aurrean, nola jardun zezaketen agintari eskuindarrek aurkakoa zuten populazio batekiko, euren errepresioa jasan zuten herritar askok osatutako

4. kapitulua

populazioarekiko, bere hizkuntza erabili ezin zuen populazioarekiko; honen (edo parte baten) aldekotasuna edo gutxienez “neutraltasuna” lortzeko? Aurreko kapituluan azaldu ditugu halako estrategia batzuk, hain zuen ere jaiak eta erritualak (batez ere gudari edo politikari lotuak). Hauek guda ostean gailurra jo zuten, Franco Estatuburuak Beasain, eta batez ere CAF fabrika bisitatu zuenean. Baina argi dagoenez, pertsonak ez du soilik horretatik jaten, eta bestelako moduak ere erabili behar izan zituzten. Beasaingo egunerokotasunean nabari zitezkeen hobekuntzak nola kapitalizatzen saiatuko garen ikusiko dugu.

4.2 Beasaingo demografia eta ekonomia

Guda ostean Beasainen demografia jaitsi egin zen. Are, 1938.eko errolda batek, Beasainek berez 5.215 biztanle (2.294 emakume eta 2.921 gizon), eta legez 5.350 biztanle (2.319 emakume eta 2.931 gizon) zituela zioen¹¹. 1938.eko zergen errolda baten arabera, herrigunean 4.005 pertsona bizi ziren¹².

Datu baikor horiek ez zituen baieztatu 1940.eko erroldak. Horren arabera, 1940.eko urrian Beasainen 5.021 biztanle zeuden berez (horietatik 2.456 emakume eta 2.565 gizon), eta legez, 5.265 (horietatik 2.559 emakume eta 2.706 gizon)¹³. Baina Francoren erregimenean, “auzokide” kontzeptua aldatu egin zenez, hemendik aurrera, “auzokide” (*vecino*) eta “herrian finkatutako” (*domiciliado*) kontzeptuak ezarri egin ziren (lehena, adin nagusiko pertsoneri erreserbatua zegoen). 1940.eko abenduan, berez 4.986 biztanleko eta legez 5.231 biztanleko populazioa ematen zuen erroldaren arabera, Beasainen 1.466 auzokide emakume, 1.373 auzokide gizonezko, 1.141 “finkatutako” emakume eta 1.251 “finkatutako” gizonezko zeuden (gainera, ospitalean, 23 emakumezko eta 17 gizonezko zeuden)¹⁴.

1943.eko Hornikuntzaren Mapa Nazionalaren arabera, 1942.ean zehar Beasainen 78 pertsona jaio eta 57 pertsona hil ziren, 46 ezkontza izan zirelarik. Datu horien arabera, Beasainen beste erroldak ematen zutena baino pertsona gehiago bizi ziren: 5.541, 2.852 emakume eta 2.689 gizon.

1945.eko erroldaren arabera, Beasainen 5.196 pertsona bizi ziren (legez 5.430), horietako 2.621 emakumeak zirelarik (legez 2.708) eta gizonezkoak 2.575 (legez

¹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 251 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

¹² Beasaingo Udal Artxiboa. 1406 karpeta, 04 dokumentu-sorta.

¹³ Beasaingo Udal Artxiboa. 2065 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

¹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 2065 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

2.722). Legezko emakumezkoen populazioaren artean 1.566 “auzokideak” ziren eta beste 1.142 “bertan bizi zirenak”; eta legezko gizonezko populazioaren artean, 1.476 “auzokideak” ziren, eta beste 1.246 “bertan bizi zirenak”¹⁵.

Ikusten dugun arabera, 1940 eta 1944 artean Beasaingo populazioa nahiko egonkorra izan zen, gorabeherarik gabea, 1945.ean igoera txiki bat apreziatzen zelarik. Joxe Manuel Dorronsororen arabera, 1940 eta 1945 artean, Beasainen jaiotzak heriotzak baino pixka bat gehiago izan ziren urte guztietan: 1940.ean 95 jaiotza eta 52 heriotza, 1941.ean 84 aiotza eta 64 heriotza, 1942.ean 88 jaiotza eta 57 heriotza, 1943.ean 102 jaiotza eta 36 heriotza, 1944.ean 92 jaiotza eta 49 heriotza eta 1945.ean 98 jaiotza eta 50 heriotza¹⁶. Beraz, datu hauek ontzat ematen baditugu, Beasainen populazioa pixkanaka pixkanaka haziz zihoala ondorioztatzen dugu, hazkunde natural hau etengo zuen emigrazio dinamikarik egon ez zelarik eta ezta honi ekarpena egingo zion inmigrazio dinamikarik ere (II Errepublikan ez bezala).

Oro har, guda ondoko egoera ekonomikoa oso txarra zen, eta geldialdi ekonomikoa erabatekoa izan zen. Iritzi hori ematen digu adibidez, Felix Luengo donostiar historiagileak, zeinaren arabera “gosetea eta urritasuna” nagusitu ziren Donostian, “40.eko hamarkada osoan industriaren produkzioa eten egin zen”. Hala ere, Luengoren arabera, Donostiak nolabaiteko berreskurapena izan zuen 1946.eko aurrera, turismoari esker batez ere, eta honek ekarri zuen merkataritza eta finantzaren igoerari esker¹⁷. Iritzi hau Leyre Arrietak eta Miren Barandiaranek berresten dute; euren ustez 1940 eta 1951 artekoa ekonomi geldialdi baten aroa da “Guda Zibilaren eta politika ekonomikoa frankistaren ondorioz”. Gainera euren arabera, Gipuzkoako Aldundiak ez zuen egoerari aurre egiteko adina baliabide, Hitzarmen Ekonomikoa bertan-behera geratzearen ondorioz, zergen gaineko kontrola galdu zuen eta¹⁸. Euren kronologia Felix Luengorenarengandik bereizten da, baina hori euren ikerketa-geografia ezberdina delako ere bada: osotasunean Gipuzkoaren ekonomiaren morfologia ez baita (eta ez zen) Donostiakoaren berdina. Gonzalez Portilla eta Garmendiaren arabera, 40. hamarkadan Gipuzkoako industri geldialdi erabateko sufritu zuen, lehengaien faltak

¹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 2065 karpeta, 04 dokumentu-sorta.

¹⁶ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 33. or.

¹⁷ LUENGO TEIXIDOR, Felix: “Oroimenean hurbil: 1936-2000” in ARTOLA, Miguel (ed.): *Donostiaren historia* (145-180. or.). Donostiako Udala. Donostia, 2001, 157-159. or.

¹⁸ ARRIETA ALBERDI, Leyre; eta BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Diputación y modernización: Gipuzkoa 1940-1975*. Gipuzkoako Aldundia. Donostia, 2003, 19. 55-60. eta 201. or.

4. kapitulua

eraginda, eta gainera, Bilboaldeko industria astun basikoak zuen abantaila gabe: hau da, berreraiketarako kontratuak lortzeko ezintasuna zuen Gipuzkoan nagusi zen industria arainak. Hori dela eta, 1939-1944 artean, Gipuzkoa, Espainiar Estatuko probintzia industrializatuen artean, inbertsio industrial baxuena zuen bigarrena izan zen, Madrilén atzetik¹⁹. Horrez gain, industriari dagokionez, badago Gipuzkoak nolabaiteko diskriminazio politikoa jasan zuela esaten duenik: lehengaien eskasiaz gain (autarkiak ahuldade hori indartu zuen) eta autarkiaren politika kaltegarriaz, Gipuzkoan (eta Bizkaian) industria berria sortzeko baimen-eskaerak sistematikoki ukatzen zituen, eta gure lurraldean egindako inbertsioak oso txikiak ziren, beraz, Gipuzkoak Espainian zuen pisu industrialak jaitsi egin zen²⁰. Gipuzkoa, 50. hamarkadan, gorantz joango zen, autarkia ekonomikoaren politika atzean geratzen ari zelako, eta horretan herritarren eta kooperatibismoak izandako papera kontutan izan behar da.

4.3 Botere-guneak guda osteko Beasainen

Francoren erregimenean boterera igotzeko bi klaberen arteko lehia edo konbinaketa ikus daiteke Beasainen; hau da, aurreko eliteak boterera itzultzearen eta Estatu-kolpearekin bat egitearren edo gudan lortutako “merituak” lehenesteko arrazoien artekoa. Kontuan izan behar dugu beste Estatu totalitarioekin gertatu zenaren alderantzizko bidean, Espainian alderdi bakarra (Falange Española Tradicionalista, 1937ean Francok falangistak eta karlistak batu arazi ostean²¹) “goitik” sortua izan zela, Guda Zibilean bertan; ez zen Italian edo Alemanian bezala aurretik sortutako alderdi faxista batek (jada bere ideologia eta bere militanteak definituak zituena) boterea hartzerik gertatu²², baizik eta alderdi faxista (Falange) berak gidatu ez zuen Estatu-kolpe batek eraman zuen boterera; eta horrez gain, beste sektore batzuekin (karlistekin, adibidez) batu-arazi zuen. Honez gero, alderdi bakar berri honetan sektore askok egin zuten bat, bai falangistek edo karlistek (hots, “aurretik” alderdi bateratu hori osatu zuten alderdietakoak izan zirenak), baina baita ere, besterik gabe, alderdi berrira hau

¹⁹ GONZALEZ PORTILLA, Manuel; eta GARMENDIA, Jose Maria: *La posguerra en el País Vasco. Política, Acumulación, Miseria. Kriselu*. Donostia, 1988, 80-83. or.

²⁰ GARCIA PRIETO, Milagros; VELASCO BARROETABEÑA, Roberto; eta MENDIZABAL GOROSTIAGA, Arantza: *La economía vasca durante el franquismo. Crecimiento y crisis de la economía vasca: 1936-1980*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1981, 56-59. or eta 403-404. or.; MENDIZABAL, Arantza; eta SERRANO, Felipe: “La política industrial del franquismo: su influencia en la industria vasca” in *Ekonomiaz* aldizkariak, 9-10. zkia. (301-322. or.), 1988, 304., 313-315. eta 319. or.

²¹ Honi buruz gehiago; SAZ CAMPOS, Ismael: op. cit., 125-150. or.

²² SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros políticos intermedios del régimen franquista, 1936-1959. Diversidad de origen e identidad de intereses*. Alacanteko Diputazioa eta Valentziako Generalitatea. Alacant, 1996, 18. or.

“Francoren alderdia” izan zelako gehitu izan zirenak eta euren interesak zaindu zitzazkeen erregimen baten alderdia zelako batu zirenak.

Honekin bat, kontutan izan behar dugu alderdi bakarra oso bide garrantzitsua izan zela pertsona berriak Estatuaren administrazioan, baita ere tokiko administrazioan sartzeko, baina ikusiko dugun moduan, ez zen beti guda-aurreko Falangek guda-ondoko egoeran zuen protagonismoa neurtzeko adierazle bat, baizik eta “koalizio atzerakoia” zutarritu zuen erakunde politikoa.

Antonio Cazorla historiagilearen arabera, frankismoaren tokiko boterearen egituratzeak ekarri zuena, Errestaurazio garaian (1876-1923) loratutako kazikismoa edo jauntxokeriaren buelta bat izan zen²³. Horrenbestez, Cazorlaren arabera, frankismoa ez zen izan antzinako kazikismoaren “eguneratze” bat baino (askoz ere bide eta neurri totalitarioagoak eta odoltsuagoak erabiliz, hori bai), eta beraz, frankismoa babestu zuten fakzioak (falangistak eta karlistak) eta baita Alderdi bakarra bera (FET-JONS) eragin politiko oso mugatuko taldeak izan ziren: sekula ez zuten izan erregimena moldatzeko aukerarik izan, jauntxokeriarako tresna soilak izan ziren²⁴. Cazorlak esaten duenaren moduan, “Francoren garaian, eskuineko alderdi edota mugimenduen gainetik, erregimenarekin bat egiteko modua aurreko bezerotza- eta jauntxokeria-sareak izan ziren”. Cazorlaren ustez, jauntxokeria-sareek erregimenaren barruan izan zuten pisua ikertu ez izana, frankismoaren historiografiaren inguruan ematen den zulo handi bat da, eta parte handi batean egozten dio frankismoak (batez ere falangismoak), bere eraikuntza erretolikoan “politika zaharrari” eginiko salaketak oraindik oroimenean pisu handia duelako. Azken finean frankismoa proiektu antiliberal bat zen, eta liberalismoarekin identifikatutako Errestaurazioaren pisua onartzea zail egin zitzaion²⁵.

²³ Ikus CAZORLA SANCHEZ, Antonio: “La vuelta a la historia: caciquismo y franquismo” in *Historia Social* aldizkaria, 30. zkia. (119-132. or.), 1998.

²⁴ Ikus CAZORLA SÁNCHEZ, Antonio: *Las políticas de la victoria*. Marcial Pons. Madril, 2000; eta CAZORLA SANCHEZ, Antonio: “La vuelta a la historia...”, op. cit., (batez ere 128-129. or.). Cazorlak, jauntxokeriaren boterea eta alderdi bakarraren ahultasuna lotzen ditu, alderdi bakarra “Francorekiko leialtasunerako tresna politiko” eta “mmesedeen bidez karrera egiteko igogailu” gisa deskribatzen duelarik.

²⁵ *Ibid.*, 19. eta 21. or. Cazorlaren arabera, frankismoaren tokiko agintarien azterketa “politikoa” (hau da, aurreko militantzia politiko baten arabera erregimenean sartu izana azaltzen duena), “baliagarria izan daiteke hiri handietako kasua aztertzeko, han mobilizazio politiko handia eman baitzen; baina ez baserrigunearen kasua edota tradizio hain handia ez duten hirien kasurako”. Angela Cenarrok, zeinak moduren batean 1937tik aurrera tokiko aginte-pertsonalaren ideologizazioa defendatzen duen, kasu honetan ere bat egiten du Cazorlarekin, nekazalguneeetan, antzinako harremanak militantzia politikoa baino garrantzitsuagoa zela esanez: CENARRO LAGUNAS, Angela: “Instituciones y poder local en el “Nuevo Estado”” in JULIA, Santos (koord.): *República y guerra en España (1931-1939)* (421-447. or.). Espasa. Pozuelo de Alarcon (Madril), 2006, 436. or.

4. kapitulua

Egia esan, Cazorlaren azterketak, frankismoa aztertzeko bi paradigma erasotzen ditu: bata frankismoak berak erakutsi asmo zuen “erregimenaren erregenerazionismoa”, hau da, frankismoak “politika zaharra” garbitzeko asmoa zuela eta bestea, sare hauek erregimenaren zutarrizat hartuz eta “fakzio politikoen” eta hau autonomiaren garrantzia bere neurrian jarriz, Linzek atera zuen “pluraltasun mugatuaren” paradigma²⁶. Hipotesi linztarraren arabera, frankismoaren barruan hainbat fakzio politiko autonomo (beraz, autonomia hori edukitzeko gai izateko adina indartsu) egoteak, eta hauek interes ezberdinak izateak, frankismoa “pluraltasun mugatuko” erregimen bat zela justifikatzen du. Cazorlaren ustez, jauntxokeria-sareak fakzio hauen gainetik egoteak (nahita ala nahi gabe), praktikan “konpetentzia mugatu” hori ezerezean utziko zukeen²⁷.

Cazorlaren hipotesiaren parte batekin, antza denez, bat egiten du Julian Sanz Hoya kantabriarrak, batez ere fakzioen gainetik zeuden interesak aipatzen dituenean. Sanz Hoyaren arabera, Bateratze Politikoaren Dekretuaren ostean, ezin da pentsatu Francoren erregimenaren aurretik zeuden fakzioak “Bere horretan” (ezkutatuta baziren ere) jarraitu zutenik, edota fakzio horien bidez alderdi politiko berrian sartutakoak Guda aurreko alderdiaren programari ezinbestean leialak zitzaizkionik. Hala ere, Sanz Hoya ez dago hain ados Cazorlaren ikuspegi “errestaurazionistarekin”; bere arabera, osagarri hori egon zen, baina baita ere klase politiko berri bat ernaltzeko saiakerak, batez ere falangismoaren aldetik, zeina bere arabera “ezin da eskuin zaharraren beste adar soil bat bezala hartu”²⁸. Angela Cenarroren arabera, lehen egunetan kolpistek egin zituzten izendapenak kontutan hartuz, “argi utzi zuten helburua ez zela 1931 aurreko egoerara bueltatzea”²⁹.

²⁶ LINZ, Juan Jose: “From Falange to Movimiento-Organización: The Spanish Single Party and the Franco regime, 1936-1968” in HUNTINGTON, Samuel; eta MOORE; Barrington: *Authoritarian Politics in Modern Society* (128-203. or.). Basic Books. New York/Londres, 1970.

²⁷ Halako ideiarekin bat egiten du adibidez Glicerio Sanchez Recio. Recioen arabera, Linzek deskribatzen duen “pluraltasun mugatua” soilik fakzio hauen “jatorrian” aurki daiteke, ez geroago egin izan zuten politikan. “Jatorri aniztasuna, eta interes batasuna” bezala deskribatzen du Sanchez Recio frankismoaren fakzioen arteko harremana. Ikus SANCHEZ RECIO, Glicerio: op. cit.

²⁸ SANZ HOYA, Julian: “Jerarcas, caciques y otros camaradas. El estudio de los poderes locales en el primer franquismo” in *Historia del presente*, 15. zkia. (9-26. or.), 2010, 11. eta 13-16. or. Hala ere, jatorri falangistako “koadro berriak” aginte-posizioetara heltzeak ez du esan nahi agintera heltzerakoan jada derrigorrez Estatua falangistizatzeke gaitasunik edo asmorik zutenik, hots Estatuarekiko autonomia hori mantentzen zutenik. Jatorriarena (eta “botere koadroen berritzearena”) eta Falangek bere asmoak betetzeko gaitasunarena bi eztabaidagune ezberdin dira.

²⁹ CENARRO LAGUNAS, Angela: “Instituciones y poder local...”, op. cit., 426. or. Hala ere, badirudi pixka bat aurrerago Cenarro Lagunasek kontraesan bat duela, “errestaurazio logikarekin” bat egiten du antza 431. orrialdean: “Instituzio berrietan (elite zaharrek) zuten presentziak adierazten du modu batean edo bestean antzinako boterea gordetzea lortu zutela”. Hala ere, kontraesan hau azalekoa da, geroago

Bada Cazorlaren paradigmaterekin ados ez dagoenik edota hau ñabartu egin duenik. Horietan nabarmenena Antonio Canales Serrano da. Canales Serranok maneiatzen duen paradigmatere sona handia lortu du, erreferentziala izateraino. Canales Serranoren arabera, lehen frankismoan, tokiko agintereekin bat egiteko bi “logiken” arteko lehia zegoen: “garaipen sozialaren logika” eta “garaipen politikoaren logika”. Canalesen arabera, logika aniztasun hau, frankismoaren garaipena –“erreferentziatzen hartzen ziren Italian eta Alemanian gertatu ez zen moduan”- guda militar batetik zetorrelako gertatu zen; eta ez soilik alderdi politiko baten garaipenetik³⁰. Canalesen arabera, “garaipen politikoaren logika”, tokiko agintera aurreko militantzia politikoagatik sortu zen, edota frankismoa babesten zuen fakzio politikoetako baten bidez; honek Francoren diktaduraren pean aurreko militantzia horrekiko leialtasuna, edo honen programaren aldeko borroka egitea ezinbestean esan nahi gabe. Logika hau, “garaipen politikoaren logika”, esan bezala, igogailu baten gisa ulertu behar da; beraz, erregimenaren aparatuaren (zeinaren buruan Franco zegoen, eta honek “eskuineko tradizio ezberdinen batasuna” bultzatu zuen) barnean sartzeko tradizio ezberdinen oreka-joko bezala ulertu behar da³¹. Canalesen ikuskera hau Julian Sanz Hoyak ñabartzen du, bere arabera, batez ere erregimenaren lehen urteetan, moduren batean erregimenaren baitako kontraesan nagusia falangisten jarraitzaileen (Estatua faxistatu nahi zutenen) eta Alderdi berriaren baitan proiektu horren kontrako artean zentratu zen. Sanz Hoyak aipatzen du Alderdi bakarra beste lehia-gune bat zitekeela frankismoaren sektore ezberdinen artean, eta honen kide izateak ez duela nahitaez esan nahi falangista zentzurik hertsienean izatea³². Azken esaldi honen adibide garbia dugu

baitio, 1937.eko urrian altxatuen “Estatuak” tokiko agintarien inguruko irizpideak aldatu zituela, irizpide ideologikoago batzuk ezartzeko asmoz.

³⁰ CANALES SERRANO, Antonio Francisco: “Las lógicas de la victoria. Modelos de funcionamiento político local bajo el primer franquismo” in *Historia Social* aldizkaria, 56. zkia. (111-130. or.), 2006 (batez ere 112. or.). Canalesen arabera, guda militar batetan garaipena lortzeak, eta guda horretan logika askoren superposizioa ekarriko du “Logika politikoaren ngako soila erabiltzea ulertezina zatekeelako”. Hala, erlijio-logika (Elizaren bterearen bereskuratzea), eta genero-logika (emakumearen paper publikoaren murriztea) ere aipatzen ditu. Hala ere, azken hauek ez dira gako izango tokiko agintean parte hartzeko, aipatutako biak baizik. Ikus hemen, Canalesek bere logika aniztasuna azaltzeko Guda Zibilak eragin zuen fakzio edota kolektibo ezberdinen elkarketak, Glicerio Sanchez Recio aipatutako “koalizio atzerakoia” kontzetuarekin harreman handia duela.

³¹ Kontutan izan behar da fakzioen arteko ezberdintasunak edota bakoitzaren “programa maximoa” ezartzeko grina geroz eta txikiagoa zela. Hots, denborarekin batera, “logika politiko” honen baitan, “zilegitasunaren” aspektua erabat nagusituko da, programaren aspektua zokoratzeraino. *Ibid.*, 113-116. or.

³² SANZ HOYA, Julian: “Jerarcas, caciques y otros camaradas...”, *op. cit.*, 12-13. or. Modu pixka bat gordinagoan azaltzen du fenomeno hau Angela Cenarro bere Aragoiren inguruko lanean: bere arabera, 40. Hamarkadan nagusitu ziren falangistak, baina jada garai horretan, hegemonía politikorako asmo guztiak zaharkituak zeuden. “Garrantzitsuen erregimenari fidelotasuna erakustea zen”. CENARRO

4. kapitulua

Beasainen, non FET-JONSen lehen hiru Tokiko Buruek ez zuten izan aurreko militantzia falangistarik.

“Izogailu politiko” honen inguruko beste ikuspegi bat ematen dio Angela Cenarrok, honen arabera, FET-JONS alderdi bakarra “Francoren zerbitzurako oinarri bat bihurtzen ari zen burokrazia erraldoi” bat zen, hau da “igogailuaren polea” bera. Cenarroren arabera, FET-JONSen denetariko jendea sartu zen, beraz, alderdi bakarraren zutarrria “Francorekiko leialtasuna” zen³³.

Marti Marin i Corbera katalanak ere antzeko ikuspuntu bat du. Bere arabera, tokiko agintea erabat FET-JONS alderdi bakarraren inguruan zegoen, ezin daiteke alderdi bakar honen garrantzia ukatu erregimenaren zutarr nagusi bezala³⁴. Kasu honetan Marti Marinen ikuspuntuak zuzenean erasotzen du “pluraltasun mugatuaren” hipotesi linztarra, bere ustez erabat okerra dena, izan ere Linzek aipatzen dituen frankismoaren barneko “familiek” edota “tendentziek” ez zuten tokiko agintean batere antolakuntzarik ez garrantziarik izan. Marin i Corberaren arabera, Francoren Espainian, tokiko agintea ikertzen denean, FET-JONSen botere ia monopolista eta alderdi honen bertikaltasuna aintzat hartu behar dira, eta alderdi honen agintaritzan batez ere falangistak egon zirela ere kontutan izan behar da³⁵. Hala ere, ikusiko dugun moduan, Marin i Corberaren tesia gure kasurako ez da oso aplikagarria, Gipuzkoako egoera zen modukoa zelako, hemen “alkandora zaharreko falangistek” zuten presentzia oso txikia baitzen: Gipuzkoako zinegotzien %2 soilik ziren guda aurretik falangistak, eta Gipuzkoako FET-JONSek, karlisten kide asko bazituen ere, ez zituen lortu zinegotzi

LAGUNAS, Angela: *Cruzados y camisas azules. Los orígenes del franquismo en Aragón, 1936-1945*. Zaragoza Unibertsitatea-Prensas Universitarias. Zaragoza, 1997, 160. or.

³³ CENARRO LAGUNAS, Angela: “Instituciones y poder local...”, op. cit., 433-435. or.

³⁴ MARIN I CORBERA, Marti: “Falange y poder local” in RUIZ CARNICER, Miguel Angel (ed.): *Falange. Las culturas políticas del fascismo en la España de Franco (1936-1975)* (231-252. or.). Zaragoza Diputazioa. Zaragoza, 2013, 236-237. or.

³⁵ Marin i Corberaren arabera, falangisten boterea gutxiesten duten edo saiatzten diren egileen artean “frankismoa faxismoa ez zela” frogatzeko gogoia dago. Bere arabera, argudiaketa honen argudio nagusia, Francoren erregimenaren pean kargu garrantzitsuak zituzten falangistak “benetako falangistak” edo “alkandora zaharreko falangistak” ez omen zirelakoa da. Marinek argudio hau ezeztatzen du, kargua hartu zuten falangisten artean “alkandora zaharrekoak” (beraz, “benetakoak”) kopuruan pisu handia zutela argudiatuta bid., 235-236. or. Halere, honek ñabardura bat merezi du, “falangista beteranoa” izanak (hau da, ez alderdi horrekin “boterearekin bat egitekotan” bat egin duena) ez baitu bermatzen behin kargu hori hartuta falangista horrek Estatu programa falangistaren arabera moldatzeko asmoa edo gaitasuna zuenik. Ismael Sazen esaldiarekin bat eginik “falangista asko alderantziz faxistizatu ziren: faxista izatetik faxistizatu izatera pasa ziren”. SAZ, Ismael: op. cit..

denak alderdi bakarrean sartzerik: Gipuzkoako zinegotzien %67 soilik zen alderdi bakarreko kidea garai hartan³⁶.

Beste logika “garaipen sozialaren logika” dugu. Canalesen arabera, honek ere Guda Zibilean du bere jatorria, hauxe “elite tradizionalen boterea desafiatu zutenen aurkako guda” (eta garaipena) izan baitzen. Hau da, elite tradizionalak gudaren bitartez aurretik galdutako botere politikoa berreskuratu zuten (eta botere ekonomikoa, hauxe galtzeko –benetako edota balizko- arriskuen aurrean segurtatu zuten). Hori dela eta, sektore hauek “militantzia dela eta” agintera igo nahi zituztenekiko mesfidantza erakusten zuten, “elite berri bat” eratzeko arriskua ikusten baitzuten hauengan. Moduren batean, logika honen garaipenak, aurretik Cazorlak definitutako “jauntxokeria sareen iraupenaren” hipotesiarekin bat egiten du, edo honengandik “edaten” du. Hala ere, Canalesek ñabardura bat ezartzen du: “jauntxokeria” egoteak, ez du esan nahi aurreko “jauntxokeria-sareek” iraun egiten zutenik; hau da, jauntxokeria egotea bera, ez da soilik “garaipenaren logika sozialarekin” erabat identifikatu behar (aurreko jauntxoaren ezarpena), baizik eta “elite berriek” ere erreproduzitu egin zuten (hau da, “garaipenaren logika politikoaren arabera” funtzionatu zuten agintariak era jauntxokeria erreproduzitu zuten)³⁷.

Canalesek dioenez, ez dago bi logiken arteko harremanen patroia bakar bat Espainia osorako, baizik eta zonalde bakoitzean bi logiken arteko konbinaketa ezberdinak eman zitezkeen (hau da, zonalde bakoitzean logika batek pisu handiagoa izan zezakeen). Gertatu daiteke baita bi logikek modu berean jokatzea, adibidez Bilboko Udalaren kasuan, non aurreko militantzia politikoa (“meritu politikoak”) zituzten pertsonak, berez bilbotarra elite burgesaren parte ziren³⁸. Baina gehienetan, edo elementuetako bat nagusitzen zen, edo biak modu berean funtzionatzen zuten. Ikusiko

³⁶ BARRUSO BARES, Pedro: “La Falange en la formación de una nueva clase política a nivel local. Un estudio comparado: Guipúzcoa y La Rioja” in RUIZ CARNICER, Miguel Angel (koord.): *Falange. Las culturas políticas de fascismo en la España de Franco (1936-1975)*, II lib. (58-76. or.). Zaragozako Unibertsitatea. Zaragoza, 2013 (batez ere 74. or.). Honetan nolabaiteko eragina izan zezakeen Gipuzkoan gudan zehar, falangista batzuk, 17 guztira, bortizkerian gorriaren ondorioz hil izana. Zenbaki hori ez da handia errepresioaren biktimen kopuru guztiarekin kontatuz gero, baina bai Gipuzkoako Falangeari begira (gainera hildakoak alderdi faxistako militante koalifikatuak ziren).

³⁷ CANALES SERRANO, Antonio Francisco: “Las lógicas de la victoria...”, op. cit., 116-117. eta 120. or. Canalesen arabera, bada beste ezberdintasun bat: hau da, tokiko botereek Errestaurazioaren garaian (jauntxokeriaren unirik gorenean) Estatuan izan zuten eragina ez zuten frankismoan izan, honek goitik-beherako botere-bertikal bat inposatu baitzuen (nahiz eta ustela izan).

³⁸ Ibid., 120-129. or. (batez ere 122-123. or.). Hala ere, kasu hau ez zen gertatuko Bilbo ondoko Barakaldon, non Udaleko zinegotzi gehienak, aurretik militante karlistak izenekoak izan ziren, Labe Garaietako enplegatuak gehienak, beraz, “logika politikoa” erabat nagusitu zen, “logika sozialak” eragin oso txikia izan zuelarik.

4. kapitulua

dugun moduan, eskema hau erabat ezkontzen da Beasainen guda-ostean eratu zen lehen Udalarekin, hemen ere, bi igogailuek “funtzionatzen” zutela ikusten baitugu: “logika politikoak” koadrorik gehienak eman zituen, baina “logika sozialaren” bidez Udalean sartutakoek, koalitatiboki botere handiagoa izan zuten.

Beasainen alderdi bakarrean militatzea meritu gisa zutenek “gutxieneko partetik”³⁹, hots, karlismotik sartu ziren Udalean (Euskal Herrian eta Gipuzkoan, beste toki batzuekiko salbuespenean, karlismoa falangismoa baino garrantzitsuagoa baitzen). Hau ez da inolako salbuespena Gipuzkoan, gure lurraldean, Pedro Barrusok esan bezala: “Bateratzeak ez baitzuen tokiko karguen orekan batere garrantziarik izan”⁴⁰. Kasu honetan, Beasainen, “meritu politikoen” bidez Udalean sartutako zinegotzi gehienak karlistak izan ziren; hauetarik, kasu gehienetan, “meritu politikoen” bidez Udalean sartutakoak (adibidez, Rufo Artolain edo Francisco Ezquiaga); baina baita ere “meritu sozialen” bidez sartutakoak, aurreko elite baten kide zirelako, adibidez Joxe Aranburu, zeina Usurbe elkarteeko kide zen. Hala ere, oro har, “meritu politikoengatik” Udalean sartutako zinegotzi karlista beasaindarrak, klase sozialari begiratuta, “meritu sozialengatik” sartu zirenak baino klase apalagokoak ziren (tokiko enpresari txikiak edota enpresetako enplegatuek, “tokiko elitearen kideztat” jo ahal ditugunak –Joxe Aranburu eta Restituto Urteaga kasu- gehiago dira Usurbe Elkarteko kide izatearren, ekoizpen-ekonomikoko ihardueragatik baino).

Hiru zinegotzi, “logika sozialaren” arabera sartu ziren Udalean: Guridi alkatea, Arana alkateordea eta Cerrajería; hirurak enpresariak. Bestalde, karlisten gunetik at ezarritako denak, “Meritu sozialengatik” boterera igotakoak izan zirela ondorioztatu beharra dugu; baita ere Miguel Cerrajería falangistaren kasuan, zeinak aurretik negozio pribatu bat zuen. Kasu honetan, ez Beasainen ez Goierriin, 1936.eko uztailaren aurretik

³⁹ Ez nago ados Sanchez Reciorekin berak, sortzen ari zen Estatu berriaren barnean militarren nagusigoaren aurrean, alde batetik falangisten eta bestetik “beste joeren” jarrerak bereizten dituenean; hots, falangistak militarrekiko ezberdina zen proiektu propio bat (faxista kasu honetan) izango zuketzen moduan, eta beste fakzioak (karlistak barne) “kontserbakorrak izanagatik (...) deitailu batzuk kenduta militarren esanetara jartzeko otzanagoak ziren” gisa. Karlitek euren proiektu politiko autonomoa zuten (eskuindarra eta horregatik frankismoa eratu zuen koalizioan sartzeko modukoa, baina falangistena bezala); nire ustez erregimenaren lehen urteetan militarren nagusigoa desafiatu ez bazuten, indar nahikorik ez zutelako zen. SANCHEZ RECIO, Glicerio: op. cit., 39. or. Euskal Herriko eta Gipuzkoako kasua aztertuz ondo ikusten da karlisten “programa maximoaren” eta erregimenarekin bat egin behar izanaren arteko tentsioa. CALVO VICENTE, Candida: “Las relaciones de poder...”, op. cit., 198. or.

⁴⁰ BARRUSO BARES, Pedro: “Poder político y representación social en Guipúzcoa durante el primer franquismo (1936-1947) in *Spagna Contemporanea*, 16 zkia. (83-100. or.), 1999, 91. or. Hala ere, Bateratzeak bai ekarri zuen beste gauza negatibo bat karlismo gipuzkoarrarentzat: probintziako botere-gune garrantzitsuenetarako bidea ixtea. Ikus: CALVO VICENTE, Candida: “Las relaciones de poder...”, op. cit.

Falangeren antolakunderik ez egoteak, Cerrajería alderdi horretan apuntatzeko (eta 1936-1937 artean Beasaingo Tokiko Burua izateko) arrazoiak, alderdiaren dotrina bera baino, “erregimenaren alderdia” izatean zatzatela pentsatzera eramaten naute⁴¹. Izan ere, Gipuzkoako tokiko agintari frankisten profila aztertu duen Candida Calvo Vicente irakaslearen arabera, Falange alderdia oso ahula izan zen Gipuzkoan gudaren hasieratik, Estatu kolpeak, hots “erregimenak” egin zuen indartsu (eta horregatik sartu ziren bertara hainbat eta hainbat pertsona, praktikoki “Izogailu sozial” bihurtu baitzen)⁴². Ideia hau Pedro Barrusok berresten du: Errepublikara garaian, Falangek ez zuen lortu Gipuzkoan Donostiatik at antolatzerik, eta Guda Zibileko lehen hilabeteetan ere, bere afiliazio maila ez zen apenas igo⁴³. Hau da, Cerrajeríaren aukera politiko horretan, praktikoki, bere aurreko estatus “soziala” bermatzeko aukera zegoela, “politika” ez zela pertsona honen kasuan igogailu bat, baizik eta aurretik izandako estatus soziala berresteko tresna bat. Kasu honetan ere sar ditzazkegu Pedro Arana Gaiztarro enpresaria (1922 eta 1923 artean alkatea izandakoa) edo Jose Luis Guridi bera. Calvo Vicentek aipatzen duen moduan, Gipuzkoan nagusitu ziren joerak, batez ere tokiko botereari dagokionez, karlistak eta “etiketa gabeko eskuindarrak” izan ziren, eta kasu hau oso ondo betetzen da Beasainen⁴⁴.

Beraz, Udal oso politizatu bat izan genuen hasiera batetatik Beasainen, norabide karlistan politizatu. Hau Glicerio Sanchez Recio frankismoaren tokiko koadroen ikerlari nagusiak ezarri zuen ereduarekin (partzialki) kontraesanean dago. Sanchez Reciorenen arabera⁴⁵, lehen urteetan, erregimenak bere tokiko koadroentzat bilatzen zuen profila “apolitikoa (hala ere eskuinaren barruan noski), ordenakoa, jabea (hots, posizio

⁴¹ Glicerio Sanchez Reciorenen arabera, alderdi bakarrean halako jende “ez-politizatu” sartu izanak, gerora zaildu egin zituen falangismoak Estatu frankista hegemonitzatzeko asmoak. SANCHEZ RECIO, Glicerio: op. cit., 83-84. eta 98. or.

⁴² Honela esan zion Candida Calvori karlista zahar batek 1991.ean egindako elkarrizketan: “Gipuzkoar falangistak oso gutxi izan ziren, Gipuzkoan Falangek indarra hartu zuen guda ostean, Espainiako beste toki batzuetatik, batez ere Madriletik Donostiara etorritako elementuei esker (...) Baina Falangek Gipuzkoan, gipuzkoarrak zirenak aintzat hartuz, oso jende gutxi zuen”. CALVO VICENTE, Candida: “Las relaciones de poder...”, op. cit., 198. or.

⁴³ Barrusok, Gipuzkoako Falangea, bai demografikoki eta soziologikoki antzekoa zen beste lurralde batetakoarekin, Errioxakoarekin konparatzen du, Errioxan Guda Zibilean Falangek izan zuen hazkundera Gipuzkoan izan zuen hazkunde ezarekin konparatuz. BARRUSO BARES, Pedro: “La Falange en la formación...”, op. cit., 61-64. or.

⁴⁴ CALVO VICENTE, Candida: “Las relaciones de poder...”, op. cit., 196. or. Hau dio baita ere Pedro Barrusok: BARRUSO BARES, Pedro: “Poder político y representación social...”, op. cit., 88. eta 100. or.

⁴⁵ Kontutan izan beharra dugu Sanchez Recio bere analisia Espainiari begira egin zuela, ez soilik Gipuzkoarentzat, beraz, “Udal politiko” gehienak (hots, profil politiko markatua zuten zinegotziek betetako Udalak) falangisten nagusigoa zuten, Beasainen gertatu gisa karlisten nagusigoa izan ordez.

4. kapitulua

ekonomiko onekoa), eta eraginkorra” zen⁴⁶. Berdin pentsatzen du Angela Cenarrok “hasiera batean, Udaletako komisio gestoretan, militarrekin batera kontserbakor zaharrak ziren (...) Primo de Rivera diktadorearen *Unión Patriótica*koak, monarkiko zaharrak, CEDAko kide ohiak, eta hasiera baten behintzat, falangista gutxi batzuk”. Hala ere, Cenarrok argi dio 1937.eko urriaren 30eko agindu batean ostean, eskuindarren “Estatuak” aldaketa bat egin zuela: “pertsona eraginkorrak eta apolitikoak” eskatu ordez, ordutik aurrera “moral orbagea zuten pertsonak” (hau da, ideologikoki zalantzarik gabekoak zirenak) eskatu zituen; eta gainera FET-JONSeko kideak izan zitezten gomendatzen zuen (bestalde, karguak izandaterakoan, alderdi bakarrari eta Goardia Zibilari aholku eskatu beharreko zuzentaraua ere ezartzen zuen). Honek jakina, tokiko agintean “garaipen politikoaren logikaren” garrantzia (Canales Serranoren terminoak erabiltzearen), eta honen barruan falangisten presentzia handiagotu egin zuen⁴⁷.

Beasainen, klase ikuspuntutik, lehen Udal frankistako kide gehienek Glicerio Sanchezek aipatutako profil horrekin bat egiten dute, baina kontutan izan beharra dago agian alkatearen eta Pedro Arana alkate ohiaren salbuespenaz, Udal oso politiko batez hitz egiten ari garela, bere 13 kideetatik 10 aurreko militantzia karlista zutelarik (eta hauei Miguel Cerrajería gehituko diegu, izan ere, bere arrazoiak bazter utzita, egitatea baita altxatuek Beasainen sartu bezain laster Falangen izena eman zuela). Beraz, Beasaingo kasua bat dator erabat Gipuzkoako kasu orokorrarekin: Pedro Barrusoren ikerketa baten arabera, 1936 eta 1947 arteko gipuzkoar zinegotzien %48 karlistak izan ziren⁴⁸ eta Candida Calvo Vicenteren arabera, 1936 eta 1942 arteko Gipuzkoako Aldundiko diputatuen %37 ere karlistak ziren⁴⁹. Gipuzkoan zinegotzi gehienak joera honetakoak izatea azaltzen dute, Barrusoren arabera, bi faktorek: bata koantitatiboa izango zatekeen, hau da, Gipuzkoako eskuineko alderdirik indartsuena karlismoa izatea; eta bestea politiko-militarra, hau da, lehen egunetan, altxatuen “Estatua” oraindik egituratu gabea zegoenean, Udalak berez militarrek aukeratzen bazituzten ere, Gipuzkoako kasuan erabakimen maila handia zuen Gudarako Batzorde Karlistek. Honen adibide dugu, aurreko kapituluan ere aipatu dugun 1936ko irailaren 25ean,

⁴⁶ SANCHEZ RECIO, Glicerio: op. cit., 37-38. or.

⁴⁷ CENARRO LAGUNAS, Angela: “Instituciones y poder local...”, op. cit., 431-433. eta 435. or.

⁴⁸ BARRUSO BARES, Pedro: “Poder político y representación social...”, op. cit., 100. or. Zinegotzien beste %35,5 “filiatziarik gabekoak” edota “oro har eskuindarrak” izan ziren.

⁴⁹ CALVO VICENTE, Candida: “La enseñanza en la zona rural guipuzcoana durante el primer franquismo” in *Vasconia. Cuadernos de historia-geografía*, 27. zkia. (165-176. or.), 1998, 171. or.

Tolosatik Gipuzkoako Guda Batzorde Karlistak eginiko agindua, eraikin publikoetan Espainiako bandera monarkikoa jartzea, eskoletan eta Udaletean gurutzea jartzea eta Bihotz Sakratuaren entronizazioa agintzen zuena⁵⁰. Beasaingo Udala ere bat dator Gipuzkoako ereduarekin falangisten ahuldadearen inguruan: Pedro Barrusoren arabera, guda aurreko Falangetik zetozen zinegotziak %2 ziren Gipuzkoan, zortzi Udaletan banatuta⁵¹.

Baina lehen Canalesek aurkeztutako eskemarekin bat eginez, honek ez du zertan esan nahi Beasaingo Udalak Estatua “karlista bihurtzeko” saiakeretan parte hartu zuenik, edota “sare karlista” baten parte zenik. Esan dugu lehen, “tokiko kolorea” agerian utziko zituen zenbait keinu egin zituela (ia denak erlijioaren aldekoak, eta ez politikaren arlokoak, adibidez Hitzarmen Ekonomikoa berrezartzea eskatzea izan zitekeena), baina ez koordinazio baten barruan. Bertako zinegotzi gehienak karlistak izateak, batez ere esan nahi zuena zen aurreko militantzia karlista (praktikoki karlistena zen Beasainen II Errepublika garaian antolatutako eskuineko alderdi bakarra) Udalean sartzeko modu bat zela, karlismoa baitzen Beasainen erregimen berria koadro politikoz “jantzi” zezakeen “fakzio” bakarra. Adibidez, Udalak berak Franco Estatuburua gonbidatu eta harrera egin zion 1943.ean argi zegoenean diktadoreak jada karlistak boteregunetik at utzi zituela. Are gehiago, 1936.ean Udal-talderako izendatuak izan ziren gehienak 1949 arte izan ziren Udalean, beraz, “aurreko identitate politikoaren” lausotzearen kasu argi bat ikusten dugu hemen, erregimenarekin berarekin identifikatzeraino.

Udal politizatu honendatik sortu den Udal berri honetan, ia-ia zinegotzi gehienek ez zuten aurreko erregimenean, hots II Errepublikan, kargurik izan. Salbuespenak: Restituto Urteaga (1931.ean aukeratutakoa, 1934.ean eskuinak kargugabetutakoa eta 1936.ean Fronte Popularrak berrezarritakoa; berez “eskuindarra”), Miguel Cerrajería (1934-1936 arteko Udalean izan zen “eskuineko errepublikanoa”) eta Eusebio Asla (1934-1936eko Udalean aritu zen karlista). Honek alde batetik bat egiten du Miguel Angel Del Arcoren analisiarekin, zeinaren arabera, frankismoak “pertsonek berri” bat eratu zuen; hala ere, hemen ñabardura bat ezarri behar zaio egile horri. Haren esanetan, “pertsonek berria”, batez ere Guda Zibilean borrokatu zutenen artetik hartutakoak

⁵⁰ BARRUSO BARES, Pedro: “Poder político y representación social...”, op. cit., 88. or.

⁵¹ BARRUSO BARES, Pedro: “La Falange en la formación...”, op. cit., 68-71. or. Barrusoren arabera, Errioxan, falangistak tokiko karguen %22 ziren, beraz hau oso adierazgarria da Gipuzkoako Falangeren ahultasuna azaltzeko.

4. kapitulua

“gehienetan ez zuen Guda Zibila baino beste identifikaziorik”, beraz, aurreko identifikazio politikorik gabe, Francoren erregimenarekiko leialak izango ziren, besterik gabe⁵². Beasaingo kasuan aldiz, “pertsonal berria” jada politikoki sozializatua zegoen, karlista gisa (nahiz eta ikusiko dugun moduan, pixkanaka-pixkanaka, erregimenarekin mimetizatuz joan ziren⁵³).

Beste alde batetik kontuan hartu behar dugu Beasaingo Udalean, nolabaiteko “jarraikortasuna” izan zela; hau da, 1936.ean aukeratutako zinegotziek 1949.a arte iraungo zutela (1940.ean zinegotzi baten heriotza, eta beste hiru Beasaingo zinegotzien ezarritako “kuotarako” soberan zeudela eta atera beharraren salbuespenaz⁵⁴); 1936 eta 1949 artean ez zen izendapen berririk eman. Hau da, Udal politizatu honek indarrean jarraitu zuen 1949. urtea arte (Martin Esnaola alkate postuan Miguel Cerrajeriak ordeztu zuen). Pedro Barrusoren Gipuzkoako Tokiko Botere frankistaren gainerako ikerlanarekin erkatuz, honek Gipuzkoako kasu orokorrarekin partzialki bat egiten du: egia da Gipuzkoako Udalak oro har jarraikortasun handikoak izan zirela, baina Beasain salbuespena da kasu honetan, izan ere, Barruso berak dio 1943. urtean, Gobernadore zibil berri batekin, Fermin Sanz Orriorekin, kargugabetzeak eta pertsona berrien izendapenak handitu zirela⁵⁵.

Sanchez Recioen marko teorikoari jarraituz, honek bat egin zuen 1939.etik aurrera eman zen tokiko kargu frankisten “politizazioarekin”; halere, gure kasuan kontutan izan behar dugu Beasainen politizazio hori lehendik (lehen Udala izendatzetik) zetorrela. Gainera, kontutan izan behar dugu Sanchez Recioen arabera tokiko karguen politizazioa azaltzeko arrazoi nagusia “FET-JONSen inplantazioaren hedapena izan zela”⁵⁶. Beasainen, karlistek, hasiera batetik izan zuten inplantazio hori. Hau bat dator Miguel Angel Del Arcok egiten duen analisiarekin (analisi Ekialdeko Andaluzian fokutzen duen arren): frankismoak, “eskuineko” fakzio ezberdinen artean malguki

⁵² DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: ““Hombres nuevos”. El personal político del primer franquismo en el mundo rural del sureste español (1937-1951)” in *Ayer* aldizkaria, 65. zkia. (239-267. or.), 2007 (batez ere 252. or.).

⁵³ Karlismoarekin baino, falangismoarekin prozesu “mimetizatzaile” honetarako adibide bat dugu Angela Cenaroren Aragoiri buruzko lana: CENARRO LAGUNAS, Angela: *Cruzados y camisas azules...* op. cit.

⁵⁴ Gipuzkoan urte horietan Udalak murriztea orokorra izan zen. 1931.eko Udal hauteskundeetan (azken Udal hauteskundeetan) 847 zinegotzi aukeratu ziren Gipuzkoan; baina 1937.eko urriaren 30eko ordena batek 584 zinegotzitarra murriztea (263 zinegotzi gutxiago) eskatu zuen. Beraz, Beasainen murrizketa hori “atzerapenez” egin zen. BARRUSO BARES, Pedro: “Poder político y representación social...”, op. cit., 91. or.

⁵⁵ *Ibid.*, 95-98. or.

⁵⁶ SANCHEZ RECIO, Glicerio: op.cit., 44-45. or.

kolabotzeko gaitasuna izan zuen, modu honetan herri bakoitzean aurretik egondako fakzioen pisua kontutan hartuz⁵⁷.

Hala ere, jarraikortasun honek bi gauza esan nahi zituen baita ere. Bata, Udala kronologikoki ezarri zen garaia kontutan harturik (1936.eko uztailaren 29an izendatua, hau da, gudaren lehen egunetan), eta pertsonala aldatu ez zela kontutan izanik, hau da, guda garai osoan jarraitu zutela kontutan izanik, “gudako merituak” ez ziren present egon zinegotzi berri hauetan (Gipuzkoako zinegotzi “borrokalari ohiak” – *excombatientes*- ere oso gutxi ziren; % 16,80 guztira. Konparazioz, Errioxan %33 ziren). Oro har kargura igotzeko “igogailu” zen Guda Zibilak⁵⁸ Beasainen ez zuen batere garrantziarik izan: “Meritu politikoen” artean, karlista izatea egon zen, baina ez erregimen berria lubakietan defendatu izana. Hala ere, merituen artean koka daiteke “preso ohi” (*excautivo*) izatea. Beasainen 13 zinegotzietatik bost ziren preso egon zirenak (datu hauen barnean sartzen dut etxeko atxiloaldian izan zen Francisco Unzueta), hau da, zinegotzien % 38,46; Gipuzkoan %5 soilik zirelarik⁵⁹.

Bestetik, praktikoki pertsona berak iraun izanak, alde batetik erregimenari zioten leialtasuna eta bestetik kargu horien “boterean estratifikatzea” adierazten dute⁶⁰. Pentsa genezake halako “erregimenarekiko klase solidaritatea” aurretik gertatu izandako “prozesu iraultzailea” errepikatzearekiko beldurrak sortua izan zela, baina Beasainen ez zen Errepublikaren urteetan inongo prozesu iraultzailerik eman, lehen adierazi dugun moduan. Beraz, kasu honetan “boterea” edo “ospearen” inguruan sortutako elkartasun bat sortu zen Beasaingo koadro frankisten artean, praktikoki herriko “kapa pribilegiatu” berri bat osatu izan zutelarik.

Bai Udalaren, zein Gipuzkoako probintzia agintarien kolore politiko karlista oso markatua geratu zen 1938.eko ekainean, ekainaren 24an (Kristoren Bihotz Sakratuaren Eguna, Elizak ezarritako jaia), momentu horretan “altxatuen Estatuaren” jaiegun ofiziala ez zenean (dudarik gabe, falangisten presioagatik; izan ere falangistak ez zeuden erlijioari paper politiko handia ematearen alde), Beasainen eta Gipuzkoan

⁵⁷ DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: ““Hombres nuevos”...”, op. cit., 246-250. or.

⁵⁸ Ikus adibidez SANCHEZ RECIO, Glicerio: op. cit.; eta DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: ““Hombres nuevos”...”, op. cit., 2007.

⁵⁹ Hala ere, kontuan izan behar dugu Beasaingo eskuindar presoek kartzelaldia ez zela oso luzea izan. BARRUSO BARES, Pedro: “La Falange en la formación...”, op. cit., 73. or.

⁶⁰ Gipuzkoako beste toki batzuetan karlismoaren aldetik egon ziren nolabaiteko protestak.

4. kapitulua

jaiegun bezala markatzea⁶¹. Halako jaiegun bat markatzea, altxatuen arteko hegemonia-jokoan falangisten kontrako edo hauen aparteko posizioa markatzea izan zen.

Karlismoaren barruan, botere-gune garrantzitsu bi, erreketeen Loinazko San Martinen konpainia izan zen; izan ere, hemen borrokatu zuten pertsonak, eta batez ere agintaritzan zeudenek, Beasaingo karlismoaren barruan prestigio handia izan baitzuten. Nabarmenena 1938.eko bukaeratik aurrera tertzioko buru (kapitain) izan zen Epifanio Arguiñano.

Baina guda-garaian, tertzio hau herritik kanpo zegoen, eta orduan Beasainen bertan, ardura “militarrak” hartzen zituzten erakunde karlistak Laguntza-Erreketea), eta Guda Batzorde Karlista izan ziren. Lehenaren burua Santiago Muñoz zen, eta bigarrenaren burua Francisco Ezquiaga Beracoechea zinegotzia (1937.eko martxoan)⁶². Bestalde, erreketeen munduarekin lotuta, German Martin Olmedo aipatu behar dugu, “pelaioen” (ume karlisten) instruktorea zena⁶³. Alderdi Karlistari lortutako bete erakunde bat, Langileen Sindikatu Katolikoa zen, 1937.eko martxoan Abundio Montejok gidatua zena⁶⁴, baina sindikatu hau, laster Sindikatu Bertikalean bat eginda agertu zen. 1938.ean Sindikatu Bertikal horren prentsa eta propaganda idazkaria Beasainen Antonio Hernando Villahoz izan zen⁶⁵.

Sindikatu Bertikalaren lehen hauteskundeak, Beasainen 1944.ean egin ziren. Hauek izan ziren aukeratutako ordezkariak: Nekazarien Anaitasunaren aldetik (Beasainen Nekazari Katolikoaren Sindikatuko ohia hartu zuen Sindikatu Bertikalaren sekzio honek), sekzio ekonomikoan Jose Luis Garin zinegotzia izan zen bozkatuena, eta sekzio sozialean Joaquin Gaytan de Ayala⁶⁶. Metalaren arloan, sekzio ekonomikoan, “enpresa handien” (20 langile baino gehiagoko enpresen artean) ordezkari gisa Alberto Altolaguirre izan zen aukeratua, eta “enpresa txikien” ordezkari gisa Jesus Lasa. Sekzio sozialean, administratiboen azpiatalean Joaquin Carrion aukeratu zuten ordezkari, espezialisten azpiatalean Gregorio Lizarralde eta peoien azpiatalean Jose Elorza Carballo⁶⁷. Bestetik, Ostalaritza sekzioan Francisco Azcarate aukeratu zuten; zuraren

⁶¹ Beasaingo Udal Artxiboa. F008 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

⁶² Beasaingo Udal Artxiboa. 424D karpeta, 07 dokumentu-sorta.

⁶³ Beasaingo Udal Artxiboa. 424D karpeta, 07 dokumentu-sorta.

⁶⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 424D karpeta, 07 dokumentu-sorta.

⁶⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

⁶⁶ Zinegotzi bat eta lurjabe bat Sindikatu Bertikaleko Nekazarien arloko ordezkari izatea oso adierazgarria zen sindikatu honen izaeraren gainean.

⁶⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. A033 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

sekzioan Francisco Otaegui (azpiatal ekonomikoan), Guillermo Elorza eta Cristobal Echaide (azpiatal sozialean); “Iharduera Anitzen Sekzioan” Antonio Gorrochategui (azpiatal ekonomikoan), Mariano Lopez Martinez (azpiatal soziala, teknikoa), Angel Ugarte (azpiatal soziala, administratiboa), Eugenio Ugarte (azpiatal soziala, espezialista) eta Santiago Muñoz (azpiatala soziala, laneskua); ileapaindegien sekzioan Miguel Cia; eta merkatarien sekzioan Jose Urialde (azpiatal ekonomikoa), Angel Ugarte (azpiatal soziala, administratiboa), Joaquin Lopetegui (azpiatal soziala, espezialista) eta Jose Gaztañaga (azpiatal soziala, laneskua)⁶⁸.

Hala ere, kontutan izan behar dugu 1937.eko apiriletik aurrera, Franco jeneralaren aginduz, Alderdi Karlista (ofizialki, *Comunión Tradicionalista* deitzen zena), Falangerekin batu zela, *Falange Española Tradicionalista* alderdia sortuz (eta beraz, autonomia propioa galduz). Beasainen, Falangeko Tokiko Burua Miguel Cerrajería Tiffe zinegotzia zen, berez, guda aurretik falangista izan ez zena. Falangeak (alderdi bakar bihurtuak), bere botere esparrua ere eraiki nahi izan zuen, adibidez, 1938.eko apirilean, Gipuzkoako Falangeko propaganda buruak ehun kartel bidali zituen Beasaina, falangisten eta karlistan arteko alderdi-fusioaren urteurrena ospatzeko (fusio hori falangisten onurarakoa izan zen)⁶⁹. 1938.eko uztailean, FET-JONSeko beste karguen barruan, Beasaingo idazkari gisa Severiano Garijo Sesma (karlismotik zetorren gizon bat, bere anai Enrique erreketekin borrokan hil zen), administratzaile bezala Martin Aramburu (karlismotik zetorren beste pertsona bat), gazteriaren eta milizien arduradun gisa Jose Herrera, prentsa eta propagandaren arduradun gisa Antonio Hernando, zuzenbide eta justiziaren arduradun gisa Jose Veriztain (Udal-idazkaria), Sindikatu Bertikalaren arduradun gisa Miguel Cerrajería Tiffe bera, Emakumeen Sekzioaren buru Resurrección Urrestarazu (dokumentu honek “Elzoren alarguna” zekarren, baina 1938.eko ekaineko beste dokumentu bati esker badakigu nor zen Falangeren Emakumeen Sekzioaren buru zenaren izena⁷⁰), Erietxeen arduradun gisa Josefa Sagarminaga eta *Auxilio Social*⁷¹ delako sekzioaren buru gisa Blanca Salazar⁷². Horrez gain, 1938.eko ekaineko beste dokumentu batean, Falangeko Emakumeen

⁶⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. A033 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

⁶⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. F008 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

⁷⁰ 1938.eko ekaineko dokumentu honen signatura Beasaingo Udal Artxiboa. A034 karpeta, 07 dokumentu-sorta da.

⁷¹ *Auxilio Social* laguntza soziala kudeatzen zuen (batez ere Jantoki Sozialak) Falangearen sekzioa zen.

⁷² Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

Atalaren idazkari Maria Nieves Sierra zela eta diruzain Nicasia Sagarminaga zela dakar⁷³.

1938.eko abuztuan, Beasaingo Falangen aldaketa bat eman zen, abuztuaren 6an, Francisco Ezquiaga Falangeko buru izendatua izan baitzen⁷⁴. Ezquiaga, gudaren garaian Guda Batzorde Karlistaren buru izan zen, beraz, karlismoak praktikan ordurako Beasaingo instituzio denak kontrolatzen zituen (beste gauza bat da praktikoki karlismoa “goi-politika” mailan bere indarra galtzen edota “Estatua hegemonizatzeko ahalmena” galdu zuen lehen fakzioa izanik, Beasainen –eta Gipuzkoan- izan zuen kontrol hau politikoki ia irrelebantea izan zela, “gorako eraginik” gabea). Honek parte handi batetan azal dezake karlismotik zetozen gizonek urte luzeetan Beasaingo politikan nagusi izatea: Guridik 1941.ean kargua utzi zuenetik 1966.ean Pablo Hunolt erreketek ohiak utzi zuen arte, Beasaingo alkatea karlista bat zen, 1949 eta 1954. urteen arteko Miguel Cerrajeraren agintearen salbuespenarekin. Hurrengo urteetan, FET-JONSeko Tokiko Burutza gehiago aldatu zen, 1941.eko urrian Falangeko burua Francisco Unzueta zinegotzia (karlismotik zetorren beste gizon bat) baitzen⁷⁵, eta idazkaria, 1942.ean, Evaristo Herrera Gorrochategui⁷⁶. Beasainen Falange bera karlistek kontrolatu izana Gipuzkoan, lehen azaldu bezala, Falangek zuen botere faltaren adierazgarri dugu; baina oraindik horren adibide handiagoak topatu ahal ditugu, 1937.aren eta 1941.aren artean, Gipuzkoako FET-JONSen Probintzi Buru denak karlistak ziren, kasuren batean gainera Falangerekin bat egitearen kontrakoak izan zirenak. Dualitate hau 1941.eko maiatzean puskatu zuen, Gobernadore Zibila eta FET-JONSen Probintzia Burua pertsona bakarra izendatuz: Fermin Sanz Orrio falangista izan zen. Beraz kasu honetan, karlistak ere galtzaile atera ziren, honek erakusten du frankismoaren botere-bertikaltasuna, tokiko botere asko kontrolatzeak zer nolako eragin txikia zuen herrialdeko “goi politikan”⁷⁷.

Beste kargu garrantzitsu bat, Falangeko Informazio Zerbitzuko buruarena zen, honek Alderdiarentzat bai zinegotzien eta kargu publikoen inguruko (hauek benetan “erregimenaren aldekoak” ote ziren egiaztatzen edo leialtasun maila neurtzen zutena)

⁷³ Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 59 dokumentu-sorta.

⁷⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

⁷⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 09 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 2362 karpeta, 05 dokumentu-sorta.

⁷⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 2362 karpeta, 05 dokumentu-sorta.

⁷⁷ CALVO VICENTE, Candida: “Los gobernadores civiles en Guipúzcoa durante el primer franquismo” in TUSELL, Javier; SUEIRO, Susana; MARIN, Jose Maria; eta CASANOVA, Marina: *El régimen de Franco (1936-1975)*, I. lib. (Nazioarteko Kongresuaren aktak, Madril, 1993.eko maiatza) (19-27 or.). UNED. Madril, 1993, 21-22. or.

edo herritarren inguruko informazioa biltzen zuten. Goierrin, 1940.eko urrian FET-JONSen Informazio Zerbitzuaren arduraduna Eduardo Egaña Garicano zen⁷⁸.

Horrez gain, Falangearen milizietako eskuadren buruen artean, 1939.ean, honako hauek aurkitzen ditugu: Ernesto Poignon, Miguel Garin, Gregorio Cerrajería, Nicolas Ondarrestu, Emilio Poignon, Jose Herrera, Manuel Iturrioz, Eduardo Cortijo, Victor Saez, Inocencio Agurre, Felipe Casasempere eta Juan Otalora⁷⁹. Ikusten dugun moduan, hauetako batzuk 1934-1936 arteko Udal “errepublikano” eskuindarraren parte izan ziren, adibidez,. Beste batzuk, eskuindar familia ezagunetako kide ziren. Horra beraz, Beasaingo kasuan, Guda Zibilaren aurreko elite kontserbakorren eta Falangearen arteko jarraikortasun bat nahiko argi azaltzen zaigu. Hau ez zen kasu isolatu bat, kontutan izan behar baitugu Falange alderdia berez oso ahula izan zela eta ez zuela bere kabuz Estatua hegemoniatzeko indarririk. Antonio Cazorlak esaten digun moduan, “alderdi berrian sartutakoak, kasu askotan, edo politikan berriak ziren, edo antzineko kontserbakorrek eta jauntxoak izan ziren”; hau da, euren boterea finkatzeko tresna berri gisa alderdi bakarria hartu zutenak⁸⁰.

Falangeak bazuen baita era gazteen erakunde bat “Geziak” (*Flechas*, gazteleraz), umeei instrukzio paramilitarra ematen ziena. Umeei eta gazteek alkandora urdinarekin instrukzio paramilitarrak egin behar izaten zituzten; hau ia-derrigorrezkoa zelarrik⁸¹. Patxi Lasa Imazen arabera “bertara ez bazihoazen, eraman egiten zintuzten”, eta bere arabera, Eskola Nazionaleko irakasleek bertan politikako klaseak ematen zituzten⁸². Eleuterio Aiestaren arabera, eskolan bertan “laguntzen” zuten “Gezietan” izena ematen: “eskolan, Falangearen uniformeak, alkandora urdina eta korreaia ematen ziguten”⁸³. Anselmo Ruizek ere gogoratzen du halako instrukzio paramilitarra egin behar izan hori: “Behin Azpeitira eraman gintuzten, eta beste behin Arrasatera”⁸⁴.

Udal-epaitegian, Udaleko bake-epailea Alberto Sorondo zen (Errepublikara garaietan, Victor Bernedo alkate ohi sozialistaren fabrikaren errepresentantea izan zena), eta

⁷⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 424B karpeta, 16 dokumentu-sorta.

⁷⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 3186 karpeta, 61 dokumentu-sorta. Iturria Udalak CAFi bidalitako dokumentu bat da, non pertsona hauek lanera ez agertzeko arrazoia, hain zuzen milizien eskuadren buru izatea, justifikatzen zuen.

⁸⁰ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 97. or.

⁸¹ Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁸² Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁸³ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

⁸⁴ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

4. kapitulua

honen idazkaria, Juan Maria Barrenak errepresioa zela eta postua uztera behartua izan ondoren, David Perez⁸⁵. Udal fiskala Francisco Azcarate zen⁸⁶. Bestetik, Udaltzaingoaren buru Melchor Garcia zen⁸⁷.

Udalaren gaintik, Beasainen bazegoen baita Beasaingo komandante militarra, esan bezala, ordena publikoaren gainean garrantzia handia zuen pertsona izan zela. Pertsona hau, guda osteko lehen urteetan, Alberto Ruiz Moriones izan zen. Komandante militarrek Nafarroa Etorbideko 31. zenbakian hartu zuen aterpe, bigarren solairuan. Etxe horren altzariteria Udalak ordaindu zuen, alkateak 1938.eko apirilaren 23an sinatu zuen dokumentu baten arabera⁸⁸. Joxe Manuel Azurmendi arabera (gogora dezagun Udalean lan egiten zuela pertsona honek, idazkaritza-laguntzaile bezala), pertsona honen boterea izugarria zen: “Militarrek alkateak baino gehiago agintzen zuten garain hartan”⁸⁹.

Udalaren arabera funtzionatzen zuen beste botere-gune “Informal” baina oso eraginkor bat, batez ere gose garaietan, Alondegia zen. 1938.eko uztailean, alondegiaren arduraduna Francisco Elzo Urrestarazu izan zen⁹⁰.

Azkenik, botere-egitura “paralelo” bezala, Usurbe Elkarte dugu, Elkarte pribatua zena, baina herrian jende boteretsu asko batzen zuena. 1940.ean elkarte honek 35 kide zituen,⁹¹. Aitor Garmendiaren ustetan, “Han Udaletxeko jendea biltzen zen, eragin handia zuen erakunde hark”⁹². 1940.ean, Usurbe elkarteko lehendakari Pedro Arana Gaiztarro alkateordea izan zen, eta lehendakari ordea Pedro Azarola Gorrochategui ezkertiar zinegotzi ohia, idazkaria Martin Aramburu (baina ez Udaleko arbitrioen laguntzaile Martin Aramburu Urteaga, Jose Aramburu zinegotziaren anai Martin Aramburu Aramburu baino), diruzaina Juan Martinez, eta bokalak Miguel Cerrajería zinegotzi ohia eta Gregorio Lasa Altuna ezkerreko zinegotzi ohia. Pedro Aranaren heriotzaren ondoren, lehendakari postua Pedro Azarolak hartu zuen (1941.eko maiatzaren 1eko dokumentu batean agertzen da hau)⁹³. Beste bazkideen artean, Udalean zebiltzan pertsona asko aurkitzen ditugu, adibidez Jose Luis Guridi alkatea, Jose

⁸⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

⁸⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

⁸⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

⁸⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 58 dokumentu-sorta.

⁸⁹ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

⁹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

⁹¹ Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 3405 karpeta, 045 espedientea.

⁹² Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁹³ Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 3405 karpeta, 045 espedientea.

Aramburu, German Zaballos eta Restituto Urteaga zinegotziak, Leonardo Zunzunegui enpresaria eta lursailen jabea, Serafin Arana enpresaria eta zinegotzi ohia, Juan Iguain kontratista, Francisco Otaegui suhiltzaileen burua edo Feliciano Arizmendi sobrestantea.

Baina ikusten dugun bezala, ezkerreko pertsonak ere egon ziren elkarte horretan, eta horietako bi direktiban. Hau azaltzeko bi faktore ulertu behar ditugu, alde batetik, klase-elkarte bat izatean (ideologikoa baino gehiago; hots, erdi-mailako jendea bereganatzea helburu duen elkarte bat da), eta bestetik, 1931-1936ean ezkerrekoak izan ziren alderdi batzuetako, oro har, erdi-mailako klaseetan indarra zuten alderdi batzuetako (alderdi errepublikanoetako) pertsona batzuek, euren klase identitateagatik erregimen berrira moldatzeko modua ikusi zutela⁹⁴. Adibidez, Falangeren Informazio Zerbitzuaren Gipuzkoako ordezkariak 1941.eko urrian Gregorio Lasa Altunaz eginiko informean “(Guda Zibilean) aktuziorik izan ez zuela zioen” eta Pedro Azarola Gorrochateguiz “aurretik eskuindarra izan zela eta orain FET-JONSeko kide erantsia” dela⁹⁵. Beste hiru kideez, Martin Aramburuz “FET-JONSeko kidea da” esaten zen, Juan Martinez Perezek berdina eta gainera “iritzi ona dugula”, eta Miguel Cerrajeriaz hori bera⁹⁶. Haatik, sozialki, pixkanaka, gudako lehen urtean pasatuta, elkarte zabalduz joan zen, adibidez Aitor Garmendia Goitia bera sartu zen: “Ni izan nintzen, ingeniari edo mediku edo hala izan gabe sartu zen lehenetakoa”, beraz, elkartearen baitan nolabaiteko klase zabalkundea eman zela ondorioztatzen dugu. Garmendiaren arabera “ni Udaleko zinegotzi izan zen bati esker, Jose Arambururi esker sartu nintzen. Oso pertsona ona zen hori”⁹⁷.

Herriko elkarte guztiak, hemendik aurrera erregimenaren aldekoek kontrolatuta, edo behintzat, erregimenaren kontra ez zegoen jendeak kontrolatuta izan ziren. Adibidez, Herri Elkarte Kooperatiboan (2. kapituluan esan nezala, kontsumo-kooperatiba baten antzekoa zen), eskuineko pertsonak hartu zuten zuzendaritza.

⁹⁴ Esan beharra dago, eskuineko errepublikanoak, oro har, Francoren alde jarri zirela Herri Frontearen aurrean, kasu honetan klase-interesaren lehenespena ematen delarik: 1934-1935 artean Gobernuko presidente izan zen Alejandro Lerrouxen eta bere alderdiko, Alderdi Errepublikano Erradikaleko kide askoren jarrera dugu. Beasainera ekarriz, Miguel Cerrajeriararen kasua dugu, hasiera batean errepublikanoa zena (eskuineko Udalaren parte izan zen 1934 eta 1936 artean), eta are Arana Gaiztrro anaia (Serafin Arana 1931.ean ezkerreko kide bezala aurkeztu zen Udal-hauteskundeetara postua irabazi zuelarik; Pedro Arana Gaiztrro 1920 eta 1922 artean alkate izan zen “Liberalen eta errepublikanoen” arteko koalizio baten partetik, gero Udal frankistako zinegotzi izan zen).

⁹⁵ Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 3405 karpeta, 045 espedientea.

⁹⁶ Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 3405 karpeta, 045 espedientea.

⁹⁷ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

4. kapitulua

1939.eko martxoaren lehen eginiko batzarrean aukeratutako zuzendaritza-batzan; lehendakari bezala Cruz Arizmendi, lehendakari orde gisa Florencio Arguiñano, kontatzaile bezala Cruz Gomez, idazkari moduan Jose Maria Churruca, Ordiziako ordezkari moduan Jose Aristrain eta Galo Huguet, Beasaingo ordezkari moduan Marcial Aguirre eta Pascual Lopez, Lazkaoko ordezkari moduan Leandro Larrañaga eta Felix Gonzalez, Ataungo ordezkari moduan Eugenio Zaldua eta Ormaiztegiko ordezkari moduan Juan Baztarrica zeuden⁹⁸. Loinaz abesbatzan ere eskuindarrak izan ziren nagusi, adibidez, 1942.eko urrian bere lehendakari gisa Inocencio Aguirre Pagola aurkitzen dugu, 1934 eta 1936 arteko Udal eskuindarreko zinegotzia izan zena⁹⁹.

4.3.a) Jose Luis Guridiren alkate-aldia

Jose Luis Guridi 1936.eko uztailaren 29tik 1941.eko otsaila arte egon zen alkate postuan, guda osteko lehen urteetan. Gudaren osteko lehen urteak batez ere goseak eta estraperloak markatutako urtean izan ziren. Honez gain, kontutan izan behar dugu 1937.eko uztailaren 7tik aurrera Gipuzkoak (eta Bizkaiak) bere Hitzarmen Ekonomikoa, eta beraz, bere zergak biltzeko gaitasuna galdu zuela, Estatua are gehiago zentralizatuz¹⁰⁰.

Guridiren alkatetzan, kontuan izan behar da kasu batzuetan zinegotziek eurek ere apatia handia erakusten zutela plenoetara agertzeko orduan. Adibidez, 1938.eko urtarrilaren 8rako Osoko bilkurara soilik Guridi alkatea eta Eusebio Asla zinegotzia aurkeztu ziren¹⁰¹. Urtarrilaren 22ko Udal-Bilkuran soilik hiru zinegotzi egon ziren: aipatutako biak eta Martin Esnaola¹⁰². Hurrengo plenoetan asistentziak gora egin bazuen ere, asko jota sei edo zazpi zinegotzi artean biltzen ziren, gutxi-gora-behera Udal-taldea osatzen zutenen erdiak¹⁰³. 1940.eko uztailaren 11n, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Beasaingo Udalean zinegotzi gehiegi zeudela eta, Restituto Urteaga Otegui, Martin Esnaola EliceGUI eta Jose Mendia Lasa Udaletik kanpo uztea erabaki zuen, “euren lanerako gogoa” eskertu ondoren¹⁰⁴. Hori hala izanik, uztailaren 11ko Udal-bilkuran, Udal Komisio batzuen aldaketa erabaki zuen Udalak, kargurik gabe geratu ziren hiruren postuak betetzeko. 1940.eko uztailaren 11tik aurrera, Ogasun Komisioa Guridi alkatea,

⁹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 254 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

⁹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

¹⁰⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 12 dokumentu-sorta.

¹⁰¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

¹⁰² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

¹⁰³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

¹⁰⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

Francisco Unzuetak eta German Zaballosek osatu zuten; Azpiegitura eta Uren Komisiao Francisco Unzueta, Francisco Ezquiaga eta Jose Luis Garinek; eta Horniketa eta Azokena Miguel Cerrajeriak, Jose Luis Garinek eta German Zaballosek¹⁰⁵. Bestetik, 1940.eko irail eta urrian, Jose Luis Guridi alkatea eszedentzian egon zen. Agian horixe, alkatetzatik kanpoko lana, izan zen, 1941.ean kargua uzteko arrazoia¹⁰⁶.

1936.eko bukaerako egoera dramatikoak 1937.ean jarraitu egin zuen. Are gehiago, Udalak laguntza gehiago ematea zaila ikusi zuen “baliabiderik ez zuela eta”, urtarrilaren 28an aitortu zuen bezala. Hori zela eta, “Benefizentziako Behin-Behineko Batzorde” bat sortu behar izan zuen Udalak¹⁰⁷. Hala ere, Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren iniziatibaz, Beasaingo erakunde karlistak eta falangistak “plater bakarraren aldeko bilketa” egin behar izan zuten, gosearen aurkako neurri bezala. Beasaingo Udalak, Gobernadoreak ezarri zuen “plater bakarra” biltzeko zailtasunak ere ikusi izan zituen, urtarrilaren 28ko Udala-Bilkuran esan bezala¹⁰⁸ (Rosario Larreak gogoratzen du: “garai horietan plazan jana ematen ziguten eta umezurtzoi (bere aita Juan Andres Otaegi altxatuek, Beasaina sartzerakoan hil egin zuten) esne botila bat baita”¹⁰⁹). Hala ere, 1937.eko otsailaren 18an Beasaingo Udalak Malagako gosea arintzeko sei patata-zaku eta babarrun-zaku bat bidaltzea erabaki zuen¹¹⁰. Otsailaren 25ean erabaki hori berretsi egin zen. Baina beste alde batetik, Beasaingo Udala, parte handi batean beste pertsonen karitatearen menpe zegoen, adibidez, uztailaren 25ean, Amurrioko Markesak, Beasaingo Umeen Jantoki Soziala bisitatu ondoren, umeentzako 200 bota pare ematea erabaki zuen¹¹¹. Irailaren 11n, Beasaingo *Auxilio Social* taldeko arduradunak jada ohartarazi zuen Beasaingo jantoki sozialen egoera oso txarra zela eta Udalak inplikazio gehiago jarri behar zuela¹¹². Beraz oso zaila da halako egoeran, Beasainen gosea pasatzen ari zenekoan, bildutakoaren parte bat beste hiri batetara bidaltzea; baina kontuan izanik orduan Beasain armadaren okupaziopean zegoela (eta Malagaren konkista, sarraskiz bada ere, altxatuentzat oso garrantzitsua izan zen); erabaki horren

¹⁰⁵ Beasaingo Udala Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

¹⁰⁶ Beasaingo Udala Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

¹⁰⁷ Beasaingo Udala Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹⁰⁸ Beasaingo Udala Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹⁰⁹ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreak egindako elkarrizketa. Beasain, 2012-IV-14.

¹¹⁰ Beasaingo Udala Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta. Apirilaren 22an Beasaingo Udalak jakinarazi zuen Malagako alkatearen esker oneko telegrama bat jaso zutela.

¹¹¹ Beasaingo Udala Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹¹² Beasaingo Udala Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

atzean Udalez arrazoi politikoa zegoela ondorioztatu behar dugu, agian Beasaingo Udaletik kanpoko erakundeek (Armadak akaso?) hartutako erabaki bat izan zen.

Guridiren garaian, 1936.eko abenduaren 18an, Udal-kartzelan zeuden preso ez beasaindarren mantenimendua Komandantziaren esku uztea adostu izan zen¹¹³. Hala ere, Armadak Beasaingo Udalari, “Beasain askatzearen” kostuen fakturaren barne pasarazi zion “presoak mantentzearen gastua”, 1938.eko abendua arte 10.498 pezetakoa izan zena¹¹⁴.

Udalak hartutako erabakien artean hurrengoa nabarmendu nahi dugu: Antonio Aguirre arkitektoari (ez zen Udal-arkitektoa, arkitekto pribatu bat baizik, garai horietan Beasainek ez zuen udal-arkitekturik) eskatu zion Kale Nagusiko 23. eta 25. zenbakidun etxeak (Katarain familiarena bata, eta Jose Vicente Iraola alkate ohiarena bestea) bota eta berregiteko txostena egin zezan. Noski, Udalak ez zuen esaten zergatik etxe horiek suntsituak izan ziren jakin badakigu guda zibilean suntsituak izan zirela: tropa frankisten bonbaketak direla eta hain zuzen¹¹⁵. Otsailaren 11n, Udaleko Bilkuran irakurri zen Katarain alde zegoela baldin eta lanaren kostua Udalak hartzen baldin bazuen¹¹⁶. Iraolaren etxea, ordea, 1940.eko urrian oraindik erreformatu gabe zegoen, izan ere, 1940.eko urriaren 14ko Osoko Bilkuran Zaballos zinegotziak esan zuen “erreta zegoen formagatik, bertatik pasatzen zirenentzat arriskutsua izan daitekeela”¹¹⁷. 1940.eko urriaren 26an, Udalak, sobrestanteari, Iraolari bere etxeko hesia botatzeko agindua eman ziezaion agintzea adostu zuen¹¹⁸. Arazo honek are gehiago jarraitu zuen, 1941.eko martxoan (jada alkatea Martin Esnaola zela), Udalak, bilkura batean, Francisco Unzuetaen proposamenez, Iraolari etxe horretako balkoiak botatzea agindu zion, antza denez, Iraolak ez zuen bere etxean erreformak egiteko modurik. Udal-bilkurak erabaki zuenez, Iraolak hamabost egunetan balkoi horiek botatzen ez bazituen, Udalak botako zituen eta obraren kostua ordainaraziko zion Iraolari¹¹⁹. Oso egoera larria eta mingarria zen, Udalak ez baitzuen aitortzen eurak jarritako tropek puskatu zutela etxe hori eta momentu horietan kaletik zebiltzanentzako arriskua ziren kalteak eragin

¹¹³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹¹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. A034 karpeta, 07 dokumentu-sorta.

¹¹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta; eta IRAOLA, Jose Vicente: “Informe de Jose Vicente Iraola” in BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi* (351-353. or.). Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005, 351. or.

¹¹⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹¹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

¹¹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

¹¹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

zituztela. 1940.eko azaroaren 16an, Kale Nagusiko 25. zenbakian, Jose Maria Gorrochategui izeneko herritar batek “etxe bate egiteko baimena eskatu” zuela jakinarazten du Udalak “aurrekoa sute batean suntsitu zen eta” (sute hori ez da 1936.eko uztailaren 27an bonbaketa frankistek eragindakoa baino)¹²⁰. Etxe hauek tropa frankistek hautsi zituztela lehen aldiz Francisco Unzueta zinegotziak onartu zuen 1942.eko ekainaren 19ko bilkuran (jada Martin Esnaola alkate zela), baina zeharka aipatu ere: “indar nazional loriatsuak herrian sartzerakoan, sute baten ondorioen *hiru etxe suntsitu ziren* (aditz inperzonalean arreta jarri) (...) horietako bat berreraikia dago (Gorrochateguirena ziurrenik), beste biak, Catarainena eta Iraolarena “eraiki gabe daude, berriz eraikitzeko esan bazaie ere”¹²¹.

Elizari dagokionez, Florencio Aspe apaizak Udalari luzatu zion moduan (eta Udalak 1937.eko otsailaren 11ko Osoko Bilkuran jakinarazi bezala), “Udalak eta elizak aurreko urteetan puskatutako harremana” berreskuratzea erabaki zuten. Hala, Udalaren Arangoitiko Erietxearentzat 200 pezeta eman zituen Florencio Aspek¹²². Asperen eta Udalaren frankistaren arteko harremana oso estua izan zen. Apirilaren 16an jakin zenez, Florencio Aspe Beasaingo apaizak Miguel Conde Armadaren apaizari Udalaren izenean mila pezeta eman zizkion¹²³. Orduan hori diru handia zen; eta honek ulertzera ematen du Asperen eta Udal-agintari berrien arteko sintonia erabatekoa zela. Are gehiago 1938.eko urtarrilaren 22an, Martin Esnaola zinegotziaren proposamenez, Udalak, mila pezeta hauek “gudako gastu” gisa sartzearabaki zuenean¹²⁴. Gainera, 1939.eko azaroaren 4ko Udal-bilkuran, Udalak, Asperen inizatibaz, Benefizentzia Etxerako beste apaiz bat ekartzeko dirua (urteko 1.500 pezeta) jartzea onartu zuen¹²⁵. 1941.eko otsailaren 22an, Udalak, Elizari 1.000 pezetako subentzio bat eman zion, lanak egin zituztan¹²⁶. Urte horretako irailean (jada alkate Martin Esnaola zela), Beasaingo Udalak Loinazko San Martin jaio zen etxea konpontzeko 2.000 pezeta eman zituen¹²⁷.

Florencio Aspek, aurreko kapituluan esan bezala, guda ostean Eliza erregimen berriarekin lerroka zezan egin zuen lana. Guda osteko urteetako Eliza ideologikoki oso markatua egon zen. Aspek, behin sermoi batean ihes egin zutenengatik “Joan dira, ez

¹²⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

¹²¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

¹²² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹²³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹²⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

¹²⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

¹²⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

¹²⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

dira itzuliko!” (“¡Ya se fueron no volverán!”) esan omen zuen¹²⁸. Beste batean, ordea, “*Satalinen* (sic; Stalinen) ikasleak” (“Discípulos de *Satalín*”) deitu omen zien Francoren kontra ari zirenei¹²⁹. Asperen eta herriaren parte baten arteko harremanak oso tentsioak izaten omen ziren, izan ere, erregimenaren aurkakoak (bai kartzeletatik edo langile batailoietatik itzultzen ziren asko) mezatara joan behar zirenean Lazkaoko beneditarren komentura edo Ezkiaga auzoko parrokira joaten ziren meza entzutera¹³⁰. Halako bat Bernabe Aierdi Beobide jeltzalea zen, bere iloba Ane Barandiaranek esaten deunaren arabera¹³¹. Kontuan izan behar da II Errepublikaran garaian, Aierdi Beobide Elizarekiko oso gertuko pertsona zela, batz-besteko jeltzalea baino gehiago, eta Florencio Aspe behin baino gehiagotan defenditu zuela (berak insistitu zuen batzokiaren bedeinkapena Aspek egin zezan, Alfontso Ibaibarriagak Lazkaoko beneditarrak ekarri nahi zituenen)¹³². Honek erakusten du zenbaterainokoa izan zen Elizak Beasaingo sinesleen sektore handi baten artean zabaldu zuen zanga. Hala ere, hori ez zen soilik Beasainen Asperekin gertatzen, Ordizian ere antzeko zerbait gertatzen zen, Jabier Garcia Bergararen arabera: “guda ostean jende askok mezara joateari utzi egin zion; esaterako, nire Ordiziako familiak, gure aitak eta bere anaiek”¹³³. Jose Maria San Martinek ere bere aitak “Elizara joateari utzi” ziola kontatzen digu, ez baitzuten bere anaia (Saturnino San Martin) hiltzerik barkatu¹³⁴. Elizaren era sinesleen arteko banaketa horren berri ematen digu adibidez, Aitor Garmendiak: “Elizan denetako jendea zegoen, baina batzuen aurren hitz egiteko beldur pixka bat bagenuen”¹³⁵. Garai artako Elizak ere kontserbakortasunera bira egin zuen: Jose Maria Bujandaren arabera “garai haietan, neskak alde batera eta mutilak bestera jarri arazten gintuzten”¹³⁶.

Elizaren presentzia asko handitu zen Beasainen urte horietan, Jesus Lopez Gallegok (zeina ezkerreko familia batetik datorren) nahiko testigantza argigarria ematen digu horretaz: “Erlijioa oso present zegoen gudaren ondoren. Gure familia, erlijiosoa izan gabe, igandero mezatara joaten zen, eta baita prozesioetara eta abarrera”¹³⁷. Juan

¹²⁸ Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6.

¹²⁹ Paulino Aranbururi eskertzen diot datu hau. Testigantza hau ez dago grabatuta.

¹³⁰ Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6; eta Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12.

¹³¹ Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12.

¹³² Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

¹³³ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

¹³⁴ Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

¹³⁵ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

¹³⁶ Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14.

¹³⁷ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

Ramon Imazek ere esaten digu “garai haietan Elizara joaten behartzen zutela”¹³⁸. Jose Maria San Martinek, zeinen aitak Elizara joateari utzi zion, semea (bera) behartzen omen zuen, honek erakusten du zer nolako giro-presioa zegoen: “nik ez nuen ulertzen aitak zergatik behartzen ninduen ni, bera ez bazihoan. Berak zioen ez zuela barkatzen bere anaia hil izana”¹³⁹. Guda Zibila kanpoan egin zutenentzat nahiko harrigarria zen hori, honela kontatzen digu urteak Sobietar Batasunean eman zituen Rosa Larrañagak: “Gu han (SESBN), marxismo-leninismoan, ateismoan hezi gintuzten. Hona bueltatzerakoan (1956an) zenbait gauzek atentzioa deitu ziguten, meztara joan behar horrek, adibidez”¹⁴⁰.

Beasaingo Udalak, 1937.eko apirilaren 10ean, 1936an urte horretarako aurkeztu zuen aurrekontua emendatzea erabaki zuen, 214.875, 50 pezetatan utziz¹⁴¹. Hala ere, Udala ez zegoen herritarrak baino askoz hobeto, diruz nahiko estu baitzebilen. 1938.eko martxoaren 12an Francisco Unzueta zinegotziak, Udal-zorra murrizteko, %5eko interesean jaulkitako bonoen interesak %4ra jaisteko kudeaketa egiten hasia proposatzen zuen. Hala ere, Miguel Cerrajeriak esan zuen “aurretik” (hau da, 1934-1936 urteen arteko Manuel Perezen alkate-aldian), halako kudeaketa bat egiten saiatu zela Udala, eta ezin zuela egin, eta zailago ikusten zuela “orain” (1938.ean), bi sei hilabeteko abonoen ordainketa atzeratua baitzuen¹⁴². 1938.eko martxoaren 24ko Udal-Bilkuran, Francisco Unzueta zinegotziak jakin arazi zuen Aurrezki Kutxako zuzendariarekin egon zela zorra kitatzeko formulez hitz egiten. Kudeaketa horren ostean, Beasaingo Udalak, 37.500 pezetako kreditu berri bat eskatu zuen. Jose Veriztain Zubiagak martxoaren 25ean sinatu zuen dokumentu baten arabera, Udalek Gipuzkoako Aurrezki Kutxari Udal eskatzailearen seirena halako kopurua eskatu ahal zuten kreditutan. Veriztainen arabera, 37.500 pezetek ez zuten aurrekontuaren seirena egiten¹⁴³. 1938.eko uztailaren 30ean sinatutako memoria baten arabera, Beasaingo Udalak 945.000 pezetako zorra zuela esan zuen, denak Aurrezki Kutxaren kredituetatik edo obligazioetatik zetozelarik (ez funtzionarioekiko obligazioekin). Beasaingo Udalak oso modu baikorrean ikusten zuen bere egoera, memoria horretan aurrekontua betetzen ari zela “beti parean geratuz, edo superabit txiki batekin”, eta “egoera guztiz lasaia ez bada ere, ordainketak hilean egiten

¹³⁸ Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

¹³⁹ Jose Maria San Martin Osinalderi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

¹⁴⁰ Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-V-26an.

¹⁴¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹⁴² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

¹⁴³ Beasaingo Udal Artxiboa. F008 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

direla” esaten baitzuen. Bestetik, zerbitzu guztiak egoera onean zeudela esaten zuen, oso modu baikorrean, ikusi dugun bezala Beasainen populazioaren parte handi bat gosea pairatzen baitzegoen¹⁴⁴. Kreditu hauengatik 1939.eraiko aurrekontua hazi egin zen, 1939.eko urtarrilaren 19an Udal-Bilkurak jakinarazi zuen bezala, 280.852,54 pezetako aurrekontu batera (ordura arteko handiena)¹⁴⁵.

Baina ikusi dugun moduan, Beasaingo egoera ekonomikoa ez zen aipatutako 1938.eko uztailaren 30eko memoria horrek zioen bezain baikorra. Alde batetik, kontutan izan behar dugu Beasainen zegoen gose egoeran, jantoki sozialetako zerbitzuan CAFek nahiko laguntza ematen zuela. Bestetik, CAFek berak, 1939.eko otsailaren 14an, 1939.eko aurrekontua emendatzen lagundu zion Beasaingo Udalari; 25.000 pezeta emanez, eta “beharko balitz” 35.000 pezetara iristeko konpromezua hartuz (eta 1939.eko abenduan ordainduko zizkion beste 10.000 pezeta horiek CAFek Udalari)¹⁴⁶. Hauxe, Beasaingo Udalak eta CAFek, Udalaren krisia “industriaren krisiak eragin zuela” arrazoituz justifikatu zuten. Hala ere, hurrengo urteetan CAFek ere Beasaingo udalaren aurrekontuak emendatu zituen, 1942.ean, adibidez, 8.750 pezeta ordaindu zizkion¹⁴⁷.

Garai horietan langileen soldatek, erlatiboki behera egin zuten. Prezioen gorakadarekin konparatuz, soldatak bere hartan izoztu ziren eta (gainera Adar bakoitzeko Sindikatu Bertikalak erabakitzen zuen soldatak noiz igo, enpresa jakin batean ezinezkoa zen soldatak igotzea –hori dela eta enpresa askok “gehigarrien” bidez konpentsatzea erabaki zuten). Beasaingo kasuan, gainera, CAFek gainera zailtasunak izaten zituen ordaintzeko, 1937.eko maiatzaren 8an Udalari esan zion zaila zitzaiola asteko lana larunbatetan ordaintzea, hurrengo asteartean ordaindu behar izan zuelarik (udalak aurretik, 1937.eko apirilaren 19an eskatu zion CAFi ordainketak berriz larunbatean egin zituzan¹⁴⁸). CAFek, apirilaren 23an Udalari eskatu zion banketxeen aurrean bitartekaritza lana egin zezan, CAFi kredituak errazteko eta hala soldatak

¹⁴⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 13 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 43 dokumentua.

¹⁴⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta. Aurrekontu honen goraldian, zerikusi txiki bat izan zuen Serafin Arana zinegotzi ohiak Udalari egin zion donazioak, gudan hil zen bere seme Gonzaloren 2.500 bat pezeta eman baitzizkion Udalari 1938.eko urrian. Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

¹⁴⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. A086 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹⁴⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. A086 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹⁴⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 2941 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

larunbatetan ordaindu zezaketen (CAFen zuzendaritzak banketxeak jarri zituzten oztopo nagusi moduan)¹⁴⁹.

Izan ere, orduan soldatak erabakitzeko modua askozaz ere hierarkikoagoa zen. Soldatak Adar Bakoitzeko Sindikatu Bertikalak erabakitzen zituen, eta hau enpresariak kontrolatua zegoen (legaren arabera, soldaten gaineko eskuduntza Lan Ministerioaren esku zegoen). Errepublika garaian jarritako langileen defentsarako tresnak, adibidez “arartekaritza mistoak” desagertu egin ziren, eta jada, dena, Estatuaren Lan Ministeritzaren eta honen pean zegoen Sindikatu Bertikalaren bidez kontrolatua izan zen¹⁵⁰. Glicerio Sanchez Recio ikerlariaren arabera, “erregimenaren helburuetako bat ez zen soilik II Errepublikaren aurreko egoerara itzultzea, baizik eta aurreko hamarkadara, non langileen eskubideak oso murriztuak zeuden”¹⁵¹. Beraz, fabrika bakoitzeko lan-errebindikazioetarako bidea erabat moztua ageri zen: Gipuzkoako Sindikatu Bertikalaren lehen zirkularrak esaten zuen bezala “bukatu da klase-borroka (...) langileak eta ugazabak elkar tiranizatzen zebiltzan aroa (...) langileek eta ugazabek euren artean produkzio nazionalaren obra eraikitzen kolaboratu behar dute” (beraz, klase-borrokan, langileak eta ugazabak, klase-borrokan biak indar-posizio parekideetatik abiatuko balira eta biek botere eta ardura bera izango bazuten bezala hitz egiten du Sindikatu Bertikalak)¹⁵². Sindikatu Bertikalak berak esan zuen bere asmoa “lan arloan diziplina ezartzea” zela. Langileek zuren interlokuziorako bide bakarra, 1944.ean (Sindikatu Bertikalean kideztza derrigorrezkoa egin eta bi urte beranduago) sortu zen “Bitartekari Sindikalarena” (*Enlace Sindical*) izan zen. Honez gain, kontutan hartu behar dugu askotan Sindikatu Bertikalak langileen kaleratzea errazten zuela, adibidez, 1938.ean enpresariei “askapen-datatik” (hots, Francoren armaden konkista datatik), plantilan zeuden “zigortzeko moduko langileen” zerrenda pasatzeko hiru hilabete ematen zituela komunikatu zuen¹⁵³.

Sistema erabat hierarkiko honetan, pentsatzekoa da Sindikatu Bertikalak zuen erabakimena handia zela, askotan Gobernuaren erabakien bozeramaile baitzen. Honen adibide dugu gure eskualdean gertatutakoa; Beasainen eta Goierriren kasuan,

¹⁴⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 2941 karpeta, 21 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹⁵⁰ MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?” in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak), Zaragoza, 2001.

¹⁵¹ SANCHEZ RECIO, Glicerio: op. cit., 131. or.

¹⁵² Beasaingo Udal Artxiboa. 2367 karpeta, 07 dokumentu-sorta.

¹⁵³ MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales...”, op. cit.

4. kapitulua

garrantzizkoa izan zen Sindikatu Bertikalaren adar siderometalurgikoak erabakitakoa: 20 bat kilometro inguruan, enpresa siderometalurgiko handieneko soldatak zonalde horretako enpresa txikiagoetarako erreferentzia izatea¹⁵⁴. CAFek, 1939.ean 1.400 langile zituen¹⁵⁵. Hala ere, Beasaingo Sindikatu Bertikala ez zegoen ados Gipuzkoako Sindikatu Bertikalak ezarritako soldaten irizpideekin, Udalak Gipuzkoako Sindikatu Bertikalari 1939.eko urtarrilaren 5ean bidali zion gutun batean Udalaren arrazoen artean, Beasain “industrialdu” gisa jotzerakoan, industria berriak Beasainen jartzea (Ordiziaren mesedetan) zaildu egingo zuela Gipuzkoako Sindikatu Bertikalak erabilitako lan-banaketaren irizpideak¹⁵⁶. Ikusten dugun bezala, erregimen berriaren hierarkizazioa erabatekoa zen, baita ere lan arloan.

Emaitza, langileen baldintzaren inguruko okertze bat izan zen, bai soldatarekiko, zein ikusi dugun bezala, lantegi barruko ahalduntzearekiko, zein lan-baldintzekiko. Azken honen inguruan, erregimenak 48 orduko lan-astearen itzulera ekarri zuen¹⁵⁷.

Soldatekiko, Francoren erregimenak hartu zuen lehen erabakietako bat (Sindikatu Bertikalen onarpenarekin, hauek izan baitziren erregimenaren lan arloko mintzakide bakarra), soldaten izoztea izan zen: 1939eko soldatak 1936.ean zeuden egoerara jaitsi izan baitzituzten; gudan gertatutako prezioen igoerak (kontutan izan behar da guda garaiak eskasia garaiak direla, beraz prezioek gora egin ohi dutela) kontuan hartu gabe. Molinero eta Ysas irakasleen arabera, honek %25 eta %30 arteko jaitziera praktikoa bat suposatu zuen. Modu hierarkikoan erabakitako soldata hauen konstante bat izan zen garai honetan soldaten igoera prezioen igoeraren azpitik egotea, langileen egoera erabat okerragotuz. Enpresa asko langile-drama bat ekiditeko igoerak “gehigarrien” bidez (seme-alabak izatearren, familiako seme bakarra izatearren, umezurtza izatearren) kamuflatu behar izan zituzten. Hala ere, gehigarriak kontutan hartuta ere, soldatak ikaragarri jaitsi ziren: Sabadelleko Merkataritza Ganbararen (beraz, ez erregimenaren kontrako) txosten baten arabera, 40. hamarkadaren bukaeran langile baten eroste-ahalmena 1936.ean zenaren %65ekoa zen. Datu hauek, erregimenaren aldeko ekonomistek ere baieztatzen zuten, 1940.ean Ekonomia Kontseilu Nazionalarentzat Higinio Paris ekonomilariak idatzitako txosten baten arabera, “enplegatuen eta langileen bizitza-maila, guda hasierako %70 baino txikiagoa da (...)

¹⁵⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 53 dokumentu-sorta.

¹⁵⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 53 dokumentu-sorta.

¹⁵⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 53 dokumentu-sorta.

¹⁵⁷ MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales...”, op. cit..

populazioaren %80 dago egoera horretan, beste %20a ez, horiek inoiz baino hobeto bizi dira”¹⁵⁸.

Trenbideetako langileen egoera (Beasainen garrantzia duen beste industria bat aipatzearren) ere ez zen askoz hobeia izan. 1941.ean sortu zen RENFE konpainiak langileak oso gaizki tratatzen zituen, soldatak oso txarrak ziren: egunean 10,50 pezeta 40eko hamarkadan (aurreko garai errepublikanoan, soldatak nahiko dezenteak ziren), eta arauak hain gogorak ziren ezen lan-istripuen kasuan, ikerketa-garai aldian langileak kartzelan itxaron behar izaten zuen¹⁵⁹.

Hala ere, honek ez du esan nahi langile klaseen aldeko politika egin zuenik erregimen berriak, are gehiago, sistema askoz ere anti-distributiboagoa izan baitzen. Lehenik eta behin, esan beharra dago interbentzionismo mota hau arautzailea, izan zela, aktiboa edo ekintzailea baino gehiago¹⁶⁰. Hau da, interbentzionismo mota honek ez zuen bilatzen orduan indarrean zegoen ordena ekonomikoa aldatzea, baizik eta arauen bidez jada indarrean zeuden enpresak “babestea”, eta konpetentziaren ugaltzea zailtzea (enpresa berriak sortzeko, zegoen adar ekonomikoko Sindikatu Bertikalari eskatu behar zitzaion baimena, eta hau enpresariez kontrolatuta zegoenez, ez zegoen baimen hau emateko prest)¹⁶¹. Hau da, praktikoki, erregimen frankista “interbentzionistak”, XIX. mendeko kapital pribatuak nahi izan zuena egin zuen, hau da, konpetentzia murriztea, eta kapitalaren hedapenarekiko traba guztiez askatzea.

Beraz, ikusi dugun moduan, Francoren erregimenak, praktikan ekarri izan zuena, beheko klaseen ekonomi okerragotzen bat izan zen. Hau batez ere bi arrazoiengatik gertatu zen; alde batetik erregimena babesten zuten klase sozialak, hain zuzen herri-klase apalen errebendikazioen kontrakoak zirelako (erregimen hau, azken finean, klase apalek babestutako Herri Frontearen politiken aurka egitea leit-motiv gisa hartu zuen Estatu-kolpea izan zuen abiapuntu), eta bestetik, erregimenak berak programatutako politika asko, bai ustelkeriagatik edo bai aurreikuspen neurritz kanpokoak eginagatik, porrota izan zirelako. Erregimena bera “babesten zuten klaseen interesak zaintzeko interes amankomunen koalizio bat zen”¹⁶². Ondorio bezala, 1940.eko erregimena,

¹⁵⁸ Ibid.

¹⁵⁹ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 136. or.

¹⁶⁰ TORTELLA, Gabriel: *El desarrollo de la España contemporánea. Historia económica de los siglos XIX y XX*. Alianza. Madril, 1994.

¹⁶¹ SANCHEZ RECIO, Glicerio: op. cit., 140. or.

¹⁶² Ibid., 144. or.

4. kapitulua

“ekonomia arloan erregimenak kanpoko presioekiko autonomiarik handiena izan zuena, hau da, berez frankistena izan zena”¹⁶³, azken bi mendeetan maila sozialen arteko tartea gehien handitu izan zuena izan zen.

4.3.a.1) Zerbitzuak

1938.eko Udal-memorian zekarrenaren arabera, Beasaingo Udalak “herriko ume guztiei behar den moduko hezkuntza emateko moduko eskola-lokalak daude herrian” (memoria honek ez zuen eskola abstinentziaren arazoa komentatu). Hala ere segituan esaten zuen Eskola Nazionalak ez zeudela “funtzionamendu osoan”, eta haur-eskola “suspentsioan zegoela” eta “Karitateko mojek hartu zutela” (hauek ziren Martina Maizeko eskolak. Hala ere, kontutan izanik, 1936.eko irailean zer nolako inaugurazioa egin zen, eskola hauek publikoak izatetik –hasierako proiektuaren arabera- erlijiosoak izatera pasatzea, irakasle faltaren aurreko konponbide pragmatikoa baino, Udalaren alderik hautaketa ideologikoa izan zelakoan gaude). Beasainek zituen lau auzoetatik hirutan ere eskolak zeudela zekarren memoriak (Astigarreta, Arriaran eta Matxinbenta; Garin falta zen; memoria honek hona irakasle bat bidaltzea eskatzen zuen¹⁶⁴). Hiru eskola pribatu zeudela ere aipatzen zuen memoriak: bi erlijioso eta CAFen eskola¹⁶⁵ (azken honek 1937-1938 ikasturtean 46 ikasle zituen matrikulatuta, kurtsoa 41ek bukatu bazuten ere¹⁶⁶).

Heziketaren inguruan, arazo bat umeen abstinentzia izan zen. Garai hauetan, ume askok eskolara joateari utzi egin zion; izan ere, 1937.eko maiatzaren 20an, Eusebio Aslak proposatu zuen Udal-bando baten bidez ohartaraztea eskolara ez joatea debekatuta zegoela, eta eskola-orduetan kalean ikusten ziren umeen kontrako zigorrak jartzea ere iradoki izan zuen. Aslaren proposamen horren atzean arazo handi bat zegoen, hau da eskola-abstinentzia handiaren errealitatea¹⁶⁷. Izan ere, ume asko hiltegian lanean zeuden orduan (ziur aski, familia-beharrez bultzatuta), 1937.eko maiatzaren 20 horretan bertan, Asla berak hiltegian 14 urtetik beherako umeek lan egitea debekatzen zuen

¹⁶³ BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio: *La España de Franco (1939-1975). Economía*. Síntesis. Madril, 2001, 11. or. Egile hauen arabera, 50.eko hamarkadaren osteko politika ekonomikoaren aldaketa gehiago izan zen kanpoko presioen edota egoeraren baldintzen korrontearen emaitza, erregimenak aukera autonomo bat baino.

¹⁶⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 13 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 43 dokumentua. Candida Calvo Vicenteren arabera, 1940.ean Beasaingo alkateak Gipuzkoako Foru Aldundiari Garinen eskola bat egiteko proiektua aurkeztu zion, baina proiektu hau ez zen aurrera atera. CALVO VICENTE, Candida: “La enseñanza en la zona rural...”, op. cit., 171-172. or.

¹⁶⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 13 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 43 dokumentua.

¹⁶⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 38 dokumentu-sorta.

¹⁶⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

mozio bat aurkeztu baitzuen¹⁶⁸. Udalak bi proposamenok onartu egin zituen. 1941.eko martxoaren 15ean, Francisco Unzueta zinegotziak berriz esan zuen ume asko ez zirela eskolara joaten “horniketarako produktuetarako ilaran daudenaren aitzakiarekin”. Unzuetak proposatu zuen konponbidea, udaltzaingoak ume hauek salatzea, eskolara eramatea eta gurasoei isuna jartzea izan zen¹⁶⁹; baina honek ez zuen ezkututzen Beasainen momentu horretan bizi zen arazoa: umeak eskolara joaten ez baziren eta ordez horniketa produktuen ilaran bazeuden, Beasainen bizi zen gose-egoera zela eta gertatzen zen¹⁷⁰. Hala ere, hori zen Udalak eskolara joaten ez ziren (edo ezin zuten) umeen gurasoak presionatzeko zuen modua, arrazionamendu kartila kentzearekin mehatxatzea. Horren adibide bat dugu 1941.eko abenduaren 23an, Udalak Hilario Escobarri bost pezetako isuna jarri zion bere alaba Edita Escobar eskolara joaten ez zela eta “eta huts hauen errepikapena familia osoari arrazionamendu txartela kentzeaz zigortuko dugu” ere ohartzen zion Escobarri¹⁷¹. Honek orduko Beasaingo bizibaldintzen inguruan oso argazki argigarria ateratzen du. Alajaina, arazoa ez zen, eten, adibidez, 1942.eko maiatzan zehar, mutilen eskola publikoan, 34 mutikok 10 asistentzia falta baino gehiago izan zituzten, horietako 14, 19 falta izan zituztelarik (praktikoki maiatza osoan zehar faltatu izan ziren)¹⁷².

Eskola sarean zegoen eskaintza falta argiagoa zen auzoetan: 1937.eko azaroaren 2an Jose Luis Guridi alkateak ohartarazi zion Donostiako Hezkuntza Ikuskaritzaren bulegoari Matxinbentako auzoko eskolan “duela urtebete” irakaslerik ez zegoela¹⁷³ (Jose Garcia Zapicok 1937.eko azaroaren 23an irakasle izateari utzi zion)¹⁷⁴. Izan ere, frankismoaren ezarpenak, 1930.etik aurrera Gipuzkoan baserri-auzoetan eskolak jartzeko kezka eta kezka honek ekarri zituen lorpenen arloan (bigarren kapituluan azaldu dugu Arriarango eskola 1930.ean hasi zen eskolak eraikitzeko Gipuzkoako Foru

¹⁶⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹⁶⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 3190 karpeta, 04 dokumentu-sorta.

¹⁷⁰ Oro har, hau arazo orokortua zen Francoren erregimenean, 1940-41ikasturtean, Alfabetatze Batzorde Nazionalaren arabera, eskola-adinean zeuden umeen %46,9 soilik joaten zen eskolara. CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 160. or.

¹⁷¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 249 karpeta, 29 dokumentu-sorta. Kontrol-sistema hau, populazioaren gosearekin jokatzeko, nahiko arrunta zen frankismoaren pean, Miguel Angel Del Arcoren arabera, 1951.eko Udal hauteskundeetan, bozka ematera joaten ez zirenak txartela kentzearekin mehatxatu zituen erregimenak komunikabideen bidez. DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: “Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo” in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea*, 5. zkia. (241-258. or.), 2006, 252. or.

¹⁷² Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 62 dokumentu-sorta.

¹⁷³ Beasaingo Udal Artxiboa. 252 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

¹⁷⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 25 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

Aldundiaren planaren emaitza izan zela), atzerakada bat suposatu zuen; ez soilik erregimen berriak eskola askotan inbertitzeko interesik jarri ez zuelako, baizik eta baita ere Hitzarmen Ekonomikoa bertan behera uzteak baserriguneetako irakaskuntzaren hedapenean atzerakada bat suposatu zuelako. Candida Calvok dioen moduan, “1930.ean eraikitzeke 100 eskola aurreikusi ziren, 1936 arte 21 eraiki ziren (oharra: horietako bat da Arriarangoa). Estatuak, 1938.eko apirilaren 18an beste 79 eskolak eraikitzeke plana kantzelatatu zuen, eta eraiki ziren 21 eskolak bere egin zituen, Aldundia hezkuntzarekiko kontrolik gabe utziz”¹⁷⁵.

Baina Matxinbentakoak edo Garingoak baino arazo handiagoak eman zituen, Beasain bertako umeen eskola publikoak. 1939.eko apirilaren 27an, Udal-bilkuran irakurri zenez, eskola honen “egoera anormala” zela eta, Gipuzkoako Lehen Hezkuntzako Sekzio Administratiboko buruak, eskola honen jarraipenaren komenientzia bera ere, auzitan jarri izan zuen. Honetan, Beasaingo Udal frankista ados egon zen, izan ere, eskola publiko hau “Fronte Popularraren garaian” zabaldu zela esaten baitzuen “jada bazegoen Karitatearen mojek zuzendutako Haurren Eskolari aurre egiteko” “hala ere, talde bakoitzeko 10-15 ume artean soilik zeuden, gurasoek umeek erlijio-eskola har zezaten nahi zutelako”. Halako kasuan ikus dezakegu Beasaingo eskuindarren Udalak nahiago zuela eskola publiko hau desagertzea. Haurren eskola publikoaren irekieraren “gaitzaren” ardura *Izquierda Republicana* alderdiaren eta Alderdi Sozialistaren bizkar jartzen zuen Jose Luis Guridik zuzendutako Udal-taldeak¹⁷⁶. 1939.eko maiatzaren 22an, Guridik gutun bat bidali zion Gipuzkoako Hezkuntzako Ikuskatzaile-buruari, Haurren Eskola Publikoa guztiz abolitzea eskatuz¹⁷⁷. Erabaki Honek Udalaren Lehen Hezkuntzarako Komisioaren (eta honen bozeramaile Eusebio Aslaren) babesa ere bazuen¹⁷⁸. Eskolen arazoa ez zen soilik Beasaingo arazo bat, frankismopean bizi zen gizartee osoarena baino; erregimenak eskola publikorako inbertsioa ikaragarri jaitsiarazi baitzuen: 1931.ean Estatuaren defentsarako aurrekontua hezkuntza aurrekontua baino 2,5 handiagoa bazen, 1941.ean 8,5 handiagoa zen, eta

¹⁷⁵ CALVO VICENTE, Candida: “La enseñanza en la zona rural...”, op. cit., 170. or.

¹⁷⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 64 dokumentu-sorta.

¹⁷⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 64 dokumentu-sorta.

¹⁷⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 64 dokumentu-sorta.

1955.ean (Guda Zibila hasi eta ia hogeiturotera), 4,5 handiagoa¹⁷⁹. Honek erakusten du Estatuarentzat hezkuntza ez zela inongo lehentasuna.

Hala ere, aurreko kapituluan aipatu izan dugun moduan, irakasle batzuk (gizonezko hiruk eta emakumezko bik) Beasaindik ihes egin zutela eta, postu huts batzuk zeuden¹⁸⁰. Horietako bi, 1937.eko martxoaren 31an bete zen behin-behinean, Luisa Alonso Frias eta Martin Calvo Sanabria, arrasatearrak biak, behin-behineko irakasle izendatu zituztelarik¹⁸¹. Antzeko erregimenean izendatu zuten, 1937.eko abenduaren 1ean, Florentino Cillan Apalategui¹⁸² (1940.ean Gipuzkoako Hezkuntza Ikuskaritzari erantzunez, Beasaingo Udalak “Antonio Cillan” (sic) izeneko pertsona bat “jada Beasainen” maisu bezala ez dagoela, eta bere ordezkoko gisa Teresa Aguado Baza zegoela komunikatu zuen. Ez dakigu Antonio Cillan hori beste pertsona bat ote den edo Florentino Cillan aipatzean egindako akats bat ote zen)¹⁸³. Garai hartan, eta hau hezkuntzaren gibeleratzeaz hitz egiten digun beste datu bat da, eskolako maisuak oso gaizki ordainduta zeuden, datu ofizialen arabera, euren eroste-ahalmena 1936.ean zenaren %20koa besterik ez zen¹⁸⁴.

Hezkuntzarekin jarraituz, Beasainen liburutegien “garbiketa” ere egin zen. Gipuzkoako eta Bizkaiko Gobernadore Zibilak agindu zuen herri guztietan hortarako Batzorde bat eratu behar zela. Jose Maria Arellano Gobernadorearen arabera, Batzorde horren lana “atzegoardian geratu daitezkeen iraultzaren haziak” ezabatzea zen, “Armada Espainia salbatzeko egiten ari den lana” alferrikakoa izan ez zedin¹⁸⁵. Arellanok 1937.eko otsailaren 1ean Udal guztietara bidali zuen gutunean, “irakaskuntza, Estatuarengandik aparte, baina honen baliabideak profitatuz” bizi izan dela “hitzaren askatasunaren izenean gorrotoa zabalduz”; eta gainera, bereak ez ziren ideiak “txanpon intelektual faltsu” bezala jotzen zituen¹⁸⁶. Gobernadorearen agindua izan zen beraz, Udalerrri guztietan Alkateak, apaiz batek eta irakasle batek osatutako batzordeak eratzea “Liburutegi publikoetan, eskola publiko zein pribatuetan, hauek erositakoak edota

¹⁷⁹ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 158. or.

¹⁸⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 06 dokumentu-sorta

¹⁸¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 43. dokumentu-sorta

¹⁸² Beasaingo Udal Artxiboa. 3255. karpeta, 01. dokumentu-sorta. Jeronimo Velamazan berari urtarrilaren 19an jakinarazi zion Udalak bere izendatzea: Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

¹⁸³ Beasaingo Udal Artxiboa. 252 karpeta, 18 dokumentu-sorta.

¹⁸⁴ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 161. or.

¹⁸⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 65 karpeta, 42 dokumentua.

¹⁸⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 65 karpeta, 42 dokumentua.

4. kapitulua

donazioaz hartutakoak diren liburuak” aztertzeko eta “Erromako Kongregazioaren Ofizio Santuaren indexean¹⁸⁷ daudenak (...), bertan egon ez arren moral katolikoaren aurkakoak direnak (...), sozialismoaren, komunismoaren, anarkismoaren edo masoitzaren propaganda egiten dutenak (...) edo aberriaren batasunari eraso egiten diotenak” purgatzeko helburuz¹⁸⁸. Batzorde hori, Guridi alkateak, Florencio Aspe apaizak, eta Alvaro Garcia maisuak osatu zuten, 1937.eko otsailaren 5ean¹⁸⁹. Ez dakigu zein liburu bota zituzten, baina jakin badakigu “egindako lanaz” informatu ziotela Arellanori, honela baitzekarren honek bere aginduan¹⁹⁰.

Hau ez zen hezkuntzaren politizazioaren adibide bakarra. Izan ere, 1937.eko irailean, ikasturte berria hastearekin batera, Gipuzkoako Gobernu Zibilaren Hezkuntzarako departamendutik galdetegi bat bidali zitzaien Udal guztiei; galdetegi horretan irakasleen egoeraz galdetzeaz gain, ikasturte hasierako ekitaldiak izaera erlijiosorik izan ote zuen galdetzen zen¹⁹¹. Beasaingo Udalak hala erantzun zuen, ikasturtea hasteko meza egin izan zela, Florencio Aspe berak eman zuelarik¹⁹².

Ordena publikoari dagokionez, behintzat gudak iraun zuen artean, armadak eta alderdi eskuindarren milizia ezberdinek Beasaingo udaltzainen lanari gainezka egin zioten. Adibidez, 1937.eko apirilaren 10eko Udalaren osoko Bilkuraren bidez jakin badakigu CAFen ondoan, fabrika militarizatuta zegoen eta gudarako eskuzko-bonbak egiten zituzten eta, falangistek goardia egiten zutela¹⁹³. Apirilaren 16an, Miguel Cerrajería zinegotziak eta Falangeko buruak esan zuen lan hori falangistek komandante militarrek hala eskatuta egiten zutela¹⁹⁴. Gainera, egun horretan, Udalak bertan goardia hori egiten zeuden falangistei moduren batean ordaintzea adostu zuen; beraz horrek erakusten du okupazio militarren egoera, zerbitzu publiko bat militarrek ezartzen baitzuten euren beharrak asetzeko (eskuzko-bonben produkzioa babestea) eta honen kostua Udalari pasatzen baitzioten.

Beasaingo Guardia Zibilaren koartela ez zen egiten hasi 1937.eko abuztuaren 14a arte. Agian, honen atzerapena guda zibilean Beasainen zeuden goardia zibilak

¹⁸⁷ Ofizio Santuaren Indexa, Elizak baztertzeko gomendatzen zituen liburuen zerrenda zen.

¹⁸⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 65 karpeta, 42 dokumentua.

¹⁸⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 65 karpeta, 42 dokumentua.

¹⁹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 65 karpeta, 42 dokumentua.

¹⁹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 3186 karpeta, 53 dokumentu-sorta.

¹⁹² Beasaingo Udal Artxiboa. 3186 karpeta, 53 dokumentu-sorta.

¹⁹³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

¹⁹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

Errepublikaren alde borrokatu izana zen (1938.eko uztailleko dokumentu batean, 1937.eko uztailen gertatutako Angel Melgosa Marquinaren heriotzari buruzkoan, Jose Veriztain Udal-idazkariak esan zuen “garai haietan herri honetan ez zegoen indar publiko hori”¹⁹⁵). Hala ere, 1937.ean Udal frankistak, Goardia Zibila berriz Beasainen izateko borondatea erakutsi zuen (egia baita gorputz honen gizon gehienak altxatuene alde paratu zirela, eta beste alde batetik, ideologikoki eskuineko tradizioei lotutako gorputz bat zela). Hura berreraikitzeke ere, Udalak CAFi laguntza eskatu zion (gogora dezagun, lehen kapituluan esan bezala, Beasaina Goardia Zibila ekartzea CAFen inizatiba bat izan zela)¹⁹⁶. Irailaren 11n Udalak Gobernu Zibilari koartelaren eraikuntza ahalik eta azkarren hasteko laguntza eskatu zion¹⁹⁷. Irailaren 25ean Udalak, Francisco Unzueta zinegotziaren proposamena onartuta, Gobernu Zibilera gai honi buruz hitz egiteko komisio bat bidaltzea adostu zuen, komisio horren parte Guridi alkatea, Unzueta eta Francisco Ezquiaga bera izan zirelarik¹⁹⁸. 1940.eko abenduan, Beasaingo Udalaren erroldaren arabera, bost goardia zibil zeuden Beasainen (Errepublikaren garaian zazpi ziren)¹⁹⁹. Postuko komandante berria, Beasaingo atxilotuen kontrako kausetan Goardia Zibilaren txostenetan agertzen zen sinadurak erakusten zuen bezala, Jeronimo Paul zen.

Azkenik, Beasaingo osasun publikoa ere badugu mintzagai. 1937.eko apirilaren 3an, medikuak apirilaren 1ean eman zuen agindu baten arabera Beasaingo Osoko Bilkurak komunikatu zuen Beasaingo eskola guztiak itxita geratzen zirela, barizela zela eta (medikuaren arabera, 1937.eko apirilaren 1erako jada bi ume zeuden gaixorik)²⁰⁰. 1938.eko abenduan, Udalak, Gipuzkoako Hezkuntzarako Ikuskaritzari, Arriaranen difteria kasu bat egon zela komunikatu zuen, azaroaren 22an ume bat hil zelarik (Gipuzkoako Hezkuntzarako Ikuskaritzak Astigarretan kasuren bat egon zela ere esan zuen, bai Udalak ukatu egin zuen hori). Udalak Ikuskaritzak proposatutako edo iradokitako eskolen behin-behineko itxierari ezezkoa eman zion, Arriaranen difteria kasuak “isolatuak” zirena esan baitzuen, ez “izurrite” bat, Ikuskaritzak esan zuen bezala²⁰¹.

¹⁹⁵ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2439-39 kausa, Angel Melgosa Marquinaren heriotzari dagokiona.

¹⁹⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹⁹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹⁹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

¹⁹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 2065 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

²⁰⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 252 karpeta, 20 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

²⁰¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 252 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

4.3.b) *Martin Esnaola Elicequiren alkate-aldia*

Martin Esnaolak kargua 1941.eko martxoan hartu zuen eta zortzi urte eman zituen bertan, 1949.a arte. Guk, lan honetan, 1945.erarteko epea soilik aztertuko dugu, esan dugunez. Hasiera batean, alkatea eta zinegotziak aipatzen ziren, baina 1942.eko martxoaren 20ko aktaren bidez jakin badakigu egun horretan dagoeneko Miguel Cerrajería Tiffe alkateordea zela, eta 1942.eko martxoaren 6ko aktaren arabera, beste alkateorde bat Francisco Ezquiaga zela²⁰². Hala ere, aldaketa nabarmen bat gertatu zen Guridiren sasoiarekiko, garai honetan zinegotziak askoz ere gehiago gerturatzen ziren bileretara. Bederatzitik sei baino pertsona gutxiago bilkura batean egotea arraroa izan zen (halako bilerak izan baziren ere), normalena zazpi edo zortzi egotea baitzen.

Esnaola eta Guridiren alkate-aldien arteko beste ezberdintasun bat, biak aukeratzeko modua izan zen. Esan bezala, Guridi orduan oraindik altxatuen “Estatua” definitu gabe zegoenean, Beasaindik pasatu ziren militarren buruak, Pablo Cayuelak, aukeratua izan zen; nahiz eta ziur aski, Cayuelaren iritzian Beasaingo eskuindarren irizpideak nolabaiteko eragina izan. Esnaolaren kasuan ordea, jada Estatua finkatuta zegoelarik, Gobernadore Zibilak, kasu honetan Gerardo Caballero Olabezarrek (militarra zen ogibidez) aukeratu zuen. Jada, erregimen frankista eta bere arauak oso zehaztuta zeuden, eta arau hauen arabera, Gobernadore Zibila zen bai probintzia bakoitzeko Diputazioaren burua aukeratzeko zuena, zein probintziako kargu guztiak, alakteak eta zinegotziak izendatzen zituen (1948. urtea arte, ordutik aurrera alkateak soilik aukeratzeko zituen, zinegotziak “Udal hauteskundeak” bidez aukeratzeko baitziren). Beraz, paradoxikoa bada ere, ziur asko Beasaingo tokiko elementu frankistek edota eskuindarrek erabakitze-ahalmen handiagoa izan zuten Cayuelak Guridi izendatzerakoan Caballerok Esnaola izendatzerakoan baino. Hala ere, azaldu dugunez, bi Udalen arteko jarraikortasuna erabatekoa izan zen, beraz ondorioak eskasak izan ziren.

Berez, Udal honek karlista izaten jarraitzen zuen, zinegotzi gehienak, aurreko kapituluan zein aurreko orrialdeetan esan bezala ideologia horretakoak baitziren. Baina hala ere, 1936.eko Udalarekiko ezberdintasun nabarmen bat zuen udal berriak, 1936.ean erregimenaren homogeneotasun ideologikoa ez zen hain handia, eta tokiko botereek, eskuineko fakzio ezberdinak ordezkatzeko zituztelarik, nolabaiteko “norbere politika

²⁰² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

ideologikoa” egiteko tarte txiki bat zuten. 1937.etik aurrera (batez ere 1937.eko apirillean Francok Falange eta karlistak batuz alderdi bakarra sortu zuen ostean), erregimenaren homegeneotasuna geroz eta handiago izan zen, eta gainera, karlismoa ez zen izan erregimena osatzen zuten amalgama edo koalizio horretan osagai nagusia. Gipuzkoan (eta beste euskal probintzietan) karlismotik zetozen militanteek zenbait ardura kargu izan bazituzten ere, jada erregimenean eragin handiagoa izateko edo erregimena karlismora gerturatzeko itxaropenak galdu egin zituzten. 1941.ean falangismoa zen itxuraz erregimenaren parterik hegemonikoena.

Hala ere, Gipuzkoarekin konparatuz, Beasaingo kasua ez zen izan inolako salbuespena. Garai honetan ere, Gipuzkoako Udal asko oraindik karlisten esku zeuden, nahiz eta horrek ez esan nahi Gipuzkoako botere-gune nagusien artean karlismoak indarra izan zuenik. Adibidez, Gipuzkoan nahiz Udal gehienek karlistek kontrolatuak izan, 1936.aren eta 1951.aren artean Gobernadore Zibil bakar bat ere ez zen karlista izan²⁰³. Nahiz eta egia den (lehen azaldu bezala) 1937.etik 1941.era Falangeko Probintzi Buruak karlistak izan, horrek ideia handiagoa ematen du gipuzkoar falangisten ahultasunaz, karlismoaren botereaz baino. Izan ere, Gobernadore Zibilak “goitik”, Gobernazio Ministeritzatik (egun, Barne Ministeritza) aukeratuak izaten zirenez gero, praktikoki “Estatu zentrala” hartzera behartuta zegoen karlismoa bere botere kuota igoarazi nahi bazuen, eta karlismoak, bere boterea geografikoki mugatua zenez gero, beste fakzioak baino lan gehiago izan zituen “erregimenaren nukleoan” bere ahotsa entzunarazteko. Halako fenomeno (Falangeren tokiko ahultasuna, baina “elementu falangisten” goitikako kontrola Gobernadore Zibilen eta hiriburuetakoko Udalen bidez²⁰⁴) Falangek edota indar “faxistatuek” (Errepublikara garaietan faxismora hurbiltzeko prozesua bizi izan zuten indarrek: CEDAk eta *Renovación Española*) guda aurretik eskuin osoarekiko indar gutxi izan zuten tokietan gertatu zen: Gipuzkoaz gain Euskal Herri osoan, Katalunian (Lliga Catalana alderdi erregionalisaren eta bertako patronalaren

²⁰³ CALVO VICENTE, Candida: “Los gobernadores civiles...”, op. cit., 25-27. or. Hauxe errepikatzen du Julian Sanz Hoyak bere artikuluan: SANZ HOYA, Julian: “Jerarcas, caciques y otros camaradas...”, op. cit., 16. or.

²⁰⁴ Gipuzkoako Aldundia, ordea, karlisten esku egon zen, hasieran behintzat. Lehen aldunburuak (Fidel Azurza, Jose Eizaguirre, Elias Querejeta, Fernando Aramburu...) karlistak ziren. Hala ere, Hitzarmen Ekonomikoa bertan behera uzteak eta Gobernadore Zibilari emandako botere izugarriak, aldunburuaren kargua txiki uzten zuen.

4. kapitulua

indarra oso handia zen tokian) eta Valentziar Herrialdean (Eskuin Erregionalista Valentizarra indartsu zen tokian) ere gertatu zen²⁰⁵.

Udal berriak, hala ere, zenbait ekintza sinboliko egin zituen; adibidez, 1941.eko uztailaren 23an, Azpeitiko Loiolako santutegian abuztuaren 1ean egin zen Jesuiten aldeko omenaldian parte hartu zuen, eta bertara Udal-taldea herriko banderarekin, Udal-banda eta danboril-joleak eramatea adostu zuen²⁰⁶. Herriko agintari zibilak halako ospakizun erlijioso batetara eramatea, karlismoaren puntu kardinal batekin, politikaren izaera konfesionalarekin bat zetorren erabat. Konfesionaltasunaren barruan, jakina, herriko santu Loinazko San Martinek toki berezia zuen: 1942.eko irailaren 4an, Francisco Ezquiaga alkateordeak zineman San Martinen bizitzari buruzko *Sangre japonesa* filmaren emanaldiari “erakusketa-zerga” ez kobratzea proposatu zuen, edo hobeto esanda (zergak kobratzea beharrezko baitzen), Udalak zerga honen kostukopurua enpresariari itzultzea²⁰⁷. Halako formula erabili zuten baita ere Loinaz abesbatzak FET-JONSen egoitzan (Batzoki zaharrean, egun Kale Nagusian) abestu zuen kontzertu bat zergez at gera zedin²⁰⁸. Udal berriak kolore erlijiosoa erakusteko aukera gehiago izan zituen, adibidez 1943.eko maiatzaren 16an, Martin Esnaola alkatea Oñatira joan zen Arantzazuko Amaren aldeko jai batean Beasaingo Udalaren ordezkari gisa; eta horri jarraiki ekainaren 4ko Udal-bilkuran irailaren 9a jaiegun bezala dekretatu zuen (Arantzazuko Ama Birjinaren eguna)²⁰⁹. Beasaingo Udal honen zorroztasun katolikoa argi geratu zen 1945.eko apirilaren 14an eginiko bilkura batean, non Francisco Ezquiaga alkateordeak eta Rufo Artolain zinegotziak protesta bat adierazi zuten Beasaingo Kirol Elkarteak ospatutako dantzaldi batean izan zen “Moraltasun falta” zela eta²¹⁰.

Udal-kideen karlismoa gora-behera, Udal berria erregimenarekin erabat konprometitua egon zen. Adibidez, 1941.ean Gipuzkoako Gobernadore Zibilak

²⁰⁵ SANZ HOYA, Julian: “Jerarcas, caciques y otros camaradas...”, op. cit., 16-18. or. Antonio Canalesen hitzetan (batez ere Kataluniako kasua present duelarik), aurretik Falangek edota indar faxistizatuek indar gutxi izan zuten tokietan “garaipen sozialaren logika” gailendu zen, Falangeak afiliatu gutxi zituelako eta berez “erakargarritasun” txikia zuelako (gudan egin zituen kide berriak, nagusiki “garaipen soziala” bermatzeko asmoarekin eginiko kideak zirelako). CANALES SERRANO, Antonio Francisco: “Las lógicas de la victoria...”, op. cit. Alta, kasu hau ezin zaio Euskal Herriari aplikatu, hemen karlismoak zuen indarrak “garaipen politikoaren logikaren” irauaraztea bermatzen zuelako.

²⁰⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

²⁰⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

²⁰⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

²⁰⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 18 dokumentu-sorta.

²¹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen). Dantzaldia Gobernadore Zibilak baimendua izan zen.

Gipuzkoako herritan dantzaldi publikoak jada debekatu zituenean, Martin Esnaolak, 1941.eko apirilaren 19rako, FET-JONSen sorreraren urteurren-jairako (“Bateratzearen Jaia”), Bandaren dantzaldia baimendu zuen²¹¹. Berdin gertatu zen 1941.eko urriaren 1ean, “Kaudilloaren festa” ospatu behar zeneko egunean²¹². 1942.eko urriaren 30ean, erregimenaren beste sinbolo bat ohoratu zuen Beasaingo Udalak: “gurutzada nazionalaren aurreneko martiria”, edo propaganda frankistaren arabera, haren heriotzak “Altxamendu Nazionala” justifikatu zuena, Jose Calvo Sotelo politikaria: Francisco Unzuetaren proposamen bati jarraiki, Udalak bere pleno aretoan Calvo Soteloren argazkia jarri baitzuen²¹³.

Politikaren eragina beste arlo batzuetan ere atzeman zen. Kale-garbitzaileen posturako zegoen hutsunea bi pertsona aurkeztu ziren: Jose Cia eta Guillermo Querejeta Aramburu, baina lehenaren eskaera bertan behera utzi zuen Udalak “behar zuen dokumentazioa” aurkeztu ez zuela eta. Ciari falta zitzaion dokumentua, “Mugimendu Nazionalarekiko atxikimendua frogatuko zuen FET-JONSen ziurtagiria” zen. Beraz, horrek argi erakusten du funtzionaritzaren parte izateak zer nolako baldintzapen politikoak zituen²¹⁴. Postu hori beraz, Querejetarentzat izan zen. Udal epaitegiari dagokionez, 1943.eko irailaren 23an hasi zen epaitegi horretarako postu berriak aukeratzeko prozedura; eta bai epaile nagusi zein ordezko epaile posturako hiruna aspirante aurkeztu ziren. Tolosako epaitegiko idazkariak azaldu zuen, hautagaiak “ezin zitezkeela Fronte Popularrari babesa eman zioten alderdi edo sindikatuetakoko kide ohiak izan”, eta gudan zauritutakoak izatea gomendagarria zela²¹⁵.

1937.ean euren joera politiko zela eta botatako funtzionario batzuk ere (gero azalduko dugu sakonago politikari hauen kasua), itzultzeko asmoa izan zuten, eta halako postuen zabalera aukerak baliatzen saiatu izan ziren berriz Udalean zuten postua berreskuratzeko. Candelario Aramburu Mugica idazkaritza-ofizialak, 1941.eko azaroaren 11n²¹⁶, bere kaleratzearen kontrako errekurtsio bat aurkeztua zuela gogorarazi zion Udalari, beraz, errekurtsioa aurkeztua zuelarik, bere kardua “kargu huts” bezala ezin zela hartu esan zuen Aramburuk (Gobernazio Ministeritzak 1939.eko irailaren 30ean hori esan zuela gogorarazi zuen: “Udalek kargutik separatu edo kaleratutako

²¹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 518 karpeta, 25 dokumentu-sorta.

²¹² Beasaingo Udal Artxiboa. 518 karpeta, 25 dokumentu-sorta.

²¹³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

²¹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

²¹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 060 karpeta, 14 dokumentu-sorta.

²¹⁶ Beasaingo Udalarik gutun hau idatzi zionean, Candelario Aramburu Mugica jada Oiarzunen bizi zen.

4. kapitulua

funtzionarioen postuak ezin dira kargu huts bezala hartu kaleratze hau behin-betikoa ez denean (...) hau da, kaleratutako funtzionarioek kaleratzea onartu duten arte edota eurek jarritako errekursoak atzera bota ez diren arte”²¹⁷. Hala ere, 1942.eko martxoaren 3an, Martin Esnaola alkateak Aramburu Mugicari erantzun zion “zure idatzia kontutan ez dugu hartuko” esanez²¹⁸. 1941.eko irailaren 26an²¹⁹, 1937.eko martxoan kaleratua izan zen Antonia Bares hiltegiako tripazainak, 1937.eko otsaileko eta 1937.eko martxoko soldata zor ziola esan zion (Baresek hilero 200 pezeta kobratzen zituen). 1942.eko otsailaren 16an, Martin Esnaola alkateak Bares Tolosari erantzun zion bere eskaerari uko eginez, “1937.eko urtarrilaren 12 zu lanpostu horretatik kentzeko erabakia hartu zelako” eta “urtarrilaren 13n komunikatu zitzaizulako”, beraz Esnaolaren arabera, Baresek ez zuen 1937.eko otsaila eta martxoa kobratzeko eskubiderik²²⁰.

Beasaingo aurrekontua egoera txarrean zegoela esan dugu lehen. 1941.ean Beasaingo Udal-ekonomia kaltetu zezakeen erabaki bat hartu zuen Gipuzkoako Ogasun Ordezkariek: Gipuzkoako Osasun Institutuari, bai uztailaren lehen hamabostekoan, zein urriko lehen hamabostekoan, aurrekontuaren % 1na eman behar zitzaion; eta horrez gain, uztaileko lehen hamabostekoan aurrekontuaren %0,5 eman behar izan zitzaion Tuberkulosiaren Kontrako Partzuergoari²²¹. Horrez gain, 1943.eko irailaren 17ko bilkuran, Udalak, Ogasunaren Gipuzkoako ordezkariak, “pertsonek juridikoen gaineko zerga bereziak” direla eta, Udalak honi 15.967,46 pezeta ordaindu behar zizkiola jakinarazi zuen²²². 1944.eko txosten baten arabera, Udalak 1943eko likidazioa egin ez zuenez, “ezin da Udalaren egoera zein den jakin”²²³.

1944.ean, Emiliano Garmendia Lecuonak Tokiko Administrazioaren Interbentorearen aldetik beste kolpe bat etorri zitzaion Beasaingo Udalari; ustelkeriaren itzala hain zuzen. Izan ere, parte-hartze batzuk eta zerga batzuk zirela eta, kobratzeko eskubidea izanagatik ere Udalak, 1937.ean eta 1940.ean irabazi zituen 16.974 pezeta kobratzeen zerrendan apuntatu gabe zituela esan zuen (Udalaren esaldia “ez dira Udalaren dirusarreraren zerrendan ageri” izan zen)²²⁴. Hau ez zen kasu bakarra izan: 1944.eko irailaren 11n, Garmendiak idatzi zuen txostenean, horrez gain 1939 eta 1942

²¹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 11 dokumentu-sorta.

²¹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 11 dokumentu-sorta.

²¹⁹ Beasaingo Udalari gutun hau idatzi zionean, Antonia Bares Tolosa jada Donostian bizi zen.

²²⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 26 dokumentu-sorta.

²²¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

²²² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 18 dokumentu-sorta.

²²³ Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 52 dokumentu-sorta.

²²⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen).

artean Gipuzkoako Aldundiak eskola ezberdinetarako subentzioetan eman zituen 22.165 pezeta ere kobratzeen zerrendan apuntatu gabe zeudela esan zuen. 1943.ean ordea, Gipuzkoako Aldundiak Benefizentziako etxean zeuden gaixoen egonaldien subentzioetako 7.917 pezeta Udalak kobratzeetan apuntatu gabe utzi zituela zioen Garmendia Lecuonaren txostenak²²⁵. Garmendia Lecuonaren arabera, desfalko honen erruduna Jose Veriztain Zubiaga izan zen. Honek bi arrazoi izan zitzaizkeen: bata, bai Guridiren zein Esnaolaren Udal-taldetan bera zegoelako karguan (eta azken finean kontu guztiak idazkariaren eskuetatik pasatu behar ziren), baina bestetik, izan zitekeen baita beste errudun bat edo batzuk estaltzeko modua, Veriztain 1944.eko maiatzaren 21.ean hil baitzen²²⁶.

Honen aurrean, Beasaingo Udalaren Ogasun Komisioak; Francisco Ezquiaga alkateordeak eta Francisco Unzueta eta German Zaballos zinegotziek osatutakoak; hauen arabera, 39.139 pezeta izan zen desfalkatutakoa, Emiliano Garmendiak esana baino pixka bat gutxiago (hala ere esaten zuten Aldundiak zuzenean Udaletik pasa gabe Beasaingo Benefizentzia Etxeari emandako dirua “subentzio” bezala hartzearen aldekoak ziren, izan ere, nahiz eta diru hori zuzenean Udaletik ez pasa, bestelako kasuan Udalak aurre egin beharko ziokeen gastu bat arintzeko balio zuen eta²²⁷). Guztira, Ezquiaga, Unzueta eta Zaballosen arabera, 42.331 pezeta itzuli beharko zitzaizkion Udalari; horiek itzultzeko bidea epaile instruktore baten esku uztea gomendatzen zutelarik²²⁸. Epaile instruktore Zaballos zinegotzia izendatu zuen udalak 1944.eko maiatzaren 26ko bilkuran²²⁹. Zaballosek 1945.eko uztailaren 19an eman zuen ebre epaia, eta itzultzeko kopurua 41.557 pezetakoa zela ebatzi zuen; errudun bakartzat Jose Veriztain Zubiaga idazkari ohia (jada hila) jotzen zuelarik. Hala ere Veriztain “hila zegoenez” eta “ondasunik ez zeukanez”, salaketa kriminalera jotzea ezinezko ikusten zuen Zaballosek²³⁰. Beraz, Zaballosen ebazpenen ondorioz, Udala, Zaballosek estimatutako 41.000 pezeta inguru horiek erreklamatu ezinik geratu zen, hori dugu ondoriorik garbiena. Hala ere, zalantzarako tarte handia uzten du Zaballosen erabakian, bai errudun bakartzat hildako pertsona bat ezartzearen (beraz bere burua defenditu ezin

²²⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 146 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

²²⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 146 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

²²⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 146 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

²²⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).

²²⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 146 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

²³⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 146 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

duena), eta bai ondorioak hain argi izanda (41.000 mila pezetaren lapurreta), hain azkar “kasua ixtea”.

Eszeptizismo pixka bat erakutsi zuena alkatea izan zen, 1944.eko abuztuaren 19an, Azkoitiko eta Azpeitiko epaitegietan Jose Veriztainek edo euren ondorengoek izan zituzkeen propietateak aztertzea agindu baitzuen (eta baita Bergarako epaitegian, baina kasu honetan epaitegiaren erantzuna soilik dugu, ez alkatearen eskaera)²³¹. Horrez gain, Gipuzkoako Aldundiko interbentoareari 1943.ean eta 1944.ean Beasaingo Benefizentzia Etxera emandako subentzioen zerrenda bat eskatu zion; eta Gipuzkoako Aurrezki Kutxako zuzendariari bertan aurrezki kartilarik bazuen (honek ezezkoarekin erantzun zion 1944.eko irailaren 23an). Veriztainek Debako arroan jabetza handiak zituen, adibidez, Abaro baserria (eta honen ondoko lurrak) Bergaran, Mutrikun Leizobe deitutako gaztainadia, Madariaga deitutako sagardia, Erlapat deitutako lursail bat, eta beste lursail bat²³². Lur hauek, bere aita Isidro Veriztain Andonaeguirengandik oinordekotzan jaso zituen.²³³ Horrez gain, Mutrikuko Udal idazkariaren arabera, Mutrikun Luis Veriztain deitutako baten oinordekoek (Jose Veriztainek tartean) lau hiri-lursail zituzten Mutrikun, 1944.eko abuztuaren 23an esan zuen moduan²³⁴.

Alkateak Jose Veriztainen anaia ere deitu zuen honekin gauzak argitzeko, nahiz eta honek, Gasteiztik 1944.eko abuztuaren 29 uko egin “Ni hildako anaiak bere legezko ordezkariak baditu eta (...) horiekin tratatzea egokiagoa litzateke”²³⁵.

1945.ean beste saiakera batekin hasi zen Udala. Udalak, 1945.eko maiatzaren 26an, 42.000 pezetan estimatu zituen Udalak ez jasotako kopurua. Kasu honetan German Zaballos zinegotzia izendatu zuen udalak kopuru honen itzuleragatik borrokatzeko kasuan instruktore gisa²³⁶. Uztailaren 21eko bilkuran eman zituen argitara Zaballosek bere ondorioak: 41.557,95 pezetara heltzen zen iruzurra (beraz, aurreko akordio batekiko, 42.000tik gora ezartzen zuenarekiko, dessadostasuna erakutsi zuen): 4.000 Arte eta Lanbide Eskolara joan behar zirenak, 16.974 Estatuan Beasaingo Udalak zituen parte-hartze ezberdinengatik, 7.917 Aldundiak Benefizentzia Etxerako eman zuenagatik, 9.474 Aldundiak Beasaingo Udalak kaudimen falta zuela eta Benefizentzia

²³¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 146 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

²³² Azpeitiko Udalak, ordea, 1944.eko irailaren 16an esan zuenez, Luis Veriztainek ez zuen inongo jabetzarik Azpeitin.

²³³ Beasaingo Udal Artxiboa. 146 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

²³⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 146 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

²³⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 146 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

²³⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen).

Etixerako eman zuen laguntzagarrik, eta 3.192 probintzi kontribuzioengatik. Zaballosen arabera “errudun bakarra Jose Veriztain Zubiaga idazkaria zen” (honetan ez zuen aurreko ondorioekiko desadostasunik adierazten). Hala ere, pertsona hau hila zelarik, eta beregan arduradunik ez zuelarik, zigorra bertan-behera geratzen zela esan zuen Zaballosek. Udalak Zaballosen ondorioak ontzat eman zituen, eta diligenza berririk ez zabaltzea erabaki zuen²³⁷. Erabaki hau arraroa izan zen, izan ere, Martin Esnaola alkateak egiaztatu zuen Veriztainek Bergaran eta Mutrikun zenbait jabetza higiezin zituela.

Ustelkeria ez zen Beasaingo berezitasun bat, erregimen berriaren marka bat baino, batez ere, elikagaien inguruan gertatu zenarekin: produktuen erabateko falta zegoen, merkatu beltzean, hori bai, prezio handiagoetan nahi bestekoa topa zitekeelarik. Hau ezin zen gertatu sisteman ondo kokatutako pertsonen laguntzarik gabe²³⁸.

1942.ean ondasun higiezinaren gaineko Udal-zergak asko handitu ziren 1936.ekin konparatuz²³⁹. Martin Esnaolak 1941.eko abenduaren 127an Gipuzkoako Aldundiari bidali zion dokumentu baten arabera, baso-lurren gaineko zergetan 23.907,56 ordainduko zuten beasaindarrek (136.614,61 pezetako oinarri inposagarri batetik) eta pekuarioetan 6.685,72 pezeta (38.23 pezetako inarri inposagarri baten aurrean Beraz, guztira, 30.593,08 pezeta 174.817,61 pezetako oinarri inposagarri baten aurrean. 1936.ean ordea, betiere Esnaolaren datuen arabera, baso-lurretan 5.217,66 pezeta ordaintzen zuten (37.269 pezetako oinarri inposagarri baten aurrean) eta pekuarioetan 9.872,90 pezeta (98.729 pezetako oinarri inposagarri baten aurrean); beraz, guztira, 15.090,56 pezeta 135.998 pezetako oinarri inposagarri baten aurrean. Hau da, 1936ean, zerga hauek %11n tributatzen zuten, eta 1942.ean %17,5ekoa (zergak bildutakoa %102 handitu zen, eta oinarri inposagarria %28,5)²⁴⁰.

Kontsumo zergen inguruan, 1942.eko maiatzaren 1ean Ordiziako alkateak eta maiatzaren 29an Ordiziako, Lazkaoko, Ataungo, Zaldibiako eta Itsasondoko alkateek; CAFeko ekonomatoan saltzen ziren produktuekiko Beasaingo Udalak zergak kobratzeko zuen moduz kexa planteatu zuten (ekonomato horretan kontsumitzen zuten CAFeko langileak denak ez baitziren beasaindarrak, CAFek ez baitzituen lurak soilik

²³⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen).

²³⁸ MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales...”, op. cit. Egile hauek azaltzen dutenez, erregimenaren aldeko analista ekonomikoek ere ustelkeriaz jabetzen ziren.

²³⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. A054 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

²⁴⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. A054 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

Beasainen, eta bestetik, produktuak ez baitzien soilik ekoizle beasaindarrei erosten). Beasaingo Udalak esan zuen zergak Gipuzkoako arbitrioen gaineko irizpideen arabera kobratzen zituela, beraz ezin zuela kobratzeko modua aldatu²⁴¹. Afera honek, Gipuzkoako goi-agintariak ere inplikatzeari ekarri zuen: 1943.eko abenduan, Udal ezberdinen arteko bilkura bat egin zen Gobernadore Zibilaren inizatibaz, Beasaingo, Ordiziako zein Lazkaoko Udalek parte hartu zutelarik²⁴². Ekonomato honen gainean este arazo bat agertuko zen, 1943.eko urriaren 8an, udalak, ekonomato honi “Udalaren egoera kontutan izanik (...) bere zergak ahalik bezain azkarren likidatu zitzaizkien” eskatu baitzion²⁴³. 1944.eko abuztuaren 19an, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak bere erabakia eman zuen, CAFeko ekonomatoak, Beasaingo, Ordiziako, Lazkaoko, Ataungo, Olaberriko eta Itsasondoko Udalen artean, herri hauetako auzokideak Ekonomatoko kide diren ehunekoaren heinean banatuko ditu ordaindu beharreko zergen kopurua. Erabaki hori ez zen Beasaingo Udalaren gustokoa izan (azken finean CAFen ekonomatoa Beasainen baitzegoen)²⁴⁴. Hori zela eta, esan dugun bezala Beasaingo Udalak Madrilen abokatuak kontratatu zituen Bestalde, 1945.eko azaroaren 10ean, Beasaingo Udala CAFen zuzendaritzarekin elkartu zen arazo horretaz hitz egiteko. CAFeko zuzendariaren arabera, Udal honek 50.000 pezetako dirusarrera estra kobratu behar zuen²⁴⁵. Ekonomatoaren arazoa hain garrantzizkoa zen Udalarentzat, ezen honek 1945.eko azaroaren 17rako bilera berezi bat deitu zuen. Batzar horretan, Udalak, CAFeko zuzendariaren proposamena (50.000 pezetakoa) onartu zuen, parte batean horrek Beasaingo aurrekontuei haize pixka bat eman zielarik²⁴⁶.

4.3.b.1) Zerbitzuak

Esnaolaren garaian, Udalaren ideologia kontutan hartuta (zinegotzi gehienak fededunak ziren), hezkuntza pribatu erlijiosoarekiko lehentasuna zutela argi ikusi zen; 1941.eko irailaren 20an, Martin Esnaola alkateak, Loinazko San Martin salesiarren eskolari “ahal bezain laster” 2.000 pezetako subentzio bat ematea agindu zuen “subentzioa 1940an 1941erako kontuak onartu ostean (epeaz kanpo) eskatu bazen ere, jada kontuak itxita zeudenean”. Subentzio hori 1942.eko irailaren 4an exekutatu zuen

²⁴¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

²⁴² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 18 dokumentu-sorta.

²⁴³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 18 dokumentu-sorta.

²⁴⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen).

²⁴⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen).

²⁴⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen). Beasaingo Udalaren azaroaren 17ko aktaren arabera, bilera horretan CAFek Beasainen 250 etxebizitza egiteko proiektuaz ere aritu ziren.

Udalak²⁴⁷. Hala ere, eskolek, publikoak edo erlijiosoak izan, erlijioaren ideologiarekin bat egitera behartuta zeuden. Halako adibide bat, Loinazko jaietan, Udaletik, eskola guztietako ikasleak, Basilikarako prozesioan parte hartzea behartzea izan zen²⁴⁸.

Osasunaren inguruan, Beasaingo herriarentzat oso erronka gogorra izan zen garai honetako goseak zekartzan gaixotasunen areagotzeari aurre egitea. Adibidez, 1942.ean tuberkulosiak jotako gaixoen kopurua asko hazi zen Beasainen. 1942.eko abenduaren 23ko udal-bilkuran eztabaidatu zenaren arabera, Beasaingo erietxea ez zegoen tuberkulosiz gaixoak zirenak hartzeko prestatua, nahiz eta Beasainen halako gaixo asko egon²⁴⁹. Izan ere, 1942.eko bukaeran, Beasaingo erietxearen egoera oso txarra zen. Abenduaren 23ko bilkuran Udalak jakinarazi zuen Erietxearentzat aurrekontuan jarritako 30.000 pezetak (gehi pertsonalarentzako 3.600 pezetak) agian nahikoa izango ez zirela erietxea gainezka baitzegoen (estutasun horrek erakusten du, Beasaingo gaixoen kopurua oso handia zela). Beasaingo Udalak esan zuen ezin ziola aurrekontua handitu, baina hurrengo urtearen hasieran diru-bilketa bat antolatuko zuela Erietxearen alde²⁵⁰. 1942.eko abuztuko datuen arabera, Beasainen 56 “komertzio” (denda, saltok) eta 45 tailer zeuden guztira²⁵¹. Horrez gain, hiru kontsumo-kooperatiba zeuden Beasainen, Herri Elkarte Kooperatiboa (1920.ean sortutakoa) CAFeko kooperatiba (1944.eko martxoan handitu egin zen, harategi bat ere jarri zuen eta²⁵²) eta Bernedorena (azken biak 1941.ean sortutakoak)²⁵³. Horrez gain, 1942.eko urtarrilean Beasainen bost pertsona zeuden arraina saltzeko merkatu-postua zutenak²⁵⁴. Hala ere, Beasaingo saltokien inguruan eztabaida piztu zen 1942.eko uda. Urte horretako uztailaren 19an, Gipuzkoako Lanaren Ikuskaritzak esan zuenez, Beasainen ez zen errespetatzen saltokiek igandeetan eta jaiegunetan jai egiteko zuten betebeharra, igande eta jaiegun batzuetan saltokiak zabalik zirelarik. Horrez gain, Lan Ikuskaritzaren arabera, Beasaingo saltoki askok ez zuten ordutegia errespetatzen (legez, elikagaien saltokiek goizez 8:30etatik 1:30ak arte zabaldu behar zuten, eta arratsaldez 5etatik 8ak arte; besteek goizez 9etaatik 1ak arte, eta arratsaldez 4etatik 8ak arte)²⁵⁵. Ordutegi hori

²⁴⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 249 karpeta, 29 dokumentu-sorta.

²⁴⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 249 karpeta, 34 dokumentu-sorta (1943.eko adibidea).

²⁴⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

²⁵⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

²⁵¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 059 karpeta, 14 dokumentu-sorta.

²⁵² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 17 dokumentu-sorta.

²⁵³ Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 29 dokumentu-sorta. CAFen kooperatibak lehenago enpresa horretako langileek sortu zuten “Langile Ekonomatoa” ordeztu zuen.

²⁵⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 3190 karpeta, 32 dokumentu-sorta.

²⁵⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 3189 karpeta, 26 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

1944.eko abuztuan aldatu egin zen: ordutik aurrera, goizez 8:30etatik 12:30etara zabaldu behar zuten saltokiek, eta arratsaldez, 3etik 8etra²⁵⁶.

Erljio-datuei dagokionez, 1942.eko abuztuan, Tokiko Administrazioaren Institutuak bidalitako galdetegi bat erantzutearen inguruan, Beasainen bost eliza, 5 kapila eta basiliza 2 eta noski, Loinazko San Martinen basilika zeudela esaten du Udalak, guztira 10 apaiz daudelarik (honi 4 moja gehitu behar zaizkie, nesken eskola erlijiosoan irakasle bezala aritzen zirenak, eta baita 5 fraide, mutilen eskola pribatu erlijiosoak klasea ematen zutenak).

1944.eko ekainean Udalak eginiko beste zerrenda batean (Gipuzkoako Lan-ikuskaritzaren Ordezkaritzari erantzunez); 37 “langiledun enpresa” kalkulatu zituen Udalak: *CAF*, *Bernedo*, *Construcciones Electromecánicas*, *Construcciones GOM*, *Construcciones KMK*, *Construcciones Azpeitia*, *Tornilleria del Norte* eta *Fundicion Echeverria* mekanika edota burdingintza industrian; *Talleres Unzuaran*, *Luis Suarez Fausto Perez* eta *Bernabe Ayerdi*²⁵⁷ mekanika tailer txiki moduan²⁵⁸; *Quifosa* eta *Emilio Hunolt e hijos* kimika industriaren arloan; *Pablo Irizar* kotxeen konponketa garaje moduan; *Esquisabel y Compañía* eta *Oyarbide y Compañía* altzari fabrika moduan; *Echaide y Compañía* eta *Juan Aramburu y Compañía* aroztegi moduan; *Manufacturas Olaran* oihalgintzari dagokionez; *Usurbe* gozoki-fabrika; *Irastorza y Bereciartua*, *Azkar* eta *Ifarra* garraio enpresen arloan; *Industrial Ferretera* eta *Martin Esnaola* (alkatea) ferreteria arloan; inprenta arloan ere bi: *Francisco Ezquiaga* (alkateordea) eta *Uribe-Echeverria hermanos* (Victor Uribe-Etxebarria fusilatuaren familia); *Ramon Uranga* zapata-fabrika; *Bartolome Aguirre* sastre-denda; eta *Jose Luis Guridiren* obra-kontratazioa. Gainontzekoak, beste langileren bat zuten saltokiak ziren²⁵⁹: CAFen Ekonomatoa, Herriko Ekonomatoa, Eustasio Ayestaranen linternak eta tresna elektrikoak saltzeko denda, Bautista Telleriaren ardoak saltzeko denda, Dionisio Oyarzabalen farmazia eta zinema²⁶⁰.

Elkarteei dagokienez, garai hauetan, Beasaingo elkarteek askoz ere bizitza txikiagoa izan zuten, gudaren eragina eta errepresioa zela eta (aisialdi elkarte batzuek

²⁵⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 2108 karpeta, 32 dokumentu-sorta.

²⁵⁷ Mekanika tailerra izateaz gain, gasolindegia ere bazen.

²⁵⁸ Honek ez du esan nahi Beasaingo tailer txiki bakarrak zirenik, baizike ta laneskua kontratatzen zuten tailerak hauek zirela.

²⁵⁹ Noski, Beasainen saltoki gehiago zeuden, hauek momento hartan laneskua kontratatzen zituztnak ziren.

²⁶⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 059 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

idea aurrerakoiak zituzten, eta halako pertsonak bil zitezkeen han). Langileen aisialdirako elkarteek aldaketa sufritu izan zituzten, Burdinbideetako Langileen Elkartea itxi egin zuten, eta Beasaingo Joko Elkartea (ez dezagun ahaztu kirolak bultzatzen bazituen ere, hasieran ideia liberal edo errepublikanoak zituzten pertsonak batzeko izan zela) “Beasaingo Kirol Elkartea” bihurtu zen, soilik kiroletarako jardunarekin, hau ofizialki 1943.eko apirilean, Berpizkunde Igandean, inauguratu zelarik (beraz, guda aurreko Beasaingo Joko-Kasino “gorriarekiko” nolabaiteko haustura islatu nahi zuen, “elkarte berri” bezala aurkeztuz). “Inaugurazio” horretan, Udal-Bandak ere jo zuen²⁶¹. Azken honek, adibidez, futbol-taldea zuen eta urtero Loinatz jaietan txirringularitza proba antolatzen zuen (1943.eneko urtean baita oinezko lasterketa bat²⁶²; eta 1945.eko proba Gipuzkoako Txapelketa izan zen²⁶³), baina jada ez zen jada “elkarte sozial” bat. Bere lehendakaria, 1944.eko apirilean behintzat, Juan Ayestaran Pujana zen²⁶⁴. Hala ere, Beasaingo Kirol Elkartea ez zen ezta ere ohitura liberalen “susmoez” guztiz aske: 1945.eko apirilaren 14ko Udal-bilkuran, Francisco Ezquiaga eta Rufo Artolain zinegotziek Udalaren aurrean protesta adierazi zuten Kirol Elkartean antolatutako dantzaldi batean (zeinak Gobernadore Zibilaren baimena zuen), “moralaren kontrako” dantzak egin zirela eta²⁶⁵. Esan beharra dago baita, Beasaingo Kirol Elkartearen futbol taldeak, batez ere Francisco Elzoren bidez, lan handia egin zuela joera ezberdineko beasaindarren arteko tirabirak baretzen eta herri integrazioa bultzatzen, herri testigantza ezberdinek adierazten duten moduan²⁶⁶. 1941.eko irailean, Gobernadore Zibilak, Beasaingo Familia-Gurasoen Elkarte Katolikoa (*Asociación Católica de Padres de Familia*) desegin zuen, elkarte honek bere lege-izaera luzatu ez zuela argudiatuta. Martin Esnaola alkateak erabaki hori besterik gabe onartu zuen²⁶⁷. Baina Beasainen, 1945. urtean, bagenuen Beasainen Ekintza Katolikoa (*Acción Católica*) taldearen izatearen berri, otsailaren 24ko Udal-bilkuran talde honek Udalari liburu erlijioso batzuk erosteko laguntza eskatu baitzion²⁶⁸.

²⁶¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 18 dokumentu-sorta.

²⁶² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 18 dokumentu-sorta.

²⁶³ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen).

²⁶⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 17 dokumentu-sorta.

²⁶⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen).

²⁶⁶ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27; eta Paulino Aranbururen testigantza. Testigantza hau ez dago grabatua.

²⁶⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 15 dokumentu-sorta.

²⁶⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen).

4.4 Tropekiko jarrera agintarien aldetik

4.4.a) *Militarren eta udal-agintarien arteko harremana*

Kapitulu honetan Gudako kontuak alde batera utzi nahi izan baditugu ere, kontuan izan behar dugu 1939.eko apirila arte gudan zegoen estatu baten parte izan zela Beasaingo Udala. Horrez gain, 1937.eko apirilean Francok karlisten eta falangistan bateraketa (eta bateraketa baino gehiago, alderdi hauek militarren menpe jartzea) inposatu arte, Gipuzkoan indar handia zuen Gipuzkoako Gudarako Batzorde Karlistak (praktikoki aginte paralelo bat izan zen Gipuzkoan; Pedro Barrusoren arabera “benetako botere efektiboa” izan zen “gudaren lehen fasean”²⁶⁹). Guda Batzordea zela kontutan izanik, bere lehen helburua gudarako horniketa bermatzea izan zen. Hori dela eta Beasaingo Udalari (gehiengo karlista batek osatua), bere egunerokotasuna baldintzatu egin zion.

Adibidez, 1937.eko urtarrilean, Beasaingo Udalak esan zuen Gipuzkoako Guda Batzorde Karlistak eskatu zuela Loinazko San Martinen Konpainiaren alde dirua biltzeko pilota partiden gaineko espektakuluen gaineko zerga kentzea, partidu hauek “benefikoak zirela eta”. Beasaingo Udalak hala erabaki behar izan zuen²⁷⁰; eta apirilaren 22an erabaki honen ildoan beste urrats bat eman zuen: erreketen aldeko pilota-partida eta “espektakulu” denak, zergaz askeak izango zirela²⁷¹. Bestetik, 1937.eko azaroan Loinazko San Martinen konpainiako erreketen aldeko jaialdi bat ere antolatu zuen Beasaingo Udalak, kalejira, meza eta pilota eta futbol partidak egitarauaren parte izan zirelarik²⁷². 1938.eko martxoaren 24an, Oriamendi tertzioko buruak Beasaingo Udalari mantak bidaltzea eskertu zion²⁷³. Halako atentzioak ez ziren alferrik izan: 1938.eko abenduaren 17an Udal-Bilkuran irakurri zen moduan, Oriamendi tertzioaren kapitainak Beasaingo Udalari eskertu egin zion soldaduekiko “arreta”, eta jarrera hori zela eta Udala zoriondu zuen²⁷⁴.

Udalak ere zenbait bisitaldi egin zizkion Loinazko San Martinen konpainiari. Halako lehenaren berri otsailaren 11ko Osoko Bilkuran eman zuen Beasaingo Udalak;

²⁶⁹ BARRUSO BARES, Pedro: “La Falange en la formación...”, op. cit., 66. or.

²⁷⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

²⁷¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

²⁷² Beasaingo Udal Artxiboa. 3376 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

²⁷³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

²⁷⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

bisitaldiaz gain 150 pezeta eman zizkion konpainiari²⁷⁵. Beste bat 1938.eko apirilean egin zuen. Bigarren bisitaldi honen lekuko, Guridi alkateak orduko Loinazko San Martin konpainiako kapitain Enrique Porrasi bidali zion telegrama bat ere badugu, non Beasainetik Lleidako Llimianaranzko (hor baitzegoen Loinazko San Martinen konpainia) bidaiaren norabidea ere deskribatzen duen²⁷⁶. Hirugarren berria 1938.eko uztailaren 16an eman zuen Udalak, Jose Mendia Lasa zinegotzia bisitaldia egin zutenetariko bat izan zelarik. Mendiak azaldu zuenez, Loinazko San Martinen konpainian borrokan zeudenak, nahiko zuketan 1938.eko uztailaren 12an, Beasain altxatuek “askatu” (sic) zutenaren bigarren urteurreneko jaian ordezkari baten bidez presente egotea, ahal izan balute²⁷⁷; hala ere Joaquin Amenabar orduko kapitainak esan zuen ezinezkoa zitzaiela²⁷⁸. Udalaren zoriontzeak ez ziren soilik Loinazko San Martinen konpainiaren erreketentzat, 1938.eko azaroaren 8an, Alberto Ruiz Moriones Beasaingo plazako komandante izandakoa (aurreko kapituluan esan genuen uztailaren 27 eta 28aren artean gertatutako errepresio gogorra nolabait epeldu zuela, baina beste alde batetik hurrengo egunetako errepresioaren arduradunetako bat ere izan zen, hurrengo egunetan hilketak ere gertatu baitziren, gutxiago baziren ere), berriz zerbitzu militarra inkorporatzearen zoriondu zuen²⁷⁹ (Alberto Ruiz Moriones, 1940.eko uztailean, Gipuzkoako FET-JONSen Milizien buru zen)²⁸⁰.

Gudan zehar, Beasain hainbat gurutzabideren pasabidea izaki, oraindik tropen joan-etorriak zituen. 1936.eko irailean bertan agertu izan ziren Beasainen Urola eta Deba harenen kontrako erasoak egingo zituzten tropak. Tropa horien buru Solchaga zen, eta bi multzotan banatu zituen: alde batetik Iruretagoyenaren peko tropak (Latorre eta Cayuela lotinant-koronelak barne) eta beste aldetik Los Arcosen menpeko taldea (Diez de Rivera, Perez Salas, Tejero eta Saleta ofizialak barne). Perez Salasen tropak, Montejurra Tertzio erreketea batez ere (Armada erregularraren mendiko 8. Batailoiaz lagundurik) Beasaindik Astigarretarantz eta Mandubiarantz abiatu ziren, irailaren 21ean Azkoitia eta Azpeitia hartzeko, eta handik Soraluze eta Elgoibarrerantz egiteko²⁸¹. 1937.eko abenduaren 18an, Udalak jakinarazi zuen Nafarroako 5. Brigadaren lotinant-

²⁷⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

²⁷⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. F008 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

²⁷⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

²⁷⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 14 dokumentu-sorta.

²⁷⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 3190 karpeta, 49 dokumentu-sorta.

²⁸⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

²⁸¹ AROSTEGUI, Julio: *Combatientes requetés en la Guerra Civil Española (1936-1939)*. La esfera de los libros. Madril, 2013, 173-174. eta 235-236. or.

4. kapitulua

koronelak esker oneko telegrama bat bidali zuela “gure atsedeen-egonaldian zehar herritarren aldetik tratua jaso izanagatik”²⁸².

Bestetik, 1937.ean zehar gutxienez, Beasainen gainetik ere hegazkinak pasatzen ziren. Jabier Garcia Bergara lekukoak badu horren berri: “Ordiziatik Bergararantz hegazkinak pasatzen ziren, altxatuei Bizkaiko frontea puskatzeko laguntzeko. Oso baxu pasatzen ziren, herriaren 20 metro gainetik edo”²⁸³. Udan badakigu asko pasatzen zirela, 1937.eko abuztuaren 21ean, Alberto Ruiz Moriones komandante militarrek Beasaingo Udalari eskatu baitzion “Beasainen gainetik pasatzen ziren hegazkin guztiak kontrolatzea, batez ere gauez pasatzen badira, eta zerbait erortzen uzten badute hura ikustea”²⁸⁴.

Beasaingo Udalak, erreketen beasaindar zaurituen erietxe-aldia ere ordaintzeari ekin zion. Adibidez, 1937eko apirilaren 17an, Felix Mendia Mendia eta Sebastian Zurutuza Urquia San Antonio Abad erietxean sartu zirela komunikatzen du Beasaingo Udal-Bilkurak. Bi erreketen erietxe-aldia Udalak ordaindu zuen²⁸⁵. Honek erakusten du Udalak Lonazko San Martinen konpainiarekin zuen harremana oso estua zela. Bana horiek ez ziren izan Beasaingo Udalak altxatuen tropei egin behar izan zizkion ordainketa bakarrak: 1938.eko abendua artean guztira 38.677,30 pezetako faktura pasatu zion Armadak Udalari, horietako 15.851 “Beasain askatzearen” izan ziren, 13,327 “tropen atsedengatik” eta 10.498 “presoak mantentzearen”²⁸⁶. Udalak faktura hauetako asko partikularrei ordaindu behar izan zizkien, behin hauek Armadari zerbitzua emanda, Udala hauekin zorretan geratu baitzen. Udalak ezin zuen hau dena berak bakarrik ordaindu, izan ere, dagoeneko 1938.eko urtarrilean (hau da, oraindik aurreko zifretara, 1938.eko abenduan eman zirenetara, heldu ez ginenean) CAFi laguntza eskatu zion “Beasaina destinatutako 15.000 Armadako gizonen egin duten gastua, 30.000 pezeta baino handiagoa dena” ordaintzen laguntzeko²⁸⁷. Fakturen aferak zenbait gora-behera egingo zituen Beasaingo udalaren eta herritarren artean, Udalak ez baitzituen soldaduen gastu guztiak ordaintzen, batez ere hauek Beasaindik at bazeuden (beraz ondoriozta dezakegu, Beasaingo Udalaren aurrekontuarentzat karga handia zela

²⁸² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

²⁸³ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

²⁸⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 30 dokumentu-sorta.

²⁸⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta; Beasaingo Udal Artxiboa. 545 karpeta, 56 dokumentu-sorta.

²⁸⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. A034 karpeta, 07 dokumentu-sorta.

²⁸⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 3190 karpeta, 48 dokumentu-sorta.

soldadu hauen gastu guztiei aurre egitea). Adibidez, martxoaren 4ko Udal-bilkuran, Beasaingo bi farmaziek, Sagarminagarenak eta Jaureguirenak, Udalari soldaduei eta erreketeei zegozkien faktura batzuk pasatu zizkiotela jakinarazi zen, baina Udalak esan zuenez “gastu horri aurre egitea ez zegokion Udalari (...) Jose Salsamendi erreketearen kasuan ezik, honek bizi duen famili egoera prekariora dela eta”²⁸⁸. 1939.eko maiatzaren 11n, Antonio Sagarminagaren alargunak (momentu horretan Sagarminaga farmaziaren jabea zenak)²⁸⁹, oraindik soldadu hauengatik jaulkitako fakturak Udalak ordaindu behar zituela erreklamatzeko, Udalak gehiago erreklamatzeko ez zituela komunikatu ez omen zuelako. Udalak berriz ukatu zuen halako fakturak ordaintzearen beharra bere bizkar zegoenik, jada jakinarazi zuela baldintza aldaketaz²⁹⁰.

Azkenik, Beasaingo Udalak altxatuen alde hildako soldaduei emandako tratua dugu. 1937.eko urtarrilaren 7an, Simon Balerdi Albisu beasaindar soldadua hil ostean, Beasaingo Udalak erabaki zuen beasaindar soldaduen gorpuak Udalaren diruarekin Beasaineratzea (Udal-Bilkura horretan Udalak Balerdiren aldeko elizkizuna antolatze erabaki zuen, baina aurreko kapituluan esan dugun bezala, Balerdiren kasua ez zen halako kasuetan lehena)²⁹¹. 1937.eko apirilean, Justo Aguado Baza praktikantea eta erreketeei alfereza hil zenean, bere gorpua hiletaren aurretik Beasainen desfilatu zuten, Guridi alkatea bera hiletan inplikatu zelarik²⁹². Hala ere, Teruelgo frontean hil ziren Loinazko San Martineko konpainiako zazpi erreketerekin (horietako batzuk, ez denak, beasaindarrak), Beasaingo Udalak askoz ere harrera apalagoa egin zuen: 1938.eko urtarrilaren 22an hartutako akordio baten arabera, familiakoei dolumina ematera mugatu zen Udala²⁹³. 1938.eko otsailaren 12an Juan Rezusta Irastorza erreketeei beasaindarra hil zenean ere, Udala doluminak ematera mugatu zen²⁹⁴. Baita ere 1938.eko ekainaren 4an, Gonzalo Altolaguirre Arana, osaba Pedro Arana Gaiztarro zinegotzi zuen erreketeei hil zenean²⁹⁵. Ez dakigu zergatik gertatu zen urte horietan hildako soldaduekiko

²⁸⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

²⁸⁹ Izen horrekin aipatzen dute Udal-bikuraren aktan. (Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta).

²⁹⁰ Udalak bere defentsan esan zuen Domingo Jaureguiren farmaziak ez jada ez zituela halako fakturarik Udalari luzatzen, baldintza aldaketaz jabetu zelako. Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

²⁹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

²⁹² Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

²⁹³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

²⁹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

²⁹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta. Gonzalo Altolaguirreren beste osaba bat (Pedro Arana zinegotziaren anaia) Serafin Arana Gaiztarro zen, 1931.ean zinegotzi errepublikano aukeratua izan zena, 1934.eko Udan dimititu ez zuen bakararra, 1934.eko abuztu eta urri artean jarduneko

4. kapitulua

omenaldien apaltzea: agian 1938.ean guda hasieran sute zutena baino luzeagoa suertatzen ari zenez, heriotza kopuru handia aurreikusten hastea eta aurrekontuak gainezka egitearen beldurra izan zitekeen, edo baita 1938. urtearen hasieran Beasaingo Udalan nagusitzen ari zen apatia giroa (Bilkuretara zinegotzi gutxi joaten zen).

Hala ere, 1938.eko erdialdera, berriz Udala hildako (altxatuen aldeko) soldaduen hiletetara berriz joaten hasi zen. Jarrera zahar-berriaren legen salbuespena 1938.eko ekainaren 18an, Iruñean izan zen Beasaingo plazako komandante militar izan zen Antonio Martinez Anozen (hau ere Teruelgo frontean hila) hileta dugu, hileta hartara Beasaingo Udalaren ordezkari izan zela; kasu honetan hildakoaren kargua jo dezakegu salbuespenaren “eragiletzat”²⁹⁶, baina 1938.eko uztailaren 2an, Juan Blas Albisu erreketearen hiletan ere Udala hiletara ordezkari izarekin azaldu zen²⁹⁷, eta baita ere, uztailaren 16an argitaratu zuenez, Enrique Garijoren hiletara²⁹⁸. (1938eko abuztuaren 20an jakinarazi zuten Rufino Zufiaurre eta Jose Maria Aguirrezabal –azken hau garindarra- erreketek hil zirela; eta hauek hileta “ohiko moduan egin zen” esaldi ambiguoarekin deskribatu zuen Udalak)²⁹⁹.

1939.ean, berriz itzuli zen Udala hildako soldaduen alde adierazpen “apaletara” mugatzera: 1939.eko urtarrilaren 19an, Pedro Zaldua Urquiola eta Jose Lahidalga Lopez erreketek eta Damian Sarasola Echave soldaduek hil zirenean, Udala “familiar doluminak bidaltzera” hertsitu zen³⁰⁰. Behin guda bukatuta, 1939.eko abuztuaren 22an, Beasaingo udalak, doluminak eman zizkion baita ere frontean hartutako gaixotasun baten ondorioz Cuencako espetxean hil zen Pedro Esnaola Arregui erreketearen familiari³⁰¹. Esnaola Arreguiaren kasuan, Udalak hileta antolatuko zuela esan zuen, “baina halako kasuetan” (hau da, frontetik at hil diren pertsonetan) salbuespen bat izango zela “azken finean, frontean gaixotu baitzen”³⁰².

Batzuetan halako omenaldiak Beasaingoak ez ziren soldaduen alde ere egin ziren, adibidez, Javier de Borja Arteaga lazkaotarraren alde (Arteaga, Lazkaoko Infantadoko Dukearen Semea zen). Omenaldia egitea ekainaren 6an onartu zuen, beraz

alkate izan zena, eta 1934.eko urritik 1936.eko otsaila artean Manuel Perez alkate eskuindarrarekin zinegotzi-sindikoa izan zena.

²⁹⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

²⁹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

²⁹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

²⁹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

³⁰⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

³⁰¹ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

³⁰² Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

pentsatzekoa da Arteaga 5ean hila izan zela, Bizkaiko frontean. Arteagaren heriotza zela eta Beasaingo Udalak Ohizkanpoko Bilkura bat deitu zuen puntu hori bakarrik tratatzeko, eta Bilkura horretan Lazkaon egin beharreko hiletan (ekainaren 6an bertan), Lazkaora Udal ordezkari bat joatea proposatu zuen Udalak³⁰³. Baina Teruelgo frontean Infantadoko dukearen beste seme bat, Jaime Arteaga hil zenean, Beasaingo Udala familiari doluminak ematera mugatu zen. Ikusten dugun bezala 1938tik aurrera gertatutako heriotzetan, hauen aldeko omenaldien tamaina txikitzen hasi zen³⁰⁴. 1939.eko urtarrilaren 19ko Udal-bilkuran, Joaquin Amenabar Cortajarena Loinazko San Martinen erreketeko konpainiako kapitaina hil zenean, Udalak Jaime Arteagarekin eginiko berdina egin zuen: familiari “sentimendua” helarazi³⁰⁵. Beste kasu esanguratsu bat, Beasaingo plazako komandante militar izan zen Alberto Ruiz Moriones 1945ean hil zenean, Beasaingo Udalak bere gorpuaren desfilea antolatzea, eta 1945.eko uztailaren 6an bere alde egin zen mezataria herritarrak gonbidatzea izan zen³⁰⁶.

Bestetik, altxatuen aldeko zenbait pertsona eskuindar ezagunei ere omenaldia egin zien Beasaingo Udalak. Aurreko atalean komentatu genuen, eta geroago ere komentatuko dugu zehatzago, 1937.eko ekainaren 13an Emilio Mola jeneralaren aldeko hileta antolatu zuela Udalak³⁰⁷. 1938.eko azaroan, Udalak, Ramon Franco lotinant-koronela (Francisco Francoren anaia) hil zela eta Udalak doluminak ematea erabaki zuen³⁰⁸. Jose Antonio Primo de Riverarekin, hau hil eta bigarren urteurrena hurbiltzen ari zelarik, Elizan honen aldeko hileta-meza bat antolatu zuen Udalak³⁰⁹. Kasu honetan, Estatuak egiten zituen ospakizunak kontuan izanik, ospakizun honek nahiko apala ematen du, baina ezin dugu ahaztu Beasaingo udalaren kide gehienak karlistak zirela, ez falangistak, eta falangisten eta karlisten arteko lehia politikoa altxatuen barne ezkutuan, baina pil-pilean zegoelarik, ospakizunetan ere hau nabari egiten zela³¹⁰. 1939.eko otsailean, Beasaingo Udalak Francisco Franco bera zoriondu zuen Bartzelona konkistatu zuela eta, izan ere, 1939.eko otsailaren 11ko Udal-bilkuran, Francoren idazkariak eskerrak ematen zuen telegrama bat bidali zuela jakinarazi zuen Udalak³¹¹. Bestetik,

³⁰³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

³⁰⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

³⁰⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

³⁰⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 60 dokumentu-sorta.

³⁰⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 3186 karpeta, 22 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 09 dokumentu-sorta.

³⁰⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

³⁰⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

³¹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

³¹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

1939.eko apirilean Francisco Franco altxatuen Estaburuari beste zoriontze telegrama bat bidali zion Beasaingo Udalak, “gudan lortutako garaipena zela-eta”³¹². Askoz ere sona handiagoa izan zuen ordea, 1939ko azaroan, Jose Antonio Primo de Riveraren heriotzaren hirugarren urteurrenako ospakizunak. Egun horretarako, 1939ko azaroaren 20rako, Udal-agintariek, haren aldeko mezarara joatea, herriko milizien desfile militarra antolatzea, eta Elizan Primo de Riveraren eta gudan Francoren alde hildako beasaindarren izena zeraman harrizko plaka bat jartzea erabaki zuten (Espainiako Estatuko herri guztietako Elizetan jarri zirenen antzekoa, izenburuan *Caídos por Dios y por España* jartzen zuena)³¹³. 1940ko maiatzaren 18an, Ana Arana Gaiztarrok (egun batzuk lehenago hil zen alkateorde Pedro Aranaren eta Serafin Arana zinegotzi-ohiaren arrebak), Eliza-atarian gudan hildako beasaindarren izenak zituen plaka jartzea proposatu zuen gastuak bere gain hartuz eta Udalak onartu egin zuen³¹⁴. Dirudenez, Udalak 1939an hartutako erabakia gauzatzeko ondo etorri zitzaion Ana Aranaren eskaintza. Plaka hori urte askotan zehar egon zen Eliza-atarian eta, urte askotan zehar, urtero, azaroaren 20an, Primo de Riveraren eta gudan Francoren alde hildakoen aldeko meza Elizan eman ondoren, errespontsua errezatzen zuten Eliza-atarian; eskola-umeak ere bertara joanarazten zituzten eta amaieran *Cara al Sol* kantatzen zuten. 1970.eko hamarkadan, lehegailu batek puskatu zuen plaka eta berriro ez zen halakorik jarri. Bestalde, 1940ko azaroaren 16an, udalak, hilerrian “eroritakoei” (altxatuen alde gudan hildakoei) monumentu bat egitea ere adostu zuen eta hura egiteko batzordeko kide izan ziren Guridi alkatea eta Cerrajería eta Ezquiaga alkateordeak³¹⁵. Halako plakak, jakina, Beasainen guda galdu zutenek ez zituzten ondo ikusten, ez eta plaka horietan agertzen ziren hildako batzuen familiek ere, batez ere “martiri” horiek, boluntarioak ez baizik eta bortxaz eramandakoak zirenean. Hala gertatu zen adibidez Jose Usabiaga Mugicaren kasuan, bera erreketek behartuta eraman zuten gudara eta Bizkaiko frontean hil zen. Bere familiak ez zuen ondo ikusi erregimenak bera modu horretan omentzerik eta Arantza Ibaibarriagak dioen moduan “gure aitonari (Pedro Usabiaga, Joserren aitari) min handia ematen zioten halako omenaldiek”³¹⁶.

³¹² Beasaingo Udal Artxiboa. 3186 karpeta, 62 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

³¹³ Beasaingo Udal Artxiboa. 3186. karpeta, 60. dokumentu-sorta.

³¹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.

³¹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 20. dokumentu-sorta.

³¹⁶ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean. Arantza Ibaibarriagaren arabera “osaba Joxeren argazkia gure etxe

1940.eko ekainaren 6an, Gipuzkoako Gobernadore Militarrak, zenbait beasaindar karlista Armadako “ohorezko lotinant” izendatu izan zirenaren komunikazioa pasa ziola jakinarazi zuen Udalak. Beasaindar hauek, Jose Insausti Zufiaurre, Jose Martin Arcelus Amiano, Jose Antonio Peñagaricano Jauregui, Pedro Antonio Echezarreta Ganzarain, Jose Antonio Sasian Lasa eta Juan Francisco Aguirre izan ziren. Hauek izendatzeko ekitaldia, uztailaren 7an, Loinazko San Martinen basilikan egitekotan geratu zen Udala, konpainiaren banderina entregatu behar zizkielarik³¹⁷. Ekitaldi horietara, Gipuzkoako FET-JONSeko milizien komandante eta Beasaingo plazako komandante ohi Alberto Ruiz Moriones, Oriamendi tertzioaren komandante Gimenez, Oriamendi tertzioaren apaiz Jesus Ruiz, Oriamendiko bigarren konpainiako (Izaskun) kapitain Carrere, eta Oriamendi tertzioko laugarren konpainiako (Loinazko San Martin) David Gonzalez Romero gonbidatu zituen Udalak³¹⁸. Ekitaldi horretarako Beasaingo udalak, Tabako Konpainiako Donostiako ordezkari zari puroak ere eskatu zizkion (komentatu izan dugu herrian zegoen pairamen ekonomikoa zer moduzkoa zen)³¹⁹. Jesus Ruiz hura, 1944.ean hil zen, Burgosen apaiz zela; hildakoan, 1944.eko apirilaren 28ko Udal-bilkuran Francisco Ezquiaga zinegotziak, Udalak Beasaingo parrokan bere alde egingo zen mezan egotea proposatu zuen, udalaren onarpenaz (egun horretan herriaren bandera parrokan jartzea ere onartu zuen Udalak)³²⁰. Baina Armadaren presentzia ez zen soilik jai “politikoetara” mugatzen, askotan ere jai “zibiletara” zabaltzen zen (kontuan izanik Estatu berriaren oinarrietako bat Armada bera zela, Armadaren gehiegizko erakuste hau Estatuaren tresna ideologiko bezala interpreta daiteke): 1944.ean, dakigunez, Loinatz jaietan, San Martinen basilikarako prozesioan Lazkaon zegoen Armadaren Artilleriako 20. Erregimenduak parte hartu zuen³²¹.

Banakako erreketei baino, kolektibo osoari eginiko omenaldiak ere izan baziren: 1938.eko maiatzaren 7ko Udal-bilkurak, Udalak, Oriamendi tertzioko soldaduen emazteen kolektiboak Beasaingo Udalak Lasarteko Oriamendi mendian tertzioaren omenez jarriko zen monumentu baten lehen harria jartzeko ekitaldira

sukaldean urteetan eta urteetan egon zen, guk urtero ospatzen genuen Jose deuna”. Horren bidez badirudi, familiak “memoriaren berreskuratze-prozesu” bat, arlo pribatuan bada ere, hasi nahi izan zuela.

³¹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

³¹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 67 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

³¹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 67 dokumentu-sorta.

³²⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 17 dokumentu-sorta.

³²¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 17 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

gonbidatu duela jakinarazi zuen. Udalak bertara joateko asmoa erakutsi zuen³²². Bestalde, aurreko kapituluan jada aipatu dugu 1939.eko Loinatz jaietan Beasaingo Udalak gogo berezia jarri zuela Loinazko San Martinen konpainia present egon zedin, baita lortu ere: Loinazko basilikara prozesioa eta omenezko herri-bazkaria antolatu ziren, CAFi erreketek Terueldik ekartzeko kamioiak eskatu zitzaizkiolarik. Ideia honen hastaileak Francisco Unzueta eta Francisco Ezquiaga zinegotziak izan ziren, hura proposatu baitzuten 1939.eko apirilko 17ko Udal-bilkuran³²³. Prozesio horretan eginiko argazkiak, Martin Esnaola zinegotziak 1939.eko abenduan egin zuen proposamen bati jarraiki, Loinazko San Martinen konpainiako buru Epifanio Arguiñanori ematea erabaki zuen Udalak³²⁴. Halako azken omenaldia, 1950.eko eta 1960.eko zabalkundean egin zen kale bati “Oriamendi Tertzioaren Kalea” jartzea izan zen (Loinazko San Martinen konpainia tertzio honen parte zen)³²⁵. Egun, kale hori “Oriamendi Kalea” deitzen da³²⁶.

Altxatuen aldeko soldaduen familiek, txiroak baziren, subsidio bat eskatzeko eskubidea ere izan zuten. 1937.ean 25 soldaduren familiari eman zioten subsidio hori, nahiz eta 25 horietatik biren familiei ordaintzen utzi zioten (soldaduak etxera itzultzean) eta beste bi (Ramon Zabaleta Guerrico eta Vicente Lasa Mendia) garairako hilak ziren³²⁷. Hala ere, subsidio hori ez zitzaien eman eskatu zuten guztiei, bost soldaduren familiei ukatu egin zitzaien (Juan Iraeta Goicoechea, Jose Maria Mendizabal Echezarreta, Atanasio Ezcay Arribas, Rufino Mora Risueño eta Justo Gochicoa Fernandezen familiei), soldaduok, altxatuekin egon aurretik gorriekin egonak izan zirelako³²⁸. 1938.ean beste bost familia subsidio hau jasotzen hasi ziren, eta lauk jasotzeari utzi egin zioten (lau kasuetan, familiako bat lanean hasi zelako). Horrenbestez, 26 familiek jasotzen zuten subsidioa 1938.eko irailaren 10eko dokumentu

³²² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

³²³ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

³²⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta. Akta honetan, Arguiñano, burua izan arren, jada lotinant bezala agertzen da, ez kapitain bezala.

³²⁵ Mila Mendiak gogoratzen duenez: “ni txikitan joan nintzen kale hortara bizitzera. Momentu hartan uste nuen izen inozente bat zela, baina gero konturatu nintzen izen hori ez zela hain inozentea”. Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

³²⁶ Franco hil osteko hurrengo urteetan kale honen izena aldatu nahi izan zuten “Oriamendi” izena behin betiko kenduz, baina “Izen aldaketak dakartzan molestiak” tartean; azkenean “Tercio de” hitzak kendu egin zituzten, “Oriamendi kalea” utziz. Izen berrirako argudiorik errepikatuena “Oriamendi Gipuzkoako mendi bat dela” da, behin “Tercio” kontzeptua kenduta bere konnotazio militar-karlistak galduko zituzkeela eta. Hala ere, argudio zalantzarria da, Oriamendi, Gipuzkoan dauden mendi guztien artean ez baita esangura bereziko mendia, beraz, izen hori mantentzea aurreko izenagatik da.

³²⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. A075 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

³²⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. A075 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

baten arabera³²⁹. Urtebete geroago 19 familiek jasotzen zuten subsidio hau, nahiz eta batzuen kasuan (Adibidez Andres Chinchurreta senide eskatzailearen kasuan), sei hilabete baino gehiago kobratzen egonagatik zerrendatik kendu³³⁰. Subsidio hau zauritutako soldaduek ere jaso zezaketen, adibidez, 1941.ean sei pertsona zeuden gudan altxatuen alde zaurituak izan zirela eta subsidioa jasotzen eta berdin egin zen Dibisio Urdinean borrokatu zuen Jaime Lopez de Parizaren kasuan.

Honez gain, Beasaingo udalak berak, frontean zeuden tropa altxatuei laguntzeko zerga berezi bat ezarri zuen 1937.eko ekainaren 14an (hala ere, bandoa zetorren forman, ematen du beste nonbaiten inprimatua eta hainbat herritan banatua izan zela). Zergak tabakoaren, espektakuluen, tabernetako edarien, ostatuen eta perfumeen gain jarri ziren, eta %6 eta %10 artean kobratzen ziren³³¹. Gainera, 1937.eko uztailaren 31ko bando baten arabera, Beasaingo Udalak, diru-bilketa antolatu zuen armadarako dirua biltzeko³³². Gainera, 1937.eko matxoan esan bezala, Jose Luis Guridi alkateak, 1937.eko maiatzaren 13an, arrazionamendutik herritarrei janariaren parte bat deskontatzea erabaki zuen, hona bideratu behar zena frontera bideratzeko: astelehenak “postrerik gabeko egun” izendatu zituen, eta ostiralak “plater bakarraren egun”³³³. Ez zen izan Udala Francoren Armada diruz lagundu zuen erakunde Beasaindar, bakarra, CAFek adibidez, gudan zehar 356.887 pezeta bildu zituen Francoren armadaren alde (eta oro har, gudan Francoren armadak zituen beharren alde), enpresak 1939.eko maiatzaren 27ko dokumentu batean esan zuenaren arabera³³⁴.

Hirugarren kapituluan esan bezala, Beasaingo Udalak Beasainen okupazioa “ospakizun” arrazoi bezala hartu zuen; hori zela eta, 1937.eko uztailaren 15ean, 1937.ean eta 1938.ean uztailaren 27a jaiegun bezala deklaratzeko erabaki zuten³³⁵. Ospakizun horretan, Franco altxatuen burua, Moriones komandantea eta Nafarroako Aldundia zoriondu zituzten (bat indar erregularren ordezkarietatik eta bestea erreketen ordezkarietatik). aurkeztutako mozioak, uztailaren 27 “gure herriaren

³²⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. A075 karpeta, 04 dokumentu-sorta. Ekaineko beste dokumentu baten arabera, 28 familiek jasotzen zuten subsidioa.

³³⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. A075 karpeta, 03 dokumentu-sorta. 1939.eko apiriletik aurrera, behin guda bukatuta, zerrenda honben bitartez zaila zen nortzuk ziren borrokalari ohiak, eta nortzuk hauen senideak bereiztea, borrokalari ohi asko jada herrian zeudelarik, eurek zuzenean eskatzen baitzuten laguntza.

³³¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 34 dokumentu-sorta.

³³² Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 35 dokumentu-sorta.

³³³ Beasaingo Udal Artxiboa. A083 karpeta, 07 dokumentu-sorta.

³³⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 525 karpeta, 46 dokumentu-sorta.

³³⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 48 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

historian grabatutako eguna izatea nahi dugu” jartzen zuen, eta horretarako, uztailaren 27 urteroko jaiegun ospatzea, Beasaingo lantegiei egun hori jaieguna zela komunikatzea, eta herritarrei balkoietan Espainiako bandera jartzera “gonbidatzea” proposatzen zuen³³⁶. Horrez gain, egun hau ospatzeko 10etan Elizan meza eta honen ostean, Nafarroa Etorbidean (mozioaren arabera, “bertatik sartu ziren nafarrak (erreketeak) gure herria askatzera”), agintarien aurreko desfilea egin ziren, eguna Benefizentzia etxean egin zen herri bazkari batekin bukatu zelarik (Udal-Bandak ere jai honetan parte hartu zuen)³³⁷. Lantegien aldetik, CAFek baiezkotan erantzun zion Udalak proposatutakoari, uztailaren 27an jai eginez “Aberriaren eta Armada Nazionalaren aldeko jai guztietan laguntzeko desioa” erakutsi zuelarik³³⁸. Beasaingo okupazioa hurrengo urteetan ere ospatua izan zen.

Armadak ere, herritar batzuei euren ondasunak errekitaszen zizkien, euren onurak betetzeko. Adibidez kamioiak kendu zizkieten Antonio Gorrochategui Garmendiari, Candido Arratibel Echeverriari eta Juan Goicoechea Izaguirreri (azken bi hauek ataundarrak, baina Beasainen jarri zuten kexa). Kamioiok, Donostian, armadaren autoen parkean zeuden, eta kamioien jabeek itzultzeko eskatu izan zuten, familia aurrera ateratzeko lanerako behar zituzten eta³³⁹. Beste alde batetik, Martin Jauregui Echezarretak 1936.ean txahal bat armadaren betebeharrarako sakrifikatu behar izan zuela eta, 335 pezetako indemnizazioa eskatu zuen 1937.eko urriaren 6an³⁴⁰.

Beste alde batetik, tropekin zerikusi handia ez bazuen ere, Gudarekin izan zuen, Beasaingo Udalak, 1937.eko urtarrilaren 21ean, hil horren 4ean Bilbon jazotako Larrinaga kartzelako eskuindar presoek herritar asalto gaitzetsi zuen, asalto horretan Jose Orueta, “Beasainen sustraiak zituena” hil baitzuten.Orueta CAFeko zuzendari izan zenaren semea izan zen.

Hala ere, altxatuen aldeko tropekiko Udalaren jarrera hau, bazirudien Beasaingo herritarrek ez zutela partekatzen, eta nolabait, “erresistentzia pasibora” ere emanak izan zirela. Adibidez, 1938.eko uztailaren 1ean, Beasaingo Goardia Zibilaren komandante berriak, esan zuen tropek errepidetik pasatzerakoan herrigunea zeharkatu behar zutenean, herritarrek “batzuetan utzikieratik, eta besteetan asmo txarrez”, geldiro joaten

³³⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

³³⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

³³⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 2941 karpeta, 40 dokumentu-sorta.

³³⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 080 karpeta, 12 dokumentu-sorta.

³⁴⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 080 karpeta, 12 dokumentu-sorta.

zirela, tropen abiada motelduz. Goardia Zibilaren komandanteak, halako herritarrentzat zigorrak ezartzea eskatu zuen³⁴¹.

Baina Beasaingo udal frankistak Estatu berriarekin zuen konpromezua, Guda Zibilaz landa ere joan zen. 1941.eko irailaren 19an Dibisio Urdinarentzat 100 pezeta eman baitzituen Beasaingo Udalak. Dibisio Urdineko soldaduak zeramatzan tren Beasainik pasatzerakoan ere, Beasaingo udal-bandak jo egin zuen. Beasainen ongietorria egin zitzaion Sobiet Batasunetik bueltan zetorren boluntario falangisten trenari (1942.eko maiatzean (dokumentu ezberdinen artean 13 larunbatean, edo 24 igandean) goizean, iritsi zen tren Beasaina), baina ez zen izan herriaren ongietorri espontaneo bat, baizik eta politikoki zuzendutako ongietorri bat: hain zuzen, aurreko egunean, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak telefonema bat bidali zion Beasaingo alkateari, iritsiera-ordua komunikatuz eta horrez gain, “Ongi-etorri beroa prestatzeko (...) eta horretarako baliabide guztiak aktibatzeko” aginduz (hor, eskolako ume guztiak –eskola publikoetakoak, zein mutikoen eskolakoak zein neskatoen eskolakoak- harrera egitera behartu zituzten bertara joatea agindu zuten)³⁴². 1942.ean beste dirubilketa bat izan zen, azaroan antolatu zen. Kasu honetan, Udalak dirua jarri zutenen zerrenda publiko egin zuen, beraz suposatzen dugu, hau zeharka bada ere, dirua ematen ez zutenen edo emateko asmorik ez zutenen kontrako presio neurri bat ere bazela. Abenduan, diru-bilketa horrek 1.281,50 pezeta jaso egin zituela publiko egin zen. Gehien jarri zutenak, enpresariak izan ziren, Quifosako jabe Pablo Hunolt Aranak 50 pezeta jarri zituen, Industrial Feretera enpresak 100 pezeta, eta Bernedoren fabrikak 200 pezeta. Hain donazio handiaren atzean (gogora dezagun Victor Bernedo kartzelan preso zegoela), fabrika hau erregimen berriarekin “adiskidetzeko” edo behintzat “etsaitasuna xumetzeko” modu bezala ikus zitekeen³⁴³ (1943.eko urtarrilaren 15ean Gipuzkoako Gobernari Zibilak galdetu zuen ea subskripzio hau egina zen ala ez, Udalak baietz erantzun zion, beraz, honengatik, ondoriozta dezakegu Beasaingo Udalak, kasu honetan Gipuzkoako agintariak baino “grina handiagoa” erakutsi zuela erregimenarekin bat egiteko³⁴⁴).

³⁴¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 79 dokumentu-sorta.

³⁴² Beasaingo Udal Artxiboa. 3189 karpeta, 25 dokumentu-sorta.

³⁴³ Beasaingo Udal Artxiboa. 063 karpeta, 18 dokumentu-sorta.

³⁴⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 18 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

Dibisio Urdinarekin borrokatu zuten zenbait beasaindar ere egon ziren³⁴⁵; guk lauren kasua ezagutzen dugu: Feliciano Torquemada³⁴⁶, Jesus Arguiñano³⁴⁷, Jose Estevez eta Jaime Lopez de Pariza³⁴⁸ hain zuzen (bestalde, II Mundu Gudari eta Alemania naziarekiko harremani buruz, anekdota bezala, Jabier Garcia Bergarak kontatu diguna plazaratu dezakegu: alemaniarrek, nonbait Idiazabalen, Etxegarate aldean neurketak egiten ibili zirela³⁴⁹). Gainera, Lopez de Pariza zauritua izan zen, eta 1943.ean zehar, Udalak izter ortopediko bat erosten laguntzea eskatu zuen.

Behin guda pasatuta ere, Beasainen bertan “gudaren hondarrak” ikusten ziren. Horietako bat, Defentsa Pasiboa zen. Honek argi uzten zuen erregimenaren militarizazioa, bake-garaietan ere “badaezpadako gorputz zibil mobilizagarriak” antolatuta baitzeuden. 1942.ean, Beasaingo Defentsa Pasiboko burua Martin Esnaola alkatea zen, idazkaria Juan Urcola (Bernedoko ingeniaria) eta zuzendaritzako kide iraunkorrak Francisco Unzueta (FET-JONSeko burua), Hilario Urteaga Otegui (medikua eta osasun-ikuskaria), Francisco Otaegui Ugarte, Gonzalo Arizmendi (aparejadorea), eta Jose Otegui Zatarain. Behin-behineko zuzendaritzaren parte ordea, Ricardo Ardura Goñi (Sindikatu Bertikalekoa), Francisco Castro Yañez (CAFeko ingeniaria), Jose Maria Egoscozabal Frances (CAFeko ingeniaria), Mariano Lopez Martinez (*Quifosako* ingeniaria) eta Melchor Garcia Josa (udaltzainburua) izan ziren³⁵⁰. Halere, urte batzuk beranduago (datatu gabeko dokumentu batean), zuzendaritza aldatua agertzen zaigu: buru bezala Martin Esnaola alkatea agertzen zitzaigun, eta idazkari gisa, Udaleko idazkaria, Jose Veriztain. Zuzendaritzako kide iraunkor gisa, Hilario Urteaga Otegui medikua, FET-JONSeko buru Francisco Unzueta Jauregui, Francisco Otaegui Ugarte suhiltzailea, Jose Luis Guridi alkate ohia eta obren kontratista, Gonzalo Arizmendi Olave aparejadorea, Eustasio Ayestaran Irastorza Udal-iturgina, “prentsa arduradun” Ricardo Ardura Goñi (Sindikatu Bertikaleko kidea zena), CAFeko ingeniari Francisco Castro Yañez, Bernedoko ingeniari Juan Urcola Ansola, *Quifosako* ingeniari

³⁴⁵ Dibisio Urdinari buruzko informazio handiagoa izateko, ikus: NUÑEZ SEIXAS, Xose Manoel: *Camarada invierno. Experiencia y memmria de la División Azul (1941-1945)*. Critica. Bartzelona, 2016; eta MARTINEZ REVERTE, Jorge: *La División Azul. Rusia, 1941-1944*. RBA. Bartzelona, 2011.

³⁴⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 1171 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

³⁴⁷ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

³⁴⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 18 dokumentu-sorta; eta Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25. Joxe Apalategik Jesus Arguiñano eta Jaime Lopez de Pariza aipatzen ditu.

³⁴⁹ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

³⁵⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 2362 karpeta, 05 dokumentu-sorta.

Mariano Lopez Martinez eta “argien arduradun” Jose Otegui Ganzarain zeuden. Behin-behineko zuzendaritzako kide moduan, CAFeko ingeniari Jose Maria Egoscobal Frances, Melchor Garcia Josa udaltzainburua, FET-JONSeko idazkari Evaristo Herrera Gorrochategui eta Udaleko sobrestante Feliciano Arizmendi Echenique ageri ziren.

Defentsa Pasiboaren eginbearra “gudarako baliagarri izan zitezkeen zeregin zibilak” aztertzea zen, adibidez, ezbeharren aurrean ebakuazioa. Gipuzkoako Gobernadoreak, Gipuzkoako “Defentsa Pasiborako Batzordearen” bidez, 1944.eko maiatzaren 15a bezalako data berantiar batean komunikatu zion Beasaingo alkateari “zonalde horretan babeslekuak eraikitze arduradun, Jose Antonio Elizalde Cordoba arkitektoa” izendatua izan zela. Elizalde ekainaren 15ean gerturatu zen Beasaina “babeslekuak egiteko toki posiblea ikuskatzeko”³⁵¹. Bestalde Defentsa Pasiboaren lana suteen kontrakoplanak (ebakuazioa eta prebentzioa) aurreikusten ere zentratzen zen, baina betiere ikuspuntu militar batetik: 1945.eko azaroaren 1eko ebakuazio gidoian, “hiri-populazioarekin” batera (Beasaingo 4.000 pertsonetan kalkulatu zuten), populazio horrekiko zenbatekoa zen “mobilizagarri (%40 estimatu zuten) eta zenbatekoa zen “industriari militarrekin” (%20) kalkulatu zuten ere kontuan hartzen zen (beraz, beste %40a, 1.600 pertsona, ebakutzeko kalkulatu egin ziren)”³⁵². Bestetik, Iñaki Egaña historiagileak jakinarazi digunez, Beasainen hildakoetako bat, Justo Aguado Baza, Erorien Harana (*Valle de los Caídos*) delakora eramatu zuten, han ehortzita zatekeelarik³⁵³.

4.4.b) Francoren bisitaldia Beasainera

Francoren diktaduraren garaian, tokiko agintari zein fakzio guztien artean, helburu bat zegoen: “boterearen erdigunetik” aintzatetsiak izatea, eta hala, fakzioen edota tokiko agintarien artean, nolabaiteko “hegemonia” lortzea (fakzioei dagokienez, berekiko nolabaiteko dependentzia hori Francok oso ondo baliatu zuen fakzio guztien autonomia anulatzeko³⁵⁴). Izan ere, ahalko sistema hierarkiko batean, non boterearen

³⁵¹ Beasaingo Udal Artxiboa. A020 karpeta, 01 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A020 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

³⁵² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A020 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

³⁵³ Iñaki Egañari eskertzen diot datu hau.

³⁵⁴ Glicerio Sanchez Recioen arabera, paradoxikoki, FET-JONS alderdi bakarrera afiliazio masiboko kanpainak egiteak alderdi honen autonomia kaltetu egin zuen eta Estatuarekiko otzanago bihurtu zuen, berez falangistak ez ziren eskuindar asko sartzea ahalbideratu baitzuen. Hau da, praktikoki, alderdi bakarra “Francorekiko leialtasunaz” at beste ideologiarik ez zuten pertsonen bete zen. SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros políticos intermedios...* op. cit., 98-99. or.

4. kapitulua

baliabide eta herskari guztiak goitik behera antolatuak diren, “zentruaren aintzatespena lortzeak” berebiziko garrantzia zuen.

Izan ere, erregimenak berak izan zuen bere barneko desadostasunak ezerezean uzteko helburua eta baita ere desadostasun horiek publikoki ahalik eta gehien minimizatzeko edo are ukatzeko joera³⁵⁵. Hala ere, kontutan izanik 1941.eko eta 1942.eko urteen artean, frankismoaren sektore guztiek (falangistek barne), euren proiektu propioa modu maximalistan ezartzea albo batera utzi, eta batez ere Francorekiko leialtasunarekin identifikatzen zutela euren burua.

Fakzioen halako kontrola lortzeko moduetako bat, Gobernadore Zibilak eta FET-JONSeko Probintzia Buruak kargu bezala batzea izan zen. Nahiz eta egia esan batze hori agintzen zuen legerik ez zen egon, 40. hamarkada hasieran halako irizpide bateratu bat izan zen³⁵⁶. Hasiara batean, proposamen hau falangistek egin zuten, Estatu “benetan totalitario” bat lortzeko asmoetan aurrerapausu bat izango balitz bezala, baina praktikoki, alderdi bakarraren autonomia galtzea ekarri izan zuen, beren “tartekako agintariak” (garrantzia handia zutenak) Estatuak izendatzea ekarri izan baitzuen (askotan Gobernadore Zibiletarako izendatutako pertsonak falangistak baziren ere, gero eta gehiago erregimenarekin “mimetizatutako” falangistak ziren)³⁵⁷; nahiz eta beste alde batetik, halako neurriek FET-JONSen egituraren boterea handitu³⁵⁸. Gipuzkoan, hala ere, falangisten boterearen handitze bat ekarri zuen, fakzio honek oso botere gutxi izan baitzuen, eta karlisten botere murrizte bat, ordura arte, paradoxikoa (eta karlisten gogoz kontrakoa) izan bazen ere, Gipuzkoako Probintziako FET-JONSen aparailua karlistek kontrolatzen baitzuten. Hala ere, halako neurriek FET-JONS behintzat aparailu bezalaa indartu bazuten ere, Gipuzkoan alderdi honek ez zuen lortu izan erabateko kontrola izaterik: Pedro Barrusoren arabera, erregimen frankistaren lehen faseko zinegotzien

³⁵⁵ CALVO VICENTE, Candida: “Las relaciones de poder...”, op. cit., 193. or.

³⁵⁶ CALVO VICENTE, Candida: “Los gobernadores civiles...”, op. cit., 22-23. or.

³⁵⁷ CENARRO LAGUNAS, Angela: *Cruzados y camisas azules...* op. cit.; eta SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros políticos intermedios...* op. cit.. Ez dago guztiz ados ikuskera honekin Julian Sanz Hoya, bere ustez “neurri” hau (berez sekula ofizialki hartu ez zen “idatzi gabeko arau” bat zen) hartu zen momentuan falangismoak Estatuaren barruan kuota handi bat kontrolatzen zuen, beraz ezin daiteke soilik “Falangearen botere galtze” bat bezala hartu, kontuan izanik gainera ideologikoki Falangeren proiektu totalitarioarekin bat zetorrela SANZ HOYA, Julian: “Jerarcas, caciques y otros camaradas...”, op. cit., 19-20. or. Gure ustez, nahiz eta arrazoi arte bat baduen Sanz Hoyak, egia da Falange Estatuaren “barne-nukleoan” pisua galtzen hasi orduko, egoera horri buelta ematea zaildu zion elementu bat izan zela Gobernadore Zibilen eta FET-JONSen Tokiko Buruen karguen bateratzen hau, aipatutako arrazoiak medio.

³⁵⁸ MARIN I CORBERA, Marti: “Falange y poder local”, op. cit.

%67 soilik zen alderdi bakarreko kide (berak hemen, honen arrazoia karlisten erresistentzian ikusten du)³⁵⁹.

Gure herrialdearekin jarraituz, halako kargu batasunak, modu batean karlisten eta falangisten arteko tentsioa baretzea ekarri izan zuen, ordura arteko tentsioa handia izan baitzen: Candida Calvo Vicentek orduko kargu eta militante frankistei eginiko elkarrizketetan konstatatu zuen moduan, karlistek “goitik” (Gobernadore Zibilaren aldetik, edo Falangetik) egiten zituzten ekitaldiak noizean behin boikotatu egin izan zituzten. Beste alde batetik, Gipuzkoan karlisten eta falangisten arteko tentsio horiek hildako bi eragin zituzten: falangista bat Ordizian eta karlista bat Irunen³⁶⁰. Sanz Hoyaren arabera, tentsioen “baretze” hori orokorra izan zen, ez soilik Gipuzkoako kasua³⁶¹. Hala ere, tentsio kasu horiek ez ziren Beasainen eman, izan ere, bertan karlistak boterean izan ziren, beraz eurak ziren Beasainen “erregimenaren besoa”; ez inolako eragin-talde bat. Honek, parte handi batean erakusten du baita *Francorekiko leialtasun printzipioak* zein indar zuen erregiemanren koadroen artean: base karlista oso atsekabetua egon zitekeen erregimen berriak euren oinarrizko proposamenak jaso ez zituelako, baina boterean zeuden koadro karlistek eskakizun horiek “lausotu” egin zituzten, eta batez ere boterera eraman zituen erregimenarekiko ziren leialak, erregimen horren beso eta praktikoki honen “koalizio erreazionarioaren” parte bilakatu zirelarik. Izan ere, Candida Calvok Gipuzkoako tokiko kargu frankistei buruz egin duen ikerketan azaltzen duen bezala, kargua izateak nolabaiteko lotura pertsonal berriak sortzen zituen, adibidez laguntasunezkoak (eta gainera, Francoren alde zeuden fakzio ezberdinen artean antzekotasun handiak ere bazeuden), beraz, lotura horiek “borroka fakzionala” lausotzen ere lagun zezaketen³⁶². Sanchez Recio bere liburuan oso ondo definitu duen moduan, “jatorriaren pluraltasunaren, interesen batasuna”³⁶³.

Hori zela eta, programa maximalista alde batera utzita, Francorekiko gertutasuna, modu batean “erregimenaren barnean” norbere sektorearentzako ahalik eta botere kuotarik handiena lortzeko bide moduan ulertu izan zen. Beasain ez zen izan horretan inolako salbuespena, bertara ere egin baitzuen Francok bisitaldia. 1939.ean tren bertatik pasatzea baino zabalagoa izan zena. 1943eko irailaren 10ean, arratsaldean,

³⁵⁹ BARRUSO BARES, Pedro: “La Falange en la formación...”, op. cit., 74. or.

³⁶⁰ CALVO VICENTE, Candida: “Las relaciones de poder...”, op. cit., 197-199. or.

³⁶¹ SANZ HOYA, Julian: “Jerarcas, caciques y otros camaradas...”, op. cit., 20. or.

³⁶² CALVO VICENTE, Candida: “Las relaciones de poder...”, op. cit., 195-196. or.

³⁶³ SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros políticos intermedios...* op. cit.

4. kapitulua

Franco Beasaina etorri zen, CAF enpresak gonbidatuta (beraz, pentsatzekoa da enpresa horren eragin handia zuela Espainiako ekonomian, eta zeharka, politikan). CAFek, harrerara, Beasaingo Udala gonbidatu zuen, eta honek, gainera, Udal-Bandari, fabrikaren aurreko gurutzebidean arratsaldeko 4etatik aurrera jotzea agindu zion (diktadorea lau eta erdietan iristea aurreikusita zegoen)³⁶⁴. Franco Iruñetik etorri zen Beasaina. Ikusten dugun moduan, tokiko agintari guztiak inplikatu ziren harrera horretan; eta esanguratsua bada ere, diktadorea Beasaina ez zuen Udalak ekarrik, enpresa batek baino. Honek nahiko argi erakusten du Estatu berriaren izaera, praktikoki kapital pribatu handi “nazioanlaren” aldeko apustua egin baitzuen³⁶⁵.

4.5 Errepresioa

4.5.a) Heriotzak

4.5.a.1) Epaietarik gabe hildakoak

1936.eko lehen aste eta hilabeteak pasatuta, Beasainen hil zituzten jendearen kopuruak behera egin zuen baina hilketek jarraitu izan zuten, bai Beasainen eta Beasaindik kanpo. Aipatu dugunez Jose Maria Igartua Lastra Mutiloan eta Hilario Igartua Polo Iruñerako bidean hil zituzten. Beasaingo kartzelan egondako Gregorio Begue ere hil zuten, 1936.eko irailean Iruñea inguruan, eta 1936.eko urrian Victoriano Oñatibia Donostian, Beasaindik eramanda. 1936.eko azaroan, Getarian, Antonio Zubiaga hil zuten.

Hemendik aurrera hildako denak, printzipioz, “sarraskiaren logika beasaindarretik” at hildako pertsonak dira, hau da, 1936.eko uztailaren 27 eta 28 artean gertatu zen sarraskira eraman zuen amorru gurpila geldi zegoenean. Hemen hildakoak, denak 1936.az geroztik hildakoak, “logika” horretatik kanpo ezartzen ditugu. Hamar hildako ditugu kasu honetan, horietako bost inolako epaietarik gabe hildakoak, eta

³⁶⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 3189 karpeta, 18 dokumentu-sorta.

³⁶⁵ Honi buruz, ikus adibidez: GONZALEZ PORTILLA, Manuel; eta GARMENDIA, Jose Maria: *La posguerra en el País Vasco. Política, Acumulación, Miseria. Kriselu*. Donostia, 1988, 46-47. or.; GARCIA PRIETO, Milagros; VELASCO BARROETABEÑA, Roberto; eta MENDIZABAL GOROSTIAGA, Arantza: *La economía vasca durante el franquismo. Crecimiento y crisis de la economía vasca: 1936-1980*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1981, 59-63. or.; MOLINERO, Carme; eta YSAS, Pere: “Economía y sociedad en el franquismo” in MORENO FONSERET, Roque; eta SEVILLANO CALERO, Francisco (ed.): *El franquismo: visiones y balances (271-296. or.)*. Alacanteko Unibertsitatea. Alacant, 1999, 281-282. or.; FERRARIS, Maria Carolina: *Entre la utopía fascista y el pragmatismo. Ideología y economía en el franquismo. 1945-1970*. Capital Intelectual. Madril, 2009, 40-41., 44. eta 46-47. or.; BAKLANOFF, Eric: *La transformación económica de España y Portugal (la economía del franquismo y del salazarismo)*. Espasa-Calpe. Madril, 1980, 41-43. or.; eta RICHARDS, Michael: *Un tiempo de silencio. La guerra civil y la cultura de la represión en la España de Franco, 1936-1943*. Critica. Bartzelona, 1999, 104., 113. eta 121-140. or.

beste bost epaiketa baten ondoren hildakoak. Azken hauetako bost hauetatik hiru gudan borrokatzen ari zirela atxilotutako beasaindarrak izan ziren, eta beste bi, gudatik at preso hartu eta hildakoak.

Epaiketa jaso gabe hildakoen eta epaiketa jaso ostean hildakoen artean bereiztea oso garrantzitsua dela deritzogu. Aurreko kapituluan esan bezala, prozedura honek alde batetik hilketaren izaera aldatzen du: ez da berdina epaiketa baten ostean, epaiketa honetan defentsarako bermeak oso eskasak baziren ere; heriotz-zigor ofizial eta komunikatutako bat zegoen eta hildakoaren heriotza egiaztatua eta erregistroa izaten da, hau da arau minimo batzuk jarraitzea. Horrelako araurik ez dagoen artean, hilketa guztiz araugabea da, beraz ez da fusilamendua bat, erailketa baino. Honek ez du esan nahi fusilamendu “ofizialak”, bortizkeria “urdinaren” (hots, altxatuen aldeko bortizkeriaren kasuan) legezkoak zirenik, izan ere kontuan izan behar da alde horrek, bere erakundeek eta bere lurraldearen gaineko “bortizkeriaren monopolioak” legez kanpoko ekintza batean zutela abiapuntua: Estatu-kolpe batean. Beste alde batetik badago beste ezberdintasun bat: kronologikoa (nahiz eta beasaindarren kasuan guztiz ez bete: epaiketarik gabe hildako bostetik lauren heriotza data ezagutzen dugu; eta lau horietatik bi, Domingo Martinez eta Juan Velazquez, hain zuzen, 1938.ean eta 1939.ean hil zituzten). Izan ere, 1937.eko udaberrira arte, altxatuek batez ere erailketak egiten zituzten euren etsaien kontra, fusilamendu bidezko (hots, epaiketa bidezko) heriotzak 1937.eko udaberriaren ostean hasi ziren orokortzen (ordura arte gehienak fusilatu gehienak epaiketa gabe izan ziren)³⁶⁶. Hau, lehen esan dugun bezala, lehen hilabete horietan, altxatuen Estatuak bortizkeriaren masiboaren bidez bere erregimenaren egonkortasuna finkatu nahi izan zuelako izan zitekeen; hau da bortizkeria masiboa tresna politiko bezala erabili nahi izatea.

Izan ere, gudaren erretagoardian, batez ere gudaren lehen hilabeteetan, errepresioa oso bortitza izan zen eta eragindako hildako kopurua guda fronteek eragindako hildako kopurua baino handiagoa izan zen³⁶⁷. Honek bere logika badu, esaterako, historiagile batzuen arabera, Javier Rodrigo Sanchez adibidez, errepresio hori argi eta garbi erregimen berriaren oinarria izan zen, bata eta bestea bereiztezin izan zirelarik. Hau da, Guda Zibila eta batez ere hemen gertatu zen errepresioa erregimena

³⁶⁶ ESPINOSA MAESTRE, Francisco: *Guerra y represión en el Sur de España. Entre la historia y la memoria*. Valenziako Unibertsitatea. Valentzia, 2012, 34. or.

³⁶⁷ BAHAMONDE, Antonio: *Un año con Queipo. Memorias de un nacionalista*. La Espuela de Plata, 2005; in RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 25. or.

4. kapitulua

berriaren egonkortzearen tresna, edota tresna baino gehiago, oinarrizko osagarria izan ziren. Rodrigoren terminoak erabiltzearen “Francoren bortizkeria inbertsio bat izan zen (...) bere agintaldi osorako mozkinak emango zizkiona (...) Ez zen bortizkeria irrazionala, arrazionala baizik, beharrezanez eta helburuei lotutakoa (...) Bortizkeria erregimenaren ohiko komunikazio kanala izan zen.”. Eta aurrerago dioen moduan: “Bortizkeriaren helburua ez zen soilik erretaguardia kontrolatzea izan, haratago zihoan (...) horrek bortizkeria ez zuen “alferrikako” bihurtzen, kontrakoa baizik (...) Bortizkeria ez baitzen orainaldirako tresna bat, etorkizunerakoa baita”³⁶⁸.

Lehen aipatu dugun Javier Rodrigoren arabera, Francoren bortizkeriak erregimena beste diktadura totalitarioen artean (izan ere, 40. hamarkadaren puska handi batean zehar erregimen hau totalitarioa izan zenaz ez dago zalantzarik) paradigmatico egin zuen, ez baitzen beste erregimen faxistarik bake garaietan (hau da 1939.eko apiriletik aurrera) hainbeste bortizkeria erabili zuenik. Baina aldi berean, Guda Zibilaren bidez boterera igo izan zen erregimen faxista bakarra izan zen³⁶⁹; beraz, errepresioaren jarraipen bat izan zen, Guda Zibilean zehar eta hau bukatuta, erregimenaren ezartze-prozesutik bereiztezina izan zena³⁷⁰.

Beraz, gudaren hasieran izan zen erretaguardiako errepresiorik bortitzena. Guk, Beasaingo kasu honetan, errepresio hau uztailaren 27 eta 28 arteko sarraskian kontzentratzen dela konstatatzen dugu, baina horrek ez du esan nahi hor geratu zenik. Bortizkeriak aurrera egin zuen, baita ere beasiandarren kontra ere. Esan bezala, hamar beasaindar hil zituzten 1937.etik aurrera, horietako bost epaiketarik gabe. Epaiketarik hil gabeko bostak, kronologikoki, 1937.eko urtarrilaren 26an hildako Jose Migel Mujika Esnaola (Beasain, 12 urte) Beasainen hila, 1937.eko martxoaren 13an Jose Manuel Landa Elorza (Beasain, 19 urte) Iruñean hila, 1938.eko apirilaren 5ean Domingo Martinez Sanchez (Erriberri, Nafarroa, 62 urte) Iruñean hila, 1939eko martxoaren 28an

³⁶⁸ RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 26-28. eta 32. or.

³⁶⁹ Alde batera utziko ditugu Vichyko erregimena eta Kroaziako Estatu Independentea (NDH) bezalako salbuespenak, hauek “kanpotik etorritako guda” batek (III Reicheko Alemaniaren inbasioak hain uzten) ezarri baitzituen boterean, ez herikideen arteko guda batek (kasu hauetan, guda mota hau, zilegitasunik gabeko erregimen hauek ezarri ostean etorri zen, Erresistentziaren produktu). Gure ustez, Francoren erregimenak NDHren erregimenarekin antzekotasun handiak izan bazituen ere (elementu faxisten eta nazional-katolikoen bilbaketa, liderrekiko kultura, kanpo potentziekiko menpekotasuna, bortizkeria masiboa), kontutan izan behar da kroaziar faxisten bortizkeria, eta beraz “nazioaren purifikazioaren ahalegina” batez ere (nahiz eta ez bakarrik), etsai etnikoaren -Kroaziako serbiarren edota judutarren- kontra zuzentzen zela; Francoren erregimenarena ordea, etsai ideologikoaren kontra –Guda Zibilean, hau da, erregimenaren zilegiztatzaila nagusian, etsai izan zirenen aurka-. Hau, erregimen bien auto-pertzepzio eta izaera ideologiko arloko ezberdintasun batzuen adierazgarri da.

³⁷⁰ RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 28. or.

Juan Velazquez Garcia (Cañizal, Zamora, 57 urte) Beasainen hila eta Fermin Odaturra, honen inguruko daturik ez dugularik.

Hauetako lehena, Jose Migel Mujika Esnaola, 12 urteko ume bat zen, beraz Beasainen eraildako pertsonarik gazteena (Miren Gordobil alde batera utziz, pertsona hori bi urterekin hil baitzen 1936.eko uztailaren 24an, baina esan dugu gure ustez ez zela gudarekin zerikusirik duen pertsona bat, uztailaren 24an oraindik tropa altxatuak ez baitziren Beasaina gerturatu). Bere inguruko daturik ez dugu aurkitu Beasaingo erroldan, baina heriotzaren erregistroaren arabera, Beasaingo Erietxean bizi zen. Erregistroaren arabera, 1937.eko urtarrilaren 26an Beasaingo FET-JONSen egoitzan “kraneo hautsita” hil zen (Iñaki Egañak “jipoi bat jasota” hil zela biltzen du), beraz, kasu hau, aurreko kapituluaren komentatu dugun Jose Maria Igartua Lastraren kasuarekin batera, agintari frankistek euren ardura onartzen zuten kasu apurrenetako bat izan zen³⁷¹. Erregistroa hurrengo egunean, urtarrilaren 27an egin zen. Pedro Jose Iguain Telleria, Bandaren zuzendaria, eta Nicolas Rodrigo Barcenal deitutako lekuko bat lekuko zirelarik³⁷². Jose Migel Mujikaren heriotzak, nahiz eta Udal epaitegiak publikoki adierazi FET-JONSen egoitzan gertatu (beraz eskandalagarria zatekeena), guk dakigunez ez zuen Beasaingo Falangen ondoriorik izan, Miguel Cerrajeriak 1937 osoan zehar Tokiko Buru izaten jarraitu baitzuen beste urte eta erdi.

Hurrengo biak Jose Manuel Landa Elorza eta Domingo Martinez Sanchez izan ziren; gure datuen arabera, Iruñean hilak. Nafarroako hiriburura eraman zituztenez, pentsa daiteke euren heriotzak 1936.eko irailaren 22an gertatutako Gregorio Begueren heriotzarekin eskema bera partekatu ahal izan zutela, hau da, Beasaindik Iruñera eraman zituztela han hiltzeko. Baina guk ez dugu daturik Landa Elorza eta Martinez Sanchez Beasaingo kartzelan egon zirenari buruz, 1937.ean eta 1938.ean Beasaingo kartzelan egon ziren pertsonen buruzko zerrendan ez dira agertzen³⁷³. Jose Manuel Landa, 1937.eko martxoaren 12an fusilatua izan zen Iñaki Egañaren arabera³⁷⁴. Domingo Martinez, CAFeko idazkariaren inguruan, iluntasun handiagoak daude. Alde batetik, Iñaki Egañak ez du esaten Iruñean fusilatua izan zena baino gehiagorik³⁷⁵. Bestetik,

³⁷¹ Beasaingo Bake-Epaitegia. Erregistro Zibila, “Jose Miguel Mugica Esnaola”; eta EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria*. (IV lib., *La Guerra en Gipuzkoa*). Aise liburua. Andoain, 1999, 208. or.

³⁷² Beasaingo Bake-Epaitegia. Erregistro Zibila, “Jose Miguel Mugica Esnaola”.

³⁷³ Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 63 dokumentu-sorta.

³⁷⁴ EGAÑA, Iñaki: op. cit., 207. or.

³⁷⁵ Ibid., 207. or.

4. kapitulua

Euzko Deya egunkariak, 1937.eko martxoaren 21eko Beasaini buruzko kronikan jada fusilatutzat ematen du³⁷⁶, Eusko Jaurlaritzak ordea ez du datarik ematen. Datarik ez du ematen ezta, baina bere lanbidea (CAFeko idazkaria) eta fusilatzearen tokia (Iruñea), aipatzen du garaian, 1939.ean Eusko Jaurlaritzak eginiko *Euzkadi bajo el régimen de Franco* txostenaren *La represión en Guipúzcoa* azpi-txostenak³⁷⁷.

Zerrenda honetako laugarrena, Juan Velazquez Garcia, Cañizalen jaiotako irundarra, Beasainen hil zuten, 1939.eko martxoaren 28an. Erregistroaren arabera, Velazquez Garcia trenbideetako langilea zen eta hori bera biltzen du Iñaki Egañak³⁷⁸. Hala ere, antza denez, ez zen CAFeko enplegatua, berez irundarra baitzen, bere kontrako guda-kontseiluan agertzen den moduan³⁷⁹. Erregistro Zibilaren arabera, goizeko 10etan hil zen Juan Velazquez, eta arrazoia, erregistroaren arabera, Jose Migel Mujikaren heriotzaren bera zen: “kraneoaren haustura”: Honek esan nahi du ziurrenik jipoi bat jasota hil zela baita Velazquez. Esan beharra dago hil aurretik Velazquez guda kontseilu batek epaitua izan zela. Kontseilu hartan, Velazquez, ezkerraren aldeko bozka-emailea zela eta Ipar Euskal Herrira alde egin zuela azaldu zuten, gero Irunera bueltatu zelarik (diligentziak 1937.eko azaroan hasi ziren). Hala ere, zenbait “aringarri” zirela eta (Fronte Popularraren alde armekin ez zen ibili, bere fabrikan bala batzuk egiteko beruna funditzearen kontra agertu zen, eta eskuineko pertsona bat, Macario Echaz defendatu zuen), 1938.eko apirilaren 21ean bere kontrako kausa bukatzea erabaki zuen epaitegi militarrek, aske geratuz³⁸⁰. Beraz, baliteke heriotza honek nolabaiteko harreman politikoa izatea, heriotzaren kausa zehatza eta hiltzaileak nortzuk izan ziren demonstraterik izan ez badugu ere. Velazquez Garciaren heriotza hurrengo egunean izan zen erregistratua, 1939.eko martxoaren 29an³⁸¹.

Fermin Odaturrari buruz dugun datu bakarra, Iñaki Egañak bere liburuan ematen diguna da. Egañaren ustez, Odaturra, Donostiako Banketxeko langilea zen, eta politikoki EAJko kidea zen. Bere ustez, lankide batek salatu zuen, inbidiak tarteko,

³⁷⁶ *Euzko Deya*, 1937-III-21.

³⁷⁷ *Euzkadi bajo el régimen de Franco: La represión en Guipúzcoa*. Eusko Jaurlaritzaren Artxiboa, Sancho de Beurko funtsa, 13 kutxa, 5 dokumentu-sorta, 5:1 zenbakidun dokumentua.

³⁷⁸ Beasaingo Bake-Epaitegia. Erregistro Zibila, “Juan Velazquez Garcia”; eta EGAÑA, Iñaki: op. cit., 207. or.

³⁷⁹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 12827-38 kausa, Segundo Lozares Escolari dagokiona.

³⁸⁰ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 420-38 kausa, Juan Velazquez Garciari dagokiona.

³⁸¹ Beasaingo Bake-Epaitegia. Erregistro Zibila, “Juan Velazquez Garcia”.

salatzailea banketxetik iruzur egitearren kanporatua izan baitzen. Egañaren arabera, Donostian fusilatu zuten Odaturra³⁸². Ikusten dugunez, Odaturrari buruz Egañak ematen dituen datuak, beste batzuek Victoriano Oñatibiari buruz ematen dituztenak dira (Bankuko langilea, jeltzalea, lankide batek –oñatiar bat batzuen arabera, Arregi abizenduna beste batzuen arabera- salatua...)³⁸³. Bestetik, Iñaki Egañak Victoriano Oñatibiaz ematen duen datu bakarra fusilatzearen datua eta tokia da: 1936.eko azaroaren 17a (Joxe Manuel Azurmendiren arabera, urriaren 23a da data)³⁸⁴.

Kasu zalantzarria da, ordea, 1937.eko ekainean hildako Angel Melgosa Marquina gaztearen heriotza errepresioa zela eta hil izana. Beasaingo erregistroan, bere heriotza 1937.eko ekainaren 27an Donostian gertatu zela azaltzen da (hala ere, heriotza hau aritzeko kausan, lekuko batek, Alfonso Martosek, heriotza Beasainen izan zela deklaratu zuen). Iñaki Egañak, bere liburuan “1937.eko ekainaren 28an Donostian fusilatu” izan zela diosku, baina datu hau okerra da³⁸⁵. Jose Luis Guridi alkateak, ekainaren 24an Donostiako San Antonio Abad erietxeko zuzendariari gutun bat bidali zion, esanez, mesedez har zezala “zauritu” hau, “kotxe batek jo zuela eta” zauritua baitago³⁸⁶. Beste alde batetik, Ferrolgo Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarrean, Angel Melgosa Marquinaren heriotzagatik zabalduko diligentzien kausa gordetzen da, eta kausa horretan azaltzen da ekainaren 24an Donostiako San Antonio Abad erietxean sartu zela, eta ekainaren 25ean hil zela. Ekainaren 27an Ricardo Cardenal Sanchez eta Felipe Pino Ascarza medikuek Melgosa Marquinaren heriotza baieztatzen zuten, bere lesioen zerrenda eginez, kotxe batek zapaldua izan zela baieztatuz (beraz honek Iñaki Egañaren hipotesia gezurtatzen du, honek ekainaren 28an fusilatu izan zela baitio)³⁸⁷. Irailean hasi ziren Melgosaren heriotza argitzeko diligentziak, Donostiako epaitegi batetatik. 1938.eko abuztuaren 30ean, ikerketek emaitza eman zuten: Melgosaren heriotza ekarri zuen kotxeak M-38.905 matrikula zuen, eta Artilleria Astuneko lotinant batek gidatzen zuen³⁸⁸.

³⁸² EGAÑA, Iñaki: 1936. *Guerra Civil...* (IV lib.), op. cit., 208. or.

³⁸³ IRAOLA, Jose Vicente: op. cit., 353. or.; Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10; eta Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

³⁸⁴ EGAÑA, Iñaki: op. cit., 207. or.

³⁸⁵ Ibid., 207. or.

³⁸⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 545 karpeta, 56 dokumentu-sorta.

³⁸⁷ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2439-39 kausa, Angel Melgosa Marquinaren heriotzari dagokiona.

³⁸⁸ Lotinanta Javier Marichalar Bruguera zen, eta berarekin batera zihoan alfereza Alfonso Martos Zababuru. Heriotza Ezkiabaso baserriaren inguruan izan zen (egun Ezkiaga auzoa, Ordiziarako bidean), “ezkerrerako bihurtu batean”. Melgosarekin batera beste bi ume zeuden eta kotxeak biratzerakoan

4. kapitulua

Bai militarren zein Melgosarekin batera zeuden lagunen adierazpenak bat egiten zutenez, frogatutzat eman dezakegu gertaera hau istripu bat izan zela, ez erailketa bat. Nahiz eta onartu epaileek Melgosaren heriotza ekarri zuten zapaltzea eta honen arduradun Javier Marichalar alfereza “nor zelako” modu “leunegian” epaitu izana pentsatzeko aukera bat badagoela (hipotesi bezala ari gara, halakorik ez baitugu frogatu); kasu hau ez zen erailketa bat izan.

4.5.a.II) Epaiketa ostean fusilatutakoak

Bost izan ziren Beasainen, guk dakigunez, epaiketa ostean hil zituzten pertsonak. Horietako hiruz jada mintzatu gara; guda-oinean hil zituzten Lazaro Cebrian Blanco, Valerio Polo Carrascal eta Jesus Ibarbia Unzueta. Bereziki krudela izan zen Valerio Poloren kasua, izan ere, bera epaitu eta exekutatu ostean, 1938.ean beste kausa bat zabaldu zioten. Honez gain, guda-oinetik kanpo beste bi beasaindar izan ziren epaiketa ostean hilak, hauek biak Felix Gaztañaga (1939.ean) eta Jesus Larrañaga (1942.ean) izan ziren.

Felix Gaztañaga Urrutia Tolosan bizi zen 1936.ean. Iñaki Egañak dioenez, “latorrigilea” zen lanbidez³⁸⁹. Ferrolgo Artxibategi Militarean agertzen den kausaren arabera, “linternaria” zen eta Tolosan bizi zen, 26 urte zituen eta Gazteria Sozialistetakoa kidea zen (eskuindar lekuko batzuen arabera, “Gazteria Sozialistaren burua” zen. 1934.eko iraultzan Tolosan izan gertakarien inguruan ere kondenatua izan zen. Bazuen anaia bat, Luis Gaztañaga, Tolosako Eusko Abertzale Ekintzako burua zena). Tolosan, 1936.eko apirilean PSOEk, UGTk eta Gazteria Sozialistak, Tolosako Komite Iraultzailea sortu zuten zeina, praktikoki, 1936.eko uztail-abuztuan Tolosako autoritatea izan zen (Tolosako Herri Frontearen Komitea, errepublikanoak, sozialistak eta abertzaleak biltzen zituen; ez zen guda hasi eta egun batzuk pasatu arte sortu). Mikel Errazkinen arabera, Komite Sozialista Iraultzaileak “Fronte Popularraren Komitearen aktibitatea iradoki eta gidatzen zuen”; eta baita ere, armak lortu zituen Tolosaren defentsarako, Goardia Zibilar berari ere aurre eginez³⁹⁰. Komite Sozialista Iraultzaile honek agindu zuen Tolosan 200 eskuindar atxilotzea, Tolosako PSOEn Herriko Etxean sartuz lehenbizi, eta geroago, beste indarren adostasunez, kartzelara eramanez.

hauek saihestea lortu zuen. 1938.eko abenduaren 5eko sententziaren arabera, gertakaria “zorigaitzekoa” izan zen, eta Marichalar errugabe ateratu zen.

³⁸⁹ EGAÑA, Iñaki: op. cit., 208. or.

³⁹⁰ ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945* (I lib., *La represión y la vulneración de los derechos humanos durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo*). Tolosako Udala eta Aranzadi. Tolosa, 2013, 56-57. or.

Akusazioaren arabera, Felix Gaztañaga zen kartzela zaintzearen arduradunetako bat³⁹¹. Gaztañagaren kontrako kausaren arabera, 1937.eko urriaren 21ean izan zen atxilotua – Asturiasen- eta Santoñako kartzelan sartu zuten; 1938eko urtarrilean Bilboko Eskolapioen komentuko kartzelara eta 1938.eko urriaren 28an sartu zelarik Donostiako Ondarretako presondegian.

Bere kontrako epaiketa 1939.eko urtarrilaren 20an hasi zen, Felipe Cubas artilleria kapitaina epaile izan zelarik. Gaztañagari 1936.eko uztailaren 31n Tolosako kartzelatik atxilotutako 13 karlista ateratzean eta Donostiara eramatean parte hartzea³⁹², eta abuztuaren 5ean Tolosako preso eskuindar bat, Javier Fernandez de Esquide, fusilatzearekin mehatxatzea leporatu zioten. Akusazioaren arabera “frogatua” zegoen lekuko honek esandakoa: Gaztañaga Urrutiak bost minutu ematen zizkiola eskuindarrek armak non gordetzen zutela esateko, bestela fusilatu egingo zuela esanez. Beste eskuindar preso batek, Eusebio Larretak, Gaztañaga “presondegiko buru” zela esan zuen³⁹³. Geroago, Felix Gaztañaga gudan ibili zen, Rusia batailoien parte zela, “Gijoneraino borrokatuz”; han atxilotu zutelarik. Mikel Errazkinen ikerketa-lanaren arabera, ordea, heriotza horiek Komite Sozialista Iraultzaileko lehendakari Andres Subtilek eta idazkari Francisco Garcia Lavidek agindu zituzten; ez Felix Gaztañagak. Errazkinen arabera, heriotza hauek, aurreko egunetan altxatuek Beasainen egindako sarraskiaren mendeku dinamika batean ulertu behar dira, altxatuen sarraskiak, iraultzaileen aldetik “justizia espontaneo” (beraz, Estatu errepublikanoaren arauak errespetatu gabeko justizia) bultzatu zutelarik³⁹⁴.

Gaztañagarengana bueltatuz, 1939.eko maiatzaren 9an eman zen sententziaren arabera, heriotz-zigorra kondenatu zuten, fiskalak 30 urtetako kartzela-zigorra eskatu bazuen ere, “epaituak erantzukizun pertsonal handia izan baitzuen”³⁹⁵. 1939.eko azaroaren 13an izan zen exekutatua, Donostian, eta Polloeko hilerrian identifikatu gabeko fosa batean lurperatua. Mikel Errazkinen arabera, Tolosako orduko behin-

³⁹¹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 14346-38 kausa, Felix Gaztañaga Urrutiari dagokiona.

³⁹² Javier Fernandez de Esquide, Eusebio Larreta eta Miguel Lumbreras lekukoek, egun horretan eskuindar presoak izandakoek hori deklaratu zuten epaiketan.

³⁹³ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 14346-38 kausa, Felix Gaztañaga Urrutiari dagokiona.

³⁹⁴ ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria...* (I lib.), op. cit., 57-59. or.

³⁹⁵ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 14346-38 kausa, Felix Gaztañaga Urrutiari dagokiona.

4. kapitulua

behineko alkatee Rafael Ariztiak kommutazioa eskatu zion Francori, honek muzin egin zion heriotz-zigorra aldatzeari³⁹⁶.

Jesus Larrañagaren exekuzioa 1942.eko urtarrilean izan zen. Jose Antonio Egidoren arabera, Guda Zibilaren bukaeran, “Espainiako Alderdi Komunista barnealdean antolatzeko ardura eman zioten”. Egidoren arabera, Larrañaga azken hilabete horietan (PCEko zuzendari gehienak jada erbestera joanak ziren); “Alderdi Komunistako zuzendari nagusia izan zen praktikoki”³⁹⁷. 1939.ean, guda zibilaren azken egunetan, Alacanteko portuan atxilotu zuten baina bere atxilotzaileek ez zuten bere identitatea ezagutu eta Albacete inguruko kontzentrazio eremu batean sartu zuten. Hala ere, susmoren bat bazuten faxistek, eta hori dela eta, espioiak bidaltzen zituzten kontzentrazio eremura preso zuzenak, Larrañaga nor zen atzemateko³⁹⁸.

Larrañagak erbesteko ibilaldi bat hasi zuen; Ipar Euskal Herrian, Dominikar Errepublikan (non Dominikar Alderdi Komunista fundatzen lagundu zuen) eta Kuban egon zen. Hala ere, 1941.ean, Espainiar Estatuko barnealdera itzultzeko agindua jaso zuen, Espainia barneko erakunde komunista birsortzeko egitekoarekin. Erabaki hori zehatz-mehatz nola hartu zen, ez dakigu, kontuan izanik, guda osteko lehen urteetan Alderdi Komunista zuzendaritza-zentru bakar bat gabe, eta hierarkia argirik gabe geratu baitzen. Egido Siguenzaren arabera, PCEren Latin Amerikarako arduradun Vicente Uribe Galdeanok (euskalduna baita ere) hartu zuen erabakia. Uriberen eta *Goierriren* arteko harremanak txarrak omen ziren. Miguel Amilibiaren arabera, Santiago Carrillo izan zen horren erantzulea. Bai Amilibia berak zein Larrañagaren familiak, erabaki hori, hain zuzendari ezagun bat berriz Espainiara bidaltzea “hiltegiara eramatea” izan zen, “urte batzuen ostean Grimaurekin egin zuten moduan”, Rosa Larrañagaren hitzetan. Amilibiaren ustez erabaki horren atzean “Larrañaga paretik kentzea egon zen, Euskal Alderdi Komunista bat, PCEri federatua (Kataluniako PSUCen antzeko harreman mota izango zuena) sortzea ezinezko egin zedin”³⁹⁹.

³⁹⁶ ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria...* (II lib.), op. cit., 146. or.

³⁹⁷ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 105. or.

³⁹⁸ Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-V-26an; eta EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 125-126. or. Egidok Zapirain aipatzen du ihesari buruzko beste datu bat emateko: “Pixa egiten paratu zenaren itxurak egin zituen Larrañagak ihes egiteko”.

³⁹⁹ Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-V-26an; eta EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 132. or.

Maiatzean Portugalera iritsi zen Larrañaga beste komunista talde batekin (tartean beste euskaldun bat zegoen, Imanol Asarta hernaniarra). Han Portugalgo Alderdi Komunistako militante baten etxean hartu zuten ostatu. Baina Espainiar Estatuan izan ziren erorketa batzuk medio, 1941.eko urrian atzilotuak izan ziren eta Valença do Minho hiriko muga-pasabidean portugaldar poliziak DGSren eskuetan utzi zituen. Madrilgo Porlier kartzelan kartzelaratu zituzten.

1942.eko urtarrilaren 19an, Aymar koronela buru zuen epaitegi militarrek Larrañaga, Asarta eta beste bost komunista heriotzara kondenatu zituzten. Esan beharra dago, Larrañagaren inguruan izan ziren ikerketetan, epaitegi frankistak ez zuela frogatzerik izan hau 1936.eko uztailaren bukaeran Donostian ezkertiarrek Ondarretako kartzelaren kontra egin zuten asaltua antolatzearen erruduna zenik, baizik eta “susmagarri” bezala jotzen zuten⁴⁰⁰. Aipatu behar dugu baita, epaiketa honetan Larrañagaren kontra deklaratu zutenetako bat Miguel Ibañez de Opacua Larzabal izan zela, infanteria komandantea eta Beasainen altxatuek hil zuten Luis Ibañez de Opacuaren anaia (mikeletea). Ibañez de Opacuak, Larrañagari Hondarribian bera eta Roldan izeneko almirante bat atxilotzeaz leporatzen du, baina hau ere ez zen frogatua izan⁴⁰¹. Beraz, ematen duenez, kasu honetan ere, fusilatzea erabat politikoa izan zen, akusatua politikari komunista moduan izan zen fusilatua, ez eginiko delitu konkretu batzuegatik. Urtarrilaren 21ean izan ziren exekutatuak Larrañaga eta bere bost burkide (batek azken momentuan indultua jaso zuen).

Jesus Larrañagaren heriotza, SESBen zegoen bere familiari ez zitzaion behar bezala komunikatu. Jose Antonio Egidoren arabera, PCEk *Goierriren* kartak ere ezkutatu egiten zizkion familiari. Rosa Larrañaga eta Miren Atxaga oso kritiko agertzen dira orduko PCEn zuzendaritzarekin “guk informazio bakarra Espainiako Alderdi Komunistaren aldetik jasotzen genituen, baina ez ziguten askorik ematen. Ez gintuzten ondo tratatu, baztertu egin gintuzten. Aitaren heriotza komunikatu besterik ez ziguten egin”. Agian hori izan daiteke Larrañaga alabak eta Atxagak PCEn sekula militatu ez

⁴⁰⁰ Lehen komentatu dugu, Miguel Legarra erreketen arabera, asalto hori beste komunista batek, Ricardo Urdok zuzendu zuela. LEGARRA BELASTEGUI, Miguel: *De la calle Pi i Margall al Tercio de San Miguel (Recuerdos de un requeté)*. Actas argitaletxea. Madril, 2008, 86., 130-134. eta 253-260. or.

⁴⁰¹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4135-42 kausa, Jesus Larrañaga Churrucari dagokiona.

4. kapitulua

zutenaren arrazoia: “gu komunistak izan gara beti, baina espainiar komunistekin sekula ez dugu tratu handiegirik izan, ez Errusian ginenean, ez hemen”⁴⁰².

4.5.a.III) Aratz-Matxinbentako gerrillarien heriotza

Beasaingo historian orain arte ezezaguna edo ia-ezezaguna den pasarte bat jakin izan dugu Xanti Lasa Aranbururen ahotik. Berari, “gure baserri Endrioko beste bizitzakoek kontatu didate, orain eurak hilda daude”. Lasa Aranbururen arabera, guda pasatu eta urte batzuetara (zoritxarrez ez du datarik adierazi), Aratz-Matxinbentan bere amonak, “aitaren amak, karlista zenak”, bi gerrillari ikusi zituen, eta orden publikoko indar armatuei parte eman zien (ez digu adierazi salaketa formala izan zen edo “komunikatu” besterik ez zuen egin). Beraz, poliziak bi gerrillari horiek harrapatu eta Matxinbentan bertan hil egin zituen, “ez dakit zehazki non”. Xanti Lasaren arabera, “hau ez da gozoa gure familiarentzat, baina esan eta jakin beharra dago Matxinbentan bi pertsona hildako daudela”. Gerrillari horiek ez ziren herrikoak, “asturiarrak edo izango ziren”⁴⁰³.

Guk honen inguruan aurkitu dugun gauza bakarra, 1938.eko ekainaren 16an Beasaingo Bake Epaitegian, ezezagun baten heriotzaren erregistroa izan da. Erregistro horren arabera, ezezagun hori aurreko egunean, 1938.eko ekainaren 15ean hil zen. Erregistroaren arabera, hildakoak 1,85 zentimetro neurtzen zituen eta “25 eta 30 urte artean zituenaren itxura” zuen. Dokumentuak dio “arratsaldeko laueta”, “herritik kanpo”, “balek egindako zauriez” hil zela; eta Matxinbentako hilerrian lurperatzea agintzen zuen (erregistroaren lekuko bakarra, orduko mediku titularra, Hilario Urteaga Otegui izan zen)⁴⁰⁴. Egia esan, deskribapenak (gizon gaztea), hiltzeko moduak (bortizki) eta lurperatze tokiak (Matxinbenta) bat egiten dute Xanti Lasa Aranburuk emandako testigantzarekin; baina hau ez da froga konkretu eztabaidaezin bat, eta are desadostasun bat dago: data horretan gizon bakarraren heriotza erregistratu zen, Lasa Aranbururen testigantzak bi gerrillari aipatu zituelarik⁴⁰⁵.

⁴⁰² Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-V-26an; eta EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: op. cit., 134. eta 142. or.

⁴⁰³ Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁴⁰⁴ Beasaingo Bake-Epaitegia. Erregistro Zibila, 1938-VI-16.

⁴⁰⁵ Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5. Honez gain, aipatu behar dugu 1938.ean, erregistroa egin zen datan, gerrillak ez zeudela antolatuta; beraz, zitezkeenez, pertsona hau iheslaria zen (Lasak gerrillariak aipatzen ditu, baina baliteke berak entzundako istorioan ere zehaztasun hau nahastua egitea).

4.5.a.IV) Victoriano Balerdiren erailketa

Beasainekin zerikusiren bat izanik, ezin dugu aipatu gabe utzi Victoriano Balerdi arrasatearraren heriotza, Lazkaon eraila izan zen arren. Balerdi, Arrasaten preso zela (gudarien mediku izan zenakoaren akusazio faltsuagatik), 1936.eko azaroaren 2an, beste 15 presorekin batera, Arrasateko kartzelatik Oiartzunera eraman zuten, hango eskolan denak konfesatu arazi eta gero Oiartzungo hilerria eraman zituzten. Han beste hamabostak fusilatu zituzten, bera izan ezik, baina Arrasaten mehatxuak jasan behar izan zituen, bertako karlistek “noizbait harrapatuko zaitugu” esaten ziotelarik. Geroago, Beasaingo CAFen lana topatu zuen mediku bezala, baina 1938.eko azaroaren 13an, lana bukatuta, bere etxera bidean, Lazkaon eraila izan zen. Bere kasua ikertu duen Arrasateko *Oktubre Taldearen* arabera, hiltzailea Jose Garmendia beasaindarra izan zen, zeina Tolosako kartzelan hilketa honetaz harro agertzen zen⁴⁰⁶.

4.5.b) Epaituak, kartzelaratuak eta langile-batailoietara eramandakoak

Halere, gudako errepresioa ez zen soilik heriotzetara mugatzen. Kartzeletan, kontzentrazio-eremuetan, lan-batailoietan eta abar izandako pertsonen kopurua ere oso handia da. Javier Rodrigoren arabera, *guda ostean*, gutxienez 300.000 preso pasa ziren kartzeletatik. Kontzentrazio eremuetatik guztira, 500.000 preso para ziren; guztira 180 eremu eraiki zirelarik (180 horietatik 104 “egonkorrak” izan ziren)⁴⁰⁷. Halako eremuak zabaltu izanak erakusten du zein masiboa izan zen jazarpen Francoren Espainian.

Lehen komentatu dugu, 1936.eko abuztu partean Beasaingo kartzelan sartu zituzten presoak, irail-urri aldera aske utzi zituztela (horietako bi, Gregorio Begue eta Victoriano Oñatibia, baina fusilatu egin zituztela ere komentatu dugu). Hala ere, horrek ez du esan nahi Beasaingo Udak kartzela hutsik geratu zenik. Izan ere hurrengo urteetan presoak bete egin zen, hauetako asko preso politikoak izan zirelarik. 1937 eta 1938 artean 43 preso egon zirela baieztatzen digun dokumentu bat ere badugu gure eskuetan⁴⁰⁸. Hauen artean Julian Onesimo (bere seme Ignacio eraila izan zen), Telesforo Gomez Arce sozialista ezaguna (1934.eko greban parte hartu zuena) eta Enrique Zubizarreta Zabalo jeltzalea ditugu⁴⁰⁹. Preso hauek denak epailearen aurrean utzi zituzten, beraz

⁴⁰⁶ OKTUBRE TALDEA: *Arrasate 1936. Una generación cortada*. Arabera. Arrasate, 2003 (2. edizioa), 319., 324. eta 331. or.; eta OKTUBRE TALDEA: *Arrasate 1936. Belaunaldi etena*. Autoedizioa. Datarik gabe, 245. eta 250.. or.

⁴⁰⁷ RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 27. eta 112. or.

⁴⁰⁸ Beasaingo Udak Artxiboa. 2112 karpeta, 63 dokumentu-sorta.

⁴⁰⁹ Beasaingo Udak Artxiboa. 2112 karpeta, 63 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udak Artxiboa. 3762 karpeta, 74 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

pentsatzekoa da euren kontra karguak izan zirela, epailearen modura eramateko modukoak (ez ziren izan soilik borroka bat zela eta kartzelaratuak izan; gerora guda-kontseilua aplikatu izan baitzitzairen). 1939.eko otsailean Beasaingo alkateak sinatutako dokumentu baten arabera, 1936.eko abuztuaren eta 1938.eko azaroaren artean atxilotutako preso politikoaren gastua 11.023,05 pezetakoa izan zela zioen⁴¹⁰. Guridiren arabera, preso batzuek kartzelan zeudelarik lan egiten zuten.

Onesimo, 1938.eko maiatzaren 6an sartu zuten Beasaingo kartzelan⁴¹¹ eta 1938.eko uztailaren 12an irten zen bertatik⁴¹²; baina antza aurretik ere hainbat aldiz izan zen atxilotua, “tropak Beasainen sartu zirenean baita” (orduko Falangeko buru Miguel Cerrajeriak esan zuen Iruñera eramana ere izan zela, eta 1938.eko sententzian ere hala azaltzen da, San Kristobalen egon zela⁴¹³); beraz, pentsa dezakegu hasierako hilabeteetan Beasaingo kartzelan izan zen 20 pertsonako talde horrekin izan zela⁴¹⁴. Julian Onesimoren kontrako guda kontseiluaren arabera, 1937.eko irailean atxilotua izan zela kontutan hartuz, 1938.eko abuztuan izan zen “behin-behineko espetxealdiaz” zigortua⁴¹⁵, eta 1938.eko azaroaren 26an Rafael Barrio Salamanca epaile militarrek urte bateko kartzela-zigorra ezarri zion Onesimori⁴¹⁶. Julian Onesimoren beste seme bat, Aurelio, ere Langileen Batailoian ibili zen⁴¹⁷.

Hala ere, gehienetan, guda-oinetan atxilotzen zituzten presoek pasatzen zuten okerren, hauetako gehienek kartzela zigor gogorrak jaso zituzten, eta kasu askotan kontzentrazio eremuetara edota lan-batailoietara bidaltzen zituzten. Izan ere, kontzentrazio-eremuen sarea, batez ere gudan preso hartutako soldadu errepublikanoak atxilo izateko montatu zen; honen zabalkundea, batez ere 1937.eko udan eman zelarik (nahiz eta lehen kontzentrazio eremuak 1936.ean sortu ziren)⁴¹⁸. Halako kasua da,

⁴¹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 545 karpeta, 43 dokumentu-sorta.

⁴¹¹ Beasaingo Udalaren arabera: Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 63 dokumentu-sorta.

⁴¹² Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 63 dokumentu-sorta.

⁴¹³ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia, Gipuzkoa 2458-38 kausa, Julian Onesimo Palaciosi dagokiona.

⁴¹⁴ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia, Gipuzkoa 2458-38 kausa, Julian Onesimo Palaciosi dagokiona.

⁴¹⁵ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia, Gipuzkoa 2458-38 kausa, Julian Onesimo Palaciosi dagokiona.

⁴¹⁶ Pertsona honekiko datuak nahiko nahasgarriak dira. Urtee beteko kartzela vetea zuenez 1938.eko abenduaren 3an aske utzi zuten arren, 1939.eko otsailean berriz epailearen aurrean agertu behar izan zen, eta berriz aske geratu zen arren, 1939.eko apirilean bere kontrako diligentsia berri batuzk zabaldu ziren. Alta, bere bilobaren arabera, Ondarretan preso zela hil zen: Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁴¹⁷ Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁴¹⁸ RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 112. or.

esaterako, Angel Ruiz de Apodacarena, zeina guda oinean atxilotu ondoren, Teruelgo probintziako Calamocha herrian zegoen kontzentrazio eremura eramán zuten, “1940.eko urtearen bueltan atera zen handik”⁴¹⁹.

Lamata familiak ere halako kasu bat izan zuen. Familia horretako bi seme Tomas eta Francisco preso hartu zituzten, biak izan ziren Eusko Gudarosteko kide. Francisco Lamata Kantabrian izan zen atxilotua eta hainbat kartzelako bisitaldia egin behar izan zuen: Kantabrian, Bilbon eta Kadizen. Familia horretako arreba baten, Luziaren senarra, Timoteo Alonso ere preso egina izan zen, langile batailoian egon zen Asturiasen. Hau preso zegoela jaio zen bere semea, gure proiektu honetan lekuko izan den Jose Maria Alonso Lamata: “ez zioten seme jaioberria ikustera etortzen ere utzi, ama joan behar izan zen Asturiasera bera ikustera”⁴²⁰. Antzeko kasu bat, gertatu zitzairen Alfontso Ibaibarriaga eta bere emazte Kristina Usabiagari. Lehena Kantabria eta Asturiasen artean harrapatu eta Santoñan preso zegoelarik, Usabiaga jaio berri izan zen umearekin haraino joan behar izan zuen⁴²¹.

Halako sufrikarioa pairatu zuen beste familia bat, Aramburu Aramburu familia izan zen. Familia hau, EAJko kide historiko Santiago Aramburu Otamendiren (zeina, esan dugun moduan, Beasaingo kartzelan ere sartu zuten, altxatuak herria okupatu eta gutxira) semeez osatutakoa zen. Hauetako lau “Enrique, Luis, Martin eta orain gogoratzen ez dudán beste bat”, abertzaleekin borrokatu ziren (bosgarren anai bat, Ramonek, “Txanbo”, karlistekin borrokatu zuen). Euren iloba Xanti Lasa Aranbururen arabera, laurek bukatu zuten Langile Batailoian⁴²².

Gudariez gain, Eusko Jaurlaritzaren gerra industriarentzat lan egiten zituztenak ere jazarriak izan ziren. Hau, Jose eta Cecilio Sarriegui anaien kasua izan zen, Bizkaitik Asturiasera atzera egiterakoan atxilotuak izan zirenak. Kasu hau nahiko berezia izan zen, jakin baipadakigu epaileak “eskuineko pertsona biren txostenak” eskatu zizkiela pertsona hauek abalatzeko; eta hauek jakitun ziren alkatea Jose Luis Guridi alkate zela. Hala ere, kasuaren epaileak “Guridi ezin da izan; atestatua berak sinatu du eta” erantzun ziren, harrituta geratu zirelarik (proposatzen zuten beste abalantea Jose Aramburu

⁴¹⁹ Pako Ruiz de Apodaka Galarzari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-18.

⁴²⁰ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoz egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

⁴²¹ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

⁴²² Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

4. kapitulua

zinegotzia izan zen, hau Eusko Jaurlaritzaren kontrolpeko Bilbon zegoelarik, bi anaiek dokumentuak egiten lagundu baitzioten; eta hala “esker onez” aldeko txosten bat sinatu baitzuen). Andoni Sarriegiren arabera, Cecilio Sarrieguren kontrako txostenean “akusazio faltsuak zeuden (...) sinatu zuen batek gero “seguru ez zegoela” esan baitzuen”. Cecilio Sarriegui sei urteko kartzela zigorraz zigortu zuten, baina 30 hilabete eman zituen Bilbon, Larrinagan, gero Langile Batailoira, Zornotzara bidali zutelarik. Jose Sarriegui ordea kartzela ezberdinetan ibili zen, hilabete batzuek aske geratu zen arte. Alta, itzultzerakoan, beasaindar eskuindar batzuek bere kontrako salaketa berri bat prestatu zuten⁴²³.

Bestetik, Roman Unanue medikua, Beasainen egon zena ere, heriotzara kondenatu zuten, bere alaba Sara Unanue Lobetok esaten digunaren arabera. ““Por nacionalista, separatista y gran propagandista” kondenatu zuten”⁴²⁴.

Beste alde batetik, baditugu zenbait kasu non informeak bata bestearen aurka joan ziren. Hauetako bat izan zen Rafael Polorena, zeina bere alaba Alicia Poloren arabera “dokumentu askotan agertzen ez zenez, ezin genuen frogatu bost urte baino gehiago egin zituenik kartzelan”⁴²⁵. Dokumentu ofizialen arabera, Rafael Polo 1940.eko martxoaren 21ean (Donostiako Probintzia Espetxearen, hots Ondarretako Espetxearen arabera)⁴²⁶, edo 1941.eko martxoaren 26an (Bilboko Guda Entzutegiaren arabera)⁴²⁷ gelditu zen aske; Bizkaiko Gobernu Militarrek 1941.eko apirilaren 21ean bere kontrako akusazioak sobreseitzea erabaki zuelarik. Hemen, agian urte batetako dokumentu gabeko “kartzela-aldi estra” dugu, inon agertzen ez dena.

Kartzelara joandako beste batzuen kasua ere badugu. Pedro Ayesta, jeltzalearena, Bilbon atxilotua eta Logroñon kartzela-zigorra jasandakoa izan zen⁴²⁸. Gasteizen ordea, preso egon zirenen artean Jesus Ibarbia Unzueta jeltzalea, Jose Ibarbia fusilatuaren anaia⁴²⁹ eta Jose Maria Lozares Escolar ditugu. Azken honen kasuan, ELAko Beasaingo tokiko lehendakari izatearren atxilotu zuten. Bere alaba Maria Pilar Lozares Sarasketaren arabera, “bera ehizean joan zen, eta itzultzerakoan, ELAko

⁴²³ Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6

⁴²⁴ Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-X-1.

⁴²⁵ Alicia Polo eta Mikel Apaolazari eginiko elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁴²⁶ Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 2782 karpeta, 050 espedientea.

⁴²⁷ Aranzadi Zientzia Elkartearen Artxiboa. Rafael Polo Carrascal dagokion espedientea.

⁴²⁸ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

⁴²⁹ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19; eta Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

lehendakari egin zutela enteratu zen, berak jakin gabe”⁴³⁰. Hala ere, gure dokumentuen arabera, 1935.eko urritik gutxienez zen Jose Maria Lozares ELAko Beasaingo lehendakari⁴³¹. Baliteke, hasiera batean Lozares lehendakari aukeratzean halako zirkunstantziak zerikusia izatea (kontuan izan behar da 1935.eko urrian, 1934.eko gertakariak zirela eta, Beasaingo ELAko figura nagusia, Jose Ibarbia, kartzelan zegoela), baina 1935.etik 1936.era postuan mantentzeak Lozaresen konpromezua ere erakusten du. Lozares Gasteizen sartu zuten preso, bere alabak esaten digun arabera “bai, preso izan zuten, eta gure amaren arabera hasieran heriotza-zigorra jarri zioten eta gero konmutatu egin zioten”. Egunez Alde Zaharrera joan behar izaten zen lanera, “bi soldaduk eskoltatua. Hala ere, aita lanean sartzen zenean, eskoltak Alde Zaharrean zehar ibiltzen ziren. Behin berandu zetozela eta, aita joan behar zen euren bila, bestela istilu batean aurki zitezkeen”: Lozares Escolar, halere, ez zen hain bakarrik egon, bere emaztea Gasteizko jatetxe batean, “la Marina” jatetxean hasi zen lanean; “bertako jabeak preso politikoen emazteak kontratatzen baitzituen”. Bestalde, Maria Pilar Lozaresen arabera, abertzale batzuek, egunero janaria botatzen zioten ziegako leihotik, eta paketea botatzerakoan keinu bat egiten zuten. Nire aitak sekula ere ez zien aurpegia ikusi”⁴³².

Guda oinetara, askotan, Beasaingo erreketek joaten ziren berauek atxilotzera. Halako kasua izan zen, Inaxio Imazena, zeina Epifanio Arguiñanok eta “apaiz batek” atxilotzen lagundu zuten, Santoñan⁴³³. Antza denez, Juan Ramon Imazen arabera, frankistak Imaz fusilatzeaz egon ziren “baina italiarrek haiek euren presoak zirela esan zuten eta horregatik ez zuten fusilatu”.

Atxilotu gehienak esan bezala, edo Beasaingo kartzelatik edo guda-oinetik joan ziren kartzela frankistetara, kontzentrazio-eremuetara edota Langile Batailoietara. Hala ere, bazeuden salbuespen batzuk. Horietako bat, Victor Bernedo alkate ohia izan zen, Bilbon atxilotua izan zena, baina bere adin nagusia zela eta borrokatu ez zuena.

⁴³⁰ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁴³¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 57. dokumentua.

⁴³² Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3. Maria Pilar Lozares Sarasketaren amaren familiaren aldetik (familia hau andoaindarra zen) ere sufrimendu handia bizi izan zuten; osaba bat, Victori Sarasketa Derion fusilatu zuten, torturatatu ostean. Beste bat, Secundino, larriki zauritu zen, eta Santanderreko erietxean artatzen zegoela, tropa frankistek erietxea asaltatu zuen. Ihes egiteko leihotik saltatu zuen, eta lurrean zauritua zegoela frankistek errematatu zuten. Hirugarren anaia, Antonio gudan desagertu zen, eta laugarren anai bat, Pedro kartzelaz kartzela ibili zen, tuberkulosiaren gaixotasunak kutsatu zuelarik.

⁴³³ Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

4. kapitulua

Bernedori, atxilotua izan zelarik, heriotz-zigorra ezarri zioten, hala ere kommutatu egin zioten bizi osoko kartzela-zigorragatik. 1944.ean, hil baino pixka bat lehenago, askatu egin zuten, jada oso gaixo zegoela. Hala kontatzen digu Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorok, orduan Udalean lan egin zuenak: “Ez da egia Victor Bernedo alkate ohia kartzelan hil zenik. Nik neuk egin nuen bitartekaritza kartzelatik atera zedin”⁴³⁴.

Ondoko herriei dagokienez, Nicomedes Zurutuza lazkaotarra, Beasainen sustraiak zituena, Santoñan atxilotua izan zen, ondoren kontzentrazio-eremu batean ere egon zen⁴³⁵. Bestela, badugu gerora Beasainen sustraiak egin zituen Eduardo Gamarra donostiarraren kasua. Pertsona hau, Gipuzkoa konkistatu ostean, Katalunian errefuxiatu zen, ahalik eta 1938.ean Seu d’Urgell herrian alistatu zen arte. Bera, Pirinio inguruan ibili zen, Frantziako muga zaintzen “atxilotu zuten arte. 1940.ean atera zen kartzelatik”⁴³⁶.

Kartzelen egoera frankismoaren garaian oso gaitza izan zen. Gehienetan, kartzelak, kontzentrazio-eremuak bezelaxe (gero ikusiko dugun moduan), gainezka zeuden eta ez zuten inongo zerbitzu minimorik. Kartzelak ere, arbitraritatearen zonaldea ziren, han gehiegikeriak eta bidegabekeriak egunerokoa izan ziren; presoentzako zen janaria funtzionarioek desbideratzen, jipoiak ematera eta are eraiketa batzuk gertatzera (hau, gehienetan, kanpoko familiekiko informazioa oso txikia izaten zenean). Batez ere emakumeak izaten ziren okerren pasatzen zutenak, askotan bortxaketak ematen ziren, edota euren umeak lapurtu egiten zizkieten (batzuetan, ama hil ostean)⁴³⁷.

Presoen kopuruak, beste erakunde errepresiboekin gertatu bezala, 1939.ean jo zuen goia, 270.719 preso zirelarik, Espainiako Estatitika Urtekariaren arabera. 1940.ean 233.373 ziren presoak, eta hortik aurrera jaisten joango ziren: 1941.ean 159.392 izan ziren. Hala ere, estatistika hauek ez dira oso zehatzak: ez dituzte guda ostean egindako resoak kontutan hartzen, soilik gudan zehar egindakoetatik oraindik kartzelan geratzen zirenak; ezta ere kartzeletan amekin zeuden umeak⁴³⁸. Gainera, Ricard Vinyesek esaten

⁴³⁴ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

⁴³⁵ Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-9an.

⁴³⁶ Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-1.

⁴³⁷ Kartzelen inguruko bibliografia: RODRIGO, Javier: RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 161. eta hurrengo or.; VINYES, Ricard: *Irredentas. Las presas políticas y sus hijos en las cárceles de Franco. Temas de Hoy*. Madril, 2002.

⁴³⁸ RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 165. or.

duen moduan, ez zuten emakume eta gizonezko kopururik bereizten; hau da, ez zen inolako estatistika fidagarririk egiten⁴³⁹.

Guztira, guk topatu dugunaren arabera, 95 beasaindar izan ziren guda-kontseiluetan epaituak. Gehienak, sozialistak ziren, Alderdi Sozialistan, UGTn edo bietan militatzen zuten, edo horiekiko aldeketasuna zuten 95tik 38k. Gainera, beste hiru, zalantzarekin bada ere, segmentu honetan jarri ahal ditugu, 41 eginez. Hamazortzi *Izquierda Republicanakoak* ziren, baina horietatik zazpik, alderdi errepublikanoarekin eta sindikatu sozialistarekin militantzia bikoitza zuten⁴⁴⁰ (hemeretzigarren bat, Felipe Bueno Arizmendi “errepublikanoa” zen, baina afiliatorik gabe). Horrez gain, beste bi pertsona “ezkerrekoak, definitu gabe” ziren; beraz, ezker erreformistaren gamaren kolore-doinu guztien artean 62 beasaindar enkausatu aurkitzen ditugu. Hirugarren sektorea, abertzaleena dugu, zeina EAJko edota ELAko 13 kidek eta aldekoa zen beste batek osatzen dute, 14 guztira. Ezker iraultzailearen bolumena, aldiz oso txikia da: sei anarkista eta komunista bakarra (Jesus Larrañaga). Beste guztiak, afiliazio gabekoak, afiliazio ezezagunekoak, edo afiliazio definitu gabekoak (adibidez, deklarazio eta txostenetan informazio kontraesankorra ematen dutelako) dira.

Gure datuen arabera, 10ek heriotza zigorra jaso zuten; esan bezala hauetatik bost exekutatuak izan zirelarik. Beste bost ez zituzten exekutatu: Bonifacio Apalategui Zurutuza, Victor Bernedo Zubiaurre, Valentin Gomez Arce, Santiago Juanes Duque eta Antonio Lorenzo Sanchez⁴⁴¹. Azken bost hauetatik sozialista bi (Victor Bernedo eta Valentin Gomez), abertzale bat (Bonifacio Apalategui), anarkista bat (Antonio Lorenzo) eta UGT eta *Izquierda Republicanaren* artean militantzia bikoitza zuen pertsona bat (Santiago Juanes) aurkitzen ditugu. Victor Bernedo ezik, beste laurak milizianoak edo gudariak izandakoak dira.

Bonifacio Apalategui, jeltzalea, Olaberrian jaioa zen, 1909.an (28 urte zituen kondenatu zutenean). Gudari alistatu aurretik, Beasainen armekin ibili izan zen, altxatuak bertan sar zitezten galarazten saiatzen. Altxatuak Beasainen sartzerakoan, Azkoitirako eta Azpeitirako norabidean egin zuen ihes, eta azken herri honetan gudari gisa alistatu zuen, bere lehen borroka Mandubiako frontean izan zelarik. Han zauritua

⁴³⁹ VINYES, Ricard: *Irredentas...* op. cit.

⁴⁴⁰ UGT soilik kontatuz (PSOekoak bakarrik zirenak kanpoan utziz), 95tik 42 sindikatu horren militanteak edo aldekoak zirela esan dezakegu.

⁴⁴¹ Beasainekin nolabaiteko lotura zuen Esteban Asensio Areizaga ere heriotz-zigorraz kondenatua izan zen, gero kommutatu egin ziotelarik.

4. kapitulua

izan zen, eta alta jasotzerakoan, Amaiur batailoian sartu zen, beste fronte batzuen artean, Bizkargin eta Otxandion borrokatu zuelarik. Bilbo ebakuatzerakoan, Kantabriarantz egin zuen, eta Santoñan atxilotua izan zen 1937.eko abuztuaren 26an. Epaiketaren sententzia 1937.eko irailaren 21ean heldu zitzaion, heriotzaz kondenatzen zuelarik Hala ere, egun batzuen buruan, urriaren 4an kommutatu egin zitzaion, 30 urteko kartzela zigorra jaso behar zuelarik. 1943.eko martxoaren 4an beste kommutazio bat iritsi zitzaion, sei urteko kartzela-zigor murrizketa berria izan zuelarik⁴⁴².

Valentin Gomez Arce, sozialista, Ordizian jaio zen 1911.ean, beraz 26 urte zituen kondena jaso zuenean. Postari gisa egiten zuen lan. Aurretik, 1934.eko iraultza zela eta ere, epaitua eta kondenatua izan zen. Beasainen armak hartzeaz gain, Beasaingo Defentsako Komiteko kide ere izan zen. Horrezgain, zenbaitek Donostian, Loiolako koarteletan gertatu ziren borroketan parte hartzeaz akusatu zuten. Altxatuek Beasain hartzerakoan, Azpeitirako bidea hartu zuen, eta handik Hernanira joan zen, Hernanin ere armekin goardia egin zuelarik herri hura defendatzeko. Armadako kide gisa alistatua izan zen, eta hau ere Kantabrian atxilotua izan zen 1937.eko abuztuan. Beasainera itzultzeko salbokonduktua eman zioten, baina heltzerakoan, 1937.eko irailaren 9an atxilotua izan zen. Hasiera batean, 1938.eko maiatzaren 26an heriotz-zigorra ezarri zioten, baina 1939.eko urriaren 1ean 30 urteko zigorraz kommutatu zioten, eta 1943.eko urtarrilaren 18an 14 urteko zigorraz. 1943.eko maiatzaren 14an atera zen kartzelatik, behin-behineko askatasunarekin⁴⁴³.

Santiago Juanes Duque, politikoki *Izquierda Republicanako* kidea eta sindikalgintzak, UGTko kidea, ere Komiteko kide zen. Valladolideko Trigueros del Valle herrian jaio zen, eta 26 urte zituen atxilotua izan zenean. Mekaniko gisa egiten zuen lan, eta UGTren kide zen, baina politikoki, sozialista izan ordez, *Izquierda Republicana* alderdikoa zen. Herriko zenbait lekuko eskuindarrek Beasaingo Defentsa Komiteko kide gisa atxiloketa batzuk agintzea leporatu zioten, berak hori egia ez zela esan zuen arren. Gudan *Rusia* batailoiko kide izan zen eta 1937.eko uztailaren 26an Santanderren atxilotua izan zen. Bere kontrako heriotz-sententzia 1937.eko urriaren

⁴⁴² Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 29-37 kausa, Bonifazio Apalategui Zurutuzari dagokiona.

⁴⁴³ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 41-38 kausa, Valentin Gomez Arceri dagokiona.

22an izan zen diktatua, baina sententzia hori 1939.ean berrikusia izan zen. Santoñako eta Ondarretako kartzeletan egon zen bere kartzela-aldian⁴⁴⁴.

Eta zerrenda honekin bukatzeko, Antonio Lorenzo Sanchez anarkista dugu. Antonio Lorenzok 21 urte zituen atxilotua izan zenean. Hala ere, horrek ez zuen esan nahi Beasaingo defentsan paper garrantzitsurik jokatu ez zuenik, izan ere, armen bila Eibarrera joan zenetako bat izan zen. Gipuzkoan, Donostian, Zarautzen eta Deban borrokatu zuen, eta geroago, Bilbon *Malatesta* batailoiko kide egin zen. Asturiasen ere borrokatu zuen, euskaldunek Asturiasera egindako espedizioan. 1937.eko uztailaren 26an Santanderren atxilotua izan zen. Bere kontrako akusazioan, urte horretako urtarrilaren 4an Bilboko Larrinaga kartzelaren kontrako asaltuan parte hartzea egotzi zioten, baina bera gai izan zen orduan gaixo zegoela eta etxean izan zela frogatzeko. 1937.eko azaroaren 30ean eginiko epaiketan heriotz-zigorra ezarri zioten, baina 1939.eko abenduaren 18an, epaiketaren berrikeritze batean ostean, hasieran epaileak bere kausaren sobreseimendua diktatu zuen. Hala ere, auditorearen kontrako iritzia zela eta, bere egoera linbo batean geratu zen eta kartzelan jarraitu zuen 1942. urterarte. Bere presoaldian Santoñako, Bilboko, Burgoseko, Santanderreko eta Donostiako kartzeletan egon zen⁴⁴⁵.

Beste seiri bizi arteko zigorra (30 urteko zigorraren baliokidea zena) jarri zieten: Francisco Escot Quintanari, Eugenio Etura Berasateguiri, Roman Iglesias De la Rocari, Francisco Lamata Huergori, Constantino Maiz Maizi, eta Rufino Sarasola Lasari⁴⁴⁶. Talde honetan sozialista bi zeuden (Francisco Lamata eta Roman Iglesias), abertzale bi (Constantino Maiz eta Rufino Sarasola), errepublikano bakarra (Eugenio Etura, zeinak UGTekin ere militantzia bikoitza zuen) eta anarkista bat (Jose Escot). Aipatu beharra dago halako kondena izan zuela hasieran baita ere Ignacio Cortesek, Komiteko kideak, baina honen kontrako sententzia, Donostian 1940.eko uztailaren 13an eman zena,

⁴⁴⁴ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 11988-38 kausa, Santiago Gomez Duque dagokiona.

⁴⁴⁵ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 172-37, Bizkaia 11895-38, eta Gipuzkoa 3468-40 kausak, Antonio Lorenzo Sanchez dagozkionak.

⁴⁴⁶ Bizi arteko zigorra jaso zuten baita ere, Olaztin bizi ziren, baina 1936.eko uztailean Beasain defendatzen lagundu zuten Jesus Garcia Atuñedo eta Jose Garcia Atuñedo anaiek. Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia, Santander 268-38 kausa, Jose Garcia Atuñedori dagokiona.

4. kapitulua

epaitegiko auditoreak leungarriak kontutan izan ondoren urte horretako abuztuaren 10ean sei urtetan utzi zuen⁴⁴⁷.

Zigor hau jaso zutenen kondena efektiboa bost urte ingurukoa zen (Jose Escoten kartzela-aldiaren bukaera jakiterik ez dugu izan. Badakigu ordea, Santoñan atxilotua izan zela 1937.eko abuztu bukaeran, eta 1937eko irailaren 21ean jarri ziotela kondena⁴⁴⁸). Luzeena, gure datuen arabera, Francisco Lamatarena, izan zen, zeina 1943.eko abuztuaren 26an atera zen kartzelatik, 1943.eko apirilaren 5ean zigorra berrikusia eta sei urtetara zigortua izan zelarik. Lamata Santoñan izan zen atxilotua, 1937.eko abuztuaren 26an, eta urte horretako irailean sententziatua izan zen⁴⁴⁹. Urte bete lehenago atera zen kartzelatik Eugenio Etura. Hauxe, Santanderren atxilotua izan zen lehenengo, baina Beasainera joateko salbokonduktu bat lortu zuen arren, 1937.eko irailaren 13an atxilotu zuten herrian. Eturari zigor-jaitsiera 1942.eko otsailaren 25ean heldu zitzaion, hamabi urtetako zigorra ezarri ziotelarik, baina hortik gutxira, apirilaren 23an aske geratu zen⁴⁵⁰. 1937.ean sententzia jasota 1940.ean atera ziren Roman Iglesias, Constantino Maiz eta Rufino Sarasola. Constantino Maiz Bizkaian atxilotua izan zen, 1937.eko ekainean, eta bera izan zen hiru hauetan sententzia jasotzen lehena, 1937.eko uztailaren 27an. 1940.eko abuztuaren 31ean atera zen kartzelatik, presoaldi arinarekin, kondena 1943.eko maiatzaren 10ean anulatu ziotelarik⁴⁵¹. Roman Iglesias eta Rufino Sarasola biak 1937.eko abuztuaren 26an izan ziren atxilotuak: Santanderren lehena eta Santoñan bigarrena (Sarasola 1937.eko irailaren 21ean kondenatu zuten⁴⁵² eta Iglesias 1937.eko urriaren 7an). Biak 1940.ean atera ziren, baina oso modu ezberdinean, izan ere Roman Iglesiasen kondena 1940.eko urtarrilaren 4ean anulatua izan zen, “delitu zantzurik aurkitu ez” zutela eta⁴⁵³. Rufino Sarasolarena ordea, guztiz kontrako kasu bat izan zen. Santander eta Cadizen (Puerto de Santa Maria) arteko kartzela-odisea baten

⁴⁴⁷ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3044-40 kausa, Ignacio Cortes Ceballosi dagokiona.

⁴⁴⁸ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 59-37 kausa, Jose Escot Quintanari dagokiona.

⁴⁴⁹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 171-37 kausa, Francisco Lamata Huergori dagokiona.

⁴⁵⁰ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2110-38 kausa, Angel Zufiaurre Caminori eta Eugenio Etura Berasateguiri dagokiena.

⁴⁵¹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 31-37 kausa, Constantino Maiz Maizi dagokiona.

⁴⁵² Bere familiaren arabera, Rufino Sarasola ez zen izan bizi osoko kartzela zigorraz kondenatua, baizik eta heriotz zigorra ezarri zioten. Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁴⁵³ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 16440-39 kausa, Roman Iglesias De la Rosari dagokiona.

ostean, familiak ahalegin ekonomikoak egin ondoren: Roberto Begue Sarasolak esaten duen moduan “Beasaingo zenbait pisudun pertsonari; Aslari, Ezquiagari eta Unzuetari, dirua ordaindu behar izan genien aldeko txostenen bat idatz zezaten”⁴⁵⁴; kartzelatik ateratzea lortu zuen, Nafarroako Lakuntza herrian bizitzen jarri zelarik. Beraz, ikusten dugun moduan, errepresioa, edo “errepresioaren inguruko kudeaketa” boterean zegoen zenbait pertsonarentzat ere diru iturria izan zitekeela; hauxe mesede baten trukeko ordainketa forman edo zitekeenez, xantai moduan egiten bazen ere. Ondoko herrian, Ordizian, antzeko kasu bat eman zen, han Ramon Perez EAEko afiliatua kartzelan zegoela, honen anai bat (Francoren aldean borrokatu zuen) “jarrera oneko ziurtagiriak” lortzen saiatu zen. Halakoa sinatu zuenatariko bat, Ordiziako FET-JONSeko Tokiko Buru Lucio Lecuona izan zen, baina baldintza bezala jarri zuen Ramon Perezek, ebanista onaren fama zuenak, bere aroztegian lan egin zezan⁴⁵⁵. Hauxe ez zen kasu guztiz isolatua, Antonio Cazorlak kontatzen digun moduan, askotan jauntxoak izaten ziren (bai zuzeneko errepresioan zein estraperloan), estatu agintarien gainetik agin zezaketenak⁴⁵⁶.

Hala ere, ez zen hemen bukatu Rufino Sarasolaren sufrikarioa. Beasainera etortzen zen bakoitzean, “Beasaingo frankista batzuk, zigorra kommutatzearen dirua jaso zutenak eta abar, osabaren atzetik ibiltzen ziren, probokatzen eta abar”⁴⁵⁷. Honek bukaera tragiko bat izan zuen, 1948.eko Loinatz festetan: Roberto Begueri hitza emanaz “barraketara joan nintzen osaba Rufinorekin eta biok norian igo ginen. Bat-batean osabak pertsona bat, Santiago Muñoz Novillo⁴⁵⁸, ikusi zuen Goardia Zibileko lotinantarekin batera”, Sarasola atxilotzeko asmoz, antza denez. “Osabak ikusi zituenean noriatik behera burua bota zuen... ni heltzen saiatu nintzen, eta bere zapata eskuan nuela geratu nintzen”⁴⁵⁹. Beraz, Sarasola bere buruaz beste egitera bultzatua izan zen. Roberto Beguek kontatzen duen moduan “Muñoz goardia zibilari “hori mozkorra egongo huan” esaten entzun nuen, eta haren erantzuna “hi hago ixilik, hik ez duk ezer ikusi!” izan zen. Urte batzuk geroago berdina errepikatu zuen, osaba mozkorra zegoela,

⁴⁵⁴ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁴⁵⁵ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 198. eta 199. or.

⁴⁵⁶ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit.

⁴⁵⁷ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁴⁵⁸ Santiago Muñoz hau erreketea izandakoa izan zen. Francisco Ezquiaga zinegotziaren eta Batzorde Txostengilearen buruaren inprimategian egiten zuen lan. Muñoz izan zen, aurreko kapituluan esan bezala erregimeneko manifestazioetara joaten ez zirenak “hil egin behar zirela” esan zuena.

⁴⁵⁹ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

4. kapitulua

nire aurrean, taberna batean. Heldu behar izan ninduten, bestela botila buruan hautsiko nion»⁴⁶⁰.

Zigor nahiko handia -10 urtetik gorakoa- jarri zieten, hamaika beasaindarrei, tartean Severiano Azpeitia Arcelus alkateorde ohiari zeinak 14 urte eta 8 hilabetetako zigorra izan zuen⁴⁶¹. Hamaika pertsonetako taldetxo honetan, gehienak sozialistak ziren (hiru Alderdi Sozialistara afiliatuak eta beste bi bat UGTko kide soilik). Hiru errepublikanoak ziren (bik UGTn militantzia bikoitza zuten, hirugarrena Severiano Azpeitia zen), beste bat abertzalea, eta beste bik ez zuten afiliazio politikorik. Bestetik, guda-kontseiluak jasandako beste hamalau beasaindarrek, tartean lehen aipatutako Ignacio Cortesek, hamar urtetik beherako kartzela zigorra jaso zuten (*Izquierda Republicanako* seik –tartean UGTekin militantzia bikoitza zuten bik-, hiru sozialistak, jeltzale bik, afiliazio gabeko batek, eta afiliazioa jakiterik ez dugun bik).

Guda-kontseilua jaso zuenetako 95etik 35 aske geratu ziren; hauen artean, errugabetuak, kausa sobreseitua izan dutenak, kausa artxibatua izan zutenak, eta epaiketara iritsi aurretik, fiskalak edo instruktoreak delitu-zantzurik aurkitu ezean aske geratutakoak kontatu ditugularik. Hala ere, honek ez du esan nahi ez zutenik kartzela zigorrik pasatu, izan ere, horietako gehienak epaiketa aurretik kartzelatik pasatu behar izan baziren (eta gehienetan instrukzio faseak urte bete edo bi irauten zituen, presoan kartzelan zegoelarik). Kasu batzuetan nahiko luzea izan zitekeen fase hori: adibidez Ignacio Andiak⁴⁶² lau urte pasatu zituen kartzelan, eta beste hainbeste Manuel Gorrochateguik⁴⁶³; eta hiruna Javier Jaureguik⁴⁶⁴, Servando Paredesek⁴⁶⁵, Rafael Polok⁴⁶⁶... Bi urte pasata, behin-behineko askatasunarekin soilik izan zuten ateratzea adibidez Juan Aramburu Bustinzak⁴⁶⁷ eta Juan Aramburu Irizarrek⁴⁶⁸. Prozesuaren

⁴⁶⁰ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁴⁶¹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 4215-42 kausa, Severiano Azpeitia Arcelusi dagokiona.

⁴⁶² Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3418-40 kausa, Ignacio Andia Bonillari Urrebazori dagokiona.

⁴⁶³ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3079-39 kausa, Manuel Gorrochategui Urrebazori dagokiona.

⁴⁶⁴ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3651-39 kausa Javier Jauregui Biaini dagokiona.

⁴⁶⁵ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 172-37; Bizkaia 20883-39 eta Gipuzkoa 3546-40 kausak, Servando Paredes Barredori dagozkionak.

⁴⁶⁶ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 15515-39 kausa, Rafael Polo Carrasacali dagokiona.

⁴⁶⁷ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 2309-40 kausa, Juan Aramburu Bustinzari dagokiona.

geldotasunaz ilustratzeko, badugu adibidez, Felipe Bueno Arizmendiren kasua, zeina 1937.ean izan zen atxilotua, eta, agian kartzelatik lehenago ateratzea izan bazuen ere, bere kausaren sobreseimendua ez zen 1944.eko urtarrilaren 25a arte izan⁴⁶⁹.

Guztira 127 beasaindar pasa ziren kartzeletatik edo kontzentrazio-eremuetatik⁴⁷⁰ (esan bezala 95 izan ziren guda-kontseilua izan zutenak, beraz, besteak, sententzia eta epaiketa gabe, edo epaiketa zibila izanda joan zirela atzeman genezake). Hemengo soziologia politikoa eginez, guda-kausa sufritu zutenen antzekoa denaz jabetuko gara: 127tik 50, UGTkoak edo PSOEkoak (militanteak edo aldeko joeradunak) baitira. Beste hemeretzi *Izquierda Republicanakoak* dira, horietatik bostek UGTrekin militantzia bikoitza dutelarik⁴⁷¹. Beste bederatzi, “ezkertiar” bezala definitzen dira, gehiago zehaztu gabe. Beraz, 127tik, 78 ditugu ezker erreformistakoak direnak. Abertzaleen artean, 15 kontatzen ditugu. Lau anarkista ere kontatu ditugu.

Javier Rodrigo ikerlariaren arabera, kontzentrazio-eremuen izaera, “behin-behinekoa eta prebentiboa izan zen”; hau da, hauen helburua behin-behinekoa izan zen, berez Guda bukatu arteko iraupena izango zuten (nahiz eta honen inguruan estabaida ideologiko batzuk egon frankismoaren goi-hierarkien artean)⁴⁷², eta beste alde batetik “prebentiboa”; izan ere, “trantsitoan” zeuden presoak jasotzen zituztelako. Preso hauek, gehienetan militarrek (Armada errepublikanoko soldaduak) izaten ziren, baina esan dugunez, zibilak ere bazeuden; eta kasu batean ala bestean, justizia zibil edo militarretik pasatu ez zirenak ziren. Hau da, inolako zigorra ez zuten presoak izaten ziren, beraz teknikoki, legeditik kanpo ezarritako espazio bat izan zen (hori kontuan hartuz Francoren Estatuta berez ilegala zela, aurretik zetorren legedia demokratikoaren haustura bat zelako. Halere, altxatuen para-Estatu honen “legeditik” kanpo ere ezartzen

⁴⁶⁸ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Bizkaia 2532-37 eta Gipuzkoa 16148-39 kausa, Juan Aramburu Irizarri dagozkionak.

⁴⁶⁹ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Gipuzkoa 3088-38 kausa, Felipe Bueno Arizmendiri dagokiona.

⁴⁷⁰ Zerrenda honetan eta estatistika honetan, heriotza-zigorra jaso zuten 10ak ez ditugu kontatu.

⁴⁷¹ Guztira, 127tik 39 ditugu UGTkoak.

⁴⁷² Javier Rodrigo Sanchezen arabera, Europaren historia ikertuz, kontzentrazio-eremuen sistemaren jatorria gehiago dago guda-testuinguruari lotuta (honen beharrianetatik sortutako sistema bat izango zatekeen) sistema hau marxan jartzen duen boterearen izaerari (totalitarioa) zatekeenari baino. Hau da, ez da soilik Estatu totalitarioek erabilitako sistema bat, baina bai gudan dauden “Estatuek edota para-Estatuek” (hau da, botere finko eta antolatu baten existentzia auresuposatzen du, mugimendu gerrilariak edota subertsiboak kanpoan utziz) erabilitakoa. Beste gauza bat da sistemaren jarraipena, guda testuingurutik at dihoana edo hura traszenditzen duena. RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración franquistas. Entre la historia y la memoria*. Siete Mares Argitaletxea. Madril, 2003, 22-27. eta 29-30. or.

4. kapitulua

ziren kontzentrazio-eremuak)⁴⁷³. Kontutan izan behar da bertan zeudenak ez zirela “guda-presotzat” hartzen, baizik eta “Estatuaren kontrako matxinada” egin zuten edo lagundu zuten presotzat; hau da, 1929.ean Espainiak sinatu zuen Genevako Hitzarmenetik at geratzen zen, irregulartasun izaera handituz⁴⁷⁴.

Rodrigok oso definizio polita erabiltzen du hauxe azaltzeko: kontzentrazio-eremuak “linbo” bat ziren; bai presoaren zigor-ibilbidean tarteko eta ez behin-betiko etapa bat zirelako, eta bai legalki zehaztu gabeko eremu bat zirelako⁴⁷⁵. Kasu honetan, egile honek beste lan batean aipatu duen moduan, gehiago izan ziren Francoren guda egiteko moduaren adierazle (“kosta ala kosta guda irabaziko dugu”, “espainiarren herena hil behar badugu ere”), gerora ezarriko zuen sistemaren edo sistema-proiektu ezberdinen adierazle baino. Kontzentrazio eremuen helburua presoak umiliatzea, hauen potentzial politikoa (Francoren erregimenaren kontrakoa) anulatzea; eta batez ere, preso hauen lan indarra (esklabu moduan) “Espainia berriaren” alde erabiltzea izan zen, hau da, preso hauek *erabiltzea*. Horregatik, Javier Rodrigoren arabera, ezin da esan Espainiako kontzentrazio-eremuak nazien arabera esterminio-eremuak bezalakoak zirenik, hauen helburua ez baitzen berez masiboki hiltzea (nahiz eta hilketak suertatu Espainiako eremuetan, eta pentsatzekoa da, halako arbitrarietate eta legegabekeria testuinguru batean, boteredunek -eremuetako agintariak- euren autoritatea erakusteko edozein gauza egin ahal izatea)⁴⁷⁶. Kasu honetan, Fernando Mendiola eta Edurne Beumont nafarren arabera, kontzentrazio-eremuez ari garenean, kontuz izan behar dugu bi arrisku-motarekin: bata, kontzentrazio-eremu guztiak nazismoaren esterminio-eremuekin asimilitzea zatekeen; eta bestea, hauen mailara iritsi ez zenez, hauetan gertatu izandakoa “erlatibizatzea”. Horregatik, kontzentrazio-eremuen historia ondo ezagutu beharra dago, eta baita ere, hauen dinamikak eta “erabilgarritasuna”⁴⁷⁷.

Espainiako Guda Zibilean altxatuek egin zuten kontzentrazio-eremu sistematik 500.000 bat preso pasa ziren, eta,aldi bereko preso kopuruak 1939.ean jo zuen goia

⁴⁷³ RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...*, op. cit., 112-113. or.

⁴⁷⁴ RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración...* op. cit., 57. or.

⁴⁷⁵ *Ibid.*, 175-176. or. Kasu honetan, Javier Rodrigok “linbotasun” honetan hirugarren aspeltu bat gehitzen ditu, “linbo historiografikoaren”. Honekin bat, historia-zientzian halako eremuen inguruko ezagutza txikiari egiten dio erreferentzia, hauxe Francoren nahi batekin bat datorrela salatuz; diktadoreak ere eremu horien existentzia ezkutatu nahi izan baitzuen.

⁴⁷⁶ *Ibid.*, 31. eta 159. or.; eta MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo en el Pirineo. La carretera Igal-Vidángoz-Roncal (1939-1941)*. Txalaparta. Tafalla, 2006, 66. or.

⁴⁷⁷ MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo...* op. cit., 46. or.

277.103 preso zirelarik⁴⁷⁸. Haien sistematizazioa eta orokortzea 1937.ean egin zen, batez ere “Iparraldeko Frontea” zeritzonaren (Bizkaia, Kantabria eta Asturias) konkistan zehar. Beraz, hemen badugu lehen ezaugarria: “funtzionalitatea”. Alde biek asimilatu zuten guda luzea izango zela, eta beraz, garai luze baterako (errepresio-)“tresnak” behar zituztela, eta horrez gain, gudaren internazionalizazioak eta zekarren propaganda-gudak, gudaren lehen hilabeteetan egin ziren sarraskiekin jarraitzea ezinezko egin zuen. “Lege itxurako erakundeak” beharrezkoak ziren⁴⁷⁹.

Aipatutako funtzionalitate horren barruan topatzen dugu kontzentrazio-eremuen helburua. Eremu hauek, batez ere gudan egindako presoak *sailkatzeko* balio izan zuten. Bertara iristen ziren presoak hiru multzotan izaten ziren sailkatua: aldekoak (*afectos*), altxatuek berreskuragarri ikusten zituztenak, altxatuen Armadara bidaltzen zituztenak, zalantzarriak (*desafectos*), Langile Batailoietara, eta “krimen politikoak” egin zituztenak (adibidez, ezkerreko alderdi batetako kide izatea edo “egunkari desegokia” irakurtzea), justizia militarren aurrera bidaltzen zituzten⁴⁸⁰. Sailkapen-funtzionalitate hau oinarritzkoa izan zen gudan zehar, Fernando Mendiolaren ustez, kontzentrazio-esparru sistema espainiarraren muina izan zen, berez kontzentrazio-eremuak behin-behineko egonaldietarako pentsatuak zeuden eta⁴⁸¹; baina errepresioa hainbestekoa izan zen, ezen eremuen sistemak ezin izan zuen abtsorbitu: guda bukaeran eta lehen guda-ostean preso asko Langile Batailoietara sailkapen prozesurik gabe ebakutzen zituzten⁴⁸². Javier Rodrigoren arabera, izan zen, batez ere 1938.ean, Estatuan falangisten hegemonia inoiz baino indartsuagoa zenean, kontzentrazio eremuak “berreziketa zentru” bihurtzeko saiakera bat, hau da, ideologia totalitarioaren bidez, presoak Estatuan “integratzeko” saiakera bat⁴⁸³; baina gudaren dinamikak berak ezerezen utzi zituen asmo horiek: 1939.ean hainbeste preso egin zituzten altxatuek, ezen kontzentrazio-eremuetan gainezkatze arazoa larriagotu egin zen, eta funtzio ideologikoa ezinezko bihurtu zen⁴⁸⁴.

⁴⁷⁸ RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 122-125. or.

⁴⁷⁹ Ibid., 27. eta 42-47. or.; eta MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo...* op. cit., 59-60. or.

⁴⁸⁰ MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo...* op. cit., 44. or.

⁴⁸¹ MENDIOLA GONZALO, Fernando: “Frankismo garaiko bortxazko lanen antolaketa legala eta ondorio sozioekonomikoak” in ASKOREN ARTEAN: *Los trabajos forzados en la dictadura franquista. Bortxazko lanak diktadura frankistan* (46-61. or.). Memoriaren Bideak eta Geronimo de Uztariz Institutua. Iruñea, 2007, 49. or.

⁴⁸² RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 127. or.

⁴⁸³ RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración...* op. cit., 32. eta 36-38. or.

⁴⁸⁴ RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 127. or.

4. kapitulua

Bigarren ezaugarria, geografiarena da. Kontzentrazio-eremuak batez ere guda frontetik hurbil egiten zituzten, hain zuzen ere, preso asko egingo zituzten tokietatik hurbil. Horregatik, 1937.ean zabaldu ziren kontzentrazio eremuak Euskal Herrian edo ondoko lurraldeetan egin zituzten (Burgosen, Logroñon edo Kantabrian), eta 1938.ean, guda Aragoiko eta Kataluniako frontera mugitu zenean, kontzentrazio eremuak ere toki hartan zabaldu ziren. Andaluzian adibidez, ez zegoen ia kontzentrazio eremurik, han Francoren tropen aurrerapenak “presorik ez egitea” zekarren eta. Gabriel Jacksonek errepresioaren geografia ere aipatzen digu: bere ustez, Penintsularen Iparraldean kontzentrazio-eremuak ugaltu ziren, Hegoaldean berriz, errepresio hiltzaile masiboa. Hau modu gogorrago batean azaltzen du Javier Rodrigok, bere ustez 1936.ean Espainiako Hegoaldean atxilotutako pertsona batentzat, kontzentrazio-eremu batean sartzea ongarria izan zitekeen, han araua presoak zuzenean hiltzea zelako⁴⁸⁵.

Azkenik, kontutan izan behar dugu hirugarren ezaugarri bat: kontzentrazio-eremuen erakundearen autonomia, hau da, kontzentrazio-eremuek legearekiko zuten izaera autonomia, jada aipatu duguna, eta honek dakarren nolabaiteko “ezaugarri aniztasuna” (lehen aipatutako hiru ezaugarri amankomun nagusiez kanpo, esan nahi dut). Horrek, egile batzuk, Fernando Mendiola adibidez, “kontzentrazio-unibertsoaz” hitz egitera eramán ditu⁴⁸⁶. Kontuan izan behar dugu baita, bertan preso zeudenak ez zutela “gudako preso” estatusik lortu. Noski, “alegalitate” horri lotuta aurkitzen dugu kontzentrazio-eremuetan presoek zituzten baldintza eskasak, batere bermerik gabekoak. Honi lotuta aurkitzen ditugu kontzentrazio-eremu gehienak euren gaitasunaz gaindi hartzen zituztela presoak: askotan hirukoiztu egiten zuten gehienezko kopurua.

Badugu beste aldaki bat gai honetan, hain zuzen ere langile batailoitik pasa diren presoak. Guztira 70 beasaindar pasa ziren langile-batailoietatik: Deuston, Burgoseko San Pedro Cardeñan, Burgoseko Valdenocedan, Algecirasen... Ofizialki, langile-batailoietan ematen zen aldia, kartzela-aldiaren kondena arintzeko modu bat zen. Baina aginteak ere nolabaiteko jukutria krudelak erabiltzen zituen presoekin. Hauetako nabarmenena, presoari kausa “sobreseitu” ostean, aske geratzea behar zutenean, “aske geratu, baina langile batailoi batean geratu araztea” zen, “kausa behin-betiko

⁴⁸⁵ JACKSON, Gabriel: *La república española y la Guerra Civil 1931-1939*. Crítica. Bartzelona, 1967, 248. or.; RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración...* op. cit., 53. or.

⁴⁸⁶ MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Eduarne: *Esclavos del franquismo...* op. cit., 44. or.; eta MENDIOLA GONZALO, Fernando: “Frankismo garaiko bortxazko lanen ...” op. cit., 47. or. Terminoa Alemaniako Buchenwald eremuan egondako David Roussetek erabili zuen lehen aldiz 1946.ean.

erresolbitzen den artean”. Hamar beasaindar izan ziren modu honetan langile-batailoietara eramanak. Guda-kontseilua jaso zuten 23 beasaindar izan ziren guztira langile-batailoira eramanak, beraz, beste 13 sententzia aurretik (sententziari itxaroten) edo kartzela-zigorra jaso ondoren eramanak izan zirela ateratzen dugu. Beraz, kopuru handi bat, batere sententziarik gabe zegoen “kondena erredimitzeko” ziren langile-batailoietan.

Langile Batailoiak, juridikoki 1937.ean sortu ziren. Hauek sortzeko, erregimenak amarru bat erabili zuen, hain zuzen ere, izen horrek 1940. urtea arte iraun zuen, urte horretan “Soldadu Langileen Diziiplina-Batailoiak” ugaltzen hasi zirelarik⁴⁸⁷. Batailoien sistemak 1942.ean bukatu zuen bere ibilbidea, baina honen bidez ez dugu pentsatu behar urte horretatik aurrera behartutako lanik existitzen ez zela, baizik eta beste forma batzuk hartu zituen (Fernando Mendiola eta Edurne Beaumonten arabera, 1948. arte iraun zuen lan horrek). Eta modu berean ezin dugu pentsatu 1936-1937 aldian behartutako lana erabili ez zenik⁴⁸⁸.

Esan bezala, langile hauek, gehienetan kontzentrazio-eremuetatik zetozen, han zalantzarri bezala sailkatu eta halako batailoietara bidaltzen zituzten⁴⁸⁹. Honen bidez, gudak aurrera egin ahala, bertan zegoen preso kopuruak gora egin zuen etengabe: 1938.ean 40.000 preso zeuden halako batailoietan, eta 1939.ean 90.000 Guztira, bi batailoi motak kontutan hartuz, Mendiolak eta Beaumontek 150.000 langile pasa zirela kalkulatzeko dute, 101 batailoi izan zirelarik⁴⁹⁰. Kontuan izanik, kontzentrazio-eremuak “behin-behineko” presondegiak zirela, eta ez zeudela sistema juridiko bati lotuta, guda logikari baizik; bertan zeuden presoek ez zuten kondenarik. Beraz, Langile Batailoietara existitzen ez zen kondena baten truke lan egitera joaten ziren, edota are okerrago, Soldadu Langileen Diziiplina-Batailoietan, berez soldaduska egin ez zuten gazteak bildu behar zituzten batailoietan, soldaduska Armada errepublikanoarekin egitea “tokatu” zitzaien gazteak sartzen zituzten, Estatu frankistak ez baitzuen soldaduska hori

⁴⁸⁷ MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo...* op. cit., 68. or.; eta MENDIOLA GONZALO, Fernando: “Frankismo garaiko bortxazko lanen...”, op. cit., 49. or. Askotan, bi batailoi moten artean jarraikortasuna zegoen, hau da presoak batetik bestera pasa ziren.

⁴⁸⁸ MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo...* op. cit., 68. eta 103. or. 1948.era arte iraun zuten lan beharturako beste erakundeak Suntsitutako Eskualdeen Zuzendaritza Nagusia (zeinak ere behartutako lana erabiltzen zuen), Zigor-Kolonia Militarizatuen Zerbitzua, eta (Zigortutako) Soldadu Langileen Diziiplina-Batailoiak ziren.

⁴⁸⁹ Egitate honek, Mendiola eta Beaumont Langile Batailoiak frankismoaren “kontzentrazio-unibertsoan” kokatzea eramango zituen. Ibid., 46. or.

⁴⁹⁰ MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo...* op. cit., 65. or.; eta RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 116., 120., 125. eta 146. or.

4. kapitulua

aintzatesten⁴⁹¹. Berez, preso hauek juridikoki zigortuak ez zeudenez, batailoi hauetara eramateko, erregimenak trikimailu ziniko bat erabili zuen: 1937.eko maiatzean argitaratutako 281. Dekretuak presoeri “lan egiteko eskubidea” eman zitzaien, falangisten doktrina nazionalsindikalistak justifikatuta⁴⁹².

Presoak bertan izateak bi helburu zituen: ekonomikoa eta politiko-ideologikoa. Kasu batzuetan lanek beharizan “utilitarioa” izaten zuten, gehienbat militarrei lotutakoa, adibidez, burdinbideak egitea⁴⁹³. Beste askotan, ordea, egin beharreko lanek erregimen berriaren aldeko apologia hutsa suposatzen nahi zuten, adibidez Erorien Harana (*Valle de los Caídos*), eta are erregimenari lotutako eraikin errepresiboak, Langraizko kartzela kasu. Bertan egindako lana, Estatuarentzat, edo jabetza pribatuarentzat izan, ia esklabu-lana zen, Javier Rodrigoren arabera, eguneko 0,50 pezeta kobratzen zituzten⁴⁹⁴. Ideologia aldetik, Langile Batailoiak presoak “espainiar bezala berrezitzeko” beste tresna bat ziren, kasu honetan umiliazio bidez, presoak lotsaraziz⁴⁹⁵. Baita, presoari “berak suntsitutakoa konpontzen ari zela” sinestarazi zitzaien, ez soilik fisikoki, baizik eta “Espainia berreraikitzen” ari zela, aurreko militantziarekin hura “suntsitzen” ariko bailitzan⁴⁹⁶.

Maiz aipatzen ez den kasu bat, zigortutako emakumeena dugu. Errepublika garaian, gizartean emandako politizazioa emakumeengana ere iritsi zen, gainera garai honetan, emakumeek espazio berriak irabazi zituzten, eta ondorioz emakume militante edo politizatu kopurua hazi egin zen. Eta honek, erregimen berriaren aldetik “pekatu bikoitza” suposatzen zuen: alde batetik gorriak izatearren, eta beste alde batetik emakumearen “paper tradizionala” haustearren, politikan aritzearren. Erregimenarentzat, emakume bat politikan aritzea “ezinezkoa” zenez, hau da, ezabatu beharreko errealitate gisa hartzen zenez, juridikoki emakume presoak gaizkile arrunt gisa hartzen zituzten (nahiz eta praktikan emakume preso “Politikoak” eta “arruntak”

⁴⁹¹ MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo...* op. cit., 92-93. or.

⁴⁹² RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...*, op. cit., 117. or.; RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración...*, op. cit., 69. or.; eta MENDIOLA GONZALO, Fernando: “Frankismo garaiko bortxazko lanen...”, 47. or.

⁴⁹³ MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo...* op. cit., 81. eta 89-90. or. Kasu batzuetan, are lurajbeen lur pribatueta erabiltzen zituzten oso soldata baxuaren truke. Ikus, MENDIOLA GONZALO, Fernando: “Frankismo garaiko bortxazko lanen...”, op. cit., 53. or.

⁴⁹⁴ RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 146. or.

⁴⁹⁵ MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo...* op. cit., 82-83. or. Fernando Mendiolaren eta Edurne Beuamonten lanean aipatzen da baita erakundearen informean presoekiko “onberatasun kasuak” negatiboki baloratzen zirela (Ikus *Ibid.*, 81. or.)

⁴⁹⁶ *Ibid.*, 84. or.; eta RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 141-142. eta 147. or.

kartzeletan bereizi⁴⁹⁷). Ideologiak eragindako beste ezberdintasun juridiko bat ere aurkitzen dugu honetan: erregimenak emakumeen lana deitoratzen zuenez, emakumeak ez ziren juridikoki Langile Batailoien parte, baizik eta kartzela barruan egin behar izaten zuten lana, ehungintzari lotutakoa gehienetan⁴⁹⁸.

Arlo honekin bukatzeko; ezin dugu ahaztu Beasaingo Batzorde Txostengilearen lana zein izan zen. Batzorde hau, buru bezala Francisco Ezquiagak, eta idazkari bezala tarteka aritzen ziren Eusebio Aslak eta Francisco Unzuetak osatu zuten. Batzorde honek, Beasaingo herritarrei buruz txostenak egiten zituen, adibidez, guda-kontseilua jasotzen zuten herritarrena, eta hala, hauen etorkizunaren gaineko botere handia zuten. Pertsona hauek, batzuetan euren txostena epaiketaren instrukzioan kontutan hartzea lortu zuten. Izan ere halako epaiketetan, akusatuak egindakoak baino, pisu handiagoa zuen akusazioaren izaerak; hots, afiliazio politikoa, bere hauteskundeetako bozka, Beasainen izandako portaera politikoak –bere ideien alde nabarmentzen bazen, ekitaldi publikoetan parte hartzen ote zuen- bere izaera erlijiosoak, “portaera publikoak” eta abarrek. Datu horiek gehienetan alkateak idatzi eta sinatu beharreko txostenen oinarri izaten ziren, nahiz eta, askotan alkateak hasierako Batzorde txostengilearen txostena batzuetan leundu egiten zuela.

Txostengileek ez zuten soilik guda kontseiluak zeudenean aktuatzen, baizik eta baita ere pertsona hori behin kartzelaratua edo langile-batailoien egotea zigortua zenean ere eskatzen zitzaien txostena; edo askotan, deliturik egin gabe, epaitegi ezberdinek ere bazuten pertsona horien txostena eskatzeko “aukera”. Adibidez, Irungo trenbideen agintaritzak, Beasaingo burdinbideetako langile guztiei buruzko txostena eskatu zuen. Gure datuen arabera, 442 beasaindar izan ziren eskrutinio honen pe jarriak. Batzorde honen txostenak askotan kontraesankorrak izan zitezkeen, adibidez, Mikel Apaolazak aipatzen du bere familiako Valerio Poloren kasuan, txosten batzuetan, Donostiara han

⁴⁹⁷ Emakumen presoeren artean ere, batez ere politikoen aldetik, bereizketa hori oso argi zuten. NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: *Mujeres caídas*. Oberon. Madril, 2003, 115-127. or.; eta VINYES, Ricard: *Irredentas...* op. cit., 140. eta 227. or.

⁴⁹⁸ Zigortutako emakumeen behartutako lanari buruz, ikus DI FEBO, Guiliana: *Resistencia y Movimiento de Mujeres en España 1936-1976*. Icaria. L'Hospitalet de Llobregat (Bartzelona), 1979, 44-46. or.; VINYES, Ricard: *Irredentas...* op. cit., 183-199. or.; eta HOLGADO HERNANDEZ, Fernando; eta GASTON, Jose Miguel: “Frankismoaren esklabuak: emakume presoeren lana” in ASKOREN ARTEAN: *Los trabajos forzados en la dictadura franquista. Bortxazko lanak diktadura frankistan* (104-116. or.). Memoriaren Bideak eta Geronimo de Uztariz Institutua. Iruñea, 2007, 113. or. Hala ere, bazegoen erregimenak “emakume presoeren lana” onartzen zuen salbuespen bat: prostituzioa egitearren preso zeuden emakumeena. Kasu honetan, lanak, paper erlijioso hartzen zuen, hau da, lana “purifikatzeko” beharrezkoa omen zen. NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: *Mujeres caídas* op. cit., 25-26. or.

4. kapitulua

borrokatzera joan izana akusatzen ziotela, eta beste batzuetan, Beasainen, altxatuak sartzea galarazteko armekin aktuatu izana⁴⁹⁹ (bi gauzak egin izana ezinezkoa zen, egun berdinetan gertatu izan baitziren gertakariok). Bestetik, Roberto Beguek kontatu digunez, bere osaba Rufino Sarasolaren kasuan (dokumentuen arabera, bizi osoko kartzela-zigorra ezarri zioten⁵⁰⁰, baina bere familiaren arabeheriotza-zigorra ezarri zioten⁵⁰¹) “Ezquiagari, Aslari eta Unzuetari diru-kopuru bat ordaindu behar izan genien, aldeko txostena idatz zezaten. Hau ez zen berme judizial ofiziala izan”⁵⁰². Rufino Sarasola 1940.ean atera zen kartzelatik Lakuntzan bizitzen jarri zelarik, baina ikusi dugun bezala, honek ez zion Beasaingo zenbait elementuren jazarpena bukatzerik ekarri.

Egia esan, tokiko “indarren” parte-hartze errepresiboa ez zen Beasainen kasuko sailbuespen bat izan. Javier Rodrigo ikerlariak kontatzen digu nola kontzentrazio-eremuetan, askotan, “sailkatzen laguntzeko”, presoaren herriko agintari frankisten edota erakundeen laguntza eskatzen zutela⁵⁰³. Berdina esaten dute Edurne Beaumontek eta Fernando Mendiolak, kontzentrazio-eremuetan eta Langile Bataioietan, askotan sailkapena herriko alkateak, Goardia Zibilak edo FET-JONSeko buruak preso baten sailkapenean (beraz patuan) erabateko erabakimena zutela⁵⁰⁴.

4.5.d) *Erbestea*

Baziren baita ere, erbestera joan edo errefuxiatu egin behar izan zuten beasaindarrak. Halako lehen errefuxiatu uholdea, 1936.eko bukaeran Gipuzkoatik Bizkaiara izandakoa izan zen, gipuzkoar errefuxiatu askok Bizkaian aterpe topatu zutelarik; Amaia Gamarrak dioenez “gipuzkoarrok orduan Bizkaian elkartasun handia jaso genuen”⁵⁰⁵. Pako Ruiz de Apodakaren familia izan zen hauetako bat. Bere amaren familia (galarzatarrak) “Gernika ondoko herri batean errefuxiatu ziren”. Bere beste izeba bat Bakion errefuxiatu behar izan zen “gorra zen, eta frankistak Bakion

⁴⁹⁹ Alicia Polo eta Mikel Apaolazari eginiko elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁵⁰⁰ Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra, Ferrol, Galizia. Santander 29-37 kausa, Rufino Sarasola Lasari dagokiona.

⁵⁰¹ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁵⁰² Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁵⁰³ RODRIGO, Javier: *Los campos de concentración...* op. cit., 67. or.

⁵⁰⁴ MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo...* op. cit., 117-122. or.

⁵⁰⁵ Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-1.

sartzerakoan ez zuen entzun besoa altxatzeko agindua, eta besoa altxatu ez zuenez fusilatzeokotan egon ziren”⁵⁰⁶.

Errefuxiatu asko Frantziar Estatura joan behar izan ziren. Hauetako bat izan zen, adibidez, Jesus Lopez Gallego. Lopez Gallego, bere familiarekin, ama eta bi arrebeekin lehenbizi Parisera joan zen “senitartekoak baikenituen (...) eta han Alderdi Komunistak jakinarazi zigun guren bi anaiak hil egin zirela”. Gero Villefranche izeneko herri batetan egon zen, errefuxiatuentzako kanpaleku batean. Eta handik Euzko Jaurlaritzak Katalunian errefuxiatuentzako kanpaleku batera joan ziren, Lloret del Marrera, eta han egon ziren frankistak sartu ziren arte. Lopez Gallegoren arabera “Oso ondo egon ginen bi kanpalekuetan”. Frankistak sartu zirenean, berriz Frantziar Estatura joan behar izan ziren “kostaldeko herri batean, Portbou aldean bizi zen komunista baten etxera. Komunista asko pasatu ziren etxe hartatik”. Jesus Lopezek, frankistak sartu zireneko ihesaldia nolakoa izan zen ere kontatzen digu: “banuen lehengusina bat politikan oso sartua zegoen. Behin hark pistola bat botatzeko esan zidan. Nik bota orde ezkutatu egin nuen; eta faxistak sartu zirenean galdetu egin zidan “zer egin zenuen pistola harekin?”. Nik non ezkutatu nuen adierazi nion, pistola hartu egin genuen eta kamioi bat errequisatu egin genuen alde egiteko”. Lopez Gallegoren familiak, honen hildako anaiengatik pentsio bat kobratu zuen “Alderdi Komunistaren bitartekaritzari esker”. Hego Euskal Herrira itzuli zirenean, komeriak izan zituzten, “mugan frankistek dirua kentzen zietelako itzultzen ziren errefuxiatuei. Baina gure amak dirua ezkutatzea lortu zuen”⁵⁰⁷.

Beste iheseko puntu bat Venezuela izan zen. Hona joan zen, adibidez, Faustino Aranburu Mujika gudaria; bere arreba Milagros Aranburuk kontatzen duen moduan “Urte asko eman genituen bere ezer jakin gabe”⁵⁰⁸. Lazkaoko fraide beneditar bati esker egin genuen kontaktua”. Bertara joan zen, baita, Alfontso Ibaibarriaga, 1949.ean, baina ematen duenez hau emigratio ekonomikoa izan zen, nahiz eta politikoki Beasaingo agintariek bera jazarri ere egiten zuten (kontzentrazio-eremu batean egon zen; eta aske utzia izan zenean, ere, Francok Gipuzkoa bisitatzen zuen bakoitzean atxilotu egiten zuten. Behin bere familian komentatu izan omen zuten “eskerrak aita aurten Venezuelan dagoen eta ez duten eramango”⁵⁰⁹). Ibaibarriaga 50. hamarkadan itzuli zen Beasaina⁵¹⁰.

⁵⁰⁶ Pako Ruiz de Apodaka Galarzari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-18.

⁵⁰⁷ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁵⁰⁸ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁵⁰⁹ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

4. kapitulua

Venezuelan aterpe topatu zuen beste familia bat, Beasainen sustraiak dituen Miren Edurne Alegria Aierdirena izan zen bere arabera “guda ostean, gurasoek Venezuelara joan behar izan zuten”⁵¹¹; bera han jaioa delarik (hala ere, badirudi hemen politikak zerikusia izan bazuen ere, emigrazioa ekonomikoa izan zela batez ere).

Baziren baita ere Sobietar Batasunean emigratutakoak; Jesus Larrañagaren alaba Rosa Larrañaga eta iloba Miren Garate, adibidez. Miren Garateren arabera “ez ginen batera joan Sobiet Batasunera, ni 1937.ean atera nintzen Sestaotik”, eta Rosa Larrañaga beranduago atera zen, 1938.ean. Hango tratua “oso ona” zen, “oso tratua onen genuen bai hango zaintzaileekin eta bai beste umeekin. Arreta handia jarri ziguten (...) errusieraz azkar ikasi genuen”. Bi lehengusinak, 1941. urtea arte, II Mundu Guda hasi arte Leningraden (egun, San Petersburg) egon ziren; baina guda hark banatu egin zituen; orduan kolonietako ume guztien lekualdaketa izan baitzen: Miren Atxaga Volga eskualdeko Panukhino herrira eraman zuten, eta Rosa Larrañaga Uzbekistanera, Samarkanda ondoko Gogan herrira. Gudaren hasierak umeen bizitza kalitatea asko okertu zuen “herrialde osoarena bezalaxe. Pentsa frontean milioika soldadu hil zirela”. Hala ere, guda bukatutakoan, Sobietar Batasunean jarraitu zuten eta han ikasi zuten “hango hezkuntza sistema oso ona zen, ez zuen hemengoarekin zerikusirik (...) karrera ikasteko aukera ere izan zuten”. Rosa Larrañagak tipografia ikasi zuen “eta gero *Pravda* egunkarian egon nintzen lanean”; eta Miren Atxagak berriz, “bi karrera, Medikuntza eta Farmazia”. “Itzuli ginenean, Arabako landagunean mediku izan nintzen, 14 herritako pertsonak artatu behar nituelarik. Arabako lehen emakume medikua nintzen. SESBen ikasi ez banu, ez nuen aukera hori izango”. Bi lehengusinak 1956.ean itzuli ziren Euskal Herrira, Soralezera. “Estatu Espainiarraren lurak zapaldu orduko, CIAk galdeketa egin zigun Madrilen”. Galdeketa horren ostean, gehiago etorri ziren, behin Gasteizen bizi zirelarik “Gasteizen bazegoen polizia ezagun bat, Apodaca. Sekulako galdeketak egiten zizkigun horrek”⁵¹².

4.5.e) Umezurtzak eta errepresioaren oroimenaren desitxuraketa

Bestalde, gudarekin lotuta edo honen ondorio izan zen Beasainen agertutako umezurtz kopurua. 1937.eko urtarrilaren 18an, Beasainen “Umezurtzak Batzeko Udal-

⁵¹⁰ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean; eta Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁵¹¹ Edurne Alegria Aierdiri egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12.

⁵¹² Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-V-26an.

Batzordea” antolatu zen, Guridi alkatea, Aspe apaiza, Urteaga medikua eta Domingo Garcia irakaslea kide zirelarik⁵¹³. Batzorde hori, 1936.eko abenduaren 30ean Estatuak egindako agindu baten ondoren sortu zen (Gipuzkoako aldizkari ofizialean 1937.eko urtarrilaren 11n agertu zen agindua). Batzordearen helburua, umezurtzen zerrenda “ahalik eta lasterren osatzea” zen, horrela “Batzorde honen helburuak bete daitezzen (...) Gobernu Nazionalaren obra jarraituz”. Hala ere, helburu horiek zeintzuk diren lehen bilera horietan ez zituzten zehazten (umezurtzak eurentzako toki batetara eramatea, hauek elikatzea, edo seniderik balego, hauei laguntza ematea). Urtarrilaren 20an egindako zerrenda baten arabera 25 “umezurtz txiro” kontatu zituzten Beasainen, denak “aitaren aldetik umezurtzak”; asko jota “egungo gertaerak direla eta umezurtz geratutakoak” zirela aipatzen du behin. Hala ere ez zuten kontatzen zergatik zeuden umezurtz: askoren aitak altxatuek hil zituztelako⁵¹⁴. Batzorde honek, ume hauek Benefizentzia Etxeak har zitzan proposatu zuen “momentu honetan, atso-agureen eta umeen artean, 25 pertsona hartzen ditu (...) eta gehiago hartzeko gaitasuna izan badu eta”. Hala ere, etxe honentzako Udal laguntzarako aurrekontua 10.000 pezetatik 15.000 pezetara handitzea proposatzen zuten⁵¹⁵. Beraz, deskartatu egiten zuen “benefizentziarako erakunde berriak sortzea”. Benefizentzia Etxeko jantoki sozialak 90 umeri jaten ematen ziela esaten du Batzordearen dokumentu honek, eta baita ere, “gertaera hauek (guda eta errepresio) direla eta, gizon askok herritik ihes egin dutenez, familia asko orain goseak jota” daudela⁵¹⁶. 1938.eko uztailaren 30eko txosten batean arabera, Benefizentzia Etxearen zerbitzuak Aldundiaren kargu ziren, eta eraikinaren mantenimendua Udalaren kargu⁵¹⁷.

“Errepresaliatu “gorrien” umezurtzen lehen aitortza, guk dakigunez, 1944.ean eman zen, Nicasia Azarola Gorrochateguik, Gregorio Begueren alargunak, bere seme-alaba Arturo eta Maria Catalina, Gipuzkoako umezurtzen Errolda Nazionalan sartzea eskatu zuenean. 1944.eko martxoaren 20an, Gipuzkoako Gobernu Zibilak, bi umezurtz horiek onartu zituen erroldan “Gudaren eta Iraultzaren ondorioz umezurtz “ gisa (ez zuten esaten nork hil zuen bi umeon aita). Ume haungatik, hilean 75 eta 90 pezeta

⁵¹³ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

⁵¹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 02 dokumentu-sorta. Hauen artean; Ramon Crespo Alustiza eta Gonzalezetako baten (Juan Gonzalez eta Luis Gonzalez izan ziren hilak) bosna seme-alaba Jose Luis Igartuaren lau (beste bi seme ere hil egin zituzten), Gregorio Begueren eta Evaristo Mendiaren hiruna, Juan Otaegui eta Pedro Larrearen bina eta Juan Miguel Garmendiaren alaba bat aurkitzen ditugu.

⁵¹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

⁵¹⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

⁵¹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 13 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 43 dokumentua..

4. kapitulua

artean jasotzen zuten laguntza gisa. Hau da Beasainen Errolda honetan sartu ziren umeen zerrenda:

Eskatzailearen (ama alargunaren) izena	Umeen izenak	Umeen hildako aitaren izena	Data
Nicasia Azarola Gorrochategui	Arturo eta Catalina Begue Azarola	Gregorio Begue	1944-III-20
Agripina Polo	Jose Luis, Jose Maria, Maria Begoña eta Pedro Igartua Polo	Jose Maria Igartua Lastra	1944-III-21
Juana Alustiza Murgiondo	Maria Dolores eta Jose Maria Crespo Alustiza	Ramon Crespo Igarza	1944-III-28
Dolores Velasco Rey	Julia eta Maria Carmen Zarate Velasco	Emilio Zarate Seguino	1944-VI-15
Angela Hernandez Fernandez	Josefa Gonzalez Hernandez		1944-VIII-5
Josefa Mendizabal Elorza	Antonio eta Alejandro Basurto Mendizabal		1944-X-11
Catalina Aguirre ⁵¹⁸	Maria Rosario eta Juan Larrea Aguirre	Pedro Larrea Ormazabal	1945
Francisca Izaguirre Ormazabal	Tomas Perez Izaguirre ⁵¹⁹		1945-VI
Encarnacion	Emilio eta Ana	Jose Manuel Landa	1945-VI ⁵²⁰

⁵¹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. A076 karpeta, 06 dokumentu-sorta. Dokumentuan, okerbidez “Catalina Larrea Aguirre” jartzen du, baina Aguirre bai bere eraildako senarraren zen bere seme-alaben abizena zen, ez berea. IRIGORAS, Angel: *Herri zapalkuntzaren lekuko batzuk. 1936-2006 Lehen orain eta beti: Eskubide berdinak pertsona guztientzat*. Erroteta. Bizkaia, 2006, 100. or.

⁵¹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. A076 karpeta, 06 dokumentu-sorta. Gure zerrendetan ez da agertzen Perez abizeneko hildako beasaindarrik; agian gudaren ostean Beasaina bizitzera etorritako familia bat izan zitekeen.

⁵²⁰ Koadro hau osatezko iturriak: Beasaingo Udal Artxiboa. A076 karpeta, 06 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A082 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

Garmendia Lasa Maria Landa Elorza
 Garmendia

Errepresio politikoko beste kasu bat izan zen politikoki kontra zeuden pertsonak ekonomikoki zigortzea. Horixe gertatu zitzaion, adibidez, 1940.eko uztailean Juan Alberdi Beldarrain harakinari. Harakin honi, zortzi egunez (uztailaren 29tik abuztuaren 5era) harategia ixteko eta 500 pezetako zigorra ezarri zioten “Gurutzada Santuan borrokatu zuten jendearekikok erakutsi zuen tratua zela eta”⁵²¹.

Errepresio politikoaren atal hau ixteko, memoriaren “desitxuraketaz” ere mintzatu behar gara. 1942.eko maiatzean, Beasaingo Udalak sinatutako dokumentu baten arabera (Gipuzkoako Gobernaritza Zibilaren inkesta bati emandako erantzuna izan zen), “iraultza eta guda zela eta” Beasainen inor ez zela hil esan zuen; bakarrik zioen “kanpainan” 32 beasaindar (denak altxatuen aldekoak) hil zirela dio dokumentuak, 14 “boluntarioak” eta 18 erregularrak. Beasainen altxatuek errepresioan 1936.eko uztailaren 27an eta 28an hildakoak desagertzen saiatu zen Udala (eta gudan hildako gudari edo soldadu errepublikano beasaindarrak baita; baina larriagoa da herrian gertatu izan zirenak, ondo ezagunak zirenak, ahanztea)⁵²². Horrez gain “Errepublikaren azken hauteskundeetan” (1936.eko otsailekoetan, suposatzen dugu); nazionalistek 562 bozka, “tradizionalistek eta eskuindarrek” 498 bozka, eta “Marxistek eta errepublikanoek” 472 bozka lortu zituztela dio Udalak dokumentu horretan. Ondo ezaguna da Beasainen hauteskunde horiek Fronte Popularrak irabazi zituela⁵²³.

4.5.f) Errepresio soziopolitiko eta kontrol soziala

Garai horietan, erregimen berriaren aldeko jaiek zekarten ifrentzua, jaiekin bat egiten ez zuen pertsonaren “markaketa” izan zen. Aurreko kapituluan aipatu izan dugu zer nolako funtzioak betetzen zituzten jaiek: hain zuzen ere halako funtzioetako bat “espazio publikoaren” edota jendearen “ohitura-adimenen” okupazioa izan zen. Honekin batera, jendeari erregimenaren aldeko datetan, edota erregimenaren aldeko ospakizunetan *erregimenak nahi bezala* parte-hartzeko “aukera” ematen zitzaion, edo iradokizuna egiten zitzaion; hots “armada zibil” batetako parte egiten zen herritarra (ez dezagun ahaztu erregimen totalitario batez ari garela). Honetaz aurreko kapituluan aritu

⁵²¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 69 dokumentu-sorta.

⁵²² Beasaingo Udal Artxiboa. 545 karpeta, 47 dokumentu-sorta.

⁵²³ Beasaingo Udal Artxiboa. 545 karpeta, 47 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

ginen, orain beste arlo batez arituko gara: herritarrek parte hartzera behartzeko edo herritarren parte hartzea lortzeko neurriez eta parte-hartzen ez zituztenak markatzeko neurriez.

Eskoletan adibidez, bai eskola nazionaletan zein publikoetan, eskola-eguna hasi aurretik Espainiako ereserkia jotzen zen, eta ikasleek besoa altxatuta (agur faxista eginez) zutela abesteko beharra zuten. Arau hau ez zen “sinbolikoa” ezta, eskolek “garaiko giroarekin bat eginez” “berariaz” hartutako erabaki bat, baizik eta Estatuak goitik behera ezarritako neurri bat. Honen lekuko dugu 1938.eko abenduaren 13an Gipuzkoako Hezkuntza Ikuskaritzako Buruak herri guztietara bidalitako gutuna (baita ere Beasaina), “probintzia honetan, eskola nazional zein pribatu batzuetan bandera jaso eta jaisteko ekitaldia, ereserki nazionalaren kantuz lagundua, behar den gorentasunez betetzeko agindua betetzen ez dela”; eta herri ezberdinetako alkateei esan zieten zortzi egunetan esan behar zutela zein eskoletan ez zen ekitaldi hori “behar den bezala” betetzen. Jose Luis Guridi alkatearen erantzunean, Beasainen eskola denetan (nazionaletan, pribatuetan zein auzokoetan) betetzen zen betebeharrak hau⁵²⁴. Eskoletan halako sinboloek zuten garrantziaren inguruko adibidez bat eman zigun Udalak 1941.eko martxoaren 15eko osoko Bilkuran, Eskola Nazionaletan, banderak jartzeko herskariak “gastatuta” zeudela eta, berriak jartzeko agindua hartu baitzuen⁵²⁵.

1939.eko irailaren 10ean, Francisco Franco diktadorea Beasainen izan zen. Aurreko egunean, irailaren 8an, Udalak, eskola guztiei (publikoei zein pribatuei), ume guztiak biltzeko eta aurretik esandako puntu batetara eramateko agindua eman zien, puntu horretan, diktadorea pasatzerakoan honen aldeko leloak abestu behar zituztelarik. Irailaren 12an, neskak Italiako Atzerri Ministro zen Galeazzo Ciano txalotzera behartu zituzten⁵²⁶ (Jabier Garcia Bergara lekukoaren arabera, Cianorekin batera, Francoren Kanpo Arazoetarako Ministro Ramon Serrano Suñer pasatu zen Beasaindik)⁵²⁷. Halakorik ez zen gertatu Errepublikaren garaian, Errepublikako lehendakari Niceto Alcala Zamora etorri zenean. Orduan ere beasaindar asko bildu ziren, baina orduko Udalak ez zuen inor behartu bertara joatera, eta Alcala Zamoraren kolore politiko

⁵²⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 26 dokumentu-sorta.

⁵²⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

⁵²⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 3255 karpeta, 47 dokumentu-sorta. Ez dakigu Cianoren kasuan zergatik behartu zituzten neskak bakarrik eta mutilak ez (aginduan ez du jartzen Cianori ongi etorri egitera mutilak behartu zituztenik).

⁵²⁷ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

bertsukoa izanik ere, erakunde publiko bezala ez zen ongi-etorriaren buru izan (Zentro Errepublikanoa izan zen).

Eskolako umeak ez ziren izan askotan halako jaietan “parte-hartzera” bultzatu zituzten bakarrak. 1941.eko irailaren 30ean, Martin Esnaolaren idatzi batean, hurrengo egunean ospatu behar zen “Kaudilloaren Festarako”; CAFeko langileak parte-hartzera ere “bultzatu” zituen, oso modu bitxian: dantzaldia antolatu zuen eta “CAFen lanik egiten ez bazen, dantzaldia arratsalde izango zen (...) CAFen lan egingo balitz, dantzaldia gaueko 9etatik 11etara izango zen”. Noski, hau CAFeko langileek “Kaudilloaren Festan” parte har zezaten aurreikusia zegoen⁵²⁸ (ez zen lehenengo aldia CAFek erregimen frankistarekin lotutako ekitaldiren batean parte hartzen zuena, 1941.eko uztailaren 18a ere ospatu zuen enpresak)⁵²⁹.

Ikur batzuek erakustearen derrigortasuna ere bazegoen garai haietan. Emilio Molaren hileta 1937.eko ekainaren 13an antolatu zen Beasainen. Aurreko kapituluan esan dugun moduan, Udalak milizien kontzentrazioa egin zuen hileta hau ohore handiz ospatzeko. Honez gain, 10etatik aurrera Beasaingo denda guztiak itxita egon behar zirela agindu zuen Udalak (meza 11etan hasi zen); eta Udaletxeko balkoian zegoen Espainiako banderari xingola beltza jarri zion⁵³⁰. Hala ere, oraingoan ospakizuna baino beste gauza bat interesatzen zaigu: Udalak, ofizialki herritarrak hiletara agertzea gonbidatu egin zituela, eta horrez gain balkoietan Espainiako bandera jar zezaten agindu ziela⁵³¹. Berdina egin zuten 1937.eko uztailaren 27an Beasain altxatuek hartu zutena ospatzeko ezarri zuten egunean⁵³². Hau baieztatzen duten herri-testigantzak ere baditugu, adibidez, Pako Ruiz de Apodakaren esanetan: “garai horietan gure amonak Espainiako bandera jarri behar izaten zuen, beldur handia zuen eta”⁵³³. Eta halako desfileak eta abarrak nahiko maiz ematen ziren Eleuterio Aiestak esaten duen moduan:

Jai ofizialetan Espainiako bandera ez jartzeak ondorioak ekar zitzaizkeen. Ez dakigu zer nolako zigorrak egon ziren, edota soilik ohartarazpen bat izan zen, baina badakigu 1938.eko ekainaren 14an, Emilio Mola hil zeneko urteurrena ospatu zen egunean, Espainiar bandera jarri ez zutenen bizilagunen zerrenda bat egin zuela Udalak.

⁵²⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 518 karpeta, 25 dokumentu-sorta

⁵²⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 2941 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁵³⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 3186 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

⁵³¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁵³² Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

⁵³³ Pako Ruiz de Apodaka Galarzari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-18.

4. kapitulua

Etxe gehienak, soilik portalaren zenbakiaren eta solairuaren arabera zerrendatzen ziren, baina bazeuden izen batzuk baita ere⁵³⁴. Berdina gertatu zitekeen desfile batean agur faxista egin ezean: Milagros Aranburu Mujikak gogoratzen du behin militar batzuek ume bati errieta egin ziotela bandera pasatzean agurrik egin ez ziolako⁵³⁵. Behin Francoren bisitaldi batean, Eleuterio Aiestak kontatzen duenaren arabera, ume batek besoa altxatu ez zuela eta, falangista batek erdaraz “eta hik zergatik ez duk besorik altxatzen?” oihu egiten ziola kolpea eman ziola buruan⁵³⁶. Aurreko kapituluan azaldu genuen baita Juan Andres Otaegi eraildakoaren alargun Bixenta Agirreri ilea mozteko mehatxua egin ziotela tropei agur ez egitearren⁵³⁷.

Ereserkiarekin eta ikur ofizialekin ere ezkutuko demak egoten ziren agintarien (edo hauek ordezkatzeko zituzten sektoreen) eta herriaren edota sektore neutroagoen artean. Adibidez, Elizan, herriko festetan edo urriaren 12an gertatzen ziren halakoak, Udaleko ordezkariak, Udala bertara bazihoan organistek Espainiako ereserkia jo zezaten nahi baitzuten; eta jada 50. eta 60. hamarkadan apaizen aldetik horren kontrako erresistentzia pixka bat jartzen hasi zen (bai Elizan politika “zibileko” elementuak sartzea zelako, baina inori ez zaio eskapatzen benetako arrazoia Elizaren eta erregimenaren arteko erabateko identifikazioa jada lausotzea hasia zela). Ixabel Irizarrek aipatzen duenez, bere aita, Juan Migel Irizar, Loinatz abesbatzako zuzendari gisa, Goardia Zibilak, urriaren 12an urtero Espainiako ereserkia abestera behartzen zuen, berak hala nahi ez bazuen ere⁵³⁸. Halakoak, herriko festetan ere gertatzen ziren, baita ere “Guda pasatuta 30 urte beranduago”, Aitor Garmendiaren esanetan. Garmendiak zionaren arabera, kontsagrazioan Espainiako ereserkia jo behar izaten zen, eta momentu batean, apaizak eta organistak uko egiten hasi ziren. Garmendiak esaten duenez “orduan agintariak Udal-bandarekin etortzen ziren, eta Banda kanpoan uzten zuten; kontsagrazio momentuan norbaitek barrutik ateak ireki eta Espainiako ereserkia jotzen has zitezten, barrutik entzun zezaten. Umekeria bat zen hori”⁵³⁹.

1941.eko abenduaren antzeko adibide bat dugu. Abenduko lehen egunetan, Martin Esnaola alkateak, dendetan eta tabernetan, 1941eko abenduaren 10ean, ospatu

⁵³⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 2112 karpeta, 59 dokumentu-sorta.

⁵³⁵ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁵³⁶ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

⁵³⁷ Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizia, 2014-XII-17.

⁵³⁸ Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-9an.

⁵³⁹ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

beharreko Gazteriaren Frontearen (FET-JONSen gazteriaren) egunean erakunde honen insignia ez zeraman inori, denda edo taberna horietan sartzen ez uzteko aginduak banatu zituen⁵⁴⁰.

Erregimen berriaren ikurrak adieraztea beharrezkoa bazen, eta agintariek ikur horiek adieraz zitzatenaz kezkatzen bazen, kontrakoaz ere kezkatzen zen, hau da, kontrakoen ikurrik edota kolorerik erakuts ez ditzaten. Asmo jazartzaile horien kaltetu bat izan zen Ceferino Azarola Beasaingo tabernaria: 1943.eko abuztuaren 21ean, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Beasaingo alkateari, Azarolari bere tabernako “koloreak aldatzeko” agintzea eskatu zion, kolore hauek “modu txarrez interpretatuak” izan ez daitezen (koloreak berdea eta zuria ziren). Gainera, alkateak, 1943eko abuztuaren 25ean eman zuen lehen erantzunetik ulertzen da, Azarolak aurreko kartel bat ere aldatu beharra izan zuela; eta hori, Gobernadorearentzat, “aurrekari bat zen”, beste arrazoi bat Azarolaren tabernako koloreei zentzu ezkutu bat topatzeko. Alkateak azkenik esan zuen, Azarolaren tabernako koloreak “ezin ziren nahita bandera nazionalistarenak (sic; ikurrinarenak) izan, kolore gorria falta zelako” eta “ez zuela uste berdea eta zuria asmo txarrez erabili zituelarik”, hala ere, “zentzu txarrik izan ez dadin, koloreak aldatzeko eskatuko omen ziola”⁵⁴¹.

Horrez gain, kontrako iritziak, edo erregimenak kontrako iritiztat (“bakea apurtzen zutenak”) zituenak botatzea erabat zigortua zegoen, iritzi hauek zeharo kontrakoak izan gabe, hau da, erregimena bera auzitan jarri gabe, kexa-izaerakoak edota atsekabezkoak soilik baziren ere. Teresa Irizarren arabera, bere aitari, Loinatz abesbatzako zuzendari izan zen Juan Migel Irizarri behin 25 pezetako isuna jarri zioten behin bere anaia gudan hil egin zutela kontatzen (Antonio Irizar, lazkaotarra) salatari batek entzun egin zuelako⁵⁴².

Aurreko kapituluan jai-ofizialak erregimen berriak nola eta zertarako ospatzen zituen azaldu dugu, hala ere, oraingo kapituluan jai buruzko beste arlo batez hitz egingo dugu: jai “zibilen” edo ez-politizatuen mugaketaz. Izan ere, garai hartzeko botereak, botere totalitario bat izaki, esan dugun moduan bizitzaren arlo guztiak kontrolatzeko beharra eta helburua zuen. Modu horretan, bere kontroletik at joan

⁵⁴⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 84 dokumentu-sorta.

⁵⁴¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 3189 karpeta, 17 dokumentu-sorta.

⁵⁴² Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-9an.

4. kapitulua

zitezkeen herri adierazpenak, “apolitikoak” baziren ere, galarazten edo izan ez zitezen saiatzzen zen. Jaiei dagokionez, dantzaldiak eta soinu-jotzeak, Beasaingo herrigunera mugatu zituen, auzoetan erabat debekatuz: hori erakusten du 1939.eko abenduaren 23an Salvatore auzoko tabernako Juana Garmendia Aizpuruak igandeetan eta jai-egunetan, arratsaldeko 3etatik 7etara Salvatoreen soinu-jole batekin dantzaldiak egiteko baimena eskatu zuenean. 1940.eko urtarrilaren 23an erantzun zuen Udalak: urtarrilaren 18ko Udal-bilkuran herrigunetik at dantzaldiak eta soinu-jotze publikoak herrigunetik at ez baimentzeko erabakia hartu zutela⁵⁴³. 1941.eko uztailaren 4an, eskaera berdina (Salvatoreen dantzak egin ahal izatea) ukatu zitzaion Fermin Aizpuru Mendizabal deitutako pertsona bati “lehenago bere emazteak (Juana Garmendia Aizpuru, zitekeenez) eskatu zuela eta uko egin zitzaiola” argudiatuta⁵⁴⁴.

Martin Esnaolak Arriarango auzoari dagokionez beste irizpide bat izan zuen. Hasiera batean, 1941.eko martxoaren 28an, Francisco Insausti deitutako baten tabernan “baimenik gabeko mota guztietako dantzak” egiten zirela⁵⁴⁵. Hala ere, apirilean beste erabaki bat hartu zuten: igandeetan “distantziak errespetatuz” eta “otoitz egiteko orduak errespetatuz” igandeetan soinua jotzeko baimena eman zion; baina betiere “dantzatzeak soltean, eta ez heldutakoan balira” (hor, garai batetako karlismoaren kristautasunaren eta moralitate publikoaren inguruko ikuspegi hertsia ikusten zen). Apirilaren 26an Gobernadore Zibilak onartu egin zuen Udalaren erabakia⁵⁴⁶.

Gipuzkoako Gobernu Zibila urrats bat haratago joan zen 1940.eko uztailaren 24, orduan, Gipuzkoako herri batean (aginduan ez du esaten non) dantzaldi bat ospatzen zelarik kamioi batek ospakizunean parte hartzen ari ziren pertsona batzuk zapaldu egin zituela eta, dantzaldi guztiak (bai herriguneetan zein bentetan) debekatu baitzituen. Badirudi hasiera batean (agian Bandarekin izandako tira-birak zirela eta, horiek baretzeko medio), Beasainen hurrengo hilabeteen ere dantzaldiak egiten zirela, abuztuan Beasaingo Udalari berriz gogorarazi behar izan baitzion agindu hori. Beasaingo Udalak, Abuztuaren 28an Gipuzkoako Gobernadoreari bidalitako eskutitzean azaltzen zion dantzaldiak Loinazko jaietan soilik egiten zirela, edo salbuespen bezala, uztailean eta abuztuan “Espainiako Enparantzan” (egun Bideluze Enparantza) edo Nafarroa

⁵⁴³ Beasaingo Udal Artxiboa. 066 karpeta, 47 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

⁵⁴⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

⁵⁴⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 75 dokumentu-sorta.

⁵⁴⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 3190 karpeta, 05 dokumentu-sorta.

Etorbidean, “errepidetik urruti dauden tokietan”: Bestalde, baserri “oso apartatu batzuetan”, igandean, “baserritarrek, euren kabuz, dantzatzera batzeko ohitura dutela” (kasu honetan Udalak zerikusirik ez duela iradokitzen du alkateak)⁵⁴⁷. Gipuzkoako Gobernu Zibiletik agindu hau heldu baino pixka bat lehenago, 1940.eko uztailaren 8an, Beasaingo Udalak, kontrol sozialerako beste neurri bat hartu zuen aisialdiaren arloan: 10etatik aurrera tabernetan abestea “edo hitz beltzak esatea” debekatu zuen “auzokideei enbarazu egiten ziela eta”⁵⁴⁸. Jarritako arrazoia hori bazen ere, praktikan, herriaren adierazpide espontaneo kolektiboak erraztu zitzakeen “giro-baldintzak” ezabatzeko asmoa zegoela ukatzea oso zaila da. Salbuespenen artean, bazeuden jai “politikoetarako” eta zibiletarako” salbuespenak. Lehenen artean, 1941.eko apirilaren 18an, hurrengo egunerako, apirilaren 19rako, Bateratzearen festa zela eta (hau da, 1937.eko apirilaren 19an falangistek eta karlistek alderdi bakarrean bat egitea eta FET-JONS alderdi bakarra fundatzea ospatzen zen) dantzaldia egiteko baimena izan zen⁵⁴⁹; eta baita urriaren 1ean, “Kaudilloaren Festa” jo behar zeneko egunean dantzaldia egiteko baimena⁵⁵⁰. Bigarrenen artean, 1941.eko azaroaren 19ko bilkuran, 1941.eko azaroaren 22rak, Zezilia Deunaren (Musikaren Patroia) egunean, Udalak Bandari Udaletxeko Plazan jotzeko baimena eman izana zegoen)⁵⁵¹.

Dantzaldiekin eta halakoekin kontuz ibiltzeko aroan izan ziren: 1941.eko irailaren 30ean Beasaingo udalak Juan Mendizabali 75 pezetako isuna jarri zion eta 50koa Guillermo Sarasolari hauek gauez errepidean aulki bi jarri zituztelako, eta horiekin jolasteen ibili zirelako 1945.eko maiatzaren 24an beste hiru zigor ezarri zituen “kaleko eskandalua” medio: Polo Iglesias, Luis Otegui eta Luciano Gonzalez 25na pezetako isunaz zigortu zituen maiatzaren 5ean “kalean eskandalua egitearren”; arau-hauste beragatik Luis Uranga Larrañaga eta Felipe Garmendia Ayestaran 50na pezetako isunaz zigortuak izan ziren maiatzaren 21ean; eta Felix Garmendia ordiziarra izan zen 50 pezetako isunaz zigortua, apirilaren 30eko gaueko 3etan kalean trikitixa jotzearen.

⁵⁴⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 3186 karpeta, 65 dokumentu-sorta.

⁵⁴⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 68 dokumentu-sorta. Agustin Cacho kale-garbitzailea eta Igancio Irastorza gauzainari enkargatu zien Udalak zerbitzu hau egitea.

⁵⁴⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 518 karpeta, 25 dokumentu-sorta

⁵⁵⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 518 karpeta, 25 dokumentu-sorta

⁵⁵¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 41 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta. Hau 1942.ean ere errepikatu zen (Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 40 dokumentu-sorta); eta baita ere 1943.ean (Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 18 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 39 dokumentu-sorta); zein 1944.ean (Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 38 dokumentu-sorta.).

4. kapitulua

Dantzaldien kontrako neurriak 1942.etik aurrera pixka bat lausotzen hasi zirela ematen du, 1942.eko uztailaren 10eko Udal-bilkuran Francisco Unzueta zinegotziak, Udal-bandak uztailaren eta urriaren artean Loinazko San Martinen Plazan, Geltokiaren Plazan eta Espainiaren Plazan txandakatuz, ostegun eta jaiegunetan Bandak musika jo zezan proposatu zuen, Udal-taldeak onartu egin zuelarik (euria balitz, Merkatuaren Plazan joko zukeen Bandak)⁵⁵². 1942.eko abuztuaren 14an, jada Salbatoreko Fermin Aizpuruari “eguraldi oneko igandeetan” Salbatoren dantzaldiak egiteko baimena ere eman zitzaion⁵⁵³ (hala ere, Aizpuruak dantzaldi bat bere lurretan egitea eskatu zuenean, Udalak irailaren 4an eskaera horri ukoa eman zion “herri eta auzoetako plazetatik at dantzaldiak egitearen kontra” zegoela argudiatuta)⁵⁵⁴. Hala ere, irekitze hau ez zen erabatekoa izan: 1942.eko ekainean, Aizpuruak Arriararen jotzeko baimena eskatu zuenean, ezezkoarekin erantzun zion Udalak⁵⁵⁵.

Alde “gorri-separatistako” (hots, ezkertiarrek edo abertzaleak), “persona ezagunak” hiltzen zirenean, Gobernadore Zibilak, 1943.eko matxoaren 9an idatzitako dokumentu batetan, Udalei, Beasaingoari barne “adi” egoteko esan zien, herrian zer eskela agertzen ziren edota zer elkarrizketa izaten ziren, edo herritarrek egun horietan keinu subertsiborik egiten ote zuten atzeman zezan⁵⁵⁶. Kontrol soziala, beraz, halako muturrera heltzen zen.

Bestetik, herrietatik ateratzea are zailagoa egiten zen, askotan salbokondukto baten beharra izaten zelarik. Gipuzkoako Gobernadore Zibilaren idatzi baten bidez, jakin badakigu herritarrek salbokonduktuak formalki, inprimaki baten bidez eskatu behar zituztela, eta Udalak eskatzaileen eta emandako salbokonduktuen zerrenda bana hilero bete eta Gobernu Zibilari bidali behar ziotela. Honen bestez, Gobernu Zibilak eta honen bidez, poliziak, jakin bazekiten nor zen herri bakoitzetik atera behar izaten zena (aukerarik baldin bazuen, askotan tokiko agintari frankistek salbokondukto eskaerei uko egiten baitzioten). Gainera, hau Udalarentzat diru-iturri izan zitekeen, 1939.eko uztailaren 27an, Gobernadore Zibilak, Udalei “kontzeptu honen arabera lortutako dirusarrerak jakinaraztea” eskatu zielako⁵⁵⁷. Salbokonduktua zinegotziren batek sinatu

⁵⁵² Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 40 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

⁵⁵³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

⁵⁵⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

⁵⁵⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 066 karpeta, 60 dokumentu-sorta.

⁵⁵⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 3189 karpeta, 16 dokumentu-sorta.

⁵⁵⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. A083 karpeta, 08 dokumentu-sorta.

behar zuen, beraz, erregimeneko pertsonak ez zirenek askoz ere zailago zuten hau lortzea. Askotan halako harreman pertsonal batek lagundu egin zezakeen. Gehienetan Jose Aramburu eta Rufo Artolain zinegotziak ziren normalean herritarrei salbokonduktuak ematerakoan eskuzabalen aritzen zirenak. Hau diosku adibidez, Eleuterio Aiestak: “Jose Aramburuk on handia egin zuen hemen, salbokonduktuak ematen eta abar”⁵⁵⁸. Jabier Garcia Bergarak ere bat dator: “gehienetan, salbokonduktuak Jose Aramburuk edota Rufo Artolainek ematen zituzten”⁵⁵⁹. Juan Unanua Artolainek esaten zuenez biak sinatu behar zituzten salbokonduktuak, “bat bakarrik sinatzen ausartzen ez zelako”. Unanuaren arabera, “azkenean, aitonari (Rufo Artolaini) salbokonduktu horiek sinatzeko boterea kendu zioten. Botere hori ez zioten Udaletik kendu, koarteleatik baino”⁵⁶⁰. Egia esan, halako jendea ezagutzea zenbait pertsonarentzat nahiko lagungarri izaten zen, frankismoa bezalako erregimen hain injustu eta arbitrario batetan “lagundu zezakeen norbait” topatzea zelako askotan estualdi batetatik ateratzeko bide bakarra. Baina beste alde batetik, halako mekanismoak eta hauek dakarten pentsaerak, Antonio Cazorlak esaten digun moduan, “garai horietan pertsonak soilik familian edo “mesedean” izan zezaketen konfidantza; hauek izan baitziren soilik, aldi baterako bazen ere, sufrikarioa arindu zezaketen gauza bakarrak (...) Lan bat lortzea, administrazio tramite bat erraztea... askotan erregimenaren barneko pertsona egokia “ezagutzearen” menpe zeuden. Eta “mesedea” jasotzearen ifrentzua, agian gehiago behar edo merezi zuen beste bat bere eskubide gabe uztea zen”⁵⁶¹.

Nor non zegoen kontrolatzea oso serio hartzen zuen erregimen berriak. Gipuzkoako Gobernu Zibileko Ordena Publikoko Idazkaritzak Beasaingo Udalari, 1940.eko maiatzaren 26an, Guda Zibilean zehar Beasainera bizitzera joandako pertsonak zerrendatzea eskatu zion, hauek kontrolatuta izateko. Izan ere, 1936.eko uztailaren 18an eta orduan toki ezberdinetan bizi ziren pertsonen gaineko jarraipen osoa (non egiten zuten lan, norekin bizi ziren eta abar)⁵⁶². Guztira, Beasainen egoera horretan zeuden 85 pertsona zerrendatu zituen Beasaingo Udalak 1940.eko ekainaren 12an⁵⁶³.

⁵⁵⁸ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

⁵⁵⁹ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22). Jabier Garcia Bergarak kontrako adibidea ere jartzen digu, adibidez, Udaleko interbentore Bautista Telleriak behin bere aitonari ez ziola salbokondutorik eman nahi.

⁵⁶⁰ Juan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-5.

⁵⁶¹ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 21-22. or.

⁵⁶² Beasaingo Udal Artxiboa. 066 karpeta, 51 dokumentu-sorta.

⁵⁶³ Beasaingo Udal Artxiboa. 066 karpeta, 51 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

Tropen aldeko diru-bilketa ere aipatu izan dugu lehen. Hala ere, Estatuaren aldeko diru-bilketa “zibilak” ere egiten ziren. Diru-bilketa hauek, nahiz eta, modu “boluntarioan” antolatu (*Censo de Prestación Personal a favor del Estado* izena zuten gazteleraz), praktikoki, beharrezkoa zen, 1939.eko abuztuaren 12an, Jose Luis Guridik sinatutako bandoan agertzen zen bezala (“beharrezkoa” –*obligatorio*- hitza agertzen zen). Prestazio horretan parte-hartzeko, egun zehatz batetan izena eman behar zuten “18 eta 50 urte arteko beasaindar gizonak”: abuztuaren 17 eta 18an CAFen lan egiten zutenek, 19an Bernedon lan egiten zutenek, 20an Beasaingo baserritarrek, 21 eta 22an beste industrietan lan egiten zutenek, 23an Astigarretakoek eta Aratz-Matxinbentakoek eta 24an Arriaran eta Garingoek. Izenik ez ematea “50 eta 1.000 pezeta arteko zigorraz zigortuko” zela ohartarazten zuen bandoak⁵⁶⁴.

4.5.g) Errepresio soziopolitikoaren ondorioak: familien arteko harremanak eta biktimen oroitza

Halako kontrol sozialak, garaituen familietan eragina ere izan zuen, politikaren mundutik atera araziz: gehienak ez ziren politikan inplikatu, eta inplikatuak zeudenak, ahazten saiatu ziren. Izan ere, diktaduraren errepresio mota ezberdinen (zuzena – heriotzak zein kartzelaratzek-, soziopolitikoak zein ekonomikoak) helburuetako bat populazioa politikatik alienatzea izan zen⁵⁶⁵. Hau ondo azaltzen zuen oposizioko Unibertsitate irakasle batek 1961.ean (testigantza berantiarra izan arren nahiko ondo azaltzen du guda osteko orokortutako sentimendua): “Espainiarrei erregimena gustatzen bazaie galdetuz gero, %80k ezetz erantzungo zukeen. Baina erregimen hori aldatu nahi badute galdetuz gero, %80k ere ezetz erantzungo zukeen”⁵⁶⁶. Antonio Cazorla berak errepresaliatu baten ahotik jaso zuen moduan: “diktadura garaian hobe zen ahaztea gogoratzea baino”⁵⁶⁷. Adibidez, Jesus Lopez Gallegoren arabera, bere familian “ez zen politikaz hitzik egiten”⁵⁶⁸. Mila Mendiak dionaren arabera “berez nabaritzen genuen askatasun falta (...) gure aitak beldur handia zuen”⁵⁶⁹. Juan Ramon Imazen arabera, hala

⁵⁶⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. F010 karpeta, 01 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 249 karpeta, 30 dokumentu-sorta.

⁵⁶⁵ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 20-21. or.

⁵⁶⁶ FUERTES MUÑOZ, Carlos: “La representación de las actitudes políticas de los españoles en la prensa extranjera (1960-1975) in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel; FUERTES MUÑOZ, Carlos; HERNANDEZ BURGOS, Claudio; eta MARCO, Jorge (ed.): *No sólo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura franquista (1936-1977)* (111-126. or.), Comares. Granada, 2013, 121. or. Bildutako adierazpen horiek, irakasleak Belgikako egunkari bati egin zizkion (*Le Soir*, 1961-VI-17).

⁵⁶⁷ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 67. or.

⁵⁶⁸ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁵⁶⁹ Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

zen: “gure amonek ez zuten gudari buruz hitzik ere egiten”⁵⁷⁰. Berdina esaten digu Pako Ruiz de Apodaka ordiziarrak: “Guda Zibila tabua zen, ez zen hartaz hitzik ere egiten. Agian zaharren artean bai, baina gazteen artean ez”⁵⁷¹ (agian zaharren artean hitz egiteko modu hori, gehiago zegoen lotuta bizipenei, izaera politiko bati baino). Jabier Garcia Bergarak, zeinaren aitak eta lau osabek⁵⁷² gudan borrokatu zuten, bere etxean giro bera zegoela esan zuen: “gure aitonak ez zuen sekula Guda Zibilaz hitz egiten”⁵⁷³. Sara Alonso Lamatak ere berdina dio, baina kasu honetan arrazoi “auto-laguntzazkoren” bat atzean zegoela iradokitzen du: “ez, ez zen hitzik egiten. Egia da, agian horrek momentu batean lagundu egin ahal zuela egoera aurrera eramaten, gertatutakoa egundokoa izan baitzen”⁵⁷⁴. Beldurra, noski beste faktore bat izan zen; adibidez, Lozares familian gertatutakoa dugu horren adibide: Maria Pilar Lozaresek esaten duenez “amak aitaren dokumentu batzuk gordetzen zituen, kartzela aldikoak edo. Ez zizkion inori ere ikusten uzten, beldurra edo izango zuen. Nik behintzat paper horiek ez nituen ikusi. Aita (Jose Maria Lozares Escolar) hil zenean, amak paperok apurtu egin zituen. Dokumentu hori puskatu ahal izatea sekulako askapena izan zen amarentzat”⁵⁷⁵.

Halako errepresio “sozialak” ekarri zuen beste ondorio bat, prestigio eta desprestigio harremana izan zen: izan ere, instituzioak herriaren alde batetara emanak zeuden, beste alde guztiz erreprimittuta zegoen artean, eta horrek instituzioek baztertua bizitzea ere esan nahi zuen. Izan ere, guda galdu zuen alde guztiz desprestigiatuta eta baztertuta zegoen; askotan mespretxuz edo bortxaz tratatzen zituzten. Lehenago esan egin dugu diktadura baten pean, erregimenarekiko jarrera askotarikoak izan zirela, baina bereizketa batek beti iraun zuen: “irabazleen” eta “galtzaileen” artekoak. Azken multzo horietakoak, izan zuten jarrera izan zutela, argi zuten zegoen erregimena arrotza zitzaiela. Ezin zitekeen beste modu batean izan, erregimenak bere “zilegitasuna” garaipen militar batean zutarritu baitzuen. Ondorio bezala, “galtzaileak” bizitza publikotik kanporatuta geratu ziren, eta beste alde batetik egunerokotasunean argi geratzen zaie eurak “azpian” zuedela. Alicia Polok esaten zuen moduan “orduko Udala

⁵⁷⁰ Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁵⁷¹ Alicia Polo eta Mikel Apaolazari eginiko elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁵⁷² Familia hau ordiziarra zen berez, Garcia Bergararen aita guda ostean ezkontzerakoan etorri zen Beasainera bizitzera.

⁵⁷³ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁵⁷⁴ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoz egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

⁵⁷⁵ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

4. kapitulua

ez zen gaur egun modukoa, non etorri eta eskaera bat egin zenezakeen”⁵⁷⁶. Andoni Sarriegik halako “desprestigioa” ezkontzeko momentura ere irits zitekeela esan zuen: adibidez, Florencio Aspe apaizak bere aita (Zezilio Sarriegi) tratatzeko moduan⁵⁷⁷. Beraz, Beasainen bi zati oso konkretu zeuden: “irabazleak” (erregimenaren aldekoak) eta “galtzaileak” (erregimenaren kontrakoak), bien arteko harremana nahiko pipertuta zegoelarik, azken hauek, “galtzaile” deitzen zien Estatu baten eta honen administrazioaren menpe bizi behar zutelako, eta honen menpe bizi behar zirelako. Bestalde, “irabazleen” aldetik, askok “galtzaileekin tratatu behar izan hori” molestia bezala har zezaketen (gogora dezagun Francoren altxamendu militarren helburuetako bat “Errepublika eta honen urratsa ezabatzea” izan zela). Horrela kontatzen digu adibidez Isabel Peñagarikano Dorronsorok: “Guda ostean ezinikusi handia zegoen Beasainen. Erregimenekoek eurak zuzenak zirela, eta besteak okerrak ginela uste zuten”⁵⁷⁸. Anselmo Ruizek ere badio: “gudaren ondoren, gorrien emazteak eta seme-alabak oso gaizki tratatu zituzten hemen”⁵⁷⁹. Roberto Beguek ere hori bermatzen digu: “bai, gudaren ostean bi aldeen artean oso tarte handia zegoen”. Roberto Begueren arabera “frankistak herrian zehar probokatzen ibiltzen ziren”⁵⁸⁰. Xanti Lasak ere esan badiosku “guda ostean gure aitona (Santiago Aramburu Otamendik) gutxiespena jaso behar izan zuen, abertzalea zen eta”⁵⁸¹. Mila Mendiak bere aitak (Florencio Mendiak, behartuta “irabazleekin” egin zuen guda, baina honen aita Evaristo Mendia fusilatua izan zen) nola pasatu behar izan zuen kontatzen digu: “guda pasatuta eta, aitona hil zutenekin itxuretan ibili behar izan zen gure familia”. Mendiak konkretuki pertsona bat aipatzen du: “Epifanio Argiñano gure aitarekin asko sartzen zen”⁵⁸².

⁵⁷⁶ Alicia Polo eta Mikel Apaolazari eginiko elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁵⁷⁷ Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6. Sarriegiren arabera, beste apaiz batek, Pedro Mokoroak behin bere amonari (Maria Aldanondori) aitortza hartzerakoan, bere semeez (Andoni Sarriegiren aitaz eta osabaz) galdetu zien eta gero “haiek ere latza egin zuten herritik alde egiterakoan”. Kasu honetan iheslariaren erruduntasuna bilatzen zen, honek beste gabe ihes egingo balu bezala. Sarriegiren arabera, Maria Aldanondoren erantzuna hau izan zen: “Haiek ihes ez, haiek pakean zeuden hemen eta beste batzuk etorri ziren kanpotik armatuta eurenak ez zirenak garbitzera! Jesukristok ere Herodesen erruz alde egin behar zuen!”.

⁵⁷⁸ Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9.

⁵⁷⁹ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

⁵⁸⁰ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁵⁸¹ Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁵⁸² Mila Mendia Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

Milagros Aranburuk ere esaten du: “Epifanio Argiñano eta Eusebio Asla gaiztoak ziren, Guridi alkatea baino gehiago”⁵⁸³. Pertsona horrengan insistitzen zuten Ibarbia familiakoek: “Arguiñanotarrak gurekin gaizki portatu ziren (...) Beste bat Santiago Muñoz izan zen, Ezquiagaren inprentan lan egiten zuena. Horrek, frankisten manifestazioetara joaten ez zena hil beharra zegoela esaten zuen”⁵⁸⁴. Jabier Garcia Bergarak irabazleen nolabaiteko inpunitate sentimendu bat salatzen du: “guda bukatu ostean, Rafael Oiarbide izeneko harakin bat gauero pasatzen zen Zaldizurreta baserriaren ondotik (baserri horretan jeltzaleak ziren) abertzaleen kontrako abestiak abestuz”⁵⁸⁵. Antzeko pentsaera zuten Lamata familian (Victoria Huergo Tofe eraildakoaren familian), Angel Lamata Villahozek kontatzen duen moduan: “guda ostean, Beasainen denek genekien nor zen “gureetakoa” eta nor zen “haienetakoa”; nor zen “ezkerrekoa” eta nor “eskuinekoa””⁵⁸⁶. Amaia Gamarrak ere bazioen “gudaren ostean, pertsona batzuek, ez dut aipatuko izenik, gure amari bizitza zail egin zioten”⁵⁸⁷. Zenbait kasutan adin txikikoengana ere iristen zen bi aldekoen pike hau: Jabier Garcia Bergarak kontatzen du “normalean erregimenaren aldeko familia batetako seme batek jo ohi egiten ninduela”⁵⁸⁸.

Umeen arteko borrokek islatzen zuten tentsio politikoari buruz, Garcia Bergaraz gain, Anselmo Ruizek ere ematen digu horren berri: “Ostegun arratsaldeetan, eskolan jai genuenez, umeok Senperera, futbol zelaira joaten ginen. Behin “pelaioak” (guda aurretik karlisten gazteei deitzen zieten hala, guda ondoren FET-JONSeko gazteei, ofizialki *Flechas* (“Geziak”) deitu zirenei) aurkitu genituen han instrukzioa egiten eta borroka bat izan zen”⁵⁸⁹. Ezkerreko familietako beasaindarrek Beasaindik kanpo ere jasan behar izaten zituzten halako isekak eta irainak; adibidez, Ramon Perez Onesimok kontatzen duenez: “ni soldaduskan postutik aldatu arazi ninduten, “gorrien familiakoa” nintzelako”⁵⁹⁰.

⁵⁸³ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. 2014-VIII-5.

⁵⁸⁴ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁵⁸⁵ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁵⁸⁶ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoz egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-VII-17an.

⁵⁸⁷ Amaia Gamarrak egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-1. Gamarrak ordea, Unzueta familia aipatzen du salbuespen gisa.

⁵⁸⁸ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁵⁸⁹ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

⁵⁹⁰ Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

4. kapitulua

Are Beasaindik kanpo, erreketek batzuek Beasainen egindakoaz harrotu egin ziren. Hau izan zen adibidez, Timoteo Alonso eta Luzia Lamata bikoteak Nafarroako San Adrian herrian (Timoteo Alonso kartzelatik atera ostean San Adrianen bizi ziren urte batzuek) bizitako egoera bat. Behin soron zeudenean, auzokide batek, “zuek Beasaingoak zarete, ezta?” eta beasaindarrek baietz erantzun zuten. Halakoan auzokideak “guk han emakume bat hil genuen” (Victoria Huergo Tofe, Luzia Lamataren ama) esan zuen. Zur eta lur geratu ziren. Euren ondorengoek esaten duten moduan “ez dakit auzokideak hil zuten emakume hori Luzia Lamataren ama zenik bazekien, eta ez dugu uste ezta ere, gure gurasoek auzokide horren hitza gogoratzen zutenik”⁵⁹¹.

Ondoko herrietan, gauza bera gertatzen zen, adibidez Ordizian. Pako Ruiz de Apodakak esaten zuen bezala: “Ordizian gerra ostean gizaseme denek zekiten nor zein aldetakoa zen”⁵⁹². Yolanda Beguek ere Ordiziarri buruz gauza bera zioen: “Nire amari (Tomasa Redondori) txistua botatzen zioten eskuindarrek Ordizian”. Hala ere gauza dramatikoago bat ikusi zuen, honen neba Fausto Redondo, Asturiasen Goierriko erreketeez guda oinean eraila (ikus aurreko kapitulua) izan zenaren eraztun bat erakutsi zuten taberna batean Ordiziako eskuindarrek “guda trofeo bat bailitzan”⁵⁹³. Baita ere Olaberrian; Bujanda Olanar neba-arreben arabera: “Guri bizitza oso zaila egin ziguten erregimenaren aldekoek Olaberrian”⁵⁹⁴. Horrez gain, legearen erabilera alderdikioa zegoela salatzen du Yolanda Beguek: “nire amonak denda bat zuen, eta legez beharrezkoa zen prezioak erakustea. Behin txarteltxo bat erori zitzaioela eta, salaketa jaso zuen eta 3.000 pezetako zigorra jaso zuen amonak. Ez genuen ordaindu nahi, baina amona kartzelan sartu zuten eta azkenean ordaindu behar. Etxezarreta deitutako Ordiziako gizon batek 1.000 pezeta eman zizkigun”⁵⁹⁵. Ordizian giroa askoz ere okerragoa izan zitekeen Beasainen baino, Tomasa Redondo berak Ordiziako memoria historikoa ikertu duen taldeari esan zion bezala “gu, Ordiziako neskek, Beasainera joaten ginen mutilekin dantzatzera; Ordiziako mutilak aberatsak (irabazleen aldekoak) ziren eta, eta ez zuten neska pobreekin (galtzaileen alabekin) dantzatu nahi”. Familia honetaz aparte, Ordiziako beste familia ezagunekiko ere halako herra egon zen,

⁵⁹¹ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahoz egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-VII-17an.

⁵⁹² Pako Ruiz de Apodaka Galarzari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-18.

⁵⁹³ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27

⁵⁹⁴ Sara Bujanda Olanari eta Jose Maria Bujanda Olanari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14.

⁵⁹⁵ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

adibidez, Iturriotz familiaren kontrakoa (Patxi Iturriotz *Patxi Zabale* Ordiziako alkate izan zen guda aurretik EAJren partetik). Bere alaba Miren Iturriotz Jauregiren arabera, guda ostean desfiela zegoen “frankistek herriren bat hartzen zuten bakoitzean. Urdaneta kaletik pasatzean herriko (eskuindar) batzuek gure etxera etxafuegoak botatzen zituzten, eta guk leihatilak itxi behar izten genituen”. Halakoak pairatu behar zituen beste familia bat Niño-Alonso familia izan zen: “ez genuen ezer, eta gainera kalean barre egiten ziguten *gorriak* eta *errusiarrek* deituz”⁵⁹⁶. Goierritik kanpo ere, halako ezinikusi giroa ere nagusitu zen Gipuzkoan, adibidez Azpeitian, hango herritar Begoña Errastiren arabera, espioia izatea edota erregimenen kontrakoei salaketen bidez eta abarrez bizitza zailtzea oso normala izan zen. Herri honetan beste pertsona bik, Kontxi eta Miren Odriozola Uzkudun ahizpek, abertzaleen familia batean hazitakoek, guda ostean abertzaleek eta karlistek euren artean hitzik egiten ez zuela esaten zuten “umeen artean ondo konpontzen ginen arren”⁵⁹⁷.

Olaberrian, “FET-JONSeko “jefe local”” zein Alustiza apaiza aipatzen dituzten jazartzaile bezala; baina oro har, orokorra zela esaten dute, adibidez, Olaberrian taberna zutenean “11etatik aurrera irekita izatea debekatuta zegoen, baina erregimenaren aldekoak 11ak zertxobait gutxitan etortzen ziren, guri irekita izatea egin arazteko eta horrela isuna jaso genezan” (ikusten den moduan eskema hau, hau da, isunen inguruko araua kontrako ideologia zuten herritarrek propio zigortzeko erabiltzea, Ordizian bezalaxe erabiltzen zuten). Sara Bujandaren arabera “nik jaunartzea goizeko zazpietan egin behar izan nuen, beste umeengandik aparte, fusilatu baten alaba nintzelako”. Jose Maria Bujandaren arabera “Beasainen tratua hobea izan zen, hemen nahiko ondo tratatu gintuzten”⁵⁹⁸.

Bide horretan Eleuterio Aiesta Kristobalenaren iritzia ere badugu. Bere arabera, “gudaren ostean, harremanak normalak izan ziren, ez zen tirabira pertsonal handirik bizi”⁵⁹⁹. Beste kasu batzuetan, Aiesta berak bortizkeria eszena askoren berri eman digu, eskolan, desfile militarretan, eta abar; beraz ondorioztatzen dugu, bere arabera, “eremu formalean” (hau da, bortizkeria erabiltzen zuena “paper ofizialean” zegoenean; desfileko militarra-herritarra, polizia-herritarra, irakaslea-ikaslea) ematen zela batez ere

⁵⁹⁶ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 137., 150., 153. eta 238-239. or.

⁵⁹⁷ BUCES CABELLO, Javier: *Azpeitia 1936-1945* (I. lib., *Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Guda Zibilean eta lehen frankismoko garaian*). Azpeitiko Udala, Eusko Jaurilaritza eta Aranzadi. Azpeitia, 2016, 187. eta 192-194. or.

⁵⁹⁸ Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14

⁵⁹⁹ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

4. kapitulua

bortizkeria hori, hau da erregimenaren aldekoa edo funtzionarioa “zegokion paperean” zegoenean, ez hainbeste, herritarren arteko harreman “ez-formaletan”. Aiestaren testigantza gutxieneko iritzi bat den arren, garrantzitsua da jabetu gaitezen. Halako beste iritzi bat Arantza Ugarte Azkaraterena da; bere arabera “ez zen pike handirik egon, baina aitari (Cesareo Ugarte medikuari) plaza kendu zioten”⁶⁰⁰. Xanti Lasa Aranburuk, bere aitona Santiago Aramburuk “gutxiespena” jaso zuela dioskun arren, bere familian, beste batzuek gudari joandako osabek “errepresalia handirik ez zuten izan, izan ere euren anai bat, Ramon Modesto Aramburu, “Txanbo”, erreketeeekin gudara joan baitzen”⁶⁰¹.

Nahiz eta urteak pasa ahala, “galtzaileetako batzuek” nolabaiteko ospea lortu, gehienen kasuan halako hesi hori, “galtzaile” izanarena, mantendu egin zen. Halakoaren adibide oso on bat ematen digu Ixabel Irizarrek, kontutan izanik familia abertzale batetik zetozela, bere aita Juan Migel Irizar, Loinatz abesbatzako zuzendaria (baina gudari jeltzale batzuen anaia, eta ikusi izan dugunez, bera ere isunaz zigortua) zelarik: “gure aitak nolabaiteko ospea zuenez (agintariiek, erregimenaren aldekoek) errespetatu egiten gintuzten, hori bai, nor bere lekuak zegoelarik”⁶⁰².

“Galtzaile” izateak, aginte-organo ezberdinen aldetik nolabaiteko bortxa jarraia jasotzea ere bazekarren, hau da, agintariiek “markatutako” pertsonen emandako tratua bortxazkoa edo koertziozkoa izatea. Batez ere ideologikoki aktiboak izanaren gaineko ustea euren gain zuten pertsonen sufritu behar izan zuten halako “bortizkeria errutinarioa”. Horietako bat, Inaxio Imaz zen, bere biloba Juan Ramon Imazek kontatzen zuen moduan, “Franco Donostiara etortzen zen bakoitzean, aitona Inaxio kartzelara sartzen zuten egun batzuek”⁶⁰³. Halako beste bat Pablo Aguado anarkista zen (ordiziarra izatez, baina guda ostean Beasainen bizitzen jarri zena). Andoni Sarriegik dioskunez, Beasainen, “jeltzaleen artean, Donostian edo Gipuzkoan ospakizunen bat bazegoen bakoitzean, beti Jesus Ibarbia, Alfontso Ibaibarriaga eta Zezilio Sarriegi (bere aita) kartzelara deitzen zituzten; behintzat 1966. urtea arte”⁶⁰⁴. Francoren bisitaldiez at

⁶⁰⁰ Arantza Ugarte Alustizari eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁶⁰¹ Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁶⁰² Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-9an.

⁶⁰³ Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁶⁰⁴ Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6. Ibaibarriagari buruz, baita Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

bazeuden baita koartelera “arrunta zena baino maiztasun handiagoz” deitzen zituztenak: Anselmo Garmendia kasu. Aitor Garmendiaren arabera “edozein aitzakiarekin deitzen zuten koartelera, edozein baimen eskatuta, eta bizpahiru orduz izaten zuten hor”. Garmendia Goitiaren arabera, bere aitak kontatuta, “halako bisitaldietan ez zuten jotzen baina mespretxu handiz tratatzen zuten”⁶⁰⁵. Beasainen bertan, badakigu eraildako Ignacio Onesimo Matuteren anaia Aurelio Onesimo ere kartzelara eramaten zutela Franco Donostiara etortzen zen bakoitzean⁶⁰⁶. Xanti Lasak ere kontatzen du “Franco etortzen zen bakoitzean, Beasaingo batzuk kartzelara eramaten zituztela”⁶⁰⁷. Beste kasu bat, Joxe Aierdi zarauztarrarena ere izan zen, zeina Ondarretako kartzelara eraman ondoren, Beasaingo Bernabe Aierdirekin senidetua zegoena⁶⁰⁸. Xabier Aierdik kontatzen digun arabera, Joxe Aierdi aske utzitakoan ere, “Franco Donostiara zetorren bakoitzean kartzelan sartzen zuten”⁶⁰⁹.

Kasu batzuetan, aske utzitako jendeak bigarren salaketa bat izan zuen. Andoni Sarriegik bere osaba Jose Sarrieguiri gertatutakoa kontatu izan digu. Sarriegik dionaren arabera, Jose Sarriegui aske utzia izan zenean, Beasainen, eskuindar batzuek “hau horrela utzi behar al dugu?” pentsatzen hasi ziren, eta bigarren salaketa bat jarri zuten, Fermin Perez izeneko pertsona batek jarria. Jose Sarriegui 1939.eko abenduaren 11n atxilotu zuten, bost hilabete pasatu zituen kartzelan salaketa horren erruz, baina 1940.eko maiatzean burutu zen epaiketan libre atera zen. Nahiz eta esan bezala salaketa Perezek jarri, Andoni Sarriegik dioskunez “Benetan hura prestatu zutenak, Rufo Artolain, Eugenio Lasa eta Florencio Gallego izan ziren, eta Silverio Oria gauzainak ere adierazpenen bat egin zuen”. Jose Sarriegui ere horretaz jabetu egin zen aske egon ostean; behin hiru horiei oldartu zitzaizen “eta nik zer egin dizuet zuei zuek niri hau egiteko?”, beraiek “guk ezer ez! Guk ez diagu ezer egin!” erantzun zutelarik. Sarrieguik orduan “Zuek bai, nik badakit salaketa nork sinatu duen, baina baita benetan nork prestatu duen!”. Andoni Sarriegiren arabera, hori entzuterakoan, salaketa prestatu zutenek bizkarra eman eta alde egin zuten, eta aurrerantzean ez ziren ausartzen Jose Sarrieguiri aurrez-aurre begiratzen⁶¹⁰. Jose Sarriegui ez zen behin aske utzita berriz

⁶⁰⁵ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁶⁰⁶ Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-30.

⁶⁰⁷ Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5. Hala ere, Xanti Lasak badiosku bere aitona, jeltzalea zena “ez zutela eramaten, baina beste batzuk bai”.

⁶⁰⁸ 1940.aren ondoren, bere seme Xabier Aierdi Aldasoro Beasainera etorri zen bizitzera. (Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12).

⁶⁰⁹ Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12.

⁶¹⁰ Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6.

4. kapitulua

bigarren zigor bat pairatu zuen bakarra, Alfonso Ibaibarriagari berdin gertatu zitzaion. Ibaibarriaga, bigarren atxiloketa honen ostean (bere seme alaben arabera “ez dakigu nork salatu zuen herrian”, baina agian Jose Sarriegui salatu zuten berdinak izan ziren, biek oso harreman estua izan baitzuten), “Langile Batailoian egon zen, Zaragoza eta Cariñena artean trenbide bat egiten”⁶¹¹.

Hala ere, guda eta guda-ostean “kaleko bortizkeria sozial” honen adibiderik tragikoena, Rufino Sarasolarena dugu. Sarasola 1934.ean greban parte hartu eta 1935.ean epaitu eta kartzelaratua, gudan gudari izan zena, hiru heriotza kondena izan zituen, eta geroago El Dueso eta Puerto de Santa Mariako kartzeletan egona izan zena; libre geratzerakoan, Lakuntzan (Nafarroan) jarri zen bizitzen. Hala ere, tarteka Beasaina etortzen zen. Herria bisitatzen zuenean, “frankisten aldetik probokazioak jasan behar” izaten zituela kontatu digu bere iloba Roberto Begue Sarasolak. Kontuan izan behar da gizon honek aurretik hiru heriotz kondena izan zituela eta hala beldurrez bizitzera behartuta zegoela; beraz, asmo txarreko pertsonen probokazioetarako jomuga erraza izan zen. Hauetako azkena ondo gogoratzen du Roberto Beguek: “1948.eko Beasaingo festak ziren, eta noria batean geunden biok. Behera begiratu eta Goardia Zibileko lotinant bat ikusi genuen, Santiago Muñozekin batera, honek gu seinalatzen gintuen. Nire osabak orduan, noria goian zegoela, burua bertatik bota zuen, ni eusten saiatu nintzen, eta eskuan bere zapatarekin geratu nintzen, osaba erortzerakoan hil egin zelarik. Gogoan dut baita Muñozek lotinantari “hau mozkorra egongo zen” esan ziola, eta goardia zibilak erantzun: “hi hago ixilik, hik ez duk ezer ere ikusi!”⁶¹². Kasu honetan ere, biktimak bere kontrako desprestigioa pairatu zuen, ez soilik momentu horretan Muñozek esan zuenagatik, baizik eta “urte batzuen buruan ere hura errepikatzen” zuelako. “Behin, taberna batean, berriz “hire osaba mozkorra zuan” esan zidan eta nik botila bat hartu nuen buruan hausteko, eutsi egin behar izan ninduten”⁶¹³.

Garaituen familiek modu ezberdinez erantzun izan zioten egoera horri. Erreakzio ezberdinak izaten ziren. Izan ere, egia da politikak komunitate bat osatzen zuela, baina herriaren osotasunaren komunitatea –zeinaren parte etsai politikoak ere baziren– komunitate politikoaren komunitaren alboan honekin elkar-ukituan zegoen, tangente bat balitz bezala. Batzuek, nahiz eta argi izan zein aldetakoak ziren eta nola sufritu

⁶¹¹ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

⁶¹² Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

⁶¹³ Yolanda Begue Redondori eta Roberto Begue Sarasolari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-27.

zuten, nolabait, bi aldeak ez gotortzera jo zuten; bai arrazoi “etikoak” (“ezin da arrenkurarik izan soilik hura beste ideia batzeutakoa delako”) edota “praktikoak” (“aurrera egin behar da”; batez ere kontutan izan behar da familia hauek galtzaileen familiak zirela, beraz oso zail zutela autoritateen aldetik konpentsazio bat edota aitortza bat jasotzea) zirela medio. Adibidez, Angel Lamata Villahozen kasuan; “guk argi genuen ezkerrekoak ginela, baina pike gabe hezi gintuzten, egia esan nik garaileen umeeekin jolasten nuen futboleant. Hala ere egia da ni 45ean jaio nintzela” (beraz ez zituen guda osteko urterik latzenak bizi izan)⁶¹⁴. Bere lehengusina Sara Alonso Lamataren arabera “agian gudari buruz gehiegi ez hitz egiteak nolabait, egoerari aurre egiten lagundu zion”⁶¹⁵. Maria Pilar Lozaresen era hala zioen: “guri, familian, gizaki guztiak errespetatzen irakatsi ziguten, edozein alderditakoak baziren ere”⁶¹⁶. Maria Rosario Ugarte Sukiak ere bat egiten du: “gu batere arrenkurarik gabe hezi gintuzten”⁶¹⁷.

Beste batzuek beste modu batean erantzuten zioten, batez ere probokazio ezberdinak jaso bazituzten euren senitartekoen hiltzaileen aldetik. Adibidez, hau izan zen Bujanda Olanan familiaren kasua. Hauek, euren aita CAFen bahitu zuen taldearen buru zen Epifanio Arguiñanori aurre egin zioten behin baino gehiagotan, batez ere Olaberriatik Beasainera bizitzera etorri zirenean eta han taberna jarri zutenean. Hori baieztatzen digu Eleuterio Aiestak adibidez: “sekulako eztabaidak izaten zituen Bujanda familiaren tabernan, batez ere Sara Bujandarekin, honek aurre egiten baitzion. Arguiñanok noski dena ukatzen zuen, bere konpainian bortxaketarik baimentzen ez zuela ere esaten zuen, fusilamenduak saihestu egin zituela...”⁶¹⁸. Gudan, guda-oinean Asturiasen eraildako Teodomiro Gonzalezen alaba Pepi Gonzalez ere askotan oldartzen omen zitzaion Epifanio Arguiñanori⁶¹⁹. Beste kasu bat izan zen Zaldizurreta baserrian gertatu zena; han esan dugunez, egunero harakin karlista bat (Rafael Oiarbide) pasatzen zen abertzaleen kontrako abestiak kantatzen. Jabier Garcia Bergararen arabera “egun batean, Zaldizurretako nagusiak jipoia eman zion Oiarbideri”⁶²⁰. Beasainen familia izan

⁶¹⁴ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahozen egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

⁶¹⁵ Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Angel Lamata Villahozen egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-VII-17an.

⁶¹⁶ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁶¹⁷ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁶¹⁸ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

⁶¹⁹ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁶²⁰ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

4. kapitulua

duen Edurne Alegria Aierdik honela kontatzen digu: “gure etxean oso garbi genuen Euskal Herrian guda bat izan zela, eta gu euskaldunak ginela”⁶²¹. Hala ere, kontutan izan behar da Alegria Aierdi Venezuelan jaiotakoa dela, han ez zegoen agian Euskal Herrian zegoen giro-presiorik.

Guda bukaeran, hauetako batzuk antza denez, egindakoaz damutu egin ziren. Horietako bat Epifanio Arguiñano zen. Bere kasua paradigmaticoa da, izan ere, urteak pasata bere buruaz beste egin zuen, trenbidera botata⁶²². Askotan sartzen omen zen Bujanda familiaren tabernara, lehen urteetan eztabaida egitera, azken urteetan aldiz, antza denez, barkamena eskatzera. Sara Bujandaren arabera “askotan etortzen zen, eta guk ezin genuen bota; hori bai, sukaldera pasatzen uztea ez zitzaigun bururatu ere egiten. Berak ohi egiten zuen “Zuen amarekin egon nahi dut!”, baina guk ez genion pasatzen uzten. Behin, Beasaingo festen bezperan gure tabernan egon zen, eta gero bere burua trenera bota zuen. Gero jakin izan dugu bi etxe gehiagotan ere egon zela antzeko aldarlean”⁶²³. Testigantza gehienek diote hori gertatu baino lehenago barkamena eskatuz ibili izan zela. Ibaibarriaga Usabiaga neba-arreben arabera “azken urteetan gure gurasoen eta izeba-osaben inguruan ibiltzen zen barkamen eske (...) Behin osaba bati belauniko jarri zitzaion eta barkamena eskatu zion “zure familiari egindako minagatik””⁶²⁴. Arantza Ugarte Azkarateren arabera, bere aitarekin (Cesareo Ugarterekin) topo egiten zuen bakoitzean belauniko jarri eta barkamena eskatzen omen zuen Arguiñanok⁶²⁵. Kontzientziak gainezka eginda bere buruaz beste egin zuen beste bat, Ibarbia lehengusu-lehengusinen arabera, Santiago Muñoz izan zen⁶²⁶. Ez dakigu zer

⁶²¹ Edurne Alegria Aierdi egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12.

⁶²² Ikusten dugun bezala, elkarrizketatu gehienek oso modu ezberdinean ikusten zituzten alderdi berekoak izan arren “izaera ezberdinekoak” zirenak: alde batetik Arguiñano edo Santiago Muñoz bezalako “probokatzailen” edo “gaizkileen”; eta bestetik “haien aldekoak izan arren jendea laguntzen saiatu ziren” Jose Aramburu edo Francisco Elzo bezalako arren bereizketa nabaria da. Kasu honetan, herritarrek garrantzia handiagoa ematen diote agintariaren izaera pertsonalari politikoari baino. Adibidez, Epifanio Arguiñanok bere buruaz beste egitea behin baino gehiagotan aipatzea, moduren batean, persona horrekiko “zigor sinbolikoa” aipatzea izan daiteke. Ana Cabana ikerlariaren arabera, halako oroitzapenak sortzea, izuaren garaian, identitate politikoaren bidez ezinezkoa zenean “komunitatea babesteko” modu bat izan zitekeen. CABANA IGLESIA, Ana: “Sobrellevar la vida. Memoria de resistencia y resistencias de la memoria al franquismo” in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel; FUERTES MUÑOZ, Carlos; HERNANDEZ BURGOS, Claudio eta MARCO, Jorge (ed.): *No sólo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura de Franco (1936-1977)* (97-108. or.), Comares. Granada, 2013, 100-104. or.

⁶²³ Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14. Sara Bujandaren arabera “horietako bat, ziur aski, Agripina Poloren etxea izan zen”,

⁶²⁴ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

⁶²⁵ Arantza Ugarte Alustizari eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁶²⁶ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

izan zen Arguiñanoren kontzientzia txarra piztu zuena, baina kontutan izan behar da erreketen kapitaina izan zela gudan zehar, eta Felipe Ibarbiaren arabera “guda bukatu zenean CAFeko zuzendari izan behar zela esaten ibili zen (...) azkenean postari eta CAFeko zaindari bezala ibili zen”⁶²⁷.

Hala ere askoz okerrago izan zuten guda galdu zutenek. Antonio Cazorla historiagile andaluziarrak esaten duen moduan, “ezkerraren alde egin zuten milioika pertsonak euren ideiek, euren lexikoak, euren iraganak eta euren etorkizunerako itxaropenek diktaduraren errealitate gogorrekkin bat egin zezaten behartuta ikusi zuten euren burua. Askatasunerako itxaropen osoa bakean bizitzearren uztera behartuak izan ziren”⁶²⁸.

Kasu batzuetan, egon ziren halako integrazio sozial saiakera batzuk, bi aldeen artean interes amankomunak edota “beasaindertasuna” gailentzeko asmoak. Horrela jarduteko, hainbat arrazoi izan zitezkeen: adibidez, errukia, edota errepresio bortitz eta orokortuarekiko nolabaiteko zalantzak adieraztea, edota erregimenaren propagandak jomugan jarritako kolektiboko (“gorri-separatisten”) pertsona konkretuen inguruan, kontsiderazio pertsonalak (“azken finean, hori pertsona ona da, ideia okerrekotakoa izan arren”), erregimenaren propagandak esandakoaren (“gorri-separatistak aberriaren kontrako arrisku bat dira”) gainetik ezartzea. Jakina, honekin bazuen beste arrisku bat: integrazio hori “ahantzuraren” truke egin izana, edo benetako azterketa kritiko bat ahaztetik egin izana, hau da “galtzaileari”, integrazioa lortzeko, “guda ondo egina izan zela” edota “orain dugun agintea justua dela” onartu araztea, praktikoki bere ideiak edo bere arrazoi politikoak aurrera eramatea eragozten zuen erregimen bat onartu behar izatea. Ezin gara nahastu: izan ere, erregimen frankista Guda Zibileko garaipenean oinarrituta zegoen erregimen bat izanagatik, “irabazle” eta “galtzaile” dikotomia betikotzen zuen erregimen bat zen; beraz, “integrazio” hori, bi plano oso ezberdinetan zeuden subjektuen arteko integrazio desorekatu bat izan zen. Halaber, halako keinuek eragin sozial oso murrizta izan zuten, eta eragin politikoa, ordea, bat ere ez. Halakoak aipatzen ditu adibidez, fusilatu baten (Juan Andres Otaegiren) biloba den Lourdes

⁶²⁷ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁶²⁸ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 20-21. or.

4. kapitulua

Martinez Otaegik: “Egia da Beasainen jende batek nire amona (Bixenta Agirre) lagundu zuela”⁶²⁹.

Halako jarrera izan zuten erregimenaren aldeko pertsonen artean, askok Jose Aramburu zinegotzia edo Francisco Elzo arbitrioen arduraduna zena aipatzen dute. Mila Mendiaren arabera, “Elzok aita defendatu egin zuen askotan”⁶³⁰. Paulino Aranburuk dioenez⁶³¹, “Francisco Elzo izan zen herria batzeko lan handia egin zuena, batez ere futbolaren bidez, futbol-taldearen bidez”. Hau Roberto Beguek ere kontatzen digu: “Eskuinaren aldetik, Paco Elzo saiatu zen, futbola tarteko, bi aldeak elkarrengana hurbiltzen”⁶³². Baten batek, Amaia Gamarrak kasu, Francisco Unzueta ere talde honetan sartzen du, baina salbuespena da⁶³³. Bestalde, Juan Unanuak, bere osaba Rufo Artolain aipatzen du: “gure aitona zenbait kudeaketa egin zituen jendea CAFen berriz sartu zedin”⁶³⁴, iritzi honekin beste zenbait oso ados ez badaude ere⁶³⁵.

Batzuetan “galtzaileen” aldetik zetozen pertsonen ere, batez ere entzuteko posizio bat lortu bazuten, eragin hori espazio berriak irabazteko lor zitzaizkete. Halako kasua gertatu zen, gerra-ostean urte batzuk pasa ostean, nekazal elkartearen kooperatibarekin. Aitor Garmendiak esaten duen moduan “gure aitona nekazal elkarteko burua izan zen, eta berak beti zioen, horra lanera etorri behar zela, ez politikaz hitz egitera, politika atearen beste aldean geratu behar zela”⁶³⁶ (beraz, bi aldeetako pertsonen artean ezberdintasuna egin gabe).

Ikusten dugun moduan, bi toki aipatzen dituzte amankomuneko “beasaindertasunerako”: alde batetik lanarena, eta beste batetik futbol taldearena⁶³⁷. Hala ere, bien artean badago nolabaiteko ezberdintasun bat: izan ere, lanarekiko sarrera,

⁶²⁹ Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizia, 2014-XII-17.

⁶³⁰ Mila Mendi Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2. Lehen esan dugu, Mila Mendiaren aita Florencio Mendi askotan erregimenaren aldekoek mespretxatu egiten zutela kalean.

⁶³¹ Paulino Aranbururen testigantza. Testigantza hau ez dago grabatuta.

⁶³² Francisco Elzo Urrestarazu Realean atezain gisa jokatzera iritsi zen, 1930-31 denboraldian. Reala hirugarren geratu zen denboraldi horretan.

⁶³³ Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-1.

⁶³⁴ Juan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-5.

⁶³⁵ Adibidez, Patxi Lasa Imazen, Andoni Sarriegiren eta Alfontso Ibaibarriaga Barriolaren testigantzak ditugu (Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25; Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6; eta Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia).

⁶³⁶ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁶³⁷ Abertzaletasunak kirol-taldeak erabiltzeari ematen zion garrantziaren inguruan: CALVO VICENTE, Candida: “Los límites del consenso franquista en Guipúzcoa. Las actitudes del nacionalismo vasco 1936-1942” in *II Encuentro de investigadores del franquismo* (Kongresuko aktak, II lib.) (29-36. or.). Alacanteko Diputazioa, Alacanteko Unibertsitatea eta Valentziako Unibertsitatea. Alacant, 1995, 31. or.

askotan, diskriminazio iturri ere izan baitzen (gero ikusiko dugun moduan, enpresa pribatuan ere, Francoren kontra borrokatu zutenen kontrako errepresioa izan zen); nahiz eta Beasainen eman izan zen enpresaren komenientziarengatik, gudan ezkertiarren alde borrokatutakoak berriz lanera onartzearen kasu adierazgarri bat: CAFen berriz sartu zituztenekoa, Antonio Sierra zuzendariaren ekimenez (horrek erregimenaren aldekoen artean nolabaiteko haustura suposatu zuen, zenbait zinegotzi “gorriak” CAFen berronartzearen kontrakoak baitziren)⁶³⁸. Kasu horretan nahiko ezberdina zen enpresako agintaria erregimenaren aldekoa izatea, edota, Aitor Garmendiak azaldu bezala, erregimenetik kanpo egotea. Hala ere, kasu horretan nolabaiteko bertikaltasunez aritzen zen erregimena, hau da “goitik beherako integrazioaren” eskema erabatekoa zen. Kiroltaldearekin, aisialdi talde bat zenez gero (ez zen beharizan bat, lanpostua izatea bezala), bertikaltasun hori desagertzen ez bazen ere, askoz ere leunago azaltzen zen, izaera horizontalagoa zuen. Elkarrizketatuek aipatzen eez badute ere, badago beste hirugarren gune bat, nahiz eta honen “eragin integratzailea” beste baina baino askoz ere txikiagoa izan zen, parte batean, bere izaera propioagatik. Kasu honetan, Usurbe elkarteaz ari gara. Eta kasu honetan “eraginkortasun txikiagoa”, “bere izaera zela-eta” izan zuela badiogu, elkarte hau garai haietan bertako eliteei lotuta zegoelako diogu, beraz populazioaren parte handi batek ezin zuen elkarte horretan parte hartu. Hala ere, esan beharra dago, guda osteko, 1940.eko zuzendaritzan, elkartearen zuzendaritzan ezkerrekoak izan ziren bi zinegotzi aurkitu zirela: Gregorio Lasa eta Pedro Azarola⁶³⁹.

Hemen, Beasainerako aurkitu izan ditugun tokiko “integrazioari” buruzko ereduak; hau da, lan edota aisiladi elkarteak, eta baita ere euren ezaugarri nagusia, hau da, “politika” kanpoan uztea; Ismael Sazek aurkitzea berak Valentziako langileguneetan egin izan dituen ikerketen inguruan. Adibidez, bere arabera, fabrika bera “integrazio” gune garrantzitsu bat zen (bere ikerketa Valentziako bi fabrika handienetan egin du), baina baita ere aisiladi taldeak, adibidez, Valentziako hiriburuaren kasuan, fallak, noski, Liria herrian musika-bandak edo Sagunten Aragoar Zentroa⁶⁴⁰.

Erresistentzia kasuak oso urriak izaten ziren; izan ere kontutan hartu behar dugu errepresioaren helburuetako bat, jendea politikatik urruntzea izan zela. Eta helburu hori ondo bete zuen errepresioak, populazioaren parte gehienak (bai Euskal Herrian, zein

⁶³⁸ Gai honetaz, geroago hitz egingo dugu zabalago, lan arloko errepresioari buruzko azpiatalean.

⁶³⁹ Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 3405 karpeta, 045 espedientea.

⁶⁴⁰ SAZ CAMPOS, Ismael: op. cit., 191. or.

4. kapitulua

Espanian) behintzat 60. hamarkadaren erdialdera arte, politika urrutitik ikusten zuen, mesfidantzaz, “kaltea soilik ekarriko duen” zerbait bailitzan. Oposizio politiko aktiboan ari zirenak gutxiengo bat ziren⁶⁴¹, bai Beasainen, zein Euskal Herrian, zein Espainian. Espainiako egoera orokorraren inguruan, Antonio Cazorla berak esaten zuen, “miseria egoera orokorra bazen ere, langileek gehienetan ez zuten bilatzen erregimenarekin talka aurrez-aurre egiterik, eta ez soilik Guda Zibilaren oroitzapenaren beldurra zela eta (...) Orduko pertsona arrunt baten sentimenduak kontutan hartu behar dira (...) protestarako tresna gutxienekoak ez zeuden gizarte batean (...) Langile gehienentzat, helburu nagusia bizirautea eta bere familia babestea ziren (...) Honek azaltzen du zergatik protesta gehienek ez zuten bilatzen erregimenarekin talka egiterik, baizik eta honen diskurtsu moralarekin kontraesanak bilatzea”.

Beste alde batetik, kontutan izan behar da erregimenak, hasieran erregimena etorkizunera begira “sendotzeko” (hots, jendeari politika egiteko tentazioa epe luze batetarako kentzeko) egin zuen “bortizkeriaren aldeko inbertsioaz” gain⁶⁴², erregimenak “bakearen” inguruan egin zuen “propaganda inbertsioa”. Izan ere, jendea batez ere, bake-gose zen, Gudak ekarri zuen errepresioa ahaztu nahi izan zuen. Horri lotuta, Bigarren Mundu Gudan ez sartzea erregimenarentzat propaganda tresna handi bat izan zen; egia izan ez arren (Francok Bigarren Mundu Gudan Ardatzaren alde sartu nahi izan zuen, eta horixe planteatu zion Hitlerri Hendaian), azkenean, frustrazio hori “indargune bihurtu zuen”, eta bakearen berme aurkezteko aukera eman zion, honela erregimenaren etsaiak “bakearen etsai” gisa jarri zituelarik⁶⁴³. Bestalde, kontuan izan behar dugu Guda Zibilaren luzatu ahala, geroz eta jende gehiagorengan “buka dadila, edozelako emaitzarekin, baina buka dadila behingoz” zioen sentimendua nagusitzen hasi zela⁶⁴⁴, eta diktadoreak ondo jakin zuen Guda Zibil berri batekiko beldur hori bere alde erabiltzen. Egia esan, Francoren bakea oso diskriminatzailea izan zitekeen, baina jende askok ez zuen hau beste zerbaitegandik aldatzen saiatzeko adorerik, are gutxiago Guda Zibil berri baten prezioan. Oro har, Ismael Sazek dioen moduan, langile klaseak erregimena “etsaitzat” edo “bestetzat, gurea ez denatzat” izan zezakeen, baina

⁶⁴¹ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 71-72. or.

⁶⁴² RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz...* op. cit., 111. or.

⁶⁴³ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit.

⁶⁴⁴ HERNANDEZ BURGOS, Claudio: “Mucho más que egoísmo y miedo: Las actitudes de los españoles durante la Guerra Civil (1936-1939)” in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel; FUERTES MUÑOZ, Carlos; HERNANDEZ BURGOS, Claudio eta MARCO, Jorge (ed.): *No sólo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura de Franco (1936-1977)* (33-46. or.), Comares. Granada, 2013, 38. eta 46. or.

gehiengoaren jarrera “aurkakotasun pasiboa” zen, oposizioa isolatuta agertzen zelarik⁶⁴⁵.

Bazeuden halako kasu batzuk, baina gehienetan erresistentzia pasibo eta indibidualera mugatzen ziren; adibidez, irrati debekatuetakoko berriak entzutera (Sara Unanueren arabera, “irrati bat izateko baimena eskatu beharra zegoen”⁶⁴⁶), edo II Mundu Gudaren alemaniarren porrotez poztera (poz hori sobera azaleratu gabe), edo pribatuan berrafirmazio ideologikorako ekintza familiar pribatuak egitera. Jesus Lopez Gallegoren arabera, “fabrikan (CAFen) bazegoen maisu bat irrati txiki bat zuena, eta handik berri klandestinoak entzuten zituen”⁶⁴⁷. Kasu hori bera zen Bernabe Aierdi jeltzalearena, bere iloba Xabier Aierdi Aldasorok kontaktzen duenaren arabera; gainera, Aierdik salaketa bat ere izan zuen, Londres Irratia entzuten zuela eta⁶⁴⁸. Beste batzuek ordea Pirenaica Irratia entzuten zuten, adibidez, Roman Unanueren familian⁶⁴⁹. Berrafirmazio ideologikoaren kasuei zegokienez; gehienetan, kasu pribatuak izaten ziren; hala kontaktzen digu adibidez, Pako Ruiz de Apodakak: “Gure etxean, eta oro har galtzaileen etxeetan, irratian Espainiako ereserkia jartzen zutenean, irratia itzali egiten genuen”⁶⁵⁰. II Mundu Gudaren nondik-norakoek Beasaingo erregimenaren kontrako jendearengan izan zuen eraginari buruzko adibide bat Anselmo Ruizek ematen digu: “Ni Bilbon soldaduska egiten nengoen. Gogoratzen dut AEBtako Armada Frantzian lurreratu zenaren berria irratian entzun genueneko; sekulako poza hartu genuen eta “Gutxi falta da! Gutxi falta da!” esaten genuen”⁶⁵¹.

Erresistentzia politikoa agertzen pixka bat berandutu zen. EAJri dagokionez, Ibaibarriaga berak egin izan zituen saiakera batzuk, baina bere hitzen arabera, askotan “bildu (...), isilpeko propaganda banatu (...) eta mendira joan” egiten zuten; beraz, gehiago zen “komunitatea mantentzeko” (isilpean behintzat) lana “eraso politikorako” (helburu batzuekin, estrategia zehatz batekin) lana baino. Guda ostean, Miren Barandiaranen arabera, abertzale asko Pakoren fondan ibiltzen ziren, eta batzuetan

⁶⁴⁵ SAZ CAMPOS, Ismael: op. cit., 193. or.

⁶⁴⁶ Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-X-1.

⁶⁴⁷ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁶⁴⁸ Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12. Hauen iloba Miren Edurne Alegriaren arabera, “Beasainen, Bernabe Aierdiren etxean, isilpeka hitz egiten zen politikaz”. (Edurne Alegria Aierdiri egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12).

⁶⁴⁹ Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-X-1.

⁶⁵⁰ Pako Ruiz de Apodaka Galarzari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-18.

⁶⁵¹ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

4. kapitulua

Senpereko futbol-zelaian batzen ziren⁶⁵², Antonio Zubillagak hau baieztatzen du, baina baita ere Alai tabernan ibiltzen zirela ere bazioen, “taberna horiek salaketa asko izaten zituzten”⁶⁵³. Ibaibarriagak dioenez, berak Goierriko jeltzale ezberdinen arteko lotura lana ere egiten zuen “Ordizian aldizkariak jasotzen nituen, Boni Apalategiren tabernan, Txindoki tabernan. Gero nik banatzen nituen: Lazkaoko Juana Izagirreri, Ataungo Markos Bidebarrietari, Idiazabalgo arotz bati eta abarri ematen nizkion”. Garai horietako Beasaingo jeltzale batzuen izenak ere aipatzen dizkigu Ibaibarriagak: “Sariegi anaiak, Joxe eta Zezilio; Ezkiotxiki baserriko hiru anaiak; Joxe, Rufino eta Antonio Sarasola; (...) Boni eta bere anaia Juan (Apalategi); Benito Mujika eta bere anaia Ramon... sail bat baginen” (Ibaibarriagak elkarrizketa horretan aipatzen ez badu ere, jeltzaleekin ibiltzen zen beste bat Jesus Ibarbia zen, gudan fusilatutako Jose Ibarbiaren anaia. Bestalde pentsatzen dugu elkarrizketa horretan Ibaibarriagaren mintzakide izan zen Antonio Zubillaga ere talde horretan egongo zela)⁶⁵⁴. Antzaenez herrian nahiko ezagunak ziren, “denak batera tabernan sartzen ginenean, Ezquiagak, Unzuetak eta horiek tragoa bukatu gabe alde egin behar izaten zuten”. Igandeko dantzaldiak ere aprobetxatzen omen zituen Ibaibarriagak propaganda egiteko: “galtzetan sartzen nituen aldizkariak, eta dantza egiten hasterakoan, beti erortzen ziren lurrera bat edo bi”⁶⁵⁵. Komunitatearen mantentze-estrategia hori oso garrantzitsua izan zen Gipuzkoako jeltzaleentzat gerra-ondoko lehen urteetan, Candida Calvo Vicentek aipatu duenez. Historiagile oreretarraren arabera, “mezak, eta batez ere berriki hildako abertzaleen aldeko hiletak” aprobetxatzen zituzten “euren artean biltzeko”; eta baita kirol-jardunaldiak, adibidez herri bakoitzetako kirol-taldeetan sartzea edo mendi-irteerak egitea⁶⁵⁶.

Gipuzkoan oro har, abertzaletasuna ezkutatuta baino “nahiko zabaldua” zegoen Candida Calvo Vicenteren arabera, “erregimenaren ekitaldietan parte hartzera ukatzera mugatzen bazen ere”. Jeltzaleen zabalkunde hau baieztatzeko erabiltzen ditu 1938.ean Italiako Donostiako kontsulak eta FET-JONSeko Gipuzkoako Propaganda Buruak idatzitako txosten bana. Azken honen deskripzioa argigarria da: “propagandak

⁶⁵² BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 110-111 or.

⁶⁵³ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁶⁵⁴ Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6.

⁶⁵⁵ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁶⁵⁶ CALVO VICENTE, Candida: “Los límites del consenso franquista...”, op. cit., 30-31. or.

probintzia honetan zailtasun handiak ditu, oraindik lozorroan baina oso hedatuta dagoen nazionalismoaren birusari aurre egin behar diolako”. Bestalde, 1940.ean, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak berak txosten batean idatzi zuen “halako irteerak abertzaleak biltzeko parada izaten dira, askotan euskal separatistek jantzi ohi dituzten arrokekin jantzita joaten direlarik”⁶⁵⁷. Beraz, jeltzaletasunak, klandestinitatean bada ere, nolako indar bat mantendu zuen guda-ondoko Gipuzkoan.

Hala ere, EAJk eta ELAk momentu puntual batzuetan bazuten desafio zabala egitea, Miren Barandiaranek esaten digun bezala: 1947.eko eta 1951.eko grebek Beasainen ere oihartzuna izan baitzuten: 1947.eko maiatzaren 1ekoak gutxiago, CAFen soilik izan baitzuen oihartzuna (erregimenak erantzun bezala ogia banatzeari utzi zion), baina 1951.ekoak gehiago: bi eguneko greba izan zen (maiatzaren 23 eta 24) eta Beasainen eragin handia izan zuen⁶⁵⁸. Hala ere, ez Barandiaranek ez Ibaibarriagak ez dute esaten greba horiek Beasainen kanpoko giroaren erreplika huts izan zirenik edo grebetan beasaindarrik egon bazen antolatzen edo nolabaiteko paper nabarmenarekin.

Alfontso Ibaibarriaga berak esan zuen “Franco hil zenean hasi zen hemen (Beasainen) gauza pixka bat mugitzen”; hau da, ordura arte ekintzak nahiko esporadikoak izan zirela ondorioztatzen dugu. Ibaibarriaga berak ere esan zuen baita: “ordurako gazte abertzale asko ETari begira zeuden”⁶⁵⁹. Hots, Ibaibarriagaren arabera, 60. hamarkadan ezker abertzale berria indartsu sartu zen Beasainen.

Beste mugimendu batzuk ere antolatzen hasi ziren Beasainen, adibidez, Alderdi Komunista, Eduardo Gamarra donostiarrak berpiztu zuen Beasainen (berpiztu edo aktibatu, II Errepublika garaian presentzia handirik ez baitzuen izan gure herrian), hau Beasainera lan egitera etorri zenean. Bere alaba Amaia Gamarrak kontatzen digun moduan “CAFen bazegoen Alderdi Komunistaren zelula bat”. Zelula hori, 40. hamarkada erdi-bukaeran sortua izan behar izan zen, ezen, Gamarraren arabera “gure aita 1945.ean etorri zen Beasainera lanera (...) eta 1948.ean atxilotu egin zuten”⁶⁶⁰. Komunistek ere, batez ere propaganda ekintzak egiten zituzten, adibidez “CAFerako bidean ikurriña bat eta bandera errepublikano bat jartzen zuten”. Eduardo Gamarra ere

⁶⁵⁷ Ibid., 30. or.

⁶⁵⁸ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: op. cit., 111-112 or.

⁶⁵⁹ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁶⁶⁰ Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-1. Gamarraren arabera, Eduardo Gamarrarekin batera “lazkaotar bat ere atxilotu zuten”.

4. kapitulua

prestigio handiko pertsona omen zen Beasainen, bere atxiloketa gertatu zenean, CAFen dirua bildu baitzen presoentzat. Are, Beasaingo pertsona garrantzitsu bik, *Indarreko* jabe Larrañagak eta Ormazabalek 10.000 pezetako bermea jarri zuten Gamarra baldintzapeko askatasunean kartzelatik atera zedin⁶⁶¹.

Ezin izan dugu Beasainen guda ostean Errepublika garaian herrian garrantzitsuena izan zen Alderdi Sozialistaren oposizio aktibitatearik aurkitu, ezin esan egon ez zelako, edo bere arrastoa aurkitzerik izan ez dugulako. Hala ere, esan beharra dago Gipuzkoan, behintzat Donostian eta Tolosan bai egon zirela oposizioko mugimendu sozialistak. Jose Fernandez Irurita tolosarraren arabera “1940. edo 1941. urtean ni klandestinitatean sartu nintzen. Alderdi Sozialistaren eta UGTren Komite bana sortu genituen (...) Atxilotuak izan ginen eta niri heriotza-zigorra ezarri zidaten; sei urte eman nituen kartzelan”⁶⁶². Manuel Blazquezzen arabera, Tolosan, bi kide sozialistek, Celestino Corcuerak eta Miguel Gomezek, batez ere presoen familientzako dirua biltzen zuten⁶⁶³. Richard Gillespiek ere, bere PSOeri buruzko lanean, Gipuzkoako sozialistek buruz aritzerakoan, Eibar eta Donostia aipatzen ditu, eta 1944.ean eta 1950.ean Gipuzkoako sozialista gehienak atxilotu zituztela dio, baina ez du Beasainen berririk aipatzen⁶⁶⁴. Raul Lopezek, Maria Losadak eta Carlos Carnicerok frankismo garaiko euskal sozialismoari buruz egindako lanean, ere ez da Beasainen izandako iharduerarik aipatzen. Luze aipatzen dute Eibarko kasua, herri horretan guda zela eta erbesteratutako militante sozialista historikoak eta euren familiak itzultzea antolakuntza sozialista berpizteko ezinbestekoa izan zen⁶⁶⁵. Sozialistek, bai Eibarren, zein Gipuzkoako edo Euskal Herriko beste toki batzuetan, Beasainen abertzaleek erabili zuten taktika bera erabili zuten garai hauetan: garrantzitsuena, harreman-sareak mantentzea. Adibidez, Eibarren horretarako tresna baliagarria izan ziren hileta zibilak, han hildakoaren lagunek hitz egiteko parada baitzuten, eta horren aitzakiaz “mitin politikoak” eman ahal

⁶⁶¹ Amaia Gamarrari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-1.

⁶⁶² FERNANDEZ IRURITA, Jose: “Testimonio: Jose Fernandez Irurita” in BARRUSO BARES, Pedro; BLAZQUEZ BRIMEZ, Manuel; eta VILLANUEVA TELLERIA, Jose Mari: *Cien años de socialismo en Tolosa 1981-1991* (69-92. or.). Tolosako Elkarte Sozialista. Tolosa, 1991, 92. or.

⁶⁶³ BLAZQUEZ BRIMEZ, Manuel: “Primer centenario 1891-1991. Agrupación Socialista de Tolosa” in BARRUSO BARES, Pedro; BLAZQUEZ BRIMEZ, Manuel; eta VILLANUEVA TELLERIA, Jose Mari: *Cien años de socialismo en Tolosa 1981-1991* (11-20. or.). Tolosako Elkarte Sozialista. Tolosa, 1991, 19. or.

⁶⁶⁴ GILLESPIE, Richard: *Historia del Partido Socialista Obrero Español*. Alianza Universidad. Madril, 1991, 197-199. or.

⁶⁶⁵ LOPEZ ROMO, Raul; LOSADA URIGUEN, Maria; eta CARNICERO HERREROS, Carlos: *Rojo esperanza. Los socialistas vascos contra el franquismo*. Mario Onaindia fundazioa. Gasteiz, 2013, 55-76. or.

baitzitzuten. Beraz, argi dago sozialistek Gipuzkoa mailan beren antolaketa ere izan zutela guda-ostean eta honek nolabaiteko aktibitatea izan zuela, baina ez dugu jakiterik izan aktibitate hau Beasaina iritsi ote zen.

Beasainen guda-ostean iharduera mantentzeko gai ez izana (kasua hori izatekotan) izan daiteke, gerora, Francoren diktadura ostean Beasainen PSOEk hegemonia galtzeko arrazoietako bat. Hala ere, nire ustez arrazoi honi ez zaio erabateko pisurik eman behar, izan ere, Tolosan ikusi dugu aktibitatea mantentzeko gai izan zirela, eta herri horretan ere behera egin zuen PSOEn pisuak. Beste arrazoi bat, 60.eko hamarkadaren ostean emandako aldaketa soziologiko eta ideologikoak izan zitezkeen; baina hau ikertzea ez da lan honen xedea.

Errepublikanoei dagokienez, ez dugu ezagutzen Beasainen frankismoaren garaian egin izan zuten oposiziozko ekintzarik. Beasainen erreprimitutako errepublikanoak Guda Zibilarekin edo aurreko garaiarekin zerikusia izan zuten ekintzengatik izan ziren erreprimituak, ez propio frankismoan egindakoengatik. Pedro Barrusoren errepublikanoen kontrako errepresioaren ikerketa txikian apenas agertzen da Beasainen gertatutako kasurik⁶⁶⁶.

Oro har, Gipuzkoan, frankismoarekiko “etsaitasun pasiboa” oso handia zen, hau ikusten zen adibidez ekitaldi ofizialek zuten publiko ekasan. Adibidez, Candida Calvoren arabera, 1942.eko ekainean Dibisio Urdineko 600 borrokalari itzuli zirenean, Donostiako geltokian oso jende gutxi zegoen euren zain; eta berdin gertatu zen urte horretan egin ziren Bateratzearen urteurrenearen jaian eta Donostia altxatuek hartzearen urteurren-jaian⁶⁶⁷. Hala ere, honek ez du esan nahi frankismoa bezalako giro despolitizatu batean, oposizioko alderdiek mobilizatzeko zailtasun handiak ez zituztenik, bai kontrako errepresioagatik, eta lehen esan bezala, errepresioak eta pobrezia populazioarengan izan zuten eraginagatik: hau da honen despolitizazioagatik. Antonio Cazorlak jasotzen duenez, Gipuzkoan, 1950.ean, Alderdi Komunistak Koreako Gudaren inguruan eskuorri batzuk bota zituenean, jendeak jaso ere ez zituen egin, “Munduko Futbol Txapelketaz interesatuago zegoelako”. Adibide hau oso argigarria da oposizioko politikak jendearengan pizten zuen interes eskasaren inguruan, ezen jende

⁶⁶⁶ BARRUSO BARES, Pedro: “La represión del republicanismo en Guipúzcoa (1936-1945)” in *Cuadernos republicanos*, 40. zkia. (65-94. or.), 1999.

⁶⁶⁷ CALVO VICENTE, Candida: “Los límites del consenso franquista...”, op. cit., 30. or.

4. kapitulua

arrunta batez ere bere arazo pribatuak, askotxo zirenak, konpontzera emana zen politikagatik borrokatzera baino⁶⁶⁸.

4.5.h) Lan-errepresioa

Aurreko kapituluan esan bezala, Udalak funtzionario ezkertiar edota abertzaleen kontrako jazarpena hasi zuen. 1936.eko azaroan, Udalak lau funtzionario postutik kanpo utzi nahi izan zituen: Francisco Donazar Zabaleta gauzaina, Juan Aramburu Irizar Arbitrioen Administratzailea, Candelario Aramburu Mugica idazkaritzako ofiziala⁶⁶⁹ eta Segundo Lozares Escolar udaltzaina⁶⁷⁰. Hauen kanporatzea 1937.eko urtarrilaren 12an izan zen behin-betikoa, izan ere, data horretan, Udal-Bilkurak erabaki zuen, Gipuzkoa eta Bizkaiko Gobernadore Zibilaren agindu baten ostean kanporaketa hau behin-betiko egitea⁶⁷¹. Hauxe, 1936.eko abenduaren 5ean Administrazioan depurazioa ahalbideratzen zuen legezko dekretu batek babesten zuen, honek “Mugimendu Nazionalaren kontrako langile guztiak zerbitzutik bereiztea” ahalduz baitzuen⁶⁷². Beraz, hemen ere, erregimeneko agintariek eurek ezarritako legeak (berez legez kanpokoak zirenak, zilegitasunik gabekoak zirela eta), puskatu edo behintzat interpretazioari dagokionez “luzaz behartu” zuten, hauen kanporatzea lege horren aurretik ezarri baitzuten. 1938.eko ekaineko dokumentu baten arabera, Juan Arambururen postuan, arbitrioen arduradun Francisco Elzo Urrestarazu jarri zuten eta Candelario Arambururen postuan Antonio Ayestaran Irastorza⁶⁷³. Gainera, bosgarren funtzionario bat ere kaleratu zuten, kasu honetan herritik ihes egin ez zuena, Antonia Bares Tolosa Udal Hiltegiko tripazaina hain zuzen. Bares Tolosaren “delitua” ez zen ihes egin izana (ez baitzuen egin) baizik eta “joera erabat ezkertiarra” izatea eta “UGTko kidea” izatea⁶⁷⁴. Beraz kasu honetan Beasaingo Udalak, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak ezarritako legeari beste urrats

⁶⁶⁸ FET-JONSeko Gipuzkoako Probintzia-buruzagitza: *Parte mensual de actividades, correspondiente al mes de junio de 1950*. Archivo General de la Administracion, Alcalá de Henares, Presidentzia sekzioa, 266 kutxa, 1950; in CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 104. or.

⁶⁶⁹ 1940.ean Udalak idazkaritza-ofizial berri bat izendatzeko lehiaketa bat deitu zuenean, Candelario Mugicak errekurso bat jarri zuen lehiaketa horren kontra. Hala ere, Udalak ez zion jaramonik egin (1940-X-14ko Usalaren osoko bilkura, Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta).

⁶⁷⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 11 dokumentu-sorta.

⁶⁷¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁶⁷² MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales...”, op. cit.

⁶⁷³ Beasaingo Udal Artxiboa. 3186 karpeta, 57 dokumentu-sorta.

⁶⁷⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta. Hala ere ez zuten kargutik kendu Jose Antonio Aduriz Isasa abere-hitzailea, aurreko kapituluan azaldutako txosten baten arabera (1936.eko azaroaren 24k txostena); Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 11 dokumentu-sorta “independentea baina euskal abertzaleen aldeko joerakoa” zela azaltzen bazuen ere. Agian kargutik ez kentzeko arrazoia berez inongo elkarte edota alderdiren kide ez izatea izan zen (Antonia Bares UGTko kidea zen). Hala ere, laster ikusiko dugun bezala salaketa bat jaso zuen bere kontra.

hertsitzaileago bat eman zion, agindu horretan ezartzen ziren irizpideak hautsi ez zituen pertsona bat bere ideologia zela eta kaleratzearen.

Alta, Emilio Muñoz Novillo idazkaritza-laguntzailea, bere postua ere utzi zuena, Falangeko bolondres bezala aritzen zelarik, ez zuten kargutik bota, baizik eta “suspentsioan” jarraitu zuen⁶⁷⁵. 1937.eko urtarrilaren 21ean, Bandako danboril-jole Victoriano Telleria jarri zuen auzitan Beasaingo Udalak. Udalaren arabera, Telleria Idiazabalen bizi zenez gero, hango Udalari filiazioa eskatzea erabaki zuen⁶⁷⁶. Urtarrilaren 28an, Udal-Bilkuran esan zen Idiazabalgo Udalak erantzun egin zuela eta Telleria gudaren aurretik abertzalea zela. Hori zela eta, lanean, soldata suspenditzea erabaki zuen Udalak⁶⁷⁷. Telleriak 1939.eko urrian soilik lortu zuen bere postura itzultzea, zigortuta egon zen bi urteetako soldata jasotzeko eskubiderik gabe⁶⁷⁸. Victoriano Telleriaren kasua argigarria izan zen, honen bidez nabarmen ikusten baita Udal berria bere depurazio saiakeretan hain urrun joan zela, ezen “pertsonala osorik garbitzeko”, iraganeko militantziarengatik pertsona bat zigortzea ere erabaki zutela. Hau da, Udalak “galtzaileei” Udaleri lotutako etorkizun profesionala utzi zien tartea oso txikia izan zen.

Udal frankistak are prozedura ankerrago bat hasi zuen, otsailaren 25ean jakinarazi zuen bezala, “zortzi eguneko epea” zabaldu zuen “martxoaren 4a arte, herritarrei, 108 Dekretuaren arabera, funtzionarioen inguruko salaketak jartzeko aukera emateko”⁶⁷⁹. Mekanismo honek arrakasta izan zuen; bi salaketa izan baitziren: alde batetik Juan Cia izeneko kale-garbitzaile batek (askotan okerbidez “Jose Cia” bezala aipatua dena) Agustín Cacho kale-garbitzailearen kontra jarri zuen salaketa hauxe sozialista omen zelako. Bigarren salaketa larriagoa izan zen; lau zinegotzik sinatzen baitzuten: Francisco Ezquiagak, Francisco Unzuetak, Martín Esnaolak eta German Zaballosek. Salatuak epaitegiko idazkari Juan María Barrena (Zentro Errepublikanoko kide izan zena, eta 1934.ean eskuina nagusi zen parlamentuari 1933.eko gertaera batzuk zirela eta monarkikoak amnistiatzearen kontrako protesta bat luzatu ziola eta), Esteban

⁶⁷⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta. Guridik zuzendutako Udalak apirilaren 3an suspentsio hori kendu egin zion; aurreko Udalak kalean “Gora faxismoa!” oihukatzearen jarritako zigorra “bidegabekotzat” jo zuelako.

⁶⁷⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁶⁷⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁶⁷⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta. Honek, eta “euskar nazionalistekiko sinpatia izateak” –Udal frankistak esan bezala-, pentsarazten digu Victoriano Telleria gogoz kontra joan zela gudara.

⁶⁷⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

Peñagaricano algoazila (ezkerrekoa izatea leporatuta), Pedro Goena Urquia albaitaria (ezkerrekoa izatea eta Herri Fronteari bozka ematea leporatuta), Jose Antonio Aduriz abere-hiltzailea (EAEkoa izatea eta Herri Frontearen aldeko bozka ematea leporatuta; gogora dezagun urtarrileko sesioan ez zutela bota, Antonia Bares Tolosa tripazainarekin gertatu bezala), Agustin Cacho kale-garbitzailea (ezkertiarra izatea eta Herri Frontearen aldeko botoa eman izana leporatuta), Feliciano Arizmendi sobrestantea (“filiaziorik gabekoa” zela aitortzen bazuten ere; Herri Frontearen aldeko bozka ematea leporatzen zioten) eta Pedro Jose Iguain bandako burua (abertzalea izatea leporatuta)⁶⁸⁰. Esan beharra dago 1936.eko azaroaren 24an sinatutako beste txostena baten arabera, gizon hauek “filiaziorik gabekoak, baina erabat espainiar eskuinekoak” definituak izan zirela (hau da, oro har, ezarritako erregimen berriarekin ados zeudela); Jose Antonio Aduriz Isasa izan ezik, zeina “abertzaleen aldeko joerakoa” zela esaten zen⁶⁸¹. Orain aldir, hauen kontrako salaketa egiten dute Udaleko zinegotzi batzuek, gainera hauen kontrako salaketa oso konkretuak eginez (bozka Herri Fronteari ematea eta alderdi jakin bateko kideak izatea). Hau, hiru hilabete eta aste bateko aldeaz egindako aldaketa bat izan zen, eta beraz, jakinda pertsona hauek ez zutela tarte horretan euren ideologia aldatuko (gainera euren interes pertsonalen kontra, edo arrisku pertsonala ekarri ahal zien biraketa bat eginez), sinatzaileen arteko ezberdintasunak soilik jo ditzazkegu arrazoi bezala.

Azaroaren 24ko txostena, “Udalak” sinatzen zuen, baina suposatzen dugu Jose Luis Guridi alkateak txosten hura egiten parte hartu zuela edo txosten hura ikuskatu izan zuela. Salaketa berri hau, beste alde batetik lau zinegotziren partetik etorri zen, lau zinegotziok karlista ezagunak izan zirelarik (Guridik profil “apolitikoagoa”, “lausoagoa” edo “teknikoagoa” zuen, obren kontratista baitzen). Azken salaketa hauetan, agian pertsona “susmagarrien” kontra gogorrago jotzeko iritzia gailendu zen, aurreko txostenean, agian (hipotesi bezala soilik hitz egin genezake) Udalaren barneko egonkortasunari eta Udalaren funtzionamenduari lehentasuna eman ahal izan zitzaizalarik⁶⁸². Kasu honen inguruan, sei funtzionario salatuek deskargu-helegitea aurkeztu zuten, helegite horiek 1937.eko martxoaren 11.eko Udal bilkuran irakurri

⁶⁸⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁶⁸¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 11 dokumentu-sorta. Dokumentu horretan Juan Maria Barrenaren inguruko definiziorik ez zen eman, dokumentu horretan Udal-langileak soilik zerrendatzen baitziren, eta Barrena ez zen halakoa.

⁶⁸² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

zirelarik⁶⁸³. Helegite honetan, salatutako funtzionario gehienek (Adurizek, Arizmendik, Iguainek⁶⁸⁴, Cachok, Goenak edo Peñagaricanok) inongo alderdietan ez zeudela afiliatuta esan zuten⁶⁸⁵, eta Adurizek eta Arizmendik 1936.eko otsailean eskuinari botoa eman ziotela (Peñagaricanok eta Barrenak ez zuela botorik eman esan zuen, eta Goenak eta Cachok zuriz eman zutela)⁶⁸⁶. Iguainek ez zuen bere botoaren nolakotasunaren berririk eman⁶⁸⁷.

Kasu hauetan, prozedura berdina jarraitzen zen; lehenik Udalaren martxoaren 4ko bilkuran (orduan bukatu zen salaketak jartzeko epea), Guridi alkateak eta Jose Veriztain Zubiaga idazkariak, espedientearen zabaltzea sinatzen zuten, eta honen ostean, espedientea salatutako pertsonari bidaltzen zioten, honek bere burua defenda zezan (martxoaren 11 arteko epea zuten, egun horretan Udalaren batzar bat egon zen espedienteak baloratzeko). Akusatuek deskargu-helegitea aurkeztu ostean, Udalak, martxoaren 13rako erabakia hartzeko beste Bilkura bat deitu zuen.

Euren deskargurako, akusatu geheinek inongo elkarteko kide izatea, edota 1936.eko otsaileko hauteskundeetan eskuinaren aurkako hautesgaitzen (Fronte Popularraren edo EAJren) aldeko bozka eman izana ukatu zuten. Hala egin zuten Feliciano Arizmendik (martxoaren 9an)⁶⁸⁸, Jose Antonio Adurizek (martxoaren 11n)⁶⁸⁹, Agustin Cachok (martxoaren 11n baita)⁶⁹⁰ edo Esteban Peñagaricanok (martxoaren 11n baita)⁶⁹¹. Askoz ere bitxiagoa izan zen Pedro Jose Iguainen kasua. Honek bere defentsan hainbat lekuko aurkeztu zituen, tartean Jose Luis Guridi alkatea bera zein berak zuzentzen zuen Udal-Bandako musikari batzuk, hauen artean salaketa sinatu zuten

⁶⁸³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁶⁸⁴ Pedro Jose Iguaini eta Feliciano Arizmendiri ez zieten kide izatea leporatzen, baina ukatu egin zuten, euren apolitizismoa azpimarratzeko.

⁶⁸⁵ Ikusiko dugun moduan, Juan Maria Barrenak, salaketa hau ukatu ordez ñabartu egin zuen, Elkartea Errepublikanoko zuzendaritzako kide zela ukatu ezin zuenez, hau “alderdikoia ez zen bitartea” izan zela esan zuelarik.

⁶⁸⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta; Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 04 dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 20 dokumentua eta Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 22 dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 0424E karpeta, 20 dokumentua.

⁶⁸⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 07 dokumentua.

⁶⁸⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 08 dokumentua. Hala ere, Arizmendik onartu zuen “Lau hautagaietatik hiru eskuindar bokatu banituen ere, laugarrenari ez nion bozka eman, gustoko ez nuelako; eta haren ordez Mariano Anso errepublikanoa bozkatu nuen, gure eskualdearen interesen defendatzaile sutsua zelako”.

⁶⁸⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424A karpeta, 02 dokumentua.

⁶⁹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 22 dokumentua. Gogoratu behar dugu Agustin Cachok bi salaketa izan zituela bere kontra: bata Udalarena (Herri Frontearen aldeko bozka ematea eta ezkertiarra izatea) eta bestea lankide batena (Alderdi Sozialistako kide izatea).

⁶⁹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424E karpeta, 20 dokumentua.

4. kapitulua

zinegotziren bat ere izan zelarik, Francisco Ezquiaga eta Martin Esnaola kasu⁶⁹². Hemen ikus daiteke erregimen frankistan tokiko boterea izan zuen jende baten joko bikoitza edo azpijokoa, alde batetik (ezkutuan) depurazio-salaketa bat sinatu Udalaren aurrean, eta bestetik (publikoan) salatuaren alde jokatu. Ez dakigu zein izan daitekeen hala jokatzeko arrazoia, baina baliteke pertsona hauek Pedro Jose Iguainen eurekiko menpekotasuna sortzea⁶⁹³.

Euren inplikazio politikoak guztiz ukatzerik izan ez zutenak (nahiz eta 1936.eko hauteskundeetan Herri Fronteari bozka eman izana ukatu) Pedro Goena eta Juan Maria Barrena izan ziren. Juan Maria Barrena Elkarte Errepublikanoko zuzendaritzako kide izan zen, eta berak esan zuenez “Elkarte hau besterik gabeko Errepublikanoa zenean izan zen hori, *Izquierda Republicanarekin* lerratu zenean, utzi egin nuen”. Bestalde, Alderdi Errepublikano Erradikalarekiko –Lerrouxen alderdiarekiko- aldekotasuna deklaratzeko Barrenak (alderdi hau, nahiz eta errepublikanoa izan, eskuinarekin lerratu zen erabat 1933.etik aurrera)⁶⁹⁴. Goenak, naiz eta “españolista eta euskal antinazionalista” zela esan eta “inongo elkarteko kide ez zela izan” esan; ezin izan zuen ukatu 1931.eko Udal hauteskundeetan ezkeraren interbentore izan zenik, baina hau “alkatetzarako hautagaia nire koinatu Jacinto Urteaga zelako” egin zuen, bere arabera⁶⁹⁵.

Martxoaren 13an, apaizaren, Beasaingo Guda-Batzorde Karlistaren, Falangeren eta Komandante Militarraren (Alberto Ruiz Morionesen) salatutako guztiei buruzko txostenak eskatzea erabaki zuen Udalak (antza denez, Jose Luis Guridik Gipuzkoako eta Bizkaiko Gobernadore Zibilarri eskatu zion aholku, eta honek hala jokatzea aholkatu omen zion)⁶⁹⁶. Florencio Aspe apaizak ere txosten batzuk idatzi zituen, baina hauek erlijioaren gaira mugatzen ziren. Ruiz Moriones komandante militarren doinua nahiko ezberdina zen akusatua arabera, batzuen kasuen “moderatua” izan zelako. Adurizi

⁶⁹² Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 07 dokumentua.

⁶⁹³ Pedro Jose Iguain herrian oso persona ezaguna izan zenez, hainbat lekuko “boteretsuk” bere alde egitea lortu zuen: alkateaz gain, Miguel Cerrajería eta Jose Mendia zinegotziek (hauek ez zuten bere aurkako saalaketarik sinatu), Juan peñagaricano Olaberriako alkateak, Santiago Muñoz Laguntza-erreketeke buruak edo German Martin Olmedo “pelaioen” (gazte karlisten) instruktoreak.

⁶⁹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 20 dokumentua. Barrenak gainera, esan zuen, “Komita Gorriak” (Beasaingo Defenta Komiteak), bere lanpostutik kendu egin zuela. Defentsa Komiteak Udal-epaile moduan Joaquín Echevarría Mugica ezarri zuen.

⁶⁹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 04 dokumentua. Pedro Goena bere emazte Dominika Urteagaren bidez zegoen Jacinto Urteagarekin senidetua, azken bi hauek neba-arrebak baitziren.

⁶⁹⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta. Martxoaren 16an adierazten den moduan, Pedro Jose Iguaini espedienta jartzeak, Iguanek interinitatez betetzen zuen idazkaritza-kargua utzi egin behar izan zuen.

buruz “nazionalisten aldekoa zela esaten da herrian, baina egia den gauza bakarra, eskuinari bozka eman ziola, eta gainera erlijio-lanetan ondo betetzen duela da”; esaten zuen⁶⁹⁷. Arizmendiz ordea “familia errepublikano zahar batetan jaioa izaki, tradizio hori jarraitu zuela (...) baina ezertan nabarmendu gabe, erlijio-lanak betetzen zituelarik”⁶⁹⁸. Agustin Cacho “ideia ezkertiarretakoa, baina nabarmendu gabe” eta “familia aita ona, baina erlijio-kontuetan hotza” zela esaten zuen⁶⁹⁹; eta Pedro Jose Iguainez “abertzalea zela esan izanda, baina askotan Zirkulu Karlistatik pasatzen zen (...) katoliko ona da”⁷⁰⁰. Barrenarekin eta Goenarekin, ordea, bestelako doinua erabili zuen. Lehenaz, “Elkarte Errepublikanoko zuzendaritzako parte, erlijio-betebeharretan hotza, eta moralki oso txarra, bere emazteaz banandua eta beste batekin dabil” esaten baitzuen⁷⁰¹; eta bigarrenaz “beti izan da ezkertiarren aldekoa eta errepublikanoen aldeko bozka-emailea, harroa bazen ere, ez nabarmentzea lortu zuelarik”, baina “Armadaren betebeharrerako abere-hilketa lanetan, bere jarrera txarra izan zela, horregatik 5.000 euroko multa jaso zuelarik”⁷⁰². Peñagaricanori buruzko txostena bi aldetakoa zen, alde batetik “jarrera moral ona” zuela esan zuen, baina bestetik “politikaz kezkarik ez bazuen ere, agintzen zuenaren alde bozkatzen zuenetako bat zen, baina azken hauteskundeetan eskuineko hautagaitzaren boto papera hartzeari uko egin zion”⁷⁰³.

Hala ere, ez dugu Falangeren edota Guda Batzorde Karlistaren txostenen berririk. Ez dakigu zein zen arrazoa, baina kontuan izan behar dugu Guda Batzorde Karlistako lehendakaria Francisco Ezquiaga zinegotzia –salatzaileetako bat- zela, eta bestetik, Beasainen Falangek ia berezko kiderik ez bazuen une hartan (beste gauza bat izan zen, 1937eko apirilaren ostean, alderdi bakar egin ostean, alderdi horretan sartu zen kide berrien kopurua, asko karlismotik), honen burua Miguel Cerrajería Tiffe zinegotzia zela. Biak zinegotziak, beraz, agian txostena egin baino Udaleko sesioaren batean bertan egin zuten deklarazioa.

Azkenik, martxoaren 20an erabaki zuen Udalak zazpiekiko, eta martxoaren 22an komunikatu zien. Zazpitan zigortuenak Pedro Goena Urquia eta Juan Maria Barrena

⁶⁹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424A karpeta, 02 dokumentua.

⁶⁹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 08 dokumentua.

⁶⁹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 22 dokumentua.

⁷⁰⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 07 dokumentua.

⁷⁰¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 20 dokumentua.

⁷⁰² Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 04 dokumentua

⁷⁰³ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424E karpeta, 20 dokumentua.

4. kapitulua

izan ziren. Lehena, 1900.etik zuen lanpostutik⁷⁰⁴ kaleratua izan zen; (Udalak “ezkerrekoa, errepublikanoen bozka emailea eta Armadarekiko bere lan profesionala txarto betetzearren zigortua izan zela” baitzioen)⁷⁰⁵ eta bigarrenari (zeina ez zen Udal-funtzionarioa) Udalak jasotzen zuen gratifikazioa kentzea erabaki zuen. Barrenaren kasuan, Udalaren partetik plus hau kentzea lana galtzeko erabakigarri izan zen, izan ere, 1938.eko uztailean, Udal-epaitegiko idazkari interino moduan Daniel Perez zebilen (ez dugu honen data zehatzik, gure iturria, Udaleko pertsonaren batek –agian Jose Veriztain Zubiaga idazkariak- eskuz idatzitako eskema bat da eta, eskema hori, Beasaineko kargu batzuk zerrendatzen dituen, zitekeenez, Gipuzkoako eta Bizkaiko almanaka baten egileen eskaerei erantzun aurretik eginiko zirriborro bat da)⁷⁰⁶. Bi kasuetan esan genezake, agian ezkerrearekin lotura “organikorik” (hauxe txikia bazen ere) ukatu ezin izanak, bere moralaren inguruko-erlijio kontsiderazioek eta Morionesen txosten erasokorrek, pisu handia izan zutela erabakian⁷⁰⁷. Gainera, Pedro Goenaren kasuan, frontea hornitzeko abereak hiltzearen inguruko lan bat egitera ukatu izanak kaltetu egin zion ziurrenik⁷⁰⁸.

Beste funtzionarioen kasuan, Arizmendi hiru hilabeteko lan eta soldata suspentsioaz zigortu zuten (nahiz eta martxoaren 22ko dokumentu batean alkateak “eskuineko errepublikarra eta familia-aita bikaina” bezala definitu⁷⁰⁹). Aduriz (zeinaz, Udalak, bere helegiteaz “bere kontrako salaketak guztiz deusezten ez zituela, batzokira zihoan eta” baina “frogatu du azken hauteskundeetan eskuinaren aldeko bozka eman zuela” zioen⁷¹⁰) eta Cacho bi hilabetekoaz (zeinaren inguruan “Juan Ciaren salaketa, Alderdi Sozialistakoa zela salatuz, euren arteko liskarregatik izan zen” ebatzi zuen Udalak; baina hala ere, zigortu egin zuen)⁷¹¹, Iguain hilabete batetakoaz, eta

⁷⁰⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 21 dokumentua.

⁷⁰⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424D karpeta, 04 dokumentua.

⁷⁰⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 252 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

⁷⁰⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 20 dokumentua. Gainera, Barrenarena izan zen Florencio Aspek txostenik egin ez zuen kasu bakarra, agian horrek bere Elizarekiko urruntasuna azaltzen du. Aspek Goenaren inguruan egin zuen txostena ere ez zen oso gozoa izan.

⁷⁰⁸ Lanpostua galdu eta gutxira hil zen Pedro Goena Urquia, 1938.eko ekainaren 4ko Udal-Bilkuran jada bere *alarguna* zen Dominica Urteagaren idatzi bat irakurri baitzen, Urteagak Goenak Udalarentzako egindako lanarengatik pentsio bat eskatzen zuelarik (maiatzaren 31an egin zuen idatzia). Udalak ekainaren 14an onartu egin zuen Dominica Urteagaren indemnitazio eskaera. Izan ere, Urteagak bere helegitean esan zuen guda-kontseilu batean kondenatuak izan gabe, lanetik botatako funtzionarioek eskubide pasiboak gordetzen zituztela. Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 21 dokumentua.

⁷⁰⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 08 dokumentua.

⁷¹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424A karpeta, 02 dokumentua.

⁷¹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 0424B karpeta, 22 dokumentua.

Peñagaricano bost egunekoaz⁷¹². Kasu honetan, denei inolako elkarteren kide ez izateak lagundu egin zien. Beste interpretazio posible bat zatekeen salatuen posizioa zein zen jakitea. Izan ere, kasuren batean, adibidez Feliciano Arizmendiren kasuan, bere lana “espezializazio handikoa” (hau da, ordezteko zaila) izatea, eta bere lanagatik Guridi alkatearekin aurretik nolabaiteko harremana izatea, Bitxikeria gertatu zen Agustín Cachoren kasuan, Udalaren trakeskeria zela medio, bere kontrako zigorra hasieran baino arinagoa izan zen: Udalak bi hilabetetako soldata-zigorra erabaki zuen, baina berari bidalitako komunikazioan hilabete bakarreko zigorra azaltzen zen. Cachok ekainean maiatzeko hilabetea ordaindu ez ziotenaren inguruko kexa plazaratu zuenean, Udalak arrazoia eman besterik ez zuen izan, eta hilabete hori ordaindu⁷¹³. Cachoren eta Juan Ciaren arteko ika-mikak ez ziren hor geratu, izan ere, beranduago Ciak Cachoz alkatearen faboritismoa dela eta jarri beharreko multez libratu zela komentatu baitzuen⁷¹⁴.

Beste alde batetik, altxatuen alde gudan ibilitakoek ere hainbat onura izan zituzten, baita ere lana hartzeko, adibidez “Gudan Zauritu” izan zen Francisco Oyarzabal Alcazaga algoazil izendatu zuen Udalak 1938.eko azaroaren 5ean⁷¹⁵. Idazkari-laguntzaile lanetan, Candelario Aramburu botata eta Emilio Muñoz Novillo gudan zegoela, Joxe Manuel Azurmendi Dorronsoro sartu zen, oso gazte sartu gainera. Berak ematen digu arrazoia: “garai hartan, Beasainen geratzen ziren artean, bi hizkuntzetan, euskaraz eta erdaraz aritzeko pertsona apurrenetakoa nintzelako (...) Kontutan izan behar dugu Beasaingo populazioaren zati bat, baserritarrak batez ere, euskaldun elebakarrak zirela”⁷¹⁶ (nahiz eta orduko agintarien helburua erdara bultzatzea izan, populazioaren zati batekin ulertzeko euskara ezinbestekoa zitzaien agintariei). Jakin badakigu ere aldi batez, bi emakume, Adoracion Montejo eta Maria Querejeta ibili zirela baita idazkari lanak egiten, 1938.eko azaroaren 5eko Udal-bilkuran, 75na pezetako saria ematea adostu baitzuen Udalak⁷¹⁷. Juan Maria Barrenaren postuan, hau da, Udal-epaitegiaren idazkari moduan, David Perez agertzen zen 1938.eko uztailean Gipuzkoa eta Bizkaiko almanaka batetarako Udaleko pertsona batek egindako zirriborro

⁷¹² Isabel Peñagaricano alabak ere berresten digu “espedientea egin ziotela, baina geroa lanean berriz hartu zutena (Frantziska Peñagaricano Dorronsorori eta Isabel Peñagaricano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9).

⁷¹³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁷¹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. F008 karpeta, 01 dokumentu-sorta.

⁷¹⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

⁷¹⁶ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

⁷¹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

baten arabera⁷¹⁸. Udalak depurazio honi 1938.eko uztailearen 30ean sinatutako memoria batean egin zion erreferentzia, baina kaleratuen artean soilik Pedro Goena albaitaria eta Antonia Bares tripazaina aipatuz (agian besteak, ihes egin zutenek gero ez zituzten “depuratu” bezala hartzen, baizik eta “berez lana galdu zutela”); ihes egiteko zioak politikoak izan baziren ere)⁷¹⁹. Memoria honetan azaltzen zenez, “botatakoak ordeztan dituztenak, plaza izan edo modu interinoan izan, Mugimendu Nazionalari erabat atxikiak dira”⁷²⁰.

Funtzionario batzuk saiatu izan ziren, emaitzarik gabe saiatu ere, halako bidegabekeriei aurre egiten. Hau izan zen Candelario Arambururen eta Antonia Baresen kasua (biak 1941.ean), nahiz eta bien eskaerak izaera ezberdinekoak izan Baresek, Udalak 1937.eko otsaileko eta martxoko ordainketak eskatu zituen, Udalak ez baitzizkion ordaindu⁷²¹. Aramburuk, Gobernuaren aurrean bere kaleratzearen kontrako errekurtsio bat aurkezteaz gain, Udalari gogorarazi zion errekurtsio hori ezer ezean geratu arte, bere kargua ezin zitekeela “kargu huts” bezala hartu, beraz Udalak ezin zuela bere kargurako inongo lehiaketa publikorik konbokatatu, ez eta bere kargua jabetzan beste edonori eman⁷²². Alferrik izan zen, bien helegiteak Udalak ukatu egin baitzituen (Candelario Aramburuk beste errekurtsio bat jarri zuen 1942.ean, baina Udalak hau ere desestimatu egin zuen⁷²³; eta Antonio Bares Tolosak baita ere, bi hilabete horiek eskatuz, 1941.eko otsailean. Otsailaren 13an Udalak ezeztatu egin zuen, berriz⁷²⁴). Candelario Arambururen kasuak, nolabait, bide gehiago egin zuen, hasieran Udalak bere errekurtsioa ukatu arren, 1942.eko martxoaren 6an Gobernazio Ministeritzak arrazoia eman ziola jakinarazi baitzuen Udalak⁷²⁵. Honen ondorioz, Udalak 1939.eko martxoaren 12ko Ordenaren arabera justifikatu beharko zuen Arambururen depurazioa (depurazioarekin aurrera jarraitu nahi izan bazuen). 1942.eko martxoaren 20an Udalak bere kasua aztertzeko tribunal bat izendatu baitzuen, Miguel Cerrajería Tiffe

⁷¹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 06 dokumentu-sorta. Dokumentu hau eskuz idatzitako zirriborro bat da, agian Jose Veriztain idazkariak egindakoa.

⁷¹⁹ Memoria horretan aipatzen ziren baita “zigor txikiak jaso zituzten funtzionarioak” (izenik aipatu gabe). Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 13 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 43 dokumentua.

⁷²⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 151 karpeta, 13 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 43 dokumentua.

⁷²¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 26 dokumentu-sorta.

⁷²² Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 11 dokumentu-sorta.

⁷²³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

⁷²⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

⁷²⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

alkateordeak eta Eusebio Asla Lapart zinegotziak osatutakoa⁷²⁶. 1944.eko uztailaren 21eko bilkuran, Aslak eta Cerrajeriak Arambururen kontrako espedientea inkoatzeko erabakia hartu zutela komunikatu zuten. Alta, bien arteko ika-mika laster sortu zen, 1944.eko uztailaren 29an, Eusebio Aslak, Miguel Cerrajeriak espedientearen inkoatzea sinatu ez zuela nahi eta beraz “bere betebeharrarekiko grina falta salatu zuen”⁷²⁷. Kasu kuriosoa izan zen hau, non errepresaliatu baten inguruan agintarien (beraz, jazarpena egitearen arduradunen) arten ika-mika sortzearena, jakina, errepresaliak aplikatzeko moduarekin zerikusia zuen sortu zen ika-mikak. 1944.eko abuztuaren 19an, Beasaingo Udalak Candelario Aramburu Mugica behin-betiko kargutik kentzea erabaki zuen⁷²⁸; eta 1945.eko hasieran Gobernazio Ministeritzak akordio hori ontzat eman zuen⁷²⁹.

Lanaren gaineko errepresioak eta depurazioak, berandu arte jarraitu zuten. 1943.eko martxoaren 24ko Udal-bilkuran, Udalak, 1943.eko martxoaren 6ko Gobernazio Ministeritzaren aginduaz eztabaidatu zuen. Agindu horren arabera, 1936.eko uztailaren aurretik zeuden Udal-idazkari, interbentore, depositario edo musika-bandaren zuzendariak, edota data horren ostean data horren “aurretik lortutako merituak zirela eta izendatutakoek” (hau da, kargua depurazioaren bidez edo arrazoi politikoen bidez lortu ez zutenek). Honek zuzenean mehatxatzen zituen Jose Veriztain Zubiaga idazkaria eta Bautista Telleria Ayestaran depositarioa. Udalaren posizioa, 1937.eko martxoan depurazio bat hasi zuela eta (zeinaren ondoren Pedro Goena albaitaria kargutik kanporatua izan zen eta Juan Maria Barrenari, epaitegiko idazkari gisa, Udalaren plusa kendu zitzaion, kargua uztera behartuz, eta bete bost langileri bestelako zigorrek jarri zitzaizkien; gainera Antonia Bares Tolosa salaketarik gabe kanporatua izan zen, eta baita herritik ihes egin zuten beste lau langile) Veriztainen eta Telleriaren kontrako salaketarik ez zela egon, beraz “orduan, Mugimenduekiko (Estatu-kolpearekiko) jarrera zalantzatia” izan zuten funtzionarioekiko soilik egin zela halako depurazioa. Beraz, Udalak jada Veriztain eta Telleria “depuraziotik pasata” izendatu zituen Udalak, beraz, postutik ez kentzea, izan zen erabakia⁷³⁰. Horrez gain, Telleriak, 1936.eko uztailaren 19an “gorrien jazarpena zela eta “ herritik ihes egin behar izan zuela eta 1936.eko abuztuaren 8an Beasaingo komandante militarri bere

⁷²⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

⁷²⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen).

⁷²⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen).

⁷²⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituen).

⁷³⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. A089 karpeta, 16 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 18 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

atxikimendua erakutsi ziola esan zuen 1943.eko martxoaren 15eko dokumentu batean. Veriztainek, 1936.eko uztailaren 27an bertan (tropa altxatuak Beasainen sartu ziren egunean) “Mugimendu Nazionalarekiko atxikimendua erakutsi zuela” adierazi zuzen egun berean sinatutako beste dokumentu batean. Biek “gaztetatik alderdi tradizionalistako kide” zirela esan zuten. Horrenbestez, Antonio Aystaran Irastorza idazkaritza-ofizialak (lan hau momentu honetan ezin zuen idazkariak, Jose Veriztainek bete, beraren gaineko afera bat zelako), ez baten ez bestearen kontrako espedienterik zabaldu ez zela berretsi zuen, beraz “depurazio prozesutik iragantzat” eman zituen biak⁷³¹. Hala ere, 1944.eko otsailean, Gobernadore Zibilak paper berriak eskatu zizkion Bautista Telleriari, hain zuzen ere bere depurazio espedientea hamar egunetan entregatzen ez bazuen Depositarioen Zerrenda Nazionaletik kendu egingo zutela ohartarazita. Depurazio espediente hori, non Bautista Telleriaren erregimenarekiko atxikimendua azaltzen zen, Jose Veriztain Zubiagak idatzi eta sinatu zuen 1944.eko martxoaren 3an; zehatz-mehatz, Telleriaren kontra espedienterik aurretik ez zela egin hau erregimenaren aldekoa zela esaten zuen espediente honek⁷³².

Horrez gain, herritik joandakoek berriz lana aurkitzeko oso zail izan zuten, baita ere enpresa pribatuan. Enpresa pribatuan ere, erregimen frankistaren agintariek depuraziorako legeak ezarri zituzten. 1936.ean etorri zen horietako bat, zeinak Fronte Popularraren garaian (1936.eko otsailaren 16tik aurrera) “sindikatuaren inposizioz egindako langile-plantilen handitzeen ondorioz lanean sartutakoak” kaleratzea ahalbidetzen zuen. Beraz, kontutan izanik 1934-1936eko legedi sozialean emandako atzerapena; frankismoak hemen ere langileen kontra egin zuen. Beste lege bat 1937.eko abuztuaren 17koa izan zen, zeinak enpresariak “Mugimendu Nazionalaren aurkakoa” kaleratzea baimentzen zituen⁷³³. Horren adibidea Milagros Aranburu Mujikak kontatzen digu: “guda ostean lanpostu denak frankistentzat izan ziren, besteentzat ez zegoen ezer”⁷³⁴. Berdina esaten digu Isabel Peñagarikanok: “Lanaren inguruan errepresio handia zegoen. Francoren kontra egin zutenak oso gaizki ibili ziren lana topatzeko. Batzuetan enpresak subentzionatu ere egiten zituzten langileak kanpotik ekartzeko”⁷³⁵.

⁷³¹ Beasaingo Udal Artxiboa. A089 karpeta, 16 dokumentu-sorta. Hala ere, hortik gutxira, 1944.eko maiatzaren 21ean, Jose Veriztain Zubiaga hil egin zen (Beasaingo Udal Artxiboa. L0045 akten liburua (1942-1946 arteko aktak jasotzen dituena).

⁷³² Beasaingo Udal Artxiboa. A089 karpeta, 16 dokumentu-sorta.

⁷³³ MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales...”, op. cit..

⁷³⁴ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. 2014-VIII-5.

⁷³⁵ Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9.

Izan ere, kontuan hartu behar da Sindikatu Bertikalak esaten zuena gora-behera, enpresa pribatuaren depurazio legeak enpresadunaren esku uzten zuela nor kaleratu eta nor ez, beraz, praktikan Sindikatu Bertikala hauen tresna bat bilakatu zen. Pixkanaka-pixkanaka sartzea lortu zuten, baina zailtasun askoren truke; hori esaten digu adibidez, Pako Ruiz de Apodakak: “Azkenean, gure aitak CAFen sartzea lortu zuen”⁷³⁶. Patxi Lasa Imazek ere badiosku: “gure aita (Jose Luis Lasa Telleria), herrira itzuli zenean, baratzean lanean zebilela, CAFen lan egiten zuten Udaleko bi zinegotzi (...) Artolain eta beste bat⁷³⁷, gerturatu egin zitzaizkion eta “erabaki dugu gorriekin ibili zaretenak CAFen sartzetik ez duzuela izango”. Berak erantzun zuen “beno, nik topatuko dut lana non edo non”. Orduan egun batzuetara, CAFeko zuzendari Antonio Sierrak, bilera batean erabaki zuen lehengo langileak, gorriekin ibili baziren ere, berriz lanean sartzea, berak esperientziadun langileak behar zituen eta. Orduan gure aitak CAFen zinegotzi hauek topatu zituen eta “ikusten duzue nola esan nizuen nik lana non edo non topatuko nuela?” esan zien”⁷³⁸. Antzeko bertsioa eman zuen Alfontso Ibaibarriagak, Rufo Artolainek Jose Luis Lasari esan omen ziola “ez zarete bat ere sartuko” (erdaraz egiten du aipua Ibaibarriagak, bai Lasa zein Artolain euskaldunak ziren arren; bestalde Ibaibarriagak ez du Patxi Lasak zeharka iradokitako Eusebio Asla aipatzen), baieztatzen du; baina hortik zortzi egunetara, Antonio Sierrak “moderatuena behitzat” sartzeko eskatu zuen⁷³⁹. Ibaibarriagak dioenez “Orduan sartu ginen gu denok”; nahiz eta “Tolosako Guda

⁷³⁶ Pako Ruiz de Apodaka Galarzari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-18.

⁷³⁷ Beste hori Eusebio Asla zen, ez baitago (Artolainez gain) orduan CAFen lanen egiten zuen beste zinegotzirik.

⁷³⁸ Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁷³⁹ CAFen gertatutako egoera hau, enpresariak aginte politikoari aurre egitea eta “langileen alde” egitea, ez zen izan egoera orokor bat, ezta Euskal Herrian ere. Adibidez, Antonio Cazorlak biltzen duen moduan, 1953.eko Bilboko greban, Euskalduna ontziolan 2.000 langileetatik 1.900 bota zituzten eta gainera euren zahartasun-eskubideak ere kendu zizkieten, berronartzea banan-banan eskatu araziz. Bestetik, Cazorlak bere lanean dio “Euskal Herrian eta Katalunian badago mito bat, egiazkoa ez dena, esaten duena bertako enpresariak langileak babestu zituztela Espainia frankistaren aurrean; egia esan hango enpresariak ere poltsikoa edo langile mobilizazioaren falta lehenetsi zuten euskal edo katalan aberriaren aurretik”. Bat nator Cazorlarekin azken ondorio honetan (baita ere CAFen kasuan, azken finean Antonio Sierrak langileak berronartzeko erabakia hartu bazuen, negoziarako ona zelako egin zuen, ez hainbeste langileekiko sinpatiatatik); baina ez erabiltzen duen terminologiarekin, nik ez baitut “mito” hori zutarritzen duen libururik ezagutzen (frankismoari buruzko historiografia abertzaleak, batez ere ezker abertzalekoak, enpresariak erregimenaren gaizkide bezala aurkeztu ohi izan ditu). Cazorlaren terminologia are arranditsuago bihurtzen da “langile horien kontrako aktuzio gupidagabearen arduradunak konpainia euskal-euskaldunak (*vasquísimas*) izan ziren, ez Sindikatu Bertikal espainiarra” dioenean. Ez dut zalantzan jarriko Euskalduna konpainia euskal herritarra denik, baina ez Cazorlak iradokitzen duen moduan: konpainia hau ez zegoen abertzaleen edo euskaltzaleen esku, burgesia handi espainolistaren (eta frankistaren) esku baizik. CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016, 145-146. or.

4. kapitulua

Batzorde Karlistaren zigilua behar zen⁷⁴⁰. Xanti Lasa Aranburuk ere badiosku bere aitona (Santiago Aramburu Otamendi, jeltzalea) “CAFen Sierrari esker sartu zen, Sierrak CAF ondo joateko esperientziadun langileak nahi zituen eta⁷⁴¹. Hala ere, Ibaibarriagaren arabera, erregimenaren kontrakoak lanik gabe uzteko asmoaren “burmuina” ez zen Rufo Artolain, FET-JONSeko buru Miguel Cerrajería eta Guda Batzorde Karlistako buru Francisco Ezquiaga baizik. Honen ahotan jartzen du Ibaibarriagak “guda erabatekoa da ezta? Ba erabatekoa izan dadila!” esaldia⁷⁴². Ez dago baieztapen hauekin ados Juan Unanua Artolain lekukoa, honen arabera “gure aitonak kudeaketak egin zituen CAFen jendea sartu zedin⁷⁴³. Maria Pilar Lozaresen aitak, Jose Maria Lozaresek, momentu batean CAFen sartzea lortu zuen “baina krisi bat egon zenean, kalera joaten lehenetakoa izan zen⁷⁴⁴. Hau ez zen bakarrik gerra “gorrien alde” egin zutenekin gertatzen, guda ostean, erregimenarekin konprometitzen ez zirenek, edo erregimenaren kontrako keinuren bat egin zutenek ere zailtasunak izan zituzten. Anselmo Ruizi emango diogu hitza: “Behin Falangeren egoitzara eraman gintuzten eta han alkandora urdina eta txapel gorria eman ziguten. Gutako batek, Angel Sanchezek, joateari uko egin zion, eta hark gero lana topatzeko zailtasunak izan zituen⁷⁴⁵.

Ez zen hala gertatu guda altxatuen aldean egin zutenekin. 1939.eko abuztuaren 38an, Beasaingo Udalak Osoko Bilkura deitu zuen, bi gairekin, horietako bat “ex-combatiente” zirelakoak (altxatuen aldean borrokatu zutenak) birkokatzeko gaia izan zen. Francisco Unzuetak, “ex-combatiente” zirelako hauek berehala birkokatzea proposatu zuen; eta honetarako, hartu gabe zeuden bi gauzainen postuetan birkokatzea eta Esteban Peñagaricano Artazcoz algoazila eta Jose Querejeta Gogorza kalegarbitzailea jubilatzea proposatu zuen⁷⁴⁶. Udalak proposamen honi baiezkota eman zion, eta altxatuen alde guda egin zutenen zerrenda bat egitea adostu zuen, geroago lanpostuok onartuko zituzkeen galdetzeko. Modu berean, Unzuetak, Udalean interino bezala ari ziren langile “ex-combatienteak”, Antonio Ayestaran Irastorza idazkaritzako ofiziala eta Francisco Elzo Urrestarazu arbitrioen arduraduna funtzionario bihurtzea

⁷⁴⁰ Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁷⁴¹ Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁷⁴² Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imazek utzia.

⁷⁴³ Juan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-5.

⁷⁴⁴ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁷⁴⁵ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

⁷⁴⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

proposatu zuen. Hala ere, Udalak, batez ere idazkaria zen Jose Veriztainen ahotik, Unzuetari esan zion Udalak ez zuela langileak funtzionario egiteko eskuduntzarik, asko jota interino soilik egin ahal zituela⁷⁴⁷. 1940.eko otsailaren 3ko Udal-bilkuran irakurri zen Gipuzkoako “Borrokalari Ohien Probintzia-Ordezkarriak” Beasaingo Udalari, honek ez arkitekto ez aparejadore posturik ez zuenez, aparejadore postu bat deitzeko eskatzen ziola⁷⁴⁸. Halako adibide batek erakusten du Francoren aldeko “ex-combatienteek” zer nolako boterea zuten administrazioaren gainean, honetako postu batzuk eurentzat gorde ezezik, hauen neurrirako postu berriak konbokatzea ere eskatzen baitzuten (nahiz eta otsailaren 18ko Udal-Bilkuran Beasaingo Udalak halako plaza bat sortzeari uko egin)⁷⁴⁹.

Lanaz gain, beste toki batzuetan ere diskriminazioa jaso zuten herritik joan zirenek. 1937.eko abenduaren 18an, Udalak, Udal-Bandari komunikazio bat bidali zion “herri honetan falta direnak” Bandan ez onartzeko⁷⁵⁰. Jakina, neurri hau, guda zela eta herritik joan ziren ezkertiarren eta abertzaleen kontrako neurri bat izan zen. Hiru egun beranduago, abenduaren 21ean Jose Luis Guridi alkateak Bandari zuzenean komunikatu zion Bandak ezin zituela Beasaindik altxatuak bertan sartzerakoan ihes egindakoak onartu, hauek lehenik Udalaren eta alkatearen baimena eskatzen ez bazuten⁷⁵¹. Hala ere, hurrengo hilabeteetan ezkertiarrek bandan sartzeko ahaleginak egin zituzten: 1938.eko urtarrilaren 8an, Udaleko Bilkurara, Julio Juanes Duque izeneko pertsona batek urtarrilaren 3an idatzitako idatzia heldu zen, Bandan musikari bezala kolaboratu nahi zuela esanez⁷⁵² (pertsona hau ezkerreko familia ezagun batetako kidea zen, UGTkoa, 1937.eko urriaren 22an heriotza zigorrera kondenatua). Urtarrilaren 22an Udalak, eskaera hau “momentuz bertan behera” uztea erabaki zuen⁷⁵³. (Urtarrilaren 3an bertan Angel Serrano Varonak eskaera berdina egin zuen⁷⁵⁴. Kasu honetan ez dakigu Udalak zer erabaki zuen). Hala ere, badirudi pertsona batzuk onartuak izan zirela, eta hau izan zela 1939.eko abuztuan Udalak jarrera hertsiago bat hartzeko arrazoia; Francisco Unzueta zinegotziak esan zuen bezala Udal-bandan “Mugimendu Nazional loriatsua gertatu zelarik herritik ihes egin zuten batzuk onartzen ari da Udal-banda” eta bere ustez

⁷⁴⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

⁷⁴⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

⁷⁴⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 20 dokumentu-sorta.

⁷⁵⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁷⁵¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 543 karpeta, 44 dokumentu-sorta.

⁷⁵² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498 karpeta, 07 dokumentu-sorta.

⁷⁵³ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

⁷⁵⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. 252 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

hau ezin zen baimendu eta hau ekiditeko neurri gogorragoak hartu behar ziren. Udalak, halako pertsona gehiago sartzea galaraztea proposatu zuen, eta aldi berean “Bandako zuzendariari” (Pedro Jose Iguaini, 1937.ean zigortua izan zen berari) halako pertsonak ez onartzeko orduan zorrotasun handiagoz aritzea eskatu zion⁷⁵⁵.

Jakina denez gero, erregimen frankistaren helburu bat klase-borroka dekretuz ezabatzea izan zen, hala langileek subjektu kolektibo gisa euren interesak defendatzeko modurik izan ez zutelarik. Frankismoaren lehen urteetan, Estatuak forma faxista ezagunak zituelarik, faxismoaren eredia jarraitu zuen hainbat aspektua, horietako bat korporatibismoa zelarik; hau da “ekoizle” guztiak, euren ekoizpen-sektorearen (eta ez klasearen) alde antolatu behar ziren, ekoizpen-adarretako “sindikatu bertikalean”: frankismoaren sindikatu bertikalak (*Central Nacional-Sindicalista* deitutakoak) baina langileak eta enpresariak batean biltzen zituen, azken hauen onurarako; langileek berezko zituen erakundeak (ordura arteko UGT, ELA edo CNT) legez kanpo utziz. Hala, lan-arloko aldarrikapenak eta grebak desagerraraztea bilatzen zuen erregimenak. Baina asmoak asmo, eta lan-gatazkak murriztea eta langile aldarrikapenak asko zailtzea lortu bazuen ere, ezin zuen guztiz galarazi langileak espontaneoki euren interesen alde nola edo hala egiterik (noski, ez modu irekian, baina bai tokian tokiko protesta espontaneo bidez); eta beste alde batetik, erregimenak egiten zuen propaganda armonizistak ez zuen errealitatean ispilurik, langileen errenta murriztu egin zelako⁷⁵⁶. Beasainen ere badugu halako kasuren bat: urtarrilaren 21ean egin zen Udal-Bilkurak komunikatu zuen garbiketa langile batzuk ez zeudela pozik euren baldintzekin eta euren kontra jarritako zigor batzuekin, Udalak Martin Esnaola zinegotzia “bitartekari” izendatu behar izan zuelarik⁷⁵⁷.

Horrez gain, 1937.eko urtarrilaren 28an, Gipuzkoako eta Bizkaiko Gobernadore Zibilaren urtarrilaren 12ko agindu bati jarraituz, Beasaingo udalak, Beasainen lan-kokapenerako oinarriak aurkeztu zituen. Kokapen-batzorde bat sortuko zen, langabezia zeuden langileentzako lana topatzeko. Kokapen batzorde horiek Lan Ministerioaren inizatibaz sortu ziren (kokapen bulego hauen lan-poltsak ordeztu behar zituzten, eta

⁷⁵⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 13 dokumentu-sorta.

⁷⁵⁶ Propaganda armonizista honen zutarrietako bat izan zen “lan diziplinaren truke lanpostuaren ziurtasuna bermatu” zuela erregimenak; baina ikusi dugunez ez zen egia, izan ere, enpresariak nahikoa zuen arrazoi politikoak argudiatzea lan-plantila murrizteko, eta horrez gain, 1936.eko otsailaren eta uztailaren artean eginiko aurrerapen sozialak automatikoki deuseztatu zituen erregimenak. MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales...”, op. cit.

⁷⁵⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

Lan Ministerio frankistaren arabera “duinagoak” izan behar ziren, hauen sortze dekretua halako erretolika kristauz betea izan zen⁷⁵⁸), eta bertan izan emandako langile bakoitzari “kartila” bat ematea beharrezkoa egiten zen. Hala ere, naiz eta “duintasuna” aipatu, Lan Ministerioaren oinarrietan “onenen” eta “txarrenen” bereizketa egiten zen. Bestee alde batetik, langilearentzat eskaintzen zitzaion lana, txarra bazen ere, “Aberriarendako zerbitzu” bezala hartzen zen, beraz, langileak onartu egin behar zuen (“bere herrian lan egin nahi izatea berarengandik atera behar dugu” hitza aipatzen zen)⁷⁵⁹. Lan Ministerioaren argibide hauetan, kokapen-bulegoak “Erregimen Nazional-Sindikalista” eraikitzekeo pieza zirela esaten zen, beraz Udal eta Aldundi guztiek halako bulegoak antolatzeko “berehalako premia” zutela⁷⁶⁰.

Beasainen, Kokapen-Batzorde horretan, alkatea, Francisco Ezquiaga zinegotzia (ugazaba zena, inprimategi bat zuen) eta Eusebio Asla zinegotzia (CAFeko enplegatua zena) izan ziren izendatuak, Martin Esnaolak proposatuta (Miguel Cerrajeriak bertan falangista bat sartzea proposatu zuen, baina proposamen hori ukatua izan zen)⁷⁶¹. Ordizian ordean, Lucio Lecuona zinegotzi eta Ordiziako Falangeko burua izan zen kokapen batzordearen buru. Beraz, ikusten dugun moduan, langabetuen kokapenerako batzordeak ere erregimenarekin erabat identifikatutako pertsonak egon ziren, hauek zirelarik langabeen zerrendan nor sartu eta nor ez erabakitzen zutenak (beraz, kontrol sozialerako eta diskriminazio politikorako atea zabalik zegoen)⁷⁶². 1937.eko martxoaren 15ean, Beasaingo eta Ordiziako Udalek (hau Felipe Imaz alkateak, Lucio Lecuona zinegotziak eta Indalecio Echezortu idazkariak ordezkatzeko zutelarik) itun bat sinatu izan zuten CAFekin (Ricardo Ardura idazkariak, eta Antonio Bru CAFeko Sindikatu Bertikalaren buruak ordezkaturik)⁷⁶³, langile berriak kokatzeko. Itun horren arabera, Beasainek kokatu beharko ziren langileen lehen %10a aportatu behar zuen; eta horrez gain, beste %90etik, %55 Beasainen eta inguruarentzat izango ziren (eta honen barruan %10 Lazkao eta Ataunentzat), hurrengo %35 Ordizia eta bere zonaldearentzat izango zirelarik. Honez gain, sektore bakoitzak langabeturik ezean, bere kuota bete ezingo balu, beste sektoreari lehentasuna ematea adostu zuten; eta Lazkaok eta Ataunek beren %10 bete ezinean bazeuden, ehuneko honen soberakinarekiko lehentasuna Beasainek

⁷⁵⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 78 dokumentu-sorta.

⁷⁵⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 78 dokumentu-sorta.

⁷⁶⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 78 dokumentu-sorta.

⁷⁶¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁷⁶² ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit, 120. or.

⁷⁶³ Beasaingo Udal Artxiboa. 2941 karpeta, 72 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

hartzen zuen⁷⁶⁴. Beasaingo Udalak CAFi bidali zion langabeen zerrenda baten arabera, 1938.eko uztailean 36 langile industrial zeuden Beasaingo langabetuen poltsan apuntatuta⁷⁶⁵. Elena Legorbururen arabera, honen bidez, CAFek bertako jendearekiko “konpromisoa” erakutsi zuen. Legorbururen arabera, akordio hau sinatu zenean, 1938.ean CAFen jada 1.172 pertsonak egiten zuten lan; 1936.eko abuztuan, CAFek 1936.eko uztailaren 18ko etenaren ondoren lanera itzuli zenean 633 langile soilik izango zuen (hurrengo urtean, 1939.ean, kopurua berriz igo egin zen, 1.357 langile izan arte)⁷⁶⁶.

Legorbururen arabera, alde batetik Francok, bere erregimenaren lehen urteetan, autarkia ezarri zuenez, Espainiar Estatuan egoitza zuten enpresei beste herrialdeetako enpresen kompetentzia kendu zien, eta horrela, CAFek merkatua ixtea lortu zuen; baina beste alde batetik, kanpoko merkatua ixterakoan “inputak”, hau da, tarteko objektuak lortzeko zaildu egin zuen. Bestetik, ikusiko dugun bezala, lehen urteetan elektrizitate etendurak behin eta berriz izan ziren, CAFi (eta Beasaingo beste enpresei) kalteak ekarri⁷⁶⁷.

4.5.i) *Gosea, arrazionamendua eta estraperloa*

Francoren erregimenaren lehen urteetan izan zen egoera beltzenetako bat, populazioaren bizi-kalitatearen erortzea izan zen. Gudaren beharrez eta honen ondorio lazgarri guztiek (uzten eta azpiegituren suntsitzeak, errekurtsioak gudara destinatu behar izateak eta abarrek), bazuten ekoizpena jaistearekin zerikusia, baina erru nagusia Franco jeneralaren politika okerren bizkar jarri beharra dago. Batez ere, orduko elikadura eta horniketa politikek bi ondorio larri utzi zituzten: gosea larritzea eta merkatu beltza eta ustelkeria zabaltzea. Guda ondoko beasaindarren oroitzapen nagusia hura zen: Beasainen zegoen gose handia.

Gosea guda-ondoko Espainian oso hedatua zegoen, nahiz eta erregimena, bere politika ekonomikoaz hitz egiterakoan, 60. hamarkadako mitoarekin tematu (eta

⁷⁶⁴ “Beasainen ingurua” Lazkaok, Ataunek, Idiazabalek, Ormaiztegik eta Segurak osatzen zuten. “Ordiziaren ingurua”, ordea, Itsasondok, Legorretak, Zaldibiak, Aramak eta Altzagak. Beasaingo Udal Artxiboa. 2941 karpeta, 21 dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 23 dokumentu-sorta.

⁷⁶⁵ Beasaingo Udal Artxiboa. 2941 karpeta, 41 dokumentu-sorta.

⁷⁶⁶ LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. *Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 126. or.

⁷⁶⁷ *Ibid.*, 127-128. or.

populazioaren parte batean sinestarazi)⁷⁶⁸. Gosearen errealitatea, britainiar ordezkari diplomatikoen txostenetan oinarritua ikertu duen Miguel Angel Del Arco historiagilearen arabera, ikaragarria izan zen. Bere ustez “espainiar gehienek, XX. mende osoan ezagutu ez zituzten pairamenak ezagutu zituzten frankismo garaian”⁷⁶⁹. Del Arcok dioenez, goseak bortizkeriak jokatu zuen antzeko paper jokatu zuen, beheko klaseak “bizirautera mugatzea (...) hala erregimenaren irautea bermatuz”⁷⁷⁰. Guztira, Antonio Cazorla ikerlariaren arabera, 200.000 pertsona hil ziren Espainian gosea zela eta, eta beste hainbat zorian izan ziren⁷⁷¹. Alta, gosea ez zen izan soilik “gudaren ondorio”; baizik eta beheko klaseen kontrako politika baten ondorio baita.

Jesus Lopez Gallego beasaindarrak hala gogoratzen ditu gudaren ondoko urteak: “gose handia zegoen herrian”⁷⁷². Peñagarikano Dorrnsoro ahizpek ere Beasainen gosea orokortua izan zela diote⁷⁷³. Arantza Ugarte Azkarateren arabera, “Guda osteko garaia, miseria handiko garaia izan zen”⁷⁷⁴. Anselmo Ruizek ere gauza bera esaten digu: “amek sekulako komeriak izan zituzten gu elikatzearren!”⁷⁷⁵. Beste batzuk, adibidez, Irizar Aranburu familiak, euren familian “gose-gosea bano estualdia izan zela” esaten zuten (kontuan izan behar dugu Irizar Aranburu ahizpak guda ostean jaiotakoak zirela, eta euren haurtzaroa ez zela hain zuzen guda osteko urteetako izan; hala ere, Irizar Aranburu ahizpek esaten dutenez, askotan euren gurasoek edo aiton-amonek “zuk benetako gosea zer den ez dakizu!” esan izan diote)⁷⁷⁶.

⁷⁶⁸ Carme Molinero eta Pere Ysas irakasleen arabera, mito honen iraupena azaltzeko, kontutan hartu behar da historiagileek orain arte arreta eskasa eman diotela arazo honi eta baita ere guda-osteko “egunerokotasuna” ikertzeari. MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales...”, op. cit. Bat dator iritzi horiekin Antonio Cazorla: “Egun eskoletan ez da irakasten, eta nazioartean nahiko ezezaguna izan zen orduko berriak II Mundu Gudari begira zeudelako”. CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...*, op. cit., 109. or.

⁷⁶⁹ Gosea ageriarazten zuen beste aspektu bat altuera izan zen, garai horietako herritarrak beste belaunaldi batzuetakoak baino baxuagoak ziren, elikadura eta osasun eskasagatik. Ikus adibidez, CAÑABATE CABEZUELOS, Jose; eta MARTINEZ CARRION, Jose Miguel: “Crisis nutricional y pobreza bajo la dictadura franquista” in *XIV Congreso Internacional de Historia Agraria* (aktak). Badajoz, 2013.

⁷⁷⁰ DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: “Morir de hambre...”, op. cit..

⁷⁷¹ CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 30. eta 113. or.; eta DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: “Morir de hambre”, op. cit.

⁷⁷² Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁷⁷³ Frantziska Peñagarikano Dorrnsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrnsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9.

⁷⁷⁴ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁷⁷⁵ Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

⁷⁷⁶ Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-9an.

4. kapitulua

Normalean, gose gutxiago pasatzea ez zegoen hainbeste lotuta diru asko izateari, baizik eta jana eskura izateari, hots, baserria izateari. Aitor Garmendiak hala esaten digu: “guk baserria genuenez, pixka bat hobe pasatu genituen garai hartako komeriak”⁷⁷⁷. Milagros Aranburu Mujikak ere berdin diosku: “guk baserria genuen, beraz, baserritarrek elkarri laguntzen genuenez, hainbesterako goserik ez genuen pasatu”⁷⁷⁸. Antzeko testigantza ematen diguten Ibaibarriaga Usabiaga neba-arrebek: “gure aitonak bazituen lur batzuk Olaberriari, eta hari esker zeozer lor genezakeen”⁷⁷⁹. Arantza Ibaibarriagak ere badio: “gu baino okerragoak pasatutakoak bazeuden Beasainen”⁷⁸⁰. Halako iritzia zuen baita ere Juan Unanua Artolainek, zeinaren aitona zinegotzia zen (beraz, agintean zeuden familiek, ere, nolabait, euren bizitza kalitatearen jaitsiera bat izan zuten baita, nahiz eta, gero ikusiko dugun moduan, sistemak batez ere aldekoiei mesede egin)⁷⁸¹. Beste batzuek, adibidez CAFeko langileek enpresa horren ekonomatoaren babesa zuten. Oro har, gose gorria pasatu, edo “estutasuna” izan, denak datoz bat bizitza-kalitatearen erorketa nabarmena eta orokortua izan zela.

Gainera gosea politikoki ere erabili zitekeen, adibidez, hori esaten digute Martinez Otaegi neba-arrebek euren amari gertatzen zitzaionaz: “*Auxilio Social*” taldearen jantoki sozialean, *Cara al Sol* abestera behartzen zituzten umeak. Gure amak hura ez abesteko berandu iristen zen, eta orduan mehatxuak jasan behar zituen”⁷⁸². Juan Ramon Imaz Crespok ere testigantza hau baieztatzen du: “*Cara al Sol* abesten ez bazenuen, ez zenuen jantoki sozialean jaterik”⁷⁸³.

Auxilio Social-aren jantoki sozialak erregimenaren ikur bihurtu ziren⁷⁸⁴. Gudan zehar, erakunde honen potentzialitate ekonomikoa argi geratu zen. Altxatuek hiri bat hartu orduko, zutabe militarren atzetik segituan sartzen ziren *Auxilio Socialen* kamioiak

⁷⁷⁷ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁷⁷⁸ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. 2014-VIII-5.

⁷⁷⁹ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

⁷⁸⁰ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

⁷⁸¹ Juan Unanua Artolaini egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-5. Eregimenak beren aldekoak lehenesten zituenaz, adibidez; DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: “Morir de hambre...”, op. cit., 246. or.

⁷⁸² Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizia, 2014-XII-17.

⁷⁸³ Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁷⁸⁴ Esan beharra dago erakunde hau berez ez zuela altxatuen (para-)Estatuak sortu, baizik eta hasieran falangista erradikalen proiektua izan zela (Mercedes Sanz Bachiller eta Javier Martinez Bedoyarena). Hasiera, “Neguko Laguntza” deitzen zen, nazien erakunde homonimoa bezalaxe. Erakunde hau hainbat fakzioren botere-borroken esparru bihurtu zen, Estatu-hierarkiako kide batzuek “autonomoia” zela ikusten baitzuten. Euskal Herrian, *Auxilio Social*ek ez zuen beste tokietan besteko hedapena izan, karlisten laguntza proiektuekin leihatua behar baitzuten.

eta behar bezalako argazki-erreportaia egiten zitzaion. Hala ere, Angela Cenarro irakasleak esaten duen bezala, “erakunde honen errekursoak ia beti mugatuak izan ziren”. Ez pertsonal aldetik, 1937.eko dekretu batek 18 eta 35 urte arteko neska eta emakume guztiek *Auxilio Social*entzat sei urteko lan-zerbitzua (ordaindu gabeko lana) lan egin behar zutela agindu baitzuen⁷⁸⁵; baina bai diru aldetik. Bistan da *Auxilio Socialek* ez zuela gosearen arazoa konpondu (bai ordea, propagandarako helburuak bete)⁷⁸⁶.

Ekonomian izan zen interbentzionismoak, nekazaritzan bere jarraipena izan zuen, kasu honetan, batez ere, “kartilen sistema” eta “errekisen sistema” erabiliz. Kontutan hartu behar da hau erregimenaren aukera politiko bat izan zela, eta ez kanpotik edota zirkunstantziek inposatutako berehalako erantzun bat; nahiz eta frankismoak askotan egoera kaxkarra sistema honen hutsei baino kanpoko konspirazioei eta egoerei (nazioartean Espainiarekin ez salerosteko ustezko borondatea, Guda Zibila) leporatu. Autarkiak, Miguel Angel Del Arcoren arabera, goiko klaseak babestu eta faboritismoa ugaltu zuen⁷⁸⁷.

Garaiko interbentzionismo politikoaren arabera, Hornikuntza Batzorde ezberdinek ekoizleen uztaren parte bat hartzen zuten (ekoizleek, zati txiki bat zuten euren salmentarako, gehienez 200 kilo gari urtean pertsonako, eta beste 120 kilo gari urtean langileentzat; eta 36 kilo legunbre urtean “nahiz eta Gariaren Zerbitzu Nazionaleko probintzia ordezkariak kopuru horiek aldatu ahal izango dituen”⁷⁸⁸) eta gero haxe “sarean” jartzen zuten (adibidez, 1943.eko maiatzean Horniketa eta Garraiorako Komisioaren zirkular baten arabera, Beasaingo abeltzainek, deklaraturako behien %22a entregatu behar zioten, salmenta bidez Estatuari, salmentarako behiak Udalak izendaturako tokiko batzorde batek aukeratzen zituelarik)⁷⁸⁹.

Bestetik herritarrek arrazionamendu kartila bat zuten, eta kartila hori aurkeztuz saltokietan edo alondegietan elikadura kopuru bat erosteko eskubidea zuten. Hasiera batean (sistema 1939.ean jarri zen indarrean), kartila hauek kolektiboak ziren, familiako bat banatzen zen, baina 1941tik aurrera norbanako kartilak atera ziren (Gipuzkoako

⁷⁸⁵ Hala ere, kontutan izan behar dugu *Auxilio Social* erakunde mistoa zela, ez soilik emakumeena.

⁷⁸⁶ Erakunde honen inguruan gehiago jakiteako, ikus CENARRO LAGUNAS, Angela: *La sonrisa de Falange. Auxilio Social en la guerra civil y en la posguerra*. Critica. Madril, 2006.

⁷⁸⁷ DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: “Morir de hambre...”, op. cit., 243. or.

⁷⁸⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. A072 karpeta, 10 dokumentu-sorta.

⁷⁸⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 05 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

Horniketa Batzordeak 1941.eko urriaren 29an eman zituen aldaketa markatzen zuen agindua)⁷⁹⁰. Norbanako kartila horiek 1939.eko errolda erabiliz egin ziren (beraz, edozein pertsonak, erroldatuta zegoen herrian hartuko zuen arrazionamendua). Modu berean, norbanako bakoitzaren datu ezberdinekin fitxategi bat egitea proposatzen zuen Gipuzkoako Horniketa Batzordeak. Horrela pertsona hori kategoria ezberdin batean sailkatzeko: arrazionamenduan hiru kategoria ezberdin zeuden, eta bakoitzean kopuru ezberdin bat jasotzen zen. Hau da 1942.eko irailaren 30ean Beasaingo herritarren sailkapena kategoriaren arabera:

Zenbat pertsonako unitatea	Lehen kategoria	Bigarren kategoria	Hirugarren kategoria	Guztira
Pertsona 1	1	12	20	33
2 pertsona	18	126	100	244
3 pertsona	33	180	330	543
4 pertsona	32	176	628	836
5 pertsona	25	195	855	1.075
6 pertsona	48	96	480	624
7 pertsona	35	35	546	616
8 pertsona	48	16	384	448
9 pertsona	36	36	198	270
10 pertsona		30	250	280
11 pertsona	11	11	165	187
12 pertsona			48	48

⁷⁹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

13 pertsona	26	26
14 pertsona	14	14

Iturria: Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 04 dokumentu-sorta⁷⁹¹.

Sailkapen hau, teorian, errentaren arabera izaten zen: errenta gehien, edo familia karga gutxien zituztenak askotan lehen kategorian sartzen zituzten, jaki gutxiago ematen baitzuen kategoria horretako menuak. Baina praktikan sailkapena ideologikoa izaten ohi zen: adibidez Francoren alde borrokatu zutenak eta euren familiak hirugarren kategorian (errenta gehien jasotzen zituzten kategorian) sartzen zituzten. Beasainen ere, pertsona batzuek hori baieztatu digute: sailkapena ideologikoa izaten zela; adibidez Xanti Lasa Aranburuk: “gure amaren familian, arrazionamendua, guda irabazi zutenen familietan baino gutxiago jasotzen zuten”⁷⁹². Jabier Garcia Bergararen arabera, “arrazionamendua eraginen arabera izaten ohi zen (...) erregimenaren aldeko batzuek prebendak izaten zituzten”⁷⁹³.

Pertsona askok kategoriaz aldatzeko bereak eta bi egiten zituen, 1941.eko azaroan, Gipuzkoako Gobernadore Zibila 1941.eko uztailaren 1etik aurrera eman izandako kategoria aldaketak debekatzera iritsi baitzen⁷⁹⁴.

Hala ere, kartilaren bidezko sistema hori ez zen nahikoa behar guztiak betetzeko. Beasaingo testigantza ezberdinek hori dioskue, han ematen ziren produktuak gutxiegi zirela eta gainera nahiko garestiak zirela. Adibidez, Maria Karmen Ibarbia Sarriegik eta Felipe Ibarbia Alustizak esaten duten moduan, “ogia oso zorrotz arrazionatua zegoen garai haietan”⁷⁹⁵. Pedro Maria Ibaibarriagak ere esaten du: “ogia Ataundik edo Lazkaotik merkatu beltzean ekarri behar zen, bestela bertan ez zegoen nahikorik”⁷⁹⁶. Jesus Lopez Gallegok beste oinarriko produktu baten eskasia aipatzen du: olioarena hain zuzen ere⁷⁹⁷. Rosario Larrea ere bat dator honekin: “olioa egiteko seboa eta koipea

⁷⁹¹ Nahiz eta dokumentu honek kategoria bakoitzean zeuden pertsonak “familiak” edo “unitatek” sailkatu, azkenean, kartila bakoitza pertsona batena zen (nahiz eta normalean familia bereko kideak denak kategorian berean zeuden). Hots, 3 kideko familietako 330 pertsona bazeuden 3. kategorian, horrek esan nahi zuen hiru kideetako 110 “familia” zeudela 3. kategorian.

⁷⁹² Xanti Lasa Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁷⁹³ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁷⁹⁴ Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 02 dokumentu-sorta.

⁷⁹⁵ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁷⁹⁶ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

⁷⁹⁷ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

4. kapitulua

ematen ziguten. Garai horietan ni bila joan behar nintzen”. Larrearen arabera, “garai haietan, arraultza frijituak jan zitazkenari inbidia genion, hori luxua zen eta”⁷⁹⁸. Halako iritzia dute arazo hau ikertu duten bi historiagilek, Molinerok eta Ysasek: “Horniketa Batzordeak sekula ez zuen beharreko kopurua banatu”⁷⁹⁹. Batzuen arabera, eskasia horren arrazoiak, lehengaiak Francok Espainiako gudan aliatu izan zituen (eta Espainiak gudaostea bizi zuela eurak Bigarren Mundu Gudan borrokan ari ziren) Italiari eta Alemaniari lehengaiak esportatzean zetzan. Hala azaltzen du, adibidez, Ordiziako Txomin Eskisabelek: “hemengo guztia eramaten zuten Mundu Gerrarako eta hemen ez zuten ezer uzten. Etxeetan ez zegoen janaririk”⁸⁰⁰.

Molinero eta Ysasen arabera, batez ere 1940 eta 1941 izan ziren horniketaren urterik txarrenak⁸⁰¹. Hori baieztatzen du baita ere, ordiziar batek, Pedro Balerdik: “*En el año cuareintaiuno* (sic; berrogeitabatgarren urtean), hor izan zen urte bat edo urte eta erdi oso txarra, eta gero pixka bat *mejorau* (sic; hobetu) zen, eta atzera *cuarentaicuatron* (sic; berrogeitalauan) edo hola, oso txarra berriz ere”. Beste batek, Maritxu Etxeberriak hori berresten du: “*cuarenta y uno* (sic; berrogeitabat) eta *cuarenta y dos* (sic; berrogeitabi) urteak txarrak izan ziren eta orduan janariarekin gaizki ibili ginen”⁸⁰². Antton Garcia ere bat dator horrekin: “1941.ean ez zegoen ezer”⁸⁰³.

Oso argigarria da Sara Unanue Lobetok emaniko erantzuna, “gure aitak (Roman Unanue medikuak) ez zuen gaizki irabazten, baina ez zegoen janaririk, dirua non gastatu ez zegoen. Gabiriara joan ginenean, han hobeto egon ginen, han jana bazegoelako, askotan han aitak janean kobratzen zuen”⁸⁰⁴. Unanuek, hala bizitzearen, eta beraz, diruaren “truke-balio praktikoaren” galtzeaz anekdota bat kontatzen digu: behin, jada Gabirian bizi zela, bere neba txikiak gurasoen diru bileteekin kutxa bat topatu zuen eta balkoitik botatzen hasi zen. Nebak ez zekien paper horiek zer ziren, izan ere, garai horietan, balio praktikoa asko galdu baitzuten (Sara Unanuek esaten zuen askoz gehiago baloraten zela elikagaia bere horretan dirua baino)⁸⁰⁵.

⁷⁹⁸ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Rosario Larreari egindako elkarrizketa. Beasain, 2012-IV-14.

⁷⁹⁹ MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales...”, op. cit..

⁸⁰⁰ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 147. or.

⁸⁰¹ MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales...”, op. cit.

⁸⁰² GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkarte. Oñati, 2004, 128. eta 137. or.

⁸⁰³ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 224. or.

⁸⁰⁴ Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-X-1.

⁸⁰⁵ Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-X-1.

Kontsumoaz ari garela; datuek ez dute erregimena batere toki onean uzten: Cañabate eta Martinez Carrionen arabera, 1930.ean bataz besteko kalorien kontsumoa eguneko 2.760 kilokalorietakoa bazen, 1949.ean 2.300koa zen (eta hau jada gosea pasatuta), 1930.eko mailak 1961a arte berriz lortuko ez zirelarik. Guda ostean, tokirik txiroenetan, eguneko 1.600 kilokaloria kontsumitzen ziren⁸⁰⁶. Gonzalez Portilla eta Garmendia irakasleen arabera, 1942.ean Espainiako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberen Kontseiluak egindako txosten baten arabera, kontsumitutako kalorien batazbestekoa, gerra aurreko egunek 2.500 kalorietatik 1.900 kalorietara jaitsi zen, eta 1943.eko urtarrilean 1.431 kalorietakoa zen. Txostenaren ondorioa zen honek langileen ezintasun fisikoa zekarrela, lan-produktibitatea jaitsi egiten zelarik⁸⁰⁷. Jakina, azpikontsumo honek gaixotasunak agertzea ekarri zuen⁸⁰⁸. Atzerriko diplomatikoak ere baziren honen kontziente, 1948.eko britainiar enbaxadaren kalkulu batzuen arabera, 1947.an espainiaren azpielikadura, egunean % 15-%20koa zen⁸⁰⁹.

1943.ean kartila berriak egiteko kanpaina hasi zen, alde batetik, bi urtetik beherako umeek kartila bereziak izango zituztelako. Beste guztiei zegokienez, norbanakoen kartilak 1943.eko maiatzaren 22rako jada banatze bulegoetan egon behar ziren, eta herritarrek bertatik hartu beharko zituzten, maiatzaren 22 horretatik 29ra. Aldi berean Horniketa Batzordeko ordezkariak, banaketa hau modu “ordenatuan” egiten ari zela zaindu beharko zuten, zenbat kartila zein bulegotan uzten ziren eta nori ematen zitzaizkien, eta bestelako datuak bilduz (banaketa bulegoetako arduradunek, behin kartilak entregatuta, hartzaileen datuak Horniketa Batzordeari eman behar zizkieten)- 1943.eko ekainaren 26rako kartilak entregatzearen prozesu hori bukatuta egon behar zen, ekainaren 28an kartila horiek erabiltzen hasteko⁸¹⁰. Bestetik, 1944.ean, 1945.eko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean jarri beharko “horniketa txartelak” ere prestatzen hasi ziren, norbanako batentzat intransferibleak zirenak. Hauek, arrazionamendu kupoiekin batera, lehen azaldutako norbanako kartila osatzen zuten. Txartel hauek ere saltokien bidez banatu ziren, 1944.eko urriaren 1etik aurrera, eta bakoitzak erroldatuta

⁸⁰⁶ CAÑABATE CABEZUELOS, Jose; eta MARTINEZ CARRION, Jose Miguel: op. cit. 12. or.

⁸⁰⁷ GONZALEZ PORTILLA, Manuel; eta GARMENDIA, Jose Maria: op. cit., 52-54. or.

⁸⁰⁸ DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: “Morir de hambre...”, op. cit., 253-256. or. Del Arcok gainera beste arlo bat azpimaratzan digu: gaixotasun hauen kontrako erregimenaren erantzun falta edota egoeraren aurreko axolagabekeria.

⁸⁰⁹ *Foreign Office*, PRO/FO371/73342 txostena (1948-III-8) in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: “Morir de hambre...”, op. cit., 251. or.

⁸¹⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 05 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

zegoen herriko saltokietan jaso behar zituen⁸¹¹. Halako eredu interbentzionista batek, ekoizpenaren eta salerosketaren gaineko balizko kontrola suposatzen zuen.

Sistema interbentzionista honek porrot egin zuen. Antonio Cazorlaren arabera, sistema honen akatsa ez zegoen arrazionamenduan bertan, Bigarren Mundu Gudan hainbat Estatuk jarri zuten martxan halako sistema bat, eraginkortasun handiz aplikatuz, arrakasta izan zutelarik. Espainian izan zen aplikazioan izan zen; batez ere, agintari frankistek garai hartako txiroekiko zuten axolagabekeria eta erakutsi zuten ustelkeria⁸¹². Miguel Angel Del Arcoren arabera, porrotaren atzean Francoren Estatuaren “arrazoi politikoa” zegoen. Hots, Estatutak nahiago zuen bere politika autarkiko eta porrot egindakoarekin jarraitu herritarrak elikatu baino, nahiz eta herritarren egoera kaxkarraren kontziente izan. Del Arcok arrazoi “funtzionalista” bat ematen digu: “frankismoa sortu zenerako sortu zen, klase aberatsen nagusigo sozial eta ekonomikoa indartzeko. “Klase eraginkortasun” hori oso altua izan zen”⁸¹³. Antzera pentsatzen dute Carme Molinerok eta Pere Ysasek, zeintzun arabera “erregimenaren pertsonal politikoaren zati handi bat, batez ere tokiko agintariak, arazoaz jabetzen ziren”. Hala ere, bi egile hauen arabera, “kezka hau konpontzeko neurririk ez zen hartu, egoeraren erantzuleak –adibidez soldata baxuak- erregimen frankistaren beste politika batzuen emaitza zirelako, eta politika hauek erregimenak bere proiektuaren oinarritzat zituelako: jabeen nagusitauna eta autarkia”⁸¹⁴. Are gogorragoa da Michael Richards historialariaren epaia: bere arabera, gosea nahita sortu zuen erregimenak, kontrakoa zatekeen populazio bat otzantzeko⁸¹⁵. Batean edo bestean, argi dagoena da populazioarentzat miseria gorriko urteak izan zirela, eta miseria hori Estatuaren politikek eragin zutela.

Udalak hornikuntza kontuetan zuen beste fronte bat, 1942.eko maiatzean eta ekainean salatu bezala, CAFeko ekonomatoa izan zen, honek zergak ez zituela ordaintzen, ezta zorrak likidatzen eta⁸¹⁶. Fronte honek irekita jarraitu zuen baita ere 1944.ean, urte horretako otsailaren 11ko bilkuran, Udalak jakinarazi zuenez, fabrikak ez zuen Udalak eginiko komunikazioei erantzun, beraz, Udala arazo honetan gehiago

⁸¹¹ Beasaingo Udal Artxiboa. A070 karpeta, 06 dokumentu-sorta.

⁸¹² CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit., 113-114. or.

⁸¹³ DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: “Morir de hambre”, op. cit., 256. or.

⁸¹⁴ MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales...”, op. cit.

⁸¹⁵ RICHARDS, Michael: op. cit., 163-164. eta 195-196. or.

⁸¹⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

tematu beharrean zegoen⁸¹⁷. Ikusten dugun moduan, agintariek ekoizpen eta salmenta sistema kontrolatu nahi zuten. 1941.eko ekainaren 24an, adibidez Kontsumo-Ekonomatoak berari saltzea zegokion kopurua handitzea eskatu zion Udalari “garen 224 bazkideetatik, 70ri soilik eman baikenieziaieke arrazionamendua”. Ekonomatoko arduradun Jose Aseguinolaza Azurmendik argudiatzen zuenez, bazkide askok ekonomikoki ez zuten ekonomatetik kanpo arrazionamendurik ordaindu, beraz kupoa handitzea eskatzen zuen “behintzat 125 bazkideri jana emateko moduan izan arte” (hau da, %66 bat handitzea). Aseguinolazak, “Elkarte Kooperatiboa disolbatzeko zurrumuruak daudenez gero (...) zorigaitzek gertakizun honen ondoren, elkarte horren kupoa Ekonomatora pasatzea proposatzen zuen”, “elkarte hartako kide asko honetakoak ere badira eta”⁸¹⁸. Hala ere, uztailaren 7an, Udalak eskaera horri baiezkoa ematea ezinezkoa zela erantzun zuen “dagoeneko saltoki bakoitzarentzako kupoak ezarriak daudelako”⁸¹⁹.

Halako interbentzionismoak, askotan ekoizleek euren produktuan non saltzerik ez izatea, eta kontsumitzaileek produktuan non erosterik ez izatea (dirua zuten kasuetan, izan ere soldatak, ikusi dugun bezala, erlatiboki asko jaitsi ziren) zekarren; Iruzurra nahiko zabaldua zegoen Beasainen 1942.ean, herritar askok, kartila guztiz arautua eta eguneratua izan arren, jakiak lortzerik ez zutenaren kexa aurkeztu baitzuten. Egoera honen aurrean, Udalak, saltokietan kartila aurkeztu gabe arrazionamenduko produkturik ez banatzeko ez banatzeko, kartilako kupoiak saltzaileak berak ebakitzeko eta kartilarekin joaten zirenen eta eskatzen zuten produktuen zerrenda egiteko (eta zerrenda hori arrazionamendu produktuen banaketaren hurrengo egunean entregatzeko) betebeharrak gogorarazi zituen⁸²⁰.

Honen guztiaren ondorioz merkatu “beltzaren” agerpena dugu. Merkatu “beltzean” jarduteko arrazoiak ezberdinak ziren, kasu batzuetan ekoizle txikiek modu desesperatuan erosleak behar zituztelako, edota kontsumitzaileek produktuak behar zituztelako (arrazionamendu kartilarekin iristen ez bazitzaien). Hori zela eta bide “ez arautuetatik” ere salerosketa gerta zitekeen. Baina bazeuden baita ere euren produktuak ezkutatu eta prezio handiagoan (zaila da kalkulatzeko zenbatean, hiriz hiri eta dataz data aldatu egiten baitziren; baina oro har, prezio ofizialak bikoiztu edo hirukoiztu egiten

⁸¹⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 17 dokumentu-sorta.

⁸¹⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 171 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

⁸¹⁹ Beasaingo Udal Artxiboa. 171 karpeta, 19 dokumentu-sorta.

⁸²⁰ Beasaingo Udal Artxiboa. 3190 karpeta, 33 dokumentu-sorta.

4. kapitulua

zituzten⁸²¹) halako merkatu beltzean saltzeko desbideratzen zuten ekoizle handiak⁸²². Hala ere, esan beharra dago merkatu beltza garai hauetan beharrianagatik sortutako zerbait izan zela, eta jende askok, baita Beasainen ere jotzen zuela halako bideetara. Hala ere, praktikan, estraperloak, “beheko” jendearentzat bat-bateko irtenbidea esan nahi bazuen ere, luzera klase edukitzaileen aldeko errenten drenaia suposatu zuen⁸²³. Rafael Abellak bildu zuen testigantza baten arabera, enpresari batek honela esan zion merkatu beltzaz: “Hau Jainkoaren opari bat da, Guda Zibilean sufritutakoak konpentsatzen dituen”⁸²⁴.

Ikusi dugun bezala, estraperloan bai beheko zein goiko klaseek parte hartu zutela esan beharra dugu. Kapitulu honetan hainbatetan aipatu dugun moduan, herritarren xede nagusia bizirautea bilakatu zen, eta halako egoeran ez ziren gutxi izan merkatu beltzera jo zutenak, baita Beasainen ere. Herritar askok merkatu beltzera joan behar izan ziren, arrazionamenduan ez zuten produktuak bilatzera (bazegoen baita ere, merkatau beltzera joan ordez, baserriko produktuak ezkututzen zituenik, adibidez Ordizian, Oianguko baserrian⁸²⁵. Tasa hauei izkin egiteko beste modu bat agintarien “konplizitatea” zen, adibidez, Azpeitiko Inaxia Bereziartuak kontatzen zuen arabera, “Azpeitin bazegoen guardia zibil bat, oso ezaguna, etxe guztietan ardoa ematen ziotena, gero arazorik ez izateko”⁸²⁶). Hainbat pertsonak baieztatu digute hori. Halako bat, Pedro Maria Ibaibarriaga izan zen, ezen bere familiak ogia bila Lazkaora eta Ataunera joaten zirela esaten zuen⁸²⁷. Beste batzuk urrutiago joaten ziren, adibidez, Jesus Lopez Gallegok gogoratzen du nola patata bila Sakanara joaten zela, Lizarrustitik gora (non Goardia Zibilaren kontrola egoten zen, eta askotan produktuak interbenitu egiten zituzten, baina Lopez Gallegoren arabera “Niri sekula ez zidaten ezer ere harrapatu”)⁸²⁸. Patxi Lasa Imazen aita ere Nafarroara joaten zen, eta berak kontatzen zuen bezala “hamalau

⁸²¹ MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales...”, op. cit.

⁸²² CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso...* op. cit.. Cazorlaren arabera, oso tipikoa zen “saltokietan produktuak pilatzen zirelarik, jendeak produktu horiek ezin erosi izana”. Horrela ere, merkatu beltzera desbideratzea erraza zen, batez ere produktu batzuek banatzekoak baziren eta merkatarien eskuetan bukatzen bazuten. Ordizian, adibidez, Antton Garcia herritarrak dioenez, bertako denden jabe batzuek (“Goenagatarrek, aizto-dendako jabeek”) “Andaluziatik olioia estraperloan ekartzen zuten”. ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 224. or.

⁸²³ DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: “Morir de hambre...”, op. cit., 251. or.

⁸²⁴ ABELLA, Rafael: *Por el Imperio hacia Dios*. Planeta.artzelona, 1978, 82 orr.

⁸²⁵ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura...* op. cit., 164. or.

⁸²⁶ BUCES CABELLO, Javier: *Azpeitia 1936-1945* (I. lib.), op. cit., 183. or.

⁸²⁷ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

⁸²⁸ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

urterekin ni ere joaten hasi nintzen”⁸²⁹. Guztiek ez zuten zorterik izaten, izan ere agintariek eta ordena publikoko indarrek kanpotik ekartzen ziren jakian kendu ahal zituzten. Hala kontatzen digute Peñagarikano Dorronsoro ahizpek: “behin gure amak Nafarroatik janariaren saski bat ekartzen zuela, Beasaingo eskuindar batek, Beasainen oso ezaguna zen batek, kendu egin zion”. Ez dakigu pertsona horrek deklaratu egin ote zuen interbenitutako saskia edo bere onerako erabili ote zuen, halakoak ere gertatu izan ziren eta⁸³⁰.

Estraperloa ere inguruko herrietan ere egiten zen, adibidez, Ordizian. Gainera, Ordiziak, merkatua zuen, eta honek ere aukerak ematen zituen merkatu beltzeko produktuak saltzeko, autoritateak hainbat arau jartzen saiatzen ziren arren⁸³¹. Ordiziar batzuek, adibidez Benito Arinek, diotenez, Murumendira joaten ziren patata bila⁸³² (Murumendi Beasain da, beraz, pentsatzekoa da beasaindar asko ere joaten zirela). Beste batzuek ere kontatzen dute Nafarroara joan izan zirela “patata eta indaba (babarrun) bila”⁸³³, edo are olio bila⁸³⁴, edo baita ere Legorretara eta Ikaztegiatarra⁸³⁵. Tolosan ere gosea pasa zuten bertakoek, eta han ere merkatu beltzera jo zuten. Han, Nafarroara joaten zen jende gehiena “babarrunen, pataten, olioaren eta bestelako premiazko beharrieaneko gauzen bila”, Tomas Alonsok esaten duenez. Beste batek, Andres Gaztañagak “Estraperloa? Ahal zenarekin!” esaten du “Batzuk Nafarroara joaten ginen eta handik patatak, azenarioa eta abar ekartzen genuen”. Kronologiari dagokionez, bat egiten dute 1941-1942 urteak okerrentzat jotzen: hango lekuko batek, Xabier Garikanok esaten zuen bezala, “Aizu, hemen guda 1936ean hasi zen, baina benetan txarrak 1940, 1941 eta 1942 urteak izan ziren, oso gogorrak, e!”⁸³⁶.

Udaletik egon izan ziren baita herritar batzuen kontrako salaketa batzuk. 1939.ean, Melchor Garcia Udaltzainburuak eta Martin Aramburu langileak, Tomasa

⁸²⁹ Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁸³⁰ Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9. Peñagarikano Dorronsoro ahizpek ez zuten pertsona horren izenik eman nahi “Beasainen oso ezaguna zen eta”.

⁸³¹ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura*... op. cit., 122. or.

⁸³² GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: op. cit., 124. or.

⁸³³ Ibid., 128. or.

⁸³⁴ ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura*... op. cit., 143. eta 156. or. Hala ibiltzen zen ordiziar batek, Agustin Garcia Garciak (aita Benito Garcia gudan hil zioten) esan zuen “Etxarrira ez ginen joaten, han hil baitzintzaketen” (guda hasieran lau ordiziar hil zituzten Etxarri aldean). Ikusten den moduan, beldurrak oraindik jarraitu egiten zuen guda ostean.

⁸³⁵ GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: op. cit., 133., 141., 160. eta 170. or.

⁸³⁶ ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria*... (I lib.), op. cit., 242. eta 248. or.

4. kapitulua

Torres deitutako herritar bat salatu zuten, honek Alondegian Ormaiztegin saltzekoa zen arraina pisatzerakoan iruzur egin omen zuelako. Tomasa Torresek iruzur hori frogatu zen, eta Udalak, kasu horretan isun bat jarriz zigortu zuen: isuna zortzi pezetakoa izan zen, Torresek desbideratutakoak balio zuenaren boskoitza⁸³⁷.

Bazegoen ere bai janaria lortzeko beste modu bat: mesedeak egitea. Hori kontatzen du adibidez, Anselmo Ruizek: “behin baserritar bati kotxea konpondu genion, eta hark esker onez haragia eman zigun”⁸³⁸. Hala ere, halako mesedeak egitea eta trukean jana lortzea esporadikoa zen, eta jende gehienak, arrazionamenduan ematen zena betetzeko, merkatu beltzera jo behar zuen. Intermediario batzuk aberastu egin ziren merkatu beltzaren kontura. Izan ere, garaiko politikaren logikaz kanpoko ezaugarri bat, finkatutako prezioen inkoherentzia zetan; hots, askotan ekoizleak merkatariari saldu beharreko prezioa, merkatariak merkatuan saltzeko ezarri beharrekoa baino altuagoa izan zitekeen⁸³⁹. Honela nahiko arrunta zen pertsona askok merkatu beltzera jotzea, lehenengo merkatariak, eta hauen ostean bertan produktuak topatu ahal zituen edonork. Merkatu ofizialean produktuak ezin aurkitze hori Gipuzkoan ere gertatu zen, 1939.ean britainiar enbaxadoreak esan zuenez⁸⁴⁰.

Iruzurra ez zen soilik “behetik” egiten, “goitik” ere egiten zen. 1941.eko azaroan, Beasaingo udalak, Horniketa Batzordearen interbenitutako produktuak jasotzen zituzten saltokiei zerrenda bat egitea eta Udalari bidaltzea agindu zien, produktuak parekidetasunez banatzen ez zireneko kexak baitzeuden herrian. Horrez gain, Unzueta eta Zaballos zinegotziak izendatu zituzten auzi hau ikertzeko asmoz⁸⁴¹. Bilkura horretan bertan, Alondegiko arduradunari (hau da, Francisco Elzo Urrestarazuri) esnearen horniketean hartzaileek aurkezten dituzten “ziurtagiri medikuak” Udalari pasatzeko, honek azter zitzan, agindu zioten⁸⁴².

⁸³⁷ Beasaingo Udal Artxiboa. A119 karpeta, 24 dokumentu-sorta.

⁸³⁸ Alberto Alonso Cacharrok eta Josu Lopez Castañaresek Anselmo Ruizi egindako elkarrizketa. 2013-III-25.

⁸³⁹ DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: “Morir de hambre...”, op. cit., 245. or.

⁸⁴⁰ *Foreign Office*, PRO/FO371/23168 txostena (1939-X-9), 85-92, or., in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: “Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo” in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea*, 5. zkia. (241-258. or.), 2006, 248. or.

⁸⁴¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta. Antzekoa gertatzen zen Tolosan, garai horiek bizi izan zituen Cristina Arrutik kontatzen duenez: “Tolosan bizpahiru gizonak nahi beste olio zuten, eta besteok arrazionamendura joan behar ginen, eta kartilan olio tokatzen zitzaigula jarri arren, sekula ez zuten behar adina ematen”. ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria...* (I lib.), op. cit., 245. or.

⁸⁴² Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 21 dokumentu-sorta.

Aurreko parrafo horretan Udalak iruzurra ikertzeko neurri batzuk hartu zituela esan badugu ere, ematen duenez, ez zuen beti hala jokatzeko, Beasainen bertan estraperloaren eta merkatu beltzaren kontura aberastutako jendea aurkitu izan zen Beasainen. Jabier Garcia Bergarak badio “Beasainen, estraperloarekin jende batek dirua egin zuela”⁸⁴³. Arantza Ugarte Azkarate ere bat dator baieztapen horrekin⁸⁴⁴. Ibaibarriaga Usabiaga neba-arreben arabera, Jose Osinalde izeneko pertsona batek egin zuen dirua Beasainen⁸⁴⁵. Baina agian, honen aldeko baieztapenik kontudenteena Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorok ematen digu. Joxe Manuel Azurmendi orduan Udaleko langilea zen, idazkaritza-laguntzailea hain zuzen ere, beraz ondo ezagutzen zuen garaiko tokiko instituzioen funtzionamendua. Bere arabera, pertsonaren batzuk, euren posizioa baliatuz aberastu egin ziren; bera ez ordea: “garai hartan ez nuen ogi onik jan”. “Aberasteko aukera” hau aprobetxatu ez zuela eta, herrian baten batek “hi tuntuna haiz!” esan omen zion; beraz, hemendik ondorioztatzen dugu instituzioetan ibili zen jendeak estraperloaren inguruan modu irregularrean etekina ateratzea nahiko praktika arrunta izan zela. Berak ere esaten digu halakoak ezagutu zituela, baina “ez dut izenik eman nahi, baina halakoak eman ziren”⁸⁴⁶.

Bestalde ezin zen berdina izan zigortzeko modua: Estatuak “beheko estraperloa” gogor zigortzen zuen, ez hain gogor ordea “goikoa”⁸⁴⁷. Carlos Barcielaren arabera, Tasen Fiskaltzaren arauak hobeto betetzen zituzten nekazari txikiak, lurjabe handiek baino⁸⁴⁸. Egon ziren sareak kontutan hartuta, eta guda ondoko errepresioaren neurria kontutan hartuta (lehenago esan dugu 1939.eko apirilaren 1etik aurrera, gutxienez 50.000 fusilatu kalkulatu izan direla), erregimenak soilik funtzionario bakar bat fusilatu zuen estraperloa zela eta, eta gainera kasu honetan ematen du benetako arrazoiak beste

⁸⁴³ Jabier Garcia Bergarari egindako elkarrizketa (bi zatitan: Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22).

⁸⁴⁴ Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁸⁴⁵ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostia, 2015-XI-15ean.

⁸⁴⁶ Joxe Manuel Azurmendi Dorronsorori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-IX-10.

⁸⁴⁷ MARTI GOMEZ, Jose: *La España del Estraperlo*. Planeta. Bartzelona, 1995, 244-246. or.; eta CAZORLA SANCHEZ, Antonio: “La vuelta a la historia...”, op. cit.

⁸⁴⁸ BARCIELA LOPEZ, Carlos: “El mercado negro de productos agrarios en la posguerra, 1939-1953” in FONTANA, Josep (ed.): *España bajo el franquismo (192-205)*. Critica. Bartzelona, 1986. Tolosako adibide bat ematen digu Andres Gaztañagak: “Tolosan garai batean, guda ostean bi jatetxe ere bazeuden, baina guk (nekazari umilek), bakoitzak olio litro bina eman behar genuen”. ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria...* (I lib.), 248. or.

4. kapitulua

batzuk izan zirela⁸⁴⁹. Erregimenaren goi mailako pertsonak jeneralak eta Gobernadore Zibilak barne estraperloaren negozioetan inplikaturak agertzen ziren⁸⁵⁰.

Beasaingo Udalak, arrazionamenduan ematen zuenaren diru-sarreraren parte bat, Estatuari eman behar izaten zion. 1940.eko irailean Beasaingo Udalak sinatutako dokumentu baten arabera, 1940.eko maiatzean, 3.035 pezeta entregatu zizkion kontzeptu honen arabera Estuatuari, ekainean 1.573, uztailean 3.382 eta abuztuan 2.569⁸⁵¹.

4.5.j) Euskararen egoera

Zer esanik ez, gudaren ostean euskararen egoerak Beasainen okerrera egin zuen. Kasu honetan, Estatuaren politika izan zen Espainian ahal bezain pronto, nazio homogeneo bat sortzea, horretarako ere, hizkuntza homegeneitatea ere beharrezkoa zelarik. Estatuaren agintariak politika horren aldeko politika ezarri zuten, Gipuzkoan baita ere.

Halako “hizkuntza bakarraren politika” Francisco Franco berak, altxauen zonaldeko Estaturu izendatu eta hurrengo egunean (1936.eko urriaren 1ean) irriti bidezko hitzaldi batean argi utzi zuen: “Eskualde bakoitzaren izaera errespetatua izango da, baina erabatekoa nahi dugun batasun nazionalari, hizkuntza bakarrak, gaztelera, eta izaera bakarrak, espainiarrek jantzia nahi dugunari kalte egin gabekotan”⁸⁵².

Gipuzkoan lehen momentutik izan zen euskararen kontrako errepresioa, goi-aginteetatik bultzatutakoa. 1937eko maiatzean Alfonso Velarde Gobernadore Militarrak honako agindu hau eman zuen: “Gaztelera hitz egin! Inorentzat ez da ezkututuko Espainiako eskualde ezberdinen artean ezberdintasunak egon direla (...) baina nire betebeharra da elkarbizitza momentu hauetan ezberdintasun hauek apaltzea (...) (ezberdintasunak) ama-Espainiaren semeek, eskualde ezberdinetako anaiek ama besarkatuz, amarekiko maitasuna bihurtu ditzaten. Maitasun horren frogarik handienetako bat (...) hizkuntza amankomuna erabiltzea da, batez ere gaztelera bezain

⁸⁴⁹ Funtzionario hori, Jose Perez Cabo, antza denez, falangista erradikalen konspirazio batean sartua zegoen. CAZORLA SÁNCHEZ, Antonio: *Las políticas de la victoria* op. cit., 86-87. orr. Bestalde, Glicerio Sanchezen arabera, agintarien ustelkeriaren kontrako zigorrak askotan “alderdiaren interesei” zegozkienean egiten ziren (hau da, “ustela” politikoki apartatzea komeni zenean). SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros políticos intermedios...* op. cit., 90-91. or.

⁸⁵⁰ BARCIELA LOPEZ, Carlos: op. cit., 82-86. or.

⁸⁵¹ Beasaingo Udal Artxiboa. 3186 karpeta, 50 dokumentu-sorta.

⁸⁵² TORREALDAI, Joan Mari: *El libro negro del euskera*. Ttartalo. Donostia, 1998, 86-87. or.

hizkuntza ederra gurea denean”⁸⁵³. Hots, euskara *politizatu* egiten zen; Espainia berriaren kontrako elementu bihurtzen baitzen; agindu ofizial batean hori biltzen zelarik. Gipuzkoako FET-JONSeko Propaganda Ordezkaritza ere olatu errepresibo honi batu zitzaion, 1937eko abenduan bidali zuen ohar baten bidez: “Gure Aberriaren (Espainiaz ari dira) duin izateko, gure lehen betebeharra Espainia Berriaren balioetan hezitzea eta denaren gainetik patriotak izatea da. Beraz, arlo guztietan (...) osorik espainiar ditugun ohiturak goratu behar ditugu, eta batez ere gure espainiar hizkuntza bikainaren edertasuna hedatu. Hau espainiar on ororentzat eta bere burua benetako patriotatzat duenarentzat betebeharra da. Espainiarra bazara, hitz egin ezazu espainieraz. Espainiarra bazara, zure betebeharra espainiar guztiek hitz egiten duten moduan hitz egitea da”⁸⁵⁴. Ohar honen gogortasuna erabatekoa izan zen; alderdi bakarrak euskara bere “espainiar” izatearen kontzeptutik uzten baitzuen, beraz Estatu berriarentzat oztopo edo anomalia bat bezala hartzen zen, hau da, ezabapenaren subjektu. Eta bestetik, euskaraz hitz egitea “patriota” izatearen kontzeptuarekin bateraezintzat jotzen zen; eta hau ez zen gauza makala altxatuak “espainiar patriotismoaren” izenean, eta “anti-Espainiaren aurkako borrokaren” izenean halako errepresioa egiten ari ziren garaietan. Hala ere, eszeptikoentzat, “debeku” hitza garbi ateratzen da 1937.eko maiatzaren 29an Donostiako Tokiko Buruak bidali zuen zirkularrean: “Gaztelera ez diren hizkuntza eta dialektoak hitz egitearen *debekua* apurtzen duen oro denuntziatua izango da”⁸⁵⁵. Hilabete bat lehenago, 1937.eko apirilean, Donostiako “Goardia Zibikoak” (eskuindar hiritar bolondresez osatutako indar parapoliziala, Guda Zibilaren garaian altxatuek euren kontrolpeko hiri bakoitzean antolatzen zutenen antzekoa), “gobernadore militarren agindua, hiritarrek bide publikoan gaztelera ez diren hizkuntzak eta hizkerak erabiltzearen *debekuari* buruzkoa betearazteko zirkularra” atera zuen, non Goardia Zibiko hori hiritarren elkarrizketak zelatatzea (goardiak uniforme gabe jantzita zihoazela) agintzen zitzaion “*debeku* hau jakinarazita gaztelera ez den hizkuntza batean hitz egitea tematzen diren herritarrek salatzeke eta baldin bada, atxilotzeko”⁸⁵⁶.

Euskararen debekurako legerik gehienak, lehen urteetan eman izan ziren, oldarraldi falangista modurik beteenean zegoenean. Hala ere, ez dugu pentsatu behar falangismoak erregimenean izan zuen gainbeherak, euskararekiko “berehalako

⁸⁵³ *Unidad*, 1937-IV-15

⁸⁵⁴ *Diario Vasco*, 1937-XII-22

⁸⁵⁵ TORREALDAI, Joan Mari: op. cit., 104-106. or.

⁸⁵⁶ *Ibid.* 93-95. or.

4. kapitulua

tolerantzia” suposatu izan zuenik. Kontuan izan behar da, nolabait, Euskal Herriko eta batez ere Gipuzkoako zenbait herritan (Beasainen baita, nahiz eta ez izan kasurik paradigmaticoena) populazioaren parte handi bat oraindik euskaldun elebakarra zela, beraz, ezinezkoa izan zela erregimenak nahi zuen uniformizazioa nahi bezain azkar ezartzea. Baina horrek ez du esan nahi erregimenaren euskara desagerrarazteko planak sistemakoak izan ez zirenik. Beasainen, adibidez, herriko instituzio denak erdalduntze-lanera emanak izan ziren. Honi gainera, gehitu behar zaio euskarak pairatu zuen desprestigio kanpaina bortitza, kalean euskara egiten zuenari barre egitea bezalakoak. Halakoak aipatzen dizkigu adibidez, Patxi Lasa Imazek: “euskaraz egiten genuenoi askotan “casero burro, no vale ni un duro” (“baserritar astakila, hogorlekorik balio ez duena”) esaten ziguten”⁸⁵⁷. Jesus Lopez Gallegok ere esaten digu: “kalean euskaraz egiten zuenari fraideek barre egiten zioten”⁸⁵⁸. Xabier Aierdik, Goierriin sustraiak zituen zarauztarrak, “askotan publikoan euskarak hitz egiten entzuten zituenak “¡habla en cristiano!” batekin erantzun ahal zizun!”. Xabier Aierdiren arabera, “askok garai horietan “edukazio txarrekoat” ere hartzen zuten euskara, eta atentzioa deitzeko inpunitatez sentitzen ziren”⁸⁵⁹.

Andoni Sarriegik halako kasu batzuk biltzen ditu Elizaren arloan. Adibidez, Elizan erdalduntzearen faktore garrantzitsu bat izan zen Florencio Aspe apaiza, zeina gudaren egunetan altxatuen indarren aldeko sutsu bezala agertu zen. Sarriegiren arabera, Aspek behin, sermoia botatzerakoan “Batzuek euskaraz egiten dudalako kritikatzin naute, beste batzuek ordez, erdaraz egitearren... nire ama-hizkuntzan egingo dut” esan zuen eta erdaraz egin zuen sermoia, nahiz eta bere ama-hizkuntza euskara izan. Sarriegiren ustez, momentu hartan sinestun asko atera ziren Elizatik, apaizaren euskararen kontrako jarrera ikusita, eta honek, sinestunak ateratzen ikusirik euskarara bueltatu zela. Beraz, halako erdalduntzeak herritarren aldetik erresistentzia ere izan zuen⁸⁶⁰.

Asperen jarrera Elizaren goi-mailako agintariekin bat etorri bazen ere, kontutan izan behar dugu apaiz guztiek ez zutela bat eliz-agintarien nahiekin bat egiten,

⁸⁵⁷ Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁸⁵⁸ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁸⁵⁹ Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12.

⁸⁶⁰ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: “Euskara Beasainen azken mendeetan” in SIADECO: *Euskara Beasainen* (7-18. or.). Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua. Beasain, 1990, 14. or. Andoni Sarriegi guri kontatu digunez, kontakizun hori etxean entzun zuen (Andoni Sarriegi Eskisabeli egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-6).

Sarriegiren arabera, 1943.eko uztailaren 4ko mezan, apaiz berri batek, sermoia euskaraz egitea eragotzi ziotela komunikatu zien sinestunei⁸⁶¹. Sarriegirena ez da testigantza bakarra, Arantza Ibaibarriagak ere esaten digu: “orduan, Elizan, erdaraz eta latinez egiten zen”⁸⁶². Elizak ere, umeak bataiatzerakoan euskal izenak jartzeko zailtasunak jartzen zituen, adibidez, Roman Unanue medikuak bere bigarren umeari “Oscar Aitor” izena jarri nahi izan zionean oztopo handiak jarri zizkion apaizak (azkenean lortu izana, agian Unanue prestigio handiko pertsona -medikua- izatean zetzan)⁸⁶³. Aitor Garmendiak ere antzeko pasarte bat kontatzen digu “niri *Aitor* izenetik *Vitor* izenera aldatu nahi izan zidaten behin baino gehiagotan”⁸⁶⁴. Elizaren inguruan, ondoko herrian Ordizian giroa pixka lasaiagoa izan zen, han apaizak “denetarik ziren, baina euskararen kontra-kontrakorik ez”. Goierrin, apaizen artean euskaltzaleen gunea Lazkaoko beneditarrena izan zen⁸⁶⁵.

Euskararen kontrako beste gune bat eskola izan zen. Egia esan, lehen ere esan dugu monarkia konstituzionalaren garaian ere eskola erdalduntzeko tresna bat bihurtua izan zela; baina garaian honetan askoz ere intentsoagoa izan zen, erdalduntzeko joera hori. Eskola publikoan, noski, aurreko garaian euskararen alde eman zitezkeen urratsak erabat ezabatuak izan ziren, izan ere, Estatuaren ideologia uniformizatzailearen tresna bihurtu baitzen. Eskola publikoaren inguruko testigantzak, adibidez, Maria Pilar Lozaresek ematen digu: “eskola publikoan ez zen euskararik egiten, eta mojetan ere, ez dut uste”⁸⁶⁶. Juan Ramon Imazek ere berdina esaten du: “garai horietan guk ez genuen eskolan euskaraz ezer ere ematen”⁸⁶⁷. Xabier Aierdiren arabera; “guk, Francoren aurretik, eskolan euskaraz egiten genuen, Franco agintean jarri ondoren, ordea, ez”⁸⁶⁸.

Kasu honetan aipatu behar da, Estatuak, 1930.etik aurrera Gipuzkoako Aldundiak eraikitako 21 baserriguneetako eskola bere egin zituela Gipuzkoa osoan (Beasainen Arriarango eskolaren kasua dugu hori). Eskola hauek Gipuzkoako Aldundiak, beste helburu batzuen artean, euskarazko hezkuntza minimo bat emateko helburuarekin eraiki zituen, eta (nahiz eta bigarren kapituluan jada azaldu dugun erdara

⁸⁶¹ Ibid, 15. or.

⁸⁶² Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

⁸⁶³ Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-X-1.

⁸⁶⁴ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁸⁶⁵ GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: op. cit., 35. eta 91. or.

⁸⁶⁶ Maria Pilar Lozaresi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-3.

⁸⁶⁷ Juan Ramon Imaz Crespori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VIII-5.

⁸⁶⁸ Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12.

4. kapitulua

oraindik lehenetsi egiten zela), Gipuzkoan hezkuntza euskaraz modu sistematikoan emateko lehen saiakera izan zen. Eskola hauek Estatuak bere egiteak euskararen erabilera erabat gelditu zuen⁸⁶⁹.

Baina euskararen kontrako jarrera hau ez zen eskola publikora mugatzen, eskola pribatuan ere ikus zitezkeen halako jarrerak. Salesiarren Loinazko San Martin eskolan, adibidez, Felipe Ibarbiaren arabera “euskaraz egiten bagenuen zigorra jasaten genuen, bostetan irten orde, zazpitan irteten ginen”⁸⁷⁰. Mila Mendiak ere esaten digu “mojetan ez genuen euskaraz ezer ere ematen”⁸⁷¹. Ondoko herrian, Ordizian, eskolako giroa ere nahiko antzekoa zen euskararekiko, han ere hezkuntza osoa erdaraz ematen baitzen⁸⁷².

Lehen urteetan, euskaraz hitz egitearren zigor fisikoak ere pairatu behar izaten zuten ikasleek. Eleuterio Aiestak kontatu izan digunez, eskola publikoan, bere aurrean, euskaraz hitz bat egitearren jotzen zituzten ikasleak, baita ere eskolan hasterakoan erdaraz ez zekitenak ere. “Nik, zortea nuen, kalekoa nintzenez erdaraz banekien. Baina baserrietatik etortzen zirenek, normalean ez zekiten erdaraz ezta “sí” esaten ere, eta horiek ere jo egiten zituzten. Nik behin esan behar izan nion irakasleari: “Ez al zara konturatzen hauek erdaraz ez dakitela?””⁸⁷³. Antzeko egoera bat (zigor-fisikoei baino, multei dagokionez) deskribatzen digu Jose Maria Bujanda Olanek Olaberrian:

Hori bai, esan beharra dago, eskolan urteak pasa ahala, euskarak erabat baztertuta jarraitzen bazuen ere, zigor fisikoak txikiagotu egin zirela (batez ere jada 50. hamarkadan sartu ondoren). Elkarrizketatu gazteenek, hau da, euren haurtzaroa eta beraz, eskola-aroa gudaren ostean egin zutenek, datu hau baieztatzen dute, euskararen bazterketa aipatuz, baina zigor fisikoez hitz egin gabe. Hori digute adibidez Ibaibarriaga Usabiaga neba-arrebek: “guk zigor fisikorik ez genuen ikusi”⁸⁷⁴. Irizar Aranburu ahizpek ere berdin dioskue: “guk, gure garaian, mojetan, ez genuen zigor handirik

⁸⁶⁹ CALVO VICENTE, Candida: “La enseñanza en la zona rural...”, op. cit., 170. or.

⁸⁷⁰ Felipe Ibarbia Alustizari eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-19.

⁸⁷¹ Mila Mendi Aramendiri egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-2.

⁸⁷² GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: op. cit., 33., 91-92. eta 147. or.

⁸⁷³ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

⁸⁷⁴ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean. Hala ere, biek esan zigutenez “gure aiton-amonon garaian halako zigorrak izaten ziren. Gure amona Itsasokoa zen, eta han euskaraz egiten zuenari zigor-eraztuna jartzen zitzaion orduan”. Euren amonak, ziurrenik monarkia konstituzionalaren garaiak bizi zituen, beraz argi dago, eskolan euskararen kontrako errepresioa Franco baino aurrekoagoa dela, honek larriagotu egin bazuen ere.

izatean, giroa erabat erdalduna zen arren. Hori bai, eskolara sartzean himnoren bat abestu arazi egiten ziguten”⁸⁷⁵.

Ondoko herri txikietan ere halako errepresioa bazegoen, adibidez, Olaberrian. Hemen, Bujanda Olanan neba-arreben arabera, giroa Beasainen modukoa zen. Sara Bujandak esaten digunez “sermoia erdaraz, meza erdaraz, eskola erdaraz, dena erdaraz!” zegoen⁸⁷⁶. Bere neba Jose Maria Bujanda Olanaren arabera, Olaberriako irakasleak “Segoviatik etorri zen batek (...) euskaraz entzuten bazuen, bai euskaraz eta are eskolatik kanpo, hamar pezetako multa jartzen zigun”⁸⁷⁷. Lazkaon, Ane Barandiaran Erauskinen arabera “etxean euskaraz egin arren, kalean erdara soilik entzuten zen”⁸⁷⁸. Mutiloan eta Zumarragan bizi zen Bernardina Aldasorok ere zigorrak aipatu izan dizkigu: “Maisuek zigortu egiten gintuzten euskaraz aritzearren”⁸⁷⁹.

Beste batzuen arabera, ordea, herri txikietan, agian han zegoen euskaldun kopuruagatik oraindik herritarren arteko elkarrizketa espontaneo gehienek hizkuntza euskara zelako; eta horrek euskara egitera bultzatzen zituelako herritarrak, debekuei edo hauen asmoei nolabaiteko zailtasun bat jarritz. Hala azaltzen digute, adibidez, Sara Unanuek eta Bernardina Aldasorok. Lehenaren kasuan, Roman Unanue medikuaren alaba izaki, eta mediku hau 1942.ean Beasaindik Gabiriara lekualdatua izatea (Sara Unanuek sei urte zituenean), berak dio bere hitzekin “Gabirian ikasi nuen euskaraz”⁸⁸⁰. Bernardina Aldasororen arabera, jaio zen Mutilotik geroago bizi zen Zumarragara joatean, “Mutiloan euskaraz hitz egin ahal nuen, baina Zumarragan ez”⁸⁸¹.

Euskararen kontrako giro hau Gipuzkoa osoan orokorra zen. Ordizian bertan, adibidez, hango lekuko batek Joxe Mari Agirre Zuloagak “zigorrak eta Goardia Zibilaren oztopoak” aipatzen ditu⁸⁸². Hala, batzuetan, euskaltzaletasunaren kontrako zigorrak erregimenaren aldekoak kolpa zitzazkeen baita; Hernanin adibidez, Antonio Zubeldia erreketea erakunde horretatik kanporatu zuten, jai batean *Gora euskaldunak! ¡Vivan los*

⁸⁷⁵ Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-9an.

⁸⁷⁶ Sara Bujanda Olanari eta Jose Maria Bujanda Olanari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14.

⁸⁷⁷ Sara Bujanda Olanari eta Jose Maria Bujanda Olanari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-IX-14.

⁸⁷⁸ Ane Barandiaran Erauskini eta Xabier Aierdi Aldasorori egindako elkarrizketa. Getaria, 2014-IX-12.

⁸⁷⁹ Bernardina Aldasoro Ormazabali egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-X-30.

⁸⁸⁰ Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostia, 2014-X-1.

⁸⁸¹ Bernardina Aldasoro Ormazabali egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-X-30.

⁸⁸² GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: op. cit., 98. or.

4. kapitulua

vascos!) oihukatzearren⁸⁸³. Probintziako agintariek Elizan euskaraz “lehen orduko mezetan soilik” egitea baimendu zuten⁸⁸⁴.

Kontuan izan behar da euskararen kontrako oldarraldia bereziki karlistek zuzendu zutela, beste sektore batzuen laguntzarekin. Egia da karlista batzuk, Calvo Vicentek esaten duen bezala euskararen alde agertu izan zirela baita erregimen barruan, baina salbuespen bat izan ziren. Ez nago ados Calvo Vicenterekin “karlistek hizkunta aniztasuna defendatzen zuten” esaten duenean eta euskararen kontrako jarrera beste sektoreengan, nahiko iritzi zabaldua bada ere⁸⁸⁵.

Hala ere, aurkitu dugu halako euskararen kontrako jarreran nolabaiteko salbuespen bat (ia-ia bitxikeriatzat jo dezakeguna): 1938.eko azaroaren 26an, Tolosako eta Beasaingo Udalek, orduko Hezkuntza ministroak, Hezkuntza Institutu Nazionalean euskarazko katedra sortuko zuela esan zuela eta, zoriontzeko erabakia hartu zuten⁸⁸⁶. Bistan da asmo hauek berehala kaxoian gorde zirela, eta ziurrenik euskararen irakaskuntza “ikerketarako objektu” bezala hartzetik planteatzen zela, ez “euskararen hedapena” edo “gordetzea” helburu zuen politikaren aldetik. Gipuzkoa mailan, Candida Calvo Vicenteren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1930.ean abiatutako eta Estatuak 1938.ean geldiarazitako auzo-eskolen proiektua (aurreikusitako 100 eskoletatik 21 bakarrik egin zirenean) berriz martxan jartzen saiatu zen, 1940.eko ekainaren 15ean. Calvok dio 1942.ean Fernando Aramburu karlista Gipuzkoako Aldunburu zelarik Estatuarekin plan hau berriz martxan jartzeko hitzarmen bat zinatutela Aldundiak eta Estatuak, baina praktikan ez zen martxan jarri, bi arrazoiengatik, bata “Aramburuk 1942.ean bertan Hitzarmen Ekonomikoa berriz indarrean jartzeko eskaera ofizial bat egin zuelako” (beraz Estatuaren begieta susmagarri bilakatu zen) eta bestetik Estatuak ez zuelako nahi euskarazko irakaskuntza berriz indarrean jaartzerik (gogora ezazue 1930.eko baserriguneetako eskolen plana zela berriz indarrean jarri nahi zena, eta orduko plan horrek euskarazko irakaskuntza aurreikusten zuela). Beraz, Gipuzkoako baserriguneak kaltetuak suertatu ziren, bertako umeek eskolara joateko aukerarik izan

⁸⁸³ AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIOZOLA, Jon: *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Alberdania eta Hernaniko Udala. Hernani, 2007, 244. or.

⁸⁸⁴ TORREALDAI, Joan Mari: op. cit., 1998, 111. or.

⁸⁸⁵ CALVO VICENTE, Candida: “Los límites del consenso franquista...”, op. cit., 32-33. or. Egia da karlisten artean nolabaiteko euskaltzaletasuna izan bazela, baina Errepublikaren aurkako Estatu-kolpearen geroztik euskaltzaletasun hortaz ahantzi egin ziren. Altxatuek espainiar nazionalismo uniformizatzailea euren ideologiaren zutarrietako baten gisa zuten, eta karlistak arazo handiegirik gabe egokitu ziren honetara.

⁸⁸⁶ Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 22 dokumentu-sorta.

ez zutelarik (kasu batzuetan auzokideek eurek irakasleren bat kontratatu behar izaten zuten, edo apaizari klaseak eman zitzaizkaten) ⁸⁸⁷.

Zuzenean euskararen kontra ez, baina nolabait "euskal giroaren" kontrako jarreratzat har dezakegu (ez dakigu halakoetan euskaltzaleak edo abertzaleak biltzen zirelako) 1938.eko maiatzaren 20an, Beasaingo komandante militarrek Beasainen eta honen zonaldean idi-probak eta topekak debekatu izana ⁸⁸⁸.

Emaitza bezala, euskara guztiz desagertu zen Beasaingo kaletik. Hori azaltzen diguten testigantza asko aurkitu ditugu; ez soilik euskaldunenak, baizik eta beasaindar erdaldunak ere jabetu ziren euskararen kontrako errepresioaz, orain ikusiko dugun moduan. Ibaibarriaga Usabiaga neba-arrebek hori aipatzen digute: "Francoren garaian kalean euskaraz ez zen tutik ere egiten" ⁸⁸⁹. Milagros Aranburu Mujikaren arabera, "orduan, kalean euskaraz hitz egitea erabat debekatua zegoen" ⁸⁹⁰. Eta esan bezala, erdaraz aritzen zirenak ere jabetu izan ziren euskaldunek euren hizkuntzan aritzeko aukerarik ez zutena, adibidez, Jesus Lopez Gallego: "Euskara oso zapaldua zegoen. Nik banituen lagunak euskaldunak zirenak, baina kalean ez zitzaien bururatu ere egiten euskaraz hitzik egiterik" ⁸⁹¹. Frantziska Peñagarikano Dorronsororen arabera, "guda ostean hemen ez zegoen euskaraz egiterik" ⁸⁹².

Euskarak gainera, nolabaiteko desprestigio ideologikoa jaso zuen: hau da, guda galdu zutenekin, hots, erregimenaren etsai ideologikoekin, "aberriaren etsaiekin" identifikatua zen hizkuntza bat zen. Peio Martinez Otaegik dioen moduan "euskara egiten zutenei iraindu egiten zieten "los rojos" (sic; "gorriak") deituz" ⁸⁹³. Milagros Aranburu Mujikak dionez "(guda ostean nagusitu zirenak) jende oso txarra zen, euskarari erabateko herra zioena" ⁸⁹⁴. Isabel Peñagarikano Dorronsororen arabera, "gure osabak beti esaten zuen haiek (hau da, erregimenaren aldekoek, guda irabazi zutenek) guri euskaraz hasten baziren, guri zerbait eskatzeko izango zela" ⁸⁹⁵; hots, jende horrek

⁸⁸⁷ CALVO VICENTE, Candida: "La enseñanza en la zona rural...", op. cit., 171-173. or.

⁸⁸⁸ Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 80 dokumentu-sorta.

⁸⁸⁹ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

⁸⁹⁰ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. 2014-VIII-5.

⁸⁹¹ Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

⁸⁹² Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9.

⁸⁹³ Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri eginiko elkarrizketa. Ordizia, 2014-XII-17.

⁸⁹⁴ Milagros Aranburu Mujikari egindako elkarrizketa. 2014-VIII-5.

⁸⁹⁵ Frantziska Peñagarikano Dorronsorori eta Isabel Peñagarikano Dorronsorori egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-9.

4. kapitulua

(agintariak, boterean zegoen jendek edo “ospea” zuenak) ez zuen normalean euskaraz egiten, jatorriz euskaldunak ziren arren. Aitor Gamendiak ere berdina esaten digu: “Zenbait jenderekin ez zegoen euskaraz egiterik”⁸⁹⁶.

Beasainen ez dugu ezagutzen ikastola sortu aurretik, euskararen aldeko ekintza “antolaturik” (orduan, halako ekintzak klandestinoak izan behar ziren). Bai ordea Ordizian, han Alegiko fraide batek, “aita Jonek”, euskarazko antzerki-talde ezkutuko bat antolatu zuen, Fernando Garate ordiziarrek kontatzen duenaren arabera⁸⁹⁷.

Halako baldintzetan, euskararen babestoki bakarra etxea izan zen. Hau ez da berria Euskal Herrian euskara aztertu dutenen artean, adibidez, Euskaltzaindiak berak, 1979.ean ateratako *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* liburuan aipatzen du, “momenturik larrietan, euskararen babeslekua familia izan dela”⁸⁹⁸. Frankismotik at kokatezarren, 1863 eta 1936 urteen artean Nafarroan euskarak izan zuen bilakaera historikoari (eta batez ere Uitz herrian zentratuz) buruzko azterketan Xabier Erizek antzeko ondorio bat aurketu ditu: hau da, herrian bertan, harreman pertsonalen arloan (gogoratu behar dugu mende aldaketa horretan hasi zela batez ere Estatu modernoa eta bere aparailu erdaltzailea txoko guztietara heltzen), euskararen defentsarekiko jarrera aktiboa izan zen honen iraupena bermatu zuena (euskararen aldeko ekintza politiko edo kolektiborik egin gabe, esan beharra dago. Ohar hau egiten dut, frankismo garaian, halako ekintzak egitea ezinezkoa zelarik, harreman pertsonaletan euskararen alde jokatzearen garrantziaz ohartarazteko)⁸⁹⁹. Gure kasuari dagokionez, lekuko askok kontatzen digute halako jarraipen bat izan zuela gure hizkuntzak etxeetan. Adibidez, Ibaibarriaga-Usabiaga familiaren etxean kontatzen digutenez; “aitak beti esaten zuen, etxearen sarrera barrurantz igarotzerakoan, hizkuntza bakarra zegoela bertan: euskara. Kanean bakoitzak ahal zuena egitea zuela, baina etxean, euskaraz”⁹⁰⁰. Patxi Lasa Imazen arabera, “orduan euskara etxeetan egiten zen, etxeetan bakarrik”⁹⁰¹. Baina, noski, horrek bazuen nolabaiteko ifrentzua, izan ere, etxea euskararen babesleku bakarra bilatzeak,

⁸⁹⁶ Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VII-16.

⁸⁹⁷ GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: op. cit., 35. eta 91. or.

⁸⁹⁸ EUSKALTZAINDIA eta SIADECO: *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Euskaltzaindia. Bilbo, 1979, 46. or.

⁸⁹⁹ ERIZE ETXEGARAI, Xabier: *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1963-1936. Soziolinguistika Historikoa eta Hizkuntza Gutxituen Bizitza*. Nafarroako Gobernua. Iruñea, 1997, 343-351. eta 527-530. or.

⁹⁰⁰ Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-XI-15ean.

⁹⁰¹ Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-25.

euskarari hitzun berriak lortzea galarazi egin zion. Honela kontatzen digu Pako Ruiz de Apodaka ordiziarrek: “Euskaldunak ez ginen etxeetan, euskararekiko kontaktu guztia galdu genuen”⁹⁰². Guraso euskaldunak eta seme-alaba erdaldunak bizi izan ziren etxe batzuetan, egun oso arraroa den konbinaketa (egun, ohikoagoa da alderantzizko kasua, familia erdaldunetan euskaraz hazitako seme-alabak aurkitzea, hemen erakutsi dugun kasua baino). Euskararen galera progresiboa familia euskaldunetan ere gertatu izan zen, Lourdes Martinez Otaegik esaten digun moduan: “gure etxean aiton-amonek euskaraz bazekiten, baina osaba-izebek jada ez”⁹⁰³. Hau gertatzen baita ere oso abertzaleak ziren familietan, Irizar Aranburu familiaren etxean kasu. Ixabel Irizarrek dioskun moduan “gure etxean asko saiatzen ziren gurasoak guk euskaraz egin genezan, aita *Zeruko Argia* aldizkariaren harpidedun zen, Umandi gramatika ere erosi zuen, eta baita *Xabiartxo* ere”⁹⁰⁴. Hala ere, hori nonbait gutxiegi zen kanpotik zetorren uholde erdaltzaileari aurre egiteko, hala esaten digu bere ahizpa Teresa Irizarrek: “Etxekoa ez zen nahikoa euskarari eusteko, eta gu pixkanaka erdi-galtzen hasi ginen. Gero, kontzientzia hartzearekin batera berreskuratu genuen”⁹⁰⁵. Halako batzuetan, guraso euskaldunek, batez ere familia antifrankistetan, nolabaiteko “etekina” ateratzen zioten baita seme-alaben akulturizazioari; Eleuterio Aiesta Kristobalenak kontatzen digunez “politikaz hitz egin behar zutenean, gurasoak euskaraz hasten ziren, guk ikasi ez eta ulertzen ez genuelako” (familia jeltzale batean hazitakoa da Aiesta Kristobalena)⁹⁰⁶.

Beraz, etxea zen euskararentzako babesgunerik nagusia, bai Beasainen eta baita ere inguruko herrietan. Ordizian gainera bazegoen beste gune bat euskararen babesleku gisa funtzionatu zezakeena, gainera ez soilik ordiziarrentzat, baizik eta goierritar guztientzat: Ordiziako azoka. Izan ere, azoka horrek jendearen arteko harreman-gune bezala funtzionatzen zuen, eta han saltzen zuten gehienak baserrikoak izanagatik (beraz, euskaldunagoak), harreman horiek euskaraz gertatzeko aukera handiagoa zegoela⁹⁰⁷.

Hala ere, esan bezala, halako babesguneak ez ziren nahikoa Estatuaren politika oso bati aurre egiteko. Halako euskararen kontrako politikak Beasainen bertan ere

⁹⁰² Pako Ruiz de Apodaka Galarzari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-18.

⁹⁰³ Lourdes Martinez Otaegiri eta Peio Martinez Otaegiri egindako elkarrizketa. Ordizia, 2014-XII-17.

⁹⁰⁴ Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-9an.

⁹⁰⁵ Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-VII-9an.

⁹⁰⁶ Eleuterio Aiesta Kristobalenari egindako elkarrizketa. Beasain, 2014-VI-11.

⁹⁰⁷ GARMENDIA, Larrait eta ETXABE, Karnele: op. cit., 105. or.

4. kapitulua

euskara galzorian utzi zuten. Andoni Sarriegiren arabera, 1960.eko hamarkadan, euskara ia desagertuta ageri zen Beasaingo kalean; 1966.eko inkesta batek, Beasain bezalako herri batean, populazioaren %70ak erdaraz bakarrik zekienaren emaitza eman zuen, eta beste %14,6k “erdaraz ondo eta euskaraz gaizki”. Euskara ondo zekitenak %15,4 bakarrik ziren, %0,5 euskaldun elebakarrak zirelarik. Oso datu beltzak ziren euskararen iraupenerako, eta joera honek aurrera segitu izango balu, 1975.erako (diktadorearen heriotza urtea eta trantsizioa hasi zen momenturako), euskararen patua itzulezina izan zatekeen. Sarriegiren arabera, 1965.ean ikastola sortzeak lortu zuen Beasainen euskarari bizitasuna ematea, eta aurreko joera, pixka bat bazen ere, itzularaztea⁹⁰⁸. Ondoko herrian, Ordizian, antzeko zerbait gertatu zen, herri honetako euskararen bilakaera ikertzen duen liburuaren arabera, 1968.ean Jakintza Ikastola sortzeak euskarari bultzada handia eman baitzion⁹⁰⁹.

⁹⁰⁸ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: “Euskara Beasainen azken mendeetan”; op. cit., 16-17. or.

⁹⁰⁹ GARMENDIA, Larraitx eta ETXABE, Karmele: op. cit., 33. or.

5. KAPITULUA: ONDORIOAK

Beasaingo XX mendeko lehen zatiko historia oso gorabeheratsua izan zen. Ez da gutxiagorako, Gipuzkoan industrializazioaren aitzindari den herrietako bat bera izan baitzen. Beasaingo historia modernoaren lehen pausuak, XIX mendean jar ditzazkegu, Loinazko San Martinen Burdin fabrika, egungo CAFen kimua, ireki zenean. Hala ere, benetan Beasain sozialki modernizatzen hasi zeneko garaia, XX. mende bueltan izan zen. Honekin batera etorri zen populazioaren hazkundera eta Beasain Gipuzkoan hazkundera tasarik eta kanpoan jaiotako populazio tasarik altuenetakoa zuen herria bilakatu zen. Garai hartan, “fabrika haundiek” bere instalazioaz berritzeaz gain, herriaren lehen hiri-zabalkundera eman zen, hirigintza-plangintza baten arabera egin zena. Honen bidez, zerbitzu berriak ere ekarri zituen mende hasieran Jose Migel Iturriotz alkate liberalak; adibidez, osasun eta hezkuntza sarearen hedapena, herri industrial batetan eman ohi den superpopulazioak dakartzan arazoak konpontzeko. Garai honetakoak izan ziren baita Beasaingo lehenengo ur-ekarketa plangintzak, herriaren ur-eskasia arazoa konpontzeko bide gisa. Beasainen izan zen industrializazio eredua, Gipuzkoako beste herriaren eman zenaren antzekoa izan zen, hau da, gizarte industrialak gizarte zaharra ordeztu ordez, honekin bat eraiki zuen gizarte berria, haren ezaugarri guztiak ezabatu ez zituelarik: Beasainen oraindik baserri bizitzak, nahiz eta XX mendetik aurrera gutxieneko sektorea izan, paper garrantzitsu bat izan zuen Errepublika garaia arte.

Beasainen ideia liberalek nahiko azkar zipriztindu zuten herri bat izan zen. Hala ikusten dugu monarkia garaian: Gipuzkoako joera nagusiaren kontra, Beasainen nagusigoa liberalek zuten, monarkikoen zein errepublikanoen, eta azken horien presentzia oso handia izan zen. Errealitate horrek erakusten digu politizazio handia eman zela herrian. 1931.eko jada lau alderdi antolatuta zeuden Beasainen: errepublikanoak, sozialistak, abertzaleak eta karlistak; anarkisten sindikatua 1935.ean azaldu zen. Hala ere, konfliktibitate soziala nahiko txikia izan zen bertan, 1919.eko grebak kenduta, ez zen eman istilu handiko lan-arazorik bertan, ez Errepublikaren aurretik, ezta garai horretan ere, eta greba kopuru osoa ere nahiko txikia izan zen. Izaera moderatu hau, herriaren beste marka bat izan zen. Bestetik, herrian zegoen giro liberal edo aurrerakoi hau, alderdiez gain, aisialdi-elkarteak sortzearekin nabarmendu zen: Elkarte hauek harremanetarako beste marko bat ematen zuten, gizarte tradizionalarengandik pixkanaka urruntzen zena; baina beste alde batetik, gremioka edo

“klaseka” banatuta zeudenez, moduren batean klase-bereizketarako bide ere egin zezaketen.

Beasainen borborrean zegoen giro modernizatzaile hau indartu egin zen Errepublikaren etorrerarekin. Esan dezakegu Errepublika, hauxe ezarri baino *lehenago* ere, Beasainen existitzen zen giro soziopolitikoari “zegokion” erregimena izan zela, eta modu batean aurreko elite liberal “aurrerakoien” eta Errepublika garaiko eliteen arteko jarraikortasun bat eman zen: 1931.ean aukeratutako alkatea, Jacinto Urteaga, aurretik alkate izan zen liberal monarkikoen eta errepublikanoen osatutako koalizioaren partetik. Errepublikaren Udalek, egia esan, langile sektoreetako pertsonak zinegotzi izatea ahalbideratu bazuen ere, oro har, monarkia konstituzionalaren garaietan nagusi zen erdi-mailako klase aurrerakoien nagusikoa mantendu zuten. Sozialki beraz, Udal ezberdinen artean ez zen hausturarik eman, eta Errepublikaren eta frankismoaren Udalen artean ere, haustura politikoa eman arren, ez zen haustura sozialik eman. Horren adibide dugu Udal ezberdinetan elkarrekin bereko, Usurbe elkarteko kideak amankomuna zuten zinegotzi asko egotea. Kasu batzuetan jarraipen fisikoa ere eman zen, adibidez Arana Gaiztarro familiaren kasuan: Pedro Arana 1922 eta 1923 artean alkate izan zen liberalen eta errepublikanoen koalizioaren aldetik, Serafin Arana 1931 eta 1936 artean zinegotzi errepublikanoa izan zen, eta Pedro Arana bera frankismoarekin 1937 eta 1940 artean alkateorde izan zen. Beraz, sektore liberal “aurrerakoi” hauek, Beasainen Errepublikarekin boterea mantendu zuten, ezker erradikalaren igoera bat gertatu ez zelarik, eta ikusi bezala, kasu batzuetan, 1936.eko gudan, euren klase soziala ideia aurrerakoien edo liberalen gainetik jartzea ere izan zuten.

Beasainen Errepublika oso modu onean hartua izan zen, hori ikusten dute hauteskunde emaitza ezberdinek; nahiz eta esan beharra dagoen 1931.eko maiatzeko Udal-hauteskundeetan EAJ ez aurkezteak jada egon bazegoen ezkerreko gehiengoak puztu egin zuela. Beasainen Udal errepublikanoak ekarritako aldaketek ere harrera ona izan zuten, Loinazko San Martin Enparantzari izena aldatzeko asmoak salbu. Izan ere, Gipuzkoako herri industrializatuenetan gertatzen zen moduan, Beasainen ezkerreko indarrak nagusi izan ziren. Beste alde batetik, Errepublikako lehendakariak, Alcalá-Zamorak, Beasainera egindako bi bisitaldietan jasotako herri-harrerak eta Udalak hartutako erabakiek ondo erakusten dute zein izan zen herri honen “tenperatura politikoa”. Beasaingo Udalak eta Urteaga alkateak bat egin zuten Gipuzkoako Aldundiak abiarazitako Autonomi Estatutu proiektuarekin; hemen ere bat egin zuten

ezkerrari bozka eman ohi zioten herri industrialetako Udalekin. Gipuzkoako Udal txiki gehienek, aldiz, abertzaleek eta karlistek babesten zuten Lizarrako Estatutu-proiektuarekin bat egin zuten. Bestetik, agerian utzi behar dugu 1931.eko apirilko Errepublika ekarri zuten indarrek Beasainen nagusigo politikoari eutsi izan ziotela, hau da, 1931.eko adostasun hori gutxi-gora-behera nahiko berdintsu mantendu zela Errepublikaren urteetan, ezkerraren barruan indar moderatuek kontrola galdu ez zutelarik. Izan ere, Beasainen anarkisten presentzia txikia izan zen, eta komunistena are txikiagoa. Egoera honi salbuespena, 1933.eko azaroko hauteskundeetan aurkitzen dugu, EAJk Beasainen irabazi zuenekoan, baina kasu horrek EAJren indar gorakorra (Gipuzkoan eta Euskal Herrian gertatzen zen bezala) erakusten badu ere, salbuespeneko egoera bati erantzuten zion: ezkerre banatuta eta lur jota joan zen hauteskundeetara, eta EAJ ordea, haizea alde zuela, Estatutuaren aldeko kanpaina eta erreferendum arrakastatsuen ondoren.

Beasainen ere, 1934.eko gertakariak herriaren moderazioa erakutsi zuten, ez abuztuan ez urrian ez baitzen inolako bortizkeriarik azaldu, ezta ere sistema puskatzeko ahaleginik izan. Moderazio honek, nolabait, bi mundu ezberdinen, hau da sozialisten eta jeltzaleen artean, akordioa egitea ahalbidetu zuen, eta honek Beasainen nahiko ondo funtzionatu zuen: ezkerreko alderdiek zuzendu zuten 1934.eko abuztuko Udalen mugimendua (jeltzaleekin batera), 1934.eko urrian ELAko zenbait kidek grebarekin (sozialistek zuzendutako mugimenduarekin) bat egin zuten, eta 1936.eko uztailean, ezkerreko gehiengodun Defentsa Komitean jeltzaleak ere sartu ziren. Krisi ekonomikoa zela eta, sindikatu sozialista eta abertzalea batera eseri ziren herriko eragileekin konponbideren bat topatzeko hainbat alditan. Horrek azal dezake bi indar hauen artean zergatik izan zen gure herrian hain tentsio txikia (agian 1931.ean izan ziren salbuespen batzuekin).

Ideologia ezberdinen eta mugimendu politikoaren parean, bestelako sentimendu bat ere hazi zen, hain zuzen ere, nolabaiteko amankomuneko beasaindertasuna, herritarren izate komuna bestelako zatiketen gainetik ezartzen zuena. Honekin ez dut esan nahi herritarren sentimendu amankomun hau Beasainen soilik eman zenik, izan ere Euskal Herrian, norbere herrikoa izatea oso sustraituta dagoen sentimendu bat da. Baina Beasaingo izate hori are harrigarriagoa da, ikusi izan dugun moduan Beasain oso herri politizatua izan baitzen eta XX. mendeko lehen herenean izandako populazio-hazkundera kasu handi batetan kanpotik etorritako immigrazioari esker eman zelako.

Faktore hauetako lehenak tentsio politiko handia sorrarazi zezakeen eta bigarrenak bi komunitate bereizi sortzeko aukera zabalik utzi. Beasaindartsun amankomun hau modu ezberdinez agertu izan zaigu historian zehar. Adibidez, XX. mendean, lehenbizi Loinazko San Martinen herritartasunaren inguruan Bergararekin izandako lehia zehar; edo gero Beasainen sortutako kultur edo kirol elkarte ezberdinen sorreran; ideologia ezberdinetako gazteak bildu ahal zituelarik. Izan ere, hauetako elkarte batzuek nortasun politikoaz gainduko mugak izan zituzketen, adibidez klasekoak, Usurbe Elkartearekin gertatu bezala. II Errepublikan ere agertu izan zen beasaindartsun hori, adibidez CAFen krisiaren aurrean, herriko alderdi politiko ezberdinen, sindikatuen, patronalaren eta elkarte ezberdinen artean arazo horri konponbideak topatzen saiatu izan zirenean. Baita Udalak hartu nahi zuen erabakien kontra ager zitekeena, adibidez Loinazko San Martin Enparantzari izena aldatzearen aurka. Kasu honetan Beasaingo herritarrek, eurek bozkatzeko zuten alderdien ideial laikoan aurretik, herria ezagun egin zuen santua jarri zuten. Guda Zibilaren egoerarik gogorrenetan ere agertu zen nolabaiteko herri-sentimendu hau, adibidez Beasaingo Defentsa Komiteak preso eskuindarrei emandako tratu onean. Frankismoan ere baditugu honen zantzuak, esaterako, Udaleko zinegotzi batzuek, salbuespena izan arren, erregimenari zor zioten leialtasunaren aurrean jazarriak ziren herriak laguntzeko interesa jarri zutenean, edota garaituen nolabaiteko “ber-integrazioa” lagundu zuen futbol-taldea sortu zenean.

Hala ere, beasaindartsun amankomun hau baloratzea beharrezkoa bazaigu ere, ez gara kontrako tentazioan erori behar: hau da, hau ideializatzean, honen eragina gainezkatuz, garrantzia handituz edota “ideologikoki” ideializatuz. Kontuan izan behar dugu sentimendu hau ez zela izan sentimendu homogeen edo antolatu bat, modu koordinatuan agertzen zena. Alderantziz, askotan beste gertakari bati eman ahal izateko erantzun mota posible bat zen, modu nahiko diskontinuoan agertzen zelarik; beraz, gehienetan “erreakziozko” adierazpide bat zen. Bestetik, beasaindartsun honek, ez du suposatzen hau praktikatzen zutenengan ere bestelako ideologiak edota identifikazio moduak desagertu zirenik, ez da ideologiaren edota klase-antolaketaren gainetik ezarritako zeozker, baizik eta “hauen ondoan” ezarritakoa. Azkenik, ezin dugu aurkeztu berez ideologikoki purua edota “aurrerakoa”, hots, parekidea, berdinkidea, parte-hartzailea izango zatekeen zerbait bezala; halakoa izan zitekeen, edo hala adierazi zitekeen, baina ez halaberrez: baita ere ideologia edo egoera atzerakoiak justifikatzeko edo zilegiztatzeko modu bat izan zitekeen. Errepublika garaian, nolabait

langileen egoera latzari konponbide bat topatzeko alderdi eta sektore sozial ezberdinen arteko topaketa erraztu bazuen eta hala langile erakundeak mintzakide bezala zilegiztatu zituen. Mende hasieran herritarren aisialdi kolektiborako baliabideak -kirol taldeak edo dantzalekuak, adibidez- ezarri zituen eta hala gizartearen modernizatzea eta nolabaiteko klase-mugen leuntzea erraztu zituen.

Frankismoan, aldiz, kirolaren bidez bultzatutako “ber-integrazioak” praktikan erregimena ez kuestionatzea ekarri zuen, “integrazio” hori botere politikoa zuen eta elkarbanatzeko prest ez zegoen pertsonetatik zetorrelako. Pribilegioak zituen eta horiei uko egiteko prest ez zegoen sektore batek bultzatutako “integrazioa” zen, hierarkia soziopolitiko hori arriskuan jarri ez zuena. Bestetik, epaiketen aurreko “laguntza individualak”, hau da, gehienetan zinegotzi jakin batek herritarren alde eginiko bitartekaritza lanak, kasurik onenean, karitate-sistema baten antza izan zezakeen, sistema errepresiboan funtsezko aldaketak eragiteko ezgai zena eta “laguntzailearen” edo “mesede-egilearen” aldetik, norbanako mailan geratzen zen borondate on pertsonalera mugatzen zen dena. Kasurik txarrean, ordea, ustelkeriari edota abusoei bide egin ahal zion, “mesedegileek” “mesedea kobratzearen” truke zerbait eskatu zezaketelako.

Azaldu dugun konfliktibitate horrek eta Beasaingo joera politikoak azaltzen du, parte handi batean, 1936ko uztailean, Gerra Zibila hasi eta berehala herrian 35 pertsonaren heriotza ekarri zuen sarraskia (39 hurrengo egunak kontutan hartuz). Gipuzkoan, Arrasaterekin batera, Beasain “berotan egindako hilketen” artean nolabaiteko salbuespena da. Kasu honetan, historiagilearen lana jarraituz, sarraski honen logika ulertzeko ahalegin bat egin dugu. Hilketa hauen arrazoiak eta motibo-logika ulertzeko aurretik Beasainen gertatutako gertakariak eta hilketen izaera, bai nolakotasunagatik, eta baita hildakoen izaeragatik, aztertu dugu. Gure ustez, Beasainen, kontuan izanik II Errepublikako urteetan zehar, eta Guda Zibilean Beasain errepublikanoen menpe egon zen egunetan zehar tokiko ezkerak oso modu moderatuan jokatu zuela, ezin dugu esan heriotza hauek mendeku logika bati jarraitu ziotenik. Gure ustez hurbilago dago beldurra ezartzearen logikatik edota “zigor kolektiboaren” logikatik, mendekuaren logikatik baino. Beraz, gure ustez, Beasainen halako sarraskia egiteko erabakia, edo sarraskira eramango zuen erabaki multzoa nahiago bada, “kanpoan” hartu zen, hau da herritik kanpo etorri ziren militarrek hartu zuten. Izan ere,

Ondorioak

hauek izan ziren, bai herria “gorritzat” zutelako, bai Gipuzkoan beldurra zabaldu nahi zutelako, herrian hainbeste hildako eragin zutenak.

Beasainen hildako gehienak bi multzotan sailka ditzakegu: momentu horretan sartu ziren tropa altxatuen kontra armak hartutakoak, edota behin hauek herriaren jabe egin ostean, kalean beste gabe topatutako bizilagunak. Hildakoei so eginez, ikusi dugu hildakoen zerrendan, Beasaingo eskuindar ezagunak ere bazeudela; sarraski-erabakiaren arduradun edota “piztaile” nagusiak herritarrak, Beasaingo eskuindarrak, izango balira, nekez aginduko zuketzen pertsona hauek hiltzea. Gipuzkoan sarraldia gertatu eta gutxira gertatu zen bete herriarekin, Arrasaterekin alderatuz, Beasainen ez zen izan inolako prozesu iraultzailerik (ez gudan zehar, ez aurretik). Beste alde batetik, Beasainen hildakoen, borrokan parte hartu zutenetatik aparte, ez zuten profil bateratu bat, eta gehienetan politikatik at zen jendea izan zen, Arrasaten ez bezala. Honek esan nahi du heriotza erabaki zutenek alde batetik hildakoen artean bereizi ez zutela, hau da, zigortuaren profila “beasaindarra” izatea zetzala, ez hainbeste “iraultzailea”; “beasaindarra” izatea berezko bekatua bailitzan, ezer besterik behar izan gabe.

Baieztapen horrekin ez dugu inolako lehiaketarik egin nahi, ezta Beasainen sarraskiak izan ziren beste edozein herritan baino jende gehiago hil zenik ere. Sarraskiaren zioa azaldu nahi dugu; beste toki batzuetan hilketak selektiboagoak izan zitezkeen, eta herrian bertan herritarren arteko bereizketak egin zitezkeen, hau da, “ordenaren aldekoak” edo “eskuindarrak” zirenek bermea izan zezaketen, Beasainen ez ordea. Lehen ereduaren kasurik esanguratsuena Arrasatekoa zen, non hildakoen artean erregimen berriaren etsaiak zeuden (gainera, gehienek ez zuten 1934.ean Arrasaten izan ziren gertakari iraultzaileekin zerikusirik), eta heriotzak herriko eskuinak erabaki zituen. Hau da, joera politikoaren arabera sailkatuta zeuden arrasatearrak eta horrek heriotza-gurpilaren aurrean garrantzia handia zuen. Arrasaten muturreko kasu bat izan zen, eskuineko pertsonak izan zirelako hango presoan patua erabaki zutenak. Beasainen ez zen halakorik gertatu, han ez zen halako bereizketarik egin; eta hori baliteke heriotzaren gurpila martxan jarri zutenak herritarrak ezagutzen ez zituztelako gertatu izana.

Hemen ere, beste ñabardura bat egin beharrean gaude; kasu honetan gudako bi aldeak “bertakoak” eta “kanpokoak” izango balira bezala aurkezteko tentaldiaren kontrakoa. Izan ere, ikusi dugu Beasainen erreketen batzuk jada armatzen eta entrenatzen hasiak zirela, are “kanpokoak” Beasainen zegoen erregimen politikoa, beasaindar

gehienek babestua zena, indarrez kentzera etorri aurretik. Hots, bazeudela “kanpokoan” asmo politikoeekin bat egiten zuten “bertakoak”. Heriotzaren logika “kanpokoek” ezarria izateak ez du esan nahi, inondik inora ere, ez zegoela “barruan” logika horretan kolaboratzeko prest egon ez zenik. Are gehiago, Beasaingo zenbait elementuk heriotza horietan parte hartu zuten. Beste batetik, nahiz eta eskuindar batzuk Guda Zibilean Beasainen gertatutako jazarpena leuntzen saiatu, jazarpen horren “perpetratzaileek” ezarritako erregimenarekin kolaboratu zuten. Beasainen, bertako eskuindarren aldetik ez zen “desertzio masiborik” gertatu. Eskuineko beasaindar gehientzat, heriotzak atsekabegarri gertatu arren, ez ziren izan erregimen berriari babesak kentzeko moduko nahikoa arrazoi. Ez dugu ahaztu behar Guda Zibila klase sozialen arteko guda bat izan zela, ez zonalde geografikoen artekoa, eta “gurean”, klase eta ideologi polarizazioa ere eman zelarik –nahiz eta egia den Espainian baino neurri txikiagoan eman zela-, egon zen baita ere, konbiktzioz frankismoaren alde egin zuenik. Bai Gudan, erreketean Loinazko San Martinen Konpainia adibide dugularik, zein guda-ondoan.

Heriotzez gain, beste bortizkeria mota berezi batekin ere topo egin dugu; hain zuzen ere, emakumeen kontrako bortizkeria. Hau, erailketekin gertatzen den kontrara, ez da oroimenean “hain ondo gordetako” bortizkeria bat, baizik eta oroimenean lausoago gorde den bortizkeria bat. Horren adierazgarri da gehienetan lekukoak biktimen izenak gogoratzeko gai ez direla. Bortizkeria honen bidez hiru helburu bete nahi zituzten altxatuek: a) Genero zigorra ezartzea: pentsamendu atabikoa jarraituz, “etsaia bere emakumeen bidez zigortzea” edo “etsaiaren emakumeen kontrolaren jabe” egitea; b) herria beldurtzea, zigor “aleatorio” bat ezarriz: askotan emakume zigortuak ez ziren arrazoi konkretu batez zigortuak izanen, baizik eta “nor ziren” kontutan izanda; eta d) emakume zigortuak lotsaraziaz, herriaren edo biktimen komunitatearen batasuna haustea. Emakumeen kontrako zigor hauek, guk ezagutzen ditugunez, gehienetan ilea moztea izaten ziren. Bortxaketak eman izana oso posibletzat jotzen badugu ere, ez dugu dokumentatzerik izan. Lan honetan ikusi dugunez, genero-bortizkeria honi dagokionez, Beasainek ez du inongo araurik puskatzen, baizik eta kasu nahiko paradigmaticoa azaltzen zaigu, altxatuek, hartzen zuten edozein “kontrako herritan” halakoak egiten baitzituzten.

Guda osteko errepresioa ere gogorra izan zen beasaindarrentzat. Errepresio honen bidez, beste hamar beasaindar hil zituzten, epaiketarekin eta epaiketa gabe, bosna; eta beste asko kartzelaratu edo langile-batailoietara bidali zituzten. Azken hauek,

langile-batailoietara bidalitakoak, kondenarik gabe ere bidaltzen zituzten: errugabe deklaratu izatea, edo norberaren kontrako kausa sobreseitua izatea, ez ziren inolako bermea. Honek erakusten du errepresioa “egindakoagatik” baino “izandakoagatik” ezartzen zitzaiela garai horietan presoek, askotan kondena gabe ere zigortzeko halako jukutriak erabiltzen baitziren. Beasainarren artean, zigortutako gehienak sozialistak izan ziren, Alderdi Sozialistako edo UGTko kideak. Hala ere, honen bidez ez dugu esan nahi Beasaingo kasu konkretuan alderdi honetako kideak gogorrago zigortuak izan zirenik; zigor gogorrak, heriotz-zigorra edo bizi arteko kartzela-zigorra, jaso zutenen artean beste ideologietako pertsonak ere agertu baitziren.

Sozialisten kontrako errepresioaren datu-kopuru handiak, gure ustez, badu beste esplikazio bat: Beasainen, armak hartu zituztenen, edo politikoki aktibo zirenen artean, gehienak esparru ideologiko horretakoak izatea. Hala ere, egia da oro har, Euskal Herrian, abertzaleekin edo errepublikanoekin alderatuz, egon zitekeela sozialisten kontrako errepresio handiagoa, Beasainen fenomeno bitxi bat ikusi baitugu; sozialista ezagun batzuek, tartean alkateak eta zinegotzi batek, ukatu egin zuten Alderdi horren kide izatea, eta galdeketa egiten zietenei *Izquierda Republicanako* kide zirela esan zieten. Honek, gure ustez, erakusten du oro har, Euskal Herri mailan edo Espainia mailan arau bezala bazegoela sozialisten edo langile erakundeen kontrako errepresio handiagoa, eta Beasaingo sozialistak honen kontzientzia bazutela. Beste alde batetik, jabetu izan garenez, alderdi batetako kide izatea gogorrago zigortzen zen sindikatu batetako kide izatea baino: bai PSOEko zein EAJko presoek askotan ukatu egiten zuten alderdi horietako kideak zirela, aldi berean, UGTko edo ELAko kideak onartzen zutelarik.

Erregimen berriak, frankismoak, Beasainen gutxiengo baten babesarekin gobernatu behar izan zuen. Errealitate horren emaitzak ez ziren oso positiboak izan. Guda ondoren Beasainen gosea eta eskasia ziren nagusi; hasierako aurrekontuak behintzat, CAFek emandako donatiboen edo “aurreratzeen” bidez soilik osatu ahal izan ziren; eta Udaleko funtzionamendua nahiko kaskarra zen, Udaleko bilkuretarako asistentzia faltan datuek erakusten zuten bezala. Udalean posibleki efizientzia handienarekin funtzionatzen zuen departamentua Batzorde Txostengilea izan zen, zeinak 400 beasaindarretatik gora zelatatu zituen. Hala ere, kontutan izan behar dugu udal frankistak herriaren sektore bat ordezkatzeko zuela, ez zela guztiz isolatutako egitura politiko bat.

Antonio Canales Serrano historialariaren sailkapenari jarraiki, Beasainen bai “garaipen sozialaren logika” zein “garaipen politikoaren logika” ikusi ahal ditugu; hau da, frankismoarekin batera elite zaharrek euren boterea sendotu egin zuten, baina beren ondoan “meritu politikoengatik” boterera iritsitako bestelako pertsona batzuk ere aurkitzen ditugu. Lehen taldeak osatu zuen udalaren multzo nagusia, hori ikusten da adibidez, bai obren kontratista zen Jose Luis Guridi alkate berriarengan, 1934.ean zinegotzi eskuindar izan zen Miguel Cerrajeriarengan, edota 1922 eta 1923 artean alkate (eta ez bereziki orduko koaliziorik eskuindarrenaren partetik) izan zen Pedro Arana Gaiztarrorengan. Hots, Udal berriak, Errepublika aurreko Udalen izaera klasista osorik berreskuratu zuen –“osorik” diogu lehen esan bezala, elementu hori Errepublikako Udaletan guztiz desagertu ez zelako-. Hala ere, hauen artean egon zen baita aurreko elitearen parte ez izan arren, euren militantzia politikoa zela medio botere kuotak lortu zituen sektore bat. Honen adibiderik onena, baina ez bakarra, Rufo Artolain dugu, Udal-talde frankistan fabrika-langile bakarra zena, karlista sutsua.

Guk ikertu dugun aldian, erregimen frankista, dudarik gabe, erregimen totalitario bat izan zen, eta hori ere nabari zen herritarren bizitza eta aisialdia goitik behera antolatzeko izan zuen asmoarengatik. Horren adibide ditugu jai ezberdinak eta baita jaiak ospatzeko modua *diktatzeko* obsesioa. Hau ez dugu nahastu behar, herritarren “pasibotasun” bat bilatzeko asmoarekin: baliteke erregimen horrek nolabaiteko “pasibotasun” hori hurrengo hamarkadetan bilatu nahi izana, baina ez hasierako hamarkada hauetan. Momentu horietan, erregimenak gehiago bilatzen zuen “atxikimendu aktiboa” pasibotasuna baino.

Beasainen, Euskal Herrian arau izan zen bezala, lehen frankismoan ez zen erresistentzia aktiborik izan; eta lehen ekintza txikiak 40.eko hamarkada bukaeran hasi ziren egiten (abertzaleek eta komunistek, guk atzeman izan dugunez). Halako ekintza gehienak, guk ikertu dugun garaian, batez ere “komunitatea” mantentzera, hau da, “oraindik bagaude” esatera mugatzen ziren: bandera batzuk jartzera, elkarrekin ibiltzera, eta salbuespeneko kasuetan esku-orriren bat botatzera. Hala ere, hori garrantzitsua izan zen norbere alderdia iraunarazteko. Halako jarduerarik ere mantentzerik izan ez zuen Alderdi Sozialista, Errepublika garaian herriko alderdi garrantzitsuena, frankismoaren amaieran alderdi minoritarioa bilakatu zen. Beste alde batetik, ez da arraroa halako errepresio gogorraren kasuan, nolabaiteko jarraipen komunitarioa izan zuten alderdiak, komunitate eta ideologia indartsu bat zuten alderdiak izatea, helburu “handi” oso

definitu batekin (proletalgoaren boterea, Euskadiren askatasuna, eta abar). Hau konpara dezakegu liberalekin, euren ideologia askoz ere “malguagoa” edo “difusoagoa” zen, hau da, helburu bati edota “bukaera” bati hainbeste lotu gabea (liberalismoa). Horrek alderdi-identitatea egoera ezberdinetan desagertzea errazten du. Izan ere, liberalismoak ez du (edo badu, ez da hain markatua) ideologia-kideak edozein momenturen aurrean batuta mantenduko dituen helburu zehatz bat. Gainera, kontuan izanik errepublikanoen jarraitzaile gehienak erdi-mailako gizonak zirela, askok erregimen berriaren aurrean “moldatzeko” aukera egin zuten: batzuek, Arana Gaiztarro familiak kasu, erregimen berrian erabat integratu ziren, beste batzuek, politikaz aparte geratu arren, herriko “elitean” nolabaiteko tokia izaten jarraitzen zuten (Usurbe elkarteko zuzendaritzako kide izateak hori erakusten du), eta beste batzuk euren enpresa-jarduerarekin jarraitu zuten.

Nolabaiteko “pasibotasun” hau azaltzeko arrazoiak, errepresio gogorraz gain (oposizioak izan ziren koadrorik garrantzitsuenak, hilak, espetxean, kontzentrazio eremuetan edo erbestean zeuden), jendeak bere arazoak konpontzeko beharra zuen, ez politikan sartzekoa. Bestetik, erregimenak “bortizkerian egin zuen inbertsioak” Beasainen ere bere emaitzak izan zituen, familia gehienek guda zibilean bizitakoa ez baitzieten seme-alabei kontatu nahi. Badaude hura errepikatzeko beldurra hil arte izan zuten pertsonak. Lan honetarako elkarrizketatu dugun pertsona batek esan digun moduan “ahazten saiatu ginen; eta agian hori zen aurrera egiteko modu bakarra, asko sufritu baikenuen”.

Beste alde batetik, aintzat hartu behar ditugu beasaindarrek euren egunerokotasunean jaso behar zituzten zuzeneko edo zeharkako zigorrak. Azken hauetako bat gosearena izan zen. Ezin dugu esan gosea beasaindarren kontra zuzendutako politika baten emaitza izan zenik, nahiz eta herri industrial gisa, bertan baserriguneetan baino gehiago sufritu, baina egia da erregimenaren politika kaskarren emaitza izan zela. Gainera, herritarren egunerokotasuna gogorra Errepublikaren garaiko krisia baino askoz ere gehiago baldintzatu zuen gertakari bat izan zen. Herri testigantza batzuek esaten digutenaren arabera, janariaren banaketaren orduan, erregimeneko agintariak “aldeko familiei” janari kopuru handiagoa ematen saiatzen ziren. Gosea, 40.eko hamarkada hasieran sufritu zen gehien Beasainen, eta herritara askorentzat gudaren eta errepresioaren jarraipena bat izan zen. Azken finean, goseak jokatu zuen

papera, errepresioak jokatu zuenaren antzekoa izan zen, hau da, oposizio posible otzantzea.

Egunerokotasuneko beste zigor bat, euskararen kontrako jazarpena izan zen. Kasu honetan, erregimen frankistak, jada aurretik euskararen zokoratzea ekarri zuten Monarkiaren garaian existitzen ziren politika uniformizatzaileak gogortu egin zituen, bai zigorraren intentsitatean eta baita ere ideologia aldetik; lehen hamarkada hauetan askotan “hiritar ona izatea”, bizitza pribatuan ere, erdara erabiltzearekin erkatzen baitzen. Hala ere, kasu honetan ere, ñabardura bat egin behar dugu, izan ere, altxatuen alde jarritakoen artean, Beasainen euskaldunak zirenak, nahiz eta gero euskara ahazten saiatu edo seme-alabei ez transmititu, ere aurkitzen baititugu. Honela, euskara erabiltzen jarraitzea, kasu batzuetan (hau da, berez euskaldunak zirenen kasuan, jada Beasaingo populazio osoa ez baitzen euskalduna) erregimenaren kontrakoak eta aldekoak bereizteko modu bat izan zen. Honi lotuz, askotan aipatzen den “erregimen barruan karlistek tokiko kulturen alde izan zuten sentsibilitatea” desmitifikatu beharra dugu, izan ere, Beasainen eta Gipuzkoan erregimen berrian karlistak nagusi izaki, ez dugu ezagutzen hauen aldetik euskararen aldeko jarrera orokorrik (bai ordea jarrera puntual batzuk). Karlistak, euren ibilbidean foruzaleak izanda, erregimen zentralista eta euskararen aurkako baten parte erabat izatea onartzeak, frankismoaren beraren eboluzioa atzemateko pista bat ematen digu: frankismoa azken finean, Guda Zibilean borrokatu zuten fakzio guztien koalizio bat izan zen, baina baita ere Guda Zibilaren bidez batera aritu ziren pertsona “eskuindar eta ordenazaleena”, azkenean hauek zirelarik diktadorearen babes sozialaren oinarri nagusia; hala, aurreko fakzio guztiak erregimenean integraturik, baina euren programa politikoa inposatzeko ezgai, izaera galduz joango zirelarik, “erregimenaren tokiko kolore” bilakatu arte. Karlismoak euskarari bizkar-emate hori, horren adibide izan daiteke.

Ikertu dugun honetan, zentralitatea 1936.eko uztailaren 27 eta 28 artean altxatuek Beasainen egindako sarraskiak hartzen du, hau izan baitzen nolabait ondorengo belaunaldiak gehien baldintzatu zituena eta batez ere, herriaren oroimenean pisu handiena utzi zuena. Lan honetan, gutxi-gora-behera gertakari beltz horren inguruan aritu izan gara. Gertakari hori zentruan jarrita, ikusten dugun moduan, Beasainen (eta beste toki askotan) ez zen izan ezer sarraski hori justifikatzen zuenik; eta Guda Zibilaren testuinguru orokorrenekin paralelismo bat egin dezakegu: aurreko egoerak justifikatzen ez zuen kolpe militar baten egileek halako sarrasketara jo zuten

Ondorioak

ordena berria ezartzeko helburu politikoan erabaki hori (sarraskia egitea) lagungarri izango zitzaielakoan.

Beasainen, Gipuzkoako beste herrietan, bezala, sarraski honen inguruan egin izan dira zenbait omenaldi-ekitaldi, batez ere herri-omenaldiak ospatu, monumentuak altxa, plakak jarri edo bertso-jaialdiak antolatu. Lan honek beste urrats bat ematen du, hau da, sarraskiaren nondik norakoak, mekanismoak eta inguruabarrak ikertu eta honen inguruan kontakizun argi bat ezarri du; Gerra Zibilean emandako errepresio mota anitzen puzzlean beste zati bat izan daitekeena. Agian berandu izan da, Guda Zibila bizi izan zuen belaunaldiko gutxi geratzen baitira, baina berandu bada ere, Trantsizioan nagusitu zen “berradiskidantza nazionalaren” doktrina politikoaren gainera, hamarkadez ahaztutako Historia berreskuratzeko ahalegina egin dugu, herri-memoria eta gure diziplinak eskaintzen dizkigun tresnak uztartuz. Eraitza ahaleginaren parekoa izan dadila.

BIBLIOGRAFIA

Ahozko iturriak

Egileak egindako elkarrizketak (kronologikoki ordenatuak)

- Andoni Sarriegi Eskisabel (Beasain, 2014-VI-6)
- Eleuterio Aiesta Kristobalena (Beasain, 2014-VI-11)
- Pako Ruiz de Apodaka Galarza (Beasain, 2014-VI-18)
- Felipe Ibarbia Alustiza eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegi (Beasain, 2014-VI-19)
- Joxe Apalategi Etxeberria (Beasain, 2014-VI-25)
- Patxi Lasa Imaz (Beasain, 2014-VI-25)
- Jesus Lopez Gallego (Beasain, 2014-VI-25)
- Roberto Begue Sarasola eta Yolanda Begue Redondo (Beasain, 2014-VII-27)
- Mila Mendia Aramendi (Beasain, 2014-VII-2)
- Iñako Beola (Beasain, 2014-VII-3)
- Maria Pilar Lozares Sarasketa (Beasain, 2014-VII-3)
- Jabier Garcia Bergara (Beasain, 2014-VII-3 eta 2014-VII-22)
- Maria Ixabel Irizar Aranburu eta Teresa Irizar Aranburu (Beasain, 2014-VII-9)
- Frantziska Peñagarikano Dorronsoro eta Isabel Peñagarikano Dorronsoro (Beasain, 2014-VII-9)
- Aitor Garmendia Goitia (Beasain, 2014-VII-16)
- Amaia Alonso Garate, Jose Maria Alonso Lamata, Sara Alono Lamata eta Angel Lamata Villahoz (Donostia, 2014-VII-17)
- Ramon Perez Onesimo (2014-VII-30)
- Alicia Polo Arce eta Mikel Apaolaza Polo (Beasain, 2014-VII-30)
- Jose Maria San Martin Osinalde (Beasain, 2014-VII-30)
- Amaia Gamarra Larrauri (Beasain, 2014-VIII-1)
- Milagros Aranburu Mujika (Beasain, 2014-VIII-5)
- Juan Ramon Crespo Imaz (Beasain, 2014-VIII-5)
- Xanti Lasa Aranburu (Beasain, 2014-VIII-5)

Bibliografia

- Arantza Ugarte Azkarate eta Maria Rosario Ugarte Sukia (Beasain, 2014-VIII-5)
- Juan Unanua Artolain (Beasain, 2014-IX-5)
- Joxe Manuel Azurmendi Dorronsoro (Donostia, 2014-IX-10)
- Xabier Aierdi Aldasoro eta Ane Barandiaran Erauskin (Getaria, 2014-IX-12)
- Eduarne Alegria Aierdi (Getaria, 2014-IX-12)
- Sara Bujanda Olanan eta Jose Maria Bujanda Olanan (Beasain, 2014-IX-18)
- Sara Unanue Lobeto (Donostia, 2014-X-1)
- Bernardina Aldasoro Ormazabal (Beasain, 2014-X-30)
- Lourdes Martinez Otaegi eta Peio Martinez Otaegi (Ordizia, 2014-XII-17)
- Rosa Larrañaga Agarrista eta Miren Atxaga Larrañaga (Gasteiz, 2015-V-26)
- Arantza Ibaibarriaga Usabiaga eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiaga (Donostia, 2015-IX-15)

Hirugarren pertsonen egindako elkarrizketak

- Alfontso Ibaibarriaga eta Antonio Zubillagari Markel Olanok egindako elkarrizketa (Beasain, 1990.eko hamarkadako data zehaztugabea). Jose Antonio Imazek lan honen egileari emandakoa (kasete eta idatzizko formatuan).
- Rosario Larreari Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek egindako elkarrizketa (Beasain, 2012-IV-14). Elkarrizketaren egileek lan honen egileari emandakoa (bideo formatuan).
- Anselmo Ruizi Alberto Alonso Cacharro eta Josu Lopez Castañaresek egindako elkarrizketa (Beasain, 2013-III-25). Elkarrizketaren egileek lan honen egileari emandakoa (bideo formatuan).

Idatzizko iturriak

Kontsultatutako artxiboak

- Beasaingo Udal Artxiboa
- Beasaingo Bake Erregistroa
- Eibarko Udal Artxiboa
- Ordiziako Udal Artxiboa
- Gipuzkoako Artxibategi Forala (Tolosa)
- Gipuzkoako Artxibategi Historiko Probintziala (Oñati)

- Koldo Mitxelena Kulturunearen hemeroteca (Donostia)
- Aranzadi Zientzia Elkartea (Donostia)
- Eusko Jaurlaritzaren Irargi Artxiboa (Bilbo)
- Ipar-Mendebaldeko Tarteko Artxibo Militarra (Ferrol)

Kontsultatutako prentsa

- El Día* (1931-1936)
- El Diario Vasco* (1935-1936)
- El Liberal* (1931-1936)
- El Pueblo Vasco* (1934-1936)
- Euzkadi* (1931-1936)
- Euzkadi Roja* (1933-1936)
- Euzko Deya* (1937)
- Frente Popular* (1936)
- La Constancia* (1931-1936)
- La Voz* (1937)
- La Voz de Guipúzcoa* (1931-1936)

Liburuak eta artikulak

- ABELLA, Rafael: *Por el Imperio hacia Dios*. Planeta. Bartzelona, 1978.
- AGIRREBEÑA, Aintzane; ALBERDI, Itziar, MENDIGUREN, Xabier eta SARASUA, Asier: *Beasaingo Euskara. (Beasaingo paperak bilduma, 15. zkia)*. Beasaingo Udala, 2007.
- AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; eta ODRIOZOLA, Jon: *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Alberdania eta Hernaniko Udala. Hernani, 2007.
- AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. EHU. Euskal Herria, 2000.
- ALVAREZ TARDIO, Manuel: “La CEDA y la encrucijada de los conservadores católicos en los años treinta” in CAÑELLAS, Antonio (ed.): *Conservadores y tradicionalistas en la España del siglo XX* (37-71. or.). Ediciones Trea. Gijón, 2013.
- ALVAREZ TARDIO, Manuel; eta VILLA GARCIA, Roberto: “El impacto de la violencia anticlerical en la primavera de 1936 y la respuesta de las autoridades” in *Hispania Sacra* aldizkaria, 132. zkia., 2013.

Bibliografia

- ALVAREZ TARDIO, Manuel: "La CEDA y la democracia republicana" in DEL REY REGUILLO, Fernando (zuz.): *Palabras como puños. La intransigencia política en la Segunda República Española* (341-418. or). Tecnos. Madril, 2001, 412-413. eta 417-418. or.
- AMBOU, Juan: *Los comunistas en la resistencia nacional republicana*. Hispamerca. Madril, 1987.
- ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera*. Txalaparta. Tafalla, 2001.
- APAOLAZA POLO, Mikel: "Rescatados del olvido" in *Beasain Jaietan urtekaria*, 2013 (82-85. or.).
- AROSTEGUI, Julio: *Combatientes requetés en la Guerra Civil Española (1936-1939)*. La esfera de los libros. Madril, 2013.
- AROSTEGUI, Julio; MARCO, Jorge; eta GOMEZ BRAVO, Gutmaro (koord.): *De Genocidios, Holocaustos Exterminios... Sobre los procesos represivos en España durante la Guerra Civil y la Dictadura in Hispania Nova. Revista de historia contemporánea* aldizkari digitala. 10. zkia., 2012.
- ARRIETA ALBERDI, Leyre; eta BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Diputación y modernización: Gipuzkoa 1940-1975*. Gipuzkoako Aldundia. Donostia, 2003.
- ARTOLA, Miguel (ed.): *Historia de Donostia-San Sebastián*. Nerea argitaletxea, Donostiako Udala eta BBVA fundazioa. Donostia, 2000.
- ARTOLA, Miguel (ed.): *Donostiaren historia*. Donostiako Udala. Donostia, 2001.
- ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarte herrikoiak. (Beasaingo Paperak bilduma, 1 zk.)*. Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992.
- ASKOREN ARTEAN: *Hizkuntz ordezkapenaren nondik-norakoak Goierriin*. GEE Kultur Elkartea, Gerriko argitaletxea, Lazkao, 1992.
- ASKOREN ARTEAN: *Los trabajos forzados en la dictadura franquista. Bortxazko lanak diktadura frankistan* (46-61. or.). Memoriaren Bideak eta Geronimo de Uztariz Institutua. Iruñea, 2007.
- ASKOREN ARTEAN: *Cómo mueren los vascos. Testimonios póstumos de fusilados en Euzkadi por los invasores franquistas*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 2009.
- ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014.
- AVILES FARRE, Juan: *La izquierda burguesa y la tragedia de la II República*. Madrilgo Erkidego Autonomoa. Madril, 2006.
- AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970.
- BAHAMONDE, Antonio: *Un año con Queipo. Memorias de un nacionalista*. La Espuela de Plata, 2005.

- BAHAMONDE MAGRO, Angel (koord.): *La España del Frente Popular. L'Espagne du Front populaire* (37-60. or.). Mélanges de la Casa de Velazquez bilduma (41-1 lib.). Madril, 2011.
- BAKLANOFF, Eric: *La transformación económica de España y Portugal (la economía del franquismo y del salazarismo)*. Espasa-Calpe. Madril, 1980.
- BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi*. Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005.
- BARANDIARAN, Pia Maria: “Informe de Pia Maria de Baraindiaran” in BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi* (647-652. or.). Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005.
- BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995.
- BARANDIARAN FUNDAZIOA: *Jose Miguel Barandiaran. Diario personal. Volumen II (1936-1953). Durante los años de su exilio en el País Vasco continental*. Barandiaran Fundazioa. Ataun, Gipuzkoa, 2009.
- BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio: *La España de Franco (1939-1975). Economía*. Síntesis. Madril, 2001.
- BARCIELA LOPEZ, Carlos: “El mercado negro de productos agrarios en la posguerra, 1939-1953” in FONTANA, Josep (ed.): *España bajo el franquismo* (192-205. or.). Critica. Bartzelona, 1986.
- BARREIRO GORDILLO, Cristina: *El carlismo y su red de prensa en la Segunda República*. Actas Editorial. San Sebastian de los Reyes (Madril), 2003
- BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996.
- BARRUSO BARES, Pedro: *Verano y revolución. La guerra civil en Guipúzcoa*. R & B. Donostia, 1996.
- BARRUSO BARES, Pedro: *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*. Hiria. Donostia, 2005.
- BARRUSO BARES, Pedro; BLAZQUEZ BRIMEZ, Manuel; eta VILLANUEVA TELLERIA, Jose Mari: *Cien años de socialismo en Tolosa 1981-1991*. Tolosako Elkarte Sozialista. Tolosa, 1991.
- BARRUSO BARES, Pedro: “La represión en Guipúzcoa” in URGOITIA, Jose Antonio: *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi peninsular*. (I lib., II partea: *La caída de Guipúzcoa*), (315-334. or.). Sendoa. Oiartzun, 1984.
- BARRUSO BARES, Pedro: “Poder político y representación social en Guipúzcoa durante el primer franquismo (1936-1947) in *Spagna Contemporanea*, 16 zkia. (83-100. or.), 1999.

Bibliografía

- BARRUSO BARES, Pedro: “La represión del republicanismo en Guipúzcoa (1936-1945)” in *Cuadernos republicanos*, 40. zkia. (65-94. or.), 1999.
- BARRUSO BARES, Pedro: “La Falange en la formación de una nueva clase política a nivel local. Un estudio comparado: Guipúzcoa y La Rioja” in RUIZ CARNICER, Miguel Angel (koord.): *Falange. Las culturas políticas de fascismo en la España de Franco (1936-1975)*, II lib. (58-76. or.). Zaragozako Unibertsitatea. Zaragoza, 2013.
- BARRUTIABENGOA, Usoa; ELIAS, Nerea; GONZALEZ, Garoa eta RODRIGUEZ, Araitz: *Voces. Mujeres en la historia de Hernani (1936-1970)*. Hernaniko Udala. Hernani, 2004.
- BELAUSTEGI BEDIAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. EHU. Euskal Herria, 2014.
- BELDARRAIN, Pablo: *Historia crítica de la guerra en Euskadi (1936-37)*. Intxorta Kultur Elkarte. Oñati, 2012.
- BELEDO, Ane: *Gipuzkoa: Udal errepublikarretatik frankistetara*. Aranzadi eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Donostia, 2010.
- BLAZQUEZ BRIMEZ, Manuel: “Primer centenario 1891-1991. Agrupación Socialista de Tolosa” in BARRUSO BARES, Pedro; BLAZQUEZ BRIMEZ, Manuel; eta VILLANUEVA TELLERIA, Jose Mari: *Cien años de socialismo en Tolosa 1981-1991* (11-20. or.). Tolosako Elkarte Sozialista. Tolosa, 1991.
- BLINKHORN, Martin: *Carlismo y contrarrevolución en España. 1931-1939*. Editorial Crítica. Bartzelona, 1979.
- BOX, Zira: *España, año cero. La construcción simbólica del franquismo*. Alianza Editorial. Madril, 2010.
- BUCES CABELLO, Javier: *Azpeitia, 1936-1945* (2 liburuki). Azpeitiko Udala, Eusko Jaurlaritzza eta Aranzadi Zientzia Elkarte. Azpeitia, 2016.
- CABANA IGLESIA, Ana: “Sobrellevar la vida. Memoria de resistencia y resistencias de la memoria al franquismo” in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel; FUERTES MUÑOZ, Carlos; HERNANDEZ BURGOS, Claudio eta MARCO, Jorge (ed.): *No sólo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura de Franco (1936-1977)* (97-108. or.), Comares. Granada, 2013.
- CALERO, Juan Pablo: “Vísperas de revolución. El Congreso de la CNT (1936)” in *Germinal* aldizkaria, 7. zkia. (97-132. or.), 2000.
- CALVO VICENTE, Candida: *Poder y consenso en Guipúzcoa durante el franquismo, 1936-1951*. Doktorego-tesia. Salamancako Unibertsitatea. Salamanca, 1994.
- CALVO VICENTE, Candida: “Las relaciones de poder en el ámbito local durante el primer franquismo: El caso de Guipúzcoa” in TRUJILLANO SANCHEZ, Jose Manuel (ed.): *Jornadas “Historia y fuentes orales”. Memoria y Sociedad en la España Contemporánea. Actas III Jornadas* (kongresuko aktak) (193-200. or.). Avilako Diputazioa. Avila, 1992.

- CALVO VICENTE, Candida: “Los gobernadores civiles en Guipúzcoa durante el primer franquismo” in TUSELL, Javier; SUEIRO, Susana; MARIN, Jose Maria; eta CASANOVA, Marina: *El régimen de Franco (1936-1975)*, I. lib. (Nazioarteko Kongresuaren aktak, Madril, 1993.eko maiatza) (19-27 or.). UNED. Madril, 1993.
- CALVO VICENTE, Candida: “El concepto del consenso y su aplicación al estudio del régimen franquista” in *Spagna Contemporanea*, 7. zkia. (141-158. or.), 1995.
- CALVO VICENTE, Candida: “Los límites del consenso franquista en Guipúzcoa. Las actitudes del nacionalismo vasco 1936-1942” in *II Encuentro de investigadores del franquismo* (Kongresuko aktak, II lib.) (29-36. or.). Alacanteko Diputazioa, Alacanteko Unibertsitatea eta Valentziako Unibertsitatea. Alacant, 1995.
- CALVO VICENTE, Candida: “La enseñanza en la zona rural guipuzcoana durante el primer franquismo” in *Vasconia. Cuadernos de historia-geografía*, 27. zkia. (165-176. or.), 1998.
- CANALES SERRANO, Antonio Francisco: “La lógicas de la victoria. Modelos de funcionamiento político local bajo el primer franquismo” in *Historia Social* aldizkaria, 56. zkia. (111-130. or.), 2006.
- CAÑABATE CABEZUELOS, Jose; eta MARTINEZ CARRION, Jose Miguel: “Crisis nutricional y pobreza bajo la dictadura franquista” in *XIV Congreso Internacional de Historia Agraria* (aktak). Badajoz, 2013.
- CAÑELLAS, Antonio (ed.): *Conservadores y tradicionalistas en la España del siglo XX*. Ediciones Trea. Gijon, 2013.
- CASAS SANCHEZ, Jose Luis; eta DURAN ALCALA, Francisco (eds.): *España ante la República. El amanecer de una nueva era, 1931. VI Congreso sobre el republicanismo* (kongresuko aktak) (31-62. or.). Kordobako Probintzi Diputazioa eta Niceto Alcalá-Zamora Partzuergoa. Kordoba, 2011.
- CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*. Madril, 1987.
- CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Siglo XXI. Madril, 1993.
- CAZORLA SÁNCHEZ, Antonio: *Las políticas de la victoria*. Marcial Pons. Madril, 2000.
- CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo, 1939-1975*. Alianza. Madril, 2016.
- CAZORLA SANCHEZ, Antonio: “La vuelta a la historia: caciquismo y franquismo” in *Historia Social* aldizkaria, 30. zkia. (119-132. or.), 1998.
- CENARRO LAGUNAS, Angela: *Cruzados y camisas azules. Los orígenes del franquismo en Aragón, 1936-1945*. Zaragozako Unibertsitatea-Prensas Universitarias. Zaragoza, 1997.
- CENARRO LAGUNAS, Angela: *La sonrisa de Falange. Auxilio Social en la guerra civil y en la posguerra*. Critica. Madril, 2006.

Bibliografía

- CENARRO LAGUNAS, Angela: “Instituciones y poder local en el “Nuevo Estado”” in JULIA, Santos (koord.): *República y guerra en España (1931-1939)* (421-447. or.). Espasa. Pozuelo de Alarcon (Madrid), 2006.
- CERVERO, Jose Luis: *Los rojos de la Guardia Civil*. La esfera de los libros. Madrid, 2006.
- CHUECA, Josu eta FERNANDEZ, Jose Luis: *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian*. Euskaldunon Egunkaria. Andoain, 1997.
- CILLAN APALATEGUI, Antonio: *Sociología electoral de Guipúzcoa (1900-1936)*. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia, 1975.
- CLEMENTE, Josep Carles: *El carlismo. Historia de una disidencia social (1833-1976)*. Ariel. Barcelona, 1990.
- COBO ROMERO, Francisco: “Aniceto de Castro Albarrán: de la rebeldía al alzamiento” in QUIROGA FERNANDEZ DE SOTO, Alejandro eta DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel (ed.): *Soldados de Dios y Apóstoles de la Patria. Las derechas españolas en la Europa de entreguerras* (271-300 or.). Comares Historia. Granada, 2010.
- CONTRERAS, Manuel: *El PSOE en la II República: organización e ideología*. CIS. Madrid, 1980.
- CRUZ, Rafael: *El Partido Comunista de España en la II República*. Alianza Universidad. Madrid, 1987.
- CRUZ, Rafael: *En el nombre del pueblo. República, rebelión y guerra en la España de 1936*. Siglo XXI. Madrid, 2006.
- DE BLAS GUERRERO, Andres: *El socialismo radical en la II República*. Tucur. Madrid, 1978.
- DE CARRERAS SERRA, Francesc: *Legislación electoral de la Segunda República*. Doktorego-tesia (argitaratu gabea). Barcelona, 1973.
- DE FELICE, Renzo: *Mussolini il Duce. Gli anni del consenso 1929-1934*. Einaudi. Torino, 1974.
- DE LA CIERVA, Ricardo: *Nueva y definitiva historia de la guerra civil española*. Epoca. Madrid, 1986.
- DE LA GRANJA SAINZ, Jose Luis: *Nacionalismo y II República en el País Vasco*. CIS. Madrid, 1986.
- DE LA GRANJA SAINZ, Jose Luis: *República y Guerra Civil en Euskadi. (Del Pacto de San Sebastián al de Santoña)*. HAEE-IVAP. Oñati, 1990.
- DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: “Morir de hambre. Autarquía escasez y enfermedad en al España del primer franquismo” in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea*, 5. zkia. (241-258. or.), 2006.

- DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel: ““Hombres nuevos”. El personal político del primer franquismo en el mundo rural del sureste español (1937-1951)” in *Ayer* aldizkaria, 65. zkia. (239-267. or.), 2007.
- DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel; FUERTES MUÑOZ, Carlos; HERNANDEZ BURGOS, Claudio; eta MARCO, Jorge (ed.): *No sólo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura franquista (1936-1977)*. Comares argitaletxea. Granada, 2013.
- DEL REY REGUILLO, Fernando: *Paisanos en lucha. Exclusión política y violencia en la Segunda República española*. Biblioteca nueva. Madril, 2008.
- DEL REY REGUILLO, Fernando (zuz.): *Palabras como puños. La intransigencia política en la Segunda República Española*. Tecnos. Madril, 2001.
- DEL REY REGUILLO, Fernando: “La República de los socialistas” in DEL REY REGUILLO, Fernando (zuz.): *Palabras como puños. La intransigencia política en la Segunda República Española* (158-225. or). Tecnos. Madril, 2001.
- DI FEBO, Guiliana: *Resistencia y Movimiento de Mujeres en España 1936-1976*. Icaria. L'Hospitalet de Llobregat (Bartzelona), 1979.
- DIAZ SANCHEZ, Pilar: “Las fuentes orales y su contribución a la renovación de la historia de España” in LEONE, Santiago; eta MENDIOLA, Fernando (koord.): *Voces e imágenes en la historia. Fuentes Orales y Visuales: Investigación histórica y renovación pedagógica* (37-52. or). Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea, 2005.
- DIAZ SANCHEZ, Pilar: “Las fuentes orales y la construcción de relatos biográficos: mujeres trabajadoras en la dictadura franquista” in LLONA, Miren (koord.): *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales* (187-216. or.). EHU. Bilbo, 2012.
- DOMINGUEZ PRATS, Pilar: “Ellas nos cuentan: los relatos de vida en la historia del exilio republicano en México” in LLONA, Miren (koord.): *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales* (161-186. or.). EHU. Bilbo, 2012.
- EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria* (8 liburuki). Aise liburuak. Andoain, 1999.
- EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria*. (IV lib., *La Guerra en Gipuzkoa*). Aise liburuak. Andoain, 1999.
- EGAÑA, Iñaki: *1936. Guerra Civil en Euskal Herria*. (VIII lib., *Los protagonistas de la guerra*). Aise liburuak. Andoain, 1999.
- EGAÑA, Iñaki: *Los crímenes de Franco en Euskal Herria. 1936-1940*. Txalaparta. Tafalla, 2009.
- EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993.
- EGUIGUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009.

Bibliografia

- ELIZONDO, Mauro: “Beasain: una noche sangrienta (27-28 de julio de 1936)” in *Ikuska* aldizkaria, 4. zkia (43-53. or.), 1993ko urria-abendua.
- ERIZE ETXEGARAI, Xabier: *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1963-1936. Soziolinguistika Historikoa eta Hizkuntza Gutxituen Bizitza*. Nafarroako Gobernu. Iruñea, 1997.
- ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa, 1936-1945* (3 liburuki). Tolosako Udala eta Aranzadi Zientzia Elkarte. Tolosa, 2013.
- ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945* (I lib., *La represión y la vulneración de los derechos humanos durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo*). Tolosako Udala eta Aranzadi. Tolosa, 2013.
- ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel: *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945* (II lib., *Listado de personas represaliadas y participantes durante la Guerra Civil*). Tolosako Udala eta Aranzadi. Tolosa, 2013.
- ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel eta AGIRRE MAULEON, Joantxo (ed.): *1936ko Gerra Euskal Herrian. Historia eta Memoria*. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia, 2009.
- ERRAZKIN AGIRREZABALA, Mikel eta SAIZAR AROSTEGI, Joxemi: *1936ko gerrako oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean*. Galtzaundi Euskara Taldea eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Tolosa, 2008.
- ESPINOSA MAESTRE, Francisco: *Guerra y represión en el Sur de España. Entre la historia y la memoria*. Valentziako Unibertsitatea. Valentzia, 2010.
- ESPINOSA MAESTRE, Francisco; eta GARCIA MARQUEZ, Jose Maria: *Por la religión y la patria. La iglesia y el golpe militar de julio de 1936*. Critica. Bartzelona, 2014.
- ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950*. Critica. Bartzelona, 2010.
- ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “Introducción” in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950* (8-13. or.). Critica. Bartzelona, 2010.
- ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “La represión franquista: un combate por la historia y la memoria” in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950* (15-78. or.). Critica. Bartzelona, 2010.
- ESPINOSA MAESTRE, Francisco eta GARCIA MARQUEZ, Jose Maria: “La desinfección del solar patrio. La represión judicial militar: Huelva (1936-1945)” in NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: *La gran represión. Los años de plomo del franquismo* (285-429. or.). Flor de Viento argitaletxea. Bartzelona, 2009.

- ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “De saturaciones y olvidos. Reflexiones en torno a un pasado que no puede volver a pasar” in *Hispania Nova. Revista de historia contemporánea* aldizkari digitala. 7. zkia., 2007.
- ESPINOSA MAESTRE, Francisco: “La guerra en torno a la historia que ha de quedar” in AROSTEGUI, Julio; MARCO, Jorge; eta GOMEZ BRAVO, Gutmaro (koord.): *De Genocidios, Holocaustos Exterminios... Sobre los procesos represivos en España durante la Guerra Civil y la Dictadura* in *Hispania Nova. Revista de historia contemporánea* aldizkari digitala. 10. zkia., 2012.
- ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia: *La construcción de la nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931)*. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1990.
- ESTRUCH, Joan: *Historia del P.C.E. (1) (1920-1939)*. El Viejo Topo. Sant Adrià del Besòs (Bartzelona), 1978.
- ETXEBARRIA, Toribio: *Viaje por el país de los recuerdos*. Sociedad guipuzcoana de editores. Donostia, 1990.
- EUSKALTZAINDIA eta SIADECO: *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Euskaltzaindia. Bilbo, 1979.
- EUSKO JAURLARITZA: *Cómo mueren los vascos. Testimonios póstumos de fusilados en Euzkadi por los invasores franquistas*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 2009.
- FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco. 1100-1850*. Siglo XXI. Madril, 1974.
- FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano eta HERNANDEZ, J.L.: *La industrialización del norte de España*. Critica eta EHU. Bartzelona, 1988.
- FERNANDEZ IRURITA, Jose: “Testimonio: José Fernández Irurita” in BARRUSO BARES, Pedro; BLAZQUEZ BRIMEZ, Manuel; eta VILLANUEVA TELLERIA, Jose Mari: *Cien años de socialismo en Tolosa 1981-1991 (69-92 or.)*. Tolosako Elkarte Sozialista. Tolosa, 1991.
- FERRARIS, Maria Carolina: *Entre la utopía fascista y el pragmatismo. Ideología y economía en el franquismo. 1945-1970*. Capital Intelectual. Madril, 2009.
- FONTANA, Josep (ed.): *España bajo el franquismo*. Critica. Bartzelona, 1986.
- FRASER, Ronald: *Recuérdalo tú y recuérdalo a otros. Historia oral de la guerra civil española*. Critica. Bartzelona, 2007.
- FUERTES MUÑOZ, Carlos: “La representación de las actitudes políticas de los españoles en la prensa extranjera (1960-1975) in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel; FUERTES MUÑOZ, Carlos; HERNANDEZ BURGOS, Claudio; eta MARCO, Jorge (ed.): *No sólo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura franquista (1936-1977)* (111-126. or.), Comares. Granada, 2013.
- FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975.

Bibliografía

- FUSI AIZPURUA, Juan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madrid, 1979.
- GARAI, Juan Ramon: *Celestino Uriarte. Clandestinidad y resistencia comunista*. Txalaparta. Tafalla (Nafarroa), 2008.
- GARAI BENGEOA, Juan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución, insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkarte. Oñati, 2014.
- GARATE OJANGUREN, Montserrat eta MARTIN RUDI, Javier: *Cien años de vida económica de San Sebastián (1887-1987)*. Gipuzkoa Donostia Kutxaren gizarte ekintza. Donostia, 1995.
- GARCIA ABAD, Rocio; GONZALEZ PORTILLA, Manuel; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, Jose; eta ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele: ““Leer y escribir”: desarrollo y modernización social. El País Vasco a través de Gipuzkoa (1877-1930)” in GONZALEZ PORTILLA, Manuel; BEASCOECHEA GANGOITI, Jose Maria; eta ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele (ed.): *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea*. (311-341. or.). EHU. Bilbo, 2001.
- GARCIA MARQUEZ, Jose Maria: “El triunfo del golpe militar” in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950* (79-145. or.). Critica. Bartzelona, 2010.
- GARCIA PRIETO, Milagros; VELASCO BARROETABEÑA, Roberto; eta MENDIZABAL GOROSTIAGA, Arantza: *La economía vasca durante el franquismo. Crecimiento y crisis de la economía vasca: 1936-1980*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo, 1981.
- GARCIA URCELAYETA, Juan Jose: “Beasain: Una noche sangrienta (27-28 de julio de 1936)”, in *Ikuska* aldizkaria, 3. zkia. (56-74. or.), 1993ko uztaile-iraila.
- GARITAONANDIA, Carmelo eta DE LA GRANJA, Jose Luis (ed.): *La Guerra Civil en el País Vasco. 50 años después*. EHU. Bizkaia, 1987.
- GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkarte. Oñati, 2004.
- GARMENDIA, Vicente: *Jaungoicoa eta foruac. El carlismo vasconavarro frente a la democracia española (1868-1872)*. Autoedizioa eta EHU. Bilbo, 1999.
- GIBAJA VELAZQUEZ, Jose Carlos: *Indalecio Prieto y el socialismo español*. Pablo Iglesias argitaletxea. Madrid, 1995.
- GIL PECHARROMAN, Julio: *Renovación Española. Una alternativa monárquica a la Segunda República* (bi liburuki). Doktorego tesia. Madrilgo Complutense Unibertsitatea. 1983.
- GIL VICO, Pablo: “Derecho y ficción” in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950* (249-346. or.). Critica. Bartzelona, 2010.

- GILLESPIE, Richard: *Historia del Partido Socialista Obrero Español*. Alianza Universidad. Madrid, 1991.
- GOITIA OSTOLAZA, Francisco: *Autonomía Mundial. Concepto moderno de la autonomía y su aplicación a las regiones españolas*. Librería Científico-Literaria de Jose Agusti. Bartzelona, 1907.
- GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: *Contrarrevolucionarios. Radicalización violenta de las derechas durante la Segunda República, 1931-1936*. Alianza Editorial. Madrid, 2011.
- GONZALEZ CALLEJA, Eduardo; eta NAVARRO COMAS, Rocio: *La España del Frente Popular. Política, sociedad, conflicto y cultura en la España de 1936*. Comares Historia. Granada, 2011.
- GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: “José María Gil Robles: ¿Quién soy yo?” in QUIROGA FERNANDEZ DE SOTO, Alejandro eta DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel (ed.): *Soldados de Dios y Apóstoles de la Patria. Las derechas españolas en la Europa de entreguerras* (304-329. or.). Comares Historia. Granada, 2010.
- GONZALEZ CALLEJA, Eduardo: “La necro-lógica de la violencia sociopolítica en la primavera de 1936” in BAHAMONDE MAGRO, Angel (koord.): *La España del Frente Popular. L’Espagne du Front populaire* (37-60. or.). Mélanges de la Casa de Velazquez bilduma (41-1 lib.). Madrid, 2011.
- GONZALEZ CUEVAS, Pedro Carlos: *El pensamiento político de la derecha española en el siglo XX. De la crisis de la Restauración al Estado de partidos (1898-2000)*. Tecnos. Madrid, 2005.
- GONZALEZ CUEVAS, Pedro Carlos: “Ramiro de Maeztu: ese desconocido” QUIROGA FERNANDEZ DE SOTO, Alejandro eta DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel (ed.): *Soldados de Dios y Apóstoles de la Patria. Las derechas españolas en la Europa de entreguerras* (93-120. or.). Comares Historia. Granada, 2010.
- GONZALEZ PORTILLA, Manuel; BEASCOECHEA GANGOITI, Jose Maria; eta ZARRAGA SANGRONIZ, Karmele (ed.): *Procesos de transición, cambio e innovación en la ciudad contemporánea*. EHU. Bilbo, 2001.
- GONZALEZ PORTILLA, Manuel; eta GARMENDIA, Jose Maria: *La posguerra en el País Vasco. Política, Acumulación, Miseria. Kriselu*. Donostia, 1988.
- GOZALO, J.: “Ekonomia komunikazioak eta merkataritza-jarduera” in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain: Udalerrri gipuzkoar baten historia*. Beasaingo Udala, Beasain, 1987.
- GURRUTXAGA, Ander: *Estructura y progresos sociales en el País Vasco*. EHU. Euskal Herria, 1991.
- GUTIERREZ AROSA, Jesus: *La Guerra Civil en Eibar y Elgeta*. Eibarko Udala eta Elgetako Udala. Eibar eta Elgeta, 2007.
- HERNANDEZ BURGOS, Claudio: “Mucho más que egoísmo y miedo: Las actitudes de los españoles durante la Guerra Civil (1936-1939)” in DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel; FUERTES MUÑOZ, Carlos; HERNANDEZ BURGOS, Claudio eta

Bibliografía

MARCO, Jorge (ed.): *No sólo miedo. Actitudes políticas y opinión popular bajo la dictadura de Franco (1936-1977)* (33-46. or.), Comares. Granada, 2013, 38. eta 46. or.

-HERNANDEZ MARCO, J. L. eta PIQUERO ZARAUZ, Santiago: “Demografía e industrialización en el País Vasco” in FERNANDEZ DE PINEDO eta HERNANDEZ, J.L.: *La industrialización del norte de España*. Critica eta EHU. Bartzelona, 1988.

-HERNANDEZ SANCHEZ, Fernando: *Guerra o Revolución. El Partido Comunista de España en la guerra civil*. Critica. Bartzelona, 2010.

-HOLGADO HERNANDEZ, Fernando; eta GASTON, Jose Miguel: “Frankismoaren esklabuak: emakume presoen lana” in ASKOREN ARTEAN: *Los trabajos forzados en la dictadura franquista. Bortxazko lanak diktadura frankistan* (104-116. or.). Memoriaren Bideak eta Geronimo de Uztariz Institutua. Iruñea, 2007.

-HUNTINGTON, Samuel; eta MOORE; Barrington: *Authoritarian Politics in Modern Society*. Basic Books. New York/Londres, 1970.

-INTXORTA KULTURA TALDEA: *1936ko Gerra Bergaran*. Bergarako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Bergara, 2015.

-IRAOLA, Jose Vicente: “Informe de Jose Vicente Iraola” in BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi* (351-353. or.). Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005.

-IRIGORAS, Angel: *Herri zapalkuntzaren lekuko batzuk. 1936-2006 Lehen orain eta beti: Eskubide berdinak pertsona guztientzat*. Erroteta. Bizkaia, 2006.

-ITURRALDE, Juan: *El catolicismo y la cruzada de Franco* (3 liburuki). Egi-Indarra. Paris, 1965.

-ITURRALDE, Juan: *El catolicismo y la cruzada de Franco*. (II. lib.: *Cómo siguió y trinfó la cruzada*). Egi-Indarra. Paris, 1965.

-ITURRALDE, Juan: *La Guerra de Franco. Los vascos y la Iglesia* (2 liburuki). Publicaciones Clero Vasco. Donostia, 1978.

-ITURRALDE, Juan: *La guerra de Franco, los vascos y la Iglesia* (1. lib.: *Quiénes y con qué fin prepararon la guerra y cómo comenzó*). Publicaciones Clero Vasco. Donostia, 1978.

-JACKSON, Gabriel: *La república española y la Guerra Civil 1931-1939*. Critica. Bartzelona, 1967.

-JIMENEZ DE ABERASTURI, Juan Carlos “Protagonistas de la Historia Vasca 1923-1950: Sebastian Zapiain”. Eusko Ikaskuntzaren *Cuadernos de Sección de Historia y Geografía* aldizkaria, Donostia, 1984.

-JIMENEZ DE ABERASTURI, Luis Maria eta JIMENEZ DE ABERASTURI, Juan Carlos: *La Guerra en Euskadi*. Txertoa. Andoain, 2007.

-JOUTARD, Philippe: *Esas voces que nos llegan del pasado. Fondo de cultura económica*. Mexiko Hiria, 1986. or.

-JULIA, Santos: *La izquierda del PSOE (1935-1936)*. Siglo XXI. Madril, 1977.

- JULIA, Santos (koord.): *República y guerra en España (1931-1939)*. Espasa. Pozuelo de Alarcon (Madril), 2006.
- JULIA, Santos: “De nuestras memorias y de nuestras miserias” in *Hispania Nova. Revista de historia contemporánea*. aldizkari digitala, 7. zkia., 2007.
- LARRINAGA, Carlos: *Diputaciones Provinciales e Infraestructuras en el País Vasco durante el primer tercio del siglo XX (1900-1936). El caso guipuzcoano (puertos, ferrocarriles y carreteras)*. EHU. Bizkaia, 2013.
- LARRAÑAGA, Policarpo: *Contribución a la historia obrera del País Vasco* (2 lib.). Aranzadi. Donostia, 1976-77.
- LASA BERGARA, Xabier: *Historia oral: La voz dormida en la memoria. El impacto de la Guerra Civil (1936-1939) en la vida social de un pueblo de Gipuzkoa*. Andoaingo Udala, Udalbiltza eta Aranzadi Zientzia Elkarte. Andoain, 2006.
- LEDESMA; Jose Luis: “Una retaguardia al rojo” in ESPINOSA MAESTRE, Francisco (koord.); GARCIA MARQUEZ, Jose Maria; GIL VICO, Pablo; eta LEDESMA, Jose Luis: *Violencia roja y azul. España 1936-1950* (147-247. or.). Critica. Bartzelona, 2010.
- LEGARRA BELASTEGUI, Miguel: *De la calle Pi i Margall al Tercio de San Miguel (Recuerdos de un requeté)*. Actas argitaletxea. Madril, 2008.
- LEGORBURU FAUS, Elena: “Fabrika haundie”. *Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996.
- LEONE, Santiago; eta MENDIOLA, Fernando (koord.): *Voces e imágenes en la historia. Fuentes Orales y Visuales: Investigación histórica y renovación pedagógica* (53-57. or.). Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea, 2005.
- LINZ, Juan Jose: “From Falange to Movimiento-Organización: The Spanish Single Party and the Franco regime, 1936-1968” in HUNTINGTON, Samuel; eta MOORE; Barrington: *Authoritarian Politics in Modern Society* (128-203. or.). Basic Books. New York/Londres, 1970.
- LLONA, Miren (koord.): *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*. EHU. Bilbo, 2012.
- LLONA, Miren: “Historia oral: la exploración de las identidades a través de la historia de la vida” in LLONA, Miren (koord.): *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales* (15-60. or.). EHU. Bilbo, 2012.
- LLONA, Miren: “Historia, memoria y oralidad” in LEONE, Santiago; eta MENDIOLA, Fernando (koord.): *Voces e imágenes en la historia. Fuentes Orales y Visuales: Investigación histórica y renovación pedagógica* (53-57. or.). Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea, 2005.
- LOPEZ, German: “Un estudio sobre la reforma electoral conservadora de 1907 y sus posibilidades democratizadoras” in *Saitabi. Revista de la Facultat de Geografia i Història* aldizkaria, 48. zkia. (185-210. or.), 1998.

Bibliografia

- LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain. Udalerri gipuzkoar baten historia*. Beasaingo Udala. Beasain, 1987.
- LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Gerra Zibila: Beasainen erorketa” in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain, Udalerri gipuzkoar baten historia* (269-277. or.). Beasaingo Udala. Beasain, 1987.
- LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Las crisis decimonónicas en Beasain” in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain. Udalerri gipuzkoar baten historia* (247. eta hurrengo or.). Beasaingo Udala. Beasain, 1987.
- LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Transición de la sociedad preindustrial a una sociedad industrializada en el Goierri: La Fábrica de Hierros de Beasain” in *II Congreso Mundial Vasco-Congreso de Historia de Euskal Herria* (aktak), 85-97. or., Donostia, 1988.
- LOPEZ ROMO, Raul; LOSADA URIGUEN, Maria; eta CARNICERO HERREROS, Carlos: *Rojo esperanza. Los socialistas vascos contra el franquismo*. Mario Onaindia fundazioa. Gasteiz, 2013.
- LUENGO, Felix: *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa 1917-1923*. Bilbo, 1990.
- LUENGO, Felix: *San Sebastián. La vida cotidiana de una ciudad*. Txertoa. Donostia, 1984.
- LUENGO TEIXIDOR, Felix: “Oroimenean hurbil: 1936-2000” in ARTOLA, Miguel (ed.): *Donostiaren historia* (145-180. or.). Donostiako Udala. Donostia, 2001.
- MARIN I CORBERA, Marti: “Falange y poder local” in RUIZ CARNICER, Miguel Angel (ed.): *Falange. Las culturas políticas del fascismo en la España de Franco (1936-1975)* (231-252. or.). Zaragozako Diputazioa. Zaragoza, 2013.
- MARTI GOMEZ, Jose: *La España del Estraperlo*. Planeta. Bartzelona, 1995.
- MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA: *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012.
- MARTIN RAMOS, Jose Luis: *El Frente Popular. Victoria y derrota de la democracia en España*. Pasado & Presente. Bartzelona, 2015.
- MARTIN RUBIO, Angel David: *Paz, piedad, perdón... y verdad. La represión en la guerra civil: una síntesis definitiva*. Fenix argitaletxea. Toledo, 1997.
- MARTINEZ REVERTE, Jorge: *La División Azul. Rusia, 1941-1944*. RBA. Bartzelona, 2011.
- MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992.
- MENDIOLA, Fernando; eta BEAUMONT, Edurne: *Esclavos del franquismo en el Pirineo. La carretera Igal-Vidángoz-Roncal (1939-1941)*. Txalaparta. Tafalla, 2006.
- MENDIOLA GONZALO, Fernando: “Frankismo garaiko bortxazko lanen antolaketa legala eta ondorio sozioekonomikoak” in ASKOREN ARTEAN: *Los trabajos forzados*

en la dictadura franquista. *Bortxazko lanak diktadura frankistan* (46-61. or.). Memoriaren Bideak eta Geronimo de Uztariz Institutua. Iruñea, 2007.

-MENDIZABAL, Arantza; eta SERRANO, Felipe: “La política industrial del franquismo: su influencia en la industria vasca” in *Ekonomiaz aldizkariak*, 9-10. zkia. (301-322. or.), 1988.

-MENDIZABAL, Jose Manuel; LASA, Jose Luis; eta AGIRRE, Fernando: *Gudaris y rehenes de Franco (1936-1943). Diarios*. Alberdania. Zarautz, 2006.

-MENDIZABAL, Veremundo: “Informe del P. Veremundo Mendizabal” in BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi* (119-120. or.). Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005.

-MENDIZABAL ARANBURU; Antxiñe: *II. Errepublika Urretxun eta Zumarragan (1931-1936). Gerra Zibilaren atarian*. Urretxuko Udala, Zumarragako Udala, Eusko Jaurlaritzza eta Gipuzkoa Donostia Kutxaren gizarte fundazioa. Urretxu-Zumarraga, 1996.

-MOLINERO, Carme; eta YSAS, Pere: “Economía y sociedad en el franquismo” in MORENO FONSERET, Roque; eta SEVILLANO CALERO, Francisco (ed.): *El franquismo: visiones y balances* (271-296. or.). Alacanteko Unibertsitatea. Alacant, 1999.

-MOLINERO, Carme eta YSAS, Pere: “Las condiciones de vida y laborales durante el primer franquismo. La subsistencia; ¿un problema político?” in *Historia Ekonomikoaren Elkartearen VII Biltzarra* (aktak). Zaragoza, 2001.

-MONTERO, Jose R.: *La CEDA. El catolicismo social y político en la II República* (I lib.). Ediciones de la Revista de Trabajo. Madril, 1977.

-MONTERO DIAZ, Julio: *El Estado carlista*. Aportes XIX. Madril, 1992.

-MONTES, Pablo: “El radicalismo político y el Frente Popular. Una reflexión crítica” in GONZALEZ CALLEJA, Eduardo; eta NAVARRO COMAS, Rocio: *La España del Frente Popular. Política, sociedad, conflicto y cultura en la España de 1936* (9-20. or.). Comares Historia. Granada, 2011.

-MORENO FONSERET, Roque; eta SEVILLANO CALERO, Francisco (ed.): *El franquismo: visiones y balances*. Alacanteko Unibertsitatea. Alacant, 1999.

-MUGICA, Serapio: *Provincia de Guipúzcoa*. Alberto Martin. Bartzelona, 1915.

-NARBAIZA AZKUE, Antxon: *Akilino Amuategi (1877-1919). XX. mende hasierako mitinlari sozialista*. Eibarko Udala. Astigarraga, 1984.

-NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: *Mujeres caídas*. Oberon. Madril, 2003.

-NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: *La gran represión. Los años de plomo del franquismo*. Flor de Viento argitaletxea. Bartzelona, 2009.

-NUÑEZ DIAZ-BALART, Mirta: “El porqué y para qué de la represión” in NUÑEZ DIAZ-BALART (zuz.): *La gran represión. Los años de plomo del franquismo* (21-52 or.). Flor de Viento argitaletxea. Bartzelona, 2009.

Bibliografía

- NUÑEZ SEIXAS, Xose Manoel: *Camarada invierno. Experiencia y memoria de la División Azul (1941-1945)*. Critica. Bartzelona, 2016.
- OLCINA, Evarist: *El carlismo y las autonomías regionales*. Hora H. Madril, 1974
- OKTUBRE TALDEA: *Arrasate 1936. Belaunaldi etena*. Autoedizioa. Arrasate, 1986.
- OKTUBRE TALDEA: *Arrasate 1936. Una generación cortada*. Arabera. Arrasate, 2003.
- ONTAÑON, Antonio: *Rescatados del olvido*. Autoedizioa. Santander, 2004.
- PELLETIER, Jean: *Seis meses en las prisiones de Franco. Crónica de los hechos vividos*. Madril, 1937.
- PEREZ GARZON, Juan Sisinio: “Sobre las fuentes orales y las realidades virtuales: reflexiones a propósito de los registros de las experiencias discontinuas” in LEONE, Santiago; eta MENDIOLA; Fernando: *Voces e imágenes en la historia. Fuentes Orales y Visuales: Investigación histórica y renovación pedagógica (59-73. or.)*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea, 2005.
- PRADA RODRIGUEZ, Julio: *La España masacrada. La represión franquista de la guerra y posguerra*. Alianza argitaletxea. Madril, 2010.
- PRADA RODRIGUEZ, Julio: “Violencia política y protesta social durante la primavera trágica. Su contribución a la estrategia del “cuanto peor, mejor”” in GONZALEZ CALLEJA, Eduardo; eta NAVARRO COMAS, Rocio: *La España del Frente Popular. Política, sociedad, conflicto y cultura en la España de 1936 (121-137. or.)*. Comares Historia. Granada, 2011.
- PRESTON, Paul: *Las derechas españolas en el siglo XX: autoritarismo, fascismo y golpismo*. Editorial Sistema. Madril, 1986.
- QUIROGA FERNANDEZ DE SOTO, Alejandro eta DEL ARCO BLANCO, Miguel Angel (ed.): *Soldados de Dios y Apóstoles de la Patria. Las derechas españolas en la Europa de entreguerras*. Comares Historia. Granada, 2010.
- RANZATO, Gabriele: *El gran miedo de 1936. Cómo España se precipitó en la guerra civil*. La Esfera de los libros. Madril, 2014.
- RICHARDS, Michael: *Un tiempo de silencio. La guerra civil y la cultura de la represión en la España de Franco, 1936-1945*. Critica. Bartzelona, 1999.
- RODERO, Joaquin; MORENO, Juan; eta CASTRILLO, Jesus (ed.): *Represión franquista en el Frente Norte*. Eneida. Leon, 2008.
- RODRIGO, Javier: *Cautivos. Campos de concentración en la España franquista, 1936-1947*. Critica. Bartzelona, 2005.
- RODRIGO, Javier: *Hasta la raíz. Violencia durante la Guerra Civil y la dictadura franquista*. Alianza argitaletxea. Madril, 2008.
- RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Kutxaren Fundazio Kulturala. Donostia, 1994; VALVERDE, Dolores: *Historia de Guipúzcoa*. Txertoa. Donostia, 1984.

- ROMEU ALFARO, Fernanda: *El silencio roto. Mujeres contra el franquismo*. Autoedizioa. Oviedo, 1994.
- RUEDA, Jose Carlos (ed.): *Legislación electoral española (1808-1975)*. Ariel. Bartzelona, 1998.
- RUIZ CARNICER, Miguel Angel (ed.): *Falange. Las culturas políticas del fascismo en la España de Franco (1936-1975)*. . Zaragozako Diputazioa. Zaragoza, 2013.
- RUIZ MANJON, Octavio: “Partidos elecciones y una nueva clase política” in CASAS SANCHEZ, Jose Luis; eta DURAN ALCALA, Francisco (eds.): *España ante la República. El amanecer de una nueva era, 1931. VI Congreso sobre el republicanismo* (kongresuko aktak) (31-62. or.). Kordobako Probintzi Diputazioa eta Niceto Alcala-Zamora Partzuergoa. Kordoba, 2011.
- RUIZ TORRES, Pedro: “Los discursos de la memoria histórica en España” in *Hispania Nova. Revista de historia contemporánea* aldizkari digitala. 7. zkia., 2007.
- SALAS LARRAZABAL, Ramon: *Pérdidas de la guerra*. Planeta. Bartzelona, 1977.
- SALAS LARRAZABAL, Ramon: *Historia general de la guerra de España*. Rialp. Madril, 1986.
- SANCHEZ PEREZ, Francisco: “Las protestas del trabajo en la primavera de 1936” in BAHAMONDE MAGRO, Angel (koord.): *La España del Frente Popular. L’Espagne du Front populaire* (77-101. or.). Mélanges de la Casa de Velazquez bilduma (41-1 lib.). Madril, 2011.
- SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros políticos intermedios del régimen franquista, 1936-1959. Diversidad de origen e identidad de intereses*. Alacanteko Diputazioa eta Valentziako Generalitatea. Alacant, 1996.
- SAND, Shlomo: *La invención del pueblo judío*. Akal. Madril, 2014.
- SANZ HOYA, Julian: “Jerarcas, caciques y otros camaradas. El estudio de los poderes locales en el primer franquismo” in *Historia del presente*, 15. zkia. (9-26. or.), 2010.
- SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: *Beasain Jaietan* urtekaria. 1987.
- SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: “Euskara Beasainen azken mendeetan” in SIADECO: *Euskara Beasainen* (7-18. or.). Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua. Beasain, 1990.
- SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: “Beasain” in ASKOREN ARTEAN idatzitako *Hizkuntz ordezkapenaren nondik-norakoak Goierriin*, Gerriko argitaletxea, Lazkao, 1992.
- SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: *Alfabetatzearen hastapenak Goierriin*. Goierriko Euskal Eskola K. E., 2000.
- SAZ CAMPOS, Ismael: *Fascismo y franquismo*. Valentziako Unibertsitatea. Valentzia, 2004.

Bibliografia

- SEVILLA BENITO, Francisco: *Sociedad y regionalismo en Vázquez de Mella. La sistematización doctrinal del carlismo*. Actas Editorial. San Sebastian de los Reyes (Madril), 2009
- SIADECO: *Euskara Beasainen* (7-18. or.). Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua. Beasain, 1990.
- THOMPSON, Paul: *La voz del pasado. Historia oral*. Edicions Alfons el Magnàmin. Valentzia, 1988.
- TORREALDAI, Joan Mari: *El libro negro del euskera*. Ttartalo, Donostia, 1998.
- TORTELLA, Gabriel: *El desarrollo de la España contemporánea. Historia económica de los siglos XIX y XX*. Alianza. Madril, 1994.
- TRANFAGLIA, Nicola: *Labirinto italiano. Il fascismo, l'antifascismo, gli storici*. La Nuova Italia, 1989.
- TRANFAGLIA, Nicola: *La prima guerra mondiale e il fascismo*. UTET, Torino, 1995.
- TRANFAGLIA, Nicola: "Coerzione e "consenso"" in TRANFAGLIA, Nicola: *Labirinto italiano. Il fascismo, l'antifascismo, gli storici*. La Nuova Italia, 1989.
- TRUJILLANO SANCHEZ, Jose Manuel (ed.): *Jornadas "Historia y fuentes orales". Memoria y Sociedad en la España Contemporánea. Actas III Jornadas* (kongresuko aktak). Avilako Diputazioa. Avila, 1992.
- TUSELL GOMEZ, Javier: *Las elecciones del Frente Popular* (2 liburuki). Cuadernos para el diálogo. Madril, 1971.
- TUSELL, Javier: *Las Constituyentes de 1931: unas elecciones de transición*. CIS. Madril, 1982.
- TUSELL, Javier; SUEIRO, Susana; MARIN, Jose Maria; eta CASANOVA, Marina: *El régimen de Franco (1936-1975)*, I. lib. (Nazioarteko Kongresuaren aktak, Madril, 1993.eko maiatza). UNED. Madril, 1993.
- UGARTE, Cesareo: "Usurbe Elkartea" in ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarte herrikoiak*. (Beasaingo Paperak bilduma, 1. zk.) (13-19 or.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992.
- UGARTE TELLERIA, Javier: *La nueva Covadonga insurgente*. Biblioteca nueva. Madril, 1998.
- ULL PONT, Eduardo: "El sufragio universal en España (1890-1936)" in *Revista de Estudios Políticos* aldizkaria, 208-209. zkia, (105-130. or.), 1976.
- URGOITIA, Jose Antonio: *Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi peninsular*. (3 liburuki), (193-233. or.). Sendoa. Oiartzun, 1984.
- URGOITIA, Jose Antonio: *Cronica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi peninsular*. (I lib.: *La caída de Guipúzcoa*). Sendoa. Oiartzun, 1984.

- URGOITIA BADIOLA, Jose Antonio: “La insurrección en Guipúzcoa” in URGOITIA, Jose Antonio: *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en la Euzkadi peninsular*. (I lib., I partea: *La caída de Guipúzcoa*), (193-233. or.). Sendoa. Oiartzun, 1984.
- USOBIAGA, Juan (=Juan Iturralde): “Informe del P. Juan Usobiaga” in BARANDIARAN, Jose Miguel: *La Guerra Civil en Euzkadi* (233-248. or.). Bidasoa-Instituto de Historia Contemporánea. Milafranga (Lapurdi), 2005.
- VALVERDE, Dolores: *Historia de Guipúzcoa*. Txertoa. Donostia, 1984.
- VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: “Guipuzcoanos en los batallones del Frente Popular de Euzkadi (1936-1937)” in *Bilduma*, 10. zkia. (45-85. or.), 1996.
- VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: “Guipuzcoanos en las milicias de ANV durante la Guerra Civil (1936-1937)” in *Bilduma*, 11 zkia. (81-104. or.), 1997.
- VARGAS ALONSO, Francisco Manuel: “Gudaris guipuzcoanos en el “Euzko Gudarostea” (1936-1937)” in *Bilduma*, 13. zkia. (191-236. or.), 1999.
- VEGA SOMBRÍA, Santiago: *La política del miedo. El papel de la represión en el franquismo*. Critica. Bartzelona, 2011.
- VELASCO NUÑEZ, Alfredo: *Euskal Milizia Antifaxistak Espainiar Faxista Altxamenduan Zehar (1936-1939)*. DDT Liburuak. Bilbo, 2014.
- VILLA GARCIA, Roberto: *España en las urnas. Una historia electoral (1810-2015)*. Catarata. Madril, 2016.
- VILLA GARCIA, Roberto: “Obreros no votéis. La CNT y el Frente Popular en las elecciones de 1936” in *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea aldizkaria*, 13. zkia. (173-196. or.), 2014.
- VILLALAIN, Pablo: *Las elecciones municipales de 1931 en Madrid*. El Avapies. Madril, 1987.
- VINYES, Ricard: *Irredentas. Las presas políticas y sus hijos en las cárceles franquistas*. Temas de Hoy. Madril, 2002.
- ZUFIAURRE GOYA, Jose: “Beasaingo etnografia” in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain. Udalerrri gipuzkoar baten historia*. 1987.
- ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia (Beasaingo paperak 4. zk.)*. Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1995.
- ZUFIAURRE GOYA, Jose: “Alcaldes de Beasain” in *Beasain Jaietan* urtekaria, 2001 (17-21. or.).
- ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Irakaskuntza Beasainen*. (Beasaingo Paperak bildumako 23. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 2015.
- ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zkia.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993.

Bibliografia